HITZEN ORDENA EUSKARAZ

Bittor Hidalgo Eizagirre

Udako Euskal Unibertsitatea

© Bittor Hidalgo Eizagirre
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-071-8

Argitaratzailea: UEU. Erribera 14, 1.D, 48005 Bilbo. http://www.ueu.org

URL: http://www.inguma.org/tesiak/Hidalgo_Eizagirre_1995.pdf

Nola aipatu argitalpen hau:

Hidalgo Eizagirre, Bittor. *Hitzen ordena euskaraz* [linean]. [Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea], 2005. http://www.inguma.org/tesiak/Hidalgo_Eizagirre_1995.pdf [kontsulta: Urtea/hilea/eguna]

Edizio honen ontzailea:

EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN DATU-BASEA
http://www.inguma.org
inguma@ueu.org

OHARRA: Galarazita dago dokumentu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, Copyright-jabearen baimenik gabe. Dokumentu honen erabilera bakarra Jabego Intelektualaren legeak 31. eta 32. artikuluetan jasota dakarrena izango da.

Hitzen Ordena Euskaraz

Egilea: Victor Hidalgo Eizagirre

Zuzendaria: Ibon Sarasola Errazkin

Donostia, Iraila 1994

HITZEN ORDENA EUSKARAZ

AURKIBIDEA

- Sarrera.
- Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak.
- Hitz ordenaren estatistikak euskaraz.
- Bibliografiak.

Sarrera

Tesi lan honek, lau atal nagusi erakusten ditu bi liburukitan banatuak, zertxobait hurbildu nahi gintuzkeenak, hitzen ordenak euskaraz erakutsi ohi dituen, eta erakusten dituen, ezaugarrietara.

Lehenego atalak, *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak* izenekoak, nahikoa azterketa zehatz eta sakona izan nahi luke, hitzen ordenak, euskarazko prosan jasan duen garapenarena, honen historia ezagunean. Eta gure literatura osoari begiratzeko, bereziki aukeratu dugu, euskal gramatikalarien ikuspegia historian zehar. Bai, beren iritzi teoriko, erreflexiboetan, nola beren, eta beren ingurukoen, praktika idatzietan. Hasi, XVII mendeko, Oihenart, Pouvreau, Micoleta eta Voltoiren lehen arrastoetatik, bukatzeko, jada XX mendean ondo barrena, Azkueren eragin neurtezinarekin. Guztia ematen da lehen liburuki honen hasieran.

Bigarren atalak, *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz* izenarekin, hurbildu nahi gintuzke pixkaren bat, eta iritzi extenporaneoetatik landa, hitz ordenaren errealitatera, euskal prosan; hala ahozkoan, nola idatzizkoan; bai gaur egunekoan, nola klasikoagoetara; iristeko finean, ondorio, gure ustez, jakingarrietara. Honen lehen atal bezala ematen da gainera, hainbat eztabaida zehatza, orain artean gure artean aurkeztuak ziren beste estatistika, ia bakarrena, hitzen ordenaren inguruan, De Rijk irakasleak bilduak, Greenberg, irakasle iparramerikarraren parametroetan, esaldiko S-V-O (S-A-O) elementuen inguruan. Atal honen parte nagusiak erakusten dira lehen liburukiaren bigarren partean. Nahiz bigarren liburukiaren bigarren eta hirugarren ataletarako utzi diren, estatistika lanaren eraskin bezala aukezten diren, autorez autore eta hiztunez hiztuneko *TAULAK,* zehaztasunez emanak; eta ondoren, *Esaldi sailkapen estatistiko baterako* eraskina, erakutsiaz zehazki, gure esaldi sailkapena, J.B. Aguirreren testuaren gainean.

Hirugarren atalean, *Adibidetegi bat* izenekoan, bildu nahi izan ditugu, gaur eguneko hitz ordenamendu teoria Azkue-Altubetar estandarretik kanpo geratuko liratekeen esaldi sail ugariak, gure tradizioko hainbat autore eta obretatik bilduak, eta zeinnahi ordenamendu teoria oronahikok argitzen saiatu beharko lukeenak bere barne, soilik bazterrera estigmatizatuak utzi gabe, maiz egin ohi den moduan. Exenplario hau eman dugu bigarren liburuki, eraskinekoaren, hasieran.

Laugarren atala berriz, *Altuberen irakurtzen - Altuberen azterketan* izenekoa, da, guk hasiera batean, beste guztiak erabat burutu baino lehenago, idatzitako lehen zirriborroa, gramatikagile arrakastatsu honen lan gramatikalen eztabaida kasuistiko, zehatz eta patxadazkoa, bereziki ematen

dena, atalaren laugarren, bost, sei eta zazpigarren kapituluetan. Eta zeinen ondorio nagusiak biltzen diren zortzigarren kapituluan, bertsio, nahikoa eguneratu batean, gure ikuspuntuko edukiei dagokienean bederen. Atalaren lehenengo hiru kapituluak nolanahi, ez dira zirriborro hutsak baino, orain bost urte eginak, Altuberen sarrerarako, eta honen garaiko giroa erakutsi nahian pixkaren bat, edota Altuberen uste eta jokaera linguistiko orokorren berri eman nahian. Guzti hauek geratu dira ezinbestean, beren azken orrazkerarik gabe, zenbaitetan gaur egun profesionalegia ere iruditzen ez zaigun tonu batean. Eta izan ere, atala 1989an da idazten hasia, eta 91an amaitua. Geroztik, nahiago izan dizkiegu gure kemen nagusiak eskaini, gure historiaren aztertzeari, tesi honetako beste atal nagusietan, edota sail estatistiko garrantzi gehiagokoei, behin Altube ongi ulertu eta kokatua uste genuelarik, euskal sintaxiaren mapan. Nolanahi, azterketa eta kokatze honen konstantzia ager zedin, eman nahi izan dugu atal hau ere azken eraskin gisa gure bigarren liburukiaren amaieran, jakinik, bertan, eztabada guztian zehar, gauza interesgarri asko esaten dela, euskarazko hitzen ordenamendu joeren inguruan, nahiz izan, jantzi, batzuetan, ez dotoregi batean.

Lau sail nagusi hauei, erantsi diegu, lehen liburukiaren amaieran, lanean zehar erabilitako bibliografia, bi ataletan banatua. Lehenengoa, gramatika orokorraren ingurukoa, ez bereziki euskarari begirakoa. Bigarrena, euskal testu eta euskal gramatikaren inguru erabilitakoa.

HITZEN ORDENA EUSKARAZ

Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak

Victor Hidalgo Eizagirre

*

Bilbo / Donostia, 1991-1993.

Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak.

AURKIBIDE OROKORRA

Sarrera.

Buruen aurkibidea.

I. XVII mendeko gramatika apurrak.

1. Arnauld Oihenart: 1638 / 1656.

1.1. Euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenoa Oihenartengan.
1.2. Aditz nagusia / mendeko aditza ordena Oihenartengan: «aX».

2. Silvain Pouvreau (XVII m.).

2.1. Pouvreauren ordenamendu kezkak. Eta malgutasunak.
    2.1.1. Adjetiboa izenaren ondoren.
    2.1.2. -ko izenlagunak.
    2.1.3. Genitiboaren guneaz.
2.2. «Xà» eta «XàX» egiturak, aditza bigarren, Pouvreauren gramatikan.
2.3. Pouvreauren galdegaiak aditzaren ondoretik: «XàX» egiturak.
2.4. Pouvreren aditzak esaldi hasieran, «aX...» egitura absolutoak.
2.5. Pouvreauren mendeko esaldi hautsiak.
    2.5.1. Pouvreuaren relatiboak hitz erregimenaren ondotik.
2.6. Azken aipagarri batzuk.
    2.6.1. Zenbatzaile ordinalak, baita ere izenaren ondoretik.
    2.6.2. Galdera «hautsiren» bat.
    2.6.3. Etena galdegaia / aditza.

3. Rafael Micoleta. 1653.

3.1. Gramatika apurrak: «XàX» egiturak (aditza fi galdegaia).
3.2. Micoletaren praktika: PLATICA LELENGOA.
    3.2.1. «Xà» egiturak, aditza bigarren.
    3.2.2. «aX» egiturak
    3.2.3. Aditz trinkoak (eta konposaturen bat) esaldi hasieran.
    3.2.4. Mendeko esaldi hautsiak.

4. Voltoire (1620?).

4.1. Galdegaiak aditz ondoretik.
4.2. Aditzak esaldi hasieran zuzenean.
4.3 Mendeko esaldi hautsiak.
4.4. Bi galdera hautsi ere.

II. Lau gramatika mardul XVIII mendearen lehen erdian.

1. Grammaire Cantabrique Basque. Pierre d'Urte (1712).

1.1. Urteren iritzi apurrak hitzen ordenamenduaren inguru.
    1.1.1. Euskararen posposizioak, eta ez preposizioak
    1.1.2. Adjetiboak sustantiboen ondoren

1.1.3. -ko izenlagunen guneaz (izenaren aurre, edo ondoan).
1.1.4. Genitiboa beti aurrean; baina posesiboak, izen ondoretik ere bai.
1.1.5. Urteren «causa discretionis-a»; eta galdegaia, aditz aurre, edo ondorean.
1.2. Urteren joera sintaktikoak.
1.2.1. Urteren euskarazko «Xà», aditza bigarren, egiturak.
1.2.1.1. Urteren «Xà» egiturak (galdegaia fi aditza).
1.2.1.2. Urteren esaldi ondo fokalizatu batzuk.
1.2.1.3. Urteren galde/erantzun batzuk.
1.2.2. Urteren euskarazko «aX» egiturak (aditza fi galdegaia).
1.2.3 Urteren aditzak ugari esaldi hasieran; «aX...» egitura absolutoak euskaraz.
1.2.4. Urteren «Xà» eta «aX» egiturak euskaraz: Ondorio gisa.
1.2.5. Urteren aditz trinkoak.
1.2.5.1. BA- aurrizkiaren erabilera bitxiagoak.
1.2.6. Urteren mendeko esaldiak.
1.2.6.1. Urteren relatiboak, beren hitz erregimenaren ondoretik.
1.2.7. Hiru aipagarri bukatzeko.
1.2.7.1. Urteren galdera hautsiren bat.
1.2.7.2. Etena, galdegaia / aditza.
1.2.7.3. Izen arrunta fi izen propioa segida.

2. Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco. Joannes Etcheberri Sarakoa (1712?)

2.1. Etxeberriren ordenamendu egitura berberak latin / escuara.
2.1.1. Konparazio baterako gaia.
2.2. Etxeberriren galdegaia aditzaren ondotik (a fi X).
2.2.1. Etxeberriren prosa egitura, aditza fi galdegaia segidan.
2.2.2. Etxeberriren «aX...» egitura absolutoak, aditza zuzenean esaldi hasieran.
2.2.3. Etxeberriren aditz trinkoak esaldi hasieran.
2.2.4. Latinezko adizki pasiboen itzulpenak Etxeberrirengan.
2.3. Mendeko esaldi hautsi / hautsigabeak Etxeberriren sisteman.
2.3.1. Etxeberriren erlatiboak izen mugagabeen ondoren.
2.4. Etxeberriren Izen Propioak Izen Arrunten ondoretik.
2.5. Etxeberriren galdera hautsi batzuk, bukatzeko.

3. Larramendiren (1690-1766) Opera Magnaren ekarriak.

3.1. Larramendiren dispositio kezka zehatzak.
3.1.1. Adjetiboaren kokaguneaz.
3.1.2. Erakusleen guneaz.
3.1.3. Cer, nor, ceiñ, relatiboen guneaz.
3.1.4. Instrumentalaren guneaz.
3.1.5. Genitibo posesiboaren guneaz. Teoria bat, praktika bi.
3.2. Malgutasun teorikoa ere bai zenbait elementuren kokagunean.
3.2.1. Konparazio terminoak konparatiboaren aurrean eta atzean.
3.2.2. Adberbioak adjetiboen aurrean eta atzean.
3.2.3. Izenorde pertsonalak beren aditzaren aurrean edo atzean.
3.2.4. Izenorde mugatugabeak beren aditzaren aurrean edo atzean.
3.3. Euskararen Sintaxi edo Eraikuntza Pospositiboaren inguru.
3.3.1. Euskaraz, posposatzen da artikuloa.
3.3.2. Euskararen posposizioak, eta ez preposizioak.
3.4. Ezaugarri pospositiboa euskaraz, esaldi konposatuen sisteman.
3.4.1. Aditz determinanteak eta determinatuak.
3.4.1.1. Aurre partikulak mendeko esaldietan.
3.4.1.2. Aditz determinatzaile fi determinatu segidak euskaraz.
3.4.2. Beste esaldi konposatu modu batzuk.
3.4.2.1. Zeharkako galderen inguru.
3.4.2.2. Esaldi kontsekutiboak.
3.4.2.3. Esaldi kausalak.
3.4.2.4. Denborazko esaldiak, eta beste.
3.4.2.4.1. «Noiz/Noiz-eta» aurre-partikulen inguru.

3.4.3. Ordea, zein da mendeko esaldien ordena euskaraz? Larramendiren mendeko esaldi hautsiak.
3.4.4. Erlatibozko esaldiak.
3.4.4.1. Zeinismoa.
3.4.4.2. Izena, aditzaren eta honi erantsitako -n atzizki relatiboaren ondoan.
3.4.4.3. Izena doanean erlatibozko esaldiaren aurretik, erromantzean bezala.
3.4.4.4. Erlatibozko esaldi «hautsiak».
3.5. Esaldi nagusiaren egitura Larramendigan.
3.5.1. Larramendiren «Xà» egiturak euskaraz.
3.5.2. Larramendiren ordenamendu malgutasunak.
3.5.3. Larramendiren A-O / A-At egiturak, Arteko adibideetan.
3.5.4. Galdegaiaren gunea esaldian.
3.5.5. Larramendiren aditzak esaldi hasieran, «aX...» egitura absolutoak.
3.5.6. Larramendiren aditz trinkoak esaldi hasieran (edo).
3.6. Aditzaren egitura bikoitzaz euskaraz.
3.6.1. Larramendiren ezezko esaldiak.
3.7. Larramendiren beste ezaugarri eta bitxikeria batzuk, bukatzeko.
3.7.1. Juntagailuen guneaz.
3.7.2. Larramendiren galdera hautsiak.
3.7.3. Galdegaia / aditza etena inoiz?
ERASKINA:
Larramendiren azken dei batzuk eta eragin nabari bat.

4. Harrieten Gramatica (1741). Adibidetegi ondo ugari bat.

4.1. Harrieten ordenamendu iritzi apur batzuk.
4.1.1. Genitiboaren aurregunea.
4.1.2. Pre[o]posizioen, eta artikuloen posposizioa euskaraz.
4.2. Esaldiaren egitura «librearen» aldarrikapena Harrietengan.
4.2.1. Harrieten «Xà» egiturak.
4.2.2. «aX» egitura absolutoak Harrieten gramatikako adibideetan
4.2.3. Galdegaiak aditz ondoretik, «Xà» egiturak gordeaz.
4.3. Mendeko esaldien egitura «hautsia».
4.3.1. Erlatibozko esaldi zenbait, bere izen mugagabearen ondotik.
4.4. Bukatzeko ohar bat: «Izen arrunt fi izen propio» segidaz.
ERASKINAK:
1. Aditzaz hasten diren beste adibide gramatikalak.
2. Galdegai gehiago «Xa» egituren ondotik.
3. Mendeko esaldi «hautsi» gehiago.

III. (1760-1766) Aita Cardaverazen berrikuntza gordinak.

1. Cardaverazen esaldien luzeraz; eta hauen ahozkeraz.
2. Aditzaren posposizioa.
2.1. Cardaveraz gramatikagilearen erabaki bat.
2.2. Zalantzak Cardavereazen naturaltasunaren gainean, aditz posposizioaren erregela formulatzean.
2.2.1. Noiz gertatzen da ordea, jarrera aldaketa.
2.3. Ez ote da ordea, aditz posposizioaren arrazoia euskaraz, gordin, hau preposatu egiten dela gazteleraz?
2.3.1. Ohar bat euskal aditzaren posposizioaren inguru.
2.3.2. Cardaveraz eta Larramendi, aditz posposizio ezaugarriaren inguruan.
3. Cardaverazen aditz preposatuak, halaz eta guztiz.
3.1. Aditz determinanteak esaldien aurrealdean, ohi bezala, eta galdegaiak atzealdean Cardaverazengan ere.
3.1.1. Aditz determinanteak esaldi hasieran bertan.
3.1.2. Aditz determinante trinkoak ere, inoiz, esaldi hasieran.
3.2. Cardaverazen nolanahiko aditzak ere esaldien aurrealdean, eta galdegaiak atzealdean.
3.2.1. Nolanahiko aditzak ere esaldi hasieran.
3.2.2. Nolanahiko aditz trinkoak esaldi hasieran.
4. Aditzaren posposizioa baiezko esaldi deklaratiboetan. Galdegaiaren guneaz Cardaverazengan.
4.1. Galdegaia, esaldi bukaeran emandako aditzaren aurre justuko gunean.

4.2. Etena, galdegaia / aditza.
4.2.1. Koma bat, galdegaia eta aditzaren artean.
4.2.2. Beste elementu tematikoago/topiko/atonoago batzuk tartekatzen, galdegaia eta aditzaren artean, usu Cardaverazengan.
4.2.2.1. Cardaverazek aditz aurre justuko gunean, eta predikuaren ondoren, erakusten dituen konplementu klaseen gainean.
4.2.2.2. Suposizio bat Cardaverazen lan moduen gainean.
5. Aditzaren posposizio errukigabea mendeko esaldietan.
5.1. Zehar galderak. Eta ezezko konpletibak.
5.1.1. Zehar galdera galdegiledunak.
5.1.2. Ezezko konpletiba -LA atzizkidunak.
5.2. Salbuespenak: Cardaverazen «mendeko esaldi hautsiak».
5.3. Erlatibozko esaldiak, izen mugagabearen ondotik.
5.3.1. Epiteto relatiboak, aditz jokaturik gabe.
6. Cardaverazen aditz posposizio erabatekoa. Erabaki, guztiz artifizial baten, testigantza berriak.
6.1. EZ operadore modala, eta honi erantsitako aditz jokatua, esaldi bukaerara.
6.1.1. Aditz konposatuak ezezko esaldien bukaeretan (edo).
6.1.2. Aditz trinkoak ezezko esaldien bukaeretan (edo).
6.2. Aginterazko aditzen posposizioa.
6.3. Aditz posposizioa galderetan: joskera bitxiak.
6.3.1. Cardaverazen galdera hautsiak.
6.3.2. Cardaverazen galderak esaldi bukaeran.
6.3.3. Bai/ez galdera orokorrak Cardaverazengan.
6.4. BA- aurrizki-dun aditzak esaldi bukaeran.
7. Aditz posposizioaren eragina, Cardaverazen idaztankeraren iluntasunean.
7.1. Cardaverazen iluntasun propioagoak.
7.1.1. Cardaverazen esaldi koordinazio eta justaposizio oso bereziak.
8. Ohar batzuk, amaitzeko.
8.1. Joskera oharrak Eusqueraren berri onac liburuan.
8.1.1. Adberbioaren guneaz.
8.2. -ko izenlagunen guneaz.
8.3. Noiz eta- juntagailuaren erabilera.
8.4. Baizik juntagailuaren guneaz.
ERASKINAK:
1. Eusqueraren Berri Onac. Sarrera.
2. Zenbait esaldi luze aukeratu, Cardaverazen estiloaren ispilu.
3. Cardaverazen 1744ko «Christavaren vicitza», eta honi erantsitako «Christavaren Icasvide, edo Doctrina laburachoa».
3.1. 1744ko argitalpenaren erreferentziak.
3.2. Loiolako alea.
3.3. «Christavaren Icasvide» berri ezezagun bat.
3.4. Ote gaude 1744ko argitalpenaren aurrean?
3.5. Cardaveraz berri bat.
3.6. 1744/1760-66 joskera desberdintasunak.
3.7. Cardaverazen 1744ko ardura hiztegiarekiko.
3.8. Ohar bat bukatzeko.
4. Cardaverazen 1744 eta 1760ko testuak elkarren parean.
5. Cardaverazen eskuizkribu berri bat ohizko joskera zaharrean.

IV. Pablo Pedro Astarloaren espekulazio sensualistak XIX mendearen hasieran.

1. Astarloa sintaxilari.
1.1. Astarloaren jarreren iturriak.
1.2. Astarloaren jarrera sensualista.
1.3. Astarloaren ordenamendu printzipioak.
1.4. Astarloaren ordenazio sistema.
1.4.1. Sistemaren giltzarria: hitzen noblezia mailak.
1.4.2. Hiru noblezia klase jerarkiko.
1.4.3. Baina finean lau erizpide, ordenamendu lehentasunetan.

1.4.3.1. Jatorrizko lehentasuna.
1.4.3.2. Hitzen kategoria gramatikalen araberako lehentasuna.
1.4.3.3. Hitzen funtzio logiko/gramatikalei dagokien lehentasuna.
1.4.3.4. Guztien gainetiko Mobilitate Noblezia, Mobilitate Ordena,.
2. Astarloaren mobilitate printzipio pragmatikoa, eta hitzen ordenamendu librearen defentsa.
2.1. Zer da hitzik mobilena? Agian Mintzagaia, eta ez Predikua?
2.1.1. Eta hitz mobilenak dira noski (mintzagaiak?), doazenak, hasieran.
2.2. Astarloa ordena librearen defendatzaile.
3. Astarloaren sintaxi jarrera zehatzago batzuk.
3.1. Aditzaren guneaz esaldian.
3.2. Adberbioaren gunea euskaraz aditzaren aurrean.
3.3. Astarloaren adibidetegi eskaseko ordenak.
3.3.1. Bi elementutako esaldi laburrak.
3.3.2. Esaldi luzexeagoak: hiru elementu (edo gehiagokoak).
3.3.2.1. Aditzak esaldi hasieran.
3.3.3. Mendeko esaldi hautsiak.
3.3.4. Ezezko aditz konposatu bat inbertsiorik gabe.
3.3.5. Humboldten «Extractoko» esaldiak.
3.4. -ko izenlagunen posposizioa.
3.5. Euskararen posposizioak.
3.6. Konjuntzioen guneaz, lotzen dituzten bi esaldi zatien artean.
3.7. Euskal azentua: Librea?
4. Astarloaren beste irakurketa bat ondorengo sintaxilariengan?
4.1. Sintaxiaren ikuspegia hizkuntzen arterako.
4.2. Baina batez ere kontrajarriak, euskal/gaztel sintaxiak.
4.3. Euskal sintaxiak ditu, erregela finko eta aldaezinak.
4.4. Euskal sintaxi ona da, rustikoa. Kaltegarria ez-rustikoa.
4.5. Ohar bat, bukatzeko, Zamakolaren inguru.

V. Cardaverazen eskola bat, XIX mendean barrena.

0. Sarrera.
0.1. Cardaverazen arrakasta literarioa.
0.2.Cardaverazen arrakasta estilistikoaren inguru.
0.3. Cardaverazen eragin estilistikoez.
0.3.1. Cardaverazen aditz atzerateko erregela orokorraren eraginaz.
0.3.2. Ohar bat, Aita J.I. Aranaren (1838-1896) lan eta eraginen inguru.
0.4. Dizipuluak ez dira ordea izango maisua bezain gordinak.
0.5. Iritzi apur bat Cardaverazen Eskolako hitzen ordenamendu modu berriez.
0.6. Cardaverazen Eskolaren jarraibideak XX mendean barrena.
ERASKINA:
Aita Cardaverazen S. Ignacioren Egercicioen laugarren partearen bizkaieratze bat, Loiolako eskuizkribu batean.

1. Bartolome Olaechearen Dotrina Cristianea(k): 17631 eta 17752

1.1. Olaechearen hitzen ordenamendua euskal tradizio altxorrean.
1.1.1. Galdegaiak aditzen ondotik.
1.1.2. Aditzak esaldi hasieretan.
1.1.2.1. Aditz trinkoak esaldi hasieretan.
1.1.3. Olaechearen mendeko esaldi hautsiak.
1.1.3.1. Erlatibozko esaldiren bat ere behintzat izen mugatugabearen ondotik.
1.2. Olaechearen joskera Cardaveraztiarrak.
1.2.1. Inoiz ezezko aditz konposaturen bat ohizko inbertsiorik gabe.
1.2.2. Inoiz ezezko aditz trinkoren bat esaldi amaieran ohi ez bezala.
1.2.3. Galdera hautsiren batzuk.
1.2.4. Galderetako aditzak bukaerara.
1.3. Dotrinaren lehen bi argitalpenen arteko aldaera nabarmenak.
1.3.1. Galderetako aditzen atzeratzea.

1.3.1.1. Aditzen atzeratzea galdera orokorretan.
1.3.1.2. 1763ko galdera atzeratuak, eta hiperkorrekzio batzuk.
1.3.1.3. Galdera hautsi baten des-haustea.
1.3.2. Aditza atzeratzen baiezko esaldi deklaratibo nagusietan.
1.3.2.1. Baina aditz jokatuetan ere.
1.3.3. Aditza atzeratzen ezezko esaldi nagusietan.
1.3.4. Aditzak atzeratzen mendeko esaldietan.
1.3.5. Atzeratzen aginteretako aditzak.
1.3.6. Esaldi hasierako aditz trinko batzuen desagertzea.
1.3.6.1. Inoiz esaldi hasierako aditz konposaturen bat ere desagertzen da.
1.3.7. Inoiz beste hitz buru batzuren atzeratzeak ere bai.
1.3.8. Sintaxizko beste aldaketa bat aipatzen: cegaiti ... -(e)n fi ...-laco.
1.4. Olaechearen 1763tik 1775 bitarteko bideak.

ERASKINA:

Alderaketa bat, Bartolome Olaechearen Dotrina Cristianea-ren lehen bi argitalpenen artean, 1763[1] eta 1775[2], hitzen ordenamenduari dagokionean.

2. J.{ XE " Guerricoren Platicac eta eragin posibleak (1740-1824)." }

2.1. Guerricoren ospea.
2.2. Guerricoren joskera.
2.3. Guerricoren tradiziozko hitz ordenamenduak.
2.3.1. Galdegaiak aditzaren ondotik.
2.3.2. Aditzak esaldi hasieran.
2.3.2.1. Aditz trinkoak ere ugari esaldi hasieran.
2.3.3. Mendeko esaldi hautsiak.
2.4. Guerricoren aditz atzeratze artifizialak, Cardaverazen eskolan.
2.4.1. Etenak, eta elementu tartekatuak, galdegaiak eta aditzen artean.
2.4.1.1. Etenak galdegaia eta aditza koma baten bidez.
2.4.2. Guerricoren egitura Azkue-Altubetarrak, galdegaia aditzaren aurre justuan.
2.4.3. Aditzak atzeratzen klase guztietako esaldietan.
2.4.3.1. Atzeratzen aginterazko aditzak.
2.4.3.2. Atzeratzen galderetako aditzak.
2.4.3.2.1. Galdera hautsiak.
2.4.3.2.2. Galdegileak eta aditzak batera atzeratzen.
2.4.3.3. Atzeratzen ezezko esaldietako aditzak.
2.4.3.3.1. Ezezko aditz perifrastikoak inbertsiorik gabe.
2.4.3.3.2. Ezezko aditz trinkoak atzeratzen.
2.4.3.4. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditzak.
2.4.3.5. Atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.
2.5. Beste joskera ohar batzuk.
2. 5.1. BAIZIK partikula aurrejarria.
2.5.2. BAITA ERE partikula, batera, eta aurrejarria.
2.5.3. Guerricoren zeinismo adibide bat behintzat.
2.5.4. Guerricoren objetu pluralaren konkordantzia faltak aditzean.
2.6. Cardaveraz ote da Guerricoren joskera maisua?
2.7. Guerricoren joskeraren aldeak.
2.8. Beste suposizio zenbait Guerricoren eraginaz.
2.9. Jose Feliz de Amundarain y Mugica, zegamar, eta Mutiloaco Erri noblearen Vicario Jaun izanaren, Igande-Sermojac.
2.9.1. J.F. Amundarainen joskera ohizko eta tradiziozkoa.
2.9.2. Amundarainen adibide Cardaveraztiarren bat.
2.9.3. Ohar batzuk bukatzeko, konkordantziaz
2.10. Jose Ignacio de Guerrico Urquiola (1806-1883): Misio Santuaren Oroipena (1853).
2.10.1. Misio Santuaren Oroipena-ren hitz ordenamendua.
2.10.1.1. Tradiziozko hitz ordenamendua Misio Santuaren Oroipenean.
2.10.1.2. Misio Santuaren Oroipeneko aditz atzeratze susmoak.
2.10.1.2.1. Aditzak atzeratzen mendeko esaldietan.
2.10.1.3. Ohar bat bukatzeko, aditz konkordantziaz.

ERASKINA:

Felix Amundarainen Igande Sermojen 2. liburua-ren sarrera; lehenengo sermoia: Dom. Penthecost. (Esku-Idaztiak I); eta bigarren sermoi bat: De la S.ta Cruz (Esku-Idaztiak II, 2. sermoia).

1. Esku-Idaztiak I liburuaren sarrera.
2. Pazkoa Maiatzeko Igandeko Lehen Sermoia
3. Gurutze Santuaren Sermoia.

3. P.A. Añibarro (1748-1830): beti tradiziozko joskera baten eredu (Gramatikako ohar erantsi bat gorabehera).

3.1. Añibarroren ordenamendu oharrak Gramatica Bascongadan.
3.2. Tradiziozko hitz ordenamendua Añibarroren euskal idatzietan.
3.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.
3.2.2. Aditzak esaldi hasieran bertan
3.2.2.1. Aditz trinkoak ere usu esaldi hasieran.
3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
3.3. Bestelako seinaleak Añibarroren betiko hitz ordenamenduan.
3.3.1. Ezezko esaldi inbertsio gabeak.
3.3.2. Galdera hautsiak.
3.3.3. Aditz atzeratzeren bat mendeko esaldietan?
3.4. Halaz guztiz Añibarroren hitz ordenamendu berrikuntza oso eskasak 1821 eta 1827ko Escu-Liburuaren argitalpenetarako.
3.4.1. Tradiziozko ordenamenduaren frogak Añibarroren 1821-1827ko lanetan.
3.4.1.1. Galdegaiak aditz ondoretik.
3.4.1.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
3.4.1.2.1. Zuzenean aditz trinkoz hasitako esaldiak.
3.4.1.3. Mendeko esaldi hautsiak.
3.4.1.4. Bestelako seinaleren bat 1821-27ko idazkeran ere.
3.4.2. 1821-27ko ordenamendu aldaketak Añibarrorengan.
3.4.2.1. Aditz atzeratzeak mendeko esaldietan.
3.4.2.1.1. Baina aditz aurreratzeak ere bai Añibarroren mendeko esaldietan.
3.4.2.2. Beste aditz atzeratze, eta aurreratze, batzuk.
3.4.2.2.1. Aginterazko aditzak.
3.4.2.2.2. Baiezko esaldi deklaratiboak.
3.4.2.2.3. Besterik.
3.4.2.3. Esaldietako beste elementu buru batzuk ere atzeratzen.
3.4.2.4. Atzeratze guzti hauen ondorio dislokatzaileen inguru.
3.5. Beste azken aipagarriren bat Añibarroren joskeraz.
3.5.1. Inoiz erlatibozko esaldiren bat bere buru mugagabearen ondotik.
3.5.2. Nos, elementu mendekotzaile.
3.6. Azken galdera batzuk erantzungai.

ERASKINA:

Añibarroren Eskuliburuaren, lehen bi argitalpenen arteko aldeak, hitzen ordenamenduari dagokionean: 1802[1] eta 1821[2].

4. F.{ XE " Lardizabal (1806-1855): Gramatica bat, eta Testamentuco Condaira cardaveraztiar agiriak." }

4.1. Lardizabalen ordenamendu oharrak Gramatican barrena.
4.1.1. Euskal posposizioen inguruan.
4.1.2. Ordenamendu bikoiztasuna euskal konparatiboetan.
4.1.3. Teorian gaitzetsi, erlatibozko esaldi, izen mugagabearen ondotik emanak.
4.1.4. Izenordeen indiferentzia aditzaren aurre edo atzean kokatzeko.
4.1.5. Aditz konposatuaren inbertsio moduez baiezko esaldietan.
4.1.6. Ezezko aditz perifrastikoaren inbertsio eza.
4.1.7. Aditz determinanteak, determinatuen aurretik.
4.1.7.1. Zehar galderetako aditz nagusien aurrejartzeaz.
4.1.8. Baizik partikularen aurreguneaz.
4.2. Gainbegirada bat Lardizabalen Gramaticako adibidetegiari.
4.2.1 Euskarazko ohizko «Xà» egiturak Gramaticako adibidetegian.
4.2.1.1. «... Xà» egitura «absolutoak» Gramaticako adibideetan.
4.2.2. «aX» egiturak Lardizabalen Gramaticako adibideetan.

4.2.2.1. Galdegaiak aditzen ondoretik, Lardizabalen adibidetegian.
4.2.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren adibideak (are aditz trinkoaz ere).
4.2.3. Lardizabal aditza atzeratzen Larramendiren adibideei.
4.2.4. Bi ohar txiki, bukatzeko, Gramaticako adibidetegiaren inguruan.
4.2.4.1. Mendeko esaldi hautsi gutxi batzuk Gramaticako adibideen artean.
4.2.4.2. Aginterazko aditzak beti beren konplementuen aurretik.
4.3. Lardizabalen ordenamendu ezaugarriak prosa idatzian.
4.3.1. Aditz atzeratze ezohizkoak Lardizabalen prosan.
4.3.1.1. Aditza atzeratzen Larreguyren prosarekiko.
4.3.1.2. Aditz atzeratuen monotonia Lardizabalen prosa narratiboan.
4.3.1.3. Lardizabalen egitura altubetarrak (galdegaia + aditza).
4.3.1.4. Etenak galdegaia eta aditzaren artean.
4.3.1.4.1. Etenak koma batez galdegaia eta aditzaren artean.
4.3.1.5. Galdera hautsiak Lardizabalengan.
4.3.1.6. Galderetako aditzak esaldi atzealdera.
4.3.1.7. Atzeratzen aginterazko aditzak.
4.3.1.8. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditz trinkoak.
4.3.1.9. Aditza atzeratzen ezezko esaldietan.
4.3.1.9.1. Inbertsiorik gabe konposatuak.
4.3.1.9.2. Aditz trinkoak atzeratzen ezezko esaldietan.
4.3.1.10. Atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.
4.3.1.10.1. Atzeratzen ezezkako esaldi konpletiboetako aditzak.
4.3.1.11. Atzeratzen esaldi koordinatu sailetako aditz laguntzaileak.
4.3.2. Baina Lardizabal eraberean da, tradiziozko ordenamenduen eredu.
4.3.2.1. Lardizabalen galdegaiak aditzaren ondoretik.
4.3.2.2. Lardizabalen aditzak esaldi hasieran.
4.3.2.2.1. Aditz trinkoak ere tarteka esaldi hasieran bertan.
4.3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
4.3.2.3.1. Erlatibozko esaldiak beren izen erregimen mugagabearen ondotik.
4.3.3. Hitz erregimen buruen atzeratze ezohizkoak Lardizabalen prosan.
4.3.3.1. Izen buru erregimenen atzeratzeak Iracurgayetako izenburuetan.
4.3.4. Beste joskera aipagarri batzuk Lardizabalen idazkeran.
4.3.4.1. Izen arrunta fi Izen propioa segida.
4.3.4.2. -KO izenlagunen gunea izenaren ondoren ere.
4.3.4.3. BAITA ERE juntagailua.
4.3.4.4. ERE juntagailua soil esaldi hasieran.
4.3.4.5. NORA, NOIZ-ETA partikulen erabilera juntagailu gisa.
4.3.4.6. Aditzaren konkordantzia falta objetu pluralarekin.
4.4. Galdera zenbait, bukatzeko. Lardizabalen lanen inguruan.

ERASKINA:

Lardizabalen Testamendu Zarreco Condairaren eskuizkribuaren aurrean: Lardizabalen ordenamendu zuzenketa batzuz.
1. Nola eragiten den etena, galdegaia eta aditzaren artean.
2. Aditz nagusiak atzeratzen.
3. Atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.
4. Inbertsioa galerazten ezezko esaldiei.
5. Sintagma buruak atzeratzen.
6. Konplementuen arteko ordenak aldatzen.
7. Izen ondoko erlatibo baten desegitea?

5. (1811-1890) Gregorio Arrueren itzulpengitza cardaveraztiarra.

5.1. Arrueren 1858ko Dotrina.
5.1.1. Arrueren tradiziozko hitz ordenamendua 1858ko Dotrinan.
5.1.1.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.
5.1.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
5.1.1.3. Aditz trinkoak esaldi hasieran buruzuri.
5.1.1.4. Mendeko esaldi hautsiak nonnahi.
5.1.2. Baina aditz atzeratze arrastoren bat ere bai jada 1858rako.

5.1.2.1. 1858ko Arrue eta Lardizabalen Testamentua.
5.1.2.1.1. Baina Arruek zuzentzen ere ditu Lardizabalen aditz atzeratzeak.
5.1.2.2. Galdera hautsiren bat inoiz.
5.1.2.3. Aditz atzeratutako galderaren bat.
5.1.2.4. Aditz atzeratutako mendeko esaldiak ere tarteka?
5.1.2.5. Ezezko esaldi inbertsio-gaberen batzuk.
5.1.2.6. Ezezko aditz trinko atzeraturen batzuk.
5.1.2.7. Ohar bat, aginterazko aditzen gainean.
5.2. Arrueren 1863ko Escu-Liburua, cardaveraztartze bidean.
5.2.1. Oro har aditz nagusiek aurregune batean segiko dute 1863ko Arruegan.
5.2.1.1. Galdegaiak aditz ondoretik.
5.2.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
5.2.2. Arruek oro har aurreratu egingo ditu Cardaverazen aditz nagusiak.
5.2.2.1. Baiezko esaldi deklaratiboetako aditzak aurreratzen.
5.2.2.2. Galderetako aditzak ere aurreratzen.
5.2.2.3. Ezezko aditz trinkoak ere aurreratzen.
5.2.3. Arrueren aditz atzeratzeak 1863ko Esku-Liburuan.
5.2.3.1. Aditza atzeratzen nabarmenen mendeko esaldietan.
5.2.3.2. Usu jada galdera hautsiak.
5.2.3.3. Ezezko aditz inbertsiorik gabeen ugaltzea.
5.2.3.4. Ezezko aditz trinko atzeraturen batzuk ere.
5.2.3.5. Ezezko esaldi konpletibo inbertsio gabeak.
5.2.3.6. Atzeratzeren bat jada, aginterazko aditzetan ere.
5.2.3.7. Atzeratzen baiezko esaldi deklaratiboetako aditzak ere tarteka: Egitura altubetarrak: galdegaia fi aditza.
5.2.3.8. Eta etenen batzuk ere bai jada galdegaia eta aditzaren artean.
5.2.4. Sintagma buruen atzeratze nabarmenak, Cardaverazen aldean ere.
5.3. 1866, Arrueren behinbetiko heldutasun cardaveraztiarra.
5.3.1. Aditz nagusi jokatuen atzeratze orokorrak: subordinazio-koordinazio kate amairik gabeak.
5.3.1.1. 1866ko aditz atzeratze eta esaldi luzera sinistezinenak.
5.3.1.2. Ondorengo aditz atzeratze sistematikoak.
5.3.2. Gero eta eten ugariago galdegai eta aditzen artean.
5.3.3. Egitura altubetarrak: galdegaia fi aditza.
5.3.4. Arrueren euskal testuen berridazketak: aditzak atzeratzen sistemaz.
5.3.4.1. Hiperzuzenketaren bat ere inoiz.
5.3.5. Hala ere, sarri galdegaiak aditzaren ondoretik, 1866az geroztik ere.
5.3.6. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak 1866az geroztik ere.
5.3.7. Erruki gabe atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.
5.3.7.1. Mendeko aditz atzeratzeak berridatzitako lanetan.
5.3.7.2. Eten nabarmenak mendeko esaldietako aditzen perifrasietan.
5.3.8. Aditz atzeratze gero eta sistematikoagoak ezezko esaldietan.
5.3.8.1. Ezezko aditzak atzeratzen berridatzitako liburuetan.
5.3.8.2. Ezezko esaldi konpletibo inbertsio gabeak.
5.3.9. Aditza atzeratzen, azkenik aginteretan ere, 1885erako.
5.3.9.1. Atzeratzen, ezin nabarmenago, Santa Genovevaren aginterazko aditzak.
5.3.10. Beste aditz atzeratze aipagarri batzuk.
5.3.10.1. Galderetako aditzak atzeratzen.
5.3.10.2. X ote, edo Y den egituraren inguruan.
5.3.10.3. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditz trinkoak ere.
5.3.11. Arrue posposizioa aplikatzen sintagma buruei.
5.3.11.1. Atzeratzen J.J. Moguelen sintagma buruak.
5.3.11.2. Kapitulu izenburuetako sintagma buru atzeratuak Arruegan ere.
5.3.11.3. Erlatibozko esaldi kate koordinatuak izen erregimenaren aurretik
5.3.11.4. Aurreratzen ordinalen gunea, edo atzeratzen sintagma burua.
5.4. Arrueren teorizazio apurren batzuk euskararen ezaugarri pospositiboen inguruan.
5.4.1. Hala ere baditugu, Arrueren aditz anteposizioaren baliozko testigantza berantiarrak.
5.4.1.1. Arrueren 1878ko ezkutitza Printze Bonaparteri.
5.5. Arrueren beste joskera ez pospositibo aipagarri batzuk.
5.5.1. Erlatibozko esaldi batzuk behintzat, beren izen mugagabearen ondotik.

5.5.2. -ko izenlagunak izenaren ondotik.
5.5.3. Izen arrunta fi izen propioa segida.
5.5.4. Baizik, ordea, juntagailuen gunea esaldi hasieran.
5.5.5. Partikula erlatiboak (galdegileak) juntagailu anaforiko gisa erabiliak.
5.5.6. Ordinalen baten orden pospositiboaz.
5.6. Arrueren eraginen inguru.
ERASKINAK:
1. Alderaketa bat, A. Cardaverazen Aita San Ignacioren Egercicioen gañean, ... laugarren partea (1761; 1765[2]), eta G. Arrueren (1863) Cristauaren Escu-Liburua-ren artean, hitzen ordenaren inguruan.
2. Arrueren 1866z geroztiko esaldi luze aukeratu batzuk, silaba kontaketa eta guzti.
2.1. Aita San Ignacioren Bicitza. 1866 (1892/93).
2.2. Santa Jenovevaren vicitza 1865 (1987[4]).
2.3. Leiendak 1881-1885 (1990[2]).
2.4. Bravante-co Genoveva 1885.
3. Alderaketa bat, J.J. Moguelen Baserritaar Jakitunaren Etxeko Eskolia (1845), eta Gregorio Arruek gipuzkerara itzulitako Baserritar Jaquintsuaren Echeco Escola-ren artean (1878), hitzen ordenamenduaren inguruan.
4. Alderaketa bat, J.A. Moguelen Peru Abarca (1881), eta G. Arrueren gipuzkerazko itzulpen, El doctor Peru Abarca (1948)-ren artean, hitzen ordenamenduaren inguruan.
5. Alderaketa bat Gregorio Arrueren 1868ko Santa Genovevaren vicitza, eta 1885ko Bravante-co Genovevaren Bicitz arrigarri miragarria-ren artean, hitzen ordenamenduari begira.

6. Arturo Campion (1854-1937), gramatikalari gazte (eta euskal idazle)-aren ekarri batzuk.

6.1. Campion, euskal joskera libre baten defendatzaile.
6.1.1. Euskararen ordenamendu malgutasunaren aldarrikapen zehatzagoak.
6.1.1.1. Izenorde mugagabeen gunea aditzarekiko.
6.1.1.2. Aditz modifikableen gunearen inguruan.
6.1.1.3. Aditz partizipio nagusi eta adizki jokatuen arteko joskeraz.
6.2. Campionen propaganda cardaveraztiarra.
6.3. Postulatu cardaveraztiarren kontraesan batzuk Gramatican bertan.
6.3.1. Leiçarragaren aipuko esaldi anti-cardaveraztiarrak.
6.3.2. Campionen Gramaticako adibidetegi anti-cardaveraztiarra.
6.3.2.1. Zuzenean aditz trinkoz-edo hasten diren Gramaticako esaldiak
6.3.2.2. Mendeko esaldi hautsiak Gramaticako adibidetegian.
6.3.3. Campionen adibide cardaveraztiarrak (edo).
6.3.3.1. Campionen Gramaticako galdera hautsiak.
6.4. Campionen praktika euskal prosan.
6.4.1. Tradiziozko joskera bat.
6.4.1.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik.
6.4.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
6.4.1.3. Zuzenean aditz trinkoz hasten diren esaldiak.
6.4.1.4. Mendeko esaldi hautsiak.
6.4.2. Eskola cardaveraztiarraren zantzuak Campionen prosan.
6.4.2.1. Campionen egitura altubetarrak: galdegaia fi aditza.
6.4.2.2. Etenak galdegaia eta aditzaren artean.
6.4.2.2.1. Etenak, koma medio, galdegaiak eta aditzaren artean.
6.4.2.3. Galdera hautsiak.
6.4.2.4. Aditz atzeratze artifizialak mendeko esaldietan.
6.4.2.5. Ezezko aditz inbertsio gabeak.
6.4.2.6. Atzeratzen ezezko aditz trinkoak,
6.4.2.7. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditzak ere.
6.4.2.8. Atzeratuaz aginterazko aditzen bat.
6.4.3. Ba ote da eboluziorik Campionen prosa estiloan?
6.5. Beste bi ezaugarriren aztarnak Campionen Gramatican, ondorengo euskal joskeren norabide-galdu-estuen ildoan.
6.5.1. Dislokazio batzuren bidea euskal joskeran.
6.5.1.1. Syzeugmenon-a (edo).
6.5.1.2. Dislokazioa ezezko esaldietarako.

6.5.1.3. Erlazio atzizkien elipsiak eragin ditzakeen dislokazioak.
6.5.2. Euskal gramatikaren zurruntasun eta unidirekzionalitatearen mitoa.
6.6. Campionen hitz ordenaren beste printzipio eta praktika aipagarri batzuk.
6.6.1. Astarloaren orden razionala.
6.6.2. Ordinalen gune habitualaz.
6.6.3. Konparatiboen aurre edo posposizioaz.
6.6.4. Edutezko genitiboen guneaz.
6.6.5. -KO izenlagunen guneaz.
6.6.6. Campionen esaldi erlatiboak izen mugagabearen ondotik.
6.6.7. Izen arrunta fi izen propioa segidaz.
6.7. Campionen eragin zalantzagarrien gainean.

7. Cardaverazen 1783ko Dotrina bizkaieraz, eta J.A. Moguelen testigantza (1745-1804), beti anti-cardaveraztiarra.

7.1. Hitz ordenamendu aldaketa oso nabarmenak, J.A. Moguelek prestatu bide zuen, 1783ko Cristinaubaren Jaquinvidian.
7.1.1. Aditz aurreratzeak galderetan.
7.1.1.1. Galdera hautsiak desegiten ere bai.
7.1.1.2. Aurreratzen galdera orokorretako aditzak ere.
7.1.1.3. Aurreratzen BA- aurrizkidun aditz trinkoak ere.
7.1.2. Aditz aurreratzeak mendeko esaldietan.
7.1.2.1. Aurreratzen juntagailu bidez osatutako mendeko esaldietako aditzak.
7.1.3. Aditzak aurreratzen baiezko esaldi deklaratibo batzutan ere.
7.1.4. Aditza aurreratzen, eta atzeratzen, aginterazko esaldiren batean.
7.1.5. Sintagma buru zenbaiten aurreratzeak.
7.2. J.A. Moguelen ohizko, tradiziozko, joskera.
7.2.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik.
7.2.2. Moguelen aditzak usu esaldi hasieran.
7.2.2.1. Aditz trinkoak ere ondo usu esaldi hasieran buruzuri.
7.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
7.2.3.1. Esaldi erlatiboak beren izen erregimen mugagabearen ondotik.
7.2.3.1.1. Erlatibozko esaldi jokatugabeak, izen erregimen mugagabearen ondotik.
7.3. Bi joskera ezaugarri cardaveraztiar Moguelengan ere?
7.3.1. Ezezko esaldi inbertsiorik gabeak.
7.3.2. Galdera hautsiak.
7.4. Beste joskera puntu aipagarri batzuk Moguelengan.
7.4.1. -KO izenlagunak izenaren ondotik.
7.4.2. Ordea, baizik, berriz, lokailuak, lotzen duten sintagmaren aurretik.
7.4.3. Izen arrunta fi izen propioa segida.
7.4.4. Izena fi ordinala segida.
7.4.5. Edutezko genitiboa izenaren ondotik.
7.5. Añibarroren testigantza. Eta Moguelen herrikoitiartasuna.
7.5.1. Moguelen dudarik gabeko Cardaveraz zaletasuna.
7.5.2. Moguelen zalantza gabeko kontzientzia antierderista.
7.5.3. Euskararen ezaugarri pospositibo (mugatu)-aren aitortza Moguelengan.
7.5.4. Baina Cardaverazengandiko alde nabarmenekin.
7.5.5. Moguelen prosaren erreferentzia beti herrikoitiarrak.
7.5.6. Peru Abarcaren jatorrizko testigantza zalantzagabea.
ERASKINA:
Aita Cardaverazen 1762ko Dotrina Cristiana bizkaieraz, eta honen 1783ko (Cristinaubaren jaquinvidia, Moguelek zuzendu bide zuena, eta azpititulatu, esanguratsuki: Orain urteten dau eusquera apaindubaguan) argitalpenaren arteko alderaketa bat, hitzen ordenamenduari dagokionean.

8. Eragin cardaveraztiar bat Iparraldean. Jean Duvoisin (1810-1891) ainhoarraren euskal lanak.

8.1. Duvoisinen Liburu Ederra (1856), eta Cardaverazen Afectoac.
8.1.1. Duvoisinen errespetoa Cardaverazen aditz atzeratzeekin.
8.1.1.1. Galderetako aditzak atzeratzen ezohizko neurrietan.
8.1.1.1.1. Galdegile bidezko galderetako aditz atzeratuak.
8.1.1.1.2. Atzeratuak galdera orokorretako aditzak.

8.1.1.1.3. Duvoisinen galdera hautsiak.
8.1.1.2. Atzeratuak aginteretako aditzak.
8.1.1.3. Aditz atzeratuak baiezko esaldi nagusi deklaratiboetan.
8.1.1.3.1. Atzeratuak BA- aurrizkidun aditz nagusiak.
8.1.1.4. Atzeratuak ezezko esaldietako aditzak.
8.1.1.4.1. Ezezko esaldi konposatu inbertsiorik gabeak.
8.1.1.4.2. Atzeratuak ezezko aditz trinkoak.
8.1.1.5. Atzeratuak mendeko esaldietako aditzak.
8.1.2. Duvoisin Cardaverazen aditzak aurreratzen.
8.1.2.1. Aurreratzen esaldi nagusietako aditzak.
8.1.2.1.1. Tarteka esaldi hasieraraino eramanez ere bai, Cardaverazek artifizialki atzeratutako aditza.
8.1.2.1.2. Zenbaitetan aditz laguntzaile(ar)en gunea aurreratzen.
8.1.2.2. Aurreratzen mendeko esaldietako aditzak.
8.1.2.3. Aurreratzen aginterazko zenbait aditz.
8.1.2.4. Aurreratzen galderetako aditzak tarteka.
8.1.2.4.1. Cardaverazen galdera hautsiren batzuk desegiten.
8.1.2.4.2. Bakarrik galdegileak aurreratzen ere bai, nahiz ondorioz galdera hautsiak eragin.
8.1.2.5. Aurreratzen tarteka ezezko esaldietako aditzak.
8.1.2.5.1. Inbertitzen, ohi bezala, Cardaverazen inbertsio gabeko ezezko aditzak.
8.1.2.5.2. Aurreratzen, inoiz, ezezko aditz trinkoak.
8.1.2.6. Aditz laguntzaileen aurreratzea, aditz jokatu gabeen bidez koordinatutako esaldi sailetan.
8.1.2.7. Aurreratzen sintagma bururen bat.
8.1.3. Liburu Ederraren erakutsiez eta eraginez.
8.2. Iturriagaren Jolasen itzulpen lapurtarra Duvoisinek egina (1857).
8.2.1. Atzeratzen (eta aurreratzen) baiezko esaldi nagusi deklaratiboetako aditzak.
8.2.1.1. Aurreratzen ere bai ordea tarteka, esaldi deklaratiboetako aditz nagusiak.
8.2.2. Aditz atzeratze eta aurreratzeak mendeko esaldietan.
8.2.2.1. Aditz aurreratzeak mendeko esaldietan.
8.2.3. Beste mugimendu batzuk aditz nagusietan.
8.2.3.1. BA- aurrizkidun aditzak.
8.2.3.2. Aditz laguntzaileen zenbait aurreratze eta atzeratze.
8.2.3.3. Ezezko esaldiren batzuk mugitzen.
8.2.4. Esaldi osoen jiratzeak.
8.2.5. Beste partikula zenbaiten mugimendu batzuk.
8.3. Laborantzako Liburua (1858), gure tradizio hoberenaren ildo zabalean.
8.3.1. Ba ote da aditz atzeratze artifizialen arrastorik Duvoisinen prosa propioan?
8.3.1.1. Zalantzazko adibide cardaveraztiarrik Laborantzako esaldi nagusietan?
8.3.1.2. Beste adibide (cardaveraztiar?) batzuk ere, Duvoisinen beste lanetan.
8.3.2. Tradiziozko hitz ordenamendua (aditzen aurrealdeko guneak), Duvoisinen Laborantzako Liburuan.
8.3.2.1. Duvoisinen galdegaiak aditzaren ondoretik.
8.3.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
8.3.2.2.1. Aditz trinkoak zuzenean esaldi hasieran.
8.3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak Duvoisinen prosan.
8.3.2.3.1. Erlatibozko esaldiak beren izen buru mugagabearen ondoretik.
8.3.2.3.2. Erlatibozko esaldi biziki berezi bat.
8.4. Duvoisinen Biblearen itzulpenaz (1859-1865).
8.4.1. Duvoisinen Biblea eta Vulgataren arteko alde handiak hitzen ordenamenduan: Duvoisin, latinaren uztarpetik kanpo.
8.4.1.1. Alderaketa txiki bat Duvoisinen Don Kixoteren itzulpenaren inguruan.
8.5. Ohar batzuk, amaitzeko, Duvoisinen zenbait erreflexio estilistiko, eta gramatikalen inguruan.
8.5.1. Joannateguyren eredua.
8.5.2. Duvoisinen erreflexio gramatikal zenbait, hitzen ordenaren inguruan.
8.5.2.1. Esaldiko elementuen ordenamendu libreaz.
8.5.2.2. Beste ohar batzuk, zenbait elementu eta esaldiren ordenamenduaz.
8.5.2.2.1. Adjetiboaren guneaz.
8.5.2.2.2. Zenbatzaileen ordenamenduaz.
8.5.2.2.3 Izenen koordinazioaren inguru.
8.5.2.2.4. Aditzen koordinazioaren inguru.

ERASKINAK:

1. Alderaketa bat, Cardaverazen Egercicioen 2. Partea eta Duvoisinen Liburu Ederraren artean, hitzen ordenamenduari dagokionean: 1. Ordenamendu bitxi beretsuak.
2. Alderaketa bat, Cardaverazen Egercicioen 2. Partea eta Duvoisinen Liburu Ederraren artean, hitzen ordenamenduari dagokionean: 2. Ordenamendu aldaketak, aditz gunearen inguru.
3. Alderaketa bat, A. Pascual Iturriagaren Jolasak, eta honen lapurterazko moldaketa, Duvoisinek eginikoaren artean, hitzen ordenamenduri dagokionean.

VI. Tradiziozko testigantzak XIX mendean, Iparraldeari lotutako gramatikalarien artean.

1. F. Lécluse (1774-1845) irakaslearen Gramera 1826an, tradiziozko ordenamenduen adierazle, eta Harrieten ordenamendu indiferentziaren aldarrikatzaile.

1.1. Lécluseren iritzi apurrak euskarazko hitzen ordenamenduaren gainean.
1.1.1. Lécluse ordenamendu indiferentzia predikatzen euskaraz, objetua eta aditzaren artean.
1.2. Lécluseren tradiziozko adibidetegia.
1.2.1. Galdegaiak aditz ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.
1.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak: AO (VO) egiturak.
1.2.2.1. Aditz trinkoren bat zuzenean esaldi hasieran.
1.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
1.2.3.1. Erlatibozko esaldiak beren buru (mugagabe?)-aren ondoretik.
1.2.4. «Xà» egiturak euskaraz, eta frantzeseko egituren orden desberdinak.
1.3. Lécluseren euskal testu erakusgarriak.

2. Jean Pierre Darrigol (1790-1829) abadearen Disertazio kritiko eta apologetikoa 1827an, euskararen ordenamendu librea aldarrikatzen.

2.1. Euskara orden libreko hizkuntza.
2.2. Darrigolen adibidetegi eskasa.
2.2.1. «Xà» egiturak euskaraz, frantzesez bestela.
2.2.2. Galdegaia aditzaren ondoretik: SAO (SVO) egiturak.
2.2.2.1. Baita zuzenean aditzaz hasiko den esaldi bat.

3. A. Chaho (1811-1858) aztiaren Grammaire euskarienne-a 1836an, eta bere artikuluetako praktika tradiziozkoa.

3.1. Chaho ordenamendu aske baten defentsan.
3.1.1. Abbadieren ohar eta adibideren bat.
3.1.1.1. AO (VO) egitura bat ere, zuzenean aditzaz hasten dena.
3.2. Chahoren praktika tradiziozkoa.
3.2.1. Galdegaiak aditz ondoretik.
3.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
3.2.4. Erlatibozko esaldiak beren izen buru mugatuaren ondoretik.
3.2.5. Galdera hautsi bat ere.

4. 1840, A. Hiriart (□1787-?) eskola maisuaren Introdukzioa euskal eta frantzes hizkuntzei.

4.1. Hiriarten adibidetegi laburra.
4.1.1. Hiriarten «Xà» egiturak euskaraz, nahiz bestelakoak erakutsi frantsesez edo latinez.
4.1.2. Galdegaiak aditzaren ondoretik eta AO (VO) egiturak.
4.1.3. Aditzak esaldi hasieran.
4.1.4. Mendeko esaldi hautsiak.
4.1.4.1. Erlatibozko esaldia bere buru mugatuaren ondoretik.
4.1.4.2. Amorecatic partikularen aurregunea esaldian.

5. Francisco Jaureguy de San Juan-en 1850eko Gramera berria, ikasteko Eskualdunec mintzatzen Espainoles.

5.1. Jaureguyren tradiziozko idazmoldeez.
5.1.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.

5.1.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
5.1.3. Mendeko esaldi hautsiak.
5.1.4. Erlatibozko esaldiak beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik.
5.1.5. Beste oharren bat Jaureguyren hitzen ordenaz.
5.1.5.1. Baizik eta salbu partikulen aurreguneaz esaldian.
5.1.5.2. -ko izenlagunen guneaz izenaren ondoretik.
5.1.5.3. Izen arrunta fi izen propioa orden segidaz.

6. J.B. Archu (1811-1881) zuberotarraren Uskara eta Frantzes Gramatika lanak, 1848 eta 1852an.

6.1. Archuren 1848ko gramatika apurrak
6.1.1. Adjetibo ez-primitiboen izen aurre edo ondoko gunearen indiferentziaz.
6.1.2. Genitibo edutezkoaren ez-izen-aurreko-guneaz.
6.1.2.1. Archuren Gramatikako adibideak.
6.1.3. -ko izenlagunez.
6.1.4. Archuren 1848ko tradiziozko hitz ordenaz.
6.1.4.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.
6.1.4.2. Mendeko esaldi hautsiak.
6.1.4.2.1. Erlatibozko esaldi bat, izen buru soil eta muga gabearen ondoretik.
6.2. Archuren Uskara eta Frantzes Gramatika, eta Bi mihiren gramatika (1852-1853-1868).
6.2.1. Frantzesa eta euskararen arteko joskera desberdintasunen kontzientzia Archugan.
6.2.2. Izenorde eta aditzak, beste hitzen aitzinean frantzesez. Baina beste hitzen ondotik euskaraz (euskal aditzaren nolabaiteko posposizioaren lehen erreibindikazio inprimatua).
6.2.3. Euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenoa, eta Archuren independentzia frantzes ordenamenduarekiko.
6.2.4. Archuren «aX» egiturak-edo uskaraz.
6.2.5. Galdegaiak aditzen ondoretik, edo AO (VO) egiturak.
6.2.6. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
6.2.7. Mendeko esaldi hautsiak: praktikan, eta teorian.
6.2.8. Archuren erlatibozko esaldiak, beren izen soil mugatu gabearen ondoretik, praktikan eta teorian.
6.2.8.1. Erlatibozko esaldi eta egiturak izen mugatuaren ondoretik.
6.2.9. Azken oharño batzuk, Archuren beste zenbait hitz ordenamenduz.
6.2.9.1. Orden librerako adibide bat.
6.2.9.2. Etenen bat galdegaia eta ondorengo aditzaren artean.
6.2.9.3. Izen arrunta fi Izen propioa segida.
6.2.9.4. Zenbatzaile ordinalak izenen ondoretik.
6.2.9.5. Salbu partikularen gunea sintagma hasieran.

7. Emmanuel Inchauspe (1816-1902) zuberotarraren, euskal obra literario eta gramatikal zabala.

7.1. Inchausperen aldarrika etengabea, hitzen ordenamendu libreaz euskaraz.
7.2. Inchausperen praktika tradiziozkoa.
7.2.1. Euskarazko «Xà» egiturak, eta Inchausperen kezka bizia, gordetzeko erdaren mendetik.
7.2.1.1. Esaldi jiratuak frantzesez eta euskaraz.
7.2.1.2. «Xà» egitura berdinak frantzesez eta euskaraz.
7.2.1.3. «Xà» egitura absolutoak Inchauspegan.
7.2.2. «aX» eta AO (VO) egiturak etengabe Inchausperen adibidetegietan.
7.2.3. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak, Inchausperen prosan.
7.2.4. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak Inchausperen prosan: «aX» egitura absolutoak.
7.2.4.1. Aditz trinko bat ere bai bederen zuzenean esaldi hasieran.
7.2.5. Mendeko esaldi hautsiak, teorian eta praktikan.
7.2.5.1. Mendeko esaldi hautsiak Inchausperen prosa propioan.
7.3. Erlatibozko esaldien zilegitasunaz euskaraz, beren izen erregimen soil eta mugatu gabearen ondoretik.
7.3.1. Izen mugatuaren ondoretik ere bai usu erlatibozko esaldiak, Inchausperen prosa propioan.
7.3.1.1. Erlatibozko esaldi hautsiak, konplementuak erakusten dituztenak, beren aditza, eta honi erantsitako buru nominal independientearen ondoretik.
7.4. Beste ohar batzuk, Inchausperen hitzen ordenamenduaren inguruan.
7.4.1. Genitiboaren guneaz izenaren aurrean.
7.4.1.1. -ko izenlagunen guneaz.
7.4.2. Aditz nagusia / aditz laguntzailea ordenamendu segidaren inbertsioez.

7.4.3. Aditz trinkoen derrigorrezkotasunaz, BA- partikula baieztatzailea hartzeko esaldian.
7.4.4. Esaldien koordinazio moduez, aditz laguntzailea (horrenbeste) errepikatu beharrik gabe.
7.4.5. Ere juntagailuaren guneaz: Baita ere
7.4.6. Izen arrunta fi Izen propioa segidaz.
7.4.7. Superlatiboak osatzeko moduaz, adjetiboak errepikatuaz.

8. Bonaparte Printze (1813-1891) euskaltzalearen lanen inguruan.

8.1. Printzearen instrukzioak itzulpengintzan.
8.2. Printzea eta hitzen ordena euskaraz.
8.2.1. Bonaparteren «Xà» egiturak euskaraz.
8.2.2. Bonaparteren AO (VO), eta SAO (SVO) egiturak.

9. Euskararen hitz ordenamendu librearen bi aitorpen jakitun 1857an: C.A.F. Mahnen (1802-1887) Denkmæler der Baskischen Sprache; eta Francisque Michelen (1809-1887) L'Escuara (Le Pays Basque).

9.1. Mahnen erreflexioak euskarazko hitzen ordenamendu libreaz.
9.2. Francisque Michelen L'Escuara artikulua.
9.2.1. Michelen erreflexioak euskarazko hitzen ordenamendu libreaz.
9.2.1.1. Michelen adibide eskasak.
9.2.1.1.1. «Xà» egitura absolutoak.
9.2.1.1.2. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.

10. J.P. Dartayet (1822-1870) musikologoa, eta M.H.L. Fabreren (1806/7-1875) Gidak, frantsesez eta escuaraz (lapurteraz) ikhasteco, 1861, 1862, 1873 eta 1876an. Eta Dartayeten erreibindikazioa, euskarazko orden libre batena, 1867an.

10.1. Dartayeten oharra, euskarazko esaldien ordenamendu libreaz, 1867 eta 76an, Inchausperen itzaletik.
10.1.1. Dartayeten «aX» egiturak aditz paradigmetan.
10.1.2. «aX» egiturak Dartayeten adibidetegian.
10.1.2.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.
10.1.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
10.1.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
10.1.3. Ba- aurrizkiaren derrigorrezkotasunaz aditz trinkoekin.

11. W.J. van Eys-en (1825-1914) Gramatiketako ohar eskasak, hitzen ordenaren gainean, 1867 eta 1879an.

11.1. Erlatibozko esaldien orden posibleen inguru: beren izen buru soil eta mugatu gabeen ondoretik ere.
11.2. Van Eysen tradiziozko adibidetegia.
11.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.
11.2.2. Zuzenean aditzaz hasitako esaldiak.
11.2.2.1. Aditz trinkoren bat ere esaldi hasieran.
11.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
11.3. Van Eysen oharra, ia derrigortuaz Ba- aurrizki baieztatzailearen erabilera aditz trinkoekin, nahiz berak kontrarako adibideak erakutsi.

12. Charenceyko Kontearen (1832-1916) oharño bat 1862an, euskarazko esaldien usuzko inbertsio moduez.

13. Louis Gèze-ren Gramera elementu zuberotarrak 1873an, ordenamendu librea predikatzen euskararentzako.

13.1. Gèzeren ordena librearen erreibindikazioa.
13.2. Gèzeren adibidetegiko tradiziozko ordenaz.
13.2.1. Galdegaiak aditz ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.
13.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
13.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
13.3. Erlatibozko esaldiak euskaraz, beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik ere.
13.4. Gèzeren beste zenbait ohar, esaldiko hitzen ordenaren inguruan.
13.4.1. Aditz laguntzaileen aurreratzeaz.
13.4.2. Aditz laguntzaileak ez errepikatzeaz sail batean.
13.4.3. Deklinabide atzizkiak errepikatzeaz sail batean.
13.4.4. BA- aurrizkiaren erabileraz, derrigorrez, aditz trinko (ia) guztien aurrean.

14. Achille Luchaire (1846-1898) irakaslearen tradiziozko testigantza, eta oharra, euskarazko esaldien usuzko inbertsio moduaz, 1879an.

14.1. Luchaireren oharra inbertsioaz, 1879an.
14.2. Luchaireren tradiziozko adibidetegia.

15. Julien Vinsonen (1843-1926) ohar eskasak, euskarazko hitzen ordenaz.

15.1. Vinsonen SAO (SVO) ordena aitorpen bat euskarari 1873an.

16. J. Ithurryren (1845-1896) tradiziozko aldarrikapenak 1894ko Gramera sendoan.

16.1. Ithurryren atala sintaxiari buruz.
16.2. Ithurryren ordenamendu librearen aldarrikapena.
16.2.1. Ithurryren ohar berezi, kontraesantsu bat, «Xà», aditza bigarren, fenomenoaren inguruan.
16.2.2. Ithurryren tradiziozko adibidetegia.
16.2.2.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.
16.2.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
16.2.2.2.1. Aditz laguntzaile jokatu bat ere bai esaldi hasieran.
16.2.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
16.3. Erlatibozko esaldiak, beren izen buru mugatu, edo mugatu gabe soilaren ondoretik.
16.3.1. Erlatibozko esaldiak beren izen buru mugatuaren ondoretik.
16.3.2. Erlatibozko esaldiak beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik.
16.4. Beste ohar labur batzuk, Ithurryren hitzen ordenamenduaren inguruan.
16.4.1. Aditz laguntzaileen ez errepikatzeaz koordinatutako esaldietan.
16.4.2. Bi aditzetako sujeto bakarraren joskera moduaz.
16.4.3. Izen arrunta fi Izen propioa segidaz.
16.4.4. Aditz trinkoen erabilera, BA- aurrizkiaren beharrik gabe.
16.4.5. Edutezko genitiboa eta izenaren arteko loturaz.
16.4.6. Leiçarragaren galdera hautsi bat ere bai.

VII. Tradiziozko testigantzak XIX mendean hegoaldeko gramatikalarien artean.

1. 1825, Luis de Astigarragaren Diccionario Manual y Elementos de Gramatica batzuren lehen argitalpena.

1.1. Astigarragaren tradiziozko hitz ordenamendua.
1.1.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.
1.1.2. Gaztelaniarekiko ordenamendu desberdintasunak Astigarragaren esaldietan.
1.1.3. Astigarragaren aditzak zuzenean esaldi hasieran.
1.1.4. Aditz trinkoak esaldi hasieran.
1.1.5. Astigarragaren mendeko esaldi hautsiak.
1.2. Astigarragaren ezezko aditz inbertsio gabeak.

2. Aita Juan Mateo Zavala (1777-1840), eta bere Verbo regular vascongado-a (1848).

2.1. Zavalaren tradiziozko adibidetegia Verbo-an.
2.1.1. Euskarazko «Xà» fenomenoa, eta gaztelaniazkoen ordenamendu kontrajarrien adibideak.
2.1.2. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak euskaraz ere.
2.1.3. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
2.1.3.1. Aditz trinkoak esaldi hasieran.
2.1.4. Mendeko esaldi hautsiak.
2.2. Aditz atzeratze arrastoren bat Zavalaren adibide propioetan? Agian.
2.3. Zavala P. Astarloaren Verbaldiac zuzentzen (aldatu gabe honen aditzaren aurreguneak).
2.3.1. Bada aditz atzeratze bat ere.
2.4. Zavalaren prosa propioa.

3. A. Pascual Iturriaga (1778-1851), ezin tradiziozkoago praktika bat 1842ko Jolasetan. Nahiz adibidetegi berezi samar bat ere bai, 1841eko Artean.

3.1. Iturriagaren Arteko ordenamendu ezaugarriak
3.1.1. Iturriagaren «Xà» moduko adibidetegi sistematikoa Artean.

3.1.1.1. Aditzak esaldi bukaeran adibidetegian.
3.1.1.2. Esaldi jiratu batzuk ere euskaraz eta gazteleraz.
3.1.2 Aditz atzerapen artifizialak ere bai Iturriagaren adibidetegian?
3.1.2.1. Aginterazko aditzen atzeratzeak.
3.1.2.1.1. Aginterazko aditz aurreratuak ere.
3.1.2.2. Beste aditz atzeratze artifizialen bat ere?
3.1.3. Adibide ezcardaveraztiarrak-edo Artean.
3.1.3.1. Esaldi ordenamendu berdinak euskaraz eta gaztelaniaz.
3.1.3.2. Galdegaia aditzaren ondoretik eta AO (VO) egiturak.
3.1.3.2.1. Baizik partikularen aurre gune bat esaldian.
3.2. Iturriagaren Jolasetako prosa tradiziozkoa.
3.2.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik.
3.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
3.2.4. Aditz atzeratze artifizialen arrastoren bat ere bai Iturriagaren Jolasetako prosan? Konparazio txiki bat bere hiru itzultzaileekin.

ERASKINAK:
1. Iturriagaren Jolasetako lehen lerrokada narratiboa (1842, 2-3 or.).
2. Jolasetako bigarren lerrokada narratiboa (1842, 6-8 orr.).

4. Zer zuen esateko J.F. Aizquibelek (1798-1865), Syntaxia eta hitz ordenamenduaren gainean?

5. J.A. Uriarte (1812-1869), tradizio bizkaitarraren zainean.

5.1. Uriarteren tradiziozko prosa estiloa Printzea ezagutu aurretik.
5.1.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.
5.1.1.1. Aditz trinkoa esaldi hasieran.
5.1.2. Mendeko esaldi hautsiak.
5.1.3. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.
5.2. Uriarteren tradiziozko estiloa, itzulpenetatik kanpo.
5.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.
5.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
5.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.
5.3. Uriarte euskaratik euskarara itzultzen Iturriagaren Jolasak.
5.3.1. Uriarteren aditz aurreratzeak esaldi nagusietan.
5.3.2. Uriarte aurreratzen mendeko esaldietako aditzak.
5.3.3. Beste ordenamendu aldaketa batzuk.
5.3.3.1. Esaldiren baten jiratzea.
5.3.3.2. Juntagailuren baten aurreratzea.
5.3.3.3. Sintagma buru baten atzeratzea ere.
5.3.3.4. Uriarte aditz laguntzailea aurreratzearen kontra.
5.4. Uriarteren Bibliaren itzulpena gipuzkeraz.
5.4.1. Alde nabarmenak Uriarteren itzulpena eta Vulgataren hitzen ordenamenduaren artean.
5.4.1.1. Uriarte Genesiseko aditzak atzeratzen.
5.4.1.1.1. Esaldi jiratzeak ere.
5.4.1.2. Uriarteren aditz aurreratzeak Leviticocoan.
5.4.1.2.1. Aditza aurreratzen esaldi nagusietan.
5.4.1.2.2. Aditza aurreratzen mendeko esaldietan.
5.4.2. Uriarteren ohar bat euskarazko SAO (SVO) ordenaren inguruan.

ERASKINAK:
1. J. A. Uriarteren Jesus Sacramentadua obraren Berba Aurrecoa.
2. J.A. Uriarteren Marijaren illaren sarrerako Arguibidia.
3. J. A. Uriarteren gutun bat euskaraz Printze Bonaparteri.

6. (1867-1876) J.M. Egurenen Metodo eta Manualak gaztelania (eta euskara) irakasteko.

6.1. Egurenen oharñoak bi hizkuntzen arteko eraikuntzen desberdintasunaz.
6.2. Egurenen adibidetegi ez-cardaveraztiarra.
6.2.1. Objetua aditzaren ondoretik: (AO) ordenamenduak.
6.2.1.1. Mendeko esaldietan ere, hauek hautsiaz.

6.2.2. Baina ordenamendu desberdinak ere bai euskaraz eta gazteleraz.
6.3. Egurenen elkarrizketetako esaeren tradiziozko eredua.
6.3.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.
6.3.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
6.3.2.1. Aditz trinkoren bat ere zuzenean esaldi hasieran.
6.3.3 Mendeko esaldi hautsiak.
6.3.4. Adibide cardaveraztiarren arrastoren bat ere?
6.3.4.1. Ezezko aditz konposatu inbertsio gabeak.
6.3.4.1.1. Ezezko aditz trinko atzeraturen bat?
6.3.4.2. Aginterazko aditzen atzeratzen?
6.3.4.3. Galdera hautsi bat.

7. Victoriano Huiciren Gramatika Eskuliburua (en-dialecto-nabarro) 1899an.

7.1. Huiciren adibidetegi anticardaveraztiarra.
7.1.1. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO egiturak.
7.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.
7.1.2.1. Aditz trinkoak ere esaldi hasieran buruzuri.
7.1.3. Mendeko esaldi hautsiak.
7.1.3.1. Mendeko esaldi batzuen adibidetegi hautsi-hautsigabeak.
7.1.3.2. Erlatibozko esaldien adibidetegi hautsigabea, eta benetako erabileraren arteko aldea, Huicirenean ere.
7.1.3.2.1. Erlatibozko esaldiak izen buru mugatu gabe baten ondoren.
7.2. Arrasto cardaveraztiarren bat ere (nekez) Huiciren prosan?
7.2.1. Ezezko aditzen bat inbertsiorik gabe.
7.2.2. Galdera hautsi bat.
7.3. Baizik (baita ere) partikulen aurreguneaz esaldian.

VIII. Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): XX mendeko hitz ordenamendu iraulketa bortitz guztiaren, Aita eta eragile.

1. Azkueren eskola, joskera berrikoa. Azkue: Altuberen aita sintaktikoa.
1.1. Azkue, XX mendeko hizkuntz iraultzaren Aitalehen.
1.2. Azkue, XX mendeko hitz ordenamendu erreformaren maisu, gidari eta eragile.
1.3. Azkueren 1891eko Euskal-Izkindea, erreforma espirituaren ardatza.
1.3.1. Azkueren 1891eko garbiketa, erreforma, asmoak.
1.3.2. Logika eta erregularitatea, erreformaren gidariak.
1.3.2.1. Gaztelaniarekin borrokan.
1.3.3. Azkueren zor astarloarra.
1.4. Azkueren irizpide logizista, antierderista, eta anti-tradiziozkoak, joskera eta hitz ordenerako arauak asmatzeko garaian, 1891ean, eta geroztik.
1.4.1. Zenbait ohar, Azkueren antierderismo sintaktikoaz 1891ean, eta geroztik.
1.4.1.1. Euskal eta erdal ustezko sintaxiak, euskaldunak euskaraz hitzegitean.
1.4.1.2. Nahiz harrigarri samar, Azkuek, inoiz esango duen, antzik gehiena aurkitu bide duela, euskara eta gaztelaniaren artean, prezeski, esaldiko elementuen ordenamenduan.
1.5. Azkueren geroztiko krokodilo malkoak, Izkindeako gaztetako pekatuengatik.
1.5.1. Damu, beti, 1891ko aditz morfologiako berrikuntzez.
1.5.2. Damurik ez inoiz ordea, 1891eko (eta geroztiko) joskera eta hitz ordenamendurako berrikuntzen gordinaz.
1.6. Azkuek 1891z geroztik sustatzen duen joskera-hitz-ordenamendu iraultzaren bi adarrak.
1.6.1. Azkueren 1891z geroztiko lanak, joskera eta hitzen ordenamenduaren inguruko aipamenekin.
1.6.2. Azkueren euskal prosa lanak 1891eko Izkindeaz geroztik.
1.6.3. Azkueren ohizko kezka, hitz eta egituren ordenamenduarekiko euskaraz.
1.6.4. Azkueren bi iturri sintaktikoak 1891ko Izkinderako.
1.6.5. Azkueren 1891ko lau sistema sintaktiko: bi ekarri, bi propio.
1.6.6. 1891ko Izkindeatik, XX mende guztian zehar sustatutako iraultza sintaktikoaren bi (hiru)

ezaugarriak.
1.6.6.1. Oharño bat Azkueren bi prosa estiloren inguru.
1.7. Azkueren eskola.
1.7.1. Azkueren izaeraz, eta podereez.
1.7.2. Azkueren eskola sintaktikoa, joskera berrikoa.
2. Azkueren borroka antizeinista etengabea 1891ko Izkindeatik.
2.1. Antizeinismoa 1891ko Izkindean.
2.2. Metodo Practicoko ohar antizeinistak 1896an.
2.3. Parnasorako Bidearen edizio antizeinista 1896an, Azkuek zuzendua.
2.3.1. Antzeko zuzenketa antizeinistak Elissambururen poesian.
2.4. 1905-6ko Hiztegi sarrerak, barbarismo zeinistak salatzen.
2.4.1. Hala ere, zenbait erabilera zeinista onartzen Hiztegian.
2.5. Azkuek ez du ja jarrera antizeinistarik aldatuko bizitza osoan.
3. Azkueren sistema cardaveraztiarra: Aditza esaldi bukaeran?
3.1. Azkueren sistema cardaveraztiarraren erregela propio nagusia, 1891ko Izkindean: mendeko elementuak nagusien aurretik.
3.1.1. Mendetasunez alkarturiko itz banatuak.
3.1.1.1. Erregituak joaten ez direnean erregenteen aurretik.
3.2. Aditzaren konplementu guztiak aditzaren aurretik. Ergo: Aditza konplementu guztien ondoretik?
3.2.1. Beste zeinnahi konplementu bezala, mendeko esaldi jokatugabeak ere, aditz nagusiaren aurretik. (Derrigorrez?)
3.2.2. Mendeko esaldi jokatuak ere (derrigorrez?), aditz nagusiaren aurretik.
3.2.2.1. Legea argixeago, 1896ko Metodo Practicoan.
3.2.2.2. Legearen araberako zuzenketak 1925eko Morfologian ere.
3.3. Aditzak nabarmen atzeratzen esaldi nagusian.
3.3.1. Azkueren etenak galdegaia eta aditzaren artean, Cardaverazen eskolan.
3.3.1.1. Etenak koma bidez galdegaia / aditzaren artean.
3.3.1.2. Azkueren galdera hautsi eskasak.
3.3.2. Aginterazko aditzak atzeratzen ere zenbaitetan.
3.3.3. Ezezko aditzen batzuk ere atzeratuta?
3.3.4. Aditz nagusien atzeratzeen beste arrastoren batzuk?
3.4. Aditzak bukaeran, bai, derrigorrez, mendeko esaldietan, 1891ko Izkindeatik.
3.4.1. Legea ª1894ko Ensayo Practicoan.
3.4.2. Legea 1896ko Metodo Practicoan.
3.4.3. Nahiz Azkuek aitortuko duen, esaldi hautsien zilegitasuna ezezko esaldi mendekoetan.
3.4.3.1. Eta agian subjuntiboetan ere?
3.4.4. Mendeko esaldi hautsi esanguratsuak nolanahi, 1905-6ko Hiztegi adibideetan.
3.4.5. Zuzenketa cardaveraztiar kanonikoak berriro, 1925eko Morfologian.
3.4.5.1. Mendeko esaldi hautsiak Morfologian ere.
3.4.6. Etenak mendeko esaldietan, elementuak tartekatuaz, aditza eta honen aurreko ohizko perifrasien artean.
3.4.7. Mendeko esaldi hautsi ugariak nolanahi, Azkueren prosan.
3.5. Azkueren aditz atzeratze adibide orokor eta nabarmenak 1896ko Dotrina argitaragabean.
4. Azkueren sistema astarloarra.
4.1. Euskararen ordenamendu askatasunaz, esaldiko elementuen arterako.
4.1.1. Ordenamendu askatasuna 1891n ere?
4.1.2. Azkueren muga gaindiezina euskararen ordenamendu askatasunari. «Xà» fenomenoaren haritik.
4.2. Esaldiko elementurik garrantzitsuena esaldi hasieran.
4.2.1. Zehazten Astarloaren noblezia kontzeptua
4.2.1.1. Elementurik nobleena = elementurik garrantzitsuena: aurretik.
4.2.1.2. Mobilitatezko elementu garrantzitsuena = gai bilatua (elementu inkiridoa): aurretik.
4.2.1.3. Elementu garrantzitsuena = la idea más noble ó capital.
4.2.1.4. Hitz eta ideia printzipalaren, eta elementu inkiridoaren tradizio europar baten inguru.
4.2.2. Beraz gai bilatua-elementu inkiridoa, esaldi hasieran. Baina eta besteak? Eta aditza?
4.2.2.1. Ordenamenduen bitxikeria: Etenak, elementu tartekatuak, galdegaiak eta aditzen artean.
4.2.2.2. Aditza gutxitan doa euskaraz esaldi hasieran. Eta gutxiago esaldi luzeetan.

5. Azkueren lege altubetarra: galdegiten den bezala erantzuten da.
    5.1. Galdegilea + aditza: derrigorrezko segida.
    5.2. Eta, galdegiten den bezala erantzuten da. Ergo: galdegaia + aditza, Altubek predikatu bezala.
        5.2.1. Horixe zen, 1891ko Izkindeako praktika ere.
6. Azkueren sistema greenberg-de-rijk-tiarra: Euskararen SOA (SOV) / OAS (OVS) egituren bidean (edo greenberg-de-rijk-tiarren askuenzeaz.)
    6.1. 1896ko arau ageria atributua + aditza segidaz, gaztelaniaz ez bezala.
    6.2. Azkueren haustura tradizioarekiko.
        6.2.1. Tradiziozko testigantza batzuk.
            6.2.1.1. Pachico Cherren.
            6.2.1.2. Urruzunoren Ipuiak.
        6.2.2. Azkueren berrikuntza estilistikoa.
            6.2.2.1. Azkue atributuak aurreratzen aditzari 1896ko Dotrina argitaragabean.
7. Azkueren tradiziozko joskera antialtubetarra.
    7.1. Azkueren atributuak aditz ondoretik, tradizioari jarraiki, 1897ko Baionako Dotrinan.
        7.1.1. Definizio Azkue-Altubetarrak ere.
    7.2. Azkueren galdegaiak aditzaren ondoretik.
    7.3. Azkueren aditzak zuzenean esaldi hasieran, nahiz galdegaiak ondoretik izan.
    7.4. Azkueren aditz trinkoak esaldi hasieran buruzuri.
8. Beste ordenamendu arau aipagarri batzuk.
    8.1. Erlatibozko esaldiak zilegiztatzen, beren izen buru mugatu gabearen ondoretik.
        8.1.1. Azkueren erlatibozko esaldi hautsi eta hautsigabeak beren izen buru mugatuaren ondoretik.
    8.2 -ko eta -(r)en genitiboen aukerak euskaraz, izenaren ondoretik ere.
        8.2.1. -(r)en genitiboen guneaz izenaren ondoretik.
        8.2.2. -ko izenlagunen guneaz izenaren ondoretik.
    8.3. Aditz nagusia + aditz laguntzailea segidaz, eta honen inbertsio posibleez.
        8.3.1. Ba- (eta ez) partikulekiko inbertsioak.
        8.3.2. Laster adberbioak soilik eragin lezakeen inbertsioaz.
        8.3.3. Derrigorrezko inbertsioa ezezko aditz konposatuetan.
        8.3.4. Dislokazioak bideratzen ezezko esaldietan aditz laguntzailea eta nagusiaren artean.
    8.4. Ordenamendu ohar txikiago batzuk.
        8.4.1. Atzizkiak izen sail baten azkenekoari? Iluntasun arazoak.
        8.4.2. Euskarazko superlatiboak, hitzak errepikatuaz.
        8.4.3. Izen arrunta fi izen propioa segidaz: Andra Catalin.
        8.4.4. Aldiz juntagailuaren adibide bat bederen esaldi hasieran.
9. Bukatzeko.
    9.1. Azkueren beste eragin sintaktiko batzuk Altubegan.
        9.1.1. Aditzaren ekintza galdegai denean.
            9.1.1.1. Ibili dabil itxurako egituren inguru.
            9.1.1.2. Egin partikularen erabilera aditz indartzaile gisa.
        9.1.2. Izenorde intentsiboak erabiltzeaz aditzaren aurrean, ondoren emango den galdegaiaren ordezko.
        9.1.3. Goiko arrasta (coma superpuesta).
        9.1.4. Eta beste.
    9.2. Azkueren altubetarzaletasun sintaktikoaz.
    9.3. Azkueren azken aipu bat, erabaki artifizialek izan dezaketen eragin kaltegarriaz, hizkuntzaren erabileraren gainean.

EUSKAL GRAMATIKALARIEN TESTIGANTZA: IRITZIAK ETA, PRAKTIKA IDATZIAK

Sarrera.

Jaso eta aztertu nahi genituen, gure lanaren atal honetan, euskarazko hitzen ordenaren inguruan, historikoki eta gaur eguna bitarte, eman diren iritzi eta praktika esanguratsu guztiak euskalarien artean.

Hala aztertu ditugu lehendabizi, XVII mendeko gramatika eta gramatikalari apurren ekarriak. Gaur egun ezagun ditugun, Oihenart, Pouvreau, Micoleta eta Voltoire-renak. Eta egin diegu ere merezi zuten begirada pausatua, XVIII mendearen lehen erdian sortzen zaizkigun lau gramatika mardulei: Urte eta Etcheberri Sarakoarenak (ia berrehun urte beranduagora arte argitaratzen ez direnak), Larramendi eta Harrietenak.

Cardaverazi eskaini diogu ondoren atentziorik bereziena, berak eteten duen heinean tradizioarekin; hala nola, bere izenez bataiatu dugun eskolako beste zenbait partaideri XVIII, eta batez ere, XIX mendeetan zehar: Olaechea, Guerrico, Lardizabal edo Arrueri; eta, eskolarekin izan lezaketen zerikusiaren inguruan, baita ere J.A. Moguel, Añibarro, J.F. Amundarain, J.I. Guerrico Urquiola, Duvoisin, Aita J.I. Arana edo Campionen lanak. Cardaveraz, eta honen eskolaren bitartean aztertu dugu P.P. Astarloaren jarrera beti bitxi eta berezia XIX mendearen hasieran.

Beste alde batetik jorratu ditugu, Cardaverazen eskolatik kanpo, XIX mende guztian zehar, Moguel, Añibarro, Duvoisin edo Campionenak bezala, tradizioaren etorbide zabalean aurkitzen ditugun gramatikalarien testigantzak. Hala iparraldeari lotuagoak: Lécluse, Darrigol, Chaho, A. Hiriart, F. Jaureguy de San Juan, Archu, Inchauspe, Bonaparte, C.A.F. Mahn, Francisque-Michel, Dartayet, Fabre, van Eys, Charenceyko kontea, Gèze, Luchaire, Vinson edo Ithurry. Eta hegoaldekoak: Astigarraga, J.M. Zavala, Iturriaga, Aizquibel, Uriarte, Eguren edo V. Huici.

Iristeko, R.M. Azkuerenganaino, XX mendeko euskaren aitalehen, eta mendean barrena gorpuzten den iraultza sintaktikoaren eragile lehena.

Guzti hauen ingurutik aztertu nahi izan ditugu garai bakoitzeko prosalariak. Ahalik eta gehienak beti, eta bederen garrantzitsuenak, nahiz azkenik ez dugun hauen gainean hitzegin, ez bazituzten erakusten, joskera ezaugarri berri, iraultzaile eta tradizioarekiko hausleak.

Ez gara haratago iritsi lan honetan. Gogoak eta asmoak bai izan arren. Garbi ordenatzeko, berriro erredaktatzeko, geratzen zaizkigu orain, nota bildu mordoak, XIX mende hondarretan eta XX. osoan zehar, Azkuek eragindako iraultza sintaktikoaren inguruan, alde edo kontra, ageriagoan edo izkutuagoan, mugitzen diren euskalari, euskal idazleen gainean; eta zeintzuetako askoren obretan, nabari ageri diren hitz ordenamendu irizpide aldaketa bortitzak, bakoitzarengana iristen doazen neurrian, Azkuek bultzatutako iraultzaren oihartzunak. Horrela esan beharko lirateke hainbat gauza, besteak beste, Gaspar Oregui, Blas Pradere, Pio Mª Mortara, Sabino Arana, Karmelo Etxegarai, P.A. Orkaiztegi, Txomin Agirre, E. Bustintza, Eleizalde, Lopez Mendizabal, J.M. Arratia, Bera, I.M. Echaide, Belaustegigoitia, Soloeta-Dima, J.M. Lertxundi Baztarrika, M. Lekuona, P. Zamarripa, B. Arrigaray, Lhande, T. Alzaga, Gregorio Mujika, Altube, Lonarta Guridi, J.B. Eguskitza, Arruza, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, S. Onaindia, M. Inchaurrondo, Olabide, Zabala-Arana, Arriandiaga, J.M. Barandiaran, J. Mokoroa, Basarri, A.M. Labayen, E. Erkiaga, Zaitegi, Lafitte, Villasante, Mitxelena, eta oro har, oraindik gaur egun, gaiak hainbat kezkatzen dituen, euskal idazle, euskalari, gramatikalari eta gramatikagile hainbaten gainean, gure bibliografian jasota geratzen direnak.

Hauetako zenbaitez ematen genituen hainbat aipamen, gure gaur eguneko lan honen sorburuan egon zen *Hitzen ordena euskeraz. Historia piska bat* lanean (1988). Altuberi lan monografiko berezi bat eskaini genion honen aurretik, *Altuberen azterketan* (1991). Eta 1994ko ekainean burututako *Hitz ordenaren estatistikak* lanean eskaini diegu lehen atal oso bat De Rijk-en 1969ko «Is Basque an S.O.V. language?» artikuluari eginiko zenbait oharri.

Orain aurkezten dugun lan honetan, har bedi kontutan lau urtetan zehar izan dela gorpuztua, eta eskain ditzakeela zenbait deskoordinazio bere barne, nahiz hainbat saiatu garen hauek arintzen.

BURUEN AURKIBIDEA

I. XVII mendeko gramatika apurrak.

1. Arnauld Oihenart: 1638 / 1656.
2. Silvain Pouvreau (XVII m.).
3. Rafael Micoleta. 1653.
4. Voltoire (1620?).

II. Lau gramatika mardul XVIII mendearen lehen erdian.

1. Grammaire Cantabrique Basque. Pierre d'Urte (1712).
2. Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco. Joannes Etcheberri Sarakoa (1712?)
3. Larramendiren (1690-1766) Opera Magnaren ekarriak.
4. Harrieten Gramatica (1741). Adibidetegi ondo ugari bat.

III. (1760-1766) Aita Cardaverazen berrikuntza gordinak.

IV. Pablo Pedro Astarloaren espekulazio sensualistak XIX mendearen hasieran.

V. Cardaverazen eskola bat, XIX mendean barrena. (Ohar bat: J.{ XE " Arana)." }

1. Bartolome Olaechearen Dotrina Cristianea(k): 1763[1] eta 1775[2]
2. J.I. Guerricoren Platicac eta eragin posibleak (1740-1824). (Oharrak: Jose Feliz de Amundarain y Mugica eta Jose Ignacio de Guerrico Urquiola).
3. P.A. Añibarro (1748-1830): beti tradiziozko joskera baten eredu (Gramatikako ohar erantsi bat gorabehera).
4. F.I. Lardizabal (1806-1855): Gramatica bat, eta Testamentuco Condaira cardaveraztiar agiriak.
5. (1811-1890) Gregorio Arrueren itzulpengitza cardaveraztiarra.
6. Arturo Campion (1854-1937), gramatikalari gazte (eta euskal idazle)-aren ekarri batzuk.
7. Cardaverazen 1783ko Dotrina bizkaieraz, eta J.A. Moguelen testigantza (1745-1804), beti anti-cardaveraztiarra.
8. Eragin cardaveraztiar bat Iparraldean. Jean Duvoisin (1810-1891) ainhoarraren euskal lanak.

VI. Tradiziozko testigantzak XIX mendean, Iparraldeari lotutako gramatikalarien artean.

1. F. Lécluse (1774-1845) irakaslearen Gramera 1826an, tradiziozko ordenamenduen adierazle, eta Harrieten ordenamendu indiferentziaren aldarrikatzaile.
2. Jean Pierre Darrigol (1790-1829) abadearen Disertazio kritiko eta apologetikoa 1827an, euskararen ordenamendu librea aldarrikatzen.
3. A. Chaho (1811-1858) aztiaren Grammaire euskarienne-a 1836an, eta bere artikuluetako praktika tradiziozkoa.
4. 1840, A. Hiriart (□1787-?) eskola maisuaren Introdukzioa euskal eta frantzes hizkuntzei.
5. Francisco Jaureguy de San Juan-en 1850eko Gramera berria, ikasteko Eskualdunec mintzatzen Espainoles.
6. J.B. Archu (1811-1881) zuberotarraren Uskara eta Frantzes Gramatika lanak, 1848 eta 1852an.
7. Emmanuel Inchauspe (1816-1902) zuberotarraren, euskal obra literario eta gramatikal zabala.
8. Bonaparte Printze (1813-1891) euskaltzalearen lanen inguruan.
9. Euskararen hitz ordenamendu librearen bi aitorpen jakitun 1857an: C.A.F. Mahnen (1802-1887) Denkmæler der Baskischen Sprache; eta Francisque Michelen (1809-1887) L'Escuara (Le Pays Basque).
10. J.P. Dartayet (1822-1870) musikologoa, eta M.H.L. Fabreren (1806/7-1875) Gidak, frantsesez eta escuaraz (lapurteraz) ikhasteco, 1861, 1862, 1873 eta 1876an. Eta Dartayeten erreibindikazioa, euskarazko orden libre batena, 1867an.
11. W.J. van Eys-en (1825-1914) Gramatiketako ohar eskasak, hitzen ordenaren gainean, 1867 eta 1879an.
12. Charenceyko Kontearen (1832-1916) oharño bat 1862an, euskarazko esaldien usuzko inbertsio moduez.
13. Louis Gèze-ren Gramera elementu zuberotarrak 1873an, ordenamendu librea predikatzen euskararentzako.
14. Achille Luchaire (1846-1898) irakaslearen tradiziozko testigantza, eta oharra, euskarazko esaldien usuzko inbertsio moduaz, 1879an.
15. Julien Vinsonen (1843-1926) ohar eskasak, euskarazko hitzen ordenaz.
16. J. Ithurryren (1845-1896) tradiziozko aldarrikapenak 1894ko Gramera sendoan.

VII. Tradiziozko testigantzak XIX mendean hegoaldeko gramatikalarien artean.

1. 1825, Luis de Astigarragaren Diccionario Manual y Elementos de Gramatica batzuren lehen argitalpena.
2. Aita Juan Mateo Zavala (1777-1840), eta bere Verbo regular vascongado-a (1848).
3. A. Pascual Iturriaga (1778-1851), ezin tradiziozkoago praktika bat 1842ko Jolasetan. Nahiz adibidetegi berezi samar bat ere bai, 1841eko Artean.
4. Zer zuen esateko J.F. Aizquibelek (1798-1865), Syntaxia eta hitz ordenamenduaren gainean?

5. J.A. Uriarte (1812-1869), tradizio bizkaitarraren zainean.
6. (1867-1876) J.M. Egurenen Metodo eta Manualak gaztelania (eta euskara) irakasteko.
7. Victoriano Huiciren Gramatika Eskuliburua (en-dialecto-nabarro) 1899an.

VIII. Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): XX mendeko hitz ordenamendu iraulketa bortitz guztiaren, Aita eta eragile.

I. XVII MENDEKO GRAMATIKA APURRAK

Sarrera.

Badauzkagu erreferentziak, XVII mendean idatzi ziren sei gramatika lan desberdinenak ere, euskeraren inguruan (ik. Oyharçabal, 1989). Hauetako birena halare apenas heldu zaigun aipamena baino: Jacques de Belaren, gramatika bat,[1] eta Dominique Bidégarayren, *Rudimens basques* batzu.[2]

[1] Honi buruz dio Villasantek bere literaturaren historian (1979, 94 or.): «Es de notar que Belapeyre [Athanase Belapeyre, Catechima laburra, 1696], sacerdote católico, es hijo de Jacques de Bela, que fue protestante y escribió numerosas obras (inéditas), referentes a la lengua vasca: Gramática, Diccionario, etc. Dichas obras se han perdido. Unicamente se conserva de él una colección de proverbios vascos. Jacques de Bela (1586-1667) era suletino. Sus proverbios se publicaron en el volumen de Gve. Clément-Simon: Le Protestantisme et l'erudition dans le pays basque au commencement du XVII siècle. Jacques de Béla. Extraits de ses oeuvres inédites, Paris, 1896.»

[2] Dominique Bidégaray, aita frantziskotarra Pabeko konbentuan, eta honen *Rudimens basques*-ak, aldi batzutan aitatuak ageri dira (Dubarat, 1914, 6 or.), [dans] *Le Registre de déliberations des Etats de Navarre au XVIIe s.*, 1675-1679 urteak bitartean (ik. Dubarat, 1914; eta Oyharçabal, 1989). Aipu horietatik atera liteke susmoren bat Rudimentuen edukiari buruz. Hala, esaten da adibidez, 1677ko ekainaren 21eko deliberazioetan eta besteren artean (Dubarat, 1914, 13 or.): «Qu'ils [Messieurs les commissaires] fairont enfin rapport sans doute des Rudimens basques qu'ils ont pareillement examinez, oú il [Bidegaray] réduit cette langue en règles et que de la manière curieuse et surprenante de décliner et conjuguer qui y est observée, ...; ... [la langue basque et la langue hébraïque] ont différence et diversité des genres dans leurs verbes, ce qui ne se trouve dans le latin ny dans aucun autre langue qu'à l'esgard des noms seulement.»

1. Arnauld Oihenart: 1638 / 1656.

Arnauld Oihenartek 1638an ematen du argitara bere *Notitia utriusque Vasconiae, ...* liburua lehen aldiz. Bertan euskal hizkuntzari eskeintzen zaizkio lau kapitulu, eta euskal gramatikari, bi bereziago: XIa, eta batez ere, XIVa. Azken hau gainera, oso zabaldua eta birmoldatua gertatzen da, erabat itxaraldatua ere bai zenbaitetan, 1656ko 2. argitalpenerako (azken honen itzulpena ematen da 1923an RIEVen gazteleraz). Dudarik gabe Oihenartena da gramatika lanik gorpuztuena,[2] XVII mendetik iritsi zaizkigunen artean.

Ordea, Oihenartek ere ez du ezer esaten agerian, euskarazko esaldi barreneko elementuen ordeamenduaren inguruan. Ondorioren bat ateratzeko Oihenarten usteen gainean, aztertu beharko dira, berak tarteka, eta beti gramatikaren beste punturen baten argitzeko, ematen dituen euskarazko esaldi hainbat osatuak (ez denak perpaus osoak eta nagusiak), ez ugariegiak nolanahi. Segidan jasotzen ditugun 32 esaldiak.

1.1. Euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenoa Oihenartengan.[2]

Bi argitalpenetan berdintsu, Oihenartek erakusten du, batetik esaldi labur sail bat, soilik bi elementuz osatua: aditza «a», eta beste argumentu bakar bat «X». Esaldi bakoitza aurkezten da bere ondoko itzulpenarekin, eta batzutan hizkuntza batean baino gehiagotan. Denera 8 esaldi (lehenengo seiak berdinak bi argitalpenetan; azkeneko biak bakarrik 1656koan ageri direnak (1638, 57-58 orr.; eta 1656, 337, eta azkeneko biak, 348 orr. -gaztelerazko itzulpena orduan, itzultzailearena delarik-):

(1) Guiçon hura etorri da, homo ille venit, ...
(2) Guiçon hec etorri dira, homines illi venerunt: ...
(3) Guiçona etorri da, hic homo venit, l'homme est venu Gallicè: el hombre à venido Hispanicè: ...
(4) Guicon-ac etorri dira, hi homines venerunt, les hommes sont venus, los ombres an venido: ...
(5) ...; guiçon da, homo est: ...
(6) ... guiçonac eguiten du, ... homo facit.
(7) ..., bihar etorrico nazaite, mañana habré venido; ...

Beste laurak dira, Oihenart, Pouvreau, Micoleta eta Voltoire-renak. Hauen artean agian Pouvreaurena izan zitekeen ikusmirarik zabalenekoa. Zoritxarrrez ez da guganaino heldu lan honen atal minuskulo bat baino. Beste hirurak ez dira gramatika lanak berez, eta ez zaio honi inon ematen tratamendu zabalegirik, nahiz Oihenartena izan hiruretan sendoena, aldearekin. Micoleta edo Voltoireren lanetan, gramatika baino askoz nabarmenagoa da beti, hizkuntza erakusteko asmo didaktiko praktikoa, hizkuntzatik hizkuntzara itzulitako elkarrizketen bidez.

---

(8) ...; noiz guelldituco nazaite, ¿cuando habré parado?

Zortzi esaldiotan nabarmen da, Oihenartek euskaraz segitzen duen egitura ordena, beti dela, «Xa» modukoa, aditzak amaitzen duelarik esaldia (euskaraz ohizkoa ere baden bezala bi elementuz osatutako esaldietan; alderantzizkoa baino ohizkoagoa bederen).

Kontutan harturik ordea, berdinak direla «Xa» hitzordenok, euskaraz eta latin, frantzes edo gaztelerazko itzulpenetan,[2] ez dirudi Oihenartek alde aipagarririk aurki zezakeenik hauen ordenamenduan, euskara, eta beste hizkuntza horien arterako.

1.2. Aditz nagusia / mendeko aditza ordena Oihenartengan: «aX».

Oihenartek ematen dizkigu beste 24 esaldi konposatu; denak oso laburrak, eta gehienak bi elementu soilez osatuak: 1.- aditz nagusia «a», gehienean beste konplementurik edukiko ez duena mendeko esaldi bat baino; eta 2.- mendeko esaldia lehenaren konplementu, «X», eta gehienean aditza beste elementurik ez duena. Batzuetan hala ere, bada beste konplementu oso laburren bat esaldi nagusian (14, 19, 20 esaldi kopulatiboetan bezala), edo mendekoan (9 esaldia), edo bietan ere (21, 22 esaldiak). Lehenengo bostak salbu (1638, 58 eta 62 orr.), beste guztiak, soilik agertzen dira 1656an:

(9) ...: hori eguinic nathor, touto poiesas érqhomai, ie viens ayant fait cela, Gallicè: vengo aviendo hecho aquello, Hispanicè. (58)
(10) ..., Vstaçu galzera, fine me perdere; ... (62)
(11) ...; hasi naiz galzen, coepi perdere, ... (62)
(12) ..., nahi dut galdu, volo perdere, ... (62)
(13) ..., vzaçu Galdadin vel galdadila, fine perire vel perdi; ... (62)
(14) ... on da ezicea, bueno es echarse, o yacer; ... (342 or.)
(15) ..., uztazu joaitera, déjame marchar. (342 or.)
(16) ... Hassi naiz icusten, comencé a ver; ... (342 or.)
(17) ... Nahi dut iccassi, quiero aprender; ... (342 or.)
(18) ...: Uste du diccassadala, cree que aprendo; iccassi dudala, que he aprendido; iccassico dudala, que aprenderé. (342 or.)
(19) ..., erraz da eguiteco, es facil de hacerse; ... (343 or.)
(20) ...; itsussi da errateco, es vergonzoso para decirse. (343 or.)
(21) ...: hona etorri naiz haren icusteco, o icusteagatic, viene (sic) aquí para verle. (343 or.)
(22) ...: badakit noiz guelldituco nazaiteen, sé cuando habré cesado. (348 or.)
(23) ..., Ustez egon naizen, pensando que permaneciera yo, o hubiese permanecido. (349)
(24) ..., Ustez egoiten nainzen, pensando que permanecería; ... (349 or.)
(25) ..., ustez egon nainzen, pensando que hubiera permanecido; ... (349 or.)
(26) ..., ustez egonen nainzen, pensando que habría permanecido. (349 or.)
(27) ..., Ustez egon nazaiteen, pensando que permaneceré. (349 or.)
(28) ..., ustez etorri nanzaiteen, pensando que hubiera venido (349 or.)
(29) ... ustez etor naiteen, pensando que vendría: ... (350 or.)
(30) ...: Ustez egin dezakedan, pensando que haría. (350 or.)
(31) ... Usted (sic) etor nainteen, pensando que viniese o viniera; ... (350 or.)
(32) ...; Ustez egin nezakeen, pensando que yo hiciera. (350 or.)

Garbi dago, ordenamendu egitura nagusia dela esaldietan (salbu, 8an), «aX» modukoa: {aditz nagusia (edo erregimena) «a» + mendeko esaldi konplementua «X»}. Esaldi hauetan ere ez da sumatzen alderik «aX» ordenamendu egitura horretan, euskara, eta itzulpen hizkuntzaren artean (salbu, 8 esaldia).[2]

Bestelakoan, esaldi konposatu hauetan ere, mendeko esaldiak edo nagusiak, beste «X» konplementuren bat dutenean, hau beti ageri da «Xà» egituran aditz erregimenarekiko (alderantzizkoa izanda ere elementu horien itzulpeneko ordena): (9) ... *hori / eguinic* ... (hecho aquello) / (14) ... *on / da* ... (bueno es) / (19) ... *erraz / da* ... (es fácil) / (20) ... *itsussi / da* ... (es vergonzoso) / (21) ... *hona / etorri naiz* ... (viene aquí) / (21) ... *haren / icusteco* ... (verle) / (22) ... *ba / dakit* ... / (22) ... *noiz / guelldituco nazaiteen* ... (cuando habré cesado).

Finean, den-hauetatik ere, ezin espero dugu argibide gehiegirik, hitzen ordenamenduak euskaraz gorde zitzakeen erregela batzuren inguruan. Ezpada beti, oso zeharkako bide batetik, aztertuaz, gramatikalari hauen euskarazko idatziak, hurrena zertxobait egingo dugun bezala.

2. Silvain Pouvreau (XVII m.).

Silvain Pouvreau apaizak osatua zuen agidanean euskal (eta frantzes) gramatika bat XVII mende erdialderako.[3] Zoritxarrez ez dira guganaino iritsi gramatika haren apur batzuk baino; J. Vinsonek argitaratu zituenak, lehenengo aldiz 1881. urtean, eta denera ez direnak dozena bat orrialde.[4]

Eta benetan zaigu guri pena, ezin osoago ezagutu izana Pouvreauren gramatika lana. Bada, nahiz eta iritzi desberdinak izan euskalarien artean haren balioen inguruan [baita ere Pouvreauren gaitasun gramatikalariaren, eta oro har, euskaldunaren gainean][5], nahiko nabarmena da orrialde gutxi horietan, Pouvreauren interes berezia, euskal joskeraz aritzeko (*constructioaz*-edo). Nolanahi, ahal bezain bat jabetzeko, Pouvreauren iritziez esaldiko elementuen ordenamendu posibleen gainean, ongi begiratu beharko zaio gramatikaz gainera, haren literatur lan ez eskasari.

2.1. Pouvreauren ordenamendu kezkak. Eta malgutasunak.

2.1.1. Adjetiboa izenaren ondoren.

Gramatikaren zati nagusiak izena du: *De la construction du nom*. Da, *CHAPITRE SECOND* bat, eta honen hiru atalek izena dute: *1. - Du substantif auec l'adiectif; 2.- Construction du nominatif singulier auec le verbe; 3.- Du genitif singulier & de ses deriuez*. Gogoangarria da nola kokatzen duen Pouvreauk bere kezka hiru ataletan, nolarebait euskararen berezitasunak diren hiru korapilotan, eta ez beste edozein batzutan (eta atentzio gehiago merezi ohi zutenak inguruko hizkuntzetako gramatiketan)[6]. Pouvreauk hasten du kapituluaren lehen atala hitz hauekin (1892, 1 or.):

> 1. Le substantif precede toujours l'adiectif primitif ... Iainco handia, grand Dieu, et non pas handia Iaincoa. ...

2.1.2. -ko izenlagunak.

Baina Pouvreauk segidan egiten dio prezisio bat aurreko baieztapenari, euskaraz garrantzizkoa dena (1892, 1-2 orr.):

> 2. J'ay dit, l'adiectif primitif, parce que les autres adiectifs derivez des ablatifs, des temps des verbes ou d'autres particules se mettent tantost deuant tantost apres le substantif. Exemples, de guecurra mensonge se fait gueçurrezcoa. faux menteure on

---

[3] Hala dio agirian Pouvreauren eskuizkribuen artean aurkitutako *Privilege dv Roy* batek (Pouvreau, 1892, 97 or.): «Lovis par la grace de Dieu Roy de France et de Nauarre: A nos Amez et Feaux Conseillers, ... De la part de Nostre bien-amé Siluain Pouvreau, ..., Nous a esté exposé qu'il a traduit en Langue Basque un Liure qu'il jntitule Iesusen Imitacionea ... Qu'il a aussi dressé une Grammaire Basque et Françoise auec quelques Dialogues familiers pour le commerce de deux langues, Et de plus un Dictionaire Basque, François, Espagnol et Latin. Lesquels Liures etant approuuez et iugez utiles au public il desireroit mettre en lumiere, et faire jmprimer: ....»

[4] Guk 1892ko argitalpena erabili dugu (Hordago, 1978).

[5] Vinsonek dudarik gabe aitortzen dio Pouvreari gizon ikasiaren maila (1892, IV or.): «Il était fort instruit: il écrit trés élégamment le latin; il savait l'espagnol et l'italien, et il avait étudié l'hébreu.». Hala ere oso gogor juzgatzen ditu haren abilidadeak euskal gramatikalari bezala (1892, XII or.): «Les fragments de la Grammaire de Pouvreau. Ils sont fort intéressants, mais montrent que l'auteur ne se rendait pas compte de la nature exacte de la langue. Il n'a pas su reconnaître l'article dans la finale a; ... Il n'a aucune idée des suffixes et confond les noms dérivés et les adjectifs.» Are zalantzatzen du Vinsonek, Pouvreau, euskaldun berriaren trebetasuna, hiztun bezala (nahiz ez literarioa) (1892, V or.): «Certains dètails de l'ortographe de Pouvreau, par example la confusion qu'il fait souvent entre s et z, me font supposer qu'il ne parlait pas très couramment le basque et qu'il devait le pronnoncer assez mal.» Ez dira ordea kida horretakoak euskalarien arteko iritzi guztiak. Adibiderako, B. Oyharçabalek dio, Pouvreauren gramatika apurren gainean (1989, 63-64 orr.): «A côté de faiblesses certaines (en particulier sur la question du a terminatif ...), il se révèle un observateur minutieux. Ainsi ... propose-t-il une analyse des formes adnominales en -ko ... fort intéressante. Mais c'est surtout le sens du détail, des irrégularités, qui semblent caractériser sa démarche. ... Ces quelques remarques faites à partir des fragments de la grammaire de Pouvreau laissent entrevoir le type de grammaire dont il pouvoit s'agir: probablement quelque chose d'intermédiaire entre la grammaire d'Urte ... et Larramendi ...» Eta Villasantek berriz dio, Pouvreauren zalantzazko euskalduntasunaren inguru (1979, 85 or.): «Sabía tan bien el vasco, que no dudaron en darle la parroquia de Bidart, en Laburdi, la cual regentó de 1640 a 1644.»

[6] Esate baterako, euskarari ondo egokitutako ohar hauen aldean, askoz gordinagoak gertatuko dira Urte batenak mende erdi bat geroago, zeinengan oso nabarmena izango den, erabateko mendekotasun eta mimetismoa, garaiko beste gramatika latin eta erromantzeen ereduekiko, sintaxiaren atal guztietan.

dit donc guicon gueçurrezcoa ou gueçurrezco guiçona, homme de mensonge, menteur, ecin erranezco gauça. chose indicible, ou gauça ecin erranezcoa. / Vrruitico guiçona ou guiçon vrruiticoa. homme qui vient qui est venu de loing.

Gogoangarria da malgutasun hori.

2.1.3. Genitiboaren guneaz.

Pouvreau ez da horren eskuzabal agertzen hirugarren atalean, dioenean genitiboaren joskeraz (1892, 4 or.):

1. Le genitif se met toujours devant le nom substantif. Ex. Iaincoaren ontasuna, la bonté de Dieu, & non pas ontasuna Iaincoaren.

Agidanean ordea, Pouvreau berak bazuen jada kontraexenpluren bat legearen aurrean, bada, orripeko oharrean ematen ditu bi sekuentziak (eta Vinsonek jasotzen lehen atalaren amaieran) (1892, 3 or.):

(en note au bas de la page:) gure Iaincoa. Iainco gurea.

2.2. «Xà» eta «XàX» egiturak, aditza bigarren, Pouvreauren gramatikan.

Pouvreauk, gramatika apurrotan, ez ditu ematen euskaraz bost esaldi baino denera, nolarebait nagusi eta osoak konsidera litezkeenak, bakoitza bere itzulpen frantsearekin. Dira:

(1) guiçona mintço da. l'homme parle. (3)
(2) guiçonac eguiten du. l'homme fait. (3)
(3) çure seruitçaria naiz, je suis vostre serviteur. (4)
(4) Iaincoa da gucia. dieu est tout. (3)
(5) Iaincoac du gucia. Dieu a tout. (3)

Nahiz bost esaldiok aurkezten diren, gramatikaren beste puntu batzuk argitzeko, hauen lehen begiratutik erator liteke, Pouvreauk bostetan gordetzen duela euskaraz, «Xà» moduko egitura bat (aditza bigarren, «X» konplementu -edozein-baten ondoren). «X» konplementua, esaldiko sujetoa den lau kasuetan (1,2,4,5), «Xà» egitura berdina gertatzen da frantzesez eta euskaraz. Baina, are 3 esaldiari ere (çure seruitçaria naiz, je suis vostre serviteur) Pouvreauk ematen dio «Xà» egitura bat euskaraz, frantzesez «aX» moduko segida erakusten duenean konplementu berarekiko (frantzesez ohizko beste «Xà» egitura propio, desberdin bat eratuaz, sujetoa eta aditzaren arterako).

Nolanahi, euskarari «Xà» egitura hori eskaintzeak, ez dirudi esan nahi duenik Pouvreaugan, 4 eta 5 adibideen bistara, ez: 1.- Euskaraz derrigorrezko segida (edo are ohizkoena) litzatekeenik, «(X)...Xa» moduko egitura absoluto bat, aditza esaldi bukaeran emanez; eta 2.- Ezta ere bestalde, euskarazko «X» konplementu, aditzaren aurrean doan horrek, izan behar duenik, berez, esaldiko «galdegaia». Aldiz, 4 eta 5 adibideetako segidek (Iaincoa da gucia. dieu est tout. / Iaincoac du gucia. Dieu a tout.), bai eman lezakete aditzera, nola bi esaldiek gordetzen duten, bi hizkuntzetan, egitura berea, funtzio berdineko elementuak emanez segida bere batean: Sujeto + Aditza + Atributua (S-A-At). Finean, bi esaldiek gordeko lukete bi hizkuntzetan, *egitura komunikatibo* bere bat (hau zeinnahi izaki ere).[7]

2.3. Pouvreauren galdegaiak aditzaren ondoretik: «XàX» egiturak.

Pouvreauren obra literario guztian zehar aurkituko ditugu,[8] gramatikako adibide apurretan urratu baino egiten ez ziren fenomenoak. Batetik, Pouvreauk joera nagusia du, zalantza gabe, «Xa» egiturak mantentzeko esaldietan. Eraberean ordea, joera ezin nabarmenagoa erakusten du bere esaldien bukaera aldera eramateko, prezeski esaldietako galdegaiak liratekeen elementu predikatibuenak, emanez hauek, ia sistematikoki ere, esaldiko aditzaren ondoretik. Segidakoak izan litezke mostra txiki bat (lehen laurak, 1892ko argitalpenekoak, besteak, *Imitacionekoak*; askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN, eta nonnahi, Pouvreauren obretan):

(6) Gauça familier eta communa da elkar maitedutenac, ..., berris juntatcia ... (13)
(7) Lekukotçat hartcendut san Augustin ceiñ ... (15)
(8) Gorputzaren dotea da mundu Ikustendugunhau. Arimaren dothea da Iaincoa bera, ... (16)

---

[7] Bi hizkuntzetan emanez segurasko berdin, esaldiko elementurik predikatiboena, kopularen ondoretik: {*Tema + Kopula + Predikuaren Muina (edo Galdegaia)*} litzatekeen egitura batean.

[8] Guk zehatzen aztertu ditugu, 1892ko *Les petites œuvres basques de Pouvreau* koak, eta *Iesusen Imitacionea*-ren lehen liburukia.

(9) Mundua eguin du bada ez choilqui harequin batean, baina oraino harentçat, ... (56)
(10) Beraz vanaloria da galcor diren aberatstasun galcorren ondoan ibilcea, ... Vanaloria da ohoreen ondoan kechatcea, ... (1669, 24, eta berdintsu, 24, 24, 26, 26)
(11) Gauça guciac heldu dira hitz batetaric, eta bat hura aippatcen dute guciec, eta hura da gauça gucien ithurburua, guri ere minço çaicuna. (27)
(12) Çuhurciari ere dagoca elhe berri guciac ez cinetstea, ... (30)
(13) Eguia bilhatu beharda Esquiritura sainduan, ez aharantça ederra. (31)

2.4. Pouvreren aditzak esaldi hasieran, «aX...» egitura absolutoak.

Pouvreauk hala ere hausten du batzuetan, «Xa» egitura esaldietan (ez gehiegitan naolanahi), emanez hauek «aX...» egitura absolutoetan, aditzak esaldi hasieran, eta argumentu guztiak ondoretik (esaldiko galdegai nabarmena tartean). Pouvreau ez da gure tradizioan, joera nabarmenena duten autoreetakoa, esaldiak aditzaz hasteko. Inongo higuinik ere ez dio nolanahi egiturari, segidako adibideetan ikusi litekeen bezala (lehenengo laurak 1898koak eta besteak *Imitacionekoak*; adibide batzuk gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(14) (Iaincoac pietatez mouituric, Igorridu bere semea gatibuac erostera eta galcetic atheratcera) Igorridu espiritu saindua gatibuen bere seme adoptiuoac eguitera. Eman du bere semea gure erostearen pagamendutan, emandu espiritu saindua bere amorio gure gana duenaren priuilegiotan, (eta azquen finean beguiratcendu bere presuna bera guiçonen adoptionearen primutasuna Içaiteco.) (16 -Sermoia-)
(15) Deitcenda çuhurçiaren espiritua, ... (22)
(16) Eçagutzentu gauçac, ez guiçonec beçala, ceren ... (39)
(17) Icusi çuen etche eta Tabernacle hura, Sainduen Sainduac, ceina ... (85)
(18) ..., eta egon ahal dira traburic gabe bere barrenaren errecaitatcen. (1669, 38)
(19) ..., eta beguiratcen gaituste vanaloriatic. (40)
(20) Etorri çare servitçatcera eta ez manatcera. (48)
(21) Iragan behar çare sutic eta uretic fresca eta pausa lecura hel çaitecin baino lehen. (62)

2.5. Pouvreauren mendeko esaldi hautsiak.

Esaldi nagusien antz batera gertatzen da, Pouvreauren mendeko esaldietan. Oro har, Pouvreauk mantentzen ditu hauen barne ere «Xa» egiturak (ez salbuespen asko gabe, beheko adibideetan ikusi litekeen lez); baina eraberean ez du inolako kezkarik, maiz asko (edo maizenik ere) emateko esaldi hauek *hautsita* (: «XaX...» moduko egituretan; artean argumentuak dituztela aditzaren eta honi erantsitako elementu mendekotzaileen ondotik). Pouvreauk ematen ditu mendeko esaldiak hautsita, baita ere, elementu mendekotzaile horien artean aurkitu litekeen kasuetan, hitz erregimen independienteren bat -erlatibozko esaldi baten burua berez- (ik. adibide baterako 24, 26, 27, 28, 29 esaldiak). Segidakoak izan litezke mendeko esaldi hautsien mostra txiki bat (lehenengo zortziak 1892ko argitalpenetik, besteak, *Imitacionekoak*; adibide gehiagorako ik. ADIBIDETEGIA):

(22) ..., nihon icus balitça barrenean cruelen arimac ... (11)
(23) ..., seguratcen çuelaric arimac hala çirela vbelduac, ... (11)
(24) ..., gu lagundu ondoan mundu hunetan, ... (24)
(25) ..., jarten naicenean consideratcen laudorio dela haren loriarentçat, dacusadanean ere ecinac berac ohore ekartcen dioela, ... (27)
(26) ... guri emanez guero bere seme maitea, ... (14)
(27) Ekartcenditutçuen chapelac buruaren gainean, ... (17)
(28) ..., eguia denaz guero erraitea creatura guciac eguin içan direla IESU Christo gatic, ... (56)
(29) ..., erraiten den beçala vrrea eztela choilqui Iguzquiaren vmea, ... (92)
(30) ... jcusiric gutitan bihurtçen garela jchil egoitera, ... (1669, 36)
(31) ... bere baitara biltcen dena bere buruaren eçagutceco? (38)
(32) ... eguitecoac eguiten direnean bere nahiaren arauera: ... (44)
(33) ..., nequez bere vicitcecoa dutelaric travaillatuz edo esque ibilliz. (62)
(34) ... hainitz guibelatcen dituena vertutean aitcinatcetic ... (72)

2.5.1. Pouvreuaren relatiboak hitz erregimenaren ondotik.

Jakingarria gertatzen da Pouvreaugan ere, nola ematen dituen tarteka erlatibozko esaldiak, hitz erregimen mugatu gabe baten ondoretik, batere pausarik gabe, eta beste adjetibo soil edozein bat bailitzan, *izen (mugagabea) fi erlatiboa* egituran. Estatistikoki ez dira izango kasu gutxi batzuk baino, erlatibozko esaldi guztien artean.[9] Baina nahikoa dira. Hala

[9] Pouvreauk ere, hautsiak edo hautsigabeak, erlatibozko esaldi gehienak ematen ditu, zuzenean nominalizatuak batere hitz erregimenik gabe («*Ordea consolatcenago nauena* da, ...», 1892, 34), edo, ohi bezala, hitz erregimenaren aurretik, batez ere laburrak

adibidez, 1892an argitaratzen diren idatzien artean:

(35) ..., emandu espiritu saindua bere amorio gure gana duenaren priuilegiotan, ... (15)
(36) ... gauça campotic eguiten dituenac ... (16)
(37) ... mundu Ikustendugunhau. (16)
(38) Haragui cuec Iaitenduçuena ... (17)
(39) ..., finean Ithurri bethi garaciez Issurtcen dena, ... (22)
(40) ... molde icus ditequen bat ... (36)

2.6. Azken aipagarri batzuk.

Bukatzeko, eta bitxikeriak izango badira ere, aitatzekoak dira Pouvreauren beste zenbait joskera.

2.6.1. Zenbatzaile ordinalak, baita ere izenaren ondoretik.

Hala erakusten du Pouvreauk inoiz, segidako esaldietan bezala (bigarrena oso argia ez bada ere):

(41) Beldurtasunaz, ceiña baita espu~ [espiritu] sainduaren donu çazpigarrena, ... (1892, 22)
[(42) ..., egun ere Idequitcenderaucu fabore Ithurren bigarrena) (1892, 15)]

Segurasko ez da hori Pouvreauren joskera nagusia ordinalekiko, baina erakutsiko luke puntu honetan ere malgutasunik.

2.6.2. Galdera «hautsiren» bat.

Galdera batzuk bai bederen, esaldiko beste elementuren bat tartekatuz, galdegilea eta esaldiko aditzaren artean. Hala segidako biok bederen:

(43) Nolatan lucequi dagoque baque bertceren eguitecoetan balsatcen dena? (1669, 37)
(44) Nondic (*) saindu batçuc hain bertce perfeccione ardietsi dute, eta hain içan dire arguituac ceruco gaucetan? (1669, 38).
(*: Nondic-en gainean idatzita, Cergatic.)

2.6.3. Etena galdegaia / aditza.

Kasu gehiegi izango ez badira ere, Pouvreauk erakusten du zenbait esaldi, zeinetan zalantza egin litekeen ez ote dagoen tartekaturik esaldiko beste elementuren bat, aditza eta esaldiko galdegaiaren (edo kasuan aditzaren aurrean joateko ohizkoagoa izan zitekeen elementu haren) artean. Hala adibidez segidako esaldiok:

(45) Guciarequin ere nekez ene ausartcia condena deçaquet, ... (1892, 27)
(46) (... eta hura Iaincoa gatic largatcen baduçu bertcearenari iarraiquitceco,) probetchu gueyago handic atheraco duçu. (1669, 36)
(47) ...; nekez vicitceco hartcen çuten, ... (1669, 50)
(48) (Huna lurra, cerua eta elementac;) hetaz gauça guciac eguinac dire. (1669, 57)

3. Rafael Micoleta. 1653.

3.1. Gramatika apurrak: «XàX» egiturak (aditza fi galdegaia).

Rafael Micoletak XVII mende erdi aldean osatu zuen bere *Modo Breve de aprender la lengua Bizcayna*. Idatzia agidanean euskara irakasteko asmoz nonbait, argitaragabe geratzen da XIX mende bukaera arte. Lanak badu bere alde gramatikal labur interesgarria, baina aipamen ageririk gabe, esaldi barreneko funtzio elementuen ordenaren inguruan.[10]

---

baldin badira -baina baita bestela ere- («*... çuc oraino viciric eta collegioetan nausi iarriric eçagutu ditutçun Iaun eta Dotor hec guciac*?, 1669, 29); edo, hitz erregimenaren ondoren, nominalizatuak aposizio modura, eta bi aldiz errepikatuaz orduan kasu atzizkiak («*Hitzaren ama, hitz agueria eman dioçuna minçatceco*, ..., 1892, 35; « ..., hareçacu *ekartcen derautçudan ofrenda hau hitzez eguina ...*», 1892, 35); edota, partikula anaforikoez baliatuz, esaldi esplikatiboetan edo («..., ezpaneaqui çu çarela *Iainco haren ama, ceinac eçarri baitu arguia ilhunbetan eta handitasuna beheratasunean*.», 1892, 34).

[10] Esaldi konparatiboez ari delarik, ematen du hala ere Micoletak instrukzioren bat, hauen ordenamenduari buruz, eta esaten (1897, 9 or.; gure (3) adibidea erakutsi aurretik): «En los comparativos, se añade vn ago al nombre comparativo y una baño a la cosa con quien se compara, V.g.a ...»

Ematen ditu nolanahi bost esaldi oso, gramatikaren beste puntu batzuk argitzen, bakoitza bere gaztelerazko itzulpen baten ondoren. Hala (Dodgsonen 1897ko ediziotik):

(1) estas sortixas son del Señor = ... Elestunoc dira Xaunenac, -que assi se usa en Vasquense, ... (4)
(2) Esta sortixa es de los señores - se dice, Elestun au da Xaunena. (4)
(3) mejor es mi espada que la tuya, obeago da neure espatea surea baño, ... (9)
(4) vamos al campo, a Begoña, a Londres = goasean campora, Begoñara, Londresera, etc. (9)[11]
(5) Juan fue herido de Pedro; Joane eriduric egon ysanda Peru-ganic, etc. (9)

Adibideak, denak dira (4 berezia salbu) «...XaX...» egiturak. Eta beraiei begira ez du ematen Micoletak alde haundirik aurkitzen duenik, bi hizkuntzetan, funtzio sintagmen kokaguneari dagokionean esaldi barrenean, eta bereziki, esaldiko aditzaren aurrean edo atzean. Micoletarentzat agidanean, esaldiek egitura komunikatibo beretsu bat mantenduko lukete bi hizkuntzetan*¿ mintzagaia fi galdegaia*; bietan berdin joango litzatekeelarik, galdegaia emana, esaldi bukaeran eta aditzaren ondotik (espero litekeen kontesturik arruntenetan bederen).[12]

3.2. Micoletaren praktika: PLATICA LELENGOA.

3.2.1. «Xà» egiturak, aditza bigarren.

Micoletak, bere gramatika apurraz gainera eskeintzen du, beste platika elkarrizketatu interesgarri bat, berak kuriosoki izendatzen duena PLATICA LELENGOA, erderazko DIALOGO PRIMERO baten ondotik. Bertan, maiz aurkitzen dira aitatu fenomenoen antzekoak; lehenengo eta behin, etengabe esaldiak, «Xà» egituran euskaraz (edozein delarik ere hauek gazteleraz duten egitura), eta goiko 1, 2, 3, 5 esaldietan bezala (ik. ere, 6, 7, 8, 11 esaldiak).

3.2.2. «aX» egiturak; aditza / galdegaia.

Eraberean aurkitzen ditugu ordea Micoletagan, egitura ugari, esaldiko galdegaia erakusten dutenak, esaldi bukaeran eta aditzaren ondotik (goiko esaldien modu bere batean; ik. ere 6 esaldia); eta mendeko esaldiak aditz erregimenaren ondoretik (7, 8 esaldiak). Adibide gehiago (guztiak) gure ADIBIDETEGIAN:

(6) (Selango surescoa da?) Sur gorri au da Hauanaco caobea, ... (26)
(7) ..., serren berragas eytendot guradana. (29)
(8) ...; ycusleari escatuconax emondaguiala contua, ... (31)

3.2.3. Aditz trinkoak (eta konposaturen bat) esaldi hasieran.

Are aurkitzen ditugu zazpi esaldi, aditz trinkoa daramatenak esaldi hasieran bertan (edo), eta noski galdegaia haren ondoretik (ik. 9 esaldia, eta besteak gure ADIBIDETEGIAN). Aldiz bi esaldi bakarrik platika osoan, aditz konposatuaz hasiak (horietako bat, 10 esaldia):

(9) Da uren arerio andia (Que es grandissimo enemigo del agua.) (30)
(10) Esan daroe, mandaco onbat, auns-on bat, ta emaste onbat, yru cuca [goxoki] gaysto direala. (27)

3.2.4. Mendeko esaldi hautsiak.

Oro bat aurkitzen ditugu Micoletagan ugari, mendeko esaldi hautsiak, aurreko 8, edo segidako 11, 12 esaldien itxurakoak; baita hauek erakusten badute, hitz erregimen independienterik elementu mendekotzaile bezala (11, 12 esaldiak). Askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN:

(11) Ori da bat yru gausetaric esan eroena Ganasac aditu joeala guisona cuydadu ascogas; ... (23)
(12) Esan eroeala legues d. Juan Manuelec [:] chapinen os-chu bat. (26).

---

[11] Gaztelerazko bertsioan oso garbi geratzen ez bada ere, badirudi euskerazko itzulpena behintzat modu subjuntiboan ematen dela, eta beraz esaldi berezia litzateke besteen aldean.

[12] Aipagarria da nola (5) esaldian, gaztelerazko *fue herido* sekuentzia, berez, «aX» egitura bat (aditz laguntzailea + partizipioa), aldiz ematen den euskeraz «Xa» egitura batean, honi ohizkoagoa zaiona segurasko *eriduric egon ysanda*. Funtsean hala ere, berdina izango litzateke bi hizkuntzetan, esaldien «egitura komunikatiboa», bietan jokatuko lukeelarik, aditz ondoreko *de Pedro / Peru-ganic* elementuak, galdegai papera, kontestu arruntenean.

4. Voltoire (1620?).

Voltoiren lana, *Tresora hirour lenguaietaqua francesa, espagnola eta hesquara*, edo, *L' Interprect ou Traduction du françois, espagnol et basque* liburuska, argitaratu bide zen, lehenengo aldiz Lyonen 1620 urtean (Villasante, 1979, 72 or.), gero ezagutu dituelarik birrargitalpen batzuk gehiago. B. Oyharçabalek dio,[13] tresora honek izan ote zuen noizpait *Spece de grammaire* izeneko atal bat, nahiz hau ez izan oso zabala. Guk ezagutu ditugun aleek nolanahi (J. Urquijoren liburutegikoa, eta P. Urkizuk *ASJU*n aldatutakoa, Parisko biblioteka nazionaleko aletik), ez dute halakorik.

4.1. Galdegaiak aditz ondoretik.

Tresoran ematen diren elkarrizketen argira, ohi bezala esan liteke, nola bertan erabilitako hizkeran, batetik, ohituraz mantentzen diren «Xà» egiturak euskerazko esaldietan; baina bestetik, nola, ohi bezala ere, usu aurki litezkeen esaldiko galdegai elementuak emanak, prezeski, esaldien bukaera aldera eta aditzaren ondoretik; segidako lau esaldietan gertatzen den antzera adibiderako:

(1) ..., ni naiz çure cerbitçuco. (181)
(2) (Cembat behar duzu ...[?]) Guciac montatcen dira laur hogoy real. (182)
(3) Fedea concistitcen da ciñestean, eta ez icustean. (186)
(4) (Merque guiten baderautaçu) ethorrico nais maizago. (186)

4.2. Aditzak esaldi hasieran zuzenean.

Voltoirek maiz hala ere hausten du ohizko «Xà» egitura, emanez kezkarik gabe aditza, esaldiaren hasieran bertan, esaldiko galdegaia nabarmen doalarik ere ondoretik (beti aditz perifrastikoak; eta behin ere ez aditz trinkorik - korpusaren murritzean-). Adibide batzuk mostrarako:

(5) Eta emanen dauçut bertce bat assignacionesco. (179)
(6) (... nori minçatu cignen ...?) - Minçatu naiz çure aitari, aitaxori, ... (181)
(7) Eckartcen dut cembait goutun. (190)

4.3 Mendeko esaldi hautsiak.

Voltoiregan ere nonnahi aurkitzen ahal dira mendeko esaldiak hautsita, segidakoen antz batera:

(8) ... erraten duelaric alfer naicela, ... (185)
(9) Behar baduçu cerbait ... (186)
(10) Iraquaci estena mundua minçatcera ... (190)
(11) (Penac handia du) harat hunat dabiliena bethi alferic. (190)

Fenomeno guzti hauen adibide pila ugari (Voltoiren guztiak) gure ADIBIDETEGIAN.

4.4. Bi galdera hautsi ere.

Bukatzeko, aitatu, nola aurkitu litekeen *Tresoran* bi galdera esaldi hautsiok ere, nahiz ohizkoenak, aldearekin, hautsigabeak izan:

(12) Noiz handic partitu ciñen? (180)
(13) Noiz esperança duçu ethortceco? (181)

---

[13] (1989, 62 or.): «... l'ouvrage de Voltoire comprend dans une première partie un chapitre intitulé «Spece de grammaire», il ne fournit guère d'informations grammaticales sinon un relevé de formes adverbiales, de conjonctions, de pronoms, et de quelques conjugaisons.»

II. LAU GRAMATIKA MARDUL XVIII MENDEAREN LEHEN ERDIAN.

Sarrera

Lau gramatika lan desberdin ere iritsi zaizkigu gure eguneraino, XVIII mendearen lehen erdiko urteetan konposatuak. Laurak ondo sendoak, orrialde kopuruari begiratuta bakarrik ere. Batetik, Pierre d'Urteren *Grammaire Cantabrique Basque*-a, eta Joannes Etcheberri Sarakoaren obra *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco*; konposatuak biak 1712. urte inguruan, eta biak argitaragabeak XX mende hasera arte. Beste biak berriz, beren garaian argitaratu zirenak: A. Manuel Larramendiren *El impossible vencido. Arte de la Lengua Bascongada* 1729an Salamancan; eta 1741ean Baionan M. Harriet *Notari Erreïalaren*, *Gramatica Escuaraz eta Francesez, Composatva Francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Izenburuek dioten bezala, ez Etcheberri, eta ez Harrieten gramatikek, ez dute lehen asmo, besteek bai bezala, euskal gramatikaz aritzea, nahiz biek ekiten dioten honen arakatzeari ere hainbatean, beren lekuan aztertuko dugun moduan.

Izan zen horregatik, beste bostgarren gramatikalari bat ere gutxienez, urte inguru hauetan jardun zuena, hizkuntza *kantabriko* honen inguruan: Melchor Oyanguren, Leintz-ko Gatzagan jaioa 1688. urtean, eta berak dioenez, idatzia bide zuen 1715. urterako, *Arte Cantábrico* izeneko obra bat; eta ere beste bat, *Cantabrismo elucidado* izenekoa, noizkoa den esaten ez duelarik.[14] Zoritxarrez obra hauek ez ziren argitaratuak izan beren garaian (Oyangurenen beste bi obra gramatikal bai bezala: *Arte de la lengua japona ...*, eta *Tagalismo elucidado ...* izenekoak, 1738 eta 1742. urteetan), eta ez zaizkigu gorde gure eguneraino.

1. Grammaire Cantabrique Basque. Pierre d'Urte (1712).

Pierre d'Urtek 1712 inguruan idatzi bide zuen bere *Grammaire Cantabrique Basque*-a Inglaterrako lurretan, eta 1900 urtean izan zen argitaratua lehenengo aldiz.[15] Gramatika mardul hau (568 orrialde) izango da gure artean lehena halako izen bat merezi lezakeena. Obra aberats bezala izan da juzkatua, bederen, aditz flexioen aurkezpenari dagokion atalean (ija 400 orrialde, lanaren alde nagusia), nahiz eta berez ere nahikoa nahasia izan zati hau (bederen gaur egun ezagun den inprimazio ordenean).

Nolanahi, Urtek eskeintzen die atentzioren bat, hainbat apalagoa bada ere, hizkuntzaren beste alderdi batzuri (Ortografia, Orazio Parteak, Deklinabidea, Sintaxia -*Concordance*, eta *Construction*-, eta Figurak). Amaitzen du lana, *Esaldi Arrunten* sail bat emanez, eta bederatzi *Solas/Elkarrizketa Kantabriko*, Voltoire eta Micoletaren itxuran.

Sintaxiaren izenburupean, Urtek 40 orrialde ematen ditu (426-466 orr.). Atalaren aurkezpen eta sailkapenerako ordea, Urtek, ezin itsuago segitzea aukeratzen du, garaiko gramatika latin eta erromantzeen eredua,[16] eta honek itxura nahasia hartu araziko dio atalari. Horregatik jarri ohi da zenbaitetan euskaltzaleen artean, zalantzan, Urteren gaitasun gramatikala («un assez pauvre grammairien», dio, esateko, Vinsonek).[17]

---

[14] Melchor Oyangurenen gainean hitzegiten du zabalago B. Oyharçabalek (1989), eta bertan jasotzen ditu (67 or.), Oyanguren beraren erreferentziak, bere euskerazko obren gainean, dioenean, *Tagalismo elucidado ...* lanean (70 or.): «De los generos se puede discurrir lo mismo, que aunque no tienen generos gramaticales de masculino, y femenino, tienen unos generos logicos en algunas raìzes conjugadas: en las quales las que sirven a los del genero masculino, no pueden servir al feminino, y otras raìzes son indiferentes para uno y otro sexo, y esto succede en la lengua Hebrea, como lo tenemos probado en el *Arte Cantabrico*, que se escribió el año de 1715: y el *Cantabrismo elucidado*».

[15] Urteren gramatikaz eta beste lanez, ik. B. Oyharçabal (1989), eta han eskeintzen den bibliografia zabalagoa.

[16] Eragin arrotza oso nabarmen gertatzen da esaterako, Urtek *Concordantziaren* esparruan eskeintzen dituen atal izenburuetan, nola: «*Concordance du Substantif et de l'Adjectif -S'entend seulement en nombre et en personne .... etc.-*» (429 or.) (ik. honen inguruan ere, 1.2. ataleko oharra); edo, «*Concordance du Relatif et de L'antecedent*» (430 or.). Gero berriz, Urtek Sintaxiaren orrialde gehienak ematen ditu, Constructionearen esparruan, erakutsi nahian, bederen arrotza gertatzen den modu batean, deklinabideko zein kasu eskatuko luketen euskaraz, zenbait egitura semantiko edo gramatikalek, nola egiten duen, esate baterako: «Les adiectifs de mesure de grandeur demandent aussi L'ablatif L'accusatif» (438 or.); edo, «Verba rogandi docendi eta vestiendi, regunt accusatiuum et datiuum» (451 or.); eta abar.

[17] Cf. Oyharçabal, 1989, 71 or.

Eraberean ordea, Urtek lausengu bat baino gehiago jasoko du, bere garaiko eta inguruko euskararen lekuko, oso fidagarri, bezala.[18] Aldiz, behin baino gehiago salatu zaio, frantzesera traketsa ote darabilen, datu hau haizatu nahirik, Urteren euskararerekiko atxekimenduaren froga bezala.[19]

Esan behar da halaz guztiz, Urtek osatzen dituen zenbait euskal esaldi ere (eta ez bakarrik itzulpen frantzesak) nahikoa behartuak direla, hizkuntza bortxatuaz, adibideak fidelak izan dakizkion, izenburuan aldarrikatu duen erregela gramatikalari (beharbada, gramatika arrotzen kutsukoa).[20] Hala bada, ezingo da ere, besterik gabe onartu, gramatikan, Urteren erabateko fidagarritasuna, lekuko zuhur bezala.

Nolanahi dela, Urteren gramerak badu guretzat interesik nahiko, hitzen ordenamenduari dagokion ikuspuntutik. Batetik, bai Urtek agerian ematen dituen iritziengatik, nahiz ez ugariegiak. Batez ere ordea, guk erator ditzakegun ondorioengatik, gramatikako adibideen, eta hauen itzulpenen, azterketatik. Baita ere noski Biblia zatien itzulpenetatik. Hori ikusi nahi dugu hurrengo ataletan.

1.1. Urteren iritzi apurrak hitzen ordenamenduaren inguru.

1.1.1. Euskararen posposizioak, eta ez preposizioak

Uste dugu, Urteren lanean aitatzen dela lehenengo aldiz, agerian gure artean, euskararen oinarrizko ezaugarri hau. Eta dio Urtek zuhur asko, *De la preposition* izenburuko atalaren hasieran bertan (419 or.):

> Dans La Langue Cantabrique Il n'y a point de preposition. mais ce sont des post positions. parcequ'on les met toujours apres les noms ou les pronoms. Çhez. gana. Çhez Monsr Iaünagana. ou Iaunarengana. auec. quign. auec moy. Enequign. avec toy. çurequign. ... sans Gabe. sans eux. hec gabe. ...

1.1.2. Adjetiboak sustantiboen ondoren

Lehenago Pouvreak egin bezala, Urtek ere zuhur aitortzen du (gramatika arrotzen kutsuko izenburu baten ondoren (*Concordance du Substantif et de L'adiectif. S'entend seulemt en nombre et en personne .... etc*),[21] nola euskaraz (429 or.):

> Generalemt tous les noms substantifs se mettent deuant les adiectifs. guiçon' prestúä. honnet home arno' ona. bon vin. dembora edérra. beau temps. etc. ...

1.1.3. -ko izenlagunen guneaz (izenaren aurre, edo ondoan).

Eta Pouvreauk bezalaxe, Urtek ere, adjetiboen guneaz esan duena esanda egiten du segidan, salbuespen aipamena, *-ko* izenlagunentzako (429 or.):

---

[18] Ik. Oyharçabal 1989, 71 or.. Vinsonek berak dio, Urteren idazkeraren gainean (1893, 268-269 orr.): «..., des traductions bibliques de d'Urte. Comme l'a fait observer le prince L.-L. Bonaparte, le langage en est presque tout à fait le même que le dialecte actuel de Saint-Jean-de-Luz. A côté de mots tombés en désuétude, tels que oçar «chien, gros chien», on en rencontre d'autres avec leurs acceptions spéciales d'aujourd'hui. ... Quelques erreurs viennent probablement d'un scrupule de traducteur trompé par des coquilles du texte français qu'il avait sous les yeux; par example, quand «famine» est rendu par «famme, femme», emazte, ou «serf» par «cerf» orkhaitz. La traduction me paraît en général simple, exacte et fidèle; elle a été faite évidemment avec le plus grand soin et supporte très bien la comparaison avec Liçarrague, ...».

[19] Wentworth Websterrek esaten du adibidez, Urteren frantzeserari buruz, honen gramatikari egindako *Préfacean* (III or.): «...: son français devient de plus en plus étrange à mesure que nous avançons; vers la fin il est quelquefois à peine intelligible». Websterrek gehiago uste du hala ere, Urteren frantzesera gaiztoa, ote den, honen ingeles berriaren ondorio, beste ezerrena baino gehiago. Hala ere, ik. Oyharçabal 1989, 71 or., eta 16. oharra, non jasotzen den, besteak beste Vinsonen iritzia ere: «son français est assez barbare et porte trop souvent l'empreinte de sa langue maternalle». Llewelyn Thomasek ere esaten du, Urteren Biblia itzulpenei egindako sarreran (1894, xviii-xix orr.): «I think it will be found on examining the text that there is internal evidence to show that he was more of a Basque than a Frenchman. He frequently mistakes or mistranslates French words. I will give three instances, all from Genesis.» Eta ematen du beste hirugarren bat ere, Vinsonek 1893an emandakoez gainera.

[20] Hala adibidez, nola gertatzen den, segidako esaldi, gutxienez bitxietan,: «Vous avez sçeu La chose qu'on nomme semperé. *Jaquinduçu semperé deitçenden gaüça*» (431 or.); edo, «*Búruguçiaz handiago da*. il est grand de toute La tête.» (438 or.; «Les adiectifs de mesure de grandeur demandent aussi L'ablatif L'accusatif» erregela eman ondoren); edo, «*Piarresec bera maitatçen du*. Pierre s'aime» (442 or.), B. Oyharçabalek ere aitatua, erantsiaz (71 or.): «dont la grammaticalité est plus que douteuse»; ...

[21] Eta, euskarazko adjetibo eta sustantiboen arteko konkordantzia fantasma horren errealitatea nolabait defendatu ahal izateko, asmatzen du Urtek apostrofo bat, izena eta adjetiboen arterako (429-430 orr.): «A tous les noms substantifs ou adiectifs ioints ensemble on retranche toujours aux premiers la derniere lettre qui est. a. c'est pour cela qu'on met vn apostrophe entre deux par de ssus pour marquer qu'il y manque quelque chose vt supra hors a ceuxçi. vsna ona. bon odorat. gasna ona. bon fromage ... etc.» Ik. ere honi buruz, 1.4. atalean.

> Generalemt tous les noms substantifs se mettent deuant les adiectifs. guiçon' prestúä. honnet home arno' ona. bon vin. dembora edérra. beau temps. etc. hors Les adiectifs aduerbiaux. Locaux. etc. Etçhecóä cequi est dela maison atçocoa. ce qui est d'hier. atçócó pressúna. La personne d'hier ...

Ez dirudi ordea, Urtek derrigorrez kokatzen dituenik *-ko* izenlagunak izenaren aurrean. Gramatikan bertan orrialde batzuk aurrerago, artean Sintaxiaz ari delarik, ematen ditu Urtek adibideak, *-ko* izenlagun berberak kokatuaz, izenaren aurrean, nola ondoan. Hala, *La Construction des Noms substantifs; Laus et vituperium* sailean, dioenean (433 or.):

> Ils demandent le nominatif. ou L'accusatif fedéric gabéco' guiçóna. ou bien guicon' federic gabecóä. vn home sans foy. / Bissay'onetaco haürra. ou haur bissa' onetacóä. Ingenui vultus púer Ingenuique pudoris.

Edota zerbait aurrerago, *Des Gerondifs et des Supins / Les Gerondifs et leurs Supins regissent les cas de leurs verbes* saileko adibideen artean (457 or.):

> Gauça Ikhustecóà da ou ikhustecógauça da ç'est vne chose a voir. ...

1.1.4. Genitiboa beti aurrean; baina posesiboak, izen ondoretik ere bai.

Hala dio Urtek L*a Construction des Noms substantifs* atalari eginiko oharrean, bi esaldi adibide apostrofodunen ondoren (432 or.):

> Le penchant de l'home guiçonaren' Jaïdura. / L'amour des Richeses. aberastassúnen' amudióä. ou bien. aberastassunetaraco amudióä. / Le genitif se met toujours deuant. [Eta segitzen du:] 2. la derniere lettre qui finit Le genitif. c'est a dirè. a. est retrançhe et en son lieu on met un apostrophe come aux noms substantifs joints aus adiectifs. vt suprà.]

Hala ere, orrialde batzuk aurrerago, iduriko du, hainbat arintzen ote duen berriro legea, orduan ari denean *La Construction des Pronoms* sailean (440-441 orr.):

> Enea. çuréa ... etc. / Ces pronoms possessifs se mette d'ordinaire deuant Les noms / Ene' liburúä. mon liure. Gure' aïta. notre Pere. etc / De fois on le met apres. / Ama Guréä. notre mere. etc.

Gogoangarria da Urteren liberalitatea. Areago, Urtek berak, *Pater Noster* itzultzen ez duenean euskarara, *Gure Aita* forman baino (13 or.), eta ez hegoaldeko ohizko *Aita Gurea*.

1.1.5. Urteren «causa discretionis-a»; eta galdegaia, aditz aurre, edo ondorean.

Aitatzen du Urtek, hiru alditaraino ere, eta hiruretan ari delarik, euskaraz agerian adierazteaz, edo ez, esaldian, adizki jokatuaren bidez presuposa litezkeen izenorde pertsonalak (egiten du, kasu nominatibo eta datiboarentzako), *raison ou cause de Discretion*, edo *causa discretionis* bat. Adierazi nahi du, halako izenordeak emango direla agerian esaldian, soilik, delako *diskrezioaren* beharra ematen baldin bada esaldian, eta ez bestela. Urtek, segurasko bereizi nahi du euskara, frantzesak kasuan erakusten duen beharretik, izenorde hauek agerian emateko.

Honen haritik, B. Oyharçabalek lotu nahi du gainera Urteren figura, bi mende geroagoko Azkue eta Altuberenarekin, eta haren *causa discretionisa*, hauen *inkiridotasunekin*.[22] Eta kontzeptuak parekagarriak izanik, Urte artean aurrerago joaten da, esplizitoki esaten duenean izenordeen kokaguneaz, *Le Verbe et Le Datif* sailean (446 or.):

> Le datif se met imediatemt deuant ou apres le verbe, quand il y a causa discretionis pour l'ordinaire on ne le met pas par la raison susdite qui est que les cas des verbes sont immatriculez dans les verbes auxiliaires et composés des auxiliaires. / Niri Eman çarozquidaten. Ils me les auoient donnez. / Erran çarozquigun guri. Ils nous les auoient dit.

Ez dirudi horregatik, Urteren erregela eta adibideetako kokagune anbibalentzia hori, oso ondo lotuko litzatekeenik, Altuberen galdegai erregelarekin. Nolanahi, Urtek lehenago, nominatiboez ari zelarik, ez du ezer aitatu izenordeen kokaguneaz, nahiz hauek beti eman dituen (ondo fokalizatuak gehienak itzulpenen arabera), aditzaren aurre justuko gunean (*Ba-* aurrizkiaren aurretik ere bai behin). Hala ari da Urte (426-427 orr.):

> Le nominatif de la premiere et de la seconde personne s'exprime raremt. ... / On L'exprime quand il y a raison ou cause de Discretion. / Ç'est vous qui auez commis ce crime. / Çúec eguinduçue hoben hura. / Tu es mon soutien. / Çu çare ene harrógna. / C'est moy. ni naïz. ç'est moy qui L'ay. nic. dut. c'est moy qui viens. ni nathor .... etc. / Dans les uerbes dont la

[22] Hala dio (1989, 71 or., 15. ohar.): «... Elle [la notion de cause de discrétion] sera absente dans les grammaires postérieures, et il faudra attendre Azkue et Altube pour la question du marquage focal soit réintroduite dans les grammaires basques.»

signification regarde seulmt Les homes le nominatif de la 3e personne est souvent sous entendu. / On dit. ils disent. badiote. erraten dute. / S'il y a cause de discretion. on l'exprime. hec. diote ou hec badiote. ou hec erratendúte.

1.2. Urteren joera sintaktikoak.

Urtek ez du ematen agerian iritzi gehiago hitzen ordenamenduari buruz, baina lor genezake beste ondoriorik, bere praktika idatzia aztertuaz, grameran bertan,[23] eta areago Bibliako itzulpenetan.

1.2.1. Urteren euskarazko «Xà», aditza bigarren, egiturak.

Lehen lehenik aitortu behar da, Urtek ere joera nagusiena duela, «Xà» egiturak gordetzeko euskarazko esaldietan, aditza bigarren elementu bezala edo emanez bere multzo foniko, edo esaldi segmentuan. Hala, gramatikako adibideetan, nola, Biblian. Euskarazko «Xa» egitura hauek, berdintsuak gerta litezke batzuetan, frantzes itzulpenean ematen direnena, nola, adibidez, gramatikako segidakoetan:

(1) Le rire Engraisse. hirrieguitéäc guiçentçen du. (427)
(2) Eliçatic ethortçéän sarthu naiz en venant de l'Eglise J'ay entré .... (457)
(3) bidean nohala guelditu naïz. chemin faisant marchant en chemin. Je me susis arreté. (458)
(4) Bi' arrano' hegaldatu dire. ... Deux aigles ont volé ... (469)
(5) Ni eta çu lo gauntça. moy et toy nous dormons. (470)
(6) Loac narama. Le someil m'emporte. (480)
(7) Oréna iragan da. L'heure est passée. (488)
(8) Ene' ama hill da. Ma mere est morte. (490)
(9) Sassognac gaçhtatu dire Les saisons sont peruerties (498)
(10) Guc bioc eguindugu. Nous deux L'aurons fait. (541)
(11) Çuetaric bat ethorri da. L'un de vous est uenu. (541)

Eta izan ere, beste kasu bereziago batzuez gain, frantzesez maiz aurkitzen da euskarazko «Xà» egitura bera, «X» hori denean esaldiko sujetoa (frantzesez ia beti aditz aurrean).

1.2.1.1. Urteren «Xà» egiturak (galdegaia fi aditza).

Nolanahi, Urtegan oso maiz aurkitzen dira «Xà» egiturak euskaraz, nahiz frantzesezko itzulpenaren ordenamendua, bi elementu berorien artean, izan «aX» modukoa (hain zuzen, «X» hori ez denean sujetoa). Adibideak nonnahi gramatikan, eta hemen segidan batzuk, tarteka aukeratuak:

(12) D'etre sensible.. senticor icateaz.. (377)
(13) D'avoir soif. Egarri içatéäz.... (377)
(14) Je suis assis. ... Iarriric. nago. (394)
(15) J'auois esté connu. ... Eçagutua. içatu nintçen. (406)
(16) Il est bon d'estre. Içateä on da. (427)
(17) Il regarde a ma maniere de parler. Ene mintçatçeäri beguiratçen diö. (427)
(18) Il a vne belle maniere de parler. mintçatçé ederbat du. (427)
(19) L'homme qui dit fidellemt La verité est estimé. Leyalqui Eguia erraten duen guiçona Estimatúä. da (428)
(20) J'ay de la joye deçeque tu es uenu auec la santé. Hi ossassunarequign Ethorriaz atsseguign diät. (428)
(21) Behar.. ordúän Lagúndu çaìzquit. Ils mont secouru quand il a fallu. (431)
(22) Nous sommesençelieu qui s'appelle vrrúgna. vrrugna deitçenden'Lekhuan gare. (431)
(23) bere ontassúnaz vngui baliätçenda. Il se sert bien de son bien. (433)
(24) Gauça hetaz Iaquintssunda. id est illarum rerum est præsçius. (434)
(25) Ethorquicunaz Iaquintssun da. est futuri præsçius. (434)
(26) Çillharra vrréä bagno mendreägoda. l'argent est moindre que L'or. (436)
(27) Sortçez. adignez. çaharrago da. il est plus vieux dage. de naissance. (437)

---

[23] Urtek euskarazko esaldi adibide ugari ematen du gramatikan (Sintaxian batez ere), bere arauetako bakoitzaren argigarri. Gehiago oraindik, amaierako elkarrizketa eta esaldi arrunten artean. Guztiei erasten die dagokien itzulpen frantzesa (tarteka latinezkoren bat). Euskarazko hitz bakoitza markatzen du gainean letra edo zeinu batez, eta gero, letra edo zeinu berez, itzulpenean honi dagokion esaldi zati hura. Agidanean, sistema beronek behartzen du kasuren batean, Urteren itzulpenetako frantzes gaiztoa (cf. Oyharçabal, 71 or., 16 oharra). Nolanahi, esan behar da, oro har, Urte ongi jabetzen dela bi hizkuntzen arteko ordenamendu desberdintasunez, eta ez duela joerarik ordenamenduak berdintzeko bi hizkuntzetan. Baina, gramatikako adibide eta itzulpenetan, ezin da presuposatu, euskarazkoa denik jatorrizkoa, eta itzulpena erdarazkoa. Eta zenbaitetan hala izan baliteke ere, oro har ez du hori pentsarazten, Urtek darabilen moduak Sintaxia erakusteko, gramatika eredu erromantzeei lotuta. Solasei dagokienez berriz, arrazoiz pentsa liteke ez direla Urteren orijinalak, eta honek itzuli baino ez dituela egiten euskarara (eta akaso moldatu hainbatean), garaian usuzkoak ziren elkarrizketak, Europa guztian, hizkuntzak irakasteko modu bezala.

(28) Berrogoy'ta lau libera sterling behar nitúzque. J'aurois besoin de 44 liures stearlings. (445)
(29) Hitç batez edo hitç batequign alogatu dut. Eguitecóä. J'ay ajusté L'affaire d'vne parolle ou auec vne parolle. (447)
(30) Piarres preferitcendiot Joänessi. Je prefere Pierre a Jean. (450)
(31) Hiritic vrrunda Emperadoréä. L'empereur est Loin de la ville. (454)
(32) Çu ikhusteco guticiädut J'ay desir de te voir. (456)
(33) Erregueren palacióä ikhustera nóha. Je vais voir le palais du Roy. (457)
(34) Erratétic eguitéra. diferentia da il y a differençe de dire a faire. (457)
(35) Rhemussec bere anaya Quirinoréquign batéän Legueac ematen çituen. Rhemus donnoit les Loix ensemble auec son frere. (469)
(36) Londresen içatu naiz J'ay este Je suis este a Londre (528)
(37) hiri ederbat da c'est vne belle ville. (528)

Esaldi pare guztietan ohar liteke, nola euskaraz, erdaraz ez bezala, aditzek joera nabarmena duten, agertzeko, esaldi bukaeran (edo behintzat amaiera aldera). Bestetik, nabarmen da, nola esaldi pare guztietan ematen den, aditzaren aurre justuko gunean euskaraz, prezeski itzulpenean aditzaren ondotik ematen den konplementu huraxe (gunerik predikatiboena edo, frantzesez). Antzeko esaldiak maiz aurkitzen dira Urteren Bibliako testuetan ere (nahiz eta, gramatikako adibideetan baino maiztasun txikiagoz segurasko). Hainbat eta gehiago, zenbat eta esaldi eta «X» konplementu laburragoak izan; hainbat eta gutxiago, zenbat eta luzeagoak, zenbat eta «X» konplementu gehiago edo konplejuagoak izan.

1.2.1.2. Urteren esaldi ondo fokalizatu batzuk.

Badira gainera Urtegan zenbait esaldi, elementu oso bereziki fokalizatuak ematen dituztenak, aditzaren aurre justuko gunean, honen garrantzia nabarmenduz (frantzesezko itzulpenen bidez nahikoa erraz somatzen den bezala, eta batzuetan ematen direlarik ere, zenbait esaldi pare euskaraz, konparazioa laguntzen dutenak). Segidan ematen ditugu, Urtek gramatikan dakartzan antzeko gehienak (lehenengo bostak gorago ere jaso ditugunak, *causa discretionisaren* inguruan, 427 or.):

(38) Ç'est vous qui auez commis ce crime. / Çúec eguinduçue hoben hura.
(39) Tu es mon soutien. / Çu çare ene harrogna.
(40) Ç'est moy. ni naïz.
(41) ç'est moy qui L'ay. nic. dut.
(42) ç'est moy qui viens. ni nathor....

Hurrengo hirurak ematen dira *La Construction des verbes, nominat, devant eta apres les verbes* tituluaren azpian (442-443 orr.):

(43) Jaincoada ontassun soberanoa. ou bien ontassun soberanoa Jaincoada. Dieu est le souuerain bien. le souuerain bien c'est Dieu.
(44) Çeru' aldéra burúä goïti dabilla. guiçona. ou guiçona ceru' aldera burúä goiti dabilla. l'homme marçhe tete leuée vers le çiel.
(45) ... vrguillutssúäc aberatss aguertu nahidu le superbe veut paroitre riçhe. ou bien Le nominatif principal a la fin. ... / Aberatss aguertu nahidu vrguillutssuac ...

Hurrengo esaldi parea, *Le Genitif deuant et apres le uerbe sum signifiant possession* izenburuaren pean (444 or.):

(46) Ontassúna Joanissena da. le bien est de Jean. c'est ce bien qui est de Jean. ontassun' hori da Joanisséna.
(47) Gazteëy dagóte çaharrac onhestéä. c'est aux Jeunes gens d'honnorer les vieux. [Atal berean, *Quand Il signifie appartenir Il demande Le datif*. izenburu pean]

Hurrengo bi adibideak berriz, *bortçgarren' solassetik* atereak:

(48) Hauçi' handibat dut eta harc eramaten darot neure' dembora gucia. J'ay vn grand procez et C'est luy qui m'enleue tot mon temps. (524)
(49) Haren contra dut hauçiä. Ç'est contre luy que J'ay proçez. (525)

1.2.1.3. Urteren galde/erantzun batzuk.

Urtegan ohargarria gertatzen da (gure tradizio osoari begira datu nahikoa bitxia suertatzen delako beti), nola ematen diren gramatikako esaldien artean «Xà» moduko egitura beretsuak, galderetan (galdegilea fi aditza) eta erantzunetan (galdegaia fi aditza), Azkue-Altubek onetsitako eskema zorrotzena jarraitzen. Eta hori gertatuko da, Urteren gramatikako adibideen heren baten inguruan gutxienez, eta ez bakarrik, «Xà» egiturak oso oso laburrak direnean. Adibide batzuk segidan:

(50) Noréna da libúru hóri? enea da (435)
(51) Çembat milla guiçon dire? Ehun milla guiçon dire. (435)
(52) Çer hariçarete çu eta çure' haur' Emazteac? Ni eta neure' haur' Emaztéäc. pairatçen harigare. (468)[24]
(53) Non da çure' aita Jauna? Bere' guelanda. (509)
(54) Nola deitçenda? Jaun' ... deitçenda ou. .... Jauna deitçen da. (515)
(55) Çer liburu iracurtçen duçu? Escaldun Gramarióä iracurtzen dut. (517)
(56) Çer adin duçu? Hamabortç vrthe' ditut. (519)
(57) Nola deitçen çare? Piarress Joanniss ... Esteben ... deitçen naiz. (519)
(58) Noiz noizdanic. noiçezguerostic hill da? Illhabete bat duela. bi. hirur. laur bortç. illhabete duela. ou illhabetebat danic ou bi. hirur. laur. illhabetez guerostic hill da. (522)
(59) Non da? Guelanda (527)
(60) Nora goan çignen atço. Mahastira goan nintçen. (532)
(61) Non içatu çare egun goicean. Londressen içatu naiz. (533)
(62) Nora çohaz oray? Etchera noha. (534)

Altubek bere erara oso ondo esplikatuko lituzkeen adibide guzti hauen bistara, ezin ukatu da, Urterentzako ere, aditzaren aurre justuko guneak, garrantzi berezia jasotzen duela euskaraz. Nolanahi, guzti horiek ez dira, Urteren ekarrien alde bat baino. Eta Urtek baditu gehiago.

1.2.2. Urteren euskarazko «aX» egiturak (aditza fi galdegaia).

Azkena ikusi ditugun galde/erantzun modu guzti hauek, nahikoa bitxiak gertatzen dira, euskarazko tradizio literario guztian. Eta Urtegan ere gehiago ematen dute askotan, euskara irakasteko metodo klasiko bat, komunikazioa egoera erreal batean sortutako esaldiak baino.[25] Gramatikan bertan ere, horrelako egiturak ez dira Urteren galde/erantzun joku guztiak. Badira beste bi modutakoak, askoz adosago etorriko liratekeenak, euskal tradizioaren altxorrarekin.

Batetik, komunikazio egoera arrunt gehienetan bezala, Urteren erantzun askotan desagertzen da aditza; honen errepikak astuntasuna baino ematen ez diolarik esaldiari. Horrela, adibiderako, segidako galde/erantzunetan:

(63) Nonda? Larrean. hirian. etçhéan. (504)
(64) Nondic çathoz ou heldu çare? Londrestic. gorthetic. (507)
(65) Çer Eguignen duçu bazcal ondoan. Nahi duçuna ene ama hobequi baldin badago. (510-511)
(66) Çeign egunez ikhasten duçu? Aste lehenean asteazquenean eta ortçiralean. (518)
(67) Noiz bihurtuco çare. Bihar. hemendic hirur laur edo bortçegunen buruan. (522)
(68) Noiz Ikhussico çaïtugu? Helduden astean ou dathorren astean. (525-526)

Edota beste askotan, Urtek, erantzunaren muina den zati huraxe (predikazioaren muina, galdegaia) emango du, hain zuzen, aditz errepikatu eta erabat tematikoaren ondotik, euskarazko tradizioan ere ildo nagusia den bezala. Hala nola adibidez segidakoetan:

(69) oray çer hari dire guiçonac mundúän? oray hari dire. bertçe orduz beçala. Ils font maintenant come autre fois. (435)
(70) Noiz ikhussico duçu .... Jauna Badut ... hartaz eçagutua içateco ohorea. Ikhussico dut.. Eguberdi ondóän. Je le verray apres midi. (486)
(71) Nora çohaz? Banoha vëstéco Monasteriora. salaçhurira. Je m'en vais. a Westminster a whitehall. (507)
(72) Badaquiçu escaraz mintçatçen? Mintçatçen naiz aphurbat. Je parle vn peu. (513-514)
(73) Fortuna hitç horrec çer erran nahi du? Ene' vstez hitç hori asmatua içatuda guiçonen' Ignorancia ou eziaguigna dela caussa, ceren eta ezpaïtaquizquite gaucen' ethorquiäc. A mon auis. cette parolle a este inuentée a cause de L'Ignorance des hommes. parce que ils ne sçauent pas les causes les principes des choses. (516)
(74) Vngui iracurtçen duc? Hasten naiz aphurbat. Je commence vn peu. (517)
(75) Eçagutu duçu.... Jauna? Eçagutçen nuen bistaz. ou ikhustez. Je le connoissois de veue. (521-522)
(76) Andrea! Ikhussi duçu? Badu Ikhussi dudala. hamabortç egun. Il y a 13 jours que Je le veu. (524)
(77) Baduçu çerbeit Jateco? Badut herbizco' pastis' bat. J'ay vn paté de Lieure. (530)
(78) Nora çohaz? Banoha hemendic bi Lekoctara. parissat bordelera.. Je vais d'ici a deux lieues. a paris. a bordeaux ... (540)

Nabarmen da azken erantzun sail honetan Urtek gordetzen duen egitura, aditza eta erantzunaren muinaren arterako, dela, «aX» modukoa, *aditza fi galdegaia* egitura, maiz gaitzetsia gaur egun gure artean.

---

[24] Ohargarria da, Urteren zenbat eta zenbat adibidek ikutzen duten, modu latzean, esaldi beronetan senti litekeen moduan, gizakiaren kondizionamenduen miseria; diru beharra; gosea; hotza; sufrimendua; … Agian ez oso urruti beti, bere (bere emaztearen/haurren) propioetatik, gramatika konposatzen ari den momentuetan.

[25] Eta akaso gaurko egunean biziagoak iduri badezakete antzeko erantzunek, arrazoia, segurasko bilatu beharko litzateke berriro, euskara irakasteko metodo klasiko horietan.

Eta aurreko atalean ikusi badugu ere nola Urtek garrantzi berezi bat aitortzen ote dion aditzaren aurre justuko gune hari, beste esaldi pare kasu batzuetan iduriko du aldiz, garrantzi bera ematen ote dien, aditzaren aurre eta atzeko gune biei; eta puntu honetan hainbateko liberalitatez jokatzen ote duen.

Esaten zuen Urtek, izenorde datiboen adierazi / ez adieraziari zegokionean «*Le datif se met imediatemt deuant ou apres le verbe, quand il y a causa discretionis*». Hala ere, orduan emandako adibideen frantzes itzulpenek, ezer gutxi argitzen ziguten, hauen fokalizazioen inguru. Ziren (446 or.):

(79) Niri Eman çarozquidaten. Ils me les auoient donnez.
(80) Erran çarozquigun guri. Ils nous les auoient dit.

Antzeko ikuspegi liberal batetik begira liteke hurrengo adibidea ere, ematen duenean Urtek (443 or.):

(81) Artçain gaçhtóa lo datça sabelaz gora. ou. sabelaz gora Lo datça artçain gaçhtoa. ou artçain, gaçhtoa. sabelaz gora lo datça. Le mechant pasteur dort le ventre en haut.

Beste kasuren batean aldiz, suma liteke, frantzes itzulpenaren bidez, Urtek egiten duen fokalizazioen desberdintasuna, bi esaldi berdintsuren artean (orain ere lo gauntça / dormons aditz pare beretsu batekin). Urtek ia segidan ematen ditu biak, bere *Figuren* argigarri; lehenengoa *Protozeugmarena*, bigarrena *Hypozeugmarena* (470 or.):

(82) Lo gauntça ni eta çu. nous dormons moy et toy.
(83) Ni eta çu lo gauntça. moy et toy nous dormons.

Iduriko luke, 82an bereziki fokalizatuak geratzen diren elementuak, direla, frantzeseraz nola euskaraz, aditz ondoreko elementuak (*ni eta çu / moy et toy*). Aldiz, 83an, esango litzateke, *ni eta çu / moy et toy* elementuek jokatzen dutela, topiko nabarmenen papera, ondoren datorren predikuaren tema. Baina, bai 82, eta bai 83ko adibideetan, berdin berdinak lirateke bi hizkuntzetan, esaldien egitura komunikatiboen jokuak.

Egitura komunikatiboen berdintasun hori, suma liteke Urtegan, beste kasu askotan ere, bi hizkuntzetan. Adibiderako, nola hasten duen Urtek *Sintaxi* atala, adibide argi eta esanguratsu honekin (427 or.):

(84) a + b c
La vertu est La felicité de lhomme.
a + c b
Berthutéä da guiçonaren dóhatssutassúna

Genitiboen egitura desberdinez ate, esaldiko funtzio elementuek, egitura bere bat erakusten dute bi hizkuntzetan: *Sujetoa fi Aditza fi Atributoa*, (S-A-At) modukoa. Eta berdina dirudi esaldiek bi hizkuntzetan gordeko luketen egitura komunikatiboak. Bere bat, bi hizkuntzetan, esaldiko tema edo marku predikatiboa, esaldi aurrealdean ohituraz. Eta bere bat, predikazioaren muina, galdegaia, esaldi amaieran ematen dena, bi hizkuntzetan, prezeski, kopularen ondotik.

Eta egia baldin bada ere, Urtek askotan aldatzen duela bi hizkuntzetan, esaldiko elementuen ordena, 2.1. atalean ikusi moduan, egia da ere, beste askotan mantentzen duela egitura komunikatibo berea, emanez bietan aditzaren ondoretik, predikuaren muina, esaldien amaiera aldera, 84ean bezalaxe, edo 69-78 bitarteako galdera erantzunetan. Finean, *aditza fi galdegaia* egitura gordetzen duten esaldiak, izango dira Urtegan, gutxienez, besteak hainbe, gramatikako adibideen artean, hauek «X» konplementu luze edo bakar bat baino gehiago duten orduko. Eta berriz Bibliako testuetan, inongo zalantzarik gabe, esaldien gehiengo nabarmena. Segidan biltzen dugu mostra zabal bat (adibide gehienak gramatikatik atereak, eta soilik bakar batzuk atzenean, Bibliako bi liburuetatik -1894 urtea adierazten zaienak-; Bibliako adibideak askoz ugariago ikus litezke gure ADIBIDETEGIAN):

(85) hemendire hemen çignac eta mignac. ... hançiren han çignac eta mignac. (424)
(86) Vos richesses ç'est tou mon plaisir. çúën aberastassunac dire ene attseguin' guçiä. (429)
(87) Ç'est La principale chose. hori da guciengaignecóä. id est çe qui est sur toutes choses. (431)
(88) Dohatssuada, oguiä içatu ahal duëna. Çeluy la est heureux qui a peu auoir du pain ... (431)
(89) Çembatenaz baïta çuhurrago eta hambatenaz da baçhoago. humillago. plus il est sçauant et plus il est humble. (436)
(90) Çémbat baïta handi eta hambat da Gaçhto. combien ou autant il est grand. et autant il est mechant. (436-437)
(91) Haguitç da bertçéäc bagno çuhurrago. bagnanez. prestuago. il est beaucoup plus sçauant que les autres mais non plus sage. (437)
(92) Agradagarria da nahiduenéntçat. il est agreable pour ceux qu'il veut. (437)

(93) Labur da oïnbatez il est court d'vn pied. (438 [aldiz, aurreko esaldia da: Laur oignezluçe da. il est long de 4 pieds., beste egitura komunikatibo batekin kasuan])
(94) amudióä. diferent da adisquidetassumétic (sic). L'amour est different de L'amitié. (439)
(95) Beldurnauc hiretçat eztaquian guertha çerbeit. Je crains pour toy qu'il ne t'arriue quelque chose. (447)
(96) Erreguec manetçen (sic) diöte bere azpicóëy. Le Roy comande a ses suiets. (448)
(97) Ontassuna ethorri çait azquenéän. le bien m'est venu a la fin. (449)
(98) Aïtçigneéän eçarri tutçu hauc eta hec guibeléän. tu a mis deuant çeuxçi et derriere çeuxla. (450)
(99) Inbidiossóä mehetçénda bertceren' ontassunagatic. ... L'envieux s'amaigrit. du bien d'autruy ... (452)
(100) Eriagoda Izpirituz eçenez gorphutcez ... il est plus malade d'esprit que de corps. (454)
(101) Guti mintçatçéä eta hagnitç entçutéä da guiçon' Handiaren segnaléä. Parler peu et ecouter beaucoup est la marque d'vn grand home. (455-456)
(102) ... eta handic goanen naïz indietara. ... et de la j'iray aux Indes. (459)
(103) Banóha Jauna baithara. ... Je vais chez.. monsr. (465)
(104) Arnoada othuruntçaren' arima. Le vin est l'ame du Repas. (474)
(105) Nic hura ikhusten dut ... egun' guciez ou oroz. Moy Je le vois tous les jours. (485)
(106) Andrea goanda. londressa ... Madame est allé a Londre. (491)
(107) Illhuna da bortç orenetan. Il est nuit a 5 heures. (495)
(108) Egunac hassi dire Luçatçen. Les jours ont comencé a croitre. s'allonger. (496)
(109) Egunac luçatu dire guti bat. Les jours sont allongez vn peu. (496)
(110) vra darit neure' gorphutç' guçitic. ... l'eau me coule de tout mon corps. (498)
(111) Ene' anaiac atsseguin luque çu ikhustéaz. mon frere auroit du plaisir de te voir. (525)
(112) Angueless mintço çare ossoqui anguelessa baçigne ou baldin baçigne beçala. Tu parles Anglois comme si tu etois tout a fait anglois. (528)
(113) badu orenbat iguzquia Iaiqui dela. il a vne heure que le soleil s'est leué. (539)
(114) eta Iaincoac deithu çuen arguia, Eguna eta Illhumbeac deithu çituen gaüa, ... (1894, 1-2)
(115) eta harc ekharrico darozquic elhórriac eta otheac ... (1894, 6)
(116) eta Iaincoac eguin çioten ontassun Emaguigneÿ, ... (1894, 94)
(117) ...: guero eçarri çuen haürra hartan barna, ... (1894, 94)

Hauetako zenbait kasutan, eta beste testuingururen ezean, erraz ebakitzerik ez balego ere, euskaraz ematen diren egiturak ziur liratekeen *aditza fi galdegaia* modukoak, ezin ukatu da, gehienotan ematen direla bi hizkuntzetan esaldiko Atributua, edo Objetua (berez aukera gehien dutenak esaldiko elementu berri, ezezagun izateko), esaldiko aditzaren ondotik. Hauetan Sujetoa, ia beti joan ohi da frantzesez aditzaren aurrean (S-A-At, edo S-A-O egituran), eta euskaraz maiz ere bai, nahiz ez derrigorrez (ezabatua edo bestela).[26]

1.2.3 Urteren aditzak ugari esaldi hasieran; «aX...» egitura absolutoak euskaraz.

Aditza fi galdegaia egitura erakusten duten esaldien artean, asko dira Urtegan, zuzenean hasten direnak, aditzaz (aditz konposatuaz). Esaldi hauek, «aX...» moduko egitura absoluto bat erakusten dute, eta gehienetan bederen, garbi erator liteke (itzulpenen edo testuinguruen laguntzaz) esaldiko predikazioaren muina doala, ez aditzean bertan, baizik eta, aditzaren ondoko konplementuen artean.

Horrelako esaldiak izan litezke, gramatikan, Atributua, Objetua, edo galdegaia aditzaren ondotik daramaten esaldi kopuru osoaren laurdena, edo heren ingurua. Eta hala ere, aditzaz hasitako esaldiak, gramatikan baino askoz maizago aurkitzen dira Bibliako itzulpenetan. Hemen segidan hainbat, batzuk galde/erantzunen artean ere jasotakoak; atzeneko laurak, Bibliako adibide ugarien erakusgarri (hauetarako, ik. gure ADIBIDETEGIA):

(118) Je ueux que tu te rejouisses. nahidut çu aleguéra çaïteçen. (428; [oro har, hori da Urtek beti mantentzen duen ordena, *nahi* aditza eta honen konplementuen artean])
(119) Vous auez sçeu La chose qu'on nomme semperé. Jaquinduçu. semperé deitçen den gaüça ... (431)
(120) Nahiägo dut aberatssiçan eçen ezaguertu. J'aime plus estre riche que paroitre (443; [Urtek orden hori mantendu ohi du jeneralean, *nahiago* aditza eta honen konplementuen artean])
(121) lakhetçen çaït. hemen. Je me trouue bien içi. (445)
(122) Pagatu naü çor çarotanaz. Il m'a payé de ce qu'il me deuoit. (447)
(123) Signhestendut Jaincoabaithan. Je crois en Dieu. ... (448)
(124) Biçi çen dembóra hartan. Il viuoit en ce temps la. (451)
(125) Irakhasten çarocuten filossofia. Ils nous enseignoient La philosophie. (451)

---

[26] Zenbait kasutan hala ere, eta nahiz eta bi hizkuntzetan oinarrizko egitura komunikatibo bere bat mantendu, *aditza galdegai*a, gertatzen da, frantzesez justu aditzaren ondoan doan «X» konplementu huraxe («aX» egitura batean), doala aldiz euskaraz, aditzaren aurre justuko gunean, «Xà» egitura batean; gertatzen zen bezala 69 esaldian («oray hari dire. bertçe orduz beçala. Ils font maintenant come autre fois.»): «oray (X) hari dire (a) / font (a) maintenant (X)», «Xà»/«aX» egituren kontraposizioan; nahiz eta gero, esaldietako elementurik predikatiboenak («bertçe orduz beçala / come autre fois»), joan bi hizkuntzetan, prezeski, egitura horien ondotik. Gauza beretsua adibidez, goiko 73, 88, 91, 92, 94, 95, 98, 100, 107, 109, 111, 112 adibideetan.

(126) Egorri dituzte plemúra. ... on les a enuoyé a plimouth ... (459)
(127) ... eta Ethorri naïz Liçhibonara ... Je susis venu a Lisbonne ... (459)
(128) Içatu naïz angueleterran eta Italietan. J'ay esté ... en Engleterre et en Italie. (463)
(129) Ihartu naiz ni belharra beçala. Ego sicut fænum arui. (470)
(130) Iduritçen çait ikhussi dudala. Il me semble que Je l'ay ueu. (484)
(131) Ikhussi dugu ... bata bertcea noizbait ou lehenago Nous nous sommes ueu autrefois lun lautre. (486)
(132) (Noiz ikhussico duçu .... Jauna ...) Ikhussico dut .. Eguberdi ondóän. Je le verray apres midi. (486)
(133) Iantut guereçiac Iadan. J'ay deia mangé des çerises. (498)
(134) (Badaquiçu escaraz mintçatçen?) Mintçatçen naiz aphurbat. Je parle un peu. (514)
(135) (Vngui iracurtçen duc?) Hasten naiz aphurbat. Je commence vn peu. (517)
(136) Eçagutçen nuen bistaz. ou ikhustez. Je le connoissois de veue. (522)
(137) Othoizten çaitut indaçu. Ekhardaçu. herréssa. Je te prie donne moy. apporte moy. du pain bis. (537)
(138) Goanda çuen biengana. Il est allé vers vous deux. (541)
(139) Higuintçendute Elkhar ou bata bertçéa. Ils haissent L'un Lautre. (541)
(140) eta ikhussi çituen Iaincoac eguin çituen gauça guçiac: ... (1894, 3)
(141) ... eta aürthiqui çuen haren sudurçillhotara biçiaren hatssa: eta eguign içan çen guiçona arima biçi. (1894, 4)
(142) ..., eta phaussatu çuen arrossategui batean Ibaiaren gagneàn. (1894, 94)
(143) ... eta ibilli içatu çen Moysse hil nahiz. (1894, 95)[27]

1.2.4. Urteren «Xà» eta «aX» egiturak euskaraz: Ondorio gisa.

Laburbilduz, esango litzateke, Urtek bi eratako egiturak erabiltzen dituela euskaraz. Batetik, gramatikan, maiz aurkitzen ditugu esaldiak, aditzaz amaitzen direnak, «…Xa» egitura absolutoetan, edota hala amaitu ezta ere, dudarik gabe daramatenak aditza esaldiaren atzealdean, eta esaldiko elementu predikatibo nagusiena, aditz horren aurreko gunean, garrantzi berezi bat aitortuaz gune honi, are fokalizazio gune bezala. Hori gertatzen da, ia beti, esaldiek «X» konplementu bakarra eta laburra erakusten dutenean; eta nahikoa maiz, esaldiak nahikoa laburrak direnean, konplementu gutxi (eta laburrak) dituztenean. Hainbat eta gutxiago jada, zenbat eta luzeagoak eta konplejuagoak izan esaldiak.

Bestetik ordea, Urtek ez du batere lotsarik, bere esaldiak maiz asko hasteko «Xa» moduko egitura labur batez, esaldiko predikuaren muina gero emanez, egitura horren ondotik, esaldiaren bukaera aldera. Egitura modu hau hainbat eta gehiago aurkitzen dugu Urtegan, zenbat eta luzeagoak eta konplejuagoak diren esaldiak, maiz egitura komunikatibo berdintsua erakutsiz euskaraz eta frantzesez. Areago, Urtek ez dio batere higuinik, bere esaldiak zuzenean hasteko aditz konposatuaz, «aX...» egitura absolutoetan (ezta ere sikiera «X» konplementu bakar eta labur bat dutenean; nahiz ohizkoagoa izan, esaldiak konplejuagoetan).

Nolanahi, beren prediku nagusia aditz ondoretik ematen duten esaldiak, askoz ugariagoak dira, gramatikan baino, Bibliako testuetan, non zalantza gabe osatzen duten esaldi gehiengo nabarmena. Askoz ugariagoak ere, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.[28]

Errazegia litzateke hitzen ordenamendu teoria bat, soilik 1.2.1. ataleko *galdegaia fi aditza* egiturak esplikatu nahi lituzkeena, hauek bakarrik emanaz euskal jatortzat, eta gaitzetsiaz, 1.2.2. eta 1.2.3. ataletako *aditza fi galdegaia* egiturak, soilik ikusi nahirik hauetan, erdal hizkuntzen eragina. Urtek denak idazten ditu elkarren ondoan, hiru sailetako

---

[27] Esaldiak aditzaz hasteko joera honen adierazgarri da (beti otoitzek behar dituzten prebentzio guztiekin hartuta), Urtek, gramatikako orrietan, ematen duen Kredoaren itzulpena, eta gehiegi aldentzen ez dena, ordenamendu kontuetan, beste askotatik. Nik zenbatzen ditut esaldiak (1900, 13-14 orr.): [(1) Signesten dut Jaincó aïta bothere guztia duena baithan. ceru' eta lurraren Eguillean' eta Jessu Christo haren semé' bakhotch' gure' Jauna baïthan. cegna concebitu baïtcen, Ispiritu sainduaren Berthutez; (2) sorthu çen maria Birginia ganic. (3) pairatu çuen Ponçio Pilatussen manuaren azpian. (4) gurutçean itçatu çuten. (5) hill tçen (6) eta ehortçi çuten. (7) Jautsi çen infernuetara. (8) jaiqui çen. hirurgarren' egunean biçiric hillen artetic. (9) igan tçen ceruetara (10) jarriric dago Jainco' aïta bothere gucia duenären escugneco' aldean (11) handic ethorrico da hillen eta bicien juïatçera. (12) Signhesten dut Ispiritu saindua baithan. Eliça catholica saindua. Sainduen partaletassuna. bekhatuaren barkhamendua haraguiaren piztéa, seculaco bicitcéa (13) halabiz.] Bertan, 13 esalditatik 9 hasten dira aditzaz (2 aditzaz bakarrik osatuak). Aditzaz hasten ez diren lau esaldietako bi -4, 13-, osatuak daude, aditzaz gainera, hitz bakarreko «X» konplementu bakar batez, eta «Xà» egitura absoluto bat gordetzen dute (nahiz 13 agintera izan); beste biek (10, 11), nahikoa luzeagoak, artean «Xà» egitura bat gordetzen dutelarik, nabarmen daramate biek ere beren predikuaren muina, esaldiko aditz nagusiaren ondotik.

[28] Datu honen esannahia nolanahi ez da unidirekzionala. Bada, egia izanik ere, Bibliako testuak itzulpen hutsak direla, eta jatorrizko (frantzesezko?) esaldien ordenamenduak eragin haundia izan lezakeela euskarazko esaldien egituran; egia da ere, soilik horrelako testu narratibo batean aurki litekeela, egitura komunikatibo egoki baten beharra, esaldien barrenerako eta esaldien arterako. Gramatikan barrena berriz, esaldiak solte(ago)ak ageri dira, eta ez dute egitura komunikatiborik gorde beharrik beste esaldi batzuekiko. Besteteik, itzulpena beti aldean izateak, bertan bihurtzen du esaldia, aurretik ezaguna, beste hizkuntzan emana denerako. Eta aurreezagumendu horrek nahikoa aldaraztzen du bi esaldien arteko egitura komunikatiboa, nahitaez aldatzen duelako bien testuingurua, beharbada arbitrarioa bihurtuaz, esaldi barreneko elementuen azken ordenamendua.

adibideak. Eta, ordenamendu teoria, preziatu nahi lukeen batek, denak esplikatu beharko lituzke batera, koherentzia marku beretsu baten barrenean.

1.2.5. Urteren aditz trinkoak.

Urteren aditz trinkoek gordetzen dituzten ordenamendu joerak ez dira desberdinak, aditz konposatuekin erakutsi ditugunetatik. Proportzioak ere ez segurasko. Agertzen dira esaldiko prediku nagusiarekiko, bai «Xà» egituran (144, 145, 147, 149 esaldietan bezala), eta bai «aX»-an (146, 148, 150, 151 esaldietan bezala). Hainbat eta joera gehiagoz «Xà» egituretarako, zenbat eta esaldi laburragoak (hauetako askotan osatuaz «...Xa» egitura absolutoak, aditza esaldi bukaeran emanda); eta hainbat gehiagoz *aditza fi galdegaia* egiturarako, zenbat eta luzeagoak. Gorago jasotako adibide, klase guztietakoen artean, asko dira, aditz kopula trinkoaz jokatuak. Hemen bestelako batzuk ere:

(144) Holandess nationétic dathor. Il sort il vient de la nation holandoise. (439)
(145) Hiregatic. ... Hiratúric çiägon. Il est Languissant. a cause de toy. (440)
(146) Piarres othoitçez dagotçu ezteçaçula vtç bera. Pierre te prie que tu ne L'abandonne pas ... (442)
(147) Ene' bekhatútic absolbitúä nago. Je suis absous de mon péché. (444)
(148) Guri dagocu vngui biçitçéä. il appartient a nous de bien viure. (1900, 459)
(149) Bethi hemen vriac darauntssa. ou vriac badarauntssa. Il pleut toujours ici. La pluye ne cesse pas. (495)
(150) vra darit neure' gorphutç' guçitic. l'eau me coule de tout mon corps. (498)
(151) (eta hirurgarren Ibaiaren içena da hidde-kel) hura doha assiriaren contra. (1894, 4; hau Bibliatik)

Ordea, aditz konposatuen kasuan ez bezala, Urtek ez du (ia) aditz trinkorik ematen esaldien hasieran buruzuri. Behin ere ez gramatikan, eta adibide bakarra aurkitu dugu Bibliako testuen artean (bi liburuen hasierako bostenak aztertuta). Segidakoa (bere aurre eta ondoko testuinguruarekin; 1894, 23 or., *Ethorquia*, 13):

(152) 12 (Abram bada egotu çen Canaango herrian, eta Lot egotu içan çen planoco hirietan eta han çhuçhendu çituen bere tabernacleac Sodomaragno) / 13 bagnan çiren sodomaco Iendéäc gaçhtóac eta haguitç bekhatóreac Eternalaren kontra. / 14 (eta Eternalac erran çioen Abrani [Lot harenganic apartatu ondóän] altçha. tçac oraÿ hire beguiac, ...)

Halako kasu batean ez bide da aitatzerik egongo, frantzes eredu baten eraginik, esaldiko sujetoa emana, prezeski, kopularen ondotik.[29]

Salbuespenak salbuespen, Urtek ez du aditz trinkorik ematen, buruzuri, esaldi hasieran. Beti, esaldiko beste konplementuren bati erantsita ondoretik, «Xà» egituran. Eta halakoren ezean, aditz trinkoak, beti darama esaldi hasieran *Ba-* partikula aurretik erantsita. Ez dirudi hala ere, horregatik ezer asko aldatzen denik esaldien egitura komunikatiboa (nahiz esaldiak beti irabazi, bestela izango ez lukeen baiezkotasun marka ageri berri bat). *Ba-* aurrizkia gora behera, esaldiko galdegaia maiz doa aditz trinko haren ondotik. Jasoak ditugu halako kasu batzuk goiko adibideen artean (ik. 70, 71, 76, 77, 78, 103, 113 esaldiak), ondorengo bien antzekoak:

(153) Banoha billhatçéra. Je m'en vais le chercher. (472)
(154) Badic hirur egun'. burutic mignez nagoela. Il a trois jours que je suis de douleurs de teste. (536)

Beste batzutan berriz, esaldiko galdegaitasuna egon liteke, beste elementu predikatiboagoen ezean, aditz trinkoak adierazten duen ekintza edo egoeran (edo honen baiezkotasunean). Adibiderako nahikoa bitez Urteren hurrengo bi esaldi arruntak:

(155) Badaquiçu escaraz mintçatçen? (513)
(156) Jauna badaquit hori Monsr je sçais çela. (519)

1.2.5.1. BA- aurrizkiaren erabilera bitxiagoak.

Badira baina Urteren gramatikan bi puntu, bereziki azpimarratzea merezi dutenak, *Ba-* aurrizkiaren erabileraren inguruan (ez horrenbeste akaso Bibliako testuetan). Batetik, Urtek aurrizkia erabiltzen duelako, zenbait kasu nahiko bitxitan, bederen gaur eguneko hegoaldeko sentsibilidade batetik begira. Adibide baterako, (157) esaldi, gutxienez kuriosoa, dagokion galderaren erantzun bezala, eta beharbada, antz batekoa izan litekeena, Urtek (158)an eskeintzen duen bigarren aldakia:

(157) Noiz bihurtuco da? Quand reuiendra t elle? Berehala badathor Elle va venir vite elle vient vite. (510)

---

[29] Nolanahi konpara beharko litzateke Urtek erabili bide zuen jatorrizko testua -agidanean Geneva 1588ko Biblia-, eta nik ez dut izan aukerarik.

(158) Bethi hemen vriac darauntssa. ou vriac badarauntssa. Il pleut toujours ici. La pluye ne cesse pas. (495)

Ikuspegi honetatik, berezia da, Urtek egiten duen etengabeko erabilera *Badiote* formarena (lapurtera klasikoaren tradizioetako batean, ez guztietan), *Diote* soilago baten ordean (beti usatuagoa hegoaldeko literaturan, eta usu erabilia ere bai iparrekoan).

Baina *Ba-* aurrizkiaren erabileraren inguruan, ohargarrien da, Urtek hartzen duen neke proportziorik gabea, gramatikan, maiz asko bi paradigma paralelo ere erakusten aditz trinkoekin. Lehena, aditz soilarekin (edo izenorde pertsonala bakarrik erabiltzen duena) aurrizkirik gabe. Ondoren bigarren bat, aditz forma berberak daramatzana, orduan *Ba-* aurrizkiari erantsita. Zenbait aditzekin gainera (bereziki transitiboekin), askoz gehiago garatzen ditu bigarren forma hauek (edo berauek bakarrik ere). Gramatikako aditz aurkezpen parte guztian aurkitzen dira sakabanatuta, segidako aipuen antzekoak; eta inpresioa da, Urtek aparteko garrantzi berezia eskeitzen diola aurrizkiari:

Les composez du verbe auxil. ni naïz je suis. sont / Banaïz / banago. banatça / banathor. banóha / banagóque / banaïtéque, banathórque / banarraÿ banohaque / banabilla. banabillque. vide / nago. natça. nóha / nathor. naïteque / narray. / 1. Je suis. ni banaïz. / banauc. / banaçn. / Je te suis. ni .. banatçaïtçu / banatçaïc. banàtçagn / ... / 1. Nous sommes. gu.. bagare / bagaïtuc bagaïtun etc. vtsupra a son simple nous sommes gu gare etc. exceptez qu'on ne dit pas ici içaten etc. et qu'on y ajoute cette sillabe. ba. au comencement du mot. (103 or.) / … / Banago. nago. (108 or.) / … / Banathor, nathor (115 or.) / … / Banóha, nóha (120 or.) / … / Banabilla (124 or.) / … / Banaïtéque. naïtéque. (128 or.) / … / (135, 137, 139 orr.). / … / J'ay... badut badiàt / badignat ... (193 or.) / … / Je te donne. / Badarótçut, badaütçut / badaróät. badaçät / badarónat. badaçnat ... (198 or.) / … / Dire. Je puis dire. badioquet. baçiöquéät baçioquénat. (270 or.) / … / Apporter porter. Je porte J'apporte. badakharquet. baçiäkharquéät baçiäkharquenat. (273 or.) / … / (291, 339, 342, 348, 351 orr.). / … / 1 / Les verbes auxiliaires sont. ni naiz. Je suis. banaiz ou ni banaiz Je suis. etc. nic dut. nic badut. J'ay ... etc. / … / 3º / Les verbes absolus sont badakharquet. Je porte. badaramat. J'emporte ... etc. (553 or.)

Urtek nolanahi ez du inon ezer teorizatzen, *Ba-* aurrizkiaren erabileraren gainean, eta ez dirudi bere erabilkera (Bibliako testuetan batez ere), ezer asko aldentzen denik, oro har, iparraldeko tradiziotik, zeina bai izan litekeen hegokoaren hainbat desberdina.

1.2.6. Urteren mendeko esaldiak.

Urtek ez du agerian ezer esaten, mendeko esaldien hitz ordenamenduaren inguruan. Gramatikan aurkezten dituen mendeko esaldiek, badute oro har joera beren barne mantentzeko «Xà» moduko egitura, eta are, «...Xa» egitura absolutoa, aditzek (eta hauei erantsitako elementu mendekotzaileek) amaituaz mendeko esaldia [*Leyalqui Eguia erraten duen guiçona ...* (428 or.); *Hi ossassunarequign Ethorriaz ...* (428 or.), …]. Hala gertatzen da, ia beti ere, mendeko esaldiak laburrak direnean («X» konplementu bakarrekoak edo); baina baita ere luzeagoak direnean. Hauen artean ordea, gramatikan bertan ere, arazorik gabe ematen dira esaldi hautsiak, konplementuak daramatzatenak, esaldiko aditzaren ondotik ere. Hala, esate baterako segidakoak:

(159) Badu Ikhussi dudala. hamabortç egun. Il y a 15 jours que Je le veu. (524)
(160) Erroçu Jaunari goango naicela bihar haren ikhustera. Dis a Monsr que J'iray demain pour le voir. (529)
(161) Oyeneri aditu diat vrliac escatu nahi çarozquiala liburu hec. A propos. J'ay ouy qu'un tel vouloit te demander ces liures. (535)
(162) Nahi duc edan deçagun. Laurdenbat arno' elkharrequign. Veux tu que nous beuuions vne Quarte de vin ensemble. (536)

Eta azken hiru esaldietan argudia bazitekeen frantzeseraren berdina dela (eragina?) euskarazko ordena, ezingo litzateke sikiera hori egin lehenengoarekin. Han, frantses eredua “hautsigabea” da.

Nolanahi, askoz nabarmenagoak gertatzen dira Urtek erabiltzen dituen mendeko esaldi hautsiak, Bibliako itzulpenetan, osatuaz gutxienez mendeko esaldi kopuru osoaren erdia (alde bat utzita ere, *dela kausa, haizela kausa*, ... bezalako forma fosilizatuak, Urtek barra barra erabiltzen dituenak). Hemen segidan batzuk (askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(163) ..., apartatçeco gaüa egunaganic: ... (2)
(164) (...: eta eçarri çituen Çherubignac hedengo baratçeco oriente aldetic,) harat hunat dabillan ezpatarequign biçiaren arbolaco bidea guardatçeco. (7)
(165) (... guerthatu çen...) ofrendatu çioela Caignec Eternalari lurreco fruitu ofrenda (7)
(166) (..., declaratçen du ...) hondatuco duëla lurra uholde ieneral baten bidez. (10)
(167)... eta oragno Iaincoaren semeac nahastatu çiren ondoan Guiçonen alabequign ... (10)
(168) ..., deseguiteco haragui guçia, ... (11)
(169) ... eta harequign çirenac arcan barna. (13)
(170) ..., Iaincoac eraman naüen orduan harat hunat, ... (34)

(171) eta etortçen denéän bildembóra, ... (87)
(172) eçen Pharaonengana ethorri naicénaz gueróstic hire icénean mintçatçera, ... (101)

Bibliako esaldi hautsien gain-azterketa batetik aisa erator liteke: 1) zeinnahi luzeratako esalditan gertatzen dela haustura (ik. bereziki 163, 168, 169, 171), nahiz eta hainbat maizago, zenbat eta luzeagoak eta konplejuagoak izan hauek; 2) aditz erregimenak (jokatuak edo jokatugabeak) maiz aurki litezkeela esaldien hasieran bertan (ik. 163, 165, 166, 168, 171); eta 3), Urtegan hainbateko maiztasunez aurkitzen ahal ditugula mendeko esaldi hautsiak, baita, elementu mendekotzaileen artean aurkitzen bada ere, hitz erregimen independiente bat (ik. 164).[30]. Eta kera honetako esaldiak, inoiz ez badira ere izango kopuru handiegi bat, maizago aurkitzen dira Urtegan ere, hitz erregimen independiente hori erdi-morfologizatua-edo gertatzen denean; denborazko hainbat esalditan bezala: {erlatiboa + *ondoan*} (ik. 167); {erlatiboa + *orduan*} (ik. 170); {erlatiboa + *-z geroztik*} (ik. 172), edo antzeko formulekin.

1.2.6.1. Urteren relatiboak, beren hitz erregimenaren ondoretik.

Mendeko esaldi hautsien atalean jaso litezke, Urtek tarteka osatzen dituen erlatibozko esaldiak, izen erregimenaren aposizio modura emanak, eta izen hauek gehienean forma mugagabe batean. Urtek ugari erabiltzen du errekurtsoa (ondo ezaguna gure tradizio zabalean) Bibliako itzulpenetan. Adibide batzuk segidan (baten bat gehiago oraindik ADIBIDETEGIAN):

(173) ..., belhar bere motaren arabera haçia dakharquena, eta arbola fruitu dunac bere motaren arabera fruitu dakharquetenac, ... (2, eta 2 berriro lehenengo esaldia).
(174) ... eta arbola fruitu dakharquetenac, ... (2)
(175) ... animalia higuitçen diren guçiac (vrec franquiaz bere motaren arabera ekharri çituztenac eta hegastin guçiac bere motaren arabera hegala dutenac: ...) (3)
(176) ... haçia dakharquen arbola fruitua berebaithan duténac, ... (3)
(177) ... arcaco leÿho eguin çuena. (14)
(178) ... oliba osto atheratu çúëna: ... (14)
(179) Israeleco haür Ejiptura jaütssi direnen nombréä (93)
(180) (ikhussi diat baÿ) ene pobluaren aflicçionea, Ejiptuan déna: ... (96)

Azken adibide bitxian, gehiago dirudi aposizioak, *poblu* izenaren adjetibo, *aflicçionearena* baino.

1.2.7. Hiru aipagarri bukatzeko.

1.2.7.1. Urteren galdera hautsiren bat.

Aipatu besterik ez bada ere, nola erabiltzen duen Urtek tarteka galdera hautsiren bat, konplementuren bat tartekatuaz, galdegilea eta aditzaren artean, galdera erretoriko moduan-edo (behin baino ez, oker ez bagaude, gramatikan; baina batzutan gehiago Bibliako itzulpenetan). Hala hiruok adibidez:

(181) Çembat demboraz obran harituda. Combien de temps a t'il travaillé. (1900, 451)
(182) cergatiç horla vtçi duçue guiçon hura? ((1894, 95)
(183) ..., eta nola Pharaoc entçunen naü? (1894, 103)

1.2.7.2. Etena, galdegaia / aditza.

Bitxikeria izango badira ere, jaso nahi nituzke hiru esaldi, bata bestearen oso parekoak, hiruretan bitxi samarra dirudielarik, esaldiko sujetoa tartekatzea, *gehiago* hitza eta aditzaren artean. Dira:

(184) gueiago Iaincoac erran çioën Moyssi, ... (97)
(185) gueiago Eternalac erran çioën, emac ... (98)
(186) guehiago Iaincoa mintçatu çitçaion Moyssi, eta erran çioën ... (101)

Badirudi hiru esaldietan hausten ote den, berez naturalagoa-edo esango litzatekeen «Xà» lotura modua, aditza eta, *gehiago* zenbatzailearen artean. Hiru kasuetan, predikazio nagusiagoa dirudi zenbatzailearena, sujetoarena baino, zeina zeharo presuposatua gertatzen den kontestuari begira hiru kasuetan. Esaldiek askoz naturalago iduriko lukete, sujetoa gune horretatik atereaz. Hala dirudi, Urtek eten-edo egiten ote duen lotura natural hura aditza eta elementu predikatiboago baten artean, elementu ez hain predikatibo bat tartekatuaz. Beharbada, urte batzuk geroago, hegoaldean, Cardaveraz bere idatzietan, setaz promozionatzen hasiko den bide batean, jada erabat ekinez tankera horretako

[30] Nahiz, dagoen kontestuan, izan litekeen anbiguoa.

esaldiei.[31]

1.2.7.3. Izen arrunta fi izen propioa segida.

Azkenik, oharño bat, Urteren *Jaun* tratamentuaren guneaz. Ematen baitu bere *hirurgarren solassean* galdera (515 or.): «*Nola deitçenda?*». Eta erantzunerako erakusten, bi segida desberdin euskaraz, frantzesezko bakarraren aldean: «*Jaun' ... deitçen da ou. ... Jauna deitçen da.*» Liberalitate piskaren bat. Guk ez diogu arazoari jarraipenik egin, Urteren testuetan.

(31) Escuarac baitu nominatiuoan bi akhabantça.
(32) Ordea erranen duçu, baldin asco bada bat, ...
(33) Jaquin behar duçu, ecen ...
(34) Eta bertce icen hura ceinaren akhabantça baita c, cerbitçatcen da, erran diren verbo sustantiuo naiz, nago, nabila, eta hauquin comunztaturicacoez campoco guztiequin, ceinac baitira ...
(35) Pluralean guisa berean cerbitçatcen da lehenbicicoa, ceina baita Iaunac verbo naiz, nago, nabila, eta hauquin conjugatcen diren guztiequin, hala-nola, ...
(36) Icen propiala ... hauc verbo sustantiuo naicequin cerbitçatcen dira diren beçala,
(37) baina bertce berboequin cerbitçatceco berretcen çaje c, hala-nola ...
(38) Hemendic ikusten duçu beraz icenac nominativoan behar tuela içan bi akhabantça ...
(39) ..., eta hau hunela jaquin gabez maiz ikhusten dugu hala mintçatcean nola isquiribatcean hainitcec huts eguiten dutela.
(40) Genitiuoac-ere baitu bi akhabantça diferentac ...
(41) ...: lehenbicicoaz baliatcen gara noiz eta-ere genitiuoac baitarontsa gauça bakharrena edo noiz eta-ere verboa baitate singulara, ...
(42) Ordea genitiuoa nahi dugunean hainitcen gainera hedatu, edo pluraleco verboarequin juntatu, orduan erraiten dugu Iaunarenac, eta ez Iaunarena, ...
(43) ..., eta halaber liçate gaizqui errana Iaunarena dira cerua, eta lurra, ...
(44) ..., halacotz beraz genitiuoan behar dira içan bi akhabantça diferentac, bata ...

Gramatikako beste gehienak ikus litezke gure ADIBIDETEGIAN, zeinen artetik atera ditugun mostrarako segidako bakanak, hasita, Etxeberriren testuko lehen esaldi beretik (antzeko esaldiak erruz aurkitzen dira Etxeberriren beste lanetan ere, ik. ADIBIDETEGIA):

(45) Icenen declinacinoac dira bortz. (123)
(46) Manera berean declinatzen dira bertce gaineraco icen um akhabantça dutenac, ...(125)
(47) Coepi preterito hau heldu da coepio lehenagoco verbo hautaric, ... (265)
(48) (Cer da icena?) Icena da perpausaren parte bat ceinac, ... (278)

2.2.2. Etxeberriren «aX...» egitura absolutoak, aditza zuzenean esaldi hasieran.

Etxeberrik, esan bezala, nagusiki gordetzen badu ere euskarazko aditza, «Xà» moduko egituretan esaldi barrenean (nahiz galdegaia egitura honen ondotik eman), egia da ere, zenbaitetan, goragoko 29, 32, 33 esaldietan ikus litekeen bezala, Etxeberrik hainbat maiz ematen dituela bere aditzak esaldien hasieran bertan ere, esaldiko galdegaia nabarmen doalarik aditz honen ondoretik. Gramatikan ez dira izango guztira, beste esaldi gutxi batzuk baino (segidako lehenengo bost adibideak); baina nahikoa ugariago aurki litezke ja, *Laburdiri escuararen hatsapenac* partean (zeinen artetik jasotzen ditugun beste bostak; askoz gehiagorako ik. gure ADIBIDETEGIA):

(49) (Badira adjectiuo batçuec, cembait casutan erreguelei eztarraiztenac,) eta deitcen dira erreguelez campocoac, ... (142)
(50) Iracurtcen darotçut liburua. (190)
(51) (Pairuzcoa cer da? / Or akhabantça duena,) eta eguiten da eguinbidezcotic, r berreturic, ... (282)
(52) (..., eçartcen da e,) eta eguiten da amave, ... (283)
(53) ..., eta balio dute plural bat, ... (291)
(54) ..., eta ikhasiçuten Caldeoa bere etsai garaitiarrena, ... (9)
(55) ...: erran nahidu Doctor Aingueruac guiçonac ardietsdetçaquela ... (17)
(56) ..., eta azpira cituen lehenic Guiena eta Escual-herria, bai halaber ... (29)
(57) Sarthu cen Naffarroaco eremuetan, eta setiatu çuen Iruñea ... (34)
(58) ...: aithortcen dut eguiazqui eta garbiqui, ni enaicela gai ... (39)

[31] Nolanahi esan behar da, Urteren hiru esaldietan, besterik gabe aurki litekeela akaso, jatorrizko testu frantzesaren eragin arrotza, esaldi hasierako *en plus* edo antzeko lokuzioren batena. Guk ezin izan ditugu, parekatu testuak, eta egin beharko litzateke ondoriorik eratortzeko.

2. Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco. Joannes Etcheberri Sarakoa (1712?)

XVIII mende hasieran, Joannes d'Etcheberri *Saraco Dotor Miricuac*, idatzirik utzi zuen, besteren artean, obra bat, izen luzez daramana, *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco / Lehenbiciric icenen declinacinoez eta verboen conjugacinoez / Azquenean icenari, eta verboari dagotzten gauçac*. Lana argitaragabe gorde zen XX mende hasiera arte, baina bestelako balorea dauka gure artean, lehen lan gramatikala delako, osorik euskaraz idazten dena.

Hasteko, lana da, latinari buruzko obra bat, eta ez euskararen gainean. 25 orrialde deklinazioaz, 130 aditzen jokuaz, eta hirugarren parte batean, 15 orrialde galde/erantzun jokuekin, dotrina moduan idatziak, latin gramatikaren beste puntu batzuen inguruan. Aditz azterketaren atalean hala ere (obraren 3/4ak), askoz sakontasun eta ugaritasun gehiago eskaintzen zaie euskarazko adizkiei, latinezkoei baino. Lanean zehar aurki liteke beste burutaziorik ere, euskarazko egituren gainean, eta oso berezi, esate baterako, Etxeberrik argitu nahi dituenean nominatibo/ergatibo desberdintasunak, euskara baitan (ik. gure 1.1. atala). Guzti horregatik, begira liteke Etxeberriren lana, euskararen nolabaiteko gramatika bezala.[1]

Etxeberrik hala ere, ez du inon ikutzen, gramatika puntuen artean agerian, funtzio elementuen ordenarena esaldi barrenean, guri oso bereziki interesatuko litzaigukeena. Ez du egiten, ez euskaraz eta ez latinez. Ez da hori bere kezka agidanean, bi hizkuntzen konparazioan.

Etxeberriren usteez zerbait jakin nahi izanez gero atal honetan, aztertu beharko da, batetik, bi hizkuntzen arteko konparazio batean, Etxeberrik tarteka ematen dituen latin/euskara esaldi pare osoak, batzuk besteen itzulpen bezala, guztira gutxi batzuk baino ez direnak. Bestetik, begiratu beharko zaio, bere praktika idatziari, hau bai ugariagoa, eta emankorragoa. Hala, gramatikan zehar egiten dituen oharretan; gramatika honetako azken parteko prosa jarraiagoan; edo areago, bere beste bi euskarazko lan, gorputz sendoagokoetan, *Laburdiru escuararen hatsapenac*, eta *Lau-urdiri gomendiozko karta edo guthuna*, hau bai, argitaratua Baionan 1718ko urtean.

2.1. Etxeberriren ordenamendu egitura berberak latin / escuara.

Etxeberrik ezer aitatzen ez badu, bi hizkuntzen arteko funtzio elementuen ordena gainean, beharbada da, desberdintasun haundiegirik aurkitzen ez duelako, puntu honetan, bi hizkuntzen jokamoldeen artean. Eta izan ere, elkarrekin alderatuz gero, Etxeberrik bi hizkuntzetan ematen dituen esaldi (osoen) pareak, beti euskal edo latin gramatikaren puntu zehatzen bat -edota adizki formak- argitzeko, eta ez bada, erreflesiorik gabe eginak, oro har ez da sumatzen batere alde aipagarririk, hauen funtzio elementuen ordenamenduetan.[2]

Etxeberrik ematen ditu lehenengo esaldi pareak, desberdindu nahian, latinezko izenorde erlatiboak eta galdegileak (1907, 137 or.):

(Quis, eta quid, dira galdetceco hitçac, eta qui quæ, quod relatiuoa, halacotz erraiten dugu)

(1) Quis dixit hoc? Norc erran du hau? (eta ez qui dixit hoc?)
(2) Quid agis? cer hari aiz? (eta ez Quod agis?)

(baina relatiuoa denean, erraiten da, Deus qui omnipotens est. Jainco ceina guciz-botheretsu baita, eta ez Deus quis; Sacrificium quod, Sacrificio[3] ceina; eta ez Sacrificium quid.)

Etxeberrik ematen ditu beste esaldi pare batzuk, latin (edo euskal) adizkiak aurkezten, orduan esaldi zerbait konplejuagoekin:

(3) Ni naiceno, ongui içanen çara. Dum ego fuero, vitam placidam ages. (163 or.)
(4) Nic maitatcen dudana, prestua da. ille quem ego diligo, probus est. (181 or.)

---

[1] Hauez gain, Etxeberrik egiten ditu ohar gehiago, euskal morfologiaren zenbait punturen gainean, *Laburdiri escuararen hatsapenac* izena eman zitzaion lanean.

[2] Itzulpenak nolanahi, ez dira inoiz, hitzez hitz egindakoak. Eta euskaraz beti mantentzen dituzte, solezismorik gabe, beren ohizko egiturak sintagma barrenetan (zenbatzaile, genitibo, eta abarrekiko), nahiz latinez egitura berdina edo desberdina erakutsi (ik. konparazio baterako 12 esaldiko, *çure adisquidea / amicus tuus* parea, eta bestetik, 13, 14, 19, 24, edo 25eko egitura berdinak bi hizkuntzetan, {posesiboa izena}; edo 26ko *sagar bat / unum pomum* segida kontrajarria ere).

[3] Besteak beste ohartzeko da ere izen aitzinkari hauen mugagabetasuna (*Jainco / Sacrificio)*.

(5) Nic maitatcen dudana, hic-ere maitatuco duc. Tu quoque diliges eum, quem ego amo. (181 or.)
(6) Ni maitatcen nauena, hic-ere maitatuco. [sic] Etiam tu prosequeris amore illum qui me diligit (181 or.)[4]
(7) Nic maitatcen dudanac, eguinen du. Ille quem amo, faciet. (277 or.)
(8) Nic maitatcen dudana, ona da. Ille quem amo, bonus est. (277 or.)
(9) Nic maitatcen duquedana, ona duquec. quem ego amavero bonus fuerit. (277 or.)
(10) Nic maitatcen duquedanac, eguinen du. quem amavero faciet. (277 or.)

2.1.1. Konparazio baterako gaia.

Bi hizkuntzen arteko ordenamenduen konparazio baterako, esanguratsuagoak gertatzen dira, Etxeberrik ematen dituen esaldi pareak, euskarazko nominatibo / ergatibo desberdintasun morfologikoak erakutsi nahian, ondo hitz zuhurren artean beti. Pasarte osoa jaso dugu, ulertzen ere laguntzen duelakoan (guk zenbatu ditugun) esaldien ingurumaria (1907, 145-146 or.):

[DECLINACINOEN AKHABANTÇA / (Nomen cantabricum est correlativum ad verbum & simul cum illo compositivum propositionis & ideo juxta varietatem verborum auxiliorum, diverso flectuntur modo nomina: adeo ut vna sit flexio pro verbo substantivo Naiz, & alia pro verbo activo Dut). / Escuarac baitu nominatiuoan bi akhabantça hala-nola, singularean Iauna, eta Jaunac, ni edo nic, hi edo hic, hura edo harc: pluralean Gu edo Guc: Iaunac, edo Iaunec; eta guisa berean gaineraco bertce icen guztiec. (Çuec icen huntaz campoas). / Ordea erranen duçu, baldin asco bada bat, certaco emanen çaizcan bia, edo cergatic bi guisetara erraiten den Iauna, edo Iaunac? Iaunac edo Iaunec? / Jaquin behar duçu, ecen lehenbicico icenaren akhabantça hura ceina baita Iauna, ni, hura, gu; cerbitçatcen direla verbo naiz, nago, nabila, eta hauquin conjugatcen diren bertce gaineraco verbo guztiequin, hala nola:]

(11) Jauna da ceruco eta lurreco Erreguea. Dominus est coeli, et terræ Rex;
(12) Ni nais çure adisquidea. Ego sum amicus tuus.
(13) hi aiz ene etsaya, tu es meus inimicus.
(14) Hura da gure nausia: Ille est noster magister.

[Eta bertce icen hura ceinaren akhabantca baita c, cerbitçatcen da, erran diren verbo sustantiuo naiz, nago, nabila, eta hauquin comuntztaturicacoez campoco guztiequin, ceinac baitira verbo eguinbidezcoac, edo accionezcoac, hala-nola,]

(15) Iaunac erran du; Dominus dixit;
(16) nic aditu dut, Ego audiui;
(17) Hic ikhusi duc, tu vidisti;
(18) Harc maite nau; Ille amat me.

[(Çuec eta hec, bi hitz eztira mudatcen ez eta-ere nehor, nor, ceina &c.) / Pluralean guisa berean cerbitçatcen da lehenbicicoa, ceina baita Iaunac verbo *naiz, nago, nabila*, eta hauquin conjugatcen diren guztiequin, hala-nola,]

(19) Ene adisquideac ethorri dira; Mei amici venerunt;
(20) Soldaduac balentac, bihotzdunac, eta azcarrac dira, Milites magnanimi, fortes et strenui sunt.
(21) Guiçonec bekhatu eguin dute: Homines peccaverunt.
(22) Guc estudiatu dugu, nos studuimus.

[Icen propiala hala-nola Piarres, Pedro, Ioannes, Martin, Antonio hauc verbo sustantiuo naicequin cerbitçatcen dira diren beçala, baina bertce berboequin cerbitçatceco berretcen çaje c, hala-nola]

(23) Piarresec, edo Pedroc erran çuen; Petrus dixit:
(24) Joanesec eman darot bere liburua, Joannes dedit mihi suum librum:
(25) Antonioc iraccurri du ene isquiribua; Antonius legit meam scripturam.
(26) Martinec igorri darot sagar bat; Martinus mihi misit unum pomum.

[Halaco-guisaz non verbo sustantiuo naiz, nago, nabila hautaz gaineraco bertce guztiequin icenac hartzen baitu c, bere akhabantçan, gainean lehen erran dudan beçala. (Hemendic ikhusten duçu beraz icenac nominatiuoan behar tuela içan bi akhabantça diferentac, eta hau hunela jaquin gabez maiz ikhusten dugu hala mintçatcean nola isquiribatcean hainitcec huts eguiten dutela.) Genitiuoac-ere baitu bi akhabantça diferentac, hala-nola, Iaunarena, Iaunarenac: lehenbicicoaz baliatcen gara noiz eta-ere genitiuoac baitarontsa gauça bakharrena edo noiz eta-ere verboa baitate singulara, ceren ecin comunzta baiteque verbo pluralecoarequin, hala-nola,]

---

[4] 5, 6 esaldietan Etxeberrik aldatu egiten du bi hizkuntzetan -3, 4, 7, 8, 9, eta 10ean ez bezala-, objetu esaldi adjetiboen kokagunea; ohargarriki hala ere, berdin segitzen du mantentzen bietan, {Sujetoa + ere + Aditz nagusia} egitura bat.

(27) Erreguerena da Francia guztia; Regis est vniuersa Gallia;

[baina eliçateque ongui erran, Erreguerena dira soldaduac. Ordea genitiuoa nahi dugunean hainitcen gainera hedatu, edo pluraleco verboarequin juntatu, orduan erraiten dugu Iaunarenac, eta ez Iaunarena, hala-nola]

(28) Iaunarenac dira cerua, eta lurra; Domini sunt coelum, et terra,

[eta halaber liçate gaizqui errana Iaunarena dira cerua, eta lurra, halacotz beraz genitiuoan behar dira içan bi akhabantça diferentac, bata verbo sustantiuo singularecoarequin comunztatceco, eta bertcea verbo sustantiuo pluralecoarequin.]

11-18 esaldiak ere ikusirik, ez da Etxeberrigan alderik sumatzen bi hizkuntzen arteko ordenamendu moduetan. Euskarazkoei begira, esan behar da guztien aurretik, Etxeberrik denetan gordetzen duela, euskaraz ohizkoa den bezala, «Xà» moduko egitura bat, «X» konplementu bat eta honen ondorengo «a» aditzaren artean; «X» konplementu hori esaldiko Sujetoa delarik 14 kasutan, behin Atributoa (20), eta beste bi kasutan Atributo Edutezkoa (27, 28);[5] «a» aditza berriz, 7 kasutan da kopula soila, eta 11tan erabatekoa.

18 esaldietatik 9 amaitzen dira aditzaz, hauetako 8 direlarik osatuak, soilik, aditza eta beste funtzio elementu bakar batez (zortzietan sujetoa), «Xà» egituran. 20 esaldiak aldiz, hiru elementu ditu {Sujetoa, Atributu luze bat, Aditza}, eta aditzaz amaiturik, «XXà» moduko egitura bat erakusten du (kasuan, S-At-A). Latinez ere ordenamendu ezaugarri berberak gordetzen dituzte esaldi guztiek.

Beste 9 esaldiak berriz, aditzaz bukatzen ez direnak, bi «X» konplementuz osatuak dira, «a» aditzaz gain. Beraz dira, 20arekin batera, aditzaz amaitzen zirenak baino esaldi luzeagoak, eta hau kontutan hargarria da. Beren egitura, «XàX» itxurakoa izango da. Eta 20ak S-At-A egitura erakusten bazuen, beste 9 hauetako lauk, erakusten du {Sujetoa / Aditza / Atributoa} segida (S-A-At; bereziki ez, At-A ordena). Beste hiruk, {Sujetoa / Aditza / Objetoa} segida (S-A-O) (bereziki ez, O-A). Eta azken biek berriz, {Atributo Edutezkoa / Aditza / Sujetoa} (At-A-S; baita ereberaz, At-A ordena). Etxeberrik ordena berbera ematen die bi hizkuntzetan esaldi barreneko funtzio elementu horiei, eta kokagune berber bat elementuei, esaldiko aditzarekiko, honen aurre edo atze justuan.

2.2. Etxeberriren galdegaia aditzaren ondotik (a X).

Pentsatzekoa da, bederatzi esaldiek gordetzen badute segida berea bi hizkuntzetan (SAO, SAAt, edo AtAS), bederatziek gordetzen dutela egitura komunikatibo bere bat ere bi hizkuntzetan, egitura hau zeinnahi izaki ere. Kasu eginez gero, Schuchardten definizioaren antzekoei (ari delarik sujeto eta predikatu psikologiko edo logikoez, eta ez gramatikalez) esaten duenean, «jarraitzen duen hura da beti predikatu, aurrean doana sujeto»,[6] esango litzateke, hala euskaraz nola latinez, Etxeberrik ematen duela, hiru elementutako esaldi hauen galdegaia, aditzaren ondoretik, eta ez aurretik -20 esaldian, aditzaren aurretik bezala-.[7]

Etxeberrik ez du esaldi pare gehiago ematen halako konparazioetan jarraitzeko. Ematen ditu hala ere, *Verboa Relativoarequin Conjugatua* izeneko atalean, segidako bi esaldiak euskara hutsean (1907, 277 or.):

(29) Eguinen du harc ceina maitatcen baitut.
(30) Ona duc hura ceina nic maitatcen baitut.

Zeinetan ere, zalantzarik gabe, aditzaren ondoko elementu luzeek hartzen duten bietan esaldien pisu predikatiboa, *aditza* □ *galdegaia* egituran.

2.2.1. Etxeberriren prosa egitura, aditza galdegaia segidan.

Gramatikako adibideok gehiegi ez badira ere, Etxeberriren euskarazko prosa propioa aztertuta, segurasko ez litzateke izango gehiegi esatea, honek ia beti ematen duela esaldiko galdegaia aditzaren ondoretik. *Escuarazco*

---

[5] 21 esaldia berezia da latinezko aditz trinko bat, ematen delako euskaraz, {Objetua + Aditza} moduko perifrasi batez.

[6] Cf. F. Lazaro, 1953, 331 or.: «Das Folgende ist immer Prädicat, das Vorausgehende Subject».

[7] 27, 28 esaldietan agian zalantzagarriagoa iduri liteke baieztapena, sujeto batzuri erasten zaielako esaldiko paper predikatibu nagusia, elementu tematiko ohizkoenetakoei; eta ez edutezko atributuei, ohituraz elementu predikatiboagooak. Halaz guztiz, ez litzateke batere zaila, halako egoera predikatibo batzuentzako ere testuinguru egokiak aurkitzea, nola zerrendatze bat egiten, *Iaunaren* edo *Erregeren* ondasunena.

Hatsapenac Lathin Ikhasteco lanean, deskriptiboa izaki, paradigmaz betea, ez dira denera gehiegi Etxeberrik euskaraz ematen dituen esaldi osoak, eta kontaketa ez da zailegia. Hala esan liteke, bertan emandako baiezko esaldi deklaratibo nagusietatik, ehuneko larogeita hamarrak, erakusten duela esaldiko predikatu (logiko) psikologikoa, emana, esaldiko aditzaren ondotik. Hala luzeak baldin badira, nola laburrak. Galdegaia aditzaren atzetik, ez da salbuespeneko egitura baino, eta hauen artean, batik bat, konplementu bakar batez osatutako esaldiak. Fenomenoa, ezin nabarmenago sumatzen da ja, gorago jaso ditugun Etxeberriren aipu gramatikaletan, baiezko esaldi deklaratibo nagusi eta oso GUZTIETAN, batere salbuespenik gabe. Hala, esaten zuenean:

(31) Escuarac baitu nominatiuoan bi akhabantça.
(32) Ordea erranen duçu, baldin asco bada bat, ...
(33) Jaquin behar duçu, ecen ...
(34) Eta bertce icen hura ceinaren akhabantça baita c, cerbitçatcen da, erran diren verbo sustantiuo naiz, nago, nabila, eta hauquin comunztaturicacoez campoco guztiequin, ceinac baitira ...
(35) Pluralean guisa berean cerbitçatcen da lehenbicicoa, ceina baita launac verbo naiz, nago, nabila, eta hauquin conjugatcen diren guztiequin, hala-nola, ...
(36) Icen propiala ... hauc verbo sustantiuo naicequin cerbitçatcen dira diren beçala,
(37) baina bertce berboequin cerbitçatceco berretcen çaje c, hala-nola ...
(38) Hemendic ikusten duçu beraz icenac nominativoan behar tuela içan bi akhabantça ...
(39) ..., eta hau hunela jaquin gabez maiz ikhusten dugu hala mintçatcean nola isquiribatcean hainitcec huts eguiten dutela.
(40) Genitiuoac-ere baitu bi akhabantça diferentac ...
(41) ...: lehenbicicoaz baliatcen gara noiz eta-ere genitiuoac baitarontsa gauça bakharrena edo noiz eta-ere verboa baitate singulara, ...
(42) Ordea genitiuoa nahi dugunean hainitcen gainera hedatu, edo pluraleco verboarequin juntatu, orduan erraiten dugu launarenac, eta ez launarena, ...
(43) ..., eta halaber liçate gaizqui errana launarena dira cerua, eta lurra, ...
(44) ..., halacotz beraz genitiuoan behar dira içan bi akhabantça diferentac, bata ...

Gramatikako beste gehienak ikus litezke gure ADIBIDETEGIAN, zeinen artetik atera ditugun mostrarako segidako bakanak, hasita, Etxeberriren testuko lehen esaldi beretik (antzeko esaldiak erruz aurkitzen dira Etxeberriren beste lanetan ere, ik. ADIBIDETEGIA):

(45) Icenen declinacinoac dira bortz. (123)
(46) Manera berean declinatzen dira bertce gaineraco icen um akhabantça dutenac, ...(125)
(47) Coepi preterito hau heldu da coepio lehenagoco verbo hautaric, ... (265)
(48) (Cer da icena?) Icena da perpausaren parte bat ceinac, ... (278)

2.2.3. Etxeberriren aditz trinkoak esaldi hasieran.

Etxeberrik ez du ere eragozpen handirik aurkitzen, esaldi hasieran bertan emateko, zuzenean, adizki jokatu trinkoak. Gramatikan aldi gutxi batzutan, denetan kopulak, eta zortzitatik zazpi, galderen erantzun bezala dotrinetako moduan (59, 60 esaldien antzera), eta bat hala gabe (61); *Laburdiri escuarazco hatsapenak* lanean ugariago (gehienetan direlarik *dio, diot, diotsa* moduko adizki entendimentuzkoak, 63, 64 adibideetan bezala); baina baita ere bestelakoak (ik. nolanhi gehiago ADIBIDETEGIAN):

(59) (Cer da Gramatika?) Da ongui isquiribatcea, eta ... (278)
(60) (Icenean cer da comparacinoa?) Da icen adjectiuoaren sinificantça graduetaric berretua, ... (280)
(61) (Hec dira bertceri juntaturic baicen causitcen eztirenac,) eta dira çazpi: di, dis, re, ... (287)
(62) (...: eztu barbarotasunic, ez hortz carrascaric, ezetaere ahogan gazcoric,) da haguitz emea, leguna, eta eztia, eta dudaric gabe haguitz çaharra, eta ... (14)
(63) Dio Dotor handi hunec ezta noble içaitea, ... (22)
(64) Diot berriz-ere, eztudala erran nahi, ... (45)

2.2.4. Latinezko adizki pasiboen itzulpenak Etxeberrirengan.

Galdegaiaren kokagunearen inguruan (edo kasuan agian atributoaren), behintzat kuriosoak gertatzen dira Etxeberrik aditz atal osoan zehar ematen dituen itzulpen bikoitzak euskaraz, latinezko adizki pasiboen orde. Hala adibidez lehenik *Amor* aditzarenak indikatibo orainean (1907, 176 or.):

(65) Ni maitatcen naiz, edo ni naiz maitatua. Amor. ...
(66) Hi maitatcen aiz, edo hi aiz maitatua. Amaris. / …

Etxeberrik gauza bera egiten du beste denbora jokatu guztietako pertsona guztiekin, segidan jasotzen ditugun lehenekin bezala (1907, 176-179 orr.):

(67) Ni maitatcen nintcen, edo ni nintcen maitatua. Amabar.
(68) Ni içan nintcen, edo içatu naiz maitatua. Amatus, a, um fui.
(69) Ni içatu içan nintcen maitatua. Amatus, ta, tum fueram.
(70) Ni maitatuco naiz, edo ni içanen naiz maitatua. Amabor.
(71) Ni içatu naiteque maitatua. Amatus, ta, tum fuero.
(72) (IMPERATIVO MODO) Aicen hi maitatua. Amare, vel amator.
(73) Ni maita nadin, maitatcen naicen edo, ni içan nadin maitatua: Amer.
(74) Hi maita adin, edo hi haicen maitatua, edo hi içan adin maitatua. Ameris, vel amare.
(75) Ni nintçate, edo nintçateque maitatua; ni içan ninde, edo içan nindeque maitatua; ni içanen nintçate edo nintçateque maitatua: edo maita ninde, maita nindeque, maitatuco nintçate, edo maitatuco nintçateque. Amarer.
(76) Ni içatu naicen maitatua. Amatus, ta, tum fuerim.
(77) Ni içan edo içatu nindequen, nintçatequen, nintçatequeyen, edo ni içanen nintcen maitatua. Amatus, ta, tum fuissem.
(78) Ni içanen naiteque, edo ni içatu naiteque maitatua. Amatus, ta, tum ero, vel fuero.
(79) (INFINITIVO MODO ... TEMPORE PRÆSENTI ...) Maitatua içaitea. Amari.
(80) (INFINITIVO MODO ... PRÆTERITO PERFECTO, ...) Maitatua içatu içana. amatum, tam, tum fuisse.

Etxeberrik antzeko paradigmak erakusten ditu *Doceor* aditzarekin (185 or. eta hurr.):

(81) Niri irakhasten çait, edo ni naiz irakhatsia. Doceor. ...
(82) Niri irakhasten citçaitan, edo ni nintcen irakhatsia. Docebar. ...
(83) Niri irakhatsi citçaitan, edo niri irakhatsi çait; ni içan nintcen edo ni içatu naiz irakhatsia. Doctus, ta, tum fui. ... / …

Gauza bera aurrerago beste hainbat aditz, itxura pasibokoekin: *Legor* (194 or. eta hurr.), *Audior* (202 or. eta hurr.), *Feror* (236 or. eta hurr.), *Fio* (251 or. eta hurr.), *Cœpi* (267 or. eta hurr.).

Guztietan kuriosoa da, nola ematen dituen Etxeberrik, latinezko adizkien itzulpen, bi mota desberdinetako esaldiak euskaraz (are latin forma bakar baten parean). Bat, artean euskaraz ere aditza konsidera ohi dena, {aditz nagusiaren infinitiboa edo partizipioa + aditz laguntzailea}. Bigarrena, *ni naiz irakhatsia* itxurakoetan, Etxeberrik beti ematen du aditz nagusiaren partizipio lehena, adjetibo bezala erabilia, eta deklinatua, gehiago duelarik atributu itxura aditzarena baino, eta esaldiak, esaldi kopulatibo edo atributiboarena.

Kuriosoki Etxeberrik infinitibo moduetan ezik (79, 80 esaldien antzean),[32] beti ematen ditu atributo hauek esaldiko

[32] Etxeberrik bere idatzietan nolanahi, bi moduetara ere ematen ditu antzeko esaldiak maiz. Bai, *Maitatua içaitea*, baina baita ere *Içaitea maitatua*, edo antzeko joskerak. Ik. segidan 3 atala; eta ADIBIDETEGIA saileko mendeko esaldi hautsien artean.

aditzaren ondotik, eta ez aurretik; osatuaz beti, {Sujetoa - Aditza - Atributoa} segidak (S-A-At). Eta pentsatzekoa da, hala hitzegin baliteke behintzat kasuan, esaldi horietako pisu predikatiboa, galdegaitasuna, emanez, bukaerako osagarri atributiboetan. Oso bereziki esan nahi dugu, Etxeberrik ez dituela esaldi hauek ematen {Atributoa - Aditza} segidan, nahiz berak ere maiz erabili bere idatzietan euskarazko ohizko egitura hori (ohizkoena ere dudarik gabe, hauen moduko esaldi laburretan).

Besterik ez balitz ere, Etxeberrigan kontutan hartzekoa litzateke, esaldi guztiotan erakusten duen errefus eza, halako joskera S-A-At batekiko euskaraz, are esaldi oso laburretan. Areago oraindik, berak A-At segida horiek ematen dituenean euskaraz (*içatu naiz entçuna* bezalakoak), are latinezko adizki perifrastikoen itzulpen bezala (*auditus, ta, tum fui* bezala; ik. 68, 69, 71, 76, 77, 78, 83 esaldiak), zeintzuk beti erakusten duten {partizipio nagusia + kopula} segida, berez gehiago parekatuko litzatekeena alderantzizko egitura, At-A modukoekin. Kasuan ez da bada aitzaki aitatzerik egongo, latinaren eragina.

2.3. Mendeko esaldi hautsi / hautsigabeak Etxeberriren sisteman.

Oro har ez dira gehiegi Etxeberrik gramatikan zehar erakusten dituen mendeko esaldiak. Batzuk bai, latinezko adizkiak adierazten ari den bezala, oro har oso laburrak direnak. Etxeberrik beti bukatzen ditu hauek aditzaz (eta honi erantsitako elementu mendekotzaileaz), konplementu gutxiak emanez, baldin badaude, beti aditzaren aurretik, «...Xà» moduko egitura absolutoeetan, nahiz latinez alderantzizko segida ere erakutsi («aX...» modukoa edo). Ikusi dugu adibideren bat gorago (3-10 esaldiak), eta hemen hurrena besteren bat:

(84) Interea dum anima ex corpore exeat. / Arima gorputcetic ilkhi bitartean. / Arima gorpputcetic ilqui ceidino / Interea dum anima ex corpore exiret / Arima gorpputcetic ilqui cedin bitartean. / Arima gorpputcetic ilkhi den, edo ilqui cen bitartean. Dum anima exivit, etc. (155)

Nolanahi, Etxeberrik ez du inolako eragozpenik, bere prosan, lasai asko emateko mendeko esaldiaren konplementuak, honen aditzaren ondoretik ere, «...XàX...» moduko egitura hautsietan, eta hala, esaldi luzeetan nola laburretan. Segidan batzuk, gorago jaso dugun aiputik bertatik (145-146 orr):

(85) ..., baldin asco bada bat, ...
(86) Ordea erranen duçu, ..., certaco emanen caizcan bia, edo ...
(87) Jaquin behar duçu, ecen ... cerbitcatcen direla verbo naiz, nago, ...
(88) ... genitiuoa nahi dugunean hainitcen gainera hedatu, ...

Etxeberrik erruz erabiltzen ditu mendeko esaldi hautsiak bere prosan, eta are gehiago zenbat eta luzeagoak izan esaldiak. Eta ohituraz, gehienetan mantenduko badu ere, «Xa» egitura bat hauen barne, ez da batere harritzekoa aurkitzea, zuzenean aditzaz (eta honi erantsitako elementuez) hasten diren esaldiak, ondoretik emanez honen osagarriak, «aX...» egitura absolutoetan (nola segidako 89-92 esaldiak). Etxeberrik zenbaitetan, hausten ditu mendeko esaldiak, are elementu mendekotzaileak osatuta badagoz ere, hitz erregimen independienteren batez edo (nola *denaz gueroztican* bezalako partikulen kasuetan, 93-94 esaldiak adibiderako; mendeko esaldi hautsien askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(89) ..., edirenen da, dela haguitç misteriotsua, eta antçatsua, ... (5)
(90) ..., jaquiteco verboari generoaren eratchequitcea, ... (7)
(91) ...; ecen considerabadeçagu munduan içandiren hitzcuntçaric famatuenac, ... (9)
(92) Mirestençuela, nola Erroma etcen eguin ossoqui barbaro: ... (10)
(93) ..., haudenaz guerostican gauça bat hain arduraco, eta comundabilana munduco hitzcuntça guztien artean, ... (14)
(94) ... nahastacadura hau denazgueroztican çure erranaren eredura gauça bat hequien artean hain naharo, eta arduraco dabilana; ... (15)

2.3.1. Etxeberriren erlatiboak izen mugagabeen ondoren.

Etxeberrik maiz ematen ditu erlatibozko esaldiak, ohi bezala, izenaren aurretik [*Gauça eracusten duten icen ordainac* (281 or.) modukoak]; baita ere izenaren ondoretik, aposizio modura, deklinabide atzizkiak doblatuaz [*..., eta guciac dira mintçoac, gauçac aditzera emaiten tuztenac*. (316 or.)]; edo izen aitzinkaririk gabe ere, erlatibozko esaldiak nominalizatuaz ohi bezala [*..., noble izanen denac (behar du içan bere merecimendu propialez beztitua.)* (23 or.)]; edota *zein* partikula anaforikoaren antzekoen bidez osatuaz maiz, erlatibozko esaldi esplikatiboak [*(Verthutea da) nobleciaren ethorquia eta hatsapena, ceina choilqui baita verthutearen errecompentsa: ...* (22 or.)]. Hauen aldean hala ere, Etxeberrik erakusten ditu, hainbateko maiztasunez beste batzuk, emanak prezeski, espezifikatu nahi duten izen, mugagabe, haren ondotik (edo are icenordain mugagabe baten ondotik, 100 bitxian bezala), segidako hauen modukoak:

(95) Grequezco icen os akhabantça dutenec, ... (125)
(96) Icen-ordain ethorquia dutenen (declinacinoac) (133)
(97) ..., eta hala cein-nahi adjectiuo, eta icen-ordain, eta relatiuo, eta verbo hei juntatcen çajena, (içanen da pluraleco.) (291)
(98) Halaber gutitan dute comparatiuoa eta superlatiuoa icen sillaba us hunen aitcinean bocala dutenec, hala nola idoneus, ... (291)
(99) ... verbo sustantiuo cein nahi denec, ... (292)
(100) ...; eta oraino, cembait lo datçan-ere Escuaraz isquiribatcera, behar-bada atçar-aracico; ... (323)

2.4. Etxeberriren Izen Propioak Izen Arrunten ondoretik.

Etxeberrigan ondo azpimarragarria gertatzen da, nola ematen dituen asko eta askotan, eta bederen gramatika kontuetan ari delarik, izen propioak izen generikoen ondotik.[33] Etxeberrik maiz ematen ditu halakoak, {izen propioa + izen arrunta} segidan ere, nola: *Çuec icen huntaz campoas* (145 or.); *Coepi preterito hau heldu da ...* (265 or.); *Facio, dico, volo verbo hautariccaco icenetaric ...* (291). Baina asko eta asko dira bestelakoak ere, eta hurrena ematen ditugunak, ez dira, baizik, gainbegirada axal batetik aterak:

(101) ... lehena ceruitçatcen da Verbo sustantivo Naiz, Nago, Nabila, eta hauquin conjugatcen diren Verbo guztiequin, ... (4 or.)
(102) ... verbo naiz, nago, nabila, ... (145, bi aldiz orrialdean)
(103) ... verbo sustantivo Naiz, Nago, Nabila, ... (145, 146)
(104) Letra c, bi guisetara isquiribatcen da hala nola ... (147)
(105) Verbo Sum conjugatua, ... (155)
(106) ...: choilqui ekharri dut hemen conjugacino hau eracusteco negacino ez nola beharden diferentqui errepartitu; ... (168)
(107) ...: ordea verbo facio hunequin moldaturico verbo, A gambiatcen dutenec, eta hartcen I, hala nola conficio, ... (271)
(108) Verbo Edo, is, bere dembora eta presuna guztietan ... (271)
(109) Verbo Comedo, is, hau causitcen da dembora erreguelez campoco berequin. Baina verbo Exedo, is, hau da erreguelez campoco indicativoan, ... (271)
(110) Halaber gutitan dute comparatiuoa eta superlatiuoa icen sillaba us hunen aitcinean bocala dutenec, hala nola idoneus, ... (291)
(111) ... hauquien superlatiuoac moldatcen dira, sillaba is gambiaturic, eta limus eçarriric, ... (291)
(112) ..., gerundio guztiec, supino um akhabantça duten guztiec ... (293)

Etxeberrik nolanahi maiz asko ematen ditu izenaren eskubira (nahiz ez bakarrik eskubira) klase askotako espezifikatzaileak ere (*-ko* izenlagunak bereziki, baina bestelakoak ere): *verbo eguinbidezcoac* (145), *verbo presuna gabeac* (276, ...), *dembora erreguelez campoco* (271) modukoak. Ez dirudi jokaera honek oso diferentea ere, Etxeberrik goiko izen propioekiko erakusten duen hartatik.

2.5. Etxeberriren galdera hautsi batzuk, bukatzeko.

Oro har gehiegi izango ez badira ere, Etxeberrik tartekatzen ditu bere prosan noiz behinka galdera hautsi batzuk, esaldiko elementuren bat ezarriaz galdegilea eta aditzaren artean; ohizkoagoko, galdera hautsi gabeen artean. Hala nola, besteren artean, segidakoak:

(113) Ordea nola ni sarthuco naiz itsas hondargabe hunetan? (39 or.)
(114) Norc itsas hondarreco arrainei eman othe diote escola hau? (60)
(115) Norc ene aho ezpainac garbituco darozquit, eta emanen darot laguntça isquiribatceco? (70)
(116) ... eta nor guerlara prestatuco liçateque? (315)

3. Larramendiren (1690-1766) Opera Magnaren ekarriak.

Hainbat gauza esan delarik, Larramendiren lan gramatikalaren gainean, aurreneko gramatika gure artean argia eta zabalkundea ezagutzen duena, eta oro har, hura goraipatua izan delarik, guk esan behar dugu, nola haren lanean finean garatu gabe geratzen den, borobildu gabe, gure jardun gaia nahi genukeen hitzen ordenarena euskaraz. Eta diot finean eta borobildu, ze ez dirudi haatik, Larramendik beharrik sentitu ez zuenik iharduteko gai hauen inguruan, finean egin

[33] Euskaraz bestela ere hainbat eman ohi diren moduz, Aita Manuel, Amona Malen, Osaba Juan, Arreba Juana, Donestebe, Andre Dena Maria, Jondone Meteri, Aita Villasante, Kale Santa Maria, ... modukoak

zuen baino zabalago.

Larramendik, jada 1928ko *Demostración previa al Arte*-an iragartzen zuen, nola euskarak (*tan primoroso, tan arreglado, tan en solfa de Declinaciones, Conjugaciones, Syntaxis con sus ocho Partes, Prosodia con sus acentos, ...*, 8 or.), inguruko beste hizkuntza batzuk baino hobeto betetzen duen, hizkuntza perfektoranzko batek, berez, eta beste perfekzio batzuen artean, gorde beharko lukeen *la harmonia en su dispositiva* (106 or.). Larramendi, hurrengo orrietan ahalegintzen da banan bana erakusten, euskarak dituen ondasunak, perfekzio horietako alor bakoitzean, gero Hiztegi Hirukoitzaren sarreran ere egiten duen modu beretsuan. Eta ordea, iristen denean, besteen ondoren, *dispositibaren harmoniari* buruzko atalera, aldatu egiten dio honi izenburua; ezabatzen du, *dispositiba* hitza, eta soilik izendatzen (133 or.): *El Bascuenze es lengua de mas harmonia que otras muchas*. Eta atalean zehar, zeharo ahaztuaz hasierako *dispositiba*, ekingo dio berriro, Hiztegiaren sarreran bezalaxe (vij-jx), euskal aditzaren aberastasunaren gaiari, eta honen harmoniari, bere 23 jokamolde desberdinetan.

Artean bertan ere esango litzateke, Larramendik asmoa bederen izan ote zuen, ikutzeko, azkenik egiten duen baino hainbat sakonago, hitz ordenaren eremu zabalagoa euskaraz. Hala eman lezakete aditzera, Syntaxi partearen amaieran ematen dituen segidako hitzek (335 or.; eta hemendik aurrera, beste datarik aitatu ezean, orrialdeak Artekoak izango dira):

> ... Y esto baste de la Syntaxis Bascongada, en la cual unas vezes pongo exemplares de todos los dialectos, otras me contento con uno solo por evitar prolixidad: y aora por la misma razon omitiré algunas reflexiones, que tenia que hazer sobre la conexion, y orden de las partes de la oracion Bascongada.

Agidanean bada, Larramendik bazuen beste zeredozer aitatu nahiekoa (eta gabekoa agidanean), euskararen *dispositibaren harmonia* haren inguruan, eta beharbada gehiago lotuko litzatekeena, berak, bigarren parte horren sarreran, *La Syntaxis, o Construccion del Bascuenze* izenekoan, egiten duen Sintaxiaren definizio puztu samarrarekin; nahiz eta aho haundiko definizio honen segidan bertan, berehala mugatzen duen honen esparrua, eskueragoko neurri batzuetara, gramatikari arrunten aitzakian (258 or.):

> ...: assi tambien para hablar el Bascuenze (lo mismo es de otra qualquiera Lengua), esto es, para formar oraciones perfectas, sentencias cumplidas, conversaciones conexas, y racionales, no basta saber los materiales, de que constan; tambien es menester saber su conexion, su orden, su posicion, ò colocacion diversa. Y por esta razon esta parte del Arte se llama Syntaxis, ò Construccion, por que aqui se enseñan las reglas para la fabrica, y construccion de la oracion. / Siguiendo la comun opinion de los Gramaticos darémos à esta Syntaxis del Bascuenze sus ocho partes de la oracion, nombre, pronombre, verbo, participio, posposicion, adverbio, interjecion, y conjuncion.

Azkenerako halare, Larramendik soilik garatuko ditu zortzi horietatik bost parte; ez ditu interjezioak ukituko; partizipioaz deituko du aditzaren atala begiratzera; eta konjuntzio guztiak jasoko ditu, orrialde eskas batean, bigarren partearen bukaeran.

Ez zaigu geratzen penazea baino, Larramendik azkenean agerian deklaratu gabe uzten dituenean, eginak, edo bederen intuituak, eduki zitzakeen gogoetak hitzen ordenaren gainean, eta zeintzuen islada izan litezkeen agian, Artearen bigarren parte hau irekitzen duten sarrera hitzak, ez dakigu, kriptikoak, paradojikoak, edota esanguratsu eta adierazgarriak. Dio orduan Aita Manuelek, berriro *dispositiba harmonien* oihartzunak dakarzkiguten hitzetan (257 or.):

> No tiene menos harmonia el Bascuenze en su Syntaxis de la que tiene en la inflexion de los nombres, y conjugacion de los verbos. Es su construccion capaz de la mayor elegancia, y propriedad [sic]: muy parecida à aquella Syntaxis Latina, en que galanamente se cortan las partes de la oracion, ya anteponiendo el verbo al nombre, posponiendo el consiguiente al antecedente, encadenando el regimen todo con variedad indiferente, y hermosa, que lisonjea tan diversamente los oídos.

3.1. Larramendiren dispositio kezka zehatzak.

Nolanahi dela, Larramendik Artean zehar, eta areago Syntaxi atalean, maiz erakusten du kezka ageria, esaldi parte desberdinen kokaguneei buruz, beste elementu batzuen aurrean, atzean, edota indiferentzia liberalarekin ere zenbait kasutan, ikusiko dugun bezala. Eta anteposizioen edo posposizioen kezkarekin, Larramendik tarteka esaten du hainbat gauza, hitzen ordenamenduen inguruan euskaraz. Horrela, adibide baterako, nola egiten duen, berak izenorde mugagabeak edo deitzen dituenetako batzuekin, izen batek laguntzen dituenean, edota erazo/erazi aditzaren inguruan:

> ... El pronombre edoceiñ, qualquiera sigue en todo a su primitivo ceiñ, assi en anteponerse siempre al nombre, como en lo demas. Si el pronombre bat-batéc alguno, viene acompañado de algun nombre, siempre se le pospone, y pide que el nombre venga en genitivo, ... El pronombre cembat cembatéc quanto, siempre se antepone al nombre, ... (286 or.) / Solo ay dos

> verbos de especiales propriedades, que es preciso conocerlas, y son erazo, erazi. ... Ellos nunca vienen en la oración por sí solos, sino acompañando à otros verbos, y siempre vienen pospuestos. (303 or.)

Edota hurrengo bost puntuetan.

3.1.1. Adjetiboaren kokaguneaz.

Larramendik ere, ezpairik gabe kokatzen du adjetiboa izenaren ondotik, puntu honetan ere agirian bereiziz, euskara erromantzetik, euskarak ez baitu indiferentziarik puntu honetan (263 or.):

> Quando el substantivo se acompaña de alguno, ò algunos adjetivos, siempre los va precediendo, sin indiferencia para posponerse, v.g. guizón edér bat, un hombre hermoso: y aunque el Romance dice tambien, un hermoso hombre, pero no el Bascuenze edér bat guizón.

3.1.2. Erakusleen guneaz.

Larramendik egiten du bereizketa bat ere zuhur asko erakusleon kasuan, eta alderatzen berriro, euskara eta erromantzea (284-285 orr.):

> Los pronombres demonstrativos comunes como ou [sic], onéc, ori orrec, &c. en oraciones que rigen, ò son regidos de algun verbo, siempre vienen pospuestos al nombre, como antepuestos en el Romance, v.g. guizón au etorri da, este hombre ha venido, mutil orréc jan-deu, esse muchacho lo ha comido, y no au guizon, orréc mutil. Dixe en oraciones en que rigen verbo: por que en un modo de locucion, en que vienen sin el verbo expresso, y es quando uno se admira, ò extraña, entonces se antepone el pronombre v.g. au guizona, ay hombre como esse! ... Los demostrativos particulares, v.g. ni nerau, neronéc, zu cerori cerorrec, &c. siguen en la posición a sus pronombres demonstrados.

3.1.3. Cer, nor, ceiñ, relatiboen guneaz.

Izenaren aurrean, ohi bezala (285 or.):

> Los pronombres relativos cer, nor, ceiñ siempre se anteponen à los nombres, cer guizón, nor deabrú, y no al rebés.

3.1.4. Instrumentalaren guneaz.

-z atzizki instrumentala adierazten, Larramendik ematen du segidako erregela ere, gutxieneko bitxia, eta oinarri gehiegirik gabea gure tradizio zabalean, baina adierazgarria, bere horretan, kokaguneari buruzko kezkena. Hala dio Larramendik (332-333 orr.):

> ... arzaz de aquel, cillarréz de plata, guriz de manteca, ostóz de hoja, burúz de cabeza. La construccion destos nombres, y sus posposiciones [-z instrumentalak] pide, que se antepongan al adjetivo; v.g. cillarréz betea lleno de plata.[34]

3.1.5. Genitibo posesiboaren guneaz. Teoria bat, praktika bi.

Aita Manuelek zorrotz eraikitzen du teoria, dudarik gabe dena, euskararen etorbide zabalenekoa (262-263 orr.):

> Si al substantivo se le junta otro genitivo de possession, siempre se antepone el genitivo, v.g. aitarén Semé, hijo de Padre, Jaincoarén ama, Madre de Dios. Y tiene lugar la regla en todo genitivo de possession, ya se acompañe con substantivo, ya con adjetivo.

Erregela garbi geratzen da, eta oro har ezin esango da hori ez denik euskararen jokabide orokorra. Kontua da ordea, gero Larramendik berak, behin baino gehiagotan hartzen duela lizentzia, lege hori bere komenentzira hausteko kezka haundirik gabe. Egingo du, ez bakarrik, ohizko *Aita Gurean*, Burgosko 1747ko Doctrinan ere errepikatzen duena, baizik eta baita ere, behintzat hurrengo hiru esaldiotan, oraindik ezagutzen diogun euskara ez ugariegi horretatik bilduak:

(1) ... iñoiz izandu baleu bezala, Fuero gureac ematen digun escua quentzeco eta ichitzeco bidea? (1990, 31 or.)
(2) ..., naigabé guciac izan ditezela, Cerorréc ala naita, D. Agustin gurearén alderaco, gozameneraco, eta atseguingarriraco. (1990, 87 or.)
(3) Eztet aditzen arrulladores orrec cer esan nahi devan, ote dira loeraguille iñudeenac? (1745, Lvj)

Ezingo da ukatu, hiru esaldi horiek baino usuzkoagoak liratekeela euskaraz, *gure Fueroac / gure D. Agustin / iñudeen*

---

[34] Guk ez diogu puntu honu jarraipenik egin, Larramendiren prosan.

loeraguilleac bezalakoak. Baina Larramendik ere besteak erabiltzen ditu kasuan.[35]

3.2. Malgutasun teorikoa ere bai zenbait elementuren kokagunean.

Larramendik praktikan erakutsi lezakeen malgutasuna, zenbaitetan zabaltzen da teoriara ere, zentzun ezin hobe batean. Horrela adibidez, konparatiboen edo adberbioen kokaguneaz esaten dituenetan beren adjetiboekiko; edota, guretzat garrantzi gehiagokoak liratekeenak, galdegai arazoekin eduki lezakeen zerikusiarengatik, izenorde pertsonalen, eta mugagaben, kokagune libreari buruz, dagokien aditzaren aurrean edo atzean.

3.2.1. Konparazio terminoak konparatiboaren aurrean eta atzean.

Hala postulatzen du Larramendik, nahiz dotoretasunaren pisua soilik erantsi, azkenean, aukeretako bati (270 or.):

> ...; assi en Bascuenze el comparativo ago trae su relativo; ò nota subsiguiente, zu baño obeago, mejor que tu, ederrago loréac baño, mas hermoso que las flores. / ... Se ha de notar lo 3. que la comparacion se puede anteponer, ò posponer en la Syntaxis, v.g, zuriago elurra baño, y tambien elurra baño zuriago, y con mas elegancia se dice pospuesto el comparativo.

3.2.2. Adberbioak adjetiboen aurrean eta atzean.

Superlatiboen egiturak azaltzen, Larramendik, konposatua deitzen duen haren osaera adieraztekoan, esaten du, eginez bide batez desberdintasun konparaketa gaztelera eta frantzesarekin (271 or.):

> ... El compuesto se haze del positivo, y de adverbios, que significan la superlacion, y excesso, y corresponden al valde Latino, muy del Romance; y tres del Francés, y son chit, chitez, gustiz, guciz, anitz; v.g. chit ederra muy hermoso, chitez andia muy grande, gustiz gozoa muy dulce; guciz samiña muy amargo, anitz guezurtia muy embustero. Y este superlativo no tiene especial Syntaxis, aunque se debe notar, que essos adverbios se pueden anteponer, ò posponer al positivo, ederra chit, andia chitez: lo que no se puede con el muy del Romance, ni con el tres del Francés.

Larramendik ordea, aukera bikoitza aitatu baino lehen ematen dituen adibide guztietan, graduatzaileok aurretik ematen ditu, eta ez atzetik. Nolanahi, eskertzekoa zaio malgutasuna, honek hizkuntzaren ezagupen sakonagoa suposatzen eta eskeintzen duen neurrian. Gure kasuan, esanguratsuagoa da, Larramendik adierazten duen kokagune bikoiztasuna aditzarekiko ondorengo bi kasuetan.

3.2.3. Izenorde pertsonalak beren aditzaren aurrean edo atzean.

Hala esaten du Larramendik garbi, eta kasuan erromantzearekin batean (284 or.):

> Los pronombres personales tienen indiferencia, para anteponerse en la construccion, ò posponerse al verbo, en cualquier caso que vengan; y assi ygualmente se dice, neu etorri-naiz, que etorri-naiz neu, yo he venido; igualmente nizas oroitzé ezta, que oróitzen ezta nizas, no se acuerda de mi. La misma indiferencia tienen en Romance, menos el pronombre aquel, aquella, ...

Eta, urteak pasata etorriko diren zurruntasunak tarte, bederen gogoangarria da malgutasun hori, nola den hurrengoa.

3.2.4. Izenorde mugatugabeak beren aditzaren aurrean edo atzean.

Hala dio nahiz adibiderik gabe kasuan (285 or.):

> Los pronombres indefinidos unos entran por sí solos en la Syntaxis, sin acompañarse con nombre alguno, y son iñór, nihór, ecér, cerbait, norbait, que tienen indiferencia, para anteponerse, ò posponerse al verbo: ...

---

[35] Larramendi bera ere, kasu honetan, gramatikalari/idazle bikotean maiz gertatzen den bezala, askoz zorrotzago eta zurrunago ageri da gramatikalari bezala (noiz sistematizazioaren atzetik dabilen, eta batez ere hizkuntzaren analogiak erakutsi nahian), idazle bezala ari denean baino, orduan Larramendik ere ongi baloratzen duelarik anomalien aberastasuna. Gauza bera gertatzen zaio Larramendiri erlatibozko esaldiekin, aurrerago ikusiko dugun bezala. Edota *-ko* izenlagunen guneaz izenaren aurrean (inoiz ageriegian teorizatzen ez badu ere), gero berak bere idatzietan, hainbat maiz erabiliko dituenean izenaren ondoretik emandakoak ere, nola segidako kasuetan adibiderako: *bazarre lenagocoetan* (1990, 31 or.); *seme eguiazco* (1990, 57 or.); *hizqueta onelaco bat* (1990, 85 or.). Gauza beretsua adjetibo ordinaleen kokaguneaz izenaren aurrean, gero Larramendik inoiz libertatea hartuko duenean, hau izenaren ondoretik ere emateko kezka gabe, nola adibdez segidako kasuan: *oriec dirade argi bigarrenac* (1990, 60 or.). Gramatikalariak sistematizatu beharko lituzke horrelako anomaliak ere.

3.3. Euskararen Sintaxi edo Eraikuntza Pospositiboaren inguru.

Larramendik usu ageri duen kezkaz gain, esaldiko elementu desberdinen kokaguneari buruz, egiten du Artearen *Prologo* beretik, guzti horiek baino garrantzitsuagoa eta tinkoagoa den jeneralizazioa, esaten duenean, adbertimendu apalagoen artean (jv-v orr.):

> ... Despues desto pocas cosas tengo, que advertir à los Bascongados, que leyeren este Arte. ... La tercera, que en todo caso observen, que la construccion, ò Syntaxis del Bascuenze, comparada con la de otras Lenguas, es pospositiva: observación, de cuya falta ha nacido parte de la gran dificultad de componer Arte Bascongado. Dice el Romance v.g. para aquel, que lo come, donde preceden al verbo el artículo para del dativo, el pronombre aquel, el relativo que, y el artículo lo, que aqui es de acusativo, y despues se sigue el verbo. Construye el Bascuenze, jatenduenarentzat, que siendo composición de varias voces, parecen una sola. En ellas precede el verbo jaten-du, en que se embebe el acusativo lo, siguese el relativo en, ò ena, jaten-duena, y despues el pronombre con su articulo arentzat, para aquel: y por la distincion se pudiera escrivir, jaten-duén-arentzat. ...[36]

ERASKINEAN jasoko dugun bezala, Larramendik aurrerantzean, ez du inoiz gutxietsiko jada, euskararen eraikuntza pospositiboaren baieztapen orokorra, eta behin eta berriz errepikatuko du bere ondorengo lanetan zehar, Hiztegi Sarreran, Corografian, edo bestetan. Inoiz ez dio ordea kontzeptuari esannahi berririk erantsiko, edo Artean eman baino zehatzagorik. Horregatik konbeniko da ondo finkatzea, zertan datzan, Larramendi beraren hitzetan, eta zertan ez, euskararen eraikuntza pospositiboaren ezaugarria, Artearen Sarreratik ematen duena.

Izan ere, ikusten gatozen bezala, Larramendik, bata zein bestea darabiltza, bi hitzak, *anteposizioa* eta *posposizioa*, Arte guztian zehar etengabean, euskarazko elementuen ezaugarri bezala. Posposatzen zitzaizkien, izenei, erakusle arruntak, eta hauei, erakusle partikularrak. Posposatzen ziren, *bat* mugagabea, eta *erazo/erazi* aditzak. Baina aldiz, anteposatzen zitzaizkien, izenak, adjetiboei; genitiboak izenei; izen instrumentalak adjetiboei; izenorde relatiboak izenei; eta ere, *edoceiñ* eta *cembat* mugagabeak, beren izenei. Beste batzuk berriz, indiferentziaz erabil zitezkeen, aurre edo atzeetan. Ez da beraz, batere superfluoa eta zentzugabea, galdetzea, zertan gauzatzen den Larramendirentzat, euskararen eraikuntza pospositibo hori, eta eraberean, zertan ez.

Eta Larramendirentzako, guztien gainetik ditu euskarak, bederen bi ezaugarri pospositibo hauek:

3.3.1. Euskaraz, posposatzen da artikuloa.

Lehenik eta behin, euskaraz posposatzen da artikuloa, eta egiten da, inguruko hizkuntzen alderantzira. Hala dio jada 2. orrialdetik:

> ... Ay dos diferencias. La I. que los articulos en essas Lenguas [Erromantzea, Frantzesa, …] son prepositivos, ò antepuestos al nombre; pero en el Bascuenze son pospuestos, ò subjuntivos.

1728ko Demostrazioan ere antzera esaten zuen (*sus artículos, que el Bascuenze los tiene pospuestos, ò subjuntivos*, 94 or.), eta Arteko segidako hitz zirikatzaileak irakurrita, esango litzateke, posposizio honek pisu berezia ote duen Larramendirentzako, euskararen eraikuntza pospositiboaz hitzegitean (17 or.):

> Otra objecion hazen contra el Bascuenze; porque en esta Lengua todo se ha de construir al rebes, por la posposicion, que tiene de articulos, v.g. ur garbi-a, burú uts-a se han de construir agua clara la, cabeza vana la. Que simpleza! y de donde te consta, que esta construccion es al rebes? y mas si doy yo en decir, que va al rebes tu construccion Castellana? Sabes? los Hebreos escriben el renglon, tirandole de la mano derecha à la izquierda, y tu le tiras de la izquierda à la derecha; y quien escribe al rebes. segun esse reparo se avran de desterrar del Latin el que, ve, ne, y otros adverbios, y aun toda su Syntaxis. Y sino construye esta oracion, sempèr enìm hic homo leones inter, ursosque commoratus est: mira, que donosura, siempre porque este hombre leones entre, osos y vivido ha. Pero yo hago mal en cansarme en estas puerilidades. Goazén emendic.

---

[36] Puntu honetan gogoangarria da (batik bat gero Cardaverazek aldarrikatuko dituen ondorio extenporaneoen bistara), nola Larramendik emandako adibidean, euskararen eraikuntza pospositiboa erakusteko, adierazten duen prezeski, euskaraz aditza aurretik doala (finean hitz jokua baino izango ez bada ere, atze eta aurre kontzeptu beti erlatiboen inguru). Larramendik baieztapen berori egiten du Syntaxiaren sarreran (gorago jaso dugun aipuan) esaten zuenean, berdintsuak ote ziren euskal sintaxia eta latinoa, eta hauen ezaugarri bezala-edo ematen zuenean *anteponiendo el verbo al nombre* gutxienez kurioso samar bat. Kontua da, Larramendik, Artean, aditzaz hitzegiten duen gehienean, diharduela honen *aurreposizioaz* beste elementu batzuekiko, edota esaldi osoarekiko ere, ikusiko dugun bezala, eta ez aditzaren gune pospositiboaz esaldian, Cardaverazek postulatu bezala. Bestalde, gain-begiratu besterik ez dago, Larramendiren praktika idatzia, konturatzeko, ez duela inola praktikatzen, aditzaren posposizio hori esaldian.

3.3.2. Euskararen posposizioak, eta ez preposizioak.

Bada Larramendiren lanetan, bigarren puntu nagusi bat, ongi sustatuko duena ere euskararen eraikuntza pospositiboaren adbertimendua. Da, urte batzuk lehenago Urtek ere idatzi bezala, euskararen preposizio eza, eta posposizio sistemaren erabilera usua. Larramendik, orazioaren zortzi parteak aitatzen zituenean bere Syntaxiaren sarreran, izendatzen zuen jada hauen artean, posposizioa, eta ez preposizioa (artikuloa ere aitatzen ez zuen bezala), eta ondoren egiten argi piska bat esanez (259 or.): ... *No tiene el Bascuenze preposiciones, mas en su lugar entran las posposiciones*. Eta hauei kapitulo labur bat eskeintzen die Syntaxian, *De la posposicion* izenpean (331-334 orr.). Dio hala sarreratik:

> Se debe tener muy presente esta parte de la oracion, para no equivocarse en la accepcion de las voces del Bascuenze, las quales siendo compuestas de dos distintas, parecen una sola por la continuacion, pero se deben distinguir para el regimen, y para dar el correspondiente à las preposiciones del Latin, y de otras lenguas. ... / Muchas son las posposiciones del Bascuenze, y de varios modos: ...

Eta horrela esplikatzen ditu hurrengo orrialdeetan, errepikatuaz zenbaitetan deklinabidezko atzizki bezala ere azaldu dituenak, zuzen legozkiekeen atzizkiak, Latineko ablatibo eta akusatibokoei; orain finalak deitzen dituen lekuzko batzuk; edota, euskaraz, genitiboa eskatuko luketen bestetzuak (*aurrean, atzean, kontra, ondoan, aldean, gainean, azpian, barrenean*).

3.4. Ezaugarri pospositiboa euskaraz, esaldi konposatuen sisteman.

Nolanahi, zentzu haundiz, Larramendik erakusten du beste hirugarren adar nagusi bat ere, euskararen eraikuntza pospositiboaren oinarrirako. Da, elementu mendekotzaileen posposizioarena aditzari mendeko esaldian. Nahiz eta, Larramendik argi adierazten duen bezala, mendeko esaldi hauek askotan erakutsi beste aurre-partikularen bat ere hasieran. Larramendik Syntaxiaren Kapitulo VIIa eskeintzen die, *De los modos de oraciones*, euskarazko esaldi konposatuei, oro har (304-323 orr.). Goazen bada pausoka.

3.4.1. Aditz determinanteak eta determinatuak.

Aurreneko atalean, *Del verbo determinante y determinado* izenpean, jarduten du, esaldi konpletiboak edo deitu ohi direnen gainean, eta dio, emanez geroago aipatuko ditugun adibide zentzuzkoak (304-306 orr.):

> Ay oraciones, en que vienen dos verbos, uno que llaman determinante, y otro determinado, cuya determinacion se haze en fuerza de alguna particula, adverbio, ò conjuncion. Pues aora hablo generalmente de aquellos verbos, cuya determinacion en Romance se haze con el que, y en Latin con el quod, ò poniendo en infinitivo el determinado. Pues todas estas oraciones se hazen en Bascuenze con una particula pospuesta à la terminacion del verbo; pero por que la terminacion es varia, se varia tambien la particula pospuesta, segun estas reglas. / I. Las terminaciones, que se acaban en vocal, añaden la en el verbo determinado, y corresponde al que del Romance, y esto en todos dialectos, ustedu, guc artu degula, ..., esan diot, quendu-diogula, ..., badaquit, ostu dizquidatzutela, ..., esan nión, emaiten diodala, ...

Eta hurrena adierazten baditu ere, oinarrizko *-la* atzizkiak izan ditzakeen aldakiak, aditz laguntzaile desberdinen bukaera letren arabera, ez du jada ematen adibide bezala, esaldi oso gehiago. Aurreraxeago hala ere, hurrengo atal batean heltzen die berriro tarte batez, emanez orduan ere adibide, esaldi osoren bat, aurrerago komentatuko duguna (314-315 orr.):

> Las oraciones, que en Latin traen por determinante al videor videris, y en Romance pareceme, &c. en Bascuenze se hazen con distincion: por que quando se explica la persona à quien le parece, tienen la Syntaxis comun de los determinantes, y determinados, v.g. baderitzat, garaitúco dedala, ..., y tambien baderitzat, ecén garaitúco dedala; baderitzazu, atzemangó diozula, ... / Pero quando el determinante destas oraciones viene impersonalmente, se hazen en Bascuenze ... con el impersonal dirudi, badirudi, parece, y la construccion que acabamos de explicar de los determinantes, y determinados, v.g. badirudi, jan nai gaituztela, ...

3.4.1.1. Aurre partikulak mendeko esaldietan.

Larramendik hala ere, hasiera batetik teorizatzen du, nola ez den hori euskaraz, esaldi mota hau osatzeko bide bakarra, eta eraberean erabiltzen direla hainbat aurre-partikula ere; eta hala ematen ditu beste zenbait adibide (azken aipuko batean bezala; 307-308 orr.):

> Se ha de notar lo I. que estas oraciones de verbo determinante; y determinado se hazen tambien con particulas correspondientes al que del Romance, y son ecen, ece, ce, las quales no por esso quitan el la pospuesto, que acabamos de explicar, v.g. badio, ecen jaten-degula, ...; aditúdet, ece ezcontzen-dala, ... / Lo 2. se ha de notar, que ay algunos verbos determinantes en Romance, que vienen impersonales, v.g. dicen que, dicese que, corre que, parece que: si estos se hazen en

> Bascuenze con los verbos correspondientes, diote ece, esaten da ecen, &c. traen las particulas aora explicadas. ... / baietz diote, ezetz esandu, ... , y lo mismo es, diote ecen baietz, esan du ecen ecetz.

Gauza beretsua zioen Relatiboaren kapituloan, excursus modura idazten zuenean (272-273 orr.):

> ... de dos modos puede venir esta partícula que en oraciones Castellanas: ò entre un verbo determinante, y determinado, ò despues de algun nombre, ò pronombre. Del primer modo el que es una atadura, ò conjuncion de las dos oraciones, y no es relativo en el sentido en que hablamos aqui: y en Bascuenze se dice ecen, ece, ce, v.g. dio, ecén aditze-eztedala, y tambien sin essas particulas del modo que se dira en el capitulo del verbo.

3.4.1.2. Aditz determinatzaile fi determinatu segidak euskaraz.

Hitzartean izango bada ere, Larramendik esaten du azkenik zeredozer ageri eta garrantzizkoa, aditz determinatzaileek eta determinatuek mantendu ohi duten segidaz euskaraz. Hala esaten du, aurre partikulaz, edo gabez, osatzen diren esaldi konposatuez ari dela (307 or.):

> ... La diferencia esta, que cuando estas oraciones se hazen sin las particulas ecen, ece, ce, puede anteponerse, ò posponerse el verbo determinante al determinado; pero no quando se hazen con ellas, porque va siempre antepuesto.

Baina, Larramendik kokagune malgutasun teorikoa eskeintzen badie ere aditz nagusiei, berak atalaren inguruan emango dituen adibide guztiek (ikusten etorri garenek) eramango dute beti, beren aditz determinatzailea, determinatuaren aurretik, eta ez alderantziz.[37] Hala partikularen bat daramatenek aurretik, nola batere ez dutenek. Eta erabat ohizkoa ere den bezala, bere praktika idatzian, non hamaika aldiz usuago aurkitzen den segida hori, alderantzizkoa baino (ikus litezke adibideak gure ADIBIDETEGIAN).

3.4.2. Beste esaldi konposatu modu batzuk.

Larramendik aditz determinatzaile/determinatu sailean erakutsitako hiru fenomeno berak, errepikatzen dira berdintsu, geroago azaltzen dituen beste esaldi konposatu moduetan ere (kasu bakoitzean ageriago, edo izkutuagoan): 1.- elementu mendekotzaileen posposizioa aditzari; 2.- aurre-partikulen erabilpen aukera; eta, 3.- aditz determinanteen joera nagusia, determinatuen edo mendekoen aurrean agertzeko.

3.4.2.1. Zeharkako galderen inguru.

Hala kontatzen du elementu mendekotzaileen posposizioa (308-309 or.):

> Estos verbos de preguntar, y dudar se hazen en Romance en el determinado con el si, y en Latin con el an, utrùn, ò ne. En Bascuenze se hazen con la terminacion relativa, que se explicó en el capitulo del relativo: esto es, las terminaciones, que se acaban en t, forman el determinado añadiendo an, v.g. badaquizu, gaitz egin diodan? ... galdez dago, ecarri-diozún? ...

Adibide bietan, aditz determinatzailea ematen da determinatuaren aurretik, eta ez dirudi kasualitatea, zeharka erator litekeenez, segidan egiten dituen hitzetatik, esaldiok erabili ohi duten aurre partikula erakusterakoan (309-310 orr.):

> ... Adviertase, que comunmente en estas oraciones suele ponerse entre el determinado, y determinante el adverbio ea, que corresponde al si del Romance, pero no por esso se dexa la primera regla, v.g. jaquin nai deu, ea icusi cenduén, ... / Estas reglas tienen lugar en todos los dialectos, ..., itandu-deuzt, emóten deutsudan jaten, ...

3.4.2.2. Esaldi kontsekutiboak.

Non adierazten berriro hiru ezaugarriak (310-311 orr.):

> Las oraciones que en Romance traen en el determinante los adverbios tan, tanto, y en Latin adeò, ità, se hazen en bascuenze con sus correspondientes, ain, aimbat, aimbeste, que vienen de parte del determinante: pero rigen de parte del determinado el adverbio non, ò nun, que equivale al ut latino, y que del Romance, v.g. ain da ederra, non garaitzendeu eguzquia,[38] ...; aimbat necatu zuen, non estandaerazo cion, ...: alacó beguiac ditu, nun badirudite izarrac, ... Tambien se pueden hazer añadiendo à las terminaciones del determinado la final segun la regla de los relativos, non garaitzen deüen, nun badiruditén, &c. Muchas

---

[37] Salbuespen bakarrak lirateke (308 or.), *baietz diote, ezetz esan du* horiek, nahiko bereziak esaldi konposatu bezala.

[38] Hau da Larramendik erakusten duen ohizko modua, esaldi kontsekutiboak burutzeko (ik. gehiago ADIBIDETEGIAN). Batetik, aditz nagusia, beti mendekoaren aurretik; eta bestetik, esaldi nagusiaren barne erakutsiaz, egitura: {ain + aditz kopula + adjetiboa}. Bereziki azpimarratu nahi dugu, Larramendik ez duela erabiltzen, ohituraz, *ain ederra da* itxurako egitura, baizik *ain da ederra* modukoak, non, predikazio nagusi guztiak ematen diren kopularen ondotik.

destas oraciones permiten el adverbio ecen, ece, por el non, aquellas especialmente, que tienen de futuro al verbo determinado, à cuya terminacion se añade entonces el la comun, v.g. aimbeste nai diót, ece zoratuco naizala, ...

3.4.2.3. Esaldi kausalak.

Bere III atalean jasotzen ditu Larramendik, lehenik, esaldi kausalak-edo; eta dio, aipatu hiru ezaugarriak erakutsiaz (313-314 orr.):

Los verbos de gozo, admiracion, pesar, y otros, que en Latin se hazen con quod, y en Romance llevan, que, de que, por que, en Bascuenze se hazen assi. Lo I. con el adverbio laco pospuesto à la terminacion del verbo determinado, ...: v.g. damú naiz eritú ceralacó, ...; atseguin-det, osatu-zautelaco, ...: y estas oraciones pueden dexarse con la final la, ... v.g. miresten naiz, eman-dizutela ...; urrical zaio, quendú dizquitzula, ... / Lo 2. se hazen estas oraciones con otros adverbios correspondientes, pero antepuestos al determinado, ceren, cerren, cergatic, cergaiti; mas entonces se añaden las finales relativas, que tantas vezes se han declarado, à las terminaciones del determinado, v.g. pozic nago, cerren ecarri didazún berri on bat, ...; damucor nabil, ceren aguretú naizan ...; lotsatzen nazu, cergatic zabiltzan ain ciquin, liquitsa, ...

Larramendik ez du agerian hitzik, aditz nagusia eta mendekoaren ordena erlatiboaz, baina emandako adibide guztietan ikus litekeenez, mendekoa ematen du beti, nagusiaren ondotik, eta ez alderantziz.

3.4.2.4. Denborazko esaldiak, eta beste.

316-323 orrialdeak bitartean aurkezten ditu, sailean, denborazko esaldiak, eta hainbat posposizio desberdinen bidez osatutakoak ere. Horrela, nola esaten duen saltoka:

..., las oraciones del quando en Bascuenze se hazen de dos modos: el I. con el adverbio pospuesto orduan, y el verbo con las terminaciones explicadas, ... El 2. es, añadiendo a toda la oracion el adverbio pospuesto ean, ... (317 or.)[39] / Las oraciones de estando, ... con el correspondiente egon, ò egotú; ... y los modos correspondientes à las oraciones del quando, ...; y entonces siempre se antepone el participio de presente à toda oracion, como se pospone en Romance. ... (318 or.) / Las oraciones, que en Romance significan algun fin, y traen esta voz para, para que, se hazen en Bascuenze con la posposicion tzat, que se le añade à la terminacion del verbo: ... (321 or.) / Si el tanto, y quanto se comparan entre sí, ..., tienen en Bascuenze otro adverbio particular, y es bezambat, que se pospone al verbo, ... (322 or.) / Las oraciones, que traen esta particula despues de, o despues que, ..., se hazen en Bascuenze posponiendo al infinitivo el adverbio ondoan, ... (322 or.) / Las que traen estas particulas mientras, mientras que, entre tanto que, se hazen en Bascuenze de varios modos; I. con los adverbios artean, bitartean, bizquitartean, y son pospositivos, y entonces a la terminacion del verbo se añade la final correspondiente al quando, ... El 2. es con los adverbios eiño, eño, que son tambien pospositivos, y entonces con frecuencia se syncopa la terminacion del verbo con essos adverbios; ... (322-323 orr.).

Larramendik aipatzen ditu ere, *ezquero, ez gueró, ez gueroztic*, atzizkiak (320 or.), aditzaren bukaerako atzizki erlatiboari erantsitako adberbioen artean, nahiz ez duen agerian aipatzen ezaugarri pospositiboa.[40]

Kurioski, sail honetako adibide guztiek erakusten dute denborazko esaldia, emana, aditz nagusiaren aurretik, eta ez atzetik, orain arteko besteetan bezala: *... jaten-dedala, datorquit, ...; eicean ari naizala, sugué bat atera zait, ..., eicean nabillela; bidean cetorrela, ebasi cioten zaldia ...* (318-319 orr.) / *... icusi, ta etorrico naiz, ..., jan da bereala naiz zurequin, ..., janic etorri da, ..., cecena icusiric, itzuri natzaio, ...* (319 or.).[41]

3.4.2.4.1. «Noiz/Noiz-eta» aurre-partikulen inguru.

Denborazko esaldiek horregatik, erakusten dute, beste ezaugarri berezi bat ere Larramendirenean. Beste esaldiei bide bat eskaini dien bezala, aurre partikula bidez eta osatzeko, denborazkoei ukatu egin nahiko die aukera hori, nahikoa kategorikoki, Hala dio (316 or.):

... Y supongo que el quando interrogativo es noiz; pero que en respuesta no se construyen con el noiz las oraciones, que traen quando, v.g. noiz eguingo dezu ori? quando haras esso? se responde, nai dedanean, quando yo quisiere.

Larramendi berak hala ere, kezka gabe erabiltzen ditu gero bere idatzietan, noiz/noiz-eta (eta antzeko) partikulak,

---

[39] Uste dugu hau dela aldi bakarra, Larramendik esaten duena, orazioari erasten zaiola atzizkia, eta ez aditzari edo aditz bukaerari, besteetan egin bezala. Zentzu honetan aipuko hurrengo esaldia ere (318 or.), nahasia izan liteke.

[40] Hala nola, lehenago ere, Izenaren kapituloan, adierazten zuen zuhur asko, orduan esaldi konparatiboez ari zelarik, *baño* partikularen posposizioa izenari: *Se ha de notar lo 2. que el adverbio baño siempre se ha de posponer, y nunca anteponer al nombre* (270 or.).

[41] Baina denborazko esaldiak eta, nolabait izango lirateke, absolutoak-edo deitu ohi diren klase berezietako esaldiak, mintzagai / topikoen parte izateko joera dutenak, nolabait independienteagoak, esaldi aurrealdean joateko joera dutenetakoak, ...

mendeko esaldien sarrera bezala, eta are, galderen erantzun zuzenak izanda ere (nahiz horrelakoak aurkitu ditugun bi esaldi bakarrak, diren, Burgosko Doktrinakoak -9, 10-). Larramendi gramatikalaria, beti da zorrotzagoa idazlea baino, segidako esaldietan ikus litekeen bezala (batzuk, antzeko beste galdegile batzuk erabiliaz):

(4) Eztezú hau ceréz: Jaincoaren doaya dezu, noiz ta nori nai duen ematen diona. (1990, 34)
(5) ...; batézere non eta Jesúsen ballera santuac jasó dituzun, ta lenago jasoac ceuden. (1990, 37)
(6) ...; noiz-eta Jaincoac icusirican burrucan biac, erdian bitarteturic, aparterazoco zituen, ... (1990, 62)
(7) ..., noiz-da bat-batean agertzen dan munduan San Agustiñ-en argia, aiñ bizi, aiñ andi, ... (1990, 65)
(8) ..., edó non eta dezún zuré biotza, anche dézu zure gauza ónen gordairua, edó non ta dezún zuré gauza preciatuen gordairua, an ere dézu zuré biotza. (1990, 78)
(9) (Noiz eguin bear dezu señale hori?) Noiz eta eguiterem bat asitzen degun, edo icusten gueran bearren batean, tentacio ta perillean; ... (1990, 93)
(10) (Noiz dira horien contra?) Noiz eta Jaincoaren edo Elizaren aguinteren bat gauza gravean ausitzen dan. (1990, 104)

3.4.3. Ordea, zein da mendeko esaldien ordena euskaraz? Larramendiren mendeko esaldi hautsiak.

Larramendik bada, argi predikatzen du mendeko esaldiak osatzeko, elementu mendekotzaileen posposizioa, direla hauek atzizkiak, edota beste nolanahiko adberbio edo partikula. Ordea galdetu behar da, zeri posposatzen zaion, hain zuzen, elementu mendekotzaile hori, eta zeri ez. Galdera ez da tribialitatea, euskara idatziaren ondorengo bilakaera ezagututa.

Larramendik esplizitoki aitatzen du gehienean, nola posposizio hau egiten zaion, aditzaren bukaerari.[42] Aipatzen du hala ere kontestu honetan bi kasutan, orazio hitza, aditz bukaera ordez. Oso garbi behin (317 or.): *añadiendo à toda la oracion el adverbio pospuesto ean*; eta ere 318an nolabait, nahiz honetan ilunagoa den aipamena.

Esan nahi du honek, elementu mendekotzailea zinez posposatu behar zaiola mendeko perpaus osoari? Ez dirudi Larramendik horrelakorik esan nahi izan duenik, inork inoiz hala ulertu badu ere. Larramendik Artean, nahikoa garbi uzten du puntu hau, zeharka, baldintzazko esaldien kasuan, dioenean (293 or.):

> ... Otra significacion es la que corresponde al si condicional, y entonces entra de parte del verbo, que es el antecedente de la oracion, v.g. si aquel te mata, harc ilzen bazaitu, si yo le descubro nic salatzen badet; pero siempre ha de ir inmediato el adverbio ba à la terminacion, y no al verbo, como en los exemplos puestos bazaitçu, badet, y esto aunque se posponga el verbo, como, como bazaitú iltzen, badet salatzen.

Antzeko beste baldintzazko esaldi «hautsi» bat ere, ematen digu Larramendik, Artean (51 or.): *albadet jan, si puedo comer*. Nolanahi, Artean zehar emandako mendeko esaldi gehienek daramate aditza eta honi erantsitako elementu mendekotzailea, mendeko esaldiaren bukaeran; nola: *jaten emaiten badit* (299 or.); edota jada gorago jaso ditugunetako asko.[43]

Baina gainetik begiratu besterik ez dago, Larramendiren euskarazko edozein idatzi, konturatzeko berehala, Artean gertatzen den mendeko esaldi hautsigabeen gehiengoa, ez dela kasualitate huts baino. Bere lan guztiak daude goitik behera gurutzatuak, mendeko esaldi «hautsiz», argumentuak erakusten dituztenak oraindik, aditzaren eta honi erantsitako elementu mendekotzaileen, ondoretik (ohizkoen ere den bezala, bestalde, alde eta aldi guztietako euskara guztietan). Joskera hau askoz ohizkoagoa da Larramendigan, nola eta ez diren, mendeko esaldiak oso laburrak (eta hori da, duda gabe, arrazoia, zergatik ematen den gramatikan, horren portzentai puztua, mendeko esaldi hautsi gabeena, euskal ohitura arruntaren kontrara). Horrela, eta esaldi gutxi batzuk baino ez erakustearren hemen (ADIBIDETEGIAN aurki litezke ugari), segidakoen antzekoak (1990ko testu bildumatik):

(11) ...; daquiela, nondic ta noizdanic datorrén: ... (36)
(12) ..., jaisten ta ondatcen ceuala bere burua, ... (45)
(13) Virginac badio ecen Jaungoicoac prestatu, ta zucendu cigola biotzean amodioa, ..., bacantzen cigola zaldun pilla andi batzuetan bezala batallaren bat ematera diazenean, (distributam in ordines militares, ac in proelium procedentem). (47-48)

---

[42] Hala dio: *particula pospuesta à la terminacion verbal* (305 or.); *añadiendo a las terminaciones del determinado* (311 orr.); *verbo determinado, à cuya terminacion se añade* (311 or.); *pospuesto à la terminacion del verbo determinado* (313 or.); eta relatiboetan, (275 or.): *pospuesto, y añadido a la terminacion*.

[43] Salbuespenak ez dira gutxi batzuk baino. Balditzazko esaldi horiez gain, beste hauek, batzuk gorago ere jasoak, gehienak aurre partikularen batez osatutakoak: *eché au, ceñarén zu bide cera jabe* (273 or.); *eliz au, ceñari eman-cioten guré gurasoac ain beste urré* (273 or.); *itandu-deuzt, emóten deutsudan jaten* (310 or.); *ain da ederra, non garaitzendeu eguzquia* (311 or.); *alacó beguiac ditu, nun badirudite izarrac; pozic nago, cerren ecarri didazún berri on bat* (314 or.); *lotsatzen nazu, cergatic zabiltzan ain ciquin, liquitsa* (314 or.).

(14) ..., esaten ceuala maiz, ay ene! ... (49)
(15) ..., icusi ceuanean campoetaco loraa, ... (49)
(16) ..., naizenean gucien artean aundiena, ... (52)
(17) Eta dalaric au eguia, eztezue arduraric artzen ... (56)
(18) ...; gueuc amodio aundiarequin, gueuc asnase, indar, bici guciarequin, emen diraugun artean graciaz, (ta guero ceruan gloriaz). (57)

3.4.4. Erlatibozko esaldiak.

Mendeko esaldien ildotik, Larramendigan aipamen berezia merezi dute erlatibozko esaldiek. Sintaxiaren kapitulu bigarrena eskaintzen die (272-282 orr.), eta bertan, esan ondoren (273 or.): *en Bascuenze [relatiboak] tiene muchas diferencias [erromantzearekin], en que es necessaria grande atencion, y delicadeza, para evitar la equivocacion, y confusion*, Larramendik hiru modu desberdin ere jasotzen ditu hurrengo orrialdeetan, esaldi hauek osatzeko euskaraz. Bi ontzat eman nahiko ditu, eta hirugarrena gaitzetsi, gramatikalari bezala, nahiz eta berriro, hiztun bezala, onartu, eta erabili.

3.4.4.1. Zeinismoa.

Hori baita agidanean euskal modua, bederen *zeihar kasuetarako* (273 or.):

> ... si el que del Romance, ò sus equivalentes relativos vienen en casos obliquos, esto es, en genitivo, dativo, y ablativo. ... Entonces corresponde en Bascuenze el relativo ceña ceñaren, y no otro, sopena de hablar mal. Pongamos algunos exemplos, ..., eché au, ceñarén zu bidé cera jabe: ... eliz au, ceñari eman-cioten guré gurasoac ain beste urré.

Ez dirudi nolanahi, Larramendik inolako eragozpenik ikusten zionik baliabide hau zabaltzeari, kasu zuzenetara ere, are teorian (bada praktikan noiznahi darabil). Hala nola dioen aurreraxeago, *Relativos de persona, que haze.* titulo erakargarri pean (279 or.):

> Este relativo de persona que haze, ..., se haze tambien muy bien con el pronombre relativo ceña, ceñac, el qual diximos, que tenia lugar en los casos obliquos: y entonces es facili[si]ma la construccion; porque si el verbo es activo, el relativo es ceñac, si neutro, ceña, v.g. sagarra, ceñac min eguín-didan, gazíegui zan, ...

Adibidearen bistara ez du ematen nolanahi Larramendik oharra mugatzen zuenik *pertsona, egiten dutenetara* ere. Ikusi dugu gainera gorago, nola Larramendik oro har ere ez zuen kezkarik, aurre-partikulak erabiltzeko (eta gomendatzeko) beste kasu askotan ere.

3.4.4.2. Izena, aditzaren eta honi erantsitako -*n* atzizki relatiboaren ondoan.

Hau omen da nolanahi, modu bat, soilik kasu zuzenetan erabili behar dena (*Quando el que relativo [erromantzearena] viene en los rectos, esto es, en el nominativo, y acusativo, son particulares los relativos del Bascuenze*, 273-274 orr.), eta horrela postulatzen du *Relativos de persona que padece* titulu pean (274-275-276 orr.):

> ...: y por eso estas de relativo, el pan, que yo como; ..., las haze el Bascuenze con el relativo an pospuesto, y añadido a la terminacion, jatén-dedan oguia; ... / ... la Syntaxis destos relativos se ha de hazer demanera, que el nombre se posponga al verbo, y relativo [-n edo -an edo, atzizkiak]; ...

Eta horrela adibideak: *beré sémeac azitzen ditúzten gurasoac.* (279 or.); edo goragoko sagarraren parekoa (280 or.): *miñ eguin-didan sagarra, gaziégui da*. Aurrerago Larramendik esplikatzen du bi alditan bederen zuhur (276 or.; 320-1 orr.), nola esaldi modu hauek osatu litezkeen, batere izenik gabe ere, zuzenean nominalizatuaz erlatibozko atzizkia, eta hau deklinatuaz dagokion kasuan.

3.4.4.3. Izena doanean erlatibozko esaldiaren aurretik, erromantzean bezala.

Ezagutzen du hala ere Larramendik, beste hirugarren modu bat, euskal hiztunek erabiltzen bide dutena, erlatibozko esaldiak osatzeko, nahiz berak gaitzesi nahi duen bide batez. Hala dio adibide baten bidez (276-277 orr.):

> ...; y assi esta oracion, la mano que tengo, es prodigiosa, se ha de construir assi, dedan escua, miragarria da; y no escú dedana, aunque alguna vez se habla desta suerte.

Larramendi berak gero, idazle liberalago gramatikalari baino, behin baino gehiagotan erabiliko du hizkeraren baliabide hau, kezkarik gabe, ezagutzen dizkiogun idatzietan (1990kotik):

(19) ô mocadera, lienzo churi alaco negar tantaz beté ta üanditu ciñatenac! (46)

(20) Edolaric consolatuco al deu bere seme alboan deuanac: ... (51)
(21) Beste damuz ta miñez daudenac, negar eguiteaz arintzen oi deue ... (52; eta esaten da 1990an orripean erantsi zaion ohar batean: «Irakur ezazu: "Damuz ta miñez dauden besteac ..."», adierazi nahian esannahia dela *Beste pertsonak*, eta ez, *Beste damuac*).
(22) Goizeco izar, araco eguna dacartenac, illunabarreco araco gau-carraioan dabiltzanac, goizean zillarezcoac, arratsean urrezcoac badirudite ere, ... (59)
(23) Argi au da San Agustiñ-en señale edo simboloric ederrena zerren dan eracusgarri obeto dagocana; beste guziac baño aren anz andiagoa duena. (60)
(24) ... nolacoa izango ote zera echecoentzat, seme-alaba maite biotzean daucatzizunentzat? (72)
(25) (Cer gauza dira sacramentuac, edo ezcutapeac?) Dira JesuCristoc emanicaco señale aguirian dauden batzuec, aien bidez guri emateco bere gracia ta virtuteac. (102)[44]

Baditu Larramendik antzeko gehiago ere, zalantzagarriagoak izan litezkeenak, izenak, berez amaitzen direlako a letraz, eta ezin litekeelako ziur jakin, hauek deklinatuak dauden, aposizio arruntagoak izaki orduan erlatibozko esaldiak. Horrelakoak lirateke hurrengo biak, eta antz batekoak segidakoak, bata aditz jokaturik gabea, eta atzenekoa akaso mugagabea izan zitekeena (1990kotik):

(26) Alére adizazu cer diotsudan, obéco dezula bearbada zuré oneraco anima Purgatóriotic atera dezuna, beste zuré auquéraco hori baño: ... (84)
(27) Andre hori da zeure ama, añ ondo aci cinduena, ain gozo bere bularrez bazcatu cinduena: ... (53)
(28) Ona bertan gucien guezurtamena, zure libru Eusquéraz ain garbiró moldatuan. (34)
(29) ..., icusi cituenean epaquiric araco Martyreen lenengo lorachoac, amalau milla aurcho, Herodesec illerazo cituenac, ... (49)

Larramendik bide beretik osatzen ditu erlatibozko esaldiak maiz asko, aposizio modura, euskaraz horren ohikoa den bezala, nola adibiderako, *bat* mugatzailea daramaten izen ondotiko bi esaldiok:

(30) ..., eta ona bereala gauza bat San Agustiñ-en argiari faltatu zitzayona. (61)
(31) (Cer gauza da gracia?) Da izate Jaincozco bat, guizona Jaincoaren seme eguiten duena, ... (102)

3.4.4.4. Erlatibozko esaldi «hautsiak».

Larramendik erlatibozko esaldiekin ere ez du batere kezkarik, hauek «hautsita» emateko, eta honen argumentuak zabaltzeko, konbeni modura, mendeko esaldiaren aditzaren (eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen) aurre eta atzean. Hala, dudarik gabe, hauek osatzen dituenean *ceña*-ren bidez (4.3. atalean jaso ditugu Arteko adibide batzuk); baina baita ere ugari, erlatibozko esaldi nominalizatuen kasuan (32 bitxi, eta 33-aren moduko esaldiak); eta are, elementu mendekotzaileen artean hitz independiente bat aurkitzen denean, nahiz kasuak urriagoak izan (34 esaldia, edota lehenago jasotako 13 eta 18 bezalakoetan, berriro errepikatzen ditugunak hemen):

(32) ..., paratzen det neré escutic Erreguearen aldamenean eguitura bat niri zorcó dizquidanac [sic] beré hónra ta ondasúnac, ... (83)
(33) (... Dn, Agustin zana ..., zúen alde beti bearco duena, ...,) zùec zaitzeco dagoana etsaien período letratic, ... (88)
(34) ...: ifinten dedala naita ez neré gauzai beguiratzeco prémian, ..., neré calté ta gaitzac quéntzeco, escatzen diozcadan mesédeac neretzat ta besterentzat (Jaincoagandic nai ta ez erdiesteco premian). (83)
(13) ... zaldun pilla andi batzuetan bezala batallaren bat ematera diazenean, (distributam in ordines militares, ac in proelium procedentem). (47-48)
(18) ...; gueuc amodio aundiarequin, gueuc asnase, indar, bici guciarequin, emen diraugun artean graciaz, (ta guero ceruan gloriaz). (57)

[44] Larramendi idazleak segitzen ez duen bezala, Larramendi gramatikalariaren aholkua, ez bide zioten honi kasu haundiegirik egin, puntu honetan, bere jarraitzaile hurkoenek ere. P. Altunak jasotzen duen bezala, *Mendibururen idazlan argitaragabeak; lehen liburua; edizio kritikoa*-ri eginiko hitzaurrean (LXXIV or.), Mendiburuk ere nahikoa maiz erabiltzen ditu itxura honetako esaldiak, nola Altuna berak jasotzen dituen hauek: *Vide estali-gordeac dirà Jangoicoaren videac, eta vide, Jangoico beràc aguertzen dituen aldian ezpada, batec ere ecin ecusi ditzaquènac*; edo, *Egungo festa bacarrean sartzen ditugu, dio Venerable Bedac, ceruco Santu guciac, Santu cerua atseguin ta poz eguiñic uzten dutenac, Santu munduco gaisoei laguntzen dienac, età Santu Eliza honraz bete dutenac*. Altunak argitzen duen bezala, [Mendiburuk] *«duten» eta «dien» eta «duten Santuac» esan ordez eman du horrela*. / Bere aldetik, Aita Cardaverazek ere erakusten ditu antzekoak, nola segidakoak, *Eusqueraren Berri Onac* liburutik (1761): *Argatic Maisu, ta Guraso umeai eracatsi bear dienac, ori ondo eguiteco Erreglac bearrago dituzte.* (16); *Juiciozco Maisu, Jaincoaren celoa duenac erraz dacus, Eusqueraren Gramaticac ceñ arrazoi andiaz nai, ta escatzen duen, ...* (20); *Espiritu Santu, egun oietan etorrizanac, gure biotzac emen arguitu, ta bere amorez zucenditzala.* (61).

3.5. Esaldi nagusiaren egitura Larramendigan.

Mendeko esaldian Larramendik ez du bidaltzen aditza esaldi bukaerara. Baina eta, esaldi nagusian? Non joango da hauetan aditza? Akaso aplikatu beharko litzateke hauetan, urte batzuk geroago Cardaveraz gomendatzen eta praktikatzen hasiko den (ik. ERASKINA), euskararen ezaugarri pospositiboa?

Ikusi dugu gorago, nola praktikatzen duen Larramendik (eta are inoiz teorizatzen), aditz determinatzaileen aurreposizioa mendeko esaldiko aditz determinatuarekiko. Ez du beste teorizaziorik egiten, esaldi nagusiko elementuen ordenaren inguruan. Baina bere praktika begiratuaz, hala Artean bertan, nola ezagutzen dizkiogun idatzietan, nahikoa erraz erator litezke zenbait ondorio, Larramendik usatzen duen esaldi egituraren gainean.

Aurrerapen bezala esan, lehenik eta behin, Larramendik ez diola, ez inoiz, ez inon, erasten, euskal aditzari, ezaugarri pospositibo orokorrik, zirkunskribatuaz hau, goian aipatutako puntu eta neurri nahiko mugatuetara.

3.5.1. Larramendiren «Xà» egiturak euskaraz.

Horrela, Larramendiren euskarazko idatziei, eta esaldiei, begiratuaz esan liteke, nola Larramendik ere joera nagusia erakusten duen, guztien gainetik, Artean bertan, eta beste guztietan, esaldietako aditza gehienean emateko, «Xà» moduko egituretan, ondoretik erantsita, esaldiko «X» konplementuren bati. Askotan, «X» konplementu hori izan liteke, esaldiko sujetoa bera, nola beste milaren artean, Arteko adibideotan (4 or.): *jaun-a dator, hume-a il da, jaun-ac eman-dit, hume-ac artzen-du*, eta zeinetan gaztelerazko itzulpenen orden berbera mantentzen den euskaraz.

Beste askotan hala ere, «X» konplementu hori izan liteke, esaldiko objetoa, edo atributoa, nola hurrengoetan: *aitaréna da zaldí orí* (5 or.; *norena da?* galderaren erantzun modura); *Martin gaisto-a da* (19 or.); *eché au arena da* (*esta casa es de aquel*) (24 or.); *orí jaten oitua naiz* (197 or.); edo, *oguí ascó jan det* (*he comido mucho pan*), *ur gueieguí edan nuén* (*bebi agua demasiada*), *diru gutti emanendut* (*daré poco dinero*), *gari guchi dogu* (*tenemos poco trigo*) (261 or.). Larramendik agerian ematen dituen bost itzulpenetan bezala, pentsatzekoa da, esaldi guztion ohizko ordena izan litekeela alderantzizkoa bi hizkuntzetan «Xà / aX».

3.5.2. Larramendiren ordenamendu malgutasunak.

Ez da hori hala ere Larramendik erakusten duen ordenamendu modu bakarra, objetoak edo atributoak kokatzeko esaldian. Halako zerbait suma liteke jada, gramatikaren beste puntu batzuk argitu nahian, ematen duen hurrengo esaldi parearen, eta itzulpenen, konparaketatik (260 or.):

> ... si los pronombres no hazen vezes de articulos, sino que vienen por sí solos como sugetos de la proposicion, entonces el nombre retiene su articulo, v.g. aec díra guizónac aquellos son hombres, óec zaldíac dírade estos son cavallos, ...

Gauza beretsua Larramendik elkarren segidan ematen dituenean hurrengo esaldiok (296 or.):

> ... Esta oracion v.g. comio, y se fue luego, no solo se dice, jan-zuen, eta bereala joan-zan, sino mucho mejor por el infinitivo, jan, ta bereala joan zan, y equivale a estas, jan ezquero y en otro dialecto, janéz gueróz, bereala joan zen, despues de comer se fue luego: janic joan zan bereala, aviendo comido, ò luego que comió se fue.

3.5.3. Larramendiren A-O / A-At egiturak, Arteko adibideetan.

Nolanahi, Larramendik Artean erakusten dituen esaldi deklaratibo, oso, eta objeto edo atributodunen erdiak (edo akaso gehiago) izango dira, beren atributoak (At) edo objetoak (O) daramatzatenak, esaldiko aditzaren (A) ondoretik, A-O edo A-At egituretan («aX» egituretan beraz). Eta hauetako askotan gainera, hasten du adibidea zuzenean aditzaz, «aX…» egitura absolutoetan, mantendu gabe sikiera, Larramendirentzako ere, eta euskaraz, ohizkoa den «Xà» segida. Horrela adibidez hurrengo guzti hauek, zeintzuetan askotan mantentzen den gaztelerazko itzulpenen orden beretsua (Larramendik ez du hau beti ematen): *edaten-det ura, yo bebo agua, itzali-nuén argui-a, yo apagué la luz* (5 or.); (*de quien es esta casa? norena da eche au? guizón-ena de los hombres, y tambien) eché au da guizón-ena* (6); *astú da beré buruaz, se ha olvidado de si mismo* (9); *vinieron dos hombres ... etorri ciran guizon bi* (39-40); *nai det jan, quiero comer* (51); *yo como aquel hombre, jaten-dét guizón hura, yo como aquellos hombres, jaten-dítut guizón aiec; edó jaten-dódaz guizón aec; edó jaten-tût guizón hec* (139); *naiz jana, aiz jana, cera jana, da jana: soy comido, ...; guera janac, cérate janac, dira janac, somos comidos, ...* (156); *naidizut quendu liburua, gura deutsut quendú, naidiozcat-eman, egún ónac* (210); *ecarrí-cénduen oiala* (276); *ni naiz etorrí-nintzana* (281); *icusten-det guizón bat* (289); *ecarten-dizut berrí on bat, te traygo una buena nueva, ecarten-dízquitzút berrí on batzuec* (290); *ecarten-dizut zurí, ematen-didazu niri, quéntzen-dízquiet hirí* [sic], *jaten-zaitut zu, ecarten-nazu ni* (291); *zuc jancinituen gastañac, tu comiste las castañas* (295); *igiltze onarí, déritza Sancho, al buen callar llaman Sancho* (298); *etorri naiz echera he venido à casa, etorten-zatzaizquit niri, joaten-natzazu zurí* (300); *dacar dirúa, dacartzi ollóac* (302); *nagoca arí, nagotzu*

zurí, narraica oní (303); *bidean cetorrela, ebasi cioten zaldia estando, ò viniendo de camino, le hurtaron el caballo* (319).[45]

3.5.4. Galdegaiaren gunea esaldian.

Azken adibide guztion bistara ez litzateke errazegia, postulatzea, ez direnik euskaraz A-O, edo A-At segidak, gutxienez, pareko O-A edo At-A-k bezain ohizkoak, eta are usuzkoagoak, Larramendiren Artean bederen. Hauetako askotan pentsa liteke, aditzaren ondorengo objeto edo atributo hori dela esaldiko elementurik predikatiboena, galdegaia, berez daramaten pisu informatiboagatik (nola, *igiltze onarí, déritza Sancho* esaldia, adibide garbi baterako).

Horrelako adibide solteetan, beste testuingururik gabe, ez da beti erraza finkatzea, zein den, edo zein ez, esaldiko elementurik predikatiboena; eta beraz, zein den aditzaren jokaera eta posizioa, galdegai horrekiko. Adibideotan sumatutakoa nolanahi baieztatu egiten da Larramendiren idatzi luzeagoetan.

Eta hauen begiratze orokorretik, esan behar da, Larramendik maiz asko ematen duela esaldiko galdegaia, are maizenik, esaldiaren bukaera aldera, eta honen aditzaren ondoretik, agidanean euskarazko joera ere den. Hainbat eta maizago ematen du hala, zenbat eta luzeagoak eta konplejuagoak diren esaldiak. Adibide ugari dago jasoa gure ADIBIDETEGIAN, eta hemen handik batzuk, erakusgarri, aurreneko hori bezalakoak (hau, Larramendik erakusten duena, 1928ko Demostrazioan (128 or.), nola Hiztegiaren Hitzaurrean (vj or.); besteak 1990ko testu bildumatik):

(35) ni naiz jainco-aréna.
(36) Aspaldi nabil nola Euscal Erriac edertu, ta jasoco ditudan. (23)
(37) (Elaquio hitzoncia, beargai char diocan horri,) ta ara ni ichechico nacheoc prestuagoari. (26)
(38) Arc eracústen dizquitzu gay aundi onén sayéts guztiac, ... (34)
(39) ..., eta Jaincóaren hitzarén eguia guelditzen da Euscaldunentzat cheatu baguez provechuric gabea. (35)
(40) ..., beti aguertúco du beré burua, dan bézala, Españar uts utsa, ... (36)
(41) Eusquerari erachi zaizca Gaztelaniatic, Latiñetic edó beste hitzcúndeetatic hitz ascó; ... (36)
(42) Agur eder hau da latiñezco Ave, Salve, Vale oyei dagotena, ... (38)
(43) Españarrac, Francesac, italiarrac beren hitzcuntzac dituzte, latinetic jalquiac, ... (38)
(44) ..., eta azquenean paratu diotet imprimantur, ... (39)
(45) ...: burua daucat soilla, (baña fresco ta sendo, ...) (39)
(46) Zu cera anima erorien alchagarri ta consolagarri (43)
(47) (alacoai derizte Signoac ceruan) (44)
(48) ..., gurutzea da bere beso biaquin balanza bat, ceñean ... (45)
(49) Virgiñari deritza Maria, ... (45)
(50) ..., ta icen au da alde batetic ezti, gozoa, ... (45)
(51) ...: bestetic da miñ, garratza, ... (45)
(52) Graciaren escatzeac gogoratuco digo bere dolore gucien asiera ta jaiotza, ... (46)
(53) Mariac esan nai deu itsaso miña ... (47)

3.5.5. Larramendiren aditzak esaldi hasieran, «aX...» egitura absolutoak.

Azken adibide sailean, Larramendik duda haundirik gabe ematen badu ere, esaldiko galdegaia aditzaren ondotik, guztietan mantentzen du artean, beste «X» konplementuren bat aditz «a»-ren aurretiko, osatuaz honekin «Xà» moduko egitura deitzen gatozena, eta aldiz «aX» egitura galdegaiarekiko. Hala ere Larramendik, portzentai txikiagoan izango bada ere, askotan emango du aditza zuzenean esaldi hasieran bertan (gehienean ondorenerako utziaz nabarmen galdegaia), eta osatuaz «aX...» moduko egitura absolutoak. Hori oso maiz gertatzen da, euskaraz ohi bezala, entendimenduzko, edo jakinduriazko aditzekin (54 kasu), hauek jokatu ohi dutelarik esaldi osoen operadore modalen (mintzagai topikoen) papera; baina baita ere beste nolanahiko aditzekin, hurrengo adibideetan bezala (nahikoa gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(54) Uste deu guré urliac (...) badaquiela dana, ta datequean gucia, ... (21)
(55) Iñarrusi bear guenduque gucioc hizjario erausle motél au, ... (21)
(56) Camporatzen ditut neronéc aditú ditudan batzuec, ... (37)
(57) Erein dezú Jesúsen biotzaréquico jayera Euscalerrietan; ernéco da, zoritúco da, ta bilducó dezu iñon ere nerequico bildú dan uztaric edérrena ta ïoriena. (37)

---

[45] Ohargarri da, nola ehun urte geroago, Lardizabalek ia hitzez hitz ere kopiatzen duenean Larramendiren gramatika, maiz, beste ezer asko ez, eta zuzentzen dituen, prezeski, maisuaren adibideotako batzuk, aditzak atzeratuaz, eta aurreratuz objetu edo atributoak, edota emanez beste elementu berriren bat erantsita aditzaren aurrean, hau ez uzteko buruzuri. Horrela adibidez segidakoak (bigarren zenbakia da Arteko orrialdea; lehenengoa Lardizabalen *Gramatica Vascongadakoa*, nondik -Larramendiren goikoekin konparatzeko-): *eche au guizon-ena da* (3/6); *bereburu-az aztu da* (5/9); *guizon bi etorri dira* (15/39); *jan nai det* (19/51); *nic icusten det guizona* (64/289). Izan ere, Lardizabal jadaneko izango da Cardaverazen Eskolako kide, bere Gramatikan agerian postulatuko duena, harek asmatutako euskal aditzaren posposiziorako joera unibertsal nahiekoa.

(58) Icusi ceuan gurutzean, ta guero bere besoetan, ... (49)
(59) Quendu cigon bicia Joab capitanac modu gaistoz Abner ceritzan bati: ... (55)
(60) ...; jaisten dira batean escui, bestean ezker. (66)
(61) Desegin zuan Jaincoac argi ura izarrac eguiteco. (67)
(62) Lilluratuco zituen argi arc begira zegozcan guziac; ... (67)
(63) ...: egin zuen argi utsa, ... (68)
(64) Ostu didazu nere biotza: ... (70)
(65) Esqueintzen dizut nere vicitza, obrac ta nequeac ... (108)

3.5.6. Larramendiren aditz trinkoak esaldi hasieran (edo).

Gero, «aX...» moduko egitura absolutoen artean, badira Larramendigan ere tarteka hainbat, aditz trinkoz hasten direnak buruzuri. Denera ez dira izango gutxi batzuk baino portzentaian (ADIBIDETEGIAN 27 adibide, Artean hainbat erakusten dituen *dio, ecen* ... itxurakoez gain). Adierazgarriak dira, erakusteko, Larramendik ere ez duela kezka handirik halako egiturak ere erabiltzeko euskaraz. Hauen artetik gehienak dira, euskaraz ohi bezala, batetik, galderen erantzun egindakoak (72, 73, 77; batez ere, Burgosko Doctrinakoak); bestetik, ohi bezala ere, entendimentuzko-edo aditzak (68, 70, 77);[46] baina baita ere bestelakorik (69), konjuntzioren baten ondoren emanak (66, 71, 74, 75, 76), edo ote partikularen bidez hasitakoak (67), nola Hiztegi Hirukoitzaren Sarrerako haren antzera (Lvj or.): *..., ote dira loeraguille iñudeenac?*

(66) ...; baña da gauza bat egungo euangelioac dionari ederqui dagocana. (45)
(67) Ote da gurutzean dagoen gorputz itsusi beztu hura? (46)
(68) Dioe bada, ecen gurutze-ondoan cegoala Virgiña, ... (53)
(69) Dira beste Doctoreac eguzki ta izar ba-tzuec bezela; ... (60)
(70) Diot bada bildurrican gabe, etzala iñoiz ere ilundu ... (63)
(71) Edo da biotzecoa, edo ez da; ... (69)
(72) (Cer da çiñatzea?) Da escuyeco beatz lodiatz hiru gurutze eguitea. (92)
(73) (Cer gauza dira fedearen artecoac?) Dirade aren misterioric larrienac, ... (94)
(74) Eta dirade hiru Jainco? Ez, Aita, ... (95)
(75) (Icusi degu nola daquizun sinistu bear dana,) eta zan aurrena; ... (97)
(76) (...; gatocen bigarrenera) eta dà escatu bear dana. (97)
(77) (Cergatic deitu dituzu pecatu burutarrac, ...?) Deritze burutarrac cerren beren burutic ... (104)

3.6. Aditzaren egitura bikoitzaz euskaraz.

Larramendik, beharbada kontsidera zezakeen euskararen ezaugarri pospositiboaren beste manifestazio bat, aditzaren osatzeko modua euskaraz. Izan ere, aditz laguntzaileak euskaraz, Larramendik gehienean *terminaciones del verbo* deitzen dituenak, oro har posposatu egiten zaizkio aditz nagusiari: *las terminaciones comunmente se posponen al verbo* dio (300 or.). Eta hala moduz ematen du aditzera behin eta berriz Artean zehar, nola segidako pasajean (45-46 orr.):

> Pues hablando de las Conjugaciones regulares del Bascuenze, digo que todas son compuestas, y ninguna simple, porque todas sus inflexiones constan de dos, y tres dicciones. Componense de dos generos de dicciones: unas son los varios modos de infinitivo, y otras son las terminaciones del verbo, y de la varia combinacion destas dicciones resulta la variedad de los tiempos.[47]

Nolanahi den, azpimarratu nahi genuke besteen gainetik, nola Larramendi behin baino gehiagotan saiatzen den adierazten, aditzaren bi elementu desberdin hauen jokamolde sintaktikoen hainbateko *independentzia-edo*,[48] erator litekeenez, segidako pasaje, nahikoa bitxietatik, horren gordin aldarrikatuak:

> §. II. CONSTRUCCION DE LAS TERMINAciones del verbo activo con los adverbios ba, y ez. / Estas terminaciones

---

[46] Nahiz eta esan behar den, Larramendik oro har, hegoaldeko euskaraz ohizkoa izan den baino nahikoa gehiago erabili ote duen, *Ba-* aurrizkia (eta predikatu ere Artean honen erabilera), *DIO, DIRUDI, DERITZA* bezalako aditz modalekin. Agian segi nahi du honetan Axularren bidea, nolanahi harek baino nahikoa gehiago erabiltzen baditu ere aurrizkirik gabeko formak. Hain bitxia gertatzen da maiz aurrizkiaren erabilera hori, non 1990ko Testuen argitaratzaileak, ohar bat ere ezarri dion horietako forma bati (*Eta oraiñ badiot ecen gure Aita San Agustiñ andia dala ...*), esanez orripean (61 or.): *Guk ba- gabe esango genuke: Eta orain diot ...*

[47] Eta euskararen ezaugarri honetatik, ikasi omen zuten erromantzeek, beren denbora konposatuen jokabidea, nahiz eta gure gertukoetan behintzat, aditz laguntzailea joan ohi den nagusiaren aurretik, eta ez alderantziz. Hau dena ere erakusten du ondo Aita Larramendik Arteko hurrengo orrialdeetan.

[48] Eta ez bakarrik guretzat ohizkoa den laguntzaileen anteposizioaren kasua ezezko esaldietan, Larramendi berak ia aipatu ere egiten ez duena, kurioski; eta bai aldiz, aldarrikatu ugari, ezezko esaldien eraikuntza aukera, inbertsiorik gabe, hurrena ikusiko dugun bezala.

> comunmente en la oracion vienen despues del verbo, ò de aquel modo de infinitivo, de que se compone el tiempo, y su inflexion; pero no de manera, que indispensablemente pidan essa colocacion, pues como se dice jaten-ditut, puede decirse ditut jaten. Lo qual es verdad, especialmente, quando las terminaciones se acompañan de algunos adverbios, que piden colocarse determinadamente entre el verbo, y la terminacion, ò à lo menos antes della, v.g. zuc esan omén diozu, ..., onéc artú vidé du, donde los adverbios omén, y vidé, se anteponen a las terminaciones. Pues entonces digo, que tambien se puede posponer el verbo, zuc omén diozú esan, onéc vidé du artú. Lo qual tiene tambien lugar, quando vienen en la oracion los adverbios ba, y ez departe del verbo. (292 or.) / Estos mismos adverbios ba, y ez, precediendo a las terminaciones sirven de ahorrar muchas vezes la repeticion del verbo: v.g. si diciendole à uno zuc eztituzu ecarrí, ..., se responde, baditut ordea, ..., sin que sea necesario añadir, baditut ordea ecarrí: Item quando al oír uno, zuc jancinituen gastañac, ..., responde inmediatamente, eznituen bada, ..., sin ser necessario repetirse el jan. (295 or.) / CAPITULO V. DEL VERBO NEUTRO, y su construccion. / ... / Aunque las terminaciones comunmente se posponen al verbo, pueden anteponerse en los casos [mismos], que las activas, v.g. etorrí omén naiz, omén naiz etorrí, ... Con los adverbios ba, y ez, tienen semejante construccion que las activas, porque siempre andan antepuestos, e inmediatos à las terminaciones, ... (300-301 orr.)

Larramendi berak batzutan elkarri lotuta idazten baditu ere, aditz nagusi eta laguntzaileak, askotan egiten ditu aparte, edo gidoi batez lotuak, edo apartatuak. Eta Larramendik ematen dio garrantzia apartatze horri, bada Cardaverazi egindako zensuran gomendatzen duen bezala (eskatu ondoren artikuloak ez idazteko izenetatik aparte, edo gehienera ere, gidoi batez bereziak, ohitu bitartean; *Escritos Breves*, 1990, 304 or.):

> ... Los que se han de separar son verbos y terminaciones, jan ditut, ecarri diozcat.

Beharbada ez da hutsala, Larramendik hitz guztion artean erakusten duen sentsibilitate berezia. Eta batez ere, hau, ez da zentzuz kanpoko hipersentsibilitate bat. Uste dugu, oraindik behar bezala estudiatu gabe daudela euskaraz, aditzaren bi osagaietako bakoitzak dituen jokaerak eta ezaugarriak, beren perifrasiak osatzeko esaldi barrenean, beren artean, edota bakoitzak bere aldetik ere, esaldiko beste elementu batzuekin. Badago horretan ere zer begiratua, eta segurasko ezaugarri bat baino gehiago, XX mendearen azken hiru laurdenetan nahasten etorri dena, ustezko, eta hutsezko, galdegai baten ezaugarriekin.

3.6.1. Larramendiren ezezko esaldiak.

Egia da, Larramendiren aurretik ere, agertzen direla inoizka euskal tradizioan, ezezko esaldi nagusiak, aditz nagusia laguntzailearen aurretik emana erakusten dutenak, baiezko esaldien ohizko orden berean, inbertsiorik gabeak deitu direnak.[49] Antzeko formak, ezagunak, eta are usuzkoak izan dira, eta dira euskaraz, mendeko esaldi klase askotan, zeinnahi euskalkitan. Eta are esaldi nagusien itxurako esklamazio, edo hainbat galdera moduetan.[50]

Kontua da, ezezko esaldi nagusiak osatzeko modu, inbertsio gabe hori, ez dela ugaltzen hasiko euskaraz, Larramendirekin baino, nahiz beti izan oso idazle jakin eta mugatu batzuetara. Eta izan ere, ezarian bezala, Larramendik sekulako propaganda ona egiten dio (eta nahikoa proportziorik gabea segurasko) joskera modu bitxi honi, Arteko pasaje desberdinetan, hitzegiten ari denarekin batera, aditzaren bi osagaien jokamolde sintaktiko, nahikoa independiente-edo horien inguru. Hala nola egiten duen adibidez ageri askoan segidakoetan:

> ... Pues esta negacion [ez] tiene dos significaciones, una corresponde al no, y otra al ni: en la primera significacion siempre anda con las terminaciones, y delante dellas, y nunca de parte del verbo, ya se anteponga, ya se posponga, v.g. jaten eztet, eztet jaten, ecarri eztot, eztot ecarri, emanen eztut, eztut emanen. (293-294) / [los adverbios ba, y ez] ... siempre andan antepuestos, e inmediatos à las terminaciones, etortzen ez naiz, ... (301)

Larramendik erabiliko ditu ere bere idatzietan hainbateko maiztasunez, aditz nagusia aurreratzen duten formaok. Adibiderako (1990ko *Euskal Testuetatik*): *lotsatzen ez aiz hi* (26), *ezagutuco ere eztitugula* (26), *utzi bear eztitúgu* (36), *escribitzen aztu etzait* (39), *zor eztie semeai* (48), *bici ere naietzeuan* (49), eta beste asko. Denera nolanahi, Larramendirengan ere formaok, ez dira izango gutxiengo bat baino, ohizko inbertsiozko formen aldean.

Kuriosoa izango da ohartzea, nola gero Cardaverazek, ia forma bitxiok bakarrik erabili nahiko dituen bere ezezko esaldietan: aditz laguntzailea posposatuaz nagusiari; baina baita ere, eta jada Larramendik ez bezala, aditzaren perifrasi hori posposatuaz esaldi osoari. Ez da segurasko gehiegi uste izatea, pentsatzea, Cardaverazek hobesten ote duen inbertsio gabeko forma, hau hobeto uztartzen zaiolako berak predikatu eta praktikatu nahi duen euskal aditzaren posposizio orokorraren ezaugarriari. Eraberean da kuriosoa jabetzea, nola Larramendiren jarraitzaileen artetik ere, ia soilik izango diren Cardaverazen Eskolako haiek (Lardizabal, Arrue), forma "berri" hau eskubetean praktikatuko

---

[49] Batez ere akaso bizkaiera zaharrean J. Lakarrak jasotzen duen bezala («Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean», *ASJU* 1986, 655 or.). Baina baita ere segurasko, lan horretan erakusten den bezala, adibide gehiagorekin, nafarreraz, …

[50] *Irabaziko ez du bada!*, edo, *Ekarri ez zuen bada atzo?* moduko esaldiak kasu.

dutenak; hau da, soilik, aditzaren posposizio orokorra praktikatu nahi dutenak, ia guztien gainetik.

3.7. Larramendiren beste ezaugarri eta bitxikeria batzuk, bukatzeko.

3.7.1. Juntagailuen guneaz.

Larramendik oro har, ezer teorizatzen ez badu ere juntagailuen, edo konjuntzioen guneaz, honen inguruan idatzi dituen apurrak gogoan, ez dirudi bere jarrera oso urruti dagoenik Astarloaren hartatik, ematen dienean, prezeski, elkartzen dituzten esaldi bi haien arteko gunea. Hala Larramendik, Syntaxiaren bukaeran aitatzen dituenean konjuntzioak (Kopulatiboak: *eta, ta, enda, da,* Disiuntiboak: *edó, biz, naiz*, Adbertsatiboak: *baña, baia, bañan, ordea, alaere, alere*), hauen adibide guztiak ematen ditu, juntagailua bi esaldien artean kokatuaz, nola, adibiderako, hiru adbertsatiboak (335 or.): *etsai indartsua dezu, baña garaituco dezu, ...: ederra ezta, ordea bai polita, ...: gaizquí nai dit, alere maite dut nic, ...*

Orrialde batzuk lehenago hala ere, Larramendik egiten du, esaldi konposatuak erakusten ari denean, beste juntagailu baten aurkezpena, eta honi, dudarik gabe erasten dio, ezaugarri prepositiboa lotzen duen esaldi harekiko. Dio (315 or.):

> Quando estas oraciones traen negacion en el determinante, y se sigue sino que, v.g. no parece sino que, en el Bascuenze se hazen con los adverbios baicic, baicican, baicen, que se siguen al determinante, guardando el determinado su construccion regular, v.g. no parece sino que le queria matar, eztirudi, baicic il naizuela; eztirudi baicen arrizcoa dala, no parece sino que es de piedra. Lo mismo es quando despues de otros determinantes parecidos, viene el sino que, ...

Kontua da, Larramendik horrela erabiltzen dituela gehienean juntagailuok, elkartzen duten esaldi zati haren aurretik. Hala egiten du beti adibidez, *ezpada*-rekin (adibideak 1990kotik): *..., ezpada lapico ustel bat, ...* (23); *..., ezpada onez ta amodioz: ...* (53); *Eta cer da au ezpada adierazotzea atseguin dezuela Christo ...* (56). Eta hala moduz ere, *ordea* eta *baizik*-ekin, eta adibiderako: *Ordea San Agustiñ-en argi-ichasoari ...* (66); *Ordea, noratuco ditut? ... Ordea, zu izan nere alde guzi ...* (70); *...: ordéa niri zor dizquit ...* (83); *...; eta eztirala eguin bearrac, baicic uts utsic obeditu bearrac*. (32); *...; baicican Gaztelaüen hizcúnza arrotzean?* (35). Nahiz azken bi juntagailuok erabiltzen dituen Larramendik, baita ere beren hitz erregimenen baten ondoren, batez ere hauek laburrak direnean. Nola, *ordea* adibidez: *Ez degu ordea guc erabaki bear, ...* (68); *...; etzion ordea jaungoicoari bere argitic ezer ostu, ...* (71). Eta oraindik maizago ere *baizik*: *... ta Gaztelania arrastaca baicican eztaquitenac ere, ...* (37); *...: ez da ori eginkizuna, ezinkizuna baizican.* (60); *..., gaba ta illuna baizican, ...* (62); ...

3.7.2. Larramendiren galdera hautsiak.

Denera asko izango ez badira ere, eta beti galdera kopuru osoaren gutxiengo bat besterik ez, 29 kasutan bederen ematen ditu Larramendik galderak, esaldiko beste elementuren bat tartekatuaz, galdegilea eta aditzaren artean (erdiak-edo dira, Burgosko Doctrinakoak). Hemen batzuk segidan:

(78) ...: norc nizaz contu iduquico deu, ...? (53, eta berdin, 53, 54)
(79) ..., eta zeu il ezquero, norc ni zaituco nau? (53)
(80) Noiz ordea zan ori? (62)
(81) Certaco Jaincoac eguin cituen? (99)
(82) Norc onen contra pecatzen du? (99)
(83) Cer virtute graciarequin batean sacramentuac ematen dituzte? (102)

3.7.3. Galdegaia / aditza etena inoiz?

Egia esan bitxikeria besterik izango ez bada ere jaso nahi nuke segidako esaldia ere, bere testuinguru txikiarekin; pentsatzen jarrita, pentsa bailiteke, ez ote duen Larramendik argumentu arrotz bat sartu, esaldiko galdegai logikoa eta aditzaren artean. Eta akaso izan liteke berdintsua 85eko esaldiaren arazoa, nahiz kasuan mendeko esaldi baten aditzaren aurrean izan elementu arrotz tartekatua:

(84) (... cerren anciñaco onén bidéz oquérr ascó eraguin nai lituquean, eraguin dituén bézala. Esango alditút?) tilit tilit mingaña dagoquit: ... (77)
(85) (Esazu, norc esan zuen Aita gurea? Jesu-Christoc. Certaco?) Otoitz eguiten guri eracasteco. (97)

Bigarrena desberdina bada ere, aurrenekoan badirudi etena nabaria dela, *dagoquit* aditza, eta *tilit tilit* konplementuaren artean. Horrelako kasuak, akaso estudiatu beharko lirateke, ikusi berri ditugun galdera hautsi haietako etenak bezalatsu, orduan galdegilea (galdegai prototipoa) eta aditzaren artean gertatzen zirenak.

ERASKINA

Larramendiren azken dei batzuk eta eragin nabari bat.

Larramendiren Syntaxi positibo eta zehatza, orain arte ikusitakoan borobiltzen bada guztia, bere ziriak eta eztenkadak, Syntaxi ezaugarriak erabiliko dituztenak sostengu bezala, ez dira hor bukatzen. Larramendik behin eta berriro ekingo dio aurrerantzean bere lanetan, predikatzaileen euskal prestakuntza eskasaren salaketan, eta hauen hizkerak jasaten duen gazteleraren etengabeko interferentziaren kontra ekiten. Argudioak beti dira beretsuak: Hain desberdinak dira bataren eta bestearen egiturak eta eraikuntza sintaktiko moduak: Pospositiboak gureak, eta arbuiagarriak, prepositiboak, arrotzarenak!. Hala nola dioen adibidez, hitz ondo behementez ohi bezala, Hiztegi Hirukoitzaren Sarreran (xL-xLj orr.):

> La razon primera, porque no predican bien en Bascuence, es, que nunca hablan un discurso, ni un Sermon, que inmediatamente, y de primera mano ayan puesto en Bascuenze, sino que entre el discurso, y conocimientos del entendimiento, y entre el Bascuence, que hablan; despues se atraviesa otra Lengua, que aqui es la Castellana. ... lo que predican, es unicamente traduccion, ... Toda traduccion, por ajustada que sea, hace perder mucho de los primores, oportunidad, y eficacia à la Lengua, de que se traduce; ... Para predicar bien en Bascuence, es preciso discurrir, y pensar primero en Bascuence sin atencion al Romance, ni otra Lengua, ... / La segunda razon porque predican mal, es, porque en sus sermones traducidos se ajustan mal a las reglas de una legitima traduccion, porque comunmente las ignoran. Siguen el sonsonete material del Castellano, buscando unas correspondencias tan puntuales en la cantidad, y calidad de las voces, ... Debieran atender à la Sentencia, y estudiar, y apurar bien el sentido de la Clausula Castellana; para ponerlo, y hablarlo en Bascuence con menos, ò con tantas, ò con mas voces que en Castellano, y assi correspondiera puntualmente un sentido al otro. / La tercera razon es, porque no tienen conocimiento reflexo al caracter, y primores particulares del Bascuence, ni de la gran diferencia de su Sintaxis, y del romance, en que hablan comunmente, y en que hallan escritos sus Sermones. ... Cada Lengua tiene sus sales, y gracias, pero quando se acomodan a su caracter, y extructura particular, y no quando se acomodan al caracter distinto de otras Lenguas. El Bascuence tiene su construccion pospositiva, y con harta gracia, y elegancia; y ellos se la dàn prepositiva, trastornando el genio de su Lengua, por seguir la construccion Castellana. ... / La quarta razon, dexando otras muchas porque predican mal, es un abuso, y temeridad, que no se pudiera creer, si no se experimentàra à cada paso: y es, que escriben sus sermones en Castellano, y en la misma Lengua los estudian, y toman de memoria, y sin otro exercicio, ni diligencia, suben al Pulpito, y empiezan à predicar de repente en Bascuence, ... Què repetir! Què trabucarse! Què no atinar con las voces del Bascuence oportunas! Què invertir conjugaciones y tiempos! ...

Larramendik ez du agerian aitatzen azken trabukatzeon artean, ordenamendu konturik, eta gutxiago aditzenik. Eta ez du ere egiten orrialde batzuk aurrerago, nahiz agian inork pentsatu izan duen besterik, Larramendik orduan bi hizkuntzetan ematen dituen adibideen begiratzetik, berriro heltzen dioenean, gaztelera eta euskararen alderatzeari. Ordea, Larramendi bertan zuhur eta zinez erakusten ari den gauza bakarra, ez da besterik, elementu mendekotzaileek (eta ez bestek) bi hizkuntzetan erakusten duten eraikuntza desberdintasuna baino. Larramendik dio, luze (Lvj-Lvij orr.):

> Es cierto, que el Bascuence es de algun embarazo para aprender el Castellano, ... / ... Si supieran en que consiste el embarazo, mas facilmente le vencieran, y supieran con mas fundamento el Castellano. Consiste en que la construccion del Bascuence comparado al Castellano es pospositiva: consiste en que no tiene diferencia de articulos, ni de generos para masculinos, ni femeninos: consiste en que las terminaciones del verbo tienen embebido el articulo, ya de singular, ya de plural, y la relacion a la primera, segunda, ò tercera persona; todo lo qual no se halla en castellano. / ... De no observar la construccion pospositiva, y dandosela al Castellano dicen mil preciosidades los niños. Escuetan muñeguiten diola, quiere decir que le besa a Vm. las manos, y siguiendo la construccion del Bascuence dicen, las manos que le besa a Vm. etortecoa dala, que es de venir, dicen, de venir que es. Por no saber la diferencia del infinitivo, y participio, ni aver quien se la enseñe, este Bascuence gosaldu ta joango guerala, lo traducen, almorzar y que iremos, siendo el sentido iremos en almorzando, ò despues de aver almorzado. Por no saber, que en Bascuence unos mismos son los articulos, y en Castellano diferentes, como los generos, y que estos no se usan promiscuamente dicen ... Por no saber, que la terminacion Bascongada embebe el regimen singular, ò plural, ò el articulo correspondiente, y tambien la transicion, ò relacion a la persona, dexan los articulos del Romance. ... A estas pocas cosas se reduce el particular embarazo del Bascuence para aprender bien el Romance, y tan lexos estan de ser embarazo, si se saben conocer con distincion, que antes bien ayudaràn muchisimo, ...

Corografia, XIX mende bukaera arte argitaragabean, modu beretsu batean ekiten dio behin eta berriro, predikatzaileen kontra, gazteleraren (eta beste hizkuntzen) interferentzien salatzen, eta euskararen eraikuntza ezaugarri berezien aldarrikan. Hala nola (1969ko argitalpenetik):

> (283 or.) Los que debieran estar mas instruídos en lo dicho, son los que estan menos y los que hablan en vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia. Estos son los eclesiasticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramatica que aprendieron del latín. Supieron, cuando muchachos, poco vascuence, ... Vienen [vuelven] a estos lugares; se ven precisados a hablar vascuence, y se ven atascados, (284) sin saber empezar, proseguir, acabar. Con el tiempo aprenden sólo a hablar aquel poco vascuence que necesitan para oír y despachar a los caseros y puros vascongados, y nada mas, o para una visita o conversacion, que ni bien es vascuence ni bien romance. ... Esto tiene las

> excepciones que diré. / ... no da mas de sí su poca instrucción y mucha ignorancia en general de las lenguas, ..., sin entender una letra de la diferencia de su construccion a la que tiene el castellano, el latín y otras lenguas; ... / ... (285) sermón no trabajado, mal traducido del castellano, pronunciado al aire y salga lo que saliere, sin concierto en el vascuence que se predica, profanado con tanta ignorancia de voces oportunas, con tanta mezcla de castellanas (286) importunas, ... / ... (287) Tienen sermones en castellano que encuentran trabajados y de molde en romance. Para traducirlos se necesita de inteligencia y saber bien una y otra lengua, así en la extensión y multitud de voces y sentido de ellas, como principalmente en la colocación y gramatica de una y otra lengua. No saben palabra de eso, ... / (291) Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el caracter y sintaxis de la lengua, ... / (293) Aprendan sobre todo los modos de conjugar, así los activos como los neutros, así los absolutos como los relativos: y sin esto, no esperen jamas predicar bien ni traducir bien al vascuence los sermones castellanos. Y es evidente que, por falta de esto, aun lo que predican en vascuence es el aire y caracter del castellano, no del vascuence, que le tiene muy particular en todas sus partes, ...

Are oraindik egiten ditu Larramendik antzeko hitz sutsuak, Aita Begiratzaile gisa zensuratzen duenean, Cardaverazen idatzietako bat (*Escritos Breves*, 304-305 orr.):

> ... Guardese, en fin, el caracter y aire del bascuence y no del castellano: Y miren muchas locuciones, que al aire del castellano son buenas, y si a ese aire las ponen en latín las haran ridiculísimas, y por el mismo defecto con poca alma en bascuence.

Suzko hitzak nonnahi. Eta ordea, guzti hauetatik ezin esan ahal da, Larramendik, euskararen eraikuntza ezaugarri pospositiboari ezer berririk erasten dionik, jada Artean esanda ez duenik. Eta Artean, ikusi dugu zertara mugatzen duen, zentzu zuhurrez, euskararen ezaugarri hori. Inoiz ez, noski, esatera, aditz trinkorik joan ezin litekeenik esaldi hasieran; aditzak oro har (konposatuak) joaten ez direnik maiz asko esaldi hasieran; aditz nagusiek joan behar dutenik mendekoen atzetik; mendeko esaldiak bukatu behar direnik aditzarekin, eta honi erantsitako elementu mendekotzaileekin; edota, inola ere, esaldiko elementurik luzeenak, konplejuenak (galdegaiak) joan beharko duenik prezeski aditzaren aurreko gunean; edota hala, aditzaren berezko gunea euskaraz, izango denik, esaldiaren bukaera, edo bukaera aldeko hura.

Baina izan zen bere garaian ere, Larramendiren hitzei eman nahi izan zienik, beste esannahirik. Berez ez zuten esannahi bat. Horrela Cardaverazek, *Eusqueraren berri onac* liburuan dioenean Larramendiren itzaletik, ia hitzez hitz ere bihurtzen haren platikak (58-59 orr.):

> ... Latin, edo Gaztelaniatic Eusquerara biurtu nai bada, ori ondo biurtzeco, edo itzac berac, ezpada oriec esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu, ta Eusqueraz nola ondo esangodan contuz consideratu, ta ori escribitu bearda. / Beste izquerac bezala, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco ta berariazco ederrac ditu. Baña Erdarac era batera, ta Eusquerac bestera. Onec era pospositivo, ta arc prepositivoan. esan naidu: Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, Eusquerac azquenerontz beti botatcen duela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago. Bestela, itzez itz Erdaratic Euscarara biurtzen badezu, chit itsusi, doacabe, edo moldacaitz irtengoda, ... / ... Latin usia pusca bat duen guizon juiziozcoric nor da, Erdaraz, edo Eusqueraz Sermoi bat iracurri, ta beste gabe, latiñez Pulpituan predicatuco duenic? Itzoro galdu, ta trabucatuco litzaque.

Cardaverazek, bere liburuetako baten Aita Begiratzaile ezezagun izango direnei argitzen die zertan datzan (besteak beste), Gaztelaniaren contra jokatze hori, euskararen ezaugarri pospositiboaren ildotik, Larramendik esandako guztiez aurrera. Aipu luzea da, izan litekeelakoan Cardaverazen izaeraren erakusgarri interesezko bat (Larramendi, *Escritos Breves*, 301-302 orr.):

> A los Padres Revisores, que el Padre rector señalare, ruego encarecidamente se armen (por amor de Dios y por el bien de las almas) de toda paciencia y caridad, para la obra mas ímproba e impertinente del mundo con el bascuenze, por la incuria de los bascongados y por el casi ninguno uso; los mas no aciertan a leerlo !que sera el escribirlo y copiarlo tantas veces comome ha sido preciso por las muchas frecuentes erratas, casi inevitables!
>
> Lo 1.º, que con el mas rendido afecto les suplico, es que pongan toda su principal mira y cuydado en notar y censurar con todo el mayor rigor todos y cada uno de los puntos doctrinales o in ordine ad fidem et mores; y que por ningún caso perdonen ni disimulen cosa alguna de peligro en esto, y borren o quiten quanto juzgaren coram Deo. No pretendo sino sacar algún provecho de las almas por medio de la lectura de los curas; y por esta razón pongo por principio los textos latinos por su autoridad.
>
> Lo 2.º, no quisiera tanto rigor, antes bien alguna indulgencia en quanto al todo del bascuenze y su método, frases, dialecto y voces: En todo sigo lo usual y mas común de mi bascuenze, y no es facil abrazar todo, aunque de suyo bueno y propio. Por la dificultad y novedad, y mas al principio, uso de mas vozes que quisiera, hasta darme a entender de algún modo.
> ...
> Lo 8.º el bascuence no tiene de suyo preposición alguna y todas son postposiciones y la gala esta en posponer aun los verbos,

> que por lo regular caen assí con mas elegancia. El no saber hablar bien ni leer y el seguir la construcción literal del castellano hace a malas mañas a los ignorantes.

Oker ez bagaude, azken hori izango da, Cardaverazek egiten duen irakurketa propio eta bitxia, euskararen ezaugarri pospositiboena. Cardaverazen ekarri berezi nagusia euskal letretara, euskal sintaxian.

Eztabaidatuko dugu Cardaverazekin berari eskainitako atal luzean. Bitartean hemen esan behar, kontutan hartzekoa dela, nola Aita Larramendik, Aita Begiratzailea sasoian, ez duen ihardukitzen Cardaverazekin puntu honetan, ezagutzen diogun erantzunean. Eta esan ohi da, isiltzen denak, eman egiten ote duen. Ez dakigu zer pentsatzen zuen Larramendik.

4. Harrieten Gramatica (1741). Adibidetegi ondo ugari bat.

Urte batzuk lehenago Etxeberrik latinarekin egin antzera, Harrietek idatzi bide zuen, lehen asmoz, bere gramatika,[51] euskaldunei francesa irakasteko, izenburutik dioen bezala: *Gramatica escuaraz eta francesez. Composatua Francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Hasteko bada, ez gaude propio, euskal gramatika baten aurrean; nahiz atzenerako, Etxeberrirenean bezala, eta frantzeseraren aitzakian, ugari baino ugariagoak bihurtuko diren, euskarari buruz emandako berriak -eta are bitxikeriak-,[52] liburu mardul honetan zehar.

Argitaratutako liburuaren amaian iragartzen da, nola emango diren gero, bigarren tomo, jada bukatua den batean, euskal aditzen konjugazioak; hirugarren, hainbat prestatu batean, hiztegi osatuago bat; eta baita laugarren, ija bildua duen azken batean (504-505 orr.): *la construction des cinq Infinitifs, la construction des verbes, la construstion [sic] des prépositions, & un autre recuëil des phrases choisies dans la langue basque*. Argitaratutako liburuaren egitura ikusita ordea (lehen 60 orrialde, eskeiniak, izen, izenorde, adjetibo, eta hauen graduen deklinazioei; 200 bat aditzari; 170 inguru bi aldetarako hiztegiei; eta amaierako beste 60ren bat, *Remarques sur la langue basque* izenpekoak), esango litzateke, ez ote zituen Harrietek jada bertan sartu, hurrengo liburuki iragarrietarako prestatuak zeuzkan gehientsuenak. Berberak hurrena esaten duen bezala (505 or.): *... & on trouvera assez de remarques en abregé en ce tome seul, pour comprendre la propieté de la langue basque, quoique mon dessein n'a alloit jusques l'à au commencement de ce travail*. Eta beste tomoak argia ikusi ez zutenez, eta gaur egun ezagutzen ez direnez, eskertzekoa zaio emanaren emana bederen.

4.1. Harrieten ordenamendu iritzi apur batzuk.

Harrietek euskarari eskaini oharren artean, denera ez dira gehiegi, pentsatzekoa den bezala, euskarazko hitzen ordenamenduari eskainitako iruzkinak. Batzuk bai horregatik, segidako biak bezala, jada ezagunak zaizkigunak aurreko gramatiketatik.

4.1.1. Genitiboaren aurregunea.

Harrietek, soil postulatzen du erregela, ematen ditu adibideak, eta hasten da, piskanaka, bere gustoko jolasetako batean (502-3 or.):

> La langue basque place les Nominatifs, significatifs a la fin, au lieu que la langue françoise les met au commencement, comme Aitaren izpiritua / ene aitaren mutilla / ene aitaren mutillaren / Erromaco guiçona / erromaco guiçonaren / erromaco eliçaco, aldareco estalguia / Indietaco elicetaco aldaretaco estalguietaco, ...

4.1.2. Pre[o]posizioen, eta artikuloen posposizioa euskaraz.

Hala moduz dio bere soilean, gramatikako une pare batean:

---

[51] 1741ean argitaratua, eta Etxeberrirena bezala, euskaraz konposatua.

[52] Bitxikeria hauen artean, esate baterako, Harrietek emango duen euskal atzizki sistema, nahikoa osatua, *Sur les Comparatifs* izeneko sail harrigarri samar batean, egitura eta itzulpen ondo kuriosoekin zenbaitetan. Edota are bitxiago, Harrietek izenen nominatiboen gainean eraikitzen dituen, sei gradutaraino (448-449 orr.): *aitarenarena* (3é.degrè), *Aitarenarenganicacoarena* (4é.), *Aitarenarenarenganicacoarenarena*, celui de celui de celui de celui de celui du pere, &c. (6é.).; segidan berberak argitzen badu ere: *Le troisiéme degré est presque inutile, & les autres trois entierement, je ne les ai raporté que par curiosité*. Nolanahi, haundia bide zen Harrieten kuriositate zaletasuna, edo jolasgurea. Aurreraxeago emango ditu, esateko (461 or.), *eta* eta *edo* juntagailuen deklinazioak (*edo, edoren, edotic, ...*); edo letrenak ere (462 or.): «*Les lettrs [sic] a, b, c, d, &c. aussi sont declinables. Exemple. beren, betic, beri, bean, beaz, bearequiñ, ...*».

> Goardia har eçaçu Escuarac azquen hitzetan ematen dituela artienlu [sic, articulu] eta propositioneac [sic, prepositioneac], eta Francesac aitciñean. (263 or.) / ... pareillement le basque met les prepositions après les Nominatifs comme, aita gabe, ..., ene ondoan, ... (503 or.)

Bada hala ere Harrieten gramatikan gauza interesgarriagorik guretzat, nola hurrengoa.

4.2. Esaldiaren egitura «librearen» aldarrikapena Harrietengan.

Harrietek ohar bakar bat egiten du agerian bere lan guztian, funtzio elementuen kokagune posibleez esaldian, eta esaldiko aditzarekiko. Bere soilean, ezin jakingarriagoa. Dio Harrietek (501 or.):

> On place dans la langue basque indifferemment, le cas devant les verbes comme salcen dut ene etchea, ou ene etchea salcen dut, je vends ma maison, &c.

Pentsa liteke, Harrietek egiten duela oharra, erakusteko, euskaraz litekeena dela, frantzesaren aldean, objetua kokatzea aditzaren aurrean ere. Baina, ez da dudarik, Harrietek bi ordenamenduak ematen dituela euskaraz, ohizko eta legezkotzat: «O-A», konplementua emanez aditzaren aurretik, «Xà» egituran; edo «A-O», konplementua aditzaren ondotik, «aX» egituran.

4.2.1. Harrieten «Xà» egiturak.

Oro har, Harrieten gramatikako adibideei begira, egia izango da, hauek euskaraz maiz asko gordetzen dutela, «Xà» moduko egitura bat aditzarekiko; dela sujetoa daramatelako aditzaren aurrean (eta orduan esaldiaren egitura eta ordena, frantzesezkoaren berdina gertatuko da gehienean); edota beste zeinnahi atributo edo konplementu klase emanez aditz horren aurrean (zein kasutan, euskaraz askotan gertatuko den konplementu hori, frantzesezkoaren alderantzizko ordena batean aditzarekiko).

Hala segidako esaldien moduko guztiak (23 or.): *Ni baino handiago da, Orotaric handiena da, On da, Ona da, Onac dire, Hobea da, Hobeac dire, Onac ematen du, Hobequi da, Haiñitz ona da*. Hurrengo orrialdeetan ere ugariak dira Harrieten antz bateko «Xà» esaldi egiturak, zenbait, paradigma osoetan ere ematen direnak, nola 32-3, 48-9, 253-5, edo 256 orrialdeetan.

4.2.2. «aX» egitura absolutoak Harrieten gramatikako adibideetan

Ohizko esaldi modu horien parean ordea, Harrietengan hain ugariak dira zuzenean aditzaz hasitako esaldi adibideak euskaraz («aX» egitura absolutoak), non ezin den pentsatu, 501. orrialdeko oharrean aldarrikatutako ordena askatasun hori, ez denik euskaraz praktikoa, erabilgarria eta erabilia.

Hurrena jasotzen ditugu Harrietek gramatikan ematen dituen aurrenekotako batzuk (beste guztiak, beren itzulpenekin, lan honen bukaeran, 1 ERASKINEAN). Adibide horietako asko, ez dira, paradigma osoen hasierak baino (kasuan -…- puntuen bidez adierazten ditugunak). Batzuek daramate ondoren, mendeko esaldi (determinatu) bat konplementu; gehientsuenak dira esaldi soilak.

> (1) ematen dut sos bat, je donne un sols. (63)
> (2) Ematen ditut lau sols, je donne quatre sols (63-64)
> (3) Galdeguiten dute, Heïa badudan, heïa baduian, ... On demande. si j'ay. si tu as. ... (68)
> (4) Erranen dute, nic dudala, hic duala, ... on dit. que j'ai. que tu as. ... (71)
> (5) Ematen darotçut, dudana, hic duana, ... je vous donne, ce que j'ay. ce que tu as. (73)
> (6) Erraten dute, ni naicela, hi aicela, ... on dit, que je suis. que tu es. ... (84)
> (7) Ematen naitçatçu, Naicena, aicena, ... je me donne à vous. ce que je suis, ce que tu es ... (86)
> (8) Erraten dute Nic ematen dudala, hic ematen duala, ... on dit. que je donne. que tu donnes. ... (96)
> (9) erraten dute aberax naiçala, on dit que je suis riche, &c. (220)
> (10) erraten dute aberax garela, on dit que nous sommes riches, &c. (220)
> (11) Salutatu nau Chapela buruan duelaric, il m'a salué ayant le Chapeau à la tête. (231)

Antzeko esaldiak eta egiturak hala ere, ez dira bakarrik agertzen, Harriet adibideak ematen ari denean. Baita ere honek libre idazten duenean euskaraz; nahiz orduan, hauen proportzioa ez den, esaldi kopuru guztiaren gutxiengo bat baino, beharbada kualifikatua. Hala segidakoak (ustez, gramatikan agertzen diren guztiak):

> (12) (... present,) erran nahi da oraicoa. (63)

(13) ..., eta erran daite, nic içan dut beçala, nic ukhan dut eta gaiñeracoa, ... (74)
(14) uste dut onsa eguiñen dudala ... (87)
(15) Erran daiteque orobat hirur casu horie[tan] irakhurri horren lekhutan, irakhurtu, eta erran irakhurri dut beçala irakhurtu dut, ... (123)
(16) erraten da, je crois, siñesten dut, ... (203)
(17) Ematen ditut doblatuac, ... (203)
(18) ..., erran nahi da, presuna guciençat cerbitçatcen direnac, ... (218)
(19) ematen ditut hemen exemplu eta ereguelac (219)
(20) ..., erran nahi da ematen dire, ... (221)
(21) Uste dut iadanic etçagutu duçula ... (228)
(22) Baiñan erran behar da, Hunela Exemplua. (231)
(23) erran Nahi da, gauça eta lekhua aitciñean itcendatuac direnean, ... (240)
(24) Ce[r]bitçatcen dire, oraico, presenteco, ... (244)
(25) Baiñan hasico çare berboetaric, eta erranen duçu, j'ay fait vötre commission, ... (245)

4.2.3. Galdegaiak aditz ondoretik, «Xà» egiturak gordeaz.

Aditzaz hasten diren esaldi gehien hauen kasuan nahikoa garbi legoke segurasko, nola esaldiko elementu predikatiboenak, galdegaiak-edo, ematen diren aditzaren ondotik, esaldiaren bukaera aldera. Inpresio hori sustatzen, asko laguntzen dute, daudenean, frantzes itzulpenek.

Fenomeno bera ordea, maiz aurkitzen da Harrietengan, nahiz eta aditzek beren aurretik eraman, beste «X» konplementuren bat. Esaldietako elementurik predikatiboenak, maiz ematen ditu Harrietek, euskaraz ohi bezala, aditzen «Xà» egitura horien ondoretik, eta esaldien bukaera aldera. Fenomenoa suma liteke (beren frantzes itzulpenekin) gramatikako adibide gutxi batzutan (hauek gehienak hasten baitira zuzenean aditzaz):

(26) Pierres handiago da Joannes baiño, pierre est plus grand que Jean. (247)
(27) Pierresec erraten du ezcez, pierre dit que non. (247)
(28) Çuc erraten duçu nic ematen dudala, vous dites que je donne, ... (247)
(29) Nic eguiñen dut orduan, je ferai alors. (251)
(30) Othoiztua naiz, aitaz. amaz, ... je suis prié, par le pere, par la mere. ... (259)
(31) Othoiztua naiz, aitetaz, ametaz, ... je suis prié, par les peres, par les meres. ... (259)
(32) Lanean haritcen naiz, aitarençat, amarençat, ... je travaille. pour le pere. pour la mere. ... (260)
(33) Lanean haritcen naiz, aitençat, amençat, ... je travaille. pour les peres. pour les meres. ... (260)
(34) boz naiz hura ikhusteaz, je suis content de le voir, ... (503)

Ordea, esan liteke, konposizio modu hori dela prezeski, Harrieten ohizkoa, libre idazten ari denean euskaraz. Eta esaldi batere luzeen artean (eman dezagun, «X» konplementu bakan bat baino gehiago dutenetan), sarrienik aurkituko ditugu, elementurik predikatiboenak, aditzaren ondoretik daramatzaten esaldiak. Hauetako asko dira esaldi konposatuak, aditz nagusi entendimenduzkoak dituztenak, baina badira ere bestelakoak. Segidan Harrieten aurreneko batzuk (eta 2 ERASKINEAN JASOTA, gramatikako beste guztiak izan nahi luketenak):

(35) Oraiño adicera ematen derauçut, ez nuela presenteco liburu chume hau eguiña ... (3)
(36) ..., deliberatu dut obra chume hunen, arguitarat emateco, ... (4)
(37) ..., eta menturaz hau içanen da causa cembait berçec hartuco baitu deliberatione, obra hobeago baten eguiteco, ... (4)
(38) ..., aitcitic hori içanen da ene placera; ... (4)
(39) Guardia hartu behar da Francesac eguiten duela ... (6)
(40) Francesac icen bakharrac finitcen ditu letra guciequin, (eta haiñitçac ordinariosqui esarequiñ.) (7)
(41) Amaren haguitçac explicacen dire aiten haguitçac beçala, ... (9)
(42) Gauça bera eguiñ deçaqueçu eta mudança bera eman, Francez hitz guciei emanez ... (14)
(43) Asqui duçu etçagutcea hitz chume horiec cer diferencia ematen dioten ... (14)
(44) Gauça bera eguiñ deçaqueçu berce casu gucietan ere, nola ... (14)
(45) Eta hobequiago segura çaitecentçat ematen darotçut cembait exempla guehiago beherehuntan. (17)

4.3. Mendeko esaldien egitura «hautsia».

Harrietek bere gramatikan ikutzen ditu tarteka, inoiz oso agerian ez bada ere, mendeko esaldien osatzeko moduak euskaraz.[53] Baina espero bezala, ez du inon aipamen ageririk egiten, hauen barne ordenamendu aukeren inguruan. Berak adibideetan ematen dituen mendeko esaldiei begira ordea, esan liteke, gehienak doazen bezala beren aditz

[53] Ikus litezke, besteak beste, 66, 68, 70, 71, 84, 86, 96, 235-6, 251, 488-91, 496-7 orr.; eta are aurkitu bitxitasunak, *coca* atzizkiari buruzkoak bezala (489 or.).

nagusiaren ondotik (hau ageri dutenean), (ia) denak amaitzen direla beren aditzaz; dela, ez dutelako beste konplementurik erakusten mendeko esaldian (gehienen kasua); edota hauek oso gutxi direlarik. Luzeenen artean jaso litezke segidako laurok (231-2 orr.): *Salutatu nau Chapela buruan duelaric / Salutatu ninduen Chapela escuan çuelaric / Ethorcen da bere ontassuna ematen duelaric / Ethorcen cen bere ontassuna ematen çuelaric*.

Esaldiotan ageri den bezala, Harrieten ohitura izango da, mendeko esaldiko aditzaren aurretik ematea, gutxienez, honen konplementuetakoren bat, «Xa» egitura modu bat osatuaz aditzarekin, euskaraz ohi bezala, zeina egitura horren poderioz maiz gertatuko den esaldi bukaeran, hau laburra denean. Baina, ez fenomeno bata, eta ez bestea, ez dira izango inoiz lege Harrietgan. Eta are adibide, beti labur, horien artean ere (berez esaldi zainduagoak), aurki litezke, ez bakarrik beren aditza ematen ez dutenak esaldiaren bukaeran, baizik eta sikiera gordetzen ez dutenak ohizko «Xà» egitura minimorik. Horrelakoa adibidez goiko lau esaldi hautsigaben segidan, Harrietek, kezkarik gabe, ematen duen bosgarren «hautsia», denei emanez itzulpenen ordenamendu beretsuak (232 or.):

(46) Ethorri da eman duelaric bere ontassuna, il est venu ayant donné son bien, ...

Segidakoak ere, gramatika adibideen artetik, aditz jokatugabez:

(47) (Behar dut egun gucia baita gaua ere) eguiteco hori, ... pour faire cela, ... (250)
(48) Bethea diruz, rempli d'argent. (261)
(49) bethea urez, rempli d'eau. (261)
(50) eguiña escuz, fait avec la main. (261)
(51) eguiña plumaz, fait avec la plume. (261)[54]
(52) Aditua aitaganic, entendu du pere (450)

Harriet euskaraz libre idazten ari denean ordea, lege izango da, mendeko esaldi hautsia, argumenturen batzuk (eta are denak) emanak, Harrieten diskurtsoari komeni bezala, aditzaren ondoretik, eta hainbat eta usuago, esaldiak batere luze eta konplejuak diren orduko. Esaldi horiek ohituraz mantenduko dute nolanahi, «Xà» egituraren bat aditzarekiko. Horrela ikus liteke, segidako esaldi «hautsien» artean, Harrieten gramatikako lehenengotakoak (beste «hautsi» denak-edo, 3 ERASKINEAN):

(53) ..., baicen emateco lagunça pisquabat ... (3)
(54) ..., içan deçaten lagunça eta errechtasun gutibat, ... (3)
(55) … adicera ematen derauçut, ez nuela presenteco liburu chume hau eguiña arguitarat emateco deseiñuz, bainan choilqui eguin nuela neure buruari instrucione cembaiten emateco; ... (3)
(56) ..., neronec içan banu hunelaco lagunça chume bat, ... (3-4)
(57) ... erresquiago icasico nituela orai daquisquidan gauça chumeac, ... (4)
(58) ..., eta uste dudalaric gauça bera içanen dela bercençat ere, ... (4)
(59) ...; seguratua naicelaric, nor nahi den ni baiño gaïago dela. (4)
(60) (Guardia hartu behar da) Francesac eguiten duela ordocharen eta urricharen differencia ..., eta behar dela juntatu minçatcean ordocharen casua, ordocharen casuarequin, ... (6)
(61) ... emanez eta mudatuz, le, du, de, au, la, ... (14)
(62) (Asqui duçu) etçagutcea hitz chume horiec cer diferencia ematen dioten ... (14)
(63) ... emendatcen dituçularic, eta sañiatcen Francez hitcetan, plus, le plus, ... (17)

4.3.1. Erlatibozko esaldi zenbait, bere izen mugagabearen ondotik.

Bereziki izendatu gabe, Harrietek jasotzen ditu erlatibozko egiturak ere, mendeko beste esaldien artean. Hala adibidez (489 or.): *ematen dudan gucia / ematen ditudan guciac*. Liburuan zehar jasotzen ditu beste asko ere, nominalizatuak, paradigmetan erakutsiak (aurki litezke jasotzen etorri garen adibideen artean ere). Ez du hala ere inon teorizatzen, ez adibiderik ematen, berak erabili bai egiten dituen, partikula anaforikoen errekurtsoa, erlatibozko esaldiak osatzeko modu bezala. Ez du ere inon aipatzen, ez paradigmarik ematen, erlatibozko esaldiak osatzeko moduarena, dagokien kasuan nominalizatuak, eta espezifikatu nahi duten izen (soil eta mugagabe) haren ondorean; nahiz berak bai erabiltzen dituen. Segidan horietako lau bederen:

(64) (..., eta berce ac fiñitcen diren hitz guciac haiñitcenac direla, ...,) eta berce hitz ac hartaraiño helcen ez direnac ... (20)
(65) (..., emendatcen dioçularic, je fais, hari) infinitibo behar duçun casucoa (227)
(66) (Seguidan aurquituco dituçu jesueco letrac beçala) hitz beharren direnen explicationea edo balioa, ... (266)
(67) (..., ondoan eguin diteque) mudança behar dena (gauçac, ongui ikhartu ondoan, ...) (507)

[54] Azken lau esaldiak, Larramendik (1929, 332-3 orr.) teorian gaitzetsitakoak, bere atalean aipatu bezala.

4.4. Bukatzeko ohar bat: «Izen arrunt fi izen propio» segidaz.

Etxeberrik maiz egin bezala, Harrietek ere erabiltzen du inoiz behintzat, *izen arrunta* fi *izen propioa* segida, alderantzizko ohizkoagoaren aldean. Hala bederen, segidakoan (87 or.):

(68) ..., uste dut onsa eguiñen dudala Abisu ematea iragaitean Escuaran Berboac bi hitcez eguiten direla), eta azqueneco hitz Naiz, bere seguida guciarequiñ, eta Dut, guisa berean bere hedadurarequiñ; ...

ERASKINAK

1. Aditzaz hasten diren beste adibide gramatikalak.

• Salutatu ninduen Chapela escuan çuelaric, il m'avoit salue ayant le Chapeau à la main (232)
• Ethorcen da bere ontassuna ematen duelaric, il vient donnant son bien (232)
• Ethorcen cen bere ontassuna ematen çuelaric, il venoit donnant son bien (232)
• Ethorri da eman duelaric bere ontassuna, il est venu ayant donné son bien (232)
• Eguiñ dut çure mandatua, j'ay fait vôtre commission. (241, 244 bi aldiz)
• Ikhusi dut emazte bat, j'ay vû une femme. (244)
• Galdeguiñ darotçut çure sendimendua, je vous ai demandé vôtre opinion, ... (244)
• Ikusi dut egun goicean çure aïta jauna, j'ay vû ce matin monsieur votre pere. (245)
• Eguiñ dut atço çure mandatua, je fis hier votre commission. (245)
• Ikhusi dut edo ikhusi içan dut herenegun çure anaïa jauna, je vis avant-hier monsieur votre frere, ... (245)
• Ematen darotçut dudana, je vous donne ce que j'ay, ... (247)
• Eman diot ethor ez dadiñ guehiago, je lui ai donné pour qu'il ne revienne plus. (248)
• Behar dut egun gucia baita gaua ere eguiteco hori, il me faut toute la journée, même la nuit pour faire cela, ... (250)
• Emanen dut orduan, je donnerai alors, ...
• Ematen dut, ene otassuna [sic], ene etchea, ... je donne. mon bien. ma maison. ... (255)
• Ematen ditut, ene ontassun guciac, ene etcheac, ... je donne. tous mes biens. mes maisons. ... (255)
• Ethortcen naiz, aitaganic, amaganic, ... je viens. du pere, de la mere. ... (256)
• Ethortcen naiz, aitenganic, aitenenganic, ... je viens. des pere, de ceux des peres. ... (256)
• Ematen diot, aitari, amari, ... je donne. au pere. à la mere. ... (257)
• Ematen diotet, aitei, amei, ... je donne. aux peres. aux meres. ... (257)
• Goaten naiz, aitagana, amagana, ... je m'en vais. au pere. à la mere. (257)
• Goaten naiz, aitenganat, amenganat, ... je m'en vais. aux peres. aux meres. (258)
• Siñesten dut, aitabaithan, amabaithan, ... je crois. en pere. en la mere, ... (258)
• Siñesten dut, aitenbaithan, amenbaithan, ... je crois. en peres. en meres, ... (258)
• Ikhusi dut, etchean, hirian, ... j'ay vû. en la maison. en la Ville. ... (259)
• Ikhusi ditut, etchetan, hirietan, ... j'ay vû. dans les maisons. dans les Villes. ... (259)
• Ethorrico naiz, aitarequiñ, amarequiñ, ... je viendraj. avec le pere, avec la mere. ... (260)
• Ethorrico naiz, aitequiñ, amequiñ, ... je viendraj. avec les peres, avec les meres. ... (260)
• Eguiten dut, aitaganaiño, amaganaiño, ... je fais. ... jusques à la mere. ... (260-261)
• Eguiten dut, landaraiño, baratceraiño, ... jusques au champ, jusques au jardin, ... (261)
• Neurtcen dut, aitenganaiño, amenganaiño, ... je mesure. jusques aux peres. jusques aux meres. ... (261)
• Goanen naiz, landetaraiño, baratcetaraiño, ... j'irai. jusques aux champs, jusques aux jardins. ... (261)
• Ethortcen da urez, leiorrez, ... il vient par eau. par terre. ... (262)
• Salcen dut, hamarna sos, hogoïra sos, ... je vends. à dix sols, à vingt sols. ... (262)
• Saldu dut, sei sosetan, hogoi sosetan, ... j'ai vendu. pour six sols. pour vingt sols. ... (262)
• Erosi dut, onçat, gaistoçat, ... j'ai achété. pour bon ou bonne. pour mechant. ... (262)
• Hasten naiz, hemendic, hortic, ... je commence, d'ici. de là. ... (262-263)
• Hasi behar da, eguitetic, ematetic, ... il faut commencer. par faire. par donner. (263)
• Eguiñ dut çure mandatua chumea [sic], j'ai fait vôtre petite commission (446)
• ikhusi dut çure etchea, j'ai vû vôtre maisson. (446)
• Eguiñen ditut çure mandatu guciac, je ferai toutes vos commissions (446)
• ikhusi ditut çure anaïac, j'ai vû vos freres (446)
• Ethorcen naiz aitaganic, je viens du pere (450)
• Ematen diot aitari, je donne au pere (451)
• Eguiten diot aitarenari, je fais à celui du pere (451)
• Egorcen diot amari, j'envoye à la mere. (451)
• Egorcen diot amarenari, j'envoye à celui de la mere. (451)
• Goaten naiz aitagana, je vais au pere (451)
• Goaten da aitagana, il va au pere (451)
• Bidalcen dut Pierres aitagana, j'envoye pierre au pere (451)
• Goaten naiz erromara, je vais à rome (451)
• Erosico dut çure mutillaganic, edo ene aitarenaganic, j'achetterai de vôtre valet ou de celui de mon pere (452)
• Bidalico dut pierres çure mutillagana edo ene aitarenagana, j'enverrai Pierre à vôtre valet ou à celui de mon pere (452)
• Eguiñen dut çure mutillaganaiño, edo ene aitarenaganaiño, je ferai jusques à vôtre valet, ou jusques à celui de mon pere (452)
• Erosico dut çure landatic edo ene aitarenetic, j'achetterai de vôtre champ ou de celui de mon pere (452)
• Goanen naiz çure baratcera edo çure aitarenera, j'irai à vôtre jardin ou à celui de mon pere (452-3)
• Ikhusi dut çure etchean eta ene aitarenean, j'ai vû en vótre maisson & en celle de mon pere (453)
• Eguiñen dut çure baratceraiño eta ene aitareneraiño, je ferai jusques à vôtre jardin & jusques à celui de mon pere (453)
• Ematen diot, aitari, aitarenari, ... je donne. au pere. à celui du pere. ... (454)
• ethorcen da urez (457)

• erosi dut onçat (457)
• Hartu dut, non edorençat, j'ai pris ou [oú] pour ou (461)
• ematen dut sos bat, je donne un sol (486)
• ematen ditut laur sos, je donne quatre sols. (486)
• nahi nuque eman leçan, je voudrois qu'il donnât (488)
• nahi nuen eman ceçan, je voulois qu'il donnât (488)
• Galdeguiten dute heïa nic dudan, on demande si j'ai (488)
• Erraten dute nic dudala, on dit que j'ai. (488)
• Ematen darotçut dudana, je vous donne ce que j'ai (489)
• Galdeguiten dute heïa ematen daroïadan, on demande si je te donne. (492)
• Erraten dute ematen darotçudala, on dit que je vous donne. (492)
• Galdeguiten dute heïa maitatcen çaitudan, on demande si je vous aime. (494)
• Erraten dute maitatcen, çaitudala, on dit que je vous aime. (495)
• Galdeguiten dute heïa minçatcen naitçaitçun, on demande si je vous parle. (496)
• Erraten dute minçatçen naitçaiola, on dit que je lui parle. (496)
• salcen dut ene etchea (ou ene etchea salcen dut, je vends ma maison (501)
• eguiñen dut laur egunen buruan, je feray dans quatre jours (502)

2. Galdegai gehiago «Xa» egituren ondotik.

• Horla eguinen duçu berce casu gucietan ere, ... (19)
• Menturaz idurituco çaitçu ... bakharrenac direla, ... (20)
• Gauça gucietan bardiñ erraten dire horgo eta hango questioneac. (24)
• Horrela eguiñ behar duçu casu gucietan ... (31)
• ..., errateco, aita hemenda, ..., erraten duçu le pere est ici, ... (32)
• ...; orduan hirur garren hura eman behar duçu Ordocharen casucoa. (33)
• ... baiñan obequi erratea da çoiñ nor baiño. (50)
• ..., baiñan hobequi errana da cembait, norbait baiño. (55)
• Neroni ederrago çait erratea, Çuhoroc, çuhoron, ... (58)
• Escuara cerbitça daite indiferenqui bere hortan gucian berbo ukhaiteaz, ... (74)
• ..., baiñan usançanago da berbo içatea, ... (74)
• ..., eta berce er, infinitiboa eguiten duten guciac explicatcen dire donner beçala, ... (99)
• ..., asqui içanen da goardia ematea ... (99)
• ..., orai arthean eman ditugun casuec irakhasico darotçute hori, (Francez hitzcunçac ez du escuarac beçala ...) (99)
• Goardia hartu behar da Futur incertaineco, casu hauïec guciec ... (137)
• ..., batçuetan erraten da je dois, çor dut, eta berçe batenetan ... (196)
• ..., halatan emanen dut berbo gucietan dobleca. (196)
• Dembora gucietan eguiten da gauça bera, ... (218)
• ..., hargatic erran diteque casu gucietan, ... (218)
• Horla behar da curritu dembora gucietan, ... (221)
• Oraiño erraten da batçuetan. Ematen daroïat, ematen diot, ... (223)
• Berce berbo gucietan ere eguiñ deçaquecu gauça bera, ... (224)
• Horiec azqui dire çuri etçagut arazteco ... (224)
• Asqui da horla curritcea ... (225)
• Horrela eguiñen duçu berce casu gucietan ere, ... (227)
• Horrela eguiñen duçu Berbo gucietan etçarcen duçularic ne pas, ... (227)
• ..., en hori cerbitçatcen da orai arthean eman ditudan casuetaz berce alde ... (240)
• Eta y hori ere cerbitçatcen da errateco, hortan, ... (241)
• Le, la, les hauiec ere erran nahi dute, hura, hec, ... (241)
• Goardia hartuco duçu ... behar dela juntatu ... (242)
• ..., hargatic erran dut ez dela premia. (244)
• Hargatic aitciñean behar da eçarri, noiz ere gauça edo presuna baita eguillea, ... (245)
• ..., errateco aita ethorri da, erranen duçu, le pere est venu, ... (245)
• Francesac batçuetan differencia handi bat eguiten du escribatcean, eta prononçatcean, letrac sañiatcen ditu haiñitz aldiz beren indarretan, hemen ematen ditut differencia handienac. (264)
• Horrela eguiñ behar da, berce berbo gucietan ere. (265)
• ... tous mes biens, prononçatcen dire, tou me bien, escribatuac balire bezala, ... (266)
• Seguidan aurquituco dituçu jesueco letrac beçala hitz beharren direnen explicationea edo balioa, ... (266)
• ..., eta hala eguiñen duçu bercetan ere, ... (266)
• (..., eta jaquiñ nahi duçunean cembait francez hitz,) aurquituco duçu [guisa] hartan berean francez hitzac lehenic eçarriac diren dictionarioan, ... (266)
• ... ematen dudanean M, içanen da ordocharen casua, (eta ematen dudanean F, urricharena). (267)
• ..., eta axeguiñ eguiñen darotaçue niri çuen iduria horren gaiñean errateaz ... (507)
• ..., ondoan eguiñ diteque mudança behar dena ... (507)
• ..., eta erreguelacoac dire egoten naiz, goaten naiz, ... (507)

• ... berce partea da escualdunac berce hitzcuncetaric hartuac dituzten hitcen khenceco, hala nola. ... (507)

3. Mendeko esaldi «hautsi» gehiago.

• ..., uste içan ez deçaçunçat badela berce cembait termino hitz hequiençat. (19)
• ..., errateco hori eta hura, ... (24)
• ... orroitcen çarelaric bethi francez hitzcunçan ez dela differenciaric errateco, aita, aitac, ... (31)
• ... errateco, aita hemenda, ... (31)
• (Guardia emoçu) Francesac nola eguiten duen errateco enea, hirea, ... (48)
• (Goardia emoçu) dont hortaz cerbitçatcendirela, duquel, ..., horien casu gucietan. (53)
• ... errateco hic duc, eta hic dun, ... (63)
• (uste dut) onsa eguiñen dudala Abisu ematea iragaitean Escuaran Berboac bi hitcez eguiten direla, ... (87)
• (Emoçu guardia, ...) Horiec gauça bera eraguinen diotela berce berbo guciei ere, ... (99)
• ... goardia ematea çoiñequiñ behar diren juntatu, ... (99)
• (Goardia hartu behar da ...) eguiten dutela, berce errate molde bat, hala nola ... (137)
• ..., Francesac erraten duela compositione bereci batez, ... (219)
• ..., juntatcen dela hirur garren presona bakharren casu guciequin, eta Francesa cerbitçatcen dela termino hortaz hastean nehor itcendatcen ez duen errate gucietan, ... (219-220)
• Emendatcen duelaric enetçat me, ... (220)
• ... çuri etçagut arazteco sañiatcen direlaric je, me, tu, te, ..., Francesean eguiten direla errachqui sañiamendu horiec. (224)
• Emaçu goardia nola eguiten duen Francesac eraguitearen casua ... (224-225)
• ... emendatcen delaric faire, berbo, ... (225)
• ... eta errateco nic eman erazten dut, ... (225-226)
• ..., emendatcen dioçularic, je fais, hari infinitibo behar duçun casucoa (227)
• ... etçarcen duçularic ne pas, ... (227)
• (Uste dut) iadanic etçagutu duçula francesac ematen duela interrogatcean presonen icena guibelean, ... (228)
• ... errateco, hortaric, horietaric, ... (240)
• ... errateco, hortan, hartan, ... (241)
• ..., khendu behar çaiotela azkheneco hitz hauei e, a, i, ... (242)
• ..., erran behar dela mon, son, ... (242)
• ... ez dut uste eguiten dela berboetan baicen ... (244)
• (On da) etçagut deçaçun ..., badirela bi casu berboetan, ... (244)
• ..., eta francesa cerbitçatcen dela termiño horiez differentqui, ... (244)
• ..., errateco aita ethorri da, ... (245)
• (Goardia har eçaçu ...) azquen hitzetan ematen dituela articulu, eta propositioneac, ... (263)
• ..., baiña baldin ondoco hitçac hasten badire lehen erran dugun bortz letra, ..., horietaric, ... (266)
• ..., eta jaquiñ nahi duçunean cembait francez hitz, ... (266)
• ... ematen dudanean M, (içanen da ordocharen casua,) eta ematen dudanean F, (urricharena.) (267)
• (..., badaquizue) haiñitz mudança guisa ematen çaiola escuarari haiñitz herritan ... (506)
• ... liburu hau harcen duçuelaric asaiaca bat beçala, ... (507)

III. (1760-1766) AITA CARDAVERAZEN BERRIKUNTZA GORDINAK.

Cardaverazen testurik inoiz begi aurretik pasa duen edonork, daki, zein bitxi, zein diferente eta arraro egiten den honen idaztankera, bere aurreko, beste euskal idazle guztien aldean; direla iparraldeko maisuak, edota, hegoalde apalagoko dotrinagileak, zeintzuetako batzuk bederen, ezagutzen zituen Aita Cardaverazek.[55] Idaztankera horrek gainera, ez du ere antzik izango, ez bere garaiko inorenarekin (Larramendiren eraginpeko, edo ez); eta ezta ere, geroagoko, ez ipar, ez hegoko, ia inorenarekin.[56] Ezpada jada XX mendearen nahiko barrena, noiz nagusituko diren hegoaldeko idazleen artean, Cardaverazenaren antzitxura bateko idaztankerak.

Eta Cardaverazen hizkeraren bitxitasuna, ez da hiztegi,[57] edo morfologia berezi batena. Cardaverazek ezer propiorik baldin badu, du, joskera. Eta hala jabetu bide dira, orain baino lehenago ere, Cardaverazen lanen gainean zerbait esan duten gehientsuenak, bere garaitik eta gaur eguneraino, dela joskera bitxi hori goraipatzeko, gehientsuenek hobetsi nahi izan duen bezala, edo dela gutxiesteko; segidako testigantzetan ikus litekeen bezala.

Lehenengoetako bat, artean 1766koa, Aita Irakurtzaile Martin de Urrizak emana, Cardaverazen *Aita San Ignacioren bicitza*-ri inprenta bidea ireki nahian (cf. Cardaberaz, *Euskal Lan Guziak -ELG-*, I, 1973, 21 or.):

> ... Su estilo es a mi ver de los mejores que en el vascuence he visto. Las palabras de que se vale son muy propias, las frases que usa elegantes, las cláusulas llenas y desembarazadas, y todo el corriente del decir puro, claro y suave. Escribe en el dialecto de que usan los mas cultos guipuzcoanos, pero dispone con tanta claridad las proposiciones, que con facilidad podran percibirlas aun aquellos Bascongados que se valen de diferentes dialectos, ...[58]

Aita J.M. Zavalak ere, oso bereziki goresten du Cardaverazen joskera, honen hiztegiaz gaztigatu ondoren (*Noticia ...*, 1856, 3 or.; eta 5 or.):

> 17. Cristauaren vicitza, traduccion de Dutari por el P. Agustin Cardaberaz: ...; el vascuence de Cardaveraz no es muy puro; pero abunda de muy buenas espresiones, y tiene una colocacion tan airosa, que con razon merece ser leido, y especialmente el Dutari. /... / 39. Jesus Maria ta Joseren devociñoco liburuchotic ateraricaco devociño batzuec. Es un compendio ..., y le cuadra la misma calificacion, aunque con cierto mayor mérito al elogio, porque, ..., acertó a escribir tambien en vizcaino, ... (5. or.)

J.M. Zavalak orrialde berean hitzegiten du B. Olaechearen Crist[in]auben dotriñiaren gainean ere, esanez orduan (1856, 5 or.):

> ...; tomo en 8.º de doctrina cristiana, y varias practicas y ejercicios piadosos, sacados de las obras de dicho Cardaberaz, en vascuence poco puro, pero que conserva la hermosa colocacion del original.[59]

Jada gure egunotatik gertuago, A. Albisu eta L. Lopetegui ere, J.M. Zavalaren iritzi berdintsukoak ageri dira; hiztegi kontuan, eta, esanguratsuago, joskerarenean. Hala dio aurrenekoak, hainbat zuritu ondoren Cardaverazen garbitasun-eza-edo («Kardaberaz Aita», 1972, 37 or.):

---

[55] Besteak beste, Cardaverazek aipu ageriak jasotzen ditu, esateko, Capanagaren Dotrinarenak, *Jesus, Maria, ta Joseren Devociñoco Librucho*-an (10: 4 or. eta hurr.).

[56] Gure tradizio guztian, uste dugu, beste idazle bakarra ageri dela, Cardaverazi pareka lekiokeena: Zarauzko Escola Maisu Celoso, Gregorio Arrue, bere itzulpen lanetan. Cardaverazen lanen eraginaren inguruan ik. Cardaverazen Eskolari eskeinitako aurreragoko kapitulua.

[57] Nahiz Cardaverazi usu leporatu zaion hiztegi kontuetan, zabarkeria, zarpailkeria, ... Ez da hori ezaugarri esklusiboa Cardaverazena, eta kopiatu zaiona.

[58] Aita Urrizaren aipuak segitzen du: «por lo que juzgo que el sabio y elocuente escritor de este Compendio conseguira no sólo la disyuntiva que decía Horacio, desean los poetas «aut prodesse volunt, aut delectare Poetae» (in Arte Poetica), sino también la copulativa que quería el abad Guerrico «vobis quoque in altero dulcis, in altero fieri desiderans utilis», por lo que juzgo que este Compendio es acreedor a la luz pública. ... Pamplona, a 21 de octubre de 1766.» Baina, garaiak garai, liburuak ez zuen argia ikusiko 1901era arte.

[59] Olaechearen *Dotrinea*-ren bistara ordea, ez dirudi antz gehiegirik gordetzen duenik joskeran, kolokazioan, Cardaverazen estiloarekin. Nola eta ez den, galderak esaldi bukaerara eramateko ohituran. Bada ordea alderik *Dotrinea*-ren lehen bi argitalpenen artean, guk Cardaverazen eraginpeko juzga genezakeena. Ik., Cardaverazen Eskola aztertzen, esanak, Olaechearen inguru, eta kapitulu honetan aurrerago, Cardaverazen idazkeraren ezaugarrien gainean.

> Ala ere, ta euskal-joskerari begiratzen ba-diogu (eta ontantxen dago batizbat euskeraren jatortasuna), Kardaberaz-en euskera, euskerarik ederrenetako bat degula, ezin ukatu al-izango degu. Ez zuan bestela, erri artean, izan zuan bezelako arrera onik izango. Askotan argitaratuak izan bait-ziran bere idazki geienak.

Lopeteguik ere hitz ondo goxoz dio, glosatuaz Urrizaren aurrekoak (*ELG*-I, 32 or.):

> ... Y una vez acostumbrados a los erderismos que nos salen, se gusta también de esa claridad, esa suavidad que percibía Urriza, lo mismo que el desembarazo de sus cláusulas llenas. En este sentido es un maestro de la lengua, aun prescindiendo de que su libro «Eusqueraren berri onac» es realmente un tratado sobre la lengua en un momento culminante de su evolución.

Halaz guztiz, ez dituzte izan denek, horren hitz puztuak, Cardaverazen idazkera juzgatzen. J. Argayak adibidez, Gipuzkoako Gotzai garaian, Cardaverazi omenaldiko bilduman, gogaikarritzat jotzen du, ausart, haren estiloa, berak, beste garaikotzat ematen duena, bai goraipatzen duen bitartean, haren *erakutzi* dotrinalen bikaina (1972, 22-3 or.):

> ... Bere erakutziak gai ontan [Jesusen Biotzaren debozioa] ziñez ziur eta bikañak ziran. Bear bada orduko bere idazkera zerbait gogaitgarri ditekeana, bañan bere jakinduria zuzena, xamurra ta goi-goikoa.

Bera ez da ordea bakarra, halako iritzi iluna duena. Bere garaian, Aita Larramendik ere, zeharka, hartzen du ahotan, Cardaverazen estiloa, iruzkin gaitzeslea egiteko, hain zuzen besteok goraipatutako *esaldi bete, luze*, horien inguruan. Eta dio Larramendik (J.I. Tellechea Idígoras, «Larramendi y Cardaveraz. Censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad», *ASJU*, II, 1968, 12 or.; baita ere, in M. Larramendi *Escritos Breves*):

> ... En las cláusulas largas hai grande obscuridad por no repetir las terminaciones del verbo. No se diga Jaincoa servitu ta amatzeco, sino Jaincoa servitceco ta amatzeco, que es como habla el puro bascongado.[60]

Orixek egingo dio nolanahi Cardaverazen estiloari, iruzkinik gogorrena, gure ustez egokiagoa, goiko balaku guztiak baino. Eta hala esango du bere literatur historia laburrean (1927, 230 or.):

> Kardaberaz. Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idaztankera ez euskalduna geienaz. Oso gizon Jainkotia zen eta Santutzat zedukatena. Bere burubide ta burutapenak oso erderaz ernatzen zituen eta euskeraz ezin esan; …[61]

Eta izan ere, Cardaverazen lanetan ez dira anekdotikoak esaldi ilunak. Maiz, ezin luzeagoak, neurri siniskaitzenetaraino. Esaldi koordinatu sail bukaezinak, aditz jokaturik gabeak, elementu mendekotzailerik gabeak, azken muturreraino; esaldi ilunak, zenbaitetan zail delarik asmatzea, non hasten den bata, non bukatzen aurrekoa. Esaldi ilunak, are idazle berarentzako, tarteka, horren luzeak izaki, bukatu gabe ere geratzen direnak, jada erreferentzia guztiak galduta. Hala gertatzen da Cardaverazen estiloa, bitxi, estraino eta traketsa, motela, geldoa, makala, astuna, ulergaitza.[62]

1. Cardaverazen esaldien luzeraz; eta hauen ahozkeraz.

Cardaverazen estiloaren ezaugarri dira esaldi luzeak, klausula beteak. Adibiderako, *EBO*ren sarrerako 18 esaldiek (errezkadan zenbatzen ditugunak), dituzte:

---

[60] Larramendik segidan diona ere, nahiz zuzenean beste zerbait kritikatzen ari, finean ez da, beste konstatazio berri bat baino (nolabaiteko reprobazioa ere), Cardaverazen estilo ilun horrena: neurriz oso gaineko ohitura, esaldiak errezkadan ematen joateko, soilik hauetako azkenarekin erakusteko aditz laguntzaile jokatu bat. Nolanahi, Larramendik dioena soilik da (*ASJU*, II, 1968, 12 or.): «*Item hai solecismo juntándose infinitivos activos y neutros y rematándolos con terminación del neutro, que viene mal con los activos*.» Ez dakigu zehatz, hitzak noizkoak diren, baina pentsa liteke (cf. Tellechea Idígoras), 1760 aurrekoak, eta egindakoak Cardaverazen *Jesus, Maria ta Joseren devocioa* ... liburuarien zentsuran. Hau, azkenik, 1763an argitaratuko zen, eta agidanean kasu haundiegirik egin gabe Larramendiren aholkuei (bederen guk ezagutu dugun 1766ko berragitalpenean; hango esaldi batzuk jasotzen dira lan honen II ERASKINEAN). Ordea baliteke, Cardaverazek hainbat kontutan hartu izana Larramendiren kritikak, *Jesus, Maria, ...* lanean ez bada ere, bere ondorengoak prestatzerakoan argitaratzeko (eta segurasko *Jesus, Maria, ...* baino lehenago argitaratuko direnak batzuk). Eta hauetan, segurasko ahalegintzen da jada Cardaveraz Larramendik agindutako bidetik, iluntasunarekin borrokan, eta zertxobait arintzen bere esaldi kate horien luzerak.

[61] Nahiz eta segitzen duen: «*...; baino ala ere euskal-idazle gisakoa ziteken euskaldun biziera gai artu balu. Santa Monika'k aurtzaroan izan zuen okerkeritxo bat (edari-galea), ta baserritar baten eriotza ¡zer poliki idatzi zituen!*»

[62] Cardaverazen estilo bereziaz jabetzeko, lagungarri izan liteke, bir-gain-begiratu bat egitea, haren *Eusqueraren Berri Onac -EBO-*, liburu erretorikoa, zabaltzen duen sarrerari, hemen jaso duguna I ERASKINEAN. Eraberean, Cardaverazen idaztankeraren mostra adierazgarri bezala, II ERASKINEAN, jasotzen ditugun aipu aukeratuak, honen obren artetik. Cardaveraz guztia ez da, noski, aipu horiek aditzera eman lezaketen bezain baldarra eta itzal-iluna. Baina hauen bistara, ez dira harritzekoak, Larramendi edo Orixeren kritikak.

(1) 20 hitz / 67 silaba, bukaerako aditzaren aurretik (b.a.a.); denera 22 hitz / 70 silaba.
(2) 12 hitz / 31 silaba (b.a.a.); denera 14 hitz / 33 silaba.
(3) 9 hitz / 25 silaba, mendeko esaldiaren aurretik; honek 13 hitz / 36 silaba (b.a.a) eta honekin 15 hitz / 41 silaba; denera 24 hitz / 66 silaba.
(4) 11 hitz / 30 silaba (b.a.a.); denera 13 hitz / 36 silaba.
(5) 6 hitz / 17 silaba (b.a.a.); denera 8 hitz / 23 silaba.
(6) 8 hitz / 21 silaba (b.a.a.); denera 10 hitz / 24 silaba.
(7) 5 hitz / 17 silaba (b.a.a.); denera 8 hitz / 22 silaba.
(8) 18 hitz / 42 silaba (b.a.a.); denera 20 hitz / 47 silaba.
(9) 27 hitz / 90 silaba (b.a.a.); denera 29 hitz / 95 silaba.
(10) 26 hitz/ 71 silaba (b.a.a.); denera 28 hitz / 75 silaba.
(11) 32 hitz/ 71 silaba (b.a.a.); denera 34 hitz / 76 silaba.
(12) 37 hitz/ 109 silaba (b.a.a.); denera 40 hitz / 116 silaba.
(13) 4 hitz / 9 silaba (b.a.a.); denera 5 hitz / 12 silaba.
(14) 5 hitz / 18 silaba (b.a.a.); denera 7 hitz / 21 silaba.
(16) 7 hitz / 20 silaba (b.a.a.); denera 9 hitz / 24 silaba [mendeko aditza].
(15) 13 hitz/ 34 silaba (b.a.a.); denera 15 hitz / 37 silaba.
(17) 16 hitz/ 42 silaba (b.a.a.); denera 19 hitz / 48 silaba.
(18) 6 hitz / 17 silaba (b.a.a.); denera 9 hitz / 24 silaba.

18 esalditatik 17k ditu 21 silaba baino gehiago, 11k 33tik gora, 8k 47 baino gehiago, 6k 66tik gora, eta azken 2k, 95 eta 116. Kontutan hartuz gero, euskaraz ere beste inguruko hizkuntzen antz batera,[63] ohizko multzo fonikoak mugi litezkeela, 5/10 silaba arteko luzera batean, esan liteke, esaldi guzti horien erdiak gutxienez nahikoa puztuak direla. Eraberean, kontutan harturik euskal ahozkeraren entonazio ohitura batzuk,[64] beharbada, ez da zaila dudan jartzea, inork goraipatu nahi izan duen, Cardaverazen estiloaren arintasuna, dotore, airosotasun, eta enbarazo-eza ponpoxoak.

2. Aditzaren posposizioa.

Cardaverazen joskeraren berezitasuna ordea, ez da bakarrik, esaldien luzerarena. Beste asko dira autoreak, klausula luzeak, eta are oso luzeak, erabili dituztenak, eta horregatik sumatzen ez zaienak Cardaverazi bezalako iluntasunik.[65] Cardaveraz, aurreko beste autore guzti, eta ondorengo gehienengandik, bereizten duen ezaugarri bakarra, da, bere aditzen posposizioarena: Cardaverazen ahalegin neurrigabea, aditza beti eraman nahi izateko, zeinnahi testuingurutan, esaldiaren (edo esaldi kateen) bukaerara. Eta Cardaverazek, gehinean lortu egiten du helburua, zuzen ez bada, trakets (ikusi dugun *EBO*ren sarreran, 18 esalditatik 17tan esate baterako). Hori da Cardaverazen berezitasuna; bere berrikuntza. Gero juzgatu beharko da, ea baliabide horren medioz, erdietsi dituen, edo ez, bere joskerari horren arin aitortu nahi izan zaizkion, *disposición clara de las proposiciones*, eta *colocacion airosa* bezalako ezaugarriak.

2.1. Cardaveraz gramatikagilearen erabaki bat.

Eta, aditz posposatuaren ezaugarria, ez da Cardaverazengan ere, kontzientziarik gabe hartutakoa. *Jesus, Maria, ...* liburuaren *Aita Begiratzaile* ezezagun izango zirenei egindako gutunean (1760 baino lehenagokoa), aldarrikatzen duenez, euskal aditzaren posposizioa, ez da, euskararen ezaugarri pospositibo orokorraren ondorioa baino (*ASJU*, II, 1968, 10-1 orr.):

> Lo 8.º, el bascuence no tiene de suyo preposición alguna y todas son postposiciones y la gala esta en posponer aun los verbos, que por lo regular caen assí con mas elegancia. El no saber hablar bien ni leer y el seguir la construcción literal del castellano hace a malas mañas a los ignorantes.

Erabakia bada, da, ondo *signaté et reflexé*. Cardaverazek gutunean, ez du esaten, zeri posposatu behar zaion aditza, baina berak dudarik gabe ulertzen du, esaldiari posposatu behar zaiola. Eta zinez saiatuko da erregela berria aplikatzen, *dotoretasunengatik* bakarrik izango bada ere, klase guztietako esaldietan: deklaratiboetan nola galderazko, eta are aginduzkoetan; baiezko nola ezezko esaldietan; nagusietan, nola, jada errukirik gabe, mendekoetan. Aurrerago ikusiko dugu guzti hori zehatzago.

---

[63] Cf. adibidez, T. Navarro Tomas-en «El grupo fónico como unidad melódica», *Revista de Filología Hispánica*, I, 1, 3-19 orr..

[64] «Xà», aditza bigarren, fenomenoaren ingurukoak bezala, aditza elementu atono bezala erantsiaz, bere aurreko elementu tonikoenei, maiz berak itxiaz multzo fonikoa, eta berak eraginez ondorenean pausagunea esaldian.

[65] Maisu bakarra aipatzeko, ezin konparatuzkoa da Cardaveraz, Axularren leuntasunarekin, hau ere klausula luze eta beteen zale izan arren.

2.2. Zalantzak Cardavereazen naturaltasunaren gainean, aditz posposizioaren erregela formulatzean.

Cardaverazek Aita Begiratzaileei egindako karta berean, aitortzen zuen, erabat segitzen zuela idatzian bere usuzko euskara (*ASJU*, II, 1968, 10 or.):

> Lo 2.º, no quisiera tanto rigor, antes bien alguna indulgencia en quanto al todo del bascuenze y su método, frases, dialecto y voces: en todo sigo lo usual y mas común de mi bascuenze, y no es facil abrazar todo, aunque de suyo bueno y propio. Por la dificultad y novedad, y mas al principio, uso de mas vozes que quisiera, hasta darme a entender de algún modo.

Aitorpena gora-behera, erraz froga liteke, Cardaverazek ez duela usuzko euskara segitzen, aditz posposizioaren ezaugarriaren inguruan. Hau ez du beste inongo autorek erakusten bere aurretik, ez bere garaian, eta ezta ondorenean, zuzenean ezpada bere jarraitzailea. Ez du ere segitzen horretan, ezagutzen dugun inoizko edo inongo ahozko euskararen eredurik. Baina gainera, segurasko froga liteke, Cardaverazek puntu horretan, ez duela ere segitzen bere euskararen naturala, espontaneoa, bere euskararen *usua eta arrunta*, berak dioen bezala.

Eta izan ere ezagutzen dugu, *ELG*ren argitaratzaile Aita L. Lopeteguiri esker, Cardaverazen beste esku izkriburen bat (eta zuzenketa batzuk ere), beti laburrak, zeharo bestela jokatzen dutenak, aditzaren guneari buruz esaldian. Hala, segidako testua, non oso nabarmena gertatzen den aditzaren aurre-gunea esaldian, eta Cardaverazek idatzi bide zuena, L. Lopeteguik esaten digunez: «*aprovechando la carta del 13 de abril de 1753, del P. Juan de Loyola*», «*Al dorso de la misma carta, todo en blanco, escribió Cardaberaz:*» (*ELG*, I, 40-1 orr.):

> Ad M. D. G. Ihs. et S. Cr. I [Sacrum Cor Iesu]. / Ceruco videa, ta videaco arguia: nola videzcoac ibilli bear diren ceruraco. Christauac jaquin, eta eguin bear duena salvatceco. / Iracurleari avisoa. / Eguintzinduen, Cristaua, gure Jaunac ceruraco eta gorde zaitu gaurco eguneracio [sic] beretzat, edo bera emen ezagutu, eta servitzeco, berari jarraitua ceruco videan, eta guero betico ceruan gozatzeco. Lenegotic [sic] zuzena eguin zuen Jaunac guizona, bere anzera cegoen ondo eguiña, eta cijoan zuzen bere videan [al margen: «Gaitzgabeco Egoitza egitaldia, estadu inocenciacoa]; eguin zuen bere adizquide maite, tan [sic, ta an?] estadu garbi, ta santua [sic] artan eguin cioscan gracia, eta bendicio asco, beretzat, eta bere ondasun ondorengoentzat. Ipiñi zuen Paraisu ederrean ta onec bere ondasun guciaquin izan bear gure Burupea [tachado: jayotzechea] gustientzat. Orduan jarraitzen cion Jaincoari guizonac, eta arrazqui eguiten zuen Jaunaren vorondatea; cerren etzeucan norc eragotzi, eta nola guizona cegoen Jaincoaren mendean berari jarraitzeco [al margen: «gauza gucietan obeditzeco, ta], ala guizoaren gogoac zeuden bearen mendean beti zuzen ibiltzeco; eta era zori oneco orretan etzan araguiaren gaitz guraric, berac guizonac bere vorondate ortaz nai etzuela. Vicibide onetan ezquenduen izango alcar ezin icusiric, aserreric, andinairic, eta beste orrelaco ditugun zazpi pecatuen gaitznairic, bacoitzac bere vorondatez nai etzuela.

Testuaren joskerak, bertako aditzen guneak, ez dauka zerikusirik, Cardaverazek aldarrikatutakoarekin, edo beste zenbait idatzi argitaratuekin. Bai asko, noski, euskal tradizio altxorraren beste adar guztieekin. Aurrerago, Aita Lopeteguik ematen digu, bere iruzkinekin batera, Cardaverazen beste ordenamendu zuzenketa batzuen berri. Jakingarriak gertatzen dira, erakutsitako bi adibideek, prezeski zuzentzen dutelako, aditzaren gunea esaldian. Hala dio (*ELG*, I, 44-5 or.):

> ... Hay también algunos cambios de orden o de disposición. ... (44 or.) / ... / En otras partes mas tarde podemos ver por ej. el título de «Seigarren Pausoa» [Christavaren bicitza, 1760, 72 or.] donde tenemos este título en el manuscrito: «Egun artan pecataric [sic] ez eguiteco propositua, eta Meza enzutea», y en el impreso: «Goizoro propositua eguitea, egun artan ez pecaturic eguiteco, ta Mesa enzutea». / La primera pregunta en el manuscrito en esa parte dice: «G.[aldera] Goicean jaiqui ta janci, ta bereala Cristavac cer eguinbear du? E.[rantzuna] Jaincoari egun onac edolaric eman». / Y en el impreso: «G. Cer eguin bear du Cristauac goicean jaiquitcean bereala? - E. Ematea Jaincoari edolaric egun onac».[66] / Cosas parecidas se pueden repetir casi indefinidamente. / ¿A qué se deben estos cambios? Rara vez a imposiciones. v. gr. de censores. Sino mas bien a diversas copias del mismo Cardaberaz, que al volver sobre el tema introduce pequeñas modificaciones, que le parecieron mejoraban el estilo, la claridad, el ritmo de la lengua, etcétera.

A. Lopeteguik ez du erakusten orden zuzenketa adibide gehiago. Ordea, 1760an argitaratutako testuan ere, ia besterik gabe suma litezke, Cardaverazen zuzenketen aztarrenak direnak. Badirudi Cardaverazek, esaldien aurrealdetik

---

[66] Bere garaian lan hau burutu genuenean, ematen genuen guk hemen, segidako oharra: «Egia esan Lopeteguik eskuizkribukotzat ematen dituen hitzak, 1760an inprimatutako liburuan agertzen dira. Beraz, pentsatzen dugu, honek inprimatutzat ematen dituenak izango direla eskuizkribukoak. Orduan aldatu egingo litzateke hainbat testigantzaren balioa, baina beti emango lukete aditzera, Cardaverazen ohizko erreflexioa, eta sekundarietatea, aditzaren gunearen arazoan euskarazko esaldian.» Geroztik ziurtatu ahal izan dugu Loiolan, Lopeteguik benetan erabili zuela Cardaverazen eskuizkribua, bere begiratuan. Liburu inprimatua ordea, ez zen berak uste bezala, 1760koa, baizik, 1744ko lehenengo argitalpenekoa dirudienez, Loiolan gordetzen den aleari datuok falta bazaizkio ere (eta orrialde asko). Eskuizkribuak, berriz, izan behar du, Cardaverazek eginikoa, 1744ko argitalpena zuzentzen, bere joskera irizpide berriekin, eta erabilitakoa, prezeski, 1760ko argitalpena prestatzeko. Bi argitalpen hauetaz dihardugu, kapitulu honi prestaturiko III eta IV ERASKINETAN. Eraberean, Cardaverazen eskuizkribu berri bat aurkezten dugu, tradiziozko itxuran idatzia, V ERASKINEAN. 1744ko alea aurkitu eta gero, kapituluaren zenbait pasartek galtzen du bere zentzua. Ezin izan dugu ordea hau erabat berregin.

atzealdera aldatzen dituela aditzak (akaso gehiago, esaldiko elementurik konplejuenak pasatzen dituela aditzaren ondoretik esaldiaren hasierara, aurreraxeago arrazoituko dugun moduan). Zenbaitetan ordea, esango litzateke, Cardaverazi ahaztu ere egin ote zaion, esaldiaren aurrealdean zegoen aditz hura ezabatzea, hau atzeratzen duenean, eta errepikatua ematen da bi guneetan, aurrean eta atzean. Hala suma liteke argi segidako esaldian, eta segurasko hurrengoan ere:

(1) ... Oraň nai dizut camio erreal bat, eta Ceruraco bide labur, ta seguru bat eracutsi naidizut; ... (1:53)
(2) ... Eta au da, ta onelaco esan al guciac baño gueiago, andiago, ta obeago da zure ceruco fiña. (3:54)

Ez litzateke harrigarria antzeko adibide gehiago aurkitzea, patxada piska batez miatuz gero Cardaverazen idatzi guztiak. Eta halako datuen ondorioz, beharbada nahikoa arrazoiez egin liteke duda, benetan ote den Cardaverazen euskara arruntaren ezaugarri, aditz posposizioarena. Ala bestela, seguruago, Cardaverazek aldatu egiten ote duen bere ikuspegia eta jokaera, denboran noizbait, joskeraren atal honetan.

2.2.1. Noiz gertatzen da ordea, jarrera aldaketa.

Guk susmoa dugu, Cardaverazek, bere buruarekiko kritika bezala hartu ote zituen, Larramendik 1745ean, Hiztegi Hirukoitzaren Sarreran egiten zituen suzko hitzak predikatzaile zabarren kontra,[67] justu Cardaverazek hain argitaratu berri zuenean, 1744an, bere *Christavaren vicitza*. Larramendik, salaketa horien artean aldarrikatzen zuen euskararen ezaugarri pospositibo orokorra, eta guk susmoa dugu, ez ote zuen Cardaverazek halako iritzien ondorengo erreflexiotik sortu, beste posposizioen artean, euskal aditzaren posposizio ezaugarria.[68]

Puntu hau argitzeko, benetan litzateke interesgarria, 1744ko argitalpena ezagutzea, ondorengoekin alderatzeko. Bestelakoan pentsa liteke, Cardaverazen jarrera aldaketa, ez ote den gertatzen 1753a baino geroago, kontutan hartuz gero, Lopeteguik argitaratutako eskuizkribu, tradiziozkoaren, karta paperaren data. Dena dela, garbi dago, Aita Cardaverazek hartua zuela erabakia 1760 urterako, noiz hasten den argitaratzen, 1766 bitartean, bere liburu sail ugaria, idatzia jada, nabarmen, aditz posposizio orokorraren ezaugarria erabiliaz.

2.3. Ez ote da ordea, aditz posposizioaren arrazoia euskaraz, gordin, hau preposatu egiten dela gazteleraz?

Ez dakigu, noiz, nola, nondik edo zergatik eratortzen duen Cardaverazek euskararentzako, halako erregela tradiziorik gabea gure artean. Segurasko, Cardaverazek berak ematen digu bere arrazoibideetako bat, aipatzen duenean Aita Begiratzaileei eginiko gutunean «*euskaraz denak direla postposizioak*», eta aldiz, «*gaztelaniaren eraikuntza molde literalak jarraitzeak, ez ote dakarzkien maina txarrak ez jakinei*». Egia esan, baliteke hori izatea, Cardaverazen juzkubidea. Ez alferrik esaten ditu gero, *Eusqueraren berri onac* liburuan, Larramendiren zalantza gabeko usia darien hitzen artean, segidakoak (1761, 58 or.):

> ... Latin, edo Gaztelaniatic Eusquerara biurtu nai bada, ori ondo biurtceco, edo traducio onaren legueac gorde beardira: eta ez itzac berac, ezpada oriec esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu, ta Eusqueraz nola ondo esangodan contuz consideratu, ta ori escribitu bearda. / Beste izquerac bezela, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco, ta berariazco ederrac ditu. Baña erdarac era batera, ta Eusquerac bestera. Onec era postpositivo, ta arc prepositivoan. Esan nai du: Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, eusquerac azquenerontz beti botatcen duela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago.

Ergo, gaztelaniaz aditza preposatzen bada, ez ote da euskaraz egin beharko, posposatu? Pentsamenduaren norabide hori, erabat bihurritua dirudien bezala, ez da horren imajina ezina gertatzen, goiko baieztapen motzok egiteko gauza den pertsonagan. Ze ajola dio gero, euskararen tradizio guztiak, bestela jokatzen badu ere?

2.3.1. Ohar bat euskal aditzaren posposizioaren inguru.

Egia esan, arrazoibide hori, ez da ere horren harrigarria gertatzen, behin ezagutuz gero, zenbat eta zenbat euskalzale, zuhurrenetakoek ere, aldarrikatu duten puntu honetan, Cardaverazen ondorenean, eta bederen iritzietan, euskal aditzaren ezaugarri pospositibo hori, konsensu haundi bat balego bezala, eta nahiz eta jakin, tradizioan ez dela horrela egin inoiz, eta nahiz eta askotan, beren praktika idatziak eta ohiturak ere, bestelakoak izan (bereziki ditugu gogoan, Añibarro eta Moguelen kasuak, edo Campion batena).

---

[67] Ikus litezke Larramendiren hitz gordin horietako sail batzuk, bere atalari eginiko ERASKINEAN.

[68] Nolanahi Larramendik, hitz gozoak ditu, Cardaverazen 1744ko liburuaren gainean. Hala dio, P. Berthier-i egindako eskutitz batean (F. Fita, *Galería de Jesuítas ilustres*, Madrid 1880, 244 or.), agidanean, 1748 urtearen erdi aldera idatzitako eskutitzean, Fitak berak dioenez bukaerako oharrean (gutuna, oraintsuago ere izan da berragitaratua: M. Larramendi, *Escritos Breves*): «*Sin embargo, muchos, especialmente de los Nuestros, se han valido de mi trabajo para predicar con mas decencia y eficacia la palabra de Dios y para imprimir algunas cosas de devoción. V. gr. el Padre Agustín Cardaveraz ha traducido la Vida cristiana del Padre Jerónimo Dutari, que en poco cuerpo comprende mucha alma de instrucción y piedad.*»

Guk ez dugu horregatik, alderantziz esango, gure tradizioak gaztelerak bezala jokatzen duenik; baina, ezta ere xinpleki, kontrara. Tradizio horrek baditu bere lege propioak, zalantza haundirik gabe euskararenak direnak, kontu haundirik egin gabe, berdinak diren, edo ez, zein puntutan bai, eta zeinetan ez, gaztelerak, edo frantzesak gordetzen dituztenen aldean. Kurioski bi hizkuntza hauek ere, ez baitute oso berdin jokatzen, maiz ahazten bada ere, beren aditz gunearen inguruan.

Ez dugu ere esan nahiko, euskal aditzaren nolabaiteko posposizioa postulatu duten guzti haiek, ez dutenik berekin batere arrazoirik eta zentzunik. Agian aditza, bai, posposatzen ohi da euskaraz. Kontua ordea, behar luke izan, jakitea, zeri posposatzen zaion, eta zeri ez. Esaldi osoari, Cardaverazek praktikatu bezala? Elementu inkiridoari, Azkue-Altubek proposatu bezala, ohituraz esaldiko elementurik luzeen, konplejuena, ...? Ala, juzku gehiagokoa dirudien bezala, aditza ohituraz posposatuko zaio bakarrik, multzo foniko baten barrenean eta mugetan, beste elementu toniko, nahikoa labur, (eta ia edozein) bati, halako elementurik baldin bada aditzaren multzo foniko beraren mugetan, askozaz ere gertuago, esateko, Abade Ithurryk bere Grameran egiten dituen hitz labur baina zuhurragoetatik?[69]

Sarri asko, elementu toniko labur hori, izan liteke, *Ba-* edo *Ez* partikula, zeini erasten zaion ondoretik aditz laguntzailea. Beste askotan, aditz laguntzaile hau, soilik erantsi eta posposatuko zaio, aditz partizipio nagusiari, kasuko elementu toniko laburra. Bestela, baita ere usu, zeinnahi adberbio, partikula edo hitz anaforiko laburri. Aditza maiz gertatuko da horrela euskaraz (beharbada, aditz jokatua, hobeto), bigarren posizio -posposizio- (atono) batean-edo, bere multzo fonikoaren barne beti. Baina, halako aurre elementu toniko laburrik ez balego bere multzo fonikoaren barne, ez litzaiokeelarik euskal aditza ezerri posposatuko.

Gero, bere barne aditza daraman multzo fonikoa, joango da kokatuta esaldian, maizenik, komunikazioaren baldintza pragmatikoek eskatzen duten gunean, eta bereziki *thème fi rhème*, edo *topic fi comment* bezalako segidek adierazten duten joera (unibertsalen?) arabera, bai esaldien hasiera aldean (oso maiz euskaraz -ere-), erdi aldeann, edo ere bukaeran, hala behar bada.

Nolanahi, euskarazko fenomenoa, beharbada ez da hain urrutikoa, hain desberdina, gure inguruko beste hainbat hizkuntzetan gertatzen direnetatik; hauetan ere, antz batera bidaltzen denean aditza maiz, bigarren posizio batera bere multzo fonikoaren barne, dela sujetoari erantsita ondoretik, ingelesa edo frantzesaren kasuak esatera; dela modu sotilago edo desberdinagoetan, alemanaren, edo beste hizkuntza germanikoren batzuenean; edota akaso nahikoa antzerago oraindik, gureengandik itxura bateko fenomenoetan, hungarieran, gurearen antz batera postulatzen dena ordena libreko hizkuntza bezala. Euskarazko fenomenoa, oraingoz bataiatu dugu, «euskarazko Xà, aditza bigarren, fenomenoa» bezala, eta besteak beste, saiatu gara hau laburbilduta ematen, lehen gerturapen batean, Altuberen eztabaidaren ondorio bezala, Altuberi eskainitako zortzigarren kapituluan.

2.3.2. Cardaveraz eta Larramendi, aditz posposizio ezaugarriaren inguruan.

Izaki Larramendi, Cardaverazen gutuna erantzuten duen Aita Begiratzailea (edo horietako bat behintzat), harrigarria da, nola ez duen honek ezer esaten, aditz posposizioaren inguruko puntuan, bai egiten duen bezala, klausula luzeen iluntasunaren inguruan. Esan nahi ote du, Larramendi bera ere ados zegoela garaian ikuspegi horrekin? Hitzartuta zutela biek puntu hau, sasoian biak bizi zirelarik Loiolan? Ez litzateke horren harrigarria izango, ezagututa, Larramendiren platika pospositibo eta antierderistak, erraz ireki diezaieketenak bide zabala, Cardaverazena bezalako erretorika xinpleenei.

Nolanahi, eraberean izan liteke oso kontutan hartzekoa, nola Cardaverazek gero, *EBO*, euskal erretorikaren liburua argitaratzen duenean, 1761ean, beti gutunaz geroztik, ez duen jada bertan batere aipatzen, euskal aditzaren ezaugarri pospositiborik. Zergatik?, gaia ezin hobeto zihoakionean, … Ez zen iritziz aldatua, ondorengo praktika lekuko. Isiltasuna, harritzekoa da.

3. Cardaverazen aditz preposatuak, halaz eta guztiz.

Erregela berria, Cardaveraz saiatuko da aplikatzen, lehenengo eta behin, baiezko esaldi deklaratiboetan. Nahiz hau, gehiago izango duen beti, asmo on eta deseo, peto bete lezakeen araua baino, eta bere lanek behin eta berriro begiratu eta zuzenduak diruditen arren (ikus litezke honetaz berak esaten dituenak ere, aipatu Aita Begiratzaileei egin gutunean). Aditz atzeratzeak beti izango ditu, Cardaverazenean ere, ezin konta ahala salbuespen.

Esan liteke ordea, Cardaverazengan hainbat eta aditz gehiago aurkitu litekeela esaldien aurrealdean emana (are hasieran

---

[69] Cardaverazek ere eduki zezakeen hala, gaztelania eta euskararen arteko hainbat desberdintasun, eta kontrajartzeen konstantzia, beste euskalzale askok ere daukagun bezala, Altube bera, 150 urte beranduago erakusten saiatzen den bezala, modu xinple batean, aditza eta «X» konplementu batek osatutako kateen jokaera desberdina bi hizkuntzetan: «*Ser bueno / Ona izan; Estar quieto / Geldi egon; Ir a casa / Etxera joan; Comer pan / ogia jan*» bezalako bikoteetan (Cf. Altube, 1929, 13 or.). Bateko «aX» egiturak beti dira bestean «Xà». Gauza bat ordea, izango litzateke, hortik eratortzea, «euskal aditzak beti bigarren leku bat hartzen duela esaldian»; eta beste bat zeharo desberdina, uste izatea «euskal aditzak beti bukatzen duela esaldia, gaztelaniaren *itxulitara*», Cardaveraz / Azkue / Altubek eratorri bide duten itxuran, bakoitzak bere moduan.

bertan ere), ikustera goazen bezala, batetik, zenbat eta lasaiago idazten duen berak, bere gramatika uste normatibista eta reglamentistetatik; eta bestetik, berdintsua dena, zenbat eta beroago, zenbat eta sartuago aurkitzen dugun bere gaian, zenbat eta errazago uzten dion labaintzen bere buruari, labore predikari sutsu eta misiolari propagandistaren uholdean.

3.1. Aditz determinanteak esaldien aurrealdean, ohi bezala, eta galdegaiak atzealdean Cardaverazengan ere.

Salbuespen nagusi bat da, Cardaverazek ohituraz egiten duena, esaldi konposatuetako (konpletibetako-edo) aditz nagusiarekin, usu, eta are gehienean agertuko dena esaldien aurrealde batean Cardaverazen idatzietan (eta are hasieran bertan tarteka). Beharbada, ez alferrik postulatzen du maisu Larramendik Artean, horren agerian, aditz mota hauen ohizko aurregunea euskal esaldian ere. Kasu guzti hauetan, ez da dudarik izango, esaldiko galdegaia doanez, (ia) salbuespenik gabe, esaldiaren atzealdean, eta aditzaren ondoretik. Adibideak ezin ugariagoak dira, eta segidan jasotzen ditugu aukeratu batzuk (askoz gehiago gure ADIBIDETEGIAN, eta nonnahi Cardaverazen idatzietan):[70]

(3) Cura Jaun guciai, ta guraso onai, Jaungoicoagatic erregutcen diet, gazte alperrai, edo seme, ta alabai iracurtcen icasierazo diezatela: ... (1:4)
(4) Chanchetan esan oida, edo Euscaldunac esan oi dute, ...: Adan non cera? esanciola. (2:6)
(5) ..., munduari Jaincoac aditzera emancion, nola ... instrumenturic argalenac bere gloriaren eguitecoric andienetaraco artcencituen; ... (3:4-5)
(6) Eguia da, Jaunac, ..., paguric munduan izango ezdezutela. (4:6)
(7) Zori onecoa zu izateco, zure izate, ta eguiteco gucia dago, Jaincoaren Fedeco, ta Legueco gauzac ondo icasi, ta sinistu, ta orietan, ta oriequin ondo bici, ta ondo iltcean. (5:213)
(8) (O Jesus nerea!) Zuc daquizu ondo nere pecatuen ocasioac ceñ, da nola izan diran. (6:24)
(9) Christiñau fiel guztiac, dagoz chito obligaduric debociñoa artcera euren biotz guztitic, ... (7:3)
(10) Becatua, da esatea, eguitea, edo naiizatea cerbait Jaincoaren Leguearen contra. (8:14)
(11) Guero, Aio onec contatcen zuen, Luisec, bere bician, arc aguindu cion gauzaric utzi etzuela, ... (9:26)
(12) An dacust, celan emeco gure modura verba asco usetan, ta acabetan dituan. An dacust, celan ederto baten diñoan; Curutze Santearen: ... (10:4)

3.1.1. Aditz determinanteak esaldi hasieran bertan.

Aurrealdean emanda ere, ez da Cardaverazen ohitura izango, aditz determinanteak esaldi hasieran bertan ematea, nahiz adibideak, ez diren faltako bere lan guztietan, are hainbat ugari. Hemen segidan batzuk (eta nahikoa gehiago ADIBIDETEGIAN):

(13) Consideratzen det chitezco provechua asiera onetan izango-dezula, ... (1:25)
(14) ...: eta erregutu-cion arren bien penaz lastima cedilla, ... (1:71)
(15) Ematen dizut itza, propositu firmearequin, ..., egun zu ez ofenditceco, ... (1:78)
(16) Icustenzuen onec, ..., beste lagun ari ceñ ondo cijoaquion: ... (1:82)
(17) Oitu beardira, ez emengo Izqueran bacarric, ezpada edoceñ Dialectoan, eta Francia, edo Nafarroaco, edo Bizcaico Libruetan ondo ta trebe iracurtera. (2:19)
(18) ..., ta uste dute, erretorica, eta onen erreglac, ... Eusquerarentzat ezdirala. (2:40)
(19) ..., ta encargatcendu asco, Jaincoari berac emandigun libertade, ta vorondatea biurtcea, ... (3:31)
(20) Esan beardio Sacerdoteac, ... Eleizara joan bearduela. (5:250)
(21) Iracurrico da eguin bear nuen on gucia, ta eguin ez nuela. (6:13)
(22) Eracasten deuscu, Oraciñoaren izatea, edo izana verba asco esatean ez dagoala; ... (10:14)

3.1.2. Aditz determinante trinkoak ere, inoiz, esaldi hasieran.

Euskaraz oro har ere, ez bezala, Cardaverazen lanetan ez dira usuegi aurkitzen aditz trinkoak, esaldi hasieran buruzuri. Ezta ere aditz determinanteak direnean. Bai hala ere, inoiz edo behin, hauen zilegitasuna onartu behar izateko adina, are Cardaverazen sisteman. Segidako hiru kasuok bakarrik aurkitu ditugu, bere lan guztien bosten bat begiratuta:

(23) (Gure Aita Cornelio a Lapidec, Eleizaco Doctore, ta Interprete santuaquin contra atera,)ta dió, Lengoage, edo Izcunde ori Hebreoazala, ... (2:6)
(24) ..., ta dio Santuac, ... animac oracioan sartu bearduela. (3:32)
(25) Diote, ceruco argui ta devocioac beregandic atera oi zuela: ... (12:30)

3.2. Cardaverazen nolanahiko aditzak ere esaldien aurrealdean, eta galdegaiak atzealdean.

Ez dira bakarrik, esaldi konposatuetako aditz determinanteak, Cardaverazek esaldien aurrealde batean ematen dituenak,

---

[70] Adibideetan lehen zenbakiak adierazi nahi du, liburua, gure ADIBIDETEGIAN jasota dagoen ordenan (*ELG*-eko bera), eta bigarrenak jatorrizko liburuko orrialdea.

eta esaldiko prediku, galdegaia nabarmen erakusten dutenak esaldi atzealdean, eta aditzaren ondoretik. Eta kasuan, Cardaverazek eraikitako erregelaren salbuespenok, izango ez badira ere beraiek inoiz erregela, aditz determinanteen kasuan bezala, bai izango dira beti sail ondo ugari bat, kontutan hartu beharrekoa, Cardaverazen zeinnahi klasetako esaldien artean (ondo ikus litekeen bezala gure ADIBIDETEGIAN). Segidan gutxi batzuk handik jasoak:

(26) Libru chiqui onetan, nere Christava, esqueñtcen dizut Maisu andi, ta Misionero jaquintsu baten urte ascotaco neque, ta al-eguin gucien doai bat. (1:3)
(27) (Dembora orretan, guizon orren echeco ciruditen mutill bic Confesoreari eche orretara ots eguincioten;)baña oriec ciran demonio bi. (1:17)
(28) ...; Eusquerac ña, ñe, ñi duen bezala, aoz esateco, ta escribitceco du sa, se, si, so, su: ... (2:25)
(29) ...: eta oni deritza, ta oiec dira A.S. Ignacio-ren Egercicioac. (3:14)
(30) Dembora da caudal bat, balioric andienecoa. (6:21)
(31) Lenengo irurac dagocaz Jangoicoaren onreari, (eta beste zazpiraz [sic] lagun urcoaren onari.) (7:8)
(32) Amar aguinte oec sartzen dira bitan, Jaincoa servitu, ta ... (8:11)
(33) Luis izanzan Ama Virgiñaren Semeric erregalatuena, ... (9:10)
(34) Eta neure aoac esango ditu zure alabanzac. (10:20)
(35) ...: obrac dira amore, señale, ta argumentu seguru enac. (11:8)
(36) ...: orietan batzuec dijoaz gorago, (besteac berago; ...) (12:6)

3.2.1. Nolanahiko aditzak ere esaldi hasieran.

Oro har, Cardaverazek (ere) usuegi erakusten ez baditu bere aditzak esaldi hasieran, ematen dituen gehienak izango dira, aditz determinanteak, eta gutxiengo oso txiki bat baino ez, bestelako aditzen multzoa, nahiz beti esanguratsua. Segidan adibide batzuk (eta beste oso gutxi gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(37) Joaten-ciran gende artera: ta ... (1:61)
(38) ..., ta artu bear dira erremedio errazac, eta seguruac. (1:62)
(39) (Puntu artan acabatuco dira onrac,) acabatuco dira ondasunac, acabatuco dira adisquideac, eta beste gauzac. (6:7)
(40) Acusatuco naute tentatu ninduten deabruac berac: ... (6:9)
(41) (Euria bezala sugarrac etorri,) ta erreco dituzte guizonac, abereac, arbolac, palacioac, jardinac, erriac, eta mundu gucia. (6:16)
(42) Idiguico dituzu, jauna neure ezpanac. (10:20)
(43) Etorrico da dembora, ta laster, ceñean ... (12:7)

3.2.2. Nolanahiko aditz trinkoak esaldi hasieran.

Aditz trinkoak aldiz, gehiago aurki litezke esaldi hasieran buruzuri, aditz arrunten artean, entendimentuzkoetan baino. Hauetako gehienak dira kopulak, eta gainera, galderen erantzun emandakoak, hango aditzaren oihartzun modura (ik. hemen beheko adibide batzuk, eta askoz gehiago ADIBIDETEGIAN). Ez ordea bakarrik halakoak, nahiz aditz trinko hauek, gehienean, testuinguru nahikoa berezietan azaltzen diren esaldi hasieran, elementu oso tematiko, oso topiko direnetan, segidako adibideetan ere sumatu litekeen bezala:

(44) (Nora oa Aleida: nora oa? Aleidac eranzuncion:) Noa, Jaincoaren aurrean nere burua lotsatcera: ... (1:32)
(45) (EMENDIC ATERA BEARDANA.) Nator ya zure beguien aurrean ifintcera Oracio modu bat erracena: ... (1:138)
(46) (..., ta beste Izquerac ez bezalaco neurri justu, ta simetria eguiñ eguiñean, era gucietara ditu, ta euscaldunac daquizqui,) ta darabiltzqui. (2:38)
(47) (..., Jesus-en bide erreal seguru onetatic Cerura joandira,) ta dijoaz beti. (3:7)
(48) (..., ta ez bestetaco eguin cinduen,) ta zauzca Jaincoac. [testuan: zuazca] (3:41)
(49) (..., gucientzat conseju chit ona da; baña oraň zuretzat, Cristava, da gauza bearra:) bada zaude gaitz peligroso onec estutcen zaituela, ... (5:247)
(50) (Trinidade chito Santua cer da?) Da Jangoicoa bera, ... (7:22)
(51) (Icusi dogu, celan daquizun sinistu bear dana,) eta zan aurrenengoa. (Gatozan bigarrenara,) eta da escatu beardana. (7:30)
(52) (Ce gauza dira sacramentuac?) Dira señale aguiri diran batzuec ... (7:48)
(53) (Altaraco Sacramentuan nor dago?) Dago Jesu Cristo, ... (7:72-3)
(54) (Baña cér da Meza?) Da Sacrificio ... bat, ceñean ... Da ... Sacrificio miragarri ura bera. Da ... ofrecitze berri bat. Da azquenic ... dolore, ... (13:45-6)

4. Aditzaren posposizioa baiezko esaldi deklaratiboetan. Galdegaiaren guneaz Cardaverazengan.

Aurreko atalean erakutsitako salbuespen guztiekin, baina, Cardaveraz dudarik gabe, buru belarri ahalegintzen da, oro

har, bere aditza posposatzen, baiezko esaldi deklaratiboetan. Beti lortzen ez badu ere, bai behintzat oso bitxia gertatzen den neurri bateraino, euskal tradizio altxorraren beste iturri guztien aldean. Hala aitortzen dute agerian Añibarrok eta Lardizabalek ere beren gramatiketan, Cardaverazen gainean ari direla, eta ondoren beste askok.

4.1. Galdegaia, esaldi bukaeran emandako aditzaren aurre justuko gunean.

Horrela gertatzen da askotan, Cardaverazek aditza esaldi amaieran ematen duenean, honen aurre justuko gunean gertatzea, prezeski, esaldi predikua edo galdegaia. Esaldiok beteko dute, urte batzuk geroago Altubek unibertsalizatzea lortuko duen euskararen joskera legerik zorrotzena. Eta gehiagotan beteko bada ere esaldi laburretan, beteko da ere, tarteka, luzeagoetan, ikus litekeen bezala segidako adibideetan, eta hainbat ugariago Cardaverazen testuetan:

(55) Ah! Batetic bestera asco dijoa! (2:5)
(56) ...: eta ango bearguilleai gogoa quentceco Jaincoac izquera berriac emanciezten. (2:7)
(57) ...: oiec berroguei ta amabost familia ciran. (2:7)
(58) ..., Maisuric jaquinsuenac, Espiritu Santuaren arguiaz guidatuac, beren ceruco Libruac Lenguage bietan escribitucituzten: ... (2:8-9)
(59) (Erretorica cer da?) "Ars, vel doctrina bene dicendi": Quintilianoc lib. 2. c. 15. dionez, ondo itzeguiteco Arte, edo Dotrina da. (2:39)
(60) Noizean beñ Egemplocho bat contatcea, urrezco iltce batequin bezala, Dotrina gure Euscaldunen biotcean jositcea da. (2:57)
(61) Orren Eguille, edo Autore berezcoa Espiritu Santua izanzan: ... (3:14)
(62) ...: ta Santuac oni COMPOSICIOA deitcendio. (3:32)
(63) Penitencia oietan Aita espiritualaren esana eguin bearda: ... (3:33)
(64) (Emendic, fedearen argui bici onequin vorondatea berotcenda,) ta biotzeco gogo sendoac ateratzera animatcenda, ... (3:37)

4.2. Etena, galdegaia / aditza.

Aitatu erlazioa nolanahi, galdegaia eta aditzaren aurre justuko gunearen artean, ikusi dugu, ez da betetzen, Cardaverazek aditza aurreratzen duenean. Baina ez da ere sikiera beteko,, aditza esaldi bukaeran-edo ematen duen kasu batzuetan baino. Asko eta askotan gertatuko da ezin eten nabarmenago bat, beste nolanahiko elementuak tartekatuaz, aurretiko galdegai bat, eta ondoko aditzaren artean. Kuantifikazio zehatzik egin ez dugun arren, eman dezagun fenomenoa gertatzen dela, Cardaverazek aditza esaldi atzealdean ematen duen kasuen erdi inguru batean, edo nolanahi ere behintzat, oso proportzio altu batean.

4.2.1. Koma bat, galdegaia eta aditzaren artean.

Horrela, bederen kuriosoa gertatzen da ikustea, nola zenbaitetan Cardaverazek koma bat ere idazten duen, esaldiko aditzaren aurrean, adieraziaz dudarik gabe, halako pausa, eten edo isilune bat, aditza eta honen aurreko prediku logikoa (edo dena delakoaren artean). Bi zatiak balira bezala Cardaverazentzat, nabarmen, bi multzo foniko desberdinen parte. Adibide batzuk emango ditugu, liburuetan maiz aurki litezkeenen artetik:[71]

(65) Ecin au eguingo dezula, pensatcea, deabruaren lazo bat, anima asco nasturic daucatciena, da. (1:25)
(66) Orien artean gueiena zure animan aguintcen duenari, zure peligro, eta etsairic andiena bezala, beguiratu beardiozu: ... (1:54)
(67) Oguei urteac aimbeste genderi eracasten igaro, eta Marcelo Victorio bere adisquide laztanaren erreguz, onen Semearentzat, amabi Libru, munduan chit estimatuac, oraň LETRA EDERRAC deriztenac ondo icasten asitceco, eguincituen. (2:4)
(68) Orren girabuelta, ta era ascotaco aimbeste aldaera miragarriaz, iru dialectoetan, cer armoniazco musica gozoaz, ta escualdi ceñ cabalaz Verboa bateric bestera darabillen, ta jocatcen duen icusi, edo enzuteac, zoradezaque Cristava: ... (2:32)
(69) Erretoricaren Arte onec ondo itzeguiten eracusteco erregletan, bere edergarri, edo itzaldiaren apaindurac, Tropo, ta Figurac deriztenac, ditu. (2:39)
(70) Tropo edo aldaera, batzuetan itz batean, Metaphora deritzana bezala, eguitenda: … (2:39)
(71) Estudioric zuen galdetu, ta etzuela, esancidan. (2:44)

---

[71] Adibide guzti hauetan, nola galdegaia / aditza etena erakutsi nahi duten hurrengoetan ere, kontutan hartu behar da, beti zaila dela ziurtatzea, bakarrik adibideen bistara, eta testuinguru zabalagorik gabe, esaldiaren aurrealdean doan elementu hura den benetan, esaldiko elementurik predikatiboena, galdegaia. Bada Schuchardten definitzen duen antzera («Das Folgende ist immer Prädicat, das Vorausgehende Subject», cf. Lazaro Carreter, 1953, 331 or.), aurretik esana beti gertatzen da, esaldian, zaharragoa eta ezagunagoa (nahiz eta testuinguruan, hura izan zati predikatiboagoa), ondoren esana baino, nolarebait beti berriagoa esaldiaren eremuan (nahiz eta testuinguruaren arabera, guztiz aurresuposatzeko modukoa izan, edo soilik errepikapen, *afterthought* tematiko, edo topikoa. Ez da egongo testura jotzea bezalakorik, disfuntzio horiez jabetzeko behar bezala.

(72) Gauza guciac, Zu nic amatcea, naidute, ... (4:23)
(73) Ce gauza, da gracia? (7:48)
(74) Argatic, ta ala egunean zazpi bider urte orietan Aingueruac Ceru etara, ango canta, ta musicac aditcera, jasotcen zuten. (11:15)

4.2.2. Beste elementu tematikoago/topiko/atonoago batzuk tartekatzen, galdegaia eta aditzaren artean, usu Cardaverazengan.

Aditzaren aurreko koma anekdotikoen aldean, zerbait gehiago dira, Cardaverazek etengabe ematen dituen zeinnahi moduko esaldiak, beste elementu, tematikoago, topikoago, eta atonoagoren bat tartekatua erakusten dutena, esaldiko prediku logiko aurreratua, eta aditzaren artean, oso joskera bitxiak eraginaz, jada suma litekeen bezala goiko adidideetako batzuetan. Hala nola adibidez, segidako (75) esaldia, zuzen konparatu litekeena goragoko (62)-arekin, eta guk prezeski jaso duguna, kontrara, galdegaia/aditza lotura "altubetarraren" adierazle bezala (Cardaverazek bietan ematen du maiuskulaz idatzia galdegaia-edo):

(75) ...: ta prestatce oni ORACIO PREPARATORIA Santuac deitcen dio, ... (3:31)
(62) ...: ta Santuac oni COMPOSICIOA deitcendio. (3:32)

Antzeko adibideak ugari baino ugariagoak dira Cardaverazen edozein lanetan. Eta ez bakarrik oso esaldi luzeetan, hauetan fenomenoa arruntagoa izango bada ere beti (eta askotan zaila erabakitzen, ik. aurreko ataleko oharra). Guk ADIBIDETEGIAN bildu nahi izan ditugu argienak, halako asko eta asko utziaz testuetan bildu gabe, ilunagoak izan zitezkeelakoan testuingururik gabe. Abiapuntu honetatik ere, berrirakur litezke, adibidez, *EBO* Sarrerako, 6, 9, 10, 11 edo 18 esaldiak. Hemen segidan adibide batzuk, ADIBIDETEGITIK aukeratuak, laburrenen artekoak:

(76) Zure eriotzaco ordua azquenic etorricoda. (1:9)
(77) ...: ur bedeicatuaz Santuac eman cion, ta len zan bezala, andrea gueratuzan. (1:72)
(78) Escribitcen asi baño lenago munduan itceguitenzan. (2:14)
(79) Latinari Eusquerac garraitzendio onetan: ... (2:24)
(80) Euscalduna bacera, aleric oartu gabe, ta alacoric ez baliz bezala, neque gabe, zuc itzeguitean, or escribitudan bezala, beti esatendezu. (2:28)
(81) ..., Loiolaco Eche zori onecoan Ignacio beregantzen Jaungoicoa asizan: ... (3:3-4)
(82) ...: Izarren artean Eguzquia, Jaincoaren arteco Ispillua, ta anima fielen bicitza, Jaunac berac dion bezala, zuec cerate: ... (4:4)
(83) Onac, eta gaistoac era batera oraň bici dira: ... (6:19)
(84) (It[auna]. Jangoicozco iru Personetatic ceň eguin zan Guizon? / Er[antzuna]. Bigarrena, ceň dan Semea. / It. Aitea eguin zan Guizon? / Er. Ez, Jauna.) It. Espiritu Santua Guizon eguinzan? (Er. Ez, jauna. / It. Ceň bada? / Er. Bacarric Semea ceňeri ...) (7:24)
(85) ...: argatic filigranazco virtute fiňa, mea, ezcutatu, barrencoia onen bicia izanzan. (9:13)
(86) ...: eta au chito ascotan Elessac aguinduten deuscu, ... (10:7)
(87) ...: deseo andi batec oni eman cion A.S. Franciscu-ren Gorputz Sagradua icusteco: ... (11:28)
(88) Doai berdiňa, edo doaietan berdiňa Isidroc esan naidu, ... (12:17)
(89) Santu gai andia chiquitatic Isidro izan zan, ... (12:18)
(90) An biciera berri edo Noviciaduan Ignacio sartu zan. (15:38)

4.2.2.1. Cardaverazek aditz aurre justuko gunean, eta predikuaren ondoren, erakusten dituen konplementu klaseen gainean.

Asko eta askotan dira konplementu hauek elementu adberbial laburrak (nola, (76) *azquenic*; (80) *beti*; (83) *oraň*; edo antzekoak *chit, asco, guero, emen, an, ederqui, obe, arguiro, berez, ondo, ozta ...*, nonnahi aurkitu litezkeenak). Beste askotan dira, beste nolanahiko elementu laburrak, nabarmen anaforikoak esaldien testuinguruan (nola, (77) *Santuac, andrea*; (78) *munduan*; (79) *Eusquerac*; (82) *zuec*; (85) *onen bicia*; (86) *Elessac*; (87) *oni*; (88) *Isidroc*; (89) *Isidro*; (90) *Ignacio*). Elementu anaforiko labur horien artean beste edozein baino usuago tartekatzen du Cardaverazek aditzaren aurrean, *au* erakuslea. Askotan ezin anaforikoagoa, testuinguruaren bistara, nola adibiderako segidako kasu nabarmenak (beren testuinguruan):

(91) Ta zuc cerorrec beharbada au icusi dezu, ... (1:65)
(92) (Cristavac, lurrean bicidan artean, eguiteco andiagoric ezdu, paquean Jaincoaren gracian illtcea baño.) Zure, ta nere eguitecoric bearrena au da. Jesu Cristoc Evangelioan dion gauza bacarra, ta bearra au da. ([Eta aldiz segidan:] Au da Jaunaren misericordia gucien andiena, doai gucien doaia, gracia gucien gracia. Au da ceruco Atearen guiltza, mesede gucien sillua, meritu gucien saria, ta favore gucien coroa.) (4:214)
(93) (Eriotza cordelac estutuaz dijoa; ta erioa postaca dator.) Cristavaren atceneco Pausoa au da. ([Eta lerrokada berean aurrerago:] ... Au da atceneco Sacramentua, ta animaren sendagarria.) (4:237)

4.2.2.2. Suposizio bat Cardaverazen lan moduen gainean.

Kuriosoa da jabetzea nola, prezeski Cardaverazek tartekatzen dituen elementu klase horiek diren, partikula adberbialak, eta anaforikoak, laburrak, maiz jokatzen dutenak euskaraz elementu toniko preberbalen papera, zeintzuei erasten zaien

aditza bigarren elementu (atono) bezala, multzo foniko bere baten barne, ohizko «Xà» egitura batean. Euskal tradizioan dudarik gabe, «Xà» egitura hauek bideratzen ohi dute, esaldien aurrealde batean kokatuta, esaldi hauen sarrera, eta lotura modua aurreko testuinguruarekin, nola, ondoretik ematen ohi den esaldiko prediku nagusiarekin, (94) bezala aurkez litekeen egitura batean:

(94) {partikula labur tonikoa + aditza + prediku luze (eta tonikoa)}

Cardaverazek, euskal aditza posposatu behar dela erabakitzen duenean, esango litzateke, maiz asko ez zaiola gauza hoberik bururatzen, esaldiaren guztiz aurrealdera aldatzea, printzipioz, modurik tradiziozkoenean, aditzaren ondoretik eman ohi zituen (eta are lehen idazketa batean idatzita zituen) elementu predikatiboak, baina batere ukitu gabe utziaz gero, aditzak lehenagotik osatua zuen «Xà» egitura, kasuan zegokion partikula labur -eta joskera hartan, tonikoa zen harekin-, eta eraginez (95) bezalako egitura bitxiak:

(95) {prediku luze (tonikoa)+ [partikula labur (tonikoa zena)+ aditza]}

Hori beti suposizio bat izango bada ere, agian esplika litezke horrela, Cardaverazen joskeraren bitxikerietako asko. Joku bat eginez, pentsa liteke adibidez, arrazoi bide piskaren batekin, 92, 93 bezalako esaldiak ez ote zituen hasiera batean Cardaverazek idatziak, 92a, 93a bezala, tradiziozko modu batera, beren testuingurukoak ere zeuden itxura berean:

(92) Zure, ta nere eguitecoric bearrena au da.
Jesu Cristoc Evangelioan dion gauza bacarra, ta bearra au da.
(92a) Au da zure, ta nere eguitecoric bearrena.
Au da Jesu Cristoc Evangelioan dion gauza bacarra, ta bearra.
(93) Cristavaren atceneco Pausoa au da.
(93a) Au da Cristavaren atceneco Pausoa.

Antzeko suposizioak egin litezke goiko beste esaldi asko, eta are gehienekin. Beharbada ez hain desbideratuak, Cardaverazi ezagutu dizkiogun eskuizkribu eta zuzenketak kontuan. Hala batzuk:

(76) Zure eriotzaco ordua azquenic etorricoda. (1:9)
(76a) Azquenic etorrico da zure eriotzaco ordua.
(77) ur bedeicatuaz Santuac eman cion, ta len zan bezala, andrea gueratuzan. (1:72)
(77a) Santuac eman cion ur bedeicatuaz, ta andrea gueratuzan len zan bezala.
(78) Escribitcen asi baño lenago munduan itceguitenzan. (2:14)
(78a) Munduan itceguitenzan escribitcen asi baño lenago.
(79) Latinari Eusquerac garraitcendio onetan: ... (2:24)
(79a) Eusquerac garraitcendio onetan Latinari.
(83) Onac, eta gaistoac era batera oraň bici dira: ... (6:19)
(83a) Oraň bici dira onac eta gaistoac era batera.
(88) Doai berdiña, edo doaietan berdiña Isidroc esan naidu, ... (12:17)
(88a) Isidroc esan naidu, doai berdiña, edo doaietan berdiña, ...
(89) Santu gai andia chiquitatic Isidro izan zan, ... (12:18)
(89a) Isidro izan zan, Santu gai andia chiquitatic, ...

Eta abar luze bat egin zitekeen, Cardaverazen antzeko egiturekin. Baina suposaketak alde bat utzita, Cardaverazek, idazten duen eran idazten du; eta bere ohizko joskera horren ondorio, maiz gertatzen da, esaldiko galdegaiak ez izatea, ez esaldi amaiera aldeko gunea aditzaren ondoretik (gure tradizio nagusian bezala, joera agidanean nahiko unibertsalak segiaz), baina ezta ere, aditzaren aurreko gunea, Azkue-Altubek predikatuko duten bezala. Cardaverazengan, bere jarraitzaileengan bezala (eman dezagun Arrue, sutsuen bezala), galdegaiak maiz hartuko du esaldi aurrealdeko postua (ezpada zuzenean esaldi hasierakoa), eta kontutan hartu gabe, doan edo ez doan, aditzaren aurrean.[72]

Ezin bitxiagoak gertatuko dira eraberean, Cardaverazen joskera bitxi hauen entonatu nahiak, euskal doinu apurren batekin. Aditzak, elementu topiko/tematiko batzuei ondoretik erantsita, kontestu horietan inola ere tonikoak (edo tonikoenak) izan ezin litezkeen elementuei, esaldiko prediku logiko nagusi, eta tonikoenen ondoretik doazen bezala. Zergatik ez die Cardaverazek azken hauei erasten aditza zuzenean, naturalagoa-edo litzatekeen bezala?[73]

---

[72] Segurasko, idazle hauen testigantzak babestu zezakeen nolabait, Azkue gaztearen Izkindeako ordenamendu doktrina, esaldi hasierako gunea defendatzen duenean, elementu inkiridoaren gune prezis bezala (zuzen Astarloagandiko iritzia), batere erreferentziarik gabe aditz guneari.

[73] Esango litzateke, Cardaverazen jarraitzaile zuhurrago batzuk, jabetzen direla arazoaz. Bidenabar Guerrico edo Lardizabal bat, zeintzuk, bakoitzak bere neurrian, usu praktikatuko duten aditzaren atzeratzea. Ordea, Cardaverazek ez bezala, hau sarriago erantsiko diote esaldiko prediku nagusiari, elementu tonikoenari, beste partikula topiko/tematiko laburragoei baino, zeinak emango

Ondorio fidagarri bat erator bagenezake azken eztabaida guzti honetatik, esan behar, Cardaverazengan ez dagoela inola sustatzerik, erlazio zuzenik, galdegaia, eta aditzaren aurreko gunearen artean, tarteka erlazio hori ere emango den arren. Cardaverazen ezaugarri, bestelako esaldi etenak izango dira, segidakoen antzekoak, errepikatzearen poderioz, bere ikurra ere bihurtu direnak:

(96) Baña, gure Pobrecho on ascoren animac salvatceco, euscarac burua jasotcea, Jaincoac naidu: gure Baserrietan gende prestuac dirauten artean, Euscarac iraungodu. (2:10)

5. Aditzaren posposizio errukigabea mendeko esaldietan.

Hau izango da eremua, Cardaverazek aditzaren posposizioa aplikatuko duena, askoz ere salbuespen gutxiagorekin, esaldi nagusien eremuan ikusi duguna baino. Adibiderako begira litezke *EBO*ren sarrerako guztiak. Egia da, euskal tradizio zabalenean ere, oro har, maizago amaitzen direla aditzaz mendeko esaldiak, nagusiak baino, eta hainbat eta errazago, zenbat eta laburragoak esaldiak.[74] Cardaverazek nolanahi, erruz gaindituko ditu proportzio guztiak.

Aditzak ahalik eta gehien atzeratu nahian, eta mendeko esaldiaren konplementu guztiak aurretik eman beharrean, Cardaveraz behartua gertatzen da maiz, haustera, euskarazko aditzak, mendeko esaldietan ere, osatu ohi dituen ohizko perifrasiak, ohizko entonazioak, ohizko «Xà» egiturak, ohiturazko hainbat elementu labur tonikorekin. Eta hala, maiz erakutsiko ditu, mendeko esaldietan ere, joskera gutxienez bitxiak, bakoitzaren testuinguruan. Adibideak nonnahi aurki litezke Cardaverazen testuetan, eta segidan batzuk:

(97) (Consideratzendet) chitezco provechosoa asiera onetan izango-dezula, (ta confesio generala eguitea, aleguin guciaz aguintcen-dizula.) (1:25)
(98) (... esatendio:) Eguzquiari aurrea guc artzea (convenida, ...) (1:73)
(99) (...contatcen-dute,)oficiale bi oficio batecoac erri batean bicicirala. (1:81-2)
(100) (Esan nahi du: ...,) ta beren lecuan ondo itzac esatea, edo escribitcea. (2:14)
(101) (...dacus, Eusqueraren Gramaticac ceñ arrazoi andiaz nai, ta escatcen duen,) Escolamutillac baño escolamaisuac ori obeto jaquin bear dutela: ... (2:20)
(102) (Gauza ciertoa da,) Gramaticac dituen zortci parteac, esamenic aldatequean estuenaz, Maisuen Maisuac bezala an ematen dituela. (2:30-1)
(103) Figuraquin itzac mudatcea, Artearen erreglaquin, ta ederquiro beren lecuan itzac ifintcea (da.) (2:39-40)
(104) Duque andi orañdic zala ... (3:6)
(105) Ondo oiec eguiteco, (... beguien aurrean iduqui beardezu, ...) (3:24)
(106) (Aviso ematendu,) contuz beguiac gordetceco, ..., paquean, soseguz, ta humillago biotza iduquitceco. (3:33)
(107) (... norc esanlezaque,) Ceruraco Jaincoac eguin, ta emanicaco Espiritu asco balio duen bat zuc daucazula? (3:50)
(108) (..., icusiric,) criatura guciac Jaincoaren esana eguiten, fin orretara ain zucen beti dijoazela: ... (3:58)

Esaldi nagusien kasuan egin dugun bezala, ez litzateke batere zaila imajinatzea, hala moduzko esaldien lehen idaztaldi bat, tradiziozkoagoa, eta artean konplementuak erakutsiaz mendeko aditzaren ondoretik.

5.1. Zehar galderak. Eta ezezko konpletibak.

Bereziki gertatzen dira Cardaverazengan, oso joskera bitxikoak, aditza ezin gehiagoan atzeratuta, galdegile bidez osatutako zehar galdera gehienak, edo *-la* atzizki bidezko ezezko konpletibak.

5.1.1. Zehar galdera galdegiledunak.

Hain estua izaki euskaraz ohituraz, galdegile eta aditzen arteko lotura («Xà» egitura), euskal tradizio guztiaren zalantza gabeko joera da, lotura hori mantentzen segitzearena, are galdera zuzenak zehar galdera bihurtuak direnean; emanez orduan maiz beste konplementu guztiak, aditzaren (eta honi erantsitako *-(e)n* elementu mendekotzailearen) ondoretik. Cardaverazek oso maiz hausten du joera hori (ez beti hala ere), beste zeinnahi konplementu tartekatuz, galdegilea eta aditzaren artean, hau esaldiaren bukaerara eraman nahian, eta hautsiaz euskarazko aditzaren «Xà» moduko perifrasi

---

diren, zeharo esaldi hasieran, edo aditzaren ondorenean (*afterthought* modura edo, tema/topikoen errekuperatzaile gisara). Aukera horiek emango lizkigukete, segidako (a) edo (b) egitura moduak:

(a) {partikula topiko/tematiko laburra + prediku luze tonikoa + aditza}
(b) {prediku luze tonikoa + aditza + partikula toniko/tematiko laburra}

Hain zuzen, gero Altubek predikatuko dituenak, eta hainbat sustraituak senti litezkeenak era horretako praktiken ondorenetik, Cardaverazen Eskola Giputzeko jarraitzaileen artean hainbat zabalduak XIX mendean. (Ik. zabalago, eskolari eskainitako saioan.)

[74] Proportzioen gainean, ikus liteke orain, gure azken lana, *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*.

ohikoenetako bat.[75] Adibideak kontaezinak dira. Segidan batzuk:

(109) (Onec etcequien,) cer caltea bere buruari ecarri cion. (1:46)
(110) (...: urrengo egunean eracutsico ciola,) nondic bere ondasunac ateratcencituen. (1:83)
(111) Noiz, ta nondic, edo nola gure eusquera onontz etorrizan (norc daqui?) (2:7)
(112) Nolaco erreverenciaz Dotrina artubeardan. (2:50)
(113) (I. da,) certaco Jaincoac eguin cinduen. (3:40)
(114) (... jaquiñic ondo,) nor, ta nolacoa zu izango ciñan, ... (3:42)
(115) (Bacenequien ...,) ni nor, ta nolacoa orain izango nintzan: ...(3:44)
(116) Cein gaizqui zure amorioa pagatu dizudan! (3:48)
(117) (Gogora ecartzu, ...) noraco Jaincoac zauzcan. (3:48)
(118) (... ezagutcendezu,) cer ondasun, cer joia estimagarria, cer margarita preciosoa, zure Animan Jaincoac emantcizun. (3:50)

5.1.2. Ezezko konpletiba -LA atzizkidunak.

Euskal tradizioaren joera nahiko nabarmena da, ezezko esaldi konpletibetan, *-la* atzizkia erantsita daraman aditz jokatua ez ematearena esaldiaren bukaeran. Aditz trinkoa bada, beste konplementu batzuk eman ohi direlako haren ondoretik, batzuk dituen orduko. Eta askoz gutxiago aditz konposatuak baldin badira, orduan aditz nagusia eman ohi baita laguntzaile atzizkidunaren ondoretik. Cardaverazek, bi joerak hausten ditu ohituraz (beti ez bada ere), aditz jokatu atzizkidunak emanez esaldien bukaeran.[76] Adibide gutxi batzuk segidan:

(119) (... esan daquieque:) Astoaren aoraco eztia eztala (2:30)
(120) (... uste dute,) Erretorica, eta onen erreglac, ta armonia ederra Latiñarentzat baicic, edo Eusquerarentzat ezdirala. (2:40)
(121) (... diot,) Eusqueraz, Erdaraz edo latiñez itzeguitea, ta bear diran erreglaquin ondo itzeguitea, guztia bat ezdala. (2:44)
(122) (... alabatcen zala,) lau boz edo itz oiec: ATOMO, ECLIPSE, HOGUERA, ta HORIZONTE, inorc ere eusqueraz emango etziozcala. (2:46)
(123) (..., esan nai eztu,) Eusquerac berariazco itz garbi, ta berezcoac gauzentzat ezdituela, (3:29)
(124) (Iracurrico da eguin bear nuen on gucia,) ta eguin ez nuela. (6:13)
(125) (... contatcen zuen,) Luisec, bere bician, arc aguindu cion gauzaric utzi etzuela, ... (9:26)
(126) (Eracasten deuscu,) Oraciñoaren izatea, edo izana verba asco esatean ez dagoala; ... (10:14)
(127) Deabruac icusiric alde onetatic ecer ateratcen etzuela, ... (14:43-4)

5.2. Salbuespenak: Cardaverazen «mendeko esaldi hautsiak».

Esan bezala, kontua ez da, Cardaverazek ez duela salbuespenik erakusten, mendeko esaldietako aditzak atzeratzeko garaian, gure ADIBIDETEGIAN ikus litekeen bezala. Bai ordea esan liteke, Cardaverazen mendeko esaldi hautsiak, konplementuren bat erakusten dutenak, aditzaren eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen ondoretik, askoz gutxiago direla, gure tradizioaren beste edozein adarretan baino. Mostrarako aukeratu ditugu batzuk:

(128) ...: Libru on bat iracurten duela batec, guciac enzunaz, ... (1:4)
(129) …, galtzen badu bere anima … (1:4)
(130) …; baña onec icusiric aren animaren estadua, … (1:15)
(131) Araco irugarren egunean joanzanean Elizara eramatecio, … (1:83)
(132) ..., icusiric ceñ erraz ari ori arc utci, ta milla pusca eguingonintzaquean. (4:37)
(133) Testigu dirala San Josef maitea, nere aingueru Goardacoa, ... (5:223)
(134) (Seigarrena, sinistu, Ceruetara igo ebala,) eta jarriric dagoala Aita Jangoico guztiz poderosoen escumatati. (7:12)
(135) Nola Amandreac ascotan esan oi zuen, nai zuqueala chit, Seme bat guztia Jaincoarena Religioan izatea: ... (9:26)

134 esaldian ikus litekeenez, Cardaverazek ez dauka behintzat erabateko eragozpenik, testuinguru bere berean elkarren segidan emateko, mendeko esaldi hautsi eta hautsigabeak.

5.3. Erlatibozko esaldiak, izen mugagabearen ondotik.

Larramendik Artean halako egiturak gaitzetsi arren, badakigu berak erabiltzen zituela, eta berak bezala, bere jarraitzaile Mendiburuk. Baita ere, erruz, Cardaverazek, ikustera goazen bezala. Ez dira, noski, Cardaverazek erabiltzen dituen erlatibozko egitura ugarienak, baina bai gutxiengo ondo kualifikatu bat, berak arintasun haundiz erabiltzen duena, beste egitura asko ez bezala. Hala nola segidako adibideetan:

---

[75] Bestalde, galdera zuzen nagusietan ere egingo duen bezala (ik. lan honetan bertan aurrerago).

[76] Cardaverazen joera honek, dudarik gabe du zerikusia ere, ezezko esaldien inguruan duen jarrera orokorrarekin, aurrerago aipatuko dugun bezala.

(136) Soldadu ausardiaz, ta carga ichiaz erasotcen ezduenac (gutxitan bitoria irabacicodu.) (1:12)
(137) (...: zure Jaungoico,) ta zure Aingueru, lotan zauden artean, lagun eguin, ta gorde zaituztenac, ... (1:76)
(138) (Argatic) Maisu, ta Guraso umeai eracatsi beardienac, (ori ondo eguiteco Erreglac bearrago dituzte.) (2:16)
(139) Juiciozco Maisu, Jaincoaren celoa duenac (erraz dacus, ...) (2:20)
(140) Espiritu Santu, egun oietan etorrizanac (gure biotzac emen arguitu, ta ...) (2:61)
(141) Ceruco Libru miragarri, mundu guztiaren oneraco, Euscaldun bati ceruac emana, ta gure Eusquerac noizbait icusi bearzuena, (... zure escuetan artcendezu.) (3:3)
(142) (Ta au da eguiaz Egercicio oien) testimonio, gloria, ta alabanza pareric eztuena. (3:21)
(143) San Franciscoren Seme urte ascoan Jaincoa servituzuen batec, ... (3:21-2)
(144) (Egercicio bacoitzac, ...) bere fin, edo frutu oraciotic atera bear dana (du berez: ...) (3:37)
(145) Ay calte pareric eztuena! (3:46)
(146) (..., ta norc esanlezaque,) Ceruraco Jaincoac eguin, ta emanicaco Espiritu asco balio duen bat (zuc dezula ...) (3:50)
(147) (Ce gauza dira Sacramenduac? Dira) señale aguiri diran batzuec (Cristo gure Jaunac emonac, ...) (7:48)
(148) (Luis izanzan) Aurcho Jaincoaren escuac bere contura artu zuena, ... (9:7)
(149) (Luis izanzan) Aurcho Espiritu divinoaren sugar bici, suaveac bezala, besoetan artcen zutenen biotzac bereala devocio gozo batean irazaqui, ta urtutzen cituena. (9:8)
(150) ... gueure Eusqueraren Erregla seguru, ta eder, beti gorde bear dozuna (au da: ...) (10:9-10)
(151) (An) San Longinos Centurion Erromaco partez cebillena (Jesu Christo gana biurtuzan: ...) (11:18)
(152) Aita Santu, orduan zana, (duda andi batean jarri, ...) (11:32)
(153) ..., Aingueru catea dunac bezala, ... (11:41-2)
(154) ... eta aimbeste milla anima an ceudenac, ... (11:49)
(155) (Ala eracusten du) Concilio Lateranense, Inocencio irugarrenaren demboran eguin izandu zanac. (12:3)
(156) Cristau òn, ascotan confesatcen cerana, ... (13:31)
(157) (... zuzendu oi zuen) Aita Miguel Elizalde, Jesuita, eta esan al baño jaquintsuago zan Teologo sonatuac, ... (14:48)
(158) ... Santu Borjaren mirari bigarrenic eztuenac (an icusi ciran.) (15:9-10)

5.3.1. Epiteto relatiboak, aditz jokaturik gabe.

Cardaverazek beste askotan emango ditu, antzeko esaldi epiteto relatiboak izen mugagabearen ondoretik, aditz jokatu gabe batez, zenbaitetan zeharo adjetibo bihurtua (edo are eliptikoa), euskaraz, oro har, ohiturazkoak ere badiren egitura maduetan. Zerikusi estua dute noski egitura hauek, ikusi berri ditugun erlatibozko esaldi apositiboekin. Gutxi batzuk hemen segidan:

(159) (... Dotrina gaiac, ..., dirade, ...,) Confesio, ta Comunio gaizqui eguindacoen gañean: ... (2:52-3)
(160) Aita Recupito, ondo iltceco Libru baten eguilleac (contatcendu, ...) (5:235)
(161) (San Luis izanzan) Aurcho alde gucietara prodigioso bat, (eta ..., virtuteen amorezco señaleac eman ciozcana. / Luis izanzan Aurcho Jaincoaren escuac bere contura artu zuena, ...) (9:7)
(162) ...: eta Serafin eder Gurutcean josi bat (aguertu citzaion, ...) (11:22)
(163) (Guizona da) Gorputz ta Anima, graciaz Jaunac bere antzera eguiña. (12:2)
(164) (Baña cér da Meza? Da) Sacrificio, edo ofrenda Divino, milagroz betericaco bat, (ceñean ...) (13:45)

6. Cardaverazen aditz posposizio erabatekoa. Erabaki, guztiz artifizial baten, testigantza berriak.

Behin Cardaverazek, aditza esaldiari posposatzeko erabakia hartzen duenean, euskaraz, gaztelaniarekiko independentzia zeinu bezala-edo, ez du aurrerantzean berezitasun handiegirik egingo, esaldi klase desberdinen artean. Eta modurik kontranaturarenean, aplikatu nahiko die aditz posposizioa, are euskaraz ere, garai eta alderdi guztietako euskara klase guztietan (eta ez bakarrik gaztelaniaz), aditza (ia) beti esaldi aurrealdean (edo hasieran bertan), eraman ohi duten egiturei. Hala, Cardaverazek atzeratu nahiko ditu, XX mendeko iraultza sintaktikoen ondoren ere, inor, esaldi bukaerara bidaltzera ausartu ez den aditzak; bereziki: 1.- Ezezko esaldietan, trinko, nola konposatuetan; 2.- Aginterazkoetan; 3.- Galderetan, bereziki, galdegile bidezkoetan, baina denetan ere; 4.- Are *Ba-* aurrizki baieztatzailez osatutakoetan zenbaitetan.[77] Esaldi guztiok bihurtuko dira hala, froga agiri berri bat, Cardaverazen aditz posposizioaren erabakiaren artifizioarena.

6.1. EZ operadore modala, eta honi erantsitako aditz jokatua, esaldi bukaerara.

Dudarik gabe hau izango da, Cardaverazen idaztankeraren ezaugarri nabarmenenetako bat. Ia ezezko partikula erantsita duten adiz jokatu guztiak bidaliko ditu bere lanik zainduenetan, eta nolanahi ere oso maiz, beren esaldien bukaerara. Joera hau, jada nahiko bitxia gertatzen dena aditz trinkoen kasuan, ezin harrigarriagoa bihurtzen da aditz

[77] Ez dugu esan nahi, egitura horietan Cardaverazek ematen ez dituenik aditzak beste posizioetan ere. Soilik, berak atzeratzen dituela, beste euskal tradizioetan erabat neurriz bestelakoa gertatzen den proportzioetan.

konposatuenean, aditz nagusia emanez jokatuaren (eta *EZ* partikularen) aurretik, ohizko inbersiorik gabe.[78]

Gure tradizioan antzeman liteke halako joera bat, mendeko esaldi mota desberdinetan. Are aurki liteke halako posposizioen adibideren bat edo beste esaldi nagusietan. Cardaverazengan ordea ia legea dira esaldi nagusietan, eta ere, inbertsio eza beste inork praktikatzen ez duen mendeko esaldien artean ere (nola gorago ikusitako *-la* atzizki bidezko konpletiben kasuan). Cardaverazek agidanean ondo aprobetxatzen du Larramendik Artean, esaldi hauei egiten dien neurriz gaineko propaganda. Cardaverazi hobeto egokitzen zaizkio, ezezko esaldi nagusi inbertsio gabeak, inbersio dunak baino, bere aditz posposizioaren erregelaren inguru; eta horrela erabiltzen ditu, segurasko, egiten duen proportzio neurrigabean. Joerak, eskola egingo du, Larramendiren jarraitzaileen artean, baina batez ere Cardaverazen Eskolako ezaugarri bezala. Cardaverazen adibide batzuk segidan:

6.1.1. Aditz konposatuak ezezko esaldien bukaeretan (edo).

(165) ..., cergatic iñorc ecer esaten ezdio? (1:5)
(166) Zure salvacioraco beste devociotan fede gueiago iduqui bear ezdezu, ... (1:64-5)
(167) ..., Ta ala iñoiz ere atcerapen, ta embarazo gueiago etsaiac ifiñtcen ezdizu, ... (1:65)
(168) ...: bada Jaincoaz, ta Ceruaz guchiago iñoiz ere oroitcen etcera, ... (1:66)
(169) ...: ta illoro ... goiz bat, edolaric ordu pare bat zure salvacio arentzat izango ezta? (1:66)
(170) Baña beguira: zure conciencia esaminatuaz, contentatu bear ezdezu. (1:68)
(171) Gure Eusquerac bazter oietan orrelaco Guizaseme andien patu onic izan eztu. (2:9)
(172) ..., ta ori eragozten ezdiete. (2:18)
(173) Ala ez Escolan, ta ez Gramatican Euscara beñere utzi bear ezta. (2:18)
(174) Guc horrelaco aspiracio begemente edo behementeric usatzen ezdegu. (2:23)

6.1.2. Aditz trinkoak ezezko esaldien bukaeretan (edo).

(175) Baldin ez bazaude, escusaric ezdezu. (1:66)
(176) ...: Au beorra ezta, ta antzic ere eztu. (1:72)
(177) ...: Adisquidea: nic Eleizara joan nai badet, zure bearric ezdet: ... (1:83)
(178) Baña Eusquerac, Gaztelaniac bezala, aidetasun orren urcoa, nola dan umeaquin amarena, ta Latiñaren ume nola datequean, edo nondic batac bestearen antza duen, probatcea, orren erraz ezta. (2:8)
(179) ...: ta ori gauza berria ezta. (2:11)
(180) Guisa onetan, edo bestean itzeguitea, ferian edo dendan erosten dan gauza ezta: ... (2:15)
(181) Quen ortic: gure Eusquera suave eztizcoarentzat soñu ori ezta. (2:23)
(182) Eusqueraren gauzaren batzuren gañean A. Larramendi bera ere eracusten dituen gauza, ta erreglaren batzuez contentu ez oida: ... (2:26)
(183) ...; baña juicioa duenac nequeric batere eztu, ... (2:28)
(184) Beste parteac, Verboaren aldean cericusiric ezdute. (2:32)

6.2. Aginterazko aditzen posposizioa.

Euskaraz ere, beste hizkuntza askotan bezala, ohitura da, aginterazko aditzak ematea, beren berezitasun pragmatikoengatik, esaldien hasiera edo aurrealdean. Ez da, ezin litezkeenik inoiz eman, komunikazio baldintza pragmatiko berezietan, esaldiaren bukaera aldera. Baina Cardaverazek, zehar neurriz gaineko maiztasun batez emango ditu (nahiz eta beste gune ohizkoagoetan ere erakutsi). Adibide batzuk jasotzen ditugu, joeraren artifizialtasunaren idea eta neurria eman lezaketenak:

(185) Besteren batec, nic baño osasun, ta lecu gueiagorequin Eusquerazco gauzac obeto moldatu artean, erraz ta ondo escribitceco urrengo Erregla oiec zuc gorde itzazu. (2:21)
(186) Oraň Eusqueraren Gramatica ederra icustera goacen. (2:29)
(187) Gure errietara gatocen. (3:7)
(188) Eguin beardezun eguitecoa eguizu. Osasuna dezun artean, zure jabe zeran artean, Testamentua eguizu; ... (Fac, quod faciendum est: fac testamentum, dum tuus es: ... (5:220-1)
(189) ERIOtzara BAñO LEN JUZTICIA EGUIZU. (5:223)
(190) Zeuc bata, edo bestea, gura dozuna orrelangoetan esazu. (10:3-4)
(191) (Gauza ona dà; baña beguira zuc ondo,) eta conseju aù seguru gorde zazu. (13:17)
(192) (..., Contriciozco Actua viotcetic eguin,) ta Pater Noster, Ave maria, ta Gloria bat egunero, baña Fede vici, Esperantza firme, ta Amorio aundiaz esazu; ... (13:18)
(193) Neretzat, edo urliarentzat, nic escatcen dizudan onelaco favorea, alcanza zadazu. (13:19)
(194) (Orregatic ez utcí: Guezurra da; Ez sinistu,) Confesore onaren esana eguizu, (Ara: ...) (13:32)
(195) Ta zure vildurren artean contu cierto aù eguin ezazu: ... (13:32)

[78] Fenomeno, beharbada oraindik zerbait maizago gertatzen dena, Cardaverazen ezezko galderetan, eta beharbada datuak izan lezake garrantzirik.

(196) ...; Eta al dezun federic vicien, ta amorioric iracequienaz zure viotcean deseoz comulgazaitea. (13:37)
(197) ...: Esan dàn fede vici eta amorioaz Viotcetic, zure modura esayozu. (13:37)
(198) ...: Ta zure bendicio, eta amorioz nere anima seculaco beté zazu. (13:41)
(199) (Bestela nic merezi ez det, Zu nere viotceco Etchean sartzea.) Baña itz bat esazu, (ta ...) (13:42)

6.3. Aditz posposizioa galderetan: joskera bitxiak.

Beti ez bada ere, Cardaverazek, aditzaren posposizio erregela aplikatzen du, baita ere bitxiki, galdegile bidez osatzen diren galdera moduetara (antzeko joera ikusi dugu gorago zehar galderetan, mendeko esaldien artean). Hauek, zeinanhi euskara klasetan (Cardaverazenean ere maiz), usuenik, esaldien hasieran bertan erakusten dute, edo bederen hauen aurrekalde batean, galdegilea eta aditzaren artean osatutako «Xà» egitura-perifrasi estua. Cardaverazek, erabat neurriz gaineko proportzio batean eraman nahiko ditu galdera hauetako aditzak ere esaldi bukaeretaraino. Eta baliatuko da horretarako bi bide desberdinez, biak ere, ez oso naturalak euskal joskeraren eremuetan.

Edota, bat, eramango du esaldi bukaerara galdegileak eta aditzak osaturiko perifrasi osoa, ohizko joskeretatik nahikoa urrun, eta bitxi (nahiz hori beti izan aukera posibleetako bat euskaraz, baldintza pragmatiko berezietan). Edota, bi, are bitxiago oraindik, hautsiko du perifrasi estu hori, eta aditza bakarrik eramango du esaldi bukaera aldera, bere ohizko gunean utziz galdegilea, eta bien artean tartekatuaz esaldiko zenbait konplementu. Eraginez hala, gu *galdera hautsiak* deitzen gatozen egiturak, nolaznahi gure tradizioan beste leku askotan ere aurki litezkeenak, nahiz beti proportzio txikiagoan. Bi joeretako adibideak ugari baino ugariago aurki litezke Cardaverazenean, eta segidan batzuk:

6.3.1. Cardaverazen galdera hautsiak.

Gure ADIBIDETEGITIK aukeratu batzuk:

(200) Oriec quentceco, cergatic orrembeste eguin bearda? (1:35)
(201) Zure propositiuac noiz añ valienteac izangodira, nola San Pedro renac, ...? (1:41)
(202) Cer penitenciac bacoitcean asco servitu-codigu? (1:50)
(203) Aste-oro, edo amabostean beñ cer gauza gucien gañean artu bear dezu? (1:63)
(204) Nondic orrembeste irabaci ateratcendezu, ta aimbeste genderentzat, nola echean dezun? (1:82-3)
(205) Euscalerrian nola gauza onic izangóda? (2:17)
(206) Nola zuc servitudezu? (3:43)
(207) Nori seculan gogoraco citzaion onelaco gauzaric? (3:60)
(208) Nor zuri itzeguitera atrevitucoda? (4:21)
(209) Ta zure amorez nola ni deseguiten eznaz? (4:35)
(210) Norc, tristezac utciric, eguiazco alegria biotcean artuco ezdu? (5:241)
(211) Norc onelaco visitan Jaunaren misericordia gucia beregan artu, ta beretzat betico naico ezdu? (5:242)
(212) Nic gogotic artzen ezpadet, norc nigatic artucodu? (6:2)

6.3.2. Cardaverazen galderak esaldi bukaeran.

(213) Orañ bertan, edo puntu au nere azquenecoa baliz, nizaz cer izango litzaque? (6:7)
(214) Cristiñau en señalea ceñ da? (7:13)
(215) Virtute ori Curutceac nundi dau? (7:17)
(216) Jesu Cristo gure jauna ill ezquero jatsizan infernuaz cer adietan dozu? (7:26)
(217) Aita Jangoicoen escumatati jarri, ta egotea, cer da? (7:27)
(218) Biciac eta, illac juzgaetara noss etorricoda? (7:27)
(219) Santuen Comunioa sinisetandot, essaten dozunean, cer sinisetandozu? (7:28)
(220) Oraciñoen artean onena ceñ da? (7:31)
(221) Virgina Maria gure Ama Andrea nor da? (7:36)
(222) Sentiduac, ta beste osterantceco miembruac Jangoicoac cetaco emon euscuzan? (7:59)[79]

Aztertu beharko litzateke Cardaverazen galderen joskera berezi hauek eragin duten eskola bere ondorenean. Erraz segi liteke galdera hautsien arrastoa, Cardaverazen Eskolako jarraitzaileen artean, aditz posposizio orokorraren beste hainbat ezaugarrirekin batera. Galderak esaldi bukaeran ematearen joera berriz, guk ez dugu bereziki aztertu, ez aurreko, eta ez ondorengo idazleen artean, nahiz erraz suma litekeen, esateko, Olaechearen *Dotrine*-an.

[79] Hemen erakutsitako adibide guztiak dira Cardaverazen bizkaierazko dotrinatik aterak. Baditu adibideak beste testuetan ere. Hemen ordea ezin ugariagoak, eta pilatuagoak. Gogora liteke zentzu honetan, Capanagak ere, usu erabiltzen dituela antzeko egiturak, bere 100 urte lehenagoko dotrinan, zierto dakiguna Cardaverazek ezagutzen zuela.

6.3.3. Bai/ez galdera orokorrak Cardaverazengan.

Cardaverazen galderen joskera moduez hitzegiten, aipa liteke, nola honek, esaldi deklaratiboetan bezalaxe erakusten duen joera, aditza esaldi bukaerara eramateko, baita ere *bai/ez* galdera orokorretan. Baita ere, horretarako hautsi behar baditu zenbaitetan, aditzak galdera termino zuzenarekin osatuko lukeen «Xà» moduko lotura estua, hurrengo bi adibideetan suma litekeen legez:

(223) (Cer da au?) Zure zori onaren igues horrela zabiltza? (3:71)
(224) (Aitea eguin zan Guizon? Ez, Jauna.) Espiritu Santua Guizon eguinzan? (Ez, Jauna. Ceñ bada?) (7:24)

6.4. BA- aurrizki-dun aditzak esaldi bukaeran.

Cardaverazek, euskaraz ohi bezala, joera nagusia erakusten du, *Ba-* aurrizki baieztatzailedun aditzak emateko, esaldi hasieran bertan (oso maiz), edo bederen hauen aurrealde batean. Hala ere, erakusten ditu halako aditzak emanak esaldien bukaeran, esan genezake, ezohizkoa gertatzen den maiztasun batean, nabarmen hegoaldeko beste autoreen aldean, baina baita ere iparreko tradizio diferentearen aurrean. Euskaraz ez da ezinezkoa noski, esaldiak egitura horretan ematea, baina Cardaverazen hainbat esaldi gertatzen dira gutxienez bitxi, eta behartuak bezala. Horrela adibide batzuk joeraren erakusgarri (are tartean aditz konposatu bidez eginak ere, 229):

(225) Izcunde estimatu oiec biac ere beren oreñac, edo tachac bacituzten len; ... (2:9)
(226) (X, x. Equix au Eusquerac berez iñoizere bear eztu: ta ori ez usatcea aurrentzat obeda:) g, edo gea orren lecuan badegu: ... (2:23)
(227) Latinac orretan bere erreglac baditu. (2:27)
(228) (...: ta icustendegu, Euscaldun gazte ascoc Gaztelaniaz baño lenago Latinez, ta obeto icastendutela.) Eusquerac neque oiec beste Lengoageac berenac bezala baditu ere, bere alivio, ta erregaliac ere baditu. (2:33)
(229) ...: Eta jauna, zure mesedeac etorquizuna bazau? (Ez, Andrea. Baquizu, Etorquizuna celangoa dan? Ez, Andrea.) Etorquizunagaz ian, edo edan bozu, edo beragaz bici izan bazara? (2:43)
(230) Ala Bizcaian, nola emen celo andico Sacerdote Jaun, ta animen Artzai Lecio au ondo artcen dutenac dirala badaquit. (2:51)
(231) Au berau eguiten duten beste Arzai onac badira. (2:61)
(232) (Ta cer dicha gueiago: Certaco eguin cinduen, certaco zauzca munduan?) Beste eguitecoric badezu? (3:72)
(233) ...: bada, Santiago Apostoloac dion bezala, Sacramentu onec virtute ori badu. (5:249)
(234) (...: Jauna, esan cion,) Berorrec guizonai aguintzeco escua badu; (baña elementuai ez: ...) (8:36)
(235) Aita espiritual maite ascoc, Confesore onàren eguitecoric bearrena cér dan, badaquite: ... (13:11)

7. Aditz posposizioaren eragina, Cardaverazen idaztankeraren iluntasunean.

Esana eta arrazoitua dugu beste lekutan, eta laburbildua Altuberen eztabaidaren ondorio handien artean (Kap. VIIIaren bukaeran), nola euskarazo aditzak osatzen duen, esaldien marku predikatiboaren ohizko parte nagusi bat. Batetik, bere ohizko pisu semantikoagatik, maiz bihurtzen duena aditza, esaldiko beste elementu guztien nukleatzaile semantikoa edo marku interpretatiboa, eta eraberean, maiz asko ere bai, lotura zubi semantikoa esaldiaren aurretestuarekiko.

Bestetik berriz, aditz jokatuak bereganatzen du euskaraz, pisu morfologiko oso berezi bat, bere barne adierazi ohi dituen pertsona, numero, denbora, aspektu eta modu, ezaugarri morfologiko oso aberatsei eskerrak, eta maiz asko bihurtzen dutenak euskal aditz laguntzailea, batetik, esaldiko beste elementu zenbaiten nukleatzaile morfologiko nagusia, eta bestetik, baita ere, lotura zubi morfologiko nagusi bat, aurretestuko hainbat elementu erreferentzialekiko. Ezaugarriok ere, berez bihurarazten dute aditz hori, esaldiaren marku predikatiboaren ohizko parte nagusi bat.

Eta euskarazko aditzak ere, esaldi bateko marku predikatiboa, hau da, marku tematiko eta modala, eraikitzen, paper nagusi bat joka lezakeen beste edozein partek bezala, oro har, joera erakutsi du, gure ahozko nola idatzizko tradizioan, gehienean joateko, esaldien aurrekalde batean, gure tradizioak ezin hobeto erakusten duen bezala. Nahiz eta gero, euskarazko aditza (aditz jokatua bederen) gehienean agertu, bere multzo foniko, edo esaldi segmentuaren barne, «Xà» moduko egitura baten bigarren elementu (atono)pospositibo modura.

Eraberean bestalde, esaldiko prediku nagusiak joera erakutsi ohi du, euskaraz ere (eta agian lege unibertsalago batzuen ildotik), garai eta alderdi guztietako euskara klase guztietan, agertzeko, esaldien bukaera aldera. Eta beraz, eta gehienean, baita ere, aditzaren ondoretik. Nolaz eta esaldiak ez diren oso oso laburrak, zein kasutan, eta beraz oso kondizio pragmatiko berezietan, prediku nagusi hori agertu ere ohi den esaldien aurrealdean, orduan esaldiko aditza arrastatuko duelarik bere ondoretik (hau agerian ematekoa bada), ohizko «Xà» egitura, perifrasi estu batean.

Euskarak nolanahi, orden libreko hizkuntza-edo izaki neurri haundi batean, eskeintzen du hala ere aukera gramatikala,

aditzak esaldian aurrerago edo atzerago eramateko, hiztunaren aukeran, eta honen baldintzapen pragmatikoen arabera. Bi joera horiek ordea, aditzak ohituraz aurreratzeak, edo atzeratzeak, ez dituzte eragingo ondorio estilistiko berdinak testuetan.[80]

Aditzen ohizko aurreratzeak, kontakizunaren arintasun eta azkartasun efektua eragingo duen bitartean, eta are oraindik testuen erraztasun eta samurtasunarena (maiz bideratuko duen heinean {*marku predikatiboa fi predikazioaren muina; topic fi comment; thème fi rhème*}-edo sekuentziazio, maiz desiragarria, esaldiko elementuen artean); aditzaren ohizko atzeratzeak, efektu modura eragingo du, Cardaverazen testuetan erruz dasta litekeen bezala, kontakizunaren geldotasuna, testuen astuntasuna eta makaltasuna, eta esaldien ulermen prozesuen nekosotasun paregabea (aditzen atzeratze artifizial horrek, maiz hausterazten duen neurrian esaldietan, hauen *marku predikatiboa fi predikazioaren muina* sekuentziazio desiragarria, eta aldiz, usu emanarazten duelako, esaldien egitura komunikatibo egoki hori, alderantziz: esaldien amaierarako utziaraziaz, aditzek berez aditzera ematen dituzten lotura elementu, tematiko, modal, semantiko eta morfologiko, esaldiaren eta honen aurretestuaren nukleatzaileak; hain zuzen, ezaugarri guzti hauek emanez, aldiz, esaldien aurrealdean emango liratekeen prediku elementu luze eta ezezagunen ondorenerako; eraginez horrela, *predikuaren muina fi marku predikatiboa* egitura modu bat, oro har, eta behin eta berriro errepikatuta, anti-komunikatiboa bihurtzen dena).

7.1. Cardaverazen iluntasun propioagoak.

Aditzaren posposizio orokorretik eratorritako ondorio arbuiagarriei, erasten bazaie, Cardaverazek aditzaren atzeratze prozesu artifizial horretan, ez errespetatzea, ikusten gatozen bezala, euskarazko aditzaren joerak, ohizko «Xà» moduko perifrasietarako, bere aurrean emandako elementurik tonikoenari erantsita multzo foniko bakar baten barne; orduan, hasten dira geldotasun eta astuntasunak bihurtzen, makaltasun eta trakestasun, zeinen eredu izan litekeen Cardaveraz.

7.1.1. Cardaverazen esaldi koordinazio eta justaposizio oso bereziak.

Guzti honi erantsi behar, jada Larramendik bere kritikan ohararazten zigun Cardaverazen joera, koordinazio/justaposizio soil batean emateko, aditz (eta esaldi) nagusi eta mendekoen kate ezin luzeagoak, bukaerara arte eman gabe aditz jokatuak eta atzizki mendekotzaileak, nabarmen den bezala Cardaverazen testu guztietan (ik. besteak beste II ERASKINEKO adibide aukeratuak), eta Cardaveraz berak ere onartzen duen bezala.[81] Guzti honen ondorioz, Cardaverazen aditzak, maiz, ez dira bakarrik joango, beren esaldiaren amaieran, baizik eta esaldi sorta kateatu ikaragarri batzuen bukaeran. Halako zenbaitetan, ia soilik nabarituko da, hitz arteko iluntasuna, eta beren joskera gertatuko da, korapilatsua, zaila, eta traketsa. Orixek salatu moduan, zenbaitetan desastrea nahiko totala izango da.

8. Ohar batzuk, amaitzeko.

Esanak esanda gero, jada oso garrantzizkoak izango ez badira ere, egin nahi genuke oraindik oharren bat, Cardaverazen beste uste eta praktika sintaktiko zenbaiti dagozkienak.

8.1. Joskera oharrak Eusqueraren berri onac liburuan.

Apenas Cardaverazen obra guztian zehar beste pisuzko aipamen ageririk badagoen joskera puntuen gainean. Inoiz hitzen bat: «*..., ta Adjetivo, edo beste Icenari eransi, ta darraiona ...*» esaten du adibidez (*EBO*, 37 or.). Apenas ezer gehiagorik, ezpada, nola agertzen-edo duen *EBO*n, nahikoa apal, euskarazko posposizioen ezaugarria, erakusten ari delarik, Larramendiri jarraiki, orazioak, edo gramatikak, dituen zortzi parteak, latinez eta euskaraz. Hala dio (*EBO*, 30-1 orr.)

---

[80] Ik. besteak beste, Mitxelenaren, «Relato y orden de palabras», in «Miscelanea Filológica Vasca I», *FLV* X, 29, 1978, 220-224, eta oraintsuago, in *Palabras y Textos*, 377-382, non konparatzen dituen Mitxelenak, Lardizabalen eta Aguirre Asteasukoaren estiloak, bakoitza joera hauetako baten eredu-edo.

[81] Hala aitortuz erantzuten dio Cardaverazek Larramendiri, apal-itxura nahian, haren zentsurako kritiken inguruan (*ASJU*, 2, 1968, 19 or.): «Lo 4.º y 5.º que dice V.Rev sobre cláusulas largas, tiene razón: servitu ta amatzeco, icusi ta artzeco y otras muchas tengo, y le hacía, por abreviar lo escrito y no tenía yo otro motivo. Tengo muy presentes y he leído con gusto muchas veces los avisos de V.Rev. sobre esto en el Prólogo. En lo de juntar los artículos procuraré hacerlo en adelante y me alegro de los de los verbos. Es cierto lo de juntar infinitivos activos y neutros y su disonancia con la terminación del neutro. Pido perdón y tengo voluntad de emendarme. Mas no prometo el acierto, por falta de conocimiento practico y a lo menos actual advertencia. Son muy pocos los que con rigor saben el bascuence según toda su estensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de sus conjugaciones; ni yo soy de estos pocos, y acaso sera V.Rev. solo y no ay mas. Si con reñirme mas y mas de gana, pudiera V.Rev. infundirme o meterme en esta mala y dolorida cabeza parte de su noticia y conocimiento de todo el bascuence, me haría un favor inestimable. ...»

> Gauza ciertoa da, Gramaticac dituen zortci parteac, esamen ic al datequean estuenaz, Maisuen Maisuac [Larramendik] bezala an [Artean] ematen dituela. Zortci parte oiec Latiñez dira: "Nomen, Pronomen, Verbum, Participium, Præpositio, Adverbium, Interjectio, Conjunctio", ta Euscarac orrela beste zortci ditu: "Icena, Orticena, edo Pronombrea, Verbo, edo Erasquitza, Participio, edo Partartcea, Preposicio ordean, Posposicioa du, edo Beitematea, Verboari darraizcana, edo Adverbioa, Interjecio, edo Ezartea, ta Conjuncio, edo Itsasquida, ceren parte bata bestearequin lotutcenduen. / ... Latiñac Cum preposicio, edo aurretic dijoana bezala Eusquerac Quin posposicio, edo ondorengoa chit asco usatcendu. Orren lecuan Bizcaian dute Gaz.

8.1.1. Adberbioaren guneaz.

Cardaverazek euskaratzen ditu orazio parteen izenak, Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren laguntzaz. Eta handik hartzen ere du, zalantza haundirik gabe, adberbioa definitzeko darabilen parafrasia, *Verboari darraizcana, edo Adverbioa*. Izan ere, dio Larramendik Hiztegian (1745, 32-3 orr.):

> Adverbio, ala deitzen diogu verboari darraican eraiscun bati, eta aren adierazia nolatzen duenari, eguin, orra verboa; gaizqui, ondó, ederqui, itsusqui, orra adverbioac, verboaren adieracia nolatzen dutenac. Lat. Adverbium, ij.

Edonorengan ere, gordin samarra gertatzen da adberbioaren halako definizio kalko bat euskararen bistara, non adberbioek oso maiz jokatzen duten, elementu topiko/tematiko preberbalen papera, elementu toniko laburrak, zeini erasten zaien maiz aditza, ohizko «Xà» perifrasi moduan. Automatikoa dirudi berriz, Cardaverazen mimetismoak, Larramendi, eta tradizo erromantzearekiko; prezeski, honek postulatzen eta horen setati praktikatzen duenean aditzaren posposizio orokorra (eta berak ere oso maiz ematen dituenean, ikusi dugu, adberbioak aditzaren aurreko gunean, «Xà» egituran).[82]

8.2. -ko izenlagunen guneaz.

Euskal tradizio osoan horren usu bezala, Cardaverazek ere ez du inolako eragozpenik, *-ko* izenlagunak emateko, mugatzen duten izen haren aurretik, gehienean, baina ondoretik ere bai, askoz gutxiagotan izango bada ere, segidako esaldiak kasu:

> (236) ..., Aita Santu Erromacoaren ... (3:6)
> (237) ... gorderic dauden etsai echeco oriec (dira gaiztoenac: ...) (3:11)
> (238) (..., ta argui batequin) Oracio devociozco bat (esango dizu, ...) (5:238)
> (239) ... Nescacha baserrico bizcaitar bat ... (13:5)

8.3. Noiz eta- juntagailuaren erabilera.

Maisu Larramendik bere Artean gaitzetsita (berak bere idatzietan erabili arren), Cardaverazek ere ez dio debekuan kasorik egingo maisuari. Hiru adibide segidan, erabilkera frogatzeko adina (bietan galdera erantzun bezala kurioski):

> (240) (Ay cer caltea au! Ay biotceco damu, ta odolezco negarren cer gaia au!) Noiz eta guchiena uste nuen, eriotza etorricitequean. (3:134)
> (241) (Noiz dira mortalac?) Noiz ta Jaincoaren, eta lagun urcoaren Caridade, edo amorioaren contra diran. (7:49)
> (242) (Eta noiz dira caridadearen contra?) Noiz eta oriec-gatic Jaincoaren, edo Elizaren aguinteren bat gauza grabean autsitzen degun. (7:50)

8.4. Baizik juntagailuaren guneaz.

Cardaverazek, gure tradizio guztiak bezala, eragozpenik batere ez du, *baizik* partikula preposizio modura erabiltzeko. Egia da, maiz erabiltzen duela ere, lotu nahi duen hitz haren ondoretik. Esango genuke ordea, egiten duela hala errazago, lotu nahi den esaldi zati kontrastibo hori laburra denean; eta gaitzago hau luzea denean, egitura komunikatibo egoki batek segurasko debekatuko lukeen bezala. Cardaverazek nolanahi, ez du ere eragozpenik *baizik* partikula aurretik emana erabiltzeko, are lotzen duen esaldi zatia laburra denean (eta ezezko esaldia aurretik emana den bitarte guztian). Adibide batzuk besterik ez, bere lanetan hainbat usu aurkitu litezkeenetatik:

> (243) ..., guc Aingueru arteraco umeac ondo acitcea naidegu: eta gucia, ez guretzat, baicic Jaincoaren gloriaraco izandedin. (2:5)
> (244) ...: esan naidu, ez berez, edo bacarric, baicican Vocal aquin batean aoz esaten diranac. (2:22)
> (245) Jota Euscararena ezta baicic Erdaratic artu, edo etorria. (2:24)

---

[82] Geroagoko euskalaritzan (Astarloagandik hasita segitu behar den arrasto batean), alderantzizkoaz jabetzen hasteak (adberbioaren gunea aditzaren aurrean-edo), segurasko eduki dezake zerikusi zuzena, jada XX mendean egindako postulatuekin «*euskal aditzaren aurre justuko gunearen garrantziaz, fokalizazio gune bezala*», Azkue-Altuberen eskutik.

(246) Misericordiaren esque dabil Cristo, ta ez beretzat, baicic zuentzat. (2:56)

ERASKINAK

1. Eusqueraren Berri Onac. Sarrera.

[Esaldiak nik zenbatzen ditudalarik (2:3-5)]:

IRACURLEARI BERRI ONAC

(1) Erroman, Erriaren errenta andi, eta fama are andiagorequin, ondo itzeguiten icasteco, edo Eloquenciaren Escolac aurreneco idiqui cituenac (sic), MARCO FABIO QUINTILIANO izanzan. / (2) Au Autore andi ascoc diotenez, jaiotzaz, edo be[re] jatorriz gure Españaco Semea omenzan. / (3) Escola oiec, conseju andiaz, ta berariaz Erromac paratu cituen, gazte alperrac galdu, ta munduaren desonragarri izangociranac, ondo aci, ta Erromaren onragarri izancitezen. / (4) Escola orietan oguei urtetan Maisu onec Erretorica gende gazteai chit ederqui eracutsicien: / (5) eta Icasle, edo Dicipulo señalatu asco ateracituen: / (6) eta besteen artean Plinio bigarren, edo gazteena bat izanzan. / (7) Ciceron-en urrengoa QUINTILIANO esan, edo contatu oida: / (8) eta onec, arc baño ere obeto gauzaren batzuec beguiratu, ta len baño molde obean, ta arguiroago aguertu, edo utzicituen.

(9) Oguei urteac aimbeste genderi eracasten igaro, eta Marcelo Victorio bere adisquide laztanaren erreguz, onen Semearentzat, amabi Libru, munduan chit estimatuac, orañ LETRA EDERRAC deriztenac ondo icasten asitzeco, eguincituen. / (10) Orietan Maisu agudo, ta suave paregabe onec, anciñaco Autore Erretorico, Poeta, ta beste guizon andi lenagoco gucietan icusi, ta icasi zuena, iñorc bestec ez bezala, moldaturic emancigun: / (11) eta gazte : bat aurtasunetic nola ondo aci beardan, A, B, C-tic asi, guizon prestu, chit jaquintsu, edo biribill eguin arteraño, LETRA EDER gucien icasteco bide, ta lecioac beguien aurrean claro ifintcenditu.

(12) Orañ bada, Iracurle Cristava: baldin Quintilianoc, Marcelo bere adisquide cutunagatic, ta GETA aren semea munduraco ondo acitceagatic, amabi Libru, aimbeste erregela, ta lecio banaca arguituaz atera bacituen: guc gure Jaungoico gucien Aita maiteagatic, ta animen salvacioagatic cer ezdegu eguin bear? / (13) Ah! Batetic bestera asco dijoa! / (14) Gure intencioaren aldean arenac cericusi etzuen. / (15) Arc lurreraco, guc ceruraco: arc guiza arteraco, guc Aingueru arteraco umeac ondo acitcea naidegu: / (16) eta gucia, ez guretzat, baicic Jaincoaren gloriaraco izandedin. / (17) Baña ori, edo aldeguna eguiteco, goragotic edo anciñagotic asi, ta ur garbia bere jatorrizco iturritic artu beardegu: / (18) ta Euscararen berri beste izqueretatic nolabait atera beardegu.

2. Zenbait esaldi luze aukeratu, Cardaverazen estiloaren ispilu.

Zalantzazko gramatikalitatea, edo ulergaiztasuna adierazteko, (???) zeinua erantsi diogu hainbat esaldiri. Esaldiak Cardaverazen estiloaren adierazgarriak izan litezke, nahiz mostrak ez daukan balio estatistikorik. Antzekoak hala ere ez dira batere zailak aurkitzen Cardaverazen lanetan usu.

(... Munduaren parteric aguirienetan jaquindan gueiena, Griegoz, ta Latinez escribitu izanda:) eta ambeste Libru ondo escribitceco, ta oriec bear bezala iracurtceco, esan, edo itzeguiteco bietan Erregla on asco emandira. (2:8) (56 silaba bukaerako aditzaren aurretik -b.a.a.-, denera 60)

(Beste parteac, Verboaren aldean cericusiric ez dute.) Onen Conjugacioa, edo erabidea gucia bat da, ta berari dagozquion demboretan itzeguiteco banaca erabiltcea esan naidu (???). Orren jirabuelta, ta era ascotaco aimbeste aldaera miragarriaz, iru dialectoetan, cer armoniazco musica gozoaz, eta escualdi ceñ cabalaz Verboa batetic bestera darabillen, ta jocatcen duen icusi, edo enzuteac, zoradezaque Cristava (84 silaba b.a.a.): (eta A. Larramendic onetan bere buruari, ta aleguin guciai gañez eraguincien.) (2:32)

(... Azquenic asenta dezagun, ondo itzeguiteco bear diran Gramaticaren parte guciac Euscarac usatzen dituela,) ta banaca gorabera, ta aldaera gucietan, berariazco Izqueraric egoquien guciac, Legueric zorrotcen guztien damu gorrian bada ere, ta beste Izquerac ez bezalaco neurri justu, ta simetria eguiñ eguiñean, era gucietara ditu, (???) (84 silaba b.a.a.) (ta Euscaldunac daquizqui, ta darabiltzqui.) (2:38)

Cembat ere zan Apaiz ori, ez Latiñez, ez Erdaraz Icen egoquiagoric Eusquerazco oiec baño: Aidea, Gueidea, edo Quidea, ta Adisquidea, etcituen berac emango: ... (???) (2:47)

... Duque andi orañdic zala Egercicio oiec eguin, ta eguiaren etsai itsuai argui eguiteco, eta bere ao loiac ichi, edo seculaco tapatceco, Aita Santu Erromacoaren Ondodagoa, edo Espiritu Santuaren arguia, ta Egercicioen Confirmacioa, berariazco Buldan, Ignacioren Libru onenzat, dicha andiaz, mundu guciari aguertucion. (122 silaba b.a.a.) (3:6)

... Bicitzaren Libru onetaco, edo Evangelioco eguiaric arguienac, ta sustrairic sendoenac icusi, iracurri, ausnartu, edo berriz, ta berriro rumiatu, ta zure biotzean ondo chiquitu, ta ceruco janari ori lecioan, oracioan, essamen bietan animari ematen, chit erraz Santuac eracustendu. (105 silaba b.a.a) (3:13)

Alcalaco Catedratico famatu Fr. Mancio Dominicoac, Egercicioac defenditu, alabatu, ta honra, ta gloriaz bete, ta coroatucituen. (45 silaba b.a.a) (3:21)

Egercicioetan sartcean bereala batec Jaincoari bere biotz gucia, vorondate ugari osoaz ematea, Jaunaren vorondatea bacarric billatu, ezagutu, ta eguiteco, Santuac chit naizuen, ... (67 silaba b.a.a) (3:30-1)

Zori onecoa zu izateco, zure izate, ta eguiteco gucia dago, Jaincoaren Fedeco, ta Legueco gauzac ondo icasi, ta sinistu, ta orietan, ta oriequin ondo bici, ta ondo iltcean. (5:213)

(..., bereala Testamentuaz prestatuzan,) ta pobreai, zuen gucia, berena bezala utci, ta munduco carga etatic arindu, ta illcen laguntceraco, Jaunaren celoaz armatu, edo maneatu, ta mirariac eguincituen. (89 silaba b.a.a.) (5:225)

... (Santuac dio:) aberatsac illtceco gaizquitcean, penitenciaric ez daguiten, deabrua bere seguridadeaquin batetic sartcenda, bestetic berac bicinai. (???) (5:231)

Santu pare au, pare gabeco prodigio andiz mundua bete, arritu, eta pecatarien conversioac eguiteco Jangoicoa ren Ama Semeac beren Ceruco armaz janciric bialdu zuten. (60 silaba b.a.a) (11:8-9)

... Baña cer milagro, milagroac, ta alacoac, ta aimbeste Jaungoicoac, eta bere Amac munduan Ceruco beren Adisquide maite biaquin eguitea baldin biac leia santu, edo empeñoz bezala, biai obeto laguntceco seme santuaz bete bacituzten? (86 silaba b.a.a.) (11:10)

Santu oiec berriz, ta Aita oien Seme miragarriac Calvario, ta Errosario-aren Devocioaz Ceruco bidean animac sartceco eguin dituzten mirari contu, ta pare gabeac esatea Ceruco izarrac contatcea bezala, edo are gueiago da. (87 sil. b.a.a.) (11:11)

... Cer milagro andiagoric bada munduan icusi diteque Calvarioco Estacio, ta Pauso Gucietan, aurrenecoa Ama Virgiña bere Semea ren ondoren ibilli, ta Gurutce aren oñean alaco biotz firme, ta animo andiarequin bera icustea baño? (11:13)

...: an bere pecatu-en barcacio osoa Jesu-Christoen aotic aditu, ta Jaunac berac Santa andi eguin, ta gurequico canonizatu zuen. (41 silaba b.a.a) (11:15)

Gurutce Santua-ren Mirari icusgarria izanduzan, gure Jauna Calvarioco videan cijoala, ta nequez odolez, icerdiz, ta autsez beteric, Jesus en arpegui ederra garbitcera, añ biciro; borreroen artetic sartuzan Berenice, edo Veronica Santa: eta bere Jangoycozco Arpegui aren erregalo, edo prenda, Imagiña eder artan zapi garbian iru aldetara josiric utzi ciona. (???) (137 silaba denera) (11:17-8)

... Misericordiazco Milagro pare gabea izanzan, Jesus maitea lapur gaisto bi-requin Calvarioco Pauso-etan, ibilli, oriec lagun cituela, ta lotsa andian orien erdian Gurutce-an bere burua josiric icusi, ta araco Aita Eternoari gugatic erregutucionean, Lapur bata, San Dimas, edo Jaincoaren semea ezagutu, confesatu, ta Indurencia egunean Gurutcean bertan Santu eguin, edo salvatuzana. (151 silaba denera) (11:18)

(... Santu ascoren Bicitzetan au iracurten dugu.) Jaquiña da beste Jaun, edo Caballero aren Visita santuac: Lecu sagradu aietara joan, ta devocio andiaz confesatu, ta comulgatu, ta Calvario-co Estacio guztiac ibilli, ta Jesus Cerura igozan Olivete-co Mendian amorez urtu, ta deseguin, ta esancion (???) (70 silaba b.a.a): (Jauna, zure pausoetan, ta zure ondoren ibilli naiz ez daucat, non Zu lurrean billatu, ez pada ceruan. Emen zu cerura igo ciñan, nic or arquitceco.) (11:33-4)

(... Eztaiac garbiro eguin, ta Isidro, ta Sta. Maria Nagusiaren Baserri, edo Caramanchela joan ciran.) Beren tresnac eraman, da beren pobrezan Echea garbiro maneatu zuten: onen contua Santac, eta aciendari cobru ematea S. Isidroc artu zuten. (???) (12:25)

... Igaz iracurten batere etziequien Nescacha baserrico bizcaitar bat aurten Eusquerazco ondo ilteco Librutic bere Aitari, piedade, ta devocio miragarriaz, iltcen lagu[n]tcen, Cura Jaunac, eta beste ascoc arrituric icusi dute. (76 silaba b.a.a.) (13:5)

Escolaric ez duten anima asco, eta Jaincoaren gusto, eta atseguin andicoac intencio, ta vorondate santuaz beteric gure gende oen artean, edo bazter, eta arcaitz arte orietan daude. (67 silaba b.a.a.) (13:11)

(... Santuac dio: In Spec. cap 10) Juicio gabea, edo indiscretoa dà Oracioa, bat, edo batena dala, ascori obra gaiztoa eguiten diona; Eta zure orazio otzac besteay, beren devocio, edo berotasuna quentcea. (???) (13:22)

3. Cardaverazen 1744ko «Christavaren vicitza», eta honi erantsitako «Christavaren Icasvide, edo Doctrina laburachoa».

Beste miaketa hainbaten ondoren, azkenik Loiolako Santutegian eskuratu ahal izan dugu, bertako Artxibo Historikoan, honen zaindari, Aita José Ramón Eguillor-i esker, gure ustez bederen dena, Aita Cardaverazek argitara emandako lehen liburua, 1744ean: *Christavaren vicitza, edo orretarako vide erraza bere amabi pausoaquin, ...*[83] Liburua berez itzulpen lana da, A. Gerónimo Dutari iruñearraren beste ondo arrakastatsu batena, *Vida christiana, o Practica facil de entablarla con medios, ...*[84], eta lehenbizikoz argitaratu zena, 1710eko urtean, gaztelaniaz.

Datu guztien arabera Aita Cardaverazek bi argitalpen desberdin prestatu zituen liburuarenak. Lehenengoa 1744koa, eta oker ez bagaude, erreferentziaz baino ezagutzen ez zena gaur egunean; eta bigarren bat, 1760koa, ezagunagoa dena, oinarri bezala erabilia ondorengo berrargitaratzeetarako, 1850 eta 1854ean, eta azkenik faksimilez ere, 1973an.

Besterik gabe, jada nahikoa garrantzizkoa litzateke, 1744ko liburu "berri" bat aurkitzea, 238 orrialderekin, gipuzkerazko aurrenekoa litzatekeena gorputz honetakoa. Argitaratua, Ochoa de Arin eta Irazustaren Dotrina, fama txarrekoen ondorean, baina, Mendibururen idatziak, edo Burgosko Dotrina bera baino lehenago. Baita, Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren aurretik. Autore bere batek prestatutako berrargitalpen kasu guztietan bezala, hauen parekatzeak, ezin ikuspegi hobea eskainiko du autorearen garapen eta zalantza linguistiko propioen inguruan, eta bide batez, garaikoena. Cardaverazen kasuan, are garrantzitsuagoa iruditzen genuen konparaketa lan hori, honen 1760-66 bitarteko lanek suposatzen duten duda gabeko hausturagatik, inflexio puntuarengatik, euskal joskeraren tradiziozko bilakaeran. Horregatik eman diogu hainbesteko garrantzia, berraurkitzeari, ustez bederen, 1744koa den argitalpen hau.

3.1. 1744ko argitalpenaren erreferentziak.

Ezagutzen genituen, zaharrak, liburu honen bi erreferentzia desberdin. Bat, Aita Larramendik egiten zuena 1748an, P. Berthier-i egindako gutun batean.[85] Bigarrena, Cardaveraz berarena, Aita Begiratzaileei zuzentzen dien eskutitzean, *Jesus, Maria ta Joseren Devocioa, ...* liburu berria argitaratzeko baimen bila dabilenean.[86] Dakigularik, jasotzen dute obraren aipua gero, bai Vinsonek, agidanean liburua ezagutu gabe, eta soilik Larramendiren aipuaren ondotik; eta bai J. Bilbaok ere behintzat, zeinak besteak baino izenburu luzeagoa ematen dion liburuari.[87] A. Palau y Dulcet-ek ere egiten du argitalpen honen erreferentzia bere *Manual del Librero Hispano-Americano* bibliografiaren bi argitalpenetan, bere ezagupekotzat aitatuz, nahiz bietan orrialde kopuru desberdina ematen dion, eta datu berririk eskaintzen ez.

3.2. Loiolako alea.

Guk aurkitutako alea, gordea dago, Aita Cardaverazen beste obra inprimatuen artean, Loiolako Artxiboko, Estante 13, Plúteo 3-an, kartoizko kaja baten barrenean, eta bereak ez dituen azal gogor batzuen artean. Aleak, soilik gordetzen ditu, 67-188 bitarteko orrialdeak, eta ez du inon ageri jatorrizko izenburu inprimaturik. Horregatik esaten dugu «*ustez*» gaudela» 1744ko argitalpenaren aurrean. Alea tamainaz da, 1760koaren berdina, 12ko batean inprimatua uste dugu, eta harekin ija orriz orri dator bat, edukien jarraiari dagokionean. Oro har, alea nahikoa kontserbazio kondizio txarretan

---

[83] Izenburua jasotzen dugu, Aita Larramendik P. Berthier-i egindako gutunetik (jada aipatua). Bertan *Christauaren* idazten da, baina lan guztian agertzen den bezala, guk *v*- z idaztea hobetsi dugu: *Christavaren*.

[84] Izenburua jasotzen dugu, A. Palau y Dulcet-en Manual del Librero Hispano-Americano bibliografiatik, berdin moztua ageri delarik honen bi argitalpenetan.

[85] Larramendik dio (*Escritos Breves*, 1990, 136 or.: «..., muchos, especialmente de los Nuestros, se han valido de mi trabajo para predicar con mas decencia y eficacia la palabra de Dios y para imprimir algunas cosas de devoción; v.gr., el P. Agustín Cardaveraz ha traducido la Vida cristiana del Padre Jerónimo Dutari, que en poco cuerpo comprende mucha alma de instrucción y piedad. Es un duodécimo en 238 paginas con la novena al Sagrado Corazón de Jesús. El título vascongado es: Christauaren vizitza, edo orretarako vide erraza bere amabi pausoaquin, etc.; impreso en Pamplona en 1744 en la imprenta de Anchuela.»

[86] Gutuna azken argitaratu da, in *Escritos Breves*, Obras del Padre Larramendi, 4, eta dio Cardaverazek bertan (303 or.): «Hace muchos años saqué en bascuence la Vida Christiana, sacada o tomada del P. Dutari, siendo Provincial el P. Zarate. Se acabó la impresión, y por las instancias que muchos me hacen, pienso recurrir al P. Provincial para la reimpresión. Deseo que con su licencia se inserte al fin del librito el mismo Cartapacio 10 con las Novenas a nuestro Santo Padre y San Xavier, en bascuence.»

[87] J. Bilbaok ematen duen erreferentzia da: «Cristavaren vicitza edo orretaraco vide erraza bera [sic] amabi pansoaquin [sic]. Jesusen Compañiaco Missionero Aita Geronimo Dutariren libruchotic ataraa ... Iruñean: Anchuela, 1744 (238 pp.)». Nahiz pentsatzen dugun berak ere ez duela alerik ezagutu zuzenean (ez da ematen adibidez tamainarik). Ez dakigu ordea nondik hazi ahal izan duen izenburua.

dago,[88] nahiz guk erabili dugun fotokopia, Aita Eguillorek eskuratua, jatorrizkoa bezain garbi irakurtzen den, eta are garbiago zenbaitetan.

3.3. «Christavaren Icasvide» berri ezezagun bat.

Gure alea 67 orrialdean hasten da, jada bere *BOSTGARREN PAUSOA* aurrera azaltzen ari delarik. Banan bana garatzen ditu ondoren hurrengo pauso guztiak, 1760ko argitalpenaren jarraipen bere batean, *AMABIGARREN PAUSOA*-ren bukaera arte (166 orrialdean bi argitalpenetan). Handik aurrera ordea, eta 176Okoan, hasten direnean, *Fedeco Misterioak*, *Jesusen Bihotzari kantak edo alabantzak*, *Ejerzizio, Orazio* eta *Bederatziurren* desberdinak, *Pasio Koplak*, ... (Cardaverazek iragartzen zituenetakoak, Aita Begiratzaileei eginiko eskutitzean), 1744ko alean aldiz, 166 orrialdean bertan ematen zaio hasiera, *Icasvide, edo Doctrina* berri bati, eta izen osoz daramana: *CHRISTAVAREN ICASVIDE, edo Doctrina laburachoa* [sic]*, ceñean eracustendiran Christavac jaquinbearditiuen gauzac*.[89] Dotrina hau, desberdina da oso, Cardaveraz berak gero argitaratuko dituenetatik, 1760-66 bitartean, gipuzkeraz edo bizkaieraz. *Icasvide* honek jarraitzen du, gure aleko azken 188 orrialdera bitartean, eta aurrerago ere itxura guztien arabera, gehiago gordetzen ez bada ere Loiolako alean.

3.4. Ote gaude 1744ko argitalpenaren aurrean?

Ez dute oraindik beste fruiturik izan, guk egin ditugun ahaleginek, 1744ko argitalpenaren beste ale (osoago) bat aurkitzen.[90]. Ezin dugu erabat ziurtatu, 1744ko alearen aurrean gaudenik. Baina guk hala uste dugu.

Batetik, liburuak eduki bide dituen lau argitalpen zaharretatik (1744, 1760, 1850, 1854), zuzenean ezagutzen ditugulako azken hirurak, J. Urquijoren liburuen artean gordetzen diren aleak. Eta ezagutzen ez genuen bakarra, zelako prezeski, 1744koa.

Baina bestetik, eta oso garrantzitsuki, esku artean dugun aleak, oso idazkera ezaugarri berezi eta desberdinak erakusten dituelako, Cardaverazen 1760-66 bitarteko lanen aldean, jada burutuak, beste irizpide ortografiko, lexiko, sintaktiko eta are morfologiko desberdinekin, neurri batean jasoak *Eusqueraren Berri Onac* liburuan (1761), eta Aita Begiratzaileei zuzendutako eskutitzean. Loiolako ale "berriak», guzti hauen aurrekoa beharko luke izan.

Azkenik, alderatuz gero ale hau eta 1760koa, gai jarraipen bere bat erakusten duten orrialdeetan (67-166), begibistara antzeman da, 1760koa ez dela inola, zuzenean Dutariren ale baten gainean egindako itzulpen berria, baizik eta, lehengoaren berridazketa soila, irizpide berriekin egina.

3.5. Cardaveraz berri bat.

1744ko alearen ezaugarriek, zeharo ikuspegi berri bat eskeintzen digute, Aita Cardaverazena, eta bere lanena; ikuspegi desberdin, ezezagun bat, orain artekoan sumatu baino egin ez duguna. Eta izan ere, bere prosazko beste lan inprimatu guztien iluntasunaren aldean, hauen joskera astun, trakets, eta ulerkaitzen parean, 1744ko alea gertatzen da, samurra, arina, argia, irakurgarri eta ulergarria. Lan honek, begibistara erakusten du, zeharo joskera desberdina, bere 1760-66 bitarteko lanen aldean.

Ez da hau, hala ere 1744ko alearen berezitasun bakarra, eta zeharo desberdintzen duena besteetatik. Baita ere, Cardaverazek bertan erakusten duen kezka, ezohizkoa geroago, hiztegiarekiko. Cardaverazen ardura, euskarazko ordain egokiak aurkitzeko, erabili behar dituen kontzeptu berrientzako, ardura, ahalik eta mailebu gutxien erakartzeko, besterik gabe, gazteleratik, nahiz, neurri, gehienean, nahikoa zuhur batzuen barne. Bide berriak urratzeko ahalegin bat, 1744an

---

[88] Noizpait urak edo hezetasunak hartua da, eta zenbait orritan, eta batez ere hauen barneko ertzetan, ezabatuak ageri dira hainbat hizki, bizkar aldetik gertuen daudenetatik. Inoiz hitz laburren bat ere osorik. Desagertua da gainera beste letra-hitzen bat ere 187-188 orrialdeetan, gure alearen azken orri honi zati txiki bat falta zaiolarik bere goi kanpoko ertzean. Finean nolanahi, nahikoa erraza dirudi asmatzea, berez, zein letra diren falta direnak kasurik gehienetan. Errazago, parekatuz gero alea, liburu beraren 1760ko argitalpenarekin. Gehienera ere, hitz solteren bat edo beste gera liteke zalantzan. Alea, bere jatorrizko azalak galduak dituelarik, bildua dago, lehenik, tamaina bereko paper zuri soil batean, gainean eskuz idatzia erakusten duena izenburu bezala lerro desberdinetan (A. Eguillorek dioenez, Aita J.I. Aranaren letraz): *Cristauaren bicitza ... -gero gainetik berridatzia berdin- / Bizitza berriraco bidea / A. &* -edo antzeko zeinu bat- *Dutari-tic / Euskara garbian / ipiñia /* -eta azpian letra desberdina izan litekeen batez, asma liteke esaten duela bi lerrotan:- *Amen / Omnia* -edo antzera-. Beherago oraindik, eta jada A. Eguilloren letraz, signatura: *BV 12,3* -agidanean: Biblioteca Vasca, Estante 12, Plúteo 3-; eta zenbaki hauen azpian eta arraia batez ezabatuak, *5,7* zenbakiak; beheen azkenik: - *Devocionario* hitza. Guztia bilduta, tamaina bereko, baina beste liburu baten, azal gogor solte batzuetan, bizkarrean esan dezaketenak, oso oker ez bagaude *Vida Cotidiana*, edo antzekoren bat.

[89] Beharbada, behin baino gehiagotan aipatu den Cardaverazen 1760a baino lehenagoko dotrina "galdua".

[90] Geok zuzenean Donostia, Gasteiz, Baiona eta Bartzelonako Liburutegietan, eta besteren bidez, baita ere, uste dugu, Bilbo, Iruñea, Madril eta Parisekoetan.

nekosoa behar zuena izan, idazle, beti bere zabarkeriarengatik salatua izan den batentzako.

3.6. 1744/1760-66 joskera desberdintasunak.

Joskerarena izango da 1744ko lanak erakusten duen ezaugarri eta desberdintasun nabarmenena, ondorengo lan guztien aldean, eta bereziki, lan beraren 1760ko berridazketaren parean. Eta izan ere, Cardaverazek 1744ean, artean ez ditu botako esaldi bukaerara, sistematikoki, esaldi klase guztietako eta nolanahikoetako aditzak, gero bai egingo duen bezala.

Artean 1744ean, Cardaverazek, batetik, sistematikoki ematen ditu esaldi nagusietako galdegaiak, nabarmen, hauen aditzen ondotik; garai eta alderdi guztietako euskaraz egin ohi den bezala. Bestetik, mendeko esaldiek, askotan, eta are gehienetan, erakusten dituzte argumentuak aditzaren (eta hauei erantsitako elementu mendekotzaileen) ondoretik, idazlearen estrategia komunikatiboari komeni bezala, eta ere, alde eta aldi guztietako euskaraz egin ohi den bezala, mendeko esaldiok labur izateari utzi orduko. (Ikus litezke bilduak, fenomeno baten nola bestearen adibideak, gure ADIBIDETEGIAN, CARDAVERAZ 16.)

Guzti honek ez du esan nahiko horregatik, euskal aditzek gordeko ez dutenik 1744ko Cardaverazengan ere, gehienean, «Xà» moduko egitura bat, ondoretik erantsita argumentu labur, kasuan, tonikoren bati. Nahiz eta, hala ere, Cardaverazek ez dion erabateko higuinik izango, aditz horiek zuzenean emateko, tarteka, esaldi hasieran buruzuri, hala komeniz gero bere estrategia komunikatiboari. Hala aditz konposatuak badira, nola trinkoak (nahiz hauek beti bakanagoak izan; ik. adibideak ADIBIDETEGIAN.)

Eta 1744ko argitalpenean ere, inoiz aurkituko badugu ezezko esaldiren bat, ohizko inbertsiorik gabea; galdera hautsirik, euskal tradizio orokorreko maiztasun beretsu batean; eta are mendeko esaldiren bat, aditza ateraturik, hautsita ageri duena, berez ohizkoagoa edo litzaiokeen «Xà» moduko perifrasiren bat; hauek ez dira inoiz izango legea, 1760 eta ondorengo Cardaverazengan bezala. Batez ere, 1744ean ez ditugu aurkituko, geroko lanetan horren bitxiak egin zaizkigun, esaldi nagusi etenak, argumentuak tartekatuak erakusten dituztenak, modurik bitxienean, galdegai logiko (nabarmena) eta aditz artifizialki atzeratuen artean. Ezta ere fenomeno beretsua sistematikoki emanda zehar galderetan, ...

1760ko berridazketa, ez da izango, 1744koaren gainean eginiko zuzenketa lan zeharo artifiziala, eta korrika eta presaka egina (tartean utzitako anakoluto ugariek testigatzen duten bezala), esaldiak berriro pentsatzeko batere betarik hartu gabe, behin hauetako aditz gunea aldatutakoan esaldi bukaerara. Ezaugarri guzti hauek, oso era grafiko batean sumatzen dira elkarrekin konparatuaz, esaldiz esaldi, 1744 eta 1760ko argitalpenenak (zuzenean alderatzeko modukoak diren guztian), guk hasierako zati batean egin dugun bezala, honen hurrengo IV ERASKINEAN. Baita ere gain-begiratuaz Cardaverazen beste eskuizkribu batzuk (nola geuk orain traskribatzen duguna ondorengo ERASKIN V batean, edota Aita Lopeteguik erakusten zuena *ELG*-en sarreran).

1744ko argitalpena ezagututa, honen euskal ohizko joskera garbia, argia, jatorra eta herrikoia, askoz ulergarriagoa egiten zaigu, Aita Cardaverazek bere garaian irabazia zuen, predikadore arrakastatsu, maitatu eta herrikoiaren fama; guri bederen, oso zaila egiten zitzaiguna sinisten, imajinatu bahar izanez gero Aita Cardaveraz predikatzen, 1760-66 bitartean erabiltzen duen galimatias sintaktiko ulerkaitz horretan.[91]

3.7. Cardaverazen 1744ko ardura hiztegiarekiko.

1744ko alea irakurriaz, nonnahi sumatzen da, idazlearen kezka bizia, ahalik eta gutxien erortzeko gaztelaniaren mailebu soil, zuzen eta errezen mendean. Cardaverazek horretarako bere lanera ekarriko ditu, garairako jada literarioak ziren beste euskalkietako hitzak (grafia ere ekarriko duen bezala, h-dun hitzetan kasu). Asmatuko ditu ere berak, hitz berriak, irizpide nahikoa zuhurren barne; edota hainbat hitzentzako adiera berriak. Batzuk jasota ageriko direnak gero hurrengo urteko Hiztegi Hirukoitzean, beste zenbait berriz, geroagora arte azladuko ez direnak berriro gure literaturan. Oro har, hitz edo adiera berri hauek, bere ingururako ulerkaitzak-edo iruditzen zitzaizkion neurrian, Cardaverazek emango ditu beti, *edo* baten bidez lotuak beste mailebu sinonimo bati.

Cardaverazen ahalegin arduratsu, eta primu, horren adibide, Cardaverazek bere Dotrinari ematen dion euskal izena, CHRISTAVAREN *ICASVIDE*, edo Doctrina, jada 1744an, gero Burgoskoan errepikatuko dena hiru urte ondoren.

---

[91] 1760-66 bitarteko Cardaverazen joskeraren trakestasun, eta oreka falta nabarmen horiek, gehiago dakarzkigute gogora, Cardaverazen beste era bateko desekilibrio psikiko pertsonalak, neurasteniak, paranoiak eta hipokondriak, jada garbi azaltzen zirenak, bere beatifikazio kausaren azterketetan, eta nahikoa garbi aditzera ematen bide dituenak, bere gutuneria pertsonalak, Loiolako artxibo zaindarien hitzetan.

Cardaverazek 1744an egiten duen esfortzuaren ezagugarri gerta liteke ere, bertan egiten duen Jaungoicoaren definizioa, eta hau alderatzea, Ochoa Arinen 1712koarekin edo Irazustaren 1739koarekin. Cardaverazek dio zainduki (170 or.):

> G. Cer da Jaungoicoa? / E. Da esanal, eta gogora alditequean gauza, edo izan bat andiena, ta miragarriena, Jaun bat fin gabe, ahalsu, jaquinsu, justua, gauza gustien asiera, ta fiña.

Ochoa Arinek (1712; 1902, 20 or.):

> G. Nor da Jaungoicoa? / E. Da Jaun bat infinitamente ona, sabiduria edo Jaquiunde infinitoa debana, poderio infinitoa, justua, eternoa, gauza guztien principioa eta fiña, …

Irazustak berriz (1739, 14-5 orr.):

> G. Nor da Jaungoycoa? / E. da gauza bat esan, eta pensatu alditequean excelenteena; eta admirableena, Jaun bat infinitamente Poderosoa, Sabioa, Justoa, principioa, eta fiña gauza guztiena.

Data konfirmatuz gero, Cardaverazen 1744ko argitalpen honek, izan lezake bere garrantzia, zenbait hitzen historia txikirako, lehen argitalpen bezala gure letretan. Erabat ziur ez bada ere, hauetako hitz berezien artekoak izan litezke, besteak beste, segidakoak (agerpen orrialderen baten zenbakiarekin, eta batzutan, esannahia, edo oharren batekin):

> amama (67, armiarma), edolaric (68), etorcari (68), damuquizun (69), gaizkin (71, gaiztakeria), atseden(du) (??, aditza), aguintari (74, adjetiboa), estreña (77), langai (80), aguinde (87), ajolagabetasun (87), erago (89, irago), atzendu (92), bukatu), lambeza (93, erramienta, baina izan litekeena, edo izango dena, inprenta errata bat, V ERASKINEAN traskribatzen dugun eskuizkribuko *lanibeza*-ren ordez), aienatu (95), gozaldi (97, alivio), oyetatu (97, horienganatu-edo), onesdamu (101, onesdamu edo Contricioa, 186), eden (106), erbeste(tu) (114, aditza), lenaz danic (128), bulto (130), iduripen (131, engaño), oneznai (137), ausardia (139, baina testuan idatzia *ausandia*), suburnia (144, *suburnia edo eskopeta*, 1760an), an artean (146), zurgai (146, 119), araba (147, edo conformidadea), arabatu (150, conformatu), betiro (151), onesguna (153), behartasun (155), gajotasun (155), berezkiro (153, 156), geroenean (159), agaca (160, golpeca 1760an), benaz (160), aitzitic (160), gajo (160), senzamen (161, escarmientoa), errenca (163), astun (165), arra (165, arrabat), leiza (165), Hirutasun (171), jabegai (180), betitasun (172), ahaltasun (172), jatorrizco (183, pecatu jatorrizco), aleguiñezcoa (185, examen aleguiñezcoa), izudamu (187, edo Atricioa), ahaltia (188), iritsia (188, gusto-edo esateko, irentsia?)

Pentsa liteke, Cardaverazek lan honetan erakusten duen hainbat hitz berriren jatorria egon litekeela, egon, Larramendigan, sasoirako biak jada urte batzuz elkarrekin bizitzen Loiolako etxean (30etako hamarkadatik edo, nahiz artean Cardaveraz usu kanpoan ibili misioetan predikari). Bestalde ordea, konstata liteke, Larramendik ez dituela jasotzen bere hiztegian aipatu hitz berri gehienak behintzat.

Nolanahi den, 1744 eta 1760-66ko argitalpenen aurrean, oso nabarmen da, Cardaverazek zeharo aldatuak dituela bitarte horretan bere irizpideak, joskeran bezala, bere testuetan erabili beharreko hiztegiari dagokionean, askoz zainduagoa, garbizaleagoa hasieran, gero baino. Zergatik? Zer gertatzen da bitarte horretan? 1744ko alea ezagututa ezin liteke jada pentsatu, Cardaverazen 1760-66ko jarrera hiztegiarekiko, denik, hutsean, utzikeria edo zabarkeria, edota ezintasun hutsa. Cardaverazek aldatu egiten du nabarmen bere irizpidea. Eta beharbada, pentsa liteke, bere urtetako predikari ibiliak eragiten ote dion iritzi eta praktika aldaketa horretara hiztegi kontutan, erraztasunaren bila, bere helburua izaki bere burua ulertzera ematea nolabait. Segurasko, hala irakurri beharko lirateke, hiztegiarekiko konnotazio honetan, eta ez noski joskerarenean, Cardaverazek Aita Begiratzaileei zuzendu gutunean, egiten dituen hitzak, bere euskararen *usuzkoa eta arrunta* aldarrikatzen. Eta beharbada, zergatik ez?, Larramendiren Hiztegiko garbizaletasun ulerkaitzen kontrako jarreran. Postula liteke, Larramendiren Hiztegiak ez zuela lortu Cardaverazen hiztegia garbitzea (eta zailtzea), baizik eta alderantziz. Agian erreakzio bezala, bai garbitzea, zailtzea eta trakestea Cardaverazen joskera.

3.8. Ohar bat bukatzeko.

Santutegiko Artxiboko kajafuertean gordetzen da Loiolan, Cardaverazen beste hainbat eskuizkriburekin batera, 1760ko CHRISTAVAREN BICITZAren zuzeneko eskuizkribuaren zati bat, oso fidela orduan inprimatutakoarekin guk konprobatu ahal izan dugun bitarte guztian. Zatia, dagokie bakarrik, 5-12ra bitarteko pausoei.[92] A. Lopeteguik dudarik gabe erabili zituen eskuizkribu hau, eta guk orain eskuartean darabilgun, ustez, 1744ko argitalpenaren alea, 1973an parekatzen dituenean, Cardaverazen *Lan Guzien* berragitalpenari egiten dien hitzaurrean.

[92] Eraberean gordetzen dira bertan, liburuaren 1760ko argitalpenari dagozkien beste eraskin batzuen eskuizkribuak; bederatziurren desberdinak, bertsoak, ...

4. Cardaverazen 1744 eta 1760ko testuak elkarren parean.

Merezi du elkarren ondoan parekatzea, esaldiz esaldi, Cardaverazen *Christavaren Vicitzaren* bi argitalpenetako testuak, begibistara jabetzeko, bien arteko joskera desberdintasun nabariez. Esaldi asko eta askoren arteko aldea, ez da funtsean ordenamenduzkoa baizik. Segidan ematen ditugu elkarrekin parekatzeko moduko esaldi guztiak, orain eskuratutako 1744ko alearen lehen hogei orrialdeetakoak (67-86), bata bestearen segidan idatziak berezko segidan, lehenengo 1744koa, eta azpian 1760koa. Orrialde aldaketak adierazten ditugu soilik.

[BOSTGARREN PAUSOA]

[...] [so]ñeco erropa, edo oiñ peco lurrari baño? (67)
..., soñeco erropac, edo oñ-peco lurrac baño guchiago mereci-codizu?

..., au da utseguite bat, ...
..., engañu bat da, ...

Oyec dirade erremedioric, ta janariric bearrenac, Jesu Christoc gure animai utzi ziozcanac, ...
JesuCristoc gure animai utci-ciesten erremedio, ta janari bearrena [sic] oiec dira: ...

..., ezdutenean Vicitza, edo indarric, ...
..., bici, edo indarric ezdutenean, ...

Ezpadituzu maiz garbitzen Confessioarequin zure barrengo basterrac, ...
Zure concienciaco bazterrac confesioaz ascotan garbitcen ezbadituzu: ...

..., nola naizu ez betetzea ausetz [sic], amamaz, eta arrez?
...: nola naizu, autsez, arrez, ta amamaz ez betetcea?

Ar ezazu, bada, aurreraco oytura ...
..., gogo firme eraguille bat arrezazu, ...

Baña ez dezu examen, edo garbitze orrequin contentu gueratu bear. (68)
Baña beguira: zure conciencia examinatuaz, contentatu bear ezdezu.

..., eguitera limosna, edo penitenciaren bat, ...
..., limosna bat eguitea, edo penitencia bat, ...

Bigarrena artu hordu erdi bat ...
Bigarrena: ordu erdicho artu, ...

Artçea ascotan Sacramentu oyec <ascoc oydituzten bezala> ... (69)
..., Sacramentuac, ascoc oi duten bezala, frecuentatcea, edo usu artcea; ...

Ay! ta oyen gucienac bearbada irizten dute Jaincoaren juicioa, San Pabloc dion bezala.
Oien artean gueienac, jaincoaren juicioa, S. Pabloc dion bezala, tragatcen-dute!

Baldin zure mendecoric badezu, ...
Familiaric baldin badezu, ...

..., ez utçi, iñorere gueldi dedilla, illoro confessatu gabe: ...
..., ez arren utzi, iñor ere illean beñ confesatu gabe gueldi dedilla: ...

...: ta lenagoco egunean iracurri erazo ezazu guztien zat [sic] libru bat, ... (70)
...: ta vezperan Libru santu bat gucienzat iracurri-erazo-ezazu, ...

...; cer contu Jaincoac artuco dizu zure humean, ...
...: Jaincoac cer contu escatuco dizu, baldin zure ume, ...

..., baldin utzitzen badiezu ill osoac iragotçen ceruco oguia gabe?
..., ta zuc illa bete osoetan ceruco oguia gabe, gosetan illic bezala, badauzcatzu?

Lenago izan beardute zure echean abereac, animac baño?
Zure echean abereac, animac baño lenago izan beardute?

O ezagutçen bazendu cein guchi dijoan zugandic abere bategana, ...
O! icusten bacendu ondo, zugandic abere bategana ceñ guchi dijoan, ...

..., besteen animac, ta zureari quentçen diozunean Jaincoaren janari au! (71)
..., zure animari, eta zure echecoenai Jaincozco oguia quentcen, edo ucatzen diezunean!

..., eramanzuen soca batequin San Macario egiptocoagana, ...
..., soca batequin eramanzuen Egipto-co San Macario gana: ...

Eranzuncion Santuac: ...
Santuac eranzuncion: ...

...: Ezta au beorra, ...
...: Au beorra ezta, ...

..., ta eztu orren anzic, ...
..., ta antzic ere eztu, ...

..., ezpada zuen beguiac dira zaldienac: ...
..., ezpada zuen beguiac zaldien beguiac dira: ...

...: emancion hur bedeicatuaz, ... (72)
...: urbedeicatuaz Santuac emancion, ...

..., ta biurtuzan lenzan bezela anrearen [sic] anzera.
..., ta len zan bezala, andrea gueratuzan.

(Baña esancion,) hura izanzala Jaincoaren castigua, ...
(Baña ezancion:) Jaincoaren castigu, ta avisoa da au, ...

...: orrequin bialduzuten eracutsiric, eta emendaturic.
Onela emendatceco bidea emanic bialduzuen: ...

[SEIGARREN PAUSOA]

Goizoro propositua eguitea, egun artan ez pecaturic eguiteco, ...
Egun artan pecaturic ez eguiteco propositua, ...

Cer eguin beardu Christauac goiçean jaiquitçean bereala?
Goicean jaiqui, ta janci, ta bereala Cristavac cer eguin beardu?

Ematea Jaincoari edolaric egun onac. (73)
Jaincoari egun onac edolaric emã.

Lau gauza eguiñarequin laburcho, baña belaunico, beardan bezela.
Lau gauza, edo actu labur, baña belaunico, bear dan bezala eguiñaz.

Cein dira lau gauza oriec?
Lau gauza oriec ceñ dira?

Cer esqueñi bear diogu bere honraraco?
Bere gloria andien-eraco cer esqueñi bear diogu?

Ez offenditçea egun artan, ... (74)
Egun artan ez bera ofenditzeco, ...

Bere gracia, hitz au betetçeco, ...
Propositu ori cumplitceco bere gracia, ...

Cer eguin beardu au ausitçenduen baicoitçean [sic] bereala?
Propositua ausitcen dan bacoitcean, bereala cer eguin bearda?

Escua bihotzaren gañean ifini, escatçendiola Jaincoari barcacioa, ...

Jaincoari barcazio-aren esque dagoquiola, biotzaren gañean escua ipiñi, ...

Cerequin goiza sellatu, edo coroatu bearda? (75)
Goiz bacoitza cerequin sellatu, edo coroatu bearda?

Errelojuric onena zure osasuna, anima, ta echea zuzen erabiltçeco, da iduquitçea aleguiñaz, hordu señalatua jaiquitçeco goiçean, ta echaratçeco arratsean: ...
Zure osasuna, zure anima, ta zure echea ondo gobernatceco Erlojuric onena izangoda, albaitere goicean jaiquitceco, ta arratsean demboraz oiratceco ordu señalatua iduquitcea.

Beardegu aurrea eguzquiari artu, guc zu bedeicatzeco, ta adoratzeco goizetic.
Eguzquiari aurrea guc artcea convenida, zu bedeicatceco, ta zu goicetic adoratcea.

<esatendio Salomonec Jaincoari>
Jaincoari Salomon-ec esatendio: ...

Nai badezu, orrela, zugana Jaincoaren bedeicac[ioa] ecarri egun guztiraco, ...
Bada Jaincoaren bendicioa guciraco alcanzatu naibadezu, ...

..., asieza[zu] Jaincoagandic eguna, ... (76)
..., Jainco-agandic eguna asiezazu, ...

Baldin goiçean lenvici[co] gauza edocein etorcari, edo videzco lagunequin eguitendezuna bada, egun onac ematea, ta cerbait esatea, ...
Edoceñ adisquide, edo lagunequin goicean lenen eguiten dezuna, egun onac eman, eta itz eguitea, baldin bada: ...

Baldin ematen badizu Jaincoac egun osoa bearra eguiteco, ta jateco: ...
Jaincoac egun guztia zuretzat ematen badizu, bear eguin, ta jan dezazun, ...

...: ez diozu emango edolaric egun orren asiera, berea duela?
..., beraren egun orren asierac, edo primiciac edolaric ezdiozcatzu emãgo?

O Christaua, ..., ez daquizu egun oro Jain[coa]ri zor diozcatzula zure bihotz, [et]a hitzen estreñac?
O guizon, ez daquizu, Jaincoari egunoro, zure biotceco, ta zure itcen estreñac zor diozcatzula.

..., deadar eguitendizu San Am[bro]sioc, ... (77)
..., S. Ambrosioc deadar eguitendizu: ...

Ez dezu, bada, [zuc] esan, ez jaquinsu izanarren, ez [da]quizula cer eguiñ, edo cer esan [Jai]ncoari.
Ez dezu, bada, jaquiñeza, edo dan ignorante-ena zu izanagatic, cer aitzaquia artu, Jaincoari cer eguin, edo cer esan ezdaquizula. [sic]

Zure bihotzac garbiro [be]rez esatendiona, propositu ez offenditçeaz gañera, izangoda seguru onena.
Zure biotzac bere onez garbiro, goicean, bera ez ofenditceco proposituaz batean, esan nai diona, ori duda gabe, onena izangoda.

Baña ala ere nay badezu modu labur bat, ...
Baña modu laburcho bat ori eguiteco nai badezu, ...

..., ta eracutsi ehecoai [sic], urrengo au.
..., ta echecoai eracatsi-zaiezu urrengoa.

..., [j]arri zaite belannico [sic], ...
... belaunico jarri, ...

..., ta esaiozu [Ja]incoari, zure errezoaz gañera [hit]z oiequin edo cien [sic, oien?] guisa.
..., ta zure devocioco errezoaz gañera, Jaincoari itz oiec, edo era onetan esaiozu: ...

Ne[re], Jaincoa, nic ematendizquitzut milla esquer, ...
Graciac ematen-dizquitzut, nere jauna, ...

..., ceren egun au emandidazun zu servitzeco ... (78)
ceren egun onetara, zu servitceco, ecarri nazun, ...

Nic esquin[t]zen dizquizut, jauna, nere pens[a]nentuac [sic], hitzac, ta obra egun o[rre]taco guztiac, Jesu Christoren odol, ta irabaze [sic] guztiaquin, zure honra, gloriaraco.

Egun onetaco nere pensamentua, itz, ta obra guciac esqueñtcen, ta consagratcen-dizquitzut, Jauna, nere Jesus onaren Odol, ta merituaquin, zure gloria andieneraco.

Nere aleguin guzti[az] ematen dizut hitza gaur zure graciarequin ez zu offenditzeco, ta gueiena onelaco gouzetam [sic, gauzetan], ceña dan nere peligroric andiena.
Ematen-dizut itza, propositu firmearequin, zure graciaz batean, egun zu ez ofenditceco, batezere onelaco bicio, edo pecatu, gueiena peligratcen dedan artan.

...: ta zu nere Santu <S.N.> izanzaite vitarteco, ...
...: nere Santu, S.N. nere Bitarteco, ta Lagun izanzaite gaur, ...

..., nic nere hitz au betetzeco.
..., itz au nic cumplitceco.

Erregu[za]iozu Ama Virgiñari, zure Aingueruari, ... (79)
Ama Virgiña guciz santari aparte cerbait erreza zaiozu, zure Aingueru guarda-coari, ...

Onetaco zure Santu adisquideac banaca, [ed]o biñaca asteco egunetan beardi[t]uzu artu./
...: eta onetaco banaca, edo biñaca Santuac, asteco egunetan artu bear dituzu.

..., essayozu Jaincoari: ...
..., biotcetic Jaungoico-ari esaiozu: ...

[Eg]uizu asmo zure Jaincoari, eta zure zor guztiai egun artan eranzuteco, ta aren gracia, ta Indulgencia gustiac [sic] irabazteco.
...: egun artaco zure obligacioac cumplitceco, eta diran Indulgencia guztiac irabazteco intencioa eguizu.

Gauza bi guztien gañean dira bearrenac goiçean. (80)
Baña, gauza bi, gucien gañean, bearrenac dituzu goicean.

Lenvicicoa, propositu au, ez Jainco offenditçeco, egunoro eguitendezula, atçeneco zure Vicitzaren eguna baliz bezala, ...
Lenena, Jaincoa ez ofenditceco, esandan propositu andia, egunoro, atceneco eguna baliz bezala egitea; ...

..., ta pistutçen beste devociac [sic], ta ichitçen etsaiari atea egun guztiraco, ...
..., beste devocioac bizierazo, ta egun guztiraco deabruari atea ichitcen diona: ...

..., ta ala asco encargatçen dizu San Francisco Salesec.
...: ta ala San Francisco Sales gozoac asco encargatcendizu.

Eguizu, bada, aleguiña ... (81)
Aleguin gucia eguizu, ...

... ecusteco egunoro Mezaco Sacrificio santua.
..., bada Mezaren Sacrificio Santua devocioz enzuteco.

..., ceren iduquico dezu, goiz jaiquitçen baçera, ...
...: goiz jaiquitcen bazera, izangodezu: ...

..., ta gordetçea egunaz, ...
..., ta egun gucian ondo gordetcea, ...

..., baldin nai ezpadituzu utzi Jaincoagatic, ta aren contura ordu erdi batean?
..., Meza bateraco ordu erdi batean, beraren contu, ta cargura utci nai ezpadiozcatzu?

(... con[ta]tçendute) vici cirala erri batean [bi] necazari bear modu batequin. /
(... contatcen-dute,) oficiale bi oficio batecoac erri batean bicicirala.

Batac zituen gurasoac, emast[ea, ta] humeac, cer mantendu: ... (82)
Batac, Gurasoac, emaztea, ta umeac cituen cer mantendu: ...

...: enzu[ten]zuen egunic utseguin gabe Meza, ...
...: orregatic egunoro Meza, falta gabe, enzutenzuen, ...

..., ta bere bearrarequin zuen guztiraco, ...
..., ta bere bearrarequin gucienzat sobrazuen, ...

..., ceren Jaincoac, eguiten[cion] onic asco.
..., ceren Jaincoac onic asco eguitencion.

..., [be]ti bearra eguinaz, gau ta egun, ta Jai egunetan ere, ...
..., gau, ta egun bearra, baita Jai egunetan ere eguitenzuen: ...

..., beti vizizan [ne]quez, ta goseac.
...: ta orregatic ere beti pobre, beti goseac bici-zan.

..., ta galdetucion beinbatean: ...
...: ta beñ batean galdetucion: ...

Nondic ateratçendezu orrembeste irabazi, ...?
Nondic orrembeste irabaci ateratcendezu, ...?

..., ta aimbeste genderentzat nola dezun echean?
..., ta aimbeste genderenzat nola echean dezun?

..., edo ezdet ecer. (83)
..., edo ecer ezdet.

Orduan eranzuncion egunoro Mezatara joatenzanac, ...
Orduan beste guizonMezaren devotoac esancion: ...

(... eracutsico ziola) non[di]c ateratçençituen bere ondasu[n]ac.
(... eracutsicociola,) nondic bere ondasunac ateratcencituen.

..., ta eramanzuen berequin Eleizara.
..., ta berequin Eleizara eramanzuen: ...

Beste aimbeste eguinçion bigarren egunean.
Bigarren egunean beste aimbeste eguincion.

..., esançion onec: ...
..., pobre onec esancion: ...

Adisquidea, naibadet nic Elizara joan, ...
Adisquidea: nic Eleizara joan nai badet, ...

...: nic escatu nizuna zan eracustea, nongo urre obitic ateratçen ceñituen ondasunac.
Nic escatunizuna zan, nongo urre obi, edo mina-tatic ateratcen cinduen zure ondasunac, niri eracusteco.

Eranzuncion guizon devotoac, ... (84)
Guizon devotoac eranzun-cion: ...

..., arc eztçeucala beste urre obiric ateratçeco bearzuena, Meza Santua baicic, ...
...: arc bere bear zuena ateratceco, beste urre obiric etzuela, Meza Santa baño, ...

Damuturic bestea bere billabear gueieguiaz, ...
Besteac, bere billa bear gueieguiaz damuturic, ...

..., artuzuen mandatua: ...
..., consejua artuzuen, ...

...: eguinzan Meza egunoro enzutera, ...
..., gogotic Meza egunoro enzutera eguinzan, ...

..., ta Jaincoa asizan bera bedeicatçen, ta bearçituen ondasun guztiac ematen.
..., ta Jaincoa bere bendicioac, ta arc bear cituen ondasunac ematen asizan.

[ZAZPIGARREN PAUSOA]

Jaungoicoari obra bacoitza, eta eguitecoac esqueñetzea [sic] beraren gloriagatic. (85)
Obra bacoitza Jaincoari bere gloria gatic esqueñtcea.

Nola billduco du Christavac egunoro ondasun asco?
Cristavac egunoro ondasun asco nola bilducoditu?

Nola eguindezaque Ceruco vici modu, ta bear berri ori?
Ceruco beargai, edo alquimia ori nola eguingoda?

Ta orrela irabaztenda Cerua lurreco bear, berez eçerez diran oriequin?
Ta orrela obra berez ecer mereci ezduten oriequin Cerua irabaztenda?

Cer da, beñere aztu bear ez dana, Jaunari eguiteco bacoitza esqueñtçean? (86)
Obra bacoitza Jaincoari ofrecitcean, cer da beñere aztu bear ez [da]n gauza?

Ez dezazula, nerea beçela, artu mandatu au, ...
Conseju au ez dezazula, nerea bezala artu, ...

... eguizute guztia Jaincoaren gloriaraco.
..., Jaincoaren gloriaraco eguizute gucia.

5. Cardaverazen eskuizkribu berri bat ohizko joskera zaharrean.

Santutegiko Artxiboko kajafuertean aurkitzen da Loiolan, Aita J.R. Eguillorek zeloz gordetzen dituen Cardaverazen beste eskuizkribuen artean, segidakoa, izen duena *Lenengo Pausoa. Credoaren gañean jaquin, eta sínistu beardituzun gauzac*. Eta dirudiena, soilik, beste arnas luzeagoko lan baten hasiera. Bere laburrean, transkribatu nahi izan dugu hemen, agiri berri bat gehiago bezala, 1744ko Cardaveraz berri, ulergarri, eta ezezagun horrena. Beharbada geratzen dira oraindik antz bateko eskuizkribu gehiago ere, Artxiboan gordetzen direnen artean, guk ikustatu baino izan ezin ditugunak, eta zeintzuen berri, nahikoa zehatz, ematen zuen jada Aita L. Lopeteguik, Cardaverazen *Euskal Lan Guzien* berrargitalpenari eginiko hitzaurrean. Eskuizkribuan denera 3 orrialde dira, eta transkribatzean sortutako zalantzekin, bukaeran ematen dugu testuari buruzko hainbat ohar.

[-I-]

A M. D. G. Jhs. A S. C. I. (1)

Lenengo Pausoa. Credoaren gañean jaquin, eta sínistu / beardituzun gauzac.

Arguí arrazoyezcora etorri ezquero jaquin beardi- / tuzun gauza bearrenac, dira lau: oyec dira Jesu / Christoc bere Eleizan eracutsi cizquigunac, eta oyec / dira zuc ceruco Bide onetan ondo ibiltzeco, jaquin- / beardituzunac.

Lenengo, Credoac eracasten duena Fedearenzat, / edo cer, eta nola sinistu beardezun.

Bigarrena, Aita gureac eracasten duena, esperan- / zarenzat, edo cer, nori, ta nola escatu bear dezun.

Hirugarrena, amar Mandamentuac eracastendu- / tena Caridadearenzat, edo cer gorde, eta eguin- / beardezun Jaincoa servitzeco.

Laugarrena: Sacramentuetan cer artzendan, / eta nola oriequin virtuteac ematen zaizquitzun, / ceñac gorde bear dituzun cerura allegatzeco.

Gauza oyequin zugan igarotzen dana, eta oyen / bearra aditzera ematen du San Agustinec, e- / che batec beardituen gauzaquin. Echeac bear- / du lenengo Cimendua ateratzea: bigarrena, or- / mac jasotzea: hirugarrena, tellatuaz estalzea: / eta laugarrena orretaraco beardira lanibezac, / edo instrumentuac: Orrelaxe, bada, zure animan, / salvacioraco echearenzat beardira Fedearen cimen- / dua, Esperanzaren ormac, Caridadearen tellatua, / eta lancayac, ceñac dira sacramentuac.

Aditzeco, eta, beardan bezela sinisteco Credoac / eracasten dizuna, jaquin beardezu, dala Jaungoico (2) / bat, eta Jaungoico eguiazco bacar bat. Jainco bacar (2) / [-II-] batean sinisteac, eta Jainco eguiazco bacar bat / izateac, esan nay du, nola jaquin beardezun, mun- / du onetaco beste gauza guciaz gañera, eta guztiac / baño lenago, dala gauza bat, Ispiritu bat, asiera / gabe, beti zana, eta beti izangodana, eta onec eguin ditue- / la gauza guciac, onec vicierazotzen, eta gordetzen, / eta governatzen dituela: dala guciac baño goyago, / ederrago, eta alsuago, gucien Eguillea, Jabea, eta Jau- / na, eta oni deritza [~ *gure eusqueran* (3)] Jaun goícoa, bere Gaindiaz, / edo excelenciaz. [* *Unus est Deus, et / non est alius praeter / eum. Marci 12.32. / Exodi 6.7.* (4)] Dà bat bacarra, cerren ezinda- / teque Jaungoicotasun eguiazco bacar bat baizen: / esan naydu, Izate, edo naturaleza, edo izan bat / guztic [sic] alsua, guztiz jaquinsua, eta guztiz ona.

Baña, Jaincoaren izena enzutean, ez dezu uste / bear, emen lurrean dacutsun criatura, edo mun- / duco gauza oyen ancean

beguiaquin icusten dezun, / edo gogora datorquizun gauzaren bat, edo alaco / oyen anzeco gauzaren bat, dala Jaungoicoa: / ezta ori, eta ez orrelacoa: da eguzquia baño / arguiago, da ceruco, eta lurreco gauza eder guzti- / ac baño ederrago: da eguzquiari arguitasuna / ematen diona, gauza eder gucia [sic] edertasuna e- / maten diena: Da Izan bat berez dana: da Iza- / te gorputzgabeco (5), edo Espiritu guciz garbi, argui, eder, gozo, al- / su, jaquinsu, on; santu, justu, ugari, missericor- / dioso bat, batere utsic gabe gauza, eta egoqui / oriec, eta beste diran, eta izan al ditezqueanac / berez, beregan, eta berequin beti dituena: [Da / gauza gucien Eguillea (6)] Gauza guztiac ecer ezetic, bere / vorondatez atera eta eguinzituena: da gucien / (7) iturri jatorrizcoa, asiera, jayotza, ta azquen dichazcoa.

[-III-]

Jaun onec eguinzaitu bera ezagutu, eta servitze- / co: onec beste gauza guztiac eguin ditu ceruan, eta / lurrean, zu orietatic escala malla batzuetatic be- / zala errazago cerura ígotzeco. Bitartean gure / Jaungoicoaren anza nolaere bait daucagu gure beguien aurrean beraren escuetatic irtenciran cri- / atura, edo gauza gucietan: eta orregatic San / Antonio andiac icusten [~ *edo arquitzen* (8)] zuen gucietan Jaungoicoa, / eta mundu au esan oy da, dala Jaungoicoaren / Librua [*bezala* (9)], ceñean Santuac iracurtzen [*zuen* (10)], eta Libru o- / netan iracurri, icusi, eta icasi dezaque edoiceñec [sic].

Da gure Jaungoicoa sugar amoriozco bat / bezala, bada dà berez sua, eta da amorio utsa. / Da Eguzqui eder espiritual ecin icusico dan / bat. Baña ay gure fedearen laburtasuna! / (11) Eguzqui eder egunoroco oni ecin gure beguia- / quin [~ *zuzen* (12)] beguiratu badiogu ere, orregatic, ez icusiarren, / sentitzen, eta ezagutzen degu egunaren eguille au: / nola bada ezdegu milla bider obeto ezagutzen / gure Jaungoico eguiazco Eguzquia, puntuan / bein, edo beti, sentitzen ditugula onen (13) / arguiac, eta ondasunac animan, eta gorputzean? / Nola ezdegu obeto ezagutzen, servitzen, eta amatzen?

Da gure Jaungoicoa ichaso ondo gabeco bat / bezala, eta [~ *suz ta garrezco* (14)] ceru bat bezala: eta nola arrayac / ichasoan, eta choriac ayrean, beti, eta alde / gucietatic, dauden beti urez, eta ayzez ingura- / turic, ala dio San Pabloc, gaudela gu gure / Jaungoicoaz; bada Jaun onec guztia inguratzen, / guztia betetzendu bere izanaz, eta Jaun onegan / viciguera, mugitzenguera, eta guerade (15) gueranoc; eta Jaungoicoagandic degu gure izan guztia. [Act. 17.24 (16)]

OHARRAK ESKUIZKRIBUARI

(1): Gure fotokopian ez dira letra hauek oso ondo irakurtzen, baina uste dugu hala moduzkoak ote diren, A. Lopeteguik argitaratzen duen Cardaverazen beste izkribu batekoekin alderatuta.
(2): Ertzean idatzita: *Jainco bat*.
(3): [~] sarrera markaz tartekatua, eta gero, ertzean idatzita, kurtsiban ematen duguna.
(4): [*] sarrera marka tartekatua, eta gero ertzean idatzita kurtsiban ematen duguna.
(5): Azpian idatzita, eta ezabatuta, baina erraz imajina litekeelarik: *espirituzco*.
(6): Ezabatuta arraia batez baina garbi irakurri litekeelarik.
(7): Eta ertzean idatzita: *Erteguia, centro*.
(8): [~] sarrera marka bat, eta gainean idatzita kurtsiban emandakoa.
(9): Kurtsibak gainean idatzita daude.
(10): Kurtsibak gainean idatzita.
(11): Azpian ezabatuta, suma liteke idatzita dagoela: *Ecin*.
(12): [~] sarrera marka bat, eta gainean idatzita kurtsibak.
(13): Arraia batez ezabatuta irakur liteke: *ondasunac*.
(14): [~] marka batez tartekatua, eta gainean idatzita kurtsibak.
(15): Berez idatzita *guerde* eta gero gainean idatzita *a*.
(16): Ertzean idatzita; eta bukaeran oraindik beste bi letra ere bai, izan litezkeenak: *Lu*, edo, *au*, edo …

IV. PABLO PEDRO ASTARLOAREN ESPEKULAZIO SENSUALISTAK XIX MENDEAREN HASIERAN.

Ez dugu gaur egun ezagutzen, Astarloak bere garaian idatzia bide zuen euskal gramatika.[93] Bai hala ere, Humboldtek, obra honen laburpen modura-edo egin oharrak.[94] Baina berauen bistara ere, ez dirudi, oro har, gramatika haren egituraketa, eta informazioa, oso desberdina izan zitekeenik, jada dugunetik, Astarloaren beste lan ezagunagoetan: 1803ko *Apología de la lengua bascongada, ó ensayo crítico filosófico de su perfeccion y antigüedad sobre todas las que se conocen: ...* (*A* deituko duguna); 1804ko *Reflexiones filosóficas en defensa de la apología de la lengua bascongada*. (*RF*); eta azkenik, 1883an argitaraturiko, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó gramatica y analisis razonada de la euskara ó bascuence* (*DF*).

Izenburuetatik erraz suma litekeen bezala, Astarloaren lan guztion lehen asmoa, ez da berez, hizkuntzaren deskripzioa; bide batez, hau ere egingo badute maila batean. Astarloaren helburua, espekulatiboa da. Diskurtsoen Sarreran ere argi asko azaltzen duen bezala (DF, 1-4 orr.), berak guztien gainetik erakutsi nahi du, lehenik, gizakiaren hasieran hizkuntza bakarra izan zela, perfektoa izan behar zuena. Ondoren, eta dedukzio logiko abilen bidez, Astarloak erakutsiko ditu, lehen hizkuntza honek eduki behar zituen ezaugarriak; azkenik frogatutzat emateko, nola lehen hizkuntza perfekt hori, oraindik mintzatua den giza-artean, eta den, gure euskara maitea, zalantzarako aukerarik batere gabe.

Epistemologia eginez, esan beharko litzateke, Astarloak lehenbizi bere euskara aztertzen duela, garrantzi haundia emanez jabetzeari, zeintzuk diren, berau bereizten duten ezaugarriak, inguruko beste hizkuntzetatik. Gero, ezaugarri horiek gogoan, Astarloak, neurriko soineko baten moduan josiko du, lehen hizkuntza perfektoarena izan beharko lukeen, sistema gramatiko filosofikoa. Azkenik, eta behin erakutsirik, nola soineko ezin dotoreago hori, ez dihoakien batere ondo, noski, inguruko hizkuntzei (eta batik bat nola ez zaion neurrikoa ezergatik ere gure etxekoneko gaztelera honi, *q.e.d.*), frogatutzat emateko, nola, jantzi primitiboa egoki duen hizkuntza bakarra den, gure euskara apala; apropos egina bailitzaion! Gure Mari Errauts horren perfekt, Cinderella gajoa, eta horren gertu. (Astarloaren lan moduoz jabetzeko, ikus litezke, beste askoren artean: A, XIV or.; RF, 9; DF, 526, 529 orr.).

Hala, horren mira goitietako pertsonai baten datuak, ematen dituen heinean ere, beti hartu beharko dira, badaezpadan, kontu piska batekin behintzat. Hau esanda ordea, Astarloari aitortu behar zaizkio, bere lanak ezagututa, balioak ere. Lehenik, bere euskararen ezagupen maila altua.[95] Eta bigarrenik, ezagupen zabal bat ere bai bederen, bere garairako jasoak ziren munduko hizkuntza ugariren datu linguistiko zehatzena. Nola ere, berri izatea, mendeetan zehar Europan sortutako teoria linguistikoena, garai klasikoetan, nola bereziki, hurbilago, aldameneko Frantzian garatutakoak, XVII eta XVIII mendeetan (gero sintaxi arloan sumatuko dugun bezala). Ezagupen batzuk, oro har, horren zabalduak aurkitzen ez zirenak, Astarloaren garaian, eta ingurunean.

Ez dio hala ere jakinduria guzti horrek oztopatuko, lagunduko baizik, gero bere kabuz asmatzen teoria siniskaitzenak bere hipotesien frogatzeko hizkuntz arazoen inguru. Hala nola, bereziki, *letra/soinu* bakoitzaren balio semantikoen gainean, eta honi lotuta garatzen duen, atal etimologiko fantastikoa.[96] Hauen gainetik ordea, Astarloari beti izango zaizkio eskertzekoak, euskara gajoaren defentsan, linguistika fikzioaren bideetan izanda ere, altxatu zituen monumentu galantak. Besterik ez balitz ere, horietan edanak izango direlako gero, Zamakola eta Erro edo Humboldt jaunak, eta geroago ere, erruz, hainbeste euskaldun eta euskalzale, hainbeste gramatiko eta politiko, XIX mende osoan barrena, eta honuntzago.

---

[93] *Plan de Lenguas, ó Gramatica bascongada en el dialecto vizcayno* lana, bi tomotan egina, eta agidanean, Humboldtek erruz erabilia bere euskerarako gerturatzeetan. Cf. besteak beste, J.B. Daranatz, «Astarloa, Zamacola et Erro», *RIEV* III, 1909, 381 or.

[94] «Extracto del Plan de lenguas de Astarloa, por Guillermo de Humboldt», J. Garate, *RIEV* XXVI, 1935, 93-121.

[95] Besteak beste, pentsa eragin diezaguketen bezala, berak erakusten dituen euskal aditzaren 206 konjugazioek; horietako batzuk, berak dioen bezala, (A, VIII or.): «*de que no se hicieron cargo Oienart, Arriet [sic], ni aún el mismo Larramendi*», zeinak diren bera bitartean argitaraturiko gramatikalari guztiak, zeintzuen lanak bide zituen aztertuak. Edota agerian aditzera ematen duten bezala, J.A. Mogelek (*Cartas y disertaciones sobre la lengua vascongada*, Bilbao, 1870, 84 or. eta hurr.), beste garaikide askoren artean; edo Humboldtekiko harremanak

[96] Astarloaren teoria eta etimologiak nolanahi, ez dira askoz desbideratuagoak izango, garairako beste hizkuntza askotarako ere eginak zirenak baino; eta gurean ere beste askok egingo zituztenetatik, J.A. Mogel bera barne (ik. ere aitatutako obra).

1. Astarloa sintaxilari.

Astarloak Sintaxiaren arloan izango duen jokabidea ez da oso desberdina izango beste ataletan erakutsitakotik. Astarloak, atentzio berezi bat eskaintzen dio bere lan guztietan Sintaxiari, segurasko, garaian, mendi Pirineoen hegoa ohizkoa zen baino nahikoa zabalagoa. Egiten du batez ere, *Apologian*, 168-187 orr., eta *Diskurtsoetan*, 498-527 eta 754-773 orr., baina baita ere neurri batean *Reflexioetan* 104-116 orr., denetan oso ideia berdintsuak garatuaz, aldaketa txikirekin. Eta beste ataletan bezala, Sintaxiarenean ere Astarloaren lehen asmoa, ez da izango deskriptiboa, baizik bere beste hipotesi batzuen demostratzailea. Argi dioen bezala segidako pasajean (A, XIII or.):

> Para poder quedar satisfecho de las perfecciones de nuestro idioma, restaba solo asegurarme si su sintaxîs se hallaba arreglada a los preceptos que sobre ella dicta la sana filosofía. Era preciso para esto que fuese puntual en colocar sus voces en los conceptos, segun exîgian las tres noblezas que descubrí en la naturaleza para el régimen de la construcción. Hablé a mí mismo en mi idioma sobre quantas combinaciones de voces me dictaba la razón, y descubrí en esta operacion todas las perfecciones que pedia la misma constitucion y destino de la recta y ajustada construccion. ...

Beraz, bederen kontu piskarekin hartu beharko dira, Astarloak sintaxi arloan erakusten dituenak ere. Astarloak, printzipioz, sintaxia deituko dio, hitzen ordenamenduari. Argi dioen bezala segidako definizioan (DF, 498 or.):

> Sintaxis es una voz griega que equivale a la castellana construccion, y por ella entienden los gramaticos aquel órden, arreglo ó colocacion que han de tener las palabras en la oracion para que de ellas resulte el debido concepto.

Eta bera, bi galderari erantzuten saiatuko da: batetik, zein ordenatan kokatzen ohi diren esaldian hitzak; eta bestetik, eta batez ere, asmatzen edo elukubratzen, zein logika segitzen duten, edo bederen, segitu behar luketen ordenamendu hauek.

1.1. Astarloaren jarreren iturriak.

Sintaxiaren eremuan ere Astarloa ez da hutsetik abiatuko. Beste arloetan bezala, batetik Astarloak ezagutzen bide du euskararen joskera. Bestetik, ez dago duda egiterik, Astarloak, hainbat behintzat, ezagutzen zuela, hizkuntzalarien artean hitzen ordenamenduaren inguruan izandako eztabaida jarraia, Aintzinate beretik hasita, ondoko Frantzian horren sutsu bizitutakoa XVII eta XVIII mendeetan. Ezagutza hauen oihartzunak, nonnahi aurkitzen ditugu sakabanatuta Astarloaren aitatu lan guztietan, eta berak ematen du eztabaida hauen laburpen itxurazko bat *Diskurtsoetan* (499-501 orr.), nahiz autore izenik aitatu ez. Gure hau baino azterketa lan sakonago bat eskatuko luke, sumatzeak, zein izan ziren kasuan zehatzago, bere ezagupen eta irakurketak, bere jarrera sintaktikoen jatorri zuzenagoak.

Ordena naturala, ordena zuzena, ordena logikoa, ordena gramatikala, ordena metafisikoa, pentsamentuen ordena, ordena artifiziala, ordena arbitrarioa, ordena inbertitua, ohizko ordena, komunikazioaren ordena, hiperbatona, figurak, ordena figuratua, ..., kontzeptu guzti hauek, edo hauen oihartzunak, eta antzeko beste gehiagorenak ere, usu aurkitzen dira Astarloagan. Beraiek laburbiltzen dute, Europan zehar hogei mendetan barrena eramandako eztabaida luzea, hitzen ordenaren inguruan, Astarloa bera bitartean.[97]

---

[97] Hasi zeharka bada ere Platon eta Aristotelegandik, eta zuzenago, Denis Halikarnasokoarekin (I m. K.a.). Eskola alejandriarreko Demetrios Ixion (agidanean lehena orden naturala deitzen -gr. *physikê taxis*-, Halikarnasokoak proposatutako ordenari), eta Apolonio Discolo, lehen sintaxilaria. Eta latinoak berriz, Ciceron eta Quintiliano; Donato eta IV mendeko erretorikoak; VI mendeko Prisciano; eta honen ildotik geroago eskolastikoak, eta Tomas Erfurtkoa. Eta jada, Astarloagandik hurreago, bertako Frantzian, eragin haundiko Port Royaleko *Gramera Generala* 1660an, batez ere Lanceloten ikuspuntuekin egina, eta ez hainbeste Arnauld-enekin. Eta ildo beretik, jada XVIII mendean, Du Marsais eta Beauzée-ren jarrera razionalistak hitzen orden naturalaren alde, eta geroago Rivarol-ena, edo horren aktiboa izango ez bada ere Voltaire berarena. Guztiak, modu desberdinetan bada ere, beti orden natural tinko, itxi, eta razionalista baten defendatzaileak. Eta aldiz, guzti hauen aurrean, beste jarrera jada, esan dezagun, sensualistagoak, Frantzian bertan garatzen hasten direnak XVII mendean, Blaise Pascalen lanetan, edo, honen heriotzako urte berean argitaratzen den Port Royaleko *Logikan* (1662), Arnauld eta Nicole-rena, *Grameraren* bi urtera bakarrik, eta ordea oso jarrera desberdinak erakusten dituena, askoz irekiagoak, hitzen ordenaren inguruan. Gero hauen ondotik, Cordemoy eta Lamy; eta XVIII mendearen mugetan jada, La Bruyère eta Fenelon, eta Du Bos-en antzeko jarrera ez-razionalistak. Eta jada XVIII mendean ondo sartuta, eta Locke-ren sensualismo bideetan sakonduaz, eta hauek garatuaz, batez ere, Condillac-eko abadeak burutzen dituen lanak; eta gero Batteux-enak (Astarloak beharbada ezagutu zituenak), eta Diderotenak; baita ere Rousseau batenak, nahiz honen jarrerak ez diren horren haizatuak eta ezagunak izango puntu honetan; geroago Court de Gébelin-enak. Edo D'Alembert baten jarrera eklektikoagoa [akaso Astarloak aitatzen duen "jakintsua" (DF, 767 or.): «*uno de los cuerpos mas sabios de la Europa*»]. Eta are bitarte guzti horretan, eta akaso areago Espainian, ordenamendu lege eza, eta arbitrarietatea; edota ohitura eta tradizioaren aginte bakarra, onartzen edo defenditzen duten gramatikoak, eta Astarloak gogor erasotzen dituenak (DF, 499 or.). Jarrai litezke polemika guzti hauek hainbat, segidako lanetan behintzat: H. Arens, *La lingüística* (Gredos); R.H. Robbins, *Breve historia de la Lingüística* (Paraninfo); H. Lausberg, *Manual de retórica literaria* (Gredos). Baita ere, C. Hagège, *L'homme de paroles* (Folio Essais, Fayard, Paris). Eta batez ere, Aldo Scaglione, *The Classical Theory of Composition from its origins to the present. Historical Survey*. Chapel Hill, 1972. Eztabaida frantzesen inguruan berriz, Ulrich Ricken, *Grammaire et Philosophie au Siècle des Lumières*. Beste neurri

1.2. Astarloaren jarrera sensualista.

Astarloak jarrera hartzen du eztabaidan, nolabait sensualismoaren alde, bere teoriei, eta baita bere euskarari komeni bezala. Kurioski, halako jarrera batek, ez du parerik izango bere garaiko Espainian, ezpada Jovellanos baten baitan, zeinen lana nolanahi ez den argitaratuko XX mendera arte (cf. J.J. Gómez Asencio, *Gramática y categorías verbales en la tradición española 1771-1847*). Ez da, Astarloak erabat gaitzesten dituela razionalisten aldarrikak, beti era bateko edo besteko ordena natural finko baten alde. Baizik eta, lehenik onartu, eta gero gainditu egiten dituela hauek, euskara lako ordena libreko hizkuntza perfektoari batere ondo egokitzen ez zaizkiolako, razionalistek, hizkuntzei, aitzakia logiko batzuk edo besteekin, ezarri nahi dizkieten ordenamendu harresi gramatikalak, bereziki frantzesari, XVII mendetik.

Horrela, razionalistek horren modan jarritako pentsamentuen ordena jarraitu beharrari, Astarloak goituko dio, komunikazio sensualaren printzipioa, Pascal, Arnauld eta ondorengo tradizio sensualista guztiaren pisuarekin (DF, 499 or.):

> ... Es verdad que sostuvieron y sostienen [los filósofos] como regla única que las voces se han de presentar en los conceptos en el mismo órden con que se presentan sus ideas en el entendimeinto. / Esta regla, tan recibida hoy entre los literatos, es oscura, es confusa, es indeterminada, y aun decimos sin temor que es falsa. ... / … / Una cosa es presentarse las ideas en el entendimiento, y otra cosa es el comunicarlas en tanto grado que el comunicar las ideas no es acto del entendimiento. Las ideas se comunican por los sentidos al alma, y esta las retiene en la reminiscencia.

Baina erregelak badaude; aurkitu egin behar dira (DF, 500 or.):

> ... se puede falsificar la regla tan decantada de que las ideas se han de comunicar en el habla segun el órden con que se presentaron en el entendimiento y por lo mismo debe ser sustituida por la de que han de ser presentadas las ideas en la comunicacion social segun el orden que tuvieron en movilizar la voluntad. ... ¿Diré el reinado de Fernando VI fué floreciente, ó diré fué floreciente el reinado de Fernando VI? ... / Es, pues, necesario el que hallemos otras reglas que nos dirijan en la colocacion de aquellas voces que entren en los conceptos, ..., y para ello es preciso que consultemos la naturaleza del idioma.

1.3. Astarloaren ordenamendu printzipioak.

Astarloak euskara baitan kontsultatuko du, hizkuntzaren natura hori, hizkuntza perfektoa baitan, eta zuzen induzituko du, nola inguruko beste hizkuntzetan ez bezala, gurean bai, «*hitzak aurkezten diren giza komunikazioan, prezeski, borondatea mugi araztean eduki duten ordena haren arabera*», espero zitekeen bezala. Bere postulatuen laburpen argi bat egiten du hurrengo hitzotan, arazoa zein den garbi planteiatu ondoren (RF, 105 or.):[98]

> Ahora pues, si la sintaxîs es tal como nos la pinta Astarloa, este idioma es diferente de los demas. Es mas perfecto que todos, porque ninguno de ellos tiene como este reglas fixas para la construccion de las voces. Ninguno instruye sobre sí ésta ó la otra voz ha de ser la primera que se ha de colocar en nuestros conceptos. Ninguno de ellos nos dice cual ha de ser la segunda, qual la tercera. Mas el bascuence prescribe por reglas invariables que la primera voz de nuestros conceptos ha de ser aquella que sea móvil del pensamiento comunicado: que si dos voces son igualmente móviles, se ha de colocar en primer lugar la que fuese mas noble en el órden natural; que se han de colocar en segundo lugar las palabras segun el órden ministerial de ellas; y últimamente, que la nobleza de orígen ha de ser la menor de todas las noblezas, y solo ha de tener lugar quando las voces exercen un mismo ministerio, ó son de una misma movilidad; quiero decir, quando son igualmente móviles de nuestros conceptos.

Hau da, ordenazio erregelak egon badaude, arbitrario zaleen aurrean. Baina ordena libreko hizkuntza bati dagokion bezala, euskara baitan erregela nagusienak ez dira izango, tradizio razionalistak aldarrikatzen dituen ordena natural klase desberdinak (erregela gramatikalizatuak nolabait, Astarloak hala ere bere sisteman integratzen dituenak, bigarren mailan bada ere). Erregela nagusiak izango dira, komunikazioaren beharren arabera altxatutakoak, erregela pragmatikoak nolabait.

---

batean, Chevalier, J.C., *Histoire de la Syntaxe. Naissance de la notion de complément dans la grammaire française (1530-1750)*; edo, Draganu, N., *Storia della sintassi generale*.

[98] Hasieratik faltsatutako planteamendua da, jakin nahi izatea, zein hitzek daukaten lehentasuna, esaldiko lehen guneak betetzeko, hauek konsideratuaz, berez, esaldiko gune nagusiak, tradizio razionalista guztian egin den bezala, Denis Halikarnasokoarekin hasita. Horren falazioski planteatutako arazoari ordea, Astarloak aurkituko dion irtenbide pragmatikoak, mereziko ditu gure txalo beroenak.

1.4. Astarloaren ordenazio sistema.

1.4.1. Sistemaren giltzarria: hitzen noblezia mailak.

Hitzen noblezia izango da Astarloak altxatuko duen sistemaren giltzarria: (DF, 501 or.): «*han de colocarse los conceptos segun lo exige su nobleza*». Nobleenak aurretik; ez hain nobleak ondoren.[99]

1.4.2. Hiru noblezia klase jerarkiko.

Hitzen noblezia banatzen da, hiru klase jerarkizatuetan: *jatorrizkoa, ministeriozkoa eta mobilitatezkoa* (DF, 755 or.):

> Para que nos hagamos cargo con la debida claridad de la perfeccion ó imperfeccion con que colocan los idiomas sus respectivas voces en la mútua comunicacion, hemos de tener presentes las tres noblezas en que se divide estas; es a saber: la nobleza de origen; la nobleza de ministerio y la nobleza de mérito ó movilidad. Igualmente se han de tener presentes los grados de estas noblezas; esto es, que la nobleza de mérito ó movilidad es la superior de las tres, y que por consiguiente las voces que gozan de esta nobleza han de ser colocadas en nuestros conceptos con antelacion a las demas; que despues de esta nobleza sigue la de ministerio; y que la última de todas, ó la ínfima de las noblezas es la de origen.

1.4.3. Baina finean lau erizpide, ordenamendu lehentasunetan.

Bada Astarloarentzat, noblezia eta nobleziaren klaseak, finean ez dira, metaforak baino, bere ordenamendu erizpideak aurkezteko. Eta hauek, bere lan guztietan, ez dira hiru, baizik eta lau, hiru ataletan banatuko baditu ere.

1.4.3.1. Jatorrizko lehentasuna.

Astarloak postulatzen du, jada Quintiliano predikatzen hasitako *naturalis ordo* baten ildotik, hitzek izan dezaketela beren artean, are berdinak badira ere beren kategoria gramatikalak, beren funtzio logiko/gramatikalak, eta beren balio pragmatikoak, beste, jatorrizko, noblezia jerarkizazio bat, hitzen esannahiak ematen diena (DF, 507 or.). Horrela esaten omen dugu (A, 171 or.): «*Aita eta Semia*»; «*Gauta egun*» «*porque la noche ú oscuridad es anterior en el órden a la luz ó día*»; (DF, 756 or.) «*pero no se puede sufrir la expresion egun ta gau*». *Apologian* (171 or.), jerarkizazio honi deitzen dio ere: «*órden natural de su antelacion*». Eta izan ere, bai han, eta bai gero *Diskurtsoetan* jerarkizazio berori aplikatzen die aditzei ere, kontutan hartuta hauek adierazten dituzten ekintzen sekuentziazioa. Hala esaten omen dugu (A, 174 or.): «*jo-ta bota-co-d-ot*»; «*Jan-da, juan-go-n-az*» «*porque la accion de comer ... ha de preceder a la de ir*»; (DF, 756 or.) «*pero mortifica nuestro oido la expresion juango naz janda*».

1.4.3.2. Hitzen kategoria gramatikalen araberako lehentasuna.

Denis Halikarnasokoagandik hasi, eta Erdi Aroko eskolastikarainoko tradizioak jorratutako ildotik, Astarloak ere postulatzen du ordenamendu jerarkizazio bat, esaldi zatien kategoria gramatikalen araberakoa. Lan desberdinetan erasketa berriak egiten baditu ere, Astarloak finean hizkuntza perfektoari proposatu ordena, izango da, noski, euskararena: *sustantiboak fi adjetiboak* (*fi epitetoak*, DFetan) *fi artikuloa fi posposizioak* (*fi partikulak* ere, DFetan). Horrezaz gainera, Astarloak nahiko setati predikatuko du, euskarazko segida kategorial aldaezin bezala, *adberbioa fi aditza*-rena.[100] Kategoria gramatikalen jerarkizazio hau, Astarloak, ordena naturalaren barne jasotzen du *Apologian*, *jatorrizko* noblezien ondorio bezala. *Diskurtsoetan* berriz, jada ordena eta noblezia *ministerialen* barne.

1.4.3.3. Hitzen funtzio logiko/gramatikalei dagokien lehentasuna.[101]

Astarloak, razionalismoak ebakitako bidetik, lan guztietan postulatzen du, beti ordena eta noblezia ministerialaren izenpean, nola euskaraz ere, noblezia eta jerarkizazio maila berri bat erasten dien hitzei, hauek esaldian betetzen duten funtzio logiko/gramatikalak. Astarloak gero aldaketa nabarmenak erakusten ditu bere lanetan, jerarkizazio hau zehazterakoan, baina denetan, guztien gaineko lehentasuna ematen dio, euskara, hizkuntza perfektoak, erakusten duen posesiboen ohizko *posesor fi poseido* segidari, distintzio marka bezala, gurearen aldameneko hizkuntzen aldean. Gainerantzean, Astarloak beti aurkezten du esaldiaren segida logikoa bezala: *agente fi recipiente fi paciente* errezkada. *Apologian*, oraindik beste funtzio bat ere erakusten zuen, *kausa*, agentearen aurretik (A, 176-7 orr.); eta predikatzen du han, prezeski, funtzio berri honen ordenak ere erabat desberdintzen duela euskara, hizkuntza ez-perfektoetatik.

---

[99] Aurrerago ikusiko dugun bezala, jadaneko kontutan hartzekoa da, Astarloaren sisteman ez direla izango sinonimoak, *noblezia* eta *inportantzia* hitzak (Azkuek bai bateratuko dituen bezala *Izkindean*); nahiz zenbaitetan konnotazio berdintsuak izan.

[100] Lehenengoa aldiz, uste dugu, gure artean; aurrerago mintzatuko gara luzexeago puntu honi buruz 3.2. atalean.

[101] Diogu logiko/gramatikal, Astarloak ondo bereiziko ez duelako inoiz agente/sujeto, paciente/objeto, accion/verbo terminoen arteko alde logiko/gramatikala.

Atal honetan beste zenbaitetan ere sentitzen da Astarloagan, Frantziako razionalisten oihartzuna. Esateko, segidako pasajean, ordena naturalaren izena ematen dioenean, *Sujetoa-Aditza-Objetua* segidari, nahiz segituan aldarrikatu, honen gainetik behar duen mobilitate ordena, pragmatikoa (DF, 767 or.):

> ... Exige el órden natural que en primer lugar demos a entender el sujeto de nuestros conceptos, y despues los atributos suyos, como son cualidades y relaciones: despues las acciones de este sujeto cualificado, y últimamente el término de su acción. Sin embargo, trastornamos este órden natural siempre que la necesidad ó utilidad nos impele a ello. ...

1.4.3.4. Guztien gainetiko Mobilitate Noblezia, Mobilitate Ordena,.

Tradizio razionalistak agindutako hiru -edo lau- jerarkizazio erizpideien gainetik, beti ordena natural, finko eta gramatikalizatu bat eragingo luketenak esaldian, Astarloak kokatuko ditu, mobilitatearen noblezia, eta mobilitatearen ordena, pragmatikoak dudarik gabe, eta ez horregatik inoiz arbitrarioak.

Astarloarentzako, esaldiko edozein hitz izan ahal da, *mobilena*, eta beraz esaldiko lehen lekua hartuko duena (DF, 770 or.). Fenomeno hau, beste hizkuntza guztiek ere ezagutzen dutena, askoz ere finago garatzen da euskaraz (DF, 768 or.). Eta askoz ere zabalago. Bada euskaraz, ez omen da izango, esaldiko aurreneko hitza bakarrik, mobilitate printzipioaren arabera ordenatuko dena, baizik eta esaldiko hitz guztiak, bata bestearen errezkadan, bakoitzaren mobilitate haundiago edo txikiagoak eskatu bezala (A, 182; DF, 768, 770 orr.).[102]

2. Astarloaren mobilitate printzipio pragmatikoa, eta hitzen ordenamendu librearen defentsa.

2.1. Zer da hitzik mobilena? Agian Mintzagaia, eta ez Predikua?

Astarloaren hitz jarioan labainduz, ez da zailegi, lehen inpresio batean, *mobilitate nobleziaren* kontzeptua nahastea, *garrantzi predikatiboarenarekin*, Azkuek egiten duen moduan bere *Izkindean* (§ 759). Eta bide honetatik, Azkuek bertan proposatzen duen, *gai bilatu / elemento inkiridoarekin* (§ 773), edota gure gaur eguneko galdegaiarekin. Astarloaren mobilitatea ordea, ikusiko dugun bezala, kontzeptu bezala, askoz ere gertuago dago, galdegaiarenetik baino, *mintzagai*, *tema*, edo *topikotatik*. Astarloarentzat oro har, hitzik *mobilena* ez da, predikatzen den hura, baizik eta gehienean, hitz hura, zeinen gainean predikatu behar den; zenbaitetan ideia hau ere ilun geratu arren. Adibiderako, irakur litezke "espiritu berri" honekin ere, Astarloaren segidako definizio/eztabaidak, mobilitateen inguruan:

> La nobleza de mérito ó movilidad de las voces, ..., consiste en aquel mayor ó menor impulso que tienen sus signados en movilizar los conceptos [ideiak, edo orazioak], esto es, en dar motivo a ellos. (DF 520 or.) / De esta primera instrucción se deduce que la primera voz de nuestros conceptos ha de ser la que fuese móvil de ellos con una movilidad primeriza, esto es, que diese causa ó motivo a la comunicacion, ... Lo que se quiere decir es que toda voz, sea nombre, verbo, participio, adverbio, etc., ha de ser la primera en nuestros conceptos [orazioak] siempre que haya sido la causa ó motivo para la comunicación. (DF 524 or.) / Es tan natural al hombre empezar sus conceptos [orazioak] por aquella voz cuyo signado le dió motivo para la comunicacion social, que no hay idioma que no ponga en ejecucion esta bella sintaxis. (DF 766 or.)

Apologian bertan, argi ikus liteke, Astarloak, zenbaitetan bederen, garbi bereizten dituela mobilitate, eta predikazio kontzeptuak; lehenengoak askoz ere zerikusi gehiago duelarik mintzagai, tema, topiko, edo sujeto psikologiko batekin, predikatuarekin baino (A, 184 or.):

> ...: ninguna cosa nos hara mejor ver esta verdad que el deshacer el elipsis de esta oracion [aditza falta zuena]: sin esta figura la expresion sonaria así Zori-on-e-cu-ac d-ira seme-on-ac d-auquee-z-an gurassu-ac felices son los padres que tienen buenos hijos. He aquí la voz Zorionecuac felices, haciendo por el órden de movilidad las funciones de un verdadero sugeto del juicio ú oracion, y como tal con aptitud de recibir qualquiera predicacion, inconcreto, independiente y aplicable a todo ente. ... Desengañémonos: el adjetivo Zorionecuac felices, en nuestra proposicion es un verdadero sugeto: todo sugeto es receptor de la predicacion, y esta predicacion no nos es conocida hasta que se nos indique el predicado; ...

2.1.1. Eta hitz mobilenak dira noski (mintzagaiak?), doazenak, hasieran.

Astarloaren mobilitate kontzeptua horrela argituz gero, ez litzaiguke txalotzea baino geratuko, bere zuhurtasuna, hitz

---

[102] Beste noblezia eta ordenazio jerarkikoen tradiziozko jatorri gramatikalak, sumatzen errazxeagoak izan litezkeen bezala, mobilidadearen kontzeptuak aldiz, ez dirudi, besteak bezain zabaldua egon denik, Europako tradizio gramatikalean, eta horren erraz segi dakiokeenik arrastoa Astarloaganaino. Guk oraingoz susmoa dugu (ap. U. Ricken), *movil-* hitza bera, eta antzeko kontzeptua erabiltzen ote duen, gutxieneko, Batteux-ek, bere 1764ko *Traité de la construction oratoire* liburuan (*Principes de Littérature*, Paris, V. tomoa, 3-320), eta nondik agian jaso zezakeen Astarloak.

mobilen hauei (zeinen gainean predikatuko den ondoren) eskaintzen dienean, esaldiko lehen gunea; hain zuzen, komunikazioaren joera unibertsalek, eta estrategia komunikatibo egokiek gomendatu eta praktikatzen bide duten bezala.

2.2. Astarloa ordena librearen defendatzaile.

Astarloak behin eta berriro aldarrikatzen badu ere, hitzen ordenak oso erregela estuak segitzen dituela euskaraz, bego dagoeneko garbi, ari dela erregela pragmatikoez, komunikazioaren beharretatik sortutakoak, eta ez bestelakoez (ezpada posesiboen kasuan, edo *adberbioa fi aditza* segida bereziarenean). Erregela pragmatiko horien defentsan, Astarloak behin eta berriro ekingo dio, gramatiko razionalisten aurka, nola segidako pasajean: (DF, 766 or.):

> Es tan natural al hombre empezar sus conceptos por aquella voz cuyo signado le dió motivo para la comunicacion social, que no hay idioma que no ponga en ejecucion esta bella sintaxis. De aquí viene el que los autores mas clasicos en sus respectivos lenguajes nos presenten unos conceptos que contemplados en sus partes constitutivas hallamos [sic] un trastorno de colocacion que los gramaticos mas insignes han creido deber salvarlo por la figura de hiperbaton. Han creido estos sabios contraria a la naturaleza esta sintaxis; pero en realidad es una locucion legítima: una locucion arreglada y muy conforme al dictamen de la naturaleza en todas sus producciones. / Esta sabia madre hace en nosotros que ejecutemos las cosas segun el órden con que se presentan a nuestra movilidad, sin que en estos lances entremos a contemplar, si este órden es aquel que exigen las cosas ejecutadas.

Eta hala ematen du Astarloak libertatea (DF, 524 or., gorago jaso bezala), are aditzak, eta partizipioak ere, kokatzeko, esaldi hasieran bertan, hala komeni ezkero hiztunari. Eta hala predikatzen du nolabait *Apologian* bertan ere ordenamendu libertatea, dioenean (A, 179-80 orr.):

> Por este órden de movilidad vemos colocado un adverbio a la frente de todas las demas voces que forman el concepto: un adjetivo precede al sustantivo, el verbo a su agente .... y con tanto imperio nos vemos obligados a observar este órden de movilidad, que sin él quedarian sin alma nuestros conceptos.

Eta izan ere horrela, gorago jasotzen genuen bezala (DF, 770 or.): «*llega a ser cualquiera parte de la oracion el móvil principal de nuestros conceptos*», edozeinek lortu dezakeelarik beraz, «*el privilegio de ser colocada a la frente de él.*» Astarloak hala, dudarik gabe deskalifikatzen ditu, beti ordena finko bere bat erakutsi beharrean gertatzen diren hizkuntzak (nahiz gero ez dion beste partidu gehiegirik aterako gaitzespen honi). Beharbada, gaztelerarekin ari delako zuzenean borrokan, eta ez, esateko, frantzesarekin.

3. Astarloaren sintaxi jarrera zehatzago batzuk.

3.1. Aditzaren guneaz esaldian.

Ikusi dugu gorago, nola Astarloak, mobilitate ordena nagusiaren esanetara, agerian predikatzen duen, aditzak legez has lezakeela esaldia euskaraz; edo, joan litekeela agentearen aurretik, ordena libre antzeko baten ildotik. Eta ikusi ere dugu, nola beste pasaje batean (DF, 767 or.), Astarloak aitortzen zuen (euskal?) aditzaren gune natural bezala, sujetoa eta objetoaren arteko hura.

Astarloak ordea, baditu beste pasaje batzuk, aditzera eman lezaketenak, bestela, (euskal) aditzaren gune naturala-edo, ez ote den, kategoria gramatikal bezala, prezeski esaldi bukaerako hura, Cardaverazek urte batzuk lehenago postulatu eta batez ere praktikatu bidean. Hala nola predikatzen, eta arrazoitzen duen, beti, orden eta noblezia ministerialez ari delarik:

> (..., y no podran ménos de asentir a nuestro modo de pensar sobre la sintaxis del nombre, epiteto, artículo y posposición [orden natural horretan].) / Despues de estas partes de la oracion sigue el adverbio, y el verbo debe ocupar el último lugar como parte de la oración; ... (DF 520 or.) / De lo dicho hasta aquí se infiere que contempladas las voces por la nobleza que tienen como parte de la oracion, el verbo debe ser reputado inferior en órden a todas las demas de quienes hemos hablado y con quienes puede ser parangonado en este particular. (DF 764 or.)

Eta egia bada ere, Astarloak beti ozen aldarrikatzen duela, nola ministeriozko noblezia guztiak, beti mobilitateko nagusienaren menpe geratzen dire, eta beraz ez dela errealitatean praktikoa gertatzen; ezingo da ordea ukatu, azken baieztapenak ezin hobeto uztartzen direla, euskal aditz posposizio orokorraren mitologian, Cardaverazez geroztik, gorputz hartzen hasia dena eta bere bidea ebakitzen, hegoaldeko euskalzaleen artean. Ez da bada harritzekoa, gero euskal aditz posposizioaren defendatzaile berantiarragoren batek ere, bere usteen sostengua aurkitu badu, Astarloaren hala moduzko hitzetan.

3.2. Adberbioaren gunea euskaraz aditzaren aurrean.

Astarloak apustu teoriko garbia egiten du, predikatzen, euskaraz, adberbioaren gunea dela prezeski, aditzaren aurreko hura, eta ez ondorengoa, gramatika erromantzeek aldarrikatu bezala (eta ere Larramendik edo Cardaverazek, mimetismoz izango bada ere). Eta ez dago dudarik egiterik, Astarloak bere eztabaidan erakutsiko dituen adibideek, ezin euskara ohizkoagoan, bere tesien alde jokatzen dutela.[103] Hala nola dioen jada *Apologian*, eta gero *Diskurtsoetan* ere:

> Los adverbios preceden en nuestra sintaxîs a los verbos sin que tengamos libertad de trastornar este órden, a no ser por el de movilidad: decimos Eder-to eguin d-au, ..., Gaur-etorri-co-d-a-, ..., porque todo adverbio es anterior al verbo en el órden natural, ...: primero tenemos que ponernos sentados para comer con esta modificacion: por esto el Bascuence dice, Echun-da jan-go-d-o-t, ... (A, 173 or.) / ... Con todo esto no podemos resistir a los fundamentos que nos hicieron afirmar la antelacion que debe tener en los conceptos el adverbio sobre el verbo, especialmente cuando vemos confirmada esta teoría con la constante practica de la lengua bascongada. / Este idioma siempre antepone los adverbios al verbo. Dice ondo eguin-dau: guichi jan-dau: numbait dago: ara-dua. ...: y es tan invariable entre nosotros esta sintaxis, que no nos es permitido su trastorno. El mas rústico de los vasgongados oira con disgusto eguindau-ondo: jandau-guichi: dago-numbait: dua-ara: ...: de modo que no podemos dudar que esta cualidad la viene al bascuence de su genio constitucional, y ha llegado a nosotros por una tradición no interrumpida de padres a hijos, constituyéndose de aquí que aun en este particular es superior nuestro idioma a todos los demas. (DF, 763 or.)

Astarloak nahikoa gaizki salbatzen du, *adberbioa fi aditza* segidaren konpromezua, hau sustatzeko behartua gertatzen den heinean, lehenago altxatu duen eraikuntza teorikoaren kontrakoa altxatzera, *izen fi adjetibo* ordena justifikatzeko, erlazio kategorial beretsua dutenak. Kontraesanak ageriak izango dira DF, 513 or.-an bezala; bedi ordea guztia, kausa onen mesedetan. Bitxiki samar, Astarloak *Diskurtsoetan* ez du jada onartuko, *Apologian* bai egiten zuen bezala, sikiera mobilitateak ere aldarazi lezakeenik *adberbio fi berbo* segida (DF, 514 or.):

> De aquí es que todo adverbio ha de preceder al verbo por ser anterior en el órden natural, y por lo mismo mas noble en la nobleza de origen que es la única que nos ha de regir en este caso.

Mobilitate printzipioaren salbuespen harrigarri berbera postulatzen du Astarloak, posesiboen kasurako. Baina, izan ere, jada *Diskurtsoetako* Astarloarentzako, bi ezaugarri sintaktiko hauek izango dira, batez ere, euskara bezalako hizkuntza perfekto eta jatorririk gabea bereizi behar luketenak, aldameneko gaztelera, eta beste hizkuntza ez-perfektoetatik.

3.3. Astarloaren adibidetegi eskaseko ordenak.

Denera ez dira asko, Astarloak lan guztiotan erakusten dituen euskarazko esaldi osoak. Gutxiago baiezko esaldi deklaratiboak.

3.3.1. Bi elementutako esaldi laburrak.

Ikusi ditugu batzuk adberbioen atalean, eta antzeko besteren batzuk, jatorrizko lehentasunak azaltzerakoan. Ziren: *Eder-to eguin-d-au*; *Gaur-etorri-co-d-a*; *Echun-da jan-go-d-o-t* (A 173); *Jan-da, juan-go-n-az*; *jo-ta bota-co-d-o-t* (A 174); *ondo eguin-dau; guichi jan-dau; numbait-dago; ara-dua* (Df 763). Bi elementuz osatutako esaldi guztiak amaitzen dira Astarloagan aditzaz, «Xà», aditza bigarren-edo egituran, bestela ohi bezala ere bai euskaraz (derrigorra izango ez bada ere).

3.3.2. Esaldi luzexeagoak: hiru elementu (edo gehiagokoak).

Astarloak baiezko esaldi deklaratibo luzexeagoak, bakarrik *Apologian* erakutsiko ditu. Segidako hamalauak, beren itzulpenekin:

(1) Guexotu-edo-zara zu, sin duda ha enfermado vmd (140)
(2) Galduta-ago-i, tú estas perdido (140)
(3) Zu-c eguin-dozu caltia, vmd. ha hecho el perjuicio (140)
(4) I-c aussi-dituc gure atiac, tú has roto nuestras puertas (140)
(5) Gu-c artuten-ditugu arduraac, que cuidados tan inútiles tomamos
(6) Osticadaric asco emon-deustazu ni-r-i, muchos desayres son los que vmd. me ha hecho (140)
(7) Gustija jatorcu gu-r-i arira, todo nos biene de perlas (141)
(8) Ni-r-e aitac saldu-oi-ditu Madrilen gausaric ederreenac, mi padre suele vender en Madrid las cosas mas hermosas (141)
(9) Zu-r-e arduriac nacar echera, el cuidado de vmd. me trae a casa (141)
(10) Semi-ac maitetuten-d-au Aita, el hijo ama al padre (175)
(11) Zu-gaitic galdu-d-o-t echi-a, he perdido por vmd. la casa (176)
(12) Seme oquer bat-ec emon-d-eu-s-cu-z ardura-oneec, un mal hijo nos ha acarreado estos cuidados (177)

---

[103] Finean, ez badira ere izango, euskarazko «Xà» fenomeno orokorraren manifestazio soilak besterik.

(13) Emongo-d-eu-ts-u-t zu-ri biar-d-o-zu-na, a-ri nai -d-au-be-na, a vmd. daré lo que necesita, a aquel lo que quiere. (177)
(14) Zori-on-e-cu-ac d-ira seme-on-ac d-auquee-z-an gurassu-ac, felices son los padres que tienen buenos hijos. (184)

Eta hauen gainean esan behar da, lehenik, Astarloak bat bera ere ez duela bukatzen bere aditzaz, nahiz gehienak izan soilik hiru elementuz osatuak. Bigarrenik, hauetako zortzik daramatela beren objetua aditzaren ondotik, euskaraz itzulpenean bezala (3, 4, 5, 8, 10, 11, 12, 13 esaldiak); eta aldiz batek bakarrik, aditzaren aurretik, itzulpenean bezala (6). Azkenik esan nahi dugu, esaldi gehienek erakusten dutela elementuen ordena berber bat bi hizkuntzetan, suma litekeelarik esaldiek bi hizkuntzetan gordetzen dutela egitura komunikatibo berdintsua; esaldien laburrean, oro har, ez delarik oso erraza, hau ziur zehazten.

3.3.2.1. Aditzak esaldi hasieran.

Adibide gehiago aurkitzen ez bada ere, 13 esaldiaren aurrean ezin esan da, Astarloak erabateko higuin praktikorik ere dionik, esaldiak beren aditzaz hasteari; kasuan gainera erraz pentsa litekeelarik esaldiko galdegaia doala prezeski aditz horren ondoretik, eta ez beste inon.

3.3.3. Mendeko esaldi hautsiak.

13, 14ko mendeko esaldi hautsi gabeez gain, Astarloak erakusten du hauen parean, beste «hautsi» bat ere behintzat; aditzera emanez, gutxieneko, egituraren zilegitasuna bere sistemaren barne:

(15) Ni-c bai il-dodala bassaurdia, yo sí que he muerto jabalí [sic] (140)

3.3.4. Ezezko aditz konposatu bat inbertsiorik gabe.

Larramendik eta Cardaverazek urratutako bide zabaletik, Astarloak ere badu ezezko aditz perifrastiko bat bederen, inbertsiorik gabe josia (16), nahiz beste denak eman, ohizko joskera inbertsiodun batean (17-19).

(16) Ordiquerija-gaitic icussi-nai-ez-t-au inoc, nadie quiere verlo por la borrachera (176)
(17) Ezgaitu-bee gu goitu, no nos han vencido (140)
(18) Ez teubaat emongo i-r-i, no te lo daré a tí (141)
(19) Gueure maquilla-ac-az ez-t-a-auca-gu ino-ren bildur-ric, a nadie tememos con nuestros garrotes. (176-7)

3.3.5. Humboldten «Extractoko» esaldiak.

Extracto honetan ere jasotzen dira euskarazko esaldi (oso) batzuk. Gutxi, baina lanaren egitura ezagututa, eta bertan ematen diren beste esaldi-ez-osoak, (ia) segurutzat eman liteke, esaldiak Astarloarenak direla. Eta hauetan, errepikatu baino ez dira egiten, adierazi berri ditugun ezaugarriak. Bi esaldi labur ditugu, bi elementuz osatuak, eta biek mantentzen dute euskaraz «Xà» egitura, gaztelaniazko itzulpenetako «aX»-aremn aldean:

(20) Echi-an nago, estoy en la casa (109)
(21) Eche-ra nua, voy a la casa (109)

Beste bi esaldi luzexeagok, gaztelerazko itzulpenaren segida berbera ematen digute, presuposaraziaz egitura komunikatibo bere bat bi hizkuntzetan:

(22) Peruc-ilgo-euban Bassaurdia. Pedro habra muerto al Jabalí. (116)
(23) Edaten-baneu ilgo-neuque egarrija, si bebiera o bebiese apagaría la sed. (117)

Beste bi esaldi(-luze-)tan berriz, Astarloak aldatuta ematen dizkigu bi hizkuntzetan «Xà / aX» elementuen ordenak, emanez gaztelaniaz, justu aditzaren ondoretik, euskaraz aldiz, justu aditzaren aurrean doana, baina aldatu gabe, esaldiko beste elementuen ordena erlatibo berbera bi hizkuntzetan:

(24) Gustiz ondo jocatu dabee jocalariac. / Han jugado muy bien los jugadores. (118)
(25) Galaero apaindu dau amac bere Alabia. / Ha ataviado gallardamente la madre a su hija. (118)

Esanguratsuak izan litezke, euskararen ordenamendu malgutasunen testigantza modura, Humboldtek hurrena, Astarloaren Sintaxi parteko oharretan aurkezten dizkigun, bi esaldi pareak beren itzulpenekin; bikote bakoitzeko esaldietako bat hasten duelarik zuzenean aditzaz (118 or.):

(26) Etorrico zara guero. / Vendras después. (118)
(27) Gero etorriko zara. / Despues vendras. (118)

(28) Ilgo gara nozbait. / Moriremos alguna vez, für die Gewissheit des Todes. (118)
(29) Nozbait ilgo gara. / Alguna vez moriremos, für die Ungewissheit der Zeit. (118)

Bukatzeko, Humboldtek jasotzen digu oraindik baldintzako esaldi «hautsi» bat, eta ezezko esaldi bakar bat ere bai honen ondorio (beharbada, aditz partizipioa falta duena):

(30) Gorde-baneu Jaungoikuaren aguinduba, eneban daucadan nequia, si hubiera o hubiese guardado la ley de Dios, no hubiera tenido los pesares que tengo. (117)

3.4. -ko izenlagunen posposizioa.

Astarloak ohizko joskera erakusten du, euskarazko *-ko* izenlagunak emanez izenaren aurretik. Baina, eraberean azaltzen digu, nola onartzen duen alderantzizko joskera euskaldunaren erabilerak; kasuan, gaztelera eta beste inguruko hizkuntzen ordena bera, baina kasuan agidanean minik egiten ez diona. Eskertzekoa zaio aitorpena (DF, 765 or.):

... Es tanta la observancia de nuestra lengua en la anteposicion de sus posesores, que no solo lo ejecuta con los sustantivos, sino tambien con aquellos adjetivos llamados por los gramaticos posesivos. decimos lapicoco oquelia, de la olla la carne: Españaco Erreguia, de España el Rey: echeco Jauna, de la casa el Señor; pero se oye al bascongado oquela lapicocua: Erregue Españacua: jaun echecua. La carne de olla: el Rey de España: el Señor de casa.

3.5. Euskararen posposizioak.

Bere aurreko gramatikalari guztiek bezala aldarrikatzen du Astarloak ere, euskararen ezaugarri, nolabait morfologiko (eta ez sintaktiko) hau, jatorrizko hizkuntza perfektoarena bezala. Hala dio (DF, 344 or.):

TODA CARACTERISTICA FUE POSPOSITIVA EN EL IDIOMA PRIMITIVO. / ... el extrañamiento que causara a nuestros literatos el que llamemos posposiciones a unas palabritas que en sus gramaticas de las lenguas mas conocidas, son llamadas y tenidas por preposiciones por hallarse antepuestas a los nombres y pronombres en estos idiomas, sin embargo de ser opuesta esta colocación a los avisos de la naturaleza, y a lo que hubo de suceder en el idioma primitivo.

Apologian ere esplikatzen zuen, orduan era politagoan (A, 144-5 orr.):

Como son quatro las relaciones secundarias del nombre; esto es, la material, la final, la instrumental y la eficiente, ni son mas ni son menos las preposiciones del Bascuence, a quienes por ser esta lengua pospositiva, llamaremos posposiciones en los sucesivo: ... Ezco / Entzat / Gaz / Gaiti ó Gaitic. / ... Tiene tambien el Bascuence otra posposicion que la llama / Exclusiva ... Baga.

3.6. Konjuntzioen guneaz, lotzen dituzten bi esaldi zatien artean.

Astarloak ezer gutxi esaten du hauen gainean, ez sikiera zein edo nolakoak diren euskaraz. Berak ordea ez dauka inolako kezkarik hauen guneaz esaldian, lotzen dituzten esaldi zatien erdian. Bi alditan ere behintzat dio, *Apologian* eta *Diskurtsoetan*:

... la conjuncion ... como no es otra cosa que un eslabon que une y enlaza entresí palabras y conceptos, ha de colocarse en medio de ellos: ... (A, 174 or.) / ... Las conjunciones é interjecciones son unas voces sueltas; las primeras unen ó traban entre sí a las palabras ó conceptos, y deben colocarse en medio de los dos extremos que enlazan: ... (DF, 764 or.)

Jarrera ez litzateke esanguratsuegia, ez balitz, gero euskalzaleen artean zabaltzen den joerarengatik, juntagailu hauek guztiak posposatu nahi izateko esaldiari.

3.7. Euskal azentua: Librea?; Pragmatikoa?

Azentuaz ari den atalean, Astarloak ez badu ere euskara agerian aipatzen, pentsatzekoa da, berau duela buruan, lehen hizkuntza perfektoaren ezaugarrietan ari denean. Garbi azaltzen du bere tesia, eta agian ez dago horren urruti, euskarazko fenomeno azentual orokorretatik, oso lotuak beti komunikazioaren ingurumari pragmatikoei. Hala dio Astarloak (DF, 527-8-9 orr.):

ACENTOS / Ninguna cosa es mas contraria a la perfeccion del habla que la pronunciacion fija de sus palabras. ... (527) / No es mi animo sin embargo oponerme al acento. Las sílabas pausadas son necesarias en los idiomas: lo primero para dar a entender que la voz esta ya acabada: lo segundo para avivar la pasion persuasiva, esto es, la locucion pausada y grave. Son tambien necesarias sílabas breves para descubrir la irritacion, la cólera, la impaciencia del que habla. Lo que quiero decir es que no ha de haber acentos fijos, esto es, voces necesariamente largas, necesariamente breves: ni sílabas largas ni breves

constantemente, y mucho ménos vocales que [l]o sean. Esta pronunciacion debe quedar libre al uso de las pasiones, y estas alargaran ó abreviaran las voces, las sílabas y las letras, segun exigiese su analogía con lo pausado ó precipitado: de modo que solamente ha de ser pausada la última sílaba de las palabras para que se conozca su unidad, circunstancia precisa y necesaria a la inteligencia de los conceptos; pero todo acento fijo fuera de este es opuesto al dictamen de la naturaleza, como que liga el juego de las pasiones a un tono, cuando deben ser libres para aquel que les es mas propio a su natural constitucion. (528-9)

4. Astarloaren beste irakurketa bat ondorengo sintaxilariengan?

Aitatu dugu gorago, Astarloaren interpretazio ez oso zuzen batek duen islada Azkuegan. Segurasko ordea, Astarloaren posizio sensualista, pragmatiko eta liberalek baino, ordenamendu kontutan, eragin haundigoa izango dute ondorengo sintaxizaleen artean, haren beste jarrera irredentista eta irrazionalago batzuek. Eta lastima da. Eragina zenbaterainokoa den jakin ezinik, Altube berak zenbaitetan, hitzez hitz kopiatuko ditu ia bere lanetan, Astarloaren hainbat esaldi eta jarrera, segidan ikustera goazenen artean.

4.1. Sintaxiaren ikuspegia hizkuntzen arterako.

Sintaxia omen da, hizkuntzen arima, hauen parterik nobleena, eta agidanean gehien zaindu beharrekoa:

Esta parte de la gramatica es la mas noble y necesaria de todas por ser la que esta destinada para recopilar las perfecciones de los demas, y arreglar el admirable artificio de las lenguas con aquella magnificencia y energía que son correspondientes a la grandeza de su instituto. (DF, 498 or.) / Ninguna cosa debe ser reconocida en el mecanismo de los idiomas con mayor cuidado y escrupulosidad que la sintaxis. Esta parte gramatical es el alma de la locucion. (DF, 754 orr.)

Bada sintaxia izango da beste hizkuntzetatik desberdinduko gaituena. Euskal sintaxia, inondik antzik ere izango ez duena, beste zeinnahi hizkuntzarenarekin, hain orijinal eta perfektoa:

SINTAXIS BASCONGADA / Siendo la sintaxîs el alma de los idiomas, no podemos formar ideas justas de la afinidad ó diferencia que las lenguas tienen entresí, sin que cotejemos unas con otras en su construccion. ... (A, 168 or.) / ...: la uniformidad en el modo de hacer funcionarias las palabras en los conceptos, unida a la uniformidad sintatica [sic], es uno de los mas robustos argumentos de la afinidad de los idiomas, y lo mismo por lo contrario: mi idea es persuadir que todo cotejo es inútil en los idiomas para conocer su afinidad ó diversidad, como no entre en este cotejo la sintaxîs. (A, 169 or.) / La sintaxîs bascongada, cuyas reglas y fundamentos se fixaron con tanto acierto por Astarloa en su Apología ... es una pieza la mas original que acaso se ha presentado a la literatura hasta ahora: una pieza que no tiene semejante en ningun idioma, y que eleva al bascuence en su perfeccion sobre todas las lenguas del mundo. (RF, 104 or.)

4.2. Baina batez ere kontrajarriak, euskal/gaztel sintaxiak.

Bada euskal sintaxia, guztietatik izango bada ere, zeharo desberdina, desberdinagoa izango da oraindik eta batez ere, gaztelerarenetik, zeina den finean konparaziorako kontutan hartzen den bakarra beti:

¿Podra figurarse sintaxis alguna mas opuesta, mas diferente, mas distante de la Castellana, Francesa Normanda, Arabe, Goda, Latina, Griega, Hebrea, Fenicia, Céltica, que la nuestra? (A, 177 or.) / No solo son contrarias sino tambien opuestas solemnemente en esta sintaxis la lengua Bascongada [posesibo aurrejarriez ari da], y las que el Señor Tragia quiere hacer maestras suyas. (A, 178 or.) / ..., el órden natural y el ministerial en los posesivos, nos han provisto de un número suficiente de pruebas para demostrar la diferencia que hay entre nuestra sintaxîs y la de las lenguas de Tragia, y no nos dejara de dar algunas el órden de movilidad. (A, 179 or.) / ... Daremos a entender la exâctitud del Bascuence en el uso del órden de movilidad, para que al mismo paso que demostramos la diferencia de esta nuestra sintaxîs y la de las lenguas de Tragia, vean las naciones si nuestras instrucciones pueden servir de alguna utilidad. (A, 180 or.) / La energía de nuestras expresiones tanto mas excede a la de las Castellanas, quanto en las nuestras se pinta con mas propiedad la movilidad del proferente; ... (A, 181 or.) / Hemos demostrado ... que ... la sintaxis en todo es muy diferente de los idiomas que Don Joaquin de Tragia soño maestros del Bascuence; ... (A, 187 or.)

Astarloaren ideia hauen oihartzunak, Larramendik bide berean utzitako sustraiekin batera, hizkuntza prepositibo/pospositibo (bien) kontrajartze absolutoaz, behin eta berriro errepikatuko dira gero euskalzaleen artean, XIX mende bukaeran, eta XX guztian barrena. Batzuetan “ikasien” artean ere, besteetan soilik vulgarizazioari eskainitako gramatika saio apalenetan. XX mende bukaerarako ez da jada berau baino ezagupen zabalduagorik izango euskararen inguruan. Eta, euskaraz ez dakien guztiak, dakien bezalaxe, euskaraz ez dela esaten *telefonoa*, baizik *urrutizkina*, eta euskaldunok gaizki esan ohi dugula beti; orobat, euskara pitorik ez dakien guztiak daki, nola ez dagoen munduan erdal sintaxiari gauza kontrajarriagorik, nola euskal sintaxia; eta nola hartan, esaldia hasi ohi duen aditzak, aldiz ixten duen gurean esaldia. Denok eraberean dakigun bezala horregatik, gero euskaldunok gaizki hitzegiten dugula horretan ere, edo horretan batez ere. Gertaera errukarriagoa da urrutizkinarena baino. Bitartean, euskarari batere begiratu gabe, segi

dakiguke iruditzen susmagarri, salagarri, gaztelaniarekiko edozein antzekotasun, orduan kalko alienigeno, sataniko, anti-euskaldun eta fededun. Eta izan ere, Astarloak *Diskurtsoetako* azken aurreko lerrokadan dioen bezala, maiz usteko da, serion, euskarak ordena *retrogrado bat-edo* gordetzen duela gazteleraren aldean. Astarloaren hitzetan anekdotikoa baino ez dena ordea, ez da horren arina gertatuko ondorengo sintaxilariengan, *retrogradutasuna* lotzen den orduko, *euskal aditzaren posposizioarekin*. Hala dio Astarloak, *zorionecuac seme onac dauqueezan gurassuac* esaldia eztabaidatzen (DF, 773 or.):

> Ahora, pues, ¿en cual de las dos expresiones bascongada ó castellana se hallan colocadas las voces segun el órden con que engrosaron sus signados el entusiasmo? Véanlo los literatos y confesaran que la sintaxis bascongada es la que guarda exactamente el órden retrógrado con que se presentaron las ideas en la formacion del entusiasmo, ...

4.3. Euskal sintaxiak ditu, erregela finko eta aldaezinak.

Hori da Astarloak, garaiko beste hainbat gramatikalari arbitrario-zaleren aurrean aldarrikatzen duena; eta hori da, jada XX mendean dudarik gabe nagusituko den espiritu kopetiluna, mugimendu euskalzalearen parterik integristenean, oraindik ere bizirik dagoena. Astarloak garbi adierazten du besteak beste bere *Reflexioetan*, nahiz bera aritu, ikusi dugu, erregela pragmatikoez:

> ... No es el bascuence en su sintaxîs como los demas idiomas. Sus reglas son fixas: son naturales: son filosóficas; ... (RF, 104 or.) / Ahora pues, si la sintaxîs bascongada es tal como nos la pinta Astarloa, este idioma es diferente de los demas. Es mas perfecto que todos, porque ninguno de ellos tiene como este reglas fixas para la construccion de las voces. Ninguno instruye sobre sí ésta ó la otra voz ha de ser la primera que se ha de colocar en nuestros conceptos. Ninguno de ellos nos dice qual ha de ser la segunda, qual la tercera. Mas el bascuence prescribe por reglas invariables que la primera voz ... (RF, 105 or.)

Hori izango da, XX mendeko sintaxilarien lan eskergabea, aurkitzea, euskal sintaxiaren erregela finko eta aldaezinak, «*estas reglas sin anomalia alguna*», Astarloak berak hurrena kalifikatzen dituen bezala (RF, 106 or.). Eta XX mende guztian barrena, goiaren goian eutsi dio zenbaitek printzipo honi.

4.4. Euskal sintaxi ona da, rustikoa. Kaltegarria ez-rustikoa.

Astarloa jakintsua ere gogotik saiatu zen ikuspegi berezi hau aldarrikatzen, rustizitatea goraipatzen, kultura gaitzesten, filosofia erromantikoen oihartzun rousseaunianoak dakarzkiguna. Moguelek bezala garai beretsuan, edo Azkuek geroago, eta oso bereziki, hiztegi kontuetan. Altubek sintaxian (soilik hitzez izango bada ere, eta ez benetan). Hala nola ekiten dioen Astarloak, behin eta berriz, rustikoaren alde, gero Altubek ija hitzez hitz ere errepikatuko dituen aforismoetan:

> Yo he procurado escudriñar por largos años las expresiones del bascuence: las he examinado en la gente mas rústica, y he hallado observadas puntualmente en este idioma las reglas que prescribe la natural sintaxis en la nobleza de origen: ... / Esta disonancia que causa el trastorno de la colocacion de voces en la nobleza de origen en el oido de la gente mas rústica, ... (DF, 756 or.) / ... El mas rústico bascongado despreciara con irritacion las expresiones ... (DF, 758 or.) / ..., sin que podamos alterar este órden de colocacion sin hacernos ridículos a la gente mas rústica. / ...; pero es intolerable al oído mas rústico la expresion ... (DF, 761 or.) / ... El mas rústico de los bascongados oira con disgusto ... (DF, 763 or.) / ... El mas rústico oye con placer ... (DF, 765 or.)

Eraberean ez-rustikoen salaketa eta mesprezuan (DF, 766 or.):

> ...; y esta libertad se ha introducido tambien en la lengua bascongada, especialmente entre la gente que no es rústica, pues esta conserva aun con bastante [constancia] el índole de su nativo idioma, que es de colocar los recipientes inmediatamente del verbo.

4.5. Ohar bat, bukatzeko, Zamakolaren inguru.

Aipatu soilik, Astarloaren ideia sintaktikoek eduki ahal izan duten eraginaz ari garelarik, nola, J.A. Zamacolak bere *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del pirineo septentrional, y costas del mar Cantabrico, desde sus primeros pobladores, hasta nuestros días* liburuan ere, ematen duen 1818an, Astarloaren ikuspegi sintaktikoen laburpen petoa (T.II, 148-9 orr.), nahiz berririk erantsi gabe.

V. CARDAVERAZEN ESKOLA BAT, XIX MENDEAN BARRENA.

0. Sarrera.

Hil eta gero, Aita Cardaveraz (1703-1770) mende oso batez izango da, bere idazlan ugariekin, euskal literatura giputzaren pertsonifikazioa. Harik eta, XIX mendearen bigarren erditik aurrera, titulu bera hasiko den jasotzen, berriro antonomasiaz, Cardaverazen dizipulu, Apaiz D. Francisco Ignacio de Lardizabal, Zaldiviaco Beneficiadua (1806-1855). Eta egia da, epe guzti horretan ez dela beste idazle giputzik izango, Cardaverazek bezain obra zabala duenik. Ez bere garaitsuagoko izan ziren Mendiburu (1708-1782), edo Ubillos (1708-1789). Eta ezta ere geroagoko, J.I. Guerrico (1740-1824), J.B. Aguirre (1742-1823), J.I. Iztueta (1762-1845), F.I. Jauregui (1767-1829), A. Pascual Iturriaga (1775-1851), J.C. Echeverria (1773-1853), V. Moguel (1782-1854), edo beste, zein zein baino obra zabalago edo murritzagoarekin.

0.1. Cardaverazen arrakasta literarioa.

Cardaverazen obra, zabala izateaz gain, izan zen, gainera, ondo zabaldua. Bere obra askok ezagutuko dute berrargitalpena urte gutxiren barne, eta bat baino gehiago ere, liburuak ondo erabiliak zirenaren seinale. Nahikoa bedi jakitea, adibiderako, Cardaverazen izeneko *Escu-Liburuak*, bere obra desberdinetako zatiz osatua,[104] 1826an argitaratzen dela lehenbizikoz, eta gutxieneko 35 argitalpen desberdin ezagutzen hurrengo 75 urtetan, 1903ra bitartean.[105]

Berrargitalpenez gain, Cardaverazen zenbait obra ere erabiliko da hurrengo urteetan, moldaketa (edo zuzenketa) berriak egiteko haien gainean. Dela euskalki berdinaren barnean, nola, J.A. Moguelek (1745-1804) egin bide zuena, Cardaverazen 1762ko bizkaierazko *Dotrina Cristiana* berrargitaratuaz 1783an, zuzenketa askorekin (ugari, eta esanguratsuenak hitzen ordenari dagozkionak), eta zeinari azpititulo argigarria erasten dion, *Cristinaubaren jaquinvidia, Aita Astetec erderaz eguina, ceinian aguertu, ta adierazoten dirian itaune ta eranzutetan gueure Fedeco gauzaric biarrenac. Ifinieban bizcaico eusqueran, Aita Agustin Cardaberaz Jesuitiac. Orain urteten dau eusquera apaindubaguan* (Cf. X. Altzibar, «Kardaberazen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa», *Memoriae L. Mitxelena*, 1991, ASJU, 259-76 orr.). Baita ere hala moduz G. Arruek (1811-1890) egiten duena, Cardaverazen *Aita S. Ignacioren Egercicioen IV parte*-ko *Meditacio*-ena, bere 1863ko *Cristauaren Escu-Liburua*-n (nahiz eta Arruek seguru erabiliko duen, Cardaverazen liburuarekin batera, jatorrizko autore Pinamonti-ren beste ale bat ere, pentsatzekoa da gaztelaniazkoa). Aipa litezke moldaketen artean, Aita Diego Goitiaren (1739-1829) esaldi bildumak: hiru koaderno eskuizkribatuak, goitik behera josiak Cardaverazen liburu desberdinetako aipuekin, Loiolako Artxiboan gordetzen direnak[106] Eta moldaketa arrakastatsuen artean jaso liteke, gorago aipatu Cardaverazen izeneko *Escu-Liburua*.

Izango dira ere, euskalki batetik bestera aldatuko diren Cardaverazen liburuak. Hala nola, Jean Duvoisinek (1810-1891) 1856an argitaratuko duen *Liburu Ederra, aita Cardaveraz Jesuistac eguina, Lapurdico escarara itzulia*, honen *Aita San Ignacioren Egercicioen II partea* moldatuaz (*Afectoac*). Edota *Egercicio* horien IV Partearekin (*Meditacioac*) XIX mendeko

---

[104] Batik bat Cardaverazen *Meza eta Comunioa*, eta 1760ko *Christavaren Bicitza*-tik ateratako zatiz osatua lehen argitalpenean (gizentzen doana hurrengoetan zati berriekin). Kurioski, Cardaverazen *Escu-Liburu* zabalduen eta ezagunen honetan jasotzen diren zatietako batzuk, zeharo daude idatziak, Cardaverazen 1744ko estilo arin eta argian, eta ez 1760-66ko jada trakets, ilunean (esateko, liburuaren hasiera parteko *Asteco zazpi eguneta... oracio eta meditacio laburrac* -Cardaverazen *Meza eta Comunioa* liburuaren azken partetik hartuak, *Euskal Lan Guziak*, 153-212 orr.-). Bertan, ez dira oraindik aditzak zeharo artifizialki atzeratzen esaldian. Zati honek bezalakoek, ez dute zerikusirik, beren hitzen ordenamenduari dagokionean, esateko, *Meza eta Comunioa* liburu beraren sarrerarekin (*Iracurleari Avisoa*), eraberean ematen dena, *Escu-Liburuaren* sarreratarako, eta dudarik gabe dena, Cardaverazen bigarren garaikoa. Beharbada, joskera desberdintasun beretsuak aurki litezke, Cardaverazen beste libururen bateko zatien artean. Guk ez dugu berriro aukerarik izan hauek osorik aztertzeko, eta artean jabetu gabe geunden, *Meza eta Comunioa* bezalako liburu baten barne estilo desberdintasunez, Cardaverazi buruzko saio nagusia idatzi genuenean. Cardaverazek, ez zituen zuzendu, 1760-66rako zituen joskera irizpide berrietara, sarrera bai bezala, *Meza eta Comunioa*-ren zati hauek, zalantza gabe lehenagotik idatziak zituenak. Hipotesi asko egin litezke, ez dakigunez gero, noizkoa den seguru, liburu honen lehen argitalpena (bigarrena da ezagutzen duguna, 1782koa), edo sikiera Cardaverazek pertsonalki burutu ahal izan zuen lehen argitalpenaren prestaketa, Italiara atzerriratu behar izan aurretik 1766.

[105] J. Bilbaoren bibliografiako datuak.

[106] Aita Diego Goitia, maisua izan bide zen, Loiolako jesuitek garaian ireki berria zuten aurren letretako eskolan, Santutegi inguruetako ume koskorrentzako (behintzat 1818ko urtean, Loiolako Aita Eguillorekin egiaztatu ahal izan dugunez, *Konpainiako Annaletan*). Garai horretan nolanahi, Loiolako etxean ez omen dira denera, lau/bost bat Aita baino. A. Goitia izango da, eskolako maisu bakarra (*Professor Grammaticæ* titulo ponposoa *Konpainiako Annaletan*). Bakarra izaki, bera izango da, ikastetxearen zuzendaria ere, J. San Martinek deitzen dion bezala («Diego Goitiaren euskarazko esaldi bildumak», *Euskara*, XXVII, 1982, 613-618 orr.). Ikus liteke artikulu hau, zerbait gehiago jakin nahi izanez gero Aita Goitiaren gainean, edo Loiolako artxiboan gordetzen diren honen eskuizkribuen inguruan.

bizkaieratzea, argitaratzeko asmoz egina, baina, oraindik eskuizkribu, Loiolako artxiboan gordetzen dena argitaratugabe.[107]

Halaber aita litezke Cardaverazen arrakastaren lekuko, bera hil eta ehun urte baino gehiagora ere, artean argitara ematen zaizkion zenbait eskuizkribu. Hala, Aita Aranak argitara ematen duena 1882an: *Ama veneragarri Josefa Sacramentu Guciz Santuarena Ceritzanaren vicitza eta vertuteac ...* (ez dakigu, nolako edo zenbaterainoko aldaketa-zuzenketak egin eta gero, baina bai batzuk bederen). Edota 1901ean argitaratzen den *Azpeitico erri chitez noblearen gloria paregabeac edo Aita San Ignacioren bicitza laburra*.

0.2.Cardaverazen arrakasta estilistikoaren inguru.

Lanen ugaltasunaz gain, Cardaveraz idazlearen arrakasta literario (erlijioso) ezin haundiago honetan, nabarmen joka bide zuen alde, are bizi zen artean ere, Cardaverazek berarekin arrastatu zuen santutasun ospeak. Baina Cardaverazen arrakasta, ez da bakarrik erlijiosoa izango XIX mendean barrena. Bere izena maiz aipatuko da, euskalzaleen lanetan ere. Batetik, eredu giputz, ija bakar bezala, esan dugun legez. Baina bestetik, baita ere gainera, jarraitzeko eredu estilistiko berezi eta *jatorren* bezala, euskal idazle ororentzat.[108] Eta hala goraipatuko dute lan desberdinetan, bederen guk dakigularik, Moguelek eta Añibarrok, Aita J.M. Zavalak (1777-1840),[109] oraindik Lardizabal eta Campionek (1854-1937), beren gramatika ezagun eta arrakastatsuetan, edota Aita J.I. Aranak (1838-1896), sarrera honetan aurrerago zehatzago aipatuko dugun bezala. Bitartean, ahaztuxeak, edota bigarren maila bazter batean geratuko dira, beste autore giputz gorago aipatu ditugunak, oro har ordea, askoz leunagoak eta ulergarriagoak direnak Cardaveraz baino.[110]

Cardaverazen ospe estilistikoaren arrazoi nagusia, aurkitu beharko da horregatik seguruenik, bere 1761ko *Eusqueraren berri onac* obra laburrean. Ez alferrik erakusten du titulu luze eta esanguratsu bezala:

> EUSQUERAREN BERRI ONAC: ETA ONDO ESCRIBITCECO, ONDO IRACURTECO, TA ONDO ITZEGUITECO ERREGLAC: CURA JAUN, TA ESCOLA MAISU CELOSOAI Jesus-en Compañiaco Aita Agustin Cardaberaz ec esqueñtcen, ta dedicatcen dieztenac.

Zer gehiago deseo zezakeen, bere lanbidean euskara derrigorrez erabili beharra zuen hark, bere idatziak, sermoi eta platikak itxuraz gauzatu ahal izateko? Hauentzat denbora luzean gerta bide da ohizkoa, behintzat ezagutzea, Cardaverazen liburuska, inoiz inork ere deitu duena, anpulos samar, euskal erretorikaren tratadu. Liburuskaren eraginaren adibide izan liteke beharbada, geroztik hego aldean pizten den jarrera borrokalaria h-arekiko (J.A. Moguelek, edota G. Arruek esateko, agerian aitortzen dutena); Cardaverazek zorrotz sententziatu moduan, ohizko joskera bitxian (*EBO*, 1761, 23 or.): *H, h. ... Guc orrelaco aspiracio begemente, edo behementeric usatcen ezdegu. Quen ortic: gure Eusquera suave eztizcoarenzat soñu ori ezta.*[111]

0.3. Cardaverazen eragin estilistikoez.

Cardaverazen tratadu erretorikoak ematen zituen, beste erregela batzuk ere, idatz estiloari zegokionean. Garbienetakoa *Latin edo Gaztelaniatik Euskarara bihurtzekoa*. Arazo bat, zeinak dudarik gabe behar zuen izan, garaiko idazle-predikarien kezkarik handienetakoa. Erregelak bereganatzen duen oihartzunaren adierazle izan liteke, nola jasotzen duen Diego Goitiak ere, hitzez hitz Cardaverazen aipua, bere eskuizkribatutako lehen liburuskan (80. or.), honek bere idazkera traketsean jasotzen dituenean Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren Sarrerako zenbait ideia (*EBO*, 58 or.):

> ... Latin, edo Gaztelaniatic Eusquerara biurtu nai bada, ori ondo biurtceco, edo traducio onaren legueac gorde beardira: eta ez itzac berac, ezpada oriec esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu, ta eusqueraz nola ondo esangodan contuz

---

[107] Eskuizkribua anonimoa da (ez Cardaverazen eskukoa); dirudienez XIX mende barrenekoa, letra klasearen arabera, Aita J.R Eguillor, Loiolako Artxibo Zaindariaren esanera. Bukaerako 90-99 orriak gainera, kopia bat dira Añibarroren *Escu-Liburuaren* (2. edo 3. arg.) zenbait pasarterenak. Sarrera honen ERASKIN bezala traskribatzen ditugu eskuizkribu honen lehenengo 7 orrialdeak: *Berbaurrecoa* (hau da, artean Cardaverazen lanari ez dagokion sarrera guztia), eta itzulpenaren hasiera labur bat. Uste dugu, eskuizkribu osoa begiratu ahal izan dugun arintasunean, oro har, nahikoa errespetatzen duela jatorrizkoaren hitz ordenamendua, den bitxia izanda ere (tarteka aditza aurreratzeko-edo aldaketa esanguratsuren batekin, gure ERASKINean ere suma litekeen bezala). Aldiz, *Berbaurrecoa*, sarrerako beste bi atalen idazkera, nola Añibarrori dagokion zatia, ez da dudarik, idazkera molde klasikoagoei jarraitzen zaizkiela, oro har, aditza Cardaverazek baino aurrerago emanaz esaldian (ERASKINean ikus litezke).

[108] Salbu, hiztegi kontuetan, zabarregia garaiko gustorako ere.

[109] Cardaverazen estiloa, ez hiztegia, *Noticia de las obras vasconcadas ...*, 1856, 3. or.

[110] Preferentzia harrigarri samarra, ez balitz etorriko, beharbada, batzuen eta besteen testuen oinarrizko ezagutza falta batetik.

[111] Ez zuen horregatik Cardaverazek ere, horrelako usterik, artean hamazazpi urte lehenago, berak ere hatxea erabiliaz argitaratzen duenean 1744ean lehenengo aldiz, bere *Christavaren vicitza*.

consideratu, ta ori escribitu bearda.

Kurioso, Aita Goitiak ez du jasotzen segidan (eta ez dugu uste beste inon bere eskuizkribuetan, hauek begiratu ahal izan ditugun neurrian), aipuaren jarraia, Cardaverazek ematen duenean itzulpenerako erregela zehatza, aldiz bai jasotzen dutena, beren nolabaiteko onespena eskainiaz, behintzat, Campionek Gramatican, eta Aita Aranak 1886ko artikulu batean (*La Enseñanza del Euskara. II: El euskara comparado con el castellano*, Euskal Esnalea, 1922, 119 or., nondik segitzen dugun):[112]

> Beste izkerak bezela, gureak ere bere itzaldi egoki, txit biziak berezko ta berariazko ederrak ditu. Baña erdarak era batera, ta euskarak bestera. Onek era postpositivo ta ark prepositivo'an. Esan nai du: Gaztelaniak beti aurretik dakarrena, euskarac azkeneronz beti botatzen duela; eta itzak beren lekuan gaztelaniaren kontra ipintze orretan euskararen era eder, aire, edo chiste gucia dago. Bestela, itzen-itz erdaratik euskarara biurtzen badezu, txit itsusi doakabe edo modelakaitz irtengo da;...

Cardaverazen aipuko hitzok errepikatzeaz gain, ez dugu uste, XIX mendean berriro horren gordin eta agerian aldarrikatzen denik inoiz euskal gramatikalarien artean, *gaztelaniaren-contra-ifintce*-ko idazterregela, zeharo berpiztuko dena XX menderako.

0.3.1. Cardaverazen aditz atzerateko erregela orokorraren eraginaz.

Bitartean, Cardaverazen aditza atzeratzearen erregela nagusia, «*la gala esta en posponer aun los verbos, que por lo regular caen assi con mas elegancia*» hura,[113] agerian jasotzen ez dena 1761eko "erretorikan", nahiz erruz bere praktikan, laister azaleraziko dute XIX mendean, eta gomendatuko jarraitzea Cardaverazen izenean, hegoaldeko gramatikalari hainbatek; oraindik ziur jakingo ez badugu ere, nondik eta nola eratortzen, edo ikasten, duten legea. Hala behintzat, ezagun, Añibarrok, Lardizabal, G. Arrue, eta Campionek; eta Añibarroren esanetan, baita ere, J.A. Moguelek, nahiz ez daukagun honen zuzeneko testigantzarik.

Erregelaren praktikak, Cardaverazen 1760-66 bitarteko lanetan, suposatzen zuen, aditza erabat artifizialki atzeratzea:

1.-Baiezko esaldi deklaratibo nagusietan, hauek zeinnahi luzeratakoak izaki ere, eta maiz, etenak eraginez, artifizialki aurreratutako galdegai, eta artifizialki atzeratutako aditzaren artean.
2.-Aditza atzeratzea, bitxiki asko, galderetan ere; orokorretan, nola galdegile bidezkoetan, eta hauetan gainera, maiz, etenak eraginez ere bai, ohizko moduan aurreratutako galdegilea, eta artifizialki atzeratutako aditzaren artean.
3.-Aditza atzeratzea, ohitura guztiez bestela, aginteretako aditzetan.
4.-Aditzak atzeratzea, ezezko esaldietan; hala aditz trinkodunetan, nola konposatuetan, zeinak oso maiz emango diren inbertsiorik gabe.
5.-Aditzak atzeratzea, erruki gabe, edonolako mendeko esaldietan, nahiz eta ordenamendu oso bitxiak eragin.
6.-Ematea esaldi nagusi eta mendekoen errezkada koordinatu luzeak, saileko azken aditz partipioari bakarrik erantsiaz dagokion aditz laguntzailea, edo erlazio atzizkia; iluntasun handiak eraginez esaldietan, Larramendik salatu bezala.
7.-Azkenik, atzeratzea zenbaitetan, ez bakarrik aditzak, baizik baita ere, edonolako sintagma buruak, euskararen ustezko ezaugarri pospositibo orokor baten harian.

Ageri-edo-izkutukoa, Cardaverazen erregela honen eragin praktikoa, laister isladatuko da, XVIII mende hondar eta XIXeko zenbait idazle, batez ere giputzengan, baina ez hauengan bakarrik. Esate baterako, oso goiz aurkituko dugu jada eragin horren berri, Bartolome Olaechea, Laucarizco *cura* bizkaitarragan, zeinak ordenamendu aldaketa oso nabarmen eta aztergarriak (cardaveraztiarrak) eragingo dizkion, 1775eko bigarren argitalpenerako, lehenik 1763an argitaratu zuen *Doctrina Cristianea*-ri, eta gerora ondo arrakastatsua izango dena (17 argitalpen bederen, J. Bilbao, *Bibl*.), aldaketa cardaveraztiar eta guzti, nahiz hauek, oro har, ez diren gordinegiak izango (salbu, galderetako aditzak horren proportzio ikaragarrian atzeratzen dituenean).

Olaecheak baino nahikoa nabarmenago praktikatuko du aditz atzeratze orokorragoa, J.I. Guerrico segurarrak, ondo jakinaren gainean gure ustez, bere *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren Sayaquera*, Platiketan (1858an argitaratua, baina idatzia 1805 ingururako). Batere dudarik gabe ere, F.I. Lardizabalek bere *Testamentu Zarreco eta Berrico Condairan* (1855), eta agian beste lanen batean ere (*San Roque...* -ren bederatciurrena kasu, 1855). Cardaverazen legearen eraginpekoa da ere, dudarik gabe, Duvoisinen *Liburu Ederra* (1858), berak argitaratu liburu goiztiarrena, eta ez dakigu zenbaterainoko eraginik jasan ote zezaketen Duvoisinen ondorengo lanak. Oso nabarmen, Gregorio Arrueren lan gehienek (1858ko lehen *Dotrina* salbu, eta agian 1863ko *Escu-Liburua*). Beharbada senti liteke eragin cardaveraztiarra ere, kasuan agian J.I. Guerricoren eraginez, honen izen bereko, ia herri bereko, eta ez dakigu ahaide, J.I. Guerrico Urquiola (1806-1883) ceraindarraren obra urrian (*S. Ignacio Loyolacoan Jesusen Compañiaco Misionistac eman zuen Misio*

---

[112] Hitzen bat edo besteren forma aldatua duen bezala Cardaverazen jatorrizko testuarekiko.
[113] Ap. Larramendi, *Escritos Breves*, 1990, 302 or.

Santuaren Oroipena, 1853). Baina ez dugu uste halako eraginik aurkitzen denik, urte askoan Guerricorekin batera eta Mutiloako elizan apaiz izan zen Jose Feliz Amundarainen (1755-18??) eskuizkribatutako *Igande-Sermoi* ugaritan (□1824). Cardaveraztiarra izango da ere noski, Cardaverazen *Egercicioen IV partea*-ren bizkaieratze argitaragabea. Azkenik, aztarnaren batzuk ere sumatuko dira, garbi, Campionen euskal idatzi, beti urrietan.

Bestalde, izango dira segurasko nolabaiteko eragin cardaveraztiarrekoak, P.A. Añibarrok 1802ko *Escu-Librua*-ri eragiten dizkion hitzen ordenamendu aldaketa (ez batere ugari, edo gordinak),[114] hau bere bizitza hondarretan berragitaratzen duenean 1821ean, eta berriro 1827an. Ez da arrasto cardaveraztiarrik sumatuko Añibarroren beste inongo lanetan. Batere sentituko ez den bezala ere, Moguelen obran, ezpada autore biok tarteka erabiltzen dituzten ezezko esaldi inbertsio gabeetan. Aldiz ezagutzen dugu Moguelen 1783ko Dotrinaren birmoldaketa zeharo anticardaveraztiarra, honen jatorrizkoaren gainean egina.

Hurrengo ataletan estudiatuko ditugu zehatzago, XX mendera bitarteko, aitatu autore eta gramatikalarien lanak. Agian izan bide dira gehiago, nolabait eragin cardaveraztiarra jasan duten euskalzaleak, edo lanak, XIX mendean barrena. Guk ez ditugu ezagutzen[115] (J.I. Aranaren kasu berezia salbu, hurrengo puntuan aipatzen duguna), eta ikerketak jarraitzekoak lirateke ikuspuntu berri honetatik.

0.3.2. Ohar bat, Aita J.

Ikerketen jarrai bideen adibide, aipa genitzake, Aita J.I. Aranaren (1838-1896) zenbait lan, zeintzuri ez diegun eskaini atal berezirik hurrengo saioetan, agian mereziko luketen arren, XIX mendeko Eskola cardaveraztiarraren barne. Aranak, batetik, ikusi dugun bezala, jaso behintzat egiten du, 1886an (Campionen Gramaticaren ondoren horregatik), Cardaverazen *Eusqueraren Berri Onac*-eko aipua. Bestetik, bere euskarazko itzulpen lanen baten bistara behintzat, pentsa liteke, nola tarteka bederen fidel segitzen dituen Cardaverazen erregelak, aditza artifizialki atzeratzeko esaldian (nahiz, oro har, oso usuzkoa, eta are usuzkoena izan, Aranagan aditzen aurre gunea esaldian), nola, euskaraz gaztelaniaren kontrara idazten, nahikoa artifizialki, pentsa litekeen bezala, aztertuaz, berak bi hizkuntzetan batera, bi zutabetan elkarren ondoan, argitaratzen dituen, *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua* (1872), edo «Loyolako-oroitza chiki bat» (Euskal Erria, IX, 1883, 65-93), itzulpen lanak biak, bestelakoan ere nahiko traketsak.

Bere beste itzulpen edo sortze propioko lan batzuetan berriz, zailagoa da sumatzen halako eragin cardaveraztiar zuzenik. Hala, guk ikustatu ditugun: *Jesusen Biotz Sagraduco Billera-Santu edo Congregacioaren gañeco gauza cerbaitzuec dacazquien liburuchoa* (1870; berriro argitaratua zenbait aldaketarekin 1878an); 1882an argitaratzen duen «Jesus-en Biotz Maitearen debozioa deritzan A. Mendiburu-ren liburuari A. Arana-c ezarritaco osagarria», Mendibururen liburuaren argitalpen berrian; 1891an argitaratzen den *El Concilio III de Toledo, base de la nacionalidad y civilización española. Edición políglota y peninsular en latín, vascuence, arabe, castellano, catalan, gallego y portugués, ...*, Madrid, 1891, eta zeinen euskarazko bertsioa A. Aranak itzultzen duen (49-84 orr.), honen X. eraskina bezala bizkaieraz hitzaurrean esaten denez: «X. Jesucristo-ren erreiñutzaco eunkadaldi bi Españan batez-bere batasun catolicuarena» (337-43 orr.; nahiz honen amaieran ematen den J.G.A-co. sinadura); edota ezagutzen dizkiogun euskarazko hiru eskutitzetan, Printze Bonaparteri eginak -*Euskara*, 1958, 26-7 orr.; *BAP*, 1959, 447-8 orr.; *Bol. del Ins. Amer. de Est. Vas*., X, 1959, Nº 36, 31-2 orr.-; eta agian 1897an (1891, J. Zabaletaren *Euskal Itzulpenaren Antologia*, 1, 188 or.-ko erreferentzietan) Barcelonan argitaratzen den, Sarda y Salvany-ren *El liberalismo es pecado* liburuaren argitalpen poliglotaren euskarazko bertsioan, segurasko Aita J.I. Aranak egina, bere idazkeraren ezaugarriengatik (J. Zabaletaren aipatu antologian, ematen denaren arabera (188-201 orr.); eta agidanean Zugazagaren aburuz ere -«Jesusen Lagundiko Aita Arana-tar Jose Iñigo euskalzale argiaren bizi-barri laburra», *Euskalzale* I urtea, XXXII geia, 253 or., cf. Zabaletaren Antologia, 183 or.-). Gure ustez A. Aranarena ez litzatekeen bitartean, Baionan 1888an argitaratzen den *Bai, pecatu da liberalqueriya*, Sarda y Salvanyren lanaren laburpena, Aita Villasantek bestela dioen arren bere Literaturaren Historian.

Beharbada mereziko luke sakonago aztertzea Aita J.I. Aranaren euskal lana, eta batez ere, bere eragina Cardaverazen Eskolako presupostuen aldarrikatzaile, propagandista, posible bezala. Kontuan harturik, bere ospea eta sona euskalzalea garaian (Cf. besteak beste, Villasante, *HLV*. 284 or.); bere berezko zaletasun cardaveraztiarra (gogoratu *Ama Josefaren bicitza*-ren argitalpena, beste testu cardaveraztiarren artean); bere saioak euskal propagandista bezala Orduñako ikastetxean, non ezagutu bide zuen Sabino Aranak; bere jakinduria euskal literatura eta bibliografia gaietan («*El P. Arana fue, sin duda, de los mas profundos conocedores de la literatura y bibliografía vascas*», *HLV*, 284 or.; eta ikus litezke bere erreferentzia ugariak, «La enseñanza del euskara» artikuluan, edota beheraxeago aipatzen dugun, A. Henaoren lanari

---

[114] Bestela uzten bada ere aditzera, Añibarroren *Lora Sorta Espirituala*-ren berrargitalpenari eginiko Aurkezpenean (*ASJU*, XXII-1, 8 or., 2 oharra).

[115] Beharbada aurki liteke errazago, soilik ezezko aditz konposatuen inbertsio eza praktikatzen duenik. Eskolako besteen artean ordea, berezi samar jo dugu ezaugarri soil hau, bere arrasto propioa segitzen duena Larramendiren Arteaz geroztik, eta ez doana derrigorrez lotua, aditz atzeratze orokorragoen praktikarekin.

egindako eraskinean); bere kezka hizkuntzaren eta gramatikaren kontuetan (ik. bere eraskina *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua* liburuari, 1872: «Liburucho onen eta besteen Euskara-ren gañean cerbait» izenekoa, 200-9 orr.; bere *Disertación sobre la ortografía éuskara*, Bilbao, 1890; jada aitatutako «La enseñanza del euskara» artikulua; beste hainbat artikulu kontu etimologikoez *Euskal Erria* aldizkarian; edota bere iruzkinak halamoduzko gaiez, «Reseña histórica de la literatura Cantabra ó Bascongada» izeneko lanean -in *Complementos a la obra Averiguaciones Cantabricas é Ignacianas, del P. Gabriel de Henao de la Compañia de Jesús*. Nueva edición ... Tomo Sexto, 1895, Apéndice VI, Ilustración II). Eta ezaguturik finean Aita Aranak zituen ikuspegi logizista zorrotzak Gramatika zientziaren gainean, Henaoren obraren eraskinetan aldarrikatzen dituen bezala, jada honen Aurkibidean (375 or.) titulu ondo argigarriz ematen den atalean («Lo que debiera de ser una buena gramatica de la lengua euskara») (96 or.):

> Lo que la ciencia y arte de una buena lógica son para el conocimiento y dirección de las operaciones de la mente en el lenguaje interno; eso deben de ser la ciencia y arte en una buena gramática, para el conocimiento y dirección de los actos mentales y sensitivos en el lenguaje externo. Luego una buena Gramática, para que mas fácil, clara y sencillamente enseñe la teoría y práctica de una lengua cualquiera, debe de escribirse casi con el mismo método y disposición de partes que una buena Lógica. Haciendo eso, con respecto al habla Cantabro ó bascongado y solo así tendríamos una buena gramática, completa y digna de lengua tan venerada.

Guk hala ere ez dugu oraindik behar adina datu bildu, Aita Arana zentzu osoz sartzeko Cardaverazen Eskola bataiatu dugun taldearen barnean. Baina ziur, ezagut litezkeela oraindik zehaztasun gehiago haren figuraren eta eraginaren inguruan, agian ere Azkue bezalako pertsonai batengan, azterketa monografiko sakonago baten ondoren.

0.4. Dizipuluak ez dira ordea izango maisua bezain gordinak.

Izango da nolanahi desberdintasunik, aditz atzeratze erregelaren jarraitzaileen eta Cardaverazen praktikaren artean. Hauek, oro har, ez dute erregela aplikatuko, Cardaverazek bezain gordin, itsu eta artifizialki, edota harek bezain azken momentuan. Cardaveraz bezala, jarraitzaileok setaz ahaleginduko dira, aditza ahal bezainbat atzeratzen esaldian (zein gehiago eta zein gutxiago, eta inoiz ez bakoitza salbuespen oso nabarmenik gabe, ikusiko dugun bezala). Ordea jarraitzaileok, Cardaverazek ez bezala, bai izango dute, oro har, kontu piskaren bat, erabakitzerakoan, esaldiko beste zein elementuren ondoren emango duten, jakinaren gainean atzeratzen ari diren aditz hori.

Esaten genuen honen aurreko kapituluan, Cardaverazen joskeren inguru, nola lortzen bide zituen honek bere esaldi bitxi eta traketsak, lehen pauso batean idatziaz hauek euskarazko ohizko joskera batean, eta bakarrik ondorengo bigarren pauso batean eramanez esaldi aurrealdera, hasiera batean aditzaren ondorean idatzia zuen guztia, esaldia berriro hausnartzeko betarik hartu gabe ordenamendu modu berrian. Hala eragin bide zituen horren maiz etenak baiezko esaldi deklaratiboetan, beste elementu batzuk tartekatzen zitzaizkiolarik, artifizialki aurreratutako galdegaia, eta atzeratutako aditzaren artean.

Cardaverazen Eskolako idazleek, aldiz, esango litzateke, oro har, hartua bide dutela aditza atzeratzeko erabakia, jada idazten hasterako. Eta hala, eskaintzen ahal diote bere denbiora esaldi bakoitza pentsatzeari, jada aditza atzeratu daraman joskera modu berri horretan. Ondorioz, eta Cardaverazek ez bezala, joera erakutsiko dute, artifizioz atzeratutako aditz hori emateko, ez Cardaverazek bezala, esaldiko edozein elementuren ondotik, baizik eta askoz maizago, erantsita, bere aurreko elementu tonikoenari, euskarazko «Xà» fenomenoaren ezaugarriek eskatu ohi bezala. Hala, oro har, jarraitzaileok Cardaverazek baino gutxiagotan tartekatuko dituzte (eta ez harek bezain gordin) beste elementu ez hain toniko batzuk aditza eta galdegai tonikoaren artean. Gutxiagotan hautsiko dute, euskal aditzaren ohizko joera, multzo foniko bere baten barrenean erantsita joateko, bere aurreko elementu tonikoenari, euskarazko «Xà» fenomenoa bezala izendatzen gatozen ezaugarria. Nahiz beti segiko diren ematen, neurri batean edo bestean, hala moduzko egitura eten bitxiak, Cardaverazen Eskolako idazle guztiengan.

Eta zenbaitengan emango dira ere, Cardaverazen ohizko esaldi koordinatu sail luzeak, artifizioz atzeratutako aditz flexio jokatu eta elementu mendekotzaile bakar baten mende. Halakoa izango da maiz nabarmen Arrueren joera. Eta are hainbatean Lardizabalena, nahiz honen esaldiak, oro har, laburragoak izan, Cardaverazenak baino, beste jarraitzaileen modu beretsuan. Horrela, jarraitzaileok oro har ez dituzte horren usu eragingo, Cardaverazek 1760-66ko lanetan maiz erakusten zituen galimatias sintaktikoak; ezpada berriro, 1866tik geroztiko Arruegan, zeina, beharbada etorri-berri bezala, bihurtuko den Cardaverazen jarraitzaile peto eta itsuenetakoa.

Piskanaka, Cardaverazen Eskolako idazleon hitz ordenamendua, hasiko da hala gehixeago hurbiltzen, gure tradiziozkoa edo Cardaveraz berarena baino, XX mendean Azkue-Altubek fabrikatuko duten sistemara, galdegaiaren erregela nagusiarekin. Gehixeago hurbiltzen. Ez hau betetzen, urrutitik ere. Denek ere, nahikoa maiz segiko dituztelako ematen, batetik, elementu tartekatuak galdegaia eta aditzaren artean. Bestetik, baita ere, gure tradizio zabalenaren ildotik,

zeinnahi motatako aditzak galdegaien aurretik, aditzak esaldi hasieran bertan ere, nahiz galdegaiak nabarmen joan ondoretik; are tarteka aditz trinkoak ere esaldi hasieran buruzuri; hala nola, usu baino usuago hautsita zeinnahi motatako mendeko esaldiak, inolako eragozpenik gabe, beren behar komunikatiboei konbeni bezala.

0.5. Iritzi apur bat Cardaverazen Eskolako hitzen ordenamendu modu berriez.

Idazleogan mamitzen joango den idaztankera berria, oro har izango ez bada ere, Cardaveraz berarena bezain bitxia, traketsa eta iluna, bai izango da, hainbeste aditz atzeratze artifizialen ondorio, askoz geldoagoa, aspergarri eta makalagoa, gure ohizko tradiziozkoa baino. Mitxelenak ere, C. Echegarayren haritik, alderatzen ditu bi hitz ordenamendu modu hauek, Aguirre Asteasukoaren prosa arina eta Lardizabalen eskolastikoagoaren artean, eta dio, bestela ere patxadan irakurtzea merezi duen artikuluan («Relato y Orden de Palabras» in «Miscelánea Filológica Vasca - I», *FLV*, 1978, X; eta orainago *Palabras y Textos*, 380 or.):

> ..., me es difícil escapar a la convicción de que en Aguirre y en Lardizabal hay dos ordenaciones muy diferentes de palabras y que éstas no son mas que la cara manifiesta de dos maneras distintas de contar. Así, a ojo, uno diría que la de Aguirre es mas popular, mas atenida al relato oral, y menos libresca.

Ez dute nolanahi zilegitasun bera, kontatzeko bi modu horiek, gure tradizio literarioan. Aguirreren hitz ordenamendu estiloa, Mitxelenaren hitzetan, herrikoi eta orala izateaz gain, da, zalantza gabe, gure tradiziozko literatura idatzian aurki genezakeen nagusia, eta ia bakarra, XX mende nahasira bitartean, salbu hitz artean dauzkagun Cardaverazen Eskolako idazle apurrak.

0.6. Cardaverazen Eskolaren jarraibideak XX mendean barrena.

Duda gabe luza liteke Cardaverazen Eskolako izenen zerrenda, XIX mende hondar, eta XXaren hasierako urteetan, beste idazle eta gramatikazale zenbaiten antz bateko lanetara. Ezagunenen artean, R.M. Azkue, Txomin Agirre, Patricio Antonio Orcaiztegui,... Baina mende iraultze horretan gertatuko euskal mugimendua, joskera mailan ere, konplejuagoa da, Cardaverazen arrasto soilarena baino. Hau aratz iristen da Campionen Gramaticaraino (1884), edo aitatu J.I. Aranaren (1838-1896) lanetara eta garai horren inguru bukatuko dugu atal hau 1890ean, desagertzen denarekin batera, Gregorio Arrue, Zarauzco escola maisu, eta Cardaverazen jarraitzaile sutsuena. Azkuek 1891ean argitaratuko du bere *Euskal-Izkindea*, eta honek garai berri bat irekiko du euskal letren mugimenduan, zeinen duda gabeko oldarretan bizi garen oraino, hitz ordenaren eremuetan, geroago ere tarteka sortutako apar berriei esker, Severo Altuberen eskutik, edota orainago eta internazionalago, R.P.G. de Rijk-enetik.

ERASKINA

Aita Cardaverazen S. Ignacioren Egercicioen laugarren partearen bizkaieratze bat, Loiolako eskuizkribu batean.

Loiolako Aita J.R. Eguillor, artxibu zaindariari esker, ezagutu ahal izan dugu bertako artxiboan eskruizkribu hau, izenburu luze duena: *Aita S. Ignacioren Egercicioen ganean Meditaciño laburrac, Jesusen Compañiaco, Aita Cardaberazec Guipuzcoaco eusqueran iminiiac, Orain Bizcaicora biurtuac. Eta Confesiño eta Comuniñoraco Erreguac*, eta bere Berbaurrecoan esaten duenez, prestatua ere bazegoena bere garaian argitaratua izateko. Eskuizkribua, honen letra, ez da Cardaverazena, Aita Eguilloren esanetan,[116] eta ez du autore ezagunik, nahiz letra moduagatik eta, dirudien, XIX mende barrenekoa. Azala eta orri beteko Berbaurreco (orijinalaz) gain, eskuizkribuak baditu bere lehen sei orrialdeetan bi atal (*Oracinoaren premiñia*, eta *Meditacino eguiteco modua*), Cardaverazenean ageri ez direnak, eta guri ezagunak egin zaizkigunak, nahiz ez dugun aurkitu nongoak izan litezkeen. 6. orrialdetik 89.erakoek, oso estu segitzen diote, guk aztertu ahal izan dugun neurrian, Cardaverazen testuari. 90.etik 98.aren amaierako Azquena bitartean aldiz, hitzez hitz ematen dira, oso aldaera gutxi batzurekin, Añibarroren *Escu-Liburua*-ren 1821eko bigarren (edo 1827ko hirugarren) argitalpeneko lau atalok: *Damua artuteco oraciñoac; Confesiño osteraco oraciñoac; Yauna artzeco prestacuntzaac; eta Yauna artu ezkero eskerrac* (1821, 158-80 orr.).

Ezin izan dugu guk testuaren gorputza oso gainetik baino aztertu ahal, baina beti iruditu zaigu bizkaieratzaileak, oro har, errespetatzen ote zuen Cardaverazen hitzen ordenamendua, hau bitxi samarra zenean ere, eta nahiz tarteka aldaketaren bat ere eragin, gure begiradara, batere sistematikoak iruditu ez zaizkigunak (aldiz bai sistematikoagoak gertatzen diren bezala, adibiderako, Cardaverazen hainbat maileburen euskal ordezkatzeak; ohar liteke guzti honetaz adibidez, segidan transkribatzen dugun testu zatiaren bukaeran, non jasotzen dugun Cardaverazen testuari dagokion bizkaieratzen hasiera, Cardaverazen testu berarekin batera).[117]

[I] Aita S. Ignacioren Egercicioen ganean / Meditaciño laburrac, / Jesusen Compañiaco, Aita Cardaberazec / Guipuzcoaco eusqueran iminiiac (1), / Orain Bizcaicora biurtuac. / Eta / Confesiño eta Comuniñoraco / Erreguac.

[II]

Berbaurrecoa

Cristinauaren eguiqueren artean premiña guei- / iagocoenetaric (1) bat, jaristeco Jaungoicoaganic, gu- / ra edo bear dabena da oracinoa. Alan bada, / liburuchu bat iracasten dabena berba gichitan / oracinoaren premiña au, bera eguiteco modua / ta onez ostean leuquezana (2) arimearen egoera edo / estadu guztiietaraco gomutagueiiac, izango da / ciur, guztiz ongarriia. Agaitic bada, ateraten / da arguitara Vizcaico eusqueran liburuchu au / ceñec daucazan A. Cardaberazec A. S. Ignacio- / ren Egercicioen ganean , Guipuzcoaco eusqueran / iminirico meditaciño laburrac; gueituten jaco / orain icasbide labur bat oracino eguiteco dagoan / premiñiaren ganean eta bera ondo eguiteco modua- / renean. Icharroten [sic] dogu bada, izango dala Jauna / -ren graciiaz, arima ascoren oneraco eta bere glori- / ia andiiagoraco: alan jaunari gura izan daquio- / la.

[1]

Oracinoaren premiñia.

Oracinoa da, Jaungoicoagana biotza jasotea aguer- / tuteco gueure gach edo premiñac, eta escatuteco gue- / ro berari euren osagarriia. Gauza aguiriia da, ari- / ma ta gorputzeco preminac daucaguzala baita / orregaitic eurai jagocoezan (4) osagarriiena bere: bar- / din ciurra da, on guztiia Jaungoicoagandic dato- / rrela, baña «celan datorquigu? Eguiiaz Jaunac / ez dauco gure [sic] escatu bearric premiña doguna edo / ondo datorcuna guri emoteco, daquiialaco ondo ce- / ren bear garean, eta alan emon daiquegu gura / dabena escatu baga; baña alan da guzti bere, / gauza jaquina da, erabaguiric daucala Jaungoi- / coac ez emotea guri graciiac, escatuten ezpadeu- / tsaguz oracino ondo eguinaren bitartez; alan di- / rauscu Jaungoicoac berac: escatu eguizue eta artu- / co dozue; modu berean cein da, Jaunac ez dau- / can lurraren bearric sortu erazoteco urteero guizonac / bear daben janariia, eta orregaitic bere erabaguiric / daucan lurraren bidez ezpada janari au ez emotea / alanche bardin gura dau, guizonac escatuagaz ale- / guiñac eguin daizan, berac emon baño lenago: a- / [2] gaitic esaten deuzcu; artuten ez dozue, cergaitic es- / catuten ez dozuen; berba onetatic ateraten dabe / Eleizaco Iracaslac oracinoa dala gueiienez bitarte- / coa nundic guizonari jatorcazan Jaungoicoaren / mesedeac. Eta esan da oracino ondo eguinaren bi- / tartez, bada charto eguinagaitic diño Santiago Apos- / toluac ez doguzala jaristen Jaungoicoaren mesedeac, / sinuan bada; orregaitic artuten ez dozue, charto esca- / tuten dozuelaco.

---

[116] Bestela adi litekeen arren, «Kardaberazen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa», artikuluan (*ASJU*, Memoriæ L. Mitxelena, 1990, 259-60 orr.).

[117] Eskuizkribuari eginiko oharrak, parentesi arteko zenbakiz, amaieran ematen ditugu (mako artean berriz [], eskuizkribuaren orrialde zenbakiak).

«Eta celan izango da oracinoa ondo eguina? Alde bita- / tic ditu oracinoac betequisun edo eguin bearrac; / escatuten dan gaucearen aldéz, eta escatuten dan / moduaren aldéz; eta alan, escatuten dan gaucearen / aldéz; bada artéz bera arimacoa edo arimiaren sal- / vacinoa, escatu bear da oso osoan; baña bada artéz / edo besteren bitartez gorputzecoa edo bere oneracoa, es- / catu bear da baiagocoan (5) edo arimiaren oneraco bada; / escatuten dan moduaren aldéz, escatu bear jaco / Jaungoicoari, seme esqueco ta premiñan dagoan / batec escatuten deutsan moduan erruquitasuna / bere aitari, daquiianean ondo gura deutsala eta / bear daben guztiia emon leiquiola. Onan bada / escatu bear da: 1º. Humiltasun andiiaz ezagutu- / [3] ric norberen argaltasun ta ecereza: 2º. Icharote edo / conpiianza beteaz, gomutauric Jaungoicoaren on- / tasun ta erruquitasun amaibaguea; eta 3º. Iraupen / sendoaz oracinoan otzitu ta aspertu baga (6).

Modu bitacoa izan leiteque oracinoa, edo aoagazcoa / edo gogoagazcoa, celan eguin leiquean berbaz edo ari- / miaren iru almenacaz; eta gogoagazco oni baita / deituten jaco oraciño mentala edo meditacinoa.

Ce mecedegarriia dan meditacino au, ezagutu leique / gogoraturic Espiritu Santuaren berba oneec; guztiz / galduta dago mundua inor bere biotzian gogora- / tuten dabenic ez dagoalaco; nundic ateraten da- / bèn Santuac oracino oni egunero darraicona / ecin ecetara galdua (7) izan leiquela.

Baita guei onetan beguiien aurrean euqui bear / da, ez dala Jaungoicoaren aurrean bear bada / achaquia edo aguiacula ona izango esatea, ez / dagoala ataraco bururic (8); bada, «gaistoac badau- / co burua gaistaquerijac asmetaco eta euretan / gogoratuten egoteco, ez dau onac euquico burua / gauza onac gomutateco eta euretan cerbaiten / guelldituteco? Bayetz dirudi errazoe arguiian. / Meditacino au eguiteco frutuz dira bada, / [4] emen doazan icasbide labur oneec

Meditacino eguiteco modua.

Iru satitan banacandu lei meditacinoco eguin bearra / eta dira oneec: Prestaerea, meditacino Barruac eta me- / ditacino Ondorea, eta onan.

Prestaerea. 1º. Aurretijan iracurrico da meditacinoa- / ren gueiia; alan meditacino eguin gura dabenac goi- / ssean, cein dan demporaric onena, iracurri bedi arratse- / an astiro gomutagueiia, pentsau daiian beragan lo / aurreti ta iratzartuan. 2º. Meditacinoan sartu beño / lenago, gogoratu dempora apur baten Jaungoicoa be- / guira dagocadala eta pentsamentu onegaz itandu / norberari, «nor naz ni? «cer noa eguiten? «noren aurrean? / «certaraco? 3º. Escatu Jaunari graciia, ondo bete edo ira- / go daidan meditacino demporea eta berac zucendu / daizan neure arimiaren almenac ta indarrac bere / onra ta gloriia andiiagoraco, ta neure arimiaren one- / raco. 4º. Da arimiaren lecu iruditzea, edo beguitau- / tea icusten nagoala meditacino gueiian iracurri di- / rean lecu, gauza, persona ta euren ingurua, baña o- / rreeelacoric [sic] ezpalego, pecatuaren edo graciiaren edo bes- / te oneeelacoren [sic] baten gainean izan dalaco, artu euren / antzeco irudi bat beguitautean, esateraco, pecatua- / gaitic gorputz ill edo baltz bat, eta graciiagaitic / [5] gorputz argui eguzqui antzeco bat eta onan besteetan. / 5º. Escatu berarizco graciia bat al daidan ezagutu, gura / izan, eta eguin meditacino atan sarturic dagoana eta / neure (9) arimiari obeto dagocana. (10)

Meditacino barrua. Arimia- / ren iru almenacaz, ceintzuc direan gomutea, adimena / ta borondatea jardun ta eragoco da arimiaren oneraco. / Gomuteagaz ecarrico da burura lenengo puntuan iracu- / rri dana bere inguruacaz eta ezarriric bere ganean adi- / men ta borondatearen aleguiñac laster esango dan mo- / duan, iragoco da bigarren ta irugarren puntura ta eguin- / go da euretan lenengocoan leguéz. Adimen edo entendimen- / tuagaz aitu ta astertuco dira. 1º. Gogoratu bear doda- / na. 2º. Erabaguieraguilla edo benetacoa ataric atera / bear dodana. 3º. Orretaraco dagozan errazoeac, gogoratu- / az ce egoquiia, ce preminazcoa, ce pozcarriia, ce oncarri- / ia eta erreza dan erabagui au. 4º. Celan gorde do- / dazan orain artean len ateraricoac. 5º. Cer eguin / bear dodan aurrerantzean. 6º. Cé eragozpen goi- / tu bear dodan. 7º. Cé bitarteco ta neurriiac artu / bear dodazan. Borondateagaz iguituco da. 1º. / Fede, icharote, caridade, damutasun, esquertasun, poz eta / beste birtuteen eguitaldiiac eguitera, celan dacar- / tzan gomutaguiiac edo escatuten daben arimia- / ren onac. 2º. Artutera erabagui edo gogo eragui- / [6] llac, norberentzacoac edo oso norberari dagocazanac, / birtute icentauan eta arimiac gueiien premiña da- / benean.

Meditacino ondorea. Aztertuteco da berean dem- / pora apur baten celan meditacinoan joan izan / jatan; ondo joan izan bada guztiia, esquerrac Jau- / nari emoteco, barriz alan izan ezpada, beguira- / tuco da norberen erruz izan ete dan, eta ezagutu- / ric alan izan dala, parquescatuteco Jaunari be- / raugaitic eta artuteco gogoac obato urrengoan egui- / teco.

Ezaugarri ardurazcoa. Ez balego bat (11) oituric meditaci- / no onan eguitera, edo bere gomutea edu [sic] burua esan / direanetara edo iracurri dabenera guelditu edo zu- / cendu ecin balegui, imini leique bere aurrean li- / burua eta beratatic pozu bateric leguéz aldizca / edan, olloac eguiten daben moduan; esateraco, ar- / tu lenengo pentsamentu edo puntua eta sarra- / turic liburua, pentsau beregan; barriro artu biga- / rrena eta eguin beste ainbeste eta olan urrengoan.

[Hemendik aurrera hasten da, ezkerreko zutabean, Cardaverazen itzulpena, eta transkribatzen ditugu soilik, eskuizkribuko 6. orrialdearen amaierako zatia, eta osorik 7.a. Eskubiko zutabean berriz, Cardaverazen jatorrizko testua (*Egercicioac* IV, 1-3 orr.).]

ILLAREN EGUN BACOCHERACO MEDITACIÑO Illaren Egunoroco Meditacio Laburrac.

LABURRAC (12).

Lenengo egunean.

Cé ardurazco gaucea dan Salvaciñoa.

Lenengo Egunean.

Salvacioaren importancia.

Iº Neure salvaciñoa da eguin bear bat, eta da guztiia / [7] neurea. «Nic onetan pentsetan ezpadot, ni gaitic noc / pentsauco dau?

I. Nere salvacioa da eguiteco bat, eta guztia nerea. Nic onetan pensatzen ezpadet nigatic norc pensatuco du?

II Eguin bear au ain da neurea ece, bera gandic jo- / at ni nazan guztiia, arimia eta gorputza. Nic ori ira- / bazten ezpadot, niretzat noc irabacico dau?

II. Eguiteco au añ nerea da, non da dijoaquidan, ni naizan gucia, nere anima, ta gorputza. Nic ori seguratzen ezpadet, nigatic norc seguratucodu?

III Neurea da eguin bear au, eta neure betico iraun / edo eternidade guztiia onetan joat. Nic gogotic artu- / ten ezpadot, noc nigaitic artuco dau? Cer eguiten / dot bada?

III. Nerea da eguiteco au, ta nere eternidade guztia onetan dijoaquit. Nic gogotic artzen ezpadet, norc nigatic artucodu?

Cegaitic neure salvaciñoa billatuten ez / dot? Neure arimia baño gueiiago maite izan bear / dodan gauzaric ez daucat. Betico dan neure arima / au baño gauza baliiosoagoric ez daucat. Bein galdu- / ten badot, guztiia betico galduten dot.

Cer eguitendet, bada? Cergatic nere salvacioa billatzen eztet? Nere anima baño gueiago amatu bear dedan gauzaric eztet. Betico dan nere anima au baño gauza baliosoagoric eztet. Au galtzen badet, guztia betico galtzen det.

Biotzeco gurariiac eta frutua.

AFECTOAC, ETA FRUTUA.

¡O Trinidade guztiz santua! Aita ta Semea ta Espiri- / tu Santua, ceñetan sinistu ta icharoten dodan. Zu / neure biotz guztitic ametan zaitut. Zuc neure arima / au zeuretzat eguin cenduan; eta nic Ama Virgiñiaren, / ta Aingueru santuen escuetatic emoten deutsut, gaur / ta beti zu maitetuteco. Iru Ave Mariia.

O Trinidade guciz santua! Aita, ta Semea, ta espiritu Santua, ceñean sisnisten, da esperatzen dedan. Zu nere biotz guztitic amatzen zaitut. Zuc nere anima au zuretzat eguin cenduen: eta nic Ama Virgiñaren, ta Aingueru santuen escuetatic betico ematen dizut, gaur, da beti zu amatzeco. Yru Ave Maria.

Bigarren egunean.

BIGARREN EGUNEAN.

Ill bearra badaquizu; noz ta celan eztaquizu.

Ill bearra badaquizu: Noiz, ta nola estaquizu.

I. Erabaguita dago: Ill bear dot, baña bere demporea, / edo noz estaquit. Orain, ordu onetan ill neinteque.

I. Sentencia emana dago: ill bear det. Baña orren dembora, edo noiz eztaquit. Orañ, ordu onetan ill naiteque.

OHARRAK ESKUIZKRIBUARI:

(1) Bigarren *i*-aren azpian, ezabatuta, ageri da *j* bat. Berdin gertatzen da ondorengo beste ii segida guztietan.
(2) Hitza zuzendua dago. Ez da irakurtzen ondo azpian idatzia, eta azalekoa ere zalantzaren batekin.
(4) Ez da oso ondo iracurtzen.
(5) *i* azpian, ezabatuta, *j*. Lehen: *bajagocoan*.
(6) *otzitu ta*, lerroaren gainean dago idatzia, beste tinta, luma eta letra batez, eta, [≠] gezi batez erakusten da hitzak tartekatzeko gunea. Hala nola lehenxeagoko *sendoaz* hitza, eta zuzendua, *Iraupen* hitza ere.
(7) *galdua* hitza, gainean idatzia dago, eta [≠] gezi batez tartekatua.
(8) Lehenengo letra gainetik zuzendua dago, eta hala ematen du *b*.
(9) *neure*, gainean idatzita, eta [≠] gezi batez tartekatua.
(10) [≠] gezi batez tartekatua idatzia: *renglon aparte*. Nahiz eskuizkribuan segidan egon, guk apartatu egin dugu.
(11) *bat*, gainean idatzirik eta [≠] gezi batez tartekatua.
(12) Zatiaren hasieran gurutze bat ematen da idatzia parentesi artean *(+)*, eta honen azpian idatzirik: *Plana aparte* hitzak.

1. Bartolome Olaechearen Dotrina Cristianea(k): 1763[1] eta 1775[2]

B. Olaechea, Laukarizko *Curea* izanak, eta baita Bilboco Ospitale Santuco Erretore, 1763an argitaratu zuen Gasteizen, lehenengo aldiz, bere *Dotrina Cristianea*. Gero beste aldi askotan izan zen berrinprimatua (J. Bilbaok hamazazpi bederen jasotzen ditu, zeinetako 16, 1883 bitarte), dudarik gabeko arrakasta baten seinale. Nahiz 1785eko laugarren argitalpen baten ondoren, gehienean egiten den *Cristinauben Dotrinia* (edo antzeko) izenburu berritu baten pean.

Olaechearen obrara gerturatzera bultzatu gintuen, J.M. Zavalak bere lan *Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz* ... hartan Dotrinari egiten dion aipu berezi samarrak. Eta izan ere dio (5 or.; jasoaz bide batez J. Bilbaok batere aipatzen ez duen izenburu desberdin bat):

> 41. Cristauben dotriñia, de D. Bartolomé de Olaechea cura del hospital de Bilbao; un tomo en 8.í de doctrina cristiana, y varias practicas y ejercicios piadosos, sacados de las obras de dicho Cardaberaz, en vascuence poco puro, pero que conserva la hermosa colocacion del original. Su doctrina en el orden de las materias y en las preguntas y respuestas es la misma que la del catecismo de Zuberoa de que hemos hablado antes, [2 zenbakian aitatu duen: *Catechima Oloroeco Diocesaren cerbuchuco* (sic)], aunque en partes algo abreviada. La obra de Olaechea se ha reimpreso muchas veces.

1.1. Olaechearen hitzen ordenamendua euskal tradizio altxorrean.

Cardaverazen izenaren aipamena Olaechearenaren albotik, eta bi autoreon *kolokazio* ederraren goraipamena dira akiakula nahiko piskaren bat arakatzeko Olaechearen obra, eta honen berrargitalpen desberdin batzuk (denborarekin hainbat ukitu eta batez ere erasketa jasaten joan zirenak), idatziak beti bizkaiera ohizko eta arrunt batean. Eta lehenik eta behin esan behar da, ororen gainetik Olaechearen Dotrinak erakusten du, joskera argi, arin eta ulergarri bat, oso urrun beti, berez gogorarazten ez duen Cardaverazen 1760-66ko estilo berritzaile, aldrebes eta endredatutik, eta bai aldiz, oso hurbil, euskal tradizio orokorreko altxorretik bere hitzen ordenamenduari dagokionean, kontutan harturik gainera oso hurbil jarraitzen zaiola, jada J.M. Zavalak ondo iragartzen duen bezala, Oloroeco Diocesako Catechismari, Jacques de Maytiek euskaratu zuena.

1.1.1. Galdegaiak aditzen ondotik.

Hala esan behar da lehenik eta behin, nola Olaechearen aditzek gordeko duten, oro har, «Xà» moduko egitura bat, ondoretik erantsita beren aurreko elementu labur tonikoren bati. Baina baita ere, bigarren, nola, esaldi hauetako askotan, eta are gehienetan ere hauek batere luzeak diren orduko, esaldiko galdegaia ematen den, prezeski aditzaren ondotik, gure tradizio guztietan ohi bezala, eta ez aurretik. Adibideak ezin konta ahala aurkitzen dira Dotrinan, eta guk lehen orrialdeetako asko jaso ditugu gure ADIBIDETEGIAN.[118] Hemen mostra soil bat:

(1) Fedeco articuluac dira amalau, ... (8)
(2) Onai emongo deutsé betico glorija, (eta deungai betico penia). (21)
(3) Matrimoniñuac emoten dau gracija, seme alabac Ceruraco aziteco. (22)
(4) Juicijo onetan ondo urteten badabe juango dira Cerura; baia deungaro urteten badabe, juango dira bijac Infernura, ... (23)

1.1.2. Aditzak esaldi hasieretan.

Hala ere Olaecheak maiz hasten ditu bere esaldiak zuzenean aditzaz, hauetako askok behintzat nabarmen daramatelarik ondoretik beren galdegaia. Hemen adibide gutxi batzuk (askoz gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(5) Aguertuco da Jesu-Cristoen aurrera, munduban eguin dituzan obra guztien contu, ... (23)
(6) Quenduten dau Gracija, eta irabaci eraguiten dau Infernuba. (32)
(7) Izango da, barriz veniala, vorondate osuagaz, edo gauza chicarra danian. (32)
(8) Eguin eban gorputza lurragaz, eta criadu evan arimia ecer bere eceric. (36)

---

[118] ADIBIDETEGI honek oinarri bezala hartzen du Dotrinaren, Bilbo, 1848ko argitalpena (berak dioenez 9.a), bera baita guk lehenik aztertu genuena, eta berez oso gertutik jarraitzen zaiona 1775eko 2.ari. Nolanahi, oraingo adibide guzti hauen hitz ordenamendua da, 1763ko lehenengoaren berdina, hala ez badira ere fonetismoak eta grafiak. Lehen eta 2. argitalpenaren arteko desberdintasunez berriz, ikusi, artikulu honetan bertan aurrerago.

1.1.2.1. Aditz trinkoak esaldi hasieretan.

Olaeceheak ez du gainera inolako eragozpenik, esaldi hasiera horretan emateko aditz trinkoak ere, nahiz hauek, beren proportzioan, kasu gutxiago izan denera. Hemen adibide batzuk (eta besteren batzuk ADIBIDETEGIAN):

(9) ..., eta daucat confiancia ceure ontasun, eta misericordija chito andijan, ... (11)
(10) (Ondo da, ..., egunian beñ meza enzutia?) Da debociñoe guztietaric andijena, ... (14-5)
(11) ..., eta da Marija Santisimia, ceñec ... (41)
(12) ...; bada daquigu, icusico doguzala orandiño. (53)

1.1.3. Olaechearen mendeko esaldi hautsiak.

Olaecheak mendeko esaldietan ere erakusten du noski joera, euskarazko «Xà» fenomenoa mantentzeko, nahiz horrek inola ere ez duen esan nahi, aditza derrigorrez (edo joera nagusiz) eramango duenik esaldi bukaerara; baizik eta, bere estrategia komunikatiboari gehien komeni zaion gunera (eta are esaldiaren hasiera bertara ere), hainbat eta errazago emanez esaldi hautsiak, zenbat eta luzeagoak izan hauek. Hala adibidez segidakoetan (eta nahi adina gehiago Dotrinan eta ADIBIDETEGIAN):

(13) ..., izanic Ceu aiñ ona ... (4)
(14) (Proponietan dot,) leenago galdutia neure bicitzia, ... (4)
(15) (Esan gura dau,) ce emongo deutcéla onai glorija, ... (10)
(16) Dacarrelaco bere izatia Aitia-ganic eta Semia-ganic. (18)

1.1.3.1. Erlatibozko esaldiren bat ere behintzat izen mugatugabearen ondotik.

Aztertu dugun zatian, behin behintzat aurkitu dugu Olaechearen erlatibozko esaldi bat, emana, bere izen buru mugatugabearen ondotik, eta hala jasotzen dugu:

(17) (Arimia cer da?) Jangoicuac bere ancera eguinico espiritu inos bere ill, ez acabauco eztan bat. (36)

1.2. Olaechearen joskera Cardaveraztiarrak.

Nahiz eta gure 1848ko Dotriniaren zeinnahi irakurketak, argi adierazten zigun, zenbateraino jarraitzen zuen Olaecheak gure tradizio nagusiaren ildoa hitzen ordenamenduen kontuetan, baziren tarteka beste joskera batzuk ere, sala zezaketenak, Olaechearen nolabaiteko Cardaveraztiartasun bat. Hala:

1.2.1. Inoiz ezezko aditz konposaturen bat ohizko inbertsiorik gabe.

(18) ...: eta ichi eceiguzu jausten tentaciñoian: ... (5)
(19) ...; bada Caridadia bagaco obrac ecer valijo estave. (26)
(20) (... Jangoicuac gauza guztiac daucaz presente,) eta memorijaric biar eztau. (41)

1.2.2. Inoiz ezezko aditz trinkoren bat esaldi amaieran ohi ez bezala.

(21) Aiñ dira andijac, ce emeco pena, eta neque guztiac aen aldian ecer eztira. (58)

1.2.3. Galdera hautsiren batzuk.

Gure tradizio guztian bezalaxe, nahiz fenomenoa areagotua agertu Cardaverazen Eskolan, Olaecheak ere erakusten zituen tarteka hainbat galdera hautsi, nola (baten bat gehiago ADIBIDETEGIAN):

(22) Cetaco Jangoicuaen Semia Guizon eguin zan? (20)
(23) Gracija emoten deuscunian, ce Virtute Jangoicuac emoten deuscu? (29)

1.2.4. Galderetako aditzak bukaerara.

Ordea ez dira galdera hautsiok gertatzen ezaugarririk harrigarriena Olaechearen Dotrinako galdera moduen artean. Ohargarriagoa da, nola eramaten dituen bere galderen erdietako -edota beharbada gehienetako- aditzak, galdegileekin batera, beren esaldi bukaeretaraino, euskarazko bitarteko ohitura nagusien kontrara, Cardaveraz berarena salbu. Hala nola adibidez (beti 1884ko argitalpenetik):

(24) Iratzartu, eta bertati Cristinaubac cer eguin biar dau? (3)
(25) Erlojubac joten davenian cer esan biar da? (14)

(26) Jaten asi baño leenago, cer esan biar da? (15)
(27) Oera sartu orduban cer eguin biar da? (17)
(28) Jangoicua cer da? (17)
(29) Jangoicua nun dago? (18)
(30) Lenengo persona ceñ da? (18)
(31) Iru personac diriala distintuac, cer esan gura dau? (19)
(32) Gorputz, ta Arima au nun artu-cituzan? (20)
(33) Ama Virgina Santisimia nor da? (20)

Eta nahi adina horrela.

1.3. Dotrinaren lehen bi argitalpenen arteko aldaera nabarmenak.

Bitxitasun guzti horien haritik iritsi ginen aztertzera, Olaechearen Dotrinaren lehen bi argitalpenak. Ez zen desberdintasun nabarmenegirik, guk erabilitako 1848koa eta 1775ko bigarrenaren artean, hitzen ordenamenduari begira.[119] Sorpresa handixeagoa hartu genuen 1763ko jatorrizkoaren kopia mekanografiatu bat eskuratu genuenean (Orotariko Hiztegiari esker). Aldeak, oso nabarmenak dira hitzen ordenamenduaren eremuan, aurreneko argitalpena, eta beste guztien artean, bigarrenaren gainean eginak.[120] Aldaketa guzti hauen berri jaso nahi izan dugu artikulu honi eginiko ERASKINEAN.

1.3.1. Galderetako aditzen atzeratzea.

Lehenengo aldaketarik nabarmenena da, nola atzeratzen diren bigarren argitalpenean, 107 kasutan ere galderetako aditzak, hauen galdegileekin batera, gure ERASKINEAN jasota bezala. Hemen mostra soil bat (adibideetan, lehenengo beti 1763koa, bigarren 1775ekoa):

(34) IRATZARTU, ta bertati cer eguin beardau Cristinauac? (4)
IRATZARTU, ta bertati Christinaubac cer eguin bear dau? (4)
(35) Cer da Jangoicoa? (23)
Jangoicoa cer da? (15)
(36) Nun dago Jangoicoa? (23)
Jangoicoa nun dago? (15)
(37) Noc eguin cituzan Sacramentuac? (29)
Sacramentubac noc eguin cituzan? (19)

1.3.1.1. Aditzen atzeratzea galdera orokorretan.

Aldaketak ematen dira galdegilerik gabeko galdera orokorretan ere sentidu berean, nahiz adibideak ez diren zazpi baino gure ERASKINEAN. Hemen bi:

(38) Sinistu bearda Jangoicoac esan daven guztia? (32)
Jangoicoac esan daven guztia sinistu bear da? (21)
(39) Cristoc bauco Aitaric, edo Amaric? (59)
Cristoc Aitaric, edo Amaric bauco? (37)

1.3.1.2. 1763ko galdera atzeratuak, eta hiperkorrekzio batzuk.

Kurioso asko, 1763ko lehen argitalpenean bertan ere sumatzen dira zenbait adibide, galderetako aditzak atzeratuta daramatzatenak. Joera bada ezagutzen zuen Olaecheak 1763a baino lehenago ere (Capanagak ere bezala, besteak beste),

---

[119] 1848an bai uxatzen dira 1775ekoan baino mailebu batzuk gehiago, eta honetan baino askoz sistematikoago erakusten dira fonetismoak (batez ere, u eta i bokalen konsonantizazio interbokaliko jada ia orokorrak), ... Ez ordea beste aldaketa haundirik.

[120] Beste detaile edo erredakzio aldaketa ez oso sistematikoez gainera, bigarren argitalpenak erakusten ditu, 108. orrialdetik aurrera, lehenengoak ez dituen eraskinak (*Confesio Generala eguiteco ...*), eta beharbada mereziko luketenak guk egin ez dugun azterketa bereziago bat, ezagutzeko, zer eta zenbat zor dioten Cardaverazen estiloari, J.M. Zavalak iragartzen zigunaren haritik. Bestelakoan, aipatzeko da, nola bigarren argitalpenak ere lehenengoak baino zerbait gehixeago uxatzen dituen mailebuak -nahiz 1848koan baino gutxiago-. Bestetik, nola hasten den ere zenbait fonetismo erakusten (ua □ uba; ea □ ia), lehenengoak ez zituenak (nahiz artean ez 1848koak bezainbeste: ez adibidez honetako i-aren konsonantizazio interbokalikoa, edo u-arena jeneralizatua), beharbada zerikusia eduki zezaketenak, Olaechearen Laukariztik Bilbora mugitzearekin, eta inguru hauetako ahozkera propioekin garaian.

nahiz orduan anekdotikoa-edo izan.[121] Gure tradizioan hain ohizkoa ez dena da, galderen atzeratzea ematea, Olaechearen 1775ko, batetik, testuinguru guzti horietan, eta bestetik, inola ere ez proportzio horretan, ez bada Cardaveraz berarengan.

Gero, kuriosoa gertatzen da konturatzea, nola kasuren batean aldiz, jada 1763ean galderetako aditza atzeratuta zeraman esaldi horietakoren bat edo beste, ematen den, 1775ean aldiz, aditz aurreratuta, orain hiperkorrekzioz, gaitz-korrekzioz, edota zuzentzeko lanean murgilduta. Hala behintzat bi kasuotan:

(40) Jan ezquero, Cer esan bearda? (20)
Cer esan bearda jan ezquero? (13)
(41) Arratsean Cer eguin bearda? (20)
Cer eguin bearda arratsean? (14)

1.3.1.3. Galdera hautsi baten des-haustea.

Nahiz beste galdera hautsi guztiak, edo gehienak behintzat, uste dugun berdin mantentzen diren lehen argitalpenetik aurrera, aurkitu dugu halako baten zuzenketa bigarrenean, bestelako esannahi garbirik edukiko ez badu ere:

(42) Nos preso artu even? (155)
Nos artu even preso? (100)

1.3.2. Aditza atzeratzen baiezko esaldi deklaratibo nagusietan.

Galderetan baldin bada ere nabarmenena, 1775ko argitalpenean atzeratzen dira aditzak beste hainbat esaldi klasetan ere. Hauen artean nahiko ugari (37 kasu gure ERASKINEAN) baiezko esaldi nagusi deklaratiboetan, aditza jokatu gabe daramatenen artean. Hala nola segidakoetan:

(43) Lelengo, apartadu Jangoicoa Ofendietaco Ocasiñoe guztietaric. (47)
Lelengo, Jangoicoa ofendietaco ocasiñoe guztietaric igues eguin. (30)
(44) Bigarrena, emon Jangoicoari gracia andiac ... (54)
Bigarrena, Jaincoari gracia andiac emon, ... (35)
(45) Lelengo icasi ondo Paternosterra en peticiñoe bacocheco esplicacionea. (95)
Lelengo Paternosterra en peticiñoe bacocheco esplicacionea icasi ondo. (61)

1.3.2.1. Baina aditz jokatuetan ere.

Kasu gutxiagotan izango bada ere (8 gure ERASKINEAN) atzeratzen da aditza jokatua bada ere baiezko esaldi deklaratiboetan. Hala nola hurrengoetan:

(46) ..., eta fedea da gueure Salbaciño en fundamentu principala. (74-5)
..., eta gueure Salbaciño en fundamentu principala Fedea da. (48)
(47) (Eta nos joango da Purgatoriora?) Purgatoriora joango da, estadu graciazcoan illarrembere, pagau ezpadau pecatuen zorra. (85-6)
(Eta Purgatoriora nos joango da?) Estadu graciazcoan il arren, bere pecatuben zorra obra onacaz pagau ezpadau, joango da purgatoriora. (55)

1.3.3. Aditza atzeratzen ezezko esaldi nagusietan.

Bai aditz hauek jokatuak baldin badira (7 kasu behintzat), nola jokatugabeak ere (5 kasu gure ERASKINEAN). Hala segidakoak:

---

[121] Aitortu behar da nolanahi, euskaraz, alde eta aldi guztietakoan egin ohi direla galderak modu horretan ere inoiz edo behin, emanez, galdegile eta aditzaren aurretik, halako marku predikatibo edo topiko bat, zeinen gainean, edo zeinen ondoren, egiten den gero galdera. Oloroeco Diocesako Catechisman bertan, zeinekiko Olaechearen zorra salatzen zuen J.M. Zavalak («*Su doctrina en el orden de las materias y en las preguntas y respuestas es la misma que la del catecismo de Zuberoa ....*»), aurkitzen ahal dugu, nola, bertan egiten diren lehenengo zazpi galderetatik seik, daramaten galdegilea eta aditza, esaldi bukaeran emana. Hala (Urquijo liburutegiko, 1743koa ote den aletik): *IRATZAR ondoan cer eguin beharda?* (1); *Beztitu deniam cer eguin beharda?* (1); *Lanian hassi gabe eta arlojac joiten dianian cererran beharda?* (7); *Appairia hassi beno lehen cer erran beharda?* (8); ... Catechisma honetan bertan ordea, benetako dotrinan sartu orduko (10. orrialdetik aurrera), erabat aldatzen da sistema, eta oro har aurkitzen ditugu galdegileak eta aditzak emanak esaldien hasieran, oro har, Olaechearen 1763koan bezalaxe. Hala, Olaechearen goiko (35, 36, 37) adibideetako galderen parean, ematen ditu aldiz Maytiek: *Cerda Gincoa?* (10); *Noun da Gincoa?* (10); *Norc eguin eta manhatu dutu Sacramentiac?*

(48) ...; eztauco Jangoicoac, ez asieraric, ez acaburic. (49)
...: Jangoicoac, ez asieraric, ez acaburic dauco. (32)
(49) ... mundu onetaco pena, ta trabaju guztiac eztira ecer, aen aldean. (86)
... mundu onetaco pena, ta neque guztiac aen aldean ecer eztira. (55)
(50) Bigarrena, ez ezcondu ezpadagoz bear direan disposicinoac. (148)
Bigarrena, ezpadagoz bear direan disposicinoeac ez ezcondu. (96)

Nahiz argitu behar den jada lehenengo argitalpenetik ematen dituela Olaecheak, *ichi ez eiguzu* (7; Capanagaren oihartzun agian), edota, *..., eta bear eztau memoriaric* (58) bezalako esaldiak, euskaraz ohizkoa litzatekeen inbertsiorik gabeak (hala ere 1775ean, artean zuzenduko da azken esaldi hau, ordez emanez jada gorago ikusi dugun , 20 esaldia: *..., eta memoriaric bear eztau.* (37)).

1.3.4. Aditzak atzeratzen mendeko esaldietan.

Nahiz ez den kasurik ugariena izango, kontatuak ditugu ERASKINEAN 23 mendeko esaldi bederen, beren aditza atzeratzen dutenak esaldian, jokatu edo jokagabe, baiezko edo ezezko. Hala segidako adibideetan:

(51) ..., eta atera cituzala bere etorrera Santuaen beguira egozan Guraso Santuen arimac. (14)
..., eta bere etorrera Santubaen beguira egozan Guraso Santuben arimac atera cituzala. (10)

(52) (Cer da Caridadea?) Ametea Jangoicoa beste gauza guztien ganeti, ... (36)
(Caridadea cer da?) Jangoicoa beste gauza guztien ganeti, ametea. (23)
(53) ..., pagau ezpadau pecatuen zorra. (86)
..., bere pecatuben zorra obra onacaz pagau ezpadau, ... (55)

Nolanahi esan behar, hala ere, esaldi nagusien kasuan bezalaxe, mendelko esaldien gehiengo absoluto bat dela aditza atzeratu gabe uzten dena.

Kasu bat ere aurkitu dugu behintzat, hiperkorrekzioz edo dena delakoz, atzeratu ordez aurreratu egiten dena mendeko aditza bigarren argitalpenean:

(54) ...; edo ezpabere, aetan ez jausteco emon deigula bere gracia. (94)
...; edo ezpabere emondeigula bere gracia, aetan ez jausteco. (60)

1.3.5. Atzeratzen aginteretako aditzak.

Kasu asko izango ez badira ere (guk 6 kontatu ditugu), badute beren garrantzia, ongi adierazten dutenez, aditza atzeratzeko erabaki artifizialaren unibertsalismoa, eta diskriminazio eta naturalitate falta. Hala adibidez:

(55) Eguizu Caridadeco Acto bat. (36)
Caridadeco Acto bat eguizu. (24)
(56) Icusi bedi Sacramentu Comunionecoa. (120)
Sacramentu Comunionecoa icusi bedi. (76)

1.3.6. Esaldi hasierako aditz trinko batzuen desagertzea.

Artikulu honen hasierako adibideetan ikusi dugun bezala, aditz trinko batzuek jarraitzen zuten beren esaldia irekitzen 1848ko argitalpenean. Ez ordea, 1763ko lehenengoan egiten duten guztiek. 15 kasutan bederen ohartuak gara hauen desagertzeaz lehen argitalpenetik bigarrenera. Gehienak dira *da* kopularen kasuak (13), baina desagertzen dira ere, *dago* edo *dira* flexioak. Hala nola kasu guzti hauetan ERASKINEAN aurki litezkeenetatik:

(57) (Norda Virgina Maria Santissimea?) Da Jesu-Cristo gueure Jauna en Ama. (26)
(Ama Virgina Maria Santissimea nor da?) Jesu Christo gueure Jauna en Ama. (17)
(58) (Cer da Gracia?) Da Jangoicoaen doe, edo izate Jangoicozco bat, ... (40)
(Gracia cer da?) Jangoicoaen doe, edo izate Jaincozco bat, ... (26)
(59) (Non dago Jesu-Cristo?) Jangoico dan partez, dago lecu guztian, ... (58)
(Jesu-Cristo non dago?) Jangoico dan partez, lecu guztian, ... (37)
(60) (Ce gauza dira Sacramentuac?) Dira Jesu-Cristo gueure Jaunac emon nico señale batzuc ... (122)
(Sacramentubac cer dira?) Jesu-Cristo gueure Jaunac emon nico señale batzuc, ... (78)

1.3.6.1. Inoiz esaldi hasierako aditz konposaturen bat ere desagertzen da.

Hala ohartu gara behin bederen:

(61) (Ce pecatu eguiten dave guraso ...?) Eguiten dave pecatu Mortala, ... (103-4)
(Ce pecatu eguiten davé guraso ...?) Pecatu Mortala; ... (66)

1.3.7. Inoiz beste hitz buru batzuren atzeratzeak ere bai.

Jabetu gara bederen halako zerbaitez hurrengo adibidean:

(62) (Andiac dira Ceruan Bienabenturaduac gocetan dituezan gloriac?) Infinitamente andiagoac, munduco Erregueric andienac euqui dituezan onra, aberatstasun, descansu, eta atseguin guztiac baño bere. (80)
(Ceruan bienabenturadubac gocetan ditubezan gloriac andiac dira?) Munduco erregueric andienac euqui ditubezan onra, aberatstasun, descansu, eta atseguin guztiac baño bere andiagoac. (51)

1.3.8. Sintaxizko beste aldaketa bat aipatzen: cegaiti ... -(e)n fi ...-laco.

Hitzen ordenamenduaren eremutik piskaren bat aldera geratuko bada ere, merezi du aipatzea guk jaso dugun beste aldaketa hau lehen eta bigarren argitalpenen artean. Bederen hiru kasutan aldatzen baita *cegaiti* partikula, esaldi kausal baten burutik (eta kasuan aditz flexioari erantsitako *-(e)n* atzizkia), hauen bien ordez bigarren argitalpenean soilik erasten zaiolarik aditzari *-lako* atzizkia. Hala nola segidako bietan:

(63) (Cegaiti sinistuten dozuz fedeac iracasten deutsuzan eguiac?) Cegaiti Jangoicoac (ceñ inoc ecin engañatu leian, eta ez beracbere inor engañau) iracatsi, eta errebelau dituzan. (32-3)
(Fedeac iracasten deutsuzan eguiac cegaiti sinisetan dozuz?) Jangoicoac (ceñ inoc ecin engañau leian, eta ez beracbere inor en gañau) iracatsi, eta errebelau dituzalaco. (21)
(64) (Cegaiti esatenda bada, ...?) Cegaiti poderea jacocan Aiteari, ... (50)
(Cegaiti esatenda bada, ...?) Poderea jagocalaco Aiteari; ... (32)

1.4. Olaechearen 1763tik 1775 bitarteko bideak.

Aldaketez jabetu ondoren baditugu bi galdera erantzuteko. Bata, jakiteko nor den 1775eko aldaketen egilea, edota Olaechea bera izan ote zen. Bigarrena, aztertzeko, zuzentzaile honek, nornahi dela ere, nondik eratortzen duen hainbat aditz atzeratzeko joera berritzaile eta unibertsalizante hori, eta guk orain artean dakigunez, Cardaveraz hasten dena praktikatzen, bere 1760-66 bitarteko idatzietan.

X. Altzibarrek ematen ditu, 1723-1795 Olaechearen bizitza mugak bezala,[122] eta beraz litekeena da, Olaecheak berak prestatzea Dotrinaren bigarren argitalpena, sasoian *Bilboco Ospitale Santuco Erretore* bigarrenaren azpitituluak dioenez.[123] Lehenengo hiru argitalpenak dira Gasteizko inprimategi berean eginak, eta gainera, pentsatuko genuke lehenengo argitalpenaren egile berak prestatu ote dituen bigarrenak dituen eraskinak 108 orrialdetik aurrera. Bada, lehenengoak dioen bitartean (129 or.): «*Confesiñoe Generala, nai particulara eguiteco modu erraza dauco iminita eusqueraz Aita Agustin Cardaberaz Misionista celoso, eta Jaquitunac bere exercicioetaco liburu ederrean*. Bigarrenak pare berean esango du (83 or.): «*Confesinoe generala, nai particulara eguiteco modu erraza, eta bai norzuc dagozan obligauta generalmente euren pecatubac confesetara, liburuchu onen acabuban dago, an icusi bedi. fol. 108.*»

Olaecheak ezagutzen zuen 1763rako, eta biziki gomendatzen, ikusi berri dugun bezala, Aita Cardaverazek bakarrik bi urte lehenago, Iruñean 1761ean, argitaratutako *Aita San Ignacioren Ejerzizioetako liburua* (izenburu hori daraman bakarra, 1761ean guztira argitaratzen diren lau parte eta hiru liburuetatik). Beraz ez da horren zaila egiten pentsatzea, Olaecheak hurrengo urteetan jasan zezakeela, eta bere neurrian onartu, Aita Cardaverazen eragin gramatikala ere, espiritualaz eta pastoralaz gain. Olaechea bera izan, edo ez, bigarren argitalpenaren prestatzailea izango da, gure lehen partaide ohorezkoa Cardaverazen Eskolan.

---

[122] Uste dugu, bere *Bizkaierazko Idazleak* lanean.

[123] Lehenengoarenak dio: *DOTRINA CRISTIANEA. D. BARTHOLOME Olaechea Laucarizco Cureac bere Elesatean Jai Domeca guztietan expliquetan davena leguez*. Bigarrenarenak: *DOTRINA CRISTIANEA. D. BARTOLOME OLAECHEA Bilboco Ospitale Santuco Erretoreac Laucarizco Cura zanean Jai Domequetan espliquetan evana leguez. ORAIN BARRIRO IMPRIMIDU DA Bilboco Errefugio Erreal, eta Misericordia Santuco Cofrade, ta Aguintari Jaunen costuz, etse Santu onetaco zar, eta gazteai Dotrinea eusqueraz iracasteco.*

ERASKINA

Alderaketa bat, Bartolome Olaechearen Dotrina Cristianea-ren lehen bi argitalpenen artean, 1763[1] eta 1775[2], hitzen ordenamenduari dagokionean.

Ondo argigarria da jabetzea bi argitalpen hauen artean aurkitzen diren hitzen ordenamendu desberdintasunez, beraiek direlarik aipagarri bakarrak ezberdintasunen artean. Segidako adibideetan lehenengoa beti izango da 1763koa, bigarrena 1775ekoa, orrialdeak parentesi artean adierazten ditugularik. Nahi behintzat, ordenamendu aldaketa guztiak jaso nahi izan ditugu.

IRATZARTU, ta bertati cer eguin beardau Cristinauac? (4)
IRATZARTU, ta bertati Christinaubac cer eguin bear dau? (4)

(... Guizatasunari jagocazanac dira onec. ... Laugarrena, sinistu, jatsi zala infernuetara,) eta atera cituzala bere etorrera Santuaen beguira egozan Guraso Santuen arimac. (14)
(... Guizatasunari jagocazanac dira onec. ... Laugarrena, sinistu, jatsi zala infernubetara,) eta bere etorrera Santubaen beguira egozan Guraso Santuben arimac atera cituzala. (10)

Jan ezquero, Cer esan bearda? (20)
Cer esan bearda jan ezquero? (13)

... Jangoicoa, nic emoten deutsudaz graciac, emon deustazun jatecoagaiti, ... (20)
... Jangoicoa, esquerrac emoten nagotzu emon deustazun Jatecoa gaiti, ... (13)

..., eta alan izambedi Ceu serbietaco. (20)
..., eta ceu servietaco izan bedi. (13)

Arratsean Cer eguin bearda? (20)
Cer eguin bearda arratsean? (14)

...; arren ez naguizu desamparau neure eriotzaco orduan. (21)
...; arren neure eriotzaco orduban ez naguizu desamparau. (14)

Cer da Jangoicoa? (23)
Jangoicoa cer da? (15)

Nun dago Jangoicoa? (23)
Jangoicoa nun dago? (15)

Cerda Trinidade Santissimea? (24)
Trinidade Santissimea cer da? (16)

Ceñda lelengo personea? (24)
Lelengo personea ceñ da? (16)

Norda Virgina Maria Santissimea? (26)
Ama Virgina Maria Santissimea nor da? (17)

Da Jesu-Cristo gueure Jauna en Ama. (26)
Jesu Christo gueure Jauna en Ama. (17)

Nos concebidu, edo Sortuzan Jesu-Cristo? (27)
Jesu Christo nos concebidu, edo sortu zan? (18)

Noc eguin cituzan Sacramentuac? (29)
Sacramentubac noc eguin cituzan? (19)

Ceñzuc dira Sacramentu Santuac dauquezan efectoric principalenac? (29)
Sacramentu Santubac dauquezan efectoric principalenac ceñzuc dira? (19)

Il zaitezenean, Cer izango da zure arimeagaz? (30)
Il zaite[zenian], zure arimeagaz cer izango da? (20)

Juicio au eguin ezquero nora joango da zure Arimea? (30)
Juicio au eguin ezquero, zure arimea nora joango da? (20)

Ceñzuc dira Cristiñauaen Virtuteric principalenac? (32)
Cristiñaubaen virtuteric principalenac ceñzuc dira? (21)

Cer da Fedea? (32)
Fedea cer da? (21)

[(Cer da fedea?) Icusi eztoguna Sinistutea Cegaiti Jangoicoac eracutsi daven. (32)]
[(Fedea cer da?) Icusi eztoguna sinistutea, Jangoicoac esan davelaco. (21)]

Sinistu bearda Jangoicoac esan daven guztia? (32)
Jangoicoac esan daven guztia sinistu bear da? (21)

Cegaiti sinistuten dozuz fedeac iracasten deutsuzan eguiac? (32-3)
Fedeac iracasten deutsuzan eguiac cegaiti sinisetan dozuz? (21)

[(Cegaiti sinistuten dozuz fedeac iracasten deutsuzan eguiac?) Cegaiti Jangoicoac (ceñ inoc ecin engañau leian, eta ez beracbere inor engañau) iracatsi, eta errebelau dituzan. (32-3)]
[(Fedeac iracasten deutsuzan eguiac cegaiti sinisetan dozuz?) Jangoicoac (ceñ inoc ecin engañau leian, eta ez beracbere inor en gañau) iracatsi, eta errebelau dituzalaco. (21)]

Salbetaco asco da Jangoicoagan sinistutea beste bagaric? (35)
Jangoicoa gan sinistutea beste baga, asco da salbetaco? (23)

Cer da Esperancea? (35)
Esperancea cer da? (23)

Cer da Caridadea? (36)
Caridadea cer da? (23)

(Cer da Caridadea?) Ametea Jangoicoa beste gauza guztien ganeti, ... (36)
(Caridadea cer da?) Jangoicoa beste gauza guztien ganeti, ametea (23)

Norzuc dira gueure proximoac? (36)
Gueure Proximoac norzuc dira? (24)

Eguizu Caridadeco Acto bat? (36)
Caridade Acto bat eguizu? (24)

Ceimbat dira Obra misericordiazcoac? (37)
Obra misericordiazcoac ceimbat dira? (24)

Cer da Gracia? (40)
Gracia cer da? (26)

(Cer da Gracia?) Da Jangoicoaen doe, edo izate Jangoicozco bat, ... (40)
(Gracia cer da?) Jangoicoaen doe, edo izate Jaincozco bat, ... (26)

Ceimbat dira Bienaventuranzac? (41)
Bienaventuranzac ceimbat dira? (26)

(Irugarrena, propositu firme bat artu,) aurrerancean Contu gueiago eguiteco bere inspiraciñoe, eta abisu Santuai. (43)
(Irugarrena, propositu firme bat artu,) aurrerancean bere inspiraciñoe, eta abisu santubai, casu gueiago eguiteco. (27)

Ceñ da gach guztietaric andiena? (43)
Gach guztietaric andiena ceñ da? (28)

(Ceñ da gach guztietaric andiena? Pecatua;) bada bera da mundu onetan, eta bestean igaroten direan pena, ta trabaju guztien Causea. (43)
(Gach guztietaric andiena ceñ da? Pecatuba;) bada mundu onetan, eta bestean igaroten direan pena, ta trabaju guztien causea bera da. (28)

Cer da pecatu Originala? (44)

Pecatu Originala cer da? (28)

(Cer da pecatu Originala?) Da pecatu a, ceñegaz ... (44)
(Pecatu Originala cer da?) Pecatu a ceñegaz ... (28)

Ceñzuc dira pecatu originalac dacazan gachac? (44)
Pecatu originalac dacazan gachac ceñzuc dira? (28)

(Ceñzuc dira pecatu originalac dacazan gachac?) Izatea Jangoicoaen arerio, eta demoniñoaen esclabo. (44)
(Pecatu originalac dacazan gachac ceñzuc dira?) Jangoicoaen arerio, eta demoniñoaen esclavo izatea. (28)

Cer da pecatu Actuala? (44)
Pecatu Actuala cer da? (28)

Cer da pecatu mortala? (44)
Pecatu mortala cer da? (29)

(Cer da pecatu mortala?) Da esatea, eguitea, pensetea, ... (44)
(Pecatu mortala cer da?) Esatea, eguitea, pensetea, ... (29)

Cer eguiten dau pecatu mortalac ariman? (45)
Pecatu mortalac ariman cer eguiten dau? (29)

Cer da pecatu Veniala? (45)
Pecatu veniala cer da? (29)

Nos ezautuco da pecatuamortala, ala veniala dan? (45)
Pecatuba mortala, ala veniala dan cetan ezautuco da? (29)

Lelengo, apartadu Jangoicoa Ofendietaco Ocasiñoe guztietaric. (47)
Lelengo, Jangoicoa ofendietaco ocasiñoe guztietaric igues eguin. (30)

Noc esan evan Credoa? (48)
Credoa noc esan evan? (31)

...: eztauco Jangoicoac, ez asieraric, ez acaburic. (49)
...: Jangoicoac, ez asieraric, ez acaburic dauco. (32)

[Cegaiti poderea jagocan Aiteari, ... (50)]
[Poderea jagocalaco Aiteari; ... (32)]

(Cer esan gura dau Ceruaen, eta lurraen Criadoreagan?) Ecerbere ezeric eguin cituzala, Ceruac, lurra, eta gauza guztiac. (50)
(Cer esan gura dau Cerubaen, eta lurraen criadoreagan?) Cerubac, Lurra, eta gauza guztiac eguin cituzala ecer bere ezeric. (32)

Cer entendietan dozu, Ceruac, lurra, eta beste gauza guztiac gaiti? (50)
Cerubac, lurra, eta beste gauza guztiac gaiti; cer adituten dozu? (33)

Eguin cituzala ecerbere ezeric, Angueruac, Guizonac, eta Munduan dagozan beste gauza guztiac. (51)
Anguerubac, Guizonac, eta Munduban dagozan beste gauza guztiac ecerbere ezeric eguin cituzala. (33)

Cerda Arimea? (51)
Arimea cer da? (33)

(Cerda Arimea?) Da Jangoicoac bere ancera eguinico espiritu inos bere il, ez acabauco eztanbat. (51)
Arimea cer da? Jangoicoac bere ancera eguinico espiritu, inos bere il, ez acabauco eztanbat. (33)

..., jana gaiti Jangoicoac eragotcita eucan frutea. (52)
..., Jangoicoac eragotcita eucan frutea jana gaiti. (33)

Bigarrena, emon Jangoicoari gracia andiac ... (54)
Bigarrena, Jaincoari gracia andiac emon, ... (35)

(..., emon Jangoicoari gracia andiac) bealdu eusculaco bere seme maitea. (54)
(..., Jaincoari gracia andiac emon,) bere Seme maitea bealdu eusculaco. (35)

Cer esan guradau, Jesu-Cristo Concebidu, eta Sortu zala Espiritu Santuaen obraz? (55)
Jesu-Cristo concebidu, eta sortu zala Espiritu Santubaen obraz cer esan guradau? (35)

Cer esan gura dau, Cristoc daucala Jangoicoaen, eta Guizonaen naturalecea? (57)
Cer esan gura dau, Cristoc Jangoicoaen, eta Guizonaen naturalecea daucala? (37)

..., eta bear eztau memoriaric. (58)
..., eta memoriaric bear eztau. (37)

Non dago Jesu-Cristo? (58)
Jesu-Cristo non dago? (37)

Jangoico dan partez, dago lecu guztian, ... (58)
Jangoico dan partez, lecu guztian, ... (37)

Cristoc bauco Aitaric, edo Amaric? (59)
Cristoc Aitaric, edo Amaric bauco? (37)

Cer igaro evan Jesu-Cristo gueure Jaunac bere Pasiñoe Santuan? (60)
Jesu-Cristo gueure Jaunac bere Pasiñoe Santuban cer igaro evan? (38)

Cer izan zan Causea Cristo Crutcean añ afrenta andiagaz ilteco? (61)
Cristo Crutcean añ afrenta andiagaz ilteco cer izan zan Causea? (39)

Crutceric eretsita, nun imini even Jesu-Cristo en Gorputza? (61)
Crutceric eretsita, Jesu-Cristoen gorputza non imini even? (39)

..., bici bagara oraň Cristinau onac leguez. (64)
..., oraň Cristinau onac leguez bici bagara. (41)

Daucala beragaz gloria bardina Jangoico dan partez, ... (65)
Jangoico dan partez daucala beragaz gloria bardina, ... (42)

Lelengo, apartau, ta quendu gueure biotzac mundu onetaco ondasun falsoetaric, ... (66)
Lelengo, gueure biotzac quendu mundu onetaco ondasun falsoetaric, ... (42)

..., eta ez jaramon emeco alegria, eta jolas falsoai. (66)
..., eta emeco alegria, eta jolas falsoai ez jaramon. (42)

Bigarrena, acordau, eta gomutatu pensetan dogula Sarri Ceruco descansu, eta Santuac dauquen dicha, ta Zorionean. (66)
Bigarrena, Ceruban Santubac dauquien atseguiña gaz acordau, eta sarri atan pensau. (42)

Irugarrena, bici emen contuz, galdu eztaigun gueure erruz Ceruco gloria, eta Santuen Compañia. (66)
Irugarrena, Ceruco gloriac, eta Santuben compañia gueure erruz galdu eztaigun, bici emen contuz. (42)

Cer esango deutse Jangoicoac onai? (68)
Jangoicoac onai cer esango deutse? (43)

Cer esan gura dau artikulu onec? (70)
Artikulu onec cer esan gura dau? (45)

Nun dago Espiritu Santua? (70)
Espiritu Santuba nun dago? (45)

Cer eguiten dau arima Justo etan? (70)
Arima Justo etan cer eguiten dau? (45)

Ceimbat dira Espiritu Santuaen doeac? (71)
Espiritu Santuaen Doeac ceimbat dira? (45)

Cer da Elexea? (72)
Elexea cer da? (46)

(Cer da Elexea?) Da Cristiñau fiel guztien Congregaciñoea, ... (72)
(Elexea cer da?) Cristiñau fiel guztien Congregaciñoea, ... (46)

Nor da Aita Santua? (72)
Aita Santuba nor da? (46)

(Nor da Aita Santua?) Da Sumo Pontifice Erromacoa ... (72)
(Aita Santuba nor da?) Sumo Pontifice Erromacoa ... (46)

Ceñzuc dira Elexa Santeaen Señaleac? (73)
Elexa Santeaen Señaleac ceñzuc dira? (46)

Ceñzuc dira ondasun espiritualac? (74)
Ondasun espiritualac ceñzuc dira? (47)

Bat Salba liteque, Elexa onetan eztagoala? (74)
Elexa onetan eztagoala, norbait salba liteque? (47)

..., eta fedea da gueure Salbaciño en fundamentu pricipala. (74-5)
..., eta gueure Salbaciño en fundamentu pricipala Fedea da. (48)

Irugarrena, Erregutu Jangoicoari Elexa santa onez Campoti dagozanac gaiti. (75)
Irugarrena, Elexa santa onez campoti dagozanac gaiti erregutu Jangoicoari. (48)

Laugarrena, apartau Eregen conbersacinoeric. (75)
Laugarrena, Eregén conbersacinoeric igues eguin. (48)

Cetan dago descansu, atseguin, eta gloria au? (80)
Descansu, atseguin, eta gloria au cetan dago? (51)

Andiac dira Ceruan Bienabenturaduac gocetan dituezan gloriac? (80)
Ceruan Bienabenturadubac gocetan ditubezan gloriac andiac dira? (51)

Infinitamente andiagoac, munduco Erregueric andienac euqui dituezan onra, aberatstasun, descansu, eta atseguin guztiac baño bere. (80)
Munduco Erregueric andienac euqui ditubezan onra, aberatstasun, descansu, eta atseguin guztiac baño bere andiagoac. (51)

Celangoac dira Jangoicoac, bera ametan daven enzat gordeta daucazan ondasunac? (80)
Jangoicoac, bera ametan davenenzat gordeta daucazan ondasunac celangoac dira? (51)

(Añ dira andiac,) ce ecin esan lei munduan dagoanec, celangoac direan. (80)
(Añ dira andiac,) ce munduan dagoanec ecin esan lei, celangoac direan. (51)

..., eta ecin guizonaen entendimentuc secula alcanzau lei, ango gloria, ... (81)
..., eta guizonaen entendimentubac ecin secula alcanzau lei, ango gloria, ... (52)

Nos artean iraungo dave gloria onec? (81)
Gloria onec nos artean iraungo dave? (52)

Lelengo, ez quendu inos gogoric Paradesuco Zorioneco en Etse zabal au, ... (81)
Lelengo, Paradesuco zorioneco en Etse zabal au, beti gogoan euqui ... (52)

Bigarrena, igaro pacienciagaz mundu onetaco menos precio, neque, eta ez euquiac, ... (81-2)
Bigarrena, mundu onetaco pena, neque, eta ez euquiac, paciencia tan igaro. (52)

Irugarrena, eguin obra onac, ara joateco. (82)
Irugarrena, obra onac, eguin ara joateco. (52)

Cerda iltea? (82)
Iltea cerda? (52)

Cer eguin bear dogu, prest, edo pronto egoteco? (83)
Prest, egoteco cer eguin bear dogu? (53)

Beardogu egon estadu graciazcoan. (83)
Estadu graciazcoan egon. (53)

Eguin penitencia eguiazcoa, eriotcea eldu baño leenago. (83)
Eriotcea eldu baño leenago penitencia eguiazcoa eguin. (53)

Lelengo Sarri pensau eriotzan. (83)
Lelengo Eriotzeagaz sarri acordau. (53)

Bigarrena, ez aimbeste estimau, guero auts eguin, eta ustelduteco direa gorputzonec. (83)
Bigarrena, Guero auts eguin, eta ustelduteo direan gorputz onec ez aimbeste amadu. (53)

Irugarrena, eguin orañ eriotzaco orduan guraco gueunquena. (83)
Irugarrena, Eriotzaco orduban guraco gueunquena orañ bertati eguin. (53)

Celangoa izango da Juicio au? (84)
Juicico au celangoa izango da? (54)

Cer eguin beardogu, Juicio onetan ondo urteteco? (85)
Juicio onetan ondo urteteco cer eguin bear dogu? (54)

Nora joango da Zure arimea Juzgadu ezquero? (85)
Zure arimea juzgadu ezquero nora joango da? (55)

Eta nos joango da Purgatoriora? (85)
Eta Purgatoriora nos joango da? (55)

Purgatoriora joango da, estadu graciazcoan ilarrembere, pagau ezpadau pecatuen zorra. (86)
Estatu graciazcoan il arren, bere pecatuben zorra obra onacaz pagau ezpadau, joango da purgatoriora. (55)

..., pagau ezpadau pecatuen zorra. (86)
..., bere pecatuben zorra obra onacaz pagau ezpadau, ... (55)

Cerda Purgatorioa? (86)
Purgatorioa cer da? (55)

... mundu ponetaco pena, ta trabaju guztiac eztira ecer, aen aldean. (86)
... mundu onetaco pena, ta neque guztiac aen aldean ecer eztira. (55)

Bigarrena, procurau indulgenciac irabaztea. (87)
Bigarrena, indulgenciac irabaztea procurau. (56)

Cerda Infernua? (88)
Infernuba cer da? (57)

Da Carcela, eta lece ilun, icaragarri bat, ... (88)
Carcela, eta lece ilun, icaragarri bat, ... (57)

Cerda pena Dañucoa? (89)
Pena Dañucoa cer da? (57)

... pena, eta trabajuac igaro pacienciagaz, ... (91)
... pena, ta trabaju laburrac paciencia gaz igaro, ... (58)

..., ez bestean eternamente padecitearren. (91)
..., bestean beticoac ez padecietarren. (58)

Oracinoe guztietaric Ceñda onena? (91)
Oracinoe guztietaric onena cein da? (58)

Ceñda Paternosterra en lelengo peticiño, edo escaria? (92)
Paternosterra en lelengo peticiño, edo escaria ceñda? (59)

Ceñ da bigarrena? (92)
Bigarrena ceñ da? (59)

Ceñda laugarrena? (93)
Laugarrena ceñ da? (60)

Ceñda seigarrena? (94)
Seigarrena ceñ da? (60)

(Emen escatuten dogu.) librau, eta apartau gaitzala Jangoico gueure Jaunac Demoniñoen tentacino etaric; ... (94)
(Emen esquetan deutsagu) Jaungoico gueure Jaunari, Demoninoen tentacino etaric apartau gaizala; ... (60)

...; edo ezpabere, aetan ez jausteco emon deigula bere gracia. (94)
...; eta ezpabere emondeigula bere gracia, aetan ez jausteco. (60)

Lelengo icasi ondo Paternosterra en peticiñoe bacocheco esplicacinoea. (95)
Lelengo Paternosterra en peticiñoe bacocheco esplicacinoea icasi ondo. (61)

Bigarrena, ez ichi egunic bere Errosario Santua errezau bagaric. (97)
Bigarrena, bere Errosario Santuba errezau baga, ez egunic ichi. (62)

Irugarrena, euqui Confianza andi bat beragan; ... (97)
Irugarrena, confianza andi bat beragan euqui; ... (62)

Ceñda lelengo Mandamentua? (98)
Lelengo Mandamentuba ceñ da? (63)

Eguizu Adoracioneco acto bat? (99)
Adoracioneco acto bat eguizu ? (63)

Cerda Jangoicoa ametea gauza guztien ganeti? (99)
Jangoicoa ametea gauza guztien ganeti cer da? (63)

Cer eragotcitendau Mandamentu onec? (99)
Mandamentu onec cer eragozten dau ? (64)

..., gueure aciñoe guztiac eguin Jangoicoaen amoreagaiti, ... (100)
..., gueure eguiteco guztiac Jangoicoaen amoreagaiti eguin. (64)

Irugarrena gorde contu andiagaz mandamentu Santu onec esaten davena. (100)
Irugarrena mandamentu Santu onec aguinetan davena contuz eguin. (64)

Cerda Juramentu banoan eguitea? (100)
Juramentu banoan eguitea cer da? (64)

Eguitea eguia baga, eta necesidade baga, edo bear eztala. (100)
Eguia baga, justicia baga, eta necesidade baga, edo bear eztala juramentu eguitea. (64)

Cer da Blasfemia? (101)
Blasfemia cer da? (65)

Cerda Votoa? (101)
Votoa cer da? (65)

Da Jangoicoari eguiten jacon promes bat, ... (101)
Jancoicoari eguiten jacon promes bat, ... (65)

Bai jauna, bada da Jangoicoari burla eguitea, Ofrecidu, ta ez Cumplietea. (101)
Bai Jauna, bada Jangoicoari burla eguitea, da, ofrecidu, ta ez cumplietea. (65)

Bigarrena, euqui errespeto, ta erreberencia andia Jangoicoa en icen Santuari, ... (102)
Bigarrena, Jangoicoaen icen Santubari errespeto, ta erreberencia andia euqui; ... (65)

..., eta esan Jesus inoc juramentu eguitendavenean. (102)
...; eta inoc Juramentu, edo birao eguiten davenean Jesus esan dint. (65)

..., Cumplidu aimbat lasterren, eta bear dan leguez Jaincoari, eta bere Santuai prometidu jaquena, ... (102)
... Jangoicoari, eta Santubai eguinico voto, edo promesac beardan leguez, eta aimbat lasterren cumplidu, ... (65)

..., eta ez eguin promesic erraz, ta Conseju bagaric. (102)
..., eta aurrerantcean ez conseju baga eguin. (65)

Ceñda irugarrena? (102)
Irugarrena ceñ da? (66)

Ceñzuc dira eguin bear eztirean bearrac? (102)
Eguin bear eztirean bearrac ceñzuc dira? (66)

Cer eguin bearda Domeca, ta jaiac Ondo gorde, ta Santifiquetaco? (103)
Domeca, ta Jaiac ondo gorde, ta Santifiquetaco cer eguin bearda ? (66)

..., bearra eraguiten badeutse necesidade baga, eta mecea enzuten eragotziten badeutse Domeca, ta jai egunetan euren ume, eta Criadu Criadai? (103-4)
... euren ume, ta oguitacoai meza enzuten galarazo, edo pecatu mortalen beco jaietan premiña baga bearra eraguiten badeutse? (66)

Eguiten dave pecatu Mortala, ... (104)
Pecatu Mortala; ... (66)

Lelengo, ez bearric eguitea Jai domequetan necesidade baga. (104)
Lelengo, Jai domequetan premiña baga ez bearric eguitea. (67)

Bigarrena igaro egun à Jangoicoa Serbietan piedadeco obra onacaz. (104)
Bigarrena, jangoicoa serbietan, piedadeco obra onacaz, egun à igaro. (67)

Irugarrena, apartau, eta igues eguin pecatuen ocasinoetaric, tabernetaric, tambolin, jolas, eta dancetaric; ... (104)
Irugarrena, taberna, joco, tambolin, jolas, eta danza, eta beste onango Jangoicoa ofendietaco ocasiono taric igues eguin. (67)

Ceñda laugarrena? (105)
Laugarrena ceñ da? (67)

Cer da gurasoac ametea? (105)
Gurasoac ametea cer da? (67)

Cer da Obedecietea? (106)
Obedecietea cer da? (68)

Cer esan guradau Socorrieteac? (106)
Socorrieteac cer esan gura dau? (68)

Celan Jangoicoac Castiguetan dituz, euren gurasoac errespeto bagaric, eta deungaro tratetan dituezan Umeac? (106)
Gurasoac errespeto baga, eta deungaro darabiltezan umeac celan Jangoicoac castiguetan dituz, ? (68)

Irugarrena, Cuidadoa euqui eriotza onbat eguin da ien. (107)
Irugarrena, Eriotza on bat eguin daien ardurea artu. (68)

Ceñda bostgarrena? (107)
Bostgarrena ceñ da? (69)

Cer da escandalua. (108)
Escandaluba cer da? (69)

..., eta igaro pacienciagaz proximoen falta, ta injuriac. (109)
..., eta proximoen falta, ta injuriac paciencia gaz igaro. (69)

Ce gauza da persona Casto, eta garbi bat? (110)
Persona casto, eta garbi bat cer da? (70)

Da Angueru bat lurrean, ... (110)
Angueru bat lurrean ... (70)

Cer eguin bear dogu, casto, eta garbi izateco? (110)
Casto, eta garbi izateco cer eguin bear dogu? (70)

Lelengo, euqui Modestia andi bat begui etan, Soñean, ta Ucututean. (110)
Lelengo, begui etan, soñean, ta ucututean modestia andibat euqui. (70)

Bigarrena, bota aimbat lasterren Castidadean Contraco tentaciñoeac. (110)
Bigarrena, castidadean contraco tentaciñoeac aimbat lasterren bota. (70)

Laugarrena, euqui debociñoe andia Ama Virgina Santissimeaen Concecinoe garbiagaz, eta San Josepe gaz. (110)
Laugarrena, Ama Virgina Santissimeaen Concecinoe garbiagaz, eta Aita San Josepe gaz debociñoe andi bat euqui. (70)

Bigarrena, al-eguinagaz apartau Compañia, eta lagun deungac ganic. (111)
Bigarrena, Compañia, eta lagun deungac ganic igues eguin. (71)

...: eta iragarri Confesoreari bere pecatu, tentaciñoe, eta inclinacinoeac. (111)
...: eta bere pecatu, tentaciñoe, eta inclinacinoeac confesoreari iragarri. (71)

..., eta Contentau Jangoicoac emoten davenagaz. (112)
..., eta jangoicoac emoten davenagaz contentu izan. (72)

Irugarrena, emon bacochari berea bertati, edo aimbat lasterren. (113)
Irugarrena, bacochari berea bertati, edo aimbat lasterren emon. (72)

Ceñda Zorcigarrena? (113)
Zorcigarrena ceñ da? (72)

Cer da guzurra? (113)
Guzurra cer da? (72)

...; bada da guzurra Jangoicoaen Contra; ... (113)
...; bada guzurra Jangoicoaen contracoa da, ... (72)

Cer da murmuraciñoea? (113)
Murmuraciñoea cer da ? (72)

Obligacinoeric bago, proximoari famea biortuteco? (114)
Proximoari famea biortuteco obligacinoric bago? (72)

Cer eguin bearda, inor murmuretan dagoanean? (114)
Inor murmuretan dagoanean cer eguin bearda? (73)

Cer da juicio temerarioa: edo erraz proximoen Contra juzguetea? (114)
Juicio temerarioa: edo erraz proximoen contra juzguetea cer da? (73)

Ceñda Bederatzigarren mandamentua? (115)
Bederatzigarren mandamentuba ceñ da ? (73)

Ceñda Amargarrena? (115)
Amargarrena ceñ da? (74)

Ceñda Jaingoicoari Ofrecidu al-leion gauzaric andiena? (116)
Jaingoicoari ofrecidu al-leion gauzaric andiena ceñ da? (74)

Da mezaco Sacrificio Santua, Ceñetan ... (116)
Mezaco Sacrificio Santuba, ceñetan ... (74)

Lelengo, emoterren Jangoicoari, gueure Jaun Soberanuari leguez zor jacon onrea. (117)
Lelengo, Jangoicoari, gueure Jaun Soberanuari leguez zor jacon onrea emoterren. (74)

Bigarrena, escatuterren gueure pecatuen parcaciñoea, eta Osterancean beardogun guztia. (117)
Bigarrena, gueure pecatuebn parcaciñoea, eta osterancean beardogun guztia escatuterren. (75)

Ce gauza on alcancetan dav∂ beardan leguez Mecea enzuten davenac? (119)
Beardan leguez Mecea enzuten davenac ce gauza on alcancetan dave? (75)

..., dauco cuidado especiala libretaco egun ataco gach, eta desgracietaric. (119)
..., dauco cuidado andibat egun ataco gach, eta desgracietaric libretaco. (76)

..., Jangoicoac ezarri deigun bere bendicinoe Santua. (119)
..., Jangoicoac bere bendicinoe Santuba ezarri deigun. (76)

Penitenciaco Sacramentuan dago Cerdan Confesinoea ... (120)
Cerdan Confesinoea, eta celan prestau beardan leenaz ondo cenfesetaco, Penitenciaco Sacramentuban dago, ... (76)

Icusi bedi Sacramentu Comuninoecoa. (120)
Sacramentu Comuninoecoa icusi bedi. (76)

Ceñda Laugarrena? (120)
Laugarrena ceñ da? (77)

..., Cumpliduco bada mandamentu onec esaten davenagaz. (121)
..., mandamentu onec esaten davena ondo eguingo bada. (77)

Ce gauza dira Sacramentuac? (122)
Sacramentubac cer dira? (78)

Dira Jesu-Cristo gueure Jaunac emon nico señale batzuc ... (122)
Jesu-Cristo gueure Jaunac emon nico señale batzuc, ... (78)

Cer da Bautismoa? (122)
Bautismoa cer da? (78)

Da Jesu-Cristoc eginico Sacramanetu bat, Ceñec ... (122)
Jesu-Cristoc eginico Sacramanetu bat, Ceñec ... (78)

Cer da Cristinaua? (122)
Cristinauba cer da? (78)

Ceñda Cristinauaen señalea? (123)
Cristinauaben señalea ceñ da? (78)

Celan Trinidadeco misterioa? (123)
Trinidadeco misterioa celan? (79)

..., eta eztave icusico inos Jangoicoaen arpeguia. (124)
..., eta eztave inos icusico Jangoicoaen arpeguia. (79)

Ceñzuc dira Satanas en pompa, eta obrac? (125)
Satanasen pompa, eta obrac ceñzuc dira? (80)

Cetaco da Sacramentu Santu Penitenciacoa? (127)
Sacramentu Santu Penitenciacoa cetaco da? (81)

Cerda examinea? (128)
Examinea cer da? (82)

Cerda contriciñoea? (129)
Contriciñoea cer da? (83)

Cer da Atriciñoea? (130)
Atriciñoea cer da? (83)

Cer da Propositua? (132)
Proposituba cer da? (84)

Cer da satisfaciñoea? (136)
Satisfaciñoea cer da? (87)

Penitencia artuten davenac Cumplietaco gogoacaz, eguiten dau Confesinoe Ona, guero Cumplietan ezpadau? (136)
Penitencia artuten davenac cumplietaco gogoacaz, Confesinoe ona eguiten dau, guero Cumplietan ezpadau bere? (88)

Lelengo confesinoean ezarririco penitencia, Cumplidu aimbat lasterren. (137)
Lelengo, Confesinoean ezarririco penitencia aimbat lasterren cumplidu. (88)

... penitenciaen bat, aplaquetaco Jangoicoaen aserrea, ... (137)
... penitenciaen bat, Jangoicoaen aserrera, bigunduteco, ... (88)

Cer dago altaraco Sacramentu santuan? (137)
Altaraco Sacramentu Santuban cer dago? (88)

Ce pecatu eguiten dau alan Comulguetan danac? (139)
Alan Comulguetan danac ce pecatu eguiten dau? (90)

Eguizu Umildadeco, eta confianzaco Acto bat? (141)
Umildadeco, eta confianzaco acto bat eguizu? (91)

Lelengo adorau gueure gorputcetan dagoan Jaun andi au. (142)
Lelengo gueure gorputcetan dagoan Jaun andi au adorau. (91)

Bigarrena, emon graciac, eguin deuscuzan mesedeac gaiti. (142)
Bigarrena, eguin deuscuzan mesedeac gaiti graci andiac emon. (91)

Cetaco da Sacramentu Santu Ordeacoa? (146)
Sacramentu Santu Ordeacoa cetaco da? (94)

Cetaco da Sacramentu Santu Matrimoniocoa? (147)
Sacramentu Santu Matrimoniocoa Cetaco da? (95)

Bigarrena, ez ezcondu ezpadagoz bear direan disposicinoac. (148)
Bigarrena, ezpadagoz bear direan disposicinoeac ez ezcondu. (96)

Nos preso artu even? (155)
Nos artu even preso? (100)

Cer igaro zan Baricu Santu egunean? (156)
Baricu Santu egunean cer jazo zan? (101)

2. J.{ XE " Guerricoren Platicac eta eragin posibleak (1740-1824)." }

Giputza, segurarra, eliz beneficiadua Mutiloako herrian, Gipuzkoan, Jose Ignacio Guerricok,[124] idatzia bide zuen XIX mende hasiera ingururako, bere obra *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric, ...* Badakigu Guerrico bera hasia zela 1805. urterako behintzat, berau argitaratzeko ahaleginetan, nahiz ez zuen lortuko bera hil eta urte askora arte.[125] Lan mardula, 1000 orrialdetik gorakoa, bi liburutan argitaratua 1858ean. Eta agidanean ez Guerricok utzitako bakarra, lehen liburuari sarrera egiten dion J.J.I.-k adierazten duenez, nahiz gaur egun ez dugun arrastorik aurkitu han aitatzen diren beste hiru lan sailena: Sayaquera-ko platika guztien 6 minututako laburpenak; Ebangelioaren letra, hamalau azalpenetan; eta Historia Sakratuaren laburpena orri gutxi batzutan.

Guerricoren platiken helburua, ez da bakarka irakurriak izan daitezen, baizik, bere sarreran dioen bezala (t.I, IX or.): «*... para enseñar desde el púlpito cuando los Párrocos no lo hagan de memoria en lectura de veinte minutos poco mas ó menos cada vez a todos los bascongados de una misma manera con poco trabajo ...*» Nahiz, aurreraxeago argitzen duen bezala irakurketa ere ez gaizki etorri herritar partikularrei, beren probetxuan (t.I, XXIII or.):«*... y podrán tambien servir particularmente para los nuevos Predicadores y confesores bascongados, asi por la dificultad en el lenguage, como por la importancia de los asuntos; y para que los paisanos amantes del bascuence dentro y fuera del Pais, tengan con la lectura de sola ésta obra motivo para no olvidar su lenguage nativo, ...*»

2.1. Guerricoren ospea.

Badirudi ez zela Guerrico bere garaian, erabat ezezaguna izan, ezta nolanahiko pertsonai ezjakina, eta honek izan lezake bere garrantzia, haren eragin, posibleez behintzat, jabetzeko. Ikasia, urte batzuz Madriden bizi izana, Korteko giroan, eta A. Arruek dioenez tonu panegirikoan (*Egan*, 1956, 3/4, 36 or.):

> Buruz azkarra, jakinduri agirikoa, onbidetsua, etorri aundiko iztuna ta euskaltzale benetakoa, Gerriko Gipuzkoa guzian txit ezaguna ta maitea izandu zan.

---

[124] Bada gure literaturan oraindik beste izen beretsuko Guerrico bat, ez dakigu segurarraren ahaidea, baina bai ia herrikide eta garaikide dena: Jose Ignacio Guerrico Urquiola (1806-1883), giputza, ceraindarra eta Jesusen Conpainiako misionista ospetsua, eta agidanean, *S. Ignacio Loyolacoan Jesusen Compañiaco misionistac eman zuen Misio Santuaren oroipena* (Tolosa, 1853) liburuskaren egilea. Artikulu honen bukaeran aztertuko dugu piskaren bat lan hau ere.

[125] Guerricori buruzko datu hainbat ematen da, Antonio Arrue, Euskaltzainburu zenaren «Gerriko» hitzaldian (*EGAN*, 1956, 3/4, 33-43 orr.); baita ere bere lanen argitalpenaren sarreran, delako J.J.I.-k. Bestela, Guerricok bere lana argitaratzeko aurkitutako eragozpenez, ikus liteke, I. Sarasolaren, «Gerriko eta gobernu-zentsura» (Saioak, I, 1977, 228-9 orr.)

Aipuak isladatu nahi duen imajina egiaren gertukoa balitz, ez litzateke gehiegikeria izango pentsatzea, Guerricok ere izan zitzakeela harreman zuzenak beste euskalzale garaikideekin. Bidenabar Moguel, Añibarro edo J.B. Aguirrerekin, zeintzu hiruen arteko harremanak bazaizkigun behintzat ezagunak. Zalantzazkoagoa da Guerrico eta Lardizabalen arteko harreman zuzenaz pentsatzea, azkenak hemezortzi urte inguru baino ez zuela, Guerrico desagertzen denean 1824ean. Nahiz pentsatzekoa den Lardizabalek, aldameneko Zaldivian jaioa, alboko Lazkaoko Beneditarren etxean ikasia, izan bide zuela gaztetatik eta hurbiletik Guerrico ezagunaren berri.

2.2. Guerricoren joskera.

Oro har, esan behar da, Guerricoren prosa dela, arina, herrikoia eta oso ulergarria, bere asmo pastoralari legokiokeen moduan, eraberean izaki hainbat prosa jantzia, uz utzia. Eta bere hitzen ordenamenduari dagokionez berriz, batez ere, gure tradiziozko moldeei lotua. Hala ere, ez da dudarik, bere idatzietan neurri batean bederen praktikatzen duenez, Cardaverazek predikatutako aditz atzeratze orokorra, eta oro har, Guerricok ere zerbait atzerago ematen duela aditz hau esaldian, gure tradizioan ohizkoa izan dena baino, 1760-66ko Cardaveraz bitartean; askoz atzerago, esateko, bere garaikide diren Moguel, Añibarro eta J.B. Aguirre predikariek baino.

Ez diogu ezagutzen Guerricori inolako idatzi edo erreflexio gramatikalik, ezta ere bere lanen bertsio desberdinik. Hala ere, Olaechearen ondoren, bera jo dezakegu Cardaverazen Eskolako kide berritzat, nahiz bere joskera Olaechearena bezalaxe, askoz gertuago egon beti, gure tradiziozko altxorretatik, eta erabilera herrikoietatik, Cardaverazena baino.

2.3. Guerricoren tradiziozko hitz ordenamenduak.

Hala Guerricok dudarik gabe gordeko du euskal aditza, oro har, «Xà» moduko egitura batzuen barne, hau bigarren elementu bezala emanez erantsita, bere aurreko elementu labur, kasuan hainbat toniko bati. Horrek esan nahi ez duelarik aditza derrigorrez, edo are ohituraz ere, emango duenik esaldiko galdegaiaren ondotik. Bai ordea alderantziz sarri askotan.

2.3.1. Galdegaiak aditzaren ondotik.

Guerricok maiz ematen ditu, 1760-66ko Cardaverazek baino askoz maizago, esaldiko galdegaiak, nabarmen, esaldiko aditzaren ondoretik, eta ez bakarrik aditz hauek entendimentuzkoak direnean, nahiz orduan gehienean izan. Segidan adibide soil batzuk (eta ezin ugariago gure ADIBIDETEGIAN):

(1) Eta Legue orretatic sortzen dira, eta ori obeto gordetzeco dira beste Legue eta obligacio particular guciac. (I,3)
(2) ..., eta Ceruco bideari jarraitzeco nai ta ez bear degu Ceruco arguia, eta gracia: ... (I,6)
(3) Eta Jesu-Cristoren dotriña ori izan zan Maria Virgina Santissimaren, eta Santu gucien consideracio gai beticoa: ... (I,8)
(4) Bada asco balira, esanbearco lizate icenetan, eta ez bacarric icenean. (I,11)

2.3.2. Aditzak esaldi hasieran.

Eraberean ematen ditu Guerricok hainbateko maiztasunez aditzak zuzenean esaldien hasieran bertan, beren galdegaia nabarmen daramatelarik ondoretik. Hala segidakoetan (eta ezin adibide ugariago ADIBIDETEGIAN):

(5) ...: eta ecarri digu Cerutic bear dugun arguia gure Jaungoicoa ... ezagutzeco: ... (I,4)
(6) ...: ematen digu izate berri Jaungoicozco bat, aiñ honragarria ..., nun ... (I,5)
(7) ...: eta deitzen da fedearen simboloa. (I,38)
(8) ...: izango lirateque alde batetic iru, eta bestetic bat: ... (I,62)

2.3.2.1. Aditz trinkoak ere ugari esaldi hasieran.

Askotan galdera bateko aditzaren errepikapen bezala, baina baita bestela ere. Hala nola segidakoetan (eta adibide ugari gehiago ADIBIDETEGIAN):

(9) (Ezta munduco jaquinduriac becela ...:) baicic da Ceruco jaquinduri bat ... (I,17).
(10) (¿Eta nola dago ...?) Dago iru moduetan: ... (I,54)
(11) ...: eta dira guizonac baño aguitz jaquintsuago, eta indartsuago. (I,72)
(12) (..., eta turbatuago arquitzen da:) eta dijoa, iñoiz paqueric izango eztuen zorigaiztoco toquira, ... (II,90)

2.3.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Hala, maiz baino maizago ematen ditu Guerricok mendeko esaldiak, argumentuak erakusten dituztela aditzaren (eta honi erantsitako elementu mendekotzaileen) ondoretik, bere estrategia komunikatiboari komeni bezala, eta hainbat eta samurrago zenbat eta luzeagoak izan esaldiak (baita ere tarteka, elementu mendekotzaile horiek osatuta badaude hitz independienteren baten bidez). Hala nola adibidez segidakoak -bigarrena ondo gogoangarria da bere ulergarritasun ezin errazagoan- (adibide ezin ugariago ADIBIDETEGIAN):

(13) Icasi dezuen ezquero lenagoco dotriña santuan: zuen eguiazco zoriona certan dagoan: ... (I,9)
(14) (...: da Jaungoicoac ematen duan argui,) ta gracia andi bat, mugitzen gaituana, icusi bague sinistera, Jaungoicoac berac Elizari aguertu, edo eracutsi nai izan dion gucia gure salvacioraco. (I,29)
(15) ..., uzte duelaco berez, eta bere indar edo aleguiñarequin bacarric salvatuco dala: ... (II,9)
(16) ...: eta Eliza Ama Santac aguintzen duenean confesatzeco: ... (II,11)

2.4. Guerricoren aditz atzeratze artifizialak, Cardaverazen eskolan.

Behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu euskal aditzaren joera, «Xà» moduko egituretan agertzeko, bigarren elementu atono bezala emana beste elementu toniko bati erantsita multzo foniko baten barrenean. Gauza bat da hori ordea, eta beste bat, aditz hori artifizialki eta sistematikoki atzeratu nahi izatea esaldi osoari, eta zeinnahi esaldi klaseri. Guerricok ere praktikatzen du atzeratze hori nabarmen, nahiz ez inoiz Cardaverazen proportzioan, eta batez ere, ez Cardaverazek bezain gordin, eta egitura arrotzak eraginez.

2.4.1. Etenak, eta elementu tartekatuak, galdegaiak eta aditzen artean.

Guerricoren aditz atzeratze artifizialek askotan eragiten dituzte, Cardaverazenean bezala, hainbat esaldi, oso bitxiki, beste elementu batzuk daramatzatenak tartekatuak, esaldiko galdegaia eta aditzaren artean, euskaraz ohizko den «Xà» fenomenoaren haustura eraginez, aditza ez baita jadaneko joango bere aurreko elementu tonikoenari erantsita. Hemen segidan adibide batzuk, eta saiatu gara batzutan beren testuingurua hainbat jasotzen, nahiz eta haustura beti hobeto nabarmentzen den esaldien testuinguru zabalagoan (askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(17) (Nola aguertzen da santiguatzeco moduan Trinidadeco misterioa?) Orduan esaten ditugun itz oec, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean, arguiro Trinidadeco misterioa eracusten due: ... (I,11)
(18) ...: eta orrec certara beartzen, edo obligatzen gaituan, gucioc jaquin bear degu: ... (I,26)
(19) ...: bere ordecoac eta Obispoac eguiñic mundu onetan utci cituan; ... (I,30)
(20) ...; orregatic Escritura Santari ematen zayon fedea bera, apostoluac aoz eracutsi zuen dotriñari beti emanzayo: ... (I,37)
(21) ...: eta Jaungoicoac sortuac eztiralaco, eta bai guizon arroac asmatuac izan diralaco señale claroac berequin dacazte: ... (I,40)
(22) ...; baña beste aldetic bera gogotic servitu nai badegu, confianza, edo esperanza andi bat beragan artu bear degu: ... (I,52)
(23) Orain Credoaren lenengo articuluaren esplicacioari narrayola, gure erreligio santuac Jaungoicoagan beragan sinisten, eta confesatzen duen misterioric andiena, gorena, eta miragarriena, au da, Trinidade Santissimoco, edo irutasun guztiz Santuaren misterioa, nolabait aditzera eman nai niquezue: ... (I,57)
(24) (..., eta Jaungoicoa ecin engañatu diteque, eta ecin engañatu gaitzaque.) Jesu-Cristo gure Jaunac, Cerura igotzeko puntuan cegoela, bere Apostoluai esan cien. (I,62)
(25) ...: eta guri bicia quentzeco ez ece, gu infernura botatzeco escua, eta poderioa duen Jaungoicoa ofenditzeco bildur santu bat gure biotzetan artuco degu, ...(I,67)
(26) (Baña guizonaren adimentua berez laburragoa da,) eta ez batetan, baicic apurca gauzac ezagutzen ditu: ... (I,89)

Hauetako zenbait esaldi ikusiz gero, beharbada esan liteke Cardaverazengatik egiten genuen bezala, Guerricok esaldiak ez ote dituen idatzi aurrena, ohizko joskera batean (emanez galdegaia esaldiko aditzaren ondotik), eta gero aldatu, aditzaren ondoretiko guztia, esaldiaren hasierara.

2.4.1.1. Etenak galdegaia eta aditza koma baten bidez.

Ohizko «Xà» loturaren eten beretsu bat erakusten dute, Guerricok tarteka ematen digun hainbat esaldik, koma bat tartekatua daramatelarik, berezko galdegaia eta ondorengo aditzaren artean. Adibidez segidako biek:

(27) Eta orretaraco orain humiltasuna cer dan: cein bearra dan: eta nolaco frutu edo provechu andiac dacatzen, esan bear dizuet. (II,24-5)
(28) (¿Nundic sortu oi da lujuriaco edo gorputzaren loiqueriaco vicioa edo grina gaiztoa?) Jatorrizco pecatutic edo pecatu originaletic, sustray pozoatu batetic becela, datorquigu gucioi guere araguiaren edo gorputzaren erabagueco griña ciquin ori: ... (II,39)

2.4.2. Guerricoren egitura Azkue-Altubetarrak, galdegaia aditzaren aurre justuan.

Aditzak atzeratzeko joera horrek, ikusi bezala, askotan egitura oso bitxiak eragiten baditu, beste askotan eragingo ditu Guerricorengan egitura Azkue-Altubetarrak ere (galdegaia + aditza), aditza, «Xà» egitura batean erasten dionean, ondoretik, galdegai berari (aditzaren aurreko elementu tonikoenari, eraginaz hala, ez goikoak bezain egitura arrotzak). Tarteka bada ere, agian Guerricorekin has liteke betetzen gure literaturan sarrixeago, Azkue-Altuberen erregela nagusia, esaldi batere luzeetan ere (ez bakarrik oso laburretan, noiz eta beti izan den usuagoa). Hala nola adibidez segidakoetan:

(29) Eta gure Eliza Ama Santaren fundacioa, edo sortze miragarria Jesu-Cristoren Apostoluen dotriñarequin eta gobernu guztiz ederrarequin asi zan: ... (I,22) [agian tradiziozkoagoa litzatekeen beste esaldi honen ordez: *Eta gure Eliza Ama Santaren fundacioa, edo sortze miragarria (asi zan) Jesu-Cristoren Apostoluen dotriñarequin eta gobernu guztiz ederrarequin: ...*, tartekatua aditza, sujetua eta galdegaiaren artean].
(30) (¿Eta sugueac, dragoyac, eta venenoa, edo pozoya darien gauzac Jaungoicoac eguin ote ditu?) Bai, guciac Jaungoicoac criatu ditu. (I,68) [nahiz bertan segitzen duen, *¿Eta Jaungoicoac nola criatu zuen mundu au? Criatu zuen bere hitz bacarrarequin, ...*, bezalako esaldi batekin]
(31) (¿Lenengo egunean cer eguin zuen Jaungoicoac?) Arguia eguin zuen. (I,69) [nahiz segidan bertan eman: *¿Cer eguin zuen bigarren egunean? Eguin zuen Cerua.*]
(32) (¿Eta seigarrenean cer eguin zuen?) Abere, edo animali mota guciac eguin cituan: ... (I,69) [nahiz segitzen duen esaldiak berak: *...: eta azquenic guciai aguintzeco, eta guciezaz baliatzeco, edo servitzeco eguin cituan Jaungoicoac aparte guizona, eta emacumea bere antzera, imagiñara, eta iduri edo semejanzara; eta eguin izan cituan beste criaturac ez becelaco era miragarri batean, aurrerago esango degun becela.*]
(33) (¿Eta lenengo emacumearen anima certatic eguin zuen Jaungoicoac? Ecerecetic eguin zuen, edo creatu zuen Jaungoicoac: ... (I,79)
(34) Gure animaco etsayen artean andiena eta indartsuena guere gorputz edo aragui propioa degu, ... (II,38) [eman ordez esaldia, modu klasikoago batean, nola zitekeen: *Gure animaco etsayen artean andiena eta indartsuena (da, degu) guere gorputz edo aragui propioa, ...*]

2.4.3. Aditzak atzeratzen klase guztietako esaldietan.

Bada Guerricok ere, Cardaveraz eta Olaechearen ildo beretik, finean atzeratzen ditu aditzak, ez bakarrik ikusi ditugun baiezko deklaratibo nagusietan, baizik eta klase guztietako esaldietan, nahiz beti egin, maisu Cardaverazek baino neurri apalago batean, eta ez hain gordin.

2.4.3.1. Atzeratzen aginterazko aditzak.

Hala atzeratzen ditu Guerricok, tarteka, eta modu bitxian aginterazko aditzak, nola segidako hiru esaldietako adibide andanetan:

(35) (..., bere Apostoluai esan cien.) Munduco gende guciai nere dotriña eracutsi eguiezue: ... (I,62) [nahiz esaldiak segitzen duen bertan: *...: eta bateatu itzazue Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean: ...*]
(36) (Jesu-Cristo gure Jaunac gucioi esaten digu:) betico bicitza iritsi nai badezu, mandamentuac gorde itzazu: ...: betico paquea iritsi nai badezu, pecatutic alde eguizu: eta obra onac eguin itzazu: «declina a malo, et fac bonum» (II,1) [non sumatu litekeen bezala, eragina ez datorren behintzat kanpoko hizkuntzatik].
(37) Ori ondo pensatu ezazue: Jaungoicoari bere arguia, eta gracia escatu eguiozue: eta zuen buruac len baño len, edo bereala pecatu mortaletic libratzeco aleguin guciac eguin itzazue: ... (II,10)

2.4.3.2. Atzeratzen galderetako aditzak.

Guerricok hainbateko maiztasunez, gure tradizioan ohizkoa izan den baino nahikoa maizago, atzeratuko ditu galderetako aditzak. Hala:

2.4.3.2.1. Galdera hautsiak.

Batzuetan beste elementu batzuk tartekatuaz galdegileak eta aditzen artean, gure tradizio retoriko guztian ere gertatu den bezala, nahiz Guerricok askoz maizago egiten duen. Nola segidakoetan (eta beste ugari asko gure ADIBIDETEGIAN):

(38) ¿Noiz, eta nola Apostoluac Credoa esan zuen? (I,26)
(39) Eta ¿norc ori pensalezaque, ...? (I,37)
(40) Eta norc orain conservatzen, eta gobernatzen du mundua bere gauza, eta criatura guciaquin? (I,69)
(41) ¿Certan Jaungoicoari desobedecitu cioben? (I,83)
(42) ¿Cergatic horrela engañatzen utzi zan Eva? (I,83)
(43) ¿Cerc pecatu eraguin edo Jaungoicoaren leguea ausi eraguiten digu? (II,4)
(44) ¿Norc aen naigabeac aditzera eman litzaque? (II,19)

2.4.3.2.2. Galdegileak eta aditzak batera atzeratzen.

Beste batzuetan berriz, Guerricok, Cardaverazek eta Olaecheak bezalaxe, esaldien bukaerara eramaten ditu, batera, galdegileek eta aditzek osatzen dituzten «Xà» moduko egitura perifrastikoak, modu nahikoa bitxietan beren testuinguruetan, nahiz ez noski ezinezkoak.[126] Hala adibidez segidakoak:

(45) ¿Cristauaren dotriña nundic sortua da? (I,17)
(46) ¿Credoa norc esan zuen? (I,26)
(47) ...: Cristauac, arrazoyaren arguira eltzen danean, jaquin bear duen irugarren gauza cein da? (II,1)
(48) ¿Jesu-Cristoc gure bici moduraco eracutsi cizquigun dotriñac, eta ejemploac certara batezere bitzen dira? (II,2)
(49) ¿Eta orain azquenic esan dezagun gure vorondatez eguiten degun pecatua cembat modutan da? (II,7)
(50) ¿Soberbiac dacazquien aldacaitz edo erru gaiztoac cein dira? (II,22)
(51) ¿Cristau pobreac socorritzea, eta alibiatzea noiz da obligaciozcoa? (II,36)
(52) ¿Eta avaricia edo guticia igüitzeco, eta vicio orretatic gure burua libratzeco, eta liberaltasuna maitatzeco, eta gogotic exercitatzeco, cer erremedio eguin bear degu? (II,37)

2.4.3.3. Atzeratzen ezezko esaldietako aditzak.

Guerricok maiz atzeratzen ditu ezezko esaldietako aditzak ere, nahiz ez beti, edo sikiera, gehienetan.

2.4.3.3.1. Ezezko aditz perifrastikoak inbertsiorik gabe.

Larramendi eta Cardaverazen ildoari jarraiki, Guerricok ere oso maiz emango ditu ezezko aditz perifrastikoak inbertsiorik gabe, nola segidako esaldi andanetan (ezin adibide gehiagoren artean aukeratuak):

(53) (...: eta Cerucoac gure biotza osoro aseco due;) eta iñoiz ere bucatuco eztira, ... (I,5)
(54) ...: eta Jesu-Cristoren pasio, eta eriotzaren frutua ecertan eduqui eztezue: ... ¿Nor lotsatuco, humillatuco, eta damutuco ezta, ...? ¿eta nor jarrico ezta, ...? ...: eta ori ezagutzeco, zuen fedea pisca bat piztutzea baicic bear eztezue: ... (II,10)
(55) ...: eta ala ere olgatzeagatic, far eraguiteagatic bacarric esaten dituelaco aitzaquiarequin aintzat artzen eztitue: ..., eta iñoiz ere erremediatzen eztira; ...: baña utseguite oriec ondorengo calte andiric ecarri oi eztue: ... (II,16)

2.4.3.3.2. Ezezko aditz trinkoak atzeratzen.

Guerricok atzeratzen ditu aditz trinkoak ere ezezko esaldietan, Cardaverazen ildotik, ezohizko modu batean. Hala adibidez segidakoetan (beste askoren artean aukeratuak):

(56) ...: eta almenic batere guerez ez guenduan, ... (I,14)
(57) ...: eta Jaungoicoarenac mugaric batere eztue. (I,48)
(58) ...; beren pecatuen barcacioa iristeco moduric etzuen. (I,87)
(59) ...: eta nola Jaungoicoarena dan infinitoa edo neurri baguea, alde orretatic pecatuaren zorrac, edo Jaungoicoaren ofensac caburic eztu. (I,87)
(60) ...: aurreco asava zarraen esanac ecertan etzeuzcaten, gurasoentzat errespetoric etzuen: ... (I,97)

2.4.3.4. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditzak.

Gutxiengo bat izango bada ere, Guerricok atzeratzen ditu tarteka, *Ba*- aurrizkia daramaten aditz formak ere (ohizko «Xà» egiturak), modu nahikoa bitxi batean hegoaldeko usarioan (aurrizkia izanik euskaldunek darabilten estrategietako bat aditz trinkoak esaldien hasiera aldera eramateko). Gu ez gara gehiegi ahalegindu puntu honetan ere adibideak biltzen, baina bihoaz segidako hiru esaldiok mostra bezala (hirurak galderak kasuan, eta hirugarrena gainera aditz konposatua):

(61) ¿Eta gracia orren anditasuna, eta balioa nolacoa dan badaquizue? (I,5)
(62) ¿Beraz etsay orien contra Gurutzeac indarra badu? (I,12)
(63) ¿Eta Abranen demboran beste gauza andiric guertatu bazan? (I,105)

2.4.3.5. Atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.

Nahiz ikusi dugun bezala, zeharo ohizkoa den Guerricogan -azken Cardaverazenean baino askoz usuago- mendeko esaldi hauek hautsita ematea, Guerricok eraberean maiz atzeratzen ditu aditzok, ohizkoa litzatekeena baino gehiago. Atzeratzeak nabarmenak gertatzen dira, hauen kausaz hausturak eragiten direnean, aditz osatu ohi dituzten ohizko perifrasietan (nola adibidez beste elementuren batzuk tartekatzen direnean, zehar galderetako galdegilea eta aditzaren

[126] Eta nahiz gu ez garen saiatu adibideak biltzen, pentsa liteke Guerricok gauza bera egiten duela galdegilerik gabeko galdera orokorretan ere hainbat kasutan, aditza atzeratuaz ohi baino gehiago.

artean, nahiz beste askotan ere). Adibide batzuk segidan (ugari askoren artean aukeratuak):

(64) (Icusi dezuen ezquero ...) bide nabar nolaco honra, eta mesede aundia Jaungoicoac eguin dizuen, ... (I,9)
(65) (¿Cergatic ciñatzen cera aoan? Itz gaiztoetatic libra gaitzan Jaungoicoac. ¿Cergatic ciñatzen cera bularrean?) Obra, eta deseo gaiztoetatic Jaungoicoac libra gaitzan. (I,10)
(66) (... aztu bague. ...) Norgatic ori gucia sufritu zuen, ... Eta cein ichuac eta cein esquergabeac zuretzat izan gueran! (I,16)
(67) Arrazoyaren arguira, edo ezagüerara Cristaua datorrenean, (cembat gauza jaquitera bearturic, edo obligaturic dago? (I,18)
(68) (Aditzera emateco:) 1.º Nola, eta certaco Apostoluac Credoa esan zuen: 2.º (Fedea cer dan,) eta cergatic eta nola fedeco misterioac jaquiñ, eta sinistu bear ditugun: eta 3.º Nola fedearen arguiarequin gure vicimodua zucendu bear degun. (I,25)
(69) ..., eguiazcotzat norbaitec errecibitu nai ezpaditu, ... (I,35)
(70) (... ondo consideratu bear degu,) cein gauza andiac, eta provechugarriac Jaungoicoac eguin dituan, ... (I,70)
(71) (...: Ciudade, edo erri bat fundatu, edo eraguin zuela:) eta bere Seme Enoch-en icena erriari ipiñi ciola. (I,93)
(72) (¿Cein da erremedio ori?) Pecatu venialaren bildur andi bat, eta igüitasun andi bat gure biotzetan eduquitzea. (II,12)

Atzeratze hauen artean ere ondo bitxiak gertatzen dira Guerricok tarteka ematen dituen ezezko esaldi konpletiboak inbertsiorik gabe, nola segidakoak adibiderako:

(73) (..., pensatu dezaquegu ...;) Aingueru gaiztoentzat erremedioric izan eztala, ... (I,88)
(74) ...: eta berriro alaco diluvioric bidalduco etzuela (Jaungoicoac aguindu cion: ...) (I,95)
(75) (... esaten digu,) ordiac Ceruco erreinuan sartuco eztirala. (II,59)

2.5. Beste joskera ohar batzuk.

Jaso nahi ditugu hemen, labur, Guerricoren joskeraren beste ezaugarri batzuk, nahiz piskaren bat albora geratu gure erreflexio nagusien haritik.

2. 5.1. BAIZIK partikula aurrejarria.

Guerricok ere, uste dugu gure tradizio nagusiak bezala, usu, eta are usuenik, darabil *baizik* partikula, lotu nahi duen duen esaldi, edo esaldi zati haren aurrean, nahiz hau oso laburra izan. Erabiltzen du hala ere, lotzen duen esaldi zati horren ondoren emana, berau oso laburra den kasu askotan, edo artean eman gabe dagoenean (ezezko) esaldi nagusi hura, zeinekin koordinatzen den *baizik*-ek lotzen duen zatia. Partikularen aurreposizio adibideak ezin ugariagoak dira, eta hemen gutxi batzuk:

(76) Ez; cerren ori ezta perfeccioa, baicic imperfeccioa, argaltasuna, eta poderioaren falta: ... (I,52)
(77) Baña guizonaren adimentua berez laburragoa da, eta ez batetan, baicic apurca gauzac ezagutzen ditu: ... (I,88-9)
(78) ...: eta bestea da pecatu veniala, errazago eguiten, eta barcatzen dana: ariña edo chiquia: ez berez ariña, eta chit caltegarria eztalaco baicic, pecatu mortalaren aldean ariñagoa dalaco. (II,7)
(79) ..., ezta pecatu, baicic da gauza ona, ... (II,66)

Guerricok, (78)an, *baicic*-en ondoren ematen duen komak marka lezake gure ustez, *baizik* aurrejarriaren ahozkatzeko modua, eten bat eraginez partikula, eta koordinatzen duen esaldi zatiaren artean. Ahozkera bat, zeharo desberdina dena, partikula ondorenetik ematen denean, orduan, «Xà» moduko egitura foniko batean.

2.5.2. BAITA ERE partikula, batera, eta aurrejarria.

Guerricok maiz erabiltzen du *baita ere* partikula, tartean beste elementurik kokatu gabe; euskaraz ohi bezala ere bai, esango genuke, behintzat partikulak koordinatzen duen esaldi edo esaldi zati hura, (oso) laburra ez den guztian, noiz usuzkoagoa izan litekeen zati hori tartekatzea. Bi adibide hemen:

(80) Aurreco dotriña bietan nola ere bait esan dizuet gure Jaungoicoa cer dan, ...: eta baita ere, cembat zor diogun Cristauoc gure Jaungoicoari, ... (I,57)
(81) ..., eta ez bacarric pobre agueriac: bai ta ere, eta motibo andiagorequin, pobre lotsatiac eta eri tristeac socorritzeco. (II,36)

2.5.3. Guerricoren zeinismo adibide bat behintzat.

Gu ez gara kezkatu Guerricoren ezaugarri hau aztertzen, kontutan harturik berak inolako eragozpenik gabe erabiltzen dituela antzeko beste partikula-galdegile-anaforiko ugari mendeko esaldien sarreratarako. Hala geldigabean, *cergatic, ce, cerren, nola, non, ...* modukoak. Gerora etorri gara berriro Orcaizteguiren hitzetara, esaten duenean bere Obserbazioetan

(1906, 64 or.): «*... Guerrico es enemigo acérrimo del (supuesto) relativo zeña. Tiene esta gran ventaja, sobre otras, para el sacerdote basko. No construye con igual habilidad las oraciones causales, ponderativas y otras, pero lleva bien las relativas.*» Eta besterik ez bada ere, Orcaizteguiren esanari aurre egiteko, bihoa honen zeiñismo adibide bat bederen, jabetzeko, Guerrico ere ez zenez, partikularen arerio horren garratza behintzat:

(82) ...: bada orrec dacarquigu bacarric oraingo paquea, eta gueroco betico gloria, ceña deseatzen dizuedan Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. (II,38)

2.5.4. Guerricoren objetu pluralaren konkordantzia faltak aditzean.

Esan liteke, Guerricok ere tarteka, baina hainbat usu, ez duela konkordatzen esaldiko aditz flexioa, bertako objetu pluralarekin. Eta konkordantzia falta hau ez da bakarrik gertatzen, esaldian aditza lehenago ematen denean objetu plurala baino, noiz usuagoa (eta ulergarriagoa) gertatu ohi den, baizik eta baita ere, objetu hori aditzaren aurretik doanean:

(83) Beguiac iregui citzayen eren malicia icusteco: ... (I,86)
(84) ..., eztizuet bacarric esango, ascotan iruipenecoac dirala eguiten dizuen ofensac edo agrabioac, ... (II,50)
(85) ...: eta esaten digu, eztigula gure pecatuac barcatuco, (guere etsayari, ofenditu gaituanari barcatzen ezpadiogu: ...) (II,72-3)
(86) ...; eta gaur Adanen demboratic Abran Patriarcaren demborañoco gauzac aitatuco dizuet. (I,92)
(87) Iñoiz pecatu orretan erori ezpada, Jaungoicoari millarezco esquerrac eman bear dio: ... (II,41)

2.6. Cardaveraz ote da Guerricoren joskera maisua?

Aditzaren atzeratze klase guzti hauek, berez bitxiak eta bereziak gure tradizioan Cardaveraz bitarte, ziurtatu behar ligukete, Guerricoren kasuan ere, aditza atzeratzerako erabaki horren, bederen, artifizialtasuna, hau ia zeinnahi esaldi klasetan praktikatzen duenean. Nondik jasotzen du ordea Guerricok, joskera ezaugarri berritzaile, tradizioz alde bateko hau? Ez da izango gehiegi uste izatea, pentsatzea, Guerricok ere ezagutu bide zituela, bere garaikideek bezalaxe, Cardaverazen euskal lanak, prosak, eta *Eusqueraren Berri Onac*-eko erreflexio gramatikalak, kontutan hartuta haren obren zabalkundea garaian, eta haren ospea, santu, euskalzale, eta gipuzkeraren eredu bezala. A. Arruek gainera jasotzen du Cardaverazen izena, Guerricoren iturri erlijiosoen artean (nahiz ez dakigun zein oinarrirekin). Hala dio bere artikuluan (1956, 42 or.):

> ... Bere iturburu nagusiena [Guerricorena], Elizako Guraso ta beste Erlijio gaietako jakintsu zarretan dago, baña geroxeago beste batzuen itzala ere, ordea, oartzen da bere Sayakera'n. San Inazio, Aita Granada ta Aita Kardaberaz'ena, batez ere. Axular'en apur bat ere, agian, bai noski.

Baina Cardaverazen inspirazio iturria onartuta ere, Gerrikori presuposatu beharko zaio, Olaecheari bezala, bere aldetiko elaborazio eta teorizazio lan propio haundi bat, iristeko, bere idazkeraren joskera ondorio horietara, Cardaverazek agirian inon aipatzen ez dituenak, garaian argitaratutako inongo lanetan, eta praktikatzen dituenak, dudarik gabe, Guerricok edo Olaeceheak baino askoz modu salbaiagoan. Bestalde, suposa diezaiokegu Guerricori Olaechearen Dotrinaren ezagutza ere, finean gertuago bere idazkera propiotik azken Cardaveraz baino.[127] Ez dugu ordea batere erreferentziarik Guerricoren halako erreflexio posiblerenik, nahiz agian argi izpiren bat eman diezaguketen bere lan barreneko joskera alderen batzuk.

2.7. Guerricoren joskeraren aldeak.

Guerricoren lana ez da gorabeherarik eta desberdintasunik gabekoa bere barne. A. Arruek aitatzen du jada halakorik (1956, 40 or.): «*Esan bearrik ez daukagu noski, Gerriko'k iaio josten duala euskaraz. Baña naiz joskera ta naiz idaztankera - idaztankera batez ere-, "desberdinak" eta goora-beera aundikoak ditu. Juan Bautista Agirre ta Lardizabal'enak, esate baterako, ez dira jatorragoak izango bear bada, baña bai beintzat ardura geiagoz landuak.*»

Ez dakigu ziur Arruek zer esan nahi zuen hitz hauekin 1954ean, hitzaldi garaian, Altuberen erregelak jada zabalduak, baina horren lekuko kontrajarriak direnean lege horien inguruan, J.B. Aguirre eta Lardizabalen prosak. Guk, egia esan,

---

[127] Puntu honetan aipa liteke, autoreon elkargune berri bezala, nola Guerricok ere ohitura duen, emateko zenbait kasutan (aztertu behar zeinetan), edutezko genitibo plurala, ez *-en* atzizkiarekin, baizik eta *-aen* moduan (<(*h*)*aen*.<(*h*)*aien*). Hala: *pecatu venialaen zorrac* (II,18); *pecatu venialaen bildur* (II,19); *arraen janaria* (II,25). Ezaugarri bera erakusten du, uste dugu, Olaechearen Dotrinak. Beharbada garaiko bizkaiera baten ezaugarria, beste asko bezala zabaldua garaian, Gipuzkoako Goierri eta barne aldeetara. Ezaugarri berbera aurkituko dugu gero Lardizabalengan.

ez dugu hartarainoko alderik sumatu Guerricoren prosan, nahiz bai egia den noski, erakutsi dugun bezala, Guerrico ez dela batere konsistentea, aditzaren posposizio orokorraren printzipioa aplikatzerakoan.

Hala ere, beharbada egin genezake guk, nola-halako estilo dibisio bat, Guerricoren bi prosa modu desberdinen artean. Guerrico bere etorri librean-edo ari denean, behementziaz, doktrinako gaiak predikatzen, entzulea bere argumentazioaren egiara eraman nahian, esango genuke, orduan oro har, ez diola kasurik egiten, aditzen posposizioari; ez daukala orduan astirik horrelako ñimiñokeriatan geratzeko. Aldiz, zerbaiten kontakizunean ari denean, narrazioan, dela Testamentu Zaharreko edo Berriko historiena, Guerricok harrigarriki askoz usuago aplikatzen du esaldian, aditzen atzeratzea. Eman dezagun adibide, segidako biak bezalako pasajeak:

(88) (Orixxe guertatu citzayon Judas Apostoluari berari:) Jesu-Cristoren apostoluen artean bolsero zan: ematen cisten limosnac gordetzeco cargua zuen: lapurreta chiquiac eguitera ohitu zan: diru zaletu zan, eta Jesu-Cristo bere Maisu, eta Jabe Soberanoa bera ogueitamar dirugatic bere etsayai saltzeraño eldu zan: eta desesperaturic bere burua urcatu zuen, eta betico condenatu zan. (II,15)

(89) ...: Jose guztiz ona zan, eta Jacob bere guraso santuac beste seme guciac baño maiteago zuen: Josec bere anayai batere gaitz bague contatu cien: ... aen gucien Jaun eguiñic icusico zuela: ...: arrezquero ecin bere anayac icusi zuen, gorrotoz beguiratzen cioben: iltzeco asmoac ere artu cituen: eta Egiptora cijoacen mercatari Ismaelita batzuei eren anaya bera saldu cien. Orra cer dollorqueria, prestuezqueria, eta billautasuna embidiac eraguin cien: ...: aren ametsac osoró cumplitu ciran: Egiptoco Erreguearen urrengo guizon, eta ango aguintari izatera eldu zan: eta bere anayac erac, aren berri jaquin bague, bicico baciran, goseac obligaturic gari esque Egiptora, eta beraren mendera etorri ciran: ... (II,68-9)

Zergatik atzeratzen du Guerricok aditzaren posizioa esaldian, prezeski kontakizunean? Zergatik, prezeski gaur egunean *Vox populia* denean, inon izatez gerotan, kontakizunean aurreratu ohi direla aditzak euskara klase guztietan? Guk pentsatuko genuke, Guerrico, prezeski kontakizun hauetan ari denean, ari dela inoiz baino gehiago erabiltzen, bere hizkuntza reflejoa, agian itzulpen moduko lan batean, euskaraz jarri nahian, aurretik ezagutzen duen istorio bat, osorik eman behar duena, hasiera eta bukaerarekin. Orduan duela pentsatzeko denbora gehiago, bere hizkera sutsu eta etorri haundikoan ari denean baino; eta hala errazago aplikatu lezakeela kasu hauetan, berak nolabait aurretik eratorria duen aditzaren posposizio printzipioa.

2.8. Beste suposizio zenbait Guerricoren eraginaz.

Ez daukagu gaur egun datu objetiborik, presuposatzeko, Guerricok eta bere lanek, inolako eraginik izan zutenik bere garaiko euskaltzalegoan, kontutan harturik gainera, bere liburuak ez direla argitaratzen bera hil eta 34 urte beranduagora arte, aspaldi hilak Moguel, Añibarro edo J.B. Aguirre garaikideak; baina baita ere 3 urte lehenago, gazte, Lardizabal bera. Hasieran aipatu bezala ordea, beharbada zuten harreman zuzenagorik euskalzale guzti hauek, zeinen artean, zabaltzen den aditzaren posposizioaren ezaugarria euskaraz, beren gramatiketan idatziko duten bezala Añibarrok eta Lardizabalek (kapitulu honetan aurrerago). Izan ote zitekeen Guerrico ere teorizazio hauen lehen iturrietako bat? Bere prosa dudarik gabe gertatzen da zubi, Olaechearena bezala, Cardaverazen trakestasuna eta ondorengo Lardizabal baten txukunagoaren artean, baina idatzia jada nabarmen, euskarazko aditz posposizioaren printzipio orokorra jarraitzen. Beharbada ezagutu zituen Lardizabalek Guerricoren eskuizkribuak ere.

2.9. Jose Feliz de Amundarain y Mugica, zegamar, eta Mutiloaco Erri noblearen Vicario Jaun izanaren, Igande-Sermojac.

Guk arakatu nahi izan dugu piskaren bat gehiago Guerricoren eragin posibleen inguru, eta hala topatu dugu lehenik, Doktore Don Joseph Felix de Amundarain y Mugicaren itzala. Jaioa 1755ean, Zegaman, Segura, Mutiloa eta Cerain inguruan Gipuzkoako Goierrian, eta berak dioenez, 1790 urtean txukun argitaratzen duen lau orrialdeetako *Relacion de los meritos, grados y exercicios literarios* batean, baita ere, «*Doctor, Presbítero, Confesor, Predicador y Opositor a Prebendas de Oficio*». Bertan dio, nola den Oinati, Zaragoza, Valladolid eta Madrilen ikasia, eta behintzat 1784-90 urteak bitartean lanean jarduna, konfesore, predikari, ... bezala, Zegamako Parroki Elizan. Badirudi gero irabazi egiten duela, 1790eko oposizioan eskaturiko prebendetakoren bat, bada berriro aurkitzen dugunean, jada 1824ean, aurkezten du bere burua, eskuidatzietako batean, esanez: «*Langai labur au Eusqueldun Apeicen mesedean eguiñdu D.D. Josè Feliz de Amundarain, Mutiloaco Erri noblearen Vicario Jaunac, bere Vicaritzaco ogueta amairugarren urtean; ...*» Hau da, 1790eko urtetik, eta prezeski beraz Guerrico eliza bereko benefiziadua zen garaian.

Aita Juan Jose Agirreri esker ezagutu ditugu Lazkaoko Beneditarren liburutegian, Jose Felix Amundarainek utzitako sermoien eskuizkribu zenbait. Sailik mardulenak, izenburu darama: *Eusquerazco Igande-Sermojen 2. liburua* (orain *Esku-*

Idaztiak I bezala enkoadernatua). Eta bertan jaso bide dira Pazkoa Maiatzekotik Abendura bitarteko 24 igandeetakoak. Honen sarreran bertan aditzera ematen zaigunez, lehenengo liburu, gordetzen ez denak, jaso bide zituen aldiz: *Igande Sermoi guciac ... Abendutic JesuChristo Cerura igozaneco urrengo Iganderaño*. Bigarren liburuan, igande askotarako gordetzen dira 2, 3, eta are sermoi gehiago, igande berdinari dagozkionak, eta agidanean urte desberdinetan idatziak, gehientsuenak 6-7-8 orrialde ingurukoak, folio-erdi tamainakoak, eta letra txikian idatziak. Liburu honezaz gainera, gordetzen da Lazkaon beste txikiago bat ere (*Esku-Idaztiak II* bezala enkoadernatua), beste hainbat sermoi solte gordetzen dituena, gorago aipatu Amundarainen 1790eko curriculumaren ale inprimatu batez gainera.

2.9.1. J.F. Amundarainen joskera ohizko eta tradiziozkoa.

Garaiko Elizako graduetan jantziegiak ez gaudelarik, ez dakigu ziur zein izan zen bietan zeinen buru, Guerrico benefiziadua, edo Amundarain vicarioa, Mutiloako elizan hainbeste urtean. J.F. Amundarain izaki Guerrico baino hamabost urte gazteagoa, pentsa liteke bera izan bide zela, azken honen laguntzaile eta nolabait ikasle.

Sermoiak piskaren bat irakurrita, guri ez zaigu iruditu, oro har, Amundarain predikari abilegia izan zenik. Behintzat Guerrico edo J.B. Aguirre baten aldean, ... Hizkera xehekoa, h hainbat darabilena, eta agian ipar tradizioko zenbait hitz; mailebuak ugari, garaian ohi bezala; eta aurre partikulak, lasai mendeko esaldien sarreretarako, baita *zein* partikula; ... Dudarik ez bestalde, sermoiek isladatzen dutenez, beren mailan, beren garaiko eta inguruko hizkera ere.

Bere hitzen ordenamenduari dagokionez ordea, esan behar da, Amundarain, oro har, askoz gehiago lotzen zaiola gure tradizioari (batere zalantzarik gabe, guk sakonxeago begiratu ditugun bi sermoietan, hemen transkribatzen ditugunak artikulu honen ERASKIN gisa, edota gainbegiratu ditugun besteetan ere), Guerrico bera baino, eta nola ez Cardaveraz baino: galdegaiak ohi bezala sarri asko aditzaren ondotik; aditz ugari esaldi hasieran bertan; baita hauek trinkoak badira ere; mendeko esaldi hautsiak ezin konta ahala; eta baita ere noski, oro har, gu «Xà» fenomenoa bezala definitzen gatozenaren agerpen ugarienak (den hauetarako ikus ERASKINA).

2.9.2. Amundarainen adibide Cardaveraztiarren bat.

Oro har esan liteke Amundaraini ez zaiola sumatzen, Guerricori bezala, aditza posposatzeko erabakirik. Nahiz inoiz aurki litekeen Amundarainengan ere adibideren bat, nolabait islada lezakeena, aditza atzeratzeko joera. Hala segidako esaldia behintzat, bat gure bi sermoien artean, non beste elementu batzuk tartekatuko liratekeen esaldiko galdegaia eta aditzaren artean (adibideak I, edo II zenbatzen ditugu, gure ERASKINEKO bi sermoien ordenan):

(90) (Iru bider gau erdian atea jozuan persona bearrac iru oguiren esque;) familia gucia aurquituzuala lotan Evangelio santuac dio; ... (I)

Eraberean aurki genezake egitura Azkue-Altubetarrik, aditza beharbada artifizial samar atzeratua daramana. Hala:

(91) (...; contrara adoratcea bacarric, eramatea bacarric gauza alferra da,) cumplimentua, edo obeto esateco guezurrez JesuCristorequin cumplitcea da. (II)

Hala aurkitzen ditugu bi galdera hautsiok ere:

(92) ¿Nori gustorago veguiratucodio seme batec, bere Aitari baño? (II)
(93) ¿Nogan bere veguiac, bere viotza, eta esperanzac ifinicoditu pobre, miseriz inguratu batec, Aberatsagan baizic; baldin badaqui onec; edo arc janci eta estali duala bere premi ordu gucietan? (II)

Hala aurquitzen dugu ere, ezezko esaldi konpletibo batean, aditza inbertsiorik gabe emana, modu, gaurko egunerako, nahikoa bitxian:

(94) ...; badaqui azqueñic, amodiozco señale paregabe ojequin aspertu etzala Jaun Amodiotsua mesedeguitez, ... (I)

Eraberean pentsa genezake, aditza hainbat atzeratzen ote duen mendeko esaldiren bat edo bestean:

(95) (Pensazazute oraiñ; ...;) cer devociorequin alavanzac Jaungoicoari cantatucocioten? (II)
(96) (...; onelaco joerac eta promesac, deritzat, dirala aitzaquiac orrutz, onutz ibilteco; ...; Echétan burubide charrac icusteco,) echeac, eta Echecoac lur, azqueneraco, jotceco. (II)

Adibide hauek gorabehera, ez dirudi inola Amundarainen joera, usaina, doanik, aditza atzeratzearen bidetik, ez Guerrico, eta ez Cardaverazen atzetik, alde handiz bien prosa bideetatik.

2.9.3. Ohar batzuk bukatzeko, konkordantziaz; eta Añibarroz.

Bada Guerricoren kasuan bezala, Amundarainengan aurkitzen dugu, adibideren bat behintzat, aditzak falta duena esaldiko objetu pluralarekiko komunztadura. Hala (goiko 95az gain):

(95) (Pensazazute oraiñ; ...;) cer devociorequin alavanzac Jaungoicoari cantatucocioten? (II)
(97) ..., eta berac arguitucodizute adimentuac, ... (I)

Bukatzeko, eta anekdota bezala, esan, nola Amundarainen pasarte bitxi batek gogora arazi digun Añibarroren *Gurutze Santu*-ko beste bitxi samar bat. Dira, ordena horretan:

(98) (... ¿Nolada posible, nic nere Jaungoicoa ofenditcea, aserratcea aimbeste mesederen ondoren?) Pensamentu onec bete ditu Eremuac, eta Conventuac; pensamentu onec indartu ditu martiriac, pensamentu onec goituerazdizte virginai persecucioac; eta azquenic pensamentu onec convertituditu pecatari gogortuac. (I)
(99) Ceruco erreiñuaren gomuteac sendotu cituen martir santuac: bete dituz eremu, conventuac, gorde ditu dontzellac ta atera ditu asco munduco zoraquerietaric. (Ceimbat neque, laztazun ta penitencia eguin etzituezan santuac ceru au irabazteagaiti?) (1897, 72-3)

Añibarroren liburua, Durangon argitaratzen da lehenbizikoz 1897an,[128] eta ezin izan zuen hau ezagutu Amundarainek. Beharbada suposatu beharko zaie biei, amankomuneko iturri bat, besterik gabe.

2.10. Jose Ignacio de Guerrico Urquiola (1806-1883): Misio Santuaren Oroipena (1853).

Gure Guerrico segurarraren izen berekoa, hura baino 66 urte gazteagoa, eta Lardizabalek bezalaxe hemezortzi baino ez zituena hura hiltzen denean, Jose Ignacio de Guerrico Urquiola (1806-1883) Cerainen jaio zen, Segura eta Mutiloa ondoan Gipuzkoan, eta ez dakigu beste Guerrico zaharraren ahaide den, nahiz hau ere ez litzatekeen harritzekoa izango. N. Alzolak eskeini dio atentzioren bat Guerrico gazteari («El Padre Guerrico, de Cerain», *BAP*, 1963, XIX, 97-99 orr.; eta beste), eta han haizatutako susmoekin pentsatzen dugu, bera ote den, Jesusen Compañiaco Misionista, lehenengo aldiz Tolosan argitaratzen duena 1853an,[129] *S. Ignacio Loyolacoan Jesusen Compañiaco misionistac eman zuen Misio Santuaren oroipena* liburuska (19 orrialde). Ez da ezagun Ceraingo Guerricok utzi zezakeenik beste euskal lanik, eta bai ordea 1859 urterako, Filipinetako Misioetara joan ote zen, eta bertan hil Manilan 1883an.

2.10.1. Misio Santuaren Oroipena-ren hitz ordenamendua.

J.F. Amundarainengan ez bezala, obra txiki honetan suma liteke usain edo eragin Guerricotiar, Cardaveraztiarrik, nahiz bere laburtasunean egia esan, ez den egiten sentitu baino askoz gehiago.

2.10.1.1. Tradiziozko hitz ordenamendua Misio Santuaren Oroipenean.

Hala oso maiz aurkituko ditugu bertan, galdegaia aditzaren ondoretik daramaten esaldiak, nola segidakoak (eta beste ugari gure ADIBIDETEGIAN):

(100) An dago Juez zucena, guztia icusten duana: ... (8)
(101) ...: erruqui gabe escatuco dit nere bici guztico contua, ... (8)
(102) ...: nic eman dizut legue santu bat, eta ambeste medio zure anima salvatzeco ta ni servitzeco, ... (8-9)

Hainbateko maiztasunez aurkitzen ditugu ere, zuzenean aditzaz hasitako esaldiak, beren galdegaia nahikoa nabarmen daramatenak aditz ondoretik. Hala segidakoak (eta gehiago ADIBIDETEGIAN):

(103) Zulatu ditue nere escuac eta oñac: ... (3)
(104) ...: contatu ditue nere ezur guciac. (3)
(105) ..., artu nazu aita on batec becela zure gracian nere pecatuac barcatuta: ... (4)

Eta hala aurki ditzakegu mendeko esaldi hautsiak ere hainbat kasutan, nahiz egia esan, ez gehiegitan ohi denerako, nola segidakoak (gehiago ADIBIDETEGIAN):

---

[128] Hala dio behintzat guk ezagutzen dugun aleak, nahiz leku batean baino gehiagotan aurkitu dugun liburu honen argitaratze urtea emana 1879an.

[129] Eta agian 1853ko urte berean, Bilbon ere bai, Delmasen etxean (Sorarrain, apud, N. Alzola, *BAP*, 1956, 98 or.). Guk gero ezagutzen dugun 1879ko 4. argitalpen hainbat aldatu batek dio izenburuetan: *Misio Santuaren Oroipena, laugarren eguiñaldi onetan obetoago ipiñi eta Vitoriaco Obispo Jaunaren baimenarequin argitaratzen dana*.

(106) ..., beguien aurrean euquiaz David Profeta santuac zugatic esan zuana: ... (3)
(107) Oracio au confesatu ta comulgaturic devocioz errezatzen duanac Jesucristo gurutzean jositaco imagiñaren aurrean, ... (3)
(108) ...,jaquiñic ceiñ erraz becatu mortala eguin ditequean gay onetan. (13)

2.10.1.2. Misio Santuaren Oroipeneko aditz atzeratze susmoak.

Oro har ez dugu aurkitzen *Misio Santuaren Oroipen*-ean, Cardaverazenean bezala, edota are Olaechea eta Guerricorenean ere, aditz atzeratze artifizialen froga gehiegirik. Ezezko aditz konposatu guztiek dute beren inbertsioa. Galderek nahiko ohizko hitz ordenamendua jarraitzen dute, eta ez dira atzeratzen galdegileak eta aditzak batera esaldi bukaerara, nahiz lau galdera hautsi ere aurki litezkeen, bi hauen modukoak:

(109) ¿Certaco Jangoicoac ecerezetic atera ninduan? (7)
(110) ¿nola alaco mesedeai eta nere misericordiari erantzun diezu? (9)

Aginterazko esaldiek aurreratua daramate aditza ohi bezala, segidako, ez oso argi honek salbu:

(111) Ama Santisima, oraiñ eta eriotzaco orduan amparanazazu. (18)

Eta batez ere, ez da ere aurkitzen eten nabarmenik, aurreratutako galdegai bat eta artifizialki atzeratutako aditz baten artean, horren usuzkoak Cardaveraz eta Guerricorenean, ez bada segidako bi esaldi ez oso argietan (testuiguru piska batekin emanak):

(112) Bestela alperric beti esan bearco degu: (beraz eguiazco bidea utseguin degu.) (10)
(113) (EGUNERO.) Errosarioa familiarequin errezatuco det. (Sarri Jaunagana alchatuco det biotza, eta azquenic nere neque ta lanac esquiñico diozcat.) (18)

Ematen da ezezko esaldi bat ere, aditz trinkoa atzeratuta daramana ohi ez bezelako modu batean:

(114) Misericordiaric zuretzat gueyago ez dago, ... (9)

Nolanahi, suma dakioke sistematikoxeago aditz atzeratze artifizial samar hori, beste zenbait kasutan. Hala adibidez, baiezko esaldi deklaratibo labur sailak ematen dituenean, errezkadan, hauek monotonoki amaituaz-edo aditzaz, Lardizabalen prosaren usaina gogorarazten digutelarik beste ezer baino gehiago. Hala nola adibidez segidako sailetan:

(115) ..., daucadan gucia zuc eman didazu, guztia zuri biurtzen dizut, eta zure vorondatera osoro entregatzen naiz, ... (5)
(116) ...: bearbada aurten, ill onetan, aste onetan, gaur, edo ordu onetan aitzeneco arnasa emango det, ... (8)
(117) (Misericordiaric zuretzat gueyago ez dago,) justiziaren dembora etorri da. (9)
(118) Jaungoicoa gauza gucien gañean amatuco det, (eta Jaunaren contraco itzic ez da nere autic irtengo.) Erligio Santuco gauzai errespeto aundia ecarrico diet. Cristauac jaquin bear duan dotriña icasi eta nere familiari eracutsico diot. (11)
(119) Nere guraso ta nagusiagoai bear dan errespetoa ecarrico diet, ... Erligio gabeco echean banago, al dedan lenena irtengo naiz andic. Nere ume, mirabe ta mendecoac Jaungoicoaren semeac bezala tratatuco ditut, ...: oyen gorputzeco eta animaco ona aleguiñez billatuco det. (12)
(120) Nere projimoa neu becela amatuco det: ...: besteen faltac pacienciaz sufrituco ditut; guciaquin baquean aserre ta gorrotoric gabe portatuco naiz; gaitzagatic ona biurtuco det. ... / Pensamentu, itz eta obra gucietan chit garbia izango naiz. (13)
(121) (GOICERO.) Jaunari nere obra guciac ofrecituco diozcat, pecatu bague eguna pasatzeco laguntasuna escatuco diot, eta nere eguneroco oracioac esango ditut. (17)

Eta esango genuke aditza atzeratzearen tonu monokorde hori berbera sumatzen dela ezezko esaldietan ere, non nahiz aditz inbertsioak mantendu, oso maiz, usu baino gehiago atzeratzen den ez partikularen agertzea esaldian, hainbat bitxia egiten den modu batean. Hala nola izan litekeen segidakoetan:

(122) ..., eta Jaunaren contraco itzic ez da nere autic irtengo. (11)
(123) Birau, juramentu eta beste itz escandalogarriric ez det seculan esango. (11)
(124) Nere echean edo nere mendecoetan ez det escandaloric eta bicimodu gaiztoric sufrituco. (12)
(125) Canta charric ez det iñoiz cantatuco; ... (14)
(126) Guezurric, falso testimonioric, murmuracioric, edo iñori onra quentzeco edo pena emateco gauzaric ez det esango. (14)
(127) Cristau batzuen faltac ez dizquiot Elizari egotzico, ... (15)

2.10.1.2.1. Aditzak atzeratzen mendeko esaldietan.

Eta izan ere mendeko esaldietan ageri da, inon baino nabarmenago Guerrico Urquiolaren joera, aditzak atzeratzeko. Batetik, esan dugu ez direla *Misio Santuaren Oroipen*-ean usuegiak mendeko esaldi hautsiak. Bestetik, ez da batere zaila aurkitzea liburuskan zehar mendeko esaldi ugari, nolabait etenda erakusten dutenak ohizkoagoa litzatekeen perifrasi bat aditza, eta ohituraz-edo emango litzatekeen elementuren baten artean (nola adibidez zehar galderetako galdegilea eta aditzaren artekoa). Kasu hauek izan litezke beharbada, adierazkorrenak Guerrico Urquiolarengan, aditz atzeratze erabakiaren artifizialtasunarenak. Hala nola behintzat segidako adibideetan nahikoa nabarmen:

(128) (...: eta ala ere contentu ez izanic, cerori sartu cera nere barruan,) nere janaria comunio santuan izateco.) (4)
(129) (¿Eta nola berriz pecatu mortal bat ere eguin nezaque,) ambeste mesede zugandic artuta? (5)
(130) ¡utsagatic, tontaqueri bategatic, amilca betico infernura juatea! (9)
(131) (... jaquiñic) ceiñ erraz becatu mortala eguin ditequean (gay onetan.) (13)
(132) (...: aberats banago, acordatuco naiz) pobreac eta obra onac nere contura Jaunac ipiñi dituala, ... (16)
(133) (..., eta pensatuco det) nola urtea pasatu dedan, ... (17)
(134) (..., icusiaz) urrengo urteraco nolaco bicimodua Jaungoicoac escatcen diran. (17)
(135) ..., pecatu bague eguna pasatzeco (laguntasuna ...) (17)
(136) (Galdetuco diot nere concienciari) nola eguna igaro dedan: ... (18)

Baina suma baliteke ere *Misio Santuaren Oroipena*-ren egilearengan, aditza atzeratzeko erabaki artifizialen bat, eta Cardaverazen eskolako eragina nolabait, beste kontu bat litzateke jakitea hori nondik datorkion, artean 1853an argia ikusi gabe zeudenean, Guerrico zaharraren lanak, edota bere urte berean eta beragandik urrunik gabe jaiotako Lardizabalenak.

2.10.1.3. Ohar bat bukatzeko, aditz konkordantziaz.

Guerrico, eta Amundarainenean bezala, aurkitzen da inoiz *Misio Santuaren Oroipen*-ean ere, komunztadura faltaren bat aditza eta esaldiko objetu pluralaren artean. Segidako esaldia, anekdota bezala:

(137) Urteaizquenean Jaincoari esquerrac emango diot urteco mesedeacgatic, ... (17)

ERASKINA

Jose Felix Amundarainen Igande Sermojen 2. liburua-ren sarrera; lehenengo sermoia: Dom. Penthecost. (Esku-Idaztiak I); eta bigarren sermoi bat: De la S.ta Cruz (Esku-Idaztiak II, 2. sermoia).

Esku izkribu hauek jasoak daude, Lazkaoko Beneditarren liburutegian, *Esku-Idaztiak*, I eta II izenak daramatzaten bi tomo enkuadernatuetan, beste ehun inguru sermoirekin batera (bertako zaintzaile Aita Juan Jose Aguirreri esker eskuratu ahal izan ditugu, eta hemendik gure esker onak).[130]

1. Esku-Idaztiak I liburuaren sarrera.

[1. or.]

Eusquerazco Igande-Sermojen
2. liburua

Urteco Igandètaraco Eusquerazco Sermojac:
Sermolari Jaquintsuetatic zatica autu, eta
ifiniac.
Sermoi sarrerac Castellotec Francesetican
Erdèrara itzulitaco Christan-Urteco Igan-
dètatican; eta Sermojac Barcia, Claus,
Señeri, Marillion, Isla, Eguileta, eta Cali-
nogandic artuac, edo auqueratuac.
Langai labur au Eusqueldun Apeicen me-
sedean eguiñdu D.D. Josè Feliz de Amun-
darain, Mutiloaco Erri noblearen Vicario
Jaunac, bere Vicaritzaco ogueta amairu-
garren urtean; icusiric, neque dala Apez
sartu verriac Sermoi Eusquerazcoac nai
becela, eta sarri ifintea
Bi Liburutan cabitcendirade Igande Sermoi
guciac; leendabicicoan Abendutic JesuChris-
to Cerura igozaneco urrengo Igandeгaño.
Eta bigarrenean Pazcoa Majatzecotic
acaberaraño.

2. liburua
Milla, zorcireun, ogueta laugarren
Urtean

[2. or.]

Bigarren Liburuaren
Sermoi-Gajen aurqui-videa

Pazcoa Majatceco Igandean: ...
Pazcoa Majatcecoaren ondorengo leendabicico Igandean: ...
Bigarren Igandean: ...
Irugarren Igandean: ...
...
...
Ogueta laugarren Igandean: ...

[130] Oharrak eskuizkribuei, bakoitzaren amaieran.

2. Pazkoa Maiatzeko Igandeko Lehen Sermoia

[1. or.] Dom. Penthecost.

Pacem meam relinquo vobis. Joan. A« (1)

Evangelio santuac dio: JesuChristo gure Jaunac bere pasio, eta heriotza sufritu baño lênago, eguinciztela bere Dicipuluai, eta ojen buruan gucioi sermoi andi bat; eta misterio altu, ezcutatuac aguertu, eta azaldu ezqueroz, esan ciztela: Jaquiñean zaudete, eta jaquiñean bego Christau gucia, ni amatcen nabenac amatu, eta gorde bearcoduala arretaz nere legue Santua; eta ordañetan onelacoa estimatuco duala nere Aita Eternoac. Trinidade Santissima Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua izangoguerala berarequin graciaz; eta Templo sagradu batean becela jarricoguerala bere animan, eta viotcean chit gustora, paquez, eta atseguiñ andiarequin. ¡O! cer dicha nere Cristauac anima justu batenzat; bada mundu onetan aurquitcen dan bitartean ere, merecidu Trinidade Santissima berequin egotea Jangoicoaren gracian, eta adisquidetasunean conserbatcen bada. Baña jaquin beza pecatoriac, dio Jesucristoc: Dicha, eta zorion au ezdirala logratuco; cerren legue santua ausiezqueroz, eguitendan Jaungoicoaren Etsai igüicoa; bada ezta posible Jaungoicoa amatcea bere legue Santua gordetcen ez duanac; ezta ere Jaungoicoac bera amatcea, cerren amodioa amodioarequin pagatcendan.

Oraiñ eguitendizuedan sermoi au ezta nerea, esatencizten Jesuchristoc bere Dicipuluai, baicicda nere Aita Eternoarena; icaraturic zaute [sic] ceon artean nere pasio, eta heriotzarequin, eta argatic ezdezute ondo aditcen cer esan naidedan; baña laster jachicoda zuen gaiñ Espiritu Santua, eta berac arguitucodizute adimentuac, eta orduan etorricocerate ezagüerara nic esatendizuedanaz, eta Eliza santa gobernatceco beardezuten (2) gañeraco guciaz. Haviatzeco nago nere Aita Eternoagana, eta uztendizutet paquea herencian: Pacen meam relinquo vobis; eta Paque au ezta [2. or.] iraupen guichico munduco paquea, baicic da animaco paque zorionecoa, gozoa, eta iraupenecoa, munduco paqueari gañez eguitendiona. Guerturatcen da nere heriotza eta eguiñ naidet nere Aita Eternoaren vorondatea, eta gustora il naidet mundua salvatceagatic Gurutcean. Auda Evangelio Santuac dacarrena, eta conturatu beardegu: obligacio andia daucagula conserbatceco gueron artean JesuCristo gure Jaunac utzicigun paque au, eta fiñ onetara guidatu bearditugula gueron escaerac batez ere legue verriaren aciertoraco, gucion pruchua izandedin ala munduraco, nola gueroco secula gucico paquea gozatceco.

Legue zarrean, araco ugandiac, edo diluvioac mundu gucia arrasatuzuan aldarte triste negargarri artan, Noe eta bere familiaz ostean: Paquearen señale ciertoa izan zan usoa, bada jareguicion Noec oncitic, ezagutceco ya urac jachiciraden, eta legorrera irtencitequean, edo ez. Eta orra non usoa aguertuzan oliva adarra mocoan zuala, aditcen emanaz, paquetuzala guizona Jaungoicoarequin, jachicirala urac. Et illa venit ad eum ad vesperam, portans ramum olive. Baña, nere Cristauac, Jesu Cristo gure Jaunaren gorputz santutic irten ezquero odolezco diluvio icaragarria, aseguratucitzacun oso, paquea; cerren berbera, Ceruan aurquitcendan magestade guciarequin, jarricitzacun gueron erdian, betico gurequin izateco, beti gu amparatceco, eta Ceruco Erreynua iristeraño gu guidatceco: Ecce ego vobiscum sum usque ad consumationem seculi.

¡Ojec dirade bai, nere Christauac, Jesu Christoren amodioaren sugarrac; ojec dirade paque gozoaren señale seguruac, eta egoquienac! Acab Israelgo Erreguec irten bearzuan guerrara Syriotarren contra, eta irteeran utziciozcan Josaphati, bere Erregue soñecoric onenac, eta beste gañeraco janciac, eta berac janci cituan edoceiñ moduzco soñ pobreac, eta igozan Cochera; elduzan guerra paragera, asiciraden guciac guerra aserrean; eta Syriotarrac ceramaten asmoa bacar bacarric ill- [3. or.] bearzutela Erregue, beste gañeraco guciai barcatuta. Onetan equincioten guerrari erruz; jolas leguera soldadu siriotar batec botazuan gora sayeta, eta Jaungoicoac ala nairic, erorizan Acab Erregueren bularera [sic], eta alaco moduz zaurituzuan ece, odol erreca cjoan coche inguru gucietatic; eta icusizutenean contrarioac alaco guertaera, trompeta soñuz eguinzuten bertatic paquea. Arguiro aditcen ematendu guertaera onec Jesuchristo gure Jaunarequin gure artean igarozana bere pasio, eta heriotzaren medioz; bada Jesu Christoren pasioco odol errecaren videz, eta beraren bularreco lanza zulotic irtenzuanarequin paque osoac eguincizaden (3) Jaungoicoarequin guizoneren artean; eta ez bacarric Erreynu, edo Provincia batean, edo bitan, baicic mundu gucian. Argatic dio David Erregue santuac, Justicia, eta paquea biac laztanducirala: Justitia, eta pax osculate sunt.

Leguez ta videz dio S. Agustinec: Eciñ icaratu naiteque pecatuen ugaritasunagatic, JesuCristoren heriotza gogoan dauquedala; cerren ilceac, eta lanza gogorrac esatendirate, nerequico adisquidetasunac eguinduala gure Jesus amorosoac, baldin aurrera amatu eta eta servitcen badet: Clavi, et lancea clamavit mihi, quod reconciliatus sum Christo, si eum amavero. ¡O! nere Ardi maiteac alaituezazute ceon fedea, eta esperanza, iracequitceco gueroztic Jesusen amodioan ceon viotzac, icustean beraren misericordia, piedadea, eta fingabeco erruquia! Iru bider gau erdian atea jozuan persona bearrac iru oguiren esque; familia gucia aurquituzuala lotan Evangelio santuac dio; bacar bacarric cegoala esnai Nagusia mesede eguiteco, eguincion becela: Jesus maitagarria ala dago Christauaren zai, eta esnai escatcendion guciaz jazteco; jobeza noiznai Christauac atea bere animaco, eta gorputceco premietan, eta icusicodo [sic] nola servitucoduan premia aldi gucietan: Petite, et accipietis; pulsate, eta ape- [4. or.] rietur vobis. Batere bildurgabe, batere quezcagabe fede viciarequin esperadezaque Cristauac noiz nai bera adiña becelaco egunean esperatu, eta irichizuten eran Espiritu Santuaren videz: Repleti sunt Spiritu Sancto.

Christauac fedeac berac ematendion ezagüerarequin erraz, eta laster iguerrico dio ondo pensatcen jarten bada; guerenez eta naturalezaz ecin eguiñdezaqueguna, graciaz dudatzaca eguingodegula. Ala dio S.n Bernardoc: Quod per naturam est imposibile; per gratiam Dei non solum posibile, sed et facile fieri. Christau espiritu guchicoac, argalac, pendejoac sarri egui prochuzco ojec gogoratu, eta animatu beardu, desesperacio batean sartu, eta ichutu, ta gogortu ezdediñ; cerren bestela gure animen etsai gogorrac eguingoditu aleguiñac aztuerazotzeco Espiritu Santuaren graciaren indarra, eta gucialtasuna: Cegatibait

David Erregue Santuac gogoratcendigu, eta deitcendigu lejaz itz gozo ojequin: Venite, et videte opera Domini, que posuit prodigia super terram. Pecataria izanarren, Christauac confianza iduqui beardu, valiatucozaizcala Espiritu Santuaren graciac, eta doajac, norc berac beregan lecu emanaz artara zucenbadu vorondatea. Pensabeza nola convenidanean daquian gracia onec Arzaitic erregue izatera aldatcen; Publicanoac Evangelista eguiten; eta Etsai perseguidoreac Apostolu izatera dacarcen.

Goiceco vederatcietan erorizan inz eder arc, Arranzariac eguincituan Principe; Culpante aurquitucituanac eguincituan Juez; Dicipuluciranac, Maisu. S.n Leonec dioan becela: Jaungoicoa maisu danean, laster icastendala eracustendana. Apostolu Santuac ezjaquin pobreac ciraden; baña Espiritu Santuac instante batean arguitucizten beren adimentuac, eta instante batean Maisu eguinciraden. Nere S.n Pedro andia asizan predicatcen [5. or.] eta lenvicico Sermojan irumillataraño convertitucituan Jerusalengo Ciudadean bertan: Errecibituzuten Bautismo santua; eta mezpreciaturic mundua, eta munduco gauzac, liztatuciraden betico JesuCristoren banderapean, eta gustora jarraitucioten bere legue santuari; eta egunoro zavalcenzan munduan Evangelio santua, eta Jesusen izen santuaren honrra, alavanza ta gloriac. Provinci ascotaco gentea arbatuzan (4) Jerusalenen egun onetan, izcunza mota ascotaco personac aurquitcen ciraden sermojan, baña S.n Pedroc bere izcunza moduan itz eguitenzualaric, guci guciac aditcencioten, nor beraren izcunzan itz eguiten bazuan becela; eta miraturic alcarri esatencioten ¿Nolatan guertaera au; nolatan mirari au? Eta zan, nere Christauac Espiritu Santuaren doajac mediante; bada Jaungoicoarenzat eztago al-ecic; gauza gucietan daqui eracusten bere gucialtasuna; gai gucietan disteatcendu Espiritu Santuaren graciac, eta bendicioac, gucion prochuan dan demporan, eta lecu guztietan.

Christauac badaqui fedeac eracutsiric Espiritu santuaren misterio andi au; baña nequez verotu oida Christauaren viotza; cerren ondo, eta sarri pensatcen ez duan. badaqui mundura aguertu guciac ilbeardutena, eta heriotzarequin batera munduco gauzai, ondasun, ta atseguintasunai utzi bearcodiztela; baña nola bearbecela pensatcen ezduan, baicic azaletic, eta ariñ; orra nun Espiritu santuaren graciac onelacoen viotcetan indarric ezduan: Esan dezaquegu arrazquero Jeremias Profeta Santuarequin: Desolatione desolata est omnis terra; qui nullus est, qui recogitet corde. [6. or.] Ceruco misterioetan ondo pensatugabez dago galdua mundu gucia. ¿Cergatic ustedezute cuticiosoac jarraitcendiola beti ondasunari? ¿Cergatic ustedezute batac besteari lapurcendiola, eta gaizqui irabaciarequin aberastendirala? ¿Cergatic ustedezute desonestoa dagoala sosegu bere liquisquerietan, eta ganadu beltzaren erara pecatuaren locatzan sarturic, nasturic, eta etzinic? Da cergatic óndo pensatcen ezdituzten Espiritu Santuac bere arguiarequin claro eracustendizten eguiac. Nullus est, qui recogitat corde.

Daqui Christauac, Aita Eternoac biralducigula bere Semea gu Etsajaren mendetic libratcera; daqui Ceruac, eta lurrac chit erraz eguinbacituan ere, ez guinducela aiñ erraz erredimitu; bada costacitzajon bere seme maitearen pasioa, eta heriotza lotsagarria; badaqui azqueñic, amodiozco señale paregabe ojequin aspertu etzala Jaun Amodiotsua mesedeguitez, eta biralduzuala Espiritu Santua mundutarrai beren adimentuac arguitu eta bere doajez betetcera; bada ¿certandago, jaquinaren gañean Jaungoicoaren empeñu guztizcoa, eta aleguiñ fingabeac, alaere ez eranzutea mesedeen alde esquer onaz Christauac Jaungoicoaren ontasunari? Dago, cergatic menaz pensatcen ezdituan mesedeac. Nullus recogitat corde.

Bearbecela, eguiaz, menaz, eta viotzez pensatuco balitu Christauac Jaungoicoaren mesedeac; eguiaz, menaz, eta viotcez esangolioque Eguilleari Jose Egiptarrac becela ¿Quomodo ergo posum hoc malum facer, et pecare in Deum meum? ¿Nolada posible, nic nere Jaungoicoa ofenditcea, aserratcea aimbeste [7. or.] mesederen ondoren? Pensamentu onec bete ditu Eremuac, eta Conventuac; pensamentu onec indartuditu martiriac, pensamentu onec goituerazodizte virginai persecucioac; eta azquenic pensamentu onec convertituditu pecatari gogortuac. Armagaitean bada, nere Christauac, gucioc erabat pensamentu onequin; eta dudatzaca goitucoditugu mundua, Deabrua, eta araguiaren pasio gogor indarsuac. Balia gaitean Espiritu santuaren graciaz gueron animac conservatceco Jaungoicoaren gracian; cerren bestela gure anima gaissoa egongoda egarriac, lurra legortean oidagoan eran: Anima mea sicut terra, sine aqua tibi. Espiritu Santua da gracia gucien iturria, Habit Spiritus ejus, et fluent aque. Artudezagun gueron animetan erregariatu, guidatu, eta gordegaitzan gaitz guztietatic mundu onetan, ondoren lograteceo Ceruco Gloria. Amen.

OHARRAK ESKUIZKRIBUARI

(1) Ez da ondo irakurtzen *Joan*-en ondorengo notazioa.
(2) *r*-a hitzaren gainean dago idatzita, eta zeinu batez adierazten da hitzaren azpian haren intsertzio lekua.
(3) Aditz flexioa gainetik dago idatzia, nahiz eta garbi irakurtzen den.
(4) Izan liteke ere *orbatuzan* baina ez dugu uste.

3. Gurutze Santuaren Sermoia.

[1. or.] De la S.ta Cruz

Et ego, si exaltatus fuero à terra, omnia traham ad me ipsum. Joann. 12. (1)

Jesu Christo gure Jaunac, daquizuten becela, nere Enzuleac, Gurutze santuan ilcez josiric erridimituguinducen guztioc Deabruaren mendetic (2); arrazoi izangoda bada nere iritzian, gucion veguiac beragan josiric egotea. Aspicientes in Auctorem fidei, et consummatorem Jesum, qui prosito sibi gaudio sustinuit crucem. Ala dio escritura Santac: Veguirazajozute arretaz fedearen autoreari, eta ceon fedea irmotuzuan Jesusi; ceñac atseguiñarequin sufritucituan Gurutcearen oñaza, eta afrenta

andiac. ¿Nori gustorago veguiratucodio seme batec, bere Aitari baño? bada daqui berac emanciola izatea. ¿Ceñi veguira jarriditeque obeto Esclavo bat, bere Jabeari baño? daquian ezquero berac libratuduala prisiotic. ¿Nori veguiradizoque poz guejagorequin gaisso batec, sendatuduan Medicuari baño; berriztutcea suerteac emango balio ere, sendatudezan? ¿Nogan bere veguiac, bere viotza, eta esperanzac ifinicoditu pobre, miseriz inguratu batec, Aberatsagan baizic; baldin badaqui onec; edo arc janci eta (3) estali duala bere premi ordu gucietan? Itz batean esateco: ¿Nori beguiratudizoque obeto, atseguiñaz eta esperanza oso, eguiazcoarequin Christauac, Jesu Christori baño; ceña cierto daquian izanzala guztionzat, eta guztiona erabat, eta aldegucietara? Bera izanzan, eta da veguiac itsuenzat; oñac elbarrituenzat; baculua argalentzat; poza, ta contentu guztizcoa triste, penatuenzat; libertatzallea preso, Cativoenzat; archibo aberatsa pobreenzat, eta vide zuzena guci- [2. or.] on salvacioraco. Motivo justu ojen medioz gaur Eliza Ama Santac celebratcen digu Gurutze santuaren jaja; aaztutzaca beti gogoan iduquiditzacun, beragandic etorrizaizcun mesede ugariac; verriró esperaditzacun ere, premiazcoac gueran becela.

Apenas izanda dempora, eta aldarte negargarriagoric Christan (4) artean Cosrroar (5) Persiaco Erregue Tirano gogorrac Africa, eta Egipto erri guztia goituric, arrotasun andiarequin Jerusalengo Ciudadea menderatu, gende talde andia il, eta galdu zuana baño. Ta etsizuten Christauac Christandadeaz; batez ere icustean, tirano gogor onec, Heraclio Emperadorearen (6) erreguz ere, etzituala nai paque afrentagarriac edolaric eguiñ, calte arrigarriai fiñ emateco. Baña Gure Jaungoico onari esquer milla; cerren eracusten daquian bere gucialtasuna premiaric estuenetan, aldarteric bearrenetan; gogoan iduquidezan beti Christauac, eta mundu guciac beraren ontasuna, beraren erruquia, beraren escualdea.

Supito, beiñgoan, bat batetan aldatuciraden goicoaz beera, eta bécoaz (7) gora gauzac: ez nola, eta ez ala Christau banaca (8) batzuec ajenatuzuten contraco soldadesca gucia; sacabanatu ciraden batera bestera; eta alaco miserian, alaco trance estuan icusizan Siroe, Cosrroaren Semea, eze naita ez jarrizan bera paque lotsagarriac eguitera, Christauaquin burutuco bazuan. Ifinicioten leendavicico condicioa: Amalau urte zala, óstu (9), eta berequiñ eraman zuala Gurutze Santua eta aide gorrian viurtu cezala, paqueac eguitea nai bazuan. Esan becela jarri zan artara; eta bertan mirari andi (10) batequin señalatuzuan Jaungoicoac egun suertoso ura. Bacetorren Heraclio Emperadorea bere gurutce santuarequin urre galoi, eta cillarra ceriola, obe [3. or.] bearrez, Calvarioco mendian Gurutce santua entregatcera; eta orra non, ez atzera, eta ez aurrera pausoric emanzuala jartendan sarreran bere gurutce santuarequin; etzan moguitu Emperadorea eguiñ al guciacgaitic, ariqueta Urre-cillarezco soñecoac eranci, eta soñ pobre batzuaquin estali, cilicioz cargatu, eta Jesu Christoren beraren humiltasuna, eta pobreza eracutsibitartean.

Guertaera onec gogora ecarridit S. Agustinen esana: Jaungoicoac onzat ematendituala, edo permititcendituala aldarte, eta guertaera charrac; bere ontasunari, eta gucialtasunari distiatu eraguiteco prochuzco gauza onaquin; argatic nai izan zuan Christauac sufritcea negargarrizco pena icaragarriac bitartean; gueroztic pozaldi andiarequin Gurutce santuaren gloriac, eta alavanzac cantacitzaten. Cegatibait esaten digu gaurco Evangelio Santuac: Ego si exaltatus fuero à terra, omnia traham ad me ipsum. Nic, lurretic alchatcean, niganaco ditut gauza guciac. Alchatceac esan nai du, Jesusen eriotza gurutz ilzaturic; eta beraganatceac esan naidu, gucioc salvatcea nai duala.

Pensazazute oraiñ; ¿ceiñ poz andia izangozan Christauena, bere paragean icustean Gurutce santua, cer humiltasunarequin adoratucozuten; cer devocioarequin alavanzac Jaungoicoari cantatucocioten? Baderitzat, Jerusalengo Ciudade galdu, deseguindua berritcean Juduac iduquizuten poza, Christauac orduan iduquicozutela. Ciudade ederra bere edertasunean icusizuten zarrac, penaz negarrez urtutcenciran; besteac poz aldiz farre, eta algara eguitenzuten, icustean leenagoco legue zarrac cumplitcen cijoacela, Jaungoicoari honrra [4. or.] emanaz; gucien artean alaco iscamilla ateratcen-zuten, ece, etzan ezagun ez farrea, eta ez negarra. Nec poterat quisquam agnoscere vocem clamoris letantium, et vocem fletus populi. Alde batera, justuac ciraden negarrac, jaquitean infiel artean Gurutce santuari eguingo cioten ch·rqueriac (11), eta mesprecio andiac; beste aldera justuac ciraden farre-algarac, icustean pocic ascorequin, bere lecuan Gurutce santua.

Eliza Santac pozaldi onetara convidatcen gaitu Gurutce santuaren egun onetan, devocioz, eta atencioz pensatuaz beraren misterio andiac. Aspicientes in Auctorem fidei ... Ondo, ta bearbecela eguiteco, diote Eliz-Guraso Santuac, Adoratu behardala Gurutce Santua; eta norc berac berequin eraman bear duala. Beardala adoratu; cerren bere besa artean ilzan JesuChristo; bearduala eraman norc berac, cerren daramagun erara, berarequin unituric, logratuco ditugula Gurutce santuaren frutu onac, gueron salvacioraco. Gurutce Santua erramatea [sic], eta adoratcea, da Christauaren suerte onaren señale ciertoa; bata bestearequin da prochuzcoa; contrara adoratcea bacarric, eramatea bacarric gauza alferra da, cumplimentua, edo obeto esateco guezurrez JesuCristorenquin cumplitcea da (12).

Gentillac, burla eguingolucate, icusiaz bestegabe, Christauac Gurutce Santua adoratzenduten modua. Gentillac beren |dolo faltsoai iru adoracio mota ematen dizte: leenbici erreverencia, ta humiltasun andiareq[ui]n (13) adoratcendituzte; beren sacrificioac esqueintendizte ondoren; eta azquenic ifintendute eretan beren confianza osoa; bada iru modu ojequin naidu Jaungoicoac Gurutce Santua Christauac adoratcea.

[5. or.] Ala da, nere Christauac; Gurutce santua adoratcea bearbecela, eztago nola nai muñ eguitean; baicic humiltasunarequin, erreberenciarequin, eta Gurutce santuaren misterioac pensatuaz; gurutze santuaren virtutez JesuChristo gure Jaunac eguincizquigun mesedeac gogoratuaz, esquer onarequin pagatceco: Aspicientes in auctorem fidei, et Consumatorem Jesum. Gurutce santuac icaratcendo [sic] infernu gucia, eta infernucoen munduco languiñ gaiztoac.

Luteroc, beregan amorraturic, esatenzuan: Icusiaz bestegabe bere egercitoco Banderan Gurutce santua, iguesari emangociola, Demonioa icusten balu-becela. Calvinoc etzion Gurutce santuari Luteroc baño legue guejago; bada debecatuzuan gurutcea eramatea pechuan, edo lepotic béra (14) usatcenzan eran; eta escandalacituric [sic] aguinta [sic]

onequin, norbaitec cargu eguiten bacion utseguite icaragarri azaz; esatenzuan: bada igüi badezute, alde eguiñ; veguiac atera, edo urcatuzaitezte. Orra certaraño ichutcen duten Guizona bere pasioac; orra certaraño dacarten bere aztura, eta griña gaiztoac; leenvicitic menderatcen ezpaditu gurutce santuarequin laztanduta, bearbecela adoratuta; beraren misterio santuac ondo consideratuta. S.n Pablo Apostoluac cequitcen ondo Gurutce santuaren virtute andiac; argatic cioan: Ezdezala nai izan Jaungoicoac, ni bestegan gozatcea, Gurutce santuagan baicic. Absit mihi gloriari, nisi in Christo Jesu. S.n Agustinec esatendigu: Igogaiteala Gurutcearen gañera, Zaqueo picu gaiñera becela, JesuChristo gure Jauna ondo icusteco; eta eramandezagula beti guerequiñ gueron consolagarri, amparagarri; eta gueron animen Etsajac ajenatceco. Devocioz adoratu beza Cristauac Gurutce santua; pensatuaz, dala, Lurretic Ceruraño iris- [6. or.] tendan Escallera segurua. Sosegagaiteala beragan; auda, egongaiteala gurutcearequin alcarturic, eta laztanduric; maitedegula adierazteco, ondo maite izanzuan gure Jesus maitagarriari. Scale incumbere, quid est nisi in Cruce pendere.

Christauac, Gurutce santua adoratceco, beragan esperanza iduquitceco, eta bera esquer onez pagatceco devocioa, icasibeza bere Aasaba [sic] zarretatic; bada erac izanduciraden maisuric onenac gai santu prochuzco onetan. Ala diote S.n Geronimo; S.n Paulino, S.n Cirilo, eta beste Eliz-Guraso jaquinsuac. Jaungoicoac berac esatendigu: Ezezazute ifini batez-ere ceon esperanza munduco Principe, eta guizonen semeetan; cerren alferric necatcea da; bada ezdezute aurquituco deseodezuten gauzaric. Esan vizó (15) Christauac humiltasunez beteric confianzarequin: ¡O! nere Jaungoicoaren Gurutce santua; zuri avegor eguitendizut; O! nere Jesus Gurutziltzatua, zugan daucat nere esperanza gucia; cerren nai gucia eguiten daquizun, eta cerren Gurutce santuaren videz, erredimituninduzun, cere amodio paregabea Gurutcetic eracutsiaz.

Esan beguio Christauac viotzez, ta chit menaz Gurutce santuaren Arbola sagraduari, vicitzaren arbolari: Bedeiñcatua, eta honrratua izanzaiteala secula gucian, ta alde gucietara Erredencioco Arbola noblea: aztubedi onezquero Noeren Cucha, ceñetan libratuciraden persona banaca batzuec; aztu bedi, usoac mocoan ecarrizuan Oliva adarra, paquearen señalean; baita ere Jacob patriarcac Jordango Ivaja igarozuan baculua; Moisesec iturri ugaria sortuzuan maquilla; eta beste gañeraco Gurutcea adieraztenzuten figura, edo señaleac; eta bacarric gogoan, eta guerequin iduquidezagun Gurutce santua bera, pozic ascorequin adoratcendegula devocioz.

[7. or.] Baña: usteco dezute bearbada devocioa, fedea, adoracioa, eta confianza eguiazcoa, iduquidezaqueala, Christauac, Lezora, Legazpira, eta beste lecuetara promesac eguiñarequiñ; noiz festa dan, noiz gente gejagodan, orduan tropicoca juanarequiñ, ceon andereac besoetan dituzutela; ojec, eta zeon buruac eracusteagatic; itoca, ta presaca Elizan sartu, muñ eguiñ, eta andican danzara, jatera, eta edatera joanarequiñ; nunda nere gogoa, anda nere zancoa batera bestera ibilliarequiñ, pichilotac becela burutic oñera apaiñduta, eta fantasia besteric ceotan icusten eztan moduan? Ezez deritzat, eztala au Gurutce Santuac escatu, eta mereciduan devocioa, eta adoracioa; onelaco juerac [sic] (16) eta promesac, deritzat, dirala aitzaquiac orrutz, onutz ibilteco; ojuz, algaraz, iji, ta aja vidétan jostaquetan zoraturic, buruti jausiric, ibilteco; Echétan burubide charrac icusteco, echeac, eta Echecoac lur, azqueneraco, jotceco. Christauaren ispirituac Santuen ispiritua izan beardu, promesetara, eta Erromerietara juateco; onelacoac ateracodituzte frutu onac, irichicodute nai gucia; baña anca ariñac, Marichu vidétacoac, eta danzariac, gurutcea, eta Santuac aitzaqui artu (17) eta Deabrua erequin izangodute. Pensabeza Christauac, Gurutcea adoratcea humiltasunez, devocioz, eta Gurutcearen misterio andiac pensatuaz, Christauaren léndavicico (18) obligacioa dan becela; ala norc berac Gurutcea eramatea dala bigarren obligacioa.

JesuChristo gure Jaunac berac esana da: Qui vult venire post me ... tollat crucem suam eta sequatur me. Nere ondoren etorri naiduanac, artubeza bere gurutcea, eta jarrait beguit. dio: norc berac bere Gurutcea; aditcen emanaz: norc berac bere estaduco car- [8. or.] gac, eta obligacioac jaso beardituala, bearbecela cobru emanaz: Echeco juan etorriac, trabajuac, naigabeac pacienciaz, sufrimentuz, Jesusen amodioan eraman beardirala; lagun Progimoaren esa-mesac, chisme, ta embusteriac orobat pacienciaz, eta am[o]dioz (19); ez batzuaquin guertatcendan eran, itz bat esan orduco quirquirrac becela issilzaca jarri, auzoac escandalizatzeraño demandan, errejuan [sic] (20); diranac, eta ezdiranac batac besteari eranzunaz; Alcatetara berriro demandara juan; Erricoac, eta Erbestecoac escandalizatu; eta Gurutcea jaso bearrean, deabrua viotzeratu, infernura bitarte gucian.

Jesus maitagarriac ala Gurutcetic, nola Gurutcetic campora eracutsi cigun gurutceac, penac, iseca, ta burlac humiltasunaz eramaten, obraz; ez itzez bacarric; eta bera imitatceco, beraren eguiturai veguratu (21) beardiztegu; eta berari escatu artaraco graciac, eta laguntasuna, gueron indarretan fiatzaca. S.n Pedroc esancion ustez bere Maisu Jesusi: Jauna, nere odolaren costura ere jarraitucodizut; baña laster, eta ariñ asco ucatuzuan. S.nto Thomasec berarequiñ batera ilcea deseozualaric, bildurrac artu; eta alde eguinzuan iguesi. Jerusalengo alavac negar gogotic eguiten bazuten ere; laster utzizuten Jesus bacarric, eta Berdugoen escuetan: Etzan juan (22) bat bacarra Calvarioco mendira. Juan gaitean bada bertatic gucioc; lagundugaitean berarequin; laztandu, eta eutsi dizogun irmo Gurutze santuari; bearbecela adoratu, jaso, ta eraman mundu onetan; eta berarequin triunfo andian, igogaitean Ceruco Erreynura. Amen.

OHARRAK ESKUIZKRIBUARI

(1) Latinezko transkripzioak ez dira erabat fidagarriac.
(2) *n*-a hitzaren gainean ageri da idatzita, bere lekuan, eta azpian zeinu batek erakutsiko luke insertzio puntua.
(3) *eta* hitza ageri da idatzia lerroaren gainetik, bere lekuan, eta azpian zeinu batek erakutsiko luke insertzio puntua.
(4) Zenbait *n* eta *u* nahasgarriak izan balitezke ere eskuizkribuan, kasu honetakoak garbi dirudi *n*-a; nola lerro batzuk aurreraxeagoko *Christandade*-koak.

(5) Ez da oso garbi irakurtzen errege honen izena, izan litekeelarik azken letra *s* bat ere. Ordea hurrengo lerrokadan berriro agertzen delarik, han garbiago irakurtzen da bukaerako *r*-a. Izendatzen dira bestela gazteleraz, erregea *Cosroes*, eta bere semea *Siroes*.
(6) Hitz honen azken silaba *ren*, hitzaren gainean ageri da idatzita, eta azpian zeinu batek erakutsiko luke insertzio puntua.
(7) Amundarainek *e* bakar batez idazten du bigarren *behe* hau. Ordea tilde bat ematen du kasuan *e*-aren gainean, guk azentu batez eman duguna.
(8) Hitz honen azken silaba *ca* hitzaren gainean ematen da idatzita, azpian zeinu batek erakutsiko lukeelarik insertzio puntua.
(9) Amundarainek tilde bat idazten du -edo azentu bat- *o*-aren gainean.
(10) Azken hitz hau bere lerroaren gainetik ageri da idatzia, eta honen azpian, berezko lekuan berriz, irakur liteke nahiz gainetik zirriborratua: *esquerga* hitza.
(11) Tilde bat dirudi ageri dela *a* letraren gainean.
(12) Ez dira erabat ondo irakurtzen esaldi bukaerako hiru edo lau letrak, nahiz egindakoak dirudien irakurketarik zuhurrena.
(13) Hitza ageri da idatzita, bakarrik, *andiareq*; ondoren, puntu borobil bat ∞ eta gainean *n* letra.
(14) Badirudi hitzak azentua ote daraman.
(15) Hori da irakurtzen dena nahikoa garbi, berezko *biezaio* edo antzekoren baten lekuan.
(16) Hitza ote da *joerac*?
(17) *artu* hitza ageri da lerroaren gainetik idatzita eta gezi batez markatua bere intserzio lekua.
(18) *e* letrak tilde bat du gainean idatzita, azentu bat baino gehiago.
(19) Hitza ageri da idatzita: *amdioz*.
(20) Hitza *erreguan* izan litekeelakoan.
(21) Hitza *veguiratu* delakoan.
(22) Hitza lerroaren gainetik dago idatzita, eta gezi batez markatua tartekatzeko unea.

3. P.A. Añibarro (1748-1830): beti tradiziozko joskera baten eredu (Gramatikako ohar erantsi bat gorabehera).

Ezin inola erator liteke Añibarroren prosa lanei egindako begiratu batetik,[131] hauek, oro har, batere ezaugarri desberdinik erakusten dutenik, esaldi barreneko hitzen ordenamenduaren atalean, gure tradizioaren altxor nagusiarekiko. Gutxi gorabehera gauza bera aitortzen zion Añibarroren joskerari Aita Villasante, artean gazte batek, 1955ean eginiko hitzaldi batean, orduan gaitzesteko izango bazen ere («Aita Añibarro, euskal-Idazlea (1748-1830)», *Euzko Gogoa*, 1956, 60-88 orr.):

> Lora-Sorta, Esku-liburua baiño motelagotzat joa izan da. Bai Orixe ta bai Altube Jaunak ere, epai oso txarra egotzi diote liburu oni. Egia da, bai erdal kutsuzko joskera duela; baiña ori, Lora-Sortaz ezezik, Esku-liburuaz ta Añibarroren idazlan guziezaz ere esan bearko genuke. (80 or.) / ... Egia da bai, joskera edo sintaxian [Añibarro] eztugula ain eredugarri, aspaldiko idazle aiek ezpaizioten oni jaramon aundirik egiten; baiño, gaiñerakoan, ezta dudarik, txit estimagarri ta aintzat artzekoak dira beraren lanegiñak. (84 or.)

3.1. Añibarroren ordenamendu oharrak Gramatica Bascongadan.

Gerora ez luke Aita Villasantek, seguru, tonu bera erabiliko, Añibarroren tradiziozko joskera salatzeko. Idazlanez at ordea, Añibarrok ematen du bere *Gramatica Bascongada para el uso, y alivio de Parrocos, y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos, y Navarros* obran,[132] zenbait ohar eta adibidek, euskarazko hitzen ordenamenduaren inguruan, Añibarro jada dudarik gabe garamatzatenak estudiatzera Cardaverazen Eskolaren hegaletan. Hala dio Gramatikaren Sarrerako Adbertimenduen artean, gomendatzen, zalantzarako izpi ñimiñik gabe, euskal aditzaren posposizioa, berak dioenez, Cardaverazek eta Axularrek praktikatu moduan (*ASJU*, 1969, 14 or.):

> ... De paso advierto que assi Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien que se haga assi, pues sale mas natural. No tuve este methodo presente en dos libritos que dí a luz EscuLibrua, y Lorategui espirituala. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, ...

Ohar hau idazten duenerako, Añibarrok itzulia du jada Axular bizkaierara (berak aitortua bertan), eta nahiko bitxia da,

---

[131] Guk aztertu ditugunak dira: *Escu-Librua* (1802, Hordago 1978; EL-1802 sinatuko duguna); *Escu-Liburua* (Tolosa, 1821; EL-1821); *Esculiburua* (Tolosa, 1827; EL-1827); *Lora Sorta Espirituala* (1803, *ASJU* 1988, 7-92 orr.; LS); *Curutze Santearen Aita Gure ta Ave Marien ganeco eracusaldiac* (Durango, 1897; CS; nahiz bakarrik izan ditugun eskuartean 70-93 eta 184-213 orr.); *Gueroco Guero* (*RIEV*, 1923-33, T. XIV-XXIV; GG); eta *Nekea arindurik* (*ASJU*, 1987, 211-263 orr.). Uste dugu argitaraturiko gehienak, bere Dotrina nafarra salbu.

[132] 1969ra arte argitaratzen ez dena (*ASJU*, 1969), nahiz beharbada erabili bai, aipatu parroku eta predikatzaileen artean, ezagutzea komeniko litzatekeen neurri batean. Bada, hasteko, konpara litezke bertako emanak, gutxienez, Lardizabal, Juan Mateo Zavala edota Gregorio Arrueren, gai oso beretsuetako Gramatika, eta Konjugazio propioekin. Eta beste gramatikalarion ezagutze eta erabiltze posible hauek marka lezakete agian euskal aditz posposizioaren ezaugarriaren zabalkundea XIX mendean zehar.

Añibarrok, Axular eta Cardaverazen izenak nahastea, zuhurki azken honi bakarrik erants dakiokeen ezaugarri baten inguruan. Bi autoreak beharbada izango dira alderagarriak beste alorren batean (bien esaldien luzerak esate baterako), baina ez dirudi zuhurregia, besterik gabe hitzegitea, Axularren aditz posposizioaz.

Añibarrok oharrean aipatzen dituen bi obrak 1802 eta 1803an argitaratzen direnez, badakigu oharra beranduagokoa dela, eta bertan batere aitatzen ez direnez Añibarrok 1821 eta 1827an egiten dituen *Esku-Liburua*-ren berrargitalpenak, uste izatekoa da, oharra, lehenagokoa izan litekeela.[133]

Bestelakoan, apenas ezer asko dakigun, oharraz gainera, Añibarroren erreflexioez, hitzen ordenamenduaren kontutan. Ematen da Gramatikan bertan beste apurren bat; nola partikula edo elementu mendekotzaile zenbaiten *ante* edo *posposizioaz* esaten direnak, baina izango ez direnak segurasko Larramendiren Artearen oihartzun apal baino (1969, 15 or.):

> (11.ª Advertencia. Para suplir varias oraciones sueltas que no se pueden formar con solas las conjugaciones comunes, se tendran presentes los modos de infinitivo que estan al fin del 1.º verbo activo) y lo que aqui pongo para las construcciones que vienen con alguna afirmación, negación, condicional, o adverbio. Por ejemplo: sabido jaten dozu, tu lo comes, estan sabidas estas oraciones: Que tu lo comes: jaten dozu-la. Por que lo comes: jaten dozu-laco. Quando lo comes: dozu-nean. Si lo comes: ba-dozu, Si no lo comes: ez-badozu, o ezpado-zu. No lo comes: ez-dozu, eztozu. Ba, y ez antepuestos, los demas, pospuestos.

Hala nola jasotzen duen ere Añibarrok Relatiboen atalean, hitzez hitz ia Larramendiren aipua (1729, 276-7 orr.), izenaren posposizioaz ohizko esaldi erlatiboetan, *ceña, ceñac* anaforkoak azaldu eta gero (1969, 169 or.):

> Se cuidará que el nombre se posponga al verbo y relativo: v. g. la manzana que he comido: jan dodan sagarra: la mano que tengo: dodan escua: el hombre que ha venido del monte: menditic etorri dan guizona.

Añibarrok, Gramatikaren Syntaxi atalean ematen dituen sei esaldi adibide oso samarretatik bost amaitzen ditu aditzaz, euskaraz nahikoa ohi bezala ere konplementu bakarreko esaldiak izaki (azkenak dudarik gabe Larramendiri hartuak):

(1) guizon-a busti da (165)
(2) guizon-ac jaten dau (165)
(3) Jaun bat dator (166; cf. Larramendi, 1729, 4: jaun-a dator)
(4) ogui asco jan dot (166; cf. Larramendi, 1729, 261: oguí ascó jan det)
(5) guizon bi icusten dot (166; azken esaldi hau emateko Añibarrok esaten zuen aurretik: «*Y sería un solecismo contrario a la Sintaxis, si para explicar veo dos hombres, digo, guizon bi icusten dot: por que debia haber dicho, icusten ditut o dodaz.*» Cf. Larramendi, 1729, 288-9: «*Mas en Bascuenze no ay essa indiferencia, y pide determinadamente el numero singular, icusten-det guizón bat, y si le doy plural, falto à la Syntaxis con un solecismo, icústen-det guizon bi, que entonces es otra la terminacion icusten-ditut*»).

Aztertzen ari garen bidetik, ohargarria da, zein ordena aldaketa eragiten dion Añibarrok maisu Larramendiren azken adibideari, honek aditzaz hasia, «aX» egitura batean, eta Añibarrok aditza posposatzen diona, euskarazko «Xà» egitura ohizkoago batean. Ezin da ordea pentsatu, Gramatikako Añibarrorentzat ere, aditzak berez bukatu behar duenik euskal esaldia. Syntaxi atalean ematen duen seigarren esaldi osoa(-edo), bere itzulpen alderagarriarekin, ez da aditzaz bukatzen, eta ohizko «Xà» egitura bat mantenduko badu ere, dudarik gabe darama esaldiko galdegaia aditzaren ondotik (kasuan gazteleraz bezalatsu), mantenduaz esaldiak «XàX» moduko egitura ireki bat (euskarazko esaldiak berez falta duen arren izen erregimen burua, *gizon bat*-edo, guk erantsi dioguna) (1969, 169 or.):

(6) Este es un hombre que quemó su casa: que mató a su muger: que etc. Au da [gizon bat], ceñac bere echea erre eban; ceñac bere emaztea il eban; ceñac, etc.

3.2. Tradiziozko hitz ordenamendua Añibarroren euskal idatzietan.

Ez dago alde nabarmenik hitzen ordenamenduan, Añibarroren idaztankera eta gure tradizio nagusiaren artean. Hala, Añibarroren aditzek ere, maizenik gordeko badute, «Xà» moduko egitura bat euskaraz ohi bezala erantsita, beren aurreko elementu tonikoren bati, oro har esan behar da, Añibarrorengan ere aditz edo «Xà» egitura hauek hartuko dutela beti esaldien aurrealdea, eta ez atzealdea (berak aitortzen duen bezala bere bi lehen liburuekiko).

---

[133] Villasantek 1983an baldin badio ere («En torno a una carta, hasta ahora inédita, del escritor vasco P.A. de Añibarro», *Euskara*, 1983, 403-9 orr.), ia 1801eraino ere hurbil litekeela Gramaticaren gorputzaren osatze garaia, ez daukagu zertan suposatu beharrik, Gramaticaren Sarrera/Adbertimenduak garai berdinekoak direnik.

3.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.

Hala Añibarrorengan, ohizkoa izango da oro har, oso esaldi laburretan izan ezik, esaldiko galdegaia ematea aditzaren ondotik, esaldiaren bukaera aldera. Nola ezin argiago segidako esaldietan (adibideak kontaezinak dira Añibarroren zeinnahi lanetan, eta asko jasotzen dira gure ADIBIDETEGIAN):

(7) Eta oni dericho Prestaereà. (EL-1802,15)
(8) Gogarte, edo Meditaciño oneec dòaz guizonen azquenengoen ganeàn; ... (EL-1802,17)
(9) ...: urac cirian andiac, (corrontac bildur-garriac ...) (LS,21)
(10) ..., bada lapurra vici da eche barruan: beragaz artu bear dira neurri estuac, ... (LS,29)

3.2.2. Aditzak esaldi hasieran bertan

Ohizkoen bada ere aditzak «Xà» moduko egituretan ematea, Añibarrogan ere, gure tradizioan legez, ez dira gutxi izango zuzenean aditzaz hasiko diren esaldiak, nahiz askok galdegaia ezin nabarmenago eraman ondoretik, nola segidako esaldi andanetan (adibide ugari gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(11) Izango dira asco, ta andiac: ...: Icusico dira lur-icàrac, guerrac, alcar icusi ecinac, gorrotoac. / Izangò dira nos guichien uste dogun: ... / Izangò dira icaragarriac: jatsico da Cerutic suzco ybai bat, ...; eta autstu, ta apurtuco dituz Urìac, Jaureguiac, echèac, ta ondasunac. (EL-1802,38-9 orr.)
(12) Prediquetan cituan eguíac ta deituten eutsén errico baque-quentzallea. Lagundu ta batuten zan becatariacaz; ... (NA,236)
(13) Egozten eutseezan esan ez eguin etzituzan gauza charrac ta astúnac. (NA,244)
(14) Guelditu zan Jesusen gorputza icara dar dar, il aguinean, ... (NA,246)

3.2.2.1. Aditz trinkoak ere usu esaldi hasieran.

Eta gure tradizio guztian bezalaxe Añibarrorengan ere usuzkoak dira, nahiz inoiz ez usuzkoenak, aditz trinko jokatuak esaldi hasieran, batez ere hauek ondorengo esaldiaren marku predikatibo nagusi bat eraikitzen dutenean (nola maiz asko galde-erantzun jokuetan, eta beste). Hala adibidez segidako aurren andanakoak, Añibarrok errezkadan bezala ematen dituenak, eta nahikoa esanguratsuak (hainbat gehiago ADIBIDETEGIAN):[134]

(15) Zagoz pobre, bearturic, cer jan ta janci ez dozula; ... / Dozu senar bat jocolaria, ...; daucazu senar bat edan charrecoa, ... Daucazu emazte bat ernegaria, bicia, aserrecorra, ... / Daucazuz seme alaba deunguero aciac, muquerrac, gogorrac, ... Zara otseiña, serbitzaria, besteren aguintaritza ta ogui pean zagozana; dozu ugazaba ta ugazabandre bat guztiz estua, ... / Daucazu faltaren bat gorputzean; ...; edo zagoz beste penaren bategaz; ... / Dacus neque pena baga egonic galduco ciñatequela: ... (NA,221-3 orr.)
(16) ...: jatorzuz, or-emen zabalduric, non nai deslai dabiltzelaco zure cenzunac? (LS,28)
(17) Gara becatariac, araco ura sartzen jaquen Barcucho zar nequetuac leguez. (LS,35)
(18) ...: Egoan erreguiña Erreguearen escoatara urr-gorrizco jaztecoaz, ... (LS,63-4)

3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Eta gure tradizio guztietan bezala, Añibarrok oro har segitzen du aditzak esaldi aurrealde batean ematen, mendeko esaldietan ere, nahiz hauen osagaietako asko eman aditzaren (eta hari erantsitako elementu mendekotzailearen) ondoretik.[135] Gehienean, esaldiak batere luzeak diren orduko. Ez dira ere falta kasu ugari, Añibarrok aditzak mendeko esaldiaren hasieran bertan emango dituenak; edota beste hainbat, zeinetan Añibarrok mendeko esaldiaren argumentuak emango dituen, are hauen elementu mendekotzailea osatuta baldin badago ere hitz erregimen independiente batez (eta noski inolako ulermen edo dislokazio arazorik eragiten ez dutenak; alderantziz, beharbada bai eragingo luketen bezala; eta hori garrantzi askoko datua da). Segidan, den hauetako adibide batzuk (askoz gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

---

[134] Ohar bat behintzat egin nahi genuke Añibarroren esaldi hasierako aditz trinkoen erabileraz, Axularren Gueroco Gueroaren itzulpenean. Iruditu zaigu bertan, Añibarrok jarrera desberdina erakusten ote duen, esaldi hasierako aditz trinkoekiko lehen parte batean (lehen 20 buruak edo), eta handik aurrera. Lehenean, Axularrek esaldi hasieran *ba-* aurrizkiaz ematen dituen hainbat aditz trinko, edota perifrastiko ere (*Badirudi, Badio, Badira, Erraten du* itxurakoak), Añibarrok askotan ematen ditu zuzenean aurrizkirik gabeko aditz trinkoez esaldi hasieran, *Dirudi, Dio, Dira, ...* moduan. Aldiz, 20. burutik aurrera edo, iruditu zaigu, Añibarrok hainbat behintzat murrizten ote duen praktika hau, nahiz oraindik adibideak falta ez. Hala balitz, eta horretarako sakonago aztertu beharko lirateke bi testuak, beharbada marka zezakeen Axularren itzulpenak inflexio puntu bat, Añibarroren aditz posposizioari buruzko usteetan.

[135] Altubek ere horren gordin salatu bezala, zioenean, garratz, bere *Erderismos*-en (1929, 157 or.): «*La mayoría de los ejemplos defectuosos de este grupo [mendeko esaldi hautsien inguru] son de Fr. Pedro Antonio Añibarro, que los estampó en su obra Lora-Sorta Espirituala, plagada de los solecismos mas garrafales entre los cometidos por escritores euskaldunes. Es lamentable tener que hablar así de un publicista tan estimable por otros conceptos.*»

(19) Dituanac escu artean osagarri bigun, erraz ta onac, ... (LS,61)
(20) (Ah! eztàquit) eldùco banas arratserà: ... (EL-1802,7)
(21) ...; izan artean ceure lagun Ceruan. (EL-1802,11)
(22) ..., uste bozu, izangò dala Jangoicoaren glori andieneracò, ... (EL,-1802,19)
(23) (Eztabe neurriric, ecin mugatu, ta cembatu leiz,) libru ònac zucendu, ondu, ta Ceruco vide artecera ecarri dituezan becatariac, ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogor gogaicarriatic. (EL-1802,2)
(24) ...: onec bilduten dituzan leguez loraric onenac, eztiabia gozoa eguiteco; ... (EL-1802,3)
(25) (Sabeleco frutua ta semeac euquitea da,) Jaungoicoac emoten deutsan saria, senipartea, erentsia ta mesedea arima on bati. (CS,201)
(26) ..., adierazoteco Jaunac eguin oi deutsen laguntasuna nequepeturic bici dirian guizagaisso erruquigarriai. (NA,228-9)
(27) (... eta beragaitic ezteutsat quendu gura izan,) Axularrec berac esqueñi, ta zuzendu eutsan Carta alabagarria Echaus Arzobispo Jaunari, eusquera garbi ederrean cirautsela onela: ... (GG, RIEV, 1923, XIV, 299)

3.3. Bestelako seinaleak Añibarroren betiko hitz ordenamenduan.

Erakusten ditu Añibarrok jada 1802 eta 3an argitaratutako liburuetan ere, zenbait joskera ezaugarri, garaian nahikoa ohizkoak bihurtzen direnak hegoaldeko euskal literaturan, eta nolabait zerikusiren bat badutenak aditzaren posposizio ezaugarriekin.

3.3.1. Ezezko esaldi inbertsio gabeak.

Nahikoa usu erabiltzen dituenak bere zeinnahi lanetan, nahiz inoiz ez izan joskerarik ohizkoena ezezko esaldien artean. Ohargarriki, Añibarrok, beste zenbait autorek bezala, inbertsiorik gabe ematen dituen esaldietako asko, galderak dira. Adibide gutxi batzuk hemen:

(28) Becaturic arin, ta chiquerrena gueratuco ezta ezcutuan, ... (EL-1802,44)
(29) Ce lotsari aguirìan icusico eznas orduan? (EL-1802,44)
(30) Ce lotsaturic, ce gogaituric icusico ez nas onetan? (EL-1802,44)
(31) ...; bada iñosco alditan icusi eneutsan Almendra garau bat. (LS,24)

3.3.2. Galdera hautsiak.

Inoiz ohizkoenak izango ez badira ere, aurkitzen ditugu hainbat Añibarroren zeinnahi idatzietan. Adibide gutxi batzuk hemen (eta batzuk gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(32) Nori eguño etorri lequiquion burura mesede andi au eguingo ceustazula? (EL-1802,163)
(33) ...; noc orain poztuco zaituz? (EL-1802,208)
(34) Nos, bein edo bein eguingo dozu Jaungoicoac aguinduten deutsana? (93)
(35) Celan sarriago ezgoaz beragana mesedeen ezque? Celan amodioz suturic ifinten ez gara bere debociñoan? (CS, 190 or.)

3.3.3. Aditz atzeratzeren bat mendeko esaldietan?

Beharbada hala kalifika litezke inoiz mendeko esaldiren batzuk, aditza (eta honi erantsitako elementu mendekotzailea) daramatelarik esaldi bukaeran, eta aldiz, honen aurrean kokaturiko elementuen ordena, bitxia-edo gertatzen den kasuren batean. Orain ez dauzkagu jasota, segidako bi esaldi ez oso argiak baino (zeintzuetan nolanahi ohizkoagoa izan zitekeen ematea, beste konplementua, aditzaren aurrean, eta aditz aurrean doana berriz beste edonon -esaldi hasieran edota aditz ondorenean-). Antzeko bitxitasunak aurkitzen genituen Cardaveraz, edota Guerricogan, aditza atzeratu nahi baten ondorio:

(36) Baldin mesederen bat onetan eguiten badeutsut, ... (EL, 1802, 4 or.)
(37) Mezatara echeric urteten dozunean, ... (EL, 1802, 12 or.)

3.4. Halaz guztiz Añibarroren hitz ordenamendu berrikuntza oso eskasak 1821 eta 1827ko Escu-Liburuaren argitalpenetarako.

Ziur ez badakigu ere noizkoa den Añibarroren Gramatikako oharra aditzaren posposizioaz, uste izatekoa da, izan bide zuela aukera, erregela aurkitu berria aplikatzeko, nahi izanez gero, bere bizitzaren azken aldiko berrargitalpenetan.[136] Añibarrok 1821 eta 1827ko *Escu-Liburu*-etan, ondo aprobetxatzen du abagunea, isladatzeko bertan, bere azken iritzi linguistikoak, euskalzale urte luzeetan ondutakoak. Hala egiten du nabarmen grafian, eta morfologia eta sintaxiaren

[136] Esateko, nahita ere, Moguelek, gazterik hilik, sekula izango ez zuen bezala.

hainbat ataletan ere (*Sart-aurrea*-n iragartzen ditu berrikuntza batzuk), eta dudarik gabe, hitzen ordenamenduan ere. Kurioski ordea, aldaketak gorabehera, ezin esango da Añibarro batere sistematikoki saiatzen denik hauetan aplikatzen, bere bederen une bateko aditz posposizio erregela berria.[137]

3.4.1. Tradiziozko ordenamenduaren frogak Añibarroren 1821-1827ko lanetan.

Nahiz erredakziozkoaz gain, aldaketa ugari aurkitu 1802 eta 1821eko testuen artean, hitzen ordenamenduan ere, lehenik eta behin guztien gainetik dago esan beharra, 1821eko testuan ere, oro har, Añibarroren beste testu guztietako joskera ezaugarri berberak aurkitzen ditugula.

3.4.1.1. Galdegaiak aditz ondoretik.

Oro har aditzek «Xà» egitura bat gordetzen segiko badute esaldietan, 1821ean ere maiz asko,[138] eta are gehienean (esaldiak oso laburrak ez badira), hauen galdegaia, segitzen da ematen, ohi bezala, aditz egitura horren ondoretik eta esaldiaren bukaera aldera (adibide ugari bildu dugu gure ADIBIDETEGIAN: AÑIBARRO 6); oro har, asko aldatu gabe 1802ko esaldi bereen egitura. Hala nola aurki ditzakegun, adibide gisa, eta beste posible askoren artean, segidako esaldi pareen antzekoak ordena beretsu batean emanda bi argitalpenetan (nahiz bestelako zenbait aldaketa jasan, eta beraz, ez erreflexiorik gabe eginak; lehenengoa beti 1802koa, bigarrena 1821koa):

(38) (Bai: ce,) egunic àsco joàn jataz utsìc, ta alperric. (7)
(Bai, cé) egunic asco yoan yataz alperric eta utsic. (11)
(39) Onetaraco, Jaunà, opa deutsudaz orainganìc gaurcò gògo bèrba, nàiera, bèar nèque, ta eguìquera guztìac, ... (7)
Onetaraco, Yauna, opa deutsudaz orain ganic gaurco ene gogo, berba, guraari, bear, neke, eta eguicune guztiac, ... (11)
(40) Eta oni dericho Prestaereà. (15)
Eta oneri esaten deutse Prestaerea. (18)
(41) Gogarte, edo Meditaciño oneec dòaz guizonen azquenengoen ganèan; ... (17)
Gogarte onec doaz guizonen azkenengoen ganean: ... (20-1)

3.4.1.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Aurkituko ditugu 1821eko argitalpenean aditzak zuzenean emanda esaldi hasieran, 1802ko proportzio beretsu batean, askotan daramatelarik beren ondoretik esaldiko galdegaia (adibideak gure ADIBIDETEGIAN). Hemen ematen ditugu lehen esaldi konparagarri batzuk askoren artetik:

(42) Ifinten dot gogoà irabazteco gaurcò indùlgenciac edo Parcamenac ... (7)
Iminten dot gogoa gaurco parcamen guztiac irabazteco ... (11)
(43) Esquètan deutsut, Jaun erruquiorrà, arrèn zucen daizùzala gaùr, da beti, ... (7)
Esketan deutsut, Yaun errukiorra, arren zucendu daguizuzala gaur da beti ... (11)
(44) ...; età emòten deutsut beticò verbà sendò benetacoà, ... (8)
...: ta emoten deutsut betico berba cindo benetacoa, ... (12)
(45) ...: ill-neindeque orainchè ordu onetan. / ...: ill-neindeque aracò gach bide, ta eraldi deunguean. / ...: ill-neinteque aracò becatuan. (22)
...: il ninteke orainche, ordu onetan berean. / ...: il ninteke oker-bide, edo era-aldi deungaren baten. ...: il ninteke becatu mortalean. (26)

3.4.1.2.1. Zuzenean aditz trinkoz hasitako esaldiak.

Añibarrok 1821ean ere ez ditu batere eragozten, zuzenean aditz trinkoz hasten diren esaldiak (1821eko *Sart-aurrea*-n bertan erakusten ditu halako bi berri 1802koaren aldean; ikusi ADIBIDETEGIA). Erabat alderagarriak berriz bi argitalpenen artean segidako esaldi sailak:

(46) Da cereguin bat, ceinetaric jatort betiraun guzticò zorion guztia: ... (20-1)
Da cereguin bat, ceinetaric yatortan beti betico zorion guztia. (24-5)
(47) ...: dacus condenetaco ondamendia; ... (26)
...: dacus bere burua condenetaco arri labanaren ganean: ... (30)

---

[137] Nahiz bestela ematen den aditzera, «Añibarroren idazlanak II: Lora Sorta Espirituala (1803)» (*ASJU*, XXII-1, 1988, 8 or.) lanean, Añibarroren erregela berriari buruzko oharra jaso ondoren esaten denean: «*...; ordena egokiagoaz ohartu ondoren hala betetzen saiatu zela erakusteko EL-1821 dugu.*» Añibarroren inguruan, eta bereziki *Escu-Liburua*-ren argitalpenen arteko aldaketez, kontsulta litezke bertan aipatzen diren B. Urgellen lanak.

[138] Azken hau bakarrik hartu dugu konparaketa oinarri, 1827koa estuki jarraitzen zaiolarik ordenamendu kontutan.

(48) (¿Cer da Infernua? I.) Da presondegui, ta toqui ilun itsal icaragarri bat, ceinetan dagoz ... (II.) Da suzco eche bat, ceinec beti dirau ... (III.) Da lecu bat, ceinetan igaroten diran, ... (50)
(¿Cer da Infernua? I.) Da presondegui, ta toqui ilun, itzal, icaragarri bat, ceinetan dagozan ... (II.) Da susco etse bat, cein beti dagoan ... (III.) Da lecu bat, ceinetan icusi bera direan ... (57)

3.4.1.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Beste hainbeste esan liteke Añibarroren orobateko jarreraz mendeko esaldien inguruan. Bada egia izango bada ere, Añibarrok sail honetan egingo dituela bere ordenamendu aldaketa haundienak 1802tik 1821era, asko eta asko dira hala ere, Añibarrok 1821-27an hautsita ematen segiko dituen mendeko esaldiak, eta are gehientsuenak ere oraindik hauek batere luzeak diren orduko (ikusi ADIBIDETEGIA). Hala bi argitalpenen arteko konparaketan (gorago jasotakoen pareak):

(49) ...: onec bilduten dituzan leguez loraric onenac, eztiabia gozoa eguiteco; .. (3)
...: eta onec loraric lora batuten daben leguez eztia ta arguizaguia abai gozoa eguiteco, ... (5)
(50) (Ah! eztàquit) eldùco banas arratserà: ... (7)
(¡Ay! eztakit nic,) elduco banas gaubera: ... (10-1)
(51) ...; izan artean ceure lagun Ceruan. (11)
...: izan artean ceure lagun ceruan. (15)
(52) ..., uste bozu, izangò dala Jangoicoaren glori andieneracò, ... (19)
..., baderichazu, ori izango dala Yaungoicoaren ondraric andieneraco, ... (23)

3.4.1.4. Bestelako seinaleren bat 1821-27ko idazkeran ere.

1802an eta bere beste lanetan bezalaxe, Añibarrok 1821ean ere segituko du ematen tarteka zenbait esaldi, zerikusiren bat izan lezaketenak aditz posposizioaren ezaugarriarekin. Hala galdera hautsiren bat (1802an bezala):

(53) Ceimbàt, Jaunà zor deutsut onmebestè mesedé gàitic? (6)
¿Ceinbat, Yauna zor deutsut onembeste mesede gaiti? (10)

Edo aditz konposatu inbertsiorik gabeak, nola segidakoa (1802koaren parean):

(54) ...; penitencià gura eztot, ... (64)
...: penitenciaric eguin nai eztot: ... (73)

3.4.2. 1821-27ko ordenamendu aldaketak Añibarrorengan.

Oro har bada, zail dirudi, oinarri piska batekin defendatzea, Añibarrok 1821-27an ere batere betetzen duenik, aditzaren posposizioaz ikasi erregela berria. Ordea, badira ordenamendu aldaketa esanguratsuak.

3.4.2.1. Aditz atzeratzeak mendeko esaldietan.

Hitzez hitz konparatu ditugu 1802 eta 1821eko lehen bostenak-edo (49 orrialdera bitartean lehenengoan, 56ra arte bigarrenean), eta artikulu honi eginiko ERASKINEAN jaso ditugu elkarren parean, nolabait konparagarriak izanik, ordenamendu aldaketaren bat erakusten zuten esaldi guztiak. Nagusiki ordea Añibarrok mendeko esaldietan mugitzen du aditzaren gunea. Batez ere, esaldi atzealdera (39 kasu gure ERASKINEAN, 20 aditz jokatugabeez, 16 jokatuez, 3 nahasiak). Baina horrek ez du esan nahi aditza beti eramaten denik esaldi bukaerara (eman berri dugun 49 esaldiaren kasua), hala gertatuko bada ere kasu askotan (errazago esaldi laburretan). Guztietako adibide batzuk:

(55) ..., ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogor gogaicarriatic. (2)
..., Deabruaren escuperic, eta bere aguintza gogor gogai carritic, edo orretaraco bide labaneric aterata, ... (3)
(56) ... icusiric, ... Misiño demporan asco asten diriala iracurten icasten; ... (3)
... yakinic ... asco misiño ostean iracurten icasten asten direla: ... (4)
(57) (...; erruquituric bestetic,) ez idoroteaz dotrinazco chiquiac baño beste libruric Bizcayco eusqueran; ... (3)
(...: biotza ausiric besteti) Bizcai-co euskaran doctrinaco libru apurrac baño besteric icusten ez nabelaco; ... (4-5)
(58) ...; jarraituric orain oñetzac, ... (11)
...: orain ceure oñatzai yarraituric, ... (16)
(59) (Ifinten dot gogoa) irabazteco gaurcò Indulgènciac edo Parcamenac neurè becatu, età Purgatoriocò Arima santèn quitugarritzat. (7)
(Iminten dot gogoa) gaurco parcamen guztiac irabazteco ene becatuen zorren alderaco, eta purgatorioco arima santuenen kitugarritzat. (11)
(60) (...; bada ni orain-ganic asico nas) viciten ceure antzera lurrean; ... (11)
(...: bada ni orain-ganic asico nas) ceure antzera biciten lurrean: ... (15)

(61) (Gaur Elexa Santuac ifinten deustaz beguien aurrean ceure humiltasun, necalde, ta penitencia arrigarriac,) biztutéco nire epeltasuna; ... (11)
(Gaur Elesha santuac iminten deustaz beguien aurrean ceure umiltasun, nekaldi, eta penitencia arrigarriac,) nire epeltasuna azcortuteco, ... (15-6)

(62) (Jesu Cristòren erraiacaitic erregututen deutsut;) guchienez ordu lauren bat emon daizula egunean lan santu onetan; ... (17)
(Yesucristo gaiti erregututen deutsut,) arren, guchienez egunean ordu laurenchu emon daguizula lan santu onetan; ... (21)

(63) ..., emongo balichazu, oera echun baño len. (33)
..., oera baño leen emon bearco balichatzu. (38)

3.4.2.1.1. Baina aditz aurreratzeak ere bai Añibarroren mendeko esaldietan.

Esan dugu batetik aditz atzeratzea ez dela batere sistematikoa mendeko esaldietan. Bestetik ordea, aurki ditzakegu Añibarrogan zenbait esaldi, zeinetan atzeratu ordez, aurreratu ere egiten den aditzaren gunea esaldian. Guk konparatutako zatian hiru kasutan ere bai bederan. Hala:

(64) (Beguiratu,) gogarte onec adierazoten deutsuen antzera vici bazarà: ... (15)
(Beguira) ea zure bici erea bada gogarte onec dirautsuen moducoa, ... (19)

(65) Ordu atan gura neuqueana, eguin izan baneu. (25)
Ordu atan, eguin izan baneu, guraco dodana.

(66) (Iruditu, ta uste izan,) oearen oñetan dacusdala: (I. ...) (29)
(Contu eguin daidan bada) orainche dacusdala oearen oñetati, (I. ...) (33)

3.4.2.2. Beste aditz atzeratze, eta aurreratze, batzuk.

3.4.2.2.1. Aginterazko aditzak.

Aztertu zatian Añibarrok hiru aldiz bederen atzeratzen du zertxobait aginterazko esaldi bateko aditza. Hala, kasurik nabarmenena:

(67) Bereala confesa-zaite gaur, asmetan badozu ceure ariman becatu ilcor eriotzco, edo mortalen bat: ... (27)
Asmetan badozu ceure arimaan becatu mortalen bat, berbertati, gueyago luzatu bagaric, confesa zaitekez gaur: ... (31)

Eta aginterazko aditz gehienek segitzen badute mantentzen bere 1802ko gune berbera esaldian (aurrerantzean ohituraz), aurkitu dugu aurreratze bat ere behintzat aztertu zatian:

(68) Virgiña Maria, Angueru Gordetzallea, ta egun ataco Santuaren escuz, da bitartez opa, ta esquiñi Trinidade chitò Santuari ceure biotz, asmo, gogo, ta eguiquera guztiac, ... (1802, 21)
Opa ta eskiñi eguiozuz Trinidade chito santuari Virgiña Ama Maria-ren, Angueru Gordetzallearen ta egun ataco Santuaren escuz, eta bitartez ceure biotz, asmu, gogo, berba eta eguikera guztiac, ... (1821, 25)

3.4.2.2.2. Baiezko esaldi deklaratiboak.

3 eta 1ekoa bada proportzioa aginterazko aditzetan, baiezko esaldi nagusi deklaratiboetan ez dugu kasu bakar baten itxura baino aurkitu aditz atzeratzearena, nahiz ez oso argigarria izan:

(69) Ondatu neindeque betico ordu atan. (28)
Ordu atan galdu ninteke beti betico. (32)

Ordea beste bat ere bai nolabaiteko aditz aurreratzearekin:

(70) Emonic bada sentencia Ceruraco, Angueruen laguntzan igoco dau Arimeac Cerura, ... (32)
Emoten bayaco ceruraco sentencia, igongo da cerura arimeac Angueruen laguntzan, ... (37)

Bana. Nahiz, nahi izanez gero, beharbada suma litekeen, aditz nagusia atzeratzeko nolabaiteko joeraren bat, Añibarrok 1821ean erasten dituen esaldi berri zenbaiten artean, nahiz benetan sotila izan behar halakoz jabetzeko. Hala moduzkoak izan litezke segidako bi esaldiak:

(71) ¡Ay! oneec .. nekez eguingo direan gauzac dira. (4)

(72) Eta leen baño obesheago eta apaindusheago bigarren sancha onetan urten daguiantzat, escu-aldi barri bat emon izan yaco. (7)

3.4.2.2.3. Besterik.

Badira beste kasu bakanago batzuk ere. Nola, 1802ko inbertsiorik gabeko ezezko aditz baten ohizko inbertitzea:

(73) Becaturic arin, ta chiquerrena gueratuco ezta ezcutuan, ez azturic. (44)
Becaturic arinena ta ecerecena bere ezta gueratuco ezcutuan azturic. (50)

Bitxia da, nola 1802an orrialde berean ematen zituen beste bi antzeko esaldiak, guk gorago bere lekuan jaso ditugunak, desagertu egiten diren 1821erako, nahiz beste kasu zenbaitetan Añibarrok segitzen duen 1821ean ere halako egiturak erabiltzen, gorago ikusi dugun bezala.

Aurkitu dugu galdera hautsi baten berridazketa ohizkoagoa ere:

(74) Cein bietaric guertaco jat niri? (32)
¿Cein izango ete da, bada, niri emongo yatana? (38)

Edota esaldi hasiera bateko aditz trinko baten desagertzea (izenburu batean):

(75) Doa arimea judiciora (28)
Arimea Yaungoicoaren aurrean. (33)

3.4.2.3. Esaldietako beste elementu buru batzuk ere atzeratzen.

Beste ordenamendu aldaera jada bitxiago edo klasifika gaitzagoen ondotik, bada oraindik beste atal nagusi bat Añibarroren 1821eko aldaketen artean. Guk aztertu zatian, jaso ditugu bederatzi kasu bederen, non Añibarrok atzeratzen duen, esaldi barreneko sintagmaren burua. Nahiz sintagma gehienak aldagabe geratzen diren, badira segidakoak bezalako aldaketak:[139]

(76) (...: Jangoicoaren Anguerù ederrà,) neurè lagun, ta jaolà maiteà negarrezco erbeste onetan. (9)
(..., Yaungoicoaren Angueru ederra,) ene negarrezco erbeste onetaco lagun ta yagola maitea. (13)
(77) (Izan zaite, bada, gaur, da beti,) bitarteco neureà Jangoicoaren aurrean: ... (11)
(Izan zaitez, bada, gaur ta beti) Yaungoicoaren aurrean bitarteco neurea: ... (15)
(78) Gogarte laburrac atzerengoen ganean. Illeco egun bacoitzeraco, ... (14)
Ileco egun bacocheraco atzerengoen ganeco gogarte laburrac. (17)
(79) (...: josi ceure, ariman) gogò sendò bat, onduteco aurrerantzean ceurè vicitzea, Gogarte iracurriac dirautsunen erara. (16)
(..., eta yosi eikezu ceure ariman,) aurrerantzean zure bicitzea, gogarte iracurriac daracutsun leguez onduteco gogo cindo bat. (20)
(80) Emonic bada sentencia Ceruraco ... (32)
Emoten bayaco ceruraco sentencia ... (37)

Halako posposizio bat ere suma liteke liburuen azal sarreran bertan, lehenengoan erakusten denean, Cardaverazenean ere ohizkoa zen bezala, *izen arrunta fi izen propioa* segida, eta jada 1821ekoan alderantzizkoa:

(81) TOLOSAN : Liburuguille Don Francisco la Lamaren echean. 1802. Urtean.
Tolosan, Don Francisco la Lama Liburu guillearenean, 1821 garren urtian.

3.4.2.4. Atzeratze guzti hauen ondorio dislokatzaileen inguru.

Oro har, ausartuko ginateke pentsatzen, batetik, ikusi posposizio guztiak ere, ez direla printzipioz eraginak, printzipio komunikatibo baten izenean, hizkuntzaren argitasun eta ulergarritasunen mesedetan, baizik eta autorearen aurreiritzi hartze artifizial samar baten ondorioz. Eta izan ere, delako osagaien atzeratzearekin, esaldi gehien horietan lortutakoa, ez da, dislokazio zabalago bat, 1802an ageri zutena baino, esaldian elkarrekin erlazionatutako elementu desberdinen artean. Halako dislokazio baten adibide argia izan liteke, segidako esaldi parean gertatzen dena, non 1802koan elkarrekin erlazionatutako osagaiek, elkarren ondoan kokatuek (azpimarratuek), aldiz ageri duten 1821ekoan bien artean tartekatua, 12 hitz eta 36 silabetako multzo ondo luze bat, zalantzarik gabe zaildu behar duena, esaldi berridatziaren ulermena:

[139] Beharbada ez legoke zertan bilatu beharrik aldaketa guzti hauen arrazoia euskaratik kanpo, baina segurasko Cardaverazen *Eusqueraren Berri Onac*-eko erregelak [(58 orr.): «*Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, Eusquerac azqueneronz beti botatcenduela*»], izan lezake zerikusirik, sintagma buru guzti horien mugidekin.

(82) Eztabe neurriric, ecin mugatu, ta cembatu leiz, libru ònac zucendu, ondu, ta Ceruco vide artecera ecarri dituezan becatariac, ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogo gogaicarriatic. (2)
Eztabe neurriric, eta ecin esan lei liburu on orrec ceinbat becatari gaisho, Deabruaren escuperic, eta bere aguintza gogor gogai carriric, edo orretaraco bide labaneric aterata, ecarri izan dituezan ondutera, eta ceruraco bide artezean ibiltera. (3)

Halako dislokazioak, beti izango dira zilegizkoak euskaraz (eta inoiz gomendagarriak ere beharbada). Kontutan hartu behar da ordea, dislokazioek proportzio geometriko batean zailduko dutela, beti, esaldiaren ulergarritasuna.

3.5. Beste azken aipagarriren bat Añibarroren joskeraz.

3.5.1. Inoiz erlatibozko esaldiren bat bere buru mugagabearen ondotik.

Moguelen ohiturazkoak badira ere, ez Añibarrorenak, tarteka aurki lekiokeen antzeko egituraren bat. Hala, guk azken orduan saiatu gabe bildu ditugun segidakoak behintzat:

(83) (...; ta gogoraturic bestetic,) Arima, asco libru santùen bitartez ta videz elduco litzatequezanac Jangoicozcoac izatera, (euren jaquineza itsuaz datocela deabru madaricatuen adu gaistoco servitzariac izatera, ... (EL-1802,3)
(...; eta uste izanic beste bateti) arima asco, liburu santuen bitartez Yaungoicozcoac izatera elduco litzatekezanac, (euren yakin-eza itsuagaiti datozala Deabru okerraren adu gaiztoco aguindupecoac izatera: ...) (EL-1821,5)
(84) (...; eta oneri esetsi zakikioz aric eta aguertu eta azpiratu artean) ceure ecandu char, guztien artean gueyen burua eracutsi bear izaten dabena, (eta ebagui artean bere sustrai gaisto, oker, gach guztien iturburua.) (EL-1821,19)
(85) ..., icusten dabenean bere burua suzco toki garra ta garra darion onetan! (EL-1821,37)

3.5.2. Nos, elementu mendekotzaile.

Anekdotikoa izango bada ere, jaso nahi dugu nola, Maisu Larramendik bere Artean ageri askoan aurka gomendatu arren, Añibarrok ere ez duen oztoporik aurkitzen erabilkera horretarako. Hala nola segidako andana ugarian (EL-1802, 39 or.):

(86) (Izangò dira) nos guichien uste dogun: nos mundutarrac guichien ichadongò daben: nos munduan becatu gueiago eguingo dan; eta nos munduac, onduteco, demporaric euquico eztabenean.

3.6. Azken galdera batzuk erantzungai.

Lehenengoa, nondik eratortzen duen Añibarrok, horren ideia garbia aditzaren posposizioaz euskaraz. Bigarrena, zergatik Añibarrok, erregela horren garbi edukita, ez duen hau fundamentu piska batekin aplikatzen, aukera duenean 1821 eta 27an. Beharbada, da zailagoa erregela praktikan jartzea, asmatzea baino. Edota beharbada Añibarrok berak ere, jada 1821-27rako, ez zuen berriro sinisten erregelaren naturaltasunean edo zabalean.

Hirugarrenik, eta lehenengoari lotutakoa, zein bide erabiltzen duen urte batzuk geroago Lardizabalek, hitzez hitz errepikatzeko Añibarroren baieztapenak, aditzaren posposizioaz, nola Cardaverazen (eta Axularren balizko) praktika horrena. Eduki zuen Lardizabalek begi bistan Añibarroren Gramatika? Badirudi baietz. Edota bestela, biek ezagutu bide zuten beste hirugarren testigantza amankomun bat, guk orain ezagutzen ez duguna. Izan ote zuten biek ere harremanik, esateko, Guerricorekin?

Azkenik, eta eragin posibleen barrena, jakin, Gregorio Arrueri, Añibarroren Gramatikaren ezagutzeak (bada ezagutzen bide zuen) eragin ote zion bere azken itzulpen lan gehienetako aditzak atzeratzera modurik Cardaveraztiarrenean, hala ez bezala, esateko, Gramatika bera ezagutu bide zuen, Aita Juan Mateo Zavalari, bederen Gramatikan.

ERASKINA

Añibarroren Eskuliburuaren, lehen bi argitalpenen arteko aldeak, hitzen ordenamenduari dagokionean: 1802[1] eta 1821[2].

1827ko hirugarren argitalpena oso estu jarraitzen zaio bigarrenari hitzen ordenamenduaren atalean, behintzat guk aztertu ahal izan dugun neurrian. Lehen bi argitalpenen arteko desberdintasunak zabalak dira, eta askotan erakusten du bigarrenak erredakzio guztiz berritu bat. Horregatik jaso ditugu hemen, bakarrik, ordenamendu konparaketa bat, behintzat posiblea, egiten zuten esaldiak, eta nahiz eta hauek ere beste desberdintasun ugari eduki, hiztegian, luzeran, eta are egituran ere. Soilik aztertu ditugu, bi liburuen lehen bosten inguruak, 49 orrialdera bitartean 1802koan, 56ra arte bigarrenean. Adibideetan lehenengoa beti da 1802koa, bigarrena 1821ekoa.

(Tolosan:) Liburuguille Don Francisco la Lamaren echean. 1802. Urtean. (0)
(Tolosan,) Don Francisco la Lama Liburu guillearenean. 1821 garren urtean. (1)

(Eztabe neurriric, ecin mugatu, ta cembatu leiz,) libru ònac zucendu, ondu, ta Ceruco vide artecera ecarri dituezan becatariac, ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogor gogaicarriatic. (2)
(Eztabe neurriric, eta ecin esan lei) liburu on orreec ceinbat becatari gaisho, Deabruaren escuperic, eta bere aguintza gogor gogai carriric, edo orretaraco bide labaneric aterata, ecarri izan dituezan ondutera, eta ceruraco bide artezean ibiltera. (3)

..., ateraric deabruaren azpitic, ta bere aguintaritza gogor gogaicarriatic. (2)
..., Deabruaren escuperic, eta bere aguintza gogor gogai carriric, edo orretaraco bide labaneric aterata, ... (3)

... icusiric, ..., ta Misiño demporan asco asten diriala iracurten icasten; ... (3)
... yakinic ... asco misiño ostean iracurten icasten asten direla: ... (4)

...; erruquituric bestetic, ez idoroteaz dotrinazco chiquiac baño beste libruric Bizcayco eusqueran; ... (3)
...: biotza ausiric besteti Bizcai-co euskaran doctrinaco libru apurrac baño besteric icusten ez nabelaco; ... (4-5)

..., Arima, asco libru santùen bitartez ta videz elduco litzatequezanac Jangoicozcoac izatera, ... (3)
... arima asco, liburu santuen bitartez Yaungoicozcoac izatera elduco litzatekezanac, ... (5)

...: onec bilduten dituzan leguez loraric onenac, eztiabia gozoa eguiteco; ... (3)
...: eta onec loraric lora batuten daben leguez eztia ta arguizaguia abai gozoa eguiteco, ... (5)

(Ifinten dot gogoà) irabazteco gaurcò Indulgènciac edo Parcamenac neurè becatu, età Purgatoriocò Arima santèn quitugarritzat. (7)
(Iminten dot gogoa) gaurco parcamen guztiac irabazteco ene becatuen zorren alderaco, eta purgatorioco arima santuenen kitugarritzat. (11)

(...; escaturic,) arren euqui daiela nire erruquia; (eta ondò artuac izan ditecela berè aurrean nire gaurco lan, ..., ta bear guztiac, ...) (9)
(...: escatuten deutsazula) arren nire erruki izan dedila, (eta ondo artuac izan ditezala bere aurrean ene gaurco lan, ... ta bear guztiac, ...) (13)

...: Jangoicoaren Anguerù ederrà, neurè lagun, ta jaolà maiteà negarrezco erbeste onetan. (9)
..., Yaungoicoaren Angueru ederra, ene negarrezco erbeste onetaco lagun ta yagola maitea. (13)

Izan zaite, bada, gaur, da beti, bitarteco neureà Jangoicoaren aurrean: ... (11)
Izan zaitez, bada, gaur ta beti Yaungoicoaren aurrean bitarteco neurea: ... (15)

...; bada ni orain-ganic asico nas viciten ceure antzera lurrean; ... (11)
...: bada ni orain-ganic asico nas ceure antzera biciten lurrean: ... (15)

(Gaur Elexa Santuac ifinten deustaz beguien aurrean ceure humiltasun, necalde, ta penitencia arrigarriac,) biztutéco nire epeltasuna; ... (11)
(Gaur Elesha santuac iminten deustaz beguien aurrean ceure umiltasun, nekaldi, eta penitencia arrigarriac,) nire epeltasuna azcortuteco, ... (15-6)

...; jarraituric orain ceure oñetzac, ... (11)

...: orain ceure oñatzai yarraituric, ... (16)

(..., uste izan, Calvario-rà zoazela,) icusten ilten Jesu-Cristo. (12)
(..., uste izan ece Calbario-ra zoazala,) Yesu-cristo ilten icustera. (16)

... ilten Jesu-Cristo. (12)
... Yesu-cristo ilten ... (16)

...; età gogora ecartzu, edonosberè Elex-onetarà ecarrico zaituela illic. (13)
..., eta ez aaztu bear bada egunen baten Elesha onetara illic ecarrico zaituezala. (17)

Gogarte laburrac atzerengoen ganean. Illeco egun bacoitzeraco, ... (14)
Ileco egun bacocheraco atzerengoen ganeco gogarte laburrac. (17)

Aldatuac A. Juan Pedro Pinamonte netatic. (14)
Aita Yoan Pedro Pinamonte enetaric euskararatuac. (17)

..., età astiro gogatú, iracurten dozuzan berba guztiac banàn, ta bacocha berez. (15)
Gogotan astiro astiro erabili eikezuz, eta bein banaan eta bacocha berez ausnartu iracurten dozuzan berba guztiac. (18-9)

Beguiratu, gogarte onec adierazoten deutsuen antzera vici bazarà: ... (15)
Beguira ea zure bici erea bada gogarte onec dirautsuen moducoa, ... (19)

(...: josi ceure, ariman) gogò sendò bat, onduteco aurrerantzean ceurè vicitzea, Gogarte iracurriac dirautsunen erara. (16)
(..., eta yosi eikezu ceure ariman,) aurrerantzean zure bicitzea, gogarte iracurriac daracutsun leguez onduteco gogo cindo bat. (20)

..., onduteco aurrerantzean ceurè vicitzea, Gogarte iracurriac dirautsunen erara. (16)
..., aurrerantzean zure bicitzea, gogarte iracurriac daracutsun leguez onduteco ... (20)

(Jesu Cristòren erraiacaitic erregututen deutsut;) guchienez ordu lauren bat emon daizula egunean lan santu onetan; ... (17)
(Yeucristo gaiti erregututen deutsut,) arren, guichienez egunean ordu laurenchu emon daguizula lan santu onetan; ... (21)

Gogarte oneetatic batec, edo besteac eguiten badeutsu indar gueiagò; ... (17)
Gogarte oneetaric batec edo batec ceure biotzean erason andiagoa eguiten badeutsu, ... (21)

(..., arguitù zaizentzat) aterateco ònen bat lan onetaric. (18)
(... arguitu zaguientzat) lan onetaric onen bat aterateco. (22)

(...; baña asmetan bozu,) onec edò besteac muguietan-zaituala obeto, ... (18-9)
(... iños asmetan badozu,) ac edo besteac gar gueyago emoten deutsula, ... (22)

..., ebaguiten bicio char bat, ... (19)
..., izcune charren bat garbituteco, ... (22)

..., edó irabazten virtuteren bat; ... (19)
..., edo onen bat artuteco, ... (22)

Egunen baten lecuric ezpòzu lucetuteco Oraciñoa; ... (19)
Egunen baten oraciñoa luzatuteco astiric ezpadozu, ... (23)

... lucetuteco Oraciñoa; ... (19)
... oraciñoa luzatuteco ... (23)

GOGARTE LABURRAC Atzerengoen ganean. Illeco egun bacocheraco. (20)
ILECO EGUN BACOcheraco atzerengoen ganeco gogarte laburrac. (24)

(Ez dot neure arimè bacar au baxen) gauzà maitegarriagoric: ... (21)
(Ez dot neure arima bacar au bashen) maiteago izan bear dodan gauzaric: ... (25)

Virgiña Maria, Angueru Gordetzallea, ta egun ataco Santuaren escuz, da bitartez opa, ta esquiñi Trinidade chitò Santuari ceure biotz, asmo, gogo, ta eguiquera guztiac, ... (21)
Opa ta eskiñi eguiozuz Trinidade chito santuari Virgina Ama Maria-ren, Angueru Gordetzallearen ta egun ataco Santuaren escuz, eta bitartez ceure biotz, asmu, gogo, berba eta eguikera guztiac, ... (25)

..., aricaturic gacha gaz ... (23)

..., gachagaz indargueturic ... (27)

..., eta euquicot biotzic negar eguiteco neurè becatu icaragarriac? (24)
...: eta ¿egongo da becatu orren benetaco damua, ta ez gueyago eguiteco gogoa artuteco? (28)

Ordu atan gura neuqueana, eguin izan baneu. (25)
Ordu atan, eguin izan baneu, guraco dodana. (29)

Ordu atan gura, ta gurez eguin bearco dodana, salvauco banas: ... (25)
Ordu atan, salbauco banas, gura ta gurez eguin bearco dodana: ... (29)

...; bada cer eguingót becatari andi onec? (26)
...: ¿cer eguingo dot bada nic becatari galdu onec? (31)

Bereala confesa-zaite gaur, asmetan badozu ceure ariman becatu ilcor eriotzco, edo mortalen bat: ... (27)
Asmetan badozu ceure arimaan becatu mortalen bat, berbertati, gueyago luzatu bagaric, confesa zaitekez gaur: ... (31)

(Escatu Jaunari, eta Ama Virgiñari) arren ala iraunerazo daizula eriotzara guiño. (27)
(Escatu eguiezu Yaunari, eta Ama Virgiñeari) arren onean eriotzara guiño iraun-erazo deizuela. (31)

Ondatu neindeque betico ordu atan. (28)
Ordu atan galdu ninteke beti betico. (32)

Orduric ordu eguin concienciaco billancuntzea, ... (28)
Orduric ordu ceure buruari contu artu eikiozu, ... (32)

..., enzuten dozunean erlojuà, ... (28)
... erloyuac yoten daben bacochean ... (33)

..., esatera: Ave Maria: ... (28)
... Ave Maria esaten, ... (33)

...: irabazteco Indulgenciac. (28)
..., parcamenac irabazteco. (33)

Doa arimea judiciora (28)
Arimea Yaungoicoaren aurrean. (33)

(Iruditu, ta uste izan,) oearen oñetan dacusdala: (I. ...) (29)
(Contu eguin daidan bada) orainche dacusdala oearen oñetati, (I. ...) (33)

... iracurten libru pildin [sic] baten nire eguiquera on guichiac: ... (29)
..., eta liburuchu pitin baten eracusten deustazala nire eguite on labur ecerezac. (34)

..., cer gura neunque euqui eguinic? (30)
..., ¿cer gura neunke nic eguinic euki? (35)

Emonic bada sentencia Ceruraco ... (32)
Emoten bayaco ceruraco sentencia ... (37)

Emonic bada sentencia Ceruraco, Angueruen laguntzan igoco dau Arimeac Cerura, ... (32)
Emoten bayaco ceruraco sentencia, igongo dau cerura arimeac Angueruen laguntzan, ... (37)

Cein bietaric guertaco jat niri? (32)
¿Cein izango ete da, bada, niri emongo yatana? (38)

Arratsalde onetan, eguin ezquero examinea, edo concienciaco billacuntza, ... (33)
Arratsalde onetan esamina concienciacoa eguin ezkero, ... (38)

..., emongo balichazu, oera echun baño len. (33)
..., oera baño leen emon bearco balichatzu. (38)

...; eta adoraturic Jesus Sacramentadua, ... (35)
..., ta Yesus Sacramentadua adorau ta, ... (40)

(Iracurrico jat,) eguin bear eneban oquerqueria, ta alamberé, eguin neban [sic]. (35)

(Iracurrico yat) eguin bear ez, eta alnberé eguin neban okerreria. (41)

(Iracurrico jat,) eguin al neuquean on guztia, eta eguin ez nebana. (36)
(Iracurrico yat) eguin al neunkean, eta eguin e neban on guztia. (41)

Biurtu beguiac lenagoco vicitzara; ... (36)
Beguira aldi bat eguiozu ceure igarotico bicitzeari; ... (41)

(...; età viotz guztiaz escatu Virgiñeari,) iñor galdu eztidilla zurè erruz, ta galbidez. (38)
(..., eta biotzeric escatu eguiozu Virgineari,) arren zure erruz iñor galdu eztedila. (43)

Aingueruac jo ezquero araco trompetà bildurgarria: ... (40)
Angueruac turrunta bildurgarriari ots eraguin ezkero. (45)

Becaturic arin, ta chiquerrena gueratuco ezta ezcutuan, ez azturic. (44)
Becaturic arinena ta ecerecena bere ezta gueratuco ezcutuan azturic. (50)

..., eroan zaizan escoatarà icaragàrrizco egun atan, aterètan zaituala deungueen artetic. (47)
..., egun icaragarrizco atan deungueen arteric aterata, escoatara eroan zaguizantzat. (53)

... icaragàrrizco egun atan, aterètan zaituala deungueen artetic. (47)
..., egun icaragarrizco atan deungueen arteric aterata, ... (53)

...; ta esatorduan, damu dot, ... (48)
...: eta damu dot esatorduan, ... (54)

...; irugarren, escaria Jesu Cristori, arren parcatu daizuzala ceurè becatu, ... (48)
... irugarren Yesucristori escatutea, arren parcatu deizuzala ceure becatu ... (55)

Demporeà da valiò andico ondasun bat. (48)
Balio andico ondasun bat dozuz [sic] Yaugoicoac emoten deutsuzan egunac. (55)

..., gogo, ta guraria andiaz irabazteco Cerua. (49)
...: eta cerua irabazteco egarriaren andiz, ... (56)

4. F.{ XE " Lardizabal (1806-1855): Gramatica bat, eta Testamentuco Condaira cardaveraztiar agiriak." }

Cardaveraz eta Añibarroren oharrak ez dira argitaratzen oraintsuago arte (*ASJU*, 1968, 1969), eta Francisco Ignacio Lardizabal, Gipuzkoako Zaldibiako eliz Beneficiaduarena izango da, lehen testigantza argitaratua, agerian plazaratzen duena, delako euskal aditzaren ezaugarri pospositiboa (*Gramática Vascongada*, Donostia, 1856). Nahiz Lardizabalek egingo duen, bere aurreko maisu biek baino hainbat modu ilunago eta nahasiago batean, bere Gramaticaren *De la sintaxis ò construcción del Vascuence* izeneko Bigarren Parte osoaren amaierako, kapitulu ondo labur batean, segidan ikus litekeen bezala (1856, 81 or.):

> CAPITULO X / Colocacion de las partes de la oracion. / §. Unico. / En los precedentes capítulos se ha tratado del modo de colocar varias partes de la oracion y sus constitutivos, como el nombre y articulo, el nombre y pronombre, el sustantivo y adjetivo, el infinitivo y articulo de verbo, el determinante y determinado y otras; y resta ahora fijar la colocacion de todas las partes entre sí. / 1. En esta operacion han sido varios los escritores vascongados, sin que se hayan sugetado a un método uniforme, como que la indole del idioma presta esta libertad: sin embargo, para que la oracion salga airosa y elegante, sera muy conveniente, que el verbo se coloque al fin de la oracion, siempre que no viniere con relativo, pues en este caso, se ha de colocar segun este lo exija. Este método de fijar el verbo al fin de la oracion solos Ajular, llamado Ciceron vascongado, en su Gueroco guero, y el P. Cardaveraz en sus varias obras practicaron constantemente; asi es que sus escritos, y cualquiera otro confeccionado en esta forma, se hacen muy dociles a la memoria. El agente puede colocarse en primer lugar, el paciente en segundo, y el adverbio antes del verbo: v.g. Jaungoicoac guizona munduaren asieran eguin zuen, Dios crió al hombre al principio del mundo. Pero advierto, que cuanto digo en este capitulo relativo a la colocacion no es esencial é indispensable para una buena sintasis.

Hala bukatzen du sintaxiari eskainitako atala, eta kapituluak inola ez badirudi ere azken orduan egindako eraskin soil bat, Lardizabalek dudarik gabe ematen du hau kontraesanez betea. Batetik, hitzez hitz jasotzen du, ia dudarik gabe

Añibarrori mailebatutako erregela;[140] eta honen alde aipatzen ditu Lardizabalek, ez jada naturaltasuna Añibarrok legez, baizik esaldion airosotasunak, dotoreziak, eta are arrazoi mnemoteknikoak ere; aipatu ezin dituelarik, hizkuntzaren ohitura, praktika edo tradizioa, Cardaveraz gain (eta berak dioenez, erratuta, Axular). Gainera, eta uste izatekoa da Astarloaren idatzietatik,[141] Lardizabalek ezarian bezala jasotzen du *agente* □ *paciente* □ *adverbio* □ *verbo* segida, euskararen ohizkoa-edo bailitzan. Bestalde ordea, lerrokada berean erreibindikatzen da, batera, nola euskal idazleen artean, izan diren, tradizio desberdinak (ez bakarrik, Cardaverazen metodo uniformatzailea). Eta gainera, nola ordenamendu askatasun hau euskararen izaera berak eskaintzen ote dion hizkuntzari. Bukatzeko, Lardizabalek, Añibarro eta Astarloaren erregelak jaso ondoren, agerian uzten du hauen fundamentu falta, derrigorrezkotasun eza aldarrikatuz, sintaxi on baterako.

Lardizabalen praktika idatzia ezagutuko ez bagenu, Gramatikako hitz horietatik, ezin oso garbi eratorriko genuke, zenbateraino alde edo kontra dagoen, bera, euskal aditzaren posposizioarena. Añibarrok ez bezala ordea, zeinak legea garbi jaso bai, baina batere praktikatzen ez duen, esango litzateke, Lardizabalek oso ziur predikatzen ez badu ere, ondo praktikatzen duela, gaur egun ezagunen diogun *Testamentu Zarreco ta Berrico Condairan* (eta are *San Roqueren Bederatciurrenean* ere, gaur gordetzen zaion beste obra bakarra).

Nolanahi, ez dira goiko hitz horiek izango, Lardizabalek Gramatican sakabanatuta utziko dituen iritzi arrasto bakarrak, hitzen ordenaren inguruan. Horietako batzuk, aditz posposizioaren erregelaren ildo beretik ibiliko dira; eta beste zenbait berriz honekin kontraesan agerian.

4.1. Lardizabalen ordenamendu oharrak Gramatican barrena.

Agidanean Lardizabal Gipuzkoako Aldundiaren enkargu zuzenez aritu zen, argitaratzeko prestatzen, bere *Gramática Vascongada*.[142] Ez dirudi Lardizabalen asmoa zenik guztiz lan orijinal bat sortzea, baizik eta, batez ere egitea, testuan behin eta berriz argi geratzen den bezala, hurbileko laburpen-berridazketa eguneratu bat Larramendiren Arteari. Eta horretarako erabiliko ditu Lardizabalek, batez ere, lanean zehar maiz aitatzen dituen Astarloaren *Apologia*, eta J.M. Zavalaren *Verbo Regularra*. Hauezaz gain, inoiz aipatzen da beste izenik, eta behin ere bai behintzat (1 or.), Añibarroren idatziak; nahiz ez batere, honen *Gramaticarik*.

Gramatican zehar Lardizabalek ez du ematen hitzen ordenamenduaz beste ikuspen orokorrik, goian jaso dugunaz gain. Bai ordea tarteka oharren bat, zenbait elementuren arteko ordenamenduaz, nahiz gehienean izan, hitzez hitz ere jasoaz, maisu Larramendiren irudipenak.

4.1.1. Euskal posposizioen inguruan.

Hala nola adibidez, egiten dituenak, erromantzearen preposizioen parean, euskal posposizioen gainean, orazioaren parte bezala, pasarte desberdinetan (2, 55, eta zabalago 78 orr., hauei bereziki eskainitako kapituluan, zeinen sarreratik jasotzen dugun aipua):

> CAPITULO VII / De la posposicion. / 1. La posposicion es una parte de la oracion que subsigue a la palabra a quien rige. La posposicion del Vascuence equivale a la preposicion del Romance. Las voces del Vascuence en la oracion, aunque parezcan una sola, comunmente son dos, porque todas llevan su posposicion: v.g. zugatic por ti, es compuesto de zu tu, y

---

[140] Gogora bedi nola zioen Añibarroren Gramaticak hitzez hitz (1969, 14 or.): «También tengo traducido al dialecto Bizcayno el famoso libro de Gueroco Guero de Axular, Ciceron bascongado, y de quien hace particular elogio el P. Larramendi. ... De paso advierto que assi Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y sera bien se haga assi, pues sale mas natural.» Ziur ez dakigu Lardizabalek ezagutu zuenik Añibarroren Gramatikaren eskuizkribua, edo honen kopiaren bat, baina dudarik gabe ematen du hala. Eta ez bakarrik beharbada testu honengatik. Pentsa liteke, erabili bide zuela ere, aditz jokuak ematerakoan, Añibarrok bezalaxe, gipuzkeraz eta bizkaieraz, nafarrerazkoen ukitu batzuekin (erabili bide zuten legez, Aita J.M. Zavalak, edota agian Gregorio Arruek ere). Guk ez dugu egin nolanahi, testu hauetako aditz jokuen parekatzea. Baina ez litzateke horren harritzekoa izango, Lardizabalek bere garaian Añibarroren testua eskuratu ahal izatea, kontutan harturik honen ospe euskalzalea, bizi zen artean ere (edota bestela Iztueta batena, biak herrikide eta agidanean lagun min ere bai -cf. J. Garmendia Arruebarrena, 1977-, edade distantziak arren). Guk nolanahi ez ditugu ezagutzen Añibarroren testuaren trasmisio bideak gure egunotaraino. Beste hipotesi bat izan liteke, nahiz gaitzagoa dirudien frogatzen, presuposatzea, Lardizabal eta Añibarro biei, amankomuneko hirugarren iturri bat. Aitatu dugu berau, Guerricoren inguruan.

[141] Cf. behintzat Astarloaren *Apologia*, 1803 (168-180 orr.).

[142] Eta agidanean beste batzuen artean gainera. J. Garmendia Arruebarrenak jasotzen duen bezala (*BAP*, 1980, 408 or.), Gipuzkoako Batzar Nagusietako Aktek diotenez Lardizabalek jada 1853rako ere nahikoa aurreratuak omen zituen bere lanak: «*con el objeto de escribir una gramatica, un diccionario doble y una obra que sirviera de texto para la traducción del vascuence al castellano*». Gaur egun ez dugu azken bi hauen aztarna garbirik; delako itzulpen testua ez bada behintzat *Testamentuco Condaira* bera.

gatic por, y así de todas las demas posposiciones.

Eta hala ematen ditu Lardizabalek segidan (78-9 orr.) gaztelaniazko beste preposizio guztien aldean, euskarazko esaldi ordainak.

4.1.2. Ordenamendu bikoiztasuna euskal konparatiboetan.

Hala adierazten du Lardizabalek, euskal konparatiboen ordenamenduan, bikoiztasun posible bat, hitzez hitz Larramendirekin (cf. 1729, 270 or.), nahiz azkenik, honekin batera makurtuko den, ordenamendu baten alde (58 or.):

31. 3.º El nombre comparado se puede anteponer ó posponer en la construccion: v.g. zuriago elurra baño, y tambien elurra baño zuriago, y de este segundo modo, en que se pospone el comparativo, se hace con mas elegancia.

4.1.3. Teorian gaitzetsi, erlatibozko esaldi, izen mugagabearen ondotik emanak.

Hala egiten du Lardizabalek, berriro Larramendiren (cf. 1729, 276-7 orr.) hitzez hitzezko errepikan, erlatibozko esaldien inguru (60 or.):

15. 2.º La sintasis de estos relativos se ha de hacer, de manera que el nombre se posponga al verbo y relativo: v.g. la mano, que tengo, es prodigiosa de-d-an escua miragarria da, y no escu-dedana, aunque alguna vez se habla de este modo.

Kuriosoa da jabetzea, nola Lardizabalek gero, usu asko erabiltzen duen bere idatzietan -maisu Larramendiri ere gertatu bezala- teorian garbi gaitzetsitako egitura hau, gure tradizio guztietan, baita ahozkoetan ere, usuzkoa dena (ikusi honen adibide ugari artikulu honen 4.3.2.3.1. atalean, edota gehiago ere gure ADIBIDETEGIAN).

4.1.4. Izenordeen indiferentzia aditzaren aurre edo atzean kokatzeko.

Berriro Larramendiren hitzak errepikatuaz (cf. 1729, 284 or.), jasotzen du Lardizabalek ere ohar argigarri hau, agian kontraesanean legokeena aditzaren ustezko ezaugarri pospositiboarekin (eta galdegaiaren derrigorrezko guneari buruzkoekin). Dio Lardizabalek adibide argigarriekin (62 or.):

3. Los pronombres personales se anteponen ó posponen indiferentemente al verbo en la construccion, en cualquiera caso que vengan: y asi igualmente se dice ni etortcen naiz yo vengo, que etortcen naiz ni vengo yo: asi mismo nizaz oroitu ez da de mi no se ha acordado, que oroitu ez da nizaz.

4.1.5. Aditz konposatuaren inbertsio moduez baiezko esaldietan.

Larramendiren hitz beretsuen oihartzun (cf. 1729, 292 or.), ematen du Lardizabalek ere, bere iritzi ohargarria, euskal aditz laguntzailearen jokaera sintaktiko posibleez, segidako hiru aipu desberdinetan (65-6 orr.):

8. 2.º El articulo puede anteponerse ó posponerse al infinitivo del verbo: v.g. «yo como las manzanas» puede decirse asi: nic jaten ditut sagarrac, y tambien ditut jaten sagarrac, pero es mas propio, que el articulo subsiga al infinitivo y se diga nic jaten ditut sagarrac. (65 or.) / 17. El articulo puede anteponerse ó posponerse al infinitivo: v.g. yo vengo ni etortcen naiz ó ni naiz etortcen, pero es mas propio, que el articulo subsiga, y se diga, ni etortcen naiz; ... (66 or.) / 19. ... La colocacion del articulo del verbo antepuesta al infinitivo, de que se ha hablado antes, tiene mas lugar con estos adverbios, y se dice: v.g. zuc omen dezu esan, zuc bide cenduen jan sagarra, zu omen cera etorri. (66 or.)

4.1.6. Ezezko aditz perifrastikoaren inbertsio eza.

Larramendi parafraseatuz (cf. 1729, 294 or.), Lardizabalek ere jasotzen du ezezko esaldi nagusien aukera hau, gure ohizkoa balitz bezala (66 or.):

23. El adverbio ez tiene así mismo dos significaciones; una corresponde al no y otra al ni del Romance. En la primera acepcion siempre se coloca antes del articulo, ya se anteponga este, ya se posponga al verbo; v.g. yo no como nic jaten ez-det, nic ez-det jaten, yo no he venido ni etorri ez-naiz, ni ez-naiz etorri.

Eta ematen du Lardizabalek, Gramatican barrena ere, antzeko adibide gehiago, bereak edota Larramendigandikoak (nahiz beti inbertsio-dunen artean):

(1) guizon-ic agueri ez da (4)
(2) Jaun-az oroitcen ez da (5)
(3) nizaz oroitu ez da (62)

(4) ecarri ez dituzu sagarrac (66; kurioski kasu honetan Larramendik testuinguru berean -1729, 295 or.- ematen duenean, *zuc eztituzu ecarrí* esaldi inbertsioduna).
(5) isildu ez da gau gucian (79)

Lardizabalek ematen du Gramatican adibideren bat edo beste ere, non atzeratua ageri den, *ez* partikula daraman aditz trinkoa, ohizkoena ez den modu batean, Cardaverazen Eskolatik kanpo:

(6) buru-ric ez du no tiene juicio. (4)

4.1.7. Aditz determinanteak, determinatuen aurretik.

Larramendik bezalaxe (cf. 1729, 304-8 orr.), Lardizabalek agerian postulatzen duena, ez da, aditz determinantearen aurreposizioa esaldian (nahiz bai, *ecen, ecic* bezalako partikularik erabiltzen bada), baizik eta teorian halako indiferentzia bat, aurrejarri, edo posposatzeko (68 or.):

12. Hay una diferencia de hacer la oracion con esta partícula [ecen, ecic] a hacerla sin ella, el determinante se puede anteponer ó posponer: v.g. dio, nic jaten dedala, ó nic jaten dedala, dio, dice que yo lo como; pero si con la partícula, debe siempre anteponerse y decir, dio ecen nic jaten dedala.

Ordea, aipuan aditz determinantearen posposizio posiblea ilustratzen duen adibideaz gain, Lardizabalek, Larramendik bezalaxe, Gramatican jasotzen dituen beste aditz determinante/aditz determinatu segida guztiak -uste dugu-, ematen dira, aditz determinantea aurrejarriaz, eta gehienetan berauek hasiaz esaldia (are aditz trinko aurrizki gabeak baldin badira ere), segidan ikus litekeen bezala:

(7) Jaungoicoac aguíndutcen du, elcar maite izan dezagula (16)
(8) Jaungoicoac aguindutcen digu, maitatu dezagula. (21)
(9) dio ecen icusten ezdedala (59)
(10) uste du, guc artu degu-la (68)
(11) badaquit, ostu dizquidazute-la (68)
(12) esan dit, arc dacarquio-la (68)
(13) badaquit, jan deü-ela (68)
(14) esan diot, jango nuque-ala (68)
(15) dio, ondo nago-ela (68)
(16) esan cidan, jan zue-la (68)
(17) esan dit icusi dezada-la (68)
(18) esan nion quenduco dio-d-ala (68)
(19) diote ni naiz-ela (68)
(20) badio, ecen, jaten degula (68)
(21) aditu det, ecic, etorrico dala (68)
(22) diote, ecen, il da-la (68)
(23) esaten da, ecic, chit arguia da-la (68)
(24) dirudi, ece, ona izango da-la (68)
(25) diote, ecen baietz. (69)
(26) icusten det zuc eguin dezu-la (69)

4.1.7.1. Zehar galderetako aditz nagusien aurrejartzeaz.

Aditz determinante/determinatu atalean bestelako ordenamendu oharrik egiten ez bada ere, Lardizabalek, berriro Larramendi kopiatuaz hitzez hitz (cf. 1729, 309 or.), egiten du halakorik hurrengo atalean (*De las oraciones con verbos de preguntar y dudar*), nondik erraz erator litekeen delako aditz determinanteen aurreposizioa (69 or.):

23. Nótese 1.º Que en estas oraciones comunmente se pone entre el determinante y determinado el adverbio ea que corresponde al si del Romance: v.g. ¿jaquin nai du, ea icusi cenduen? ¿quiere saber, si tu lo viste?

Eta adibide honen ordena berean ematen ditu Lardizabalek sail honetako beste guztiak ere (beti interrogazio zeinuz, soilik badira ere zehar galdera adierazteko):

(27) ¿galdetu dit, zatozqui-d-an? (69)
(28) ¿jaquin nai du, gatoz-en? (69)
(29) ¿galdez dago, icusi cenduen? (69)
(30) ¿galdez dago, dauca-n? (69)
(31) ¿galdez dago jaten du-en? (69)
(32) ¿galdetcen du, echean nago-en? (69)

Hurrengo aiputik ere, berezko interesaz gain, erator liteke antzeko uste bat, ohizko aditz determinante/determinatuen ordenaz.

4.1.8. Baizik partikularen aurreguneaz.

Behin gehiago ere Larramendi hitzez hitz jasoaz (cf. 1729, 315 or.), eta hau zertxobait zabalduaz bigarren puntuan, Lardizabalek dudarik gabe kokatzen du *baizik* -eta antzeko- partikulen erabilera, lotzen duten esaldi haren hasieran, euskarazko ohitura ere izan den bezala (71 or.):

> 42. Cuando estas oraciones traen negacion en el determinante, y se sigue sino que; v.g. no parece, sino que, en el Vascuence se hacen con los adverbios baicic, baicican, baicen, que siguel al determinante, guardando el determinado su sintasis regular: v.g. no parece, sino que le queria matar, ez dirudi, baicic il nai zue-la, no parece, sino que es de piedra, ez dirudi, baicen arrizcoa da-la./ 43. Esta misma regla se guarda cuando despues de otros determinantes parecidos viene el sino que: v.g. no diran sino que eres loco ez dute esango baicic zoroa cera-la; no pensaran sino que estas en casa ez dute uste izango baicican echean zaude-la.

4.2. Gainbegirada bat Lardizabalen Gramaticako adibidetegiari.

Ikusi ditugun ohar ageriez gain, atera liteke ondoriorik, Lardizabalen hitzen ordenamenduari buruzko iritziez, aztertuaz, honen Gramaticaren zeinnahi ataletan ematen diren adibide sailak.

4.2.1 Euskarazko ohizko «Xà» egiturak Gramaticako adibidetegian.

Bere propioak edo Larramendiri ohostuak, lehen lehenik esan behar da, Lardizabalek Gramatican barrena ematen dituen aditz gehienek gordetzen dutela «Xà» moduko egitura bat, ondoretik erantsita, elementu toniko labur bati. Esaldia konplementu bakar batez badago osatua (adibideetako asko eta asko bezala) aditzak gehienean hartuko du, euskaraz ere ohi bezala, esaldiaren atzen posizioa (ez beti hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala). Hala nola segidako adibideetan (ez ditugu gutxi batzuk baino jasotzen, direnen artean), bakoitza bere gaztelerazko itzulpenarekin, kurioski bi hizkuntzetako hitz ordenamendua batzuetan bakarrik delarik desberdina:

(33) Jaun-a dator El Señor viene (2)
(34) guizon-a il da el hombre ha muerto (2)
(35) guizon-ac jan du el hombre ha comido (2)
(36) guizón-ac ecarri dute los hombres han traido (3)
(37) ait-aren-ac dira son del padre (3)
(38) guizon-etan icusi zan se vió en los hombres (3)
(39) guizon-acgan dago consiste en los hombres (3)

4.2.1.1. «... Xà» egitura «absolutoak» Gramaticako adibideetan.

Esaldia konplementu gehiagoz badago osatuta, Lardizabalen Gramatican hainbat maiz agertzen da aditza guzti hauen ondoretik «...Xà» moduko egitura absoluto batean, nahiz, oro har, beti, euskaraz ohizkotzat jo litezkeen esaldi segidetan. Ondorengoak uste dugu direla Lardizabalen *Gramaticako* guztiak, beren itzulpenarekin (segitzen ez dutenak bi hizkuntzetan ordenamendu bera, 47ko itzulpen bitxiak salbu):

(40) zaldi ori ait-aren-a da ese caballo es del padre (3)
(41) eche au guizon-ena da esta casa es de los hombres (3)
(42) eche oyec guizon-enac dira estas casas son de los hombres (3)
(43) batac au cion el uno decia esto (15)
(44) oyec zaldi-ac dirade estos son caballos (55)
(45) au ederr-a da este es hermoso (55)
(46) ogui asco-c gaitz guichi eguiten du el mucho pan hace poco daño (55)
(47) gari guichiac gose asco dacar el poco trigo mucha hambre trae [sic] (55)
(48) egunoro ederr-a-go eguiten da cada dia se hace mas hermoso (57)
(49) sagarra, ceñac min eguin didan, gaciegui zan la manzana que me hizo mal, era demasiado agria; min eguin did-an sagarra, gaciegui zan (60)
(50) on eguiten du-en-ari Jaunac cerua emango dio al que bien obrare, Dios le dara el cielo (62)
(51) on eguiten du-en-arentzat Jaunac cerua dauca para el que bien obrare, tiene Dios el cielo (62)
(52) semea aita-c maitetua da el hijo es amado por su padre (67-8).
(53) eicean cebil-ela, sugue bat irten citzayon andando a caza, le salió una serpiente (72)

4.2.2. «aX» egiturak Lardizabalen Gramaticako adibideetan.

Denak ez dira ordea Lardizabalen Gramaticako adibideetan ere, «Xà» edo «...Xà» moduko egiturak. Hainbat eta gutxiago, euskaraz ohi bezala, zenbat eta luzeagoak izan esaldiak. Adibide batzuk Larramendiriko zorrak izango dira, baina beste hainbat propioak ere bai.

4.2.2.1. Galdegaiak aditzen ondoretik, Lardizabalen adibidetegian.

Ez dira gutxi Gramaticako adibideen artean beren galdegaia nahikoa nabarmen daramatenak aditzaren ondoretik (edota Lardizabalek ematen dien gaztelerazko itzulpenaren «XaX» moduko egitura bera erakusten dutenak). Horrelako adibideak lirateke, gorago aditz determinante/determinatu segidaren inguruan eman ditugunak. Hemen segidan jaso nahi izan ditugu, Lardizabalek, atal horretatik kanpo ematen dituen antzeko beste guztiak (beren gaztelerazko itzulpenarekin batera, honek batzutan behintzat lagundu dezakeelakoan esaldien balio komunikatiboa argitzen):

(54) Jaungoicoac eguin du guizona Dios ha hecho al hombre. (16)
(55) nic sagarra jango nuque, gaitz eguingo liraqueala bildur ezpanitz yo comeria la manzana, si no temiera que me haría daño. (16)
(56) nic ematen diot oguia aitari yo le doy el pan al padre (17)
(57) nic jaten det oguia yo como el pan (17)
(58) nic jan nuen nere aitaren echean yo comí en casa de mi padre (18)
(59) nic jan nizun nere aitaren echean (18)
(60) Maisuac jo-co du mutilla maquill-a-requin. Maisuac yo-co dau mutila maquil-a-gaz. Maisuac jo-nen [sic] du mutilla maquill-a-requi. El Maestro sacudira al muchacho con el palo (23)
(61) ayec dira guizon-ac aquellos son hombres (55)
(62) eder-a-go cera ni baño mas hermoso eres que yo (57)
(63) guizon-ago naiz hura baño (mas hombre soy que aquel) (57)
(64) nic icusten det guizona yo veo el hombre (64)
(65) nic icusten ditut guizonac yo veo los hombres (64)
(66) nic ecartcen dizut sagar on bat te traigo una buena manzana (64)
(67) nic ecartcen dizquizutet sagar on batzuec. os traigo unas buenas manzanas (64)
(68) nic jaten ditut sagarrac yo como las manzanas (65)
(69) ondo cequien itzeguiten bien sabia hablar (65)
(70) nic dacart sagarra yo traigo la manzana (67)
(71) Jaungoicoac eguin zuen mundua Dios hizo el mundo (67)
(72) ain da ederra, non garaitcen du eguzquia es tan hermoso que vence al sol (70)
(73) atseguin det sendatu zaituzte-laco me alegro de que te hayan curado (70)
(74) damu det gaiztoa izan naiz-alaco me pesa porque haya sido malo (70)
(75) pocic nago, ceren ecarri didazu-n berri on bat estoy muy alegre, porque me has traido una buena noticia (70)
(76) esquerrac ematen dizquizut, cergatic zatoz-en te doy las gracias porque vienes (70)
(77) negarrez nago, aita il zat eta estoy llorando, porque el padre se me ha muerto (70-1)
(78) uda berriaren ondoren dator uda tras la primavera viene el verano (79)
(79) Jaungoicoac eguin cituen ceru-lurrac Dios hizo el cielo y la tierra (80)
(80) (semeac ez du ecer icasten,) ala ere bialduco det escolara el hijo enviaré a la escuela no obstante que nada aprende (80)
(81) oguia irabacico dezu necatcen ba-cera Ganaras el pan si trabajas (80)
(82) ez dezu jaquingo baldin ez-pa-dezu icasten No sabras si no estudias (80)
(83) oera noa, bada logurea daucat Voy a la cama, pues tengo sueño (80)
(84) negar eguiten du, ceren min duen llora porque tiene dolor (80)
(85) nic eguiten det zuc bezala Yo lo hago como tú (81)

4.2.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren adibideak (are aditz trinkoaz ere).

Lardizabalek ez bakarrik ematen ditu adibide ugari, galdegaia aditzaren ondoretik daramana. Baita ere hauetako hainbat, zuzenean aditzaz hasten direnak «aX...» egituran, zenbaitetan aditz trinkoaz ere, eta dudarik gabe daramatenak galdegaia aditz horren ondoretik. Ikusi dugu halako adibide zenbait, aditz determinante-determinatuez hitzegin dugunean (zeintzuen artean zortzi esaldi ere bai, zuzenean aditz trinkoz hasten zirenak), eta hemen segidan jasotzen ditugu, ustez behintzat Gramaticako beste sailetan ematen diren guztiak, Lardizabalek berak ematen dien gaztelerazko itzulpenarekin:

(86) edaten det ur-a yo bebo agua (3)
(87) itzali nuen argui-a yo apagué la luz (3)
(88) icusico al-det nere semea ojala que yo vea a mi hijo (16)
(89) etortcen naiz ni vengo yo (62)
(90) [(«yo como las manzanas» puede decírse asi: nic jaten ditut sagarrac, y tambien) ditut jaten sagarrac (65)]
(91) icusten det zuc eguin dezu-na, veo lo que tu has hecho (69)

(92) arritcen naiz datorr-e-laco me admiro de que venga (70)
(93) joanda, nagusiac aguindu dio-ta ha ido, porque el amo le ha mandado (71)
(94) eman nizun, jan cenezan te di para que comieses (72)
(95) deitu cion, eracutsi cizayon le llamó para enseñarle (72)
(96) eman nizun jan cenezan-tzat (72)
(97) deitu cion eracutsi cizayontzat. (72)
(98) emandit [sic] jateco (72)
(99) deitu cion eracusteco. (72)
(100) artu nuen, irabaci ambat tanto tomé, cuanto gané (72)
(101) eman dit, bear adiña tanto me ha dado, cuanto necesito (72)
(102) igues eguin det ceren il ez nazan He huido porque no me mate (81)
(103) gaztigatu diot cergatic etorridedin le he avisado porque venga (81)
(104) igues egin det il ez nazan (81)
(105) gaztigatu diot, etorri dedin. (81)

4.2.3. Lardizabal aditza atzeratzen Larramendiren adibideei.

Azken adibide sail hauen ondoren, ez genuke jakingo Lardizabalek finean batere kasorik egiten dion, ala ez, Gramatican barrena, aditza atzeratzearen erregelari. Argigarri gertatzen da banan bana alderatzea, Lardizabalek eta Larramendik atalez atal ematen dituzten pareko adibideak, jabetzeko, nola, ezarian bezala bada ere, Lardizabalek azkenean, hainbat bederen, bai praktikatzen duen erregela bere Gramatican ere. Aurkitu ditugu behintzat segidako zazpi esaldi pareok, zeinetan Lardizabalek dudarik gabe atzeratzen duen Larramendiren aditza (Añibarrok ere bezala; lehenengo esaldia beti Larramendirena -1729-):

(106) aitaréna da zaldi orí. (5)
zaldi ori ait-arena da (3)
(107) (norena da eche au?) eche au da guizón-ena. (6)
(¿norena da eche au?) eche au guizon-ena da (3)
(108) badezú oguiríc? (9)
ogui-ric bacezu? (4)
(109) astú da beré buruaz (9)
bere buru-az aztu da (5)
(110) etorrí ciran guizon bi (40)
guizon bi etorri dira (15)
(111) naidet jan (51)
jan nai det (19)
(112) janic joan zan bereala (296)
janic, bereala joan zan (65)

Beste batzuetan berriz, Larramendik zuzenean aditzaz hasitako «aX...» egitura absoluto bat, hausteko-edo, Lardizabalek beste «X» konplementu bat eransten dio aurretik (kasuan sujetoa), egitura «XaX» modukoa bihurtuaz. Hala behintzat segidako adibide pareetan (lehenengoa Larramendirena):

(113) icusten-det guizón bat (289)
nic icusten det guizona (64)
(114) ecarten-dizut berrí on bat (290)
nic ecartcen dizut sagar on bat (64)
(115) ecarten-dizquitzút berrí on batzuec. (290)
nic ecartcen dizquitzutet sagar on batzuec. (64)
(116) dacar dirua, dacartzi ollóac (302)
nic dacart sagarra. (67)

4.2.4. Bi ohar txiki, bukatzeko, Gramaticako adibidetegiaren inguruan.

4.2.4.1. Mendeko esaldi hautsi gutxi batzuk Gramaticako adibideen artean.

Egia esan, Lardizabalek guztira, ez ditu mendeko esaldi gehiegi ematen Gramatican barrena. Eta hauetatik oso oso gutxi batzuk baino ez, aditzaz gainera beste konplementuren bat erakusten dutenak. Gutxi horietako batzuk hala ere, duda gabe erakusten dute konplementuren bat, aditzaren (eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen) ondoretik, eta proportzioan ez dira gutxi (gehienak baldintza «hautsiak», eta ezezko esaldiak badira ere):

(117) erretcen ezpa-ditut nic sino los quemo yo (66)

(118) nic ezpa-det jaten (66)
(119) nic ezpa-ditut erretcen (66)
(120) pocic nago, ceren ecarri didazu-n berri on bat (70)
(121) esan nionez gañera etcezala itzic eguin sobre [ademas] que le dije que no hablase palabra (79)
(122) (ez dezu jaquingo) baldin ez-pa-dezu icasten. (80)

4.2.4.2. Aginterazko aditzak beti beren konplementuen aurretik.

Oker ez bagaude, Lardizabalek Gramatican zehar ematen dituen aginterazko esaldi guztiak -eta antzeko lehen pertsonako subjuntiboak-, hasten dira aditzaz konplementuren bat daramatenean; euskaraz ohi bezala bestalde. Bitxia gertatuko da benetan gero jabetzea, zein proportziotan atzeratzen dituen Lardizabalek aditz hauek ere *Testamentuco Condairan* erarik bitxienetan. Hemen Gramaticako adibideak:

(123) goacen bi-oc (15)
(124) atozte lau-oc (15)
(125) zoazte bost-oc (15)
(126) eman zadazu oguia (16)
(127) uztazu jaten (65)
(128) goacen, icusi dezagun vamonos para que veamos (72)
(129) goacen icusi dezagun-tzat (72)
(130) goacen icusteco (72)
(131) ¡zaude isillic! (81)

4.3. Lardizabalen ordenamendu ezaugarriak prosa idatzian.

Gramaticaz gainera, ezagun ditugu gaur egun, Lardizabalen beste bi prosa lan bederen.[143] Testamentu Zarreco ta Berrico Condaira, lan mardul eta ezaguna,[144] eta *San Roque zorioneco izurrite edo pestearen contraco bitarteco altsuaren bederatciurrena*, liburuska laburra (29 orrialde baino ez hamaseirenean; SR adibideetarako), biak argitaratuak 1855ko urtean, Lardizabal *zorioneco izurrite edo pestearen* ondorioz hil zen urte berean. Gramatica ere argitaratzen hasia bide zen urte bererako, nahiz azalean jada 1856ko data erakusten duen. Pentsatzekoa da, Lardizabalek San Roqueren Bederatciurrena, 1855eko urte berean euskaratu ote zuen, Testamenduco Condaira lehenagokoa izan litekken bezala, eta bederen hasia, hamar urte lehenago ere, 1845 ingururako.[145]

4.3.1. Aditz atzeratze ezohizkoak Lardizabalen prosan.

Kurioski Lardizabalek, Gramatican oso erdizka baino aldarrikatzen ez duen, euskal aditzaren atzeratze orokorra, eta praktikatu ere ez gehiegi, aldiz bai, ohizko neurri guztien gainetik gordetzen duen Testamentuco Condairan, sistematizazio nabari batekin, erabaki garbi baten ondorioz bezala. Ez du egingo Cardaverazi ezagutu genion gordintasunean, haren moduko galimatias sintaktikoak eragiten. Bai gertuago, antzerago, berak baino lehenago, Guerrico batek ere behintzat jorratu zituen bideetatik; nahiz, oro har, baita ere honek baino setatiago.

---

[143] Agidanean Lardizabalek idatzi bide zituen beste hainbat obra ere, gaur egun arrastorik ezagutzen ez diegunak. Hala dio bederen I. Belausteguik *Euskaros ilustres. D. Francisco Ignacio de Lardizabal* artikuluan (*Euskal-Erria*, 44, 1901, 81 or.): «*No hablo aquí de otras obritas de menor importancia, como son, novenas, devociones, etc., pues son bien conocidas del público.*» Lehentxeago berriz zioen orrialde berean: «*De sus obras inéditas se conserva un sermón a San Miguel in excelsis, predicado en la ermita que de este nombre existe en Nabarra, ante el Chantre de Pamplona, como aparece en el encabezamiento del mismo.*» Belausteguiren hitz berauek aipatu eta gero, J. Garmendia Arruebarrenak izendatzen du oraintsuago Lardizabalen beste obra posible bat («Sobre el autor de "Testamentu zar eta berrico condaira"», *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma*, III, Kardaberaz-Bazkuna. 1977, 166 or.): «*Se cita -no conocemos- "Maria Santisimaren amodio ederraren novena", de 65 paginas, al parecer la que en 1855 rompió el fuego de sus publicaciones.*» Guk ezin izan dugu aurkitu guzti hauen beste aztarnarik. Lardizabal eta bere lanei buruz beste zenbait berri ezagutzeko, ikus litezke, aipatua bi artikuluez gain: R.M. Azkue, «Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira», *Euskera*, 1928, IX, 337-349 orr.; F. Mendizabal, «Lardizabal'en euskeraz zertxobait», *Euskera*, 1956, 183-205 orr.; eta, J. Garmendia Arruebarrena, «Noticias desconocidas sobre Francisco Ignacio de Lardizabal», *BAP*, 1980, 407-9 orr.

[144] Guk erabilitakoak, Testamendu Zaharrerrako, Tolosa 1887ko 2. argitalpena (adibideetarako TZ), eta Berrirako, Euskaltzaindia, Bilbo, 1957 (TB), uste dugunez, bietan errespetatzen direlarik jatorrizko testuak, nahiz lehenengoak akats tipografiko ezin gehiago erakutsi, eta bigarrena ortografia garaikotu batean eman.

[145] Lardizabalek berak esaten duenez Testamenduco Condairaren itz-aurrean: «*Francia-co Apaiz Larregui-c ere, orain irurogueita amar urteco diralaric, argitaratu zuen TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO HISTORIA-ren icenarequin liburu luceago bat, ...*» Kontutan harturik honen lehen liburukia 1775ekoa dela, eta bigarrena 1777koa, urteak sumatuaz, ez du ematen 1845 eta 1847 urteak baizik, Lardizabal hitzaurrea idazten ari zena.

4.3.1.1. Aditza atzeratzen Larreguyren prosarekiko.

Berea konposatzeko, Lardizabalek ezagutu eta erabili bide zuen hainbat, bere Itz-aurrean aipatzen duen, Francia-co Apaiz-Larreguiren, *Testamen çaharreco eta berrico historioa* (Baiona, 1775-1777; Hordago, 1978). Oro har Lardizabalek, ez dio oso gertutik jarraituko Larreguyri, baina badira bietan zenbait pasarte, alderagarriak direnak, eta zeinetan ez den zailegia egiten pentsatzea, Lardizabalek Larreguyrena erabili ote duen zuzeneko iturri bezala. Segidako adibideetan suma dezakegun bezala, bien artean aldaketa nabarmenik baldin badago, da, aditzaren gunearena: aurrera antzean Larreguyk, atzeratua Lardizabalek (lehenak Larreguyrenak):

(132) Jaincoac nahi içan-du ez deusetaric athera mundua eta han direnac. (13)
Jaungoicoac mundu au, eta emen diran gauza guciac ecer ezetic atera nai izan cituen. (5)

(133) Jaincoac athera-cituenean ez deusetaric cerua, lurra eta ixasoa, eta eguin-çuenean guizona, bere idurico, ematecotzat nausi bat munduari, eçarriçuen nahikara eta delicio gucien parabisuan: ... (16)
Jaincoac cerua, lurra, itsasoa, eta beste gauza guciac ecer-ecetic atera, eta guizona bere antzera eguin zuenean, Paradisua ceritzan lorategui edo baratza eder batean ipiñi zuen. (6-7)

(134) Adame eta Eva hasi-içan ciren eçagutcen bere erorico caltiarra, ikhustetic bulhuciac-cirela. (21)
Adan eta Eva bereala asi ciran beren erorico caltarquitsua ezagutcen, billosi icusi ciranean: ... (9)

(135) Abraham bihurtu-cenean Sara bere emaztearequin eta Lot bere illobarequin, ... (41)
Abran, Sarai, eta Lot beren gauza guciacquin Canaan-go lurrera itzuli ciranean,... (19)

4.3.1.2. Aditz atzeratuen monotonia Lardizabalen prosa narratiboan.

Larreguyrekiko konparaketa, beharbada, anekdotiko honezaz gain, ohargarriak gertatzen dira Lardizabalen prosan, berez, pasarte narratiboak, zeintzuetan Lardizabalek, Guerricok ere bezala, dudarik gabe praktikatzen duen aditz atzeratzearen erregela. Prezeski pasarte narratibo hauek behar luketenean aditza aurreratuen euskal tradizio guztietan.[146] Joera honen adibide ezin argiagoak dira Testamendu Zahar, nola Berriaren, hasierako lerrokadak (136, 137 adibideak), edota Lardizabalen prosan nonnahi aurki litezkeen antzeko pasadizoak, aditza sistematikoki, monotonoki, atzeratzen dutenak esaldiz esaldi:[147]

(136) Jaungoicoac mundu au, eta emen diran gauza guciac ecer ezetic atera nai izan cituen. Sei egunean gucia eguin zuen. Lenengoan cerua, lurra, urac, sua eta arguia eguin cituen. Bigarrenean firmamentu edo gañean daucagun estali urdin ori eguin, eta onen gañeco urac, beecoetatic berecitu edo apartatu cituen. Irugarrenean beeco ur oyec batu, edo lecu batera bildu cituen, eta leorra aguertu zan; ...(TZ,5)

(137) Jaungoikoak asieran zeru-lurrak gizonaren servitzorako egin zituen; eta gizona Jainkoaren servitzorako: baña gizona bere Egillearen kontra bereala jaiki zan, eta ordutik Zeruari aserrerazo zion, eta zerekin pakeak egin etzuela arkitu zan. Jainkoa errukitu zan, eta Bitartekotzat bere Semea eskeñi zion, ... (TB,11)

---

[146] Are Altube berak ere ondo postulatu, eta areago praktikatu bezala, *Laztantxu eta Betargi* kontakizunean (Baiona, 1957, A. Lertxundi izenpean; Hordago, 1979).

[147] Eraginaz hala paragrafoen monotonia, eta ere geldotasuna. Beharbada ezaugarri hau da, berak hala aitatzen ez badu ere, Don Carmelo Echegarayri eragiten diona esatera ondorengo hitz gogor, baina justuak, Lardizabalen estilo hotz eta hilaren gainean, hau kontrajarriaz J.B. Aguirreren bihoztunari (*Apéndice a la obra 'Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa' de D. Pablo Gorosabel*, Tolosa, 1901, 22-3 orr.: «*... Lardizabal, de cuyo Testamentu zarreko eta berriko kondaira dije en otra ocasión que atesora la que pudiéramos llamar perfección negativa del estilo, aquella que consiste en la carencia de todo defecto cuidadosamente evitado. Es un libo pulcro, terso, correcto. Dice las cosas con claridad y con los términos mas castizos y adecuados. Pero falta el juego de dicción, el calor del estilo, aquella especie de vida densa que palpita en las clausulas de los grandes escritores, y sin la cual no se alcanzan los laureles de la inmortalidad. No basta la elegancia rebuscada y artificiosamente sostenida para subir a las cumbres del arte. La palidez, que es signo de anemia en lo fisiológico, es también, en materia de estilo, revelación de empobrecimiento espiritual. Ni el tornear de la frase, ni el sabor castizo de la dicción suplen la ausencia de otras cualidades mas internas y valiosas, de cuya excelencia dependen los méritos principales del literato. No es Lardizabal escritor imaginativo y pintoresco: es prosista sobrio y sencillo, que no aspira mas que a decir las cosas con la mayor llaneza y transparencia, sin procedimientos efectistas, sin empeñarse en ardua lucha con la paleta del pintor. Es de los autores que se hacen leer con gusto, no de los que arrastran y subyugan, ni de los que provocan y encienden generosos entusiasmos. / Entre estos escritores acendrados y modestos, que no tuvieron grandes condiciones de artista, pero que supieron llegar al corazón de las gentes vascongadas, ..., merece puesto de preferencia el docto catequista D. Juan Bautista de Aguirre, ...*». Urte asko beranduago antzeko konparaketa egiten du bi autoreon artean L. Mitxelenak, esaten duenean («Relato y orden de palabras», in «Miscelanea Filológica Vasca, I», *FLV*, 1978, X, 205-228 orr.; *Palabras y Textos*, 1987, 380 orr.): «*..., me es difícil escapar a la convicción de que en Aguirre y en Lardizabal hay dos ordenaciones muy diferentes de palabras y que éstas no son mas que la cara manifiesta de dos maneras distintas de contar. Así, a ojo, uno diría que la de Aguirre es mas popular, mas atenida al relato oral, y menos libresca.*»

(138) San Juan Bauptista arestian utzi degu; Judea-n erakusten; baña nork gaizki ikusi izan zuelako, aldegin bearrean arkitu zan, eta Judea utzirik, Galilea-ra joanda, Salim-go eremu bakarrean jarri zan. Emen bere bizitza on, eta erakutsiakin gende guzia berari begira ipiñi zuen. Herodes alderdi artako Tetrarka edo agintariak ere asko nai zion; baña Profeta andi onen esanak ezin eramana biotzean laster sartu zitzayon. (TB,31-2)

4.3.1.3. Lardizabalen egitura altubetarrak (galdegaia + aditza).

Aurreko bi sailetan emandako adibideei begira ikus litekeen bezala, Lardizabalen aditz atzeratzearen erabakiak, oso oso maiz eragiten ditu esaldi egitura altubetarrak, aditza emaa «Xà» egitura batean, ondoretik erantsita, esaldiko galdegai berari, kasuan bere aurreko elementu tonikoenari. Zenbaitetan aurki litezke halako adibideak Lardizabalengan esaldi biz bat ere ia, hemen jasotzen ditugun errezkadako hamarretan bezala, orrialde bakar batetik atereak, denak bere aditzaz amaituak (TZ,12):

(139) Adan-ec, Abel illa, eta Cain iguesi joan citzayonaz gañera, Seth ceritzan beste seme bat izan zuen. Onen ondorengoac luzaró Jaincoaren bildur andian vici izan ciran; baña Cain-en ondorengo nescach ederrai on-iritcita, escontzaz nastu ciranean, gaistotcen asi ciran. ... Gueroenean guizona eta onequin batean lurreco vicicor edo vicidun guciac ondatceco asmoa artu zuen; ... / Munduaren asieratic, ugolde izugarri baten bitartez ondamen au eguin zaneraño, milla, eta sei eun, berrogueita amasei urte igaro ciran. Dembora onetan Adan-gandic Noe-gana amar belaun edo guizaldi izan ciran, ... / ... Lenengo; mundua, Jaincoac ecer-ezetic eguin, eta aimbeste gauza on ederrequin jantci ezqueró, guiza-seme-esque cegoan; eta lemdabicico guizónac luzarò vicitcea on zan, ... Bigarrengo; lurra berri eta garbia cegoan ...; eta ematen cituen jan-gauza guciac gaitz gabeco osasuntsuac ciran; ...

Lardizabalen praktika hala, gehiago gerturatzen zaio Guerrico batenari, azken Cardaverazen trakestasunei baino. Distantzia hori ere markatzen du, Lardizabalen joerak, esaldi nahikoa laburrak erabiltzeko, usuenik behintzat, Cardaverazen aldean.

4.3.1.4. Etenak galdegaia eta aditzaren artean.

Ez dira hala ere zuzenean egitura altubetar bihurtzen, Lardizabalek aditza atzeratzen dien esaldi guztiak. Nahikoa maiz gertatzen zaio Lardizabali ere, Guerricori bezala, eta hainbat gehiago Cardaverazi, aditza beti ahal bezain bat atzeratu nahiaren kariaz, hainbat elementu tartekatzea esaldiko galdegaia eta aditzaren artean. Eta tartekatze horiek agian Cardaverazenak bezain lotsagabeak izango ez badira ere, dudarik gabe segitzen dira gertatzen euskaraz, bitxiak eta ohitura guztiez kanpokoak, aditza eta honen aurreko elementu tonikoenaren arteko «Xà» perifrasia hausten denez gero. Adibide ugari jaso dugu gure ADIBIDETEGIAN, askoz gehiago hala ere Lardizabalen testuetan, eta hemen segidan batzuk, erakusgarri (beti argiagoak liratekeenak hala ere beren testuinguru zabalago batean):[148]

(140) Etzerate, ez, illco, etsayac esan cion; ... (TZ,8)
(141) Jaincoac suguea lenengo madaricatu zuen, ... (TZ,9)
(142) ...; miñez aurrac eguingo dituzu; ... (TZ,9)
(143) (Escritura Santac ez digu esaten, orduco guizonac cergatic aimbeste urtean vici izaten ciran;) baña Eracusléac cembait arguibide gai onetan ematen dizquigute. (TZ,12)
(144) ..., eta berri ayec guciac gurasoetatic semeatara onela aldatuaz, luzaró, escribuz ezarri artean, gorde ciran. (TZ,13)
(145) Aingeruak Maria-ren izaera Jose-ri agertzen dio. (TB,17)
(146) Simeon-ek onetan ziardun bitartean, Ana Profetiza an agertu zan. (TB,20-1)
(147) Nazaret-en bizi zirala, Jerusalen-go Elizara urteoro oituraz joaten ziran, ... (TB,22)
(148) ...: eta Eliz-gauzak egiten zazpi egun igarotakoan, Nazaret-erontz gurasoak itzuli ziran. (TB,22)
(149) Eremu bakarrean gamelu-illez eotako soñeko zatar batekin gorputza estaltzen zuen; ... (TB,23)
(150) Ondoena dagoquiguna obeto iristeco bitartecotzat Santuac ceruan dauzcagu: ... (SR,3)
(151) Emen iru Aita gure eta Ave Maria San Roque-ren onran esaten dira, ... (SR,7)

4.3.1.4.1. Etenak koma batez galdegaia eta aditzaren artean.

Aditza eta galdegaiaren arteko «Xà» egituraren etena Lardizabalek ez du bakarrik adierazten, tartean beste zenbait elementu emanez. Baita ere, aditzaren aurrean koma bat ezarriaz, dudarik gabeko eten baten adierazle, eta, ikusi dugu,

[148] Hauetako zenbaitetan ere pentsa liteke, Cardaverazenean egiten genuen legez, berez esaldiko galdegai-edo diren elementu haiek ez ote dauden bigarren pauso batean eramanda esaldien aurrealdera. Ez ote dituen Lardizabalek idatzi esaldi guztiok, lehenik, tradiziozkoago modu batean-edo: (140a) *Etsayac esan cion: etzerate, ez, illco; ...*; (142a) *...; aurrac eguingo dituzu miñez; ...*; (146a) *..., an agertu zan Ana Profetiza.*; (148a) *(...: eta Eliz-gauzak egiten zazpi egun igarotakoan) itzuli ziran Nazaret-erontz gurasoak*. Eta bakarrik bigarren pauso batean eraman esaldi aurrealdera hasiera batean aditz ondorean emandako galdegaiak, beren hartan gordeaz, aditzek lehen idazkeran osatutako «Xà» egiturak, orduan beren aurreko elementu tonikoena zenarekin. Hipotesia, Cardaverazen kasuna frogatu bezala, ez da zientzia fikziozkoa. Eta agian froga liteke, inoiz Lardizabalen eskuizkribu berriak aurkitzen badira (ikusi honen inguruan I ERASKINA ere).

Cardaverazek edo Guerricok ere egiten zuten bezala. Adibideak nahiko ugariak dira, eta hemen batzuk gure ADIBIDETEGITIK:

(152) Baña bere leyaltasuna cembaterañocoa zan, icusi nai izan zuen. (TZ,7)
(153) Cer neurri, eta guisacoa izan bear zan, eracutsi cion. (TZ,13)
(154) Circuncisio onec, orain batayoac becatu jatorrizco edo orijinala barcatceco duen indarra, zuen; ... (TZ,24)
(155) Bere lan-eguite, icerdi, eta contu onarequin, urte guichiren epean chit, aberastu zan. (TZ,30)
(156) (...: Ni Gabriel Jainkoaren aurrean nagoana naiz,) eta zuri, berri on au ematera, nator: ... (TB,13)
(157) ..., eta San Jose, au egin bearrean, arkitzen zan, ... (TB,16)
(158) Herodes, agindu gogor au eman zuen Erregeak, zegokion saria, artu zuen. (TB,22)

4.3.1.5. Galdera hautsiak Lardizabalengan.

Lardizabalek ere ematen ditu tarteka galderak, beste elementu batzuk tartekatuta galdegilea eta aditzaren artean; gure tradizioan hainbat usuzkoa ere baden bezala, galdera erretoriko modukoetan edo. Lardizabalek hala ere, Cardaverazen ildotik, gure tradizioan baino hainbat maizago erabiliko du errekurtso hau, zerikusi zuzenean aditza atzeratzearen erabaki orokorrarekin, beti izango bada ere ohizko galdera egituren artean. Adibide gutxi batzuk hemen segidan (hainbat gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(159) ...; ¿cergatic ori eguin dezute? (TZ,67)
(160) ...; ¿cer gure Jaunari erantzun dizayoquegu? (TZ,67)
(161) ...; ¿nola nic atzo eguin dedana zabaldu da? (TZ,75)
(162) ¿Nork, Jainkoak bestek, bekatuak barkatu ditzake? (TB,46, eta berdin, 56)
(163) ¿Nola zuen Maisuak bekatariekin jaten du? (TB,46)
(164) ... ¿gizonak zeren truke bere anima emango du? (TB,67)

4.3.1.6. Galderetako aditzak esaldi atzealdera.

Beste askotan, aditza atzeratzeko modu bezala, Lardizabalek ere, galdegilea eta aditza, biak eramango ditu batera esaldiaren atzealde edo bukaerara, ikusi dugun bezala egiten zutela Cardaverazek, Guerricok, eta inork baino maizago Olaecheak, euskarazko beste tradizioez bestela. Hemen adibide gutxi batzuk:

(165) ¿Anaya Abel non dezu? (TZ,11)
(166) .. ¿illunabarrean zure eche onetan sartutaco guizon arrotzac non dituzu? (TZ,26)
(167) ...; ¿guganontz datorren guizon ori nor degu? (TZ,35)
(168) ... ¿eguiaz eta menaz Jaincoa bera dagoan lecu bedeincatu oyecgatic cer esango zuen? (TZ,42)
(169) Ordea ¿Jaincoaren contra guizonen asmòac cer dira? (TZ,72)
(170) ¿Oyentzat ogia non erosiko degu? (TB,59)
(171) ¿Baña onenbeste lagunentzat oyek zer dira? (TB,59)

Lardizabalek eramango ditu esaldi atzealdera zenbaitetan, galdera absolutoetako aditzak ere, beste esaldi nagusietakoak bezala, nahiko modu ezohizko eta bitxi batean, segidako honen antzean:

(172) ¿Emakume ori dakusu? (TB,56)

4.3.1.7. Atzeratzen aginterazko aditzak.

Sail hau da, froga bat gehiago, Lardizabalen aditz atzeratze erabakiaren artifizialtasunarena. Ez da gure hizkuntzan batere ohizkoa, aditz mota hau esaldi bukaera aldera ematea, eta gutxiago Lardizabalek egiten duen proportzioan. Adibideak kontaezinak izan litezke, eta ez ditugu hemen segidako bi kateak baino jasoko (bigarrena Lardizabalen Aita Gure kuriosoa):

(173) ...: zure anayaen jaun izan zaite; eta zure amaren seméac zure aurrean macurtu bitez: zu madaricatcen zaituena, madaricatua izan bedi, eta zu bedeincatcen zaituena, bedeincazioz bete bedi. (TZ,40)
(174) (Jesus-ek orduan esan zien: Onela erregutuko dezute:) Aita gurea, zeruetan zaudena, zure izena santuro erabilli bedi; zure Erreinua gugana betor; zure naya, zeruan bezala, lurrean ere egin bedi. Gure egunoroko ogia gaur iguzu; gure zorrak barkatu zazkiguzu, guk gure zordunai barkatzen dieztegun bezala; utzi ez dizaguzu tentazioan erortzen; ezpada gaitzetik gorde gaitzazu. Ala izan bedi. (TB,38)

4.3.1.8. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditz trinkoak.

Bederen hegoaldeko ohituraz bestela, nahikoa maiz aurki litezke *ba*- aurrizkidun aditz trinkoak Lardizabalengan, esaldi bukaera aldera emanak; nahiz hala ere, maizago emango dituen aurrealdean, euskararen tradizio guztietan ohi bezala.

Segidan adibideren bat, guk oro har puntuari atentzio gehiegirik eskaini ez badiogu ere (galdera bitxiren bat ere tartean):

(175) Adan-ec bideric asco bazuen, bere Eguille andiari leyal izateco; ... (TZ,7)
(176) Abraham-gandic lenengo aldeguin zuten bi ayec illunabarrean Sodoma-ra bacijoacen. (TZ,25)
(177) (Jaincoac Erregueari esan cion,) zure fede onaren berri badet; (argatic becatutic gorde ere zaitut: ...) (TZ,28)
(178) ...; eta sua eta ganibita berac escuan cituela, gañerontz bacijoacen. (TZ,31)
(179) (... galdetu ciguzun) ¿Aitaric edo anayaric badezute? (TZ,67)

4.3.1.9. Aditza atzeratzen ezezko esaldietan.

4.3.1.9.1. Inbertsiorik gabe konposatuak.

Lardizabalek ere erakusten du ohitura, ezezko esaldietako aditzak atzeratzeko ezohizko neurrietara. Konposatuak badira, maiz emango ditu inbertsio gabeak, Larramendik predikatu moduan, nahiz beste hainbeste ere erabili inbertsiodunak. Inbertsiorik gabeko adibide batzuk:

(180) ...; baña onelaco apuco eta aitzaquiac, Jaincoaren aurrean ecer balio etzuten. (TZ,9)
(181) Abel, berez paquetsua, eta gaitz gabea izanic, gaitz pensatu etzuen, ... (TZ,11)
(182) ¿Cergatic esan ez didazu, Sarai zure emaztea zala? (TZ,19)
(183) ..., eta bere aginteak atzenik izango ez du. (TB,14)
(184) ..., zeru-lurrak dirauten bitartean, nere legeari tilde bat ere kenduko etzayo, ... (TB,34)
(185) Eskriba eta Fariseoak baño zuzenagoak ezbazarete, Zeruetako Erreinuan sartuko etzerate. (TB,34)

4.3.1.9.2. Aditz trinkoak atzeratzen ezezko esaldietan.

Lardizabalek badu ohitura, aditz trinkoak ere atzealde edo bukaerara bidaltzeko ezezko esaldietan, modu nahikoa bitxian, euskarazko ohizko joskeren kontrara. Bihoaz adibide gutxi batzuk, Lardizabalengan nahikoa maiz aurkitzen direnen artetik:

(186) ...; gaitcic gogoan etzuten: ... (TZ,9)
(187) Dembora onetan Abran-ec humeric etzuen. (TZ,21)
(188) ...; baña, Benjamin jayo berria bidean nola-nai erabiltceco etcegoan; ... (TZ,54)
(189) ..., zein begi onakin begiratu zion esatea, erraz ez da. (TB,17)
(190) Juduak eta Samaria-tarrak Erlegioko gauza askotan bat etzetozen; ... (TB,29)
(191) Oyek egitera Kristaua beartua ezdago; ... (TB,36)

4.3.1.10. Atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.

Aditzak atzeratzeko joera Lardizabalek ez du mugatzen esaldi nagusietara. Bada mendeko esaldietan ere aditzak esaldiaren amaierara bidaltzeko ahalegina, nahiz ezin salbuespen ugariagorekin, ikusiko dugun bezala. Aditza atzeratu nahi horretan, Lardizabalek maiz hautsiko ditu mendeko esaldietan ere, bestela ohizkoak liratekeen perifrasi modu estuak, aditza ete honen aurreko elementu tonikoren baten artean (nola galdegile eta aditzen artekoak zehar galderetan), beste konplementu batzuk tartekatuaz bien artean, hauek ez ematearren, pentsa liteke, aditzaren eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen ondotik. Hala ere, pentsa liteke beharbada, Lardizabalek ez ote dion esaldi nagusietan bezainbesteko garrantzirik ematen aditza atzeratzeari mendekoetan, kurioski, Cardaverazek eginaz bestela. Segidan adibide batzuk erakusgarri, Lardizabalengan erruz aurki daitezkeenen artetik:[149]

(192) ..., arguia eguin bedi, Jaincoac esan zuenean, ... (TZ,6)
(193) (... amar belaun edo guizaldi izan ciran,) guciac urte asco munduan eguin zutenac. (TZ,12)
(194) (Escritura Santac ez digu esaten,) orduco guizonac cergatic aimbeste urtean vici izaten ciran; ... (TZ,12)
(195) (..., eta Noe-ri esan cion,) gogoac ciona, oyecquin eguin cezala; ... (TZ,15)
(196) ...; Céñac eracusten digute, cer beguirune edo errespeto gurasoai zor diegun, (eta cein bildurgarria dan gurasoai farra eguitea, ...) (TZ,16)
(197) (Maria-k Isabel-en etxean iru illabete egin zituen,) sabelean zer zeukan Zakarias-i eta besteri, esan gabe: ... (TB,15)
(198) (... Zesar Augusto-k agindu zuen,) bere mendeko guzien izenak, nori bere aurrekoak nondik zetozkion, erri artan artzeko: ... (TB,17)
(199) ...: eta Cesar Augusto-ren mendekoa Nazaret izanik, ... (TB,17)
(200) (... Elizan topatu zuten, Jakintsuen erdian eserita,) egiten ziezten galde eta ematen ziezten erantzuerakin guziak arritzen zituela. (TB, 23)

[149] Berriro, ez litzateke zailegia izango asmatzea, zein ordenamendu izan zezaketen segidako esaldi hauetako zenbaitek beren jatorri batean, hainbat konplementu erakutsiaz mendeko aditzaren ondotik, euskaraz segurasko ohizkoagoa litzatekeen joskera batean, nola adibidez: (192a) *Jaincoac esan zuenean, arguia eguin bedi, ...*; (195a) *..., oyecquin eguin cezala gogoac ciona; ...*

4.3.1.10.1. Atzeratzen ezezkako esaldi konpletiboetako aditzak.

Cardaverazek eta Guerricok bezalaxe, Lardizabalek ere ohitura erakusten du, mendeko esaldietan atzeratzeko, ezezko esaldi konpletiboetako *-(e)la* atzizkidun aditzak ere, eta emanez hauek inbertsiorik gabe, konposatuak baldin badira. Segidakoak erakusgarri, ugari askoren artetik:

(201) (...; baña laster ezagutu zuen,) lurra elcorragoa, eta lenago bezain gozoa eta ugaria etzala. (TZ,15)
(202) (..., eta erantzun cion, ...:) baña idoloric ostu etzuela. (TZ,48)
(203) (... aitortu zuen,) Faraon-en alabaren semea etzala, ... (TZ,75)
(204) (... esaten dizut,) atzeneko ardita pagatu arteraño, andik irtengo etzerala. (TB,35)
(205) (... iragarri zion, ...;) baña ontzian zijoanik iñor ere galduko etzala. (TB,219)

4.3.1.11. Atzeratzen esaldi koordinatu sailetako aditz laguntzaileak.

Lardizabalek, Cardaverazen antzera, nahikoa maiz erabiliko du esaldiak bata bestearen atzetik koordinatzen joateko sistema, guztientzat aditz jokatu (eta elementu mendekotzaile) bakar bat emanez sailaren amaieran. Baziren halako esaldiak goiko adibideen artean, eta oso ugariak dira Lardizabalen prosan segidako labur hauen modukoak:

(206) Echetic cerbait aldeguin zutenean, Cain-ec, bere anayaren contra alchatu, eta Abel il zuen. Lembicico odol-ixurtce au eguin, eta bereala Jaincoac Cain-i otseguin cion. (TZ,11)
(207) Cain, bada, bere biotceco arra ecin quendu, eta eramanic, gurasoen echetic irten, eta Eden-dic campoan, eguzquiaren sort-aldeco bazter batean bici [i]zan zan, ... (TZ,11)
(208) ...; mundua, Jaincoac ecer-ezetic eguin, eta aimbeste gauza on ederrequin jantci ezqueró, (guiza-seme-esque cegoan; ...) (TZ,12)
(209) Cuchatic irten, eta lurrean jarri zanean, aldare bat eguin, eta abere garbi zazpigarren banaca pareatu gabe ayec Jaincoari ofrendan esqueñi ciozcan, ... (TZ,15)
(210) ¡Izen zoragarri, gure illuntasunak argitu, naigabeak poztu, nekeak arindu, negarrak leortu, eta gaitzak sendatzen dituena! (TB,19)
(211) Bederatciurren au eguin nai danean, San Roque-ren aldare edo imagiña baten aurrean belaunicatu, ciñatu, Nere Jesu-Cristo Jauna esan, eta gueró eguneroco oracioa eguiten da. (SR,5)

Larramendik, gordin kritikatzen zion Cardaverazi halako joera (erantzuten zionean bere zentsuran: *En las claúsulas largas hai grande obscuridad por no repetir las terminaciones del verbo*). Ez da hala ere horrenbesteko iluntasunik gertatzen Lardizabalengan. Baina honek, oro har, Cardaverazek baino esaldi laburragoetan erabiltzen du sistema,[150] eta maiztasun txikiagoz segurasko (nahiz, esateko, Guerricok baino maizago ere).

4.3.2. Baina Lardizabal eraberean da, tradiziozko ordenamenduen eredu.

Tradizioz bestelako joeraz gainera, aditza ohizko neurri guztiez harago atzeratzeko, Lardizabalek hala ere, nabarmen segitzen ditu gordetzen bere prosan, gu orain artean tradiziozko bezala izendatzen etorri garen ordenamendu ezaugarri zenbait, eta oro har, aditza mantentzen segiko dutenak esaldiaren aurreko guneetan.

4.3.2.1. Lardizabalen galdegaiak aditzaren ondoretik.

Aditza atzeratzeko ahalegin guztiak eginda, Lardizabalek halaz eta guztiz oso maiz ematen ditu esaldietako galdegaiak, nabarmen, hauen aditz ondoretik. Are gehiago, esan liteke, joera hau legea ere badela ia, entendimentuzko aditzez-edo ari garenean (Larramendiren eta bere *aditz determinanteak*). Ordea ez da bakarrik gertatzen hauekin, segidako adibideen artean argi suma litekeen bezala (askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN):[151]

(212) Itzcuntza gucietan dituzte beren liburúac, eracusten dieztenac, ... (TZ,3)

---

[150] Horretatik segurasko guztiek, hala ere, onartu dioten argitasuna, edo behintzat, iluntasun eza. Nahiz berari ere, aditza atzeratzeko duen joera neurrigabeak, joka liezaiokeen tarteka pasada txarren bat, esaldia piskaren bat luzatzen zaion orduko, bere ohituraren kontra. Bat emate arren, eta badira gehiago, segidako esaldi luze iluntxoa, 54 hitz, 154 silaba, aditz nagusi bakarra nahiko atzeratua, 122 silabaren ondoren, eta mendeko esaldi koordinatu kate desberdin nahasi samar batzuez osatua: ... *Eldu zanean mirari ez-ikusi au, eta Jainkoaren eskuetatik irtendako lanik andiena, egiteko egun, lau milla urte ayetan mundua begira zegokiona, Jakob-en ondorengo alaba bat, virgiñatasuna galdu gabe, ama egin, eta Jainkoak, Jainkotasuna utzi gabe, gizatasuna artu bear zuena, San Gabriel Aingerua Maria-ri joan zitzayon Nazaret zeritzan Gelilea-ko errira, non bizi zan San Jose-rekin ezkonduta.* (II,13). Kondizio horietan ez da harritzekoa esaldi bat ilun bihurtzea.

[151] Zentzu honetan ohargarria da, nola emango duen Lardizabalek, bere *Testamentu Zarraren* amaieran, *María eta José-ren Adan-ganañoco asabac* atala, SAO (SVO) ordena kanonikoenean: *Adan-ec sortu zuen Set. / Set-ec sortu zuen Enos. / Enos-ec sortu zuen Cainàn. / Cainán-ec sortu zuen Malaleel.* ...; eta horrela 60ren bat esalditarainoko zerrenda luzea (edozein hitz ordenamendu estadistika zalantzan jartzeko modukoa, bera bakarrik ere). Aipua jasotzen dugu, Lardizabalen liburuaren bigarren argitalpenetik, Tolosa, 1887, 388 or.

(213) ... Apaiz-Larregui-c ere, ..., arguitaratu zuen TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO HISTORIA-ren icenarequin liburu luceago bat, ... (TZ,3)
(214) Nic, bada, ..., artu nuen, Guipuzcoa-co nere euscaran berri bat ipintceco, eta arguitaratceco asmoa. (TZ,3)
(215) ...; urai edo ur-lecuari deitu cion itsasoa, (eta leorrari lurra.) (TZ,5)
(216) ...; baña mundu galdu onetan arquitu zuen Noé ceritzan erru gabeco guizon zucen bat, ... (TZ,12)
(217) ..., eta onen bitartez jarri zan barkazioa iristeko bidean. (TB,11)
(218) ..., eta bere gaiztakeriakin Jainkoa beartzen zuen, kastigu gogorrak bialtzera. (TB,11)
(219) ..., aurretik izan bear zuen Berri-emalle bat, bideak garbituko ziozkana, ... (TB,12)
(220) ..., eta irten zanean, ikusi zuten mutututa, ... (TB,13)
(221) ..., baña ama, Aingeruak esanik zeukalako, leyatzen zan, Juan ipintzeko. (TB,15-6)
(222) Emen esan edo cantatcen dira atzenean dauden gozo edo versoac; ... (SR,10)

4.3.2.2. Lardizabalen aditzak esaldi hasieran.

Esaldietako galdegaiak aditzen ondoren ematen, Lardizabalek gainera, usu hasten du esaldi ugari zuzenean aditzaz. Kasu gehientsuenak izango dira entendimentuzko aditzak, baina baita bestelakoak ere, nola ikus litezkeen segidako adibideetan (askoz gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(223) Icusi degu, ... joan zala. (TZ,19)
(224) Asi ciran indarrez sartcen. (TZ,26)
(225) ..., eta izan cituen bi seme Moab eta Amon, ... (TZ,27)
(226) ..., eta icusi zuen alboan chiquiro bat sasian ... (TZ,31)
(227) Ipiñi cieten len aimbat adrillu egunoró eguin bearra, ... (TZ,77)
(228) Erakutsi ziozkan etorkizunak, zer egin, eta nola bizi: eta eraman zuen Bitarteko andi onek gizonak erosi eta erremediatu bear zituen lekura. (TB,11)
(229) ..., eta geratu zan, Jainko izateari utzi gabe, gizon eginda. (TB,14)
(230) ..., eta jarri zan Jainkoari eskerrak ematen, ... (TB,17)
(231) ..., eta eman zioten Aingeruak Amari erakutsitako izen Jesus, zeñak ... (TB,19)
(232) ..., eta aditu zan ots bat, ziona: Au da nere Seme maitea, ... (TB,24)

4.3.2.2.1. Aditz trinkoak ere tarteka esaldi hasieran bertan.

Askoz tartekatuago baldin bada ere, Lardizabalek ematen ditu inoizka aditz trinkoak zuzenean esaldi hasieran. Gehienak entendimentuzkoak-edo, baina baita bestelakoren batzuk ere. Segidan adibide batzuk (eta beste gutxi batzuk gehiago ADIBIDETEGIAN):

(233) ..., eta ceritzan Jacob. (TZ,36)
(234) Dacusu zartu naizala, ... (TZ,39)
(235) Ciotsan, bada; Het-en alabac vicitzez asperturic naucate, ... (TZ,41)
(236) (..., ez; pake orrekin ez nator, ...) Nator Banakatzera semea aitagandik, alaba amagandik, ... (TB,52)
(237) ...: Dakusute, zuekin zer egin dedan. (TB,108)
(238) Zekusten, nola donario ederrean, eta anditasun guziarekin igotzen zan, ... (TB,157)

4.3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Egia bada ere gorago ikusi dugun bezala, Lardizabalek joera erakusten duela aditza ohizko neurriz gainetik atzeratzeko mendeko esaldietan ere, ez horregatik geratzen da eman gabe hauetako asko ondo hautsita, behar adina konplementu erakutsiaz aditzaren, eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen ondotik; eta proportzioan, beharbada, Cardaveraz eta Guerricok baino gehiago ere bai. Horrela gutxi batzuk segidan (gure ADIBIDETEGIKO ezin ugariagoen artetik):

(239) ..., beguien aurrean ipintcen dieztela artuizan dituzten mesedeac, ... (TZ,3)
(240) (... dituzte) beren liburúac, eracusten dieztenac, Jaungoicoac eguin dituela, ... (TZ,3)
(241) ..., eta icusiric, chit ederra, eta jateco ona zala, ... (TZ,8)
(242) Noe-c icusi zuenean ... mundua chucatu zala, ... (TZ,14)
(243) (...; eta badira) diotenac, Sarai Abran-en illoba zala; ... (TZ,18)
(244) Eldu zanean mirari ez-ikusi au, ... (TB,13)
(245) (Au zion,) Jainkoak esanik zeukalako, Israel-ko poza ikusi gabe etzala ilko. (TB,20)
(246) ... guziak lenago galdu bear dirala, hura baño. (TB,35)
(247) ..., eta ikusi zuenean Mateo aulkian eserita, ... (TB,46)
(248) ..., ezaguturik berak bakarrik asko etzirala Jesus galtzeko, ... (TB,63)
(249) ..., icusiric Colera-morbo deritzan izurriac, mundu gucian cer ondamen negargarriac dacarzquien, ... (SR,3)
(250) ..., San Roque gaztea muguitu cenduena, zuri osotoro jarraitceagatic bere echea eta aideac uztera, ... (SR,13)

4.3.2.3.1. Erlatibozko esaldiak beren izen erregimen mugagabearen ondotik.

Aparteko aipamena merezi du, Lardizabalek egiten duen erabilpen ikaragarriak esaldi mota honena, nahiz, ikusi dugun bezala, Gramatican gaitzetsi nahi izan, maisu Larramendiren itzaletik. Segidan egitura hauen adibide sail bat (gure ADIBIDETEGITIK aukeratua):

(251) ¡Jan zorigaiztoco mocadu negargarri, aimbeste ondamen ecarri zuena! (TZ,8)
(252) ... bacoitzari bere itzcuntza bereci besteac etciequiena (Jaincoac eman cien, ...) (TZ,16-7)
(253) (...; argatic) guizon zucen, Jaunaren bildurreco, eta etorquizun gaiztoai bideac ebaqui nai cieztenac (bezala, Lot-i bere gogoa aguertu cion.) (TZ,20)
(254) ..., bi erri edo jende, bata bestearen contra beti ibillico ciranen (buru izango cirala, ...) (TZ,36)
(255) Zazpi urte abuztu ugaria eman bear zutenac (asi ciranean, ...) (TZ,63)
(256) (... prestatu zan,) Mesias ondoren zetorkionaren (berriak munduari ematera, ...) (TB,16)
(257) (... ezkutatu zitzayen) izar eder, lenago bidea erakutsi ziena. (TB,20)
(258) (... arkitzen zan) Euntari edo zenturion baten morroi elbarri ezin ibilli, eta iltzer zan bat. (TB,42)
(259) (..., Herodes-en emazte-ordekoak, zeukan) bere egiazko senar utzi zuenagandik (izandako alaba txit eder egokia: ...) (TB,57)
(260) (Bost garagar ogi, eta) bi ezkalu mutiko batek zeuzkanak (arkitu zituzten.) (TB,59)
(261) (... ¿au ez da) Jose-ren seme, bere ait-amak ezagutzen diozkaguna? (TB,61)
(262) Jaungoico eta Jaun, zure Santuai gauzaric andienac eguiteco arguia eman izan diezuna, eta dembora batean Abraham bezala, San Roque gaztea muguitu cenduena, zuri osotoró jarraitceagatic ... (SR,13)

4.3.3. Hitz erregimen buruen atzeratze ezohizkoak Lardizabalen prosan.

Bada dirudienez Lardizabalek, 1821-27ko azken Añibarrok bezala, ez dio soilik euskal aditzari aplikatzen ezaugarri pospositiboa. Baita ere zenbaitetan agidanean, sintagma bakoitzaren barreneko hitz buru erregimenari (nahiz ez, izen ondoko hainbeste erlatibori, ikusi bezala). Ohargarriak gertatzen dira, Lardizabalek tarteka ematen dituen sintagma zati koordinatuen kateak, hauen hitz (edo atzizki) burua emanez, bakarrik, sailaren bukaeran. Hala egiten du adibidez, azken buru bakar baten mendean, elkarrekin lotzen dituenean, erlatibozko hainbat esaldi segida (edota beste sintagma moetak ere -azken adibidea-), hurrengo adibideotan ikus litekeen moduan:

(263) (...; eta izaera onek adierazten zuen,) lau milla urte ayetan eskeñita zegoan, Patriarka Santuak itxedoten zioten, eta Profetak erakusten zuten Mesias (munduan agertzeko denbora.) (TB,12)
(264) (... zorionekoa deituko naute,) Altsua dan, eta gizalditik gizaldira bere errukimentua, bildur zayozkanetan, zabalduko duen guziz Santuak, (nigan gauza andiak egin dituelako.) (TB,15)
(265) (Nekatu zaitezte, bada, ez bereala aitzen dan janaren ondoren,) ezpada gizonaren Semeak emango dizuten, eta beti iraungo duenagatik. (TB,61)
(266) (Batzuek badiote, Jesus-ek itzegin ziela,) denboraz gertatu zan bestiruditze edo transfigurazioaren, besteak illen artetik Biztutzearen, eta askok zerura igotzearen gañean; ... (TB,67)

Modu honetan eragiten diren dislokazioak esaldian estuki erlazionatutako elementuen artean handiak dira, eta biziki zailtzen dute esaldien ulermena, hauek batere luzeak diren orduko.

4.3.3.1. Izen buru erregimenen atzeratzeak Iracurgayetako izenburuetan.

Besteak beste, *iracurgayetako* izenburuak Testamentuco Condairan, adibidetegi ondo ugaria gertatzen dira, jabetzeko, Lardizabalek sintagmetako hitz buru edo erregimenei eragiten dien atzeratze artifizialaz, izenburuak bi hitz baino gehiago dituenean. Arazoa, berriro, dislokazioarena da, eta hala, joskera, behintzat bitxiak, gerta litezke segidakoen antzekoak:[152]

(267) Agar-equin Abran-en ezcontza (TZ,21)
(268) Mesopotamia-tic Jacob-en iguesa (TZ,47)
(269) Aingueruarequin Jacob-en burruca (TZ,50)
(270) Tamar-equin Judas-en becatua (TZ,58)
(271) Moises-i Jaincoaren aguerquera (TZ,75)
(272) Egipto-co catibutasunetic Israel-tarren irteera (TZ,83)
(273) Galgala-tic Silo-ra Cucha santaren aldatcea (TZ,132)

[152] Berriro, ez litzateke batere zaila asmatzea esaldi guzti hauentzat, jatorrizko joskera ohizkoago bat, (267a) *Abran-en ezcontza Agar-equin*; (268a) *Jacob-en iguesa Mesopotamia-tic*; (269a) *Jacob-en burruca Aingueruarequin*; ..., modukoa; eta akaso izan zitekeena Lardizabalen hasiera bateko idazkera, berberak ematen dituen beste irakurgai batzuen izenburuen antzekoagoak, nola (besteren artean): *José-ren anayaen joanera Egipto-ra* (TZ,63); *David-en joanera Get-era aurrena, eta gueró Moab-era* (TB,187); *Maria-ren bizitza Nazaret-en* (TB,16); *Jesus-en igoera Jerusalen-era* (TB,28); *Jaun baten semearen sendatzea Kafarnaum-en* (TB,31).

(274) Micol-equin David-en ezcontza (TZ,184)
(275) Saul-gandic David-en iguesa (TZ,185)
(276) Abigail-equin David-en ezcontza (TZ,194)
(277) Jerusalen-era David-en itzulera (TZ,222)
(278) Isabel ikustera Maria-ren joanera (TB,15)
(279) Jerusalen-go Elizan Semearen geratzea (TB,22)
(280) Samaria-ko Emakumearekin Jesus-en itzaldia (TB,29)
(281) Mateo-ri Jesus-en deya (TB,46)
(282) Animako janariaren gañean Jesus-en izketa (TB,61)
(283) Jerusalen-dik Betania-ra Jesus-en joanera (TB,84)
(284) Apostolu saltzallearen kontrako Jesus-en espak (TB,108)
(285) Jesus iltzeko Pilato-ren agindua (TB,129)
(286) Gentillai Evangelioa erakustera Saulo eta San Bernabe bialduak (TB,190)
(287) Zesarea-tik Erroma-rako San Pablo-ren bidajea (TB,218)
(288) Malta-tik Erroma-rako San Pablo-ren irteera (TB,220)

4.3.4. Beste joskera aipagarri batzuk Lardizabalen idazkeran.

4.3.4.1. Izen arrunta Izen propioa segida.

Sarri asko erakusten du Lardizabalek ere bere prosan *Izen arrunta Izen propioa* segida, eta besterik gabe egin nahi dugu horren konstantzia, adibide batzurekin:

(289) ... Apaiz D.Francisco Ignacio de Lardizabal ... (TZ,1)
(290) ... Apais Fleuri ... (TZ,3)
(291) ... Apaiz-Larregui ... (TZ,3)
(292) ¿Anaya Abel non dezu? (TZ,11)
(293) ..., eta Laban vici zan erri Heran-erontz abiatu zan. (TZ,42)
(294) ..., eta emazte Isabel-ek emango dizu seme bat, ... (TB,12)
(295) ..., eta bere lengusu Isabel-i ikusi bat emateko asmoa. (TB,14)
(296) ..., eta eman zioten Aingeruak Amari erakutsitako izen Jesus, zeñak ... (TB,19)
(297) Jesus gero Galilea-ko uri Kafarnaum-era joan zan, ... (TB,25)
(298) ...: Zu Jonas-en seme Simon zera; ... (TB,26)
(299) ..., zure servitzari leyal San Roque ... (SR,20)

4.3.4.2. -KO izenlagunen gunea izenaren ondoren ere.

Lardizabalek maiz ematen ditu *-ko* atzizki bidez osatutako izenlagunak izenaren ondoretik ere, gure tradizio guztian ohi bezala; segidako adibideon itxuran:

(300) ...; baña dei ondonayezco guciac alperric ciran, ... (TZ,13)
(301) ... becatu jatorrizco edo originala ... (TZ,24)
(302) ..., Lo cetzala amets misteriozco bat eguin zuen, ... (TZ,42)
(303) Guraso zorioneko oyek ... (TB,12)
(304) Jesus-en lenengo mirari agirikoa. (TB,26)
(305) ...: eta Sakramentu santu batayoko onek asiera emen izan zuen. (TB,29)
(306) ...; baña Jesus-ek esan zionean, zer bizitza neketakoa egin behar zuen, ... (TB,43)

4.3.4.3. BAITA ERE juntagailua.

Lardizabalek ere, maiz erabiltzen du juntagailu hau, lotzen duen esaldi zati haren hasieran, ondoretik dituelarik haren osagai guztiak:

(307) (...; eta badira diotenac, Sarai Abran-en illoba zala;) baitaere Abran eta Sarai ama biren humeac baciran ere, aita bat zutela, ... (TZ,18)
(308) (Gueró esan cion, sabelean ceucan semeari cer icen ipiñi:) bai ta ere, seme onen etorquizuneco berri asco eman ciozcan, ... (TZ,22)
(309) Baita ere cillegui zan, len esan dan bezala, emazte bat baño gueyago izatea: ... (TZ,45)

4.3.4.4. ERE juntagailua soil esaldi hasieran.

Ezarian adibide bakar bat besterik jaso ez badugu ere, merezi du erakustea:

(310) (..., esan zion: Satanas, begietatik ken-akit: eskribatua zeagok:) Ere Jaun eta Jainkoa adoratuko dek, ... (TB,25)

4.3.4.5. NORA, NOIZ-ETA partikulen erabilera juntagailu gisa.

Lardizabalek hainbeste erabiltzen baditu ere *zein, zerren, non* bezalako partikulak juntagailu modura, erakutsi nahi ditugu, berriro ezarian jaso ditugun, adibide bi hauek, *nora* eta *noiz-eta* partikulekin, nahiz Larramendik agerian predikatu bigarrenaren erabileraren aurka:

(311) (...: eta Nacor vici zan erri Haran-era illunabar batean alderatu zanean, cer eguin edo nola auqueratu ecin pensatuz gueratu zan putzu-ondo batean,) nora errico gendeac illunceetan ur-esque irten oi ciran. (TZ,33)

(312) (Andic irugarren egunean,) noiz eta circuncisioaren oñaceac suric andienean ceuden, eta ecertaraco ere gauza etciran, ... (TZ,53)

4.3.4.6. Aditzaren konkordantzia falta objetu pluralarekin.

Berriro ezarian aurkitu dugu, konkordantzia falta hori erakusten duen adibidea, lehenago ere topatu duguna Guerrico, Amundarain eta Guerrico Urquiola, beste giputz goierritarrengan. Ez litzateke segurasko zailegia beste adibide gehiago aurkitzea Lardizabalengan ere segidakoaz gainera:

(313) Ordu hura ezqueró lurrac ayentzat sastracac baicic etzuen; ... (TZ,10)

4.4. Galdera zenbait, bukatzeko. Lardizabalen lanen inguruan.

Lehenengoa nondik eratortzen duen Lardizabalek idazkera propio eta berezi hori. Litekeena, edo seguruena, zuzenean Añibarrorengandik ekarri izana Gramaticako oharra ordenamendu kontuetan. Ezin izan zuen ordea, haren idatzietatik erakarri bere joskera berezia. Ezta ere, berak aditz atzeratzearen maisutzat dituen Axular eta Cardaverazengandik, biak horren desberdinak, beren artean, eta Lardizabalekiko, zeinen idazkerak askoz ere antz gehiago erakusten duen, beste inorekin baino, Guerricorekin. Ezagutu zituen Lardizabalek Guerricoren eskuizkribuak? Beharbada.[153] Lardizabalek egin bide zituen bere ikasketak Lazkaoko Karmeldarren etxean (gaurko beneditarrak), eta ez litzateke gehiegi uste izatea, delako etxea izatea garaian, euskal kultur zentroa, Lardizabal eta Guerricoren bailadan, non izan zezakeen lehenak bigarrenaren berri.[154]

Bigarren kezka Lardizabalen inguruan, zergatik ez ote duen horren argi predikatzen Gramatican, Testamentuco Condairan aldiz horren nabarmen praktikatzen duen aditz posposizioa. Beharbada Gramatica konposatzen duenerako, Lardizabalek jada ez duelako, Testamentuco Condaira idatzi zuenean bezain iritzi hertsirik, euskal aditzaren ezaugarri pospositiboaz? Litekeena da, pentsatuaz bien artean hamar urte inguruko aldea egon litekeela. Puntu honetan agian eskaini zezakeen argiren bat San Roqueren Bederatciurrenak, pentsatzekoa da berandu konposatua, eta egia da bertan ez dela jada horren gordin sentitzen aditza atzeratzeko joera; baina bi testuak ez dira erraz konparagarriak (bederatciurren laburra ez da inoiz testu narratiboa). Nolanahi, guri ez litzaiguke gehiegi harrituko, inoiz topatuko balira Lardizabalen eskuizkribu galduak (erreak?; cf. J. Garmendia, 1977), aurkitzea hauetako zenbait idatzita, tradiziozko joskera modu batean, Cardaverazekin gertatu bezala.

Bukatzeko azpimarratu nahi genuke, beharbada ez dela inoiz izango baloratuegia, Lardizabalen lanek eduki lezaketen eragina hegoaldeko bazter guztietara zabaltzen, XIX mende bukaera eta XXaren hasieran, euskal aditzaren ezaugarri pospositiboa. Batetik hala aldarrikatzen delako agerian Gramatican, eta hau, dirudienez, benetan delako zabaldua eta erabilia. Bestetik berriz, Lardizabalen Testamentuco idazkera konsagratzen delako, Cardaverazenaren ondoren, giputz eredu berri eta imitagarria bezala, besteak beste Bonaparte Printzearen eraginez. Guztien kolofoi, ezin ahaztu da, Lardizabal agidanean oso irakurria izan dela, Euskal Herri hauetan, segidako aipuek adierazten duten aidean:[155]

> El público recibió esta obra [Testamenduco Condaira] con cariño y entusiasmo y apenas hay hogar en donde todos los días no se lea algún trozo de esta historia, siendo de admirar la atención con que nuestros hijos del campo escuchan sus sublimes narraciones. (I. Belaustegui, 1901, ait. art., 80-1 orr.) / Nada digamos de la difusión y de las repetidas ediciones que ha tenido

---

[153] Gu zerbait saiatu garen arren, ezin izan dugu ezagutza horren ebidentziarik aurkitu. Aipatze arren aipatu bakarrik, bi idazleetan begira egiten duen beste antzekotasun bat, Olaechearengan ere aurkitzen genuena, askotan ematen dutenean *ae* bokalen segida deklinabide pluraletan, a itsatsia(-edo) lukeen zenbait hitzetan. Hala adibidez beste askoren artean: *anayaen (joanera)* (TZ,63); *ganbaraetan* (TZ,63); *aciendaentzat* (TZ,70); *chimistaen (antzeco)* (TZ,81); *Profetaen (berri)* (TB,12). Guk ez dugu ezagutzen fenomenoaren zabalera, eta pentsa genezake zabaldua ote den garaian, Bizkaian bezala Gipuzkoako Goierrian.

[154] Etxe berean ikasi bide zuen ere Aita Prai Bartolome Santa Teresak (1768-1835), nahiz honen prosan ez den inondik nabari aditz atzeratzeko joerarik, ezpada tarteka inbertsiorik gabe emandako, ezezko aditz perifrastikoetan.

[155] Eta bada kontraesan txiki bat, Lardizabalen arrakasta herrikoi hori, eta guk predikatu nahi diogun joskera artifizialaren artean. Kontraesan beretsua, Cardaverazen arakastarekin, edota geroagoko Gregorio Arruerenarekin.

su "Testamentu zar eta berrico condaira", uno de los libros mas leídos por el pueblo euskaldún, el libro de veladas de nuestros caseríos. El P. Lasa se hace testigo cuando escribe: "¡Cuantas veces he visto yo ancianos de nuestros caseríos, muchos de ellos imposibilitados para el trabajo, armados con unas gafas poco estéticas y polvorientas, sostenidas en las orejas con trozos de cuerdas de alpargatas, entusiasmados con la lectura de este libro. (J. Garmendia Arruebarrena, 1977, ait. art., 158 or.). / ..., si para juzgar del mérito o valor de un escrito cuenta para algo el saber la aceptación que su obra ha merecido por parte del público, pocos libros han sido tan leídos como éste por el pueblo euskaldun. (Villasante, Há Lit. Vasca, 1979, 261 or.)

ERASKINA

Lardizabalen Testamendu Zarreco Condairaren eskuizkribuaren aurrean: Lardizabalen ordenamendu zuzenketa batzuz.

Azkuek, «Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira» artikuluan iragarri bezala, Euskaltzaindiako Bibliotekan utzi bide zuen berak erabilitako, *Testamentu Zarreco Condaira* horren eskuizkribu ia osoa, eta han aurkitu dugu guk, eta egin ahal izan diogu azkenez gainbegiratu bat, nahiz errezeloa daukagun inoiz galdutzat ere eman ote den. Denera 400 orrialdetik gora dira gordetzen direnak, folio tamainoan, (Testamentu Zar osoa, azken irakurgaieko orriren bat salbu uste dugu), Lardizabalen eskuz idatziak oso letra irakurterraz batean.

Testua dudarik gabe da Lardizabalek zuzenean inprentara eramandako azken kopia, eta apenas zuzenketa handirik erakusten duen bertan. Bai zenbait tarteka. Batzuk, Azkuek jasotzen dituenak, aipatu artikuluan. Beste ugarienak, aditz laguntzailearen zenbait forma zuzenduz (*citzayoten-citzayen* moduko pareak). Eta badira ere, bestelako zuzenketa gutxi batzuk; lerrokada osoen testu aldatzeren bat, edota erasketa berriak tarteka.

Horien artetik jaso nahi izan ditugu guk, Lardizabalen berridazketa guzti haiek, nolabaiteko ordenamendu zuzenketa bat suposatzen dutenak. Zortzi besterik ez denera, halako testu luze batean, baina gehienak nahiko ohargarriak ere bai, gu espekulatzen gatozen bideetan.

1. Nola eragiten den etena, galdegaia eta aditzaren artean.

Guk ezagutzen genion Lardizabali *¡Jose ni naiz!* esaldia (TZ,68), jada gure ADIBIDETEGIAN jasoa genuena, galdegaia eta aditzaren arteko etenaren adibide gisa. Izan ere, esaldiak, bere testuinguruan bereziki predikatu nahi duena da, *bera dela JOSE, BERAIEN ANAIA SALDUA*, eta ez, ordurarte uste zuten *Faraonen ordezkoa*-edo bakarrik. Bere testuinguru zabalago, eta zenbaitetan, beharbada, ez oso argian (TZ, 6 irak., 7 parag., 68 or.):

> (1) Ontaraño José-c, nequez bederic, bere Jauntasuna, eta inguruan ceuzcanai beguiratuaz, negar gabe iraun zuen; baña ecin gueyagora zanean, an ceuden guciac irtenerazo cituen, eta guizon arrotz ciralaco ayecquin bera bacarric guelditu zan. Orduan negar-artean ots andi batequin itz labur oyec doidoi esan cituen: ¡José ni naiz! ¿Nere aita oraindic vici da? Eta mututu zan. Anayac ere izuturic, etzuten ecer esateco quemenic izan. Igito-ac José-ren lantu eta negar-otsa aditu zutenean bereala iguerri cioten, cergatic izango zan; baita laster Faraon-i adierazo ere. José-c, berera edo contura zanean, esan cien; ni naiz zuen anaya, zuec saldu ninduzutena. Ez icaratu; ...

Bere testuinguruan nahikoa harrigarria zen Lardizabalek *Jose* hori ematea esaldi hasieran, eta beste konplementu bat tartekatua aditzaren aurrean. Gure tradizio nagusien ildotik, espero genezakeen, esaldi horren ordez, *Ni naiz Jose!* bezalako egitura bat, Lardizabalek segidan bertan ematen duen *ni naiz zuen anaya, zuec saldu ninduzutena* bestearen parekoa (edota gehienera ere, Azkue-Altubek eta altubetarrek predikatuko luketen modura *Ni Jose naiz!* edota *Jose naiz ni!* itxurakoren bat).

Horrela gogoangarria da aurkitzea, Lardizabalen eskuizkribuaren lehen idazkeran *Ni naiz Jose!* esaldia (64 or.), gero marra batez ezabatua gainetik eta aldatua azken *¡Jose ni naiz!* horretara. Badaukagu adibide bat bederen Lardizabalen sistemarena, edo sistemetako batena, aditza esaldi bukaerara botatzeko euskaraz: bigarren idazkeran esaldi hasierara aldatuaz, guk espekulatu bidean, lehenengoan aditzaren ondotik ematen zen hura; eta eraginez hala, Cardaverazen Eskolaren ezaugarri bihurtzen diren etenak, ohi ez bezala aurreratutako galdegaia, eta ohi ez bezala atzeratutako aditzaren artean.

2. Aditz nagusiak atzeratzen.

Hori da nabarmen sumatzen dena segidako esaldi bikotean, lehena zuzendu aurretikoa, bigarrena zuzendua (eskuizkr. 11 irak., 4. parag., 116. orr.):

> (2) Bitartean, Zambri ceritzan Israel-tar bat aurrean jarri citzayoten Madian-go Erregue baten alaba Corbi-requin becatu eguiten; ...
> Bitartean, Zambri ceritzan Israel-tar bat, guciac cecustela, borda-urde batean sartuta, Madian-go Andizqui edo Principe baten alaba Corbi-requin becatu eguiten jarri citzayen; ...

3. Atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.

Hala suma liteke segidako zuzenketatik (eskuizkr., 10. irak., 5. parag., 109 or.; lehenengoa zuzendu aurretikoa):

(3) (Jaincoac entzun cien, eta Moises-i aguindu ción, cigorra artu, eta gende gucia bildu cezala: gueró berac eta Aaron-ec, arriari,) itz eguin ciozatela, guciac cecustela, ...
(Jaincoac entzun cien, eta Moises-i aguindu ción, cigorra artu, eta gende gucia bildu cezala: gueró berac eta Aaron-ec, arriari,) guciac cecustela, itzeguiteco, ...

4. Inbertsioa galerazten ezezko esaldiei.

Hala ematen du segidako esaldi pare argian (eskuizkr. 26. irak., 10. parag., 366 or.; lehenengoa zuzendu aurretikoa):

(4) ..., bada, apaicic bat ere etzan gueratu, ...
..., bada, apaicic bat ere gueratu etzan, ...

5. Sintagma buruak atzeratzen.

Hala ematen du behintzat segidako esaldi parean (eskuizkr. 1. irak., 5. parag., 7 or.; lehenengoa zuzendu aurretikoa):

(5) ...; baña gucien artean arquitu zuen errugabeco zucen bat, Noe ceritzana, ...
...; baña mundu galdu onetan arquitu zuen Noe ceritzan errugabeco guizon zucen bat, ...

6. Konplementuen arteko ordenak aldatzen.

Hala egiten du garbi lehen adibide honetan (eskuizkr. 13. irak., 10. parag., 149 or.; lehenengoa zuzendu aurretikoa):

(6) ..., ezquer-escuan arguia, eta escuyan trompetac (cituztela, ...)
... arguiac ezquer-escuan, eta trompetac escuyan (cituztela, ...)

Agian pentsa liteke beste horrenbeste egiten ote duen, hurrengo adibide ez batere argian (eskuizkr. 2. irak., 1. parag., 9 or.; lehenengoa zuzendu aurretikoa):

(7) ... leyo bat cuchari (eguin cion, eta ...)
... cucharen leyo bat (idiquita, ...)

7. Izen ondoko erlatibo baten desegitea?

Agian kalifika liteke horrela Lardizabalen hurrengo zuzenketan gertatzen dena (eskuizkr. 11. irak., 6. parag., 119 or.; lehenengoa zuzendu aurretikoa):

(8) ... Parabisua ete bere inguruco lur gozo munduan zan obena ...
... Adan eta beste Patriarcac landu izan zuten munduco lurric gozoena eta obena, ...

[1][2]5. (1811-1890) Gregorio Arrueren itzulpengitza cardaveraztiarra.

Gregorio Arrue, Zarauzko eskola maisuaren lanek betetzen dute, beraiek bakarrik, maila oso bat, Cardaverazen Eskola deitzen gatozenaren ibilbidean. Ikusi besterik ez, bere *Santa Genovevaren vicitza* (1868), bere lanik ezagun eta zabalduena,[1] konturatzeko zenbateraino jarraitzen zaion jada Arrue bertan, Cardaverazen konsigna aditz atzeratzaileari.

Dena den, hain ugariak izaki Arrueren itzulpen lanak (argia ikusten joan zirenak 30 urtetako epe luze batean, 1858tik 1889ra bitartean), lehen lehenik esan behar, ez daudela horregatik denak idatziak, Santa Genovevaren dudarik gabeko estilo cardaveraztiar berean. Are gehiago, uste dugu, guk zehatzago aztertu ditugun lanen artetik, erator litekeela, hala moduzko aldaketen kronologia bat ere, Arrueren cardaveraztartze bidean.[2] Ia batere cardaveraztiar ez izatetik 1858ko Dotrinan, pasatuko da, jada 1863ko *Esku-Liburua*-n Cardaverazen joskeraren ezaugarri nabarmen batzuk bederen erakustera (kurioski, Cardaverazek berak euskaratu eta argitaratu zuen liburu bera ehun urte lehenago (1761), orduan *Aita San Ignacioren Egercicioen gañean, ... laugarren partea* bezala). Gero pentsa liteke, Arruek jada erabat duela finkatua bere joskera estilo cardaveraztiar petoa, 1866ko *San Ignacioren bicitza*-rako, edo 1868ko *Santa Genovevaren*-erako, ezaugarriren bat gorabehera. Azkenik, 1882-85 bitarte argitaraturiko Leiendek edota 1885eko *Bravante-co Genovevaren bicitza* berridatziak erakutsiko lukete, estiloaren azken bilakaera zeharo cardaveraztiarra. Bitarte honetan, cardaveraztartze prozesuaren ezin erakusgarri hobeak gertatuko dira, Arruek 70etako hamarkadan egiten dizkien itzulpen, eta hitz ordenamendu aldaketa ohargarriak, bi Moguelen *Peru Abarca* eta *Baserritaar Jakitunaren etxeko eskoliari*. Finka ditzakegu segidan, Arrueren garai desberdin hauetako joskera ezaugarri zenbait, hitzen ordenamenduaren atalean.

5.1. Arrueren 1858ko Dotrina.

1858an ikusi bide zuen argia Arrueren lehen itzulpen lanak, izen oso duena: *Cristauaren Dotrinaren esplicacioa. / Cristauaren Dotrinaren Jaquinbide azaldua. Edo Asteteren esplicacioac Santiago Mazo Jaunaren liburutic D. Gregorio Arrue, Zarauzco escola maisuac aterea.*

5.1.1. Arrueren tradiziozko hitz ordenamendua 1858ko Dotrinan.

Oro har esan behar da lehenik, Arrueren Dotrinako hitz ordenamenduak ez duela alde handirik erakusten, gure tradizio nagusiaren aldean, eta aldiz bai handia, bere ondorengo bilakaera propioarekiko. Hala, Arrueren Dotrinan ere, maizenik aurkituko dugu aditza emana, euskaraz ohi bezala, «Xà» moduko egituretan, ondoretik erantsita, elementu toniko laburren bati, multzo foniko baten barne. Eraberean ordea, oso maiz aurkituko ditugu esaldiak, gure tradizio guztietan bezalaxe, galdegaia nabarmen daramatenak aditzaren ondotik; hauen artean, hainbat ugari ere bai, zuzenean aditzaz hasten direnak; eta are aditz trinkoz ere tarteka («Xà» fenomenoaren salbuespen kualifikatuak); baita ere, mendeko esaldi hautsiak ezin usuago. Oro har bada, Dotrinako joskerak zerikusi gutxi izango du Cardaverazen Eskolaren ezaugarriekin, eta oso argi eman lezake hau aditzera Dotrinako lehen galdera berak jada, Arrueren garaiko estiloaren erakusgarri on:

(1) ¿cerade cristaua? (Bai, Jaincoaren graciaz.) (13)

5.1.1.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.

Gure ADIBIDETEGIAN jaso bezala, Dotrinan ezin ugariago aurkitzen dira, galdegaia aditzaren ondotik daramaten esaldiak. Maizenik ere bai esaldiak batere luzeak diren orduko, baina ez orduan bakarrik, erraz suma litekeen bezala segidako adibideotan (askoz gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(2) Azqueneco oyetatic bat da D. Santiago Garcia Mazo Jauna. (I)

(3) Gañera ipiñi da Franciaco, ta beste cembait erreinutaco izcuncetan ere; ... (II)

(4) Eusqueraren aldetic ipiñi nezaquean, ascoz errazago alere, ... (III)

(5) ...; baña oroituric, ez nijoala oyentzat, sayatu naiz aleguiñaz zuc adi cenzaquean eran ipintzera. (III)

(6) Jesus ill zan gugatic: ... (12)

(7) Nacio, erreinu eta erri guciac dituzte bacoitzac beren señaleac. (15)

(8) Berealatic eguin cituzten eciñ conta al adiña Gurutze, ... (15)

(9) Becoquian eguiten ditu guizonac pensamentu chit asco, ... (16)

(10) Guizonaren mingaña da chiquia, ... (17)

(11) ..., Gurutzean eman cion bere azquena ta acaballa, ... (21)

5.1.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Maiz aurkitzen ditugu Dotrinan ere, euskal tradizio guztian bezalaxe, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak, galdegaia nabarmen daramatelarik honen ondoretik. Segidan batzuk (eta askoz gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(12) Ipiñi nuan Mazo Jaunaren liburu gucia cearo ta oso eusqueraz; ... (III)

(13) ..., beguiratu cigun erruquiz, cupitu zan gure miseriaz, ta deitu guinduan cristau izatera.

(14) Ciñatzen da cristaua becoquian, aoan, ta bularretan, ... (16)

(15) Irten zan gorputza animaren mendetic; ..., lotsagabetu ciran griña gaiztoac arrazoyaren contra, ta alchatu ciran deseo ta zale oquer guciac vorondatearen contra. (20)

(16) Garaitu zuan mundua, ..., pompa ta arrotasun guciaquin despreciatuaz, ... (21)

(17) Guerta liteque zazpi urteetaraño guchi entenditzea; ... (22)

(18) Jaquin bear dituzte Ave Maria, Salvea ta ... (24)

(19) Deitzen da Erromacoa, Erroman bici oi dalaco ... (30)

5.1.1.3. Aditz trinkoak esaldi hasieran buruzuri.

Ikusi dugu zein galderak hasten zuen Dotrina. Segidan beste adibide batzuk (nahikoa gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(20) ...: dio, bada, dala gaiztaqueria gucien naspilla bat, ... (17)

(21) Deritza Apostoluen credoa, ceren ... (25)

(22) (Badago ... toqui bat, ...,) ta da fedearen campo zabala. (28)

(23) Da Jaincoac gure gañera ixurtzen duan birtute bat, ... (28)

(24) (Lau infernu daquizquigu,) ta dira: Infernua, Purgatorioa, Limboa ... (48)

(25) ..., ta dagozquie Santuen comunioari. (56)

(26) Dira Jaincoaren gracia iristeco, ... (56)

(27) (Ori ez niri galde,) bada naiz ez jaquiña; ... (61)

5.1.1.4. Mendeko esaldi hautsiak nonnahi.

Nonnahi eta bere estrategia komunikatiboari komeni bezala ematen ditu Arruek Dotrinan, mendeko esaldiak hautsita, argumentuak dituztela aditzaren (eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen) ondotik. Eta hainbat gehiago egingo badu ere esaldi luze konplejuetan, Arruek usu asko «hausten» ditu esaldi ondo laburrak ere. Nahikoa bitez adibide gutxi batzuk konturatzeko (gure ADIBIDETEGIKO ugari baino ugariagoen artetik):

(28) ..., izanic nere lanaren berri, ... (III)

(29) (..., asi ciran) deitzen cristauen icenarequin, ... (14)

(30) ..., esaten zuala ez ziola obedituco iñoiz ere, ... (140

(31) Baldin mundutarren jaquinduriaz zucendu bear izan balitz cristauerria, ... (15)

(32) ..., eguiñaz soseguz ta ondo iru gurutze, ... (16)

(33) ..., edo arquitzen gueranean premia, tentacio edo peligroren batean, ... (18)

(34) ... ta jeiqui zalaco ayequin batean ... (19)

(35) Esaten danean Erromaco Eliza, ... (30)

(36) ..., izan arren eguiazco Jaungoico bacar bat. (33)

(37) (... eguia bat da,) etorrico dala berriz ere ... (52)

5.1.2. Baina aditz atzeratze arrastoren bat ere bai jada 1858rako.

Bitxiki, Arrueren joskeraren paradigmatzat har litekeen Santa Genovevaren estilotik oso bestela, 1858ko Dotrinan, ez dugu aurkituko, salbuespenen bat izan ezik, aditza artifizialki atzeratuta daraman esaldirik, eta etenak, beste elementu batzuk tartekatuak, galdegaia eta aditzaren artean, horren usuzko fenomenoa Cardaverazen Eskolan. Oro har, oso gutxi ere, aditza bukaeran daramaten esaldiak (ezpada esaldi laburretan, ohizko «Xà» egituretan). Halakoetatik kanpo, ez ditugu gutxi batzuk baino aurkituko, galdegaia aditzaren aurretik daramaten esaldiak. Batzuk bai hala ere, segidakoen antzekoak, egitura Azkue-Altubetar estuan (lehenengo biak esanguratsuki *Itz-aurrea*-ren aurreko *Queja*-koak):[3]

(38) Gañera berriz liburu bat eguiten danean, eguiñ-aldi gucia saltzea guerta liteque, ... (iii)

(39) Au gucia onela bada ere, guertaquizun oyetacori batere beguiratu gabe, liburu oni eguiñ-aldi gucia salduta, bere gastuac doi doyan ateratzeco diñaco precioa ipiñi zayo, ... (iii)

(40) ..., ta alde onetatic gurutzea, Jaincoaren Semeac gugatic sufritu zuan gucia adirazten dagoquigu. (21)

(41) Bere beguien aurrean dauzcan gauzac ezagutu ecin dituan guizonac, Jaincoaren misterio ondogabeai ondoa arquitu nai izatea, ta neurriric eztuana neurtu nai izatea, ausardia bat, eraqueria bat litzaque, dio San Atanasioc. (33)

(42) Testamentu zarrean Jaincoaren Semearen etorrera bi aditzera ematen ciran: bata ... (53)

5.1.2.1. 1858ko Arrue eta Lardizabalen Testamentua.

Badira oraindik Arrueren Dotrinan antz bateko beste esaldi aditz atzeratu batzuk, atentzioa deitu digutenak beren testuinguruan, prezeski egitura altubetar kanonikoak diren neurrian. Dira hain zuzen, Jaungoikoaren kreazio lana kontatzen dutenetako batzuk, bitxiak, garaiko Arrueren narratzeko modua ezaguturik. Guzti horietan gehiago espero genezakeen Arrueren lumatik tradiziozkoago egitura bat, aditzak hainbat aurreratuaz, eta galdegaiak beren aditzen ondotik edo emanez. Egiten da hala ere argi piskaren bat esaldiotan, konparatu orduko hauek, Lardizabalek kontestu berean ematen dituenekin Testamentuan, beti bere joskera ondo propioan. Halako esaldi pareak izan litezke segidakoak (lehenengoa beti Lardizabalena):

(43) Lenengoan, cerua, lurra, urac, sua eta arguia eguin cituen. (5)

Lenengoan cerua, lurra, urac, sua ta arguia eguin cituan. (36)

(44) Bigarrenean firmamentu edo gañean daucagun estali urdin ori eguin, eta onen gañeco urac, becoetatic berecitu edo apartatu cituen. (5)

Bigarrenean cerugoya eguiñ, ta onen gañeco urac becoetatic berecitu cituen. (36)

(45) Irugarrenean beeco ur oyec batu, edo lecu batera bildu cituen, eta leorra aguertu zan; ... (5)

Irugarrenean beco ur oyec batu edo lecu batera bildu cituen, eta leorra aguertu zan; ... (36)

(46) Bostgarrenean Jaincoa gauza vici gabecoetatic vicicorretara igaro zan; urai arrayac emanerazo ciezten: eta egun berean aireco egazti guciac ere eguin cituen, ... (5-6)

Bostgarrenean urai arrayac eman erazo cizten, ta aireco egazti guciac eguin cituen. (36)

5.1.2.1.1. Baina Arruek zuzentzen ere ditu Lardizabalen aditz atzeratzeak.

Lerrokada osoak alderatuaz ez da dudarik, Arruek zati hau idazterakoan begi aurrean eduki zuela Lardizabalen testua, eta horretatik segurasko, guri hasieratik hainbat harrigarria egin zitzaigun esaldi horien joskera. Ordea merezi du,

bertako esaldi gehiago ere parekatzea, bada, agidanean garai hartako Arrue berari ere nahiko bitxiak iruditu bide zitzaizkion zenbaitetan Lardizabalen aditz atzeratzeak, eta batzuetan bederen aurreratu egiten ditu. Kurioski, Arruek mantentzen du Lardizabalen jatorrizko ordenamendua, honek galdegaia aditz ondoretik ematen duen esaldietan. Bihoaz esaldi pareak (lehenengoa beti Lardizabalena):

(47) Jaungoicoac mundu au, eta emen diran gauza guciac ecer ecetic atera nai izan zituen. Sei egunean gucia eguin zuen. (5)

Jaungoicoac mundu au, eta emen diran gauza guciac sei egunean atera cituan ecer ezetic. (36)

(48) ...; urai edo ur-lecuari deitu cion itsasoa, eta leorrari lurra. (5)

...; ur lecuari deitu cion itsasoa, ta leorrari lurra. (36)

(49) Laugarrenean eguzquia, illarguia eta izarrac eguin cituen, (argui eguin cezaten, eta oyen ibillietatic egunac eta gaſac, asteac illac eta urteac zucendu cituen.) (5)

Laugarrenean eguin cituen eguzquia, illarguia, ta izarrac, (argui eguin cezaten, ta oyen ibilleratic egunac eta gauac, asteac, illac, urteac, ta urte mugac zucen citezen.) (36)

(50) (Seigarrenean lurrari aguindu cion,) abere eta lur gañean dabiltzan beste vicicari guciac eman citzala, ... (6)

(Seigarrenean lurrari aguindu cion,) eman citzala abere, ta lurraren gañean dabiltzan gañeraco pistia ta bicicor guciac; ... (36)

(51) Seigarren egun onetan eguin ere zuen guizona, bere lanen atcena, eta gucietan beteena, ceñarentzat ... (6)

...; ta gañera eguin zuen guizona, ta ipiñi beste gauza gucien jaun ta jabe. (36-7)

Konparaketa txiki honetatik ere suma liteke, Arruek bere lanen hasieratik izan bide zuela erreflexionatu beharra, bere hitzen ordenamenduaren gainean, besterik ez bazen ere Lardizabalen batzu horiek aldatu ahal izateko lasaitasunez.

5.1.2.2. Galdera hautsiren bat inoiz.

Ondo esanguratsuki, 1858ko Dotrinan apenas aurkituko dugun batere galdera hautsirik, elementurik tartekatuta duenik galdegilea eta aditzaren artean, eta horren usuzkoak direnak cardaveraztarren artean, nola ere izango diren gero, Arrueren beste idatzi guztietan. Guk bat besterik ez dugu aurkitu arreta piska batekin aztertu dugun Dotrinaren lehen bostenean:

(52) ..., ¿cer oracio Jaungoicoaren semeac berac eracutzi cigun Paternosterra baño egoquiagoric? (24)

5.1.2.3. Aditz atzeratutako galderaren bat.

Aztertu dugun lehen bostenean aurkitu ditugu bi galdera behintzat, esaldiaren bukaeraraino atzeratzen dutenak, galdegilea eta aditzaren arteko perifrasi estua, bederen ez modurik ohizkoenean:

(53) ¿Cristauren icen ori nondic datorquizu? (14)

(54) ¿Trinidade chit Santua cer da? (33)

5.1.2.4. Aditz atzeratutako mendeko esaldiak ere tarteka?

Oro har sumatzen ez bada ere Dotrinan, aditza atzeratzeko joerarik, agian pentsa liteke, Arruek ez duela berdin jokatzen esaldi nagusietan eta mendekoetan. Bada, ezin gehiago baldin badira ere, inolako eragozpenik gabe hautsita ematen diren mendeko esaldiak, egia izango da ere, aurkitzen ditugula tarteka mendeko esaldiak, nahikoa artifizialki-edo daramatenak aditza atzeratua esaldi bukaeraraino (eta beharbada etenda ere bai, tartean beste elementuren bat emanez, berez ohizkoagoa(-edo) litzatekeen perifrasi modu bat, aditza eta esaldiko beste elementuren baten artean). Segidan guk jaso ditugun hala moduzko adibide gehienak, zeinen artean esanguratsuenak izan litezkeen prezeski, *Queja* eta *Itz-aurre*, azken erantsietan ematen direnak:

(55) (..., bidez esango degu,) eusquerazco liburu batzuec, cerbait garestiago salduta ere, dauden baño obeto eta sendoago josiac baleude, obe litzaqueala; ... (iiii)

(56) (... ezagutuco da arguiro,) liburu au ateratzeco gastuac eguin dituana, beronequin mercataritza eguitera ez dijoala; ... (iiii)

(57) (... esan gentzaque ecen,) onelaco lan-bideetan irabaci andi eta seguru bat balego, gaurco egunean dauzcagun baño liburu gueyago eusqueraz iduquico guinduzqueala. (iiii)

(58) ..., ta gure euscaldun gaxoac berriz aiñ liburu guchi beren izcuntzan iduquiric, ... (II)

(59) ¡Ah! gure bicitzaco egun guciac ere chit guchi dira mesede onegatic bacarric zor dizcagun ezquerrac Jaincoari emateco. (14)

(60) (¿Cergatic aoan?) Itz gaiztoetatic Jaincoac libra gaitzan. / ..., mingañaren gaiztaquerietatic Jaincoac libra gaitzan. (17; ordea segidan bertan: «¿Cergatic bularretan? Libra gaitzan Jaincoac obra ta deseo gaiztoetatic.»)

(61) (... Fedeac eracus deguioque,...;) cer oracio ta promes ontzat artzen dituan; ... (23; emana ordea beste zehar galdera hautsi sail baten barrenean, esaldi berean)

(62) Laugarren, fedeco gaucen bat edo gueyago sinistu eciñic, ta coloca becela progimoa icusten duanean; ... (27)

(63) ..., ta oyen ibilleratic egunac eta gauac, asteac, illac, urteac, ta urte mugac zucen zitezen. (36; hau Lardizabali mailebatua, gorago ikusi bezala)

5.1.2.5. Ezezko esaldi inbertsio-gaberen batzuk.

Dotrinan proportzio txikian aurkitzen dira ezezko esaldi inbertsiorik gabeak. Bai hala ere gutxi batzuk, bestelako gehiengo baten barne:

(64) Au beti onela guertatu oi ez da; ... (ii)

(65) Itz oyec adituric ¿izango ezguera mingaiñ gaiztoaren beldur? (17)

(66) ...; baña Jaungoicoa zala sinistu etzuten. ... Guc guizon ere ecusi eztegu, ... Gauz oyetacoric icusi eztegu, ... (28-9)

(67) ...: ate au idiquico ezda, ta emendic guizonic igaroco ezta, ... (47-8)

5.1.2.6. Ezezko aditz trinko atzeraturen batzuk.

Iñoiz ere aurkitzen dira artifizial samar atzeratutako aditz trinkoak ezezko esaldietan:

(68) ..., baña guertatzea, arritzecoa ez litzaque; ... (ii)

(69) Jaincoa ta beticotasuna besteric etzan. (36)

Antzeko atzerapen bat sumatzen zen, gorago ere jaso dugun esaldietako batean, nahiz hartan aditz trinkoa mendeko esaldi batekoa izan. Zen:

(56) (... ezagutuco da arguiro,) liburu au ateratzeco gastuac eguin dituana, beronequin mercataritza eguitera ez dijoala; ... (iiii)

Aipatzekoa da, nola guk aztertu zatian, ez dugun aurkitu, sarrerako Quejako honezaz gain, mendeko beste esaldi konpletibo ezezkorik, aditz atzeratua (edo inbertsiorik gabea) erakusten duenik.

5.1.2.7. Ohar bat, aginterazko aditzen gainean.

Ez baitu Arruek Dotrinan, oro har, aginterazko aditzik erakutsiko artifizialki atzeratuta esaldian. Gerora ere Cardaverazen Eskolaren ezaugarri hau izango da gehien kostako zaiguna aurkitzen bere azken lanetara arte.

5.2. Arrueren 1863ko Escu-Liburua, cardaveraztartze bidean.

Cardaverazen Eskolako ezaugarri hauek guztiak, jada arrastoren bat bederen ezagutu dutenak lehen Arruegan, dudarik gabe puztu eta sistematizatuko dira bere hurrengo lanetan, nahiz izan, pausoka, piskanaka. Hurrena, *Cristauaren Escu-Liburua* argitaratzen du 1863an, eta bertan, suma daitezke jada aldaketa ohargarriak, 1858koaren aldean, nahiz artean Arruek, oro har, oso nabarmen segitzen duen aditz nagusia aurreratzen esaldian.

Escu-Liburuaren hasieran, bada zati haundi bat, izena duena, *Illaren egun gucietaraco eta bacoitzeraco gure azquen fiñen gañean meditacio laburrac* (14-59 orr.) (berez A. Pinamontiren jatorrizko lan baten itzulpena, nahiz Arruek hau aitatu ez), kurioski ehun urte lehenago (1761) Cardaverazek ere itzuli eta argitaratu zuena Aita San Ignacioren Egercicioen Laugarren partearen hasierako *Illaren egunoroco meditacio laburrac* izenarekin (1-36 orr.), eta baita geroago ere Añibarrok, bere Escu-Liburu sailen hasieran (1802, 1-83 orr.). Arruek ezagutzen zuen Cardaverazena,[4] eta hau erabili ez arren bere iturri bakar bezala, pentsa liteke, bi liburuen konparazio batera, Arruek zenbaitetan behintzat, eduki zuela hau begi aurrean, berea egiterakoan. Eta badira, konparazioa ondo merezi duten esaldi eta ordenamenduak, bi lanak, oro har, desberdinak izango badira ere. Guk egin dugu hainbat (ikusi lan honen ERASKIN Ia), eta aitatuko dugu aurrera.

5.2.1. Oro har aditz nagusiek aurregune batean segiko dute 1863ko Arruegan.

Arruek 1863an, oro har, esaldi aurrealdean segitzen ditu ematen, aditz nagusiak, baiezko esaldi deklaratiboetan; baita ere artean, ezezkoetan, galdera orokorretan, eta aginteretan.

5.2.1.1. Galdegaiak aditz ondoretik.

Hala oso maiz, eta are maizenik, segiko ditu ematen galdegaiak aditz ondoretik, segidako gutxi hauen antzekoak (adibideak ezin ugariagoak dira eta askoz gehiago ikus litezke gure ADIBIDETEGIAN):

(70) Au izango da nere lanaren sariric onena. (4)

(71) Gure salvacioa dago gure bicitza onean, ... (4)

(72) ..., eta gure bicitza da berriz egunezcoa, edo egunaquiñ eguiten dana: ... (4)

(73) ..., onetan dago egun gucico sosegua. (4)

5.2.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Esaldiotako asko eta askotan ematen dira gainera aditzak, zuzenean esaldiaren hasieran bertan, eta proportzioan, beharbada, 1858an baino maizago ere bai. Nola segidakoetan (askoz adibide gehiago gure ADIBIDETEGIAN):

(74) Saiatuco naiz gaurco nere obra eta eguite gucietan, nere bicitzaren azquenecoac balira becela eguitera. (22)

(75) Eguingo ditut maiz eta sarri nere aimbeste pecaturen contriciozco actoac, ...(22)

(76) ..., eta berrituco ditut ontzeco asmo edo propositua. (22)

(77) Errezatuco dizcat Aita san Joseri zazpi Pater noster. (22)

Aditz trinkoak nahiz tarteka agertzen segi 1863an ere (ik. ADIBIDETEGIA), ez dira horren usuzkoak izango, nola 1858an.

5.2.2. Arruek oro har aurreratu egingo ditu Cardaverazen aditz nagusiak.

Hala ematen du aditzera, Cardaveraz eta Arrueren testuen konparaketak (ik. ERASKIN Ia). Eta izan ere,

Egercicioetako Cardaverazek amorratuta atzeratzen dituen bezala nolanahiko aditzak, ez artean hala 1863ko Arruek.

5.2.2.1. Baiezko esaldi deklaratiboetako aditzak aurreratzen.

Nola ikus litekeen, segidako esaldi pareetan (lehenengoa Cardaverazena beti; askoz adibide gehiago lan honen ERASKIN Iean):

(78) Nerea da eguiteco au, ... (2)
Da nere eguitecoa, ... (18)

(79) ...: nere bici guztico confesio general oso bat eguin naidet: ... (4)
Eguingo det nere bici gucico, ... confesio general bat, ... (21)

(80) ...: Confesore on bar artu, ta zuc ematen didazun demboraz baliatuco naiz: ...(5)
Artuco det Confesore on bat, eta valiatuco naiz ..., Jaunac ematen didan dembora onezaz. (21)

(81) Beraren beguietan pecatuac eguin nituen: ... (10)
Beraren aurrean eguin nituan pecatuac, ... (27)

(82) ... ta bost bider esangodet: ... (13)
..., eta esango det bost aldiz: ... (30)

(83) Guciaren betico sentencia emangozat: ... (13)
Emango zat guztien sentencia azquenecoa. (31)

5.2.2.2. Galderetako aditzak ere aurreratzen.

Nola segidakoak (I ERASKINETIK):

(84) Orduan confesatzeco dembora, edo eraric izangodet? (4)
..., eta orduan. ¿Izango det confesatzeco lecu edo betaric, ... (20)

(85) Concienciaren esamen on bat eguiteco era, edo moduric izango det? (4)
¿Izango det nere conciencia ondo ecusteco edo esamiñatzeco dembora, ...? (20)

(86) ...: nic pecatariac cer eguingo det? (6)
¿Cér eguingo det nic, pecatari errucarri onec? (23)

5.2.2.3. Ezezko aditz trinkoak ere aurreratzen.

Arruek nahikoa sistematikoki aurreratuko ditu, Cardaverazek, hain usu, erabat artifizialki atzeratzen dituen ezezko aditz trinkoak (ERASKIN Ietik):

(87) Nere anima baño gueiago amatu bear dedan gauzaric eztet. (2)
Ez daucat anima bacar au baño gueiago amatu bear dedan gauzaric, ... (18)

(88) Betico dan nere anima au baño gauza baliosoagoric eztet. (2)
..., ez daucat anima betico au baño gauza preciosoagoric; ... (18)

(89) Aitzaquia, edo escusaric an ezta: escari, epe, edo atzera biurtzeric an ezta; ... (10)
...; an ez da izango aitzaquiaric; ..., ez da izango beste norgana bide eguiñic. (27)

(90) Beste demboraric, orañgoa baicic, nere escuan eztago: ... (14)
Eztago nere escuan beste demboraric, ... (32)

5.2.3. Arrueren aditz atzeratzeak 1863ko Esku-Liburuan.

Aditz nagusietako aditzen aurreratzeak oso ohargarriak izan arren, 1863ko Esku-Liburuan, bestalde nabarmenak dira jada, aditz atzeratzearen zenbait ezaugarri, 1858ko Dotrinaren aldean.

5.2.3.1. Aditza atzeratzen nabarmenen mendeko esaldietan.

Inoiz edo behin Escu-Liburuan, segi ditzakegu aurkitzen, mendeko esaldi hautsiak (ik. gure ADIBIDETEGIA). Eta are nabarmen aurreratuta ere, Cardaverazek kontestu berean, erabat atzeratuta ematen zuen aditzen bat, nola segidakoa:

(91) (..., ta ama Virgiñari escatuco diot) bere Concepcio garbiagatic bere mantupean betico artu, ta gorde nazala. (7)

(..., eta Virgiña guciz Santari escatuco diot,) gorde nazala onela nere eriotzaraño. (23)

Ordea, esaten bagenuen, 1858ko Dotrinan ezin gehiago ematen zirela mendeko esaldiak hautsita, badirudi 1863rako Arruek zeharo jakinaren gainean ote duen jada erabakia, mendeko esaldia bukatu behar duela, aditzak (eta honi erantsitako elementu mendekotzaileak), Cardaverazen Eskolaren ildo estuenetik. 1863ko mendeko esaldi hautsiek, egon baldin badaude ere, gehiago dirudite salbuespen, deskuido, edo beste ezinekoak. Aldiz, aditza artifizialki atzeratuta daramaten mendeko esaldien artean, oso sarri aurkituko ditugu etenda, ohizkoagoak liratekeen perifrasi estuak aditza eta honen aurreko elementuren baten artean (nola, zehar galderetako galdegile eta aditzen artekoak -edo beste-), beren artean tartekatuaz elementu arrotzagoak. Hala moduzko esaldiak izan litezke segidakoen antzekoak:

(92) (Jaincoari nai daquiola) nic opa dizudan frutu eta provechua zuc liburu onetatic ateratzea. (3)

(93) (... eta ecusten dezu) cer laster zuzaz eta eman dizudan itzaz aztu naizan. (11)

(94) (¡Jauna! zuc daquizu) cer nere animari ongui dagocan: ... (12)

(95) Meditacio onetaraco jardun-bidea zuri erraztutzeco, (paratzen dizut, ...) (16)

(96) (..., eta beguiratuco det,) cer sentencia orandaño mereci dedan, ... (28)

(97) ¡Cembat pecatu beñere confesatu gabe ixilic eta ezcutuan neuzcanac orduan arguitaraco diran! (37)

(98) ¡Cer desesperacio eta amorrua orduan nerea izango dan! (38)

(99) ¡Ai ceñ uts eta despreciagarria mundu au iruditzen zadan, (cerura beguiratzen dedanean!) (53)

(100) ¡Cembat bider graci au galdu izango nuan eta besteai galeraci izango nien garbitasunaren contraco pecatu astun itsusiaquin! (53)

(101) (Al nezaquean guchiena ta gaizquiena,) eta condenatzeco bacarric munduan banego becela. (57)

5.2.3.2. Usu jada galdera hautsiak.

1858an eginaz bestela, Arruek Escu-Liburuan oso oso maiz ematen ditu galderak beste elementu batzuk tartekatuaz, galdegile eta aditzen artean. Guk aztertu dugun lehen zatian, usuago ere bai beharbada, ohizko galdera egiturak baino (ikusi adibide hainbat ADIBIDETEGIAN). Ondo ohargarria da, nola Arruek, testuinguru berean, Cardaverazek berak baino askoz gehiagotan ematen dituen hautsiak galdera berak. Hala segidan, bi autoreetan alderagarriak diren zenbait (lehenengoak Cardaverazenak):[5]

(102) ... nigatic norc pensatucodu? (1)

... ¿norc ni gatic pensatuco du? (18)

(103) ..., nigatic norc seguratucodu? (2)

..., ¿norc ni gatic segurutuco du? (18)

(104) ..., ¿norc nigatic artucodu? (2)

..., ¿norc ni gatic eguingo du? (18)

(105) Eriotza santu bat nic logratzeco, cer eguin beardet? (5)

¿Cer eguitea on izango det eriotz on bat eguitera prestatzeco? (21-2)

(106) ..., nizaz cer izango litzaque? (7)

¿Cer nizaz izango litzaque? (24)

(107) Ai, ta ceñ izango ote da nerea! (11)

¿Bietatic ceñ neretzat izango ote da? (28)

(108) Cer aitzaquia emangodet? (18)

¿Cer aitzaqui orduan eman al izango det? (37)

5.2.3.3. Ezezko aditz inbertsiorik gabeen ugaltzea.

1858an inoiz edo behin egiten bazuen ere, 1863an Arruek usu ematen ditu jada ezezko esaldiak, inbertsiorik gabe (eta usuago ere beharbada, inbertsiodunak baino). Hala nola segidakoak:

(109) ..., iñori gogoratu etzaio euscarazco bat eguitea: ... (3)

(110) ..., guero eguingo dituzun lan eta nequeaquin ceruraco irabaciric ateraco eztezu, ... (10)

(111) ..., abec gogoan darabilzquianac, seculan pecaturic eguingo eztu: ... (17)

(112) ¿Cergatic nere anima salvatzeco aleguin gucia eguiten ezdet? (18)

(113) ¡Eta pecaturaco derech eta ocasio gucietatic igues eguiten ezdet! (19)

(114) ...; baña juicioco eguna datorrenean, onela izango ezta: ... (39)

(115) ..., eta zure escu onguilletic nic on eta mesede andiac artu gabeco egunic, eta egunaren istanteric igaro ezta. (59-60)

Hala ere aurki genezake kasuren bat, Arruek joskera ohizkoago bat ematen diona, Cardaverazen aditz inbertsio gabeari, nola segidako parean:

(116) ...: icusten eztu, movitzen ezta, sentitzen eztu: ... (12)

Ez ecusten du, ez aditzen du, ez sentitzen du, ez muguitzen da, ... (29)

5.2.3.4. Ezezko aditz trinko atzeraturen batzuk ere.

Arruek maiz asko aurreratzen baditu ere, Cardaverazen ezezko aditz trinko atzeratuak, ematen ditu hala ere tarteka halakoren batzuk, askoz proportzio txikiagoan bada ere esaldi inbertsio gabeak baino. Hala adibidez:

(117) ..., penitencia eguitera beartua nago, ¿eguia ezta? (32)

(118) ..., eta Jaincoac barcatu ote didan, eguiaz eztaquit. / ... pecatuan erortzetic libratuco naizen, eguiaz eztaquit. / ...; eta eriotza baño len onduco naicen, eguiaz eztaquit. (45)

5.2.3.5. Ezezko esaldi konpletibo inbertsio gabeak.

Hainbat aurkituko ditugu jada 1863ko Arruegan esaldi bukaeran, estilo cardaveraztiar bitxian:

(119) (...; beraz edo bereala eguin bear det penitencia,) edo iñoiz ere eguingo eztedala, (bertatic beldur bear naiz.) (32)

(120) ... eta gueiago etorrico eztala. (42)

(121) ..., eta onelacoric pensatzen eztedala; ... (42)

(122) Onduta berriz erorita condenatuco ez naicela. (51)

5.2.3.6. Atzeratzeren bat jada, aginterazko aditzetan ere.

1863an aurki litezke jada aginterazko zenbait aditz, artifizialki atzeratuta, nahiz artean ez segi izaten salbuespenak baino. Hiru hauek behintzat (eraberean ezezkoak direnak):

(123) Aurreracoan ere arren utzi ez nazazu. (10)

(124) Jauna, neque eta gurutze au zure icenean izan bedi: ... (12)

(125) (..., beintzat iracurri itzazu bi edo iru aldiz egun artaco puntuac,) eta chit gogoan iduqui itzazu. (17)

5.2.3.7. Atzeratzen baiezko esaldi deklaratiboetako aditzak ere tarteka: Egitura altubetarrak: galdegaia fi aditza.

1858an bezala, 1863ko Arruegan, usuzkoena izango da aurkitzea, esaldietako aditza emana, oro har, «Xà» moduko perifrasi estuetan, bigarren elementu atono bezala erantsita, beste elementu kasuan tonikoren bati. Hala aurkituko ditugu egitura altubetarrak ere tarteka Arruegan, aditza «Xà» egitura estuan emana esaldiko galdegaiaren ondoretik erantsita. Batez ere gertatuko da, esaldi laburretan, euskara guztietan ohi bezala, baina Arrue hasiko da jada tarteka, egitura bera erabiltzen esaldi luzeagoetan ere, orduan bai benetako egitura altubetarrean. Adibide izan litezke segidako lerrokadako azken hiru esaldi nagusiak:

(126) (...; etsaiz inguratuac gaude, graci ascoren bear guera) eta beragatic-goicetic erregutzea, chit gauza bidezco eta prochugarria da. Onetan utseguitea, fede gabe bicitzea, eta erortzeco arriscu eta perill andietan jartzea litzaque. Jesucristo, alcargana baturic, beraren icenean erregutzen dutenen erdian arquitzen da. (5)

Zuzenketa altubetar garbi bezala kontsidera liteke segidako esaldia parea, goitik behera aldatzen Cardaverazen tradiziozkoago ordenamendua, Arrue kasuan aditza hainbat atzeratzen (lehenengo Cardaverazena):

(127) Dembora da caudal bat, balioric andienecoa; ... (21)

Valioric andieneco ondasun bat da dembora; ... (41)

5.2.3.8. Eta etenen batzuk ere bai jada galdegaia eta aditzaren artean.

Oro har hala ere, ez zaigu iruditzen batere, Arruek 1863an 1858an baino atzeratuago ematen dituenik esaldi nagusietako aditzak. Hala ere, jada hasiko gara aurkitzen zenbait esaldi, aditza artifizialki atzeratua dutenak, eta hainbat elementu tartekatuak, galdegaia eta aditzaren artean, ezohizko modu bitxian Cardaverazen Eskolaz kanpo, eta gero horren usuzkoa bihurtuko dena Arrueren prosan. Hala nola gerta litekeen segidako esaldiotan (gure ADIBIDETEGITIK; adibideak beti askoz ere argiagoak beren testuinguru zabalagoan):

(128) ...: beti lengoa bera, gauza guchi batzuec gueituaz beñ, berriz eta ascotan moldizquidatua izan da. (3)

(129) Pecaturic ez eguiteco itza goicean eman dizut, ... (11)

(130) Jauna, nerequin gauza gucien contua daucazunac becela bicitzeco bear dedan gucia neretzat prestatu dezu, ... (13)

(131) ¡Eta añ pocic pecatu eguiten det! (19)

(132) ¡Eta añ erraz berriz pecatuan erortzen naiz! (19)

(133) Eche au bacoitzac beretzat bicitzan eguiten du. (56)

5.2.4. Sintagma buruen atzeratze nabarmenak, Cardaverazen aldean ere.

Arruek usu aurreratzen dituen bezala Cardaverazen aditz nagusiak esaldian, kuriosoa gertatzen da jabetzea, nola

haren aldean, maiz atzeratzen dituen sintagma buruak hauen bukaeraraino, aurretik emanez, Cardaverazek ez bezala, hauen konplementu guztiak (erlatibozko esaldi, *-ko* izenlagunak, ...), kontestu bereko segidako esaldi pareek erakutsi lezaketen moduan (lehenengo beti Cardaverazena):

(134) O puntu, ó momentu eternidade beticoa zure ondoren dacartzuna! (7)

¡O eternidade ona edo gaiztoa dacarren instantea! (24)

(135) ... Aingueru goardacoa ... (8)

... Guardaco Ainguerua ... (25)

(136) ... eguin bear ez nuen gaitz gucia, ta orregatic ere nic eguin nuena. (13)

... eguin bear ez nituzquean, baña orregatic ere eguin nituan gaiztaqueria guciac. (30)

(137) (Iracurricoda) eguin bear nuen on gucia, ta eguin ez nuela. (13)

(Iracurrico dira) eguin bear nituzquean eta eguiñ ez nituan obra on guciac. (30)

(138) Sentencia beñ eman, da instanteco cumplituco dana. (20)

Berealase cumplituco dan sentencia. (40)

(139) Sentencia beñ eternidade guztiraco emango dana. (21)

Eternidade guciraco beñ eman eta adiracico dan sentencia. (40)

(140) (Dembora da) caudal bat, balioric andienecoa; ... (21)

Valioric andieneco ondasun bat (da dembora; ...) (41)

5.3. 1866, Arrueren behinbetiko heldutasun cardaveraztiarra.

Arruek 1866an ematen du argitara *Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bicitza*, eta bi urte beranduago Santa Genovevarena. Duda gabe, bi obra hauek zabaltzen dute Arrueren heldutasun literarioaren estiloa, zeharo desberdina aurreko bi obretan erakusten zuenetik, estilo jada cardaveraztar estu, itxi eta tematia, gero eta urrunago gure tradizio nagusiaren erroetatik hitzen ordenaren eremuan. Gerora, Arruek setati mantenduko du estilo hori, areagotuko ere, 1878ko *Baserritar jaquintsuaren echeco escola*-n, 70eko hamarkadako *Peru Abarca* argitaragabean, 1882-85eko Leiendetan, eta denen gailur bezala beharbada, 1885rako prestatzen duen *Bravante-co Genovevaren bicitz arrigarri miragarria*-ren itzulpen berritu eta zuzenduan, are oraindik cardaveraztiarragoa, ikusiko dugu, 1868ko *Santa Genovevaren bicitza* bera baino.

5.3.1. Aditz nagusi jokatuen atzeratze orokorrak: subordinazio-koordinazio kate amairik gabeak.

1866-68ko lanetatik hasita, Arruek batetik, areagotu egingo ditu, jada 1863an erakusten zituen ezaugarri cardaveraztiarren arrastoak: aditz atzeratzeak mendeko esaldietan, galderetan, ezezko esaldietan; galdera hautsiak, ... Bestetik, aurrerantzean, eta hau izango da alderik nabarmenena bere aurreko lanekiko, Arrue errukigabe hasiko da atzeratzen, Cardaverazen ildotik, esaldi nagusietako aditzak ere, ohizko neurri guztiez kanpo. Eraberean, neurri sinistezinenetaraino ere luzatuko dituen bitartean esaldi kateak, bakarrik honen bukaeran emandako aditz jokatu edo elementu mendekotzaile bakar baten menpe. Ondorioa, ez da izango, Cardaverazenean bezala, Larramendik honi zuhur gaztigatzen ziona baino (*Escritos Breves*, 1990, 304 or.): «*En las cláusulas largas hai grande obscuridad por no repetir las terminaciones del verbo.*».

5.3.1.1. 1866ko aditz atzeratze eta esaldi luzera sinistezinenak.

Irakurtzen hasi besterik ez dago San Ignacioren bicitzaren sarrera, konturatzeko zein neurritakoa den Arrueren jarrera aldaketa. Segidan ematen dugu:

(141) Fedearen ucatzalle arro gaizto Luteroc Alemanian Elizari galera andiac eguiten cizcan unean, Inglaterraco Erregue Enrique zortzigarrenac Aita Santuari obediencia ukatu, eta bere erreinuan Eliz eguiazcoa ondatzen zuan garaian; fedearen berritzalle ustezco Calvinoc, len baño obeto ipintzeco amesaquin Eliz eguiazcori Francian guerra bicia eguiten cion sasoian, beti bere Elizaren estutasun eta premiari beguira dagoan Jaincoaren providencia miragarriac sortu

zuan gure Españian cristau guciz sonatu izango zan bat, Jaungoicoaren etsaiac eguiten citusten aurrerapen eta ondamendi galgarriai bideac ebaquitzeco gucien oitura, costumbre eta bicimoduac berritzeco, eta egundaño Apostoluac irichi gabeco erri eta bazterretara Jesucristoren fede eguiazco bacarra eramateco jaioa. (1866,3; 181 silaba aditzaren aurretik -a.a.-, eta honen 4z ondoren, beste 104; denera 289 silaba edo)

Beste hainbeste gertatzen da liburuska honen lerrokada ugaritan, atal honen ERASKIN IIan jaso ditugun ikusgarriak bezala, nola segidakoa:

(142) ... Bere gorputzaren egoquitasun eta bizarriya ez galtzearren epaira [ebaiera] eta gañeraco erremedio mingarrienac onez eta errencuragabe eraman cituan guizon arc catea gogor batez guerria lotu, cilicio batez eta sacu zar batez bere gorputza estali, eta bere arpegui ederrac ematen cion aire eder eta munduzcotasuna estaltzeco bere burua moldacaitz zatar eguiñ, eta atez ate ogui pusca baten esque ibiltzen, hospitaleco gaisoai laguntzen gende gaiztoaren burla eta trataera charrac onez eta errencuragabe eramaten, egunoro ur eta ogui utsezco barau gogorrac ateratzen, gauric gueiena oracioan igarotzen egunean irutan bere gorputza lasqui castigatzen, eta penitenciaric ezugarrienac eguiten guizon erregalatu au gucien miragarri andian ecusizan. (1866,6; 283 sil. a.a.)

San Ignacioren bicitza osorik irakurrita, esango litzateke, Arrue etorri berria dela, Cardaverazen aditz posposizioaren eskolara; eta, etorri berriaren legean, ez ote duen, beste guztiek baino gehiago ahalegindu nahi 1866an, bere atxikimendu estuena erakusten lege aurkitu berriari, neurri guztiez kanpo.

5.3.1.2. Ondorengo aditz atzeratze sistematikoak.

1866az gero, Arruek sistematizatu egingo du aditz nagusia atzeratzeko joera bere idazlan guztietan. Ordea, nahikoa gordeko du bere burua 1866koen antzeko gehiegikeriotatik, nahiz ohituraz segiko dituen ematen, esaldi kate koordinatu luze askoak, segidakoon itxuran (askoz gehiago, ERASKIN IIan):

(143) Zuei, ama onak, batez ere zuei, gauza garbi eta eder guztiak biotzean mella eragiten dizuten, eta lurreko gauzik ederrentzat gure erligio santu adoragarria daukazuten ama biotz-samúrrai, eta sentimentu eder oezaz bete, irazaki eta azi nai zinduzkeen zuen seme-alabatxoai eskaintzen dizuet liburu au. (1868ko Santa Genovevaren lehen hitzak - 1987$_4$,33-; 107 silaba a.a.)

(144) ...; eta ala olagizonai ezaguera onezko gere esker-erakutsiak egin ondoan, aiek betiko bere lanean utzi, eta emakume aren etxera joan, eta onek ipiñi zizkigun oi pobretxo, baña txukuñ eta garbietan egunerañoko ordu laburrak lo gozoan naierara igaro, eta goizean gere bideari eman gintzaizkan. (Leiendak,80; 112 sil. a.a.)

(145) Condesa onela hitzeguiñ, eta arpeguico colorea papera becela churitu, eta charraldiac artu eta condearen besoetan erori zan. (1885,20; 46 sil. a.a.)

(146) Condesac bere senarrari eguin cion carta Dracoren escuetan ipintzen zuen unean bertan bere ezpata narrugorritua escuan artu, eta urduriqueri gucian Genovevaren guelan sartu, eta Draco gajoa cipocada batequin Genovevaren aurrean billotz eta bere odoletan igari utzi zuen [102 silaba a.a.]. Genovevac eguin zuen ¡ay! tristera gazteluco gende gucia itsumustuan joan, eta condesa gajoa izuaren andiz colore gucia galduta, eta hitzic eguiteco gauz etzan eran bere sillan eserita, eta bere oñetan Draco tristea bere odol-putzuan irabiatua eta hillotza arquitu zuten [102 silaba a.a.]. Golo zutic, eta odolez gorritutaco bere ezpata escuan danzatuaz, condearen onra ordañdu zuelaco poza aguertuaz, eta Draco zanaren eta condesaren contra asma al guisac esanaz pamparroi eta arro aguertzen zan garayan [75 silaba a.a.]. / Bereala guizon gaizto urduritu onec guezurrezco asmacio lotsagarriz betetaco, eta andre bertutecoi eta garbiena esposa desleyal eta desonratuena becela beguietaratzen cion carta batequin condeari mandatari bat bialdu cion, ... [83 silaba a.a.] (1885,26-7)

5.3.2. Gero eta eten ugariago galdegai eta aditzen artean.

Aditza baiezko esaldi deklaratiboetan ere erabat atzeratu nahiaren poderioz, Arrueri denborarekin gehitzen

joango zaio, galdegaia eta aditaren artean etena erakusten duten esaldi kopurua, bien artean beste elementuren batzuk (edota koma bat) tartekatu direlarik; urrun Altuberen legeetatik. Fenomenoa oso nabarmena da guk sakonago aztertutako lanetan, eta inon baino areago 1885ko Bravante-co Genovevan, azken adibideko esaldietan suma litekeen bezala, edota segidakootan ere (gure ADIBIDETEGIKOEN artetik):

(147) Bere biotz sutúac aguintzen cion gucia leice illun hartan erraz cezaqueala, eta penitenciari neurri eta mugaric ipiñi bearric izango etzuela bertatic iruditu citzaion. (1866,8)

(148) Veneciara itzuli, eta pobreza eta garbitasun edo castidadea beti gordetzeco voto edo promeza Cardenal Veralli-ren escuetan guciac eguin zuten. (1866,17)

(149) Ala egingo zutelako itza Kondeak eman, eta Jenobebarekin belaunikaturik, beren guraso onen bendizioa biak artu zuten. (1868,37)

(150) Gizon zar onen hitz oetan gertakari andi, miragarriren bat guziak zekusaten, ... (1868,38)

(151) Jenobebak beorretik jetxita, aiñ gozatsu, aiñ amorez, aiñ biguñ guziai hitzegin zien, ... (1868,39)

(152) Argia zegoen lekuronz albait gere pausoak zuzentzen ginduen, ... (Leiendak,76)

(153) (... ardoa ...;) eta berekin etxeko guzien ondamendi eta galera ardoak erakarri zion. (Leiendak,77)

(154) Ai ... emen, ementxe bertan nik nere aita utzi nuen! (Leiendak,79)

(155) ..., eta aur miragarri hura besteric ez becelacoren bat izango zala, guciac cioten. (1885,9)

(156) ..., eta guciaz ere era gucietaco ezbear eta laceri izugarriac gañeraco zaizquitzula zañai ematen dit. (1885,12)

(157) Ala ere, zu beti alaba on eta umill bat, lurrean cere gurasoen poz atseguiñen andien zu izan zaitugu, ... (1885,12)

5.3.3. Egitura altubetarrak: galdegaia fi aditza.

Arruek bere esaldi nagusietako aditza atzeratzen duen bezala, gero eta gehiago izango dira lan hauetan, Altuberen galdegai legea beteko duten esaldiak, izango bada ere kasualitatez, edota ezinbestean: esaldian beste mintzagairik baldin badago, hau emanez galdegaiaren aurretik edota (gutxiagotan) aditzaren atzetik, eta hautsi gabe galdegaia fi aditza-ren arteko perifrasi estua. Nahikoa bitez, adibide baterako, Arrueren *Zarauzko ondekidatzea* leiendaren azkeneko esaldiak, edota Bravanteco Genovevaren bi orrialde, zeinnahitakoak:

(158) Gipuzkoako menditar azkar eta bildur gabeetatik ots andiko joan-etorri artan ogei ta zazpi galdu ziran. / Torre bakarraren lenengo ondekidari garailean Zarauzko ugartearen jaun eta jabe bakar geratuak, berai laguntzera etorri ziran beste zenbatekin bertan geratu, eta Etxezabala, Torre-laburra, Mendikoa, Intxaur-ondo ... derizten gaztelu gisako etxeak jaso zituzten, onela illargi-erdiaren banderapean bizi diranen eraso guzietatik gordea ugartea utziaz. Geroago 1221-garren urtean Errege santu Fernando III.nak Zarauz erribildu Noble eta Leialaren izenaz onratu zuen, ... / Torre bakarra deritzan, eta orañ Torre-luzearen izenaz ezagutzen dan gaztelua, gaur Jaun txit argidotar On Franzisko Manuel Egañarena da, eta erri onetan bertakoak eta arrotzak geien begirattzen dioten etxea da. (Leiendak,98)

(159) Baldin bide onetan sendo irauten badezu, zure suertearen gañean quezcagabe egongo guera eta poz atseguiñez beteta hillco guera. / Bere amac ere bere besartean artu, eta hitzeguiten ozta uzten cioten negar eta antsia tristeen artean: ... / Gure ondasunen andiena, eta zuc eguiñ ciñiguzun mesede gucizcoari dagoquioneraco ordañ saria da. / Jaun oni Hildolfo ceritzan, eta bere masallac oraindic arrosa coloreco eta gordiñac baceuden ere, zar beneragarri bat zan. / ..., Jaungoicoac suerte andi bateraco señalatua zauzca. (1885,12-3)

5.3.4. Arrueren euskal testuen berridazketak: aditzak atzeratzen sistemaz.

Jabetzeko, Arrueren aditz ezaugarri pospositiboaren aplikazio sistematikoaz, gainbegiratu besterik ez dago, gipuzkerara itzultzen dituen bi Moguelen liburuak. Itzulpenok zenbaitetan, euskalki aldaketa hutsa baino, areago bihurtzen dira berridazketak: esaldiei ordenamendu berriak emanez, aditzak (eta beste nolabaiteko sintagma buruak ere) nahikoa sistematikoki atzeratuaz. Arrueren berridazketaok oso nabarmenak gertatzen dira, Moguel biek, tradiziozko ordenamendu modu arinenean idatzi zituztelako beren lanak, oro har emanez aditzei esaldian nahikoa aurrealdeko gune

bat. Moguelen liburuekin eginiko gauza bera egingo du gero Arruek, 1885erako berridazten duenean bere Santa Genoveva propioa, orain *Bravante-co Genoveva*, (nahiz jada zegoen 1868ko liburua idatzia, oro har, aditza posposatu nahian; bi Moguelen kasuez oso bestela).[6]

Guk egin ditugu ordenamendu aldaketa hauen konparaketa txiki batzuk, eta hala jaso ditugu lan honen ERASKIN IIIan, J.J. Moguelen, *Baserritaar jakitunaren etxeko eskolia* (1845; 1991[3]) -aipuetarako BJM-, eta Arrueren 1878ko, *Baserritar jaquintsuaren echeco escolaren artekoa* -BJA-; ERASKIN IIIIean, J.A. Moguelen *Peru Abarca* (1881) -PAM-, eta Arrueren *El Doctor Peru Abarca*-ren artekoa (1948) -PAA-; eta ERASKIN Vean berriz, Arrueren 1868ko *Santa Genovevaren vicitza* -SG-, eta 1885ko Bravante-co Genovevarenaren artekoa -BG-. Segidan jasotzen ditugu, erakusgarri, hiruetako esaldi nagusi pare batzuk, non Arruek ezin nabarmenago atzeratzen dituen aditzak (lehenengo esaldia beti testu zaharrenarena):

(160) Familija da guraso batek lurrian Jangoikuaganik artuten daben ondasunik andijeena; ... (BJM,28)

Guraso batec Jaungoicoagandic lurrean artzen duen ondasunic andiena familia da, ... (BJA,6)

(161) ... ta bai izango dabee sarija, onak urten balebee legez. (BJM,30)

..., eta contrara, ónac irten balira becela izango dute saria. (BJA,7)

(162) Helik izan zituban seme bi ta urten eutsen gaistuak. (BJM,30-1)

Helic seme bi izan cituen, eta gaiztóac irten ciran. (BJA,2)

(163) ...: beingo baten jausi zan erijotzako zigorra aita ta seme irureen gañera. (BJM,31)

...; eta orra non beñgoan eriotzaren cigorra Aitarequin seme bien gañera erori zan. (BJA,8)

(164) Pagau deuste visitaco errial cidarra; ... (PAM,44)

Bisitaco erreal cillarra pagatu didate; ... (PAA,338)

(165) ...: alan sartu nas emen cuartillu bat atera, eta cerbait jaatera, ... (PAM,44)

...: ala, cuartillu bat atera, eta mocadu bat jatera sartu naiz emen, ... (PAA,338)

(166) ..., bada urrin egiten jat neure echia baruric biurtuteco. (PAM,44)

..., bada barauric itzultzeco nere echera urruti eguiten zat. (PAA,338)

(167) ..., ni nas Arotza, Arguiña, Itzaña, Achurlariya, Baso-azterlarija, ... (PAM,48)

..., ni Arotza, Arguiña, Itzaya, Achurlaria, Baso-neurtzallea, Icazquiña naiz, ... (PAA,340)

(168) ...: bera da gure ondasunik andiena, prendarik maiteena eta zuk egiñ ziñiguzun mesederen ordaiñ eta saria. (SG,37)

Gure ondasunen andiena, eta zuc eguiñ ciñiguzun, mesede gucizcoari dagoquioneraco ordañ saria da. (BG,13)

(169) Garai onetan sartu zitzayen Jenobebarekin Sijifredo ezkondu zuen Obispoa. (SG,37)

Senar-emazte gazte ayec escondu cituen Obispoa garai onetan sartu citzayen. (BG,13)

(170) ..., eta ondoren eraman zituen berekin goiko salara. (SG,40)

..., eta sala eder batera berequin eraman cituen. (BG,18)

(171) Orduan gogoratu zitzayozkan Obispo zar beneragarriaren hitzak. (SG,48)

Onela esanaz bere ezcontza bedeincatu zuen obispo beneragarriaren hitzac gogoratu citzaizcan. (BG,31)

Beste asko dira horregatik adibide interesgarriak ERASKINETAN. Arruerekin ere ez da izango gehiegi uste izatea, Cardaverazekin (edo Lardizabalekin ere) erakutsi bezala, berridazketa sistema honek eragiten dituela, hainbeste esalditan, gaur hain arrotzak gertatzen zaizkigun etenak, artifizialki aurreratutako galdegaia, eta artifizialki atzeratutako aditzen artean.

5.3.4.1. Hiperzuzenketaren bat ere inoiz.

Aditzak lekuz aldatu beharraren antsiaz, gertatzen zaio inoiz Arrueri, salbuespen bezala, aditza zertxobait aurreratzea esaldian, halako batez Moguelen batek, hainbat atzeratua-edo eman duena esaldian, nola beharbada gure ERASKINETAN jaso ditugun segidakoetan:

(172) Leenago zeru ta lurrak uts emongo leukee, ... (BJM,33)

Lenago uts-emango luquee ceru-lúrrac, ... (BJA,13)

(173) Zuc barriz dinozu, ... (PAM,46)

Zuc diozu berriz, ... (PAA,339)[7]

Gauza beretsua gerta bide zaio Arrueri, J.J. Moguelen segidako galdera hautsia zuzentzen:

(174) ..., zeñek benetan maite dau semia? (BJM,31)

... ceñec maite du benetan semea? (BJA,10)

Izan ere, zenbaitetan paranoiko samarra ere ematen du Arrueren zuzenketa jardunak.

5.3.5. Hala ere, sarri galdegaiak aditzaren ondoretik, 1866az geroztik ere.

Mogueldarren esaldi askoren ordena aldatzen badu ere, Arruek ez ditu horregatik denak zuzentzen. Itzulpenetan hainbat ugari irakur daitezke oraindik, galdegaia aditzaren ondoren daramaten esaldiak, zuzenean aditzaz hasten direnak, aditz perifrastikoz edo trinkoz, ..., Mogueldarrek jatorriz emandako ordenamendu berean. Eta izan ere Arruek, 1866az geroztik ere, garai guztietan segitzen du oso nabarmen ematen aditzaren ondoretik, esaldi asko eta askotako galdegaia, gure tradizio guztietan bezala, eta berean ere nagusiki, 1858 eta 63an. Segidako adibideetan ikus litekeen bezala, ez du bakarrik egingo, aditz hauek entendimentuzkoak edo direnean, nahiz sarri halakoetan (askoz adibide gehiago ere bai gure ADIBIDETEGIETAN):

(175) Bere erriaren gloria eta guizaldi aren apaingarri zan santu andi au jaio zan milla lareun eta laroguei eta amaicagarren urtean gure Provinciaco Azpeitian. (1866,3)

(176) (... goratuaz cijoacen bere beste anaiac Napolesen ... ejercituan,) eta Ignacio berriz gauz andiac eguiñaz bere maila goratzeco amesaquin sartu zan Cantabriacoan. (1866,4)

(177) ... bere jaiera biguña zala bide eguin cion bereala Virgiña Mariaren amparo billa eta ... Monserrateco eliz santuraco bideari. (1866,6)

(178) Onetarako saiatu naiz alik argiroen, eta aurrak bérak ere erraz adi lezakeen eran ipintzera. (1868,33)

(179) ..., eta ondoren eraman zituen berekin goiko salara. (1868,40)

(180) Gero Jenobeba sartu zan bere gelan, antxe soseguz negar egiteko, ... (1868,41)

(181) ... laster ikusiko lirake mendiak Octavio-ren agindupeko gorrotagarriak beretan ikustetik libre! (Leiendak,83)

(182) Nik ekarriko ditut ogeita amar argin: (zuk ipiñitzazu amar zurgiñ ...) (Leiendak, 95)

(183) ...: berealatic bera guelditzen da nere ondasun gucien eraentzalle. (1885,21)

(184) Zu cera beti Genoveva dichagabearen Jaungoicoa. Zu cera nere eguzquia. (1885,31)

(185) Emen dacaizquigu, jauna, escatzen cizquigun beguiac, ... (1885,58-9)

5.3.6. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak 1866az geroztik ere.

Galdegaia aditzaren ondoretik daraman esaldi hauetako zenbaitek, eraman lezake gainera bere aditza esaldi hasieran bertan ere, nahiz eta Arrue begibistan joango den joera hau urritzen, denbora pasa ahala. Adibide batzuk gure

ADIBIDETEGIETATIK:

(186) ..., eta eman citzaion deadarcari, esanaz: ... (1866,6)

(187) Zatitzen du bere gorputza punta zorrotzez jositaco catea batequin egunean lau edo bost aldiz: igarotzen ditu aste osoac goseac ill gabe doi doia ceducaten sustrai batzuec beste alimenturic gabe, ..., eta eraman zuten hospitalera; non ... (1866,8)

(188) ..., eta asi zan jayerarik andienaz orazio egiten, ... (1868,47)

(189) ...: iruditzen zitzayon aditzen zituela bere barrunbean hitz onek: ... (1868,49)

(190) [SEIGARREN BURUA] Artzen du Jenobebak bere eriotzako epayaren albistea (1868,55)

(191) ..., eta deitzen ditu bereganontz etsaien agintari nagusiak. (Leiendak,88)

(192) ..., eta bialtzen ditu bere zarrak zuei esatera, ... (Leiendak,88-9)

(193) Etorrico da eguna, noiz eta emen gauden guciac ... (1885,13)

(194) Ezagutzen diat mingarri izango zacala ere zacurra hiltzea. (1885,57)

5.3.7. Erruki gabe atzeratzen mendeko esaldietako aditzak.

Jada 1863rako ere ezaugarria oso nabarmena baldin bazen, gero eta ageriagoa izango da ondoko lanetan.

5.3.7.1. Mendeko aditz atzeratzeak berridatzitako lanetan.

Ikus litezke gure III, IIII, V ERASKINAK, jabetzeko, nola ekiten dion Arruek tinko, mendeko esaldietako aditzak atzeratzeari, Mogueldarren eta bere Santa Genovevaren berridazte/zuzenketetan. Segidan mostra txiki bat:

(195) ... ta, izanik bere bizitzia eskola aiñ onari jaokana, ... (BJM,28)

..., eta bere biciera escola añ onari cegoquion eracoa izanic, ... (BJA,3)

(196) Ara zetan sarri pensau biar dabeen gurasuak, ... (BJM,29)

Orra certan sarri gurasóac pensatu bear duten, ... (BJa,7)

(197) ..., iminteco ardura egijazko bat eureen familijaren azaijeraan. (BJM,29)

..., béren familiaren acieran ardura eguiazco bat ipintzeco. (BJA,7)

(198) Jaquin baneu lenengoti Barberu char bat baño etziniala, ... (PAM, 44)

Barbero char baño etziñiala lenengotic jaquin banu, ... (PAA, 338)

(199) (Ac uste dau) eztaguala bera leguezco Barberuric Bizcai guztijan: ... (PAM,46)

(Arc uste du,) bera becelaco Barberoric Bizcai guztian eztagoela: ... (PAA,339)

(200) ... esan deustazuna aurquez aurque, edo neure musu garbijetan; ... (PAM,49)

..., aurrez-aurre, edo nere musu garbietan esan didazuna: ... (PAA,340)

(201)..., eta azkenean erregutuaz, gizon galgarri hura andik urrutira ayena zezala. (SG,45)

..., eta guizon añ galgarri bat bere ondotic urrutira ceguiola gueroenean escatuaz. (BG, 25-6)

(202) ..., emanaz izen Desditxatua, ... (SG,53)

... Dichagabearen icena berari ipiñiaz. (BG,37)

5.3.7.2. Eten nabarmenak mendeko esaldietako aditzen perifrasietan.

Denborarekin hala, gero eta gutxiago aurkituko ditugu Arrueren lanetan, mendeko esaldiak hautsita (nahiz bai beti gutxi batzuk, ikus litekeen bezala gure ADIBIDETEGIETAN). Lan hauetan, aldiz, gero eta ugariago izango dira, aditz atzeratze artifizialen ondorioz gertatzen diren etenak, aditza eta hauen aurreko elementuen arterako ohizko perifrasietan. Eta ohargarrienak segiko badute izaten galdegilea ta aditzen artekoak, zehar galderatan, ez dira faltako bestelakoak.

Ondoren nahiko nabarmen batzuk:

(203) (..., eta eraman zuten hospitalera;) non bicimodu hura utzi; eta lengoa artzeco burutacioac berriro eraso cioten. (1866,8)

(204) (... lendanaz esanic ceducalaco) ecen munduan Jesucristoren etsaiac cirauten bitartean perseguitua izateco suerte zorionecoa Compañiac izango zuala. (1866,19)

(205) Fede egiazkoaren argi ederra zabaltzen Alemanian abiatu zanetik laster (bizi zan Belgikan Duke andi, ...) (1868,35)

(206) ..., edo agertu nai zendukean gauza gorderen bat zere biotzean badaukazu, (agin zadazu ...) (1868,56)

(207) (... isiltasun hura autsi nuen,) ordurako gogoak ematen zidan hura, zer zan ager zegidala, ardazleetako zarrenai erregutuaz. (Leiendak,77)

(208) Bere ezpiritu beldurtia illunabar beltzen artean galduta beti ibilli dedilla. (Leiendak,90)

(209) (Ondo begiratu eta ikusi zazute) zertara obeto dijoakizuten. (Leiendak,96)

(210)..., onela illargi-erdiaren banderapean bizi diranen eraso guzietatik gordea ugartea utziaz. (Leiendak,98)

(211) ..., berac dacartzien gauzac alic onguien beren aurchoai eracustera sayatuaz: ... (1885,5)

(212) (...Genoveva) duquearen aguindupeco erri ayetaco amac bertute, modesti eta ontasunaren ispillutzat beren alabai bera ipiñiaz. (1885,10)

(213) ¡Oh! nic estaquit cer bere gobernu zucenac zuretzat gordea daucan, ... (1885,12)

(214) ... eta hitz atseguin pozcarriac oyei esanaz, ... (1885,16)

5.3.8. Aditz atzeratze gero eta sistematikoagoak ezezko esaldietan.

Arruek bere lehen lanetatik erakusten duen joera, aditza atzeratzeko ezezko esaldietan, gero eta sistematikoago praktikatuko du. Hala, aditz perifrastikoak direnean, noiz, gero eta maizago emango dituen inbertsio gabeak; nola, aditz trinkoak, artifizialki atzeratuta. Inoiz baino gehiago jada, 1885eko Bravante-co Genovevan. Eta honetatik jasotzen ditugu adibide gutxi batzuk (lehenik aditz perifrastikoak eta ondoren trinkoak):

(215) Liburucho au eguiteco nequearen alderaco besteric escatzen ezta, ezpada ... (5)

(216) ... cristau añ ona zalaco, gendeac nai etzioten, ... (8)

(217) ..., bere naigabemiñac negar eraguin etzion bat bera gueratu gabe. (11)

(218) ..., pena eta naigabea eman ceguiguquean ecer seculan eguiñ estiguzu. (12)

(219) Ez, beñ eta berriz esaten azpertuco ez naiz; ... (12)

(220) Gauz eder eta biotz-samurgarriagoric ecer ez da ... ama bat baño. (5)

(221) ..., eta egunen batean zu berriz icusteco dicha ceruac guretzat daucan eztaquigu; ... (11)

(222) Berac lana edo irabazbidea egokitzen etzion bearrecoric etzan, ... (23)

(223) Zu beste gorde nazaquean iñor munduan eztaucat; ... (29)

(224) Cuchare bat sopa bero zuri ematera datorquean iñor eztago. (34)

5.3.8.1. Ezezko aditzak atzeratzen berridatzitako liburuetan.

ERASKINEI begiratu bat egitea besterik ez dago, konturatzeko, hori dela, Arruek berridatzitako lanei eragiten dien aldaketa nagusienetako bat. Adibide batzuk segidan, hiru lanetatik:

(225) ...; ez da galduko ainbeste erregu ta negar kostatako semia. (BJM,31)

...; orrembeste erregu eta negar costataco semea galduco ezta. (BJA,9)

(226) ...: zuc ezdaquizu cer dan barberu izatia: ... (PAM, 45)

Barbero izatea cer dan zuc eztaquizu: ... (PAA,338)

(227) Ezdozu igon biar zarian baño gueijagora. (PAM,47)

Ceran baño geyagora igo bear eztezu. (PAA,339)

(228) Eztago gauza maitagarriagorik bere seme-alabak inguruan artu, eta (SG,33)

Gauz eder eta biotz-samurgarriagoric ecer ez da bere seme-alabachoac inguruan artu, eta ... (BG,5)

(229) ..., eta ez dakigu geyago ikusiko ote gaituzun; ... (SG,37)

..., eta egunen batean zu berriz icusteco dicha ceruac guretzat daucan eztaquigu; ... (BG,11)

5.3.8.2. Ezezko esaldi konpletibo inbertsio gabeak.

Mendeko esaldietako aditz atzeratze bitxi eta ez ohizkoak bezala interpretatu behar dira, Arruek 1863tik aurrera behintzat, lasai ematen dituen ezezko esaldi konpletibo inbertsiorik gabeak. Jaso ditugu halako batzuk 1863ko lanetik. Bihoaz geroagoko beste batzuk:

(230) ... eta beren lanen alderaco diruric artuco etzutela. (1866,18)

(231) Seguru natxeagok Golori bere konzientzia galduak engañu au ezagutzeko lekurik emango ez diola. (1868,64)

(232) Bereala agindu erazo zioten Jenobebari juramentuaren bean, basa-mortu artatik sekula irtengo etzala. (1868,64)

(233) ..., eta bitarte orretan beren armak lo egongo eztirala. (Leiendak,84)

(234) ..., eta jakiñaren gañean egon zaitezte, orduan ongi joango etzazutela. (Leiendak,96)

(235) ...; an azquenic izango eztala gu alcargandic urrutira gaitzaquean gaizquiñic. (1885,45)

5.3.9. Aditza atzeratzen, azkenik aginteretan ere, 1885erako.

Aditz modu guztien artean, dudarik gabe dira aginterazkoak, Arrueri gehien kostatzen zaizkionak atzeratzen, sistematizazio piska batekin. Bateren bat jaso dugu jada 1863koa, eta jasoko dugu besteren bat ere 1866 edo 68koa. Bat bera ere ez dugu aurkitu Leiendetan (nahiz aginterak bai erabili). 1885erako ordea, Arruek erruz aldatzen du jarrera, artifizialki atzeratuak emanez aginterazko adizkien erdi ingurua edo. Hemen sail batzuk:

(236) Deritzazuna eguizu (eranzun cion Santuac ...) (1866,24)

(237) (Begira zayozu bere alargunari,) eta bere umeen aitaordeko izan zaite; ... Karta au emango dizun neskatxa ongi paga zazu; ... / Espaasunen batekin datozkitzun guziak aditzazu amorez. ... Oraiñ nere ordez zuk egizu. (1868,58)

(238) ..., eta zu zaramazquian lecua, dan becelacoa dala, bera zurequin izango dalacoan seguru egon zaite. Cere gurasoac encargatua zauzcaten becela, cere beguien aurrean eta cere biotzean Bera beti iduqui zazu, eta bere mandamentu santuen bide estutic izpiric cearcatugabe beti zucen bideguizu. (1885,11-2)

(239) ...; baña ayen Genoveva gaitzquille bat izan etzala, erru eta culpagabe hill zutela, heriotzeco orduan ere bérac gogoan ceuzcala eta berari eguiñ izan ciozcaten aimbeste onguiteren esquerric andienac ciztela, zuc esan zayezu. (1885,45-6)

(240) Cere aguindupecoentzat biotz oneco izan zaite. Gañean dauzcaten pagaquizun andíac arin zaizquietzu: berai mayordomo zucen, parroco bertutetsu eta medicu ónac ipintzera saya zaite. Justiciaren, edo bere bear-premien aringarriaren, esque datorquizunean, nornairi aditu eta beguira zayozu. Guciaz gañ bearrecoacganaco biotz urricaltsu eta onguille bat iduqui zazu. (1885,47)

5.3.9.1. Atzeratzen, ezin nabarmenago, Santa Genovevaren aginterazko aditzak.

Arrueren azken erabaki garbiaz jabetzeko, ez dago konparatu baino 1868 eta 1885eko Genovevaren bicitzetako

aginterazko esaldiak, gure ERASKIN Vean ikus litekeena. Atzeratze adibideak ezin ugariagoak dira, eta batzuk jasotzen ditugu (lehenengo biak, Mogueldarrak zuzentzen):

(241) Batiatu ainbat lasterren, ... (BJM,35)

Alic lasterren batayatu ... (BJA,15)

(242) Adisquidia, eguizu verba modu obian: ... (PAM,44)

Adisquidea, modu obean itzeguizu. (PAA,338)

(243) ..., eta gaurgero izan zaite beraren aita eta ama. (SG,37)

..., eta aurrerontzean berarequico, emen uzten dituen aita-amen ordeco zu izan zaite. (BG, 13)

(244) ..., eta erregu ezazu nigatik. (SG,41)

..., eta nigatic erregu ezazu. (BG,21)

(245) Izan bedi au denborari lekurik emangabeko zure sentenzia azkenekoa; ... (SG,57)

Ondo beguiratugabe eman dezun lenengo epai edo sententzi au azquenecoa ere izan bedi. (BG,44)

(246) ..., konsola itzazu beren negar andian. (SG,57)

..., eta beren pena eta atsecabe gogorrean alai itzazu. (BG,45)

(247) Barka zayozu, nik barkatzen diodan bezela. (SG,58)

Nic barcatzen diodan becela barca zayozu. (BG,46)

(248) Begira zayozu bere alargunari, ... (SG,58)

Bere alargun triste errucarriari beguira zayozu, ... (BG,46)

Adibideak nahi adina luza litezke. Baina, artean 1885ean ere, Arruek zalantza du, ez du erabateko jarrera itxirik aginterazko aditzekiko. Horretaz jabetzeko, merezi du konparatzea, nola itzultzen duen, aginterazko esaldi sail pasaje bere bat, Bravante-co Genovevaren bi lekutan (lehenengoa, marrazki bati lagunduz; bigarrena testuan integratua dagokion unean), bi modu zeharo ezberdinetan:

(249) Or guerazaite, Genoveva, eta lurrean belaunica zaite. Oraň cere aurra utzi, eta hic, Enrique, beguiac lotu aquizquio. (1885,6)

(250) Gueldi emen, ... Jarri zaite belaunico, Genoveva. / Oraň cere semea indazu, ..., eta hic, Enrique, estali aquizquio beguiac. (1885,51)

5.3.10. Beste aditz atzeratze aipagarri batzuk.

Arrueren prosan badira aditz atzeratze nabarmenak beste testuinguru batzuetan ere, nahiz beharbada ez izan orain artean aipatu ditugunak bezain sistematikoak; eta guk behintzat ez ditugu hala jaso.

5.3.10.1. Galderetako aditzak atzeratzen.

Badu joera 1866az geroztiko Arruek, aditzak atzeratzeko galderetan, orokor, nola galdegile bidezkoetan (hauek hautsita emateaz gain), modu nahiko artifizialean. Nola suma litekeen segidakoan:

(251) Jaungoikoaren zerupean onelako gaiztakeri bat egiteko ausardia izango dezute? (1866,63)

Edota, J.A. Mogueli eragiten dion segidako orden aldaketan:

(252) ¿Mozolua baño nun dago egazti edertuago janciric? (PAM,45)

¿Mozollua baño ederquiago jantzitaco egaztiric non dago? (PAA,338)

Edota segidako exklamazioko zehar galderan:

(253) ¡A! joya preciotsu onez nere lepoa apañtzen zuenac beràc nere edadearen lorean lepo au ebaquitzea aguinduco zuela gogoàc ematetic ceñ urruti negoen! (1885,49)

5.3.10.2. X ote, edo Y den egituraren inguruan.

J.A. Mujikak komentatzen du, Arrueren 1868ko Santa Genovevaren inguruko lan batean («Gramatika egitura jakingarri batzuk», Memoriæ L. Mitxelena, 1991, 1029-1051 orr.), berak *X ote, edo Y den* deitzen duen egitura arruetarra, eta bertan jasotzen ditu Arrueren 1868ko bost adibide behintzat bitxiok:

(254) Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza ona ote, edo gaiztoa zan; (baizik irabazi edo atsegiñen bat emango ote zion ala ez.) (44)

(255) ...: ona ote edo gaiztoa dan, Golorekin Kondeak jakingo dute (63)

(256) Desditxadok etzekien hilla ote, edo lo zegoen (104)

(257) ... errua bere esposa Jenobebak ote, edo bere serbitzari Golok zuen, oraindik zalantzan zegoan; ... (106)

(258) ... etzekien alabaña amesetan ote edo esna zegoan (114)

Guri hala ere berehala pasatzen zaigu burutik, egitura ez ote den, besterik gabe, Arrueren amarru berri bat, bere esaldietako aditza, nola edo hala atzeratzeko, ahal bezain beste.[8]

5.3.10.3. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditz trinkoak ere.

Guk ezarian ez daukagu segidako adibidea besterik jasota, baina bera izan liteke adierazgarri, Arrueren nolabaiteko joerarena, *Ba-* aurrizkidun aditz trinkoak ere atzeratzeko esaldian. Kasuan Arruek erruz atzeratzen du Moguelen esaldi hasierakoa:

(259) Badira baserritar bizar eguiten jarduten dabeenac ... (PAM,48)

Bizar eguiten jarduten diran baserritarrac badira, ... (PAA,340)

5.3.11. Arrue posposizioa aplikatzen sintagma buruei.

Ikusi dugu nola Arruek, jada 1863ko Escu-Liburuan atzeratzen zituen sintagma bukaerara, Cardaverazek hasieran-edo ematen zituen zenbait sintagma buru. Arrue nabarmen saiatuko da gerora, euskararen balizko ezaugarri pospositibo hori aplikatzen, nolanahiko hitz buru edo erregimeni.

5.3.11.1. Atzeratzen J.J. Moguelen sintagma buruak.

Hala adibidez segidako esaldietan, aldatzen/zuzentzen J.J. Moguelen jatorrizko ordenamendua:

(260) Esakune txito egoki gurasoei jatorkena ta, geijenez, eurakgan ikusten dana da: (Aritxak bere erikua ozpala; ...) (BJM,30)

Gurasóai guciz egoqui datorquien, eta gueyenetan beracgan icusten dan esaera da: (Aritzac ezpala bere aricoa. ...) (BJA,8)

(261) ..., pelota edo dibersinoe berez gauza txaarrik ez daukan batera, ... (BJM,32)

..., pelotara, edo berez gauza charric ez daucan beste diversioren batera, ... (BJA,10)

(262) Badira arpegirik ez daukeen gurasuak, biar lako lotsia emoteko, ... (BJM,32)

Badira béren seme-alabai bear becelaco lotsa emateco arpeguiric ez daucaten gurasóac; ... (BJA,11)

(263) ..., Jaungoiko guztioen gurasuari (laguntasuna eskaturik, ...) (BJM,32)

..., guztion guraso Jainkoari (laguntasuna escatu, ...) (BJA,11)

(264) Alan, guraso mundutaar izandakuak, ... (BJM,33)

..., eta ala mundutar izandaco guraso batec ... (BJA,12)

5.3.11.2. Kapitulu izenburuetako sintagma buru atzeratuak Arruegan ere.

Lardizabalenean ere oso nabarmen aurkitu dugun bezalaxe, dudarik gabe suma liteke fenomenoa, Arruek Santa Genovevaren, edota Bravante-co Genovevaren zenbait atali ematen dion izenburuetan, nola segidakoetan:

(265) Eremuan Jenobebaren biziera bakar tristea (1868,73)

(266) Mortuan Jenobebaren konsueloak (1868,77)

(267) Bere esposa Jenobebagatik Sijifredo Kondearen pena eta naigabeak (1868,105)

(268) Sijifredoren jauregian Jenobebaren sarrera (1868,121)

(269) Basauntzaren gañean hitz bi (1868,147)

(270) Sigifredo condearequin Genovevaren ezcontza. (1885,7)

(271) Genovevaren contra guezurrezco asmacaria. (1885,22)

(272) Gazteluraco Genovevaren itzulera (1885,172)

(273) Genovevaren gañean hitz bat gueyago (1885,221)[9]

5.3.11.3. Erlatibozko esaldi kate koordinatuak izen erregimenaren aurretik; dislokazio eragile.

Hitz erregimen buruak artifizialki atzeratzen, maiz gertatzen zaio Arrueri izen buru baten aurretik eman beharra, erlatibozko bi (edo are gehiago) esaldi koordinatu. Ondorioz, jauzi eta dislokazio handiak esaldiko elementuen artean. Eman dezagun berriro goragoko esaldi pare hau:

(260) Esakune txito egoki gurasoei jatorkena ta, geijenez, eurakgan ikusten dana da: (Aritxak bere erikua ozpala; ...) (BJM,30)

Gurasóai guciz egoqui datorquien, eta gueyenetan beracgan icusten dan esaera da: (Aritzac ezpala bere aricoa. ...) (BJA,8)

J.J. Moguelek esaldi hasieran ematen du esaldi/sintagma burua (*Esakune*), hasieratik adieraziaz zertaz ari den hitzegiten, eta ondoren erlatibozko bi esaldi, nolabait independienteak, bakoitza bere atzizkiaren jabe. Arruek aldiz, sintagmaren bukaeran ematen du esaldi burua (*esaera*), eta aurretik erlatibozko bi esaldiak (lehenengoaren amaiera zintzilik, bigarrena osorik irakurri arte). Ez dakigu, esaldi osoa irakurri arte (26 silaba sintagma buruaren aurretik), zertaz ari garen hitzegiten, gaur egun guztiz zabaldua dagoen estilo dislokatu eta zailduan. Arruek ugari erakusten ditu halako erlatibozko esaldi koordinatu, zintzilikatuak, 1863ko lanetik aurrera:

(274) (...: Jauna jantzi nazazu berriro zure graciaz, ...,) eta batezere nic gueiena eguiñ oi dedan eta zuc añ gorroto diozun (onelaco edo alaco) vicioren contraco virtuteaz. (1863,5)

(275) Beti cerura beguira dagoan, eta beti Jaincoaz itzeguiten duan guizon hura: ... (1866,23)

(276) (..., batez ere zuei,) gauza garbi eta eder guztiak biotzean mella eragiten dizuten, eta lurreko gauzik ederrentzat gure erligio santu adoragarria daukazuten ama biotz-samúrrai, ... (1868,33)

(277) (Ezagu zazu, Etxeko andre maitea,) aiñ luzaroan gaxorik oi dagoan eta bere gaitzaldian zuk ainbeste on egin diozun Berta. (1868,55)

(278) Torre bakarra deritzan, eta oraň Torre-luzearen izenaz ezagutzen dan gaztelua, ... (Leiendak,98)

(279) (..., condéac) bere arrotzaldian bearco zuen eta berari on izango citzayola ceritzan gucia (prestatzen ciardun.) (1885,19)

(280) Bereala bere nagusien onari al guciaz beguiratzen cion eta Goloren somacari gaiztõai alguciaz bidea ebaguitzen cien Draco, ... (1885,26)

(281) (...; gogoratuco natzayo nosqui ....) Aimbeste demboran gaizqui nagoen, eta berorrec aimbeste on añ luzaroan eguin dion Berta. (1885,41-2)

(282) (... esan cion) ezpata ceraman, eta Goloren aguinduz borrero eguin bear zuen guizon zatarrac, ... (1885,50)

Antzeko sintagma buruen posposizioen artean, ikusgarria da segidako esaldia ere, zeinetan ezin dislokazio haundiagoa aurkitzen den (119 silaba) aditza (esaldi hasieran, aspaldiko partez) eta ondorengo objeto sintagma buruaren artean (kasuan ondo asko pre-determinatua mendeko lau esaldiren bidez, 90 silaba-determinante izen buruaren aurretik):

(283) Eguiten dizut, oh nere Jaungoicoa, baldiñ nere semeari eta neri bicia gordetzen badiguzu, au fede eguiazcoan acitzeco, oni zu ezagutzen eracusteco, Zuganaco eta bere antzeco guizonacganaco onguinai eta amorioa eracusteco, eta nere contura eman didazun joya preciatu bat becela bere anima gaitzetic gordetzeco promes aguiricoa, ... (1885,37)

Fenomenoak zerikusia dauka noski, Arrueren joera cardaveraztiarrarekin, nolanahiko esaldiak koordinatzen eta lotzen joateko, bakarrik hauen azken bukaeran emanez, aditz jokatua edo erlazio atzizki bakarra. Jaso ditugu gorago adibideak, eta ugari asko aurki litezke ERASKIN IIan. Bihoa segidakoa, mendeko esaldien koordinazio adibide bezala, eta azken erlazio atzizkiaren posposizio/dislokazio nabarmenarena:

(284) (Sinistua nago,) ezen Alonsok estu darabilzkien, Galizi aldeko-moroak, andik ezer ezin dezakeela ezagututa, gure itsas-bazterretara jendea bota, eta zernai gertakaritarako zerbituko lietekeen zenbait gaztelu gogor beretan egiñ, eta Asturiakoai erru aundiagoaz erasotzeko indar andiagoak deitu eta beretan batuko dituztela. (Leiendak,93; 123 silaba aditz nagusia eta -*(e)la* erlazio atzizkiaren artean.)

5.3.11.4. Aurreratzen ordinalen gunea, edo atzeratzen sintagma burua.

Bukatzeko, aipatu, Arruek oraindik eragiten dion beste zuzenketa bat J.J. Moguelen lanari, pentsatzen dugu, euskararen ezaugarri pospositiboaren ingurutik. Ematen ditu J.J. Moguelek bere kapitulu sarrerak, *ERAKUSALDI II.a, ERAKUSALDI III.a, ERAKUSALDI IV.a* moduan, ordinala nabarmen emanez izen erregimenaren ondotik. Arruek emango ditu, *II.-rren Eracusaldia, III-rren Eracusaldia, IV.-rren Eracusaldia*, … (Arrue berak ere inoiz behintzat erabili arren Moguelen segida bere ordinaleentzako, aitatuko dugu).

5.4. Arrueren teorizazio apurren batzuk euskararen ezaugarri pospositiboen inguruan.

Ez dugu hitz ordenamenduari buruzko oharrik aurkitu, Arruek eskuizkribaturik utzi zuen Euskal aditzari buruzko gramatika koadernoan, honi egin ahal izan diogun gain begiratuan.[10] Ordea ezagutzen dugu Arrueren iritzi bat bederen, idatzirik, zerikusi zuzena duena, bere idazkeraren ezaugarriekin. F. Arocenak jasotzen du Arrueren Peru Abarcaren argitalpenari egin sarreran (*BAP*, 1948, 173 or.):

Sirve mucho para fijar la maestría de Arrúe en el manejo sintactico de la lengua vasca traer aquí la esencia de una especie de alegato suyo, que no se publicó, en el que, a la par que manifiesta su resentimiento porque no le fuese adjudicado en uno de los certamenes el premio de que se creía merecedor en justicia, sale por los fueros del buen decir en vascuence y señala las incorrecciones que acompañan al texto de su competidor laureado. / «Según se observa -dice- al escritor premiado le parece que la traducción del castellano al vascuence se hace guardando en la colocación de las palabras el mismo orden del texto castellano; pero estan en un error, pues siendo la lengua castellana prepositiva y la vascongada pospositiva, ninguna analogía guardan entre sí ambos idiomas, por lo que a cada uno de ellos hay que aplicar su peculiar sintaxis». / La frase criticada es ésta: «Ibai Urmea edo Urumearen eskui aldetik eragin asi zuen bateri zail bat, irikiaz bide gorde bat Pasaia aldetikan ibaiaren ezkinaraño». El por su parte hubiese escrito: «Egin (o) Eragin

zuten (de ninguna manera asi zuten) Urme edo Urumea deritzan ibayaren eskui-aldetik bateria portitz bat, idikiaz Pasai (no Pasaia) ibaiaren bazter edo ertzeraño (no eskiñaraño, que significa angulo) bide gorde bat». / Creemos que hay que acompañar a Arrue en eso que dice, ... la reconvención del maestro de Zarauz, basada en que su contrincante, que no debía de ser euskaldun zar, pensaba en castellano y traducía lo pensado al vascuence, palabra por palabra, esta muy en su punto. / Quien así alambicaba la frase tenía que llegar a convertirse en una especie de traductor profesional. Y así lo fué Arrue, ...

Arrueren ideia, F. Arocenak ongi glosatua, garbia da, eta berebiziko arrakasta irabazi du mende honetan, merezi gabe. Zeredozer saiatu garen arren, oraindik ez dugu aurkitu, Arrueren delako alegatuaren testua, zeinak, 1880ko hamarkadakoa beharko duen izan, beraz Arrueren bizitzaren amai aldekoa. Testuko teorizazio apurra, duda gabe da cardaveraztiarra. Larramendiren Hiztegi sarreraren usaina dario, Cardaverazen *Eusqueraren berri onac*-eko hitz ahantz ezinena, itzulpenari buruz (berriro aireratuak garairako Campionen Gramatikaren lehen orrialdeetan). J.A. Moguelek ere antzeko ideia eta hitzak jasotzen zituen, Larramendirengandik, bere *Peru Abarca*-ren, *Prologo al lector vizcaino*-an (hitzez hitz jasotzen dituenak Arruek ere, bere *Prologo al lector guipuzcoano*-an). Arruek bestalde, seguru ezagutu behar zuen Lardizabalen Gramatika, eta beraz hango oharra ere aditzaren guneaz esaldian. Gainera, ez litzateke harritzekoa, Arruek eskuartean izatea (Zarauzko frantziskotarren etxean, non bizi izan baitzen bera boladaren batean), Añibarroren Gramatikaren eskuizkribua ere (prezeski bereak bezala jarduten duena, batez ere, bizkaierazko aditzaz); eta hala balitz, ezagutuko zuen bertako oharra ere, euskal aditzaren atze-guneaz. Positiboki ordea, jakin, ez dakigu, gutunekoaz gain ezer, Arrueren ordenamenduari buruzko ezagupen edo ikusmoldeez.

5.4.1. Hala ere baditugu, Arrueren aditz anteposizioaren baliozko testigantza berantiarrak.

Izan ere, polikixeago aztertzen bada Arruek Arozenaren goiko testuan zuzenduta ematen duen esaldia (*Eragin zuten Urme edo Urumea deritzan ibayaren eskui-aldetik bateria portitz bat, idikiaz Pasai ibaiaren bazter edo ertzeraño bide gorde bat*), esan behar lehenik, Arruek zuzenean hasten duela aditzaz bere esaldia, emanez galdegaia nabarmen, aditz horren ondoretik. Bi, Arruek mendeko esaldia ere, aditzaz hasten duela, eta noski honen (eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen) ondoretik ematen dituela esaldiko beste elementu guztiak. Ez ditu bada esaldi honetan zuhurregi aplikatzen, euskal aditzaren ezaugarri pospositiboak.

5.4.1.1. Arrueren 1878ko ezkutitza Printze Bonaparteri.

Badakigu Arruek Van Eysi lagundu ziola euskara ikasten, honek Zarautza egindako bisita aldietan 1866 eta 1868 urteetan. Eta uste dugun bezala, Arrue garai horietarako etsita baldin bazegoen, euskal aditzaren ezaugarri pospositiboekin, pentsatzekoa da, hala gaztigatu bide ziola, temati, bera bide zen bezala, bere dizipuluari. Ez dugu uste hala ere, ezaugarri honek arrastorik utzi duenik Van Eysen Gramatiketan, zehatzago aztertuko duguna bere lekuan.

Arruek izan zuen harreman txikiren bat Printze Bonaparterekin ere. Eta ezagutzen dugu Printzeari zuzendu zion eskutitz bat 1878an (N. Alzola, *BAP*, 1960, XVI, 101-3 orr.). Besteak beste, gutuna ohargarria da, kontu hartzeko berriro, Arruek zenbaterainoko askatasunekin erabiltzen dituen, 1878an, zuzenean aditzaz hasitako esaldiak, aditz perifrastiko nola trinkoaz. Berez oso laburra den testu batean, bai bederen segidako lau esaldiak, bakoitza bere euskal joskerarik ohizkoenean:

(285) Miretsiko zera noski, Jauna, nik zuri izkribatzeaz, ... (102)

(286) Daduzkat Dn. José Franzisko Aizkibel, euskaldun askijakinde otsandikoaren zembait paper ... (102)

(287) ..., eta dira: berak bere eskuz izkribatutako amar karta, ... (102)

(288) (Kart oyetako batean) eta da Madriden franzesen San Luisen premilenako Erretore Mr. Mauricio Arriet-i Aizkibel berak euskararen gañean izkribatzen dion chit luzea, ... (102)

Arruek ez die aditz hauei aplikatzen euskararen ezaugarri pospositiboa, nahiz agian bai beste batzuri gutun berean.

5.5. Arrueren beste joskera ez pospositibo aipagarri batzuk.

5.5.1. Erlatibozko esaldi batzuk behintzat, beren izen mugagabearen ondotik.

Hala ematen ditu segidako biak behintzat, guk ezarian jaso ditugunak. Izen erregimenak, bietan ditu bina esaldi erlatibo konplementu bezala, eta Arruek, kasu hauetan behintzat, zuhur asko ematen ditu, bata aurretik bestea atzetik, modu ulergarriago batean gorago jaso dugun bere ohiturazkoan baino:

(289) (..., jaquiñ ta ezagutu bear du, bere gayan dezaqueneraño,) lau gauz oyetan sarturic dagoan, erligio Santu, berac batayoan artu zuana. (1858,22)

(290) (Aditu genduen gañera) ustez argia zetorren urrutiko ots motel, beti berdiñ ziardun bat; ... (Leiendak,76)

5.5.2. -ko izenlagunak izenaren ondotik.

Gure tradizio guztietan bezain sarri ematen ditu Arruek bere lanetan zehar, *-ko* atzizkidun izenlagunak beren izen erregimenaren ondoretik, nahiz eta gehiengoa beti izan alderantzizkoa. Ikusi dugu gorago nola aurreratzen zuen Arruek 1863an Cardaverazen *Aingeru Goardakoa*. Baina Arruek puntu honetan ere, ez zuen inoiz erabat aplikatu ezaugarri pospositiboa (nahiz beharbada, gero eta gehiago bere lanetan, guk puntu honetan azterketa sakonik egin ez dugun arren). Bitez nahikoa, erabileraren mostrarako, garai desberdinetako adibide solte batzuk:

(291) ... eusquerazco beste edoceñ liburu precio berecoren ondoan, ... (1858, iii)

(292) ¡Gloria beticoa daquiola arguitasunaren Aitari, eracutsi cielaco Apostoluai Credo jaincozco au, ...! (1858,26)

(293) (... gaztelaniaz) ecin conta ala liburu gai onetacoac (irten diralaric, ...) (1863,3)

(294) ... esamiña contuzco bat, ... (1863,60)

(295) ... Eliz eguiazcoa ...; ... Eliz eguiazcoari ... (1866,3)

(296) ... Jaincoaren amore betico bat ... (1866,25)

(297) Fede egiazkoaren argi ederra ... (1868,35)

(298) ... zure sentenzia azkenekoa; ... (1868,57)

(299) ... bere biotz burnizkoa ... (Leiendak,81)

(300) ... gerra eriozkoa Erromari! (Leiendak,90)

5.5.3. Izen arrunta fi izen propioa segida.

Arruek alderantzizkoa ere erabili arren (eta askoz maizago segurasko, guk konturik atera ez dugun arren), bere garai guztietan ematen ditu adibideak *izen arrunta fi izen propioa* segida, nolabait ez-pospositiboa, gordetzen dutenak. Segidan, ezarian bilduta dauzkagun adibide batzuk:

(301) Gure Erredimitzalle Jesucristoren berri ... (1858,39)

(302) ... Inglaterraco Erregue Enrique zortzigarrenac ... (1866,3)

(303) Bere esposa Andre Dukesa ... (1868,35)

(304) (..., emanaz) izen Desditxatua, ... (1868,53)

(305) ... Errege santu Fernando III.nak ... (Leiendak,98)

(306) (..., gaur) Jaun txit argidotar On Franzisko Manuel Egañarena da, ... (Leiendak, 98)

(307) ..., bere Aita Duque eta ama duquesaren erdian ... (1885,9)

5.5.4. Baizik, ordea, juntagailuen gunea esaldi hasieran.

Bestelako posiziotan ere aurkitu balitezke esaldian, nahiko usuzkoa da Arruegan halako juntagailuen

aurreposizioa. Badugu susmoa puntu honetan ere, Arrue aurreposizio horren zaleagoa ote zen 1858an 1885ean baino, baina azterketa sakonagoa egin beharko litzateke hori ziurtatzeko. Bihoaz hemen ezarian bildu ditugun zenbait adibide; bai luzeak, eta bai labur askoak ere badirelarik batzuetan, aurrejarritako juntagailuok lotzen dituzten esaldiak:

(308) (... etzuan artuco onec bere siñaletzat Calvarioan Jesucristo iltzan gurutzearen ichura,) baicican Taborco mendian Jesucristo gloriaz betearena; ordea gurutzearen oñean jayoric, ... (1858,15)

(309) (¿Eta iru Jaungoico dira?) Ez, baicic Jaungoico eguiazco bacar bat. (1858,33)

(310) Ordea Semea Aitagandic badator ere, ... (1858,35)

(311) (... ez dembora lucea,) baicic laburra (igaroaz.) (1863,10)

(312) Ordea pelea latz haren estuenean ... (1866,5)

(313) (...; baña Jaincoa nolanai gloriatzearequin baretzen etzan:) baicic al citequean onguiena eguin nai zuan. (1866,24)

(314) (Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza ona ote, edo gaiztoa zan;) baizik irabazi edo atsegiñen bat emango ote zion ala ez. (1868,44)

(315) ..., ordea zuk ikusten dituzu nere malkoak, ...; ordea zure besoaren indarra galdu ez da; ... (1868,48)

(316) (Jaungoicoac eztigu artuco guri besteen carguric,) baicic guerona; ... (1878,13)

(317) Baña gerrarako ez baizik gerrariari ogia jateko bakarrik zerbitzen degun zar guziok ... (Leiendak,85)

(318) ...; ordea zure besoac bere indarra galdu eztu. (1885,30)

(319) (Nere borreroac ere ez beguitan artu, ...,) baicic eta beraquin berenai lagun zayezu. (1885,46)

(320) ..., cer beldur izan eztic, baicic gucia arriscatu bear dec. (1885,57)

5.5.5. Partikula erlatiboak (galdegileak) juntagailu anaforiko gisa erabiliak.

Partikula anaforiko ohizkoagoen artean (*non, ecen, zein, zerren, ...*), Arruek garai guztietan erabiltzen ditu tarteka, juntagailu prepositibo bezala, *noiz* (Larramendik esplizitoki gaitzetsia), *nondik, nola* bezalakoak. Erakutsi baino ez, ezarian jaso ditugun adibide batzuk:

(321) (..., ez ala dagoelaco, baicic ceren, bere aguinteco jarlecutic becela, andik erreinatzen duan,) Aingueru, guizon eta gauza gucien gañean, nondic etorrico dan escu aguinte ta magestade andiarequin, biciac eta illac juzgatzera. (1858,52)

(322) Etorriko da eguna, noiz eta emen arkitzen geranok ... esker milla emango diozkagun. (1868,38)

(323) ...; mendiaren oñean zegoen olako gabiaren otsa zan, nola ta ikusten genduen argia: ... (Leiendak,76)

(324) ¡Ah! etorrico da eguna, noiz eta ... concientziac imurtzi gogórrac eguingo dizquitzuten. (1885,53)

5.5.6. Ordinalen baten orden pospositiboaz.

Ikusi dugu nola zuzentzen zituen Arruek, J.J. Moguelen ordinalen segidak. Hala ere, 1858an berak ematen du hala moduzko adibide bat bederen (zenbaki agian berezi batekin), eta guk ezarian bildu duguna:

(325) ... bada au eguin gabez, egun bigarreneraco liburu gucia apurtu eta puntuan beñ berria erosi bear izaten da. (1858, iiii)

5.6. Arrueren eraginen inguru.

Ezagun dugu jada zein arrakasta eta zabalkunde berenganatu zuten lehenago Cardaverazen edo Lardizabalen lanek beren lurrean, eta nola biak hartu izan diren nolazpait, beren garaietako gipuzkeraren eredutzako. Kurioski, badirudi beste hainbeste ere gertatzen dela Arruerekin, edo behintzat bere Santa Genoveva edo Bravanteco Genovevarekin, hauen zabalkunde eta sonari begira. Hala predikatu ohi da bederen, eta entzun besterik ez dago F.

Arocenaren segidakoen antzeko hitzak, Arrueren Peru Abarcaren sarreran eginak (1948, 170 or), edo Aita Lino Akesolok, Santa Genovevaren azken argitalpenaren sarreran (1987, 24 or.):

Hay que advertir antes de pasar adelante que lo que mas popularidad atrajo a su memoria fué su versión de la Vida de Santa Genoveva, que aun se recita en las veladas invernales de los caseríos. Supo en su versión prender el alma popular y traerla a mandamiento en una prosa de gran fluidez y abiertamente asequible. El éxito tenía que acompañar necesariamente a la empresa y el resultado fué que no hay quiza texto euscaro mas divulgado que el de esa vida popular de la santa. (1948, 170 or) / Literaturaren aldetik Jenobebaren bizitza au da, noski, baliorik andienetako eta bai zabalduena ere euskaldunen artean. Lardizabalen Testamentu Zar eta Berriko Kondairarekin batean berau izan da, bearbada, euskaldunen etxeetan irakurriena. (1987, 24 or.)

Ez dakigu Arrue ere, proposatua izan ote den inoiz, gipuzkeraren eredu gisa. Edonola, Cardaveraz-Lardizabal-Arrue-en obraren hainbesteko zabalkunde eta arrakastak, hirurak euskal aditzaren posposizio orokorren gurutzatuak, dudarik gabe izan beharko du eraginik, XX mendearen urratz inguruetan, hegoalde osoan zabaltzen joango diren prosa eredu antiklasikoetan. Agian lagundu dezake nolabait esplikatzen, zertxobait justifikatzen, euskal aditzaren ezaugarri pospositibo orokorraren teoria, XX mendean zehar irabazten joango den ospe eta arrakasta sineskaitzak, euskalzalegoaren zabalean, eta oraindik ere gozatzen dutena, XXI mendearen itzaletan, gure prosaren kaltean.

ERASKINAK

1. Alderaketa bat, A. Cardaverazen Aita San Ignacioren Egercicioen gañean, ... laugarren partea (1761; 1765[2]), eta G. Arrueren (1863) Cristauaren Escu-Liburua-ren artean, hitzen ordenaren inguruan.

Beren obren lehen parte batean, bi autoreek itzultzen dituzte, ez dakigu zein orijinaletatik, A. Pinamontiren *Illaren egunoroco meditacio laburrac*-edo izeneko lana (Añibarrok egin bezala bere *Esku-Liburu* sailean). Ez ditugu hemen jasoko, baizik, bi autoreetan, konparagarri izaki, ordenamendu desberdina erakusten duten esaldiak, liburu bakoitzean aztertu ditugun 20 orrialde inguruetan (Cardaverazentzako, 1765eko bigarren edizioaren faksimila erabili dugu, *Euskal Lan Guziak*, Bilbao, 1973, LGEV; adibideetan lehenengoa da beti Cardaverazena):

... nigatic norc pensatucodu? (1)

... ¿norc ni gatic pensatuco du? (18)

..., nigatic norc seguratucodu? (2)

..., ¿norc ni gatic segurutuco du? (18)

Nerea da eguiteco au, (ta nere eternidade guztia onetan dijoaquit.) (2)

Da nere eguitecoa, (nondic eternidade gucia cincilic dagoan; ...) (18)

Nere anima baño gueiago amatu bear dedan gauzaric eztet. (2)

Ez daucat anima bacar au baño gueiago amatu bear dedan gauzaric, ... (18)

Betico dan nere anima au baño gauza baliosoagoric eztet. (2)

..., ez daucat anima betico au baño gauza preciosoagoric; ... (18)

...: pecatuan, pecatuco lecu, edo bidean ill naiteque. (3)

...: ill niteque an edo emen, ocasio artan, guertaera artan. (19)

Nic galtzen dedan ordua, nere azquenecoa izan diteque: ... (3)

Alferric galtzen dedan ordu ura izan liteque nere bicitzaren azquenengoa: ... (20)

...: ordu ori ondo igarotzean nere salvacioa segura dezaquet. (3)

...: eta ordu arc berac, ondo empleatuta, segura lizaquet nere salvacioa. (20)

... iltzen espanaiz, egun bat etorricoda, ceñean ... (4)

... iltzen ezpanaiz, etorrico da eguna, ceñean, ... (20)

Orduan confesatceco dembora, edo eraric izangodet? (4)

..., eta orduan. ¿Izango det confesatzeco lecu edo betaric, ...? (20)

Concienciaren esamen on bat eguiteco era, edo moduric izangodet? (4)
¿Izango det nere conciencia ondo ecusteco edo esamiñatzeco dembora, ...? (20)

Biotzeco damu ta propositua izangodet? (4)
¿Izango det damutzeco biotza, ...? (21)

...: nere bici guztico confesio general oso bat eguin naidet: ... (4)
Eguingo det nere bici gucico, ... confesio general bat, ... (21)

...: Confesore on bat artu, (ta zuc ematen didazun demboraz baliatuco naiz: ...) (5)
Autuco det Confesore on bat, ... (21)

..., ta zuc ematen didazun demboraz baliatuco naiz: ... (5)
..., eta valiatuco naiz ..., Jaunac ematen didan dembora onezaz. (21)

Eriotza santu bat nic logratzeco, cer eguin beardet. (5)
¿Cer eguitea on izango det eriotz on bat eguitera prestatzeco? (21-2)

...: nic pecatariac cer eguingo det? (6)
¿cér eguingo det nic, pecatari errucarri onec? (23)

(..., ta Ama Virgiñari escatuco diot) bere Concepcio garbiagatic bere mantupean betico artu, ta gorde nazala. (7)
(..., eta Virgiña guciz Santari escatuco diot,) gorde nazala onela nere eriotzaraño. (23)

Puntu artan anima gorputzetic irten, ta sentiduen gusto gucietatic betico apartatucoda. (7)
Istante artan apartatuco da anima gorputza gandic, eta sentiduen atseguiñ eta gusto gucietatic. (24)

..., nizaz cer izango litzaque? (7)
¿Cer nizaz izango litzaque? (24)

O puntu, ó momentu eternidade beticoa zure ondoren dacartzuna! (7)
¡O eternidade ona edo gaiztoa dacarren instantea! (24)

Orduoro eriotzaz oroitu, ta conciencia esaminatu beardet: (A.S. Ignacioc ala eguin oizuen, ...) (7-8)
Esamiñatu eta icusico det egunaren ordu bacoitzean, lenagocoa nola eman dedan, (S. Ignacioc eguiñ oizuan becela; ...) (24)

Ordu bacoitza aditzean, Ama Virgiñari deituco diot, ... (8)

...; eta erlojua aditze gucian artuco det Virgiña guciz Santa gana bide eguiteco oitura, ... (24)

Eriotzan anima juicioan presentatzenda. (8)

Joaten da anima juiciora. (25)

Puntu artan Jaunaren Tribunalean arquitucoda. (8)

Nere eriotzaren puntu eta unean bertan izango da nere anima Jaunaren tribunalaren aurrera eramana. (25)

... Aingueru goardacoa ... (8)

... Guardaco Ainguerua ... (25)

Orduan cer naico det? (9)

¿Cer naico nuque nic eguin izatea, baldin ordu au nere azquenecoa balitz? (26)

Esamen, edo contu au chit estua, ta latza izangoda: pensamentu, itz, ta obra guztiena; ... (9)

Guciz estu eta zucena izango da pensamentu guzien, itz gucien eta obra gucien contu-artzea. (26)

Jueza guciz justu estua, ta piedade gabecoa egongoda. (9-10)

Guciz justu eta zucena eta erruqui gabea izango da Jueza. (26-7)

Beraren beguietan pecatuac eguin nituen: ... (10)

Beraren aurrean eguin nituan pecatuac, ... (27)

Sentencia beticoa, ta erremedio gabecoa izangoda. (10)

Sentencia izango da urratu, ta aldatu edo mudatu ecingo dana: ... (27)

Aitzaquia, edo escusaric an ezta: escari, epe, edo atzera biurtzeric an ezta; ... (10)/

...: an ez da izango aitzaquiric; ..., ez da izango beste norgana bide eguiñic. (27)

Gloriaraco sentencia bada, ... (10)

Sentenciaturic gloriaracoa bada, ... (27)

(Gloriaraco sentencia bada,) anima justua virtutez, ta doaiez apañduric fiesta andian Aingueruac cerura puntu artan eramango dute. (10)

(Sentenciaturic gloriaracoa bada,) joango da bereala anima Cerura doaiz eta virtutez apainduric, Aingueru santuen fest andien erdian. (27)

Cer poza, ta contentu paregabea izango duen, norc esan dezaque? (11)

¡Norc ezagu lezaque cer atseguin-contentua izango dan au! (28)

Baldin sentencia betico penaracoa bada, ... (28)
Infernuraco sentencia bada, ... (11)

Suerte, edo sentencia oietatic bat bacoitzac betico beardu. (11)
Bi sentencia abetatic bat emen bear zaio bacoitzari erremedio gabe. (28)

Ai, ta ceñ izango ote da nerea! (11)
¿Bietatic ceñ neretzat izango ote da? (28)

...: icuste eztu, movitzen ezta, sentitzen eztu: ... (12)
Ez ecusten du, ez aditzen du, ez sentitzen du, ez muguitzen da, ... (29)

... ta bost bider esangodet: ... (13)
..., eta esango det bost aldiz: ... (30)

Nere eche, edo lecua au izango da: ... (13)
...: au da echea, nora egunen batean nere gorputz au ecarrico duten, ... (30)

Nere bicico instante bacoitzean proceso au eguiten arida: ... (13)
Bici naizan artean puntu oro ari da eguiten nere bicitzaren procesoa, ... (30)

...: eta egun bat etorricoda ceñean gucia iracurrico dan. (13)
..., eta etorrico da au iracurtzeco eguna. (30)

(Iracurricoda) eguin bear ez nuen gaitz gucia, ta orregatic ere nic eguin nuena. (13)
(Iracurrico dira) eguin bear ez nituzquean, baña orregatic ere eguin nituan gaiztaqueria guciac. (30)

(Iracurricoda) eguin bear nuen on gucia, ta eguin ez nuela. (13)
(Iracurrico dira) eguin bear nituzquean eta eguiñ ez nituan obra on guciac. (30)

Guciaren betico sentencia emangozat: ... (13)
Emango zat guztien sentenci azquenecoa. (31)

...; baña noiz ori eguingodet? (14)
Baña eta ¿noiz eguingo det? (32)

Beste demboraric, orañgoa baicic, nere escuan eztago: ... (14)
Eztago nere escuan beste demboraric, ... (32)

..., Errosario bat Ama Virgiñari devocioz esango diot. (15)

Errezatuco det Errosarioa ..., Virgiña guciz Santari gogotic escatuaz, arren ... (32)

Asco, ta icaragarriac izango dira: ... (15)

Izango dira chit asco: ... (33)

...: Eguzquia illunduco da: ... (15)

...: eguzquia izango da illundua, ... (33)

Ustez ustegabecoac izango dira. Munduan guchiena uste danean: ... (16)

Abec guciac etorrico dira supitoan eta munduac guchiena uste dituan garaian, ... (33)

Arrigarriac izango dira. (16)

Izango dira guciz bildurgarriac: ... (33)

Euria bezala sugarrac etorri, (ta erreco dituzte guizonac, ...) (16)

...: erorico da cerutic suzco-euri izugarri bat, (eta onec ondatuco ditu bere garren artean guizonac, ...) (33)

..., ta bereala zure gorputz ori lurpetic biciric jaiquicoda. (16)

Piztuco du nere gorputz au, datzan toquian datzala, an bertan. (34)

Orretaco zure anima cerutic, edo infernutic etorrico da. (17)

Nere gorputz onequin berriz batutzeco etorrico da nere anima, edo cerutic, edo infernutic. (35)

..., eta gorputza ill eciña, edo inmortala guelditucoda. (17)

..., gorputza ere gueratuco da illezcor edo gueiago ilco eztan eran. (35)

Ama santisima bere aldean duela, Aingueru, ta Santuaquin etorrico da Cristo gloriaz beteric: ... (17)

Aguertuco da Jesucristo Ceruco bere cortearraquin, odeien gañean magestade andian, Aingueruen gucizco alabancen erdian, apostoluaquin batera Maria guciz Santa aldamenetic duala, ... (35-6)

...: eta zure Criadorea bezala eman dizquitzun gracia, ta doaien contu estua escatuco dizu. (17)

Eguilleac becela escatuco dit nere salvacioraco eman cizquidan, eta nic esquergabe onec añ gaizqui empleatu nituan aimbeste bide, gai eta eraren contua. (36)

Aita maiteac bezala zurequico amorioaren contu artuco dizu. (18)

Aitac becela escatuco dit nerequin izan zuan aimbeste amorioren, eta nic ezagſera gabe onec añ gaizqui eranzun nionaren contua. (36)

Redentoreac bezala zugatic eman zuen odolaren contu artuco dizu. (18)

Erredimitzalleac becela escatuco dit, nigatic ixuri zuan aimbeste odolen, eta nic, basa piztiac baño odolquiroago onec, aimbeste aldiz osticopean erabilli nuanaren contua. (36)

Cer aitzaquia emangodet? (18)

¿Cer aitzaqui orduan eman al izango det? (37)

Baña juicioan Aingueruac irtengo dira, ... (19)

...: irtengo dira Aingueruac, ... (39)

..., ta justuen artetic gaistoac ezquerrera botaco dituzte. (19-20)

..., eta berecico dituzte onac gaiztoen artetic. (39)

(Ezquerretara condenatuac, ta orien artean bearbada) aiec ere bai, ceñaquin nic pecatuac emen eguin nituen. (20)

(ezquer-aldetic egongo dira condenatuac, eta emendatzen ezpadira,) nic pecatu eraguin nien aiec. (39)

Gaistoac justuen artetic bereciric, Cristoc sentencia emangodu. (20)

Justuac gandic pecatariac berecitacoan, Cristoc emango du sentencia. (40)

Sentencia seculan guedeituco, edo errebocatuco eztana. (20)

Iñoz ere galdu edo berrituco eztan sentencia. (40)

Sentencia beñ eman, da instanteco cumplituco dana. (20)

Berealase cumplituco dan sentencia. (40)

Sentecia beñ eternidade guztiraco emango dana. (21)

Eternidade guciraco beñ eman eta adiracico dan sentencia. (40)

Dembora da caudal bat, balioric andienecoa; ... (21)

Valioric andieneco ondasun bat da dembora; ... (41)

2. Arrueren 1866z geroztiko esaldi luze aukeratu batzuk, silaba kontaketa eta guzti.

2.1. Aita San Ignacioren Bicitza. 1866 (1892/93).

(Zuzendu egin ditugu akats tipografiko nabarmenenak; eta azkenean Tolosa, 1881eko bigarren argitalpenaren laguntzaz.)

Fedearen ucatzalle arro gaizto Luteroc Alemanian Elizari galera andiac eguiten cizcan unean, Inglaterraco Erregue Enrique zortzigarrenac Aita Santuari obediencia ukatu, eta bere erreinuan Eliz eguiazcoa ondatzen zuan garaian; fedearen berritzalle ustezco Calvinoc, len baño obeto ipintzeco amesaquin Eliz eguiazcori Francian guerra bicia eguiten cion sasoian, beti bere Elizaren estutasun eta premiari beguira dagoan Jaincoaren providencia miragarriac sortu zuan gure Españian cristau guciz sonatu izango zan bat, Jaungoicoaren etsaiac eguiten citusten aurrerapen eta onda mendi galgarriai bideac ebaquitzeco gucien oitura, costumbre eta bicimoduac berritzeco, eta egundaño Apostoluac irichi gabeco errieta bazterretara Jesucristoren fede eguiazco bacarra eramateco jaioa. (3; 181 silaba aditzaren aurretik -a.a.-, eta honen ondoren beste 104)

... Bere gorputzaren egoquitasun eta bizarriya ez galtzearren epaira eta gañeraco erremedio mingarrienac onez eta errencuragabe eraman cituan guizon arc catea gogor batez guerria lotu, cilicio batez eta sacu zar batez bere gorputza estali, eta bere arpegui ederrac ematen cion aire eder eta munduzcotasuna estaltzeco bere burua moldacaitz zatar eguiñ, eta atez ate ogui pusca baten esque ibiltzen, hospitaleco gaisoai laguntzen gende gaiztoaren burla eta trataera charrac onez eta errencuragabe eramaten, egunoro ur eta ogui utsezco barau gogorrac ateratzen, gauric gueiena oracioan igarotzen egunean irutan bere gorputza lasqui castigatzen, eta penitenciaric ezugarrienac eguiten guizon erreguelatu au gucien miragarri andian ecusizan. (6; 283 silaba a.a.)

... Ecaitz gogor hura sortu zuan Erretore edo colegioco burua Ignaciori eguin cion irañ edo injuria oso quendu edo astueraci nairic, Ignacioren estudioac, edo honi eracustea batez ere bere contura artu, eta gañera Nafarroaco zalduncho gaste Francisco Javierequin batean colegioan bertan lo eguiten zuan galai gazte Saboyatar jaquintzu bat obeto icasi cesan, lagun eman cion Ignacioc onela aimbeste icasi edo aurreratu zuan, non eta lasterasco filosofiaco maisuaren icen edo titulua irabaci eta beretzat honra andian Teologia icasi zuan. (13; 159 silaba a.a., eta ondoren beste 49)

..., eta lambide añ goratu eta Jaungoicoaren gogoco bera berarizco voto edo promes baten bidez beartuac beren buruac uzteco artu zuten Ama Virgiña Abuztucoaren eguna 1534 garren urteco egun honetan Ignacio lagun abec berequin artu, eta Monmante [sic, Montmartre] edo martiren mendicoa deritzan elizara eraman, eta aspaldisseago ordendu edo meza emana cegoan Pedro Fabroc meza esan eta guciai bere escuz comunioa lurpeco elizacho edo capillan eman cien; ... (14-5; 179 silaba a.a.)

Españiara etorri bearra guertatu, eta Cristoren jarraile eguiazco baten guisa, edo diru eta munduco beste gauzaric gabe gure provincian sartu, eta Azpeitiaco Misericordiara baztertu, eta esquean bildu eta jan behar izan zuen. (16; 79 silaba a.a.)

... Berac len bicitze mundutarra eguindaco lecu aien ecusteac lengo penitencia gogorrac berritzeco gogoa eracarri eta cilicio latz bat artu, burnizco catea lodi bat guerrian lotu, eta bere burua gogorqui cupidagabe tratatu zuan. (16; 82 silaba a.a.)

... Aita Santu Paulu irugarrenac guizon santu aben esqueñtz edo ofrecimentua guciz ontzat artu eta Lainezec-Sapiencia ceritzayon colegioan Teologia, Fabroc Escritura sagradua, Ignacioc Aita Santuaren escubidez vicio oitura edo costumbre gaiztoen contra bere ejercicioacquin bearreguiten zuan bitartean, eracutzi cezatela aguindu cien. (18-9; 125

silaba a.a.)

... Auquera añ onaren ondoren Compañiaco Aita guciac Erromaco zazpi Elizac visitatu eta, San Paulorenean gueratu, eta emen General berriac meza Santua esan bere seme guciac bere escus comulgatu, eta berac bere profesiua Aita Santuaren escuetan eguiñ ondoan beste guciena berac artu zuan. (20; 110 silaba a.a.)

... Simon Rodriguez-ec orduraco devocioaren berotasuna Portugalgo Corte edo Lisboan sartu, eta Compañiaco lenengo Colegioa erregueac Coimbraco icasol, edo Universidadean mundu berriraco apostoluen aciteche edo escoquitese escola izateco fundatu zuan [96 silaba a.a.]. Alfonso Salmeron eta Pascual Bronet Enrique zortzigarren erregueac aleguiñic ascorequin galeraci naiciequeen gure fede eguiazcoan erri aiec sendo iduquitzera Aita Santuac bere nuncioac becela bialduta, Irlandan arquitzen ciran [82 silaba a.a.]. Claudio ayec gure Eliz eguiazcori victori andiac irabazten cizcan Alemanian, Luteroren jarralleen eguiñal eta trampia gueien damuric ere Lainez eta Salmeron Irlandatic deitu eta Aita Santuaren teologotzat Trento-co batzar edo concilio andira bialduac izan ciran, ... [98 silaba a.a.]. (20-1)

...; baña onetaraco eguin cituan aleguiñ eta artu cituan neurri eta bideac, bacarric bere bertute goratua obeto aguertzeco eta Paulo irugarren, Marcelo bigarren eta Paulo laugarren Aita Santuac gauz hura berriz aipa etzezala aguintzeco servitu cituen. (22-3; 89 silaba a.a.)

... Humiltasun barruncoi berriazco onec Aita Santu eta Ignacio ezagutu zuten guizon sonatu guciac esan zutenez Ignacio Elizaco Santu andienetatic bat izatera goratu zuten mirari eta eguinde andi asco eta asco guri ezcatu cizquigun. (24; 86 silaba a.a.)

... Bizquitartean Ignacioc beguiac ceruronz jaso eta guero bere semeetaronz itzuliaz, abei voz aitu eta iltzen dagoanaren batequin Jaincoaren amore betico bat envargatu, eta beti bacarric bere gloria andiagoa billa cezatela, aguindu, guero escuac tolestu, berriz beguiac ceruronz jaso eta Jesusequin Mariaren icen gozoac esanaz gozotoro ill zan 1556a garren urteco uztaillaren azqueneco egunaren goiceco bostac aldean, ... (25; 130 silaba a.a.)

... Illeta eguiten cioten bizquitartean bost urte aietan maturiac edo lamparoiacquin gaizqui cetzan damacho baten ama batec Ignacioren gana gorputza icutu al bacenezaquen bere alaba sendatuta gueratuco zalacoan aleguiñ eta catazca guciacquin ere gende artean aurrera ecin igaroric, Compañiaco aita bati erregutu cion, ecen arren ... (26; 116 silaba a.a.)

...; eta Aita Santu Gregorio amabostgarrenac, emperadorearen, Españiaco, Franciaco, Poloniaco, Portugalco eta Europaco erregue cristau gueienen erreguz San Francisco Javier, San Felipe Neri, San Isidro necazari eta Santa Teresarequin batera 1622 garren urteco Marzoaren amabian canonizatu edo santutzat declaratu zuan, Alejandro Farnesio Cardenalac eraguindaco Jesusen eliz sonatura 1597 garren urteco Azaroaren emeretzian bere gorputza aldatu eta aldare nagusiaren escuialdean ifiñi zuten. (26-7; 208 silaba a.a.)

2.2. Santa Jenovevaren vicitza 1865 (19874).

(Aurrerantzean, oro har esaldiak nahikoa laburragoak dira San Ignacioren bicitzan baino, nahiz joskera ezaugarri berak gorde.)

Zuei, ama onak, batez ere zuei, gauza garbi eta eder guztiak biotzean mella eragiten dizuten, eta lurreko gauzik ederrentzat gure erligio santu adoragarria daukazuten ama biotz-samúrrai, eta sentimentu eder oezaz bete, irazaki eta azi nai zinduzkeen zuen seme-alabatxoai eskaintzen dizuet liburu au. (33; 107 silaba a.a.)

... Baldin, orduko Etxekoandre andizkiak oi zuten bezela, Andre Dukesak linaya artzen bazuen, Jenobeba bost

urtekoa zalarik, bere amaren ondoan sillatxoan jarri, eta ardatza ondo erabiltzera, eta arialbeñu méak irutera alean sayatzen zan. (35; 87 silaba a.a.)

... Konde au ara alderatu ez altzan, bere serbitzari eta agindupeko guziak, ala gizon nola emakumeak, eta mutiltxo, neska txiki eta aurrak ere beren arroparik onenaz apaiñduta bidera irten zitzayozkan. (39; 70 silaba a.a.)

... Gañera Kondeari bere bayezkoa eskaturik, bere soldadu eta serbitzari guziai urte artarako soldata eta paga doblatua, eta erriko jende beartsuenai egur eta garizko limosna ugaritsu bat zekiela, agindu zuen. (39; 79 silaba a.a.)

... Ingurumaiko baserrietako neskatx guziak bereganatu, eta ardatzean, josten eta gañerako gauzak egiten trebatzen zituen bitartean, erakutsion eta kondaira miragarriak kondatzen ziezten. (43; 65 silaba a.a.)

... Jenobebak Drakori karta eman zion unean bertan Golok, ezpata bat eskuan zuela Jenobebaren gelara sartu, eta onen aurrean bertan Drako tristea bere arekin josi eta hillotzik utzi eta deadartzar bat egin zuen [65 silaba a.a]. Deadar artara etxeko guziak itsumustuan etorri, ta Kondesa izuaren izuz hilla zirudiela, hitzgabe, silla batean jarrita, Drako berriz guzia odolez bustita, Jenobebaren oñetan hillozturik, eta Golo asma al guziak Kondesaren kontra esaten arkitu zituzten [92 silaba a.a.]. (45)

2.3. Leiendak 1881-1885 (19902).

...: egun hura eta gaua an igarotzeko apaiz ark egin zizkigun al guziakgatik, arratsalde artan Gipuzkoako beste erri batera etorri bear genduela nere aita setaz leiatu, eta arratsalde-berandua zalarik apaiza eta bere etxea utzi, eta bideari eman gintzaizkan. (75; 95 silaba a.a.)

...; gabiaren kolpe-ots, eta uraren eta aspoen zalapartak burua austen bazuten ere, olara batutzen ziran auzoetako emakume ardazleen ipui eta kontu atsegiñak errez denbora igaro erazitzen ziguten. (76; 67 silaba a.a.)

Jai egun batez kaleko pestara bere aitarekin jetxi, eta aita semeak tabernatik, berandu asko irten, eta illunduta biak beren baserrira zetozela, semeak aita bide gaiztoa zala bide, aurrera joan ezin zalarik, burla eta farra egiñaz bidean utzi zuen, bera etxera joanaz. (77; 91 silaba a.a.)

Seme gajoa ezeren pozgabe, etxe, etxeko tresna abelgorri ... eta munduko ezergabe, bakarrik ikusi zanean, Jaungoikoaren gobernu zuzena ezagutu eta adoratu, eta bere bazterra utzi, eta itsaso zabal oriek igaroaz Ameriketara joan zan, ... (79; 90 silaba a.a.)

Bazter aietan oi bezela, loari zenbait ordu kendu, eta beren matazak irutera olara batutzen ziran emakume txit langille aiek beren ardatz, linai eta eskuetako lanak bildu, eskumen bana lasto irazeki, eta beren etxeetarako prestatu ziran, ... (80; 85 silaba a.a.)

...; eta ala olagizonai ezaguera onezko gere esker-erakutsiak egin ondoan , aiek betiko bere lanean utzi, eta emakume aren etxera joan, eta onek ipiñi zizkigun oi pobretxo, baña txukuñ eta garbietan egunerañoko ordu laburrak lo gozoan naierara igaro, eta goizean gere bideari eman gintzaizkan. (80; 112 silaba a.a.)

... Bere begiak len gerrariai ausartzi portitza ematen zieten, eta gerrako bere irrintziak etsaiari zukaratz gogorra sartzen zion agintari ezikaitz izugarriak, orañ arkaitz batean eserita, bere oñetan dijoazkion urakin bere negarrak nasten ditu. (81; 88 silaba a.a.)

... Ai! zu orrela ikustean, nere oroitzkiñak Vakzia eta Austrigoniako bazterretan etsaien ekerzituak purrukatuaz zere anaien aurrean oi zinjoazen egun eder aiek gogoratzen dizkit! (83; 62 silaba a.a.)

... Batzarre artan ez Kantabriako gerrari sonatuenai, ez Sartaldetik etorri eta gureen aldamenean lazki peleatzen ziran agintari bulardetsuai eta añ gutxi biotz andikoenen aurrean peleara oi zijoazen emakumeri sarrerik eman zitzaion. (86; 86 silaba a.a.)

Egun sentieraren asieratik Kantabriatar gerrariak eguzki aldeko mendi egaletan jarri, eta beko ibarretara etsaiaren kontra egatzeko, bakarrik beren buruzagiaren gerra-irrintzia begira zeuden. (87; 79 silaba a.a.)

Graziazko zazpireun berrogei ta bat garren urterontz, Alonso lenenak Asturias-en erreinatzen zuen garaian, gaur erri bildua dan Aia aldeko Etxejaun bi, Landerbide eta Elizamendi, beren barrutietatik sakabanatu eta galdu zitzaizten larra-beien billa udako arratsalde eder batean irten, eta or-emen zebiltzala, orduan ugartea zan Zarauz-en, egoa aldeko ur bazterrera eldu ziran. (93; 136 silaba a.a.)

... Bederatzi-garren egunean, txit goiz, Torre-gaztelukoen laguntzalle bulardetsuak beren zardaiak danzatuaz, eta pelearako beren irrintziaz, turmoiak bezala bazter guzi aiek ikaratuaz, ugartean sartu, eta alaingo bizitasun, erru eta portiztasunaz sitiatzalleen gañera erori ziran, nun ... (97-8; 100 silaba a.a.)

Torre bakarraren lenengo ondekidari garaileak Zarauzko ugartearen jaun eta jabe bakar geratuak, berai laguntzera etorri ziran beste zenbatekin bertan geratu, eta Etxezabal, Torre Laburra, Mendikoa, Intxaur-ondo ... derizten gaztelu gisako etxeak jaso zituzten. (98; 91 silaba a.a.)

2.4. Bravante-co Genoveva 1885.

... Arteraño iñorc urratu eta landugabeco bazter eta cicoitzac ere cristau-erligioaren lenengo zabaltzalle ayen escu onguilléac landu, maneatu eraci eta berealatic abuztu edérrac emateco sasoyan ceuden, ... (8; 82 silaba a.a.)

... Amar urteetatic amabira cijoala bere beguitarte alai eta bertutea arguiro aguertzen zuen arpegui ederrarequin, garbitasuna eracusten zuten bere masallcho gorriaquin, bere sorbaldetan beera erorten citzayon ille luce, eder quizcurrarequin, bere Aita Duque eta ama duquesaren erdian aldarearen aurrean belaunicatua icusten zanean, cerutic jechitaco aingueru bat zala, esan citequean. (9; 142 silaba a.a.)

Garai onetan Sigifredo ceritzan zaldun gazte, bulardetsu, azcar eta guerrari trebe, chit goimallaco eta biotz prestuco batec jatzar edo batalla estu batean galdu-gordean cebillen duqueari bicia gordetzea guertatu zan, ... (10-1; 94 silaba a.a.)

... Bereala intzez bustitaco lirioen guisaco bere masall eder negarrez bustiaquin cegoen Genoveva gazteari zaldi eder biciro apañdu baten gañean jartzen bere esposo condeac lagundu, eta bera ere beste bati azcar igo, eta beren laguntalde eta serbitzariaquin laster beguietatic galdu ciran. (14; 106 silaba a.a.)

... Condea bere esposa gaztearequin atadira alderatu zanean, serbitzari eta aguindupeco gucíac nola guizon ala emacumeac, nola mutill gazte ala nescachac, zarrac eta aurrac, alic onguien apainduta beren onguietorrira irten citzaizten. (15; 83 silaba a.a.)

... Jaun guerraríac burutic oñetara burniz estali, eta beren nagusiaren otsera, egun sentiraco etorri, eta, besteac becela burutic oñetara armatua etorri zan condearen inguruan gucíac sala andi batean jarri ciran. (19; 80 silaba a.a.)

Condesa onela hitzegiñ, eta arpeguico colorea papera becela churitu, eta charraldiac artu eta condearen besoetan erori zan. (20; 46 sil. a.a.)

... Au guizon fiñ-usaico, naierara acitaco, bere hitz leun eta artzen cituen neurri ónen bidez gucien borondatea irabazten eta gucien confiantza beretzen cequien guizon bat zan; ... (23-4; 63 silaba a.a.)

...; baña gueldica egoac artuaz joan, eta gueroenean bere onra bear becela estimatzen duen echecoandre andi ezcondu eta garbi bati eguin al lizayozquean escariric lotsagarri eta desonragarrienac berari eguitera bere lotsagaberi urduritua allegatu zan. (25; 100 silaba a.a.)

... Bereala bere nagusien onari al guciaz beguiratzen cion eta Goloren somacari gaztõai alguciaz bidea ebaquitzen cien Draco, condearen cuciñari prestuari carta eman, eta onec bere confianza gucico persona baten bidez carta bialtzea, bere contura artu zuen. (26; 98 silaba a.a.)

Condesac bere senarrari eguin cion carta Dracoren escuetan ipintzen zuen unean bertan bere ezpata narrugorritua escuan artu, eta urduriqueri gucian Genovevaren guelan sartu, eta Draco gajoa cipocada batequin Genovevaren aurrean billotz eta bere odoletan igari utzi zuen [102 silaba a.a.]. Genovevac eguin zuen ¡ay! tristera gazteluco gende gucia itsumustuan joan, eta condesa gajoa izuaren andiz colore gucia galduta, eta hitzic eguiteco gauz etzan eran bere sillan eserita, eta bere oñetan Draco tristea bere odol-putzuan irabiatua eta hillotza arquitu zuten [102 silaba a.a.]. Golo zutic, eta odolez gorritutaco bere ezpata escuan danzatuaz, condearen onra ordañdu zuelaco poza aguertuaz, eta Draco zanaren eta condesaren contra asma al guisac esanaz pamparroi eta arro aguertzen zan garayan [75 silaba a.a.]. / Bereala guizon gaizto urduritu onec guezurrezco asmacio lotsagarriz betetaco, eta andre bertutecoi eta garbiena esposa desleyal eta desonratuena becela beguietaratzen cion carta batequin condeari mandatari bat bialdu cion, ... [83 silaba a.a.] (26-7)

3. Alderaketa bat, J.J. Moguelen Baserritaar Jakitunaren Etxeko Eskolia (1845), eta Gregorio Arruek gipuzkerara itzulitako Baserritar Jaquintsuaren Echeco Escola-ren artean (1878), hitzen ordenamenduaren inguruan.

Jaso ditugu, ordenamendu aldaketaren bat suposatzen duten esaldiak, Itz-aurre eta Lenengo Eracusaldian. Adibideetan lehena beti izango da J.J. Moguelena, zeinen testutarako erabili dugun, oraintsu EEEk argitara berri duena, 1991ean, Klasikoak saileko, 51. alean.

Ateraten dau argitara bigarren aldiz ta geigarri barrijakaz D. Juan Jose Mogel Markinako Abadiak (19)

D. Juan Jose Moguel, Marquiñaco Apaizac Vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec, Guipuzcoacora itzulia. (1)

Juan, baserrijan jaijo ta aziriko mutilla, etxaguntza on baten jaubia, izan zan txikitatik guztiz ikasnaija. (28)

Juan, baserrian jayo eta acitaco mutill, echalde on baten jabea, chiquitatic izan zan guciz icasnaya. (3)

... ta, izanik bere bizitzia eskola aiñ onari jaokana, ... (28)

..., eta bere viciera escola añ onari cegoquion eracoa izanic, ... (3)

Jaungoikuak alan nairik, ezkondu zan Franziska eritxan neskatilla garbi ta ondo azirikuagaz, (zeñi beriala asi jakon emoten irakurriko dituzun erakutsijak.) (28)

Jaungoicoac ala naita, Francisca ceritzayon nescacha garbi eta ondo acitaco batequin ezcondu, (eta berealatic abiatu zan iracurrico dituzun eracutsiac oni ematen.) (3)

..., zeñi beriala asi jakon emoten irakurriko dituzun erakutsijak. (28)

..., eta berealatic abiatu zan iracurrico dituzun eracutsiac oni ematen. (3)

... ta, alegin guztijaz, jarraitu eragitia, Jaungoikuak emon leigun familijari. (29)

..., eta Jaungoicoac eman lequiquegun familiari jarrai eraguiteac. (6)

Indarra egin biar da zeruba irabazteko; ... (29)

Cerua irabazteco indar eguin bear da; ... (6)

...; barriz, txito dira zabalak inpernurako bidiak. (29)

...; infernuraco bidéac berriz guciz zabalac dira. (6)

...; barriz, txito dira zabalak inpernurako bidiak. (29)

...; infernuraco bidéac berriz guciz zabalac dira. (6)

Ez dago glorijaric Jaungoikuaren agindubak gorde baga; ... (29)

Jaungoicoaren aguindúac gorde gabe ezdago gloriaric; ... (6)

..., nai doguna beragaz egiteko, ... (29)
..., beraz nai deguna eguiteco, ... (6)

Familija da guraso batek lurrian Jaungoikuaganik artuten daben ondasunik andijeena; ... (28)
Guraso batec Jaungoicoagandic lurrean artzen duen ondasunic andiena familia da, ... (6)

...; ta alan dira beragazko ardura edo obligazinoiak bere, beste lurreko guztiez gañetikuak. (29)
..., eta berarequico ardura eta obligacioac ere lurreco guciaz gañeticóac dira. (6-7)

Errukarrijak, baldin eureen erruz galtzen bada seme alabaren bat! (29)
¡Errucarriac, baldiñ seme alaben bat berén culpaz galtzen bada! (7)

Ara zetan sarri pensau biar dabeen gurasuak, ... (29)
Orra certan sarri gurasóac pensatu bear duten, ... (7)

..., iminteko ardura egijazko bat eureen familijaren azaijeraan. (29)
..., béren familiaren acieran ardura eguiazco bat ipintzeco. (7)

Santa Barbara beste askogaz dago ceruban ... (30)
Santa Barbara, beste ascorequin ceruan dago, ... (7)

...; baña, egin ezkero eurakan dana, ... (30)
...; baña béracgan dagoena eguin ezquero, ... (7)

... ta bai izango dabee sarija, onak urten balebee legez. (30)
..., eta contrara, ónac irten balira becela izango dute saria. (7)

..., urteten badabee nosbait okerrak seme edo alabaak, ... (30)
... seme edo alabac iñoiz oquérrac irteten badira, ... (7)

Esakune txito egoki gurasuei jatorkena ta, geijenez, eurakgan ikusten dana (da: ...) (30)
Gurasóai guciz egoqui datorquien, eta gueyenetan beracgan icusten dan esaera (da: ...) (8)

..., seme edo alabaren batek urteten badeutsee deungiak. (30)
... seme edo alabaren bat gaiztoa irteten zayenean. (8)

Orregaitik, onduen da, alakuan, konfesore jakitun bategaz itundu ... (30)
Orregatic alacoan ondoena da, confesore jaquintsu batequiñ egon, ... (8)

Helik izan zituban seme bi ... (30-1)
Helic seme bi izan cituen, ... (8)

... ta urten eutsen gaistuak. (30-1)
..., eta gaiztóac irten ciran (8)

...: beingo baten jausi zan erijotzako zigorra aita ta seme irureen gañera. (31)
...; eta orra non beñgoan eriotzaren cigorra Aitarequin seme bien gañera erori zan. (8)

Orazinoe edo erregubak bere daukee indar andija, ... (31)
Oracio edo erreguac ere indar aundia daucate ... (8)

Santa Monikak izan eban senar jentil ta deungia. (31)
Santa Monicac senar fedegabe eta gaiztoa izan zuen. (8)

Baña Agustiñek, ..., artu eban bizitza nasai ta galdu bat. (31)
Baña Agustiñec, ..., vicitza nasai galdu bat artu zuen. (9)

... (besterik eziñik, aitaren bildurrez), ... (31)
... (aitaren beldurrez besteric eciñic), ... (9)

...; ta dirautso onek: ... (31)
..., eta onec esaten dio: ... (9)

...; ez da galduko ainbeste erregu ta negar kostatako semia. (31)
...; orrembeste erregu eta negar costataco semea galduco ezta. (9)

..., ezin aaztu zan amak erakutsi eutsan doktriniagaz; ... (31)
... eciñ bere ichumen gucien erdian ere aztu zan Amac eracutsi cion dotriñaz; ... (9)

...; ezin kendu zituban gogotik amodijo aiñ garbijaren negarrak; ... (31)
...; eciñ amore añ garbiaren negarrac gogotic quendu cituen; ... (9)

(Egizu,) guraso batek ez deutsala semiari, errukiz, nekerik artu eragiten ... (31)
(Eguizu contu,) guraso batec semeari erruquiz nequeric arreracitzen ez diola, ... (10)

... ta isten deutsala bizi izaten alperrerijàn. (31)
..., eta alperquerian vicitzen uzten diola. (10)

Beste batek eragiten deutsa biarra, kastigetan dau alperrerijagaitik ta emoten deutsa bizitzia aterateko bidia. (31)

Beste batec berriz bearra eraguiten diola, alperqueriagatic castigatzen duela, eta viciera ateratzeco bidea ematen diola. (10)

..., zeñek benetan maite dau semia? (31)

... ceñec maite du benetan semea? (10)

(..., benetako erruki ta amodijua dagoz) zerurako bidia emotian, kastigaubaz, biar danian. (31)

(... eguiazco erruqui eta amorea daude° bear danean castigatuaz ceruraco bidea ematean. (10)

Katillu bat uste baga ausi ... (32)

Ustecabean catillu bat autsi, ... (10)

(Katillu bat uste baga ausi ...,) ateraten dabee ospe edo buillia ta darabille zigorra; ... (32)

(Ustecabean catillu bat autsi, ...,) iscambilla eta zalaparta andia ateraaz cigorra danzatzen dutenac; ... (10)

...; baña entzun arren birauak, ... (32)

...; baña birauac adituarren, ... (10)

..., ikusi aserre ta alkarri parkatu nai ezak, ... (32)

..., alcarri barcatu nai ezac, aserréac ..... icusiarren; ... (10)

..., jakin lapurrerijatxubak ta beste benetako okerkerija, lelenguan andijak izan ez arren, sarritan gero astunak egiteko bidia emon oi dabeenak, ... (32)

...; lapurreriac eta benetaco beste oquer, lenengotic andiac ezdiralaric, sarritan guero astúnac eguiteco bidea eman oi dutenac jaquiñarren, ... (10)

..., pelota edo dibersinoe berez gauza txaarrik ez daukan batera, ... (32)

..., pelotara, edo berez gauza charric ez daucan beste diversioren batera, ... (10)

...; baña ikusi arren seme ta alabaak erromerijarik erromerija, jolasik jolas, plaza ta zelaijetan, geijenez eureen ta beste askoren arimaak galduten, ... (32)

..., baña seme-alabac erromeriatic erromeriara, festatic festara, plaza eta celayetan gueyenean béren eta beste ascoren animac galtzen icusiarren, ... (10-1)

Badira arpegirik ez daukeen gurasuak, biar lako lotsia emoteko, ... (32)

Badira béren seme-alabai bear becelaco lotsa emateco arpeguiric ez daucaten gurasóac; ... (11)

..., auzo edo besteren bategaz gorrotuan bizi diranak, familijak dakijala, ... (32)

..., auzo edo besteen batequiñ, familiac daquiela, gorrotoan vici diranac; ... (11)

..., Jaungoiko guztioen gurasuari (laguntasuna eskaturik, ...) (32)
..., guztion guraso Jaincoari (laguntasuna escatu, ...) (11)

..., sendatuten ez padira, jausi ez ditian eskandalu aiñ urrekuan! (32)
..., eta escandalo añ urrecoan erori ez ditecen, sendotzen ezpaditu! (11)

... ardurarik andijeena aldenduteko seme alabaak, beretzat aiñ kaltegarri izan ziran bide ta okasinoietatik. (32)
... arretaric andiena beretzat añ galgarri izan ciran bide eta ocasioetatic seme-alabai aldeeraguiteco. (11)

Alan, guraso mundutaar izandakuak, ... (33)
..., eta ala mundutar izandaco guraso batec ... (12)

Eta oraiñ, negar egin biarrian gurasuen erru ta zeuben pekatubak, ... (33)
Eta orañ, gurasoen culpaz eta ceron pecatúaz negar eguin bearrean, ... (12)

..., gurako dozubee bardin izatia ondorenguak? (33)
..., ¿ondorengoac ere berdiñ izatea naico dezute? (12)

(..., gurako dozubee) bardin izatia ondorenguak? (33)
..., ¿ondorengoac ere berdiñ izatea (naico dezute?) (12)

Leenago zeru ta lurrak uts emongo leukee, ... (33)
Lenago uts-emango luquee ceru-lúrrac, ... (13)

Millaak asko erre kiskaldu zituban zeruko subagaz ... (34)
Millac asco ceruco suaz erre eta quixcali cituen ... (13)

..., bada, uste dot denporaz argitara emotia matrimonijoko frutuba. (34)
...; bada demboraz matrimonioaren frutua arguitara eman uste det. (13)

Edozeñek daki errazago dana gauzia esaten, egiten baño. (34)
Gauza eguiten baño esaten errazago dala, edoceñec daqui: ... (14)

(Edozeñek daki) errazago dana gauzia esaten, egiten baño. (34)
Gauza eguiten baño esaten errazago dala, (edoceñec daqui: ...) (14)

..., nekazari onak guztija darua pozik, ... (34)
..., necazari onac gucia pocic darama ... (14)

..., zerren, neke baga, soluak ez dabeen emongo laarra ta bedarraz besterik. (34)
..., ceren nequegabe soróac larra eta belarra baicic emango ez duten. (14)

Alan, atera gura ditubanak arimako frutu onak, ... (34)
Ala, animaco frutu ónac atera nai dituenac, ... (14)

Aurkituten zarian ezkero seindun, ... (34)
Aurdun aurquitzen ceranez gero ... (14)

..., izanik santu atarako aiñ artuba. (34-5)
..., Santu au artaraco añ artua dalaco. (14)

..., galduten bada seña eureen erruz! (35)
..., baldin béren culpaz galtzen bada aurra! (14)

Kenduten deutsee batiatubagaz izango eban zeruko maijorazko amaibagia! (35)
¡Batayatugabez quentzen diote, izango zuen ceruco mayorazqui azquengabea! (14)

... ta aserre ernegazinoe odola berotuten dabeenak ... (35)
... eta odola berotzen duten aserre eta ernegacioac ... (15)

..., egin biar da albait segurubenetik jokatutera. (35)
..., albait seguruen jocatzera eguiñ bear da. (15)

(Ez dakigu ziur) nostik Jaungoikuak eraasten deutsan arimia gorputzari. (35)
(Ez daquigu cierto,) noiztic erasten dion Jaungoicoac gorputzari anima. (15)

..., ikusteko zirkinik egiten daben ta bizi dan, ... (35)
..., mugitzen ote dan icusteco; ... (15)

..., bada, litzaate itotia. (35)
...; bada au itotzea litzaque. (15)

Batiatu ainbat lasterren, ... (35)
Alic lasterren batayatu ... (15)

Eracusaldi II.á (36)
II.-rren eracusaldia (16)

4. Alderaketa bat, J.A. Moguelen Peru Abarca (1881), eta G. Arrueren gipuzkerazko itzulpen, El doctor Peru Abarca (1948)-ren artean, hitzen ordenamenduaren inguruan.

Soilik jaso ditugu, ordenamendu desberdintasunen bat erakusten duten esaldiak, lehen orrialde gutxi batzutan. Kontutan hartu behar da, asko direla nolanahi orden bere bat gordetzen duten esaldiak bi idatzietan, nahiz hauek aditzaz hasi, edo are aditz trinkoz. F. Arocenaren Arrueren argitalpenean huts asko ageri da, erraza zirudien heinean zuzendu ditugunak. Adibideetan lehena beti Moguelena.

¿Berori baisen Jaun apaindu batec oñac imini ardan-eche onetan? (43)

¿Berori bezañ Jaun apaindu batec ardandegui onetan oñac ipiñi? (337)

Ez naz ni jauna; ... (43)

Ni ez naiz Jauna; ... (337)

..., ez jacolaco echagun beguiratu bati ondo eguiten buruba bat eguitia guizon ospetsu, burrucari, ondatzalle, alper, ta baldanacaz. (43)

..., guizon prestu beguirtau bati ongui ez datorquiolaco guizon arro, burrucari, ondatzalle, alper eta baldarraquin bere burua bat eguitea. (337)

(..., ez jacolaco echagun beguiratu bati ondo eguiten) buruba bat eguitia guizon ospetsu, burrucari, ondatzalle, alper, ta baldanacaz. (43)

(..., guizon prestu beguirtau bati ongui ez datorquiolaco) guizon arro, burrucari, ondatzalle, alper eta baldarraquin bere burua bat eguitea. (337)

Ez nau orainguiño inoc icusi ardauac igarota, ... (43)

Oraindic iñorc icusi ez nau ardoac igarota, ... (337)

... belutu, edo ondo gautu artian dauqueezanian eche barruban nequezaliac, edo ate edequijaz ardaua salduten badabe debecauta daguan orduban. (44)

..., baldin debecatuac dauden orduetan echebarruan necazariac iduqui, edo ardoa saltzen badute. (337)

Ez deust ecec gorroto ta igüin geijago emoten, ... (44)

Gorroto eta su geyago ecerc ematen eztit, ... (337)

(... jaquin gura neuque nor dan,) ta cec ecarri daben ona. (44)

(..., jaquin nai nuque nor dan,) eta cerc onera ecarri duen. (337)

Pagau deuste visitaco errial cidarra; ... (44)

Bisitaco erreal cillara pagatu didate; ... (338)

(...; baña ain dollorrac izan dira,) cein da ez deusten atera trago bat: ... (44)

(...; baña aiñ dollorrac izan dira,) nun churrut bat bedere atera eztidaten: ... (338)

...: alan sartu nas emen cuartillu bat atera, eta cerbait jaatera, ... (44)
...: ala, cuartillu bat atera, eta mocadu bat jatera sartu naiz emen, ... (338)

..., bada urrin eguiten jat neure echia baruric biurtuteco. (44)
..., bada barauric itzultceco nere echera urruti eguiten zat. (338)

Jaquin baneu lenengoti Barberu char bat baño etziniala, ... (44)
Barbero char bat baño etziñiala lenengotic jaquin banu, ... (338)

..., ez nintzan Jaunca zugaz egongo, ... (44)
..., zurequin Jaunca egongo ez nitzan, ... (338)

Adisquidia, eguizu verba modu obian: ... (44)
Adisquidea, modu obean itzegizu. (338)

...: zuc ezdaquizu cer dan Barberu izatia: ... (45)
Barbero izatea cer dan zuc eztaquizu: ... (338)

...: lengo Barberu chaarrac ibilli oi cirian deshonretan euren opicijo onrauba; ... (45)
...: lengo Barbero coscorrac beren bearguintz prestua desonratzen oi cebiltzan, ... (338)

...; batuten cirian tabernetan ta nun nai; ... (45)
..., tabernetan eta nunnai batutzen ciran; ... (338)

Asco aurreratu da Cirugijan. (45)
Cirugiyan asco aurreratu da. (338)

Ni egon nas Madrilgo ospitalian urte bijan. (45)
Ni Madridco ospitalean urte biyan egon naiz. (338)

¿Mozolua baño nun dago egazti edertuago janciric? (45)
¿Mozollua baño ederquiago jantzitaco egaztiric non dago? (338)

Baña ezdau iños mozolo izateti urten. (45)
Baña mozollo izatetic seculan irten ezta. (338)

Soñeco apaindubac ez deutsa gaisuari osasuna emongo. (45)

Soñeco apañac gaxoari osasuna emango ez diote. (338)

Bere videco jancija da chano gorri bat ta bere ganian chapel esquerga berroguei urte euquico ditubana. (45)
Bideco bere jantzia chano gorri bat, eta bere gañean berroguei urte iduquico dituen chapela zar bat oi dira (338).

... chapel esquerga berroguei urte euquico ditubana. (45)
... bere gañean berroguei urte iduquico dituen chapela zar bat (338).

Eztabil zu leguez basatzaric basatza oñetaco meiacaz, ... (45)/
Zu becela basotic basora oñetaco meaquin eztabill, ... (338)

Guztijac asco gura deutsee bere lautasuna gaiti, ... (45)
Bere lanotasunagatik guciac asco nai diote, ... (338)

..., ta jaten dau edocein gauza baserrijetan. (45)
..., eta baserrietan edocer gauza jaten du. (338)

(Autor deutsut, ...,) buruba ta barruba berotu daruazala larregui, ... (45)
(Aitor dizut, ...,) burua eta barrua gueisco berotu oi dituela, ... (338)

..., topetan ditubala zanac, ... (45)
..., chit ondo topatzen dituela zañac, ... (338)

..., ta escutur sendó ta icara baguiaz ateraten deutsala edertó odola gaisuari. (46)
..., eta escutur sendo eta icaragabeaz, chit ederqui ateratzen diola odola gaxoari. (338)

Aztuco jacon gaztetan icasi eban apurra. (46)
Aspaldi icasi zuen apurra aspaldi aztuco citzayon. (339)

Eztau berac orrelangoric uste, ... (46)
Berac orrelacoric uste eztu, ... (339)

¿Ezdozu inoz enzun, ...? (46)
¿Iñoiz aditu eztezu, ...? (339)

(Ac uste dau) eztaguala bera leguezco Barberuric Bizcai guztijan: ... (46)
(Arc uste du,) bera becelaco Barberoric Bizcai guztian eztagoela: ... (339)

Zuc barriz dinozu, ... (46)

Zuc diozu berriz, ... (339)

Enzun neutsan egun baten esaten ... (46)
Egun batean aditu nion esaten, ... (339)

...; igaroten jaquee demporia certzuc moda dirian conteetan. (46)
...; modac zer diran contatzen dijoaquie dembora. (339)

Ibillico dira gaisuen artian odolac manchau eztaguizan bildurrez sangria bat eguin bear danian. (47)
Sangria bat eguin bear danean, odolac mancha ditzan bildurrez ibillico dira gaxoen artean. (339)

..., ta icusi bacenduz orrelan jancita ... (47)
..., eta orrela jantzita icusi bacindu, ... (339)

A vici dau bere zoruac, ... (47)
Hura bere zoroac bici du, ... (339)

Esan guraco dozu lotsabagaquerija. (47)
Lotsagabequeria esan naico dezu. (339)

Ezteutsut nic lotsaric galdu, ... (47)
Nic lotsaric galdu eztizut, ... (339)

Ezdozu igon biar zarian baño gueijagora. (47)
Ceran baño geyagora igo bear eztezu. (339)

Zuc dinozu apeitau bizar eguitia gaiti; ... (47)
Zuc bizar eguiteagatic apeitatu diozu, ... (339)

..., esango bacendu apaindu apeitau ordian, ... (47)
..., apeitatu ordean apaindu esango bacendu, ... (339)

...; cerren zubec apainduten dituzun gure arpeguijac uraz, ta guero bizarra quendubaz. (47)
...; cerren uraz eta guero bizarra quenduaz gure arpeguiac zuec apañtzen dituzute. (339)

Zuc emoten deutsazu labañiaren icena gure arpeguijac apaindu ta garbituteco erremientiari, ... (47)
Gure arpeguiac apañdu eta garbitzeco erremientari labanaren icena ematen diozu zuc, ... (339)

(Aguiri dozu, ...:) eztozula inos Bizcai ta basoarteti urten. (47)

Seculan Guipuzcoaco basartetic irten etzera. (340)

..., ta orretaraco igaro nituban iru esamina tribunale lotsa andico baten. (48)
..., eta orretarco iru esamiñ cruel igaro nituen lots andico tribunal batean. (340)

Nas bada Barberuba, Sangradoria ta Cirujauba. (48)
Sangradoria, Barberua eta Cirujauba naiz bada. (340)

..., ni nas Arotza, Arguiña, Itzaña, Achurlarija, Baso-azterlarija, ... (48)
..., ni Arotza, Arguiña, Itzaya, Achurlaria, Baso-neurtzallea, Icazquiña naiz, ... (340)

..., ta errazago icasten dira zure biarguinzac niriac baño. (48)
..., eta nere bearguintzac baño zureac errazago icasten dira. (340)

Asico bacina zu norbait apeitetan, ... (48)
Zuc, norbait apaitatzen asico baciña, ... (340)

..., arpegui guztija ichico ceunsquijo odolez beteta. (48)
..., arpegui gucia odoldua utzico ciñioque. (340)

Artuco bacendu nire lanzetia, ... (48)
Nere lanceta artuco bacendu, ... (340)

..., eguingo ceunsquio gaisuari zulo andi bat, edo bai ebagui zana; ... (48)
..., gaxoari zulo andi bat eguiñ edo zaña ebaquico ciñioque: ... (340)

..., edo osatu golpe andi bat artu ta heridu dana ... (48)
..., edo colpe andiren bat artuta eritu dana osatu bear bacendu ... (340)

Etzenduque jakingo ciri bat eguiten, ... (48)
Ciri bat eguiten jaquingo etzenduque, ... (340)

Asico bacina guero burtardatza eguiten, ... (48)
Guero curtardatza eguiten asico baziña, ... (340)

..., apurtuco cenduque dana leundu biarrian ... (48)
..., leundu bearrean dan gucia deseguingo cenduque, ... (340)

... ta ebaguico cenduque biar bada ceure oña, edo berna azurra. (48)

..., eta bear bada cere oña edo berna ezurra ebaquico cenduque. (340)

Bizar eguiten icasten dabee mutillac laster. (48)
Mutillac laster icasten dute bizar-eguiten. (340)

Badira baserritar bizar eguiten jarduten dabeenac ... (48)
Bizar eguiten jarduten diran baserritarrac badira, ... (340)

..., etzeunsquije irabacico temaric noc obeto eguin. (48)
..., norc obeto eguin, temaric irabacico etziñieque. (340)

..., ez da orren gauza gacha. (49)
... gauza añ gaitza ezta. (340)

Amabost egungarreneco icasico leuque edocein andrac, ... (49)
Amabost egungarreneco edoceñ andrec icasico luque, ... (340)

..., ta zuc baisen ondó edo obetó iminico lituquee chaplatachubac. (49)
..., eta zuc bezañ ondo edo obeto chaplatachoac ipiñi, ... (340)

..., ta eraatsi zaurichuban locaarijac ascatuco ez dirian guisaan iñoren escu baga. (49)
..., eta iñoren escugabe ascatuco eztiran guisan chaplatachoac ipiñico lituzquee. (340)

(Barriz; ¿noc igarri zubei) daquizuzan edo ez, osatuten zaurijac, ezagututen bedar onac? (49)
(Baña norc iguerri zuei) zauriac sendatzen, belar onac ezagutzen, daquizuten edo ez? (340)

..., osatuten zaurijac, ... (49)
... zauriac sendatzen, ... (340)

..., ezagututen bedar onac ... (49)
..., belar onac ezagutzen, ... (340)

Zuc esan biar etzenduban ondo acija bacengoz, ... (49)
Ondo aciya baceunde, zuc esan bear etzenduen, ... (340)

..., esan deustazuna aurquez aurque, edo neure musu garbijetan; ... (49)
..., aurrez-aurre, edo nere musu garbietan esan didazuna: ... (340)

..., etzenduban urtengo emendi beste barberu, edo zauri-osaguillaren baten premiña baga. (49)

..., beste barbero edo zauri osaguilleren baten premia gabe emendic irtengo etziñaquean. (341)

Baña ni naz guizon baquetsuba, eruapen andicua, ... (49)
Baña ni guizon paquetsua, eraman andicoa naiz, ... (341)

(..., dongaro enzun arren,) ez daquidana dongaric eguiten; ... (49)
(..., gaizqui itzeguiten adituarren) gaizquia eguiten eztaquit; ... (341)

Gorde zaite bada aurreracuan orrelan verba eguiteti. (49)
Aurreracoan gorde zaite, bada, orrela itzeguitetik. (341)

Ez eguizu bada zuc bere ain dongaro esan nire opicijocuac gaiti. (49)
Zuc ere etzazu bada añ gaizqui esan nere opiciocoagatic. (341)

Ez dinot nic dongaroric zure biargintzia gaiti: ... (49)
Nic zure bearguintzagatic gaizquiric eztiot: ... (341)

...: guizon biarrac zaree celan bait: ... (49)
...: nolere bait guizon bearrac cerate: ... (341)

...: bizarra quendu baga ecin egon gueindez; ... (49)
...: ecin gueundeuzque bizarra quendu gabe; ... (341)

...; atera biar da odola gach ascotan, ... (49)
...; guciz ascotan atera bear da odola, ... (341)

5. Alderaketa bat Gregorio Arrueren 1868ko Santa Genovevaren vicitza, eta 1885ko Bravante-co Genovevaren Bicitz arrigarri miragarria-ren artean, hitzen ordenamenduari begira.

Lehenengo zazpi buruak konparatu ditugu, eta soilik, ordenamendu aldaketak erakusten dituztenak jaso. Adibideetan lehenengoa beti da 1868koa, bigarrena 1885ekoa.

Eztago gauza maitagarriagorik bere seme-alabak inguruan artu, eta ... (33)

Gauz eder eta biotz-samurgarriagoric ecer ez da bere seme-alabachoac inguruan artu, eta ... (5)

Aurtasunetik azaldu ziran Jenobebagan adimenturik argiena, biotzik prestuena eta jeniorik gozo eta paketsuena. (35)

Genovevac adimentu chit arguia, biotz guciz prestu eta erruquitsua, eta genio gozo eta paquetsua, eta bestec ez becelaco modestia eta biotzaren biguñtasuna bere aurtasunetic aguertu cituen. (8-9)

..., eta ez dakigu geyago ikusiko ote gaituzun; ... (37)

..., eta egunen batean zu berriz icusteco dicha ceruac guretzat daucan eztaquigu; ... (11)

...: bera da gure ondasunik andiena, prendarik maiteena eta zuk egiñ ziñiguzun mesederen ordaiñ eta saria. (37)

Gure ondasunen andiena, eta zuc eguiñ ciñiguzun mesede gucizcoari dagoquioneraco ordañ saria da. (13)

..., eta gaurgero izan zaite beraren aita eta ama. (37)

..., eta aurrerontzean berarequico, emen uzten dituen aita-amen ordeco zu izan zaite. (13)

Garai onetan sartu zitzayen Jenobebarekin Sijifredo ezkondu zuen Obispoa. (37)

Senar-emazte gazte ayec escondu cituen Obispoa garai onetan sartu citzayen. (13)

...: laster gertatuko zatzu gauza andi, miragarri eta oi ez bezelakoren bat, ... (38)

... oi ez becelaco cerbait laster guertatuco zatzula. (14)

Or bean daude Erregeren aginduakin datozen zaldun bi; ... (40)

Erregueac bere aguinduaquin bialdu dituen bi zaldizco oraň bertan etorri dira. (18)

...; eta guk, iñola ere al badegu, gaur arratsean bertan joan bear degu erregeren tropakin batutzera. (40)

Erregueren tropaquin luzapengabe batu gaitean, iñola ere al badegu, gaur arratsean bertan irten bear degu. (18)

..., eta ondoren eraman zituen berekin goiko salara. (40)

..., eta sala eder batera berequin eraman cituen. (18)

... usadioa oi zan bezela, eraman ziozkan bere senarrari bere ezpata eta lanza, (ziotsala ...) (40)

... usadioa zan becela, ezpata eta lanza bere esposoari aurrean ipiñi, (eta esan cion: ...) (19)

..., eta erregu ezazu nigatik. (41)
..., eta nigatic erregu ezazu. (21)

Gero Jenobeba sartu zan bere gelan, antxe soseguz negar egiteko, ... (41)
Guero bere naierara negar eguitera bere guelara joan, eta ... (22)

Kondeak bere ondasun guzien kontua utzi zion mayordomoari zeritzayon Golo. (44)
Condeac irteeracoan bere ondasun gucien contua utzi cion mayordomoa Golo ceritzan. (23)

Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza ona ote, edo gaiztoa zan; ... (44)
Eguiten zuen hura on, justu eta bidezcoa ote zan beguiratzen etzuen: ... (24)

..., eta azkenean erregutuaz, gizon galgarri hura andik urrutira ayena zezala. (45)
..., eta guizon añ galgarri bat bere ondotic urrutira ceguiola gueroenean escatuaz. (25-6)

..., ezagutzen zuen, Kondea zuzen, errukitsu eta prestua zala, ... (46)
Condea guizon prestu, zucen, erruquitsu eta biotz onecotzat ceucan; ... (27)

...; ordea zuk ikusten dituzu nere malkoak, ... (48)
...; nere negarrac bacarric Zuc dacusquitzu: ... (30)

Orduan gogoratu zitzayozkan Obispo zar beneragarriaren hitzak. (48)
Onela esanaz bere ezcontza bedeincatu zuen obispo beneragarriaren hitzac gogoratu citzaizcan. (31)

...; zure ama gajoak ez dauka zu biltzeko zapitxo bat ere; ... (51)
...: zure ama gajoac zu biltzeko pixoial eta trosic eztauca. (34)

Nola zure ama gaxotu eta erkituak mantenduko zaitu? (52)
Heritasun eta neque-pénac erquitua eta aitua daucaten ama batec nola mantenduco zaitu gaxoori? (34)

Leku izugarri onetan eztago lur otz gogorra besterik zu eratzatzeko. (52)
Bicilecu izugarri onetan zu eratzatzeco lasto ustel quirastua, edota adrillu otz gogor au besteric eztago. (34-5)

Zergatik zuek, goiko arriak, nere semetxoa bustitzen didazute urtanto oriekin? (52)
Oh arríac ¿cergatic bustitzen didazute onela nere errayetaco semechoa ceron ur tantaz? (35)

..., eta batayatu zuen aurra, ... (52-3)

..., eta aurchoa batayatu zuen ... (37)

..., emanaz izen Desditxatua, ... (53)

... Dichagabearen icena berari ipiñiaz. (37)

Nayago det milla bider hill, ... (54)

Milla aldiz hill nayago det, ... (40)

Eta zeiñ zera zu, galdetu zion Jenobebak zutik jarri, eta zulo artarontz begiratuaz. (55)

¿Ceñ cera zu, Genovevac cetzan lecutic jeiqui eta sayetara zuloaren ondora joanta, galdetu cion. (41)

Onelaxe eskribitu dio Golori, (eta agindu zaye borreroai). (56)

Beragatic bereala berori hill dezala, Golori eskribitu dio; ... (42)

Izan bedi au denborari lekurik emangabeko zure sentenzia azkenekoa; ... (57)

Ondo beguiratugabe eman dezun lenengo epai edo sententzi au azquenecoa ere izan bedi. (44)

Au da zuk egiñ al zentzakean gauzarik obeena. (57)

Zuc eguiñ al cenzaquean ónena au da: ... (44)

...; izan zaite berakiko seme on bat; ... (57)

...; beracquico izan zaite seme chit biguñ eta amoriotsu ... (45)

...; konsola itzazu beren negar andian. (57)

..., eta beren pena eta atsecabe gogorrean alai itzazu. (45)

..., baña zuk esayezu, ayen Jenobebak kulparik etzuela, garbi hill zala; bere heriotzko orduan ere gogoan zeduzkala, eta berari egin zizkioten on guzien eskerrik andienak ematen ziztela. (57-8)

...; baña ayen genoveva gaitzquille bat izan etzala, erru eta culpagabe hill zutela, heriotzeco orduan ere bérac gogoan ceuzacala eta berari eguiñ izan ciozcaten aimbeste onguiteren esquerric andienac ciztela, zuc esan zayezu. (45-6)

Ez ezazu arren zere aserrean hill Golo, gizon burujauzi au. (58)

Golo burujanci urduritu dichagabeari dagoquionez, cere aserre itsuan etzazu hill. (46)

Barka zayozu, nik barkatzen diodan bezela. (58)

Nic barcatzen diodan becela barca zayozu. (46)

Ez det nai eraman eternidadera iñorentzat gorrotorik, ... (58)

Iñolaco etsaitasun eta gorrotoric beste mundura nerequin eraman nai eztet: ... (46)

Begira zayozu bere alargunari, ... (58)

Bere alargun triste errucarriari beguira zayozu, ... (46)

...; bada zuganako bere leyaltasunak erakarri zion gajoari eriotza: ... (58)

...; bada zuganaco leyaltasunac gajoari bere heriotza eracarri dio. (46)

Izan zaite zere agindupekoentzat biguñago: ... (58)

Cere aguindupecoentzat biotz oneco izan zaite. (47)

...: ipiñi egieztetzu eraentzalle zuzenak, parroko onak eta mediku adituak. (58)

...: berai mayordomo zucen, parroco bertutetsu eta medicu ónac ipintzera saya zaite. (47)

...; ni pozik noa hiltzera ... (58)

Ni hiltzera pocic noa. (47)

...; eta etzayozu agertu iñori ere, ... (59)

..., eta iñori eracutsi etzayosu, ... (48)

..., eta nere senarra gerratik etortzen denean, ipiñi zazu bere eskuetan. (59)

..., eta nere esposoa guerratic itzultzean, berari bere escuetan ipiñ zayozu. (48)

Ikas zazu nigan nola bat gizonik obeenaz ere ezin fia litekean. (59)

Niri erori zadan suertetic icasi zazu, guizonic onenaz ere eciñ fia litequeala. (49)

Neskatx onek Jenobebagandik aldegiñ ez alzuen, sartu ziran presondegi artara gizon armatu bi; ... (61)

Nescachac andic aldeguiñ ez al zuen, presondeguico atetzar burnizcoac carrascots andi bat eguiñ, eta zalaparta bician idiqui, eta bi guizon armatu Genovevari beñgoan sartu citzaizcan (49-50)

O Jaungoikoa! uzi nazazu ni hilltzen, ... (62)

¡Oh ene Jaungoicoa! ni hiltzen utzi nazazu; ... (52)

..., baña gorde zayozu bizia nire seme biotzekoari. (62)

...; eta bacarric nere semechoari bicia gorde zayozu! (52)

Oh! izango dezute zuek aur triste au hiltzeko biotza? (62)

¡Oh ene adisquidea! ¿aur gaxo gaitz gabeco au hiltzeco biotza izango dezute? (53)

Hill nazazute ni ordu onean, ... (62)

Ordu onean ni hill nazazute; ... (53)

Izan zaitezte gizonen baño Jaungoikoaren beldurrago; ... (62)

Guizónen baño Jaungoicoaren beldurrago izan zaitezte. (54)

Oh, zu alargun eta umezurtzen Aita, bigun itzazu arren goi orretatik gizon oen biótzak, bérak ere emazte eta aurrak dituzten gizon oenak; ... (63)

Oh, zu, Jauna, alargun eta umezurtzen ceruco Aita, emazte eta umeac dituzten guizon oyen biotzac biguñdu, (eta beren besoac arrean guera eraci itzazu, ...) (55)

...; eta gera egieztetzu béren besóak, ... (63)

..., eta beren besoac arren guera eraci itzazu, ... (55)

Gogora ekark zenbat mesede ire azkenengo gaitzaldian egiñ zian ... (64)

Ezperen azquenengo hire gaitzaldian cembat on eguin cian gogora ecarc. (56)

Erremedio gabe hill-bearra dek, esan zion Konradok; ... (64)

Bada nai edo ez bera hill bear diagu ... Conradoc erantzun cion. (56)

(..., agindu erazi degiogun hitz ziñeztuaren bean,) eztala sekulan irtengo mortu onetatik; ... (64)

(..., beartu zagun condesa,) mortu onetatic irtengo eztala, (hitz ciñeztuaren bean agiñtzera, ...) (56)

Asko dek Goloren konturik, eranzun zion Enrikek; ... (64)

¡Zori oneco Golo! Enriquec esan cion, ... (57)

Bereala agindu erazo zioten Jenobebari juramentuaren bean, basa-mortu artatik sekula irtengo etzala. (64)

Eta Genovevaganontz itsuli, eta eremu bacar artatic bere bician irtengo etzalaco hitza juramentuaren bean oni quendu cioten. (58)

Etzetiat ikusi ere nai, ... (65)

... icusi ere nai etzetiat, ... (59)

[1] *Santa Genovevaren vicitza*-k hiru argitaratze ezagutu zituen Arrue bizi zen artean (laugarrena gure gaurko egunotan). Gero berriz, Arrue berak prestatu eta argitaratu zuen 1885erako, lan honen moldaketa berri bat, *Bravante-co Genovevaren bicitz arrigarri miragarria* izenpean (berrargitaratua 1960an).

[2] Guk ezin izan ditugu eskuratu Arrueren idazlan argitaratu guztiak, hauek banan bana begiratzeko behar litzatekeen patxadaz. Lasaitasun piska batekin miratu ditugunak dira: 1. *Cristauaren Dotrinaren Jaquinbide Azaldua* (1858); 2. *Cristauaren Escu-Liburua* (1863); 3. *Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bicitza* (1866_1; 1881_2; 1893_3 (ezin izan dugu lehen argitalpena aurkitu, eta batez ere hirugarrena erabili behar izan dugu -Vergara, 1892/3-, ezin akats tipografiko gehiagoz betea, testuaren ulergarritasuna iluntzeraino ere zenbaitetan; bakarrik azken orduan eskuratu dugu, Tolosa 1881eko 2. argitalpen txukunagoa (Orotariko Hiztegiari esker), eta erabili dugu 3.a zuzendu ahal izateko); 4. *Santa Genovevaren vicitza* (1868; erabili dugu, 1987_4, EEE); 5. *Baserritar Jaquintsuaren Echeco Escola* [J.J. Moguelen

itzulpena] (1878); 6. *El Doctor Peru Abarca* [J.A. Moguelen itzulpena] (*BAP*, 1948, 1949, 1950) (pentsa liteke itzulpena 1881 baino lehenagokoa ote den berez, Arruek zuzenean erabili behar izan bazuen agidanean -cf. F. Arocenaren sarrera, BAPen- Moguelen eskuizkribua, eta ez 1881ko inprimatua); 7. *Gurasoakin zu nola, zure umeak zurekin ala* (1882); 8. *Aspaldi aietako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste* (1882); 9. *Zarauzko ondekidatzea* (1885; azken hirurak bilduak orain A.M. Toledoren *Leiendak* izeneko liburuan, EEE, 1987, guk erabili duguna); 10. *Bravante-co Genovevaren bicitz arrigarri miragarria* (1885). Guzti hauezaz gain, eta oso azaletik izan bada ere, begiratu behintzat egin ahal izan ditugu beste segidakook ere: *Oracio mental edo pensamentuzcoa* (1880); *Mariaren gloriac* (1881); *Salvacioco aingura* (1883; 1890$_3$, erabili duguna); *Cerura igotzeco escallera* (1886; 1904$_2$, erabili duguna; *Mayatzeco ill[a]* (1888); eta *Carmengo Ama Birjiñaren bederatziurren edo nobena* (1889). Arrueren obra guztiaren azterketa zehatzago batek beharbada jar lezake zalantzan, edo behintzat askoz gehiago zehaztu beharrean, guk proposatutako aldaketen kronologia. Azken aitatu obra hauei egin diegun gain begiratuak, garbi adierazten bait du, Arruek, are 1866 eta 1868ko estilo Cardaveraztiar petoaz geroztik ere, usu erabiltzen duela lan guztiotan tradiziozkoago estilo bat (nahiz beti nahastua berrikuntza gordinagoekin). Beharbada dira obra hauetako zenbait, konposatuak, argitaratze data baino askoz lehenago.

[3] Dotrinak, 1858koa erakusten du argitalpen data. Hala ere, guk erabilitako aleak, J. Urquijoren liburutegikoak, 1848an darama sinatua Iruñako Apezpiku Severo Andrianiren argitaratze baimena (ikusi beherago ohar honetan, J.A. Aranaren datuen inguru). Beraz liburuaren lehen prestaketa izan liteke urte honen aurrekoa ere. Esaten du Arruek Itz-aurrean, nola liburua, bigarren prestaketa batean laburtu eta gero, arrazoi pekuniarioak tarteko, beste denbora batez «*zocoatu zan*» artean argitara ezinik. Badago beraz denbora tarte bat liburuaren mamia, eta Arruek erasten dion Itz-aurrearen artean; baita ere beraz, eta are handiagoa, Arruek, pentsatzekoa da azken momentuan, Itz-aurrearen aurrez ezartzen duen *Queja bati erantzuera* zatiarekiko. Eta izan liteke denbora tarte hau esanguratsua, bada nahikoa nabarmen sumatzen da estilo desberdintasuna, liburuaren mamia eta Quejaren artean, askoz Cardaveraztiarragoa hau bere hitz ordenamenduan (eta beharbada Itz-aurrean ere, nahiz ez den horren agirian sumatzen, testu erantsi berri hauen laburrean). Kurioski J.A. Arana Martijak esaten du («Gregorio Arrue, Mazoren lehen itzultzailea», *Euskara* 1990, 323-6 orr.), berak erabilitako aleak, daramala argitaratze data, gureak bezala, 1858koa, baina Apezpikuaren baimena aldiz, 1860koa. Eta beharbada pentsa liteke liburuak oraindik beste arazoren bat eduki ote zuen aurreko 1848ko argitaratze baimenaren inguruan. Arruek esaten du hitzaurrean, lehenik prestatua zuela liburu guciaren itzulpena, eta baita «*Obispo Jaunac ontzat emana*». Beharbada zen ordukoa 1848ko baimena (nahiz baimenak agerian aitatzen duen dela, «*Catecismo ..., estractado a la lengua vascongada*»). Arruek gero laburtu bide zuen 1858ko neurrira arte. Agian birmoldaketa horren kausaz behartu bide zuten Arrue berriro, Dotrina argitaratu, eta agidanean zenbait ale zabaldu eta gero ere, bigarren baimen bat eskuratzera, Andrianik berriro eman bide zuena 1860an.

[4] Hala dio Itz-aurrean (1863, 3 or.): «*Eun eta gueiago urte dira Cardaveraz-ec bere devocio-liburua euscaraz arguitara zuala, ...*». Aldiz ez dirudi Añibarrorena ezagutzen zuenik garaian, bada dio segidan: «*... arrezquero gaztelaniaz ecin conta ala liburu gai onetacoac irten diralaric, iñori gogoratu etzaio euscarazco bat eguitea:...*»

[5] Nolanahi ere bada Arrueren galdera hautsi hauetako askotan, galdegilearen nolabaiteko aurreratze bat Cardaverazenekiko, kontutan hartzekoa berez bakarrik ere.

[6] Pentsatzekoa da ezaugarri berdintsuak gordeko ote dituen, Arruek 1883an argitaratzen duen, Mendibururen 1747ko *Jesusen Bihotzaren devocioa*-ren itzulpenak. Guk ez dugu oraindik aukerarik izan, Arrueren itzulpen hau begitaratzeko.

[7] Nahiz adibidean gerta litekeen, aditza aurreratu nahia baino gehiago, Arruek, *berriz* partikula posposatu nahi izatea.

[8] Eraberean bururatzen zaigu instantean, Arrueren esaldien lehen idazkera ez ote zen antzekoagoa, J.A. Mujikak bere artikuluan erakusten duen Axularren beste esaldiarena (*atsegin othe da, ala atsekabe?*, Ax 514); itxura honetakoa: (254a) *ona ote zan, edo gaiztoa*; (255a) *ona ote dan edo gaiztoa*; (256a) *hilla ote zegoen, edo lo*; (257a) *Jenobebak ote zuen, edo ...*; (258a) *amesetan ote zegoan edo esna*.

[9] Guzti hauetan ez litzateke zailegia izango asmatzea, Lardizabalekin egin bezala, izenburu guzti hauen lehen idazkera bat, ordenamenduz hobeto egokitua-edo gure ohizkoagoekin, sintagma buruaren ondotik emanez konplementuetakoren bat, segidako moduan edo: (265a) *Jenobebaren biziera bakar tristea eremuan*; (266a) *Jenobebaren konsueloak mortuan*; (267a) *Sijifredo Kondearen pena eta naigabeak bere esposa Jenobebagatik*; ...

[10] X. Kintanak hitzegiten du luzexeago lan honetaz, «Gregorio Arruebarrenak argitara gabe utzi zuen eskuskribu batez zembait ohar» artikuluan (*FLV*, 1972, IV, 59-72 orr.). Bertan nahiko zehatz ematen delarik lanaren berri, ez da ere aipatzen, Arrueren oharrik aditzaren guneaz-edo esaldi barrenean.

[3]

[4][5]6. Arturo Campion (1854-1937), gramatikalari gazte (eta euskal idazle)-aren ekarri batzuk.

Arturo Campionen *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* izango da Cardaverazen Eskolako irakatsien aldarrikatzaile berria XIX mendearen azken laurdeneko urteetan, euskal berpizte mugimenduaren atarietan. Gramatika, 1879an hasiko da argitaratzen, Campionen 25 urteen inguruan, eta 1884ean emango da osorik argitara lehenengo aldiz. Gaztetako obra bat izan arren, beti izango dira azpimarratzekoak, Gramatikaren erraldoitasuna eta orokortasun nahia.

Campionek, Introdukzioaren II kapitulutik jasoko ditu Cardaverazen Eskolaren oihartzunak. Baina Campionen erreibindikazioa puntu honetan ere ez da izango erabatekoa, edo behintzat, kontraesanik gabekoa. Hainbeste iturri desberdin darabilelarik bere lanerako datuen osatzeko, zaila zaio Campioni erabat makurtzea Cardaverazen Eskolako postulatu estuenetara, nahiz eta hauek ere jaso, besteren artean, eta are defendatu, berez euskal tradizioan izana zuten pisuaz nahikoa gaindi. Campionen mezua atal honetan, finean, guztiz eklektikoa izango da, kontraesanez betea.

6.1. Campion, euskal joskera libre baten defendatzaile.

Has gaitezen Campionen erreibindikapen liberaletatik. Cardaverazen Eskolako postulatu estuak alde bat utziaz, Campionek behin eta berriro utziko du garbi Gramatikan barrena, hala ulertu nahi bada behintzat, euskararen joskera askatasun osoa, elementuen ordenatzeko esaldi barrenean. Lehenengo aldarrikapena Gramatikaren Introdukzioan bertan egiten du, bere hitzei lagunduaz kasuan Darrigolen loratu askoekin. Dio (51 or.):

De total independencia goza el bascuence en la construcción de las frases, por lo que se puede decir, que esta parte importante del arte de hablar correctamente, mas es en el bascuence del dominio de la Retórica que del de la Gramatica. «Deferir la colocación de las palabras a la naturaleza del pensamiento; imitar, en su arreglo, la tranquilidad de las ideas contemplativas, ó seguir a nuestros sentimientos en su impetuosidad, en sus variaciones, en ese desorden que los hace atravesar, como por medio de un salto, lo que la idea seguiría paso a paso; arreglar los elementos del discurso al orden mas propio para instruir, ó abandonarlos a la influencia de la armonía, al juego de la imaginación, al interés para conmover y arrastrar; prestarse, por lo tanto, a todos los géneros y a todas las circunstancias: he aquí los privilegios de nuestra construcción». [Darrigol. Dissertation sur la langue basque, pag. 161 y 162.]

Campionen hitzak parafraseatzen, esan liteke gaur egun: «*Arte hau, esaldi elementuen ordenarena, gehiago ote den gurean ere Pragmatikaren eremukoa Gramatikarena baino*». Askatasun printzipioa, antz batera errepikatzen du oraindik Campionek, Gramatikaren azken aurreko kapituluan (*La construcción de las frases* aurkibidean), segidako pasarte bietan, bigarrenean, Inchausperen esan eta adibide argiak lagun:

.. Y como la libertad del bascuence es muy grande en la construcción de las frases, todavía queda mas restringida esta parte dedicada a la reglamentación de ellas que tanta importancia suele adquirir en otras lenguas mas cohibidas y aprisionadas por las exigencias de una sintaxis imperiosa. (779 or.) / El órden general de colocación de las palabras es muy libre; Mr. Inchauspe lo demuestra con el siguiente ejemplo: «el niño dió la mano a su madre», HAURRAK EMAN ZIAN ESKIA AMARI, EMAN ZIAN HAURRAK AMARI ESKIA, ESKIA HAURRAK AMARI EMAN ZIAN, etc. y así hasta veinticuatro combinaciones diferentes, todas regulares [Le verbe basque, pag. 430] (782 or.)

Urteak aurrera, Campionek euskararen gainean hitzegitean, ez du inoiz ahaztuko libertate hau aldarrikatzea (aldiz, bai ahaztuko duen bitartean, Eskola Cardaveraztarraren postulatuak berriro erreibindikatzea). Hala 1897an argitaraturiko «La lengua bascongada» artikuluan (*Euskal Erria*, XXXVII, 1897, 363 or.-tik aurrera), edota honen 1918ko berridazketa batean «La lengua baska» izenpean (*Geografía General del país Vasco-Navarro - Provincias Vascongadas*, F. Carreras Candi, T. VI, 1918, 193-249 orr.); eta hala dio azken artikulu honen amaierako ondorioetan (248 or.):

... Y la construcción es tan libre que su arte mas bien es un capítulo de la retórica que no de la Gramatica.

6.1.1. Euskararen ordenamendu malgutasunaren aldarrikapen zehatzagoak.

Euskararen eraikuntza malgutasuna, behin baino gehiagotan erakutsiko du Campionek Gramatikan barrena. Bereziki jaso ditugu segidako hiru aipamenok behintzat, zerikusi zuzena duten heinean, aditzaren posizioarekin esaldian.

6.1.1.1. Izenorde mugagabeen gunea aditzarekiko.

Lehenengo bat, dioenean Campionek izenorde mugagabeen gunearen inguruan, eta zuzenean Larramendirengandik jasota (cf. honen 1729, 285 or.) (175 or.):

Los indefinidos que van solos, se anteponen ó posponen al verbo indiferentemente; ...

6.1.1.2. Aditz modifikableen gunearen inguruan.

Antzeko ondorio bat erator liteke, irakurtzen, Campionen segidako ohar polemiko eta adibide esanguratsuak, aditz modalen inguruan, berak modifikatiboak deitzen dituenak, eta zeintzuen joskera librea defenditzen duen, Larramendi eta Lardizabalen itzaletik orain ere (755 or.):

Los modificativos, salva una excepción que se especificara, se colocan siempre delante de las flexiones; la regla que asientan algunos gramaticos de que se coloque en primer lugar el modificable, despues el modificativo y al último la flexión, se observa tantas veces como deja de observarse: JAN nai DET ó nai DET JAN.

6.1.1.3. Aditz partizipio nagusi eta adizki jokatuen arteko joskeraz.

Campionen malgutasun defentsa ere nabaria da, adizki jokatua eta partizipio nagusiaren arteko joskeraz ari delarik, kasuan, Inchausperen itzaletik (783-4 orr.):

..., el nombre verbal precede y la flexión sigue: EMAN DU ESKUA «ha dado la mano» y nó DU EMAN ESKUA. Si la proposición es negativa la flexión precede y el nombre verbal sigue: EZ DU EMAN ESKUA «no ha dado la mano». La forma negativo-relativa y las formas re-compuestas negativas se colocan indiferentemente en uno ú otro puesto: ZÜK EMAN EZTÜZÜNA «lo que tú no has dado» y ZÜK EZTÜZÜNA EMAN; HASI EZTÜGÜLAKOTZ y EZTÜGÜLAKOTZ HASI «porque nosotros no lo hemos comenzado»; HARTÜ EZTIANIAN y EZTIANIAN HARTÜ «cuando no lo ha tomado». / Hay ocasiones en que se desea marcar con mas intensidad que la ordinaria el caracter del sugeto de una oración afirmativa; en castellano suele conseguirse empleando algún tiempo del verbo «ser». En el dialeco suletino se le comunica a la frase la significación intensiva que se pretende, posponiendo el nombre verbal a la flexión: «soy yo quien ha enviado el niño», NIK DÜT IGORRI HAURRA; Juan es quien marchó el primero», JOHANES ZEN JOAN LEHENI. / Otro giro, propio igualmente del dialecto suletino, es el de prefijar la negación al nombre verbal. Se usa cuando se quiere negar con mucha energía: NIK DÜT EZ NAHI «yo no lo quiero»; (equivalencia castellana «soy yó quien no lo quiere») [Inchauspe: le verbe basque, pag. 430.]

6.2. Campionen propaganda cardaveraztiarra.

Halako aldarrikapen liberalak jasota ere, Campionek hasieratik aireratzen ditu, hain liberalak ere ez direnak. Definizio, nolabait aseptiko batzuen ondoren (*Euskara hizkuntza aglutinantea da*, 1884, 25 or.; edota 1918ko «La Lengua Baska» artikuluko zehaztuxeagoak, 196 or.: *El euskara es lengua aglutinante con tendencias al polisintetismo. Ocupa puesto entre las úralo-altaicas y las americanas. Su caracter eminentemente aglutinativo no excluye de una manera absoluta el procedimiento flexivo, patente en el verbo.*), Gramatikaren Introdukzio beretik jaisten da alor labainagoetara.

Hala, Sarrerako II kapituluaren IV atalean ohar arazten digunean jada, euskararen desberdintasun intrinsekoen gainean beste hizkuntza klasiko, ario edo indo-europear, eta neo-latinoen aurrean, Campionek egiten du jada, pisua jarriaz, euskararen ezaugarri pospositibo orokorrean. Eta ez bakarrik zentzu Larramenditar, nahikoa zuhur batean,

baizik eta bereziki aipatuaz ezaugarri pospositiboa esaldien eraikuntzaren alorrean, estilorik cardaveraztiar mitifikatzaileenean, honen hitzez lagundurik, eta euskal aditzari erantsi nahian ezaugarri pospositiboa, Añibarro, Lardizabal, edo ere Archu baten[1] ildotik. Hitzek banan bana ez dute galerarik, nahiz aipua luze gertatu (44-5 or.):

Cuando se pasa del estudio de las lenguas clasicas, ó de cualquiera otra de las que constituyen la gran familia arya, ó indo-europea, al estudio de la lengua euskara, el espíritu no puede menos de experimentar una viva sorpresa, producida por la divergencia que entre el mecanismo de las unas y de la otra se advierte. Esta diversidad justifica, en gran parte, la reputación de extraña, y aun de maravillosa, que muchos autores crearon al euskara; ésta lengua, por mas que en determinados puntos presente analogías con otras, jamas dejara de merecer los dictados de original é interesantísima, ademas de los de dulce, elocuente, flexible, filosófica y rica que, sin jactancia patriótica, se le puede atribuir, mal que les pese a los contaminados de anti-euskarismo. / Si puesta la vista en la construcción de las frases hubiéramos de calificar a la lengua euskara, diríamos que es una lengua eminentemente pospositiva. El P. Cardaberaz ya había llamado la atención acerca de este rasgo, cuando dijo: BESTE IZKERAK BEZALA, GUREAK ERE, BERE ITZALDI EGOKI, CHIT BIZIAK, BEREZKO TA BERARIAZKO EDERRAK DITU, BAÑA ERDARAK ERA BATERA, TA EUSKARAK BESTERA. ONEK ERA POSPOSITIVO TA ARK PREPOSITIVOAN. ESAN NAI DU; GAZTELANIAK BETI AURRETIK DAKARRENA, EUSKARAK AZKENERONTZ BETI BOTATZEN DUELA; ETA ITZAK BEREN LEKUAN GAZTELANIAREN KONTRA IFINTZE ORRETAN EUSKARAREN ERA EDER, AIRE, EDO CHISTE GUZIA DAGO. [Euskeraren berri onak, pag. 58.] / En efecto la posposición es de uso general en euskara; se pospone el artículo al nombre, así como varios de los pronombres; se pospone el adjetivo al sustantivo; se posponen las terminaciones que sirven para formar los nombres; se posponen los sufijos que marcan las relaciones de estos; se posponen las partículas relativas y conjuntivas al verbo; se pospone la cosa poseida al agente posesor en el genitivo; se posponen las palabras que marcan una modificación de tiempo, de modo, de lugar, etc. en la acción expresada y se pospone el verbo a todos los demas miembros de la frase, por él acabada y concluida con majestad ciceroniana. [Eta segitzen du orripeko oharrean:] / En prueba de ello, véase la traducción literal de tres versículos del Evangelio de San Lucas, en la versión hecha por Leizarraga. Luc. XV, 11. HALABER ERRAN ZEZAN; GIZON BATEK ZITUEN BI SEME: Así mismo lo dijo; hombre uno los había dos hijo. 12. ETA HETARIK GAZTENAK ERRAN ZIEZON AITARI. AITA, INDAK ONHASSUNETIK NIRI HELTZEN ZAITADAN PARTEA. ETA PARTE ZIETZEN ONAK. Y de aquellos el mas joven le lo dijo al padre; Padre, damela tú del bien a mí por venir que esta a mí-a mí la parte. Y leslos partió los bienes. / 13. ETA EGUN GUTIREN BURUAN GUZIAK BILDURIK SEME GAZTENOR YOAN ZEDIN HERRI URRUN BATETARA; ETA HAN IRION ZEZAN BERE ONHASSUNA PRODIGOKI BIZI IZANEZ. Y día de poco en la cabeza (al cabo) los todos habiendo reunido hijo aquel mas joven se puso país lejos a uno; y alla lo disipo de si el bien pródigamente viviendo siendo. / Debo advertir que no he colocado en el sitio que ocupan en el original los sufijos que marcan las relaciones gramaticales, para no oscurecer demasiado el sentido; por ejemplo, AITARI, no es lit. «al padre» sino «padre al»; GAZTENAK no es el «el mas joven», sino joven mas el, etc.) / Esta diferencia en la construcción, meramente externa entre el euskara y las lenguas neo-latinas, a las que me refiero en este momento, reveladora es, y nada mas, de otras profundas diferencias internas.

Lerrokada mitogileak dudarik gabe. Eta konsolidatutzat emandako mito bat: euskararen desberdintasun intrinsekoarena inguruko hizkuntza guztiekiko, eta batez ere, behintzat, gaztelaniarekiko. Eta aipuaren hasieran aipatu behintzat egiten bazen, euskararen analogiarik beste hizkuntzekiko, gero soilik ekingo zaio anomaliaren apologiari. Bigarren mitoa, gaztelaniarekiko kontrajartze absoluto hori aplikatzea, euskaraz, aditzaren posposizio guneari esaldian. Hala errepikatuko du, berriro Gramatikaren bukaera aldean, esaldien joskeraren gaiari heltzen dionean, honen I atala bukatzeko segidako hitz beti tentagarri, beti eskolagileekin (782 or.):

Los buenos escritores y hablistas rematan la frase, por lo común, con el verbo principal de ella.

Añibarro eta Lardizabal (eta agian Archu)-ren oihartzun diren hitz hauetan, Campionek ez du jada adibide bezala aipatzen haien moduan, Cardaveraz edo Axularren izenik. Garairako dudarik gabe zabal liteke zerrenda, bederen Lardizabal bera, Guerrico, edo Arrueren izenekin.

6.3. Postulatu cardaveraztiarren kontraesan batzuk Gramatican bertan.

Ez dirudi nolanahi aditzaren posposizioari buruzko baieztapen zorrotz hauek ondo lotzen direnik, hasierako puntuan jasotako aldarrikapenekin euskararen joskera libertatearen gainean, gure inguruko beste hizkuntza hainbaten estuasunen aldean. Campionen kontraesanak ordea, ugariak dira.

6.3.1. Leiçarragaren aipuko esaldi anti-cardaveraztiarrak.

Asko da piskaren bat gainbegiratzea Campionek, aditzaren ezaugarri pospositiboa formulatu ondorenean jasotzen duen Leiçarragaren aipuari, konturatzeko, zein gutxi segitzen duten bertako aditzek balizko ezaugarri pospositiboa. Esaldiak ziren (Leiçarraga, *Testament Berria*, 1571, 136b or.):

11 Halaber erran ceçan, Guiçon batec cituen bi seme: / 12 Eta hetaric gaztenac erran cieçón aitari, Aita, indac onhassunetic niri heltzen zaitadan partea. Eta parti cietzén onac./ 13 Eta egun gutiren buruän, guciac bilduric seme gaztenor ioan cedin herri urrun batetara: eta han irion ceçan bere onhassuna, prodigoqui vici içanez.

Esaldiotan, aurki litezke, euskarazko hainbat elementuren posposizio adibideak. Ez ordea, justu aipuaren aurrean Campionek aldarrikatutako aditzaren posposizioarenak, esaldiko beste elementu guztiekiko. Aginterazkoaz gainera, Leiçarragaren esaldi nagusietako bat zuzenean hasten da aditzaz. Aditzak ez du behin ere gordetzen esaldi bukaerako gunea. Eta guztietan ematen da nabarmen esaldiko galdegaia, prediku nagusia, esaldiaren bukaeran, eta aditzaren ondoretik. Bakarrik, mendeko bi aditz jokatugabeek amaitzen dutre esaldia, bakoitzak konplementu bakar banarekin, euskarazko ohizko «Xà», aditza bigarren, egitura batean.

6.3.2. Campionen Gramaticako adibidetegi anti-cardaveraztiarra.

Bitxiki, Campionek esaldi joskeraren atalean bertan ematen dituen adibide, ia guztiek, batetik, oso nabarmen daramate beren galdegaia aditzaren ondoretik (esaldien itzulpenetatik ere suma litekeen bezala), eta bestetik, gehienak gainera zuzenean hasten dira beren aditzaz. Salbuespenak (22tatik bi/edo hiru)), oso esaldi laburretan ematen dira, «Xà» egitura arruntak baino ez direnak. Campionek ez bide zituen erabili Gramatikan, bakarrik, *idazle eta hizlari onen* adibideak. Ikus dezagun esaldi saila:

(1) EROSTEN dezu ZALDIA (g.) «tú compras el caballo» (779)

(2) HASTEAN JAINKOAK EGIN zituen ZERUA ETA LURRA (l.) «en el principio Dios hizo el cielo y la tierra» (779)

(3) SALTZEN dituzu ECHEAK (g.) «tú vendes las casas» (779)

(4) EMAN dütü LIBRIAK «ha dado los libros» (780)

(5) IKHUSI dütüt GIZONAK JITEN «he visto venir a los hombres» (780)

(6) IKHUSI düt PARISEN GIZON ETA EMAZTE ETA HAUR ETA ECHE ETA ZAMARI ETA ORGA ETA KARRUCHA «he visto en París hombres, mugeres, niños, casas, caballos, carros y coches» (780)

(7) EMAN deit SAGAR ETA INTZAUR ETA UDARI ETA GEREZI ETA ARHAN ETA HUR ETA MIZPIRA «me ha dado manzanas y nueces y peras y cerezas y ciruelas y avellanas y mízperos» (780)

(8) JESUSEK BERE DISZIPULUAI ESAN zien (g.) «Jesús les dijo a sus discípulos» (780)

(9) EMAN dü JOHANERI MAKHILLA BAT (s.) «ha dado a Juan un bastón» (781)

(10) EMAN deyo JOHANERI MAKHILLA BAT (s.) «ha dado a Juan un bastón» (781)

(11) IGORRI düt LANGILER PEGAR BAT ARDU «les he enviado a los trabajadores un cantaro de vino» (781)

(12) IGORRI deyet LANGILER PEGAR BAT ARDU «les he enviado a los trabajadores un cantaro de vino» (781)

(13) EMAN deyo MAKHILA BAT «le ha dado un bastón» (781)

(14) IGORRI deyet PEGAR BAT ARDU «les ha [sic] enviado un cantaro de vino» (781)

(15) EMAN DU JOHANERI MAKHILA BAT (781)

(16) EMAN DÜ HARI MAKHILA BAT (781)

(17) IKHUSI DÜT mithilaren IGORTEN «he visto enviar el criado» (781)

(18) JOAN DA bere amaren IKHUSTERA «ha ido a ver a su madre» (781)

(19) lanaren EGITEKO BEHAR DA DEMBORA «para hacer el trabajo se necesita tiempo» (781)

(20) OSTO BILTZERA JOAN DA «ha ido a recoger hoja» (781)

(21) IKUSI DET MORROYA BIALTZEN (g.) «he visto enviar al muchacho» (781)

(22) ARAGI EROSTERA JOAN DA (g.) «se ha ido a comprar carne» (781)

Erants dakizkieke hauei, Campionek Gramatikan zehar eskaintzen dituen beste hainbat adibide antzeko, zuzenean aditzaz hasiak edo ez, baina dudarik gabe daramatenak hau esaldi aurrealde batean, eta honen ondoretik esaldiko prediku nagusia. Nola segidakoetan behintzat:

(23) EMAKUMEA GANEN DA ECHErat (l) «la muger ira a casa». (210)

(24) CHICHARRA ..... DIJOA ARRASTAKA CHINGURRIAgana (Itur.) «la chicharra .... se va a rastras a la hormiga» (212)

(25) BADA ECHE AU ARTZEN DOT GAURTIK OSTATUTZAT, GUADALUPEra, ERREGEgana, NUAN ARTEAN (b) «pues esta casa, desde hoy, la tomo por posada, mientras voy a Guadalupe, al rey» (212)

(26) JAJO ZAN MARIJA BIRGINIAganik (b) «nació de la Virgen Maria» (220)

(27) GURAGO DAU OTSUAK BASO BIZITZIA, JAATEKUA NEKEz BILLATU BIARRA, ECHE CHAKUR KATIAz LOTUBAREN EREGU TA OGI BIGUÑA BAÑO (b) «mas quiere el lobo la vida del bosque, la necesidad de buscar con trabajo el alimento, que el pan tierno y el mimo del perro doméstico atado con cadena» (229)

(28) NORK ERE NAHI BAITU, BERE BURUAz KONTU ONIK EMAN, BEHAR DITU BORTZ ZENSUAK (Ax.) (230)

(29) EGUN BATEz GALDEGIN ZERAUKATEN FRAI GIL, SAN FRANZISKOREN LAGUN SAINDU HARI, EA ZER MOLDEz, EDO NOLA GARAITZEN ZITUEN HARAGIAREN TENTAMENDUAK (Ax.) (230)

(30) GALTZEN DA GOGOz BIRGINITATEA (Ax.) «la virginidad se pierde con el deseo» (230)

(31) EGUN OROz IKHUSTEN DA ABERATSA NAHIGABEz, KHECHADURAz ETA ERITASUNEz ZAURTHUA (l) (230)

(32) JAINKOAK ESTALTZEN DU LURRA OGIz ETA ARTHOz, OIHANEz ETA AZIENDAz (l) (230)

(33) EGUN AIPHATUKO DUGU ONGARRIAz (l) «hoy hablaremos del abono» (230)

(34) ZAURITU ZIOTEN ESPATAz (l) «le hirieron con la espada» (230)

(35) HAREN MINZOAz OIHANAK IZAN ZIREN LOTSATIAK (s) «con el grito de aquel los bosques fueron espantados» (230)

(36) JATEN DET OGUIA «yo como el pan» (753)

(37) nai NUKE EGON ZUREKIN «yo quisiera estar contigo» (757)

6.3.2.1. Zuzenean aditz trinkoz-edo hasten diren Gramaticako esaldiak

Gutxi badira ere jasotzen ditu Campionek inoiz halakoak:

(38) ¿DAGO IÑOR EZ DAGIYANik NI NAZALA, ODOL GARBITIK ETORRIA IZANDA BERE, GIZON LANDERRA? (b) «¿hay nadie que no sepa, que aunque procedente de sangre limpia, soy yo hombre llano?» (222)

(39) (ARRAI HORI EZTA ERREKAkoA;) DA ITSASOkoA (s) «ese pescado no es de riachuelo; es de mar» (226)

(40) ETA BIDE zitzaion BURU ARTAN jarri (Itur.) «y acaso se le puso en aquella cabeza». (783)

6.3.2.2. Mendeko esaldi hautsiak Gramaticako adibidetegian.

Campionek jasotzen ditu ere inoiz mendeko esaldiak, konplementuak daramatzatenak aditza eta elementu mendekotzailearen ondoretik. Eman ditugu batzuk goragoko adibideen artean (Inchausperenak). Hemen beste pare bat:

(41) SORTHU ZENIAN JESUS BETHLEME JUDAKO IRIAn (s) (204)

(42) ESATEN DIELARIK-CHIMURCHI BATEKIN (Itur.) «diciéndoles con una mueca» (775)

6.3.3. Campionen adibide cardaveraztiarrak (edo).

Badira nolanahi bestelako adibideak ere Gramatikan barrena, esaldia aditzaz bukatzen dutenak. Oro har hala ere gehienak esaldi laburrak izango dira, bi elementuz edo osatuak, «Xà» egitura soilak. Salbuespen nabarmen bat, Campionek gipuzkerazko bezala erakusten dituen hainbat adibide, aditzaz amaitzen direnak, nahikoa luzeak izanda ere. Hauetako asko dira, Lardizabalen Testamentuco Condairatik ekarriak. Ez alferrik aukeratzen du Campionek ere Lardizabal, gipuzkeraren paradigma bezala. Jasoko ditugu guzti hauetako adibide batzuk:

(43) ZEURE ECHIAn JANGOIKUAREN GRAZIJA DAGO (b) «en tu casa esta la gracia de Dios» (204)

(44) NI GAUZA FROGATUEN GAINEAn AINTZINATZEN NAIZ (l) «yo avanzo sobre las cosas probadas» (204)

(45) BASO-MORTUAREN ERDIAn ARGI BAT AGERI ZAN (g) «en medio del desierto apareció una luz» (204)

(46) JAUNAREN ECHEra GOGOZ SARTU ZAN (g) «se entró con gusto, a la casa de Dios» (209-10)

(47) NASTE GALGARRI AU TABERNAKULOAREN ONDORAÑO ZABALDU ZAN (g) (213)

(48) JAINKOAK ZERUETATIK EURI-JASAREN GISAN GARIA BIALDUKO DIO (g) (217)

(49) ECHETIARRAK ERE, ESKUGAINIKgabe, BERE NAUSIAZ EZ LAGUNDUA, URTE CHARRETAN AHAL DUENA EGITEN DU (l) (224)

(50) LOT, ABRAHAMEN ILLOBA, ETA OSABA BEZALA BIOTZ ONEKOA ETA ONGILLEA, URIko ATEAN ESERITA ZEGOAN (g) (226)

(51) BERE KOPETA IZERDIz ETA EURIYAz ARRAS BUSTIYA, ETA ASNASE ESTUTUA ZEUZKAN (g) (229)

6.3.3.1. Campionen Gramaticako galdera hautsiak.

Campionek jasotzen ditu tarteka bere adibideen artean galdera hautsi batzuk ere, elementuak tartekatuak dituztenak galdegile eta aditzen artean:

(52) NI BAÑO NOR OBETO BIZI DA LURRIAn? (b) (204)

(53) ¿NOLA BADA, ZURE ISIL-GAUZA IPIÑI DEZU EMAKUMEAgan? (g) «¿cómo pues, has puesto tu secreto en la mujer?» (209)

(54) ¿NOLA BADA, DEMBORA ARTAN UMERik ETZENDUEN? (g)

Pentsa liteke gainera azken galderan, ezezko aditza ere ez ote dagoen ohi baino gehixeago atzeratuta modu artifizial samarrean.

6.4. Campionen praktika euskal prosan.

Ugariegi ez bada ere badu Campionek argitaraturik zenbait izkribu labur euskaraz. Guk kontu piska batekin aztertu ahal izan ditugunak dira: 1. *Orreaga* balada (1878); hiru leienda oraintsu berrargitaratuak (2. *Denbora Antxiñakoen Ondo-Esanak* (1882);[2] 3. *Okendoren eriotza* (1883); 4. *Agintza* (1887)); 5. *Gure sinismen oso osoa* (1888), artikulu laburra; 6. *Arturo Campion jaunak egin zuen itz-aldia*, in «La asamblea de Auza» (*Euskal-Esnalea*, 6, 1908, 66-69 orr.); eta 7. *Malaxka ta Akuliña, Tolstoiren ipui labur baten itzulpena*, 1909an argitaratua. Hauek guztien adibide ugari jaso dugu gure ADIBIDETEGIAN. Hasieratik esan behar da, Campionen euskal prosa beti urrian, antzemanko direla, Gramatikan barrena nabarmendu dizkiogun, bi joera desberdin eta kontrajarri berak, esaldiko elementuen ordenamenduan. Batetik tradiziozko etorria. Bestetik, Eskola cardaveraztarraren eragin nabarmena.

6.4.1. Tradiziozko joskera bat.

Besterik egongo bada ere, nabarmen izango da Campionen prosan joera, aditza, ohituraz, ez gehiegi atzeratzeko esaldian, batez ere, esaldi hauek batere luzeak diren orduko.

6.4.1.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik.

Hala, oso maiz emango dira esaldietako galdegaiak nabarmen, aditzaren ondoretik eta haien amaiera aldera. Adibideak, Gramatikan bezala, ezin ugariagoak dira gure ADIBIDETEGIAN ikus litekeen bezala, nondik jasotzen ditugun segidan gutxi batzuk erakusgarri (lehen zenbakia obrarena da, goraxeago eman berri dioguna):

(55) ..., Altabizcarco inguruetan senti oi dira otsoaren izugarrizco marruac, ... (1,119)

(56) ..., eta Euscaldunac zorrozten dituzte bitartean beren dardo ta aizcorac Ibañetaco aitz eta arrietan. (1,119)

(56) ..., eta Turpin arzepizpicu onac errezatzen dio Jaincoaren Ama santubari. (1,119)

(57) Ume gaztena asi zan istil-barrenean sartzen, ... (7,42)

(58) Malaxka busti zan belaunetaraño. (7,42)

(59) Autsiabartzak egin zuen zart. (7,43)

(60) Laguntza amonagana etorri zan, Akuliña ta Malaxkaren aldetik. (7,43)

(61) Auzokoak begiratu zioten neska-koxkorrai, ... (7,43)

6.4.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Campionen prosan ez da Gramatikan bezain ugaria, zuzenean aditzaz hasten diren esaldien proportzioa, nahiz sail on bat izan, gure ADIBIDETEGIAN ikus litekeen legez. Handik adibide gutxi batzuk:

(62) ..., eta asi zan irakurtzen bereala era onetan: ... (2,125)

(63) ...; eman bear diogu gure arbola beneragarriya. (2,127)

(64) ..., eta ikusi nuen jende asko Portu-alderontz joaten zala. (3,134)

(65) ..., eta jatxi ziran eskotillapera. (3,137)

(66) ... eta asi zan lurra leuntzen, ... (7,43)

(67) ..., lotsatu ziran chit, ... (7,43)

6.4.1.3. Zuzenean aditz trinkoz hasten diren esaldiak.

Inoiz ematen du Campionek aditz trinkoren bat ere esaldi hasieran bertan:

(68) Zan egun bat eguzkirik gabea. (3,136)

(69) Diote jakintsuak: euskara izkuntz puru, garbi-garbiya izanik, ... (6,67)

(70) Diot nik, zuek baño zentzu obeagoa dutela. (7,43)

6.4.1.4. Mendeko esaldi hautsiak.

Oro har ez dira faltako, hainbat ugari, mendeko esaldi hautsiak, konplementuak erakusten dituztenak, aditzaren eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen ondotik, gure ADIBIDETEGIAN ikus litekeen bezala, nondik batzuk:

(71) ..., errendituba loaz, ... (1,120)

(72) ..., eta zabaldurik bere egal zuriak (asi zan egaka) autsirik zeru urdiñaren zabaltasuna. (2,124)

(73) ..., eta jendeak ikusi zituenean aurrak ontzi-barrura sartzen, ... (3,134)

(74) (..., ez naiz beñere aztuko) zure etxean artu nazula, gose ta nekatua nengoenean, ... (4,146)

(75) Eta eranzuten zuela Jesusek, ... (5,40)

(76) Soñeko berria zikindua ikusirik Akuliñak, ... (7,42)

6.4.2. Eskola cardaveraztiarraren zantzuak Campionen prosan.

Tradizio joskeraren ezaugarri guzti horiek egia badira ere, Campionen prosan ez dira inoiz falta izan hasiera beretik, tarteka, aditz atzeratze pautatuak, eta zenbaitetan nahiko behartuak eta artifizialak, Cardaverazen Eskolaren eragin seinale direnak. Hala nola egiten duen monotonoki, l879ko leiendaren hasieran (*Leiendak*, EEE, 1990, 123 or.):

(77) Gaba zan. Egun argan berean lege gogor, kaltegarri eta bidegabe batek zoriontasun eta onorea Euskaldunai kendu izan ziezten. Ni, etxe-balkoian sostengatua, Kastillako zelai latzari begira nengoen. Negar-malkoak nere aurpegiya bustitzen zuten, eta biotz gaisoak, miñaren ezpat zorrotzaz zulatua, oiuka eta aiezka bere aserre biziya agertzen zuben.

6.4.2.1. Campionen egitura altubetarrak: galdegaia fi aditza.

Aditzak usu baino gehiago atzeratzeko joerak, hainbat maiz emango ditu Campionen prosan egitura altubetarrak, *galdegaia fi aditza*, ez bakarrik esaldi (oso) laburretan. Nahiz esaldi batere luzeetan, eta ez hauetan bakarrik, usuzkoa segi izaten alderantzizko, *aditza fi galdegaia* egitura tradiziozkoa. Egitura altubetarrak izan litezke azken adibideko esaldiren bat edo beste, edota segidako sailak ere, adibiderako, bere hitzalditik:

(78) ...: Ulzamako balle edo ibarrera euskarari indar eta eskua emateko etortzea, Belateko mendi tontorrera elurra neguan eramatea bezain gauza parragarriya da. Ulzamarrok, euskaldun garbi-garbiyak gera; gure izkuntza, gure itzegitearen modua, echean, kanpoan, goizean, arratsean, jokoan, lanean, beti euskara da, jayotzatik illarteraño. ..., baño Ulzaman euskararen alde zerbait egitea, ibai edo errioari, ura botatzea, ura ishurtzea da. (6,67)

(79) Naparra osoaren, Naparra guziaren lengoaje edo izkuntza, euskara zan. Naparra beren izena ere, Euskararen ezpañetatik artu du, baño egunero euskara maitagarriya guchitzen, chikitzen, laburtzen ari da. (6,67)

6.4.2.2. Etenak galdegaia eta aditzaren artean.

Ez dira ordea egitura altubetarroik izango, Campionen aditz atzeratzeen ondorio bakarrak edo nabarmenenak. Aldiz bestela, Campionengan ere aurkituko ditugu tarteka, hainbat esaldi, dudarik gabe beste elementuren batzuk tartekatuak dituztenak, esaldiko galdegai aurreratua eta artifizialki atzeratutako aditzaren artean, egingo ez badu ere Cardaverazek, Guerricok, Lardizabalek edo Arruek egiten zuten proportzioan. Adibidez, hori gertatzen zen begi bistan, 6.4. atal honen buruan eman dugun leiendaren hasierako bigarren esaldian (77). Baita beste hainbatetan ere, gure ADIBIDETEGIAN jaso dugun bezala, nondik segidakoak (beti etenak nabarmenagoak gertatzen direlarik beren testuinguruan):

(80) Gizon eldu aritz itzalpean zegoen batek arbola-sustraiak eserlekutzat zituen. (2,125)

(81) Zure alde Araba, Ipuzkoa eta Bizkai-erdia; nere alde, beste Bizkai-erdi, Naparroa eta gañerako euskaldunak, armak artu zituzten. (2,130)

(82) Keñuak eskuakin egin zituen, (denak ixil zitezen; ...) (3,139)

(83) Nor da or? -Aitorrek galdetu zuen, ... (4,145)

(84) (Nor zera? ...) Pelaio, kantabriako dukea ni naiz. (4,146)

(85) ..., alperrik bere esku demboratarra kendu diote; ... (5,40)

(86) (Akuliñaren ama, echetik irten zan) eta alabaren soñeko zikindua orduanche ikusi zuen. (7,42)

6.4.2.2.1. Etenak, koma medio, galdegaiak eta aditzaren artean.

Galdegaia eta ondorengo aditzaren arteko etenen adierazgarri fidel ere badira, Campionek hainbat ugari ematen

dituen komak, galdegaiak eta aditzen artean, nola segidakoetan (gure ADIBIDETEGITIK):

(87) (Ni eta nere guraso eta aurrekoak beti bizi izan gera uztarririk gabe mundua mundu danetik,) eta nik, era berean, nai det ill. (2,126)

(88) Menditar aien artean, neskatx eder lirañ bat, illargiya baño zuriago eta eztiya baño gozoagoa, zegoen iruñten. (2,129)

(89) Gure La Capitana goaraitezgarriyak, Holandako Armadaren, geiena alderatu zitzaiozkan ogei ontziak, galdu zituen. (3,138)

(90) Izpi bertan, istilleko ura, amona eztitzallea zegoen tokiraño, eldu zan. (7,43)

6.4.2.3. Galdera hautsiak.

Modu bereko eten arrotza gertatzen da galdera «hautsietan», ugariegi ez bada ere tarteka behintzat ematen direnak Campionen prosan, nola (gure ADIBIDETEGITIK):

(91) Zergatik zure begiai malkoak dariote? (2,128)

(92) Noiz arte, emakumea, egongo aiz esanaz «berri onak dakarzkit?» (3,134)

(93) ...; nola ni, bada, oraintxe niteke bizi? (3,135)

6.4.2.4. Aditz atzeratze artifizialak mendeko esaldietan.

Aditz atzeratze behartu eta nahiko artifizialak suma litezke, nabarmen, Campionen mendeko esaldien artean, non tarteka eragiten ere diren, ohizko perifrasien hausturak, aditza eta honen aurreko ohizkoago elementuen artean, beste zenbait elementu tartekatuaz. Hala nola, adibide baterako:

(94) Baietz, nik erantzunik, ... (2,124)

(95) (Ez da erraz esatea) zenbat Euskaldunak poztu ziran Erromatarren joatearekin. (2,128)

(96) -Su! eta deskarga lodi bat La Capitanak botaturik, ... (3,138)

(97) Gauza oyek eta onelakoak norbaitek erraten baditu, ... (6,67)

(98) (Bi echeko-alabak,) neska-koskor oraindik ziranak, ... (7,42)

(99) (... ikusiaz) nola ezpal bat ur-goyan emen, ur-pean or, igeri zijoan. (7,43)

6.4.2.5. Ezezko aditz inbertsio gabeak.

Suma (edo) daitezke aditz atzeratzearen arrastoak, Campionek ezezko esaldi konposatu hainbat ematen duenean ere ohizko inbertsiorik gabe:

(100) ..., eta pageac, errendituba loaz, eranzuten ez dio. (1,120)

(101) (Bazirudien) zerbitzari leialak denborarik galdu etzuela. (3,134)

(102) (Zan egun bat eguzkirik gabea.) Arkitzen eziran Franzia eta Inglaterrako itxas-aldeak; ... (3,136)

(103) ...: Jaungoikoari onesten etzaio iñork euskaldunen atean alferrik jotzea. (4,145)

6.4.2.6. Atzeratzen ezezko aditz trinkoak,

Nahikoa nabarmena gertatzen da zenbaitetan, halako aditzen atzeratze ezohizkoa esaldian. Hala behintzat segidakootan:

(104) Elkarterik gabe indarrik ez da. (2,128)

(105) Zortzi egun oraindik ez dira, ... (3,137)

(106) ...; nere animarentzat pakerik, eta nere begientzat lorik ez da. (4,146)

6.4.2.7. Atzeratzen BA- aurrizkidun aditzak ere.

Aurki litezke tarteka Campionengan halako aditz trinkoen ez ohizko atzeratzeak esaldian, nola adibidez:

(107) Orduandanik, gure artean alkar-arteko gerrak badirau. (2,130)

(108) ... gure alde Jaungoikoa badegu ... (3,142)

(109) Ura, gu baño, lasterrago badoa; ... (7,43)

6.4.2.8. Atzeratuaz aginterazko aditzen bat.

Campionek atzeratzen du inoiz halako aditzen bat ere, nahiz salbuespen izan:

(110) (Euskaldun illak, esna zaitezte;) zuen obietatik jaiki zaitezte; (atozte kanpora.) (2,124)

6.4.3. Ba ote da eboluziorik Campionen prosa estiloan?

Suma ote liteke desberdintasunik Campionen prosan, 1878ko Orreagatik, 1910eko ipuiera bitartean? Agian izan litezke beranduagoko lan hauek cardaveraztiarragoak? Baliteke hala izatea zertxobaitean. Baina oro har ez dira oso joskera ezaugarri desberdinak aurkitzen lan ezberdinen artean; nahiz eta, horren urria izanik beti Campionen mostra, zail den zuhurregi hitzegitea inoiz, garapenez; zentzu batean nola bestean.

6.5. Beste bi ezaugarriren aztarnak Campionen Gramatican, ondorengo euskal joskeren norabide-galdu-estuen ildoan.

Hala jaso nahi ditugu hemen, lehenik Campionek bere Gramatican hainbat dislokazio modu desberdini eskaintzen dien bidea; nola bestetik, Campionek jakinaren gainean eskaintzen dion airea, Astarloaren ildotik, euskal gramatikaren zurruntasunaren mitoari.

6.5.1. Dislokazio batzuren bidea euskal joskeran.

Aipatu dugu lehenago beste hainbat lekutan ere, dislokazioena, berez, esannahiez edota funtzioz elkarrekin zerikusi estua duten elementuen artean, gaur egungo euskal joskeraren arazorik haundienetako bat bezala, batere beharrik gabe neurri gabean zailtzen duen heinean esaldien ulergarritasuna. Arrazoi asko eta desberdinek eragiten dituzte, dudarik gabe esaldien samurtasuna eragozten duten eten horiek. Nagusienetako bat, zalantza gabe, aditzaren atzeratze artifizial eta ezohizkoak, ikusten gatozen bezala. Baina badira ere bestelakoak, eta Campionek horietako batzuei behintzat, ematen die bide, bere Gramatican. Eta bera inoiz izango ez bada ere, arauen asmatzailea, eta ezta ere, defendatzaile sutsuegia, bai izan liteke berea, bederen garaiko hainbat uste zabalduren testigantza.

6.5.1.1. Syzeugmenon-a (edo).

Agidanean hala moduz deitzen dio Erasmok bere *De copia*-n (Kap. XXX) konposizio figuretako bati, aditz (jokatu) bakarraren pean ematen direnean zenbait esaldi desberdin.[3] Hain zuzen figura honen erabilera edo gaitz-erabilera zen, Larramendik Cardaverazi horren gordin kritikatzen ziona bere zentsuran. Campionek bere aldetik, Cardaverazen ekonomia eta labur-hobearen arrazoi berak haizatzen ditu (cf. azken honen erantzuna Larramendiri), arau bezala proposatzeko, Larramendik gaitzetsitako hura bera (782-3 orr.):

En una frase pueden venir varios verbos que expresen todos la misma clase de relación en cuanto al modo, tiempo, persona, número, régimen etc. En éste supuesto, la ley de economía del esfuerzo y el principio estético de evitar ó disminuir las repeticiones prescriben que una única flexión califique a todos los nombres verbales: ..., GUK ECHEAN JATEN, EDATEN ETA LAN EGITEN degu, en vez de GUK ECHEAN JATEN DEGU, EDATEN DEGU ETA LAN EGITEN DEGU; ..., ZEREN EZTA IANHARIRIK, ETA EZ EDARIRIK URA BEZAIN GARBIKI ETA OSOKI HUTSTEN, ISURTZEN ETA CHUKATZEN duenik. (Ax.)

Praktika honek, zeinen aztarnak alde eta aldi guztietako euskaratan aurki litezkeen, ez ditu ulermen arazo bereziak sortzen, esaldiak oso luzeak ez diren bitartean, eta bereziki, iustaposizioak direnean, batere konplementurik gabeko aditz sailak (Campionen adibideetan bezala). Ezin ordea esan da berdin, Larramendik ohartu bezala, esaldi luzeagoetan: koordinatutako aditzetako bakoitzak berarekin konplementu sail bat daramanean -tarteka mendeko esaldi luzez ere-, horren praktika zabala Cardaverazen edo Arrueren prosa ilunenean. Hala eragindako dislokazioak handiak izan litezke.

6.5.1.2. Dislokazioa ezezko esaldietarako.

Hala proposatzen du Campionek Gramatikan (783 or.):

Por principio general el nombre verbal y sus flexiones se siguen, cualquiera que sea el puesto de precedente ó subsiguiente que mútuamente ocupen; pero es una manera muy elegante de expresarse, sobre todo en las frases negativas, la que consiste en interpolarles la oración, ó parte de ella, siempre que no sufra la claridad, principal adorno del discurso; la flexión ha de preceder al verbal en este caso: ezdigu AINGERUEN AITAMENIK egiten ...; HALATAN etzen LEGE NATURALEAN ERE, ZERBAIT MOLDEZ, GOGOZ ETA BIHOTZEZ BEDERE KOFESATUGABE NEHOR salbatzen (Ax.) ...

Campionek esan bezala, printzipio orokorra bada ere, aditz nagusia eta laguntzailea ematea bata bestearen segidan, egia da ere, alde eta aldi guztietako euskaretan praktikatu dela, usu asko, ezezko esaldietan, elementuren baten interposizioa bien artean. Zenbat elementu tartekatzea da ordea, ohizkoa, edo elegantea, gehiegi sufri ez dezan, diskurtsoaren argitasunak? Hitz bat, ala esaldi oso bat ere ia, Axularren adibidean interposatzen diren 31 silabak bezala? Zein hitz klase nolanahi?

Hasieratik baieztatu behar da, bi elementuen arteko tarte handiak dudarik gabe laguntzen duela neurri berean iluntzen, esaldiaren esannahia. Batetik, aditzaren bi osagaien arteko dislokazio handiagatik bakarrik ere. Baina bestetik baita ere, hala asko atzeratzen delako ezezko esaldian aditz nagusiaren gunea, eta beraz, esaldiko elementu semantiko nukleatzaile nagusiarena.

Gaur egun segurasko inoiz baino gehiago praktikatzen da dislokazio modu handi hori, hainbatek teorizatu ere egin duenetik, Altubek ez bezala, tarteko gune hori ote den ezezko esaldian galdegaiarena, hain zuzen ohituraz esaldiko elmentu luze eta konplejuenetakoa.

Guk ordea, uste dugu, patxada gehiagoz estudiatu behar liratekeela, aditz nagusiaren partizipioak, berez, eta orokorrean izan ditzakeen joerak, «Xà» moduko ohizko egiturak osatzeko euskaraz, bere aurreko elementu toniko eta laburrekin. Baita, ezezko esaldietan ere.

6.5.1.3. Erlazio atzizkien elipsiak eragin ditzakeen dislokazioak.

Aurreko biak bezain praktika usatua izango da euskararen alde eta aldi guztietan Campionek lehentxoago preskribitzen duena (779 or.):

Los nombres que se hallan en la misma relación gramatical permanecen en su forma indefinida, excepto el último de ellos al cual se le aglutina el sufijo que conviene a todos: ..., EMAKUME ON, EDER ETA GAZTEAREKIN; ... MILA GORAINTZI GURE ANAI ETA ARREBA GUZIEI (l).

Lehenago ere esan ditu Campionek gauza beretsuak, atzizki desberdinak aztertzen Gramatikan. Hala nola, euskarazko artikulua erakusten, atzizki ergatiboa, edota ordinalak:

Cuando vienen varias palabras calificadas por el artículo, solo la última de ellas lo recibe; ..., AUNDI, CHIKI,

ABERATS ETA POBREAK ETORRI ZIRAN. Excepntúanse, naturalmente, aquellos casos en que se quiere marcar bien la distinción entre unos y otros; ... (135 or.) / K.= Es el sufijo del agente de la oración. Todo agente de un verbo forzosamente lo lleva, y si son varios, el último de ellos, como sucede con el artículo. (193 or.) / Cuando varios ordinales se refieren a un mismo sustantivo, únicamente el último de ellos recibe la terminación ordinal: BOST, SEI ETA ZAZPIGARREN GIZUNA (s) ... (138 or.)

Eta praktika hau ondo usuzkoa izan bada, eta bada ere gaur egun, euskara klase guztietan, ezingo da inoiz ahaztu, halako preskripzio batek oso dislokazio handiak eragin ditzakeela, koordinatu edo juxtaposatutako elementuen iladak luzeak direnean, eta batez ere elementu hauetako bakoitza konplejua eta luzea denean, eta ez hitz bakarrekoa. Kasu hauetan halako praktika batek nabarmen ilun dezake esaldien ulergarritasuna, Duvoisinek ere gaztigatzen duen bezala (ik. aurrerago bere atalean). Ez dugu gainera uste, euskaraz tradiziorik gabea denik, halako atzizkiak (edo aditz laguntzaileak, edo …), elementu sail luzeetan, bi aldiz ere errepikatuak ematea, hasierako elementuan, eta atzenekoan, oso bereziki, esaldi zati koordinatu eta justajarri hauen buru nukleatzailea (aditza, izen burua, …), elementu iladaren aurretik emana denean, ohizkoa litzatekeen bezala (esaldiko elementu luzeak, ohituraz joango direnez esaldi amaiera aldera)

6.5.2. Euskal gramatikaren zurruntasun eta unidirekzionalitatearen mitoa.

Garbi asko egiten du Campionek planteamendua, lehenago Astarloak behintzat egina, Gramaticaren Introdukzio beretik, eta kasuan D'Abbadie, eta Humboldten hitzez lagundurik (47 or.):

«Una circunstancia notable del bascuence, es que esta lengua agota todas las modificaciones de una manera perfecta.» Mr. d'Abbadie recuerda estas palabras de Humboldt y añade, de su parte, las siguientes, que son muy exactas: «Esa lengua se parece a una sabia algebra; sus elementos son sencillos; sus combinaciones numerosas y sus resultados satisfactorios.» El rasgo distintivo de la lengua euskara es la unidad de procedimiento; parece creada por un genio amplio, pero metódico, que lleva hasta sus últimas consecuencias los principios generales propuestos. Así es que apenas hay excepciones, y cada clase de problemas se resuelve con una sola clave.

Garbi dago esana mitoa dela. Euskararen apologian asmatutako gehiegikeria, hizkuntza barrenean oinarritutako ezaugarri bat baino. Eta hori ondo daki Campionek ere, hainbeste kasutan jasotzen dituelarik euskararen malgutasun, anbibalentzia eta erabilkera desberdinak. Campionek hala ere, printzipio berbera segitzen du defendatzen, oraindik maxima modura, aipatu 1897 eta 1918ko artikuluetan («La Lengua Baska», 1918, 248 or.):

... Las reglas gramaticales son absolutas; rarísima vez sufren excepciones.

Mito, artifizial eta gezurrezko bezain, perilosa.

6.6. Campionen hitz ordenaren beste printzipio eta praktika aipagarri batzuk.

Beste ekarpen sendorik egiten ez badu ere, Campionek ematen ditu tarteka beste printza aipagarri batzuk, hitzen ordenaren arazoen inguruan, segidan jasotzera goazenak.

6.6.1. Astarloaren orden razionala.

Bere eklektikotasunekin segiaz, erakutsi ondoren, batetik, Inchausperen arau eta adibideak, hitzak esaldian libertate oso handiz kokatzeko, eta berriro gogoratu aurretik nola idazle eta hizlari onek, aditz nagusiaz amaitzen dituzten esaldiak, Campionek, Gramatika bukaerako *La construcción de las frases* atalean eraberean jasotzen ditu, aipatu, Astarloaren ordenamendu printzipioak, eta adibideak (beste inon aipatzen ez direnak gero berriro bere Gramatican, eta oso bereziki, ez adibidez, adberbioaren aditz aurreko guneari dagokiona) (782 or.):

El órden racional que Astarloa preconiza como derivado de la misma naturaleza de la lengua euskara es el que sigue: el antecedente y luego su consecuente lógico ó cronológico, GAU ETA EGUN «el dia y la noche», JO TA BOTA «sacudir y derribar», JANDA, JOANGO NAIZ «despues de comer, iré»; el adverbio y luego el verbo, ONDO

EGIN DAU «bien lo ha hecho», GICHI JAN DAU «poco ha comido»; las conjunciones en el centro de los extremos que enlazan; el agente delante de los recipientes y pacientes de su acción, ó en otros términos, delante de los régimen indirecto y directo. [Discursos filosóficos pags. 754 y sigss.]

6.6.2. Ordinalen gune habitualaz.

Aipagarria, *habitual* hitzak berehala dakarkigulako gogora, *salbuespenarena*. Hala dio (138 or.):

Los ordinales se colocan habitualmente antes del sustantivo, ...

Campionek ez du ordea inon aipatzen, ordinalen beste kokagune posiblerik.

6.6.3. Konparatiboen aurre edo posposizioaz.

Lardizabalen (eta hala Larramendiren) ondotik, jasotzen du Campionek segidako malgutasun printzipioa (bat gehiago zurruntasun unidirekzionalaren kaltetan) konparatiboen inguruan (140 or.):

...; EDERRAGO LOREAK BAÑO «mas hermoso que las flores»; OTZAGO ELURRA BAÑO, «mas frío que la nieve». El comparativo puede anteponerse ó posponerse indiferentemente en la construcción, y lo mismo da decir ZURIAGO ELURRA BAÑO que ELURRA BAÑO ZURIAGO. Según Lardizabal, esta segunda manera es mucho mas elegante. [Gramatica Vascongada, pag. 58.]

6.6.4. Edutezko genitiboen guneaz.

Izena eta adjetiboaren arteko ordenamendua garbi duelarik («*el segundo va siempre después del primero, el calificativo sigue al calificado*», 143 or.), erregela absolututzat erakusten du Campionek ere, edutezko genitiboaren ordenarena izenaren aurretik (199-200 orr.):

... En la frase, lo poseido va delante, el posesor detras; por ejemplo: AITARen DIRUA (g) ...; BARATZAZAYARen SEMEA (g) ...; MUNDUARen SALBATZALLEA (g) ... Esta regla es tan absoluta que no resulta grave inconveniente de suprimir el sufijo; la simple posición indica la relación gramatical; por ejemplo: AMA OITURA ZAN «era la costumbre de la madre».

Halako zurruntasuna erakutsita gero ordea, edutezko genitiboen ordenamenduan, Campionek modu ondo bitxian esplikatuko du, alderantzizko ordena ohizko bihurtu den *Aita Gurea* bezalako formula bat (kasuan Lardizabalen aitzakia bada ere) (165-6 orr.):

... En la posición correspondiente al vocativo de otras lenguas, se pospone el pronombre, recibiendo éste el artículo; por ejemplo ¡AITA GUREA! «¡padre nuestro!» [Lardizabal, Gramatica vascongada, pag. 63.]

6.6.5. -KO izenlagunen guneaz.

Campionek kasu honetan ere garbi du oso, bere erregela unibokoa (227 or.):

... La construcción de la frase en que figura KO es idéntica a la de la frase posesora: ITSASOKO GIZONA «hombre de mar» y no GIZONA ITSASOKO.

Campion beraren praktika ordea ez da izango horren estua eta unidirekzionala, bestalde, euskal tradizio guztian bezala, eta hainbat erraz aurki dakizkioke adibideak, *-ko* izenlaguna izenaren ondoretik ematen dutenak (hori bai, izen mugagabearen ondotik, ohi bezala, eta ez gaitzetsitako adibideko *gizona itsasoko* horren itxuran). Horrela adibidez segidakoetan:

(111) Denbora antxiñakoen (ondo-esanak) (2,123)

(112) (Euskal-erriaren onerako aztu gaitezen) egun igarotakoaz. (2,130)

(113) (... ikusten ditu, nola senarraren aurpegiyan agertzen diran) eriotza berealakoren (aztarnak.) (3,136)

(114) (..., Iruña-seme kapitan) aomen aundiko (batek, ...) (3,136)

6.6.6. Campionen esaldi erlatiboak izen mugagabearen ondotik.

Gramatikaren 767-8 orrialdeetan, Campionek Larramendiren esan gehientsuenak jasotzen ditu erlatibozko esaldien inguruan. Baita ere zeinismoaren aukera eskaintzen dutenak. Ez du ordea aipatuko Larramendiren debeku espresoa, erlatibozko esaldiak izen mugagabearen ondotik emateko («*...; y no escú dedana, ...*» hura). Ezta hala ere inon agerian erreibindikatuko aukera hori, nahiz bai egiten den, Campionek erabili zituen beste gramatika batzutan (Inchauspe eta Gèzerenetan bederen -eta Archurenean ere nolabait zeharka-). Segurasko da esanguratsua isiltze hori. Campionen prosan nolanahi, aurkitu ahal ditugu halako adibideak, nola behintzat segidakoak (aditz jokatu edo jokatu gabeez):

(115) Gizon eldu aritz itzalpean zegoen batek ... (2,125)

(116) ... agure urtetan txit aurreratutako batek, ... (2,128)

(117) ...; bi malko agitz lodi begietatik zerizkanak, ... (3,140)

(118) (... maitatzen dituzte) beren erdara naspillatu, koropillatu ta moldekaitz, lau aizietatik ekarriak. (6,69)

Antzeko esaldia konsidera liteke segidakoa ere, nahiz kasuan aditza eliptikoa-edo izan:

(119) ... Miguel de Horma, Iruña-seme kapitan aomen aundiko batek, ... (3,136)

6.6.7. Izen arrunta fi izen propioa segidaz.

Bukatzeko, jaso bakarrik Campionek modu honetara erakusten dituen adibide batzuk, nahiz denak beharbada markatu samarrak izan:

(120) Dama Maria de Lazkano, (leioaren ondoan zegoen.) (2,133)

(121) Ene Andre Birjiña Maria! (2,134)

(122) (Uste det, esan zuen) Dama Mariak, ... (2,135)

6.7. Campionen eragin zalantzagarrien gainean.

Direnak direla ere Campionek esaten dituenak, ez dakigu zenbaterainoko zabalkunde eta eragina izan zuten hauek beren garaian, edo geroago ere. Agian, espero zitekeena baino gutxiago ere bai. Halako susmoa zuen Mitxelenak zioenean, «Campionen “Gramatica” eta beste artikuluan» (*Euskera*, XXX, 1980, 65 or.):

Badakit oraindik orain don Manuel Lekuonak goraipatu duela liburu hori [Campionen Gramatica], ikas - eta irakasbide izan zuen aldetik, baina ez naiz gauza igertzeko norainoko eragin eta ondorioa izan zuen. Askok irakurri dugu -ikuskatu behintzat, bai-, lehenago edo beranduago, baita erosi ere, egokierak eskura badigu. Ez dirudi, orratik, maizegi erabili dugunik, aipatzea baita erabili izanaren seinalerik nabarmenena, eta aski urriak dira Gramatika-z aurki daitezkeen izena baino urrunagoko aipamenak. Horrela iruditzen zait behintzat niri.

Nolanahi, eraginen artean kontatu beharko da, Azkueren gainekoa, eta ez da txikia izango haren bidez lortutakoa.

[1] Ik. bere atalean hurrena, Iparraldeko tradizioari buruzko kapituluan.

[2] Duda dugu, nahiz oraintxe jakin ez ziur, nondik sortua, leienda hau ez ote zuen Campionek, bakarrik erderaz idatzi -*Los Consejos de los tiempos pasados*-, eta euskarazko itzulpena berriz, egin, Claudio Otaeguik. Errezeloa daukagu ikusi ote dugun datu hori nonbait.

[3] Cf. A. Scaglione, *The Classical Theory of Composition* (Univ. of North Carolina Press, 1972), 139-140 orr.: «Chapter XXX of Erasmus' De Copia analyzes under compositio asyndeton, polysindeton, epanalepsis, and syzeugmenon. This last is the coupling of several sentences under one verb, and it can be effected by a threefold ordering: the predicate can come first, last, or in the middle.» Ez da dudarik euskaraz aditz hori non erortzen den Cardaverazen eta honen ondorengoen praktikan.

[6]

[7][8]7. Cardaverazen 1783ko Dotrina bizkaieraz, eta J.A. Moguelen testigantza (1745-1804), beti anti-cardaveraztiarra.

Ikusi dugu gorago, nola eta zein sentidutan zuzentzen, edo aldatzen, zuen, G. Arruek 1863ko *Escu-Liburua*-n, Cardaverazen *Illaren Egunoroco Meditacio Laburrac*-en testua (Egercicioen Laugarren Partekoa), hitzen ordenari zegokionean, nahikoa sistematikoki aurreratzen, artean, esaldietako aditz gunea. Ez da antzeko kasu bakarra izango. Beste bi ere ezagutzen ditugu bederen. Lehenengoa, 1783an argitaratzen den *Cristinaubaren Jaquinvidia*-rena, J.A. Moguelek Cardaverazen 1762ko bizkaierazko *Dotrina Cristiana*-ri eginiko bigarren argitalpen moldatu/zuzendua. Bestea, J. Duvoisinek 1856ean kaleratzen duen *Liburu Ederra*, moldatuaz, Cardaverazen *San Ignacioren Egercicioen IIen Partea*, eta hurrengo atalean aztertuko duguna.

7.1. Hitz ordenamendu aldaketa oso nabarmenak, J.A. Moguelek prestatu bide zuen, 1783ko Cristinaubaren Jaquinvidian.

Cardaverazen bizkaierazko Dotrinaren bigarren argitalpen hau, gehiago da, berrargitalpen hutsa baino, lehenengoaren zuzenketa (edo moldaketa), gogoz egindakoa. Badirudi (X. Altzibar-rek argudiatzen du hala, «Kardaberazen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa» artikuluan -Memoriæ L. Mitxelena, 1991, 276 or.-) J.A. Moguel izan zela argitalpen berriaren prestatzailea.[1] Eta azpitituluetan bertan ezin argiago dioenaren arbera (*Orain urteten dau eusquera apaindubaguan*), ez da duda handirik, bertan eragingo diren aldaketen, bederen, asmoaz. Aldaketak, Altzibarrek jaso bezala, ez dira bakarrik lexikalak. Badira grafiazkoak, morfosintaktikoak, eta hitzen ordenari dagozkionak ere, guri gehien interesatzen zaiguna orain. Hauek ere, pentsatzekoa da, eraginak, besteak bezala, Moguelen eusquera *apaindubago* baten asmoan.

Altzibarrek ohartu bezala, hitzen ordenamenduan eragindako aldaketa gehienek izango dute amankomuneko ardatz bezala, aditzaren gunea aurreratzea esaldian, Cardaverazek oro har atzeratua ematen duena, ohizko neurri guztiez gainetik, era bitxian, Moguelentzat ere agidanean. Dotrinak berez erabiltzen duen hizkera ereduarengatik (oso esaldi nagusi deklaratibo gutxi, ...), aipatu aditz aurreratzeak sistematikoen gertatzen dira bi ataletan: galderak, eta mendeko esaldiak. Agudo jabe liteke horretaz gainbegiratu bat eginez, lan honen ERASKIN Iean erakusten ditugun bi Dotrinen arteko esaldi pare alderagarriei.

7.1.1. Aditz aurreratzeak galderetan.

Cardaverazek joera handia erakusten du, 1762ko Dotrinan ere, galdera esaldi osoen amaieran emateko, galderetako aditzak eta hauen aurreko galdegileak. Moguelek bere aldetik ia beti aurreratuko ditu hauek esaldi hasierara, euskaraz beti ohizkoagoa den modu batean. Gure ERASKIN Ietik segidako pareak erakusgarri (lehenengoa beti Cardaverazena):

(1) Cristiñaven icen ori nondi iatorzu? (13)

Nundi jatorzu Cristinaubaren icen ori? (8)

(2) Cristiñovac cer esan gura dau? (13)

Cer esan gura dau Cristinaubac? (9)

(3) Cristiñauen señalea ceñ da? (13)

Cein da Cristinaubaren señalia? (9)

(4) Señale ori noz eguin behar dozu? (16)

Nos eguin biardogu Curutce ory? (11)

7.1.1.1. Galdera hautsiak desegiten ere bai.

Moguelek zenbaitetan mantenduko dituen arren Cardaverazen galdera hautsiak, besteetan desegingo ditu aditza galdegilearen ondoreraino aurreratuaz, euskaraz beti ohizkoago bezala. Hala adibidez segidakoetan:

(5) Ceimbat guisatara Cristinavac señale orrez usaetandau? (14)

Cembat modutan eguiten-dau Cristinaubac señale ori? (9)

(6) Baia cegaiti asieran lenengo esan dozu: ...(34)

Cegaiti esan dozu asieran: ... (24)

(7) Noc Jai egunac gordeetan ditu? (40)

Noc gordetan ditu Jaijac? (29)

7.1.1.2. Aurreratzen galdera orokorretako aditzak ere.

Moguelek aurreratuko ditu zenbaitetan galdera orokorretako aditzak ere, Cardaverazek artifizial samar atzeratuak edo. Hala behintzat segidakootan:

(8) Jesu Christo jaioten icusi cenduan? (20)

Icusi cenduban jayotcen Jesu-Christo? (13)

(9) Ilten, edo Ceruetara igoten icusi cenduan? (20)

Icusi cenduban ilten, edo Cerura igoten? (13-4)

(10) Espiritu Santua Guizon eguinzan? (24)

Espiritu Santuba eguinzan Guizon? (17)

7.1.1.3. Aurreratzen BA- aurrizkidun aditz trinkoak ere.

Bai bederen, guk zehatz aztertutako zatiko bi kasuotan:

(11) Jangoicoac, guc leguez, gorputzen irudin, edo figurea badau? (24)

Jangoycuac badau gorputz irudiric guc leguez? (16)

(12) Beraz zuc bere Angueru gordeetan zaituana baucazu? (37)

Beraz zuc bere bozu Aingueru jaolia? (27)

7.1.2. Aditz aurreratzeak mendeko esaldietan.

Aurreratze hauek ere sistematikoak gertatzen dira Moguelen Jaquinvidian, zenbaitetan mendeko esaldiaren hasieraraino eramanez, Cardaverazek ohituraz esaldi amaieran kokatutako aditzak: jokatuak, nola jokagabeak; baiezko, nola ezezko esaldietan. Adibide ugari ikus liteke ERASKINEAN, nondik segidakoak erakusgarri:

(13) (Lenengoa da) Jangoicoa gauza gucien ganean amaetea. (8)

(Lenengua) Jangoycua maite izatia gauza guztien ganian. (5)

(14) (Seigarrena, sinistu,) Ceruetara igo ebala, ... (12)

(Seigarrena, sinistu,) igo ebala Cerubetara, ... (8)

(15) Credoa, edo fedeco Articuloac jaquiñaz. (18)

Jaquinaz Credua, edo Articulu Fedecuac. (12)

(16) Aen gorputz, ta arima gloriatsua batuten, edo berriro juntetan cireala, ... (27)

Barriro batuten ciriala bere gorputz, ta Arima glorijaz betia ... (19)

7.1.2.1. Aurreratzen juntagailu bidez osatutako mendeko esaldietako aditzak.

Hala gertatzen da oso sarri, *cerren* partikularen bidez hasitako mendeko esaldietan, ceinetan ere, Cardaverazek esaldi bukaerara bidali duen usuenik aditza, eta Moguelek aldiz aurreratu, juntagailu ondoreraino (inoiz juntagailua

aldatu ere, -*laco* atzizkiaz). Aurreratzeak ugari ikus litezke ERASKINEAN, nondik:

(17) Cerren Cristo crucificaduaren irudia dan, ... (14)

Cerren dan Cristo curutzian josijaren irudija, ... (9)

(18) Cerren gauza guztiac ecebere eceti eguin cituan. (23)

Cerren atera cituban ez[..]erecetic gauza guztiac. (16)

(19) Cerren justiciaz zor eztirean. (46)

Cerren eztirean zor justicijaz. (34) (Nahiz adibide honetan hartu litekeen ere kontutan, Moguelek eragindako ezezko aditzaren inbertsioa, beharbada ohizkoagoa.)

Fenomeno bera ematen da beste juntagailu (urriago) batzuen kasuan ere, nola adibidez segidako erlatibozko esaldi parean:

(20) (IRUGARREN PARTEA,) cenetan eguin behar dana azaltcendan. (38)

(IRUGARREN PARTIA,) ceñetan adirazoten dan cer eguin biar dan. (27)

7.1.3. Aditzak aurreratzen baiezko esaldi deklaratibo batzutan ere.

Aztertu zatian ez ditugu bi adibide eskas baino aurkitu (har bedi nolanahi kontutan, esaldi deklaratiboen urritasuna Dotrina bietan):

(21) Lenengo zazpirac Jangoicotasunari dagocaz: ... (10)

Lenengo zazpirac dagocaz Jangoicotasunari: ... (6)

(22) ...: zuentzat asco dà Articuluen contu, Credoan dagozan leguez, emaitea. (29)

..., asco da zuretzat, Articulubac Creduan dagozan leguez sinistu, ta jaquitia. (20)

Eta bigarren esaldi parean bi autoreek ematen badute galdegaia aditzen ondoretik, lehenengoan ez da dudarik testuinguruan, Cardaverazek esaldiko prediku nagusia, aditzaren aurretik ematen duen bezala, Moguelek zuzendu egiten duela ordena, prediku nagusia aditzaren ondoretik emateko. Moguelengan, noski, ez da batere harritzekoa.

7.1.4. Aditza aurreratzen, eta atzeratzen, aginterazko esaldiren batean.

Nahiz guk adibide bakar eskasa aurkitu dugun aztertu zatian:

(23) Baia orañ esan eguidazu: (Cembat gauza jaquitera obligaduric dago ...?) (18)

Essan eguidazu orain. (Ceimbat gauza jaquin biarditu ...?) (12)

Ordea badugu alderantzizko adibide bat ere, Moguelek ezin gehiago atzeratuko duena aginterazko aditza:

(24) Egun iguzu gure eguneango ogia. (33)

Egunian eguniango guure [sic] oguija egun iguzu. (23)

7.1.5. Sintagma buru zenbaiten aurreratzeak.

Hala kalifika litezke beharbada, Moguelek nahikoa sistematikoki izen ondorenera aldatzen dituen -*ko* izenlagunak, Cardaverazen *fedeco articuluac* bezalako formula batean (10, 18, 21 orr.), Moguelek gehienean ematen

duena, *articulu fedecuac* (6, 12, 14 orr. behintzat). Eta halamoduz kalifika liteke ere segidako aldaketa, non Moguelek sintagma hasierara eramaten duen, Cardaverazek, guztiz modu zilegi batean ere, esaldi bukaera aldera ematen duen sintagma burua:

(25) Edadean, diñadadean, ta gobernuan nagusiago direanac. (41)

Nagussijaguac edadian, honràn, ta aguintaritzan. (30)

7.2. J.A. Moguelen ohizko, tradiziozko, joskera.

Baina ez da bakarrik gaztetako ezaugarria izango, Moguelen 1783ko Jaquinvidko joera, aditza esaldi aurrealdean emateko. Bada joskera beretsua aurkituko dugu, dei dezagun anti-cardaveraztiarra, 20 urte beranduago argitaratzen dituen lanetan, nola argitaragabeetan, eta gero joango direnak piskanaka argia ikusten. Hala behintzat, nabarmen, guk gehien gehien erabili ditugun segidako testuetan (1783ko Dotrinaz gain): *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac ...* (Iruñea, 1800) -CC adibideetarako-; *Versiones Bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores Autores latinos*. (Tolosa, 1802) -VB-; *Confesiño ona* (1803; nahiz guk erabili dugun, Bilbo, 1853ko 2.a -CO-; *Peru Abarca* (Durango, 1881; guk erabili dugu: 1981eko faksimila) -PA-; *Paskal-en gogamenak* (*Euskalzale*, 1899, III); *Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiania* (Bilbo, 1987); hala nola, S. Aranak 1894ean argitaraturiko Moguelen 1792ko sermoi zatia: «Análisis filológico de un sermón euskérico» (Obras Completas, T. I, Sendoa, 1984, 211-29 orr.); X. Altzibarrek argitaraturiko hiru platikak, «J.A. Moguelen hasierako idazkera: hiru platika eta 1783ko dotrina» (ASJU, 1991, XXV-2, 623-649 orr.); eta A. Arejitak argitaratu «Juan Antonio Mogelen sermoiak» (*Memoriæ L. Mitxelena*, 1991, 277-300); azken biak, erabili ez ditugunak, azken orduan baino.

7.2.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik.

Aditza esaldiaren aurrealdean emateko joera, eta galdegaia usu asko aditzaren ondoretik (ia beti ere bai, esaldiak batere luzeak diren orduko), ezin argiagoa da Moguelen zeinnahi euskal testutan, eta ikus litekeen bezala gure ADIBIDETEGIAN (CC, eta PA obretakoak), nondik segidakoak erakusgarri:

(26) ...; becatu andiac iduquico dituzte chiquitzat; ... (CC,V)

(27) Confesio onac dacar berez comunio ona, ... (CC,VII)

(28) Au ezagutu zuten bai Napar ta Guiputzac, ... (CC,VIII)

(29) A vici dau bere zoruac, (ta zu zeuriac: ...) (PA,47)

(30) ..., ta obeto icentauco cenduque garbitzalle, verbiaz. (PA,47)

(31) ..., ni nas Arotza, Arguiña, Itzaña, Achurlarija, ... (PA,48)

Eta Moguelek joera hau gordeko du, are nolabaiteko eztabaida gramatikaletan ari denean ere euskarari buruz, eta gazteleraren kontraposizioan. Zentzu honetan esanguratsua izan liteke, Peru Abarcaren sarreran emandako segidako esaldi parea (PA, 32 or.):

... El castellano hara así esta oracion. Neron mientras estaba bajo la disciplina de Séneca, era un cordero; ... El bascongado hablara en esta forma ... Neron zan bildots bat Senecaren mendian eguan artian; ...[2]

7.2.2. Moguelen aditzak usu esaldi hasieran.

Egia da, galdegaia aditz ondoretik emanda ere, Moguelek gehienetan ematen duela aditz hau, euskara guztietan ohi bezala, «Xà» moduko egitura batean erantsita, bere aurreko elementu toniko labur, azken esaldi guztietan bezala. Beste askotan ordea, egitura komunikatiboak bideraturik, Moguelek ez du batere enbarazurik, aditza nahikoa maiz ere emateko, zuzenean esaldi hasieran bertan, galdegaia nabarmen izaki ere ondoreneko elementuetakoren bat. Hala egingo du adibidez, natural asko, bere bizitzan argitaratzen dituen hiru liburuen sarrera beretik: *Cristinaubaren Jaquinvidia, ... Ifinieban Bizcaico Eusqueran, Aita Agustin Cardaberaz, Jesuitiac*. (1783); *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac ... Ateratzen du arguira Guiputz itzqueran, cristau euscaldunen oneraco Don Juan Antonio Moguel ta Urquizac ...* (1800); *Confesiño ona, ... Ateraten dau arguira Bizcaico eusqueran D. Juan Antonio Moguel ta Urquiza* (1803). Halamoduz ere,

nola ematen duen Peru Abarcaren sarreran, berriro euskara eta gaztelera alderatzen ari delarik, segidako esaldi parea (PA, 33 or.): *Neuretu dot echia. Yo he hecho mia la casa*. Bere euskarazko testuetan berriz, ezin kontatu haina izango dira adibideak. Ik. gure ADIBIDETEGIAN ere, nondik segidakoak erakusgarri:

(32) ..., ta ebillico dira illum-bean larrapastaca, ... (CC,V)

(33) Apurtzen detuzte beren buruac Sermoi bat euscaratu ecinic. (CC,VII)

(34) Eracurrico lituzquee echeetan. (CC,VIII)

(35) ..., ta deitu nabee gaiso bategana. (PA,44)

(36) ..., ta jaten dau edocein gauza baserrijetan. (PA,45)

(37) ...; atera biar da odola gach ascotan, ... (PA,49)

7.2.2.1. Aditz trinkoak ere ondo usu esaldi hasieran buruzuri.

Ez baina, bakarrik, aditz perifrastikoak, baita ere usu, aditz trinkoak, zuzenean esaldi hasieran, egitura komunikatiboak eskatu bezala, eta kasuan erabat hautsiaz, euskararen «Xà» fenomenorako joerak. Adibideak nahiko ugari ikus litezke gure ADIBIDETEGIAN ere, nondik segidakoak:

(38) Daucate beste contu bat errenta, ta irabacienac, ... (CC,26)

(39) Dator gava: (artzen dio contu animari, ...) (CC,26)

(40) Daude belaunico, (golpetzen dituzte bularrac, ...) (CC,29)

(41) Nas bada Barberuba, Sangradoria ta Cirujauba. (PA,48 -Maisu Juanek-)

(42) Daucaz buruba, bularra, ta sabel beecua: ... (PA,85 -Peruk-)

(43) Jatort nescatilla zucubaz, arta garaubaz, ta castañacaz. (PA,89 -Peruk-)

7.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Aditzaren aurre gunea, aukera bakarra ere izango da (ia) Moguelengan, galdera, agindu, edo ezezko esaldietan, euskaraz ohi bezala. Baita ere ordea, mendekoetan. Eta hauek ere, oro har, joera erakutsiko badute, aditza «Xà» moduko egituretan integratua erakusteko, oso maiz erakutsiko dituzte hala ere argumentuak, aditza, eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen ondoretik; hainbat eta maizago ere bai, zenbat eta luzeagoak izan esaldiak, nahiz baita ere labur askoetan; eta zenbaitetan, baita ere, elementu mendekotzaileak hitz independienteren batez osatuta egongo badira ere. Hala adibidez segidako esaldi aukeratuetan gure ADIBIDETEGIKO ezin ugariagoen artetik:

(44) Artu nuen orduco asmo ta gogoa arguitaratzeco orain ecusten dezun Libro eusquerazco au, ... (CC,III)

(45) Aurcho chiqui indar gabeai ematen badiezu ogui oso ta azaltsua, ... (CC,IV)

(46) ..., baña iduquiric Sacerdote edo Eliz-guizon eracaslac libru asco ... (CC,VI)

(47) (..., ta eranzungo dot nic bere aldodana) igarrico ez deuscuben moduban noc bedeincatuten daben maija. (PA,57)

(48) Jan daigunian erdiraño, ... (PA,60)

(49) (Eranzuten dogu,) dala arte bat iracasten dabena disequetan corputzaren partiac, ... (PA,82)

(50) Orra lauoñeco bati emoten jacon paguba urte betian erregaluban euquita. (PA,88)

7.2.3.1. Esaldi erlatiboak beren izen erregimen mugagabearen ondotik.

Mendeko esaldien ezaugarrien artean jaso behar da, Moguelek egiten duen erabilera, erlatibozko egitura honena. Egia da, beste autore askok legez (are gehienak) euskal tradizioan, baina Moguelek segurasko maiztasun handiagoz ere bai. Hala behintzat guk sakonago aztertu obra bietan, ADIBIDETEGIAN jaso bezala, nondik adibideak:

(51) (Beguitantzen zaie) necazari eusquera baño ezdaquitenac, aditu behar dituzteela erdera eusqueratuac. (CC,XII)

(52) (Cer eguingo du bada) becatari joanecin danac Erromara, ...? (CC,5)

(53) Anima Jangoicoac jo dituenac, ... (CC,5)

(54) ... chapel esquerga berroguei urte euquico ditubana. (PA,45)

(55) (Badira) baserritar bizar eguiten jarduten dabeenac ... (PA,48)

(56) ... Osaguille nausi, Medicuben icena emoten jaqueenac ... (PA,50)

Antzeko egitura erakusten du, nahiz bitxiagoa, Moguelen segidako esaldi dislokatuak ere:

(57) (Orregatic ere, esaten zuen, ez beldurtu munduco vicitza galdu dezaquenac gatic. Beldur izan zaitezte bai) anima ta gorputza Infernura bota dezaqueanaren. (CC,35-6.)

7.2.3.1.1. Erlatibozko esaldi jokatugabeak, izen erregimen mugagabearen ondotik.

Euskal tradizio guztian bezala, Moguelengan ere, oso maiz aurkitzen dira goikoen antzeko erlatibozko esaldi, osoak, konplementudunak, izen mugagabearen ondotik emanak, aditz jokatugabez, nola segidakoak:

(58) (... Gurasoac cequiten) itzquera garbi Adanengandic artuan, ... (CC,XIII)

(59) ... Confesioco tribunale Jesu-Christoc ipinian. (CC,11)

(60) Eguia da ecin egongo dala eguiazco proposito edo becaturic ez eguiteco gogo Jangoicoagandic jaioric, becatu lengoen damu, ... gabe; ... (CC,31)

(61) ... soñoco penitenciacoequin egon ditequean viotz becatuan sartua, ... (CC,32)

7.3. Bi joskera ezaugarri cardaveraztiar Moguelengan ere?

7.3.1. Ezezko esaldi inbertsiorik gabeak.

Larramendik neurriz kanpora aldarrikatutako egitura hau, ez da inoiz izango Moguelen ohizkoa ezezko esaldietan, baina erabiliko du, segurasko Cardaverazen aurreko tradizioan usuzkoa izana baino puntu batzuk sarriago. Hala nola segidako kasuetan:

(62) Pilloan, edo albastoan eracatsiaz ecer eguiten ez da; ... (CC,V)

(63) Zuc esan biar etzenduban ondo acija bacengoz, esan deustazuna aurquez aurque, ... (PA,49)

(64) ...; agaiti aldatuco ezta niganaño neure icen ondocotzat eche onen icena; ... (PA,91)

(65) ... gauza garbiric eguingo ez dozu. (PA,199)

Inoiz atzeratzen du Moguelek ezezko aditz trinkoa, esaldi konpletiboren batean ere behintzat, egitura, egia esan, ez horren bitxian:

(66) Au ez da esatea, Mendibururen eusquera, ederra ez dala; (da eguiaz ...) (CC,XIII)

7.3.2. Galdera hautsiak.

Bere beste testuetan ez bezala, *Confesio ta Comunioco Eracasteetaco* liburu giputzean, hainbateko maiztasunez aurki litezke galdera egitura hautsiak, elementu tartekatuak dituztenak galdegilea eta aditzaren artean, gure ADIBIDETEGIAN ere ikus litekeen moduan. Halako bakar bat ere behintzat aurkitu dugu *Peru Abarcan*. Segidan, hau, eta

besteren bat, erakusgarri:

(67) Norc aserre gabe enzunlezaque eusquera ederqui jaquin bear duten Eliz guizonac esatea Pulpitotic itz zatar oec ...! (CC,XIII)

(68) Cergatic Contricio, edo amorio damua da oso edo perfectoa, ...? (CC,34)

(69) Nos prest egongo da? (PA,132)

7.4. Beste joskera puntu aipagarri batzuk Moguelengan.

7.4.1. -KO izenlagunak izenaren ondotik.

Moguelek ez du inolako eragozpenik erakusten, oso sarri ere emateko, *-ko* izenlagunak beren izen erregimenaren ondotik, justu esaldi erlatiboekin egin bezalaxe, nahiz maiztasuna beti egongo den, uste dugu, alderantzizko egituran. Bihoaz adibide batzuk:

(70) ..., becatu lengoen damu, ... gabe; ... (CC,31)

(71) ... soñoco penitenciacoequin ... (CC,32)

(72) ... Barberu modaco, Dotore char, apaindu, ta barrichu... (PA,46)

(73) Serbilleta oraingüen ordian eztaucazu imini baño aus zapi, edo ... (PA,55)

7.4.2. Ordea, baizik, berriz, lokailuak, lotzen duten sintagmaren aurretik.

Ezin esan badugu ere zehatz, zenbateraino usu erabiltzen dituen Moguelek juntagailu hauek, lotzen duten esaldi zati haren aurretik (eta ez bakarrik atzetik, edo bigarren elementu bezala «Xà» moduko egitura batean), argi dago Moguelek ez diola behintzat inolako eragozpenik aurkitzen erabilera modu horri (ezta ere, *baizik* partikula erabiltzen badu, salbuespena-edo adierazteko, 76 esaldian bezala). Bitez nahikoa, fenomenoaz jabetzeko, ezarian bildu ditugun segidako adibideak:

(74) Ala dirudi, ordea ez da alperra nere nequea. (CC,VII)

(75) Ordea, gaizqui eguintzat ematea, egemplocho bat edo beste, ... (CC,X)

(76) (Ez inolaere; animaco penitencia gabe, ezdu Penitencia aguirico edo Confesioac ecer valioco,) baicican guere animen calteraco. (CC,3)

(77) (Cereguin astun edo ardura ematen dutenac, ez dira beingoan ta itomendian eguiten,) baicican astiro ta contuz. (CC,12)

(78) (Ecingo dute gaissoac ebaqui ez gañibetarequin, ez escuarequin, ez ortzequin, oguia gogorra dagoalaco, ta berac indarric ez dutelaco.) Berriz ceatzen, puscatzen, ta apurtzen badiezu, equingo die, aseco dute gosea, ... (CC,IV)

(79) (Amak emoten ditu illeta andijak, ikusten da diadar ta arrantzaz.) Barriz Aitak ez dau alango sentimenturik agertuten. (Adibidea biltzen da *Orotariko Euskal Hiztegian* -V, 31 or., Mg CO 65 signaturarekin-, baina guk ezin izan dugu lokalizatu, eskueran darabilgun 2. argitalpenean).

7.4.3. Izen arrunta fi izen propioa segida.

Ezer asko jardun ez badugu ere puntu hau aztertzen, soilik gogora ekarri, bi adibide. Bata, Cardaverazenean bezala, *Librugille* izen arruntarena, dagokion izen propioaren aurretik. Hala adibidez *Confesio ta comunico Eracasteen ...* sarrerako azalean: «*Bear bezela. / [Iru]ñeco Libruguille Ezquerrorem [sic] Alargu- / naren Echean: 1800. Urtean.*» Bestea, noski, *Maisu Juanen* izena bera.

7.4.4. Izena fi ordinala segida.

Aurrekoarekin lotuta, ohartxo bat besterik ez, jabetzeko, nola ematen dien Moguelek izenburua bere kapituluei,

Confesio eta Comunioco Eracasteetan beti, *ERACASTE I, ERACASTE II, ...*, eta ez alderantziz. Eta gero honen bigarren partean, *DOCTRINA I, DOCTRINA II, ...* Ohartzekoa bada ere, bosgarren atalari ematen dion izenburu osoa dela: *ERACASTE V. Confesioraco bear dan Damuaren gañean bigarren doctrina*. Eta *Arquividean* ere dio: *bigarren Eracastea*, eta ez alderantziz. *Confesiño onean* berriz (1853ko 2. arg.), lehen hamazazpi iracasteen izenburuak ematen dira *IRACASTE I, IRACASTE II, ...* ordenan; aldiz, bukaerako Comuninoiaren gañeco 5 iracasteac berriz (*IDORO-BIDEAN*, 298 or.), *I. IRACASTIA, II IRACASTIA, ...* Bitez bada behintzat agerian bi aukerak.

7.4.5. Edutezko genitiboa izenaren ondotik.

Bai behintzat ematen ditu hala Moguelek, bina aldiz ere segidako bi bikoteak, *Peru Abarcan*:

(80) Ona emen Marija guria gure zain maija iminita. (118)

(81) Marija guria gorubetan, biar ez dan ordubetan. (122)

(82) ¡Ai Peru neuria! (Galduba nas.) (190)

(83) ¡Ai Peru neuria! (Ill jat jaateco gogo guztija; ...) (191)

7.5. Añibarroren testigantza. Eta Moguelen herrikoitiartasuna.

Esanak esanagatik, Añibarrok ezin testigantza argiagoa utzi zigun, Moguelek berari egin aitorpen batena, bere prosaren falta bezala joaz, aditza ez eraman izana esaldi bukaerara. Hala kontatzen du Añibarro bere *Gramatica Bascongadari* eginiko adbertimenduen artean, eskeroneko panegirikoa eskaintzen dion bitartean Mogueli (*ASJU*, 1969, 14 or.):

... También tengo traducido al dialecto Bizcayno el famoso libro de Gueroco guero de Axular, Ciceron bascongado, y de quien hace particular elogio el P. Larramendi. Con este Arte, Diccionario y Axular tenía uno quanto necesita para hacerse un excelente bascongado. De paso advierto que assi Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y sera bien que se haga assi, pues sale mas natural. No tuve este methodo presente en dos libritos que dí a luz Esculibrua, y Loratequi espirituala. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, Catequista bascongado, cuia muerte ha sido mui sensible para todo el Pays bascongado, quien tuvo en vida el consuelo de ver impresa parte de su Catecismo bascongado, y lo restante con las aprobaciones necesarias; y en muerte el de morir como buen soldado de Jesús, ejerciendo el ministerio de Cura Parroco contagiado de resultas de asistir a unos apestados. Con tan feliz muerte premió Dios su virtud, pues fué uno de los sacerdotes mas celosos, laboriosos, caritativos, y ajustados de Bizcaya: cuia memoria hago aqui, por la que por dos veces él hizo de mi en su último impreso de Confesino ona.

Gizalegez, sinistu beharra baldin badaukagu ere, Añibarrok utzitako testigantza, ez dakigu, ze balio eman dakiokeen aitortza honi, ezagututa Moguelen tradiziozko obra, eta batez ere, bere bizitzako azken urteetan argitaratzen dena (CC 1800; VB 1802; CO 1803). Artean gazte, 1804an hila, noiz aitortzen dio Moguelek Añibarrori bere falta? Eta ze fundamenturekin? Ez dakigu.

7.5.1. Moguelen dudarik gabeko Cardaveraz zaletasuna.

X. Altzibarrek aitortzen du («J.A. Moguelen hasierako idazkera: ...», *ASJU*, 1991, XXV-2, 623 or.), Moguelek Mendiburu eta Kardaberazen liburuetan ikasi bide zuela idazten. Egia esan, garaian, ez da harritzekoa. Eta nahiz eta 1783ko *Jaquinvidian*, Cardaveraz bera zuzendu, Moguelek behin eta berriro aitortuko du bere idatzi desberdinetan, Cardaverazekiko duen zorra eta zaletasuna. Hala nola adibidez bere *Confesio ta Comunioco Eracasteen Itz-aurrecoan*, non deklaratzen den jada, nolabait, Cardaverazen jarraitzaile (1800, XIII-XIV orr.):

... Cardaverasen libruac aditzen errazagoac dira Euscal-errietan Mendibururenac baño. Onec itz asco ditu Napar eusqueratic, ... Au ez da esatea, Mendibururen eusquera, ederra ez dala; da eguiaz ta itzac garbiago ta eusqueratsuagoac Cardaverasen libruetacoac baño; ala ere onénac lecu zabalagoan aditzen dira esan dedan arrazoia gatic [i.e. bada Giputzac erdian daude, Nafarroa eta Bizkaia artean]. Nic ere oni jarraitu diot aleguinez arrazoi beragatic.

Moguelen beste lanetan ere ez dira faltako Cardaverazen goraipamenak -Larramendi ete Mendibururenekin batera-: *Confesiño Ona*-ren *Berba-Aurrecuan* (1803; 2. arg. 1853, V or. -*Misionari virtute andico, ta eusquera zale* kalifikatzen duenean-; nola *Peru Abarcaren* sarreran (11 or., 19 or. -*famoso é imparcial*-, 40 or. -*diestro bascongado*-); edota Vargas Ponceri egin gutunen artean ere (*Cartas y Disertaciones sobre la lengua vascongada* (CD), Bilbao 1870, 106 or. behintzat).

7.5.2. Moguelen zalantza gabeko kontzientzia antierderista.

Moguel behin baino gehiagotan ageriko da kezkatua, aztertzen, euskara eta inguruko erdaren arteko, antz eta desberdintasunak. Moguelek erraz aitortzen du beti, euskararen desberdintasuna, baita *egitura* eta *sintaxian*, segidako hitzetan aitortzen dion bezala Vargas Ponceri latina eta euskara alderatuz (beste kontu batzuen inguruan) (CD, 123 or.):

Ello es indudable que entre el idioma latino y vascuence hay muchos vocablos sueltos (es muy diferente la extructura y sintaxis) en que conforman.

Eta hemen latinaz ekin badio ere, Moguelek antzeko gauzak esango ditu beste lekuetan gaztelaniaren inguruan. Eta orduan, Moguel. buru belarri aurkituko dugu inplikatua, euskararen jada hil ala biziko borrokan, aldameneko gaztelera orojalearen aurka. Hala, Peru Abarcaren sarreran suminduta ekiten dionean, Hiztegi Hirukoitzaren Prologoko Larramendi parafraseatuz, eta honek bezala, errietan, sermoilari ganorabakoei (PA, 21 or.):

24 Pierden el tiempo y el seso aquellos sugetos principiantes, que poniendo delante un libro castellano se empeñan en verter ó traducir discursos enteros al bascuence. la diferencia de los idiotismos, y otras variedades causan tal obstaculo, que al fin salen con unas versiones languidas, confusas, corruptas y muy disonantes al oido de un buen bascongado; es decir, del vulgo artesano ó rústico. Otros se empeñan en estudiar de memoria literalmente un sermón castellano, y luego con un corto trabajo suben ó se presentan en el teatro sagrado a verter y producir su sermon en bascuence. Es gran temeridad, dice el P. Larramendi, y sobre todo para los que no poseen nuestro idioma en su perfeccion. No pueden hacer otra cosa, que publicar mil barbarismos, solecismos y castellanismos. Otra cosa sería, si un practico y ejercitado bascongado, bebiese el espíritu de un sermon castellano ó francés, y sacando unos apuntes, olvidandose, digamoslo así, del idioma castellano, predicase libremente en bascuence. Esto lo hacen varios con acierto y gallardía.

Eta badirudi, Moguelek serio hartzen zuela gazteleraren inbasioaren aurkako borroka. Adibiderako, *Peru Abarcan*, bi solaskide eliztiarren arteko proposamenak (PA, 196 or.):

... Orain garbituco bada solo au, ta artu garau garbija, necatu biar da ateraten bedar dongaac, quendu biar dira erderati premina baga iraatsi jacozan verbaac; batu eusquera icen baztertu ta zoconduta dagozanac, ta imini biar da garbituta, zan leguez anchina erdaldunacaz art-emonic etzan demporetan. ¿Ez da alan, Aita Pedro?

Eta Aita Pedrok ere, ezin aholku argiagoak eskainiko ditu segidako lerrokadan, abade Juani erantzun (PA, 199 or.):

... Ichi eguiozu erderati eusquerara biurtu guriari; neurdin gauza garbiric eguingo ez dozu. Enzun eguiezuz necazareai euren esacuneac; icasi eguizu eusqueria eurac ganic; eguin zaite eusquera iracurten, ta urte bete barru urtengo dozu euscaldun. Emon neutsan neure bearra amaituta, gueratu zan pocic, ta bota eban sermoia, guztiai ederto erichen leguez.

7.5.3. Euskararen ezaugarri pospositibo (mugatu)-aren aitortza Moguelengan.

Lehenago Urtek, Larramendik, Harrietek edo Cardaverazek ohartu bezala, Moguelek behin baino gehiagotan aitortuko du bere lanetan, euskararen ezaugarrien artekoa bezala, posposizioarena. Beti izango da ordea, posposizio, nahikoa ondo mugatu bat. Peru Abarcaren sarreran deitzen dio (36 or.), *posposicion articular*, designazio honen barne kokatuaz, artikuloaren posposizioa, eta deklinabide atzizkiena. Vargas Ponceri eginiko gutunetako batean berriz, zuhur zabaltzen dio ezaugarri pospositiboa, adjetiboaren guneari ere (CD, 88 or.): «*... la posposicion de los articulos, que constantemente observa el vascuence ... El vascuence observa consecuencia y regla fija en todo esto, como tambien en posponer los*

adjetivos al sustantivo.» Oraindik *Apologian*, Moguelek erasten dio ezaugarri pospositiboa, zenbait erakusleri ere -hala deitzen die berak- batere aipatu gabe horregatik bere bizkaikoen berezitasunak (*Euskal-Erria*, 1891, T. XXV, 528 or.): «*Sucede lo mismo en los pronombres demostrativos, au, ori, onek, bakoitza, guztia, los que siempre se posponen a los nombres.*»

7.5.4. Baina Cardaverazengandiko alde nabarmenekin.

Larramendik egin bezala, pentsatzekoa da, Moguelek ere erraz aitortuko liekeela ezaugarri pospositiboa euskaraz, aditzari ondoretik erasten zaizkion erlazio atzizki desberdinei ere. Añibarrok aitortu bezala ordea, ez du ematen, Mogueli inoiz burutik pasa zitzaionik bere lanetan, ezaugarri pospositibo hori aplikatzea esaldian, aditzaren guneari. Eta ez du egiten behintzat oraingoz ezagutzen diogun inongo lanetan. Cardaverazen Eskolatik erabat bereizteko, azpimarratzekoa da, ez diogula aurkituko Mogueli (salbuespenez baino), egitura etenik esaldian, elementuak tartekatuta galdegaia eta aditzaren artean, cardaveraztarren usadioan.

7.5.5. Moguelen prosaren erreferentzia beti herrikoitiarrak.

Ikusten gatozen bezala, Moguelen lanean ez dira inon falta profesio rustiko zaleak, hizkuntza kontuetan ere. Hala aitortzen du behin berriro, zalantzarako unerik gabe, Vargas Ponceri eginiko gutunetako batean (CD, 73 or.): «*... No he procurado estudiar el vascuence de Larramendi, sino de los mismos rústicos, ú originalmente.*» Eta baldin badirudi ere, Moguel holakoetan batez ere ari dela beti, hiztegi kontuez, ez dago zertan pentsaturik, jarrera desberdina behar duenik izan joskeraren alorrean, edo hitzen ordenamenduarenean.

Gainera herri xehea, euskalduna, Moguelentzako, ez da bakarrik, bere ikastola ona; baita ere da, bere publikoa, zeini zuzendu nahiko zaion, honek aisa ulertuko duen modu batean, probetxuzko katekista, predikatzaile bezala. Hala aitortzen du, *Confesio ta Comunioco Eracasteei* egindako *Prospektoan* ere (A. Villasanteren argitalpena, «Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel», *BAP*, 1964, 72 or.):

... En quanto a la pureza del idioma no se debe pedir a un Catequista de la Religión que sea un Académico de la lengua. Debe pretender ser entendido, a imitación de Jesu-Christo, que predicaba no en el Hebreo puro y original, sino en el que halló en sus días, mezclado de vozes que se le pegaron en las repetidas Cautividades que sufrió el Pueblo Judío en Naciones extranjeras.

Eta berriro badirudi ere, Moguel batez ere hiztegi kontuez ari dela, ez zaio zertan suposatu beharrik iritzi desberdinik, joskera / hitzen ordenamenduen arloetan.

7.5.6. Peru Abarcaren jatorrizko testigantza zalantzagabea.

Eta maiz jarri bada zalantzan, Moguelena bezalako tradiziozko hitz ordenamendua euskaraz, honen jatortasuna eztabaidatuaz (herrikoitasuna ere), testu gehienak itzulpenak, edo quasi, direlako; ezin berdin esan da, horren erraz, Peru Abarca bezala, sortzez euskarazkoa den lan baten aurrean, eta asmoz, herri euskaldunarentzakoa. *Peru Abarca* izan liteke gure prosarentzako eredu bat, gaur egun horren galduta, eta agidanean eredu beharrean, gabiltzan joskera eremuetan.

Esanguratsua da, Moguelek ez duela Peru Abarcaren barne desberdintasun nabariegirik egiten, bi pertsonai nagusiek darabilten hitz ordenamenduan. Berdintasun adierazgarria, prezeski erakutsi nahi direnean bi pertsonaiak, euskara on eta gaiztoaren eredutzakoak.[3] Ez dirudi, Moguelek ustel eta galdutzat jotzen duenik, bataren edo bestearen joskera, pentsatzekoa da, bietan herrikoia.

ERASKINA

Aita Cardaverazen 1762ko Dotrina Cristiana bizkaieraz, eta honen 1783ko (Cristinaubaren jaquinvidia, Moguelek zuzendu bide zuena, eta azpititulatu, esanguratsuki: Orain urteten dau eusquera apaindubaguan) argitalpenaren arteko alderaketa bat, hitzen ordenamenduari dagokionean.

Cardaverazen Dotrinaren faksimila argitaratu zuen Aita L. Lopeteguik, *Aita Cardaberaz. Euskal Lan Guziak*-en lehen tomoan, jatorrizkoaren data J. Bilbaoren Bibliografiakoa 0zaki. Moguelek aldatu bide zuen Dotrinarako berriz, J. Urquijoren jatorrizko alearen mikrofilma erabili dugu. Jaso ditugu hemen, Dotrinetako lehen hiru parteetatik, zuzenean alderagarriak izanik, ordenamendu aldaeraren bat erakusten zuten esaldiak.

Lenengoa da Jangoicoa gauza gucien ganean amaetea. (8)

Lenengua Jangoycua maite izatia gauza guztien ganian. (5)

Bigarrena aen Icen Santuaz juramentu banoan ez eguitea. (8)

Bigarrena, Juramenturic ez eguitia alperric. (5)

Jangoicoa servidu, ta gauza guztien ganean amadutean, ... (9)

Jangoicua maite izatian gauza guztia[c] baño gueijago, ... (6)

Fedeco articuluac ... (10)

Articulu fedecuac ... (6)

Lenengo zazpirac Jangoicotasunari dagocaz: ... (10)

Lenengo zazpirac dagocaz Jangoicotasunari: ... (6)

Bostgarrena, sinistu, irugarren egunean illen arteric biztu zala. (12)

Bostgarrena, sinistu irugarren egunian viztuzala illen artetic. (8)

Seigarrena, sinistu, Ceruetara igo ebala, ... (12)

Seigarrena, sinistu, igo ebala Cerubetara, ... (8)

...: onai gloria emaitera, ... (12)

..., onai emoteco glorija, ... (8)

..., cerren gorde cituezan aen Mandamentu Santuac: ... (12)

..., bere Aguindu santuba[c] gorde-citubelaco, ... (8)

Cristiñaven icen ori non di iatorzu? (13)

Nundi jatorzu Cristinaubaren icen ori? (8)

Cristiñovac cer esan gura dau? (13)
Cer esan gura dau Cristinaubac? (9)

Cristiñau en señalea ceñ da? (13)
Cein da Cristinaubaren señalia? (9)

Cerren Cristo crucificaduaren irudia dan, ... (14)
Cerren dan Cristo curutzian josijaren irudija, ... (9)

Ceimbat guisatara Cristinavac señale orrez usaetandau? (14)
Cembat modutan eguiten-dau Cristinaubac señale ori? (9)

Señale ori noz eguin behar dozu? (16)
Nos eguin biardogu Curutce ory? (11)

Beraz Curutceac arerio orren contra indarra badau? (17)
Beraz arerijo orrec goituteco Curutziac indarra dau? (11)

Virtute ori Curutceac nundic dau? (17)
Nundic jatorco Curutziari indar ory? (11)

..., cerren zure Curutcearen virtutez mundua erredimidu, edo libradu cenduan. (17)
..., cerren Curutze Santuban librau cenduban Munduba. (12)

Baia oraň esan eguidazu: ... (18)
Essan eguidazu orain. (12)

Credoa, edo Fedeco Articuloac jaquiñaz. (18)
Jaquinaz Credua, edo Articulu Fedecuac. (12)

Jangoicoen legueco, ta Elessa Ama Santen Mandamentuac, eta Misericordiazco obrac jaquinaz. (18-9)
Jaquinaz Jayncoaren legueco, ta Elisaco aguindu, edo Mandamentubac, eta obra Misericordiazcuac. (12-3)

Elessa Ama Santearen Sacramentuac jaquinaz. (19)
Jaquinaz Elisaco Sacramentubac. (13)

..., Credoa noc esan eban? (19)
..., Noc esan eban Credua? (13)

Jesu Christo jaioten icusi cenduan? (20)
Icusi cenduban jayotcen Jesu-Christo? (13)

Ilten, edo Ceruetara igoten icusi cenduan? (20)
Icusi cenduban ilten, edo Cerura igoten? (13-4)

Ac, eta zuc sinisetan dozuzanac ceñzuc dira? (21)
Tà cerzuc dira orrèc? (14)

Fedeco articuluac cer zuc dira? (21)
Cer dira Articulu Fedecuac? (14)

Fedeco Articuluac certaco dira? (21)
Cetaraco dira Fedeco Articulubac? (14)

Trinidade chito Santua cer da? (22)
Cer dà Trinidade chito Santya? (15)

Cerren gauza guztiac ecebere eceti eguin cituan. (23)
Cerren atera cituban ez[..]erecetic gauza guztiac. (16)

Cerren gracia emaiten daben, ... (23)
Cerren ... emoten daben gracia. (16)

Jangoicoac, guc leguez, gorputzen irudin, edo figurea badau? (24)
Jangoycuac badau gorputz irudiric guc leguez? (16)

..., cerren Espiritu naste baguea, edo purua dan; ... (24)
..., cerren dan Espiritu uts garbija, ... (16)

Espiritu Santua Guizon eguinzan? (24)
Espiritu Santuba eguinzan Guizon? (17)

Jesus en icen onec cer esan gura dau? (25)
Cer essan nai du Jesusen icenac? (17)

Cristoc cer esan gura dau? (25)
Cer Essan Gura dàu Christoc? (17)

Irugarren egunean celan biztuzan? (27)
Celan viztuzan irugarren egunian? (18)

Aen gorputz, ta arima gloriatsua batuten, edo berriro juntetan cireala, ... (27)
Barriro batuten ciriala bere gorputz, ta Arima glorijaz betia ... (19)

Ceruetara celan igo eban? (27)
Celan igoeban Cerubetara? (19)

Biciac, eta illac juzgaetara noss etorricoda? (27)
Nos etorrico da vicijac eta illac Juzguetara? (19)

Aita Santua nor da? (28)
Cein da Aita Santuba? (20)

...: zuentzat asco dà Articuluen contu, Credoan dagozan leguez, emaitea. (29)
..., asco da zuretzat, Articulubac Creduan dagozan leguez sinistu, ta jaquitia. (20)

Erreguten guri iracasteco. (30)
Guri escatuten eracusteco. (21)

Oraciñoen artean onena ceñ da? (31)
Ceinda oracinoe guztien artian onèna? (22)

Cerren zazpi escari caridade osoan fundaduac dituan. (31)
Cerren daucazan Zazpi escabide Caridadeti datozanak. (22)

Jangoico en Icena mundu guztian ezagutua, ta onradua izan dedilla. (32)
Ezagutuba, ta honraduba izan dedila Jangoikuaren Icena mundu guztian. (22)

Jangoicoac gure arimetan emen lurrean graciaz erreinadu daguiala, ... (32)
Aguintau daijala Jangoicuac gure arimetan emen Lurrian gracijaz, ... (23)

..., eta guero gloria digula. (32)
..., ta guero digula Glorija. (23)

Jangoico en vorondatea lurrean gagozanoc daguigula, ... (32)
Eguin daigula Jangoicuaren borondatia Lurrian gagozanoc, ... (23)

Laugarrena ceñ da? (33)
Cein da Laugarrena? (23)

Egun iguzu gure eguneango ogia. (33)
Egunian eguniango guure [sic] oguija egun iguzu. (23)

Jangoicoac gure pecatuac parcatu deguiguzala, ... (33)
Parcatu deiguzala Jangoicuac gueure pecatubac ... (24)

Jangoicoac libradu gaguizala arimaco, ta gorputceco gach, ta peliguru gustietaric. (34)
Librau gaiuzala Jangoicuac Arimaco, ta Gorputzeco gach guztietati. (24)

Baia cegaiti asieran lenengo esan dozu: ... (34)
Cegaiti esan dozu asieran: ... (24)

Jangoico agana biotza jasoteco, ... (35)
Jassoteco bijotza Jangoycuagana, ... (24-5)

..., ta humil tasunez, ta confianzaz ari escatuteco. (35)
..., ta escatuteco messediac humildadez, ta uste betiaz. (25)

Virgina Maria gure Ama Andrea nor da? (36)
Cein da Ama Virgina ori? (25)

Aen bidez Ceruan dagoanagaz gomuta gaitean, ... (36)
Guc icussita, gomuta izan daigun Ceruban daguana, ... (26)

Jangoicoac cetaco eguin cituan? (37)
Cetaraco eguin cituban Jangoicuac? (26)

Beraz zuc bere Angueru gorde etan zaituana baucazu? (37)
Beraz zuc bere bozu Aingueru jaolia? (27)

(IRUGARREN PARTEA,) cenetan eguin bear dana azaltcendan. (38)
(IRUGARREN PARTIA,) ceñetan adirazoten dan cer eguin biardan. (27)

Jangoico en Legueco lenengo Mandamentua ceñ dà? (38)
Cein da angoicuaren legueco lenengo aguinduba? (27)

Jangoicoa gauza guztien ganean amaetea. (38)
Jangoicoa maite izatia gauza guztiez ganian. (27)

Cer da gauza guztien ganean bera amaetea? (38)
Cer da jangoicua maite izatia gauza guztiez ganian? (28)

Cetara gueiago Mandamentu onec obliguetan gaitu? (39)
Cetara gueijago obliguetan gaitu aguindu onec? (28)

... fede biciaz beragan sinisetan, ta esperetan dogula. (39)
..., beragan sinistu, ta esperetan dogula fede vici bategaz. (28)

Onen contra noc pecatu eguiten dau? (39)
Noc onetan vts eguindarua? (28)

Aen Icen Santuaz juramentu vanoan ez eguitea. (40)
Ez juramenturic eguitia alperric. (29)

..., cerren aetan Creadoreari eguiten iacan. (40)
..., cerren aetan eguiten jacon Jangoico euren eguilliari. (29)

Noc Jai egunac gordeetan ditu? (40)
Noc gordetan ditu Jaijac? (29)

Gurasoen icenez nor besteric adituten da? (41)
Nortzuc besteric adietan dira gurasuen icenez? (29-30)

Edadean, diñadadean, ta gobernuan nagusiago direanac. (41)
Nagussijaguac edadian, honràn, ta aguintaritzan. (30)

Mandamentu onetan cer aguinduten da? (41, eta berdin 42, 42)
Cer aguinduten jacu orretan? (30, eta berdin 30, 30)

Garbi, edo casto izan gaiteala, gogo, berba, eta obretan. (42)
Izan gaitiala garbijac gogo, verba, eguite, ta gurarijetan. (30)

Mandamentu au noc austen dau? (43)
Noc austen dau mandamentu, edo aguindu au? (31)

Bederatcigarren, ta amargaren [sic] Mandamentuan cer debecaetan da? (43)

Cer eragozten jacu bederatzigarren, eta amargarren Mandamentu, edo Aguindubetan? (31)

Lenengoa, Domeca, ta Jai guztietan Meza osoa ezutea. (43)

Lenengua, Meza ossua enzutia, Jay, ta Domequetan. (32)

Laugarrena, Elessa Ama Santeac aguinduten dabenean baraur eguitea. (44)

Laugarrena, Baru eguitia Ama elisa santiac aguynduten dabenian. (32)

Cerren justiciaz zor eztirean. (46)

Cerren eztirian zor justicijaz. (34)

Aguinduz, edo preceptoz noss obliguetan dabe? (47)

Nos dira bada zor pecatubaren beian? (34)

[1] Agidanean -ik. X. Altzibarren artikulua- *Cristiñaubaren Jaquinvide* bera argitaratzen da gero, 1805. urtetik aurrera, jada Moguelen izenean arrakasta handiz (29 berrargitalpen 1914ra bitartean, J. Bilbaoren datuen arabera).

[2] Ez dira hain garbiak zentzu honetan, Moguelek, gehiegi aipatzen ez zaion *Apologian* («Apología de la lengua Bascuence contra las erradas ideas, y congeturas de D. Joaquin Traggia, autor del Artículo del Origen de dicha lengua en el Diccionario Histórico-Geográfico de la R. Academia: V. Navarra.», *Euskal-Erria*, 1891, I, T. XXV), erakusten dituen esaldi pareak, euskara on eta gaiztoen eztabaidan (215-6 orr.): «... Por ejemplo: si se dice corruptamente Perroak jan du pana, en lugar de Zakurrak jan du ogia, luego echara de ver el diestro vascongado que ... (215) / Lo mismo digo en estas otras oraciones, Trigoa galdu du jabaliak. Luego notara [el diestro vascongado], aunque jamas haia saludado al castellano, que ... Pero si se dice en su puro bascuence Basaurdeak galdu du garia, observara ...» (216)

[3] Villasantek obra definitzean dioen bezala, *HLV*, 1979, 212 or.: «*seis dialogos sabrosísimos entre un casero, euskaldun neto, maestro de bien hablar, y un barbero-cirujano que habla un vascuence corrupto*».

[10][11]8. Eragin cardaveraztiar bat Iparraldean. Jean Duvoisin (1810-1891) ainhoarraren euskal lanak.

Jean Duvoisin, kapitain mugazainak jada 1856an, hau da, Bonaparte Printzea ezagutuko duen urte berean, ematen du argitara bere lehen lana euskaraz: *Liburu Ederra*. Bertan, lapurterara itzultzen da, Cardaverazen *Aita San Ignacioren Egercicioen gañean Afectoac,...: edo Egercicioen IIen Partea*, lehenengo aldiz 1761 urtean eman zena argitara. Duvoisin bazen muga kapitain baino zerbait gehiago, hainbat ilustratua ere, esaten digun bezala, abade Haristoy, bere azken urteetan ezagutu zuenak («Le Capitaine Duvoisin et ses travaux», *Euskal-Erria*, 32, 1895-I, 401 or.):

Excellent littérateur, historien et linguiste distingué, le capitaine Duvoisin était poëte et même musicien. ... / Il connaissait le latin, le grec, l'espagnol, l'italian et même quelques langues orientales[1] assez bien pour faire des études de comparaison avec la langue basque. Sa devise, comme celle d'un vieil empereur romain était: «*Laboremus*», ...

Frutuei begira, ez dirudi sententzia hori, *dibisa* bakarrik zuenik Duvoisinek. Nahiko gaztetatik arduratu bide zen euskarazko ikasketekin, eta ez gutxi. Hala moduz aitortzen du berak, bere 1862ko gutunetako batean (J.-B. Daranatz, «Correspondance du Capitaine Duvoisin», *RIEV* XIX, 1928, 426 or.):

... Si quelque chose doit étonner, c'est que je n'aie pas su mieux profiter d'etudes commencées en 1828, quelquefois négligés à cause de mon état, mais jamais abandonnés. Jái lu et annoté tous nos meilleurs livres; j'ai habité toutes les parties du pays basque français, et partout j'ai pris des notes.

1830ko hamarkadan, Duvoisin aritua zen jadaneko euskaratzen, Fénelonen *Les Aventures de Télémaque*-ren lehen liburuak, nahiz lana bukatu gabe utzi garaian, argitaratzeko eduki zitzakeen eragozpenak-edo medio[2]. Orduan ekin bide zion lehenengo aldiz euskal hitz biltzeari, jabeturik bere hiztegi propioaren urriaz. Eta asmo horretan egin bide zituen, batez ere, aipatu *liburu-hoberenen-irakurketa eta ohar-biltzeak*, bere lanaren kariaz bizi ahal izandu zen iparraldeko bazter ugaritan. Bilketa lan horretan aurkitu bide zuen Cardaverazen liburua, zeinak biziki hunkitu eta bultzatu zuen itzultzera, Abate Haristoyk dioenez (*Euskal-Erria*, 32, 1895-I, 274 or.):

Il y trouva tant d'eloquence et de chaleur chrétienne qu'il voulut faire passer cet ouvrage du dialecte guipuzcoan au dialecte labourdin. Il en fit une traduction libre, ...

8.1. Duvoisinen Liburu Ederra[3] (1856), eta Cardaverazen Afectoac[4].

Nola liluratzen du horrenbeste Duvoisin Cardaverazen liburuak, horren euskara traketsa darabilena, honek *Laborantzako Liburu*, ezin ederragoa, argitaratu baino bi urte soil lehenago, edo hiru baino falta ez zaizkionean Biblearen itzulpen erraldoiarekin hasteko, eta bere eredutzat duenean, Axular maisuaren prosa malgu eta argia?[5] Baliteke *Liburu Ederraren* prestaera 1856 baino nahiko lehenagokoa izatea. Balitekeen bezala, Duvoisinek nahastea garaian, Cardaverazen liburuaren balio espiritual, mistiko eta misteriotsua, honen idaztankeraren *ilunarekin*. Eta sikiera Duvoisinek itzulpen libre bat egin izan balu euskararen aldetik ... Baina behin baino gehiagotan aitortu zaionaz bestela, bi liburuen arteko aldeak ez dira, oro har, handiak[6]. Bestela esan, eta guri gehiago interesatzen zaigun modu batean, Duvoisin hitzez hitz jarraitzen zaio, oro har, Cardaverazen jatorrizko testuari. Nahiz tarteka esaldiren baten bertsio nahiko propioak egin.[7] Eta aldiz, badiren bezala Duvoisinen aldaketa ugari, Cardaverazen hiztegia zuzentzen, uxatuaz honen mailegu gordinegiak edo, eta ordez neologismo hutsak erabiltzeko zenbaitetan.

Cardaverazen liburuaren ezaugarri nabarmenenetakoa da, garaiko bere beste liburu guztiena bezala, aditza atzeratzearena esaldian, euskaraz inoiz ohizkoa izan den neurri guztiez gainetik, eta esaldi klase sinesgaitzenetan ere. Horretatik, maiz asko, Cardaverazen testuen iluntasuna. Ez dakigu, Duvoisin inoiz iristen den jakinaren gainean jabetzera, Cardaverazen ezaugarri honekin. Baina, ondo aztergarria gertatzen da beti Duvoisinen jarrera Cardaverazen testuarekiko puntu honetan, segidan ikustera goazen bezala.

8.1.1. Duvoisinen errespetoa Cardaverazen aditz atzeratzeekin.

Esan dugu, Duvoisinek zenbaitetan biguindu eta leunduko baditu ere Cardaverazen trakestasunak, oro har,

errespetatzeko joera duela Cardaverazen testua, hau ulergarria den bitarte guztian. Haren hitz ordena ere. Hala, Cardaverazek halako batez, aditza nahikoa aurreratua ematen badu esaldian, nola ikus litekeen adibiderako, segidako esaldi parean (beti Cardaverazena lehenik):

(1) Zu, nere Jaun aundia, cera nere atsedena, atseguiña, ta betico gloria. (14)
..., nere Jabe handia, zu zare nere gozagarria, nere axegiña, bethico ospea. (40)

Baina Duvoisinek eraberean errespetatuko ditu, Cardaverazen joskerak traketsagoak ere, aditza atzeratuaz esaldian ezohizko neurrietaraino. Duvoisinek, eragingo dituen joskerak halako hitz ordenamenduak segiaz, ezin bitxiagoak gertatuko dira garaiko lapurterarako (Cardaverazenak gipuzkerarako gertatzen ziren bezain beste edo). Bestetik, ordenamendu modu berritzaile hauek ez dute ere zerikusi handirik izango, Duvoisin beraren ondorengo (edo aurreko) beste lanetakoekin; ikusiko dugu. Aditz atzeratze bitxien errespetatze kasu asko jaso ditugu lan honen ERASKIN Iean[8]. Hauen artean nabarmenenak gertatuko dira, aditza ezohizko moduan atzeratuta daramaten galderen eta aginteren kasuak, segidan ikustera goazen bezala. Baina izango dira bestelakoak ere.

8.1.1.1. Galderetako aditzak atzeratzen ezohizko neurrietan.

Bi autoreetan gertatzen dira nabarmenenetakoak galderetako aditzen atzeratzeak, euskara guztietan ere delako ohizkoen, nahikoa aurreratuta ematea esaldian galderetako aditzak, Cardaverazen Eskolan salbu.

8.1.1.1.1. Galdegile bidezko galderetako aditz atzeratuak.

Galdegile bidez osatutako galderen kasu askotan jarraitzen zaio Duvoisin Cardaverazi aditza atzeratzen; esaldi luze, nola laburretan. Hala adibidez segidakoetan erakusgarri (gure ERASKIN Ietik):

(2) Eri au nor da? (30)
Eri hau nor da? (66)

(3) Lurreco chingurri, edo ar chiqui batec, buruaz ceruraño allegatcendan Gigante batequin cerdu cer icusi? (33)
¿Lurreco chinhaurri edo marmutza batec, buruaz ceruraino heltcen den digante batekin cer-du cer icusi? (71)

(4) Aingueruac, onen gañean cer diozute? (35)
Aingueruac ¿hunen gainean cer diozue? (74)

(5) Jaunaren ontasunaz, ta nere lotsagabetasunaz cer deritzazute? (35)
Jaunaren ontasunaz eta ene loxagabekeriaz cer iduritcen zaitzue! (74)

8.1.1.1.2. Atzeratuak galdera orokorretako aditzak.

Atzeratze oso nabarmenak ere bai galdera orokorren zenbait kasutan, nola segidakoak (gure ERASKIN Ietik):

(6) Ta orren lotsagaberic ta lurreco gauzac Jaincoa baño gueiago estimatcendituenic iñor oteda? (15)
Eta horren loxagaberic eta lurreco gauzac Jaincoa baino gehiago prezatcen duenic nihor othe da? (41)

(7) Zure dicharic andienaren iguesi orrela zabiltza? (16)
Zure zorionic handienaren ihesi horrela zabiltza? (43)

(8) Ta Santu, ta Aingueruac adoratcenduten Jaunaren Magestadearen contra ni atrebitu naiz? (33)
Eta saindu eta aingeruac adoratcen duten majestatearen contra ni oldartcera atrebitunaiz! (71-2)

(9) Torre altu batetic, ta ari batetic esequiric guizon batec banenduca, bera ofenditcera atrevituconinzaque? (37)
Dorre gain batetic, eta hari batez itchikiz, gizon batec banindauca ¿hura damuztatcera atrebi othe nindaite? (77)

8.1.1.1.3. Duvoisinen galdera hautsiak.

Duvoisin estu jarraitzen zaio Cardaverazi, honen galdera hautsi askoren ordenamenduan ere (ERASKIN Ietik):

(10) Nor zuri itzeguitera atrevitucoda? (21)
¿Nor zuri hitcegitera menturatuco da? (52)

(11) Aimbeste desonra, ta alaco desacato itsusiac nola ni bezalaco ar billau bategandic eramandituzu? (35)
Hambat laido eta halaco ozarkeria ixusi ¿nola ni bezalaco har cikhin batenganic egarri dituzu? (74)

(12) O! Nola nic ori eguinezaquean! (35)
¿Oi nola nic hori egin-ahal izan duket? (74)[9]

(13) ..., nola ni Zu ofenditcera atrevitunaz? (37)
... ¿ni nola zu damuztacera ausartatu naiz? (76)

8.1.1.2. Atzeratuak aginteretako aditzak.

Duvoisin ere estu lotzen zaio Cardaverazen ohizko beste praktika honi, euskarazko ohitura guztiez bestela atzeratzen dituenean aginterazko aditzak esaldian. Hala segidako adibide nahikoa argietan, liburuan zehar nahi adina topa litezkeenen artean (ERASKIN Ietik aukeratuak):

(14) Au obeto, edo nolabait zuc aditceco, aldezun Ondasunic andiena zure erara pensezazu: ... (31-2)
Hau hobeki, edo nolazbait heinca bederen bekhatotoreac aditceco, iduritcen zaioen onic handiena burura bekio; ... (69)

(15) ...: doblaz areago, ta andiago Ontasun ori berriz ta ascotan eguizu. (32)
...; doblez areago eta handiago ontasun hori berriz eta ascotan egin beza; ... (69)

(16) Ah Jauna, zure Ontasunagatic niri ori indazu. (32)
Ah Jauna, zure ontasunez hau niri utz diadazu. (70)

(17) ...: onra, ta gloria seculaco nigatic emaiozute, ... (35)
Ospe eta ohore bethico-bethian nigatic emoiozue; ... (74)

8.1.1.3. Aditz atzeratuak baiezko esaldi nagusi deklaratiboetan.

Ezagun dugu joera Cardaverazengan, eta ez da dudarik Duvoisinek hein handi batean bederen errespetatzen duenez. Adibideak ez dira galderen edo aginteren kasuan bezain ikusgarriak, baina topatzen dira tarteka aditz atzeratze artifizial samarren adibide bitxiak, segidako bi esaldi pareotakoen antzekoak:

(18) Nondic infernura ni eramango nauen errebentatcen, edo deseguiten dabill: ... (27)
Hura ni nondic ifernura eramanen nauen lehertu eta zapartaraci beharrez dabila: ... (61)

(19) Beste asco baño, onelaco eri bat curatcea, onra andiago da. (30)

Bertce asco baino, hunlaco eri-bat sendatcea, sentagaila handiagoa da. (66-7)

Beste zenbaitetan, Duvoisin jarraituko zaio Cardaverazen aditz atzeratzeari, are atzeratze honek suposatzen badu zenbait elementu tartekatzea, berezko galdegaia eta aditzaren artean, modu ondo bitxian alde eta aldi guztietako euskaretan (salbu Cardaverazen Eskolan). Hau izan liteke ondorengo adibideen kasua:

(20) (O Jauna! Lurreco gauzac Zurequin cer dute cer icusi?) Gucien Eguillea Zu cera. (14)
(Oi Jauna! lurreco gaucec zurekin ¿cer dute cer icusi?) Gucien egilea zu zare. (40)

(21) Emengo neque, ta aleguin guciac, eguiaz ecerez dirala, arrazoiaz esango didazute. (19)
Lurreco nekhe eta eginahal guciac egiazki deusere ezdirela, legez erranen dirazue. (48)

(22) Zuc, ceran bezala, Jauna nerequin eguindezu. (21)
Zuc, zaren bezala, Aita onarena nerekin egin duzu. (51)

Inoiz, Duvoisinek atzeratuko du, Cardaverazek baino gehiago, esaldi nagusiko aditza, nola behintzat segidako esaldi laburrean:

(23) Nerea da dicha. (20) ..., parte on gucia nerea da. (50)

8.1.1.3.1. Atzeratuak *BA*- aurrizkidun aditz nagusiak.

Joera beti zabalduago aurki baliteke ere iparraldean hegoan baino, badira hasieratik Cardaverazenean bitxiak gertatzen diren esaldiak, *Ba*- aurrizkidun aditza ezohizko neurrietaraino atzeratzen, eta Duvoisinek segi egingo dio halakoan ere. Bedi adibide, segidako esaldi, ez dakigu bitxi edo traketsa:

(24) Baldin persona ofenditua cembat andiago dan, ofensa ere andiago bada: ... (31) Baldin damu-hartu dagoena, cembatez handiagoa den, hobena ere hambatez handiago bada, ... (68)

Duvoisinek bestela, erantsiko dio ere *Ba*- aurrizkia inoiz, Cardaverazek jada nahikoa artifizialki, esaldi bukaeraraino atzeratuta zuen aditz trinkoren bati, nola segidako kasuan:

(25) Nere gaitza baño andiagoentzat ere zure Biotceco botican, ta zure llaga etan erremedio seguruac dituzu. (30)
Nere gaitza baino handiagoentzat ere zure bihotz barnean eta zure zaurietan sendagarri seguruac badituzu. (67)

8.1.1.4. Atzeratuak ezezko esaldietako aditzak.

Ezezko aditzek ere, alde eta aldi guztietako euskaretan izan dute joera, esaldi aurrealde agertzeko (Cardaverazen Eskolan salbu). Hala, nahiko bitxi gertatzen da, halako hainbat kasutan ere, Duvoisin Cardaverazi jarraitzea.

8.1.1.4.1. Ezezko esaldi konposatu inbertsiorik gabeak.

Duvoisinek maiz errespetatzen du Cardaverazen usuzko joskera modu hau (kasuetako asko galderak; baina ez denak). Hala nola, adibide, segidako esaldi pareetan (ERASKIN Ietik):

(26) ..., orren erraz galduco ez nuen, ... (17) ..., hunen errezki galtcera utcico ez-nuen, ... (46)

(27) Baña, cer eguiten ezdet? (18) Bainan cer egiten ez dut? (46)

(28) Zure pecatuac nolacoa, eta cer peligro andian paratu zaituzten icusten ezdezu? (30) Zure bekhatuac nolacoac diren, eta cer galexi handitan ezarri zaituzten icusten ezduzu? (66)

(29) ..., nereac barcatuac diran jaquin gabe, nola bildur izango eznaz? (31) ... ¿nereac barkhatuac direnetz jakin-escasean, nola beldur izanen ez-naiz? (67)

(30) Ta zure amorez nola ni deseguiten eznaz? (35) Eta zure amorez; ¿ni nola erdiratcen ez-naiz? (73)

Are oraindik, bere kasara emango du Duvoisinek inbertsiorik gabeko aditzik inoiz, Cardaverazen baiezko esaldiren baten aldean. Hala behintzat hurrengo adibidean, Cardaverazek jada nahikoa artifizialki atzeratuta ematen duen galderaren kasuan:

(31) Ta amorio onegatic nic cer zor dizut? (24) Hambateco amodioagatic ¿nic cer cer zor ez-darotzut? (56)

8.1.1.4.2. Atzeratuak ezezko aditz trinkoak.

Hala egiten du maiz Cardaverazek bitxi, eta hala segitzen dio tarteka bederen Duvoisinek, nola segidako adibideotan behintzat (ERASKIN Ietik):

(32) ...: Zu escas, ta urri etcera: ... (31)
...; zu, ez-escasti, ez escu-hurricoa etzare; ... (68)

(33) Damuaren damuz cer esan, ta cer eguin ezdaquit. (32)
Damuaren-damuz cer erran eta cer egin ez-dakit. (70)

(34) ..., ta cerzaz gueiago arritu, nic ezdaquit: ... (34)
..., eta certaz harri gehiago nic ez-dakit, ... (73)

8.1.1.5. Atzeratuak mendeko esaldietako aditzak.

Cardaverazi segika, erakusten ditu Duvoisinek aditz atzeratze bitxiak, mendeko esaldien artean ere (nahiz oro har zailxeagoa izan hauen artifizialtasuna antzematen, mendeko aditzek badutenez, berez, esaldian atzeraxeago agertzeko joera euskaraz, nagusietakoak baino). Jasoko ditugu segidan zenbait adibide, nolazpait joeraren erakusgarri izan litezkeenak:

(35) Nondic infernura ni eramango nauen (errebentatcen, edo deseguiten dabill: ...) (27)
Hura ni nondic ifernura eramanen nauen (lehertu eta zapartaraci beharrez dabila: ...) (61)

(36) O cer gogoa, cer ansiac ori artceco dauzcadan! (31)
Oi cer grina eta alhadurac hortaric ditudan ataratceco. (67)

(37) (Jakizu bada, orañ,) Ontasun zuc pensatu al ori gucia, gure Jaungoicuaren Ontasun, ta Aunditasunaren aldean, ecer ez-dala, ... (32)
(...; jakin dezala bada orai,) ontasun harec asmatu ahal duen hori gucia, gure Jaincoaren ontasun eta handitasunaren aldean, deusere, pix bakhar-bat-ere ez-dela. (69)

(38) Torre altu batetic, ta ari batetic esequiric guizon batec banenduca, ... (37)
Dorre gain batetic, eta hari batez itchiquiz, gizon batec banindauca ... (77)

8.1.2. Duvoisin Cardaverazen aditzak aurreratzen.

Duvoisinen errespetoek Cardaverazen gordintasunekiko, badute nolanahi, beren muga. Lehenago Moguelek egin bezalaxe, Cardaverazen 1783ko *Dotrina* bizkaitarrarekin, edo Arruek bere *Escu-Liburuan*, Cardaverazen *Egercicioen Laugarren Parteko Meditacioekin*, Duvoisinek ere nahikoa maiz aurreratuko du Cardaverazen aditza esaldian, bere lapurteratze-*egokitze* lanean, *zuzenduaz,* haren hitz ordenamendu artifiziala, tradiziozkoago moduetara. Duvoisinek aurreratuko ditu, batez ere, baiezko esaldi nagusi deklaratiboetako aditzak, eta mendekoetakoak. Baina baita ere tarteka, bestela nahikoa errespetatzen dituen, aginterazkoak, galderetakoak edo ezezko esaldietakoak. Guzti hauetako adibide ugari ikus liteke lan honen ERASKIN IIan (berriro liburuetako lehen bi kapituluen konparaziotik aterea).

8.1.2.1. Aurreratzen esaldi nagusietako aditzak.

Hau izan liteke, esanguratsuki, Duvoisinen hitz ordenamendu aldaketen ardatz nagusia. Esango litzateke, gehiegizkoa egin bide zaiola zenbaitetan, Cardaverazen esaldi nagusietako aditz guneen gordintasuna. Bederen, hainbat sarri emango ditu hauek tradiziozkoago ordenamendu batean, aditza aurreratuaz, eta tarteka, deseginez bide batez, Cardaverazek nahikoa maiz eragindako eten artifizialak, aditza eta galdegaiaren artean. Halako zuzenketetan, maiz agertuko da Duvoisinen aditza, esaldiko galdegaiaren aurretik. Ez beti hala ere. Joerak suma litezke segidako adibideetan (gure ERASKIN IItik):

(39) Zuc bacarric ecerecetic eguin ninduzun, ... (13)
Zuc, zure escuz egin izan ninduzun ez-deusetaric, ... (39)

(40) Nere erremedioa zugan dago: (zugan nere esperanza.) (16)
Zure baithan da nere gaitzaren sendagarria, (zure baithan nere igurikitza.) (43)

(41) ...: dicha ori izangodedan, edo ez, dudan nago. (17)
Eta orai nago zorion hori izanen othe dudanez oraino, ala ez. (45)

(42) Zu bacarric, Jauna, Zu, ta ez besteric, nere eguiazco onra, ta gloria bicia cera. (18)
Zu bakharric, Jauna, zu eta-ez bertceric, zu zare nere egiazco ontasuna eta ospe bicia. (47)

(43) Zure Biotz guciaz nere salbacioa nai dezu: ... (25)

Zure bihotz oroz nahi duzu nere salbamendua; ... (57)

(44) Nere Erredentorea, Zugana biurtcen naiz. (30)
Nere Arreroslea, biurtcen naiz zugana. (66)

(45) Oriec diranac ondo jaquiñic, Zuc merezidezuneraco, millagatic bat ecindutela deadarrez beti diote: ... (34)
Cembat ere arguituac diren arren, aithortcen dute ez direla gai zu goresteco zuri dohakizun bezala, ... (72)

8.1.2.1.1. Tarteka esaldi hasieraraino eramanez ere bai, Cardaverazek artifizialki atzeratutako aditza.

Hala gertatzen da zenbaitetan, eta behintzat segidako adibideetan (gure ERASKIN IItik):

(46) Nic beste On, beste fiñ, beste dicharic, Zu cerori baicic ez iduquitcea, nai izandezu! (14)
Nahi izatu duzu etcedin izan neretzat, bertce onic, bertce bideric, bertce zorionic, zu bakharra gozatcea baicic. (39-40)

(47) Dembora etorrico da, ta laster ceñean, ... (27)
Ethorricoda ordua eta laster, ceinetan ... (60)

(48) Zure misericordiac echeden dit, ... (29)
Jasan nau zure misericordiac, ... (65)

(49) ...: Ontasun onen berri zuec ondo daquizute. (36)
Badakizie haren ontasunaren berri. (75)

8.1.2.1.2. Zenbaitetan aditz laguntzaile(ar)en gunea aurreratzen.

Hala nola adibidez segidakoetan, modu desberdinetako laguntzaileekin, eta oro har, ekialdean zabalduago ezagutzen dugun modu batean:

(50) ... cer merecicodu? (15, eta berdin 15)
... ¿cer duke mereci? (41, eta berdin 42)

(51) ... cembat gueiago zuen dichazco suerte orrec baliodu? (19)
... ¿cembat gehiago zuen zorion horrec du balio? (48)

(52) Zuri, nere Jesus ona, jarraitu beardizut. (25)
Zuri, nere Jesus ona, behar natzaizu jarraiki. (57)

(53) ..., ta berriz, ta berriro onetan firmetu nai det. (26)
..., eta berriz eta berritan huntaz nahi dut on-egin eta berme jarri. (60)

8.1.2.2. Aurreratzen mendeko esaldietako aditzak.

Hau izango da, Duvoisinen aditz aurreratzeen bigarren ardatz nagusia, nahiz eta hauetan ere, esan bezala, Duvoisinek maizenik errespetatu, Cardaverazen aditz atzeratzeak. Gure ERASKIN IIan ikus liteke adibide ugari, nondik gutxi batzuk erakusgarri segidan:

(54) Jaincoac guizona certaco eguinzuen: ... (13)
Jaincoac certaraco eguin izan zuen gizona. (39)

(55) Lurreco ona (ona esan al badedi, ta ez desventura) bere Jainco eguiazco On gucia, ta on gucien gañecoa baño naiago duenac, (cer merecicodu?) (15)
(Cer duke merezi) nahiago izaten duenac lurreco ona, ecenetz Jainco egiazco on gucia, eta on gucien gainecoa? (41)

(56) (Ay Jauna,) ta cembat niri dijoaquidan! (24)
(Ai Jauna!) eta cembat dihoakidan niri! (57)

(57) Ta baldin culpa bacar bat icara eraguiteco sobra bada: ... (28)
Eta baldin hoben bakhar bat aski bada gizona ikharan jarrarazteco, ... (63)

(58) ..., ta añ pisuac, nola nereac diran. (28)
... eta hain dorpheac nola baitira nereac ... (63)

(59) ..., ceren Jaincotasuna fiñ, edo cabu gabea dan. (32)
..., ceren Jaincotasuna den hastapenic-gabea eta akhabantzaric izanen ez-duena. (69)

8.1.2.3. Aurreratzen aginterazko zenbait aditz.

Asko errespetatuko baditu ere Duvoisinek Cardaverazen aditz atzeratzeak aginterazko esaldietan, aurreratu ere egingo ditu tarteka. Nola behintzat segidako adibideetan:

(60) ..., nere deia enzunezazu. (21)
..., entzunezazu nere hela. (51)

(61) ..., ta nere pecatuen soca, ta amarra nastu oiec ascatu, ta autsi itzazu. (29)
... haux zazu nere bekhatuen soca, trenca eta porroscazkitzu alde orotaric bihurdicatcen nauten esteca gogorrac. (64)

(62) ..., zure gracia indazu, ... (29)
..., indazu - othoi zure gracia, ... (65)

(63) (Alabiz, Jauna,) ta ala beti eguiteco zure gracia indazu. (36)
(Halabiz, Jauna,) eta bethi hala egiteco, ene gainera heda zazu zure gracia. (76)

8.1.2.4. Aurreratzen galderetako aditzak tarteka.

Bai galdegile bidez eginiko galderen batean, nola segidakoan (eta zeredozer behintzat hurrengoan ere):

(64) Lurreco ona (ona esan albaledi, ta ez desventura) bere Jainco eguiazco On gucia, ta on gucien gañecoa baño naiago duenac, cer merecicodu?.(15)
Cer duke merezi nahiago izaten duenac lurreco ona, ecenetz Jainco egiazco on gucia, eta on gucien gainecoa? (41)

(65) Ta nere onra galdua cobratceagatic nic cer eguitendet? (18)
¿Eta galdu-onaren berriz escuetaratceco cer indar egiten dut nic? (46)

Hala nola aurreratzen duen nolazpait, galdera orokor baten aditza hurrengo adibidean, nahiz egitura bitxi samarra eragin:

(66) Ta orren dicha andiaren beguira nago? (27)
Eta ni bainago, ni horren dohaxutasun handiari begira? (61)

8.1.2.4.1. Cardaverazen galdera hautsiren batzuk desegiten.

Nahiz Duvoisinek maiz errespetatu Cardaverazen galdera hautsien ordenamendua, zuzentzen ditu tarteka, *hausturak* deseginez (guztiz beste era batera emanez ere bai inoiz galdera). Hala segidakoetan behintzat:

(67) Onelaco beneficio, edo oneguin soberanoagatic, cembat Jauna, zor dizut? (13)
¿Cer ez darotzut zor, Jauna, hunelaco ongieginarentzat? (39)

(68) Onen favore andia Zuc niri eguiteco, cer merecimentu nigan arquitucenduen? (13-4)
Cer aurkhitcen cinduen nitan? (39)

(69) ..., cer nic eguitea ondo izangoda? (26)
..., cer-da nic egin beharren nukeena? (60)

8.1.2.4.2. Bakarrik galdegileak aurreratzen ere bai, nahiz ondorioz galdera hautsiak eragin.

Aditza erabat artifizialki atzeratutako zati galderak zuzentzen, Duvoisinek aurreratzen ditu inoiz, soilik galdegileak, esaldi hasieraraino, aditza atzean utziaz, etenda. Hala nola behintzat segidako bi esaldiotan:

(70) Ay ta nere animaco catea oiec puscatu, ta deseguiñic noiz icusicoditut? (29)

Oi! ... ¿noiz zathicatuac icusiren ditut nere animaco bilhur horiec? (64)

(71) Nere biotceco atseguiñaz noiz esango dizut ...? (29)
Noiz nere bihotceco axeginez erranen ahal dut: ... [?] (64)

8.1.2.5. Aurreratzen tarteka ezezko esaldietako aditzak.

Nahiz oro har, Duvoisinek errespetatu egiten dituen Cardaverazen ezezko esaldietako ordenamenduak, zuzentzen edo aldatzen ditu hauek tarteka (beste zenbait aldaketa ere eraginez batzuetan esaldian).

8.1.2.5.1. Inbertitzen, ohi bezala, Cardaverazen inbertsio gabeko ezezko aditzak.

Bai esaldi deklaratibo nagusietan, nola galderetan, edo mendeko esaldietan, behintzat segidako adibideetan (gure ERASKIN IItik):

(72) Bada nere bici gucian, Zu ofenditcea baicic eguin ezdet. (15)
Beraz, Jauna, ¿nere bici gucian damuric baicic ez-darotzut egin? (42)

(73) ..., ceren cer eguinduen, jaquinezduen. (16)
..., ceren ez duen jakin cer egin zuen. (44)

(74) Champon gaisto bat orren erraz emango ez nuen[?] (18)
Sos edo champon gaichto bati ez nioen horren errezki ukho eginen? (46)

(75) ..., ta penaz iltcen eznaz? (20)
... eta damuaren minac ez-nau ithotcen! (49)

(76) ...: lurreco gaucetan consueloric nai ezdet, ... (25)
...: lurreco gaucetan gozagarriric ez dut bilhatu nahi, ... (58)

(77) Dembora guchi batean, bada, orobat cergatic nic ere eguingo ezdet? (27-8)
Nere urthe aphurretan, ¿cergatic bada nic ere ez-dut orobat eginen? (62)

8.1.2.5.2. Aurreratzen, inoiz, ezezko aditz trinkoak.

Nahiz guk adibide nahikoa eskasak bakarrik bildu ditugun aztertutako zatian:

(78) Ló eguiteco dembora ezta au, ... (24-5)
Ez-da hau lo egiteco ordua, ... (57)

(79) ..., ta barcatuzadan jaquin ez. (21)
..., eta ez-dakit heian barkhamenduric badudanetz. (52)

8.1.2.6. Aditz laguntzaileen aurreratzea, aditz jokatu gabeen bidez koordinatutako esaldi sailetan.

Cardaverazek, Larramendik garratz kritikatua, esaldi koordinatu errezkadak(-luze-)ak eman ohi ditu, soilik hauen azken muturreko aditz partizipio nagusiari erantsiaz, dagokion aditz laguntzailea, erlazio atzizkia, ... *Zeugma* praktika hau nahikoa zabala baldin bada ere alde eta aldi guztietako euskaran, esan behar da, batez ere gertatu ohi dela, aditz soilak direnean koordinatzen direnak (*Etorri, ikusi, hartu eta bota du* moduan), apenas konplementurik gabekoak, eta ez, Cardaverazenean hain usu bezala, koordinatzen direnak esaldi oso eta luzeakdirenean, bakoitza bere konplementu sailekin. Egia esan, Larramendik salatutako *iluntasunak* ez dira horrenbeste etorriko prozedimendu beraren kausaz, nola, Cardaverazek errekurtsoa erabiltzen duen esaldien luzeretatik.

Halako esaldi luzexeagoen koordinazioan, ez da zaila aurkitzea gure tradizioan, antzeko prozedura bat, aditz laguntzailea (dagokion erlazio atzizkia, etab.) emanez, koordinatutako lehen aditzarekin batera, eta gero agian atzenekoarekin ere (esaldiaren jarraipen zuzenerako beharrezkoa izan litekeen heinean), tarteko esaldiak utziaz lotura elementu horiek gabe. Prozedurak, batetik, uxatuko du elementuen alferrikako errepikatzea esaldian; bestetik ordea, ez du Cardaverazen sistemak bezainbesteko dislokaziorik eragingo esaldien artean, eta ez du hainbeste galeraziko hauen bapateko ulergarritasuna.

Alderdi honetatik ere aztergarria da Duvoisinen jarrera Cardaverazekiko. Eta askotan errespetatuko badu haren hitz ordenamendua halako koordinazio kasuetan, aldatuko du ere zenbaitetan, saileko lehen aditzari ere erantsiaz, aditz laguntzailea edo erlazio atzizkia.[10] Segidan bildu ditugun adibideak guztiz argiak ez badira ere, bederen erakuts lezakete zuzenketarako joera:

(80) (Misericordia, Jauna, nizaz,) ceren nere culpac ezagutu, ta Zu aimbeste ofendituaz damudedan. (17)
(Urricalmendu, Jauna, nitaz,) ceren ezagutu ditudan nere huxac, eta damu handi dudan zure alderat izan ditudan hoben guciez. (45)

(81) ..., ta orandañoco calteac ezagutu, ta aurrera zuc naizun bezala, nere Salvacioa, bicimodu santu batequin biotz guztitic billatceco. (24)
..., ezagut detzadan orai arteco hobenac, eta hemendic-aintcinera, zuc nahi duzun bezala, nere salbamendua, bici-molde saindu batekin bihotz gucitic bilha dezadan. (57)

(82) ...: Jaincoac bere Seme eguin, ta beti izateco nauca ni? (27)
...: Jaincoac bere seme egin nau eta bethi beretzat iduquitceco chedetan. (60)

(83) (... laguntcen ezbadidazu,) ecin libratu, ta Zugana igoconaiz. (29)
(... laguntcen ez-banauzu,) ecin trencaturen dut nere soca eta ecin iganen naiz zugana. (65)

(84) ..., zu gogotic billatceco, ta biciera santu batez arquitceco. (29)
..., zu gogotic bilha zaitzadan eta aurkhi bicitce saindu baten bidez. (65)

8.1.2.7. Aurreratzen sintagma bururen bat.

Ez dugu aurkitu segidako adibidea besterik guk sakonago aztertu zatian, baina erakusgarria izan liteke, nabarmen zuzentzen duen heinean, Cardaverazen sintagma buru baten atzeratze nahikoa artifiziala (ohizkoa ere bai beregan):

(85) O arriac baño sortuago ceran nere arima! (20)
Oi nere arima, harricotarrac berac baino sorragoa zarena! (49)

8.1.3. Liburu Ederraren erakutsiez eta eraginez.

Duvoisinek Cardaverazen *Afectoei* egin zuzenketak (inoiz ez erabatekoak, ikusi bezala), lehenagoko Moguel, edo Arruerenak bezala, dira, euskal hiztunarengan eragin dezaketen erreakzio normala, Cardaverazena bezalako joskera artifizial baten gordintasunek. Hauek bezalako euskara-euskara itzulpenek gainera, ez dute, erdaren eragin *sorginduen* aitzakiarik. Ez dira horren erraz baztergarri.

Eraberean ordea, Duvoisin bera izango da, *Liburu Ederraren* bidez, Cardaverazen estiloaren (nolabait, *euskal aditzaren balizko ezaugarri pospositiboaren*) lehen aldarrikatzailea, iparraldeko euskaldunen artean, asko eta asko errespetatzen dituen heinean, Cardaverazen hitzen ordenamenduaren berezitasunak. Ez dakigu nolanahi, zein zabaltze, zein eragin eduki ahal izan duen Duvoisinen itzulpenak, batere ezagutza edo arrakastarik gozatu duen bere garaian edo geroago[11]. Egiatan, liburuak ez du beste berrargitalpenik ezagutu gaur egunera arte. Baina, Cardaverazen izen santua batetik, eta Duvoisinena bera bestetik, *Bibleari*, Printzeari, eta *Laborantzako Liburuari* lotuta, badira ere nolabaiteko arrakastaren garantia. Guk ez dugu nolanahi beste joskera *cardaveraztiarrik* ezagutzen iparraldeko tradizioan, Duvoisinen honez gain, oraintsuagora arte (Aita Lhande edo Lafitte beraren gramatika bitarte). Garbi ez edukitzeagatik, ez daukagu sikiera garbi, zein eragin izan lezakeen Cardaverazen idaztankera bereziak, Duvoisin beraren geroagolo lanen estiloan. Beharbada, zeredozer bai. Hurrengo ataletan esan nahi dugu zerbait honezaz.

8.2. Iturriagaren Jolasen itzulpen lapurtarra Duvoisinek egina (1857).

Liburu Ederra argitaratzearen hurrengo urtean, Duvoisinek berriro ekingo dio, orain Bonaparte Printzearen aginduz, lan berri bat itzultzeari, berriro gipuzkeratik lapurterara, eta berriro ernaniar batena: Agustin Pascual Iturriagak lehenengo aldiz 1842an argitaratu zuen: *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de las primeras letras de Guipuzcoa*. Inchausperi aginduta zubererazko itzulpena, Uriarteri bizkaierakoa, ez dakigu zein instrukzio ematen dizkien Printzeak itzultzaileei, edota sikiera batere ematen dien, jatorrizko testuari gorde beharrezko fideltasunaren inguruan[12]. Kontua da, hiru itzultzaileak ere, oro har, estu lotzen zaizkiola Iturriagaren jatorrizko testuaren *hitzez hitzari*, nahiz tarteka hirurek ere erakutsi ordenamendu aldaketa borondatezkoren bat.

Iturriagak, gure tradizio nagusien ildotik, nahiko aurreratuta ematen ditu bere aditzak esaldian, nahiz oro har gorde ere bai, euskarazko «Xà» fenomenoaren berezitasunak. Uriartek tarteka, are gehiago aurreratzen ditu aditzok esaldian, inoiz atera gabe horregatik gure tradizioan ondo jorratutako bideetatik. Ez dago iritzi garbirik egiterik, Inchausperen aldaketa, inoiz ez ugariegien, zentzuaz. Duvoisinenak izango dira hiruretan ugarienak (lan honen ERASKIN IIIan ikus litezke lehen bederatzi *Jolasetakoak*). Hauei begira, pentsa liteke, Duvoisinek ez ote zituen beste itzultzaileek bezain argi, itzulpenean har zitzakeen libertateen mugak. Besteek baino batzuk gehiago hartuko ditu, eta kurioso asko, hitzen ordenamenduaren atalean, batez ere.

Lehen bi jolasetan, aldaketa gehienak izango dira, bitxiki, Iturriagaren aditza atzeratzeko lapurterazko esaldian. Hurrengoetan jada, ugariagoak izango dira Duvoisinek aurreratu ere egingo dituen aditzak. Lehenengo bederatzi jolasetan, kontatu ditugu 29 kasu bederen, aditz atzeratzearenak. 21 ere bai nolanahi aurreratzeenak. Beste kasu batzuetan, Duvoisinek jiratu bakarrik egiten ditu Iturriagaren zenbait esaldi, aditzaren aurrera eramanaz Iturriagak ondoretik ematen zuena, eta alderantziz. Zail da hala, joera nagusi bakar bat sumatzea Duvoisinen aditz mugimendu hauetan, nahiz guri beti gertatzen zaizkigun bitxiagoak aditz atzeratzeak, lapurteraren tradizioari begira, edota Duvoisin beraren ondoreko lan mardulagoen estiloari. Izateez gerotan, atzeratze hauetan neurtu beharko litzateke, Cardaverazen eragin posiblea, Duvoisinen ondorengo prosan.

8.2.1. Atzeratzen (eta aurreratzen) baiezko esaldi nagusi deklaratiboetako aditzak.

Cardaverazen tradizioan, aditzak atzeratzeko joera nabarmena erakusten du Duvoisinek lan honetan, edo bederen guk sakonago aztertu ditugun lehen 9 *jolasetan*. 12 kasu ere kontatu ditugu, aditz trinko edo konposatuz osatutako baiezko esaldi nagusi deklaratiboen artean, nahiz zenbaitetan aditzaren gune aldaerak, oso handiak ez izan. Segidan jasotzen ditugu adierazgarrien batzuk, gure ERASKIN IIItik:[13]

(86) Gaur itz eguin bear dizut erleen gañean. (10)
Egun erleez mintzatu gogo natzaitzu. (Inch.)

(87) Guero, aotic arguizaguia botaz, dijoaz abarasca eguiten. (12)
Guero, ezcoa ahotic goiti itzultzen duten arabera, brescaren eguiten haritzen dira.

(88) Abarasca eguiña dagoan orduan, betetzen dituzte onen chuloac eztiz. (13)
Bresca eguin dutenean, orrace-chiloac eztiz bethetzen dituzte. (Inch.)

(89) Icuste ona bear da eguzquitan ateratzeco ere. (24)
Hura iguzkitan ere atheratzeco begui ona izan behar da.

(90) Arrac eta emeac dira umeac acitzeco, ... (30)
Arrac eta emeac ume eguitecotzat dira, ...

(91) Luma gabeco egoac dituzten animalichoac jayo eta acitzen dira ingumac bezala. (30)
Hegaldun eta hegax gabeco marmutzac pimpirinac bezala sortzen eta handitzen dira.

8.2.1.1. Aurreratzen ere bai ordea tarteka, esaldi deklaratiboetako aditz nagusiak.

Goiko adibideen bistara, pentsa liteke Duvoisin ere ez ote den ari, Altuberen *galdegai erregela* aplikatzen, eta zuzentzen, Iturriagaren esaldiak. Lehen 9 jolas bereetan ordea, aurki litezke beste sei kasu bederen, aditz trinko eta konposatuen artean, non Duvoisinek, alderantziz, aurreratu egiten duen Iturriagaren aditza, hautsiaz nabarmen (batzuetan Inchauspe eta Uriarterekin batera), Iturriagak kasuan bai bete bide zuen Altuberen legea. Hala behintzat segidako esaldiotan (ERASKIN IIItik):

(92) Muturra cherriarena becelacoa du. (19)
Muturra du cherriarena bezalacoa.

(93) (Guc guztioc eguingo baguendu erleac eguiten dutena,) aingueruac becela bicico guiñaque. (27-8)
(Guc guciec eguin baguineza erleec eguiten dutena,) bici guindaiste aingueru batzu bezala. (Inch., Uri.)

(94) ..., baña guero atzeco bi zangoacquin quentzen dituzte. (31)
..., bainan guero khentzen dituzte guibeleco bi zangoez. (Inch., Uri.)

(95) Bizquitartean ciquinqueriatic datocela esaten dute. (34) Diote bizkitartean cikhinkeriatic heldu direla.

(96) Algodoya arbolchiqui baten coscoan arquitzen da gaztaña morcotzean bezala: ... (39) Cotoina arkhitzen da zuhamuchka baten cuscuan gaztaina kharloan bezala: ... (Inch, Uri.)

8.2.2. Aditz atzeratze eta aurreratzeak mendeko esaldietan.

Nagusietan bezala, aurreratu bezainbeste atzeratzen ditu Duvoisinek mendeko esaldietako aditzak, jokatu edo jokagabeak, zeinnahi motatakoak. Lehenik, atzeratze adibide batzuk (ERASKIN IIItik):

(97) (Onen vistan ez da gaitz sinistea) piztuco guerala gu ere egunen baten len baño ederragoac. (8) (Hau ikhusi eta ez da gaitz sinhestea) egun batez gu ere berriz pizthuren garela aintzinean baino ederragoric.

(98) (Ori orrela bada,) ez degu cer errencuratu gure biciaren laburtasunaz. (9) (Hori hola bada,) ez dugu gure biciaren laburtasunaz arranguratzecoric.

(99) (¿Eta ez zaitu choro biurtzen) icusteac gure odol biurtcen guc jaten ditugun gauzac? (14) (Eta etzaitu zoratzen) guc yaten ditugun gauzac gure odol biurtzen ikhusteac?

(100) Orra non munduan diran gauzaric baliosoenac zor zaizcaten animalicho batzuei. (22) Horra nola munduco gauzaric baliosenac animale cheetto batzuei zaizcoten zor.

8.2.2.1. Aditz aurreratzeak mendeko esaldietan.

Atzeratzeak bezain esanguratsuak izan litezke ordea aditz aurreratzeak, segidako adibideetan ikus litekeen bezala (ERASKIN IIItik):

(101) (¡Cer! ¿ez da choratzeco gauza) lorearen gañean dagoan iriña arguizagui biurtua icustea? (13) (Cer! ez othe da zoratzeco dina) ikhustea lore hostoco herrauxa ezco bilhacatua?

(102) (¡Norc esango luque) erregue erreguiñen apainduriac oyei zor zaizcatela! (22) (Norc erran lezake) haukiei zor zaizcotela erregue eta erreguinen edergailuac!

(103) (Arritu ciñan joan dan egunean) cembat on aberecho batzuei zor diotegun icustean? (26) (Miresten cinduen iragan egunean) ikhusteaz cembat on diozcategun zor abere chehe batzuei. (Inch., Uri.)

(104) ..., jan gauzaric barrenean senti badute, ... (31) ..., usmatzen badute yatecoric barnean, ... (Inch., Uri.)

8.2.3. Beste mugimendu batzuk aditz nagusietan.

8.2.3.1. *BA*- aurrizkidun aditzak.

Duvoisinek atzeratzen du inoiz, *Ba*- aurrizkidun aditz trinkoren bat (ezer asko ez bada ere):

(105) Bada, dan becin chiquia izanic, baditu cigarrac gorputzaren parte guztiac. (24) Bada, cembat ttipia izan dadien, cigarrac baditu gorphutzaren alderdi guciac.

Eraberean aurki genezake aditz trinkoren bat esaldi hasieraraino aurreratuta, *Ba*- aurrizkia erantsirik:

(106) Asco chingurri mueta dira: ... (29) Bada asco chinhaurri mota: ... (Inch.)

8.2.3.2. Aditz laguntzaileen zenbait aurreratze eta atzeratze.

Duvoisinek aurreratu bezainbeste atzeratzen du, Iturriagaren aditz laguntzaileen gunea nagusiarekiko. Ez bakarrik aurreratu, iparraldeko(-edo) tradizio modu batean. Aurki ditzakegu segidakoak bezalako aurreratzeak:

(107) ..., eta chacur bati zor zayo. (20)
..., eta zakhur bati diogu zor.

(108) ..., ceren mascor asco bildu bearco da soñeco bat gambusitzeco. (21-2)
..., ecen hainitz machkor beharco da bildu soineco baten thindatzecotzat. (Inch.)

(109) Orra non munduan diran gauzaric baliosoenac zor zaizcaten animalicho batzuei. (22)
Horra nola munduco gauzaric baliosenac animale cheetto batzuei zaizcoten zor.

Baina baita ere atzeratzeak, beharbada bitxiagoak gerta litezkeenak, segidakoak bezalakoak, non Duvoisinek "zuzendu" egiten dituen Iturriagaren "inbertsioak(-edo)":

(110) Bai garestiac [sic] bear du izan, ceren ... (21)
Bai, garastia izan behar du, ecen ... (Inch.)

(111) ...: bear ditu ere izan guibela, barea eta guiltzurriñac. (24)
...: izan ere behar ditu guibela, barea eta geltcurrinac.

(112) Aren odolac bear du ibilli gureac bezala gorputz guztitic. (24)
Haren odolac gureac bezala ibili behar du gorphutz gucia gaindi. (Uri.)

Adibideon parean eman liteke segidakoa, non Duvoisinek (eta Inchauspek) Iturriagaren gune berean mantenduz aditz laguntzaileak, hark baino atzerago ematen duten biek aditz nagusia:

(113) Bear da ere orrazatu egun oro. (34)
Behar da orobat egun oroz orraztatu. (Inch.)

8.2.3.3. Ezezko esaldiren batzuk mugitzen.

Duvoisinek atzeratzen, eta aurreratzen ditu ere inoiz, ezezko esaldietako aditzak. Hala atzeratzen (zertxobait bederen) aditz trinko bat:

(114) Ez da Indietara joan bearric seda izateco. (4)
Seda izateco ez da Indietara goan beharric.

Hurrengoan alderantziz, zertxobait aurreratzen:

(115) Atza, ezcabia eta beste asco miñ arrac besteric ez dira. (33-4)
Zaragarra, ezcabia eta bertze asko eritasun ez dira bertzeric ecen harrac. (Inch.)

Duvoisinek inoiz atzeratuko du Iturriagaren ezezko esaldi bateko aditz nagusia, dislokatuaz hau aditz laguntzailearen ondotik:

(116) ¡Cembat bider, eri gaudenean, ez guera egoten gueroc ere illabete osoetan ecer artu gabe! (30)
Cembat aldiz, eri gaudecinean, ez gare guerorri hilabethe osoac deusic hartu gabe egoten!

Eta inoiz egingo du alderantzira ere, dislokazioa hautsiaz, eta laguntzailearen ondoraino ekarriaz aditz nagusia. Hala behintzat segidakoetan:

(117) ..., ez nintzan arguizaguiaz oroitzen. (10)
..., ez nintzan orhoitzen ezcoaz. (Uri.)

(118) ¡Cembatec ez diote euli oyei zor osasuna! (17)
Cembatec uli haukiei ez diote zor beren osasuna!

Inoiz ere emango du ohi bezala inbertitua (Inchauspek eta Uriartek ere bai bezala kasuan), Iturriagak aldiz inbertsiorik gabe emandako ezezko aditza:

(119) ¿Nola iltzen ez dira? (29)
Nola ez othe dira hiltzen? (Inch., Uri.)

8.2.4. Esaldi osoen jiratzeak.

Beste zenbaitetan, Duvoisinek ez du egingo, aditzaren aurrera eraman baino, Iturriagak ondoretik ematen duena; eta alderantziz. Ez da batere argi geratuko zein izan litekeen jirabueltaren arrazoia (baina ez behintzat galdegai legerik edo antzekorik). Halamoduzkoak dira, segidako esaldi nagusi, eta mendekoetako, adibideak:

(120) Mascorraren barrenen arquitzen da itsasoan. (22)
Ixasoan aurkhitzen da machkor baten barnean.

(121) (Badira animalichoac) beren arraultzac ifintcen dituztenac frutaren gañean. (32)
(Badira marmutchac) fruituen gainean eguiten dituztenac beren arroltzeac.

(122) Gure azqueneco jolasean pensatzen egondu naiz joan dan arrats guztian. (36)
Goan den gau gucian gogoetan egotu naiz gure azken aldico solasaz.

8.2.5. Beste partikula zenbaiten mugimendu batzuk.

Duvoisinek, aditzarenaz gain, mugitzen du inoiz Iturriagaren beste lokailu batzuren gunea ere esaldian. Batzuetan aurreratzeko, besteetan atzeratzeko, zail dirudi sumatzen, mugimenduen arrazoi bideak. Hala nola mugitzen diren, adibidez segidako hiru esaldi pareetan, *behintzat* eta *berriz* lokailuen guneak:

(123) Cherriac beintzat ez. (34)
Urdeac ez behintzat. (35)

(124) (¿Cergatic ez?) otzic eta bero aundiric eguiten ez badu beintzat. (41)
(Cergatic ez?) behintzat ez hotz handiric ez bero handiric eguiten ez badu. (Uri.)

(125) Elcho pozoitsuac datoz berriz ur usteletic. (37)
Ulitcha phozoindunac berriz heldu dira ur usteletic. (Inch.)

8.3. Laborantzako Liburua (1858), gure tradizio hoberenaren ildo zabalean.

Jolasen hurrengo urtean argitaratzen du Duvoisinek Bonaparteren laguntzaz, *Laborantzako Liburua*, bere lanik propioena, zuzenean euskaraz sortua, eta ez itzulpena, beste lan gehienak bezala. Didaktika freskoa, argia eta arina, *Liburu Ederra* argitaratzetik bi urtera, Iturriagaren itzulpenaren hurrengoan, merezi du ezagutzea, zein ezaugarri erakusten dituen *Laborantzako Liburuak* hitzen ordenamenduaren alorrean.

8.3.1. Ba ote da aditz atzeratze artifizialen arrastorik Duvoisinen prosa propioan?

Bada agian halako arrastorik *Laborantzako Liburuan*. Baliteke, Duvoisinek, gure tradizio nagusian baino zertxorenbait gehiago atzeratzea aditza *Laborantzako Liburuaren* zenbait esalditan. Oro har ordea, esaldi nahiko laburrak, zeinetan edozein euskaratan ere ohizkoa den eta izan den, aditzak esaldi amaiera aldeko gune bat erakustea, euskarazko «Xà» fenomenoaren ezaugarrien karietara. Bere prosa propioan ordea, Duvoisinek ez du inoiz erakutsiko cardaveraztiarren ohizko diren gordintasunak hitzen ordenamenduan, edota bere *Liburu Ederreko* propioen antzekoak. Ez esaldi luzeetan, aditza artifizialki atzeratuaz; ez ezohizko etenak erakutsiaz, artifizialki aurreratutako galdegai bat eta atzeratutako aditzaren artean; eta oro har, ezta ere, ohizko neurriez kanpo atzeratuaz mendeko esaldietako aditzak,

galderetakoak, ezezko esaldi, edo aginteretakoak; ezta ere inbertsiorik gabe emanez, ezezko esaldietako aditz perifrastikoak.

8.3.1.1. Zalantzazko adibide cardaveraztiarrik Laborantzako esaldi nagusietan?

Beharbada suma liteke, aditz atzeratze arrastoren bat, *Laborantzako Liburuan*. Segidan esaldi nagusi batzuk, denak ere nahikoa laburrak beti, beharbada atzeratze usainen bat bederen eman lezaketenak:[14]

(126) Gure tokietan maiz uria da, ... (49)

(127) Horrengatik Frantziako asko tokitan hedatzen hari da. (56)

(128) Ez bakharrik herritik herrira, bainan etxetik etxera gaitzeruak desbardinak dira. (67)

(129) (Gizonak hatsa ez du aski bizitzekotzat;) jan eta edan dezan premia da. (71)

(130) (- Uste duzu abereek on duten othe joa? / - Segurki.) Bazka merkeena hura da. (81)

(131) (Eta hiratzerik ez bada?) Othe xehe, artho khuzkur, belhar, lasto, phorroska guziak on dira. (105)

(132) (Beraz, nausia ohartzen denean artzain nagia eta axola gutikoa duela, laster eman beza kanporat.) Laburrenik eta hobeenik hori du. (147)

(133) Gizentzekoek maiz edatea on dute ... (149)

(134) Damu den bezala xarak tratatuak dira gure herri aldean. (186)

Bada joskera bitxirik adibide hauen artean, are etenen bat ere esaldiko galdegaia eta aditzaren artean, oro har hala ere, antzeko adibide guztiak, beren laburrean, ez dira froga garbiegiak, Duvoisinen cardaveraztiartasun garatu baten mesfidantza izateko 1858an[15].

8.3.1.2. Beste adibide (cardaveraztiar?) batzuk ere, Duvoisinen beste lanetan.

Beti adibide urri eta eskasak izan arren, aurkitu litezke beste zenbait joskera bitxi oraindik *Laborantzako Liburuan* (LL, aipuetan); edo 1884-5ean argitaratzen dituen kontakizun folklorikoetan, *Les Sept Fleurs de Baïgorry ...* titulupean (BZL; bere euskarazko beste sorkuntza lan propioa?); baita ere 1830ko hamarkadan itzultzen hasitako *Telemakeren Abenturen* itzulpenean (TU).[16] Hala adibidez, Duvoisinek inoiz galdera hautsiren bat ematen duenean (bakarra *Laborantzako Liburu* osoan):

(135) Zertako baratze hartako ogiak ekhartzen du horrenbertze buru eta landakoak horren guti? (LL.55)

(136) Zertako harotzari eman diok uztar, burdinazko zapatak ezartzen zaizkikanean? (BZL,33)

Inoiz ere aurki liteke, nahikoa ohituraz kanpora atzeratutako aginterazko aditzen bat (nahiz ohituraz hauek eman esaldi aurrealdean, euskara guztietan ohi bezala):

(137) Lur onean uzta txarra altxatu duenak hazia laster alda beza. (LL,59)

Baita ere inoiz aditza eta galdegilea, batera, hainbat atzeratutako galderaren bat (nahiz artean nahikoa usuzko modu batean izan):

(138) Eskal herriko ogietan zein da hobeena? (LL,58)

Edota segidako ezezko esaldi biak ere, beharbada ohi baino atzerago erakusten dutenak beren aditz trinkoa:

(139) Han laborantza gehienek eta aberatsenek larrerik ez dute. (LL,94)

(140) Pinpirrina ez haiz; ... (BZL,32)

Beharbada garbiago, Duvoisinek inbertsiorik gabe ematen dituen segidako ezezko aditz konposatuak (bakarra *Laborantzako Liburuan*).

(141) Ez larderia gaixtoek, ez balaku enganagarriek azpiratu etzaituzte. (LL,39)

(142) Haren izenaz baliatuz, zenbat tzarkeria eginen ez dute! (BZL,30)

Antzeko adibideren bat ere aurki liteke Duvoisinen gaztaroko *Telemakeren* itzulpenean (beharbada ez argiegia):

(143) ...: bainan leku eder heiek, urrun gozatzerik haren oinazea, mintzen baizik etzioten Ulisen orhoitzapen erdiragarria, zoina ... (TU,13)

Aurki litezke guzti hauen antzeko adibideak, maizago ere bai segurasko, Duvoisinen *Biblearen* itzulpenean, baina ez ditugu hemen jaso nahi izan, baldintza bereziak dituelako, *Bible*-koa bezalako itzulpen sakratu batek (ik. honen inguruan saio honen 4. atala).

8.3.2. Tradiziozko hitz ordenamendua (aditzen aurrealdeko guneak), Duvoisinen Laborantzako Liburuan.

Aipatu adibideak gorabehera, Duvoisinen *Laborantzako Liburuaren* ezaugarri nabarmena da, aditza oro har, aurreratua erakustearena esaldietan, gure tradizioan ohizkoak diren moldeetan. Duvoisinen aditzek, oro har ongi beteko dituzte euskarazko «Xà» fenomenoaren ezaugarriak. Baina bestetik, Duvoisinek oso maiz erakutsiko ditu esaldietako galdegaiak aditzen ondoretik, eta are maizenik ere esaldi edo galdegai batere luzeen kasuan. Duvoisinek gainera, nahikoa maiz erakutsiko ditu, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak, nahiz galdegia nabarmen asko eraman ondoretik; eta tarteka aditz trinko gutxiren batzuk ere bai zuzenean esaldi hasieran buruzuri. Azkenik Duvoisinek ez du inolako eragozpenik izango, komeni bezala hautsita emateko ere, zeinnahi klasetako mendeko esaldi.

8.3.2.1. Duvoisinen galdegaiak aditzaren ondoretik.

Laborantzako Liburuan Duvoisinek maiz asko emango ditu esaldiko galdegai nabarmenak aditzaren ondoretik. Maizenik ere bai, galdegai hauek batere luzeak diren orduko. Baina baita beste askotan ere galdegai laburrak izan arren, gehiago azpimarratuaz hala hauen fokalizazioa. Adibideak nahi adina aurki litezke liburuaren zeinnahi pasartetan; eta gure ADIBIDETEGIAN, nondik segidakoak, erakusgarri:

(144) Eskaldun zure herritarrek aspaldidanik dakite berei ekhartzen diozuten amodioa. (39)

(145) Guzien artetik bihurtu zare bethi bat gugana. (39)

(146) Aria hortaz, nik ere eskaraz ezarri ditut laborantzaren gaineko argitasun batzuek, ... (39-40)

(147) ..., bizi gareno, haren eskutik ditugu bizia eta bizitzekoa; ... (41)

(148) Egun oroz ikhusten da aberatsa nahigabez, khexaduraz eta gaitz-eritasunez zaurthua. (42)

(149) Eta Jainkoak ematen dio barneko bakea. (42)

(150) Jainkoa da aita bat bere umeak ahanzten ez dituena. (42)

(151) Jainkoak estaltzen du lurra ogiz eta arthoz, oihanez eta aziendaz. (42)

(152) Zeruko ihintzak eragiten ditu uztak eta errekoltak. (43)

(153) Laborarien on guziak heldu dira hiru gauzetarik: bihitik, aziendatik eta arboletarik. (45)

(154) Bihia da janharirik premiena gizonentzat ... (45)

8.3.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Duvoisinengan ere ohizkoena izango bada, aditzak gehienean agertzea, «Xà» moduko egituretan, hainbat maiz ere emango ditu aditzak zuzenean esaldi hasieran, nahiz esaldiko galdegaia nabarmen eraman ondoretik. Hau ez da gertatuko bakarrik *entendimentuzko* aditzekin, nahiz orduan maizago izan. Bildu dugu gure ADIBIDETEGIAN adibide ugari, nondik batzuk erakusgarri:

(155) Iragan dituzu zelhai aberatsak, mendi gogor, itsaso, mortuak. (39)

(156) Ezagutzen ditugu, berriz, hainitz nekhazale onthasunik ez dutenak, ... (42)

(157) Lanthuko duk lurra ... (44)

(158) ...; ematen darokute mozkina iletik, bildotsetarik, aratxetarik eta salpenetarik. (45)

(159) ..., erran nahi da ongarria eta luhumenda, ... (48)

(160) ..., higitzen da ongi phala batekin, ... (60)

(161) Bainan ohartzen naiz gaurkotzat beranduegia dela xehetasun hortan sartzeko eta uzten dut biharko. (64)

(162) Hasiko naiz Baiona aldetik eta iraganen naiz Eskal-herri guzia gaindi. (65)

(163) ... eta erain behar dira 56 libera hazi. (65)

(164) ...; ematen du aihen, hosto eta fruitu. (72)

8.3.2.2.1. Aditz trinkoak zuzenean esaldi hasieran.

Ez ditu Duvoisinek ugariegi ematen, euskarazko ohizko «Xà» fenomenoa erabat hausten duten egitura modu hauek *Laborantzako Liburuan*. Guk ez ditugu 14 kasu baino aurkitu liburu osoan, zeinetako13 diren, *diote, diozu* adizkienak, eta bat *nago*-rena, erabilia, entendimentuzko aditz bezala. Segidan batzuk, erakusgarri:

(165) Diozu alibrea erainen dugula. (79)

(166) Diote hamabi erregu ogi ematen dituen landak emanen dituela hamazazpi. ... (88)

(167) Diote ere drainatzeko gastuak estaltzen direla bi urthez ... (88)

(168) (Ai, ene semea,) nago heian buru gogorra duzunetz. (95)

(169) Diozu ez duzula ikhusten arbola jorratzerik. (178)

8.3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak Duvoisinen prosan.

Ezin ugariagoak dira, zeinnahi euskal tradiziotan bezalatsu, Duvoisinek hautsita ematen dituen mendeko esaldiak, konplementuak erakusten, aditza eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen ondoretik, idazlearen egitura komunikatiboei komeni bezala. Zenbaitetan mendeko esaldi hautsi hauetako aditza zuzenean emango da esaldiaren hasieran. Beste zenbaitetan berriz, mendeko esaldiak erakutsi ahal ditu konplemementuak aditzaren ondoretik, are honi erantsitako erlazio atzizkia osatua baldin badago ere hitz independienteren batez. Nolanahiko adibideak ugariak dira liburuaren zeinnahi ataletan, gure ADIBIDETEGIAN ikus litekeen bezala, nondik segidakoak:

(170) (... eta hitz darotzut) ahalaz eginen dudala zure atsegina. (41)

(171) Guk erainagatik bihia, ... (42)

(172) ..., jakitekotzat zertaz diren eginak. (47)

(173) (Guthartean bada asko indiano Ameriketarik ethorririk,) erran dezaketenak aurkhintza hetan egiten duela uria berrogoi eta hamar bat egunez lerroan ... (48)

(174) Bainan biltzekotzat bihi, (noiz eta nola lanthu behar du lurrak?) (49)

(175) ... ikhusten bazinitu bi edo hiru idi pare, ... (51)

(176) ...; ahal balitz, herrautsa bezala egin, ... (51)

(177) ...; buru bakotxak dituelarik hogoi eta hamar, berrogoi bihi. (56)

(178) Ohartzen garenean norbaitek guk baino hobeki egiten duela, ... (56)

(179) ..., khendurik zikhin guziak ongi ... (59)

(180) ..., neurri berak ezarri dituztenean erresuma guzikotzat. (64)

(181) Jakinez geroz haren phisua, ... (72)

(182) ..., nahi denean zerbait onik egin. (80)

(183) (Badira behiak) dituztenak buztan azpian bi aldetarik, eskuin eta ezker, bi izar ttipi edo bat bakharra. (139)

8.3.2.3.1. Erlatibozko esaldiak beren izen buru mugagabearen ondoretik.

Duvoisinek, euskarazko tradizio guztietan bezala, maiz ematen ditu erlatibozko esaldiak beren buruen ondoretik, aposizio modura, bietan errepikatuaz modu beretsuko deklinabide atzizkiak:

(184) (..., non da) jendaki argitu edo salbaia zuk ikhusi ez duzunik? (39)

(185) (Ezagutzen ditugu, berriz,) hainitz nekhazale onthasunik ez dutenak, ... (42)

(186) Jainkoa da aita bat bere umeak ahanzten ez dituena. (42)

(187) (...; erran ere baditake badela laborarien artean) eraile txarrik, beren lana ezagutzen ez dutenik (68)

Tarteka ordea, ematen ditu zenbait erlatibozko esaldi, bere buru mugagabearen ondoretik (nahiz askoz gutxiago izan), segidakoen modukoak (gure ADIBIDETEGITIK):

(188) ... eta laborari bazkarik ez duena (segur da erromes izateaz.) (86)

(189) Artho kapetatzen dena (ala artho zohituaren khuzkurra laizteke hobeago?) (89)

Eraberean aurki ditzakegu antzeko egiturak, erlatibozko aditza jokatugabe daramatenak, ohizkoagoak tradizio guztietan:

(190) (... eta egun berean bertze bat) hazi bertze moldez antolatuarekin. (60)

(191) (... erran darotzut) mendi arbolez gabetuak agortzen direla. (164)

8.3.2.3.2. Erlatibozko esaldi biziki berezi bat.

Atala bukatzeko bitxitasun kurioso gisara, merezi du jasotzea behintzat segidako esaldia, non Duvoisinek, bitxiki asko, erlatibozko esaldiaren konplementu bat tartekatzen duen, honen erlazio atzizki *-(e)n*, eta buru *baino*-ren artean. Esaldia bitxikeria da:

(192) Izan gaitezen garen orai arteo baino atzarriagoak; ... (98)

8.4. Duvoisinen Biblearen itzulpenaz (1859-1865).

Laborantzako Liburuaren ondoren, Duvoisinek sei urte luze emango ditu Printzearen aginduz, *Biblearen* itzultzen, latineko *Vulgatari* jarrai. *Laborantzako Liburuan* bezala, edozein orrialdetan ere, ezin ugariagoak izango dira lapurterazko itzulpen eder honetan, zeinnahi klasetako mendeko esaldi hautsiak, galdegaia aditz ondoretik nabarmen erakusten duten esaldi nagusiak, edota zuzenean aditzaz hasitakoaak. Kontutan hartzekoa da nolanahi, latineko *Vulgata* (bederen guk parekatu ditugun liburuetan), dela testu bat, aditza nahikoa eta oso aurreratua ere ematen duena esaldian, oro har; ez atzeratua, beste garai edo autore zenbaiten testu latinek bezala. Duvoisinen itzulpenaren inguruan gainera, eduki liteke kontutan, nola itzulpenak ez duen, hasiera beretik, helburu *zientifiko* bat baino, Duvoisin berak aitortzen duen bezala, E. Lardapideri egin gutun batean (1864 urte inguruan; *RIEV*, XIX, 1928, 465 or.):

Un but purement scientifique, voilà l'unique cause de la traduction de la Bible en basque. Ce travail est destiné aux savants qui s'occupent aujourd'hui, en bon nombre et avec ardeur, de l'étude des langues. C'est pourquoi l'édition en est restreinte; ...

Helburu zientifiko hori dela eta, Duvoisinek agidanean argiago du bere jardunbidea *Biblearen* itzulpenean, Iturriagarenean baino. Bederen hala aitortzen du berak behin eta berriro, nola bere asmoa eta bere bidea izan den beti, ahalik eta itzulpenik zehatzena egitea, *hitzez hitz* ere segiaz jatorrizko testua, euskarak hori ahalbideratzen zion guztian. Hala adibidez nola Printzeari, *Biblearen* itzulpenaren lehen zatiaren igortzearekin batera (X. Diharcek argitaratu bezala emango dugu, berak idatzi digunez, «*Belokeko agerkari batean*», zeinen fotokopia besterik ez dugun lortu):

Dès le 1er. avril 1859, Duvoisin écrit de Bardos à Louis-Lucien Bonaparte en lui expédiant la moitié de la Genèse: / «Bardos 1er. avril 59 / Voici le premier fruit de mon travail sur la Bible... Sans avoir cherché à être littéral, je suis cependant resté tel, préférant sacrifier, en plus d'une occasion, mon goût particulier à la prudence extrême qui a fait prévaloir la méthode des traductions au pied de la lettre...»[17]

Duvoisinek modu beretsuan zehazten zituen bere asmoak 1864ean Jaun Fouquier-i egiten dion gutun batean (*RIEV*, XIX, 1928, 463 or.):

La traduction de la Bible ..., attendu qu'on exige qu'elle soit textuelle, et, comme l'on dit, *au pied de la lettre*.

Duvoisinen lan moduei buruz, Bibliaren inguruan, eman lezake argi piska bat, berak 1860ko eskutitz batean Printzeari egiten dion aitorpenak (RIEV, XIX, 1928, 63 or.): «*l'exactitude scrupuleuse est mon idole*», nahiz kasuan zehatz ari den *Biblearen* inprimategiko erratez.

Duvoisinen *Biblea,* guri ere Mitxelenak kalifikatu moduan iruditzen zaigu (*Historia de la literatura vasca*, Madrid, 1960, 129 or.): *«una excelente traducción labortana de la Biblia»*. Ez dugu halaz guztiz bertako adibiderik jaso nahi izan, Duvoisin berak aitotutako itzulpen estuaren kausaz. Nahiz ez dugun uste, bertan, oso ezaugarri desberdinik aurkitzen dugunik, *Laborantzako Liburuan* aurkitu dugunetik, hitzen ordenamenduaren eremuan, nahiz hau duda gabe izan *Biblea* baino «*espontaneoagoa, fresko, eta naturalagoa*» (Villasantek dioen bezala, *HLV*, 1979, 190 or.).

8.4.1. Duvoisinen Biblea eta Vulgataren arteko alde handiak hitzen ordenamenduan: Duvoisin, latinaren uztarpetik kanpo.

Duvoisin beraren aitorpenak gorabehera, ez dugu uste honen *Bibleak* inola ere merezi lezakeenik, P. Lafittek 1958an egozten dion deskalifikazio garratzik, *Laborantza* eta *Liburu Ederra* goraipatzen dituen bitartean, dioenean («Biblea Eskual-herrian», *Euzko Gogoa*, 1958, 496 or.):

Vulgata latinetik bihurtua zen Duvoisinen Biblea; hitzez frango joria; bainan eskual usaina xuhur. Irakur idazle beraren *Laborantza* eta *Liburu ederra:* ikusiko duzue nola bere jitezko eskuara erretx, malgu, zaloin eta gozoa, gogortu eta bihurdikatu zitzaion latinaren uztarpean.

Hasiera hasieratik, zeharo eztabaidagarria da, Duvoisinen *hitzez hitzezko* jarraipen itsuaren ustea *Vulgata* latinarekiko, eta *latinaren uztarpe* ibiltze hori, hitzen ordenamenduaren alorrean. *Biblearen* lehen esaldi beretik aurki litezke, *Jenesan*, lehen desberdintasun nabarmenak bi testuen hitzen ordenamenduen artean. *Vulgataren* ezaugarri bada ere aditzen aurre gunea esaldian, Duvoisin ez da besterik gabe makurtuko horretara. Kontaezinak dira, Duvoisinek euskaraz aditza atzeratzen dien esaldiak. Baina atzeratzeak ez dira erabatekoak. Duvoisinek oso maiz segiko du horregatik, esaldietako galdegaiak maiz ematen aditzen ondoretik. Askotan, pentsa daiteke, Duvoisinek aditza atzeratzen ote duen esaldian, honek nolabait osatu arte ohizko «Xà» egitura bat bere aurreko elementu laburren batekin. Hortik aurrera Duvoisinen aditzak ez dira, oro har, askoz gehiago atzeratzen esaldian. Tarteka nolanahi, Duvoisinek, aurreratu ere egingo ditu aditzak euskaraz, latinezko testuaren aldean, eragozpenik gabe. Segidan jasotzen ditugu halako

aldaketa batzuk. Lehenik *Jenesaren* lehen kapituluko lehen zazpi bertset soilei dagozkienak (zenbatuak)[18]:

(193) In principio creavit Deus cœlum et terram. (1)
Hastapenean, Jainkoak ezdeusetarik egin izan zituen zerua eta lurra.

(194) Dixitque Deus: ... (3)
Eta Jainkoak erran zuen: ...

(195) Et facta est lux. (3)
Eta argia egina izan zen.

(196) Et vidit Deuslucem quod esset bona: ... (4)
Eta Jainkoak ikhusi zuen argia ona zela, ...

(197) Appellavitque lucem Diem, ... (5)
Eta argiari izentzat eman zioen eguna, ...

(198) ...: Factumque est vesperè, et manè, dies unus. (5)
Eta arratsetik eta goizetik egina izan zen egun bat.

(199) Dixit quoque Deus: ... (6)
Jainkoak erran ere zuen: ...

(200) ...: Fiat firmamentum in medio aquarum: et dividat aquas ab aquis. (6)
Ortzia izan bedi uren erdian, eta urak uretarik berez betza.

(201) Et fecit Deus firmamentum, ... (7)
Eta Jainkoak egin izan zuen ortzia, ...

(202) ..., divisitque aquas quæ erant sub firmamento, ab his, quæ erant super firmamentum. (7)
..., eta ortzi gainaldeko urak azpialdean zirenetarik berezi izan zituen.

Antzeko adibideak ez dira bakarrik gertatzen itzulpenaren hasieran. Segidan jasotzen ditugu, *Lebitikoaren* lehen kapituluko lehen sei bertsetei (zenbatuak) dagozkien aldaketak (Duvoisinen *Biblearen* 99 or.):

(203) Vocavit autem Moysem, ... (1)
Bada, Jaunak Moise deithu zuen, ...

(204) ..., et locutus est ei Dominus de tabernaculo testimonii, dicens: ... (1)
..., eta lekhukotasuneko tabernakletik mintzatu zitzayoen, erraten zioelarik: ...

(205) Homo, qui obtulerit ex vobis hostiam Domino de pecoribus, ... (2)
...: Zuetarik norbaitek Jaunari eskainiko dioenean aziendetarik bitima bat, ...

(206) ..., de bobus et ovibus offerens victimas, ... (2)
... idi edo ardietarik bitimak eskaintzean, ...

(207) Si holocaustum fuerit ejus oblatio, ac de armento; ... (3)
Haren eskaintza holokausta balimbada eta abere gorrietarik,...

(208) ..., ad placandum sibi Dominum: ... (3)
..., bere alderat jabalarazteko Jauna: ...

(209) Ponetque manum super caput hostiæ, ... (4)
Eta eskua ezarriko du bitimaren buruaren gainean, ...

(210) Immolabitque vitulum coràm Domino, ... (5)
Eta aratchea Jaunaren aitzinean imolatuko du, ...

(211) ..., et offerent filii Aaron sacerdotes sanguinem ejus, ... (5)
..., eta Aaronen seme aphezek eskainiko dute haren odola, ...

(212) Detractàque pelle hostiæ, ... (6)
Eta bitimari larrua khendu ondoan, ...

(213) (Detractàque pelle hostiæ,) artus in frustra concîdent, ... (6) (Eta bitimari larrua khendu ondoan,) puskatuko dituzte haren membroak.

Halako aldaketen bistara, zail da besterik gabe onartzea, Duvoisinen *erabateko uztarpetzerik latin ereduari*. Besterik da, Duvoisinen joskera ongi lotzen zaion, gaurko postulatu nagusiei. Guk ez dugu gure azterketa askoz haratago eraman. Baina ez litzateke alferrikoa izango.

8.4.1.1. Alderaketa txiki bat Duvoisinen Don Kixoteren itzulpenaren inguruan.

Beste lan askoren artean, Duvoisinek ekin zion (1870-80 hamarkadan?) *Quijotearen* itzultzeari ere,[19] *Aitzin-Solasa* eta lehen hiru kapituluak baino ondu ez bazituen ere. Alderaketetan sartuta, interesgarri da, bitxikeria bezala izango bada ere, Duvoisinen *Kixoteren Aintzin-Solaseko* lehen esaldia, eta lehen kapituluko lehena, non Duvoisinek kurioski, batere eragozpenik gabe aurreratzen dituen, Cervantesen gaztelaniazko aditzak esaldian (zertxorenbait), kasu handirik gabe Cardaverazena bezalako aholku antierderistei:

(214) Desocupado lector, sin juramento me podrás creer que quisiera que este libro, ... Iracurle astiduna: sinhexiko bide nauzu nik juramentu egin gabe, nahi nukeela liburu hau, ... (29)

(215) En un lugar de la Mancha, de cuyo nombre no quiero acordarme, no ha mucho tiempo que vivía un hidalgo ...
Mantchaco herri batean, zeinaren izenaz ez baitut orhoitu nahi, bizi zen, ez delarik aspaldi, aitoren seme bat, ... (41)

8.5. Ohar batzuk, amaitzeko, Duvoisinen zenbait erreflexio estilistiko, eta gramatikalen inguruan.

8.5.1. Joannateguyren eredua.

Badakigu, zer iruditzen zitzaion Duvoisini *euskara ona*, *frase ona*, *prosa ona*, *eta ez frantzestua, erdaldundua*. 1877ko Martxoaren 17an egiten du erreflexio argia, Abade Joannateguyri zuzendutako balaku eskutitzean, honek aurreko urtean argitaratutako *Ehun bat Sainduen bicitcea* liburuaren inguruan (*RIEV*, XXI, 1930, 93 or.):

J'ai lu avec attention votre ouvrage *Ehun bat*, etc. J'y ai reconnu, non sans plaisir, une sérieuse étude de la langue. En outre, votre phrase est rendue d'après le génie du basque, et non selon la manière française. Vous avez évité un écueil, que l'on heurte trop souvent.

Ez dago irakurri besterik Joannateguyren obra, gure tradizio zabalenaren ildoan josia, edota honen geroagoko birmoldaketa, *Sainduen Bicitzea* izenekoa (1890; eta 1900 bigarren partea), jakiteko, zer izan litekeen Duvoisinen ustean «*la phrase rendue d'après le gènie du basque*». 1890ekoan Joannateguy *Escualdunei bi hitz* egiten dizkie aitzin solas modura, eta bertan bere 1876ko lehen liburuaren ondorenak kontatuaz, definitzen du argi bere mintzoa (Duvoisinenen oihartzun):

Ezen orduz geroz ibili naiz herriz-herri, eta eman dut ahalaz contu nola mintzo zineten zuen artean; iracurtu ditut ere beren escuara ederraren gatic guziz aipatuac diren liburu batzu; eta hortacotz iduritzen zait frantsesic eztakitenac bezalatsu mintzo naizela.

8.5.2. Duvoisinen erreflexio gramatikal zenbait, hitzen ordenaren inguruan.

Duvoisinek, 1865eko urtarrilaren 19an eginiko eskutitz batean, *Biblearen* itzulpena amaitua, Printzeari azaltzen dizkio bere aurrerantzeko asmoak (*RIEV*, XIX, 1928, 471 or.):

... Mon projet était d'achaver le Dictionnaire français-basque arrêté à la lettre P. Mais je pensais qu'il devait être précédé d'un discours préliminaire, dont je possède les matériaux à coordonner. / Sujets: De l'origine des Basques, d'aprés l'histoire. Coup d'œil philologique. Alphabet. Désinences. Déclinaison. Verbe. Euphonisme. Syntaxe. / Dans ce

cadre peuvent entrer, je crois, toutes les observations que j'ai rassemblées en divers temps et en divers lieux. Une partie importante et tout à fait neuve, c'est celle qui traite des désinences. Pour la déclinaison, il me semble l'avoir mieux comprise qu'on ne l'a fait jusqu'a ce jour. Quant au verbe, je me borne à des remarques; de même pour la syntaxe. / Je me proposais d'écrire chaque article dans un cahier séparé, ...

Duvoisinen 1865eko asmoetako kaiera hauetako asko izango dira, Haristoy abadeak eskuizkribuen artean aipatzen dituenak bere artikuluan. Interesgarria litzateke ezagutzea, zertan diren, Duvoisinen garai eta leku desberdinetako erreflexio gramatikalak, eta bereziki guri gehien dagokigun hitzen ordenaren atalekoak. Gu saiatu gara piskaren bat hauen bila, eta Baionako Udal Liburutegian aurkitu ditugu eskuizkribu hauetako gutxi batzuk, *Catalogue General des Manuscrits* batean, 82, 83, 85, 86 eta 87 zenbakiak daramatzatenak (Duvoisinen hiztegi eskuizkribatua ere, Baionako Musée Basquean), eta kaiera hauetako bietan behintzat aurkitu ditugu, gain begiratu batean, zenbait ohar gramatikal interesgarri, gure begietako gaiaren inguruan, gehiegiez badira ere.

8.5.2.1. Esaldiko elementuen ordenamendu libreaz.

Remarques et recherches sur la langue basque izeneko eskuizkribuan (*Catalogueko* 87a), aurkitzen ditugu, 155 orrialdean, *Construction* izeneko atalean, segidako ohar interesgarriak, esaldiko elementuen ordenamendu librea aldarrikatzen (salbu, derrigorrez errespetatu beharreko, *aditz nagusia fi aditz laguntzailea* segidarena agidanean). Hala nola dioen Duvoisinek[20]:

INVERSION DES SUJETS ET REGIMES. Les sujets et les régimes peuvent être placés avant ou aprés le verbe, suivent le gôut et l'effet de nombre que produisent en divers arrengements. / Ex.: Le père à fait des reproches à son fils. Aitak semeari gaizkiak erran diozka, - gaizkiak semeari erran diozka aitak, - semeari aitak erran diozka gaizkiak, - semeari aitak gaizkiak erran diozka, - Aitak semeari erran diozka gaizkiak, - gaizkiak aitak semeari erran diozka. / DU NOM VERBAL. Tous ces mots peuvent [sic] l'un à la place de l'autre sauf le nom verbal (erran) qui prècede inmédiatement le verbe. / Mais quand il y a négation, le nom verbal suit le verbe au lieu de le précéder. / Ex.: Aitak ez diozka erran semeari gaizkiak.

Ez da gehiegi, baina norabide argia du oharrak (Inchauspek 1858ko *Le Verbe Basquean* egindakoen oso bide beretsutik[21]). Halamoduz izan litezke interesgarriak, *Eléments de grammaire basque* (*Catalogueko* 86.) eskuizkribuan, aditzari buruzko beste ohar batean, Duvoisinek ematen dituen adibideen ordenamenduak, nahiz oharrak printzipioz beste helburu bat izan. Eskuizkribuaren 113. orrialdean ematen dira segidako esaldiak, berdin ordenatuak beti frantzesez eta euskaraz:

SYNTAXE DU VERBE. / Sujet et Regime Direct du verbe transitif. / Le verbe actif ou transitif s'accourd [sic] en nombre avec son sujet et son régime. Ex.: Mon fils a tué un loup (ene semeak hil du oxo bat; - mon fils a tué deux loups. (ene semeak hil ditu bi oxo -, mes fils ont tué un loup, (ene semeek hil dute oxo bat;) mes fils ont tué deux loups. (ene semeek hil dituzte bi oxo. - / Le verbe s'accorde aussi avec le régime indirect au moyen d'une forme spéciale. Ene semeak hil dio merari oxo bat bere onthasunean. ...

Ez dugu beste oharrik aurkitu, esaldiko elementuen ordenamendu erlazioaz aditzarekiko, nahiz bai beste batzuk, interesgarri, zenbait elementu edo esaldiren ordenamenduez, eta zeinetako adibideetatik ere erator litezkeen, nahi izanez gero, ondorioak, aditzaren guneaz esaldian.

8.5.2.2. Beste ohar batzuk, zenbait elementu eta esaldiren ordenamenduaz.

8.5.2.2.1. Adjetiboaren guneaz.

Hala esaten bait du Duvoisinek, zuhur, *Remarques* ... eskuizkribuan (155 or.):

DE L'ADJECTIF. / L'adjectif suit le nom qu'il qualifié. / Ex.: Le grand chêne est tombé ((Erori da haritz handia)) (ou Haritz handia erori da) non handi haritza.

8.5.2.2.2. Zenbatzaileen ordenamenduaz.

Hala egiten ditu batzuk, *Éléments* ... eskuizkribuan (6. or.):

Le nom de nombre présent une particularité; bat «un» suit le nom, tandis que tous les autres le précedent. / ... / Il y a quelques noms pronominaux qui peuvent se placer indifferemment avant ou apres le substantif qu'ils accompagnent. La régle, loin d'en être troublée si'en est [...] confirmée. / E. Hainitz gizonek nahi dute ou gizon hainitzek nahi dute ... Gizon askori erran diotet, ou asko gizoni erran diotet. ... Zembait gizonen arabera, ou gizon zembaiten arabera.

8.5.2.2.3 Izenen koordinazioaren inguru.

Duvoisinek behin baino gehiagotan planteatzen du agerian, erlazio atzizki berdina daramaten sintagma koordinatuen arazoa. Batetik, kezkatuta, atzizki beraren errepikapen ugariak testuari eman liezaiokeen astuntasuna; honen aurrean proposatuaz, atzizkia soilik azken sintagmari erastea. Bestetik, Duvoisin jabetzen ere da, sistema honek erakar ditzakeen akatsen batzuz, *nekosoa izatea* esaten du berak, eta ez du erabat gomendatuko sistema, zuhurtasun handiz. Hala nola dioen *Éléments* ... eskuizkribuko 105. orrialdean:

DES NOMS COORDONNES. (Voir *Remarques et recherches* p. 155). Quand plusiers noms, substantifs, adjectifs ou participes, se suivent, soit comme sujets, soit comme régimes du verbe, on peut n'appliquer la désinence casuelle qu'au dernier de tous. ... / Ethorri dire senhar emazteak, ou senharra eta emaztea. / Erran diotet aita semeri, ou aitari eta semeari. / Ce qui a été dit de la faculté de porter la désinence casuelle sur le dernier non déclinable est d'une application, cassus rare; si cette mannière de s'exprimmer a l'avantage de donner de la rapidit'e au discours, son frèquent usage fatigue; cést une affaire de gôut.

Halamoduz ere, berak aipatutako *Remarques* ... eskuizkribuko 155 orrialdean, *Construction* izenpeko atalean:

REGLE SYNTAXIQUE. Quand plusiers substantifs ou bien des adjectifs se suivent soint sujets ou regimes directs ou indirects du verbe, ils pressent [sic] ordinairement chacun la désinence casuelle. (V. Eléments de Gram. p. 105, 106). / Ex.: J'ai vu champs, les prairies, les vignes et les bois de votre maison. Ikusi ditut zure etcheko landak, phentzeak, mahastiak eta oyhanak. / D'autres fois, pour donner de la rapidité au discours, on supprime la conjoction et, et tous les substantifs sont placés au passif indéfini, sauf le dernier qui comporte la désinence casuelle, mais au pluriel lors même que chaque substantif serait singulier. / Ikusi ditut zure etcheko landa, phentze, mahasti, oihanak. - J'ai dit á votre père, et à votre mère. Erran diotet zure aita, amaeri. (Même procédé pour les verbs. Ex.: Erbia hil, larrutu, erre eta jan du, au lieu de hil du, larrutu du ...

8.5.2.2.4. Aditzen koordinazioaren inguru.

Remarques...-en iragartzen duen aditzekiko jokaera berdintsu hori (aditz laguntzailea bakarrik sail bateko azken aditz partizipio nagusiari erastea), gehixeago zabaltzen du *Eléments de grammaire* eskuizkribuan. Eta izenekin egin bezalaxe, *zeugma* modu hori proposatzen duen hein berean, saiatzen da behintzat, nahikoa zuhur, muga batzuk jartzen prozedurari. Hala nola dioen 106. orrialdean:

DES PROPOSITIONS COORDONNEES. Dans les propositions coordonnées, il n'est pas obligatoire de mettre le verbe après chaque nom verbal; on le place à la fin. Ex.: Onxa jaten, edaten eta lo egiten du ou lieu de onxa jaten du, edaten du eta lo egiten du. (Voir *Remarques et Recherches*. p. 155). / Comme il a été dit en § précédents [izenen koordinazioaren inguruan jaso ditugunak] cette rapidité dans la phrase, heureux quelquefois, ne l'est pas le plus souvent; le basque aime le nombre et l'ampleur dans les dictions. On dira dans un narré placide: Bildu zituen bere adiskideak, bazkari bat eman zioten, eta egun berean armadara goan zen. ... Cependent, si l'on a hâte d'arriver à un rècit interessant, l'accesoire sera rapide: Bere adiskideak bildu, bazkari bat eman, eta egun berean armada [sic] goan zen. Le gôut est le seul guide à cet ègard. / Il est extrememment rare que l'ellipse soit obligatoire ...[22]

Hauen antzeko oharrek iragartzen dutenaren arabera, benetan izan liteke interesgarria, Duvoisinen beste eskuizkribu gramatikalak ere ezagutzea. Baita, beharbada, arreta gehixeagoz aztertu ahal izatea, guk oso gainetik baino begiratu ez ditugun eskuizkribu berauek.

ERASKINAK

1. Alderaketa bat, Cardaverazen Egercicioen 2. Partea eta Duvoisinen Liburu Ederraren artean, hitzen ordenamenduari dagokionean: 1. Ordenamendu bitxi beretsuak.

Oro har Duvoisin asko eta asko lotzen zaio, Cardaverazen jatorrizko hitzen ordenamendu bereziari. Eta ez bakarrik honek ohizko edo tradiziozko joskerak erakusten dituenean. Baita ere, Cardaverazen hitz ordenamenduak nahiko traketsak gertatzen diren kasuetan ere, aditza ezohizko neurrietan atzeratzen esaldian. Segidan jasotzen ditugu, bi autoreetan nahikoa bitxiak gerta litezkeen antzeko joskerak (lehenengo esaldia beti Cardaverazena):

...: bada munduco dicharic eraguiñena, ta gogora alditequean andiena, nere fiñ onen aldean, sarra pusca bat, edo eguiaz ecerez da. (14)

Hemengo zorion itzal gutien duena eta gogora-ahal daiten handiena, ez-da, nere helburu hunen aldean, zarpil pusca bat, edo egiaz, deusere ez-da. (40)

O Jauna! Lurreco gauzac Zurequin cer dute cer icusi? (14)

Oi Jauna! lurreco gaucec zurekin ¿cer dute cer icusi? (40)

Gucien Eguillea Zu cera. (14)

Gucien egilea zu zare. (40)

Acabatcen diran gauzac, caburic eztuenarequin cer dute, Jauna, cer icusi? (14)

...: mende gucietaco Jaincoac, obra ustelcor batzuekin, cer duke cer icusi! (41)

Ta Jaun andi au betiicusi, ta beti alabatceco, berac eguiña nago ni? (14)

¿Eta Jaun handi hunen icusteco, hunen bethi ospatceco, berac egina othe nago ni? (41)

Ta orren lotsagaberic ta lurreco gauzac Jaincoa baño gueiago estimatcendituenic iñor oteda? (15)

Eta horren loxagaberic eta lurreco gauzac Jaincoa baino gehiago prezatcenduenic nihor othe da? (41)

Zure dicharic andienaren iguesi orrela zabiltza? (16)

Zure zorionic handienaren ihesi horrela zabiltza? (43)

Ay ta gaitz onen gañean odolezco negarrac emateco, iturri bi, nere begiac norc eguin litzaquean! (16)

... ai eta gaitz hunen gainean odolezco nigarrac emateco, ithurri bi, nere begiac norc eragin ahal leizazke! (43)

... Ama gozoa: bitarteco jarrizaite, ..., eta ondoen daquizunac bezala, zure Seme maiteari barcacioa neretzat escazaiozu. (16-7)

... ama samurra bitharteco, jar zakizkit; ..., eta hobekien dakizun bezala, zure seme maiteari barkhamendu neretzat galda diozozu. (44)

..., orren erraz galduco eznuen, ... (17)

..., hunen errezki galtcera utcico ez-nuen, ... (46)

Baña, cer eguiten ezdet? (18)

Bainan cer egiten ez dut? (46)

... cembat gueiago zuen dichazco suerte orrec baliodu? (19)

... ¿cembat gehiago zuen zorion horrec du balio? (48)

Emengo neque, ta aleguin guciac, eguiaz ecerez dirala, arrazoiaz esangodidazute. (19)

Lurreco nekhe eta eginahal guciac egiazki deusere ezdirela, legez erranen dirazue. (48)

Nerea da dicha. (20)

..., parte on gucia nerea da. (50)

Zuc, ceran bezala, Jauna nerequin eguindezu. (21)

Zuc, zaren bezala, Aita onarena nerekin egin duzu. (51)

Nor zuri itzeguitera atrevitucoda? (21)

¿Nor zuri hitcegitera menturatuco da? (52)

Zure Ontasun, ta piedade ondo gabe orri beguirazaiozu: ... (21)

Zure ontasun eta urricalmendu ondogabe horri begira zozu. (52)

Ta amorio onegatic nic cer zor dizut? (24)

Hambateco amodioagatic ¿nic cer zor ez-darotzut? (56)

Nondic infernura ni eramango nauen (errebentatcen, edo deseguiten dabill: ...) (27)

Hura ni nondic ifernura eramanen nauen (lehertu eta zapartaraci beharrez dabila: ...) (61)

Nondic infernura ni eramango nauen errebentatcen, edo deseguiten dabill: ... (27)

Hura ni nondic ifernura eramanen nauen lehertu eta zapartaraci beharrez dabila: ... (61)

Argui andi bat nere biotcean indazu: zure indarrezco gracia betor, ... (28)

...! argi bici-bat nere bihotcean pitzazu; zure indarrezco gracia jaux bedi, ... (62)

Certaco Jaincoac eguin ninduen ezagutu, ta igaro beardet, nere azqueneco fin, edo dicha onen contra nic cer eguindedan icustera. (28)

Certaraco Jaincoac egin ninduen ezagutu ondoan, erakharri nahi dut begien aintcinera, nere azken helburu edo dohaxutasunaren contra cer-eta-cer egin izan dudan. (63)

Ay ta nere animaco catea oiec puscatu, ta deseguiñic noiz icusicoditut? (29)
Oi! ... ¿noiz zathicatuac icusiren ditut nere arimaco bilhur horiec? (64)

Nere biotceco atseguiñaz noiz esango dizut ...? (29)
Noiz nere bihotceco axegiñez erranen ahal dut: ...? (64)

Eri au nor da? (30)
Eri hau nor da? (66)

Zure pecatuac nolacoa, eta cer peligro andian paratu zaituzten icusten ezdezu? (30)
Zure bekhatuac nolacoac diren, eta cer galexi handitan ezarri zaituzten icusten ezduzu? (66)

Beste asco baño, onelaco eri bat curatcea, onra andiago da. (30)
Bertce asco baino, hunlaco eri-bat sendatcea, sentagaila handiagoa da. (67-8)

Nere gaitza baño andiagoenzat ere zure Biotceco botican, ta zure llaga etan erremedio seguruac dituzu. (30)
Nere gaitza baino handiagoentzat ere zure bihotz barnean eta zure zaurietan sendagarri seguruac badituzu. (67)

Zure odol preciosoaren Jaincozco balsamo orren tanta bat nere gañera betor, Jauna, ... (30-1)
Zure odol preciatutic, jaincozco gantzadura hortaric chorta-bat nere gainera eror bedi, Jauna; ... (67)

Tanta bat arren niri indazu. (31)
...; tanta-bat arren nere gainera eror-araz-zazu. (67)

O cer gogoa, cer ansiac ori artceco dauzcadan! (31)
Oi cer grina eta alhadurac hortaric ditudan ataratceco. (67)

..., nereac barcatuac diran jaquin gabe, nola bildur izango eznaz? (31)
... ¿nereac barkhatuac direnetz jakin-escasean, nola beldur izanen ez-naiz? (67)

...: Zu escas, ta urri etcera: ... (31)
...; zu, ez-escasti, ez-escu-hurricoa etzare; ... (68)

Baldin Persona ofenditua cembat andiago dan, ofensa ere andiago bada: ... (31)
Baldin damu-hartu dagoena, cembatez handiagoa den, hobena ere hambatez handiago bada, ... (68)

Nere pecatu, edo zuri nic eguindaco ofensac ceñ andi arrigarriac izango dira? (31)
..., nere bekhatu, edo zuri nic eginicaco damuac ¿cein handi harrigarriac izanen dira? (68)

Au obeto, edo nolabait zuc aditceco, aldezun Ondasunic andiena zure erara pensezazu: ... (31-2)

Hau hobeki, edo nolazbait heinca bederen bekhatoreac aditceco, iduritcen zaioen onic handiena burura bekio; ... (69)

...: doblaz areago, ta andiago Ontasun ori berriz ta ascotan eguizu. (32)

...; doblez areago eta handiago ontasun hori berriz eta ascotan egin beza; ... (69)

Lauso, edo pits airean, ta ur tanta ichasoan diran baño gueiagotan, eta ascoz andiago Ontasun andi ori dala. (32)

...; airean pix baino, ixasoan ur chorta baino gehiagotan eta ascoz handiago ontasun handi hori iduc beza; ... (69)

(Jaquizu bada, oraň,) Ontasun zuc pensatu al ori gucia, gure Jaungoicoaren Ontasun, ta Aunditasunaren aldean, ecer ez-dala, ... (32)

(...; jakin dezala bada orai,) ontasun harec asmatu ahal duen hori gucia, gure Jaincoaren ontasun eta handitasunaren aldean, deusere, pix bakhar-bat-ere ez-dela. (69)

Damuaren damuz cer esan, ta cer eguin ezdaquit. (32)

Damuaren-damuz cer erran eta cer egin ez-dakit. (70)

Ah jauna, zure Ontasunagatic niri ori indazu. (32)

Ah Jauna, zure ontasunez hau niri utz diadazu. (70)

Zure Icen santu, ta amorezco Ontasunagatic, amorezco damu ori indazu. (33)

Zure icen saindu eta ontasun maitatia-gatic, maithantzazco damu hau niri begira dizazu. (70)

...: munduco gaitcic andiena bezala nere biotcetic seculaco quen bedi, ta zure gracia nigan beti bici bedi. (33)

Munduco gaitcic handiena bezala, nere bihotcetic khen bedi; eta zure gracia, Jauna, nitan bethi bici bedi. (70)

Lurreco chingurri, edo ar chiqui batec, buruaz ceruraño allegatcendan Gigante batequin cer du cer icusi? (33)

¿Lurreco chinhaurri edo marmutza batec, buruaz ceruraino heltcen den digante batekin cer-du cer icusi? (71)

Ta Santu, ta Aingueruac adoratcenduten Jaunaren Magestadearen contra ni atrebitu naiz? (33)

Eta saindu eta aingeruec adoratcen duten majestatearen contra ni oldartcera atrebitu naiz! (71-2)

..., ta cerzaz gueiago arritu, nic ezdaquit: ... (34)

..., eta certaz harri gehiago nic ez-dakit, ... (73)

Ta zure amorez nola ni deseguiten eznaz? (35)

Eta zure amorez; ¿ni nola erdiratcen ez-naiz? (73)

Aimbeste desonra, ta alaco desacato itsusiac nola ni bezalaco ar billau bategandic eramandituzu? (35)

Hambat laido eta halaco ozarkeria ixusi ¿nola ni bezalaco har cikhin batenganic egarri dituzu? (74)

Aingueruac, onen gañean cer diozute? (35)
Aingueruac ¿hunen gainean cer diozue? (74)

Jaunaren ontasunaz, ta nere lotsagabetasunaz cer deritzazute? (35)
Jaunaren ontasunaz eta ene loxagabekeriaz cer iduritcen zaitzue! (74)

...: onra, ta gloria seculaco nigatic emaiozute, ... (35)
Ospe eta ohore bethico-bethian nigatic emoiozue; ... (74)

..., eta Jaun oni neretzat culpa gucien damu, ta biotceco sentimendua didala escazaiozute. (35)
...; Jaun huni neretzat, hobenen damu eta bihotceco ardurac izan detzadan esca diozozue. (74)

O! Nola nic ori eguinezaquean! (35)
¿Oi nola nic hori egin-ahal izan duket? (74)

Ea Aingueru, ta Santuac, barcacioa neretzat escazaiozute: ... (36)
Oi aingeru eta sainduac, othoi, neretzat barkhamendu esca diozozue. (75)

..., nola ni Zu ofenditcera atrevitunaz ...? (37)
... ¿ni nola zu damuztatcera ausartatu naiz? (76)

Torre altu batetic, ta ari batetic esequiric guizon batec banenduca, ... (37)
Dorre gain batetic, eta hari batez itchikiz, gizon batec banindauca ... (77)

Torre altu batetic, ta ari batetic esequiric guizon batec banenduca, bera ofenditcera atrevituconinzaque? (37)
Dorre gain batetic, eta hari batez itchikiz, gizon batec banindauca ¿hura damuztatcera atrebi othe nindaite? (77)

2. Alderaketa bat, Cardaverazen Egercicioen 2. Partea eta Duvoisinen Liburu Ederraren artean, hitzen ordenamenduari dagokionean: 2. Ordenamendu aldaketak, aditz gunearen inguru.

Duvoisin oro har oso estu lotzen bazaie ere Cardaverazen hitz ordenamenduei, ez dira faltako hala ere ordenamendu aldaketa nabarmenak, esanguratsuak, eta nahikoa ugariak ere, eta oro har joko dutenak, aurreratzera aditzaren gunea esaldian. Hala nola gertatzen den segidako gehienetan, atereak liburuen pareko lehen bi atalen alderaketatik:

Jaincoac guizona certaco eguinzuen: ... (13)

Jaincoac certaraco egin izan zuen gizona. (39)

Zuc bacarric ecerecetic eguin ninduzun, ... (13)

Zuc, zure escuz egin izan ninduzun ez-deusetaric, ... (39)

..., ta Zuc bacarric aldatequean dicharic andieneraco eguin ninduzun. (13)

..., eta zuc bakharric egin izan ninduzun zorionic handieneraco (39)

Onelaco beneficio, edo oneguin soberanoagatic, cembat Jauna, zor dizut? (13)

¿Cer ezdarotzut zor, Jauna, hunelaco ongieginarentzat? (39)

Onen favore andia Zuc niri eguiteco, cer merecimentu nigan arquitucenduen? (13-4)

Cer aurkhitcen cinduen nitan? (39)

Nic beste On, beste fiñ, beste dicharic, Zu cerori baicic ez iduquitcea, nai izandezu! (14)

Nahi izatu duzu etcedin izan neretzat, bertce onic, bertce bideric, bertce zorionic, zu bakharra gozatcea baicic. (39-40)

Zugana, ni zori onecoa izateco, nere gogo, intencio, itz obra, ta aleguin guciac zucendu bearditut. (14)

Zorionic neretzat izatecotz, zugana hedatu behar ditut nere gogo, chede, hitz, egintza eta eginahal guciac. (40)

... cer merecicodu? (15, eta berdin, 15)

... ¿cer duke mereci? (41, eta berdin, 42))

Lurreco ona (ona esan al badedi, ta ez desventura) bere Jainco eguiazco On gucia, ta on gucien gañecoa baño naiago duenac, (cer merecicodu?) (15)

(Cer duke merezi) nahiago izaten duenac lurreco ona (ona erran ahal-badedi eta ez zorigaitza), diot berriz-ere, nahiago izaten duenac lurreco ona, ecenetz Jainco egiazco on gucia, eta on gucien gainecoa? (41)

Lurreco ona (ona esan al badedi, ta ez desventura) bere Jainco eguiazco On gucia, ta on gucien gañecoa baño naiago duenac, cer merecicodu? (15)

Cer duke merezi nahiago izaten duenac lurreco ona (ona erran ahal-badedi eta ez zorigaitza), diot berriz-ere, nahiago izaten duenac lurreco ona, ecenetz Jainco egiazco on gucia, eta on gucien gainecoa? (41)

Bada nere bici gucian, Zu ofenditcea baicic eguin ezdet. (15)

Beraz, Jauna, ¿nere bici gucian damuric baicen ez-darotzut egin? (42)

Nere erremedioa zugan dago: (zugan nere esperanza.) (16)

Zure baithan da nere gaitzaren sendagarria, (zure baithan nere igurikitza.) (43)

(..., barcacioa pecatari itsu galdu onenzat,) ceren cer eguinduen, jaquinezduen. (16)

(..., barkhamendua bekhatore ixu galdu hunentzat,) ceren ez duen jakin cer egin zuen. (44)

..., escua arrezazu, ... (17)

...; har nazazu escutic, ... (44)

(Misericordia, Jauna, nizaz,) ceren nere culpac ezagutu, ta Zu aimbeste ofendituaz damudedan. (17)

(Urricalmendu, Jauna, nitaz,) ceren ezagutu ditudan nere huxac, eta damu handi dudan zure alderat izan ditudan hoben guciez. (45)

Ceruco glorian Jaungoicoaren edertasuna beti icusi, ta gozatceco ni izanic: ... (17)

Egina izatu naiz gozatceco Jaincoaren edertasuna, haren beraren begien aspian, ceruco ospeen erdian. (45)

...: dicha ori izangodedan, edo ez, dudan nago. (17)

Eta orai nago zorion hori izanen othe dudanez oraino, ala ez. (45)

Champon gaisto bat orren erraz emango eznuen[?] (18)

Sos edo champon gaichto bati ez nioen horren errezki ukho eginen? (46)

Ta nere onra galdua cobratceagatic nic cer eguitendet? (18)

¿Eta galdu-onaren berriz escuetaratceco cer indar egiten dut nic? (46)

Zu bacarric, Jauna, Zu, ta ez besteric, nere eguiazco onra, ta gloria bicia cera. (18)

Zu bakharric, Jauna, zu eta-ez bertceric, zu zare nere egiazco ontasuna eta ospe bicia. (47)

Zu bacarric nere guztia, ta guztizcoa cera. (18)

Nere gucia eta gucizcoa zu zare bakharic. (47)

O Jauna: zurequin dagoena, ceñ aberats dan: ... (18)

Oi Jauna, zurekin dagoena, zeinen den aberax! (47)

..., eta an Espiritu, edo Anima zorionecoac gloriaz, ta contentuz beteric icusten nagoela: (19)
...; han icus detzadala arima dohaxuac, ospez, gozoz eta boztarioz betheac; ... (48)

... cembat gueiago zuen dichazco suerte orrec baliodu? (19)
... ¿cembat gehiago zuen zorion horrec du balio? (48)

(Ta orañ zuec cer deritzatzute,) zuequin batean or egoteagatic batec eguinlezaqueala? (19)
(Eta orai zuec cer erraiten darotazue) gizonac egin behar duela hor egotea-gatic zuen bat-tasunean? (48)

Ta ez Erregueen, ezpada Satanas-en esclaboen suertea, zuena baño naiago izandet! (19)
Satanen muthilen zoria nahiago izan dut hautatu, ecenetz zuena. (49)

..., ta penaz iltcen eznaz? (20)
... eta damuaren minac ez-nau ithotcen! (49)

O arriac baño sortuago ceran nere anima! (20)
Oi nere arima, harricotorrac berac baino sorragoa zarena! (49)

(..., ta esadazute,) nere damugai onen antcecoric, edo dolore onen pareric otedan? (20)
(..., erradazue) nihon badenetz hunelaco nere nigarbidearen iduricoric edo axecabearen pareric. (50)

..., nere deia enzunezazu. (21)
..., emtzunezazu nere hela. (51)

..., ta barcatuzadan jaquin ez. (21)
...., eta ez-dakit heian barkhamenduric badudanetz. (52)

..., ori ondo daquidala! (22)
Eta ongi nakielaric cer hari nintcen. (53)

Ay Jauna, ta cembat niri dijoaquidan! (24)
Ai Jauna! eta cembat dihoakidan niri! (57)

..., nic ori ondo icusteco, ta orañdañoco calteac ezagutu, ... (24)
..., nic ongi ikus dezadan nere huxa, ezagut detzadan orai arteco nere hobenac, ... (57)

..., lurreco gaucetaric bereala, ta betico despeditu naidet, ... (24)
..., lurreco gaucei nahi naiz berehala, osoki eta bethicoz atcetu, ... (57)

..., nere azquenfiñ au alcanzatceco laguntcen ezpadidate. (24)
..., baldin nere azken helburura jotceco hec bazaizkit lagungarri. (57)

Lπ eguiteco dembora ezta au, ... (24-5)
Ez-da hau lo egiteco ordua, ... (57)

Zuri, nere Jesus ona, jarraitu beardizut. (25)
Zuri, nere Jesus ona, behar natzaizu jarraiki. (57)

Zure Biotz guciaz nere salbacioa naidezu: ... (25)
Zure bihotz oroz nahi duzu nere salbamendua; ... (57)

...: lurreco gaucetan consueloric nai ezdet, ... (25)
...: lurreco gaucetan gozagarriric ez dut bilhatu nahi, ... (58)

...: ta nic Satanas-en esclavo izan naiagodedala! (26)
... eta nic nahiago izan debruaren gathibu, ... (59)

..., cer nic eguitea ondo izangoda? (26)
..., cer-da nic egin beharren nukeena? (60)

..., ta berriz, ta berriro onetan firmetu nai det. (26)
..., eta berriz eta berritan huntaz nahi dut on-egin eta berme jarri. (60)

...: Jaincoac bere Seme eguin, ta beti izateco nauca ni? (27)
...: Jaincoac bere seme egin nau eta bethi beretzat iduquitceco chedetan. (60)

Dembora etorrico da, ta laster ceñean, ... (27)
Ethorrico da ordua eta laster, ceinetan ... (60)

Ta orren dicha andiaren beguira nago? (27)
Eta ni bainago, ni horren dohaxutasun handiari begira? (61)

(..., ta ona banaiz,) aguinduric seguru daucat. (27)
(Eta ona balinbanaiz,) segurac ditut agindu guciac. (61)

...: nequeac, penac, desonrac, tormentu, ta eriotzac pocic ceruagatic artu. (27)
...: ceruagatic bozcarioz besarcatu cituzten nekheac, laceriac, laidoac, oinhace eta heriotceac. (62)

Dembora guchi batean, bada, orobat cergatic nic ere eguingo ezdet? (27-8)
Nere urthe aphurretan, ¿cergatic bada nic ere ez-dut orobat eginen? (62)

Ta baldin culpa bacar bat icara eraguiteco sobra bada: ... (28)
Eta baldin hoben bakhar-bat aski bada gizona ikharan jarrarazteco, ... (63)

..., ta añ pisuac, nola nereac diran. (28)
... eta hain dorpheac nola baitira nereac ... (63)

..., ta nere pecatuen soca, ta amarra nastu oiec ascatu, ta autsi itzatzu. (29)
... haux zazu nere bekhatuen soca, trenca eta porroscazkitzu alde orotaric bihurdicatcen nauten esteca gogorrac. (64)

..., ecin libratu, ta Zugana igoconaiz. (29)
..., ecin trencaturen dut nere soca eta ecin iganen naiz zugana. (65)

Zure misericordiac echedendit, ... (29)
Jasan nau zure misericordiac, ... (65)

..., zure gracia indazu, ... (29)
..., indazu - othoi zure gracia, ... (65)

..., Zu gogotic billatceco, ta biciera santu batez arquitceco. (29)
..., zu gogotic bilha zaitzadan eta aurkhi bicitce saindu baten bidez. (65)

...: ta nere anima orrela josi ta galduaz lastimaric ezdet? (30)
...: eta nere arima, horrelache bekhatuac eho eta galdu duenaz ¿ez othe naiz urricalduren? (66)

Nere Erredentorea, Zugana biurtcen naiz. (30)
Nere Arreroslea, biurtcen naiz zugana. (66)

Eri bat, cembat eta etsiago dagoen, ambat obeto Medicuaren jaquintasuna eracustenda. (30)
Eri-bat, cembat-ere exiago dagoen, hambatenaz hobeki agertcen da nolacoa den midicuaren jakintasuna. (66)

..., ceren Jaincotasuna fiñ, edo cabu gabea dan. (32)
..., ceren Jaincotasuna den hastapenic-gabea eta akhabantzaric izanen ez-duena. (69)

..., ta guciac icara daude. (34)
..., eta ikharan daude guciac. (72)

Oriec diranac ondo jaquiñic, Zuc merezidezuneraco, millagatic bat ecindutela deadarrez beti diote: ... (34)
Cembat ere argituac diren arren, aithortcen dute ez direla gai zu goresteco zuri dohakizun bezala, ... (72)

(Orañ aien aldean niri beguiratu,) ta nere ecerez, edo autsa icustendet: ... (34)
(Eta orai hekien aldean nere buruari begiratcen badiot,) ahalcatcen nau nere ezdeustasunac. (72-3)

...: Ontasun onen berri zuec ondo daquizute. (36)
Badakizue haren ontasunaren berri. (75)

(Alabiz, Jauna,) ta ala beti eguiteco zure gracia indazu. (36)
(Halabiz, Jauna,) eta bethi hala egiteco, ene gainera heda zazu zure gracia. (76)

(Ez arren Jauna,) gueiago Zu ofenditcen ni utci: ... (38)
(Jauna,) ez-nezazula beraz utz gehiago zu damuztatcera. (78)

3. Alderaketa bat, A. Pascual Iturriagaren Jolasak, eta honen lapurterazko moldaketa, Duvoisinek eginikoaren artean, hitzen ordenamenduri dagokionean.

Jaso ditugu, bi testuetan beren hitzen ordenamenduan desberdintasunen bat erakusten duten esaldiak, batez ere aditz gunearen inguruan. Bestelako orden aldaerak ez ditugu denak jasotzen, nahiz badiren. Gure erosotasunagatik erabili dugu, Bonaparteren 1857ko argitalpena, euskalki anitzekoa (Hordago, 1978, faksimila), alderaketarako; nahiz jakin, baduela honen gipuzkerazko testuak alderen bat jatorrizkoarekin (ez hitzen ordenamenduari dagozkionak hala ere, uste dugunez). Nolanahi, badaezpadan, saiatu gara alderatzen jatorrizko testua ere (Patxi Altunaren argitalpena, EEE, Klasikoak, Donostia, 1987) gure adibideetako esaldien kasuan. Segidako esaldi pareetan, lehenengoa beti izango da Iturriagarena. Bigarren esaldien ondorean, tarteka agertzen diren (Inch.) edo (Uri.) laburpenek, adieraziko dute, Inchauspek edo Uriartek ere Duvoisinen gune bera aukeratzen dutela aditzarentzako beren zuberera / bizkaierazko bertsioetan, eta ez Iturriagarena.

(Ez da gauza gaitza) atseguin ori zuri ematea. (3)

(Ez da gaitz) axeguin hori eguitea zuri.

(¿Badaquizu) seda cer dan? (4)

(Badakizu) cer den seda? (Inch.)

Ez da Indietara joan bearric seda izateco. (4)

Seda izateco ez da Indietara goan beharric.

Inguma baten obra da seda. (4)

Seda pimpiriña baten lana da.

Jaten dijoacen becela dijoaz anditzen. (5)

Yaten dutenaren arabera handituz ere dohaci. (Inch.)

(Orduban asten dira) aotic botatzen lerdea armiarmac bezala. (5-6)

(Orduan abiatzen dira) armiarmac bezala ahotic heldor botatzen.

(¡Norc esan) icusten diran sedazco jantzi ederrac zor zaizcala ingumari! (6-7)

(Norc erran lezake) ikhusten diren sedazco soineco ederrac pimpiriñari zor zaizcola?

(Onen vistan ez da gaitz sinistea) piztuco guerala gu ere egunen baten len baño ederragoac. (8)

(Hau ikhusi eta ez da gaitz sinhestea) egun batez gu ere berriz phizturen garela aintzinean baino ederragoric.

Ori orrela bada, ez degu cer errencuratu gure biciaren laburtasunaz. (9)

Hori hola bada, ez dugu gure biciaren laburtasunaz arranguratzecoric.

Gaur itz eguin bear dizut erleen gañean. (10)

Egun erleez mintzatu gogo natzaitzu. (Inch.)

Ez bacarric ematen digute eztia, bai ere arguizaguia. (10)

Ez eztia bakharric, bainan ezcoa ere ematen darocute. (Inch.: Ez bakhoizki eztia, bena ere emaiten deicuye ezcoua.)

..., ez nintzan arguizaguiaz oroitzen. (10)

..., ez nintzen orhoitzen ezcoaz. (Uri.)

Guero, aotic arguizaguia botaz, dijoaz abarasca eguiten. (12)

Guero, ezcoa ahotic goiti itzultzen duten arabera, brescaren eguiten har[i]tzen dira.

Abarasca eguiña dagoan orduan, betetzen dituzte onen chuloac eztiz. (13)

Bresca eguin dutenean, orrace-chiloac eztiz bethetzen dituzte. (Inch.)

(¡Cer! ¿ez da choratzeco gauza) lorearen gañean dagoan iriña arguizagui biurtua icustea? (13)

(Cer! ez othe da zoratzeco dina) ikhustea lore hostoco herrauxa ezco bilhacatua?

(¿Eta ez zaitu choro biurtzen) icusteac gure odol biurtzen guc jaten ditugun gauzac? (14)

(Eta etzaitu zoratzen) guc yaten ditugun gauzac gure odol bihurtzen ikhusteac?

Erraulеaz itz eguin bear dugu gaur. (15)

Egun errauliaz mintzatu behar gare. (Inch.)

¡Cembatec ez diote euli oyei zor osasuna! (17)

Cembatec uli haukiei ez diote zor beren osasuna!

Muturra cherriarena becelacoa du. (19)

Muthurra du cherriarena bezalacoa.

..., eta chacur bati zor zayo. (20)

..., eta zakhur bati diogu zor.

Bai, garestiac [sic] bear du izan, ceren ... (21)

Bai, garastia izan behar da, ecen ... (Inch.)

..., ceren mascor asco bildu bearco da soñeco bat gambusitzeco. (21-2)

..., ecen hainitz machcor beharco da bildu soineco baten thindatzecotzat. (Inch.)

Mascorraren barrenen arquitzen da itsasoan. (22)
Ixasoan aurkhitzen da machcor baten barnean.

Orra non munduan diran gauzaric baliosoenac zor zaizcaten animalicho batzuei. (22)
Horra nola munduco gauzaric baliosenac animale chehetto batzuei zaizcoten zor

(!Norc esango luque) erregue eta erreguiñen apainduriac oyei zor zaizcatela! (22)
(Norc erran lezake) haukiei zor zaizcotela erregue eta erreguinen edergailuac!

Ascotan sortzen zaye aurrai beatz artean. (23)
Haurrei etortzen zayote erhi artetan.

Icuste ona bear da eguzquitan ateratzeco ere. (24)
Hura iguzkitan ere atheratzeco begui ona izan behar da.

Bada, dan becin chiquia izanic, baditu cigarrac gorputzaren parte guztiac. (24)
Bada, cembat ttipia izan dadien, cigarrac baditu gorphutzaren alderdi guciac.

...: bear ditu ere izan guibela, barea eta guiltzurriñac. (24)
...: izan ere behar ditu guibela, barea eta geltchurrinac.

Aren odolac bear du ibilli gureac bezala gorputz guztitic. (24)
Haren odolac gureac bezala ibili behar du gorphutz gucia gaindi. (Uri.)

(Arritu ciñan joan dan egunean) cembat on aberecho batzuei zor diotegun (icustean.) (26)
(Miresten cinduen iragan egunean ikhusteaz) cembat on diozcategun zor abere chehe batzuei.

(Arritu ciñan joan dan egunean) cembat on aberecho batzuei zor diotegun icustean. (26)
(Miresten cinduen iragan egunean) ikhusteaz cembat on diozcategun zor abere chehe batzuei. (Inch., Uri.)

Bada oraindic arrigarriagoa da aberecho batzuec eracusten digutena ... (26)
Bada miresgarriagoa da oraino marmutcha batzuec irakhasten darocutena ...

Erleac goicetic arratsera ari dira lanean guelditu gabetanic. (26)
Erleac goicetic arrex lanean hari dira nihon guelditu gabe.

(Badaquite ...,) eta orduan ecin irtengo dirala beren eultzetic. (27)
(Badakite ...,) eta orduan beren cofoinetic ecin ilkhico direla.

(Guc guztioc eguingo baguendu erleac eguiten dutena,) aingueruac becela bicico guiñaque. (27-8)
(Guc guciec eguin baguineza erleec eguiten dutena,) bici guindaiste aingueru batzu bezala. (Inch., Uri.)

Asco chingurri mueta dira: ... (29)
Bada asco chinhaurri mota: ... (Inch.)

¿Nola iltzen ez dira? (29)
Nola ez othe dira hiltzen? (Inch., Uri.)

¡Cembat bider, eri gaudenean, ez guera egoten gueroc ere illabete osoetan ecer artu gabe! (30)
Cembat aldiz, eri gaudecinean, ez gare guerorri hilabethe osoac deusic hartu gabe egoten!

Arrac eta emeac dira umeac acitzeco, ... (30)
Arrac eta emeac ume eguitecotzat dira, ...

Luma gabeco egoac dituzten animalichoac jayo eta acitzen dira ingumac bezala. (30)
Hegaldun eta hegax gabeco marmutzac pimpirinac bezala sortzen eta handitzen dira.

..., baña guero atzeco bi zancoacquin quentzen dituzte. (31)
..., bainan guero khentzen dituzte guibeleco bi zangoez. (Inch., Uri.)

..., jan gauzaric barrenean senti badute, ... (31)
..., usmatzen badute yatecoric barnean, ... (Inch., Uri.)

(Badira animalichoac) beren arraultzac ifintzen dituztenac frutaren gañean. (32)
(Badira marmutchac) fruituen gainean eguiten dituztenac beren arroltzeac.

¿Gari pillaren gañean egan icusten diran elchoen arraultzetatic irtengo dira noski an arrac? (32-3)
Ogui meten gainean hegaldaca ikhusten diren eltzoen arroltzetaric han ilkhico dira naski harrac?

Atza, ezcabia eta beste asco miñ arrac besteric ez dira. (33-4)
Zaragarra, ezcabia eta bertze asko eritasun ez dira bertzeric ecen harrac. (Inch.)

Bizquitartean ciquinqueriatic datocela esaten dute. (34)
Diote bizkitartean cikhinkeriatic heldu direla.

(Bear da ere) orrazatu egun oro. (34)
(Behar da orobat) egun oroz orraztatu. (Inch.)

Cherriac beintzat ez. (34)

Urdeac ez behintzat. (35)

(...: bestela ez da) ayen eyai beguiratzea baicic. (35)

(...: aski da hortaco) beguiratzea hekien khurtchilei. (Uri.)

An daucate beren etzauntza cillarra baño garbiago. (35)

Han beren etzauntza cilharra baino garbiago dagocate.

..., ceren garbitasuna guztiz beharra den osasunaraco. (35)

..., ceren garbitasuna den guciz beharra osasunarentzat. (Uri.)

Gure azqueneco jolasean pensatzen egondu naiz joan dan arrats guztian. (36)

Goan den gau gucian gogoeta[n] egotu naiz gure azken aldico solasaz.

Elcho pozoitsuac datoz berriz ur usteletic. (37)

Ulitcha phozoindunac berriz heldu dira ur usteletic. (Inch.)

Baitaere ona da chit arcosca botatzea. (38)

Orobat hainitz on da zagorra hartara botatzea. (Inch.)

Algodoya arbolchiqui baten coscoan arquitzen da gaztaña morcotzean bezala: ... (39)

Cotoina aurkhitzen da zuhamuchca baten cuscuan gaztaina kharloan bezala: ... (Inch., Uri.)

(¿Cergatic ez?) otzic eta bero aundiric eguiten ez badu beintzat. (41)

(Cergatic ez?) behintzat ez hotz handiric ez bero handiric eguiten ez badu. (Uri.)

(Jaquin beazu) jantziaren faltan cherrien guisa gira biraca loyean ibiltzen dirala asco toquitan. (41-2)

(Yakin behar duzu) asco lekhutan soineco escasez urdeac bezala lohian ihauscatzen direla.

[1] Eta besteak beste, behintzat sanskritoa, horren haizatua XIX mendean, argi ageri den bezala ere, piskaren bat miakatuz bere eskuizkribu gramatikalak, aurrerago zehazxeago aipatuko ditugunak.

[2] 1988an argitaratuko da lehen aldiz Duvoisinen eskuizkribua, Patri Urkizuk prestatua: *Telemake / Ulisen semearen gertakuntzak,* Elkar, Klasikoak, Donostia.

[3] 1856ko argitalpenaren faksimila erabili dugu, Hordago, Donostia, 1978.

[4] 1761eko argitalpenaren faksimila erabili dugu, LGEV, Bilbo, 1973, *Agustin Cardaberaz, Euskal Lan Guziak*.

[5] Lau urte beranduago aitortuko dion bezala Bonaparte Printzeari, 1860ko Uztailaren 1eko gutunean (Daranatz, «Correspondance ...», *RIEV* XIX, 1928, 62 or.): «*Je ne voudrais pas citer Axular comme puriste; mais je le citerai comme peintre, car c'est sa manière juste et colorée qui donne à son livre un charme, inconnu chez les autres auteurs de traités moraux»*.

[6] Salbu Duvoisinen liburuaren lehen sarrera, *Iracurtzaileari* (V-VII orr.), eta liburuko lehen 1-37 orr., bestelako eraskinez osatuak. Hortik aurrera, *Jaincoac certaraco egin izan zuen gizona* ataletik, 274 orrialdera bitartean, *Azken judicioaren gainean* atala, uste dugu Duvoisin oso oso gertutik segitzen zaiola Cardaverazen jatorrizkoari (hau da,

honen 13. orrialdetik, *Jaincoac guizona certaco eguinzuen* atala, 155 orrialdera, *Azquen juicioaren gañean consideracioac* atalaren amaierako azken aurreko lerrokadara arte).

[7]. Halako askoren arrazoia ordea, besterik gabe izan liteke, Cardaverazen pasartearen ulergaiztasuna. Halako trakestasunak, eta Duvoisinen jirabueltak hauek konpontzeko, suma litezke, guk lan honetan zehar erakusten ditugun hainbat adibidetan. Edota bilduxeago, gure lehen bi *ERASKINETAN*.

[8] Liburuen lehen bi kapituluetatik atereak, Duvoisinenean izena dutenak: *Jaincoac certaraco eguin izan zuen gizona*, eta *Berenez eta bere baithan cer den bekhatua* (39-78 orr.).

[9] Esaldia itzultzean Duvoisinek galdera hautsi bihurtzen du Cardaverazek soilik zehar galdera hautsi bezala ematen duena. Ikusi litezke aurrerago, Duvoisinek bere hartan mantentzen dituen beste zehar galdera hautsi batzuren adibideak; nola, baita ere, Duvoisinek bere kasara eragiten dituen galdera hautsi batzuk, aurreratuaz soilik, Cardaverazek guztiz atzeratuta emaniko galderetako galdegileak.

[10] Koordinazio eta elipsien arazo honen inguruan, ikusi lan honen 8.5.2.2.3. eta 8.5.2.2.4. ataletan jasotzen ditugun Duvoisin beraren ohar gramatikalak (*Des noms coordonneés, Des propositions coordonnées*, ...), bere zenbait eskuizkributatik atereak.

[11] Aita Lafittek, ehun urte beranduago, propaganda ona egingo dion arren: «Biblea Eskual-Herrian (Olabide'ren omenez)», *Euzko Gogoa*, 1958, 496 or.; non *Liburu Ederra* goraipatzeaz gain*, Laborantzako Liburuarekin* batera, Lafittek biak kontrajarri nahi dizkion *Biblearen* itzulpenari, hau gaitzesteko.

[12] Urte batzuk beranduago, Duvoisinek aitortzen dio Campioni bere gutunetako batean (Martxoak 13, 1880), nola Printzeak ez zizkien oso jardunbide argiak eskaini (edo berak bederen ez zituela hala jaso; *RIEV*, XXII, 1931, 49 or.): «*En 1857, le prince Louis Lucien me chargea de traduire en français et en labourdin les Dialogues d'Iturriaga; l'abbé Inchauspe les mit en souletin, et le P. Uriarte en biscayen. Il ne nous donna aucun programme, en sorte que chacun de nous se livra à sa prope inspiration. Il résulta du défaut de plan commun que cet ouvrage est d'une étude comparative assez imparfaite, C'était justement ce qu'il fallait éviter.*»

[13] Hordagoren 1978ko argitalpen faksimila erabili dugu gure alderaketarako; Duvoisinen aldaketa beretsuak erakusten dituztenean, Inchauspek, edo Uriartek, hala adierazi dugu bereziki, *Inch*., *Uri*. laburpenekin; esaldi pareetako lehenengoa beti izango da Iturriagarena.

[14] Patxi Altunaren argitalpena erabili dugu gure azterketarako, *Laborantzako Liburua*, EEE, Klasikoak, Donostia, 1986.

[15] Duvoisinek baditu antzeko adibide gehiago ere. Bereziki gogoratzen dugu, nola behin baino gehiagotan erabiltzen duen, *"ordu da"* perifrasia esaldi bukaeran, modu nahikoa bitxian, *"Jada fruitu mueta horiez mintzo gaitean ordu da"* edo antzeko esaldiak (*"Jada ordu da fruitu mueta horiez mintzo gaitean"* edo antzeko beste zerbaiten ordez).

[16] Erabili dugu, lehenengoarentzako, J. San Martinen edizioa, *Baigorriko Zazpi Liliak* -BZL-, ELKAR, Donostia, 1987. Bigarrengorako berriz, Patri Urkizuk lehen aldiz argitaraturikoa, *Telemake, Ulisen semearen gertakuntzak* -TU-, ELKAR, Klasikoak, Donostia, 1988.

[17] Xavier Diharce, Iratzederrek, eskuratu, irakurri edo kopiatu bide zuen delako eskutitza, egun oroitzen ez omen den artxiburen batean («*Baionako edo Paueko bibliotekan dauden ez argitaratu paper zaharretan ote?*» idazten digu). Gure aipuko hitz beretsuak eman bide zituen euskaraz Iratzederrek berak, 1991ko urtarrilak 27ko *Argia* aldizkarian, 1.323 zkia., «Duvoisin, kapitain itzultzailea», 49 or.. Orduan ordea zehatz aipatzen da bertan, Duvoisinen hitz artekoa bezala, *«latinetik hurbilena»* esaldi argigarria, segidako moduan: *«Hona Bibliaz hasi dudan lanaren lehen fruitua. Ez dut hitzez hitz euskaralatzea bilatu, bainan hola gertatu da nere itzulpena, nahi izan baitut, behin baino gehiagotan, laket zitzaiketana baino, ahalik eta latinetik hurbilena ezarri...»*. Ez dakigu esaldia itzultzailearen lizentzia bat den ala ez. Baina oraindik lortu ez dugularik jatorrizko gutuna ikustea, badaezpada jaso nahi izan dugu Iratzederren itzulpena.

[18] Latinezko testua jasotzen dugu Torres Amaten argitalpenetik, *La Santa Biblia, Vulgata latina y su traducción al español...*, Barcelona, 1885-86.

[19] Badirudi Duvoisin 1870-80etako hamarkadan hasi bide zela *Quijotearen* itzulpena prestatzen, (ik, J. Apraiz, *Donkituera umill euskalduna Cervantes-eri opatua Manchako don Quijote*, ..., Vitoria, 1905 -2. arg., hitzaurrea-; argitalpen honetatik egiten ditugu aipuak ere.), baina ez zituela prestatu *Aitzin-Solasa* eta lehenengo hiru kapituluak baino, zeinak argitaratu zituen Dodgsonek lehenengo aldiz 1904ean, eta handik Apraizek hurrengo urtean (bi argitalpen desberdinetan ere).

[20] Duvoisinen transkripzio hauek, izan dezakete beharbada akatsen bat. Batetik, behar baino arinago izan direlako eginak, eta Duvoisinen letra ez delako beti erabat argia. Bestetik, gure frantzesaren ezaguera ez da iristen, orain ehun eta berrogei urtetako esku grafien usadioetara. Halaz guztiz saiatu gara, ahalik eta fidelenak izaten jatorrizko testuarekin, bere akats, puntuazio zeinu zalantzagarri, anakoluto, eta abarretan.

[21] Esaten duenean Inchauspek (*Le Verbe Basque*, 1858, 430 or.): «I. La langue basque admet les inversions: ainsi on dit indifférenmment: *háurrac éman zían eskía amári*, ..., ou *amári eskía éman zían háurrac*, ou *éman zían háurrac amári eskía*, ou *eskía háurrac amári éman zían*; on peut avec ces mots faire vingt-quatre combinaisons différentes et toutes sont régulières.[22] Halako arazoez, eta irtenbideez, ikus liteke Inchausperen ohar interesgarriren bat, gure hurrengo kapituluko 7.4.4. atalean. Baita ere, Gèzek edo Ithurryk eginak zentzu berean (ik. bere ataletan).[12]

VI. Tradiziozko testigantzak XIX mendean, iparraldeari lotutako gramatikalarien artean.

Sarrera

Jean Duvoisin (1810-1891) lapurtarraren kasuaz gain (estudiatua *Eskola cardaveraztiarraren* inguruan), nahikoa ugariak dira, XIX mendean barrena, gure iparraldean (edo nolabait iparralde honi lotuta), era bateko edo besteko euskalzaleak, euskal hizkuntzaren azterketa gramatikalari ekiten diotenak, neurriren batean. Hala segidakoak behintzat, guk kapitulu honetan estudiatuko ditugunak, beren lanek zerikusiren bat duten neurrian, euskarazko hitzen ordenamenduaren arazoarekin, batzuk euskaldunak jaiotzaz, nola, Jean Pierre Darrigol (1790-1829); Agustin Chaho (1810-1858) zuberotarra; A Hiriart (□1787-?); Francisco Jaureguy de San Juan (□1850) lapurtarra; Jean B. Archu (1811-1881) zuberotarra; Emmanuel Inchauspe (1815-1902) zuberotarra; J.P. Dartayet (1822-1870) musikologo hazpandarra; edo Jean Ithurry (1845-1896) lapurtarra. Beste batzuk berriz, frantzesak, edo kanpo-atzerritarrak, bategatik edo bestegatik inguratuak euskararen baitara. Hauen artean, Fleury Lécluse (1774-1845), Frantziako Tolosako irakaslea; Antoine d' Abbadie (1810-1879) irlandarra, aita zuberotarra zuena; Louis Lucien Bonaparte printzea (1813-1891) angles-italiar-frantzesa;[1] Carl August Friedrich Mahn (1802-1887) alemana; Francisque Michel (1809-1887) paristarra; Marie Hyacinthe Louis Fabre (1806/7-1875);[2] Willem Jan van Eys (1825-1914) holandarra;[3] Charles Felix Hyacinthe Gouhier, Charenceyko kontea (1832-1916); Louis Gèze (□1873) zuberotartua; Achille Luchaire (1846-1898) Frantziako Tolosako irakaslea ere; edota azkenik Julien Vinson (1843-1916) euskalzale *antieuskalduna* edo.

Ez ditugu beste hainbat euskaltzale aztertu kapitulu honetan, aurkitu ez dugun neurrian beren lanetan, erreferentzia baliagarriegirik, hitzen ordenamenduaren arazoaren inguruan. Hala, J.B. Darricarrère euskaldunaren kasua, oro har, beste arnas handiagoko gaiei eskainia bere neketan;[4] François Ribary (1827-1880) hungariarraren lana;[5] edota Abel Hovelacque (1843-1896) hizkuntzalariaren erreferentziak euskararekiko.[6] Horrela, kapitulu honetarako, kontutan hartu nahi izan ditugu, XIX mendean, gure iparraldearekin lotuta, argitaratu lan guztiak, euskal gramatikaren inguru. Ezin izan ditugu hala ere, aipatu autore guztien, lan guztiak, begiztatu (eta are gutxiago, produkzio ugaritasun handiena erakutsi duten haiena), nahiz guztien erreferentziak jaso ditugun, euskarazko hitzen ordenamenduaren inguru. Eta gerta liteke oraindik, nonbait geratzea, guk topatu ez dugun autore edo lan aztergarririk ere. Eta bat behintzat, guk oraindik eskuratu ezin izan dugun, *ABECEDEA escuaraz iracurten ikhasi nahi dutenentzat*, Baionan 1805ean argitara bide zen liburuska, 56 orrialde, 12renean, beren bibliografietan jasotzen dutena, A. Abbadiek (1836, 44 or), eta ere Francisque Michelek bederen (*Le Pays basque*, 519 or.)[7]. Izan liteke halako besterik, guk ezagutu ez dugunik.

XIX mendean iparraldearekin lotutako gramatikalari guzti hauengan, bi ezaugarri nagusi hartu beharko dira bederen kontutan, denak ere nahikoa bereziko dituztenak, beren hegoaldeko parekideengandik garai beretsuan.

Bat: iparraldeko euskalzaleok, badute, ezagutzen dute, eta aintzakotzat hartuko dute gainera beti, berak bitarteko tradizio literarioa, iparraldean nahikoa aberatsa dena jada 1800erako, bederen hegoaldekoaren parean: Etchepare, Leiçarraga XVI mendean; Materre, Etcheberri Ziburukoa, Haramburu, eta Argainarats; Axular; Oihenart; Pouvreau, Gazteluzar, Harizmendi, Tartas, Arambillaga, Olce, Maytie, Belapeyre, ..., XVIIean; Etcheberri Sarakoa, Chourio, Haraneder, Larreguy, Baratciart, Maister, Duhalde, ..., XVIII mendean; …

Ohargarriki, autore guztion idazkera da antz batekoa, guri dagokigun hitzen ordenamenduaren alorrari begira. Ez dute idazten, Cardaverazek bezala, aurreiritzi aprioristikoz, joskera modu baten edo bestearen kontra edo alde.[8] Baizik, helburu komunikatibo hutsez, idatzi samurrak, ulergarriak, lortzeko asmoz; oro har, hainbestean lortzen dutena, gaur eguneko irakurle urrun baten ikuspuntutik ere.

Ezaugarri bezala, denek ere, nabarmen gordeko dute lehen lehenik beren idatzietan, euskarazko «Xà» fenomenorako joera; baina eraberean, denek erakutsiko dute joera nabarmena, beren aditzak, oro har, emateko, ez oso atzealdean esaldian, eta hainbat eta gutxiago, zenbat eta luzeagoak izan esaldiak. Horrela, denek ere, oso maiz emango dituzte beren esaldietako prediku nagusiak, *galdegaiak*, aditzen ondoretik; eta are maizenik ere, galdegai hauek batere luzeak diren orduko (nahiz ez orduan bakarrik). Hainbat maiz ere, emango dituzte, aditzak zuzenean esaldi hasieran bertan, are nabarmen erakusten badute ere ondoretik galdegaia. Tarteka, aditz trinkoren

batzuk ere erakutsiko dituzte zuzenean esaldi hasieran, nahiz ohizko maiztasun txikian izan. Eta denek ere, oso maiz emango dituzte beren mendeko esaldiak, hautsita, konplementuak dituztela aditzaren ondoretik, beren egitura komunikatiboei komeni bezala. XIX mendean, iparraldeko gramatikagile guztiek isladatuko dituzte beren lanetan, modu batera edo bestera joskera ezaugarri guztiok, oinarritzen diren neurrian, berak bitarteko autoreetan.[9]

Bigarren ezaugarri nagusia, kontutan hartu beharrekoa, XIX mendeko ipar gramatikalariengan, da, hauek beti ariko direla, hitzen ordenamenduaren atalean, euskara *librea* konparatzen, onerako, frantzes hizkuntzarekin, zeinari aldiz, ordenamendu eredu, arau eta erregela zorrotzenak inposatu berri zaizkion, XVII eta XVIII mendeetako espiritu estueneko gramatikalarien eskutik, ondo eztabaida garratzen ondoren. Eta, frantzesa orden finkoko hizkuntza izango bada (munduko *finkoena eta zuzenena*), ia derrigorrezko SAO (SVO) orden *zuzen* baten jabe, euskal gramatikalari guztiak sentituko dira aldiz behartuta, egoera honen aurrean, euskararen libertate (ia) osoa aldarrikatzera, beren hitzak esaldian ordenatzeko garaian (eta hala euskararen gailentasuna frantsesaren aldean, kokatuaz euskara, latin eta greko klasikoekin bateratsu, orden libreko hizkuntzen artean), edota behintzat baieztatzera euskararen askatasuna (edota ohitura ere), frantzesaren aldean, *inbertsiozko* egituretarako, OA (OV), *orden ez-zuzenerako* ere. Eta bide honetan, euskalzale guztiok egiten dute topo, Harrieten baieztapenekin XVIII mendean iparraldean argitaraturiko gramatika bakar, mardulean, bidea irekitzen dionean, frantzesaren aldean, euskarazko hitz orden askatasunari (1741, *Gramatica escuaraz eta francesez*, 501 or.): «On place dans la langue basque indifferemment, le cas devant les verbes comme, *salcen dut ene etchea*, ou *ene etchea salcen dut*, je vends ma maison, &c.»

Eta egia esan, XIX mendeko ipar gramatikalari guztiak ere, azkenerako ez dira joango Harriet baino askoz haratago, euskarazko hitzen ordenamendua argitzen esaldian. Nahiz zenbait autorek, Harrietek bi elementuetako esaldiaren permutazioak erakusten dituen bezala, erakutsiko dituzten, hiru edo lau elementuetako esaldien 6, edo are 24 permutazio posibleak eta erregularrak euskaraz. Eta izan ere bestelakoan, ez dirudi horren handiak direnik, euskara eta frantzesaren arteko ordenamendu desberdintasunak. Ez behintzat, gaztelania eta euskararen artekoak bezain nabarmen edo ikusgarriak. Eta izan ere, frantzesezko baiezko esaldien ordenamendu kanonikoak, sujetoa aditzaren aurrean ematera derrigortzen du (horrela beteaz, frantzes hizkuntzaren joera - indoeuropearra edo ere-, aditza bigarren postu batean(-edo) erakusteko esaldian, edo bere multzo fonikoaren barne). Eta euskarak ere, badu halamoduzko joera, gaztelaniak ez bezala. Frantzesaren aldean ordea, euskaraz, zeinnahi partikula edo konplementu, oro har, laburrek, bete lezake, aditzaren aurreko gune hori. Esaldiko objetuak ere beharbada, frantzesez ez bezala. Ipar gramatikalariek, batez ere, diferentzia, edo libertate hori aldarrikatuko dute bi hizkuntzen artean.

Aldiz gehiegi azpimarratu gabe inoiz, euskararen berezko joera ere, «Xà» fenomenorako, aditza, oro har, bigarren postu batean-edo erantsita emateko bere multzo fonikoaren barne, aurreko elementu toniko labur bati. Ezaugarri bat, askoz ere nabarmenagoa gertatzen dena gaztelaniaren aldean, zeinak oso oso maiz, eta behintzat euskarak baino askoz maizago, hasten duen zuzenean aditzaz esaldia (edo dagokion multzo fonikoa). Nolanahi, bai Archuk eta bai Ithurryk ere, jasoko dute biek, argixeago edo ilunxeago, beren ataletan ikusiko dugun bezala, euskarazko «Xà» fenomenoaren inguruko teorizazio txikiren bat; biek aipatuko dutelarik nolabait, *euskarazko aditzaren joera esaldia bukatzeko*; nahiz biek ere konsistentzia handirik gabe egingo duten baieztapena, aditzaz amaitzen ez diren esaldi ozeano batean inguratuak. Nolanahi, kontutan hartzekoa da, Archurena izango dela, *euskal aditzaren nolabaiteko ezaugarri pospositiboaren* lehen aldarrikapen inprimatua, Lardizabalenaren aurretik, 1852/3 urtean (ik. bere atalean).

XIX mendeko ipar gramatikalari guzti hauek nolanahi, konszientegiak ez izan arren, euskararen berezitasunena, ez dituzte horregatik, berak ere maiz asko utziko, inbertitu gabe emanak, bi hizkuntzetan, esaldi sail osoak (oro har, laburrak, multzo foniko bakarrekoak); eta euskaraz aditzaren aurretik emanez objetu edo predikatu labur haiek, frantzesez derrigorrez aditz ondorenean ematen direnak; eta aldiz euskaraz, agian sujetoa, aditzaren ondoretik, frantzesez ohi ez bezala. Ez dira bada, euskal gramatikalari guztiok ere, frantzesezko ordenamendu moduen segizio itsukoak. Eta beren eskasian, nahikoa lekuko fidelak izango dira denak ere, berak bitarteko euskararen joerena, hitzen ordenamenduaren alorrean.

1. F. Lécluse (1774-1845) irakaslearen Gramera 1826an, tradiziozko ordenamenduen adierazle, eta Harrieten ordenamendu indiferentziarenaldarrikatzaile.

Fleury Lécluse, paristarra, eta Frantziako Tolosako Unibertsitateko hebraiera eta literatur grekoaren irakasleak, 1826an ematen du argitara, bere lan nagusia euskararen inguruan, *Manuel de la langue basque* izenekoa, bi partetan banatua. Lehena, *Grammaire basque* deiturikoa, guri gehien interesatzen zaiguna, berrargitaratua 1874ean, autorea hil eta oso gerora; bigarrena, eta *Vocabulaires* izenpean, bi hiztegirekin, euskara-gaztelera-frantzesa, eta frantzes-euskara.[10] Unibertsitateko irakasle izateaz gain, B. de Ataunek jasotzen du Lécluseri eskainitako artikulu batean,[11] nola ziurtatzen duen Laroussek, Léclusek ezagutzen bide zituela 20ren bat hizkuntza bizi ere.[12] *Grameraren* balioaz berriz, dio J.A. Lakarrak enfatikoki, azken edizioari eginiko sarreran (*ASJU*, 1987, 813-4 orr.), Lécluseren lana dela: «Euskal Izkindea *aitzineko gramatikarik hoberentsuena*… [eta] … *erants bide daiteke orduan ere* [XX. mendean] *ez dazagudala nabarmenki gainditzen duen horrenbeste*». Léclusek bere aldetik, behin eta berriro aitortzen ditu bere gramatikaren iturriak, nahiz beti aldarrikatu bere independentzia ere jatorriekiko. Hala adibidez, lanaren *Conclusioetako* atalaren hasieran (*ASJU*, 1988, 186 or.):

> Il sera facile de voir, par les citations exactes et précises que l'on remarquera dans ma Grammaire, que j'ai lu Oihénart, Larramendi, Harriet, Astarloa, et même l'abbé d'Iharce; mais on se convaincra, par un simple coup d'œil, que mon plan de Grammaire est tout autre que celui des écrivains que je viens de citer.

Ezagun dugu gainera, Lèclusek harreman zuzenak izan zituela, garaiko beste hainbat euskalzalerekin, mugaren bi aldeetan. Besteak beste, J.P. Darrigol (zeinari eskaintzen dion gutun bat *Grameraren* sarreran); edota dakigun heinean, hegoaldeko Aita J.M. Zavala, eta Iztuetarekin behintzat, gorde (eta argitaratu) direnez, Léclusek biei zuzendutako eskutitz zenbait.

1.1. Lécluseren iritzi apurrak euskarazko hitzen ordenamenduaren gainean.

Aitatutako datu eta iritzien arabera, segurasko eman dakioke fidagarritasunen bat, Lécluseren gramatikari, oro har; eta agian baita ere beraz, berak euskarazko hitzen ordenamenduaren gainean esaten dituen apur ez ugariegiei (batez ere *Grameraren* XII atalean, *Syntaxe basque* izenpean, 80 or. eta hurr.); edota oro har, liburuan zehar aditzera uzten dituenei, jasotzen dituen euskarazko esaldi adibideen bidez.

Euskarazko ordenamendu moduen gainean, Léclusek batetik, argi jasotzen du, euskararen ezaugarri *pospositiboa,* Larramendik aldarrikatu bezala (219 or.).[13] Léclusek bestela ere aipatzen ditu, euskarazko *posposizoen* erabilera*, preposizioen* ordez (78 or.); artikuluaren *posposizioa* euskaraz (80 or.); adjetiboarena ere sustantiboarekiko (82 or.); edota genitibo edutezko, eta *-ko* izenlagunen (derrigorrezko?) ordenamendua euskaraz, *atzekoz aurrera* (81 or.),[14] nahiz eta gero, Léclusek *Grameran* bertan jasoko duen euskal testuetako batek, izenburu beretik erakutsiko duen alderantzizko ordenamendua («huntz erhoa, *Condu aleguiazcoa*.», 217 or.). Bestalde aipatzekoa da, Léclusek egiten duen oharra, adjetibo *superlatiboa* osatzeko moduetako batez euskaraz, *positiboa* errepikatuaz, hebraieraren antzo.[15]

1.1.1. Lécluse ordenamendu indiferentzia predikatzen euskaraz, objetua eta aditzaren artean.

Genitiboaren ordenari buruzko oharrean bezala, Lécluse Harrieti jarraituko zaio, hitzez hitz ere ia, eta honen adibide berak erabiliaz, *euskarazko ordenamendu indiferentzia* aldarrikatzen*,* esaldiko aditza eta objetuaren arterako (82 or.):

> 11.) Comme il est impossible qu'il y ait jamais d'ambiguité, on dit indifféremment *salcen dut ene etchea*, je vends ma maison, ou *ene etchea salcen dut*. Dieu dit: Que la lumière soit! et la lumière fut; *Yaincoac erran zuen: Arguia biz! eta cen arguia*. Il n'en est pas de même de l'adjectif, qui se met toujours après le substantif. Exemple: *guizon eder bat*, un bel homme.

J. Ruiz de Larrinagak argitzen duen bezala[16], Aita Juan Mateo Zavala eta Lécluseren arteko harremanez ari dela, Léclusek ezagutu ahal izan zuen, bere gramatika argitaratu eta bi urtera, 1828an, Añibarroren gramatikaren

eskuizkribua, Zavalaren eskutik. Léclusek ezagutu ahal izan zuen orduan, Añibarroren gramatikaren sarrerako adbertimendua, *euskal aditzaren ezaugarri pospositiboaren gainean*. Artean 1826an ordea, ez du ematen Léclusek antzekorik sumatzen zuenik, azken ohar honetan ikusi dugun bezala, non inongo eragozpenik gabe jasotzen duen, zuzenean aditz trinkoz hasitako esaldia (*eta cen arguia*). Ez dakigu Léclusek bere ikusmoldea aldatuko ote zuen 1828az geroztik, Añibarroren oharraren bistara.

1.2. Lécluseren tradiziozko adibidetegia.

Bestelakoan, Léclusek *Grameran* jasotzen duen euskarazko esaldi adibidetegiaren zatirik handiena (beti gramatikaren beste zenbait punturen argigarri), Harrietengandik hartua izango da, edo moldatua, eta dudarik gabe, harenak bezala emango duena aditza, oro har, esaldiko aurregune batean; ezpada zuzenean hasieran bertan.

1.2.1. Galdegaiak aditz ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.

Ez dira izango ugariegiak, oro har ere ez direlako ugariegiak, Lécluserengan, konplementu bat baino gehiagoko esaldiak. Batzuk bai hala ere, nola segidakoak:

(1) Isaakec enyendratu zuen Yacob, ... (20)

(2) ..., eta Yacobec enyendratu cituen Yuda eta haren anayac. (20)

(3) Eta Jacobec engendratu zuen Joseph Mariaren senharra, ... (22)

(4) Aitac eman dio semeari amaren etchea. (40)

(5) Yaincoac creatu gaitu haren maithatceco (84)

(6) Othoiztua naiz aitaz, ... / je suis prié par le père (85, eta berdintsu 85)

(7) Pierresec erraiten du ez-cez (101)

(8) Zuc erraiten duzu nic emaiten dudala (102)

(9) Enequin ekharcen dut ene muyana / je porte avec moi mon trésor (104)

1.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak: AO (VO) egiturak.

Aldiz, Lécluseren adibidetegian, ezin ugariagoak izango dira, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak, eta ordenamendu bere bat erakusten dutenak euskaraz eta frantzesez, gehienetako konplementu bakarrekikoak, eta (asko zuzenean hartuak Harrietengandik):

(10) Galdeguiten dute heya naicen, ... (55, eta berdintsu 60)

(11) Erraiten dute naicela, ... (55, eta berdintsu 60)

(12) Emaiten nitzazu naicena, ... (55)

(13) yaten dut oguia / je mange le pain (59)

(14) maithe dut ene anaya, ... (59, eta berriro 65)

(15) Maithatcen ditut ene anayac, ... (59, eta berriro 65)

(16) Emaiten dautzut dudana, ... (60, eta berdin 102)

(17) Nahi nuque eman lezan, ... (62)

(18) nahi nuen eman cezan, ... (62)

(19) Emaiten dauzut ene bihotza, ... (72)

(20) bidalcen dauzut ene semea, ... (72)

(21) ekhartcen daizquitzut ene liburuac, ... (72)

(22) eguin ditut zure mandatu chume guciac, ... (81)

(23) Ikhusi dut zure etchea, ... (82)

(24) ikhusi ditut zure anayac, ... (82)

(25) Emaiten dut ene etchea, ... (84)

(26) Emaiten ditut ene etcheac, ... (84)

(27) Ethortcen naiz aitaganic, ... (84, eta berdintsu 84)

(28) Erosico dut zure landatic, ... (84)

(29) Hasten naiz hemendic, ... (84)

(30) Hasi behar da eguitetic, ... (84)

(31) Emaiten diot aitari, ... (85, eta berdintsu 85)

(32) Yoaiten naiz aitagana, ... (85, eta berdintsu 85)

(33) Yoan naiz etchera, ... (85)

(34) Yoanen naiz landetarat, ... (85)

(35) Sinhesten dut aitabaithan, ... (85, eta berdintsu 85)

(36) Ikhusten dut etchean, ... (85, eta berdintsu 85)

(37) Saldu dut hogoi sosetan, ... (85, eta berdintsu 85)

(38) Ethortcen da urez (85, eta berdintsu 85)

(39) Ethorrico naiz aitarequin, ... (85, eta berdintsu 85)

(40) Minzatcen naiz aitarenzat (85, eta berdintsu 85)

(41) Erosten dut onzat (86, eta berdintsu 86)

(42) Yoaiten naiz aitaganaino (86, eta berdintsu 86)

(43) Yoan naiz baratceraino, ... (86, eta berdintsu 86)

(44) Ethorri da bere ontasuna eman duelaric (92, eta berdintsu 92)

(45) Yokatcen dugu gure dugunacoca (93)

(46) Erraiten du emaiten duela (102, eta berdintsu 102, 102)

(47) Galdeguin diot bere zamaria, ... (103)

(48) Emaiten diot, ethor ez dadin guehiago (104)

(49) Eguinen du guero (104)

(50) Ethorrico da laur egunen buruan (105)

1.2.2.1. Aditz trinkoren bat zuzenean esaldi hasieran.

Ikusi dugu gorago, Léclusek zuzenean aditz trinkoz hasten zuen esaldi adibidea (*eta cen arguia*, 82 or.). Jasoko du oraindik beste bat ere behintzat, ematen duenean, liburuaren amaieran, Leiçarragarengandik bildutako *Seme prodigoaren* parabola (St Luc, cap. xv., 25):

(51) (Eta has citecen atseguin harcen.) Eta cen haren seme zaharrena landan; ... (214)

1.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Eskasak Lécluserengan, oro har oso eskasak direlako mendeko esaldiak. Lau hauek besterik ez ditugu jaso, denak ere uste dugu, Harrieti hartuak:

(52) Bethea diruz, ... (85)

(53) Eguina escuz, ... (85)

(54) Itsu batec guidatcen badu berce itsu bat, ... (105)

(55) Ez dezazula etzar *non* edorentzat (105)

1.2.3.1. Erlatibozko esaldiak beren buru (mugagabe?)-aren ondoretik.

Léclusek bi alditan ere jasotzen du adibide bezala, *Gure Aita* otoitzaren hasiera, bere izen buruaren ondoretik emandako erlatibozko esaldi (izenburu, kasuan ez dakigu, mugatu ala mugagabea):

(56) Gure aita ceruetan zarena (55, eta berdin 102)

Léclusek inon teorizatzen ez badu ere, erlatibozko esaldi modu hauen joskera euskaraz, emango ditu oraindik antzeko beste bi adibide bederen, orduan izen buru mugatu gabe batzuen ondoren. Bata berea propioa, liburuaren azken esaldi bezala ematen duena, bere alabari esker onak erakusten:

(57) (Lagundu nauenic ez da nehor,) ene alaba lehen[,] bere aitari lagunza puzca bat bere ahal guciaz eman dioena baicic. (219)

Bestea antzekoa, *Gramera* partearen amaieran, Léclusek Chourioren *Imitacioneko* lehen kapituluko hasieratik jasotzen duena:

(58) (Hari zaite ahal guciaz, zure bihotza) gauza ikhusten direnen (amodiotic apartatcen, eta ikhusten ez diren ontasunei iratchequitcen; ...) (108; Chourio, 1788, 30 or.)

1.2.4. «Xà» egiturak euskaraz, eta frantzeseko egituren orden desberdinak.

Hainbat dira, Lécluseren euskarazko adibidetegian, sujetoa-aditza bikotea bakarrik erakusten duten esaerak (*Ni naiz, Hi haiz, ..., Nic dut, Hic duc, ...*, forma sinpleeneetatik hasita -50 or.-; edo luzexeago gutxi batzuk, *Letrac hilcen du, bainan izpirituac bibificatcen du* modukoak -59 or.-) Halakoek beti segituko dute euskaraz, «Xà» moduko egitura bat, kasuan frantzesezkoena bezalakoa gertatuko dena. Badira hala ere, Lécluseren adibidetegian, beste «Xà» egitura batzuk, konplejuxeagoak euskaraz, bat etortzen ez direnak, beren frantzeserako itzulpenaren ordenamenduarekin, segidakoen antzekoak (balio bezate bide batez, jabetzeko, nola, Lécluseren, edo Harrieten, segizioa frantzes ereduekiko, ez den horren itsua gertatzen, eta badituen, segurasko, bere erregelak):

(59) Aita maithatua da / le père est aimè (81)

(60) Parisco da / il est de Paris (84)

(61) Indietaco dire / ils sont des Indes (84)

(62) Pierres, ceina orochtian athean baitcen, ethorri da / Pierre, qui ..., est venu (102)

(63) Yoannesec ceinac oihu eguiten baitzuen orochtian, eguin du, ... / Jean, qui ..., a fait (102)

(64) Haserreduran dena, erho da / celui qui est en colère, est fou (102)

(65) Cerbait hari denac, cerbait ikhasten du / celui qui travaille, apprend quelque chose (102)

(66) Handic ethorcen naiz / j'en viens (102)

(67) (Galdeguin diot bere zamaria,) bainan eza eman darot / ..., mais il me l'a refusé (103)

(68) (Itsu batec guidatcen badu berce itsu bat,) biac erorico dire errecarat /..., ils tomberont tous deux dans la fosse (105)

1.3. Lécluseren euskal testu erakusgarriak.

Grameraren bukaeran jasotzen ditu Léclusek, euskarazko, benetazko, testu labur batzuk erakusgarri («*comme il n'est pas facile de se procurer des livres basques*», esaten du, 106 or.). Eta hala ematen du, prosaz lehenik, eta bi zatitan banatua, Chourioren *Imitacionearen* lehen kapituluko parte bat; ondoren, Leiçarragaren *Zorci dohastasunen* testua, bi aldiz ere (bata 1571ekoa, eta bestea 1825ean Baionan eginiko argitalpenekoa); baita ere hurrena, *Aita Gurearen* otoitza, bi modutara (*basque français, basque espagnol*); fabula bat prosan (*Bellia eta Acheria*); eta azkenik, Fenelonen *Telemakeren* lehen kapituluaren hasierako itzulpena. Gero, liburu osoaren amaieran, erantsiko ditu oraindik Léclusek, prosan, Leiçarragaren *Seme prodigoaren* parabola, S Luc-en arabera; eta aitatu *Huntz erhoa. Condu aleguiazcoa,* kontakizun bitxi eta laburra *Arrastoitarra*-k sinatzen duena (agidanean, Arnauld-Michael d'Abbadie jaun zuberotarra, Antoine d'Abbadie-ren aita). Erraz presta zitekeen beste adibidetegi oso bat ere, gorago eman dugunaren antzekoa, testu guzti hauetan, aditza nolabaiteko aurrealde batean erakusten duten esaldiekin. Denek gordetzen baitute, tradiziozko hitz ordenamendu bat, berrikuntza handirik gabea, maiz erakutsiaz, galdegaiak aditzen ondoretik, tarteka esaldiak zuzenean aditzaz hasten direnak (behin ere bai behintzat Leiçarragaren kasuan, aditz trinko bat zuzenean esaldi hasieran, gorago jaso dugun bezala), edota mendeko esaldi hautsiak. Zail zuen Léclusek, guzti hauetatik ere inola iritsi ahal izatea, Añibarroren euskal aditzaren balizko ezaugarri pospositiboetara[17].

2. Jean Pierre Darrigol (1790-1829) abadearen Disertazio kritiko eta apologetikoa 1827an, euskararen ordenamendu librea aldarrikatzen.

Jada izenburuak iragarri bezala, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*, ez gaude justu, lan gramatikal huts baten aurrean, nahiz gramatika baten atal guztiak ere jorratu nahiko dituen, Jean Pierre Darrigol, abade, gazte zenduaren lan asko goraipatu honek. Lécluseren lagun, Darrigolek honen *Manuelaren* hurrengo urtean ematen du argitara bere lana. Ordura bitarteko euskal estudioen eskasiak salatu eta gero, asmo zuhur eta goresgarriak agertzen ditu, bere ondorengo erreflexio gramatikal guztiak, oinarritzeko, batetik, gure hizkuntzaren errealitatean; eta bestetik, behar bezain beste urruntzeko erreflexio horiek, inguruko beste hizkuntza (erromanikoen) sistema gramatikal, desberdin, eta partikularregietatik. Nahiz Darrigolek, beti segiko duen berarekin gordetzen, *gramatika generalaren* aitzakian, joera nabarmena, elukubrazio propiorako. Hala moduz dio *prefacean* (II or.):

> Comme les ommissions et les méprises que nous venons de dénoncer, paraissent avoir leur source dans la trop grande influence des systèmes particuliers des langues sur l'esprit de nos grammairiens; ce n'est pas qu'en nous tenant en garde contre cette même influence d'esprit, que nous pouvons espérer de faire mieux connaître le basque. Nous puiserons donc, selon l'avis de M. du Marsais, *les règles de la langue dans la langue elle-même*; et, afin de les apprécier selon leur juste valeur, nous les rapprocherons souvent des règles de la grammaire générale, ou des principes fondamentaux du langage.

Darrigol nolanahi, beste ezerri baino gehiago lotuko zaio, gramatika filosofikoaren diskisizio bideari, eta gutxiago benetako hizkuntzaren deskribapenari, nahiz honetatik ere izango duen onik.

2.1. Euskara orden libreko hizkuntza.

Segidan kontatzen ditu Darrigolek, liburuan zehar *eztabaidatuko* dituen gaiak, eta hauen arteko azkena, sintaxiarena edo, berak definitzen duen bezala (II or.): «*l'art de fixer le rang des mots, et d'assortir ensemble leurs formes accidentelles, pour obtenir un sens achevé dans le discours.*» Darrigol, liburuko 142 orrialdetik aurrera saiatuko da *arte* hori eztabaidatzen (142 or.): «*...; il nous reste à connaître la manière dont ces objets se lient ensemble, et la place qu'ils doivent occuper respectivement, pour être la représentation sensible de nos idées. C'est l'objet de la syntaxe, ...*» Eta horrela aitatuko ditu hurrengo orrialdeetan, adjetiboaren euskarazko ohizko gunea izenaren ondoan (144 or.), edota zenbakiena izenen aurretik, *unitatea* salbu (144 or.). Ordea, Darrigolen ekimenik gogotsuena zuzenduko da, frogatzera, euskara bezalako *construction libreko* hizkuntzen abantailak, beste hizkuntza *gajoen* aldean, frantzesa bezala, derrigorrez kondenatuak daudenak, *construction servil* batera. Hala moduz dio, lerrokada desberdinetan:

> ... la syntaxe emploie deux moyens généraux pour faire que les mots aient un sens achevé; savoir, *l'ordre* ou *l'arrangement des mots*, et leurs *formes accidentelles*. Le premier moyen est la grande ressource des langues qui ne déclinent pas leurs noms. (142 or.) / Celles [langues] dont les élémens se plient aux formes accidentelles qui caractèrisent les relations des mots, ne sont pas nécessitées à la marche uniforme des premières; elles abandonnent la construction à l'influence de l'harmonie, au feu de l'imagination, à l'intérêt, &c. (150 or.) / [Eta aurrerago, Gebelin-en aipu bat jasoaz, egingo du erreflexio] Pourquoi serions-nous réduits à répéter en perroquets nos mots toujours dans le même ordre? (153 or.)

Argituko du oraindik Darrigolek piskaren bat, zein den, euskara edo latina bezalako hizkuntzen joskera mota libre hori; eratortzeko berehala, nola, gurean, ordenarena ez den horrenbeste, sintaxi edo gramatika kontu bat, nola gusto eta erretorikarena (143 or.):

> Que l'on dise en latin, *Pater amat filium*, ou *Filium amat pater*; que l'on dise en basque, *Aitac maite du semea*, ou *semea maite du aitac*; c'est toujours le même rapport de dépendance qui est affirmé du fils. Au lieu donc que l'ordre des mots fait la partie la plus considérable de la syntaxe française, celle de notre langue obtient son but par le moyen des formes accidentelles des mots; et chez nous, cet arrangement que l'on appelle construction, est moins une affaire de syntaxe qu'une affaire de goût: il appartient moins à la grammaire qu'à la rhétorique[18].

Eta arrazoi guztiarekin argudiatuko du Darrigolek, orden libreko hizkuntzen abantaila, euskara barne, onartzen ere dutenez gero, komeni zaien guztian, SAO (SVO) bezalako ordenamendu bat, frantzesarentzat aldiz, derrigorrezkoa dena, diskurtsoari komeni, edo ez (158 or.):

> Une langue, pour être libre, ne s'écarte pas nécessairement de la marche que l'on appelle méthodique: elle cesserait même par là d'être libre; et c'est parce qu'elle est libre qu'elle peut choisir l'arrangement de ses mots, suivre par conséquent l'une et l'autre constructions, selon que le sentiment ou l'harmonie, la clarté, la précision ou la gravité du discours l'exige, et s'accommoder ainsi à tous les genres et à toutes les circonstances. Concluons qu'une langue à construction libre, et notamment celle qui nous intéresse le plus, possède tous les avantages des langues serviles, sans partager leurs inconvéniens.

Halakoak baitira euskararen berezko ahalmen, hobe ezinak, Darrigolek liburuskaren ondorioetan aldarrikatuko duen bezala (161 or.):

> Assortir le placement des mots à la nature de la pensée; imiter par leur arrangement le calme des idées contemplatives, ou bien suivre nos sentimens dans leur impétuosité, dans leurs écarts, dans ce désordre qui leur fait franchir, comme par un bond, ce que l'idée suivrait pied á pied; ranger les élémens du discours dans l'ordre le plus propre à instruire, ou les abandonner à l'influence de l'harmonie, au feu de l'imagination, à l'intérêt, pour toucher et entraîner; se prêter par conséquent, de la manière la plus parfaite, à tous les genres et à toutes les circonstances: tels sont les priviléges de notre construction.

Horregatik da euskara ere deitua, eginbehar gorenenak betetzera, Darrigolek eratorri bezala, Batteux-en aipuan oin hartuta (157 or.):

> ..., empressons-nous d'agréer la concession faite à toutes les langues libres, et notamment à celle qui nous intéresse le plus; disons qu'elle est faite pour toucher, persuader, émouvoir le cœur et les passions; prononçons désormais avec confiance qu'elle est singulièrement propre au barreau, à la chaire, à la poésie, à tous les ouvrages de goût.

Ondo dihoakio liburuaren izenburuari, adjetibo *apologetikoa*. Eta egia esan, Darrigol ez da horren gaizki paratua irtetzen, XVII eta XVIII mendeetan, Frantziako letrak horren gordin astindu zituen hizkuntzaren *orden naturalari* buruzko polemiketatik. Dotoreago ere bai, esateko, eztabaida berorien oihartzunetan teorizatzen aritua zen P.P. Astarloa baino; nahiz finean honek ere aldarrikatu euskararen orden librea (era batera edo bestera), eta ordenamendu modu honen abantailak.

2.2. Darrigolen adibidetegi eskasa.

Ikusi dugu gorago Darrigolek bere liburuan jasotzen zituen euskarazko esaldietako bi (*Aitac maite du semea, semea maite du aitac*, 143 or.), aldarrikatzen, latinaren alde berean eta M. Harrieten bidean, bi ordenamendu moduon zilegitasuna euskaraz: SAO (SVO), nola OAS (OVS). Oro har, Darrigolek ez du euskarazko beste esaldi adibide oso gehiegi jasotzen bere liburuskan. Bai batzuk hala ere.

2.2.1. «Xà» egiturak euskaraz, frantzesez bestela.

Darrigolek jasotzen dituen euskarazko esaldi oso gehienak amaituko dira beren aditzaz, eta beren pare frantzesez bestela. Gehienak dira oso laburrak, aditza eta beste konplementu bakar batez (edo biz) osatuak, eta halakoetan, alde, aldi eta moeta guztietako euskaretan bezala aurkituko ditugu, «Xà» moduko ordenamenduak, aditza bigarren elementu bezala erantsita bere aurreko elementu toniko labur bati, multzo foniko bakar baten barne. Hala nola segidako guztiotan:

(1) Boltsuaren baratce hori seinale çarra da (101)

(2) Baratce hori ederra da (101)

(3) Baratceaz mintço niz (101, eta berriro 101)

(4) Çure aitaren ikustetic jiten niz (103)

(5) Çure aita ikusiric jiten niz (104)

(6) Hastera noa (104)

(7) Mintçatcera noa (104)

(8) Ikhustera noa (104)

(9) Giçona janez bici da (105)

(10) Emazteac icicor dire (144)

(11) Jaincoa lekhu eta gauça gucietan da (145)

(12) Etcherat ethorri da (147)

(13) Etchetic athera da (147)

(14) Nihauri errana içan çaut (149)

(15) elgarrekin galtcen dire (149)

2.2.2. Galdegaia aditzaren ondoretik: SAO (SVO) egiturak.

Badira nolanahi Darrigolengan, bestelako esaldi gutxi batzuk, beren galdegaia aditzaren ondoretik erakusten dutenak, edota bederen SAO (SVO) moduko egiturak dituztenak, jada gorago aipatua dugun bestea bezalakoak:

(16) Jaincoac bere idurira egin çuen giçona (145)

(17) Jaincoac egin çuen giçona (145)

(18) Hastean Jaincoac egin cituen cerua eta lurra (145)

2.2.2.1. Baita zuzenean aditzaz hasiko den esaldi bat.

(19) iduri du hortaco egina / il semble fait pour cela (149)

3. A. Chaho (1811-1858) aztiaren Grammaire euskarienne-a 1836an, eta bere artikuluetako praktika tradiziozkoa.

Agustin Chaho zuberotarrak, 1836an ematen du argitara, A. Th. d'Abbadieren *prolegomeno* luze eta interesgarri batzuren ondoren, bere (zubererazko) gramatika lana, *Études grammaticales sur la langue euskarienne* izenburu pean.

3.1. Chaho ordenamendu aske baten defentsan.

Chaho, artean oso gazte batek, ez du ematen bertan, bere atzizki, deklinabide eta aditz taula ugarien artean, euskal esaldi osoen batere adibidetegi zabalik. Hartu behar da ere kontutan, Darrigolen kasuan bezala, Chahoren asmoa ez dela horrenbeste, euskararen erabilera azaltzea, nola euskararen *edertasun metafisikoak* erakustea, berak irabazi nahi dion munduaren aurrean. Liburuskako azken lerrokadara arte itxaron beharko da, euskarazko hitzen ordenamenduari buruzko iritzi orokor bat. Bertan hala ere, Chahok argi jasoko du, Darrigolek (luzeago) garatzen zuen pentsamolde bera, euskarazko hitzen ordenamendu libreari buruz (183 or.):

> Dans toute langue où la conjugaison est absolue et la déclinaison universelle, l'inversion est essentiellement libre et la construction de la phrase presque arbitraire, comme dans la langue *Eskuara*, qui n'a point de règles de syntaxe, et dans laquelle l'expression grammaticale de la pensée emporte avec elle la lucidité parfaite et la régularité forcée du discours.

Lehenago egiten du Chahok halaber, beste zenbait diskisizio esentzialistagoen artean, adierazpen nahiko argia (bitxia ez ezik), *Nahi dut izan* esaldiako hiru hitzen ordenamendu librearen gainean (170 or.):

> ...: *Nahi dut izan*, je veux être. ... Aussi l'inversion permet-elle de retourner la phrase de toutes les façons. / Nahi dut izan. / Izan nahi dut. / Izan dut nahi. / Dut nahi izan. / Dut izan nahi.[10]

Permutazio bitxi hauez gain, Chahok jasotzen ditu bere adibideetan, beste hiru esaldi labur ere behintzat, aditza eta beste konplementu batez osatuak, hirurak ohizko «Xà» egitura batean:

(1) Heben gutuk / nous sommes ici (156)

(2) Handi gutuk / nous sommes grands. (156)

(3) Sartzera noa / je vais entrer (176)

3.1.1. Abbadieren ohar eta adibideren bat.

Abbadiek bere sarreran, aipatzen ditu beste puntu batzuk, euskarazko elementuen ordenaren inguruan; nola, artikuluaren posposizioa euskaraz (4 or.), edota euskara eta frantzesaren arteko itzulpen zailtasunak, bien gramatiken arteko aldearen ondorioz (3. or.). Ez besterik, ezpada, erakusten dituen euskarazko hiru esaldi osoen adibideak. Bi aditzaz bukatzen direnak, euskarazko ohizko «Xà» egitura batean:

(4) bide haü bideago da / ce chemin-ci est le meilleur des deux (5)

(5) nizana niz / je suis celui qui suis (5)

3.1.1.1. AO (VO) egitura bat ere, zuzenean aditzaz hasten dena.

Edota zuzenean aditzaz hasten den segidakoa, AO (VO) egitura batean:

(6) galdu ditut indarrac / j'ai perdu mes forces (26)

3.2. Chahoren praktika tradiziozkoa.

Chahok *grameran* gehiegi uzten ez badu ere, euskal idazkera praktikorik ezagutzen, nahikoa da begirada bat egitea, bere zeinnahi euskal izkriburi,[20] jabetzeko, Chahoren tradiziozko idazkeraz, hitzen ordenamenduaren atalean. Bere aditzak usu gorde du esaldi aurrealdeko gune bat, maiz emanik galdegaia aditz honen ondoretik (zenbaitetan galdegaiak luzeegiak ez izanik ere); tarteka ere bai, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak; eta baita ere mendeko esaldi hautsi ugari. Baina Chahorengan ere, maizenik aurkituko ditugu, beste guztien gainetik, «Xà» moduko egiturak.

Segidako adibidetegia osatzeko, aztertu ditugu, Chahok 1848ko urteko ekaina eta uztaila artean, *Ariel* aldizkariaren euskarazko bi aleetan idatzitako bost artikulu suar eta kementsuak (P. Urkizuren aipatu ediziotik).

3.2.1. Galdegaiak aditz ondoretik.

Zeharo ohizkoak izango dira Chahorengan halako egiturak, entendimentuzko aditzekin, nola ere zeinnahi moetatakoekin. Hala:

(7) Ainguriak dirade, holatan, Jinkuaren mezu-egiliak; ... (21)

(8) Eta Ifernuko gai-ainguriak dirade aldiz, mundutik eta gizonetik jalkhitzen diren indar-gaixtuak eta biziuak, aphez-gisa mintzatzera, *Debriak* (...). (21)

(9) Aski da jakitia ainguriek badutiela erdaraz bere izen kuriusak, ... (21)

(10) Mendietarik horra zaiku hegaltaz, bere izen ederra zelian izkiribaturik balu bezala. (22)

(11) Burutik agertzen zaio su-gar bat, zuinek markatzen beitu ezpiritiaren gogo-argia. (22)

(12) Errepublika (Latinez *Res publica*) erran nahi da ororen hun den gauza. (23)

(13) Populu, phenazalia, hire etsaiak ordu duk ezagut ditzakan. (23)

(14) Hura izanen duk, kargulant guziak heure botzez izendatzen batuk. (23)

(15) Hura izanen duk, gizon abariziosen plazen dihuria, Gobernamendiak hire behar orduko emaiten balin badauk, ehunarendako hirur libera intres pagatuz. (24)

(16) (Langile ofizialiak;) zien zorthia ere duk biziki tristia. (24)

(17) Alde batetik ziezte guti pagatiak, ... (24)

(18) ..., beste aldetik duzie anhitz aldiz lana falta. (24)

(19) Ttipi handiak oro sorthiak dira uros eta untsa bizitzeko. (24)

(20) Zenbait jeneral karlista pasatu dira Espainialat Baionatik. (25)

(21) Erregek engaiatu ziren kontratuz saintuenez ez zutela aikien deretxueri, fuerueri, libertatieri sekulan unkituko. (26)

(22) Gizon hek traidoriak, tiranoak bethi diren bezala, kendu zaituzte libertatiak, bat-banazka, ... (26)

(23) ..., promes oiek egin zituzten obekiago engainatzeko populu konfidantena, ... (26)

(24) ..., eta bere mendi maitatu oiartzun guziek errepikatuko dute orren orru terriblia, paratuko beitu bere etsaiak lur-barnian. (26)

(25) Hirur mila urthez, gezurrak eta jinko-falsiek ukhen ditizie mundu huntan bere elizak eta aphezak. (30)

(26) ...; eta ber gisan Errumako Aita-Saintia erdaraz deitzen dizugu *Pape, Papa*. (30)

(27) Hala-hala, izen gabe diren haurrak dutuzu bastart edo aphez-seme. (30)

(28) Inkisizioneko tribunal garratza photerian balitz orano, zu zinate apheza gure bizirik erra-erazteko kapablia. (30)

(29) Ni nuzu gizon bat, ezko khandera bat argi emanez hurtzen eta konsumitzen den bezala, bere odola eta bizia galdu eta khetan igorri dutiana, ... (31)

(30) Ekosesak, bere mendietan, laborari edo artzain, irakurten dizu egun-oroz, ez-solamente bere herriko gaseta bena bai ere Angleterrakoa: ... (31)

(31) Erregina, mirakulu xume baten medioz, mundurat emaitera doa aur ñimiño bat, aitari dena iduria. (35)

(32) ... Montemolinek behar bada zor oiek pagatuko tu ezkontzen delarik, erraiten duten bezala, Angeletarrako erreginaren osabaren Cambridgeko dukearen alabarekin. (36)

(33) Afera hortan galdu zuen amabortz bat gizon. (36)

(34) Zubiri, egun autan, sartu zen Maulen, ehun eta lauretan hogoi gizonekilan, ... (37)

(35) ..., eta hantikan karrosan phartitu zen Pauerat. (37)

(36) Bere aldetik, Lanz sartu da gure lurrian bere bandako pharte batekilan. (37)

3.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Batez ere entendimentuzkoak, baina ere bestelakorik, segidako lehenengoa bezala:

(37) Jin-duk hire botz handiaren intzunarazteko tenoria. (24)

(38) Erraiten dute Nafarrua, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia altxatu nahi direla hanbat denbora gabe. (25)

(39) Uste dute kadena azpitan paratuak direla, ... (26)

(40) Irakurtu ukhen dit, Parisen berin, *Internacionalin*, gure kontre izkiribatu duzun letera ezinago-luzia, ... (29)

(41) ..., eta ezagutu dit mementin, zu zinela jaon aphez bat, ... (29)

(42) Erran duzu, lehenik frantzesez, ... (30)

(43) Eta erranen deizut beste arrasu bat: ... (33)

(44) Erraiten dute bere arizpa ere, ..., erditzera doala. (35)

(45) Erraiten dute ordena emana dela Gonzalez artzeko, ... (35)

(46) ...: erraiten dute anglez eskuadra bat ... ilkia dela, ... (36)

(47) ... eta egiten diozka askitxo prisonier, ainitz soldado hil onduan. (36)

3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Klase guztietakoak:

(48) (Aski da) jakitia ainguriek badutiela erdaraz bere izen kuriusak, ... (21)

(49) ..., Gobernamendiak hire behar orduko emaiten balin badauk, ehunarendako hirur libera intres pagatuz. (24)

(50) (Erran ezak) nahi dukala bizi aisetarzunian, ... (24)

(51) Amurekatik hobeki ezagutiak izan diten, ... (25)[21]

(52) (Erraiten dute) Nafarrua, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia altxatu nahi direla hanbat denbora gabe. (25)

(53) ..., eta auk nahi zituztenian esklabo ezarri, ... (26)

(54) ..., ukhaturik nazionetan diren deretxo errespetablienak. (26)

(55) ... obekiago engainatzeko populu konfidantena, ... (26)

(56) ..., eta zuen probintziak jakinaz dezaten munduari, Kantabro ezin malsatua izana, libro dela bere Mendarte eder eta gutiziatuetan. (27)

(57) ..., libertateko bandera agertzen denian gure mendi puntetan, ... (27)

(58) (..., eta ezagutu dit) mementin, zu zinela jaon aphez bat, ... (29)

(59) (..., zu zinela jaon aphez bat), sorthia Petharrin, Maule khantin, gaizki eskolatia Baionako hirin, doktor handi ignoranten artin, ... (29)[22]

(60) (Erran ...) gu girela ainguru errebelak, ... (30)

(61) ..., Infernuti ihessi eginak Uskal-herriaren galtzeko. (30)

(62) Inkisizioneko tribunal garratza photerian balitz orano, ... (30)

(63) (..., zu zinate) apheza gure bizirik erra-erazteko kapablia. (30)[23]

(64) (... erakats itzazu) guk beno barnago duzula Uskal-herria bihotzian, ... (30)

(65) (Ni nuzu) gizon bat, ezko khandera bat argi emanez hurtzen eta konsumitzen den bezala, bere odola eta bizia galdu eta khetan igorri dutiana, hogei urthe huntan, argi emaiteko, ... (31)[24]

(66) ..., egiaren erakusteko gizonen artian. (31)

(67) ..., orentthuak badakitzalakoz, *Pater, Ave*, eta *Credo, Deprofundis*-areki. (31)

(68) ..., nahi bazunu egia erran edo jakin, ... (33)

(69) (..., mundurat emaitera doa) aur ñimiño bat, aitari dena iduria. (35)[25]

(70) (...: erraiten dute) anglez eskuadra bat, ..., Portsmoutetik ilkia dela, ethortzeko Espainiako kostetarat, eta asiko dela bereala ordena duena segitzen, ... (36)[26]

(71) ... ezkontzen delarik, erraiten duten bezala, Angeletarrako erreginaren osabaren Cambridgeko dukearen alabarekin. (36)

3.2.4. Erlatibozko esaldiak beren izen buru mugatuaren ondoretik.

Ik. berriro, aurreko ataleko 59, 63, 65, 69 eta 70 esaldiak, eta hauei dagozkien oharrak.

3.2.5. Galdera hautsi bat ere.

Hala moduzkoa kontsidera bailiteke segidakoa:

(72) Nork oihu eginen du, azkenian, errege-erreginak eta heien partidario tontoak edo anbiziosoak akazatu ondoan: ...? (37)

4. 1840, A. Hiriart (□1787-?) eskola maisuaren Introdukzioa euskal eta frantzes hizkuntzei.

1840an argitaratzen da Baionan, *Introduction à la langue française et à la langue basque* liburua, A. Hiriart baionarrak idatzia (*Maître de Pension, à Ustaritz*, bere burua azpititulatzen duen bezala liburuskaren azalean), aurreko urteko eskola opor aldietan.[27] Mugaz honuztik Astigarraga, Iturriagak, edo geroago, Egurenek egin bezalatsu, Hiriartek, mugaz haruztik, lehen Harrietek egin moduan, bi hizkuntzen ezagutza bideratu eta erraztu nahiko die eskola umeei: Maitasun handiz euskara, *prefacean* adierazten duen legez; eta praktikotasun zuhurrez, frantzesa. Hiriartek, bi hizkuntzetako hainbat adierazpen lexikal eta gramatikalez gain, emango ditu bere liburuskan hainbat otoitza ere, hiru hizkuntzatan (latinez ere), ikasleen hezkuntza morala zaindu asmoz, berak gogoz adierazten duen bezala bere ondorioetako abisu nasaietan (158-169 or.). Bigarren parte bat iragartzen duen arren, hurrengo eskola oporraldietan prestatzekoa, euskal aditz jokoaren aberastasunari eskainia, ez dirudi honek inoiz argirik ikusi zuenik. Beharbada, lehen parteak izan bide zuen arrakasta eskasaren kariaz (ez zuen berrargitalpenik izan, eta ezta ere agidanean oihartzun handirik; guk ez dugu aurkitu uste, Hiriarten obraren beste aipamenik).

Liburuko euskal atalaren inguruan (1-169 orr.), iragartzen du Hiriartek *prefacean,* nola ez den bere asmoa, apologiatan aritzea (nahiz berak ere egiten duen zeredozer bertan), eta ezta ere eztabaida gramatikal jakintsuetan murgiltzea. Bi atal horiek jorratzeko, gomendatzen ditu, Darrigolen *Disertazioa*, eta Lécluseren *Gramera*. Bere asmoa apalagoa bide da; batez ere zenbait taula erakustea, euskal hitz hainbaten deklinabidearekin,[28] eta aditzen jokuekin.[29] Bestelakoan ez dugu liburuan erreferentziarik aurkitu, euskarazko hitzen ordenamenduaren gainean, salbu, zenbakiek gordetzen dutenaz (31 or.), edota euskaraz beren erregimenen ondoren ematen diren *preposizioez* (37 or.).[30] Ezta ere beste konparaziorik frantzes ordenamenduarekin, edo ere, ohar garrantzitsurik, honen ordenamendu modu (berezi)-en gainean.[31]

4.1. Hiriarten adibidetegi laburra.

Ez diogu Hiriarteri beste obrarik ezagutzen euskaraz (edo erdaraz), eta ez du ere ematen, euskarazko esaldi osorik ia, bere adibidetegian. Hala ere, erator genezake ondorioren bat, Hiriarten usteen inguruan, hitzen ordenamenduaren gainean, aztertuaz, frantzesezkoaren parean, liburu hasieran ematen duen euskarazko testu laburra (X-XII orr.; *Gure erreligione sainduco hirur mysterio principalac*); edota euskarazko zatiaren amaiera aldera ematen dituen otoitzak hiru hizkuntzetan (136-157 orr.). Testuak, bereziak dira, baina esan behar, Hiriarten prosa estiloa, ez dela aldentzen, gu tradizioazkoa deitzen gatozen hartatik. Aditzek usu gordeko dute aurrealdeko gune bat esaldian; galdegaiak maiz joango dira aditz hauen ondoretik; aditzak zenbaitetan esaldi hasieran bertan; eta mendeko esaldiak, oso maiz emango dira hautsita, konplementuak dituztela beren aditzaren ondoretik.

4.1.1. Hiriarten «Xà» egiturak euskaraz, nahiz bestelakoak erakutsi frantsesez edo latinez.

Nolanahi, Hirarterena ere ez da izango, ordena kontutan, frantzes edo latin ordenamenduekiko segizio hutsa. Honen euskarazko esaldiek, maizenik erakutsiko dute «Xà» fenomenorako joera, nahiz eta ordenamendu desberdinak izan frantsesez edo latinez. Segidako kasuak erakusgarri:

(1) Cantatcen duçun ber, compainia content içanen da / Pourvu que vous chantiez, la société sera contente (40)

(2) Eta mundu guçia berria eguinen da / Et renovabis faciem terræ / Et vous renouvellerez la face de la terre (136-7)

(3) Çure gomendioan pharatcen gare, ... / Nous avons recours à votre assistance (/ Sub tuum præsidium confugimus, ...) (144)

4.1.2. Galdegaiak aditzaren ondoretik eta AO (VO) egiturak.

Hala ere, esan bezala, maiz aurkituko ditugu Hiriartengan esaldiak, nabarmen daramatenak galdegaia aditzaren ondoretik emana (edota behintzat objetua zenbaitetan, AO (VO) egituran), nahiz aditzak gordetzen segi «Xà» moduko egitura bat, esaldiko beste elementu toniko laburrren batekin. Hala adibidez:

(4) (Cer da Mysterioa?) Mysterioa da gauça bat eguia dena, guc ecin compreni deçaqueguna, ... (XI)

(5) (Cein dire gure legue sainduco Mysterio principalac?) Badire hirur, trinidade sainduco Mysterioa, ... (XI)

(6) Jaunaren aingueruac Mariari eman dio berri on bat. (140)

(7) Eta Verboac hartu du haraguizco gorphutz bat. (140)

(8) (Çure ganat gaude deyaz, ...;) çure ganat gaude hasgorapenez, guciac auhenetan eta nigarretan ... (143)

(9) Izpiritu sainduaren obraz eta eguinçaz aphaindu cinituen birjina ama Maria gloriosaren gorphutza eta arima, Jesus-Christo çure semeari çagoçon [sic] beçalaco egoitça bat içan çadinçat: ... (143)

(10) Çure gomendioan eçartcen ditut ene arima, ene gorphutça, ... (148)

(11) ..., eta benedicatua da çure esposaren sabeleco fruitua, ... (151)

4.1.3. Aditzak esaldi hasieran.

Emango du hainbat esaldi zuzenean aditzaz hasita, galdegaia ondoretik badaramate ere oso nabarmen:

(12) (Cer aditcen ducu Trinitate Sainduco mysterioaz?) Aditcen dut Jainco bat badela hirur presunetan ... (XII, eta berdintsu berriz, XII, XII)

(13) Eta concebitu du Izpiritu saindua ganic. (140)

(14) Eta egotu da gure artean. (140)

(15) Othoizten çaitugu, Jauna, çure gracia ichur deçaçun gure bihotcetara, ... (140)

(16) Galdatcen darotçugu Jesu-Christo gure Jaunaz. (140)

(17) ...; galdetcen darotçugu Jesus-Christo hartaz beraz. (144)

(18) (O Maria Saindua, ene Andre soberanoa,) ematen naiz çure protectione maithagarriaren azpian, abandonatcen dut ene burua çure artha bereciari, eta ardikitcen naiz çure misericordiazco galçarrerat egun eta bethi ... (148)

(19) ..., ematen naiz çure laguntça bereciaren azpian, hautatcen çaitut, Ama Birjinaren eta ceruco gorthe guciaren bistan, ene Patrointçat ... (154)

(20) Ematen darotçuet ene bihotça, ematen darotçuet ene bicia, ... (156)

4.1.4. Mendeko esaldi hautsiak.

Ezin ugariagoak dira Hiriarten prosa adibide hauetan, hautsita ematen diren mendeko esaldiak:

(21) (Mysterioa da) gauça bat eguia dena, guc ecin compreni deçaqueguna, bainan sinhetsi behar duguna, ceren Jaincoac irakhatsi dioen bere Eliçari. (XI)

(22) (Aditcen dut) Jainco bat badela hirur presunetan ... (XII)

(23) (Aditcen dut) Jaincoaren Semeac hartu dituela gureac beçalaco Gorphutz bat eta Arima bat ... (XII)

(24) (Aditcen dut) Jaincoaren Semea, hil içan dela Gurutce baten gainean, ... (XII)

(25) Non ez den eri / À moins qu'il ne soit malade (40)[12]

(26) Mereci ditçagun amorecatic, Jesusec aguindu onthassunac. (140)

(27) ..., çure gracia ichur deçaçun gure bihotcetara, ... (140)

(28) ..., amorecatic, Aingueruaren medioz çure Seme divinoaren incarnacionea eçaguturic, haren passionearen eta gurutcearen merecimenduz, hel gaiten bicitce dohatsura. (140)

(29) ... hondaturic nigarrezco leku huntan. (143)

(30) Mereci deçagunçat Jesus-Christoc aguindu dauzkigun onthasun handiez goçatcea. (143)

(31) ..., libratuac içan guiten haren arartecotasunaz, ... (144)

(32) ...; amorea gatic eta çure arartecotasunaz eta çure merecimenduez, ene accioneac oro içan diten guidatuac eta disposatuac çure eta çure semearen borondatearen arabera. (148)

(33) ..., nehor içan dela abandonatua: ... (149)

(34) ... preferentciaz hautatua mariaren espos içateco ... (151)

(35) ..., imita ditçadan çure kharra, çure garbitasuna, ... (154)

(36) ..., senti detçadan çure laguntçaren efetuac. (154)

(37) ... akhaba deçadan çuekin ene bicia bakean. (157)

4.1.4.1. Erlatibozko esaldia bere buru mugatuaren ondoretik.

Ik. (21) adibideko erlatibozko hiru esaldiak, beren izen buru mugatuaren ondoretik emanak, eta nolabait hautsiak, esaldi kausala ondoretik ematen delarik.

4.1.4.2. Amorecatic partikularen aurregunea esaldian.

Hala adibidez, (28), (32) esaldietan, non ematen den *amorecatic* edo *amorea gatic* partikula esaldi hasieran; edota (26) esaldian, non esaldiak artean konplementuak erakusten dituen, *amorecatic* partikularen ondoretik, nahiz aditza aurretik eraman.

5. Francisco Jaureguy de San Juan-en 1850eko Gramera berria, ikasteko Eskualdunec mintzatzen Espainoles.

Hasieratik irudi lezake liburu harrigarri samarra, 1850eko urtean espainolez irakatsi nahi diena, iparraldeko euskaldunei, bertako mintzairan idatzia. Harridura hainbat gutxi liteke, jakinda, liburua *Buenos Ayresetan* ateratzen dela, eta ez gertuagoan. Eta izan ere, esaten du Hovelacquek ere adibide,[33] 25 urte beranduago: «*Sur les rives de la Plata on compte à peu près 200.000 Basques émigrés.*»; zeinetako asko bide ziren gure iparraldekoak. Jaureguyren liburuskak, hauen espainola ikasi beharrari lagundu nahi die, *Autorraren prefaziua*-n adierazi bezala (1 or.)[34]:

> Atenzione handienarekin deliberatu dut obra hunen formatzia, hainitz beharra delakotz egun eskualdunen artian. Baldin konsultatzen badute liburu hunen importantzia, ezagutuko dute handiagua dela bera baino, zeren gatic huntan emanac diren eman ahal guziac laburzki espainola ikasteko. - Ez naiz cholki kontentatu gauzen izenac markatzia, nahi izan ditut orobat esplikatu eskuarari yarrikitzen zaizkon zembeit berbo ere, hainitzen aplikazionen gatic.

Hala ere, liburuska ez da izango, finean, hiztegi modu bat baino askoz gehiago; nahiz azken hogeita hamar orrialdeetan hainbat esaldi labur ere jasoko dituen bi hizkuntzetan, atalaren izenak iragarri moduan (93 or.): *Laugarren kapitulua; frase usatzen direnac maizenic konbersazionetan bai galdetziaz, orobat esker emaitiaz, segurtaziaz eta ukatziaz*.

5.1. Jaureguyren tradiziozko idazmoldeez.

Ezer ez dakigu autoreaz izenaz beste.[35] Dodgsonek, *Bibliographie basque* izeneko artikulu batean,[36] zorrotz juzgatzen du Jaureguyren euskara: «*le livre a été écrit en basque français (médiocre ailleurs)*». Guk nolanahi, ez dugu uste horrenbesterako denik. Jaureguyk ongi ezagutzen du bere euskara: lapurtera samurra,[37] arina eta ulergarria, izan gabe pobrea; irakurlea, aho bete gozo uzten du, toparaztean, lapurterazko tradizio sendoenarekin. Hitzen ordenamenduari dagokionean ere, jada suma litekeen bezala gorago jaso ditugun aipuetan bertan, Jaureguy ez da batere aldenduko tradiziozko moldeetatik. Eta bere idazkeran usuzkoena izango den arren, euskal aditzak gordetzen segitzea, «Xà» fenomenorako joera; egitura honek oro har segiko du hartzen du esaldian, nahikoa aurrealdeko gune bat; galdegaia maiz asko emanez, aditz honen ondoretik; tarteka aditz bera esaldi hasieran ere; eta hainbat usu, mendeko esaldiak hautsita, konplementuak dituztela aditzaren (eta elementu mendekotzailearen) ondoretik. Eta zentzu honetan komeni da gogoratzea, nola Jaureguy ari zaien bere herritarrei, hauentzat usuzkoa bide den mintzamoldean; eta ez leukakeela zertan desitxuratu beharrik, erabilitako euskara.

5.1.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.

Hala maiz asko, zenbaitetan galdegaiak labur askoak baldin badira ere:

(1) ...: espainoles bi ll kausitzen direnian, behar da pronunziatu -eilhe- eta ikusten denian *n* tilheta gainian hola -*ñ*- deitzen da -egne- orobat -*j*- izendatzen da -jota-...; eta aldiz -cha-che-chi-cho-chu- pronuntziatzen dire -tcha-tche-tchi-tcho-tchu. (1-2)

(2) Espainol Kruasa arrainyatzen da ogoi eta zortzi letrez, zeinen izenac baitire: ... (3)[38]

(3) ...-hola -cera, ciriaco, behar da leitu eskuaraz leitzen baguindu bezala -zera, ziriako. (4)

(4) Clérigo -apheza- eskualdunec leituko dute hitz hori letra guziac hartuz, ... (4)

(5) ... -castigó -ojalá- hauc behar dire pronuntziatu askeneko letrac doblezka balituzte bezela. (4)

(6) ...; *èl* aplikatzen da beti sustatibo maskulinari, ... (5)

(7) Espainolez *ó* ekin akabatzen diren hitz guziac dire maskulinuac, ... (5)

(8) ..., egungo egunian guertatzen da sartua hedoyetan, gure lenguayako hastapen guzia; ... (6)

(9) Imperatibuac sinifikatzendu autoritatez manatzia. (13)

(10) *O* ekin akabatzen direnac erraiten dira guizonari; ... (27)

(11) Yurizprudentzia da leguetan okupatzia. (64)

(12) Astronomia da izarren gaineko eskola. (64)

(13) Yeografia da munduaren gaineko eskola. (64)

(14) Estatuac dire erregueric gabeco nazioniac. (66)

5.1.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Hala tarteka, nahiz nabarmen izan galdegaia ondotik. Segidakoak kasu:

(15) ..., eta behar da leitu hortarakotz gure lenguayan K bezala; ... (4)

(16) ... eta erraten dire igual guizonari eta andreari. (28)

(17) ... eta behar da pronuntziatu hiz guziekin baliz bezala ... (93)

5.1.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Maiz asko, eta are maizenik ere, segidako kasuetan bezala:

(18) ..., utziac direlakotz ahanzterat eskuararen hastapeneko esplikazione beharrenac, ... (1)

(19) ... konsideraturic atenzione eguiten duen guizonac, ikasten dituela guziac, ... (1)

(20) ... konprenituz gueroz letra bakar batzuen diferentzia, ... (1)

(21) ... eta ikusten denian *n* tilheta gainian hola -*ñ*- ... (2)

(22) ..., lehen biziko irakutsi guintuztenac munduan, eskribatzeko hastapena. (3)

(23) ... leitzen baguindu bezala -zera, ziriako. (4)

(24) ... eskribatua balitz bezala hola -clé-rigo, ... (4)

(25) ..., plural, *los* edo *las* behar direnac aplikatu. (5)

(26) Hitz horiec nahiz akabatzen diren *a* ekin, (dire ...) (5)

(27) Nahi izan zutenian, yaun Larramendic eta Erroc frogatu eskualdun lenguayaren zahartasuna, ... (7)

(28) Erraiten daukularic Strabonec, espres, espresa: ... (7)

(29) Ateratzeko traba berri hortaric, ... (7)

5.1.4. Erlatibozko esaldiak beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik.

Jaureguyk maiz emango ditu erlatibozko esaldiak, euskara guztietan ohi bezala, beren izen buruaren aurretik (... *eskuarari yarrikitzen zaizkon zembeit berbo ...*, 1 or.); edota izenik gabe ere nominalizatuak, nahiz eta konplementuak ere erakutsi aditzaren ondoretik (*..., lehen biziko irakutsi guintuztenac munduan, eskribatzeko hastapena*, 3 or.; *..., plural, los edo las behar direnac aplikatu*, 5 or.). Eta Jaureguyk erabiliko ditu tarteka izenorde erlatiboak ere, esaldi erlatiboak izenaren ondoretik emateko modu bezala (*Turdetanec edo Turdulec (zeinac baitziren gure herritakuak) ...*, 6 or.).

Jaureguyk emango ere ditu esaldi erlatiboak beren izen buruen ondoretik, hauek nolabait mugatuak direnean, euskara guztietan ohi bezala:

(30) (... badire) zembait letra kasu egüin behar direnac, ... (4)

(31) Eskuaraz ez da hitz bat hasten denic R ekin zeren gatic ... (9)

Baina aurkituko ditugu hainbat usu, erlatibozko esaldiak ere, zuzenean emanak, izen buru soil eta mugatu gabeen ondoretik, nola behintzat segidakoak:

(32) (..., erran nahi baita) urthe hiru edo lau ilhabete irauten zutenac. (7)

(33) Izen ordinariozki markatzen dituztenac bere herronkac, eta ajetibuac. (10)

(34) Hitz ajetibo guehienic usatzen direnac (27)

(35) Gauza ikusten direnac edo sentitzen (46)

(36) ...; frase usatzen direnac maizenic konbersazionetan bai galdetziaz, orobat esker emaitiaz, segurtaziaz eta ukatziaz. (93)

5.1.5. Beste oharren bat Jaureguyren hitzen ordenaz.

5.1.5.1. Baizik eta salbu partikulen aurreguneaz esaldian.

Hala ematen baititu kasu gehienetan Jaureguyk ere, nahiz lotzen duten esaldi zati hura ondo laburra izan (inoiz, *baizik* partikula ere emango badu, lotzen duen esaldi zatiaren ondoretik: ... *V ez dute usatzen B baizic*, 9 or.):

(37) ... *a* ekin finitzen direnac femininuac, salbu hitz seguidako hauc: ... (5)

(38) ..., eta hortakotz eztire hasten -*la*- ekin baizikan -*el*- ekin: ... (5)

(39) (Eguia da Strabon etzen mintzo Kantabriaz,) baisikan Betikaz. (7)

5.1.5.2. -ko izenlagunen guneaz izenaren ondoretik.

Jaureguyk ere euskal tradizio guztietan bezala, maiz erabiltzen du joskera modu hau -*ko* izenlagunentzako (nahiz usuenik segurasko alderantziz gertatu):

(40) ... obserbazione seguidaco hautan. (4)

(41) ..., salbu hitz seguidako hauc: ... (5)

(42) ..., eguin ditazke erreparu seguidacuac. (8)

5.1.5.3. Izen arruntaḟiizen propioa orden segidaz.

Bestelako ordena segurasko arruntagoa bada euskaraz, ez dira halako ordenamendu moduak ere inoiz falta euskara klase guztietan, eta ezta ere Jaureguyrenean, nola segidako bi kasuetan behintzat:

(43) (Nahi izan zutenian,) yaun Larramendic eta Erroc (frogatu ...) (7)

(*Atz*. Komposatua de [*da*]) bokable A-kin, (zeinac ...) (9)

6. J.B. Archu (1811-1881) zuberotarraren Uskara eta Frantzes Gramatika lanak, 1848 eta 1852an.

Jean B. Archu zuberotarrak (*Inspecteur primaire et Officier d'Academie*),[1] lehenengo aldiz 1852an argitaratzen du, bere *Uskara eta franzes Gramatika, Uskalherrietako haurrentzat eguina*, jada hurrengo urtean bertan izango duena lehen berrargitalpena.[2] Gramatika erabilia izan zenaren seinale, 1868an ezagutuko du 3. argitalpena, orduan jada zertxobait aldatua eta gehitua, *Bi mihiren gramatika. Uskara eta franzesa. Egina J.-B. Archu, Eskolen Ikhousleak* izenarekin, nahiz hau ere den aurrekoen antz bere batekoa; eta haiek bezala, ez soilki zubererazkoa.[3] Archuk nolanahi, 1848an *La Fontainaren aleghia-berheziak, neutrthitzez frantsesetik uskarara itzuliak* argitara zituenean,[4] erantsi zien jada hauei gramatika sarrera bat, guk lehendabizi aztertuko duguna, *Introduction a la langue euskarienne* izenekoa, uzten gaituena, beste zabalago baten zain, zeinen beharra ezinbesteko aldarrikatzen zuen jada orduan Archuk, liburuaren sarreratik (31 or.):

Uskal-herriko haurrek behar lukete, hola da ja ene ustea, *habilenekinko bat*[5], gramatika bat, zoinekin ikhas ahal dezen berek franzes hitzkuntza. Gramatika hori haur hoien eskuetara hel artino uste dut alegia igorten deitzedan hoiek aisaeraziren dereiela franzesaren ikhastia. Hola uste dute ere ene lana ikhusi duten guziek. Hanbat hobe ezpalin bagia enganatzen!!

6.1. Archuren 1848ko gramatika apurrak; hainbat, Pouvreaugandikoak.

1848ko laburpen gramatikalaren parterik nagusiena, eskaintzen dio Archuk, euskarazko aditz laguntzailearen taulak emateari, bitxiki (eta txalogarriki), gure lau euskalki literarioetan, sarrera bezala jasoaz, Lécluseren *Manuelaren* aipua, *euskal aditz jokuaren aberastasunaren gainean*.[6] Taula hauen aurretik hala ere, badira, beste zenbait atal labur, eskainiak, izenari, deklinabideari, adjetiboari, etab., zeinetan Archuk ohar zenbait ere ematen

duen hitz hauen ordenamenduaz esaldian. Hala, zenbait topiko, nola: euskal artikuluak eta "*preposizioak*" kokatzen dituena, «*à la fin des mots*» (171 or.); *bat, batzu, adjetibo determinatiboak,* eta, *hau, hori, hura, izenorde erakusleak,* ematen dituena, «*dans le discours, après le substantif*» (177 or.); edota *adjetibo primitiboak* (berezkoak) kokatzen dituena, izenaren ondoretik (176 or.). Kuriosoena da, azken bi erregela hauek emateko, Archuk hitzez hitz ere errepikatzen dituela, bi mende inguru lehenago, Sylvain Pouvreau apaizak erabili bide zituen berberak (honenak baldin badira bederen); eta ordea, lehen aldiz, J. Vinsonek argitaratzen dituenak 1881ean (Archu hiltzen den urte berean; eta bigarrenez 1892an). Archuk nahitaez ezagutu behar zituen hauek, bereak egiteko garaian.[7]

6.1.1. Adjetibo ez-primitiboen izen aurre edo ondoko gunearen indiferentziaz.

Adjetibo primitiboen guneaz hitzeginda, Archuk segidan jasoko ditu oraindik Pouvreauren hitz berberak, adjetibo *ez-primitiboen* guneaz, izenaren aurre edo ondorean (176 or.):

15.- J'ai dit l'adjectif *primitif*, parce que les adjectifs que dérivent des ablatifs, des temps des verbes, des particules adverbiales ou prépositives, se mettent tantôt avant, tantôt après le substantif. / Ainsi *ghezurra*, le mensonge, fait à l'ablatif *ghezurrez*, par des mensonges, et de cet ablatif se forme *ghezurrezkoa*, de mensonge, mensonger. Il est indifférent de dire: *ghizon ghezurrezkoa*, ou *ghezurrezko ghizona*, homme de mensonge. Du gérondif *erranez*, en disant, se forme *erranezkoa*. *Ezin erranezko gauza*, ou *gauza ezin erraneskoa*, chose qui ne peut être dite. / 16.- De l'adverbe *urrunti* se forme *urruntikoa*, celui, celle, qui est de loin. *Urruntiko ghizona*, ou *ghizon urruntikoa*, homme qui vient de loin.[8]

Eta gehiago edo gutxiago, gero noski aurkituko ditugu Archuren prosan, halako zenbait adjetibo, izenaren ondoretik emanak, nola segidakoa:

(1) ... *verbe* uskarazkouak (duenean urhentzean *la, ...*) (1868,149)[9]

6.1.2. Genitibo edutezkoaren ez-izen-aurreko-guneaz.

Archuk 1848an, berriro Pouvreauri segiaz ematen du erregela, salbuespenik gabea, edutezko genitiboen izen aurreko guneaz euskaraz (175 or.):

10.- Le mot basque terminé par la forme *aren*, laquelle répond à un génitif latin ou aux particules françaises *du, de la*, précède toujours le substantif dont il est le complément indirect. Exemple: *Jeinkoaren ontasuna*, la bonté de Dieu. Si l'on disait *ontasuna Jeinkoaren*, en suivant la construction française, le sens ne serait plus le même.

Pouvreauk erregela bera hitzez hitz eman ondoren,[10] *en note au bas de la page*, Vinsonek gaztigatzen duen bezala, adibide bikoitz bat ematen du (1892, 3 or.): «*gure Iaincoa. Iainco gurea.*», lehena legeak agindu ordenamenduan, bestea aldiz legez kanpokoa, beste inolako argibiderik gabe. Archuk ordea, ez du jasotzen berean (Pouvreauren) ohar hau; beharbada nahiko harrigarriki; zeren prezeski, edutezko genitiboen legez kanpoko joskera modu hauek izango dira, Archuren liburu bereko *Aleghien* ezaugarri berezietako bat. R. Gómezek *Aleghien* azken argitalpenaren sarreran ohar arazten duen bezala, zenbait adibide jasoaz (19 or.):

2.2.4. Bertsoen aurrean gaudela ahantzi gabe, harrigarriak dira Archuren itzulpenak aurkezten dituen hiperbatoiak. Oroz gain, biziki gogor suertatu zaizkit genitiboaren lekuz aldatzeak: *egiazki, zure botzak zaiaren / balin badu iduria*; *adio arren, enuzu mengoa plazaren / lotsareki hartzen direnen*; *aizen eztit zuk beno lotsarik*; *errege baten hau da istoria*.

6.1.2.1. Archuren *Gramatikako* adibideak.

Archuren antzeko adibideak nolanahi, ez dira bakarrik bertsora mugatuko. 1868ko *Gramatikan* ere (eta segurasko aurreko bietan), aurki ditzakegu Archuren zuzenezko euskarazko esaldiak (esan nahi dugu, itzulpenik gabeak, nolabait frantzesari lotu gabeak), antzeko joskerak erakusten dituztenak; nola segidako bi esaldiak bederen (biak horregatik *beldur* hitzaren konplementuak):

(2) Haourrak beldur dira yaoun erreyentaren. (89)

(3) Oiloa beldur da hacheriaren. (89)

Eta aurki ditzakegu halako joskerak, Archuren frantzesetiko itzulpen zuzenetan ere (*hitzez hitzekoak* ez direnak):

(4) Embachadore Karkos-Kintorena, ... (72)

(5) (Ene errege jaounaren embachadoreak eztira ohitu) berekilan kharrayatzera bere jargiaren. (72-3)

Bestelakoan Archuk 1868ko *Gramatika*-n, askotan ematen ditu euskal testuak irakurgai, beren frantzes bertsio (jatorrizko bertsio?)-en parean, bi aldiz errepikatuak ere: lehenengoa, berarentzako euskaraz joskera arrunta-edo litzatekeen batean; bigarrena berriz (*Explication, Hitzez hitz,* edo, *Mot à mot*, izenburuen pean), euskarazko beste bertsio bat, nolabait lotuagoa frantzesezko hitz ordenamenduari.[11] Archuk, lehen bertsioetako genitiboak ija beti emango ditu beren erregimenaren aurretik (goiko bi adibideak bezalakoak salbuespen), euskal joskerarik ohizkoenean. Archuk *hitzez hitz* izenburutzen dituen bertsioetan berriz, nahikoa maiz emango dira genitiboak eraikiak, beren erregimenaren ondoretik (dela izen, dela aditz). Halako adibide bikoteak, segidakoak behintzat:

(6) Zoure haourraren eta haren amaren hazteko, ... (45) / Hazteko zoure haourraren eta haren amaren ... (46)

(7) Barnekoaren eskuin sakelan ... (70) / Eskuin sakelan haren barnekoaren ... (71)

(8) Ene errege Jaounaren embachadoreak ... (72) / ...: embachadoreak errege ene jaunarenak ... (73)[12]

(9) Gaou beltz baten erdian, ... (73) / Erdian gaou beltz baten, ... (74)

(10) ... bere soltazaliaren tchistatzeko. (90) / ... tchistatzeko bere soltazaliaren; ... (91)

(11) ...; zu bezain guti herioaren beldurt nuzu, ... (90) / ...; zu bezain guti beldurt nuzu herioaren, ... (91)

(12) ... eta egiten da ekhoitzpen berri baten azi. (92) / ... eta egiten da azi ekhoitzpen berri baten. (93)

6.1.3. -ko izenlagunez.

Berriro Pouvreauren hitzak errepikatuaz egiten du Archuk oharño bat, *ko* izenlagunen gainean. Eta agerian ezer esaten ez duen arren hauen kokaguneaz izenaren aldean, pentsatzekoa da, Archuk genitiboaren erregela bera aplikatu nahi diela (lehen esanak esan arren, *adjetibo ez-primitiboen* gunearen gainean), biak atal berean aipatzen dituenez. Ordenamendu honetan ematen ditu bederen, Archuk segidan jasotzen dituen hiru adibideak (176 or.; hirurak Pouvreagandikoak -1892, 5 or.-): *Etcheko jauna, Zeruko ainguruak, Lurreko ghizonak*. Gero Archuren praktikan aurkitu ahal izango ditugu tarteka, gure tradiziozko prosa guztian bezalaxe, *ko* izenlagunak emanak beren izenaren ondoretik, nahiz oro har gutxiengoa izan. Hala bederen segidako adibideen antzekoak:

(13) ... alegiatsu paregabeko horen lanetara, ... (1848,29)

(14) ..., esneko hortz sayetsekoak ... (1868,144)[13]

6.1.4. Archuren 1848ko tradiziozko hitz ordenaz.

Badira iritziak euskalzaleen artean, oso bat ez datozenak, Archuren *Aleghietako* idazkeraren balio eta *jatortasunaz*, eta bereziki gainera honen joskerarenaz. Orixek jada 1927an salatzen zuen *Aleghietako* obra:[14] «*Artxu erderari lotuegia bere itzulpenetan*». Lafittek aldiz goraipatu egingo du bere hizkuntz eredua:[15] «*l'instituteur Archu transpose, en souletin élégant et naturel, les Fables de La Fontaine*», Orixeren iritzi guztiz kontrajarri batean. Aita S. Onaindia ere, noski, guztiz agertzen da Orixeren iritzikoa bere garbizaletasunean:[16] «*Bere asmoa txalogarri dala be, arrotz ipuiñok bere erara josi ta eusko-gogoz aberastu ta edertasun-txinpartez apaintzean, etzan goi-goiko mailaraño igon. Itz-joskera baldana, irudipen eratsia*.» G. Lacombek berriz, gramatikalari txar, baina idazle on bezala kalifikatzen zuen Archu, Lafitteren aire bere batean: «*connu comme bon écrivain et médiocre grammairien basque*».[17]

Hemen ez zaigu gehiegi interesatzen, Archuren joskera bertsoan aztertzea; beti ageri dituelakoan menpekotasun bereziak, errima eta erritmoari lotuak. Archuk ematen du ordea 1848an ataltxo bat ere prosan idatzia liburuaren

sarrera modura, *Aitzin-begi* izenekoa (jaso dugu gorago bertako aipu bat). Besterik gabe bilduko dugu hango zenbait esaldi, erakuste arren, Archuren atxikimendua gure prosa estilo tradiziozkoenari.

6.1.4.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.

Usuzkoena izango baldin bada, Archuk ere, euskal aditza erakustea, «Xà» moduko egituretan emana, bere aurreko elementu toniko labur bati lotuak, maizenik ere emango ditu esaldietako galdegaiak, aditzen ondoretik, nola bederen segidakoak:

(15) Hau da beraz ene arrapostia, ... (29)

(16) ..., ene lehen atsia izan da Frantzia guziak alxatzen duen gizon horen ohizpenaren alxatzia Uskal-herriaren erdian; ... (29)

(17) Hortako zerbitzatu niz la fontaineren lanaz. (30)

(18) Hau da obra honen iruzkibegia. (30)

(19) Honen itzalian ezarri ditut ene uskarazko neurt-hitzak. (30)

(20) Franzes eta uskara begiz begi ezarrier jarraikitzen zaie hiztegi uskalduna, ... (30)

(21) Hatsare hau egina da uskara eztakienenzat. (30)

(22) Egia da edireiten direla Uskal-herriko eskoletan hitz batzu uskaraz eta frantzesez, Franziako *konjugazioneareki*. (31)

(23) Hatu hoieki dute oraiartino ikhasi behar ukhen franzesa Etcheparen, Oihenarten Spondaren, Belaren, Garaten, Harisperen, Dassanzen herritarrek. (31)

(24) Uskal-herriko haurrek behar lukete, ..., *habilenekinko bat*, gramatika bat, zoinekin ...

(25) ..., hola da ja ene ustea, ... (31)

(26) Gramatika hori haur hoien eskuetara hel artino uste dut alegia igorten deitzedan hoiek aisaeraziren dereiela franzesaren ikhastia. (31)

(27) Hola uste dute ere ene lana ikhusi duten guziek. (31)

Hauetako esaldi bat ere bai behintzat, bere aditz entendimentuzkoaz hasten dena:

(28) Erranen daute, arauz, Errearoaren 1833 eta 28-ko legeak zabaldu duela muga berri bat ikhastarzunari, ... (30)

6.1.4.2. Mendeko esaldi hautsiak.

Nahikoa ugari hauek ere, halako sarrera labur batean:

(29) ... gizon horen ohizpenaren alxatzia Uskal-herriaren erdian; ... (29)

(30) ..., ene herritarren gogoaren deitzea alegiatsu paregabeko horen lanetara, ... (29)

(31) ..., lan hoien zenzu eta zuhurtze handiaren her honkierazitea, holaxet franzes minzajia ikhas ahal dezeten aisiago. (29)

(32) ..., aitzindari joaiten zerelarik uskaldun minzo gainen hatsaren bat. (30)

(33) (Erranen daute, arauz, ...) legeak zabaldu duela muga berri bat ... (30)

(34) ..., eta Uskal-herriko ikhaserazleak behar dutela bere eskolierer frantzesa erakutsi. (30)

(35) (Egia da) edireiten direla Uskal-herriko eskoletan hitz batzu uskaraz eta frantzesez, Franziako *konjugazioneareki*. (31)

(36) ... gramatika bat, zoinekin ikhas ahal dezen berek franzes hizkuntza.

(37) (... uste dut) ... hoiek aisaeraziren dereiela franzesaren ikhastia. (31)

6.1.4.2.1. Erlatibozko esaldi bat, izen buru soil eta muga gabearen ondoretik.

Beste mendeko esaldi hautsi ohizkoago batzuk jaso ez ditugun arren (ezezko esaldiak, zein partikula bidezko erlatiboak, ...), jaso nahi dugu bereziki segidako erlatibozko esaldia, bere izen erregimen mugagabearen ondoretik emana:

(38) ... alegia igorten deitzedan hoiek ... (31)

6.2. Archuren Uskara eta Frantzes Gramatika, eta Bi mihiren gramatika (1852-1853-1868).

Berberak 1848an aldarrikaturiko beharra aseaz, argitaratzen du Archuk, lehenik 1852an, eta gero 1853, eta 1868an, bere gramatika lan nagusia, zeinen lehen asmoa beti den, haurrak ikas dezaten, *langue nationalea* (behin eta berriz deitzen duen bezala frantzesa). Hala dio adibidez 1853ko argitalpenaren *prefacean* (V or.):

En composant cette Grammaire bilingue, nous avons eu pour but de fournir aux instituteurs du Pays Basque un moyen d'initier leurs élèves à la connaissance de la langue française.

1868koaren hitzaurrean hala ere, asmo berber hau errepikatzeaz gain, erantsiko dio oraindik erabilera berri bat gramatikari (VI or.): «*Cette Grammaire peut utilment être consultée par les linguistes qui désirent apprendre le basque.*» Eta agian arrazoi horrexengatik egon liteke bertan, hainbat gehiago garatua euskarazko atala, aurreko argitalpenen aldean. Gogora liteke, batetik Archu, 1861. urte ingurutik aurrera hasten dela prestatzen, Bonaparte Printzearentzat eta Inchauspe kalonjearen ordean, zubererazko itzulpen lan zenbait;[18] bestetik, Archuk badituela berez kontaktuak, *gure hizkuntza ikasi nahi duen hainbat hizkuntzalarirekin ere* (ik. F. Michelen atalean); agian guzti horregatik zabaldu bide zituen zertxorenbait, bere gramatikaren helburuak.[19]

6.2.1. Frantzesa eta euskararen arteko joskera desberdintasunen kontzientzia Archugan.

1848an Pouvreauren hitzak jasotzen zituen bezala, *-ren* eta *-ko* izenlagunen orden segidaz euskaraz, Archuk *Gramatikan* ere ohar beretsuak egingo ditu, ohartaraziz kasuan, frantzesezko joskeren desberdintasunaz (1868, 7 or.):

16. Aitzinago yoan beno lehen, yakin zazu, Uskalduna, eta ez ahatz, uskarazko hitzen eta franzesekoen yostura eztela berbera. - Uskaraz ongi erraiten da: *Aitaren indarra, Baïonako hiria, Baïgorriko yaouna, Baratzeko lilia*. Franzesek irri egin lezakete erran bagineza: *du père la force, de Bayonne la ville, de Baïgorry le seigneur, du jardin la fleur*. -Franzesez ongi minzatzeko erran behar da: *la force du père, la ville de Bayonne, le seigneur de Baïgorri, la fleur du jardin*.

Kontuan hartzekoa da, Archuk gramatikan, ez duela jada ohartzen, 1848an egin bezala, euskaraz ez denik posible izenlaguna izenaren ondoretik ematea. Eta gorago jaso dugun bezala, Archuren gramatikan ez dira faltako halako ordenamenduen adibideak. Azkenik, Archuk ere ohartaraziko du *Gramatikan*, nola frantzes preposizioak emango diren «*uskaraz*[,] *hitzen ondotik edo gibeletik*» (1868, 158 or.), eta hala deituko ditu Archuk euskaraz «*ondokoak*».

6.2.2. Izenorde eta aditzak, beste hitzen aitzinean frantzesez. Baina beste hitzen ondotik euskaraz (euskal aditzaren nolabaiteko posposizioaren lehen erreibindikazio inprimatua).

Archuren kontzientzia nolanahi, frantzesa eta euskararen arteko joskera desberdintasunen gainean, zabalduko da topikoak baino harago ere *Gramatikan*. Eta hala aitatuko du Archuk bertan agerian (lehenengo aldiz lan inprimatu batean), nola erakusten ohi duten aditzek, bi hizkuntzetan, gune desberdintasun bat esaldian (*uskaraz yarten direlarik beste hitzen ondotik*-edo). Oharra jada 1853an ageri da (ez dakigu 1852ko argitalpenean), eta hitzez hitz errepikatzen da oraindik 1868an ere (1853, 47 or., nondik jasotzen dugun aipua; eta 1868, 43-4 orr.):

Aitzinago yoan beno lehen, yakin behar duzue, haurrac, Uskara hitzez hitz eztaitiela itzul Franzesera. Uskaraz erraiten da ongui: Eri niz, Franzesez aldiz, *Je suis malade*, *pronom* eta *verbe* deitzen diren hitzac ezarten direlaric lehenic. / Pronom deitzen den hitza yarten da bethi *verbe* hitzaren ondotic galdeguiten denian, nola: Eri

niza? *Suis-je malade?* Lo guinena? *Etions-nous endormis?* / Ez ahantz beraz Franzes hitzkunzan, *Pronom* eta *Verbe* deitzen diren hitzac yarten direla ordenariozki beste hitzen aitzinean; Uskaraz aldiz yarten dira beste hitzen ondotic, nola: Berrogoi-ta-sei dira: *Ils sont quarente-six*. Zazpi alhaba ditu: *Il a sept filles*. Etche bat nuen: *J'avais une maison*.

Kurioski, Archu izango da hala, dakigularik, lehena, lan inprimatu eta publiko batean, nahikoa agerian aldarrikatzen duena, *euskal aditzaren nolabaiteko ezaugarri pospositibo bat.*[20]

6.2.3. Euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenoa, eta Archuren independentzia frantzes ordenamenduarekiko.

Archuren oharra hainbestean uler liteke bere horretan. Baina zail litzateke berau interpretatu nahi izatea, lehenago edo geroago, Cardaverazek, Lardizabalek edota Arruek egin duten moduan, edo sikiera geroagoko Azkue-Altuberenean. Archuk oharra ematen duen lerrokada berean ere (ik. gorago), adibideetako hiru esaldi laburrak ezik, beste esaldi nagusi guztiak, ez dira beren aditzaz amaitzen, eta bestetik, guztiek erakusten dute esaldiko galdegaia, beren aditzaren ondoretik emana, ondo nabarmen. Badira lerrokada berean, mendeko hiru esaldi ere, aditzaz amaitzen ez direnak. Ezin bada interpreta Archuren baieztapena, *euskal aditzaren ezaugarri pospositibo orokor, (edo antzeko) baten,* adierazle bezala.

Oharra beraz, ulertu beharko da, Archuren hiru esaldi adibideek (*Berrogoi-ta-sei dira;.Zazpi alhaba ditu; Etche bat nuen*) ematen dioten zilegitasun eztabaida-ezin guztiarekin, gu euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenorako joera deitzen gatozenaren haritik: euskal aditzak duen joera, beste elementu toniko labur baten ondoretik agertzeko erantsita, bigarren elementu bezala, multzo foniko bere baten barrenean. Eta hala gertatzen da maiz, are maizenik ere (Archuren adibideetan bezala), beren aditzaz amaitzea, euskarazko esaldi laburrak (bi, hiru elementuetakoak). Eta are luzeagoak ere, fenomeno beraren eraginez, aditza bigarren elementu bezala erantsita doan multzo foniko hura, esaldiko azkenekoa gertatuko denean. Hori da ordea, gauza bat; eta beste bat, fenomeno honen itzaletik predikatu nahi izatea, *euskarazko aditzaren ezaugarri pospositibo orokorrak*, *galdegaiaren urrezko legeak*, edo *euskararen SOA (SOV) segida unibertsalistak*; zein baino zein artifiziozkoagoak, eta asmatu berriagoak euskaraz.

Archuk ere noski, alde eta aldi guztietako euskaretan bezala, joera nabarmena du, «Xà» fenomenorako etorria errespetatzeko euskal joskeran; eta fenomeno honen haritik, hainbat usu erakusteko ere hitz ordenamendu desberdinak (eta kontrajarriak), euskaraz eta frantzesez. Horrela erakutsiko ditu Archuk gramatikako aditz taulak, parez pare euskaraz eta frantzesez, konplementu batekin emanak, «Xà» ordenamenduan euskaraz; «aX» frantzesez, segidakoen antzekoak (1868, 36-7 orr.; eta bakarrik paradigmetako lehen formak emanez): *Zuhur niz / Je suis sage; Dohatsu ninzan / J'étais heureux; Iziturik izan niz / J'ai été effrayé; Aberatz ninzate / Je serais riche*, eta beste. Berdintsu ere, berez mendeko esaldia osatuko lukeen taula bereziren batean (1868, 36 or.): *Eri izan nintzanian / Quand je fus malade*. Halako adibideak, joskera desberdin bat erakusten dutenak bi hizkuntzetan, eta are esaldi, ez hain laburretan, nahiko ugari aurki litezke, Archuren adibidetegian ere:

(39) ..., azkarrenaren arazoña flakiarena beno gorago date bethi, ... / ..., la raison du plus fort sera toujours supérieure à celle du faible, ... (2)

(40) Naousiaren begiak haren bi eskiek beno haboro egiten du. / L'œil du maître fait plus que ses deux mains. (2)

(41) Mahaintto baten gañean, eriaren ohe ondoan, medekiak manhatu zuen edaria osorik zen. / Une potion ordonnée par le médecin se trouvait intacte sur une petite table près du lit du patient. (3)

(42) Lehena *e mutua* deitzen da; ... / Le premier se nomme *e muet*; ... (3)

(43) Franzes izen guziak bi gisatako dira: *ar* edo *eme*. / Tous les noms français sont de deux genres: *masculin* ou *féminin*. (5)

(44) Belhaunian min dut / J'ai du mal au genou (11)

(45) Bere semeak hil ditu / Il a tué ses fils (11)

(46) Ekhia *biribil* da. / Le soleil est *rond*. (16)

(47) Hartz *arrounterak* oihanetako lurpe zilo ezin hourbil ezienetan bakharrik egoten diren basa ihizi batzu dira. / Les ours *communs* sont des animaux *sauvages* et *solitaires* qui habitent les excavations les plus *inaccesibles* des forêts. (18)

Guztion antzekoak ezagututa, ezin esan da, Archu erabat itsu ageri denik, frantzes joskerari lotuta.[21]

6.2.4. Archuren «aX» egiturak-edo uskaraz.

Darrigolek predikatu bezala ordea, euskararen eraikuntza libreko ezaugarriak, ez du esan nahiko, Archurenean ere, honek ezin erabil lezakeenik, komeni zaionean, SAO (SVO); edo AO (VO) -«aX»- moduko ordenamendua, zeinetara dauden derrigortuak, frantzesa bezalako eraikuntza finko eta mugatuko hizkuntza *gajo*, *serbilak*. Jada aditz taulak aurkezterakoan, Archuk ematen ditu adibideak, inolako eragozpenik gabe ordenamendu beretsua erakusten dutenak bi hizkuntzetan, adizkia eta konplementuaren arterako. Hala (1868): *Izan ninzateke aberats / J'aurais été riche* (37); edo *Izan dut aharra bat / J'ai eu une querelle* (40) formekin, hasten diren paradigmak bezala. Kurioski Archuk, askotan emango ditu taula hauetan, egitura berak euskaraz eta frantzesez, berez mendeko esaldiak liratekeen haien artean (eta euskaraz beraz mendeko esaldi hautsiak). Hala behintzat (1868, 37-40 orr.): *Izan nintzanian iratzarturik / Quand j'eus été réveillé; Izan nizatenian aberats / Quand j'aurait été riche; (Nahi du) Izan nadin zuhur / Que je sois sage; (Nahi zuen) Izan nindadin dohatsu / Que je fusse heureux; (Nahi izan du) Izan nizala dohatsu / Que j'ai été heureux; (Ochala) Izan nindadin dohatsu / Que j'eusse été heureux; Izan nuenian aharra bat / Quand j'eus eu une querelle*. Adibide guztion ondoren, pentsa liteke, Archuri antzeko egiturek, ez ziotela min gehiegirik egiten euskaraz.

6.2.5. Galdegaiak aditzen ondoretik, edo AO (VO) egiturak.

Bestelakoan Archuk, oso oso maiz segiko ditu ematen 1868an, 1848an bezalaxe, eta gure tradizio guztian bezala, AO (VO) moduko egiturak, edota esaldiko galdegaia nabarmen daramatenak aditzaren ondoretik. Maizenik ere bai, esaldiak, edo galdegaiak, batere luzeak diren orduko (baina ez orduan bakarrik). Hala, Archuren adibidetegi zabalean; nola prosa propioan, gramatikazko ezaugarriak agertzen ari denean (jada ikusi ere dugun bezala, *aditzaren ezaugarri pospositiboa* agertzen zuenean). Ez ditugu segidan gutxi batzuk baino jasoko, erakusgarri, 1868ko gramatikan ehundaka aurki litezkeenen artean, bertako lehen esaldi beretik hasita (segidakoa):

(48) Gizonak bere gogoa beste gizoner agertzen du hirour gisaz: minzoaz, izkiribuaz eta keinuz. (1)

(49) *Ti, ç, s*, izendatzen dira *s* bezala uzkaraz. (3)

(50) Joaten zen etcheko sukhaldean ediren zuen yguskian etzanik zagoen gathu bat. (3)

(51) *Ar* izenen aitzinian franzesek ezarten dute, *le, du, au*, bakoitchaz minzatzian, ... (5)

(52) Emaztea yoan da aitarekin. / La femme est allée avec le père (6)

(53) Otsoak yan du idia / Le loup a mangé le bœuf (6)

(54) Tileta haou (') deitzen da franzesez *apostrophe*, zeren ... (7)

(55) Idiek yaten dute belharra. (8)

(56) Franzes hitzek, akhabatzen direnian, *au* edo *eu*-ez, hartzen dute hanitzez minzatzian *x*, noula: ... (9)

(57) *Al*-ez akhabatzen diren hitzek kambiatzen dute *al*, *aux*, etara, noula: ... (9)

(58) *Ail*-ez akhabatzen direnek hartzen dute *s*, salbu ... (10)

6.2.6. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Bere adibidetegian, eta are bere adierazpen gramatikaletan, Archuk ez du inolako eragozpenik, oso maiz ere emateko zuzenean aditzak esaldi hasieran euskaraz, eta ondoretik hauen objetu, konplementu, edo galdegaiak ere, frantzesezko pareko bertsioetan bezalatsu. Hala nola erakusgarri segidako adibideetan, hasierako orrialdeetatik bakarrik atereak (atzenekoa salbu):

(59) Eman dut idiari / J'ai donné au bœuf (6)

(60) Hil dut otsoa / J'ai tué le loup (6)

(61) Izkiribatzen da: *le bois* (egurra) *les bois*; ... / On écrit, *le bois, les bois*; ... (8)

(62) Itho da errekan / Il s'est noyé dans le ruisseau (8)

(63) Ikhousi tut mendiak / J'ai vu les montagnes (8)

(64) Erosi tut hirour zamari / J'ai acheté trois chevaux (11)

(65) Erosi tut hirour marteillu / J'ai acheté trois marteaux (11)

(66) Zoroztu ditu nabelak / J'ai aiguisé les couteaux (11)

(67) Hazten dira zamariak mendietan / Les chevaux s'élèvent dans les montagnes (11)

(68) Utzi tu arresteluak alhorrean / Il a laissé les rateaux dans le champ (11)

(69) Hazi dut ene alhaba bortz ourthez Baïonan, laour ourthez Bordelen, eta bi ourthez Parisen, ... (56)

Azken bi sailetakoen antzeko ehundaka adibideren bistara, ezin interpreta daiteke, oso modu estu, literalean, *euskarazko aditzaren postposizioari* buruzko oharra.

6.2.7. Mendeko esaldi hautsiak: praktikan, eta teorian.

Ikusi dugu, nola Archuk ez duen inolako eragozpenik, mendeko esaldi hautsiak emateko aditz taulen artean. *Gramatiken* amaiera aldera egingo du gainera, teorizazio txiki bat, hauetako batzuren eraikuntza moduaz, franzesez eta euskaraz. Hala adibidez, euskarazko *Ela, ala, la* atzizkiei, eta frantzesezko *Que, conjoction*-ari eskeintzen dien atalean. Bertan Archuk, euskarazko adibide bezala eskaintzen dituen bost esaldietatik hiru, emango ditu, esanguratsuki, hautsiak (149 or.):

110. *Que*, franzes mintzoan, zerbitzatzen da hitzen hitzer josteko. Uskaraz mintzatzeko moda horiek *dudala, nuela, huela, ginuela, zinutela* hola itzultzen dira, franzesera: *que* j'ai; *que* j'avais; *que* tu avais; *que* nous avions; *que* vous aviez, etc. / Aitak erran zuen yinen z*ela* bihar. / Uste nuen phartitu behar nu*ela. /* Ikhousi duzu joaiten gin*ela* etcherat. / Erran zuten hilen zut*ela* otsoa. / Jakin duzu eri izan niz*ala*. / Hemendik ezagun da orai *verbe* uskarazkouak duenean urhentzean *la, ala, ela*, lehen solaza, bigarrenari josten duen hitza, franzesian, *que* dela, eta hitz hori deithzen dela *yoslea*.

Bestalde bada gogoan hargarria, nola Archuk, goiko adibideetako bost esaldietatik, lau hasten dituen zuzenean beren aditz nagusiaz (bostgarrenak ere, aditz nagusia mendeko esaldiaren aurretik ematen duela), nahiz esaldi guztiak diren oso laburrak. Bere adierazpen gramatikalean erabiltzen dituen esaldi guztiek, daramate beren galdegaia, aditzaren ondoretik, eta azken lerrokadako mendeko bi esaldi bederen (edo hiru)[22], hautsiak dira. Bestelakoan, Archuren prosan oso usu aurkitu ahal ditugu mendeko esaldi hautsiak, segidakoen antzekoak:

(70) *Le, la*, yarten badire azanzgile letra edo *h* mutu batez hasten diren izenen aitzinian, ... (6)

(71) (..., eta borchatu izan zen) erraitera *liburu lodi* eta *gorri*. (12)

(72) ..., ber gisan, izen *ar* edo *emer* yunto denian franzes hitzetan. (13)

(73) (... ikhousten duzu) *adjectif* hitz *emea* egiten dela *adjectif* hitz arrari yuntatuz *e*.

(74) ..., khambiatu gabe dagolarik jabea nor den erakhousten dien hitza, jabetarzouneko gaouza izanik ere ar edo eme, ... (22)

(75) ..., diela *zembait* ehun ourthe. (32)

(76) Gogo eman dezagun ere bihotzeko harra dela kharraka bat, hortzkatzen dituena izpiritua, haragia eta hezurrak. (34)

(77) Haour haourtto nintzalarik orano, eta eniotzalarik enthelega zoure arthak, ... (45)

(78) ..., ahozpeturik ene khuñara, ... (45)

(79) Egun batez, ikhousten nukezunian zoure nahikuntienzat ernuturik, errespetuz eta ongi eginen orhitzpenaz betherik ene amaren eta zouretako, ... (45)

(80) Franzesiala itzuli behar banitu, hitzez hitz Uskarazko bi hitz hoyek: ... (47)

(81) ..., agertzen delakoz eskergabe; ... (59)

6.2.8. Archuren erlatibozko esaldiak, beren izen soil mugatu gabearen ondoretik, praktikan eta teorian.

R. Gómezek ere ohartzen du, 1848ko *Aleghien* argitalpen berriari egindako sarreran, genitiboen hiperbatoiez gain, Archuren joskera ezaugarri honezaz (1990, 19 or.):

... Hitz ordenaren barruan, zenbait erlatibozko perpausaren egitura azpimarkatu beharra dago; izan ere, ez baitira izenaren aurre aurrean kokatzen, baizik eta izenaren eta determinatzailearen artean. Honelako erlatibozkoak usu agertu dira oraintsu arte euskal literaturan, eta ez bakarrik iparraldekoan; esaterako, erruz aurki ditzakegu Mogelen *Peru Abarca*-n. Archuren adibideak dira ondoko hauek: *Igela idia bezain handi jin nahi dena, aratho bizi zienak dia elhestatzen, Arhatoin mundia utzi duena*.

Archugan, ezaugarri hau ez da bakarrik izango, 1848ko bertsoetakoa. Archuk eskaintzen die erlatibozko esaldiei, ataltxo bat, bere gramatiketan; eta hala dio adibidez zuhur 1868koan (150 or.):

Behar da *que* hitz yoslea, berhezi beste *que* izenaren thokia hartzen duenetik.[23] Lehenak, ikhousi dugun bezala, hitzak hitzer yosten ditu; bigarrena, aldiz, izenen thokian yarten da, noula etsemplu horietan. / Erosi ditu*dan* liburuak. / Ikhousi ditu*dan* gizonak. / Entzun ditu*dan* emazteak. / Alchatu du*dan* etchea. / ...

Archuk, antzeko adibide kanonikoak segitzen du ematen (beste 20ren bat ere), baina kurioski, bukatzen du atala, azken aurreko adibide bikoitz honekin (1868, 151 or.):

(82) Erosi nuen etchea eder zen *edo* etche erosi nuena eder zen.

Eta are ematen du oraindik hurrengo orrialdean segidakoa (152 or.):

(83) Nere ama maithatu dudana hil da; ... / Ma mère, *que* j'ai aimée, est décédée; ...

Archuk ez du beste iruzkin edo aipamen ageririk egiten, azken esaldi hauek besteekiko suposatzen duten desberdintasunaren inguru, erlatibozko esaldia emana, izen erregimen soil eta mugatu gabearen ondoretik (erlatiboen esplikazio teoriko kanonikoan azpimarratu diogun esaldia bera bezala). Bestelakoan Archuk, nahikoa usu erabiliko ditu antzeko egiturak bere prosa idatzian, nahiz beti izango diren gehiengo nahikoa absolutoa (begira), izenaren aurretik ematen direnak. Halako adibideak dira segidakoak behintzat:

(84) Letra azanz egile eztirenak, ... (2)[24]

(85) ... harrikotta ederki leinthurik dienen gañean, ... (59)

(86) (... eta ama ekhoitzdun horrek frankoki emaiten daouku) bihi errezibitu duen baino gehiago ogi buru. (92)

(87) (Ikhousten dituzia) oyhan handi munduya bezain zahar iduri diren horriek? (93)

(88) Zimenduzko yakintarzun behin ere begietarik galdu behar ezten bat ... (120)

(89) Izen maizenik minzatzeko zerbitzatzen direnak. (188)

(90) Hitz maizenik zerbitzatzen direnak minzatzean. (204, eta berriro berdin 207)[25]

1848ko urtean argitaratzen dituen *Aleghien* hitzaurrean Archuk ematen zuen antzeko beste esaldi bat ere, jada jaso duguna gorago. Eta ezagutzen diogu beste bat ere behintzat Archuri, honek Bonaparte printzeari (berak ere *Napoleon* deitzen duena) eskainitako bertso baten aurreko eskaintzan, *Ruth*-en itzulpenaren eskuizkribuaren amaieran. Dio:

(91) Lucien Napoleon Printze uchkara dakienari.

6.2.8.1. Erlatibozko esaldi eta egiturak izen mugatuaren ondoretik.

Azken esaldi mota hau ordea, ez da berez Archugan ere, honen errekurtsoetako bat baino, erlatibozko esaldiak komeni bezala eman ahal izateko, beren izen erregimenaren ondoretik. Ez errekurtso bakarra ordea. Bere segida diskurtsibo edo komunikatiboari hainbat maiz komeni bezala, Archuk ere maiz emango ditu erlatibozko esaldiak, beren izen erregimen mugatuaren ondoretik (aposizio modura edo, eta atzizkiak errepikatuaz kasuan), maiz

erabili bezala, alde eta aldi guztietako euskara klase guztietan. Hala nola, Archuren segidako adibideon antzekoak (zeinetako asko izan litezkeen gainera hautsiak, konplementuak erakusten dituztenak oraindik, aditzaren eta erlazio atzizki nominalizatuaren ondoretik):

(92) (... badire oraino) hirour tileta, *é, è, ê* yarten direnak azanz egile letren gainean, ... (4)

(93) Franzeseko hitz ttipi hoyek *un, une*; ..., beste hitzen aitzinian yarten direnak franzesian, ... (4)

(94) (Badira) yende batzu ouste dutenak kolerak ongi egiten diela, ... (34)

(95) (Zikhinkeria) erdolla bat (da) higa dioena goure khorpitzak, ... (34-5)

(96) (...: ezta beraz) emutskeriarik gu bara ahal gitzanik goure khorpitzaren, goure aropen, ..., eta han airearen berrieraztetik. (35)

(97) Ahalketzen den semea bere ait'amen aphaltarzunaz ... (61)[26]

(98) ..., oihal arrounter phouska bat baizik, aski handi dena tapiz bezala zango petan ezarteko Zoure Mayestateak errezibitzen duen gela handian ... (69)

(99) ..., bola bat iduri zena erdia zilharrez eta bestea argizko phastaz egina; ... (70)

(100) Embachadore Karlos-Kintorena, Soliman Turkoen emperadorearen ondoan zagoen bat, ... (72)

(101) (Badira) bortz dembora *verbe* franzesetan beste dembora guzier sorthze ematen dutenak. (99)

(102) (Badira franzezian) *verbe* batzu moldatzen eztienak eman ditugun *verbe* molde horietan gainen, dembora batzuetan. (101)

(103) (...; hart letzake) *hanturako*, edo *aizezko* mina, sorthzen denak [*sic*] belharra boustirik denian euriz edo ihitzez. (121)

(104) (Bada Franzian) behi arraza bat hanitz handiagoak eta goure behi arrounterek beno bitan gehiayo [sic] esne emaiten dutenak. (143)

(105) (Badira) hitz batzu verbe ondoan yarten direnak erakhasteko noiz, nola, zer lekhutan, ... (154)

(106) Oihu bat, solaz erdian aourthikirik dena, ... (160)

Erlatibozko esaldi guzti hauezaz gain Archuk noski, erabiltzen ditu ere, usu, esaldi nominalizatu eta bururik gabeak. Eta ematen du berak, horietako adibide bat ere behintzat, erakusgarri, bere erlatibozko esaldien azalpenaren amaieran:

(107) Eta saldu ginuena (itsousia zen.) (151)

6.2.9. Azken oharño batzuk, Archuren beste zenbait hitz ordenamenduz.

6.2.9.1. Orden librerako adibide bat.

Halako oharrik aitatzen ez badu ere, jaso nahi dugu hemen Archuren gramatikako adibide bikoitz bat behintzat, non onartzen zaizkion aditz nagusiari bi gune desberdin ere esaldi berean, Archu, frantzesezko *Bi verbe ondoz ondo* saila, azaltzen ari denean (1868, 153 or.):

(108) Ouste dut dudala *edo* dudala uste dut; ... / Je crois avoir *ou* j'espère que j'ai; ...

6.2.9.2. Etenen bat galdegaia eta ondorengo aditzaren artean.

Halamoduz kalifika bailiteke beharbada Archuren hurrengo esaldia:

(109) (Yo zazu;) zu bezain guti herioaren beldurt nuzu, ... (90)

6.2.9.3. Izen arrunta fi Izen propioa segida.

Ez dugu halako adibide gehiegirik jaso (ez gara horretara ere jarri), eta nolanahi nabarmen litzateke arruntagoa askozaz, alderantzizko ordenamendua, Archugan ere (berriro begira jota). Bihoaz nolanahi, erakusgarri, *Izen arrunta fi Izen propioa segidan* bildu ditugun bi adibideok:

(110) Participea, aitzinean duenean verbe *izate*, baketzen da verboaren kolpe egilearekin, ... (152)

(111) Participea, verbe *ukhaiteki* moldatzen denean, ... (152)

6.2.9.4. Zenbatzaile ordinalak izenen ondoretik.

Hala ematen ditu bederen Archuk ere, *Ruthen liburuaren* itzulpenaren eskuizkribuan, lau atalen buruak: *Buru 1.; Buru 2.; Buru 3.*; eta *Buru 4.*

6.2.9.5. Salbu partikularen gunea sintagma hasieran.

Hala ematen du Archuk, bederen ohartu garen segidako bi adibideotan:

(112) (*Ail*-ez akhabatzen direnek hartzen dute *s*,) salbu *bail, émail, corail*, ... (10)

(113) (*Ou*-ez urhentzen direnek hartzen dute *s*,) salbu *chou* (aza), *genou* (belhaun), ... (10)

[1] Bere 1853ko *Gramatikaren* 2. argitalpenak esaten duen bezala azalean.

[2] Guk ezin izan dugu aurkitu inon lehen argitalpena, eta datuak J. Bilbaoren *Bibliografikoak* dira. Bai hala ere bigarrena, eta hirugarrena; gehiena azken hau erabili dugularik.

[3] R. Gomezek esaten duen bezala, Archuren *Aleghien* azken argitalpenari eginiko sarreran (1990, 1 or.): «Gaineratu beharko genuke gramatika hau, alegietan gertatzen zen bezalatsu, ez dela zubereraren gramatika, nonbait Iparraldeko euskalki guztiak kontutan izan nahi dituen gramatika baizik.»

[4] Guk R. Gómezen azken argitalpena erabili dugu, Donostia, EEE, 1990.

[5] Frantsesezko testuan "une sorte de *vademecum*"; hitzez hitz itzultzen du, beraz, latinezko esakunea, *habil - enekin* ... (argitaratzaile, R. Gomezen oharra).

[6] Nahiz bestelakoan mesprezu piska batez ere kalifikatuko duen Lécluseren *Manuela,* zeinengatik esaten duen (180 or.): «*qui n'est que la reproduction textuelle de la grammaire basque de Harriet, imprimée en MDCCXLI*».

[7] Hala esaten du Archuk (176 or.): «14. Le substantif se place toujours avant l'adjectif *primitif*, et, le plus *souvent*, le substantif nominatif perd la caractéristique *a*. Pour tous les autres cas, les terminaisons déclinables du substantif s'évanouissent, et prennent place à la suite de l'adjectif qualificatif. Ainsi on dit: *Jeinko handia*, le grand Dieu, et non pas *Jeinkoa handi*; *Jeinko handiaren*, et non pas *Jeinkoaren handi*, du grand Dieu; ni *Jeinkoaren handiaren*.» Pouvreauren hitzak berriz, Vinsonek 1892an eman bezala (*Les petites œuvres de Sylvain Pouvreau*,1 or.): «1. Le substantif precede toujours l'adiectif primitif & le plus souuent le nominatif du substantif perd sa terminaison a & les autres cas perdent toujours la leur estant construits avec l'adiectif. Exemples. Iainco handia, grand Dieu, et non pas handia Iaincoa. Iainco handiaren du grand dieu, et non pas handia Iaincoa. Iainco handiaren du grand dieu, et non pas Iaincoaren handiaren, Iainco handiari au grand dieu & non pas haindiari Iaincoari ou Iaincoari handiari.» *Adjetibo determinatibo eta izenorde erakusleen* legeaz berriz, dio Archuk (177 or.): «Des adjectifs déterminatifs BAT, un; BATZU, quelques-uns; et des pronoms démonstratifs HAU, celui-ci, celle-ci; HORI, celui-là, celle-là; HURA (le plus éloigné), celui-là, cell-là. / 19.- Ces sortes d'adjectifs et de pronoms s'emploient, dans le discours, après le substantif, (et font perdre à celui-ci les suffixes de tous les cas.)» Pouvreauren hitzak berriz dira (1892, 2 or.): «5. Les mots bat, vn. batsu, quelques vns, & les pronoms hau, cettuy ci, hori, celuy la, hura, celuy la, & autres semblables qui se mettent toujours apres les noms en la suite du discours (lui font perdre la terminaison du nominatif & des autres cas.)»

[8] Pouvreauk dio (1892, 1-2 orr.): «2. J'ay dit, l'adiectif primitif, parce que les autres adiectifs deriuez des ablatifs, des temps des verbes ou d'autres particules se mettent tantost deuant tantost apres le substantif. Exemples, de guecurra mensonge se fait gueçurrezcoa. faux menteur on dit donc guicon gueçurrezcoa ou

guecurrezco guiçona, homme de mensonge, menteur, ecin erranezco gauça. chose indicible, ou gauça ecin erranezcoa. / Vrruitico guiçona ou guiçon vrruiticoa. homme qui vient ou qui est venu de loing.»

[9] Adibideak, besterik esaten ez denean, Archuren *gramatikaren* 3. argitalpenetik jasoko ditugu, 1868kotik, Hordagok faksimilean berrargitaratu bezala, Donostian 1979an.

[10] Esanez (1892, 4 or.): «§. 3. / Du genitif singulier & de ses derivez / 1. Le genitif se met toujours devant le nom substantif. Ex. Iaincoaren ontasuna, la bonté de Dieu, & non pas ontasuna Iaincoaren.»

[11] Oro har ondo gordina gertatzen dena euskaraz, oso proportzio handian erabiltzen diren neurrian, euskararako oro har nahiko bitxiak diren errekurtsoak; nahiz guztiak ere, banan bana hartuak, berez euskarazko joskera posibleak izan gehienean, nolabait oinarrituak euskal tradizio eta erabileran, eta Archuk bestelakoan ere erabiltzen dituenak bere ohizko idazkeran, nahiz proportzio txikiagoetan.

[12] Ez hain esaldi arrotza beharbada. Antzeko segidak, genitibozko egiturak, aposizio modura emanak beren erregimenaren ondoren, bietan atzizki bera errepikatuaz, maiz aurki litezke ahozko zeinnahi hizkeratan, pausa baten bidez emanak, bi multzo foniko desberdin etan.

[13] Esaldi bera berridazterakoan, *hitzez hitz* sailerako, Archuk emango du orduan bigarren izenlaguna, aposizio modura, atzizkiak errepikatuaz: *esneko hortzak sayetsekoak* (147 or.), ahozko hizkeran ohizkoa litzatekeen joskera modu batean.

[14] *Euskal-Literatura'ren atze edo edesti laburra,* Euskal Esnalea, 17, 1927, 214 or.

[15] *Le basque, et la littérature d'expression basque ...*, 1941, 49-50 or.

[16] *Mila euskal-olerki eder*, 1954, 439 or.

[17] «Quelques mots sur les versions basques du Cantique des Cantiques», *RIEV*, 1924, 202 or.

[18] Hauetakoak dira, *Ruthen libria, Salomonen kantikak, Jonasen libria*, Archuk Printzearentzat itzuliak, eta bakarrik elkarte bibliko protestanteak argitaratuko zituenak gero 1888an, guk ezagutzen ez dugun argitalpena. Donostiako Diputazioko J. Urquijo liburutegian gordetzen dira nolanahi, Archuren lan hauen (eta besteren) eskuizkribuak.

[19] Aparteko anekdota bezala aitatu, Archuk 1853an (eta 52an?), Haramboure, Baionako diozesako bikario generalari eskertuko dizkiola, honen aholku *moralak* (VI or.): «*C'est à ses conseils, à sa profonde connaissance de l'idiome Basque, que nous devons d'avoir élagué de notre Grammaire tous mot qui de loin ou de près, auraient pu blesser les oreilles si délicates de l'enfant ou intriguer son imagination*.» Kurioski, 1868an ez da jada erreferentziarik agertzen, ez Haramboure, eta ez Archu eta bien begiramen moralen inguru.

[20] Cardaverazek lehenago (eta argiago) aldarrikatzen zue ezaugarria, Larramendiri 1759-60 inguruan eginiko erantzun gutunean. Añibarrok ere bai, bere *Gramatica bascongadan,* baina biak ere ez dira argitaratuko oraintsu arte (*ASJU*, 1968, 1969). Lardizabalena litzateke, aditzaren ezaugarri postpositibo horren beste aldarrikatzaile goiztiarra, baina bere *Gramatika* ez da argitaratuko 1856ra arte, Archurena baino hiru (lau) urte beranduago.

[21] Archuren 1868ko *Gramatikako* adibide asko aztertzerakoan, kontutan hartu behar da, izan litezkeela hauek, edo direla gehienak (ez denak), frantzes jatorrizkoen itzulpenak. Eta hauen artean ere Archuk bi eratakoak ematen dituela, 1868ko *Avertissementean* ere ohartzen duen bezala (V or.): «*Un sujet de lecture française, avec traduction basque en regard et explication littérale à la suite, sert de complément au thême*, ...» Azken *explication littérale* honi, deituko dio Archuk *Hitzez hitz*-ekoa. Eta egia bada ere, bi itzulpenen arteko aldeak, bakarrik, edo batez ere, joskerazkoak direla (oso nabarmenak adibidez, genitiboei dagozkienak, gorago aipatu bezala; edota erlatibozko esaldienak), oro har esaten ahal da, bi itzulpenetako joskerak direla posibleak euskaraz, eta bietakoak hainbat zilegiztatuak gure tradizioan, nahiz batzuk gutxiago erabiliak izan, edo bitxiagoak. Archuk gainera, ez du inoiz gaitzesten bigarren itzulpena; eta han agertzen diren egitura bitxienak ere (nola genitiboak izenen ondoren-edo), aurkitzen ahal dira tarteka Archuren bestelako testuetan ere. Eman dezagun adibiderako, horietako testu zati bikoiztu bat, egia esan, aparteko alderik erakusten ez duena batetik bestera (1868, 89-91 orr.; lehenengo itzulpen *normala*; bigarren *hitzez hitzekoa*):

Hyde-Parkeko oihanera, Londresen ondoan, egur biltzera joan zen giza gacho batek ikhousi zuen paseiatzen aitoren seme bat ongi aphaindurik, itchoura beltz eta ametskor. Ouste zuelakoz ofizier zembait zela hara yina jokan aritzeko, giza gaicho hori gorde zen botchu baten gibellian.	Giza gaicho batek biltzera joanik egur Hyde-Parkeko oihanera, Londresen ondoan, ikhousi zuen aithoren seme bat ongi aphaindurik paseiatzen zena itchoura beltz eta ametskor. Gizon gaicho horrek ouste ukhanik zela ofizier zembait hara yiten zena yokan aritzeko, gorde zen botchu

baten gibelean.

[22] Hirugarrenak ere (erlatibozko esaldia, -*lehen solaza, bigarrenari josten duen hitza, franzesian, (*que *dela)-),* kontsidera bailiteke, erakusten duela konplementu bat (*franzesian*), bere izen buru erregimen independientearen ondoretik; nahiz posible den beste interpretazio bat ere, konplementu hau lotuaz, hurrengo mendeko esaldi konpletibari.

[23] Esaldia azpimarratu dugu, bera ere erlatibozko esaldia delako bere izen buru soil eta mugatu gabe baten (kasuan *beste que*) ondoretik emana.

[24] Honen aurretik ematen du Archuk antzeko esaldi bat, berez kontsidera zitekeena erlatibozkoa ere, eta bere izen buru nominalaren ondoretik emana, nahiz jokatu gabea, eta oso nominalizazio berezikoa orduan: *..., letra azanz egile guziak ...* (1)

[25] Azken bi esaldion bistara berriro gogora litezke, Jaureguy de San Juanek bere grameran ematen zituen oso antzekoak: (ik. bere atalean)

[26] Esaldia, *hitzez hitzeko* bigarren bertsioan bakarrik ematen da modu honetara hautsia, konplementuak erakusten dituelarik, erregimen nominalaren ondoretik ere. Lehenengo bertsioan: *Bere ait'amen aphaltarzunaz ahalketzen den semea ...*

7. Emmanuel Inchauspe (1816-1902) zuberotarraren, euskal obra literario eta gramatikal zabala.

1847an argitaratuko du Emmanuel Inchauspek bere lehen liburuska euskaraz, *Kurutchiaren bidiaren debocionia* izenekoa, gero berrargitaratuko dena beste bi aldiz ere bederen. Lau urte beranduago, hats zabalagoko obra berri bat, 1851ean, izena izango duena, *Jincouac guiçonareki eguin patoac*. Obra hau hurrengo urtean bertan berragitaratuko da, *Uscaldunaren laguna* izen berriaz, eta berriro 1856an; gerora, *Uskaldunaren guthunac* izenarekin, ezagutuko ditu beste bederatzi argitarapen bederen 1866tik aurrera.[1] Inchauspek badu beraz euskal obra, Bonaparte Printzearekin lanean hasi aurretik. Elkarlan honen lehen frutua izango da, Printzeak 1856an argitaratuko duen, *Jesus-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauéra, Inchauspe Aphézac zuberouco uscaralat utzuliric Louis-Lucien Bonaparte Printziarentaco* (nahiz bakarrik hamabi ale inprimatuko diren orduan), eta XLVI orrialdetako eraskin bat izango duena, *Notes grammaticales sur la langue basque* izenekoa.[2] Hurrengo urterako, 1857, Inchauspek itzuliko ditu zuberera Iturriagaren *Jolasak*; eta 1858rako, *Jaundone Jouhane Apostoliaren Apokalipsa*. Printzearen laguntzaz, urte berean ikusiko du argia Inchausperen obra gramatikal nagusiak, *Le Verbe Basque* izenekoa (Lécluseren *Manuelaren* aipu batez azalean), lehenago Darrigolena bezala, derrigorrezko abiada edo erreferentzia puntu bihurtuko dena iparraldean, ondorengo urteetako azterketa gramatikaletan. Ondoren eten bat gertatuko da Inchausperen euskal lanen argitarapenetan. 1864ean Axularren *Gueroco Gueroaren* edizio berri, eta hainbat aldatu bat, prestatzeaz gain, Inchauspek ez du beste lanik argitaratuko euskaraz, bere bizitza hondarrera arte: 1883an hasiko da argitaratzen (eta 1885ean amaitu) *Jesu-Kristen imitacionearen* zubererako itzulpen berri bat, egina, Martin Maisterrek 1757an argitaratutakoaren gainetik; eta 1894an ikusiko du argia, *Maria Birjinaren hilabetia edo Mayatzian egun oroz egiteko irakouraldiak ...,* bere obra propioena eta gorenena bezala alabatua izan dena. Hala esaten du adibidez Orixek, Inchausperen obren balioaz ari delarik:[3]

Intxauspe apaiza, Xuberotarra, gero Kalongea, euskal-idazlerik landuenetakoa izan duzu. Bonaparte'ren aginduz S. Mateo'ren Evangelioa poliki euskararatu zuen. *Jesukristen imitazionia* (1883) itzuli zigun, eta beste liburuto ta aitzinsolhas edo itzaurre batzuk ere bai. *Mariaren hilabethia* duzu nere aburuz Xubero'n ez ezen Euskalerria'n den libururik aipagarrienetakoa idaztankeraz. Ez dut uste euskara zaintsuagorik, muindunagorik, gauzek labur eta indarrez esaiteko ta barne sarrarazteko euskaldunagorik oraindaino idatzi denik.

Aita S. Onaindiak ere, *idazle leun joria* bezala kalifikatzen du;[4] eta Lafittek dio, haren hizkerari buruz, eta *Mariaren hilabethia* goraipatu ondoren[5]: «*son basque, tout en ayant beaucoup de tenue, est très coulant, sobrement fleuri et sagement populaire*». E. Knörrek hala ere, ezartzen dio mingoztasun puntu zuhur bat Inchausperen prosari, berau *purista* bezala kalifikatzen duenean, Inchausperen *Bula Ineffabilisaren* itzulpen argitaratu berriaren sarreran:[6] «*No podemos extendernos en aspectos como el purismo en el vocabulario, aquí tan evidente, y que es tan conocido en el autor, ...*»

7.1. Inchausperen aldarrika etengabea, hitzen ordenamendu libreaz euskaraz.

Esanguraz betea, horixe izango da prezeski, Inchauspek egingo duen lehen iruzkina, *Sen Mathiuren Ebanjelioari* eginiko *ohar gramatikalen* lehenean bertan, dioenean *Inversions* izenburu pean (1856, VI or.):

Inversions.- *Versets 1 et 2*.- 1ª La langue basque admet les inversions; ainsi on dit indifféremment: *Abrahámec úkhen zían Isaák*; ou, *Isaák úkhen zían Abrahámec*; ou, *úkhen zían Isaák Abrahámec*; ou, *Isaák Abrahámec úkhen zían*; ou, *Abrahámec Isaák úkhen zían*; ou, *úkhen zían Abrahámec Isaák*; de quelque manière que l'on place ces mots, la phrase est régulière et également intelligible por les basques. Ces inversions se font, dans toutes les propositions *complètes*, entre le sujet, le verbe et les compléments directs et indirects.

Kontutan harturik ere, Inchauspe, frantzesaren estuasunen aurrean ari dela aldarrikatzen, euskararen libertatea, eta are Inchauspek ez duela esaten, esaldi permutazio guztiak berdinak direnik euskaraz, baizik *erregularrak eta ulergarriak*, ondo aipagarria da, nola erepikatzen duen mezu bera, bere 1858ko lan gramatikal nagusian, izenburu are oraindik pizgarriago baten pean, eta adibide berriekin (1858, 430 or.):

Règles à suivre pour le placement du verbe. / I. La langue basque admet les inversions: ainsi on dit indifféremment: *háurrac éman zían eskía amári*, l'enfant donna la main à sa mère, ou *amári eskía éman zían háurrac*, ou *éman zían háurrac amári eskía*, ou *eskía háurrac amári éman zían*; on peut avec ces mots faire vingt-quatre combinaisons différentes et toutes sont régulières. Le déplacement peut se faire dans le sujet, dans les régimes directs et les régimes indirects et dans la forme verbale; ...

Bi lan gramatikal nagusiotakoez gain, ezagutzen dizkiogu Inchausperi beste hainbat erreflexio, euskararen hitz ordenamendu librearen inguruan, berak Printze Bonaparteri zuzendutako gutunen artean.[7] Nola adibidez, 1857ko Irailaren 17ko hau, gaztigatzen dioenean Printzeari segidako esaldiaz (nahiz beste eztabaida baten barne; 186 or): «..., cette phrase: *jaten duenac acitzen du gizona, jaten dianac hazten du guizouna* ce qu'il mange nourrit l'homme; on peut faire toute sorte d'inversions *guizona hazten du jaten duenac*, etc.» Edota oraindik 35 urte beranduago ere, Inchauspek 1894ean argitaratzen duen *Le peuple basque, sa langue, son origine, ses traditions, ses caractères anthropologiques* txostenean (13 or.): «Du reste la langue admet toutes les inversions pour le sujet, le verbe et les régimes; pour rendre: le père a frappé l'enfant, on dit indifféremment: *aitak jo du haurra*, ou *haurra jo du aitak*; ou *jo du aitak haurra*; ou *aitak haurra jo du*; ou *haurra aitak jo du*.» Inchausperi ez zaio inoiz ahazten euskararen ezaugarri hau aldarrikatzea.

7.2. Inchausperen praktika tradiziozkoa.

Garbia da Inchausperen mezua. Eta berak inoiz esaten ez badu ere, *Le verbe basquean* aitatzen dituen 24 konbinazio posibleak,[8] berdinak direnik, ziur dakigu dagoeneko, berak desberdintasunak sumatuta ere, ez zituela hauek sekula entendituko, gerora Azkue-Altubek gaitz-interpretatuko zituzten modu estuan. Bestela esan, Inchausperen aditzak ere, gure tradizio guztian bezala, oro har izango du, nahikoa aurrealdeko gune bat esaldian. Hala bere lan gramatikaletako adibidetegi nahikoa ugarietan; nola, areago, bere prosa lan, propio eta ez hain propioetan (bietan berdintsu ere). Inchausperen galdegaiak, maiz asko agertuko dira aditzaren ondorenean, are gehienean ere, galdegai batere luzeak diren orduko (nahiz ez orduan bakarrik), gure alde eta aldi guztietako tradizioaren ildorik zabalenean.

7.2.1. Euskarazko «Xà» egiturak, eta Inchausperen kezka bizia, gordetzeko erdaren mendetik.

Inchausperi, Knörrek aitatu hiztegiarekiko kezka puristaz gain, ezagutzen diogu beste nagusi bat ere, *esaldien euskaltasunaren* (eta eraberean *erraztasunaren*) inguruan. Hala adibidez adierazten du argi asko bere *Apokalipsiaren* itzulpenaren inguruan (Bonaparterentzako oharrean, *M. le Commendant* bati egiten dion gutunean, 1858ko Maiatzaren 10ean), konparatuaz bere itzulpena, momentuan aurrean eduki bide duen Uriarterenarekin (*Euskara*, 1957, 206 or.):

Le P. Uriarte n'aura pas je présume, grand chose à corriger dans sa traduction après avoir vu la mienne. Je l'ai suivi pas à pas. Je ne me suis écarté de lui que lorsque il m'a paru, qu'en voulant être très litteral il n'était pas assez basque ou assez intelligible.

Inchauspek, oraindik hogeitabost urte beranduago ere, antzeko arrazoiez justifikatuko dio Printzeari, zer dela-eta ekin dion, *Jesu-Kristen Imitacioniaren* zubererazko itzulpen berri oso bati, hasieran bakarrik zertxobait zuzentzen aritu eta gero, Martin Maisterren 1757koa (1884ko Urtarrillaren 10eko gutuna; *Euskara*, 1957, 253 or.):

Néanmoins, sur la demande de plusieurs prêtres, j'entrepris l'année dernière une nouvelle édition de la traduction de l'imitation de Jésus-Christ en basque souletin. Après avoir commencé par des corrections sur le texte ancien, j'en suis venu à écrire une nouvelle traduction; afin de rendre la phrase plus basque et l'intelligence du texte plus facile. / En effet j'avais besoin souvent moi-même de recourir au texte latin pour comprendre la traduction ancienne; et des prêtres fort intelligents demandaient que le basque de l'imitation fut écrit comme l'*Uscaldunaren Guthunac*.

Bestelakoan ere maiz ohar liteke, Inchausperen gramatika lanetako adibidetegietan bertan, nola hau ez den inola ere itsuki atxikitzen besterik gabe, frantzes ordenamenduari, maiz erakusten dituelarik bi hizkuntzetan ordenamendu desberdinak: ohizko «Xà» moduko egitura euskaraz; nahiz frantzesez «aX» modukoa-edo erakutsi konplementu berarekiko. Hala nola, adibiderako, hurrengoetan, 1858ko *Le verbe basque* liburuaren bi orrialdetatik:

(1) Maria ..., Abrahámetaric eráisten zen / Marie ..., descendait d'Abraham (6)

(2) háren ikhoustez asérik niz / je suis rassasié de le voir (8)

(3) amáren laguntzéco behár du / il le lui faut pour accompagner sa mère (8)

(4) haúrra jóiten du / il frappe l'enfant (8)

(5) háren joaitiari nígar égin du / il a pleuré à son aller (8)

(6) joaitetik gibéltu dut / je l'ai dissuadé de partir (8)

(7) hórren urgaiztiarentako zér nahi égin lézake / il ferait tout pour le soulager (9)

(8) háren joaitiaz izitúrik izán da / il a été étonné de son départ (9)

(9) zoúre egurukitziarengatik égon núzu / je suis resté a fin de vous attendre (9)

(10) zoúre khechatzíagatik, zoúre buhurtziagatik egínen dízut / je le ferai malgré votre colère, malgré votre opposition (9)

7.2.1.1. Esaldi jiratuak frantzesez eta euskaraz.

Inchauspek emango ditu ere tarteka, esaldiak jiratuta euskaraz eta frantzesez: emanez, hizkuntza batean aditzaren aurreko konplementua dena, bestean ondoretik, eta alderantziz; segidako 1858ko honen modukoak:

(11) háurra zehátu du áitak / le père a châtié l'enfant (440)

7.2.1.2. «Xà» egitura berdinak frantzesez eta euskaraz.

Inchauspek emango ditu horregatik, «Xà» moduko egitura berdintsuak ere bi hizkuntzetan. Oso maiz, «X» konplementu hori esaldiko sujetoa denean, eta beraz frantzesez ere derrigorrez aditzaren aurretik emango denean (baina are beste kasuren batean ere), nola segidakoetan:

(12) aitáren ikhoustiak bóztu nái / le voir *ou* la vue de mon père m'a rèjoui (8)

(13) ebíliz ebíliz hélturen gíra / à force de marcher nous arriverons (10)

(14) béhi galdiak édiren díra / les vaches perdues se sont retrouvées (11)

(15) zamári saldiek eráman díe / les chevaux vendues l'ont emporté (11)

7.2.1.3. «Xà» egitura absolutoak Inchauspegan.

Hala, nahikoa usu sumatu ahalko dira Inchausperen prosan ere, beren aditzaz amaitzen diren esaldiak, oro har noski, esaldi laburrenetan; baina tarteka ez hain laburretan ere bai (alde eta aldi guztietako euskaren itxura berean); nola adibiderako segidakoa, bere *Maria Birjinaren hilabetiakoa* (1894):

(16) Eliza guziétan Ama Birjinaren altharia eta imagina liliz eta argiz unguraturik eta ederturik dira; ... (2)

Bestelakoan, usuenik ere beteko da «Xà» fenomenoa Inchausperen esaldietan, nahiz hauen aditzek oro har segi erakusten aurrealdeko gune bat esaldian.

7.2.2. «aX» eta AO (VO) egiturak etengabe Inchausperen adibidetegietan.

Goikoen «Xà» moduko adibideak, eta are aditzaz amaitzen diren esaldiak, hainbat maiz aurki balitezke ere Inchausperen adibidetegietan, beti izango da hauetan daturik azpimarragarriena, Inchauspek euskaraz, etengabe ematen dituen adibideak, zuzenean aditzaz hasiak (frantzesez ez bezala), eta beren objetua (edo bestelako konplementua) aditzaren ondoretik daramatenak (orduan bai frantzesez bezala), «aX» egitura absolutoak, AO (VO) modukoak barne. Adibideak kontaezinak izango dira, entendimentuzko aditzetatik kanpo ere. Segidan batzuk 1858ko *Le verbe basque* liburuko lehen orrialdeetatik:

(17) joan da amáren ikhoustera (8)

(18) ikhási du irakoúrten (8)

(19) izán niz zamaríaren edaráten (8)

(20) ikhoústen dut argía (8)

(21) emanen dut zerbáit (9)

(22) galduren du guzía (9)

(23) joanen da égun (9)

(24) eskentuko déyot zerbáit (9)

(25) jarráiki nitzáyo álhor eréinialano (11)

(26) éman dut sagarra (12)

(27) ukhénen du háren hontarzúna (23)

(28) joánko niz bíhar (23)

(29) ebilíko da zálhe (23)

(30) gálduko du buría (23)

7.2.3. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak, Inchausperen prosan.

Ez dirudi Inchausperi batere arrotzak egiten zaizkionik euskarazko «aX» egitura absoluto hauek. Ez zaizkio ere egingo bere ohizko prosan, non hain usu, eta are usuenik ere, emango dituen esaldiak, galdegaia nabarmen daramatenak aditzaren ondoretik (edota SAO (SVO) moduko egiturak ere), segidakoen antzekoak, ekarriak, bere 1894ko *Maria Birjinaren hilabetia*, guztiek goraipatuko liburuko lehen orrialdeetatik:

(31) ...; -zoure aitzinian ahalkerekin belhaunikaturik, esténtzen déizut ene zahartazuneko lan tchipi hau. (V)

(32) Ene eskazian hartu dizut hounen adelatzéko ausartzia, ... (V)

(33) Horik dira Maria Birjinak egun berheziki erraiten deizkun hitzak, gouri eta Khiristi houn guziér. (1)

(34) Jinkoak eman deiku Salbazalia Mariaganik ... (1)

(35) Hortakoz merezi dutu, Jinkoatarik landa, goure ohoresku eta gur handienak, ... (2)

(36) Egun oroz behar dugu laidatu eta othoitu; ... (2)

(37) Orano bizi zélarik, Elia Profetaren dizipuliék, Karméleko mendian eraiki zéioen eliza bat. (3)

(38) Pilar haren ungurian eraiki zian J. Jacobek eliza bat, ... (4)

(39) ..., eta ordutik ohoratu zién khiristiék Ama Birjina Pilarekoa. (4)

(40) Hastetik hari konsekratu zién asteko azken eguna; *Neskaneguna* ... (4)

(41) Haren bestak khiristiek egiten zutién boztario handirekin Jesu-Kristenak bezala, ... (4)

7.2.4. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak Inchausperen prosan: «aX» egitura absolutoak.

Adibidetegietan bezain ugariak izango ez badira ere, ez dira faltako Inchausperen prosa guztian, zuzenean aditzaz hasitako esaldiak, nahiz eta hauek nabarmen asko ere eraman beren galdegaia aditzaren ondoretik (eta ez dira soilik izango entendimentuzko aditzen kasuak, segidako adibideen artean ikus litekeen bezala; 1894ko *Maria Birjinaren hilabetetik* bildutakoak):

(42) ... eta nahi du Mariaganik igaran ditian goure salbamentiaren egiteko behar dutugun graziak (1)

(43) Juntatuko gira gu ere Eliza catholikoak Mariari alde orotarik erantzunen deitzon kanthu eta othoitzér. (3)

(44) Jinen gira haren ohóretan eraiki dugun althariaren aitziniala, ... (3)

(45) (O Maria Birjina, Jinkoaren Ama eta goure Ama houna,) juntatzen gutuzu mundu orotako zoure haur eta zerbutzari fidéler; ... (6)

(46) Maradikatu zian berriz débria, suge ifernukoa, bere inganioéz goure lehen bourhassoak bekhatiala erorerazi zutiana, eta erran zéion: etsaigoa ezariko ziala haren eta emaztiaren artian ... (7-8)

(47) Bathu zian Theodore de Bussiere deitzen zen jaun bat, protestant izanik, katoliko argitu eta bero bat. (10)

(48) ...: galthatzen déizut grazia bat neke ezténa, ... (10)

(49) (...: jéiki zen,) hartu zian boulharrian zian Ama Birjinaren medailla, erraiten zialarik: ... (12)

(50) Eraman zian M. de Bussierak Aita de Villefort jesuitagana. (12)

(51) Sorthu zeñ azkenékoz, salbazaliaren Ama izan behar zian Birjiña, laur mila ourthez egurukia. (21)

Azken bi atal hauetakoen antzeko adibideak, ugari eta are nabarmenagoak lirateke oraindik, *Sen Mathiuren Ebanjelioan*, edota *Apokalipsian*, Inchauspek Bonaparterentzako eginiko itzulpenetan. Ez ditugu jaso nahi izan, lan horiek beti luketelako gainean, *itzulpen literalegien* estigma, 1894ko lan honek, guztiek goraipatu dutena, horrenbeste izango ez duen bezala, nahiz ezaugarri beretsuak gorde finean.

7.2.4.1. Aditz trinko bat ere bai bederen zuzenean esaldi hasieran.

Ez dira inongo euskaretan ugariegiak, eta hain gutxi Inchausperenean. Hala ere aurkitu dugu ezarian segidako entendimentuzkoa behintzat, 1858ko *Apokalipsian* (gehiago ere aurki ahal genitzakeen segurantzan, bere obrak berriro aztertuaz):

(52) Dio jakilegoua hoyetzaz ekharten dianak: Bai jiten niz laster: ... (134)

7.2.5. Mendeko esaldi hautsiak, teorian eta praktikan.

Inchauspek ere, beharbada beste inon baino gehiago gordeko du, mendeko esaldietan, euskarazko «Xà» fenomenorako joera. Ez du ordea inoiz hauen ezaugarri bezala, ez aipatuko, eta ez praktikatuko, hauen aditzen kokagunerik, esaldiko gune jakin batean, eta are gutxiago amaierakoan. Hala adibidez, nola emango dituen Inchauspek 1856an, baldintzazko esaldiak hautsita, prezeski, euskarazko baldintzazko esaldien egitura adierazten ari delarik, *ohar gramatikalen* artean (IX or.):

...; ainsi pour rendre ces termes: *s'ils sont quatre*, on dira: *bálin ba-díra láur*; pour rendre: *si j'ai le droit*, on dira: *bálin bá-dut zuzéna*.

Eta horrela moduz hurrena, orrialde berean *bei* partikularen erabilkera adierazten duenean (lehen adibidea); edota beste hainbat kasu beretsutan, *ohar gramatikal* berorien artean iruzkinen bat egiten ari denean, segidako esaldi hautsien inguruan:

(53) ..., ikhoúsi béi-tut éne behárra ba-zuniála / ..., parce que j'ai vu que vous aviez besoin de moi. (IX)

(54) Sórthu zénian Jésus. (XV)

(55) Bílduric aphézen guehiénac. (XVI)

(56) ..., ikhousíric Majéc inganátu ziéla, ... (XVI)

(57) Háizu dénez nescanegunétan sendotzía / si le guérir est permis les samedis (XXX)

Antzeko ohar/adibide hautsi gehiago aurki liteke, Inchauspek Bonaparteri egin gutunen artean; edota areago *Le verbe basque* liburuan, ematen dituen argibide gramatikalen artean (*diának gogóa, éman béza*, modukoak, 37 or.). Eraberean, 1858ko liburu honetan, Inchauspek agerian predikatuko du egitura hautsia, adibidez, ohizkoa bezala, euskarazko ezezko esaldietan (nahiz kasuan beste arazo batzuk eztabaidatzen ari; 1858, 430 or.):

La forme adjective et les autres formes composées, précédées de la négation, se mettent indifféremment avant ou après le nom verbal; ainsi on dit aussi bien: *zuk éman ez-tuzúna*, ce que vous n'avez pas donné, et *zuk ez-tuzuna éman*, *hási ez-tugulákoz* et *ez-tugulákoz hási*, parce que nous n'avons pas commencé; *hártu ez-tiánian* et *ez-tiánian hartu*, lorsqu'il n'a pas pris.

7.2.5.1. Mendeko esaldi hautsiak Inchausperen prosa propioan.

Ez du bada ematen, halako egitura hautsiek inolako egonezinik sortzen ziotenik Inchausperi ere, eta oso maiz aurkituko ditugu antzekoak, bere prosa propioenean, are 1894ko *Maria Birjinaren hilabetian*, edota, segidako adibideetan ongi ikus litekeen bezala, bere 1852ko *Uscaldunaren laguna libriaren* lehenengo orrialdeetatik ekarriak:

(58) (Sei mila ourtheren ungurunia du,) guiçonac bici diela mundu hountan, ... (7)

(59) Palaciobat beçala adelatu ondoan mundia, ... (7)

(60) ... bethicoz Jincoaren goçatcera celuco glorian. (9)

(61) ... eçagut eta adora leçan naussi eta buruçagui guehien beçala. (9)

(62) ..., <u>avertitcen cielaric</u> heriotcia <u>içanen cela</u> desobedientciaren phena. (9)

(63) ..., erraiten ceiolaric, etzela hilen beldur cen beçala, ... (11)

(64) (Hitzeman ceien) igorrico ciela bekhatiaren arraparaçalia, ... (14)

(65) (...; eta erran ceien,) emaztiaganic sorthuren cela debriaren photeria ... hoinpetan çaphaturen ciena. (14)

(66) Igaran cenian hourtia eta lurra idortu, ... (16)

(67) (..., utci çutien) ahaztera Jincoac eman maniac, ... (17)

7.3. Erlatibozko esaldien zilegitasunaz euskaraz, beren izen erregimen soil eta mugatu gabearen ondoretik.

Archuk ere hainbat erabili, eta bere oharretan adibideren bat erakusten bazuen, Inchauspek hasiera batetik aldarrikatuko du agerian, erlatibozko esaldien eraikuntza modu bikoitza euskaraz, bere izen buruaren aurretik, edota honen ondoretik ere, zilegi asko. Hala egiten du jada, zeharka bada ere, 1856ko *Sen Mathiuren ebanjelio* ondoko *ohar gramatikalen* artean (XVIII or.):

Verset 12.- *Jagóiti hílen ez-ten súyan*, *dans le feu qui ne s'éteindra jamais*. Le mot *su* feu, se décline en ajoutant un *i* euphonique entre l'*u* et l'*a*, *suyaren, súyari, súyaz, súyan*. *Hílen ez-tén* est le nominatif indéfini de *hílen ez-téna*, *celui qui ne mourra point*. Les verbes déclinés suivent les règles des qualificatifs joints à un nom; c'est-à-dire que le dernier terme est le seul qui prenne le cas déterminatif, les autres qui s'y rapportent restent à l'état indéfini. On aurait pu dire également: *sú jagóiti hílen ez-ténian*, et dans ce cas, *sú* reste à l'indéfini et le verbe décliné prend la forme déterminative.

Zuzenago oraindik, 1858ko *Le verbe basquean, De l'usage de la forme adjective ou nominale du verbe* izeneko atalean (445 or.):

Dans la voix intransitive, la forme adjective exprime le pronom relatif *celui qui*, ou simplement *qui*: celui qui marche, *ebílten* déna; l'homme qui marche, *ebílten* den *gízona*, ou *gízon ebílten* déna; de celui qui marche,

ebílten dénaren; de l'homme qui marche, *ebílten* den *gizónaren*, ou *gízon ebílten* dénaren. Les deux constructions sont régulières et consacrées par l'usage, mais celle qui met le substantif à la fin est plus ordinairement employée. [Eta bukatzen du atala Inchauspek oraindik, orrialde berean:] On dit: *mín egin* déitan *harría*, ou *hárri min egin* déitana, la pierre qui m'a fait mal; *ourthíki* déitan *harría*, ou *hárri ourthíki* déitana, la pierre qu'il m'a jetée; *hárri ourthíki* déitanaren *herechá*, ou *ourthíki* déitan *harríaren herechá*, la marque de la pierre qu'il m'a jet'ée.

Antzeko aukerak erakusten dizkio Inchauspek Printzeari ere, 1857ko Irailaren 17an igortzen dion eskutitzean (*Euskara*, 1957, 185-6 orr.):

L'homme qui mange croît se traduire *jaten duen guizona acitzen da*. En souletin: *jaten dian guizouna hazten da*. / ...; on peut dire également: *gizon jaten duena acitzen da, gizoun jaten diana hazten da*. / De même dans cette phrase, *nic ikhousi dudan guizona ederrago da zuc ikhousi duzuna beno*, ... / On peut dire régulierement, *guizon nic ikousi dudana ederrago da* etc.[Erasten diolarik oraindik ohar P.S. batean:] *Jaten dian oguiac hazten du guizouna*, le pain qu'il mange nourrit l'homme ou *ogui jaten dianac hazten du guizona*.

Halaz guztiz ere, Inchauspek 1858an aitortu bezala, euskaraz ohizkoagoa izango da (Inchauspe berarentzat ere), erlatibozko esaldia bere izen buruaren aurretik ematen duen egitura, alderantzizkoa baino. Baina berau, Inchauspek erabiltzen du bere idatzietan, hala teorizatu baino lehenagotik ere, nola ikus litekeen 1852ko *Uscaldunaren laguneko* adibide honetan behintzat:

(68) (Jincoac eman beitcien Adami eta Evari) argui eta indar behar çutienac tentamentu gaistoer buhurtceco, ... (11)

7.3.1. Izen mugatuaren ondoretik ere bai usu erlatibozko esaldiak, Inchausperen prosa propioan.

Ezen egia bada ere, ez direla hain hain ugariak izango, Inchauspek bere prosa propioan izen mugagabe baten ondoretik ematen dituen erlatibozko esaldiak, aldiz baieztatu beharko da, nola bai diren oso ugariak Inchausperen prosan, alde eta aldi guztietako euskaretan bezalatsu, beren izen nolabait mugatuaren ondoretik ematen direnak, aposizio modura-edo, atzizkiak errepikatuaz; nahiz hauen gainean ez den horrenbeste teorizatzen, ez Inchauspek, eta ez bestek. Adibideak kasuan, bai izan litezke kontaezinak (askotan hautsita ere ematen direlarik, zenbait argumentu erakutsiaz, nominalizatutako aditzaren ondoretik; segidako lehenengo hirurak izango dira, 1852ko *Uscaldunaren lagunetikoak*; ondorengoak, 1894ko *Maria Birjinaren hilabetiakoak*):

(69) (... ossoki ekharriric) arimabat secula hilen eztena, behin ukhen içatia eta bicia jagoiti galduren eztiena. (1852,8)

(70) (Hartacoz eman ceion) manubat, beguiratceco aisa cena; ... (1852,9)

(71) (Hitzeman ceien igorrico ciela) bekhatiaren arraparaçalia, ifernutic hen Arreroslia, eta celuco sarguia çabalturen ceiena; ... (1852,14)

(72) Birjina Maria, Jinkoaren Ama, zelu-lurreko Erregiña; eta ere, zoure Seme dibinoaren eta zuhauren hountarzunaz, goure Ama ziréna; ... (V)

(73) ..., suge ifernukoa, bere inganioéz goure lehen bourhassoak bekhatiala erorerazi zutiana, ... (7-8)

(74) ...; -Judith korajousaz Holoferna gaitzari buria mouztu zianaz ... (9)

(75) ...; -Esther ederraz, errege Assuerusek emazte guzién gainetik maithatu zianaz, eta Aman gaistoa urkha erazi zianaz. (9)

(76) (Maria da) *odei tchipi* houra, Elia Profetak ikhousi ziana; ... (9)

(77) (...; galthatzen déizut) grazia bat neke ezténa, ... (10)

(78) (Bazirén Judean, Nazarétheko hiri tchipian,) senhar emazte saintu elibat, Joachim eta Anna deitzen zirénak. (13)

(79) (...; haiétarik nahi izan zian sor ledin) Maria Birjina, Krist Salbazaliaren, Jinko Seme gizon eginaren Ama izan behar zianak [sic]. (14)

(80) (..., oihustatu zian, ...; hori dela) egia bat khiristi guziék sinhétsi behar diéna, Jesu-Khristen Elizaren haur ezaguturik eta salbaturik izateko. (18)

(81) (... ikhousten zian) bere egiazko alhaba, erraitekorik ez-ziana, ...; Jinko Semiak bere Ama, eta bere Ama izateko gisa orotaz gei zena; ... (21)

(82) (Louis XIIIc arra-eraiki zian) Eliza hanitz Mariari konsekraturik, Higanautek errerik edo egotchirik izan zirenak; ... (25)

Ohargarria da, zergatik egin ohi zaion (eta egiten) horren propaganda, eta azalpen teoriko gutxi gure gramatika lanetan, erlatibozko esaldi modu honi, aldiz horren erabilia izan dena, eta dena, alde, aldi eta klase guztietako euskaretan (eta gure gaur eguneko ahozko usadio guztietan ere behintzat), eta horren handia denean beren eraginkortasun eta efikazia komunikatiboa. Baliteke jadaneko garaia heldua izatea, esaldi klase hau ere geuregana dezagun euskararen altxorrean, txapelik haundienarekin.

7.3.1.1. Erlatibozko esaldi hautsiak, konplementuak erakusten dituztenak, beren aditza, eta honi erantsitako buru nominal independientearen ondoretik.

Ez goaz esatera, halako esaldiak usuzkoenak direnik euskaraz. Baina bai behintzat, erabiliak direla, eta izan direla, alde eta aldi guztietako euskaretan (eta agian inon baino areago, ahozkoetan), eta beraz, onartu beharrekoak ere bagenituzkeenak euskaraz, beren eraginkortasun komunikatiboa erakusten duten neurrian. Halako adibideak izan litezke segidako bien antzekoak (1894ko *Maria Birjinaren hilabetekoak* biak; eta nahiz bigarrenaren buru nominala ez den berez, partikula modal bat baino):

(83) (Horik dira) Maria Birjinak egun berheziki erraiten deizkun hitzak, gouri eta Khiristi houn guziér. (1)

(84) Arthizarrak lehentzen dian bezala ekhiaren agertzia, ... (22)

Segidakoak berriz, buru nominal independienterik gabeak baldin badira ere, aipatu nahi ditugu, erabat hausten duten neurrian, euskarazko «Xà» fenomenorako joera, erlatibozko esaldiaren barne (1858ko *Apokalipsiaren* itzulpenetik):

(85) Dianak beharri, (entzun beza zer diouan Espiritiak elizer: ...) (13, et berdin berriro, 23, eta 25 behintzat)

Aipatu dugu gorago antzeko beste esaldi bat ere, *Le verbe basque* liburukoa (*dianak gogoa*, 37 or.) Nolanahi, Inchauspek ez dio erabateko muzinik egingo, esaldi bera beste egitura (segurasko ohizkoago) batean, erakusteari; nola egiten duen *Apokalipsian* bertan, zertxobait lehenago (1858, 11 or.):

(86) Beharri dianak, (entzun beza Espiritiak zer diouan elizer: ...) (11-2)

7.4. Beste ohar batzuk, Inchausperen hitzen ordenamenduaren inguruan.

7.4.1. Genitiboaren guneaz izenaren aurrean.

1856ko *ohar gramatikaletatik* utziko du Inchauspek oso garbi, zein diren, bere ustez, euskarazko hitzen ordenamendu libreak dituen hiru mugak; *inbertsiorik* onartzen ez duten hiru segidak. Bata, adjetiboa kokatzen duena sustantiboaren ondoan (VII or.). Bi: aditz laguntzailea eskatzen duena aditz partzipio nagusiaren ondoretik (4.2 atalean aztertuko duguna). Hiru: azkenik, genitiboa derrigorrez kokarazten duena, bere izen buruaren aurretik, eta hala esaten du (VI-VII or.):

2º Mais l'inversion ne se fait jamais entre deux mots qui sont en rapport de dépendance l'un de l'autre. Alors celui des mots qui dépend de l'autre se met toujours après le mot dont il dépend; ainsi on dit *Jesu-Krísten ebanjelioúa* et ne peut pas dire *Ebanjelioúa Jesu-Krísten*; on dit: *Dabíten semia* et on ne peut pas dire *semia Dabíten*.

Inchauspek bere horretan errepikatzen ditu baieztapenok berak, oraindik 1892ko txostenean ere (*Le peuple basque*, 13 or.). Eta Bonaparteri 1857 inguruan eginiko gutunetako batean,[9] Intxauspek aurre egiten dio ohargarriki puntu honen inguruan, Aita Jose Antonio Uriarte bizkaitarrari berari, agerian, dioenean, gutunari eginiko oharrean (*Euskera*, 1957, 174-5 orr.):

P.S. j'ai voulu jeter un coup d'œil sur la traduction du P. Uriarte et quelque peine que j'aie à vous le dire, je ne dois pas vous cacher que les premières phrases je trove beaucoup à relever. On ne doit pas dire *Apocalipsis S. Juan Apostoluarena*, mais *S. Juan Apostoluaren Apocalipsisa*, ou *Apocalypsoa*.

Inchauspek bide gutxi ematen dio joskera modu honi, aldiz Archuk (zuberotarra bera ere) bai, ikusi dugun bezala, hainbat aske eta usu praktikatzen duena garai berean. Oharra medio gainera, badakigu, Aita Uriarte berari ere, ez bide zitzaiola horren arrotz eta ezinezko egiten joskera modu hau, hala erabilia zuenerako, Inchauspek begi aurrean duen eskuizkribuan.[10] Bestelakoan guk ez dugu aurkitu edutezko genitiboen kontra-adibiderik Inchausperen prosan. Ez du esannahi ez dagoenik.

7.4.1.1. -ko izenlagunen guneaz.

Ez dugu aurkitu puntu honetan Inchausperen iritzi ageririk. Bai hala ere bere praktika, zeinetan hainbat usu ere, aurki litezkeen *-ko* izenlagunak izenaren ondoretik emanak, euskarazko tradizio guztietan bezala. Segidan adibide gutxi batzuk (lehenengo biak *Le verbe basque* obratik, eta hurrengoak 1894ko *Maria Birjinaren hilabetiakoak*):

(87) álhor erosíko ogía / le froment du champ acheté. (1858,10)

(88) álhor eréiñetako belhárra / l'herbe des champs ensemencés. (1858,11)

(89) Ama Birjina Pilarekoa (4)

(90) suge ifernukoa (7)

(91) aren Ama jinkozkoa (8)

7.4.2. Aditz nagusia / aditz laguntzailea ordenamendu segidaren inbertsioez.

Inchauspek behin baino gehiagotan aldarrikatzen du, euskaraz ezinezkoak liratekeen inbertsio gutxien artean, *aditz partizipio nagusia fiaditz laguntzaile* segidarena. Nolanahi, Inchauspek, segidan bertan, beti aipatuko du, erregelaren salbuespenen zerrendatxo bat. Nabarmenena, ezezko esaldiena.[11] Bestea berriz, Inchauspe argi asko saiatzen da esplikatzen, 1856ko *ohar gramatikaletatik* hasita (VII or.):

Il arrive quelquefois que l'auxiliaire, dans une proposition affirmative, se place avant le verbe attributif, mais alors la proposition a un sens particulier qui se rend en français par *c'est, c'était*; ainsi, *Abrahámec zían úkhen Isaák* est une phrase régulière, mais elle signifie: *c'est Abraham qui engendra Isaac*; *hóri da jín goízan* veut dire: *c'est lui qui est venu ce matin*.

Antzeko fenomenoa berresplikatuko du Inchauspek 1856an aurrerago ere, ezezko esaldien arteko hiperbaton baten inguru. Hala dio (XLIV or.):

Ení dutuzíe ez éguin signifie: *c'est à moi que vous ne les avez pas faits*; *éni ez-tutuzíe éguin* veut dire simplement: *vous ne me les avez pas faits*. La langue latine ne peut pas rendre la force et le sens particulier de la première forme[12].

Fenomeno guzti hauek aurki lezakete esplikazio modu egokia, gu euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenorako joera bezala izendatzen gatozen haren barne, eta beste une batzuetan saiatu garena zertxobait argitzen.

7.4.3. Aditz trinkoen derrigorrezkotasunaz, BA- partikula baieztatzailea hartzeko esaldian.

Inchauspek jada 1856an egiten dituen *ohar gramatikalen* artean, egiten du bat, adierazteko, nola, *niz* (*izan*) eta *dut* (*ukhan*) aditzen formak, aditz trinko gisara erabiliak direnean, osatu behar diren (edo osatzen diren, derrigorrez edo ohituraz), *ba-* aurrepartikula baieztatzaileaz, baiezko esaldietan; hala nola ere, beste zenbait aditz *irregular*. Hala dio (VIII-IX orr.):

Ba-dira. Lorsque les verbes auxiliaires *dut* et *niz* sont employés seuls pour signifier *avoir* et *être*, et non comme formatifs, ils prennent la particule ou affixe affirmatif *ba* dans les propositions affirmatives, (et la particule négative *ez* ou *e* dans les propositions négatives; ...) Quelques verbes irréguliers, tels que *ba-noúa, ba-dákit, ba-nago, ba-nabila*, prennent également la particule ba pour la proposition affirmative (et la particule *ez* ou *e* pour la proposition négative.)

1858ko *Le verbe basque*-an, Inchauspek antzeko oharrak egingo ditu berriro aditz trinkoen joskeraz. Hala ere, batetik, nolabait arindu-edo egingo du, 1856an erabatekoa zirudien derrigorrezkotasuna, *izan* eta *ukhan* adizkiekiko.[13] Bestetik, erabateko derrigorrezkotasun hori erantsi nahiko die orain itxuraz, berak aurretik izendatu dituen beste aditz *irregular* guztiei-edo (*joan, jakin, ebili, erabil, eraman, eduki*; salbu, *erran* aditzaren *dio* itxurako adizkiak). Hala dio (1858, 460 or.): «*Toutes les formes contractées, à l'exception de* dio*, prennent la prèfixe* ba *à l'indicatif, à moins qu'elles ne soient employées dans le sens interrogatif; ...*»

Inchauspek berak ez du bere prosan beteko halako araurik, erabat behintzat. Batetik, berak kontinuoki erabiliko dituelako *izan* eta *ukhanen* adizkiak, aurrizkirik gabe, bere edozein lanetan;[14] bestetik, tarteka bederen erabiliko dituelako bestelako adizki trinkoak ere aurrizkirik gabe, nola Iturriagaren *Jolasetako* itzulpenean segidakoan (1857):

(92) Jaten dienaren antzo handitzez douatza. (5)

Inchauspek aldarrikatu derrigorrezkotasun arau hauek, alde batetik beren *eskola* txikia irekiko dute hurrengo urteetan iparraldeko gramatikalarien artean (derrigorrezkotasun arau beretsuak errepikatuko dituzte adibidez gero, Dartayetek edo Gèzek, eta geroxeago Van Eysek berak ere). Beste alde batetik, kontutan hartu behar da, Inchausperen oharrek, nahiz erabat zuzenak ez izan, beharbada markatzen dutela nolarebait, ipar eta hegoaldeko usadioetan aurkitzen ahal diren zenbait desberdintasun aditz trinko hauen erabileran.[15] Zeren, hegoaldean, oro har, arruntena izango den bezala, *ba-* aurrizkidun aditza esaldi hasiera aldera(-edo) ematea,[16] iparraldean hainbat usu ere aurki litezke esaldiaren atzealdeagoko guneetan, hegoalderako nahiko bitxia gertatzen den erabilera modu batean. Halako adibideak izan litezke (hainbat bitxiak-edo) segidako hauen modukoak (lehenengoa, 1856ko *oharren* artekoa, besteak *Le verbe basque* liburutik):

(93) háren ikhoústeco mengoúa handi-bat bá-dut (1856,XXX)

(94) sógile hánitz bazirén / ils étaient beaucoup de spectateurs (439)

(95) bákiaren nahía badu / il a le désir de la paix (442)

(96) lagun baten behárra banúke / j'aurais besoin d'un compagnon. (442)

(97) áski ardúra heben gáinti badabíla / il circule assez souvent par ici (460)

(98) hánitz gáiza gogóan badarabíla / il roule bien des choses dans son esprit. (460)

7.4.4. Esaldien koordinazio moduez, aditz laguntzailea (horrenbeste) errepikatu beharrik gabe.

Ezagutzen dugu, Cardaverazek erabilitako koordinazio modua, Larramendik horren garratz kritikatua, bakarrik sail bateko azken aditz partizipioari erantsiaz dagokion aditz laguntzailea. Inchauspek honezaz gain, proposatuko digu, aditz laguntzailea soilik ematearena ere, saileko lehen aditzarekin, berak egiten duen bezala argitzen ari den adibide ohargarrian. Hala dio 1856ko *ohar gramatikalen* artean, *Sen Mathiuren Ebanjelioko* esaldietako bat azaltzen (XXVII or.):

Verset 16.- Lehértzen díra zahaguíac eta ardoúa ichoúrten eta zahaguíac gáltzen. Lorsque, dans une phrase, plusieurs verbes se suivent au même temps et á la même personne et qu'ils doivent avoir le même formatif auxiliaire, le formatif se met après le premier ou dernier verbe et peut se sous-entendre aux autres, C'est ainsi que, dans ce verset, le formatif *dira* est sous-entendu après *ichoúrten* et *gáltzen*.

Gure ustea da, Inchauspek berset honetan erakusten duen koordinazio formak, ez dituela eragiten Cardaverazenak hainbateko iluntasunak; eta oro har, erabiliagoa dela gure tradizioan (eta errentabilitate handiz), koordinatzen diren esaldi haiek badutenean, aditzaz gainera, beste zenbait konplementu desberdin ere. Aldiz bestea, laguntzailea azken aditzarekin bakarrik ematearena (oso erabilia ere gure tradizio guztietan), gehiago erabili ohi dela segurasko, koordinatzen direnak, aditz soilak-edo direnean, konplementurik gabeak-edo, esaldi osoak baino gehiago, ez delako orduan sistema, Cardaverazen esaldi luzeetakoa bezain iluna gertatzen (*... etorri, ikusi, esan eta egin zuen* modukoak; eta nahiz esaldiak aurretik beste hainbat konplementu ere izan, amankomunekoak edo). Ez dugu uste Inchauspek antzeko erreflexiorik jasotzen duenik gero, 1858ko *Le verbe basque* liburuan. Baina 1856ko ohar honek ere (edo antzekoek) sortuko dute beren *eskola* txiki bat berriro, iparraldeko ondorengo tradizio gramatikalean, antzeko erreflexioak errepikatuko dituztelarik gero, behintzat Gèzek, Duvoisinek bere eskuizkribuetan, eta nolabait Ithurryk ere bere *Grameran*, bakoitzari eskaini diogun atalean ikus litekeen bezala (Campionek ere jasoko du erreflexio bere *Gramatican*, baina bakarrik irtenbide *cardaveraztiarra* eskainiko du).

7.4.5. Ere juntagailuaren guneaz: Baita ere; eta ere; baina ere, segidez.

Bonaparteri zuzendutako gutunetako batean argitzen dio Inchauspek Printzeari, *baita ere* juntagailuaren erabileraren gainean (Uztailak 20, 1858; *Euskara*, 1957, 214 or.): «*Il faut dire* baietaere *en un mot, ou bien* bai eta ere *en trois mots.*» Inchauspek ez du ezer aipatzen bertan, *ere* partikularen dislokazioaz. Eta ikuspegi honetatik, bederen ohargarria da, Inchausperen hain usuzko erabilera, *ere* juntagailuarena, *eta* konjuntzioaren segidan, esaldi hasieran. Hala nola behintzat segidako adibideotan, 1894ko *Maria Birjinaren hilabetiako* lehen orrietatik:

(99) ...; eta ere, zoure Seme dibinoaren eta zuhauren hountarzunaz, ... (V)

(100) ...; eta ere bethidanik hitzartu zian, bere miserikordia handian haren eraikitia ... (7)

(101) ..., eta ere figuratzen edo uduriazten zutian: ... (8)

(102) ...; eta ere ordutik haren arima izan da ez berbera osoki chahu, bena ... (15)

(103) Eta ere Sª Klotildak ardietsi zian Klobis bere senharraren eta Errege paganoaren kombertitzia, ... (23)

Eraberean aurki genezake,1852ko *Uscaldunaren laguna librian,* antzeko erabilera bat, *ere* juntagailuarena, *baina (bena)* konjuntzioaren segidan:

(104) (Adamen eta Evaren haurrac laster hanitztu ciren,) bena ere haieki hanitztu ciren bekhatiac. (14-5)

Adibide guztiok bildu ditugu Inchausperen lanei eginiko azken begirada azkar batean, ziur behar dutelarik izan askoz gehiago, lanetan barreiatuta. Bitez, diren erakusgarri soil.

7.4.6. Izen arrunta ḟIzen propioa segidaz.

Ez dira gutxiengo txiki bat baino izango, halako segida erakusten duten egiturak, alderantzizko usuzkoagoen aldean (begira jota berriro). Ordea erakutsi nahi ditugu, ezarian bildutako segidakook (fosilizatu samarrak konsidera balitezke ere), egitura honen existentziaren adibide bezala behintzat. Hirurak dira 1894ko *Maria Birjinaren hilabetiakoak* (ziur nahikoa gehiago ere aurki litezkeelakoan):

(105) ..., errege Assuerusek (emazte guzién gainetik maithatu zianaz, ...) (9)

(106) ... Andere Dona Maria. (29)

(107) ... Andere Dona mariaren Izen Saintiaren besta, ... (31)

7.4.7. Superlatiboak osatzeko moduaz, adjetiboak errepikatuaz.

Aipagarri da Inchausperen erreflexio hau ere, alde eta aldi guztietako euskaretan (eta agian gehiago ahozkoetan), ezin maiztasun gehiagoz erabiltzen den egitura baten gainean. Hala dio Inchauspek, 1856ko *ohar gramatikaletako* batean (XIX or.; Léclusek bere *Grameran* jasotzen zuen modu beretsu batean,[17] bere lekuan ohartu dugun bezala):

Verset 8.- *Góra-gorá batetára*. Le superlatif absolu exprimé par *très* en français se rend souvent en basque par la répetition du mot; ...; pour dire: *il était très rouge*, on dira: *gorri-gorria zén*, ...; au lieu de répéter le mot on se sert aussi de *hánitz, zinez* eta *ezinágo*: *hánitz góra, zínez gorátu*, etc.

[1] Beti J. Bilbaoren *Bibliografiaren* datuen arabera.

[2] Oraintsu berrargitaratua Euskaltzaindiak osorik, in *Louis Lucien Bonaparte, Opera Omnia Vasconice*, II, 161-270 orr., 1991.

[3] «Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra»*, Euskal Esnalea*, 17, 1927, 208 or.

[4] *Euskal Literatura,* II, 163 or.

[5] *Le basque, et la littérature d'expression basque*, 1941, 58 or.

[6] *Memoriæ L. Michelena*, ASJU, 1991, 460 or.

[7] A. Irigoienek argitaratuak, *Euskara*, 1957, 171-260 orr., nondik gure aipuak.

[8] Urte batzuren buruan Ithurryk jada agerian erakutsiko dituenak bere *Grameran.*

[9] A. Irigoienek argitaratuetako lehenean.

[10] Ezagutzen dugu gainera Uriarteren erreflexioa, gipuzkerazko *Apokalipsiaren* izenburuaren gainean, Printzeari eginiko gutunetako batean, eta non Uriartek proposatzen duen Inchauspek gaitzetsitako ordena (Abenduak 18, 1857, *ASJU*, I, 67 or.): «Al principio había traducido el término “Apocalipsis” en *Aguerqueta*; pero disuena alos guipuzcoanos, y he preferido dejarlo, como también anteponer, diciendo: *Apocalipsis Jesucristoren*, y no *Jesucristoren Apokalipsisa*; pero S.A. hará lo que mejor le parezca». Eta Printzeari badirudi hobe iruditu zitzaiola, mantentzea, orden *kanonikoa*; bada, jada 1858an argitaratzen duenean Uriarteren *Apokalipsiaren* itzulpen berria gipuzkerara, honek, Inchauspek defendatutakoa eramango du izenburu bezala, eta ez Uriartek azkenik hobetsitakoa: *San Juan Apostoluaren Apokalipsisa.* Ohargarria da ere hala, nola Printzeak aurreko urtean (1857) argitaratzen duen Uriarteren bizkaierazko itzulpenak, izenburu bitxi bezala daraman: *San Juan Apostoluaren Aguertueria* (eta honetatik segurasko, Uriarteren gutuneko erreflexio bitxiaren hasiera, *Aguerqueta* hitzaren gainean). Ezagutzen dugu nolanahi, nola garai horretantxe Uriartek, *ez-euskarazkotzat* kalifikatzen duen berak ere, *Seme Davidena* bezalako joskera bat, Printzeari eginiko gutunetako batean (1857ko Abuztuaren 23an; *ASJU*, I, 1954, 57 or.): «Respecto a las traducciones que me ha enviado, ambas tienen el defecto de no ser exactas y fieles, pues a menudo dejan palabras en latín. También faltan en que el régimen, de que a veces usan, no es bascongado, por ejemplo: *Seme Davidena.*»

[11] Hala esaten du adibidez 1856ko *ohar gramatikalen* artean (1856, VII or.): «4º L'inversion ne se practique pas non plus entre les verbes attributifs et les auxiliaires ou formatifs avec lesquels ils se conjuguent; lorsque la proposition est affirmative, l'auxiliaire se met après le verbe attributif, en règle générale; et lorsque la proposition est négative, l'auxiliaire précédé de la particule négative se met avant le verbe attributif; ainsi on dira: *Abrahámec úkhen zían Isaák, Abrahámec e-tzían eho Isaák*; et on ne pourrait pas dire dans le même sens: *Abrahámec zían úkhen Isaák, Abrahámec ého e-tzían Isaák*.»

[12] Inchauspek ija hitez hitz errepikatuko ditu bi ordenamendu modu hauek gero ere *Le verbe basque* liburuan (430 or.): «... il arrive quelquefois que, dans les propositions affirmatives, le verbe se place avant le nom verbal; cela se fait lorsqu'on veut donner à la phrase le sens et la force exprimés en français par *c'est*; ainsi cette phrase: *nik dut igórri háurra*, veut dire: c'est moi qui ai envoyé l'enfant, *ego sum qui misi puerum*; *Joháne zen joán lehénic*, signifie: c'est Jean qui partit le premier, *Joannes fuit qui primus profectus est*. / ... / On met la particule négative avant le nom verbal dans les formes énergiques: *éni dúzu ez-éman*, c'est à moi que vous n'avez pas donné; *nik dut ez nahi*, c'est moi qui ne veux pas; *hóri du ez máite*, c'est lui qu'il n'aime pas.»

[13] (1858, 431 or.): «La même prefixe *ba* (*bai*, oui) se met comme particule affirmative, dans tous les dialectes, devant les formes intransitives employées seules, pour signifier *il y a, il y avait, il y aura, il y aurait, il y aurait eu*, et devant certaines formes transitives employées aussi seules, pour exprimer le verbe *avoir*.»

[14] Nola adibiderako, Iturriagaren *jolasen* itzulpeneko segidakoetan (1857): *lana da* (4); *harritzeco da* (8); *baliousac dira* (10); ...; eta beste nahi adina.

[15] Gogora genezake adibidez, nola antzeko ezaugarri bat aurkitzen dugun jada, Pierre d'Urteren 1712ko gramatikan.

[16] Errekurtso maiz erabilia prezeski, trikimailu bezala, aditza aurreratzeko esaldian, ohizko «Xà», aditza bigarren, egitura batean (nondik, esateko, aurrizkiaren horren usuzko erabilera segurasko, *jakin* aditzaren forma trinkoekin, beste batzuekin baino maizago).

[17] Non esaten duen (83 or.): «Le superlatif s'exprime quelquefois à la manière hebraïque, en répétant le positif: *On ona* bon bon, c'est-à-dire très-bon; *handi handia* grand grand, c'est-à-dire très-grand; *chume chumea* petit petit, c'est-à-dire très-pètit.»

8. Bonaparte Printze (1813-1891) euskaltzalearen lanen inguruan.

Ez da batere erraza, eta ez da gure asmoa, balorazio orokor bat egitea, Bonaparte Printzearen euskal lanen inguruan. Ez gara ere gaituegi sentitzen, koordenada guztiz zuhur batzuen barne neurtu ahal izateko, Printzeak, XIX mendearen bigarren erdian barrena, bultzatutako, hausnarketa eta itzulpen mugimendu euskaltzalearen eragina euskal letretan. Bere eraginez sortzen da, Euskal Herria guztian zehar, nolabaiteko *itzultzaile eskola amankomunatu bat*. Bere inguruan biltzen da, garaiko euskalzaletasunaren lorea; eta dudarik gabe, batetik edo bestetik, bere ukitua jasango du, XIX mendearen bigarren erdiko mugimendu euskalzale osoak. Bere eraginpean sortutako euskal obrak ordea, itzulpenak oro har, ez dira zabalduko euskal herrietara, eta ez dira gehiegi erabiliko, berez antzeko obrek luketen helburu didaktiko erlijiosoarekin. Beraz obrek berek, oso eragin zuzen mugatua izango dute; nahiz eta gero, itzulpen hauen egileetako batzuk bederen, egin eta argitaratuko dituzten beste euskal lan zenbait ere, non agian islada litezkeen, Printzearen eskolako irakatsiak.

8.1. Printzearen instrukzioak itzulpengintzan.

Dauzkagun datuen arabera, pentsa liteke, Printzeak oro har, nahikoa instrukzio zehatzak emango dizkiela, bere itzulpen langintzan jardungo dutenei.[1] Bere eskakizunak hiru ardatzen inguru lotuko dira. Batetik, lanak *hitzez hitz* itzuliak izan daitezen, itzultzailearen *loritura*, gehigarri eta aldaera propiorik gabe. Bi, *hitzez hitz* bai, baina bortxatu gabe inoiz, xede-hizkuntzaren erregela gramatikalak. Eta hiru, lot zekiola itzulpenetako testua, ahalik eta estuen, tokian tokiko hizkera erabiliari; *lokalismo* exageratuena zaindu nahiaz batera, ahalik eta gehien uxatu nahian, soilik itzultzailearen *elukubrazio teorikoak* liratekeen haiek*, hizkuntzak izan behar lukeen (baina ez zen)* guzti haren inguru. Hala moduz idazten dio adibidez Printzeak, Bruno Etcheniqueri, 1862ko Urtarrilaren 2an eginiko eskutitzean, dotrina itzultzaile zuhur baten bila dabilela (J. Urquijo, «Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores», *RIEV*, IV, 1910, 234 or.):

> Si des curés ou toute autre personne capable ... voulaient se charger de transporter mot à mot ce catéchisme de Salinas dans le dialecte basque tel qu'il est exactement parlé dans ces six localités, ... on aurait une collection fort intéréssante pour la philologie basque navarraise d'Espagne.

Ez dugu ezagutzen Printzearen eskutitz argitaratuen artean, antzeko beste instrukzio idatzirik, berak agindutako *hitzez hitzeko* itzulpenen gainean. Bai ordea, bere laguntzaile nagusienen erantzunak, behin eta berriro azpimarratzen itzulpenen literalitatea, beren esaeren euskaltasuna gorde ahal duten neurri guztian. Hala adibidez, Uriarte, Inchauspe eta Duvoisinen kasuetan (cf. autore bakoitzari eskaini diogun atala, edo areago, hauen gutuneria argitaratuak). Printzearen literalitate eskaera ez da berarentzako, bitarteko on bat besterik, errazteko bere ikerlari lana, itzulpen desberdinen arteko estudio konparatiboan; ez diezaion itzultzaile bakoitzak aldegin, bere abar propio, konpara ezinetatik.[2] Printzeak aipatzen du, halamoduzko itzulpen erregela bat, Campioni egindako eskutitzetako batean ere, nahiz kasuan erregela ez den euskarara bihurtzeko, baizik eta honetatik frantzesera eta espainolera. Pentsa liteke, Printzeak itzulpen erregela berdintsua eskatzen ote duen bestaldera ere. Hala dio (G. Lacombe, «Lettres du Prince Louis-Loucien Bonaparte à Don Arturo Campion», *RIEV*, XXIV, 1933, 309 or.):

J'ai remis à la Société [Il s'agit de la *Société philologique* de Londres, argitzen du Lacombek oharrean] ma traduction de l'Ode d'Arrese, mais on désire qu'elle soit accompagnée d'une traduction française et d'une espagnole, aussi littérale que possible; mot á mot, mais sans violer les régles de la grammaire.

Printzeak hizkuntzaren erabilerari gorde nahi izan dion atxikimenduaren inguru, jaso litezke ere, honek Charencey-ko konteari aurpegiratzen-edo dizkion segidako hitzak (nahiz berez eginak izan, ingurumari lexiko batean; G. Lacombe, «Quatorze Lettres Inédites du Prince Louis-Lucien Bonaparte au Comte de Charencey», *RIEV*, II, 1908, 779 or.): «*La raison de la commodité ne saurait suffire. Il faut des examples pris de la langue telle qu'elle existe, et non pas telle qu'elle peut avoir ou ne pas avoir été.*» Antzeko prebentzio batekin idazten dio oraindik Inchausperi 1889ko Urtarrilaren 2an, bere bizitza bukaera aldera, kasuan, Archuren zubererazko idatzi baten inguruan sortzen zaion hainbat zalantza morfologikoren inguruan, esaten duenean (*Gure Herria*, 1928, 195 or.): «*Débrouillez-moi tout cela, cher Chanoine, d'après l'usage souletin moderne; d'après ce qui est pratiquement, et non pas d'après ce qui devrait être théoriquement.*»

8.2. Printzea eta hitzen ordena euskaraz.

Aipatu hiru itzulpen ardatzak garbiak izango baldin badira ere beti Bonaparteren irizpidean, ez da erraza izango jakiten, zenbateraino jarraitzen, onartzen edo kontutan hartzen dituen printzipio beroriek Printzeak berak, hitzen ordenamenduaren kontutan. Gu beldur gara, ez bide zituela gehiegi zaindu, ezaguturik bere laguntzaile nagusiek oro har erakutsi duten liberalitatea arlo honetan.[3] Hasteko, ez dirudi, hitzen ordenamenduaren atala inoiz izan zenik Printzearen kezka minetakoa. Ez dirudi, Printzeak berak ere oso garrantzizkotzat jotzen zuenik, arlo honetan, euskararen berezitasuna, berak ezagutzen zituen beste inguruko, eta ez hain inguruko, hizkuntza nahikoa ugarien aldean. Guk ez diogu ezagutu batere ohar ageririk, euskarazko esaldien hitzen ordenamenduaren gainean. Ez honek, frantzesa edo gaztelerarekiko erakus ditzakeen alderik nabarmenenetan (nola, edutezko genitiboarenean; *-ko* izenlagunak; erlatibozko esaldien eraikuntza modu ohizkoenaren inguru; …), edota euskal aditzaren, edo objetuen guneaz esaldian; nahiz ezagutzen ditugun bere laguntzaile nagusienen artean, zenbait eztabaida, iritzi, eta praktika ezberdin puntu guzti hauen inguruan.[4]

Jabetzeko, Printzearen *literal* eta *hitzez hitzeko* itzulpen eskaerek, ez dutenez derrigorrez esan nahi,bere horretan gordetzea hitzen jatorrizko ordenamendua esaldian, kuriosoa da ezagutzea, Printzeak berak 1880an, euskaraz sinatzen duen (Charles Kent-en) ingelesezko epigrama baten itzulpena, *On the Accession of His Holiness Pope Leo the Thirteenth. An Epigram after S. Malachy. Basque (Guipuscoan). (Prosaic Literal Translation)* izenburuaz:[5]

Through the Cross on Cross of Pius	*Pioren Gurutze-Gurutzetikan,*
As thorough Mary's Dolours Seven,	*Mariaren zazpi oñazeetatik bezela,*
Lo! from Death what Life emerges,	*Ona! zer bizi eriotzatik irtetzen dan;*
Joy from anguish, Light from Heaven	*Antsiatik poza, zerutikan argia*

Bonaparteren itzulpenean, ohizkotzat jo beharko lirateke noski, lehenengo bi bertsoetako ordenamendu aldaketak bi hizkuntzetan, euskararen deklinabide ezaugarri pospositiboen ondorio-edo. Ezin berdin esan ahal da, azken bi bertsoetako ordenamendu aldaketengatik, zeinak guztiz diren Bonaparteren borondatezkoak, eta ez inola hizkuntzaren joerak behartuak.[6] Ordenamendu arazoak ez zuen beharbada gehiegi kezkatzen Printzea, eta ezingo dira segurasko zentzu honetan entenditu, bere literalitate eskaerak.

8.2.1. Bonaparteren «Xà» egiturak euskaraz.

Bestelakoan , Bonapartek, ezagutzen dizkiogun euskal esaldi-oso gutxietan, ez dirudi eragozpenik duenik, aditzaren gunea aldatzeko euskarazko esaldietan «Xà» moduko egitura batera, nahiz bestelako ordenamendu bat erakutsi, konparaziorako erabilitako hizkuntzetan. Hala adibidez, Printzeak italieratik euskarara (eta beste) eginiko segidako itzulpenean, 1881ean Campioni eginiko gutunetako batean (*RIEV*, XXIV, 1933, 305 or.): «*La gatta frettolosa fa i gattini ciechi, dit le florentin. Cela veut dire: «La chatte pressée fait des petits aveugles» esto es «La gata apresurada hace los gatillos ciegos», AU DA: «Cataeme presakatuak ume itsuak egiten ditu».* Eta behintzat esanguratsua da ordenamendu aldaketa hori euskaraz, beste hiru hizkuntza erromantzeekiko, euskararako aldarrikatzen ari garen «Xà» fenomenoaren ezaugarrien ingurutik. Bonapartek antzeko aldaketak ere erakusten ditu (orduan konplementu bakarreko esaldi askoz ere laburragoetan), 1869ko *Le verbe basque en tableaux* obraren laugarren

taulari eginiko oharren artean, ematen dituenean euskaraz, batere zalantzarik gabe, *ogia du, ura dago, ura da* esaldiak, gaztelerazko *tiene el pan, hay agua* edo *es agua* esaldien parean.[7]

Bonapartek nolanahi, 1869ko ohar beronetan ematen du, lau euskalkitan, frantzesezko *là où est ton trésor, est ton cœur* esaldiaren itzulpena. Lauretan ordena bere batean, eta frantzesezkoaren beretsuan, elementu nagusien ordenamenduarekiko (aldaeratxoren bat gorabehera; 188 or.): *nun beita zure tresora, han düzü zure bihotza / non baita zure tresora, han da zure bihotza / non dagoen zure tesoroa, an dago zure biotza / nun daguan zeure tesorua, an dago zeure bijotza.* Ez da kasualitatea, lau euskalkietan agertzea euskaraz bitxiki, *han/an* partikula aditz trinkoaren aurrean, aldiz jatorrizkoa testuan ageri ez dena. Eta izan ere euskaraz, partikula honetxek bideratzen du aditz trinkoaren ohizko «Xà» egitura bat esaldian,[8] bide batez ahalbideratzen ere den neurrian, ordenamendu komunikatibo bere bat funtsezko elementuen artean, jatorrizko hizkuntzan eta xedekoan.

8.2.2. Bonaparteren AO (VO), eta SAO (SVO) egiturak.

Nolanahi, gure tradizio nagusiak inoiz ez bezala, Bonapartek ere ez du izango inolako eragozpenik, euskaraz esaldiak emateko, AO (VO) antzeko egituretan (nahiz zenbaitetan esaldiak soilik osatuak izan bi elementu hauez). Hala nola ematen dituen segidakoak, 1862ko *Langue Basque et Langues Finnoises* artikuluan (kasuan, gramatikako bestepuntu batzuk argitzen ari bada ere adibide horiekin):

(1) jaten det ogia (22)

(2) jaten ditut ogiak (22)

(3) eman dio emakumeari (22)

(4) eman dizkio emakumeari (22)

(5) eman dio emaztekiari sagarra / il a donné la pomme à la femme (23)

(6) eman du emaztekiari sagarra / il l'a donnée la pomme à la femme. (23)

Hala moduzko egiturak jasotzen ditu ere, adibidez, 1889an Inchausperi eginiko gutun, lehenago ere aitatu dugunean. Esaldiak, Inchausperenak, edo bereak propioak, eta AO (VO) edo SAO (SVO) egitura gordetzen dutenak beti (*Gure herria*, 1928, 428-9 orr.):

(7) jan dut sagar bat eta pera bat / J'ai mangé une pomme et une poire (428)

(8) Maithatzen dut Piarres eta Maria (428)

(9) maithatzen dutut Piarres eta Maria (428)

(10) maithatzen dut (*ou* dutut) gizoun hoyek, *ou* gizoun haou eta emazte haou (428)

(11) Jinkouak egin zian zeria eta lurra / Dieu créa le ciel et la terre (428)

(12) Jinkouak egin zutian zeru-lurrak (428)

(13) Saldotik hartu zian hamar khamelu, hountarzun parrasta bat ere, ... (429)

[1] Nahiz Duvoisin adibidez, kexatzen den 1880ean Campioni eginiko eskutitzetako batean, nola artean 1857an berak ez zituen horren argibide zehatzak jaso Printzearengandik, Iturriagaren *Jolasen* itzulpenerako (Cf. Duvoisinen atala). Segurasko pentsatu beharko da, Bonaparte bera ere, piskanaka joan bide zela zehazten bere eskakizunak itzultzaileentzako.

[2] Hala moduz interpreta liteke adibidez, Inchauspek 1858ko Maiatzaren 10ean, Monsieur le Commandant baten bidez, Printzeari zuzentzen dion eskutitzean egiten duen oharra, juzgatzen beste itzultzaile, Etcheverry baten, lana (*Euskera*, 1957, 206 or.): «Je n'ai entre les mains que les six premiers chapitres de la traduction de M. Etcheverry. Je crains que son Altesse n'en soit pas bien satisfaite. Il a commencé d'abord à me suivre pas à pas, mais cette contrinte l'a vite fatigué. Il a voulu mieux faire; je ne lui en voudrais pas si en s'écartant de ma traduction il ne s'était pas jeté dans la paraphrase. Il m'a dit qu'il suit Menochins et Bossuet; je lui ai bien expliqué quelles étaient les vues du Prince et ses désirs; je lui ai de nouveau recommandé d'être aussi littéral que

possible dans la traduction de la Vulgate; je ne sais ce qu'il fera. Je m'attendais de sa part à une plus grande docilité.»

[3] Cf. berriro, Duvoisin, Uriarte eta Inchausperen atalak, eta batez ere lehen bienak.

[4] Bakoitzaren atalean aipatuak. Cf. berriro, Uriarte, Duvoisin, Inchauspe edo Archuri eskainitako atalak.

[5] In *Louis Lucien Bonaparte, Opera Omnia Vasconice*, I, Euskaltzaindia 1991, 447 or.

[6] Hizkuntz ohiturak segurasko ingelesezko ordenamendu berbera mantentzera eramango lukeenean. Zergatik bada eman 3. bertsoan, *zer bizi eriotzatik irtetzen dan* segida? Eta ez, euskaraz beti ohizkoagoa litzatekeen, *eriotzatik zer bizi irtetzen dan* ordenamendua, ingelesezko ordenamendu bera jarraituz? Edota azken bertsoan, zergatik, *Antsiatik poza, zerutikan argia* segidak? Eta ez aldiz, ingelesez bezala, eta euskaraz guztiz ohizkoa ere izango litzatekeenean, *Poza antsiatik, argia zerutikan* bezalakoak?

[7] In *Louis Lucien Bonaparte, Opera Omnia Vasconice*, Euskaltzaidia, 1991, I, 188 or.

[8] Beste testuinguru batzutan *ba-* aurrizkiak ahalbideratzen duen bezalaxe adibidez.

9. Euskararen hitz ordenamendu librearen bi aitorpen jakitun 1857an: C.A.F. Mahnen (1802-1887) Denkmæler der Baskischen Sprache; eta Francisque Michelen (1809-1887) L'Escuara (Le Pays Basque).

1857. urtean ematen da argitara Berlinen, Carl August Friedrich Mahn, Humboldten jarraitzaile euskalzalearen liburu hau, izen osoa duena: *Denkmæler der Baskischen Sprache. Mit einer Einleitung, welche von dem Studium der Baskischen Sprache handelt und zugleich eine Beschreibung und Charakteristik derselben enthaelt*.[1] Eta izenburuan iragarri bezala jasotzen ditu liburuskak, batetik, zenbait euskal testu (*fort bien choisis*, esango du J. Vinsonek),[2] bere azken larogei orrialdeetan. Bestetik, eta hasierako LVI orrialdeetan, emango du Mahnek sarrera bezala, euskararen ezaugarrien deskribapen zehatz bat, Vinsonek oso sutsuki gomendatuko duena, 1868an idatzitako iruzkin batean, euskararen gainean egin diren argitalpen hoberenetakoa bezala.[3]

9.1. Mahnen erreflexioak euskarazko hitzen ordenamendu libreaz.

Mahnek, aitatu autoreez gain, ezagutzen, aipatzen eta erabiltzen ere ditu, bera bitarteko gramatika lan gehientsuenak (nola aitatzen dituen, IV or.: *Larramendi, Harriet, Lécluse, D'Abbadie und Chaho, Lardizabal, ...*). Mahnek bere oharren hasieratik, aitortuko dio euskarari (III or.), eraikuntza gramatikal berezi eta aipagarri bat,[4] inguruko hizkuntza ezagunen aldean. Eta atal berezi bat eskainiko dio (20.a), ezaugarri hau hainbat zehazteari, hitzen ordenamenduaren inguruan, inguruko hizkuntza hauen konparazioan; aldarrikatzeko gehienean, euskararen nolabaiteko gailentasuna guzti hauen aldean. Atala, bada zertxorenbait apologetikoa, baina ez zaizkio ebazpen zuhurrak ere faltako. Topikoen artean, euskarazko erlazio atzizkien ezaugarri pospositiboa, edota adjetiboen gune aldaezina izenen ondoren. Baina Mahnek ere, Darrigolen ildotik, argi aldarrikatuko du, nola prezeski aditz flexioen eta atzizki sistemaren aberastasunak, bide zabalena ematen dion euskarari, (ia) erabateko askatasuna izateko bere hitzen ordenamenduan. Hala dio (XLIII or.):

20. Da die Baskiscke Sprache eine reiche und vollständige Flexion besitzt, alle grammatischen Kategorien deutlich unterscheidet, Subject und Prädikat durch die Copula verbindet, die Sätze durch gehörige Conjuctionen verknüpft, durch ein doppeltes Pronomen relativum[5] den zusammengesetzten Satz ermöglicht, zwar dadurch dasz sie Pronomina in das Zeitwort einfügt zu viel in ein Wort zusammenfaszt, aber doch nicht wie die Mexicanische auch Substantive mit in das Zeitwort verwebt, ferner sich einer äuszerst günstigen und freien Wortstellung erfreut, so steht einer vollkommenen Gliederung des Satzen nichts im Wege, und in der That zeigt die Baskische Sprache auch, dasz sie sich im Satzbau mit jeder andern noch so glücklich organisirten Sanskritischen Sprache messen kann, während sie einer jeden von ihnen in manchem einzelnen Punkte noch den Rang abläuft. Ihre Wortstellung namentlich, in welcher nur einiges ihrem Charakter gemäsz, wie die Stellung der Formwörter und die Stellung des Adjectivums nach dem Substantivum, ganz fest steht, ist vortrefflich.[6]

Beste zenbait erreflexio eskaini eta gero, hizkuntzen orden *natural*, edo *logiko-artifizialari* buruz, eta euskararen posposizio sistemari, Mahnek bukatuko du atala, berriro aldarrikatuaz ondorio modura, euskarazko hitzen ordenamendu librea, eta honen aukera nolanahiko *inbertsioak* erabiltzeko (XLIV or.):

Da im Baskischen alles durch Formen genau bestimmt ist, so darf, bis auf die Formwörter und die Adjective, die ihre feste Stelle haben, in der Construction die gröszte Freiheit herrschen, und Inversionen sind in einem hohen Grade möglich und erlaubt.[7]

Alemanaaren ezagutza arinagoa eskatuko liguke, Mahnen lanaren azterketa sakonagoak. Eta oraindik ez dugu.

9.2. Francisque Michelen L'Escuara artikulua.

1857ko urte berean, ematen du argitara Parisen, Francisque Michel eruditoak (garaiko akademia, elkarte, titulazio zientifiko, eta antzeko gehienen partaideak), oro har, ondo goraipatua izango den liburua, Euskal Herriaren inguruan, izen osoa duena: *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature, et sa musique*.[8] Eta bertan, kapitulu labur bat ere eskaintzen zaio euskal hizkuntzari, *L'Escuara, ou la langue basque* izenpean (7-28 orr.). Michelek, beste hainbat kontu historiko eta etimologiko haizatu ondoren, egiten dio erreferentziren bat euskal gramatikari ere, batez ere, bere lehenagoko Lécluse edo Darrigolen lanen ondotik (berak agerian aipatzen dituenak, Court de Gebelin-en euskararen inguruko beste lan batekin batera). Bestalde badakigu (Lafittek kontatzen du berrargitalpenaren hitzaurrean), Michelek nahikoa kontaktu estua izan zuela, euskal gai hauen inguruan, Archurekin (zeinak urte gutxi lehenago argitara zituen bere lehen gramatika lanak), Heletako Etcheverry maisuarekin, eta are Duvoisinekin ere behintzat.

9.2.1. Michelen erreflexioak euskarazko hitzen ordenamendu libreaz.

Kontaktuok, eta bere euskal literaturaren ezagupenak arren, Michelek ez ditu denera ohar labur batzuk baino jasoko euskal gramatikaz bere lanean. Ordea, gutxi batzuk bai hauen artean, hitzen ordenamendu libreaz euskaraz, guk aipatu behintzat egin nahi genituzkeenak. Michelek batetik, erregela orokor bezala jasoko ditu, adjetiboen gunearena izenaren ondoretik, eta aldiz edutezko genitiboena izenaren aurretik.[9] Baita ere bestetik, euskarazko posposizioen erabilera, preposizioen ordez.[10] Muga hauez kanpo ordea, Michelek enfatiko goraipatuko ditu, Mahnek bezala, eta Darrigolen hitzen atzetik, euskal perpausaren egitura libertatea, eta inbertsiotarako ahalmena. Birritan ere. Bat (18-9 orr.):

...; sa syntaxe d'accord est nulle, ou se réduit à la connaissance parfaite de son système de déclinaisons et de conjugaisons. Point non plus de construction particulière commandée à ses phrases, qui se prètent, par le privilége des inversions, à toutes les combinaisons de la pensée, au caprice ou à l'impétuosité de l'imagination, à tous les élans du cœur.

Eta modu beretsuan aurrerago, *Syntaxe d'accord et de dépendance* izeneko atalean (28 or.):

La syntaxe de dépendance se réduit à dire que les mots basques ne sont soumis à aucune dépendance grammaticale et arbitraire par rapport aux autres mots, noms ou verbes. Dans l'escuara, chaque mot ne dépend absolument que de la seule pensée de celui qui parle. Il en résulte que le moindre enfant en état de comprendre ses propres pensée, les rendra facilement en basque sans commettre solécisme.

9.2.1.1. Michelen adibide eskasak.

Ideia nagusietan bezala, Michel, Darrigoli jarraitzen zaio, bere esaldi osoen adibideak ematerakoan.

9.2.1.1.1. «Xà» egitura absolutoak.

Hala, jasotzen dituenean euskaraz, aditzaz amaitzen diren segidako bi esaldiak, frantzesez ez bezala, biek erakusten dutelarik bi hizkuntzetan, esaldien eta aditz-galdegai bikote segiden, ordenamendu desberdina:

(1) Emazteak izikor dire / les femmes sont pusillanimes (27)

(2) Jaincoa alde eta gauza guzietan da / Dieu est partout et en toutes choses (27)

9.2.1.1.2. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.

Hala ere, Michelek ematen dituen beste hiru esaldi adibideek, ordenamendu berea erakusten dute bi hizkuntzetan, nabarmen ematen delarik esaldiko galdegaia aditzaren ondoretik (nahiz eta euskarazko esaldietako batek, *ba-* aurrizkia ere irabaziko duen aditz trinkoaren aurretik):

(3) badire gizon prestuak / il y a des hommes sages (27)

(4) Jainkoak egin zuen gizona / Dieu fit l'homme (27)

(5) Jainkoan egin zituen zerua eta lurra / Dieu fit le ciel et la terre (27)

[1] Julien Vinson hasi zen, urteekin, argitaratzen, liburuaren frantzesezko itzulpena, nahiz bukatu gabe utzi (Ik. «Le Docteur Mahn et la langue basque», *RIEV* 1922, 560-8 orr.), emanez frantzesezko izenburu: “Monuments de la langue basque avec une introduction qui traite de l'étude de la langue basque et en même temps contient un description et caractéristique d'elle, ...».

[2] Aitatu itzulpenari egindako hitzaurrean, *RIEV*, 1922, 560 or.. Mahnek jasotzen ditu hala, eta ordena honetan, Leiçarragaren *Testamentu Berrico*, eta *Apostoluen Acteetako* zenbait pasarte; Bonapartek 1857ko urte berean argitaraturiko *Parabola de seminatorea*, zazpi euskalkitan; Axularren *Gueroco Gueroaren* (2. arg.), sarrera eta zati handi bat; Moguelek 1802an Humboldtentzako itzulitako autore latinoen *bertsioak*; Andramendi, Lelo, Altabizkar eta Beotibarko kantak; Garibay eta Oihenarten errefrauak; eta beste kanta desberdin sail bat ere XXI ataletik aurrera.

[3] Hala dio (*RLPhC* 1868-9, II, 245 or.): «En résumé, le petit volume de M. Mahn est une des meilleures publications qui aient encore été faites sur le basque; il doit donc être très vivement recommandé à toutes les personnes qui voudront étudier sérieusement cette langue.»

[4] Hala itzultzen du Vinsonek (*RIEV*, 1922, 562 or.): «... sa construction grammaticale remarquable et unique en son genre dans l'ancien monde; ...»

[5] Aurreko atalean (19an) aitatzen ditu Mahnek, Larramendiren ondotik, euskarazko erlatiboaren bi (izenorde) moduak-edo: bata -*(e)n* atzizkiaz; bestea, *zein* partikularen bidezkoa.

[6] Zeinen gutxi gora beherako gaztelaniazko itzulpena izan litekeen: «Dado que la lengua vasca posee una rica y completa flexión, diferencia claramente todas las categorás gramaticales, une el sujeto y predicado mediante la cópula, enlaza las frases por medio de las precisas conjunciones, posibilita la unión de la frase con el doble pronombre relativo (ik. 5. oh.). Aunque resume demasiado en una palabra, insertando los pronombres en el verbo, no une el sustantivo con el verbo como el mexicano, además goza de una ventajosa libertad en la posición de las palabras, por lo que nada obstaculiza una perfecta distribución de la frase y, de hecho, la lengua vasca demuestra que puede medirse con cualquier lengua sánscrita tan bien organizada, mientras que supera a éstas en algunos puntos concretos.»

[7] Eta zeinen gutxi gora beherako itzulpena izan litekeen: «Dado que en la lengua vasca todo está exactamente determinado por las formas, puede -excepto en los elementos de relación gramatical y los adjetivos que tienen su lugar fijo-, reinar la mayor libertad de construcción, y se permiten un gran número de inversiones.»

[8] Gero behin baino gehiagotan berrargitaratua XX mendean; azkena 1983an, ELKAR etxeak berriro faksimilean, Piarres Lafitteren hitzaurre batekin.

[9] 20. orrialdean: «Règle générale et universelle: tous les déterminatifs et qualificatifs se placent après les mots qu'ils modifient, et les possessifs avant: *gizon gaixa* [sic] (homme méchant), *zure ama* (votre mère), etc.»

[10] 20. orrialde berean: «Les prépositions sont des désinences de déclinaison.»

10. J.P. Dartayet (1822-1870) musikologoa, eta M.H.L. Fabreren (1806/7-1875) Gidak, frantsesez eta escuaraz (lapurteraz) ikhasteco, 1861, 1862, 1873 eta 1876an. Eta Dartayeten erreibindikazioa, euskarazko orden libre batena, 1867an.

1861 urtean argitaratzen du lehen aldiz, J.P. (Pierre) Dartayet, apaiz, Baionan ero bukatu bide zuenak,[39] bere *Guidaria edo Escu liburua Frantsesez eta Escuaraz mintzatcen eta letra eguiten ikhasteco, ona bai arrotcentzat, bai escualdunentzat berentzat*. Liburuak bi parte nagusi izango ditu: lehenengoa, hiztegi orokorra ematen duena, bi hizkuntzetan, bi zutabetan (atal berezietan, izenordeak, adjetiboak, eta zenbait aditz flexio, eta aditz izen ere); bigarrena berriz, nagusiena, *Bitarteco Solasac* izenekoa, bi hizkuntzetan emanez bi zutabetan, hainbat elkarrizketa *praktiko*. Bukaeran izango ditu gainera, beste hiru parte laburrago, eskainiak, eskutitzak idazteko moduari bi hizkuntzetan; *escualdunen zuhur-hitzei*; eta hainbat kanturi ere, *escual herrico sei mintzaietan* jasoak. Dartayetek *Aincin-solasean* dioen bezala, liburua hutsune bat omen zetorren betetzera.[40] Eta berea, lapurteraz moldatu nahi izan zuen euskarazko aldean.[41] Liburuak agidanean nahikoa arrakasta bereganatu zuen, eta Dartayet berak prestatzen du 1867rako honen argitalpen berri bat, *garbitu eta emendatua* berak esango duen bezala, eta batez ere hainbat garatua, euskal aditz jokuari eskainitako atala, zeina izango den urte honetan argitaratuko den bakarra, separata modura, *Le mécanisme de la construction du verbe basque en dialectes du Labourd et des pays limitrophes, présenté en tableaux. Extrait du Guide ou Manuel de la conversation français-basque. Nouvelle édition.* izenpean. Liburuskaren osoaren bigarren argitalpena, ez da kaleratuko 1876ra arte, Dartayet hil eta sei urte geroago. Ezagutuko ditu agidanean beste bi argitalpen ere aurrerago.[42]

Bitxiki asko, 1862an, Dartayeten *Guidariaren* lehen argitalpenaren hurrengo urtean bertan, eta Baionako inprimategi berean, ematen da argitara, oso antzeko beste liburu bat, orain L^{s}.M^{ie}.H^{the}. Fabre-ren izenean,[43] izenburu duena: *Guide de la conversation français-basque à l'usage des touristes, voyageurs, merçants, employés d'administration, militaires, etc., etc.*.[44] Liburuska honek ere, Dartayetenak bezalatsu, gozatuko du arrakastaren bat, eta berriro inprimatuko da 1873rako; ordurako jada bera ere hainbat aldatua eta emendatua, izenburu beretik hasita: *Guide élémentaire de la conversation français-basque (labourdin) précédé d'un abrégé de grammaire*. *Gidaren* aurreko gramatika laburpen hau ordea, izena duena, *Notions grammaticales*, badirudi (dauzkagun datu guztien arabera),[45] J. Vinsonek prestatu zuela; nahiz urte berean separata bezala ere argitaratu zen Fabreren izenean, orduan *Notions élémentaires de grammaire basque (dialecte labourdin)* izenpean. Aitatuko dugu zabalxeago berau, Vinsoni eskainitako atalean. Fabreren liburua nolanahi, urruti handirik gabe kalifika litek, Dartayetek 1861ean argitaratu zuenaren, plagio, edo kopia huts, zenbait ataletan bederen; bietan errepikatuko direlarik, aldaketa gutxi batzuk gorabehera, atal osoak, elkarrizketak, ...[46] Beraz, eta Fabreri berezko ohar gramatikalik ezagutzen ez diogunez (Vinsonenak bide diren haiek salbu), Dartayetez bakarrik jardungo dugu aurrerako ohar laburretan, kontutan harturik, adibideetako asko errepikatuko direla modu beretsuan bi autoreetan.

10.1. Dartayeten oharra, euskarazko esaldien ordenamendu libreaz, 1867 eta 76an, Inchausperen itzaletik.

Dartayetek ez du egiten 1861eko argitalpenean ohar jakingarririk, esaldiko elementuen ordenamenduaren gainean euskaraz. Ordea eskainiko du bat interesgarria, 1867ko separataren azken lerrokadan, azken eraskintxo modura (167 or., nondik gure aipua; eta berbera -eta konposizio tipografiko berarekin- ageriko da, *Escu liburuaren* 2. argitalpenean ere, 1876, 183. or.); eta esango du hala, gure iparraldeko tradiziorik jarraituenean, eta dudarik gabe, Inchausperen erreflexioen usain betea darion ohar batean, ... *des inversions du verbe admises dans la langue basque* izenburuko atalaren amaieran:

> La langue basque admet les inversions: ainsi on dit indifféremment, en traduisant: Le fils donna de l'argent à son père, *semeac eman cion diru aitari*, ou *aitari diru eman cion semeac*, ou *eman cion semeac aitari diru*, ou bien, *diru semeac aitari eman cion*. Le déplacement peut se faire ainsi dans le sujet, dans les régimes et dans la forme du verbe, mais jamais entre le nom verbal et la forma capitale.[47]

10.1.1. Dartayeten «aX» egiturak aditz paradigmetan.

Ezer gutxi da bestelakoan aipagarri, Dartayeten ohar gramatikalen artean, nola eta ez den honen beldur eza, Archurenean ikusten genuen bezalaxe, ordena bere batean emateko bi hizkuntzetan, aditz eraskin honen azken partean ematen dituen hainbat esaldi, konplementu bakarrekoak, berau bi hizkuntzetan erakusten dutelarik aditzaren ondoretik, «aX» moduko egituretan. Baita ere batzutan, aditz hauek, berez, mendeko esaldiak osatzen badituzte ere. Halako adibide gutxi batzuk segidan erakusgarri (1876, 2. arg.):

(1) je suis arrivé précédemment / ethorri izan naiz lehenago (161)

(2) J'avais été *ou* je fus, alors / Izan nintcen, orduan (161)

(3) Si j'avais été *ou* si je fus, alors / Izan banintz, orduan (162)

(4) si je m'étais *ou* je me fus perdu déjà, por lors / ya galdu izan banintz, orducotz. (162)

10.1.2. «aX» egiturak Dartayeten adibidetegian.

Halako adibideen albotik, beharbada ikas liteke zeredozer gehiago, Dartayetek ondoren eskaintzen dituen *solasetatik*. Kostaldeko lapurtera batean-edo eginak diruditen elkarrizketa, beti berezi, eta artifizial samar hauek, frantzesetik euskararatuak dirudite, alderantziz baino gehiago. Oro har esaldi oso laburrak, asko eta asko gertatzen dira euskaraz aditzaz amaituak, frantzesez ez bezala, euskarazko «Xà» fenomenorako joeren eraginez. Agian, proportzio handiago batean ere bai, antzeko eta ohizko beste testu batzuetan baino. Ez dira hala ere faltako tarteka, «aX» moduko egiturak euskaraz ere: galdegaia nabarmen erakutsiko dutenak esaldiko aditzaren ondoretik; are aditzaz hasiak direnak ere zuzenean; edota mendeko esaldi hautsiak, gure tradizio guztietan ohizkoak diren bezalaxe. Halamoduzko gutxi batzuk segidan erakusgarri, lehen bi elkarrizketetatik atereak (2. argitalpenetik).

10.1.2.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.

(5) Hobe duzu burdin bidez ibiltcea, ... (297)

(6) Orai da tenora, ... (298)

(7) Bethi bezala da, hemen arraz khario. (301)

(8) Yan ondoan on lizateke pipatcea; ... (301-2)

(9) Atseguin nuke zurekin egoitea. (304)

10.1.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

(10) ...; behartuco zautzu zure phusken itzul-arazteco. (301)

(11) Paga-araci nahi daizcute marbre harrien eta bacheren edergailuac. (301)

10.1.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

(12) (...; erran diezadazut) cer ordutan phartitcen den burdin- bidean? (297)

(13) ... abiatu gabe Pariserat / ... avant de partir pour Paris (300)

10.1.3. *Ba-* aurrizkiaren derrigorrezkotasunaz aditz trinkoekin.

Berriro Inchauspe parafraseatuaz egingo du Dartayetek, hala moduzko ohar gramatikal bat, hainbat aditz trinkoren adibideak aurkeztu eta gero (*ekarri, joan, jakin, egon, ibili, erabili, eraman, eduki, jario, erasan*), esaten duenean 1867an (eta 1876an, nondik jasotzen dugun aipua; 179 or.):

Nota. - Toutes ces formes contractées, a l'exception de *diot*, prennènt la prèfixe *ba* à l'indicatif, à moins qu'elles ne soient employées dans le sens interrogatif.

Dartayetek berak ere noski, ez du betetzen bere *solasetan,* halako erregelarik. Bedi adibide, askoren artean, segidako esaldi ohizkoa:

(14) Bordelerat noha. (1861,142)

1 Estu lotua ere, hegoaldeko mugimendu euskalzaleari, baina ez honi bakarrik.

2 Zeinarengatik esaten duen P. Veyrinek («Des moulins à marée à M.H.L. Fabre», *Gure Herria*, XVII, 1937, 349 or.), Ezpeletakoa ote zen. Nahiz artikulu berean jasotzen den Aita Donostiaren iritzia, esanez Fabrerengatik: «*n'étant pas basque*» (346 or.).

3 Lotuagoa hasieran hegoaldeko Gipuzkoari (nongo euskalkiari eskaintzen dion bere lehen gramatika, eta nora egiten dituen bi bidai, 1866 eta 1868an), gerora hala ere, iparraldera ere zabalduko ditu bere begiradak, 1879ko gramatika lan garrantzitsuena burutzeko, eta horregatik kapitulu honetan kokatzea.

4 Nola, frogatu nahian, euskararen jatorri eta oinarrizko harreman indoeuropear estua, *La langue basque et les idiomes aryens* (1885, eta 1898), edo *La langue basque est une langue indo-européen* (1912), bezalako artikuluetan. Darricarrèrek prestatzen du bestalde, Tartasen *Onsa hiltceco Bidiaren* 2. argitalpena 1911rako, ohar ugariz hornitua.

5 Ribaryk 1866an ematen du argitara bere herrian, *A baszk nyelv ismertése* lana; hamaika urte beranduago berrargitaratuko dena Parisen, *Essai sur la langue basque* izenpez (1877), J. Vinsonek itzulia, eta honen sarrera luze eta ohar ugariz hornitua. Lanaren berezko interesaz aparte, apenas ezer aipagarririk jasotzen duen, bere distantzian, euskarazko hitzen ordenamenduaren arazoaren inguru: euskarazko atzizki eta posposizio sistemari buruzko ohar batzuk, hizkuntza arioen sistema prepositiboaren aldean (20 or.); eta beharbada aipagarri, Ribaryk, Larramendi eta Lardizabalen gramatikei (Ribaryren erreferentzia nagusienak), mailebatutako esaldi osoren bat edo beste, entendimentuzko aditzak emanez esaldi hasieran (84-5 or.), edota bitxiki asko jasoaz ezezko esaldiren bat, bai aditz trinkoa hainbat atzeratuta duena esaldian (20 or.), nola ere aditz perifrastikoa inbertsiorik gabe emana (85 or.)

6 Zenbaitetan interesgariak, baina baita ere eginak, Vinsonekin erdibanatzen duen mingoztasun puntu batekin. *La langue basque* izenez emandakoa izango da bere lanik mamitsuena, euskararen inguruan, *La linguistique* liburuaren barne argitaratua (1. arg. 1876; 2. arg. 1877, 148-167 orr., guk erabili duguna), eta non hizkuntza uralo altaiko eta amerikanoen artean aztertzen den gurea. Bertan Hovelacquek, euskal hitzen ordenamenduari buruz egiten dituen bi oharñoak, topikoak dira (160 or., adjetiboaren izen ondoko gunea, eta genitiboarena honen aurretik). Badu hala ere Hovelacquek, ohar interesgarriago, edo zorrotzagorik, berak ebazten eta argitzen digunean (uste dugu berak egiten duela hala lehenengo aldiz lan inprimatu batean), euskaraz erabiltzen diren izenorde erlatiboak, ez bide direla *euskarazkoak*; sortuak bide direla, bakarrik, frantzesei eta espainolei imitatzeko zorian; eta guztiz ote diren gainera, gure hizkuntzaren jeinu beraren aurkakoak. Bere hitzak (1877, 160-1 or): «*(Le basque contemporain emploie comme nous la seconde personne du pluriel pour exprimer poliment le singulier; aussi s'est-il fabriqué un «vous» pluriel:* zuek*.) Point de pronoms relatifs; pour imiter les français ou les Espagnols, les Basques modernes ont employé souvent avec le sens relatif les pronom interrogatifs; mais cela est absolument contraire au génie même de leur langue.*» Hovelacqueren ziriak, sekulako arrakasta bereganatuko du gerora euskalzalegoaren barrena, hasita Vinsonenengandik (bere atalean ikusiko dugun bezala). Hovelacquek, bera bitarteko testigantza literario guztiak kokatu behar ditu, *euskaldun modernoen* artean, XVI mendeko Bernard Etchepare eta Leiçarraga barne, izenorde interrogatiboak zentzu erlatiboan erabili dituztenen artean. (Eta Van Eysek ohartu bezala (1879, 103 or.), Etcheparek erabiltzen ez baditu ere, *zein* izenordearen formak, modu erlatiboan, bai erabiltzen ditu, antzeko beste hainbat *galdegile*, zeinen artean: *nola, norat, nori, eci, cer, cerengati*, ...).

7 Abbadiek esaten du honengatik, Chahoren *gramerari* egin sarreran (44 or.): «Abécédaire fait pour ceux qui veulent apprendre à lire en basque ... y compris des prières et instructions religieuses.» Eta ez dakigu, liburuska ez ote den, Leiçarragaren 1571eko *ABC edo Christinoen instrvctionea othoitz eguiteco formarequin* liburuskaren berrargitalpena, edota honen moldaketaren bat. Eta badaukagu halako errezeloren bat ere, nonbait jasoa (oraintxe non ez dakigularik).

8 Ezin da noski ahaztu gure kasuan, hizkuntzen arteko interferentzia linguistikoen arazoa, behar izanez gero bereziki aipatzen duguna, orain artean bezala, autore bakoitzaren kasuan.

9 Esan litekeen bitartean, konparazio baterako, hegoaldean, tradizioa bera jaiotzen dela, edo gorpuzten dela behintzat, Cardaverazen 1760-66 bitarteko liburu andanarekin; hain zuzen, *euskal aditzaren ezaugarri pospositibo orokorraren* aldeko gurutzatuaren lanekin. Hegoaldean, hasieratik gertatuko dira literaturaren bazter guztiak nahastuak neurriren batean halamoduzko ezaugarriekin, iparraldean ez bezala.

10 Lan nagusion inguruan, eta hauen propaganda edo marketing operazio modura, argitaratu bide zituen Léclusek urte berean, beste bi txikiago ere: *Dissertation sur la langue basque* bat, eta *Examen critique du Manuel de la langue basque*. Gure azterketarako, batez ere guztion azken edizioa erabili dugu, J.A. Lakarrak egina, *ASJU*, 1987, XXI-3, 813-916 orr., eta (B. Urgellekin batera) *ASJU*, 1988, XXII-1, 99-211 orr..

11 «Flores y Esclusas. Fleury Lécluse», *BIAEV*, 1971, XXII, 1-8 orr.

12 Baieztapen honi erasten dio Lakarrak, Lécluseren obren azken argitalpenari eginiko hitzaurean (*ASJU*, 1987, 816 or., oh. 27): «Testuan behintzat ingelesezko, alemanezko, hebraierazko, griegozko, eta, jakina,

frantzesezko adibide eta paraleloak badakartza euskal adibide eta emaitzen argigarri.» Gainera, gaztelaniazkoak ere behintzat.

13 Esaten du orduan: «*...; mais je crois avoir bien saisi le vrai génie de la langue basque, dont, les deux caractères principaux me paroissent être: 1.º sa construction postpositive, qu'elle possède cependant en commun avec la langue hongroise, la turque, etc.; (2.ª son système de conjugaison, ...)*». (Aurrerantzean aipuen jatorrizko orrialdea emango dugu, Lécluseren 1826ko argitalpenarena, *ASJU*koan ere jaso bezala.)

14 Léclusek, Martin Harrieten hitzen oihartzun garbian (1741, 502-3 orr.) ematen ditu bereak (81 or.): «Quand deux noms sont en construction, le terme antécédent doit se placer après le terme conséquent; exemples: *Joseph Mariaren senharra*, Joseph époux de Marie, et non pas *senharra Mariaren* (voyez §. III). On diroit de même: *Erromaco elizaco aldareco estalguia*, la couverture de l'autel de l'église de Rome.» Adibidea ere Harrietena da.

15 Hala esaten du (83 or.): «Le superlatif s'exprime quelquefois à la manière hébraïque, en répétant le positif: *On ona* bon bon, c'est-à-dire très-bon; *handi handia* grand grand, c'est-à-dire très-grand; *chume chumea* petit petit, c'est-à-dire très-petit.» Gero behintzat Inchauspek ere errepikatuko duena 1856an (ik. bere atalean).

16 «El Vascófilo Franciscano R.P.Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio Bio-Bibliográfico», *RIEV*, XV, 1924, 33-82 orr., eta 313-336 or. (bereziki 60, eta 316-7 orr.), non argitaratzen duen besteak beste Lécluse eta Aita Zavalaren arteko korrespondentzia bat.

17 Aipa liteke hala ere bereziki, testu labur hauetako bat, berez nahikoa ere atzeratzen duelako aditza, bere hainbat esalditan. Da, *Bellia eta Acheriaren* fabula, non aurki genitzakeen segidakoak bezalako esaldi nahikoa luzeak, aditza bukaeran, nahiz hala ere ez diren euskal usadiotik kanpokoak (111 or.): «*Belle jaunac, zuhaiñ baten gaiñen phausaturic, gasna bat bere moskhon atchequitcen cin; ...*; *Elhe hoyez, Belliac hanich boztario sentitcen du; eta bere botz ederra entzunarazteco, moskho largo bat zabaltcen, eta bere bazca erortera uzten du. ...*; *Leccione hunec dudagabe gasna bat balio du.*» Badira nolanahi testu berean beste bost esaldi ere (lau entendimentuzko aditzenak), galdegaia aditzaren ondoretik daramatenak. Bestela aipatu soilik, Duvoisinek bere begietatik hurbil izan bide zuela Lécluseren gramatika, bere *Telemakea* itzultzen hastean.

18 Urte batzuk geroago Duvoisinek jasoko du Darrigolen esaera bera: *«c'est une affaire de gôut.*», bere eskuizkribuetako batean (*Eléments de grammaire basque*, 105 or.), orduan ere ordenamendu kontuez ari dela. Campionek ere bilduko du bere *Gramatican,* hitzez hitz, Darrigolen esaera, bereizten, euskararen alor honetan, *Gramatikaren* eta *Erretorikaren* eremuak (1884, 51 or.): «*De total independencia goza el bascuence en la construcción de las frases, por lo que se puede decir, que esta parte importante del arte de hablar correctamente, más es en el bascuence del dominio de la Retórica que del de la Gramática*.»

19 Chahok ez du hala ere seigarren permutazio aukera adierazten, *Nahi izan dut*; agian berak ere topatzen bide zuelako berau zertxobait desberdina.

20 Argitaratu berri du P. Urkizuk liburua, Chahoren euskal izkribu zenbaitekin: *Azti-begia eta beste izkribu zenbait*, Donostia, EEE, Klasikoak, 1992.

21 Har bedi kontutan, mendeko esaldi hautsi baino zerbait gehiago dela esaldi hau, bere buru nominalaren erabat ondoretik emandakoa.

22 Esaldi hautsiak izateaz gain, badira ere nolabait, beren buru nominaleren ondotik emandako esaldi erlatiboak edo.

23 Berriro esaldi adjetiboa, bere buru nominalaren ondoretik emana.

24 Esaldi erlatiboa (jokatua, eta hautsia), bere izen buru nominalaren ondoretik emana.

25 Beste esaldi erlatiboa, jokatua, eta hautsia, bere izen buru nominalaren ondoretik emana.

26 Egin liteke hainbat diskisizio ere esaldi honetako *ordena duena* erlatibozko esaldiaz, erabakitzeko, *ordena* hitza, *duena* aditzaren objetua den, hala bestela, aditzaren aurretik emandako izen erregimen burua. Guk ez dugu erabakiko, baina bi kasuetan ere ohargarria da joskera.

27 53 urte zituelarik (esaten duenez liburuko 162 or.); beraz jaioa, 1787 inguruan.

28 Izenen sailkapen kurioso askoak egiten dituelarik, euskararen ikuspegitik (ez frantzesekotik): *Noms masculins qui commencent par une consonne, Noms féminins qui commencent par une consonne, Noms qui commencent par une voyelle, Noms qui commencent par une* h *muette, ...*

29 Bitxiki Hiriartek, erakutsiko ditu, euskal aditz zenbaiten jokuak, ez berez euskaraz izan ditzaketen ezaugarriengatik, baizik eta frantzesez dituztenei begira, *-er, -ir, -oir,* edo, *-re* akaberen arabera. Horrela jasoko du Hiriartek lehenik *Cantatu* aditzaren jokua euskaraz, frantzesezko *Chanter* lehen sailekoaren itzalera, ...

30 Kurioski, Hiriartek iragartzen du, atal honen izenburuan, badirela euskaraz hainbat preposizio ere beren izen erregimenaren aurretik ematen direnak, eta ez bakarrik ondoretik. Hala izenburua (37 or.): *Quelques prépositions qui ne se rendent en basque qu'après leur régime, qui est ou un Génitif ou un Ablatif ou un Accusatif. Il s'en trouve cependant quelques-unes qui peuvent se placer avant, comme on le verra ci-après*. Kontua da, Hiriartek hurrengo zerrendetan, ez dituela ematen bi esaldi baino hala moduzkoak: *Voici l'Homme / Huna guiçona*; *Voilá la Femme / Horra emastekia*. Ez da besterik ageri; nahiz Hiriartek berak besteren bat ere erabiliko duen gero, nola, *amorecatic* partikula, maiz emana, lotzen duen esaldi zati haren hasieran, ohizkoa ere baden tradizio batean, Chahorenean ere aipatu duguna (ik. partikularen adibideak *Orotariko Hiztegian*).

31 Hiriartek egiten du ohar bat, frantzeseko atalean, hizkuntza honetako artikuluaren guneaz, izenaren aurrean (175 or.). Ez dugu uste hala ere besterik ematen duenik.

32 Hau da mendeko esaldi hautsi bakarra, Hiriartek bere (preposizio-konjuntzioen) adibideen artean ematen duena, eta horregatik jasotzen dugu hemen, nahiz berezi samarra izan.

33 A. Hovelacque, «La langue basque», in *La linguistique*, 2. arg. 1877, 148 or.

34 Liburua beste bi aldiz ere argitaratzen da gero Buenos Airesetan bertan, 1860 eta 1883ko urteetan. J. Bilbaoren *Bibliografiari* zor dizkiogu lehen bi edizioetako datuak. Guk, batez ere, 1883ko 3.a erabili dugu, eta honetatik jasoko ditugu gure aipuak. Ezagutu dugu nolanahi, beste argitalpen desberdin bat ere, J. Urquijoren liburutegian gordea, azalik eta datarik gabea. Bata bestearen kopia zehatza dira, detaile txikienetan ere, guk aztertu ahal izan ditugun neurrian (bietako euskarazko zenbait akatsetan esateko, zeren ondorioz pentsatzen dugun, autoreak ez zuela aukerarik izan, bederen hirugarren argitalpena zuzentzeko).

35 Izenari erantsi toponimoak, beharbada adieraz lezake Donibane Lohizuneko jatorria, erabilitako hizkuntzak pentsaraz diezaguken bezala.

36 Sinatua 1906ko Martxoaren 19an, Biarrizko Hôtel Central-ean, eta argitaratua garaiko egunkariren batean, nahiz ez dakigun zeinetan. Kopia bana aurki liteke erantsita, guk erabili ditugun Jaureguyren *grameraren* bi aleen barne azaletan, Gipuzkoako Diputazioko J. Urquijo liburutegian.

37 Beharbada kostaldekoa (toponimoak ere adieraz lezakeen bezala). Besteak beste, Nor-Nork aditz forma (dotore) zenbait erabil ditzakeen neurrian (*guintuzten*), N-N-N-eko kanonikoagoen ordez. Nola egiten duen (3. or.): *Fenizianuac ziren ..., lehen biziko irakutsi guintuztenac munduan, eskribatzeko hastapena*.

38 Agidanean *kruasa* ere deitu ohi zaio gure iparraldean *alfabetoari*. Dodgsonek argitzen du hala, Inchausperen eta beste zenbaiten testigantzekin, Jaureguyren 1883ko aleari egindako ohar eskuizkribatu batean (2. or.), J. Urquijoko liburutegian aurkitzen den alean («*Kruasa* dérive du Français *Croix* ...»). Bide batez aitatu, nola Jaureguyk esaldian erabiltzen duen *arrainyatzen* hitza, ez den jasotzen *Orotariko Euskal Hiztegian*.

39 Cf. Villasante, *Hª Literatura Vasca*, 2. arg., 200 or. Erreferentzia batzuk gehiagotarako, ik. P. Lafitteren artikulua (P. Ithurralde), «J-.P. Dartayet (1822-1870) bascologue et musicologue» (*Gure herria*, 1970, XLI, 333-336 orr.).

40 Hala definitzen du hutsune hori (III-IV orr.): «..., bainan, nehori ez zaio, orai-dino, gogoratu obratcea *liburu cheche bat, Esculiburu bat, Frantsesez eta escuaraz mintzatcen eta letra eguiten ikhasteco*, ona oroz batean, nahiz Ur-Onetan eta itsas-mainhuetan dabiltzan Arrotcentzat, nahiz Escualdunentzat berentzat, bereciki, frantsesaren ikhasten hasten diren haurrentzat; liburu bat zointan batzuec ala bertcec edirein bailitzazkete, molde errech batean, yakin behar lituzketen hitzcuntzac bicico gauza beharrenetan elgar-aditceco.»

41 Hala esaten du (VII or.): «..., le Labourdin. C'est dans ce dialecte que nous nous sommes efforcé d'écrire ce *Manuel de la Conversation*, ...»

42 Laugarren argitalpena dirudienez 1902an, J. Bilbaoren *Bibliografian* jaso bezala. Hirugarrena berriz, J. Bilbaok jasotzen ez duena, aipatzen du Dodgsonek 1893koa ote den (Baionako Euskal Museoan gordetzen den 1861eko aleari, eskuz eginiko ohar batean).

43 Autorea, besteak beste, 1870an argitaratuko den *Dictionnaire français-basque* batena; eta zeinen benetako izen ordena dirudien dela, Marie Hyacinthe Louis, eta ez 1862ko liburuskaren azalean ematen dena. Autoreari buruzko beste zenbait erreferentzia aurki liteke, P. Veyrin-en artikuluan, «Des moulins à marée à M.H.L. Fabre. Notes bibliographiques et biographiques» (*Gure Herria*, 1937, XVII, 345-353 orr.), zeinak Ezpeletako euskalduntzat jotzen duen Fabre, nahiz aldiz artikulu berean jasotzen den Aita Donostiaren baieztapena, Fabre *ez-euskalduntzat* ematen duena.

44 Liburuskaren *avant-proposean* argitzen den bezala, euskara ikastea baita, herri honekin harremanetan jartzeko modu bakarra kanpotik etorritako guztiarentzat (VI or.): «... le langage qu'on y parle n'a aucun rapport avec nul autre; et que les Basques, hors quelqus-uns, ne comprenant ni le français ni l'espagnol, aux avenues

même d'une grande cité, le seul moyen de pouvoir entrer en contact avec ce peuple est d'apprendre sa langue; mais pour cela il n'existe plus d'exemplaires de grammaires qui soient propes à l'enseigner; ...»

45 J. Bilbaok ere hala jasotzen du *Bibliografian*, Fabreren atalean.

46 Kopia edo plagioaren gorabehera guztiak zehazteak, eskatuko luke, guk egin dugun baino azterketa eta konparaketa lan sakonago bat, bi autoreen lehen bi argitalpenen artean. Guk denak begibistatu ditugun arren, ezin izan ditugu eskueran gorde lan patxadosoago baterako, hauen zati fotokopiatu batzuk baino, non adibidez, hala errepikatzen diren, beste askoren artean segidako esaldi, guretzat esanguratusak beren ordenamenduari begira (beren galdegaiak aditzaren ondoretik eramango luketenez), Dartayeten 1861eko lehen *solasean* (*Du départ et du voyage / Phartidaz eta bidaiaz* izena izango duena, 141-2 orr.), eta Fabreren 1873ko lehenean (*Du Départ et du Voyage* izenekoa, 1-2 orr.; biak izen eta muin berekoak): (1) *je dois partir demain / phartitcecoa naiz bihar* / (2) *...; bainan, harat heldu behar da oren laurden bat aincinetic; ...* / (3) *Naski bai, merkechago yoan nintazke bachetez edo carroz, bainan pharada hobeago aurkitcen dut eta lasterrago yoanen naiz burdinazco bidean*. Nahiz eta badiren aldaketa batzuk ere bi testuen artean: *Orai da tenora, laster eguizu* (Dart. 1861); *Orena da, laster eguizu* (Fabre 1873); edo antzekoak. Bestalde, eta zentzu honetan, gogora uste dugu, badela, euskal bibliografia-zaleren baten oharren artean behintzat (orain ez daukagu gogoan zeinenetan), halako nahasteren bat, lau obra hauen autoreen inguruan.

47 Dartayeten adibideak gainera, gordetzen du objetuaren mugagabetasun gutxienez aipagarri bat.

11. W.J. van Eys-en (1825-1914) Gramatiketako ohar eskasak, hitzen ordenaren gainean, 1867 eta 1879an.

1865ean argitaratzen da Amsterdamen, Van Eysen gramatiketako lehena, *Essai de Grammaire de la Langue Basque* izenekoa,[156] berehala berrargitaratuko dena bi urte barru, 1867an, jada hainbat zuzendua eta gehitua, nahiz artean, gipuzkeraren ezaugarrietara mugatuko duen, batik bat, bere azterketa. 1879an argitaratuko du, *Grammaire comparée des dialectes basques* izenekoa, zeina, izenburuak dioen bezala, aurrekoa baino ikusmira zabalagokoa den jada. Oro har nahikoa goraipatua izan den gramatikalari zorrotz[157] honen lanek ordea, apenas ukitzen duten batere, guri dagokigun hitzen ordenaren gaia, nahiz bi *Gramatiketan* titulatuko duen *Syntaxe* izenaz, atal edo kapituluetako bat.

Arlo honetan, Van Eysek oso antzeko oharrak egingo ditu bietan ere. Hala, topikoen artean, adjetiboaren gunearena izenaren ondoretik, edota, genitiboarena aurretik (1867, 120 or.; 1879, 473 or.). 1879an hala ere, eta bereziki agerian jaso eta gero, *-ko* izenlagunen gunea izenaren aurretik, edutezko genitiboena bezala (474-5 orr.), Van Eysek ohar berezi, eta aipagarri bat egingo du, nola eman litezkeen izenaren ondoretik ere *-ko* izenlagun hauek kasuren batean, nahiz berak erabat murrizten duen aukera Leiçarragaren adibide baten ondoretik. Hala dio (475 or.):

> Ceux en *ko* précèdent le nom, puisqu'ils sont des génitifs; mais si le nom est précédé d'un pronom possessif, l'adjectif en *ko* suit le nom: p. ex. *Ene aita ceruëtacoac landatu eztuen landare gucia*. Matth. XV, 13.

11.1. Erlatibozko esaldien orden posibleen inguru: beren izen buru soil eta mugatu gabeen ondoretik ere.

Van Eysek erlatibozko esaldiez hitzegiterakoan, garrantzi handia ematen die bi argitalpenetan, erlatibozko esaldien nominalizazioei (1867, 33-4 orr.; 1879, 481 or.), eta baita ere (Larramendiren ondoretik batik bat), zeinismoaren aukerari erlatibozko esaldietan (1867, 35 or.; 1879, 102-3 orr. eta 480-1 orr.). Gero, erregela emateko garaian hala ere, zorrotz kokatuko du beti erlatibozko esaldia, soilik, bere izen buruaren aurretik (bi argitalpenetan berdin, nahiz adibideak zeredozer aldatu: 1867, 34-5 orr.; 1879, 480 or., nondik jasotzen dugun): «*Le nom auquel se rapporte la proposition relative se place toujours après le verbe:* etortzen zan gizona *"l'homme qui venait";* ikusi duzun gizona *"l'homme que vous (aujourd'hui "tu") avez vu";* Bere semeak ondo azitzen dituzten gurazoak ... *"Les pères qui élèvent bien leurs fils" ...*»

156 Guk ezagutu ez duguna oraindik.

157 Sentidu guztietan, eta oso bereziki ere, bere kritika gordinetan hainbat euskalzale, bizi edo hili.

Erregela ez da betetzen noski, Van Eysek atal beretsuetan erakusten dituen, *zein* partikula bidezko erlatiboetan. Baina ezta ere, Van Eysek, bi argitalpenetan, aipatzen eta jasotzen ere dituen euskarazko esaldi erlatibo, izen buru soil eta mugatu gabeen ondoretik emanetan; nahiz eta era honetako esaldien erreibindikazioak, Van Eysen aldetik, oso partzialak izan, edo zeharkakoak. Hala adibidez, nola onartzen duen Van Eysek 1867an, modu bitxi samar batean egia esan, *aur ikusten duena* bezalako esaldi baten erabilera euskaraz (1867, 33-4 orr.):

> Dans les relations de la 3me personne à la 3me pers. il y a confusion, quand il n'ya d'autre régime direct exprimé qui celui qui est toujours inhérent au verbe ... p. ex. l'enfant qui le voit, et l'enfant qu'il voit, se traduiraient tous les deux par: *ikusten duen aurra*; on évite la confusion en traduisant le second exemple par: *aur ikusten duena*.

Kurioski 1879an, Van Eysek ez du jada aipatzen halako erabilerarik, erlatibozko esaldien arteko anbiguitateak desegiteko modu bezala.[158] Ordea bai, onartuko du jada, erlatibozko esaldien eraikuntza modua, osatzen duten izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik, nahiz soilik egin, zubereraren, eta Gèze-ren izenean (honek baino lehenago, Archuk, eta batez ere Inchauspek, jaso dutenean erabilera hau beren lanetan). Hala dio Van Eysek, gorago jaso dugun 1879ko aipuaren jarraian (1879, 480 or.):

> En souletin on dit indifféremment, selon M. Gèze (*Gram*., p. 64.): *ikhousi duzun gizounari eman dut* & *gizoun ikhousi duzunari eman dut* "je l'ai donné à l'homme que vous avez vu" (Selon les autres dialectes il y aurait encore une erreur, il faudrait *eman deyot.*)

11.2. Van Eysen tradiziozko adibidetegia.

1867an, nola areago 1879an, Van Eysek bi lanetan erakusten dituen euskarazko esaldi adibide osoek, jarraitzen dituzte, tradiziozko ordenamendu moduak. Eta alde batetik, usuzkoak izango badira aditzaz bukatutako esaldiak (batez ere laburrak, tarteka luzexeagoak ere),[159] euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenorako joeren eraginez; bestetik Van Eysek, zalantza handirik gabe jasoko ditu, bi argitalpenetan ere, gure tradizioko autore, testu eta erabilera desberdinetako esaldiak, nabarmen erakusten dutenak beren aditza esaldi aurrealde emana.

11.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.

Hala, beren galdegaia aditzaren ondoretik daramaten esaldiak (izan hau entendimentuzkoa edo beste), nola erakusgarri, segidako adibide gutxi hauek (1879ko *Grameratik*):

(1) Bere argitasun ta buru onaz gañetik eukan errijan osaba Abade on ta jakintun bat zeñek ... (103; J.J. Moguelena)
(2) liburu au da semearen / Ce livre est celui du fils (469)
(3) Manamendu hoyek dira Jangoikuak emanik. (471)
(4) Ni nauc Gabriel Iaincoaren aitzinean assistitzen naicena. (479; Leiçarragarena)

11.2.2. Zuzenean aditzaz hasitako esaldiak.

Baita ere zenbaitetan (gutxiagotan), galdegaia aditzaren ondoretik daramaten esaldiak, zuzenean hasten direnak aditzaz (entendimentuzko eta beste), nola (1879koak):

(5) ikusten dut gizona / je vois l'homme (470)
(6) eman diot zerbait / je lui ai donné quelque chose (483)
(7) Joan da nagusiak agindu diota (522)

11.2.2.1. Aditz trinkoren bat ere esaldi hasieran.

Hala nola behintzat entendimentuzko aditz baten kasuan, edota Leiçarragaren bigarrenean (S. Marc, XII, 20;

---

[158] Guri nolanahi, kasu honen eta antzeko beste batzuen bistara, sortu zaigu zalantza bat baino gehiago, Van Eysen euskararen benetako ezagutzaren inguru; ikusi eta gero, honen zenbait adibideetako esaldi *hankamotzak-edo*, zinez ez diruditenak soilik inprimategiko akats hutsak. Hala nola adibidez, ematen duenean (1879, 471 or.), "*echea gizon onen*" bezalako esaldia, "la maison de cet homme"-ren pareko; berak teorian onartzen ez duelarik, genitiboaren ordenamendu modu hau. Edota orrialde berean ematen duenean, Lardizabalen segidako esaldia, *David etzegoan alako soñekoakin oitua, eta oyek utsirik, artu zituen artzaizoñekoa* ("David n'était pas habitué à de tels habits, &, les ayant ôtés, il prit son habit de berger"), aditz plurala konkordatu gabe adibidean agerian ematen den objetu osagai singularrarekin. Edota areago oraindik segidako esaldi bitxia ematen duenean (berak asmatua?) (1879, 519 or.), *Uste du hean dathorren*, frantzesezko segidako itzulpen, eta azalpenaz: "Croyez-vous qu'il vient (qu'il vienne)". *Dathor + n*.

[159] Hauek nabarmenagoak direlarik 1867ko saioan, Van Eysek orduan asko erabiltzen duen neurrian, bere adibidetegirako oinarri bezala, Lardizabalen *Testamentu zarreco eta berrico condairaren* testua. Eta hala erakusten du adibidez Lardizabalen liburuko *Itz-aurrea*, *Essaiaren* amaieran, gipuzkeraren eredu bezala.

biak 1879koak):

(8) dio ezen jan dedala (522; Lardizabalen *Gramatikako* adibideen oihartzun)
(9) Cituan bada çazpi anaye. (527)

11.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Baita ere mendeko esaldi hautsiak, konplementuak dituztenak beren aditza, eta elementu mendekotzailearen ondoretik, nola segidakoak (1879koak):

(10) Ta adierazotera guztiai eurac ganaco esquertazun andia gure aldetic. (474; Añibarrorena)
(11) (Halacots diotsuet) ecen edequiren çaiçuela Iaincoaren resuma ... (520; Leiçarragarena)

Antzeko adibideen bistara, ez dirudi Van Eysek ere fundamentuz onar zezakeenik, euskal aditzaren *ezaugarri pospositibo orokorra,* bestelakoan ondo agerian aldarrikatua, berak maiz asko erabiltzen duen Lardizabalen *Gramatican*.[160]

11.3. Van Eysen oharra, ia derrigortuaz *Ba*- aurrizki baieztatzailearen erabilera aditz trinkoekin, nahiz berak kontrarako adibideak erakutsi.

Inchauspek 1856/8an ebakitako ildotik, Van Eysek ere (Dartayetek, edo gero Gèzek bezala), jasoko du joskera arau hau bere 1879ko *Grameran*, *ia* derrigorrezko bezala. Van Eysek hala ere, ez du erregela, absolutotzat ematen, ezagutzen duenez gero (eta erakusten), euskarazko aditz trinkoen erabilera, aurrizki gabea (are esaldi hasiera buruzurian ere). Hala dio (1879, 527 or.):

> La particule affirmative *ba* précède presque toujours les flexions de *eduki* & de *izan*, quand elles sont employées seules; on ne dit pas *dut*, mais on dit *badut* "j'ai", & ainsi: *banuen, banuke; bada* "il est" pour "il y a"; *bazen* "il était" pour "il y avait". P. ex. *Bacen prophetessabat-ere*. Luc II, 36. "Il y avait aussi la prophétesse", Cependant Liçarrague écrit aussi la flexion sans *ba*: *Cituan bada çazpi anaye*. Marc XII, 20. "Or il (y) avait sept frères".

12. Charenceyko Kontearen (1832-1916) oharño bat 1862an, euskarazko esaldien usuzko inbertsio moduez.

Ez dirudi, Charenceyko Kontearen lehen asmo izan zenik inoiz, euskara bera deskribatzea. Aldiz bai, honen hainbat datu erabili ahal izatea, nola edo hala, oinarri bezala, bere beste teoria anpulosagoak sustatzeko, munduko hizkuntz adar *uraldarraren* zabalera, eta garapen *euro-asiar-afrikar-amerikarraren* inguru. Adar, zeinen barne kokatzen duen Charenceyk euskara.[161] Hala argitaratzen du adibidez 1862an, *La langue basque et les idiomes de l'Oural* artikuluaren lehen zatia,[162] eta bertan argi esaten duen bezala, ez da bere helburua, baizik: «*faire ressortir toutes les affinités soit de grammaire soit de vocabulaire qui rattachent l'idiome des montagnards pyrénéens aux nombreusx dialectes de l'Oural, au Finnois, au Lapon et au Magyar*».[163] Charenceyk bestelakoan, artikulu sail bat ere eskainiko dio aurrerantzean, euskararen ahaidetasunari, ameriketako hainbat hizkuntzekin.

1862ko artikuluan berriz, aipatu eta gero, euskarazko posposizioen erabilera, beste hizkuntza zenbaitetako adberbioen edo konjuntzioen ordean (14-5 orr.), Charenceyk egiten du halako laburpen modu bat ere, euskara eta Uraleko hizkuntzen zenbait ezaugarriren arteko hurbiltasunaz. Eta hauen bigarren puntuan jasoko du,

---

[160] Gogora liteke gainera zentzu honetan, nola Van Eysek, harreman zuzenak edukitzen dituen, 1866 eta 1868an Euskal Herrira egin zituen bi bidaietan, Gregorio Arruerekin, Zarauzko eskola maisu, eta *Cardaverazen Eskolako aurreratuetakoa*, eta zeinak 1866rako jada argitaratzen duen, bere *Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bizitza*, lehena, estilo cardaveraztiar ezin itsuagoan idatzia, aditzak ezin gehiagoraino atzeratuak esaldian modurik artifizialenean. Ez dugu uste Van Eysek inoiz aipatzen duenik bere *Grameretan* Arrueren lanik, ez izenik. Ezta ere, batere segitzen dionik, bere uste cardaveraztiarretan inoiz.

[161] Charenceyren teoria hauen laburpen txiki bat aurki liteke (duinegia ez bada ere), J.C. Drouin-en, «Le Comte de Charencey (1832-1916) et la langue basque» artikuluan, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1975, 309-315 orr.

[162] Bigarrena, 1866an aterako da; eta oraindik 1893an ere, izenburu berdineko beste artikulu bat.

[163] Apud J.C. Drouin, *BSSLAB*, 1975, 312 or..

hizkuntza guzti hauen joera, nolabaiteko *inbertsiozko* ordenamendu moduak emateko esaldian (hau da, OA (OV) segida egiturak, frantzesezko -eta beste-, VO ordenamendu *zuzenen* aldean). Besterik gabe jasotzen dugu segidan, Charenceyko Kontearen erreflexio modu hau, izan litekeen neurrian, bera, garaiko uste, edo ezagupen, zabalduagoen islada, euskararen ezaugarrien inguruan (1862, 21 or.):

> 1º Ce que rapproche l'Eskuara des dialectes de l'Oural, c'est la formation par voi d'agglomeration, l'idée de relation étant toujours marquée au moyen de suffixes, facilement sèparables du mot principal. 2º La structure souvent inverse de la phrase, et la mutation de préposition en postposition.

13. Louis Gèze-ren Gramera elementu zuberotarrak 1873an, ordenamendu librea predikatzen euskararentzako.

Apenas ezer gehiago dakigun Louis Gèze-ren gainean ere, berak 1873an argitaratu zuen *Eléments de Grammaire Basque. Dialecte souletin* liburuan esaten denaz gain. Euskaldun berri ote den (*J'ai voulu apprendre le basque*, aitortzen du, liburuko *prefacearen* lehen hitzetan, V or.); bazuela interesik euskara eta hizkuntza berberiarraren arteko harremanez, eta euskaldunen jatorriaz;[164] eta berak, ezagun bezala ematen dituela liburuaren hitzaurrean, zenbait gramatika, latin, espainol, italiano, aleman eta angeles hizkuntzetakoak.[165] Bestelakoan berriz, nahikoa harreman estua izan zuela bere *Gramera* burutzeko, berak behin eta berriro aitortzen eta eskertzen duen bezala, Inchauspe kalonjearekin; eta dudarik gabe suma liteke honen itzala, liburu guztian zehar.

Ohargarriki, Gèzek garrantzi asko ematen dio, liburu guztian zehar, euskarazko esaldi elementu solteek esaldian hartzen duten guneari, hau zehazterik duen guztian. Hala, behin eta berriz azpimarratzeaz gain, edutezko genitibo, eta *-ko* izenlagunen derrigorrezko gunea izenaren aurrean (10, 25, 50 orrialdeetan bezala), saiatzen da zehazten, beste hainbat elementurena, nola, aditz laguntzailearena, partizipio nagusiaren ondotik (10 or.); zenbakiena izenen aurretik, *bat*-en kasua salbu (45 or.); ordinaleena ere, izenen aurrean (46 or.);[166] edota zenbait adjetibo mugagabeena (*bakhoitz, batere, ber, gucia, oro, zoumbait, cerbait, zouñ, noulaco, halaco, batzu, zouñ* [galdetzailea], *zer, zouñ-nahi*), banan bana kokatuaz hauek, laguntzen duten izen haren aurrean, atzean, edo bietan ere, dagokionean (52-3 orr.); hala nola, kantitatezko adberbioren baten gunea (*hanitz*, izenaren aurre eta atzean), edota beste hainbat lokuzio adberbialena, berriro banan bana: *othe, othian, omen, balimba, agian, ber, bait, geroz* (241-3 orr.); ...

13.1. Gèzeren ordena librearen erreibindikazioa.

Gèzek hainbesteko zabalera ematen dioelarik, elementu zehatz guzti hauen ordenamenduari, harrigarriki, apenas ohar labur bat besterik eskainiko dion, esaldiko funtzio elementuen ordenamenduari. Ozta ozta Gèzek, liburu sarrerako *Notions préliminaires* atalari erantsiko dio azken paragrafo labur bat, *De la Construction* izenpean, berriro erreibindikatzeko, Inchausperen (eta Darrigolen) itzalpetik, euskararen eraikuntza askatasun ia erabatekoa (10 or.):

> La construction est très-indépendante en basque. Tandis qu'en français chaque mot a sa place marquée et qu'on ne peut presque pas en intervertir deux sans rendre la phrase dont ils font partie incorrecte, en basque, à peu d'exception près, les mots peuvent se mettre dans l'ordre qui plaît à celui qui parle. Ainsi: *le fils de Pierre aime Paul* pourra se dire indifféremment: *Phetiriren semiac Phaule maithatzen du*, ou *Phetiriren semiac maithatzen du Phaule*, ou *Phaule Phetiriren semiac maithatzen du*, ou *Phaule maithatzen du Phetiriren semiac*, ou encore *maithatzen du Phaule Phetiriren semiac*, etc.

Gèzek segidan aitatzen dituen salbuespenak, ez dira, *edutezko genitiboarena* baizik, beti izenaren aurretik, eta *aditz laguntzailearena*, beti nagusiaren ondotik. Beste salbuespenak, Gèzek berak aurrerago aipatuko dituenak, elementu solte bakoitza azaltzerakoan, eta izendatu ditugunak.

---

[164] Baditu argitaratuak, halamoduzko izenburuko hiru artikulu bederen (J. Bilbao, *Bibliografia*).

[165] Honezaz gainera, pentsa liteke, Gèzeren zenbait adibide irakurrita, bera ere nolabait lotuta egon ote zen irakaskuntzari.

[166] Gèzek nolanahi, aipatzen du ordenamendu segida hau, bakarrik *ohizko*, eta ez *derrigorrezko* bezala (46 or.): «Les adjectifs numéraux ordinaux se placent habituellement avant le substantif, ...». Hala ere, ez du uste Gèzek inon gehiago aipatzen duenik, hauen kokagune *ezohizkorik*.

13.2. Gèzeren adibidetegiko tradiziozko ordenaz.

Gèze ere, ez da inola lotuta egongo, bere adibidetegiko esaldietan, hauek frantzesez gordetzen duten ordenamendu moduari. Esaldiek maiz erakutsiko dute ordenamendu desberdina, euskaraz eta frantsesez. Eta euskaraz maiz amaituko dira esaldi laburrak aditzaz, «Xà», aditza bigarren, fenomenorako joeren eraginez. Are azalduko dira tarteka esaldiak bi hizkuntzetan jiratuta, euskaraz aditzaren aurretik emanaz, frantzesez ondoretik doana, eta alderantziz; aldatuaz hala ziur, esaldiek bi hizkuntzetan erakusten duten egitura komunikatiboa, segidako kasua adibide:

(1) Jincoarengandic jiten da photere gucia / tout pouvoir vient de Dieu (22)

13.2.1. Galdegaiak aditz ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.

Halaz guztiz, ez dira faltako Gèzeren adibidetegian, bi hizkuntzetan antzeko ordenamenduak erakusten dituzten esaldiak, direla SAO (SVO) modukoak; edota, galdegaia nabarmen erakusten dutenak aditzaren ondoretik emana (izan hau entendimentuzkoa, edo beste); segidako aukeratu gutxi hauen antzean:

(2) gizounac maite du haurkentia / l'homme aime l'enfance (8)
(3) Jincoac egin du gizouna / Dieu a fait l'homme (9)
(4) creaturic gira Jincoaren cerbutchatzeco / nous sommes créés pour servir Dieu (26)
(5) hori jin da goizan / celui-ci est venu ce matin (206)

13.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Ez dira faltako Gèzeren adibideen artean, zuzenean aditzaz (entendimentuzkoaz edo beste) hasten diren esaldiak, nahiz eta galdegaia nabarmen erakutsi ondoretik emana. Segidako aukeratuon moduan:

(6) joan zen ainguriaren gana / il alla à l'ange (22)
(7) errecevitzen dut gizounaganic / je reçois de l'homme (22)
(8) hasten da ebilten / il commence à marcher (208)
(9) jiten da ogiaren hartzera / il vient prendre le pain (208)

13.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Ez dugu aurkitu Gèzeren adibideen artean mendeko esaldi hautsirik. Eta izan ere, apenas ematen duen, oro har, mendeko esaldirik. Gèzek hala ere, liburaren sarreran transkribatzen du, Inchauspek *Sen Mathiuren Ebanjelioari* egindako itzulpenaren zati bat (bigarren kapituluaren lehen hamabi bertsetak), eta hemen bai irakur litezke, lehenengo esaldi beretik hasita, halako mendeko esaldi hautsi bat baino gehiago, zeinen artean segidakoak behintzat erakusgarri:

(10) Sorthu zenian Jesus Bethleeme Judaco hirian, ... (4)
(11) Eta bilduric aphezen gehien guciac ... (4)
(12) ..., hel artio haurra zen lekhiala ... (5)
(13) Eta sarthu zirenian etchian, ... (5)

13.3. Erlatibozko esaldiak euskaraz, beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik ere.

Inchauspek bezalaxe (Archuk ere nolabait), Gèzek ageri askoan erreibindikatuko ditu erlatibozko esaldi mota hauek *gure guretzat* (gero Van Eysek gogoratuko duen bezala), segidako bi pasarteotan bederen:

> Le pronom relatif *qui, que*, se rend encore plus souvent par une forme particulière du verbe que nous désignerons sous le nom de forme pronominale, parce qu'indépendamment des pronoms personnels que toutes les formes expriment, elle traduit encore le pronom relatif; ex.: l'homme qui est malade, *eri den gizouna*. / Cette forme tient de l'adjectif, en ce qu'elle peut se mettre après le substantif et que, dans ce cas, elle prend la terminaison casuelle qu'aurait le substantif, s'il était le dernier; ex.: le lit de l'homme qui est malade, *eri den gizounaren ohia*, ou bien *gizoun eri denaren ohia*; je l'ai donné à l'homme que vous avez vu, *ikhousi duzun gizounari eman dut*, ou *gizoun ikhousi duzunari eman dut*. (64 or.) / La forme pronominale qu'adopte le verbe d'une proposition régie quand il est précédé des pronoms *qui, que, quel*, etc., ou de *où, si, comme*. Cette forme dispense d'exprimer le pronom relatif *qui, que*; ...; l'homme que j'ai vu, *ikhousi* DUDAN *gizouna*. Cette forme se décline. Quand l'auxiliaire suit un substantif, la terminaison définie indique le cas auquel est ce dernier; quand il n'y a pas de substantif, la terminaison définie traduit le pronom démonstratif *celui, celle*; ex.: l'homme que j'ai vu a fait cela, *gizoun ikhousi* DUDANAC *hori egin du*; celui que j'ai vu l'a fait, *ikhousi* DUDANAC *egin du*. / Dans le premier exemple, la finale *ac* est la marque du nominatif singulier actif de la déclinaison définie; elle doit se placer à la fin du dernier des deux mots en rapport, et on peut dire

indifféremment: *gizoun ikhousi* DUDANAC *hori egin du* ou *ikhousi* DUDAN *gizounac hori egin du*. (74 or.)

13.4. Gèzeren beste zenbait ohar, esaldiko hitzen ordenaren inguruan.

13.4.1. Aditz laguntzaileen aurreratzeaz.

Gèzek, Inchauspek bezala, hasiera batetik mugatzen badu aditz laguntzaileen gunea, nagusien ondora (10 or.), aurrerago, eta Inchausperen ondoretik berriro, jasoko du, aditz laguntzaileon aukera ere, beren aditz nagusien aurretik agertzeko baiezko esaldi nagusi deklaratiboetan, Inchauspek ezarritako ezaugarri berberetan (205-6 orr.):

> Lorsque le verbe est employé dans un sens affirmatif ou interrogatif, l'auxiliaire doit être placé après l'attribut, excepté au votif; ex.: je lui offre du pain, *ógi eskhentzen deyot*.[167] Si cependant on veut donner à la phrase une force particulière, on peut mettre l'auxiliaire avant son complément. Ainsi, *hori* JIN DA *goizan* signifie: celui-ci est venu ce matin, et *hori* DA JIN *goizan* signifiera: c'est lui qui est venu ce matin.

13.4.2. Aditz laguntzaileak ez errepikatzeaz sail batean.

Gèzek, Inchauspek 1856ko *ohar gramatikalen* artean egin modu beretsuan (ik. bere atalean), jasotzen ere du, erreflexio hau, gomendatuaz aditz laguntzaileak ez errepikatzea, eta erastea bakarrik, saileko lehenengoari, edo atzenekoari (206-7 orr.):

> Lorsque plusieurs verbes sont au même temps et ont à employer le même auxiliaire, on n'exprime ce dernier qu'une fois, et on le place à volonté après le premier ou après le dernier substantif ou adjectif verbal; ex.: je vois et je frappe, *ikhousten dut eta joiten*, ou bien *ikhousten eta joiten dut*.

Duvoisini ere ezagutzen diogu erreflexio bera eskuizkribuetan (ik. bere atala), segurasko Gèzerengandik jasoa. Campionek ere aipatuko du arazoa 1884ko *Gramatican*, baina berak ahaztu egingo du gomendatzea, aditz laguntzailea soilik saileko lehen aditzari erasteko aukera; eta Cardaverazen ildoan konformatuko da gomendatzen, saileko azken aditzari erasteko bakarrik. Ithurryk ere egingo du erreflexio bat arazoaren inguruan, urte batzuk geroago.

13.4.3. Deklinabide atzizkiak errepikatzeaz sail batean.

Jasotzen du Gèzek beste erreflexio bat ere inguru honetan, aukera eskainiaz, edota elementu koordinatu guztiekin errepikatzeko deklinabide atzizkiak, edota, hauek erasteko, bakarrik saileko azkenekoari (25-6 orr.):

> Quand deux ou plusieurs substantifs sont tous ou sujets ou régimes d'un même mot, ils peuvent ou se mettre tous au cas voulu auquel chacun serait s'il était seul, ou se mettre tous au radical, à l'exception du dernier qui seul prend la terminaison casuelle exigée. ... Cette dernière manière est plus employée, parce qu'elle évite la répétition monotone de la même terminaison.

Ez dakigu, Gèzek nondik ekartzen duen berera erreflexio hau. Eta susmoa baldin badugu ere, ideia Inchausperena dela, guk ez dugu hau inon aurkitu Inchausperen lan inprimatuetan.[168] Geroago berriz, erreflexio beretsua aurkituko dugu Duvoisinen eskuizkribu gramatikaletan (ik. bere atalean). Eta Campionek ia derrigorrezko legetzat emango du.

13.4.4. BA- aurrizkiaren erabileraz, derrigorrez, aditz trinko (ia) guztien aurrean.

Inchauspek predikatu bezala (eta Dartayetek ere gero, nahiz bietako inork legea bete ez bere idazlanetan), Gèzek ere jasoko du erregela, bere aditz trinkoak azaltzen hasten den orduko, geroago Van Eysek ere egingo duen

---

[167] Aipagarria da gutxienez Gèzek adibide honetan erakusten duen objetu mugagabea. Gogora genezake, Dartayetek ere antzeko bat erakusten zuela 1867an, orduan lapurteraz (*semeac eman cion diru aitari*; ik. bere atalean).

[168] 1856ko *Sen Mathiuren Ebanjelioari* erantsitako *ohar gramatikaletan* hala ere, Inchauspek aitatzen du antzeko arazo bat, eta antzeko irtenbide bat, izan litezkeenak nolabait, Gèzerenaren iturri, nahiz orduko adibideak ez diren erabat eginak zentzu honetan. Dio orduan Inchauspek (VIII or.): «Lorsqu'un substantif est suivi d'un ou de plusieurs qualificatifs sans l'intermédiaire d'un verbe, le dernier terme seul prend le cas modificatif, les autres qui s'y rapportent conservent leur état radical ou indéfini; ainsi on dit: *Ebanjelío sáintia* et non: *Ebanjelioúa sáintia*; on dirait: *Jésu-Krísт goúre Jáunaren Ebanjelioúa*, et non: *Jésusen-Krísten gouríaren Jáunaren Ebanjelioúa*, ce que demanderaient les règles de la syntaxe latine et grecque; ...»

bezala. Hala (218 or.):[169]

> Lorsque la proposition est affirmative et qu'il y a lieu d'employer la forme principale ou la forme régie, les temps irréguliers de l'indicatif de ce verbe [JOAN] doivent être précédés de la particule *ba*, et l'on dit: *banoa*, je vais; *bazoaza*, tu vas, etc.; ... / ... / Ces observations s'appliquent à tous les verbes qui suivent [EGON, EBIL, ERABIL, ERAMAN, EDUKI, JAKIN]. Les formes irrégulières du verbe *erran* seules ne se font pas précéder de la particule *ba*.

14. Achille Luchaire (1846-1898) irakaslearen tradiziozko testigantza, eta oharra, euskarazko esaldien usuzko inbertsio moduaz, 1879an.

14.1. Luchaireren oharra inbertsioaz, 1879an.

Achille Luchaire irakasleak, 1879ko urtean ematen du argitara bere lan orokor bakarra euskal hizkuntzaren inguruan, *La langue basque ou euskara et ses dialectes de la région française* izenekoa, *Études sur les idiomes pyrenéens de la région française,* asmo zabalagoko liburuaren III kapitulua (97-134 orr.). Bertan Luchairek deskribapen labur, baina ondo dokumentatu bat,[170] egiten duelarik euskararen gainean, ez du hala ere, oharño bat baino egingo ataletako batean (*Place occupée par le basque dans la classification linguistique*), euskarazko hitzen ordenamenduaren inguru, aipatuaz, euskararen zaletasuna-edo *inbertsiorako*, eta konparatuaz berau (Mahnek ere egin bezala), erakusten dutenarekin, inguruko adar *ario-europearreko* hizkuntza ezagunagoek. Hala esango du (108 or.):

> Familiarisés avec les langues classiques de la famille ario-européenne, nous sommes aisément déroutés par cette syntaxe originale dont les procédes d'inversion dépassent de beaucoup ceux du grec et de l'allemand, et qui est le plus souvent en opposition complète avec la nôtre; ...

14.2. Luchaireren tradiziozko adibidetegia.

Hau esanda, Luchairek ez du ematen beste adibide edo argibiderik euskarazko hitzen ordenamenduaren gainean. Jasotzen ditu hala ere, kapitulu labur honetan, erakusgarri, bi euskal testu desberdin. Lehenengoa (105-7 orr.), Leiçarragarena (Mahnek ere eman bezala), *Seme prodigoaren* parabolaren lehen erdia (*S. Luc, CAP. XV*); prezeski, hasten dena, segidako esaldiarekin:

> (1) Guiçon batec cituen bi seme: ...

Bigarren testua, *ereilearen parabola* (Matth. XIII, 3-9), iparraldeko lau euskalki nagusietan emana (lapurtera, benafarrera -mendebalekoa, eta ekialdekoa-, eta zuberera), eta hartua, Bonaparte printzearen aurreko urteko argitalpenetik;[171] eta hasten dena, lau euskalki horietan eta orden berorretan, segidako moduan:

> (2) Huna hazi-eraile bat athera zen eraitera.
> (3) Behin eraileat yuan zen eraitera.
> (4) Yalgi zuun behin ereileat ereitea.
> (5) Elkhi zen ereilia ereitera.

Luchairek jasotako bost testuen arabera (nola jada hemen jasotako bost esaldi soilen ildoan), zail litzateke defenditzea, iruditzea ere, *euskal aditzaren ezaugarri pospositibo orokorrik*, edo antzekorik. Luchairek ere ez du egiten.

---

[169] Gèzek egiten du beste ohartxo bat ere *ba*- partikularen erabileraren inguruan, 194-5 orrialdeetan, frantzesezko *il y a, il y avait* eta antzeko formulak emateko moduaz euskaraz, berriro Inchausperen ondoretik.

[170] Aipatzen dituelarik bera bitarte argitaratuko gramatika lan denak edo gehienak.

[171] *Parabola del sembrador, traducida à los ocho dialectos del vascuence y à cuatro de sus subdialectos* (Impensis L.L. Bonaparte) Londres, 1878.

15. Julien Vinsonen (1843-1926) ohar eskasak, euskarazko hitzen ordenaz.

Hain ugariak izaki J. Vinsonek, hirurogei urtetako andanan argitaratutako lanak euskararen inguruan, eta oso bereziki euskal gramatikarenean, harritzekoa ere gertatzen da, zein arreta gutxi eskaintzen dion Vinsonek hauetan euskarazko hitzen ordenamenduari esaldian. Harrigarriagoa, izaki XIX mende osoan zehar, tradizio sendoena gure iparraldeko gramatikalarien artean, euskararen askatasuna aldarrikatzen hitzen ordenamenduaren alorrean (eta bide batez, euskararen gailentasuna, frantsesaren aurrean, zeinaren muga eta estuasunak gordin salatuak diren Darrigolez geroztik).[172]

15.1. Vinsonen SAO (SVO) ordena aitorpen bat euskarari 1873an.

Guk ezin izan dugu ezagutu, urrutitik ere bere zabalera osoan, Vinson euskal lan guztia. Bai hala ere, bere zenbait ohar eta erreflexio, euskal sintaxia, edo eraikuntza moduen gainean, garai desberdinetan egindakoak, eta hainbat lanetan sakabanatuta. Hala jaso genitzake adibidez segidako hitzak, Vinsonek 1877an, F. Ribaryren *Essai sur la langue basque* lan itzuliari, eginiko sarreratik, oro har, nahikoa tonu deskalifikatzailean eginak, euskal hizkuntzaren ahalmenen inguruan (1877, XIV or.):[173]

> Quant à la syntaxe, le basque ressemble à toutes les langues agglutinantes. La proposition est toujours simple. Les phrases sont généralement courtes; les pronoms relatifs sont inconnus.[174]

Bestelakoan Vinsonek bere lan desberdinetan jasotzen ditu,[175] euskal gramatikaren hainbat ezaugarri, jada topikoak bihurtuak aspalditik: euskal artikuluaren posposizioa; posposizioen erabilera euskaraz, frantzesezko eta, preposizioen ordez; euskal adjetiboaren gunea izenaren ondotik;[176] genitiboaren posposizioa, salbuespenik gabe,[177] hala edutezkoa (zeinen adibidea bakarrik ematen duen 1919an), nola agidanean eta harrigarriki predikatzen ere duen Vinsonek *-ko* izenlagunentzat (1921ean ematen duen adibidearen arabera, *etcheko-yauna*, 40 or.). 1921eko lan honetan, Vinsonek ondorio harrigarriago bat ere unibertsalizatu nahiko du oraindik, euskararen eraikuntza moduaren gainean, predikatuko duenean, zenbait adibide bitxi, edo eztabaidagarri, erakutsi ondoren (eta agidanean erabat ahaztu nahian orain jada adjetiboaren ohizko gunea euskaraz izenaren ondoan; 42 or.): «*la*

---

[172] Ez al zuten halako subjetibidadeek eragotziko Vinsonen aitorpena ezaugarri hauekiko, nahiz halako hipotesi bat ere, ez dagoen erabat baztertzerik Vinsonen kasuan, ezaguturik honen jarrera ezkorra, euskararen (eta euskaldunen) inguru. Jarrera honen adierazgarri on izan litezke, Vinsonek 1877an egozten dituen hitz gordinak, F. Ribaryren *Essai sur la langue basque* lanaren itzulpenari eginiko hitzaurrean, euskaldunon herria kalifikatzen ari denean (XV or.): «Ceci [hizkuntzaren aldakortasun extremoa] est tot naturel du reste chez un peuple illettré et qui ne peut se mettre au niveau de ses voisins qu'en oubliant son antique langage.» Vinsonek, badaezpadan, hitz latz berak errepikatzen ditu, orduan ingelesez, W. Webster-ek urte berean argitaratzen duen *Basque Legends* liburari eginiko eraskinean (*An Essay on The Basque Language* izenekoa; 226 or.): «This is natural enough among an unlettered people, and one which can only rise to the level of the surrounding civilization by forgetting its ancient language.» Euskaldunekiko bere lehen jarrera ezin gordinagoaren lekuko da, 1867an Hovelacqueren *Revue de linguistique et Philologie comparée*-aren lehen tomoan argitaratzen duen artikulu osoa, «Coup d'œil sur l'étude de la langue basque» (*RLPhC*, 1867-8, I, 381-405 orr.; separata bezala ere argitaratzen da).

[173] Hitz berak errepikatzen ditu ere ingelesez, aipatu W. Websteren lanari eginiko eraskinean (225 or.): «With regard to syntax, the Basque resembles all agglutinative languages. The sentence is always simple. The phrases are generally short; relative pronouns are unknown.» (Ik. 3. oh.).

[174] Vinsonek, bere geroko beste hainbat lanetan gogoratuko duen bezala, ez bide du esannahi segurasko, izenorde erlatiboak ez direnik ezagunak euskaraz (nola diren, ezagutzen ditugun euskarazko -ia- lehen testigantza literarioetatik), baizik eta berak, izenorde erlatibo hauek berriak juzgatzen dituela euskararen historian, eta bakarrik sortuak kanpotiarren eraginaz. Hala moduz esaten du adibidez, *Syntaxe basque. Position du déterminant et du déterminé* artikuluan (*RIEV*, X, 1919, 61 or.): «(Dans la grammaire l' influence néo-latine a amenè ...) A une époque très récente, on a employé les pronoms interrogatifs comme relatifs. / La syntaxe n'a pas échappé aux influences extérieures, ...» Eta hala moduz esaten du ere, Vinsonen maisu linguistiko, eta euskara kontuetarako ikasle, eta lagun, A. Hovelacque-k, are zorrotzago oraindik, Ribaryren liburuaren urte beretsuetan, bere *La linguistique* liburuaren, *La langue basque* kapituluan (1876, 1. arg; 1877, 2. arg., nondik, 160-1 orr.): «...; pour imiter les Français ou les Espagnols, les Basques modernes ont employé souvent avec le sens relatif les pronoms interrogatifs; mais cela est absolument contraire au génie même de leur langue.»

[175] Hala nola: «Notions grammaticales», 1873, Fabreren *Guide élémentaire de la conversation français-basque* liburuskari eginiko eraskinean; 1877an F. Ribaryren *Essai sur la langue basque* lanari egin hitzaurrean; «An essay on The Basque Language», 1877ko urte berean W. Webster-en *Basque Legends* argitalpenari eginiko eraskinean; 1919ko «Syntaxe basque» artikuluan, *RIEV*, X, 1919, 58-71 orr.; edota *La langue basque. Son état actuel. Son évolution. Son histoire*. liburuskan, Baiona, 1921.

[176] Bi, hiru salbuespen ezik, azpimarratzen du Vinsonek beti: *basa, lehen*, eta *azken* adjetiboak; numeralak (*bat* ezik); ordinalak, ... Nahiz eta oro har Vinsonek usteko duen (*RIEV*, 1919, 63 or.), ezen: «*des exemples assez nombreux nous montrent qu'anciennement l'adjectif pouvait précéder le substantif*».

[177] Hala gaztigatzen du (*RIEV*, 1919, 62 or.): «*cette règle est absolument sans exception*».

construction normale du basque est la préfixation du déterminant au déterminé».

Vinsoni ezagutzen diogun erreflexio orokor bakarra, euskarazko esaldi elementuen ordenamenduaren gainean, egina da, artean bere gaztaroan, Fabreren *Guidearen* bigarren argitalpenari erantsitako *nozio gramatikalen* artean,[178] 1873 urterako. Orduan Vinsonek, eta *Construction* izeneko azken ataltxo batean, euskarazko ordenamendu ohizkoena bezala, predikatuko du, bitxiki asko, segidakoa (besteak beste, SAO (SVO) ordenamendu modu bat ere gordetzen duena barne; XXXIV-XXXV orr.):

> §. 6. Construction. / L'adjectif, à trois ou quatre exceptions près se place après le substantif qu'il qualifie. / En général, la phrase basque se construit de la façon suivante: / Complément indirect du sujet, sujet, adjectif du sujet, article, préposition, adverbe, participe verbal, verbe auxiliaire, régime indirect, adjectif du régime, article, préposition, régime direct, etc. / Exemple:
>
> Le vieux père du (de le) roi fou avait sagement envoyé son (de soi l') argent en Amérique.
>
> Erregue erho-a-ren aita zaharr-ak zuhurki igorri zuen Ameriketa-rat be-re diru-a.

Vinsonek zenbatu egiten ditu bi hizkuntzetan zenbaki berdinekin, adibide esaldietako elementu berdinak, nabarmentzeko, bi hizkuntzen arteko guneen aldaerak.

Bitxiki, ez diogu ezagutzen Vinsoni, garai horretatik aurrera, beste testigantzarik, esaldiko elementuen ordenaren gainean. Aurrerantzean, sintaxiaz hitzegin nahi duenean, Vinsonek jeneralean erabat mugatuko du aurretik bere burua, egiten duen bezala 1921eko aipatu liburuskan, anpuloski orduan, *Sintaxe* izendatzen duen atalaren sarreran (40 or.): «*Je me propose de ne traiter qu'une question: celle de la position relative du déterminant et du déterminé.*»

16. J. Ithurryren (1845-1896) tradiziozko aldarrikapenak 1894ko Gramera sendoan.

1894ko urtean hasten da argitara ematen Jean Ithurry abadearen *gramera* berria, *Eskualduna* aldizkariaren orrietan, *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin* izenarekin. Honen azken faszikuloa hala ere (*Syntaxeari* dagokiona prezeski), ez da kaleratuko, 1916 urtera arte. Ithurryren gramatika dudarik gabe izango da, ordura artean burututako euskal gramatika lan saiorik burutsu, sistematiko, eta dokumentatuenetakoa, oro har; eta batere dudarik gabe, lapurteraren inguruan. Hiriart-Urrutyk esan bezala, Ithurryren heriotz ondoko artikulu batean (*Eskualduna*, 1896, Ekainak 26),[179] batere exageraziorik gabe:

> ... la *Grammaire Basque* de l'abbé Ithurry est œuvre de valeur sérieuse; œuvre de rèflexion personnelle autant que de vaste et consciencieuse érudition, qui marquera dans l'histoire de notre langue; portant, d'un bout à l'autre, le cachet de l'auteur, de son esprit méthodique, peut-être même systématique à l'excès, mais lucide et puissant.

Eta izan ere, liburuko orrialde guztietako erreferentzietan erruz erakutsi bezala, Ithurryk eskuetatik baztertu ere gabe erabili ditu berea burutzerakoan, batetik, bere aurretiko gramatika lan gehientsuenak (Larramendi, Harriet, Lécluse, Darrigol, Lardizabal, Inchauspe, Bonaparte, Darthayet, Van Eys, eta Campionenak bederen); eta bestetik erruz ezagutzen eta erabili ere ditu, bera bitartean, iparraldean argitaraturiko euskal literaturaren lanik garrantzitsuenak, bereziki lapurterazkoak (Etchepare, Leiçarraga, Oihenart, Axular, Olce, Pouvreau, Etcheverry Ziburukoa, Gazteluzar, Chourio, Haraneder, Larreguy, Baratciart, Duhalde, eta Duvoisin); erraz erator litekeen bezala, begirada bat eginez, Ithurryk bere baieztapenak sustatzeko erakusten dituen ehundakada adibideei.

16.1. Ithurryren atala sintaxiari buruz.

Ithurryk, heriotz goiztiar batek eramana, ez du utziko bere lana erabat bukatuta eta inprimatzeko prestatua. Eta gutxienik, honen azken partea, hirugarrena, *Syntaxeari* dagokiona, beti kalifikatuko dute *zirriborro* huts bezala, Ithurryren bi argitaratzaileek, Hiriart-Urruty, nola Daranatzek. Hiriart-Urrutyk iragartzen du 1905ean, berak erantsiko dizkiola parte honi, hainbat ohar eta iruzkin. Baina azkenik Daranatzek argitaratuko du hau 1916an,

---

[178] Hauek azkenik benetan baldin badira Vinsonenak, dirudien bezala.

[179] Hemen aipua jasotzen dugu, Ithurryren liburu berari J.B. Daranatz kalonjeak eginiko *prefacetik*., guk erabili dugularik Ithurryren obra, Hordago argitaltxeak 1979an egindako argitalpen faksimilean.

batere ukiturik egin gabe, eta egile Ithurryk utzi bezalaxe bere heriotz momentuan, 20 urte lehenago.[180] Hiriart-Urrutyk bestalde, aitortzen du gainera, nola Ithurryk artean ez bide zuen lotua sintaxiaren atal hau, bere buruan sikiera, liburuko besteak bezain zorrotz (*Eskualduna*, Uztailak 10, 1896: «*... la Syntaxe, sur laquelle l'auteur nous avait déjà communiqué à nous-même ses perplexités.*»).[181] Hiriart-Urrutyk hala ere, ez du besterik argitzen, Ithurryren *perplexitateen* inguru.

16.2. Ithurryren ordenamendu librearen aldarrikapena.

Ithurryk, sintaxi ataleko oharretan, maiz asko heltzen dio hitzen ordenamenduaren arazoari. Hala, erakusleak kokatuaz izen multzoen ondorenean (414 or.); zenbait adjetibo mugagaberen gunea finkatuaz (415 or.); hala nola, zenbatzaile zenbaitena (423 or.); graduatzaileena (424-5 orr.); zenbakiena (425 or.); zenbaki hauen ordenamenduaz neurriak ematerakoan euskaraz (425-6 orr.); ... Aurretik Ithurryk finkatua du (412 or.), adjetiboen gunea euskaraz izenen ondoretik, eta labur ere genitiboena, hala edutezko, nola *-ko* izenlagunena (*genitibo erlatiboak* deitzen ditu Ithurryk hauek), izenaren aurretik, eta aipatu gabe inolako salbuespen posiblerik. Ithurryk azkenik, ez dizkio eskainiko, liburu amaierako bi atal labur eta batere ondo garatu gabeak baino, esaldiko elementuen ordenamenduari euskarazko esaldian, eta aditzaren gune posibleari honetan. Hala ere, Ithurryren iritzia aski garbia izango da puntu honetan, euskarazko ordenamendu libertatea aldarrikatzen, eta hala esango du, duda handirik eragin gabe, liburuko azken aurreko orrialdean, *Syntaxe du placement du Sujet du Verbe et du Complément direct et indirect* izeneko atalean, ilustratuaz ongi bere ustea, permutaziozko esaldi multzo temati samar batzuekin (445 or.):

> Règle**.** - Ces diverses choses peuvent se placer à volonté, de diverses manières. Soit par example cette phrase: le père a donné la pomme à l'enfant.
>
> | | |
> |---|---|
> | Aitak sagarra haurrari eman dio. | Eman dio aitak sagarra haurrari. |
> | Aitak sagarra eman dio haurrari. | Eman dio aitak haurrari sagarra. |
> | Aitak eman dio sagarra haurrari. | Eman dio sagarra aitak haurrari. |
> | Aitak eman dio haurrari sagarra. | Eman dio sagarra haurrari aitak. |
> | Aitak haurrari eman dio sagarra. | Eman dio haurrari sagarra aitak. |
> | Aitak haurrari sagarra eman dio. | Eman dio haurrari aitak sagarra. |
> | Sagarra haurrari aitak eman dio. | Haurrari aitak sagarra eman dio. |
> | Sagarra haurrari eman dio aitak. | Haurrari aitak eman dio sagarra. |
> | Sagarra aitak haurrari eman dio. | Haurrari eman dio aitak sagarra. |
> | Sagarra aitak eman dio haurrari. | Haurrari eman dio sagarra aitak. |
> | Sagarra eman dio haurrari aitak. | Haurrari sagarra aitak eman dio. |
> | Sagarra eman dio aitak haurrari. | Haurrari sagarra eman dio aitak. |
>
> De même on peut dire de diverses manières: le père est arrivé à la maison. Savoir:
>
> | | |
> |---|---|
> | Aita ethorri da etcherat. | Ethorri da etcherat aita. |
> | Aita etcherat ethorri da. | Etcherat ethorri da aita. |
> | Ethorri da aita etcherat. | Etcherat aita ethorri da. |

16.2.1. Ithurryren ohar berezi, kontraesantsu bat, «Xà», aditza bigarren, fenomenoaren inguruan.

Ithurryk bere liburuan zirriborratutako azken atalak, *Construction* darama izenburua, nahiz apenas egiten den bertan, euskal literaturako adibide zenbait jaso baino. Ondo ohargarria gertatzen da nolanahi, Ithurryk atala hasteko duen lehen esaldia, erregela modura emana (446 or.):

> Dans la conjugaison absolue, le Verbe *Da*,[182] employé comme non auxiliaire, se place à la fin de la phrase. Ex.: *Langilea da*, il est laborieux; ...

Egia esan, Ithurryk ematen duen lehen adibide hau, konplementu bakarrekoa, ez da egokiena halako baieztapen potolo bat ilustratzeko. Gauza bat da, *da* aditzak, euskarazko ohizko «Xà» egitura bat gordetzea, multzo foniko bateko bigarren elementu bezala, Ithurryren adibidean legez; eta beste bat, aditz honek bukatu behar izatea,

---

[180] Daranatzek esaten du hala, bi aldiz ere, bere *prefacearen* amaieran, eta berriro 409 orrialdepeko oharrean.: «La syntaxe n'est hélas qu'ebauchée. Malgré les lacunes et les inexactitudes qu'il est facile d'y remarquer, nous la donnons telle qu'elle a été laissée par ITHURRY, sans rien ajouter ni modifier.»

[181] Daranatzen *prefacetik* jasotzen dugu aipua.

[182] Ithurryk ere ohitura du, aditza izendatzeko, indikatibo oraineko hirugarren pertsonaren singularreko formaz. Hala: *Le Verbe Dathor, Le Verbe Doa, Le verbe Daki, ...*

derrigorrez, esaldia, Ithurryk agerian aldarrikatu bezala (eta berak baino lehenago, antz batera, Archuk, Lardizabalek, eta Campionek; edo Cardaveraz eta Añibarrok ere argitaragabeko lanetan). Esaldian konplementu bat baino gehiago den momentuan ordea, *Da* aditzak bai buka lezake esaldia. Ez da baina, derrigorrezkoa izango. Eta Ithurryk segidan ematen duen adibideak ere, berehala jarri beharko gintuzke, bere sarrerako baieztapenaren beste esannahi zuzenago baten arrastoan; edo, nahiago bada, haren kontraesan agirian; hala baitu segida (446 or.):

> (Dans la conjugaison absolue, le Verbe *Da*, employé comme non auxiliaire, se place à la fin de la phrase. Ex.: *Langilea da*, il est laborieux); *Zure anaia gizon on bat da*; on pourrait aussi dire: *Zure anaia da gizon on bat*, ou *gizon on bat da zure anaia*.

Ithurryren baieztapena, gehienera ulertu beharko da, Archuk 1852/3an egiten bide zuen bezalaxe, «Xà», aditza bigarren, fenomenoaren mugen barnetik, eta ez inola beren literalitatean.

16.2.2. Ithurryren tradiziozko adibidetegia.

Ithurryk bere obra erabat oinarritzen duen neurrian, aurreko autore nagusien praktikan, eta ez, era bateko edo besteko elukubrazio hutsetan, *Gramerako* adibideek estu jarraitzen dute, gure tradiziozko hitzen ordenamenduak ebakitako ildo nagusia. Ithurryren adibideek, batetik, maiz gordeko dute «Xà» fenomenorako joera (zeinen islada den, Ithurryren azken ataleko oharra). Eraberean ordea, oso arrunta izango da, Ithurryren adibideetako aditzek gordetzea, oro har, nahikoa aurrealdeko gune bat esaldian.

16.2.2.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak.

Hala, Ithurrik ere maiz asko emango ditu esaldiak, oso nabarmen daramatenak beren galdegaia aditzaren ondoretik (eta ez bakarrik entendimentuzko aditzak edo direnean), edota SAO (SVO) moduko segida bat erakutsiko dutenak euskaraz, hurrengo adibide nahikoa ugarietan suma litekeen bezala (adibide gehienak dira euskal autoreetatik atereak, eta hala adierazten du Ithurryk; guk ere bai: *Lç.: Leiçarragarentzat; Ax.: Axular; Duh.: Duhalde; ...*):

(1) Orai da ontasunean aitzinatzeko ahala, indarra eta libertatea (410, Ax.)
(2) Alferrak dira hitztun eder, solhasturi handi (410, Ax.)
(3) Gure Iaungoikoak beztitu ditu lurreko animaliak, aireko hegastinak, itsasoko arrainak eta oihaneko zuhaitzak ere. (411, Ax.)
(4) Bekhatua da arimaren zauria (412, Ax.)
(5) Arrebak ikusi du bere anaia / la sœur a vu son frère (415)
(6) Arrebek ikusi dute beren anaia / les sœurs ont vu leur frère. (415)
(7) Oraiko egunak balioko du orduko urthea. (418, Ax.)
(8) Nola hegastinari emaiten baizaitza hegalak airatzeko eta hegaldatzeko, hala gizonari ere emaiten zaitza eskuak trabaillatzeko (420, Ax.)
(9) Ainhitzetan egiten deraukute etsaiek hanbat ongi eta ontasun, nola adiskideek (421, Ax.)
(10) Behatuago behar diogu Iainkoari etsaiei baino (424, Ax.)
(11) Nahiago izatu zuen (Esauk) hartu ezen ez bilhatu. (424, Ax.)
(12) Errechago da kable bat orratzaren chulhotik iragan dadin, ezen ez abratsa Iainkoaren resuman sar dadin (424, Lç.)
(13) Ni nerorri izanen naiz zure golardo guziz handia, gozoa ta nasaia (425, Duh.)
(14) (Martin etzen kontent behiez,) hek utzirik, hartu ditu idiak (426)
(15) Martinek uzten ditu zaldiaren bridak (eta badoha lurrera) (426)
(16) nik erraiten dut neure Aita baithan ikusi dudana eta zuek egiten duzue zuen aita baithan ikusi duzuena (427, Lç.)
(17) Gaitz da itsuak koloreen berri jakitea (428, Ax.)
(18) Ura bethi doha, bata bertzeari darraika (428, Ax.)
(19) Hura rezibitu ukan duzue beldurrekin eta ikararekin (429, Lç.)
(20) Meditazionea egin ditake noiz nahi, bidean, lanean, jende artean, elizan, etxean, bai eta ohean ere. (429, Duh.)
(21) Dembora guzia daramate josten, iruten, mandatu egiten (433, Duh.)
(22) Nahiago ditu estali baino agertu (433, Ax.)
(23) Gazte danik prestu direnek ukhanen dute arimako bake gozo, mundu huntako atsegin guziak hurbiltzen ere etzaizkon hura (446, Duh.)

16.2.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Hala jasotzen ditu nahikoa maiz Ithurryk ere adibideak, zuzenean aditzaz hasten direnak, nahiz eta nabarmen erakutsi zenbaitetan galdegaia ondoretik, nola behintzat segidakoetan:

(24) Erraten dio berriz bere buruari (413, Ax.)

(25) Ikusi dut zure behia eta admiratu haren edertasuna. (414)
(26) Galtzen da denbora gogoeta erho deus balio ez duten batzuetan egoiteaz (414, Ax.)
(27) ikusi ditut zaldiak ("On ne dit pas *ikusi dut zaldirik*, mais bien ...") (416)
(28) Saltzen dut hogoira sos (418, Harriet)
(29) Ikusi dut zuek igorri behia (428)
(30) Iragan nintzen gizon nagiaren landatik (429, Ax.)
(31) Ihardetsi zuen hitz gutiz (431, Ax.)
(32) Ikusten dute Jesus itsas gainez dabilala (431, Lç.)
(33) Eduki dut gorderik oihal batetan (432, Lç.)
(34) Hartzen du mandatua ontzat edo gaixtotzat (432, Haraneder)
(35) Ikhusten dut ethortzen / je le vois venir (432)
(36) Ikusi dut sagarraren ebasten (433)
(37) Ikusi dut sagar ebasten (433)
(38) Behar dire buru beharriak ernatu, zer egiten, eta zer erraiten den behatu (433, Ax.)
(39) Igorriko derautzut itsasoan sartu baino lehen (433)
(40) Ethorri da afaldu baino lehen (433)

16.2.2.2.1. Aditz laguntzaile jokatu bat ere bai esaldi hasieran.

Hala jasotzen du behin behintzat Ithurryk Leiçarragaren esaldia, aditz perifrastiko inbertituaz-edo nahi bada:

(41) Eta duzue ezaguturen egia (427, Lç.)

16.2.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Ez dira denera gehiegi, Ithurryk bere adibideen artean jasotzen dituen mendeko esaldiak, eta are gutxiago zenbait konplementu dituztenak. Ez dira beraz gehiegi izango, Ithurryk hautsita erakutsiko dituen mendeko esaldi hautsiak; nahiz batzuk bai hala ere, nola segidakoak:

(42) Duzunean adiskide bat (359, Ax.)
(43) Zeren anhitz baitira eta handiak, handik eta hartarik sortzen diren probetxuak, ontasunak eta irabaziak (411, Ax.)
(44) Baldin nik glorifikatzen badut neure burua (413, Lç.)
(45) (Arrebei erran diotet) ikusi dudala heien anaia; ... (415)
(46) (Zer zinen) duela berrogoi, hiru hogoi, ehun urthe? (416, Duh.)
(47) Nola hegastinari emaiten baizaitza hegalak airatzeko eta hegaldatzeko, ... (420, Ax.)

16.3. Erlatibozko esaldiak, beren izen buru mugatu, edo mugatu gabe soilaren ondoretik.

16.3.1. Erlatibozko esaldiak beren izen buru mugatuaren ondoretik.

Ithurryk ez du batere garatzen bere *Grameran* inon, erlatibozko esaldien atala. Hala ere, *Construction* izendatuko azken atalean, jasotzen ditu erlatibozko esaldien zenbait adibide, aipatzea merezi dutenak. Hala adibidez segidako esaldi parea, biak baliokideak balira legez (446 or.):

(48) Urusa aita on batek gidatzen duen haurra, *ou* Urusa haurra aita on batek gidatzen duena.

Ithurryk ez du iruzkinik egiten, esaldi bikote honen inguruan. Hala ere, nabarmena da, eraikitzen duen baliokidetasuna. Badirudi Ithurryk ere onartuko lituzkeela, bi erabilkera modu horiek erlatibozko esaldiak emateko: bai, ohituraz bezala beren izen buru erregimenaren aurretik; nola agidanean beren izen buru mugatuaren ondoretik ere emana, atzizkiak errepikatuaz, adibidean erakutsi bezala (eta arrunta ere baden bezala, euskarazko zeinnahi erabileretan, are gaur egun ahozkoetan ere). Antzeko beste adibide bat ere jasotzen du behintzat, partitiboan jokatutako izen buru baten ondoretik emana:

(49) (... ez da izanen) ez aitarik, ez amarik, ez senharrik ez emazterik maiz kommuniatzetik debekatu nahiko zaituenik (431-2, Haran.)

16.3.2. Erlatibozko esaldiak beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik.

Construction atal labur berean, jasotzen du Ithurryk gainera, Duhalderen *Meditacioneetako* segidako adibidea, berriro beste argitasunik eskaini gabe, emanez erlatibozko esaldia, izen buru soil, mugatu gabearen ondoretik:

(50) (Gazte danik prestu direnek ukhanen dute) arimako bake gozo, mundu huntako atsegin guziak hurbiltzen ere etzaizkon hura (446, Duh.)

Ez da nolanahi hau, halamoduzko adibide bakarra, Ithurryk *Grameran* jasotzen duena. Aurretik eman du beste bat ere behintzat Axularrena:

(51) (Galtzen da denbora) gogoeta erho deus balio ez duten batzuetan (egoiteaz) (414, Ax.)

16.4. Beste ohar labur batzuk, Ithurryren hitzen ordenamenduaren inguruan.

16.4.1. Aditz laguntzaileen ez errepikatzeaz koordinatutako esaldietan.

Ithurryk ere heltzen dio nolabait puntu honi (topikoa jada, iparraldeko tradizio gramatikalean), bere *Syntaxearen* azken aurreko atalean, usna onez izendatzen duena, *Syntaxe de la rapidité de la phrase*, eta hiru erregeletan edo erakusten. Lehen bietan, erabat ezabatzea gomendatuko du aditz laguntzaileak.[183] Hirugarren oharrak berriz, aditz laguntzailea ez errepikatzeko bakarrik eskatuko du, esaldi koordinatu sail batean; nahiz Ithurryk ez duen batere aitatuko aditz laguntzaile hau emateko gunerik (saileko lehen edo azken aditzarekin, Inchauspek eta Gèzek bezala; edota bakarrik azkenarekin, Campionen moduan). Nolanahi, Ithurryk erregelaren segidan erakutsiko duen Axularren adibide exageratu samarrak, ohargarriki atzenekoarekin bakarrik ematen ditu aditz laguntzaileak. Hala dio (446 or.):

> Dans une phrase, il peut se trouver plusieurs Verbes périphrastiques, qui tous expriment la même relation quant au mode, au temps, à la personne, au complément, au nombre, etc. Alors, pour la rapidité et la force de la phrase, mieux vaut ne pas répéter l'auxiliaire après chaque Infinitif. Ex. *Noeren demboran, jaten, edaten, jokatzen, dantzatzen, ezkontzen, sal erosi egiten, eta ethorkizunerat anhitz gauzaren ordenatzen, pentsatzen, eta trazatzen hari zirela,* (pour *zirelarik*), *hartu eta hondatu zituen urak.*

16.4.2. Bi aditzetako sujeto bakarraren joskera moduaz.

Ithurrik egiten du bestelako ohar interesgarri bat ere, bi aditz desberdinetako sujeto bakarrak segi beharko lukeen joskeraz, izanik aditz bat aktiboa, bestea ez. Hala esaten du, entzungarri, *Syntaxe des verbes* izenpeko atal batean (426 or.):

> Règle. - Quand dans une même phrase le sujet se rapporte à deux verbes, l'un transitif, l'autre intransitif, ou vice-versa, le sujet se met au cas demandé par le premier verbe. Ex.: *Martin etzen kontent behiez, hek utzirik, hartu ditu idiak*; *Martinek uzten ditu zaldiaren bridak eta badoha lurrera, ...*

Nabarmen da, kasuan, Ithurryk hala ematen duela legea, pentsatzen, bi esaldien hasieran doala sujetoa. Beharbada Ithurryk, ez zuen erregela modu berean eraikiko, pentsatzen, sujetoa eman zitekeela, bi esaldien bukaeran.

16.4.3. Izen arrunta fi Izen propioa segidaz.

Ithurryk ez du halako erreflexio orokorrik egiten, baina bitxiki asko hasten du *Grameraren Sintaxe* partea, atal harrigarri samar batez, *Syntaxe des noms des Saints* izenburukoa. Eta bertan argi ematen du erregela, nola, santuen izen propioen aurretik emango den beti, hauei dagokien titulua-edo (410 or.)

> Règle I. - *San, Santa* et *Iondoni* sont indéclinables et ne s'emploient que suivis des noms des Saints.

Ithurryk lehentxoago (409 or.), gogoratu digu nola modu beretsu batean jokatzen den, *Ama Birginari, Andre dena Maria* deitzen zaionean, edo ere, *Andre Dana Maria*, Gazteluzarrek edo Pouvreauk egiten duten bezala. Baita ere nola *Iondoni* titulu, edo izen arruntaren ordez, erabili ohi diren modu berean (410 or.), *Iondone* edo *Iaundone* izenak, Axularrek edo Duhaldek egin moduan. Dudarik gabe gaude, joskera fosilizatu batzuen aurrean. Baina nahikoa garbi erakusten dutenak, *Izen arrunta* fi *Izen propioa* itxurako segida bat, euskaraz bestelakoan ere oraindik erabiltzen dena arrunt asko beste hainbat kasutan.

16.4.4. Aditz trinkoen erabilera, BA- aurrizkiaren beharrik gabe.

Ithurryk ez du batere oharrik egiten zentzu honetan, eta horregatixe da ohargarri. Inchausperen 1856-58ko lanen ondoretik, iparraldeko beste gramatikazaleek lasai jaso, edo aipatu dutenean, nolabaiteko derrigorrezkotasuna,

---

[183] Hala diote lehen bi erregelek (445 or.): «Règle I. - Pour la rapidité de la phrase, on remplace le Futur du Verbe par l'Infinitif capital sans auxiliaire. ... / II.- A la seconde personne de l'Impératif du verbe périphrastique on supprime le verbe auxiliaire, en se contentant de l'Infinitif capital.»

aditz trinkoak emateko (beti-edo) *ba-* aurrizkiari lotuta. Isiltasuna kasuan adierazgarriagoa da, kontutan harturik, Ithurryk bere *Grameraren* oso atal zabala eskaintzen diela aditz trinkoei. Bestalde Ithurryk ere jasotzen ditu bereen artean, tradiziozko hainbat adibide, aditz trinkoen aurrizki gabeko erabilerarenak (gorago batzuk eman ditugun bezala).

16.4.5. Edutezko genitiboa eta izenaren arteko loturaz.

Ithurryk oso garbi ematen du legea, edutezko genitiboak derrigorrez kokatzen dituena, euskaraz, beren izen erregimenaren aurretik. Jasoko du hala ere, bere adibideen artean, bi aldiz ere, Axularren esaldi bat, nolabait zalantzan jarriko lukeena, horren lotura estuaren ustea, bi elementuen arterako. Esaldia da:

(52) (Zer diozu Kain?) noren zara beldur? (416, eta 417)

16.4.6. Leiçarragaren galdera hautsi bat ere bai.

Hala jasotzen du Ithurryk adibidea, bestelako iruzkin berezirik gabe (431 or.; guk zuzenean eta osorik jasotzen dugularik Leiçarragarengandik, *Test. Ber.*, 1571, S. Ioan, XX, 13, 203 or., itz.):

(53) (Eta *hec* erran cieçoten,) Emazteá, cergatic nigarrez ago?

VII. TRADIZIOZKO TESTIGANTZAK XIX MENDEAN HEGOALDEKO GRAMATIKALARIEN ARTEAN.

Sarrera.

Olaechea, Añibarro, Guerrico, Lardizabal, Arrue, edo Campionen testigantza, gramatikal edo praktikoak, aztertu ditugun bezala, beren kontraesan guztiekin, eskola cardaveraztiarraren arrastoen artean, askoz ugariago jaso litezke testigantza anticardaveraztiarrak, hegoaldeko beste euskal idazle eta gramatikalarien artean XIX mende barrenean. Aztertu dugu jada aparte, P.P. Astarloaren kasua; baita J.A. Moguel eta P.A. Añibarrorenak ere, Cardaverazen eskolaren albotik, nahiz tradiziozko idazleak izan biak. Atal honetan jasoko ditugu, XIX mendeko hegoaldean zabaltzen diren beste euskal gramatikalarien testigantzak, denak ere tradiziozko hitz ordenamendu baten erakusleak, nahiz hainbatengan ere sumatu ahal izan, akaso oihartzunen bat, joskera cardaveraztiar bezala definitzen ari garen ezaugarriena, agerian adieraziko duguna kasu bakoitzean.

Hala aztertu ditugu bereziki, L. Astigarraga, J.M. Zavala, A. Pascual Iturriaga, J.M. Eguren eta V. Huiciren gramatika lan eta adibidetegiak. Hala nola, hauen euskerazko idatziak, baldin badaude, gramatiketako adibidetegiez gain. Aztertuko ere dugu, J.A. Uriarteren kasua, nahiz ezagutzen ez diogun lan gramatikal zuzenik, suposatzen (eta ezagutzen) diogun heinean, erreflexio lan zuhur eta sakona hizkuntzaren gainean, Bonaparterekin duen lankidetzan. Azkenik emango dugu berriren bat ere, J.F. Aizquibelen zenbait uste eta asmorena, gure kezkekin lotu litezkeen neurrian. Ez dugu ordea agerian aztertuko, gramatika lanik ezagutzen ez diegun neurrian, XIX mendeko hegoaldeko idazle multzo nagusienaren lana: J.B. Aguirre (1742-1823), Aita Pedro Astarloa (1751-1821), F.I. Jauregui (1767-1829), Bartolome Sta. Teresa (1768-1835), Joaquin Lizarraga (1748-1835), J.J. Moguel (1781-1849), Aita J.C. Echeverria (1773-1853), Vicenta Moguel (1782-1854), J.I. Iztueta (1767-1845), edo Marcelino Soroa (1848-1902) bezalako idazleen euskal lana, idatzia beti, tradiziozko hitz ordenamenduaren ildoetatik, ondo samurra, komunikatiboa, eta ulerterraza oro har, eta ezin urrutiago, eskola cardaveraztiarraren berrikuntza artifizial eta trakestasunetatik. Zergatik ez eraiki gure gaur eguneko prosaren eredua, idazle guzti hauen testigantzaren gainean? Agian dira nolanahi, lan gramatikal gehiago ere, guk ezagutzen ez ditugunak, eta azterketa merezi luketenak.[184]

1. 1825, Luis de Astigarragaren Diccionario Manual y Elementos de Gramatica batzuren leen argitalpena.

1825eko urteak ikusiko du lehen aldiz argitaratzen Donostian, Luis de Astigarraga y Ugarteren *esku hiztegi eta gramatika giputzaren* liburuska. Ez dakigu ezer asko autoreaz, berak liburuan esaten duenaz gain.[185] Giputz segurarra ote zen, liberala, eta deserriratua.[186] Liburuak oso harrera ona jasoko du berehalatik gizartean. 1827an irtengo da bigarren argitalpen jada zuzendu eta gehitu bat, izenburu luze duena: *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática. Para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa, con ejemplos y parte de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas. Por D. Luis de Astigarraga y Ugarte miembro de la Sociedad de Instrucción Elemental de Paris etc. Segunda edicion corregida y aumentada.* Handik aurrera, beste 39 argitalpen desberdin ere bai gutxienez,[187] Espainiako 1936ko gerra bitartean. Bizkaieraz ere bai hauetako bat bederen, F. Arrese Beitiak prestatua 1884ean. Argitalpen berriak hainbat gizentzen joango dira tarteka, ariketa eta

[184] Guk ezin izan dugu aurkitu, Blas Pradere Arruti (1851-1923) apaiz oinatiarraren izenburu ezin erakargarriagoko liburu, 1897koa, *Secretos para hablar y escribir con claridad el bascuence, por el Pbto. B.P.A.* (San Sebastián: Imp. de la «Semana Católica», 1897, 80 pp.), zeinen erreferentzia soilik arkitu dugun J. Bilbaoren *Bibliografian*, eta berehala dakarkiguna gogora, urte batzuk geroago, 1906an, P.A. Orcaizteguik Azkueren eskola itxienean argitara emango duena, *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro* izenburupean. Eginahalak eginda ez dugu lortu Pradereren liburuaren arrastorik, eta agian esan lezake liburu honek ere (inoiz izan bada) gauza interesgarririk, euskarazko hitzen ordenamenduaren inguruan, XIX/XX mende iraultze larriaren garaian. Pradereren beste lanak ezagututa ordea, ez dirudi, begi bistara, zerikusirik duenik eskola cardaveraztiarraren erakutsiekin.

[185] Ez noiz jaio edo hil zen ere. Eta ez diogu ezagutzen beste idatzirik euskaraz.

[186] Gerardo Elorza, Bergarako UNEDeko irakasleak argitu digunez.

[187] J. Bilbaoren *Bibliografiaren* datuen arabera.

elkarrizketa berriekin. Baita ere piskanaka zuzentzen aurrekoen hiztegia, edo ortografia, nahiz dirudien, liburuskaren gorputzak, oro har, bere horretan segitzen duela argitalpen gehienetan (guk ez ditugu denak parekatu).

Liburuskaren lehen helburua, garbi da, erdal gramatika erakustearena gazteria euskaldunari, autoreak argi uzten duen bezala sarrerako hitzetatik (1827, 2. arg.,[188] V-VI orr.):

> Para facilitar pues á la juventud bascongada el estudio de la gramática castellana y aun de la latina, he creido muy conveniente coordinar y publicar este diccionario manual poniendo antes de él algunas observaciones sobre ambas lenguas, las conjugaciones del verbo auxiliar *haber*, *izan*, *izandu*, y las definiciones ó esplicacion de cada una de las partes de la oracion; con cuyo auxilio, al paso que los jóvenes bascongados aprendan de memoria la significación y correspondencia de las voces de uno y otro idioma, se instruirán en lo mas esencial de la gramática castellana, y tendrán mucho adelantado para el estudio de la latina y de otras lenguas.

Astigarraga bera, beti azalduko dea horregatik, euskalzale, euskararen, eta Larramendiren, maitale sutsu ere:

> ..., y daré mayor estension á este diccionario, ..., manifestando al mismo tiempo á mis paisanos las escelencias y filosofía del bascuence comparado con aquellos [*beste hizkuntzekin*]. (VII or.) [*Edota*]: ...; esta lengua inmortal, como la llamaba ahora ochenta años el erudito Larramendi, ¿no merece que todos los naturales de V.S. hagamos los mayores esfuerzos para conservarla en su pureza primitiva? (XI or.)

Bere balaku, eskaera eta arrakasta guztiak ordea, ez dira nahikoa izango *Probintzia* inoiz dina dadin, argitaratzen laguntzen, Astigarragak jada prestatuak bide zituen beste zenbait obra, berak iragartzen eta eskatzen duen bezala sarrerako hitzetatik (X-XI orr.): «*... los diálogos, fábulas, modelos de cartas, y tratado de Aritmética que tengo trabajados en ambos idiomas.*»

1.1. Astigarragaren tradiziozko hitz ordenamendua.

1825eko liburuska ere hala dago landua bi hizkuntzetan, eta argitaratua gehienean bi zutabetan, elkarren parean gaztelaniaz eta euskaraz. Liburuko ohar gramatikal nahikoa ugarien artean, ez da hala ere ematen, bi hizkuntzen arteko ordenamendu berezitasunen berririk (ezpada-edo hizkuntza batek erabiltzen dituen posposizioen kasuan, *ipimpetceac*, zeinak bestean izango diren preposizioak, *leipintzac*: 33-37 orr., 2. arg.).[189] Esaldiko elementuen orden konparatuari buruz, eta bereziki aditzaren guneaz esaldian, ez da ezer esaten agerian. Eta Astigarragaren praktika, ez da ezer asko urrunduko, gu tradiziozkoa deitzen gatozen hartatik.

1.1.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.

Horrela, aditz nagusiak maiz, eta oso maiz, gordeko du esaldian, galdegaiaren aurreko gune bat, berau batere luzea den orduko, eta are zenbaitetan ondo laburra izaki ere. Hala nola egiten duen ezin garbiago, adibidez, *Esaldiaren Parte* bakoitza definitzerakoan:

> (1) Osichecá edo artikuloa da hitz labur bat, ... / El artículo es una palabra corta, que ... (2)
> (2) Icen egopearra dá hitz maillegay bat, ceñac ... / El nombre sustantivo es una palabra declinable que ... (5)
> (3) Icen elcarrá dá personen abereen, eta beste gauza guztien nolacodiac ... adierazotzeco serbitcen duena. / El nombre adjetivo es el que sirve ... (19)

Berdin egiten du beste parteekin ere: *Orticena da* ... (23); *Erasquitza da* ... (26); *Partartcea da* … (30); *Adverbioa da*… (31) (eta izen berezi guzti hauen erabileratik ere suma liteke, nola Astigarraga ez den bakarrik Larramendiren goraipatzaile, huts, baizik jarraitzaile lexiko fidel ere). Eta nahiz *eskuliburuko* adibidetegia ez izan oso ugaria, Astigarragak ematen ditu antzeko egiturak, beste hainbat egoeretan ere, nola adibiderako:

> (4) ... bederatzi parte oyen artean, batzuec dirade maillegayac, (eta besteac maillezgayac.) (1-2)
> (5) Parte mallegayagaitic adierazocen dira ..., berceguitzen diranac: ... (2)

---

[188] Besterik esan ezean beti arituko gara 1827ko argitalpen honetatik hitzegiten.

[189] Kuriosoa da ikuspuntu honetatik, Astigarragak *Adverbioari* egingo dion definizioa, honen kokagunea finkatuz aditzaren ondoren. Hala (31 or.): «Adverbioa da hitz edo esaldiaren parte maillezgai bat, gueyenetan erasquitzaren [*aditz* larramenditarraren] ondoren ifintcen dana, ...». Kontutan hartu beharko da ordea, Astigarraga ez dela ari euskal gramatika esplikatzen, baizik eta gaztelaua, non bai zuzenago aplikatuko litzatekeen halako gune bat. Gogora bedi kasurako, adberbioarentzako gune definizio berdintsua egiten dutela, Larramendik *Hiztegian* (nondik segurasko Astigarragarena) edo Cardaverazek *Eusqueraren berri onac* liburuan. Nahiz eta Astarloak, jada 1803rako aldarrikatzen duen, adberbioaren gune bezala euskal sintaxian, aditzaren aurrekoa, eta ez ondorengoa.

(6) ...: maillezgayac dirade, iñoiz berceguitcen edo mudatcen ez diranac. (2)
(7) ... hitz maillegayac dirade *osichecá, icena, orticena*, ... (2)
(8) Amar icen oec erac bacarric esaten diranean, bucatcen dira letra edo izquira *a* onetan, cerren ... (4)
(9) Euscarac ipimpetceac daucan [sic] bezala, gaztelaniac usatcen ditu leipintzac. / ..., el castellano usa de preposiciones (33)
(10) Nagusiac *eta* maisterrac, guztiac arquitcen ciran alcarrequin. / ..., todos se hallaban juntos. (39)
(11) Ezarteac dirade oec: *Ah; ay;* ... (42)

Adibideon bistara, Astigarragak ez du inolako arazorik, aditza eta galdegaia, gaztelaniaren gune beretsu batean emateko esaldian, Cardaverazen gomendioaz bestela. Ohargarriagoa, kontutan harturik, gaztelera ez dakiten euskaldunei ari zaiela.

1.1.2. Gaztelaniarekiko ordenamendu desberdintasunak Astigarragaren esaldietan.

Nolanahi Astigarragaren ordenazioa bi hizkuntzetan, ez da beti izango berdina. Ez, sintagma barrenetako ordenazio modu propioagoetan (genitiboa, ...); eta ezta ere aditz nagusiaren guneari dagokionean beti (nahiz bai gehienean), ikus litekeen bezala segidako adibidean, edota argigarri asko ere bigarrenean, *Kredotikoa*:[190]

(12) Jatea, *ta* edatea gauza bearrac dirade. / El comer *y* el beber son cosas precisas. (38)
(13) (Igo zan Ceruetara,) an dago eseriric Jangoico Aita guciz poderosoaren alde escuitic, ... / (..., subió á los Cielos,) está sentado á la diestra de Dios Padre todopoderoso, ... (68)

1.1.3. Astigarragaren aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Astigarragak, orain arteko adibide guztietan bezala, maiz beteko badu ere euskarazko aditzaren «Xà» fenomenorako joera, ez du horregatik eragozpen handiegirik izango, hainbat esaldi ere emateko, zuzenean, aditzaz hasiak, nahiz hauek nabarmen ere eraman galdegaia aditz ondoretik, suma litekeen bezala Astigarragak ematen dituen segidako adibideetan:

(14) Emango dit irabaci dedan saria cillarezco *edo* urrezco dirutan. (39)
(15) Joan deiquezu *noiz nai*. (40)
(16) Irabacico dezu oguia, bearreguiten *ba*dezu. (40)
(17) Joan da eicera jan duenean bereala. (41)
(18) Emango dizquizut liburuac, asco articasten *ba*dezu. (41)
(19) Egongo guera emen, bazcaria prestatcen duten *artean*. (41)

Hauezaz gainera baita ere beste *entendimentuzko aditzen*, beharbada, kasu arruntxeagoetan:

(20) Aditu det *ece* emacume ori laister ezcontcen dala. (39)
(21) Aguindu diote etorri dedin, ... (39)
(22) Galdetu dit *ea* etorrico ceran. (40)
(23) Esan diot *nola* zauden. (40)

1.1.4. Aditz trinkoak esaldi hasieran.

Astigarragak nolanahi, nahikoa lasai emango ditu aditz trinko zenbait ere, esaldi hasieran buruzuri. Eta orduan bai erabat hautsiaz, euskarazko aditzaren «Xà» fenomenorako joera guztiak, nola segidako adibideetan behintzat:

(24) Dirade bada.[:] / Osichecá, icena, orticena, ... (1)
(25) Da bada *leipintza* itz labur eta esaldiaren parte maillezgay bat, beste hitcen aurretic ifintcen dana, ... (33)
(26) Da itsasquida hitz edo esaldiaren parte maillezgay bat, ceiñac ... (37-8)
(27) Da ezartea hitz maillezgai bat, ... (41)

1.1.5. Astigarragaren mendeko esaldi hautsiak.

Ez dira ere faltako Astigarragaren adibideen artean, mendeko esaldi hautsiak; nahiz ez ugariegiak, kontutan harturik, adibideen laburra eta mendeko esaldien eskasia oro har. Bihoa baten bat erakusgarri, antzeko gehiago ere badirelarik:

---

[190] Non Astigarragak, gaztelaniaz esistitzen ez den konplementu berri bat erasten dion euskaraz, esaldi hasierako aditz trinkoari, honen «Xà», aditza bigarren, fenomenorako joeraren adierazle, aditz trinkoa buruzuri eman ordez esaldi hasieran (beste askok bai eman duten bezala, lasai asko nolanahi, testuinguru berean); baina lortuaz horrela, esaldiak egitura komunikatibo bere bat gorde dezan, nabarmen, bi hizkuntzetan.

(28) ...: nun icusten dan *el, la, lo, los, las*, dirala Gaztelaniaren osichecac: ... (3)
(29) Nere anayac esan dit etorrico cera*la* gaur. (39)
(30) (Ceiñ dirade?) Jaquitea cer sinistu bearduan, ... (66)
(31) (Nola jaquingo du cer sinistu bearduan?) Jaquiñarequin credoa edo articulo fedecoac. (66)

1.2. Astigarragaren ezezko aditz inbertsio gabeak.

Tradiziozko joskeraren ezaugarrietatik kanpo, aipa liteke Astigarragaren ezezko zenbait esaldiren ordenamendua, aditz konposatua inbertsio gabea emana, nola segidakoak behintzat:

(32) ...*baña* arc obeditu ez du. (39)
(33) Ecer esango ez diot zuc nai *ezpa*dezu. (40)
(34) (Ez dizut emango;) *bada* zuc biurtuco ez dirazu. (40)
(35) Iñorc ecarri ez du zuc *baicic*. (40)

Astigarragak nolanahi, ez ditu inbertsiorik gabe ematen, ezezko esaldi guztiak (goiko adibideen artean ere ikus litekeen bezala), nahiz bai asko proportzioan. Aditz trinkoekiko jokaeran berriz ez dugu sumatu aditzen atzerapen bereziegirik, Cardaverazen eskolako legean, nola eta ez den, segidako esaldi, ez horren bitxikoa:

(36) *Ez* jateco, *ez* edateco gogoric ez daucat. (39)

2. Aita Juan Mateo Zavala (1777-1840), eta bere Verbo regular vascongado-a (1848).

Aita Juan Mateo Zavala izan zitekeen kandidatu berria, Cardaverazen eskolako partaidetzarako. Bere lan, *Noticia de las obrras* [sic] *vascongadas que han salido a luz despues de las que cuenta el P. Larramendi*, 1856ean argitaratuan, bere heriotzaz geroztik, ondo kuriosoa gertatzen da irakurtzea, nola goraipatzen den *Cardaverazen estiloa*, eta oso bereziki honen (*hitzen*?) *kolokazioa*, honen obra juzgatzean (3 or.):

> 17. Cristauaren vicitza, traduccion de Dutari por el P. Agustin Cardaberaz: un tomito en 16º impreso en Pamplona por Castilla en 1790;[191] el vascuence de Cardaveraz no es muy puro; pero abunda de muy buenas expresiones, y tiene una colocacion tan airosa, que con razon merece ser leido, y especialmente el Dutari.

Bitxiki, antzeko balakua egiten dio gero Zavalak, Bartolome Olaechearen *Cristauben Dotriñiari*, Cardaverazi *jarraitzen omen zaiolakoan* puntu honetan (5 or.):

> 41. ...; un tomo en 8º de doctrina cristiana, y varias prácticas y ejercicios piadosos, sacados de las obras de dicho Cardaberaz, en vascuence poco puro, pero que conserva la hermosa colocacion del original.

Guk ez daukagu oraindik batere garbi, zer adierazi nahi zezakeen Zavalak, halako *kolokazio eder eta airetsuak* goraipatzean (nahiz beti susma genezakeen zeredozer).[192] Nolanahi, gogora liteke, nola Aita Zavalak ezagutu zuen Añibarro, Zarauzko frantziskotarren konbentu berean bizitzen,[193] eta ere, honen *Gramatica Bascongadaren* eskuizkribua, zeina erabili bide zuen bere aditz azterketa lanerako.[194] Beraz, segurutzat eman ahal da, Zavalak Añibarroren erreflexioa ezagutzea (honen *Gramaticaren* sarreran ere emana), euskarazko aditzaren *balizko ezaugarri pospositiboaz, Cardaverazen praktika honetaz*, eta Añibarroren esanetan, *baita ere Axularrena*.[195]

---

[191] Badirudi ez zela egin liburuaren inpresiorik delako urte honetan, eta bai aldiz 1760an, Zavalak aipatzen ez duena. Besterik gabe inprimategiko akatsa izan litekeen errata honetan oinarritu bide dira gerora, segurasko, bai Vinson, bai Palau (bere lehen argitalpenean), eta bai Pérez Goyena ere, beren bibliografietan emateko 1790eko balizko argitalpen honen berri, benetako 1760koaren ordean.

[192] Ik. gure lanaren atalak, Cardaveraz, edo Olaechearen gainekoak.

[193] Cf. Aita Villasanteren hitzaurrea Añibarroren *Gramatica bascongadaren* argitalpenari, *ASJU*, 1969, 8 or..

[194] Zeina utzi bide zion eraberean Fleury Lècluseri, honek jaso duela aitortzen dionez, Aita Zavalari, 1828ko Abenduaren 13an zuzentzen dion eskutitz batean (J. Ruiz de Larrinagak argitaratua, «EL Vascófilo Franciscano R.P. Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio Bio-Bibliográfico», *RIEV*, XV, 1924, 316-7 orr.).

[195] Añibarroren hitzak berriro gogoratzen baditugu (*Gramatica Bascongada*, *ASJU*, 1969, 14 or.): «De paso advierto que assi Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga assi, pues sale mas natural. No tuve este methodo presente en dos libritos que dí a luz *Esculiburua*, y *Lorategui espirituala*. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, ...».

Eta Aita J.M. Zavalak bere bizitzan ezer argitaratu ez bazuen ere, konposatu zuen, argitaratzeko prest, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* liburua, 1848ra arte argitaratuko ez zena. Bertan, Astarloaren 1803ko *Apologia* eta Larramendiren lanez gain, sarri (gor)aipatzen dira, Cardaverazen *Eusqueraren berri onac*, gramatika eredu bezala zenbait ataletan. Zavalak bestalde, maiz aipatuko du bere lanean, Larramendi (eta Cardaverazen) oihartzun, euskara eta gaztelerazko egituren arteko desberdintasuna.

Zavalaren adibidetegian ordea, Cardaverazenean bai bezala, ez dugu aurkituko, oro har, aditz atzeratze artifizialik euskaraz; eta ezta ere *kontrarako* ordenamendu ohargarriegirik euskara eta gaztelerazko segiden artean, Cardaverazek bere *tratadu txikian* gomendatu bezala. Eta izan ere, Zavalak, aurreiritziak aurreiritzi, liburuaren sarreratik gaztigatzen digu bihotzez, nola berak pisu handia eman nahi dion bere teorian, *euskararen benetako erabilerari*, eta ez horrennbeste, elukubrazio filosofikoei, zeinetara emanak diren Astarloak eta beste (II-III orr.):

> ...: yo mirando á nuestra lengua segun la usamos en el dia, ..., me he fijado por regla el hacerme entender de aquellos para quienes destino mi obra, acomodándome á veces con este intento á las ideas y espresiones recibidas, aun cuando no cuadren tan bien á nuestra gramática.

Gero, lanean zehar, inoizka bere asmaziozkoak ere tartekatuko dituen arren, badirudi oro har Zavalak nahiko kasu egiten diola *euskararen benetako erabilera honi*, suma litekeen bezala, bere adibidetegia osatzeko erabiltzen dituenean, oso maiz, euskal idazleen esaldiak, eta ez horrenbeste bere komenentziazko asmazio hutsak. Adibide bizkaitarrak emateko: J.J. Moguel, J.A. Moguel, Añibarro, Bartolome Santa Teresa, eta Aita Pedro Astarloaren euskal lanetatik atereak. Bestelako adibideak berriz, beste autore zenbaitengandikoak, nola bere *Noticia de las obras vascongadas*, ... lanean goraipatzen dituen: Duhalde, Larreguy, Mendiburu, Ubillos, J.B. Aguirre, eta besterenak. Noski, autore guzti hauek ontzat eman nahita, ezin erraz onartuko luke Aita Zavalak, nahita ere, euskal aditzaren balizko ezaugarri pospositiborik, egiatan, Aita Zavalak inon aldarrikatuko ez duena.

2.1. Zavalaren tradiziozko adibidetegia Verbo-an.

Zavalak liburuan zehar ematen dituen adibideen gain-azterketa batetik, erraz suma liteke hauen atxikimendua, tradiziozko hitz ordenemaneduaren moldeei, bere alde desberdinetan.

2.1.1. Euskarazko «Xà» fenomenoa, eta gaztelaniazkoen ordenamendu kontrajarrien adibideak.

Hala batetik, Zavalak jasotako adibideen artean, nahikoa usu agertuko dira, ordenamendu desberdintasun nabarmenak erakutsiko dituztenak bi hizkuntzetan, maiz emanez euskaraz aditzaren aurretik, ohizko «Xà» egitura batean, gaztelaniaz aldiz aditzaren ondoretik emandako konplementu hura. Hala segidako adibideetan, erakusgarri (bakarrik 2. orrialdetik atereak):

(1) Mutila yoan da. / Se ha ido el muchacho.
(2) Gure adiskidea cekena ta escu-eutsia eguin da. / Nuestro amigo se ha vuelto misero y tacaño.
(3) Nic echea eguin dot. / Yo he hecho la casa.
(4) Orrec sagarra yan gura leuke. / Ese quisiera comer la manzana.
(5) Ni arguia izaten naz. / Yo suelo ser claro.

Zavalak inoiz ere emango ditu jiratuta esaldiak bi hizkuntzetan, aditzaren aurretik emanez batean, doana bestean ondoretik, eta alderantziz. Nola segidakoan:

(6) Gurera etorri doa guizon ori. / Ese hombre suele venir á nuestra casa. (2)

2.1.2. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO (SVO) egiturak euskaraz ere.

Antzeko adibide, hainbat ugariak, gora behera, Zavalak maiz asko jasoko ditu horregatik, euskal idazleen adibideak ere, nabarmen asko daramatenak euskaraz aditzaren ondoretik esaldiko galdegaia, eta kasuan, gaztelerarekiko ordena berean, Zavalaren itzulpenean. Hala adibidez segidakoetan (goikoen 2. orrialde beretik):

(7) Necazaleac eguin dau bere lana. / El labrador ha hecho su labor.
(8) Nic erre nevan egurra. / Yo quemé la leña.
(9) Jaungoicoac eguin dau guizona. / Dios ha hecho al hombre.
(10) Mutilac billatuten evan achakia. / El muchacho buscaba escusa.
(11) Neure umeac eguin daroa esana. / Mi hijo suele hacer lo que le mandan.
(12) Jangoicoac aguinduten douscu alcar maite izan daguigula. / Dios nos manda que nos amemos mutuamente.

Antzeko egiturak ezin ugariagoak dira liburuan zehar. Hala entendimentuzko aditzak baldin badira, noiz ia salbuespenik gabe ere gertatuko den, nola beste zeinnahi moetatako aditzekin ere, azken esaldiotan bezala. Segidan jaso dugu antzeko adibide sail bat, beste atal batzuetatik, nahiz eman gabe kasuan Zavalaren (ordena bereko) itzulpena:

(13) Auzoco guizona beti dagocat eske; ... (11)
(14) Yudas-ec urcatu evan bere burua. (16)
(15) Caldea-'rrac, eta Erroma-'rrac erre even Yerusalen. (17)
(16) Yerusalen izan tzan Caldea-'rrac, eta Erroma-'rrac errea. (17)
(17) Yesucristo-c emoten dau bere odola. (18)
(18) Nic galdu izan dot zure seme izatea. (18)
(19) Abrahan hill izan zan eun ta irurogei eta amabotz [sic] urthetan. (18)
(20) Guizonic cascarrenari entzungo yaco sarrien. (19)
(21) Zuc berè eguin izango dozuz pecaturen batzuc. (19)
(22) Seme-alabac alperric izango eveen gurasoac'az. (19)
(23) Etorrico balitz fedearen contraco esetsiren bat, emon bearco guenduke bicitzea. (20)
(24) Augustok nai leukean amaitu guerra gogor, galgarri eta luce au. (21)
(25) Pilatos-enean eskiniko cendukeen sorbaldea, azoteac ertuteco. (21)
(26) Esan baleust, emon bearco neuskion zaldia. (21)
(27) David-ec busti eroian negar malcoz bere oea. (23)
(28) Agatic izaten da aimbeste nasaitasun. (23)
(29) Ceure aguirakea izaten zan neure oneraco. (23)
(30) Beti ibilten izan naz atseguinen billa. (24)
(31) Yangoicoac edeki deuscu umea. (61)
(32) I az Yangoicoaren Semeac cerutic lurrera ecarria: ... (164)

Emandako adibide hauetako asko dira, euskal tradizioan ohizkoen ere, izango dugun SAO (SVO) modukoak, Zavalak berak asmatutako besteok ere bezalaxe:

(33) Nosotros leemos el libro. / Guc iracurten dogu / yoagu / yonagu liburua. (36)
(34) Nosotros leemos los libros. / Guc iracurten doguz / yoaguz / yonaguz liburuac. (37)

Esan bezala, antzeko egitura izango da ohizkoen, aditzak entendimentuzkoak direnean eta konplementuz esaldi oso bat dutenean. Segidakoak adibide (28-9 orr.):

(35) Sacerdoteac bateatu danari dirautso, arimea loi bagaric eroan daguikeala.
(36) Yesus-ec aguindu eutsan Simon-i, eroan eguiala chalupea barrurago.
(37) Aingueruac esan eutsan San Yosepe-ri, biurtu cedila Israel-go errira.
(38) Trento-co Elesh-batzarrac aguindiu evan icas-bide-liburu au eguiteco, ...
(39) Cristo-c gura evan lotsea batac besteari euki eguion.
(40) San Agustin-ec gura evan cristiñauac comulgatu citeze-la domeca guztietan.
(41) Yaungoicoac nai dau gu onac izatea, ...

2.1.3. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Zavalak emandako adibideetako asko, euskal idazleei, edo herriari, hartuak izanik, ez da harritzekoa izango, hainbat zuzenean hastea aditzaz, nahiz galdegaia nabarmen asko segi eramaten, aditzaren ondoretik. Hala, bai entendimentuzko aditzak, nola zeinnahi moetatakoak ere, segidakoetan bezala:

(42) Artu bear dau guizonac biotz berri bat. (18)
(43) Estututen evan arerioac emacumea. (18)
(44) Yan evan Sanson-ec eztia. (18)
(45) Icusi evan lagunac, celan eleshatic urten evan zapo-errescadea, ... (18)
(46) Emon izandu cion Jesus-i belakia españetara. (18)
(47) Egongo da beste bat lagunagaz gorrotoan ... (19)
(48) Gura neuke entzun ... (20)
(49) Uste neunke orregaitic dala: ... (20)
(50) (Bularretic dagoan batec edocein gauza eguingo leuke osatuzearren,) yoango litzateke Londres-era-guiño. (20)
(51) Yakin nai neunke ea orrec iños onenbat eguin baleusket. (22)
(52) Ichi eukean sacramentu bacar bat munduco baster baten. (22)
(53) Il nintzatekean, yaio baño leen. (22)
(54) Artuten izan dogu indar gueiago. (24)
(55) Aguindu evan Trento-co Elesh-batzarrac eguin ceitekeala icasbide liburu au, ... (28)
(56) Nai leuke ama maite onec edonon icusi daguigun irudi au, ... (28)
(57) Nai neuke pecaturic ez eguitea. (29)

(58) Entzun daite galbide andiagoco gauzaric. (31)
(59) Egon leite damu sendo bat. (31)
(60) Nai dau Yaunac bere eriotzea izan dedin, guizonec igaro al leikean lotsagarriena. (32)

2.1.3.1. Aditz trinkoak esaldi hasieran.

Asko izango ez badira ere, Zavalak jasotzen ditu halako adibide bi bederen (gure tradizioaren proportzio beretsu batean agian), kasuan entendimentuzko aditzak. Dira (lehena J.A. Moguelena; bigarrena J.J. Moguelengandikoa):

(61) (Egongo da beste bat lagunagaz gorrotoan,) ta dirautsa confesoreac. (19)
(62) Dirautsuet neure semeac yausi ez zaitekezala pecatuaren lakioan. (28)

2.1.4. Mendeko esaldi hautsiak.

Zavalaren adibidetegiko esaldiak oro har nahikoa laburrak izanik, ez dira bertan gehiegi ematen mendeko esaldi hautsiak, gehiegi ere ez diren bezala, oro har, mendeko esaldiak, nahiz bai izango diren hauen proportzio handi bat. Jaso dugu jada halako adibide hainbat, goiko esaldi konpletibo eta zehar galderen artean. Segidan bestelako batzuk (batez ere baldintzazko):

(63) Cerbait esaten baleutsue ceure icen onaren contra, ... (20)
(64) Eleazaro-c eguin daguiala yaten baleu leguez. (20)
(65) Nic gura baneu apaindu. (20)
(66) Guraso batec aguinduco baleuskio umeari. (20)
(67) Ediro izan bacina Yesemani-co ortuan. (21)
(68) Campocoren bat azartu izan balitz esaten. (21)
(69) Nic emon bearco beneunskion zaldia. (21)
(70) Egon balitz leguez Yangoicoa bere artean, ea celan atera leian bere escuetatic guizona. (31)

2.2. Aditz atzeratze arrastoren bat Zavalaren adibide propioetan? Agian.

Garbi da dagoeneko, Zavalak ez duela jarraitzen, Cardaveraz-Añibarroren aholkurik, aditza atzeratzeko esaldian. Ez besteren adibideak jasotzen dituenean, eta ezta ere bere propioak ematean. Halaz guztiz, beharbada suma liteke azken hauen artean, joera nabariago bat aditza atzeratzeko, eta egiturak gaztelaniaren kontrara-edo emateko (nahiz eta adibideak, oro har, ez diren izango horregatik, gure tradiziozko ohituretatik kanpokoak). Jasoko ditugu hala ere segidan, bitxienetako batzuk, izan litezkeen neurrian, Zavalaren balizko joera honen erakusgarri:

(71) Tú nos ofreces á Dios en el templo. / Jaungoicoari eleshan eskiniten gôzac. (8)
(72) Urliac aldicada atan adiskide ori echean sarri artuten izaten neroakean, ... (24)
(73) Guizon orrec gauza ghichi izaten izan leukean, ... (25)
(74) Aldi atan guizon orrec edocein Yangoicoarrengo echean artuten izaten leukean, ... (26)

2.3. Zavala P. Astarloaren Verbaldiac zuzentzen (aldatu gabe honen aditzaren aurreguneak).

J.M. Zavalak hil ondoan utzitako eskuizkribuen artean aurkitzen da, berak Aita Pedro Astarloaren *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* obrari eginiko zuzenketa lan bat, *Adiciones y correciones a la obra "Urteco domecac" del P. Astarloa* izenarekin gordea, Zarauzko frantziskotarren etxean. Guk ez dugu aukerarik izan berau osorik ezagutzeko, baina Aita P. Arangurenek ematen du honen berri Astarloari buruzko artikulu batean,[196] eta bertan jasotzen dira, besteak beste, Astarloaren eta Zavalaren testuen hiru pasarte labur, parez pare. Aita Villasantek dioenez (*HLV*, 245 or.): «*Las correcciones del P. Zabala son en sentido purista generalmente, y tambien en el empleo del verbo*». Agian ez gehiago. Ez hitzen ordenamenduari dagozkionak bereziki. Bada, ezagutzen ditugun hiru pasarte horietan ere suma litekeenez, Zavalak ez ditu ezer asko aldatzen Astarloaren tradiziozko aditz gune, nahikoa aurreratuak, esaldian. Batetik, galdegaia entendimentuzko aditzaren ondoretik daramatenak:

(75) Verba onetan sinistu eta aitortu biar dogu; ... irago evala Jesu Cristoc ... (317)
(76) Auxe da adierazo ta ulertu eraguin gura doguna, ... (318)
(77) Baña jaquin biar doguna da ce, ez bacarric atera guenduzala lenengo gurasoen pecatutic, ... (318)

---

[196] «Aita Astarloa, euskal idazlea. 1748-1821», *EGAN*, 1957, 309-327 orr.

Eraberean inolako eragozpenik gabe emango ditu Zavalak, Astarloak zuzenean aditzaz hasten dituen esaldi guztiak:

(78) Azalduten da Credoco laugarren articuluba. (317)
(79) Irago edo padecidu evan Poncio Pilatosen aguindubaren beian: ... (317)
(80) ...: izan tzan curutzian yosija, ila ta enterraduba ... (317)

Eta inolako eragozpenik gabe jasoko ere ditu ordenamendu berberean, Astarloak erabat hautsita ematen dituen mendeko esaldi guztiak:

(81) Gura badau abade-Maisu jaunac berbaldija asi Domecaco Ebanjelijoagaz ... (317)
(82) (... aitortu biar dogu; ...,) irago evala Jesu Cristoc pasinoeric itzaltsubena ... (317)
(83) (Auxe da) adierazo ta ulertu eraguin gura doguna, dinogunian, Jesu Cristo il zala, gu pecatutic ateratearren. (318)
(84) (Baña jaquin biar doguna da ce,) ez bacarric atera guenduzala lenengo gurasoen pecatutic, ... (318)
(85) ... beronegaz garbitu evazalaco, guizon gustiac eguin citubezan eta gueroco aldijetan bere, pecatubacaz eguingo zitubezan zorrac. (318)

2.3.1. Bada aditz atzeratze bat ere.

Eragiten du hala ere behin Aita Zavalak, nolabaiteko aditz atzeratze bezala juzga litekeen adibide bat, nahiz ez den esanguratsuegia (lehenengo esaldia Astarloarena):

(86) (Gura badau Arimazain edo Cura Jaunac,) asi Verbaldi, edo Platiquia Domecaco Ebanjelijuagaz ... (317)
(Gura badau abade-Maisu jaunac) berbaldija asi Domecaco Ebangelijoagaz ...

2.4. Zavalaren prosa propioa.

Ezagutzen dugu nolanahi, Zavalaren eskutitz bat behintzat, euskaraz egina, Abandoko Jose Pablo Ulibarri euskalzaleari, 1826ko Martxoaren 1ean.[197] Bertako hizkera ere, bere laburrean, ez da urrutiratzen gure tradiziozko moldeetatik. J. Urquijok transkribatzen dituen bi lerrokadetan, aurki litezke, besteak beste, behintzat segidako bost esaldiak, nabarmen erakusten dutenak beren galdegaia aditzaren ondoretik emana:

(87) Euskaria dabil saki eginik guztien ostikapean, iñok pere ikusi gura eztabela: ... (228)
(88) Antxinako ipuiñeko leoi zarrari legez, batak emoten deutso adarkadea, (besteak ostikadea, ...) (228)
(89) Zeu baxen maite ta laztan balabee besteak, asko izango litzatekez aterako leukezanak euskarazko liburuak: ... (228)
(90) ...: eta onek ilten deutse gogoa eukiko leukenak bere. (228)
(91) Au da nigaiti entzun dozun guzur eskergtxarraren ganean esan bear deutsudana. (229)

Bestalde, hirugarren adibide horretan ikus litezke, azpimarratutako bi aditzek osatzen dituzten mendeko esaldi hautsiak. Azkenik, eskutitz zati horretan, Zavalak ematen du aditz laguntzaile bat ere, aurreratuta, bere aditz partizipio nagusiari. Segidakoa:

(92) ...: eta ondo gitxi dau maite, ... (228)

Bestelakoan, Aita Zavalaren prosa bideak zabalago ezagutzeko aukera, beharbada eman lezake, Aita Villasantek bere *Literaturaren Historian* aipatzen duen sermoi liburu eskuizkribatu batek, agian Zavalarena izan litekeena,[198] baina guk oraindik ezagutu ez duguna.

---

[197] Jose Pablo Ulibarriren gutun liburu eskuizkribatuan gordea, eta honen zati bat eman zuen argitara Julio Urquijok 1915ean (*Euskalerriaren Alde*, V, 1915, 228-9 orr.), nondik jasotzen ditugun gure aipuak. Orain urte gutxi batzuk ere argitaratu zuen, lujo guztiz, Arabako Diputazioak, Ulibarriren *Gutun-liburu* osoaren faksimila, transkripziorik gabe, ezer gutxi uler litekeelarik asko kosta gabe, ...

[198] Hala esaten du Aita Villasantek (*HLV*, 245 or., 89. oh.): «Un libro manuscrito de sermones en dialecto vizcaíno, que vino a parar a los Pasionistas de Irún -por habérselo regalado, según parece, un cura de Lemona a un Pasionista en su primera misa-, aunque no tiene nombre de autor, por la caligrafía y otras cualidades internas del mismo, puede darse por descontado que es también del P. Zabala.»

3. A. Pascual Iturriaga (1778-1851), ezin tradiziozkoago praktika bat 1842ko Jolasetan. Nahiz adibidetegi berezi samar bat ere bai, 1841eko Artean.

Ernaniko gipuzkoarra, Aita Cardaveraz bera bezala, A. Pascual Iturriagak 1841eko urtean ematen du argitara, lehenago Astigarragak urratu bide beretsutik, bere lehen lana euskararen inguruan: *Arte de aprender á hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa.* Lan honen bistara, behin baino gehiagotan pentsatu dugu, ez ote geunden berriro Cardaverazen jarraitzaile berri baten aurrean. Iturriagak garbi uzten du liburuskaren izenburu beretik, zein den honen lehen asmoa. Liburuak ordea, ez du lortuko Astigarragarenaren arrakasta, eta ez da agidanean berriro argitaratuko. Honen konplementu bezala, Iturriagak hurrengo urtean (1842) argitaratuko ditu, bere beste bi lan ezagunagoak: *Dialogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa,* euskaraz *Jolasak* deitu ohi direnak, eta, *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*, euskaraz *Ipuinak*.

Eta izan ere, Iturriaga ondo konszientea da hasieratik, bi hizkuntzen arteko *jeinuaren* desberdintasunez, 1842ko *Jolasei* eginiko *prologoan* esango duen bezala (Larramanediren *Hiztegi sarrerako* hitzen oihartzun-edo) (1842, I or.):

> Sin embargo son estos tanto mas necesarios [*Jolasak* bezalako bitarteko auxiliarrak hizkuntza bat irakasteko] cuanto que el genio del romance es diametralmente opuesto al del bascuence. ... Su lectura diaria los grabará bien pronto en la memoria de los chicos, y pondrá á estos en disposicion de empezar á hablar en castellano sin la ridicula gerigonza á que dan origen la falta de voces, y la diferencia de la sintásis de una y otra lengua.

3.1. Iturriagaren Arteko ordenamendu ezaugarriak

Hala ere, Iturriagak ez du ematen batere ohar agiririk *Artean*, bi hizkuntzen arteko hitzen ordenamendu desberdintasunez. Bertan, kurioski, euskal deklinabidea, eta aditz jokua erakusten dira, batez ere. Eta euskarazko esaldi adibideak, ugari baino ugariagoak dira liburuan zehar, denak beren gaztelaniazko itzulpen zuzenarekin. Eta beharbada atera liteke ondoriorik, berauen azterketatik.

3.1.1. Iturriagaren «Xà» moduko adibidetegi sistematikoa Artean.

3.1.1.1. Aditzak esaldi bukaeran adibidetegian.

Cardaverazen jarraitzaile sutsu bailitzan, Iturriagak *Artean* ematen dituen adibideen ezaugarri oso nabarmena izango da, aditzak sistematikoki ematearena, esaldi bukaeran, eta gaztelaniazko itzulpenaren kontrarako ordenamenduan. Adibide gehien hauek izango dira, soilik, aditza eta beste konplementu bakar batez osatutakoak, segidakoen modukoak:

(1) Guizona dator / viene el hombre (2)
(2) Guizonàc dio / lo dice el hombre (2)
(3) Guizonarena da / es del hombre (2)
(4) Guizonari eman diot / se lo he dado al hombre (2)
(5) Guizonarentzat da / es para el hombre (2)

Eta hala modukoetan bada euskaraz ohizkoa aditzak, «Xà» egitura batean gordetzea, esaldiko bigarren posizioa. Baina Iturriagagan suma liteke antzeko aditz atzeratze sistematikoa, esaldi luzexeagoetan ere, nahiz beti ariko garen jokatzen, oso oso esaldi predikatibo laburretan. Horrela, segidako esaldi/itzulpen hauen itxurakoak ere, beti nahikoa ugariak, eta gu adierazgarrienak-edo saiatu garelarik jasotzen:

(6) Ni ona naiz / yo soy bueno (4)
(7) Gu aberatsac guera / nosotros somos ricos (5)
(8) Zuec bearrac cerate / vosotros sois pobres (7)
(9) Guizon hura galanta da / aquel hombre es hermoso (8)
(10) Basò aiec neriac dira / aquellos bosques son mios (9)

(11) Ogui ori zuria da / ese pan es blanco (14)
(12) Batzuec baietz diote / unos dicen que si (47)
(13) Batzuequin ondo daduca / está [sic] bien con unos (48)
(14) Bacoitza beretzat ona da / cada cual es bueno para sí (50)
(15) Bacoitzarequin bere chandan dijoa / va con cada cual á su vez (50)
(16) Bacoitzagatic bi bider joan naiz / por cada cual he ido dos veces (50)
(17) Adisquide asco izatea on da / Es bueno tener muchos amigos (62)
(18) Cintzoa izateco dembora da / Es tiempo de tener juicio (62)
(19) Idoropenen bat izatera dijoa / Va á tener algun encuentro (62)
(20) Osasuna izanic naiquide nago / Con tener salud estoy contento (62)
(21) Doai au bidaldu dionac beste bat bidalduco dio / El que ha enviado este regalo se lo enviará otro. (75)
(22) Asco janac osasuna galtzen du / El mucho comer hecha á perder la salud (76)

3.1.1.2. Esaldi jiratu batzuk ere euskaraz eta gazteleraz.

Bai baitira Iturriagaren adibidetegian esaldi gutxi batzuk ere, aditza euskaraz esaldi bukaeran ematen ez badute ere, bai nolabait konplementuak jiratzen dituztenak, aditz aurre edo atzera, beren gaztelaniazko itzulpenaren aldean, eta ziur aldatuaz, esaldi hauen egitura komunikatiboa bi hizkuntzetan. Itxuren arabera, emanez euskaraz, galdegaia edo esaldiko prediku nagusia, aditzaren aurretik; eta gazteleraz berriz ondoretik. Halako adibideak izan litezke segidakoak behintzat:

(23) Unchi orrentzat da zaia / el salvado es para ese conejo (14)
(24) Chori orrequin jostatzen da aurra / el niño se divierte con ese pàjaro (14)
(25) Begui orientzat dira negarrac / las lagrimas son para esos ojos (15)
(26) Aur orientzat dira sagarrac / las manzanas son para esas niñas (15)
(27) Berocgatic nago onela / estoy asi por ustedes (39)
(28) Bacoitzagan dago ori / eso está en cada cual (50)
(29) Egoten dijoaquio dembora / Se le va el tiempo estando (67)

3.1.2 Aditz atzerapen artifizialak ere bai Iturriagaren adibidetegian?

Orain artean jasotako adibideak, direnak direla, ez dira inola, banan bana hartuak, inolako aditz atzeratze artifizialen adibide. Nahiz agian bai izan litekeen zerbait susmagarrixeagoa, aipatu Iturriagaren sistematizazio ia erabatekoa. Baina, beharbada dago hori ere zuzenean lotuta, Iturriagaren euskal deklinabidea erakusteko moduari, izen deklinatuak emanez, erakusgarri, esaldiaren hasieran (eta hala, aditzak, ondoretik bakarrik). Badira nolanahi *Artean* barrena, bestelako aditz atzeratze zenbait ere,ez direnak orain arte aipatuak bezain *naturalak-edo* euskaraz, eta agian bai sala lezaketenak beraiek bakarrik ere, Cardaverazen eskolaren eraginen bat.

3.1.2.1. Aginterazko aditzen atzeratzeak.

Halako atzerapenen artifizialtasun nabarmen bat suma liteke, *Arteko* aginterazko adibide gehienen kasuan. Nola segidakoetan:

(30) Zacur oyec il ditzatzu / mata esos perros (9)
(31) Ille oni beguira eguiozu / mira á este pelo (11)
(32) Escu oni eldu eguiozu / agarra á esta mano (11)
(33) Beor oiei jeitaldia emaiezu / da pienso á estas yeguas (12)
(34) Idi oientzat cerbait ecartzu / trae algo para esos bueyes (12)
(35) Bei oientzat jaten ecartzu / trae de comer para estas vacas (12)
(36) Aquer oyequin mendira zoaz / vete al monte con estos cabrones (12)
(37) Auntz oyequin echera zoaz / vete á casa con estas cabras (12)
(38) Liquele ori ecarzu / dáme ese pañuelo (14)
(39) Labana ori ecarzu / trae esa navaja (14)
(40) Mutill orretzaz oroizaitez / acuérdate de ese muchacho (15)
(41) Galz oriec jantzi ditzazu / ponte esos pantalones (15)
(42) Galtzerdi oriec erantzi ditzazu / quitate esas medias (15)
(43) Lagun oiequin zoaz echera / vete á casa con esos compañeros (15)
(44) Edoceiñi emaiozu / dáselo à cualquiera (44)
(45) Bacoitza bere chandan bialtzazu / envia cada cual á su turno (50)

3.1.2.1.1. Aginterazko aditz aurreratuak ere.

Nahiz aurki litezkeen Iturriagaren adibideen artean, aginterazko aditzen batzuk, goikoak baino ordenamendu ohizkoxeago batean. Hala:

(46) Zaldi oiei emaiezu edaten / dáles de beber á estos caballos (12)
(47) Utzi zadazu jaten / Déjame comer (76)
(48) Laja zaiozu loac artzen / Déjale dormir (76)
(49) Ez quendu jatea / No le quites el comer (76)
(50) Ez quendu ori / No quites eso (76)
(51) Quendu ortic / Quitate de ai (76)

Pentsa liteke nolanahi berriro, eta ezaguturik Iturriagak atzeratutako aginterak ematen dituen testuinguruak, ez ote dituen hala ematen, prezeski esaldi hasieran erakusteagatik, bera une horretan azaltzen ari den deklinabide kasuko izen bakoitza; eta ez bestegatik. Izan ere, deklinabidean ari ez denean (nola 76. orrialdeko adibide guztiotan), ez da jada izango Iturriagaren ordenamendu ohizkoa, aginterazko aditzak atzeratzea.

3.1.2.2. Beste aditz atzeratze artifizialen bat ere?

Beharbada, izan liteke oraindik beste aditz atzeratze bitxiren bat Iturriagaren adibidetegian, nahiz eskasagoa. Hala, beharbada juzga zitekeen atzeratze bezala, segidako ezezko bi aditz trinko hauena:

(52) Lagun hura gabe ez dagoque / no puede estar sin aquel compañero (9)
(53) Zaldi au gabe ez dijoaque / no puede ir sin este caballo (12)

Ordea, aginterazko kasuetan bezala, izan litezke bi atzeratze berezi samar hauek, frutu, berriro, Iturriagaren deklinabidea esplikatzeko aukerarena. Bada bestelakoan, nahikoa ordenamendu arruntean emango ditu, adibidetegiko beste ezezko aditz trinkoak:

(54) Ez daqui guitarra jotzen (76)
(55) Ez nequien irabacico ote guenduen (77)
(56) Ez da iñor aiñ gaistoric beretzat ere danic (78)

Kontutan hartzekoa da bestalde, Iturriagak ez duela behin ere ematen *Artean,* ezezko aditz perifrastiko inbertsiorik gabe, bestela normala izango litzatekeen bezala, Cardaveraz/Larramendiren arrastoa segituko balu puntu honetan.[199]

Atal honekin bukatzeko, agian juzga zitezkeen atzeratze bezala, segidako adibide biak. Bata, *BA-* aurrizkidun aditz trinkoarena galdera batean; bestea, entendimentuzko aditzarena:

(57) Emen egoteco arpeguia badezu? (67)
(58) Eritu ceran damu det / Siento que hayas enfermado (78)

3.1.3. Adibide ezcardaveraztiarrak-edo Artean.

Ez dira nolanahi aurreko guztiak, nahikoa froga izango, Cardaverazen eskolaren eragin zuzenik ziurtatzeko Iturriagaren lanean. Are gutxiago, baditugunean bestalde nahikoa arrazoi ere, eskola honen eraginpetik kanpo uzteko Iturriagaren lana. Bat, *Artean* bertan aurkituko ditugun adibide ez-cardaveraztiarrak (inoiz ez hala ere ugariegiak), eta segidan ikustera goazenak. Beste arrazoi, pisu gehiagoko bat, aurkituko dugu, Iturriagaren hurrengo urteko *Jolasetako* idazkera tradiziozkoan, berrikuntza haundirik gabekoa.

3.1.3.1. Esaldi ordenamendu berdinak euskaraz eta gaztelaniaz.

Artean adibide gehientsuenak emango badira ere, aditza atzeratuaz euskaraz, eta gaztelaniaren alderantzira, ez da izango inoiz, salbuespen esanguratsu ugaririk gabe. Eta hauen multzo bat, Iturriagak euskaraz aditzaz bestela bukatzen dituen esaldiena, baina ordenamendu bere bat erakutsiaz bi hizkuntzetan; beraz, bietan erakutsiaz egitura komunikatibo berdintsua. Zenbaitetan sumatu ere egingo da, bi hizkuntzetan, aditzaren aurreko elementua ote den, elementu predikatibo nagusiena. Beste batzutan berriz, ez da batere garbi geratuko, bi hizkuntzetan, zein den egitura komunikatiboa, zein izan litekeen esaldiko elementurik predikatiboena; eta zein gune gordetzen duen honek esaldian aditzarekiko. Halamoduzkoak izan litezke behintzat segidako esaldi guztiok:

(59) Seme oyengan dago nere zoriona / en esos hijos esta mi dicha (13)
(60) Alaba oyengan dago nere izatea / en estas hijas está mi ser (13)

[199] Ezagutzen diogu hala ere halako esaldi bat bederen *Jolasen* artean, lan honetan bertan aurrerago ikusiko dugun bezala.

(61) Agure orregatic dago orrela / por ese viejo está asi (14-5)
(62) Atso orregatic dago órrela / por esa vieja esta asi (15)
(63) Guizon orrengan dago zure zori ona / en ese hombre está tu dicha (15)
(64) Emacume orrengan dago gure izatea / en esa muger está nuestro ser (15)
(65) Sasizozo oiei eman dizcatzute guingac / á estos mirlos habeis dado guindas (19)
(66) Zozo oiecgatic zoaz guinga billa / por estos tordos vas por guingas (19)
(67) Chori arre oiegatic joan cera eicera / por estas calandrias has ido á cazar (19)
(68) Guizon oiengan dago zure zori ona / en estos hombres està tu dicha (19)
(69) Andre oiengan dago zure esperantza / en estas mugeres està tu esperanza (19-20)
(70) Ori da zure aitona / ese es tu abuelo (21)
(71) Ori da zure amona / es esa tu abuela (22)
(72) Seme orri ecarri diozu gorroa / á ese hijo has traido el gorro (22)
(73) Alaba orri ecarri diozu orracea / á esa hija has traido el peine (22)
(74) Illoba orrentzat dezu jazcaia / para ese sobrino tienes la ropa (22)
(75) Illoba orrentzat ecarri dezu aicemallea / para esa sobrina has traido el abanico (22)
(76) Guizon orrequin zabiltza aucitan / con ese hombre andas pleiteando (22)
(77) Herorrengan ceaucan esperanza / en ti misma tiene la esperanza (28-9)

Har bedi nolanahi kontutan berriro, adibide guzti hauek egon litezkeela nahikoa baldintzaturik, deklinabide kasu zehatzen baten erakutsi nahiarengatik.

3.1.3.2. Galdegaia aditzaren ondoretik eta AO (VO) egiturak.

Beste batzutan berriz, garbiago geratuko da bi hizkuntzetan, aditzaren ondoko konplementua dela, prediku nagusiagoa, aurrekoa baino, nola gertatzen den maizago, behin Iturriagak deklinabideko adibideak erakusten bukatzen duenean, liburuskaren azken partean. Hala moduzkoak izan litezke segidako esaldi guztiak, dela SAO (SVO) egitura jarraitzen dutelako (lehen bi adibideetan bezala; eta jaso ditugu beste batzuk aurreko ataleko adibideen artean ere), zuzenean aditzaz hasten direlako, entendimentuzko aditzak direlako, edota bestela ere, bakoitzaren zentzu propioarengatik (esaldietako batzuk bederen izan litezke Larramendiren *Arteko* oihartzunak):

(78) Catu orrec edan du ura / ese gato ha bebido agua (14)
(79) Catu orrec edan du esnea / esa gata ha bebido leche (14)
(80) Edoceiñ da zu aimbat / cualquiera es tanto como tú (44)
(81) Bacoitzac badaqui cer eguin / cada cual sabe lo que ha de hacer (50)
(82) Bacoitzari etorrico zayo bere zatia / á cada cual llegará su San Martin (50)
(83) Nai nuque izan diru asco / Quisiera tener mucho dinero (62)
(84) Damu det ishilic egona / Me pesa haber estado en silencio (67)
(85) On da bear aimbat jatea / Es bueno comer lo necesario (73)
(86) Ori da ura eman dizuna / Ese es el que te ha dado agua (75)
(87) Ustedu guc artu diogula / Piensa que se lo hemos tomado nosotros (77)
(88) Esandit jan duela / Me ha dicho que ha comido (77)
(89) Esan diot jango nituqueala / Le he dicho que ya los comeria (77)
(90) Aditu det ece ezcontzen dala / He oido que se casa (77)
(91) Galdez dago ecarri diozun / Está preguntando si se lo has traido (77)
(92) Jaquin naidu ea icusi dezun / Quiere saber si le has visto (77)
(93) Aiñ da ederra non garaitzen du eguzquia / Es tan hermoso que aventaja al sol (78)
(94) Aimbat necatu zuen non eztandarazo cion / Tanto le fatigó que le hizo reventar (78)
(95) Aimbeste nai diot ece zoratuco naiz / Tanto le quiero que me volveré loco (78)
(96) Atseguin det osatu zaituztela / Me alegro de que te hayas curado (78)
(97) Miratzen naiz eman dizutela / Admirome de que te lo hayan dado (78)
(98) Urrical zayo quendu dizquitzutela / está arrepentido de habérselos quitado (78)
(99) Pocic nago ceren ecarri didazun berri on bat / Estoi contento de que me has traido una buena noticia (78)
(100) Damucor nabill ceren nere echea eguin dan / Ando pesaroso de haber levantado mi casa (78-9)
(101) (Lotsatzen nazu:) ain zabiltza ciquiña eta liquitsa / (Me avergüenzas:) tan sucio y puerco (79)
(102) Bidean cetorrela ebatzi zioten zaldia / Viniendo de camino le hurtaron el caballo (79)

3.1.3.2.1. Baizik partikularen aurre gune bat esaldian.

Azken adibidea bera bezala, Iturriagak jasoko du Larramendigandik segidakoa ere, emanez *BAIZICAN* partikula, lotzen duen esaldi zati laburraren aurretik:

(103) Ez dirudi baicican arrizcoa dela / No parece sino que es de piedra (79)

3.2. Iturriagaren Jolasetako prosa tradiziozkoa.

Iturriagaren *Arteak* arrakasta handirik gozatuko ez badu ere, bai egingo dira ezaguntxeagoak bere *Fabulak* bertsotan, eta bere *Dialogoak* hitz lauz. Azken hauek, besteak beste, Bonaparte Printzeak berragitaratuko dituelako 1857an, beste hiru euskalkitara itzuliak, eta frantzesera. Iturriagak hauetan segitzen duen hitzen ordenamendua, ez da ezer asko urrunduko gure molde klasikoetatik, eta bai aldiz, zeharo, Cardaverazen eskolako berrikuntza gordinetatik, eta *Arteko* adibidetegi bitxitik. Eta hala, esate baterako, ez dugu aurkituko bertan, oro har, aditza atzeratutako aginterazko esaldirik.

3.2.1. Galdegaiak aditzaren ondoretik.

Iturriagaren *Jolasetako* aditzek, oro har, esaldiaren nahiko aurrealdeko gune bat gordeko dute. Egitura arrunta izango da, galdegaia erakustea, aditz ondoretik; eta are arruntena ere galdegaia edo esaldia batere luzeak diren orduko (eta ez orduan bakarrik). Adibideak esaldiz esaldi aurki litezke, zeinnahi orrialdetan. Hala nola segidakoak erakusgarri, soilik lehen jolaseko lehen lerrokada narratibotik atereak (1842ko argitalpenetik; lan honen ERASKIN I bezala jasotzen dugu lerrokada osoa):

(104) (Bada inguma mota bat zuria eta lodia.) Onec eguiten dituen arraultcetatic irteten dira ar guztiz chiqui batzuec. (2)
(105) Bereala asten dira masust arbolen ostoa jaten. (2)
(106) Jaten dijoacen becela dijoaz anditzen. (2-3)
(107) Orduan asten dira aotic botatcen lerdia armiarmac bezala. (3)
(108) Onela guelditzen dira lirdizco boltsa edo zorro baten barrenen. (3)
(109) Boltsa edo zorro oni deritzayo capulea. (3)
(110) Capuleac ifintcen dira ur iraquiñean ... (3)
(111) ..., eta dauden lecutic atera gabe dijoaz ascatcen. (3)
(112) Matazuran izpia artuaz, eguiten da mataza, ascatzen dijoan becela. (3)

Bigarren *Jolaseko* lerrokada narratiboari helduta, adibideak ez dira ez gutxiago, eta ez ere gutxiago esanguratsuak (ERASKIN IIan jasotzen dugu lerrokada osoa):

(113) Jateco becin ona da eztia oscaitaco. (6)
(114) Costomia dan orduan artcen da eztia urarequin. (6)
(115) Erusquitiac janarazten dute ascotan bazcal aurrean gorputzetic libratzeco. (6)
(116) Onequin eguiten dira arcaiac, ezcoztuac, eta emplasto moet asco. (7)
(117) Erleac jayotcen dira ingumac becela, ... (6)
(118) Loreetan arquitzen dute eztiaren eta arguizaguiaren gaya. (7)
(119) Lorearen iriñarequin eguiten dute arguizagia: ... (7)
(120) Iriña biltcen dute lore gañean atceco zancoac arrastaca erabiliaz. (7)
(121) Zancoetan dituzte zanco zorro mota batzuec. (7)
(122) Ezadea chupatcen dute muturrean duten trompa batequin. (7)
(123) Ezadearentzat dute urdail bat ... (7)
(124) Iriñarentzat dute beste bat, ... (8)
(125) Guero aotic arguizaguia boteaz, dijoaz abarasca eguiten. (8)
(126) Abarasca eguiña dagoan orduan, betetzen dituzte onen chuloac eztiz. (8)

Aipatu prologoko oharra gorabehera, bi hizkuntzen arteko *jeinu* desberdintasunaz, esaldi guzti hauen gaztelaniazko itzulpenak ez du erakusten euskarazkoen egitura komunikatibo desberdinik, edo alderantzizkorik. Ezta ere segidako atalekoak.

3.2.2. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Iturriagak gainera, gure tradizio guztian bezalaxe, nahikoa maiz ematen ditu, aditzak zuzenean esaldi hasieran, nahiz eta hauek zenbaitetan nabarmen asko eraman ere esaldiko galdegaia ondoretik. Hala nola (lehen bederatzi jolasetatik):

(127) Naico nuque cerbait esango bacendu aberecho batzuen gañean. (1)
(128) Botatcen dute arbolen arbaztetan beren buruen giran. (3)
(129) Artcenda izpi bat, eta ... (3)
(130) ..., eta jaten dute eztia. (7)
(131) (Oietatic irteten dira arrac) eta eguiten dituzte cibotac, beren barrenen guelditzen dirala. (13)
(132) (Goseac eraman zuen ondarrera) eta asi zan mascor jaten. (13)
(133) Biurtzen zan bere muturra guztia gorritua zuela. (13-4)
(134) Icusi zuen gambusia zala odola cirudiena. (14)

(135) ...; bear ditu ere izan, guibela, barea, eta guiltzurriñac. (16)
(136) Arritu ciñan joan dan egunean cembat on aberecho batzuei zor diotegun icustean. (17)
(137) Naico nuque, Basilio, cerbait jaquin chingurrien gañean. (48)
(138) (Bai,) eta sartzen dira gari alean barrenen, frutan bezala. (22)
(139) Bear da ere orrazatu egun oro. (23)
(140) Icusico dezu beti beren buruac garbitzen ari dirala. (23)
(141) Icusten det ciquiñetic eta usteltasunetic datocela gauza nazcagarriac, eta gaitz asco. (25-6)
(142) Bici ditezque eceren cuidadoric gabe. (27)
(143) Jaquin beazu jantziaren faltan cherrien guisa gira biraca loyean ibiltzen dirala asco toquitan. (28)

3.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Batzuk ikusi ahal izan ditugu jada tarteka, goiko adibideen artean. Beste batzuk jasoko ditugu hemen, lehen bederatzi *Jolasen* artekoak:

(144) Norc esan icusten diran sedazco jantzi ederrac zor zaizcala ingumari! (3-4)
(145) Onen vistan ez da gaitz sinestea pistuco guerala gu ere egunen batean len baño ederragoac. (5)
(146) Eta ez zaitu choro biurtzen icusteac gure odol biurtcen guc jaten ditugun gauzac? (8-9)
(147) Ongui diozu gauzaric chiquienetan dala andiena Jaungoicoa. (17)
(148) Badaquite negua etorrico dala eta orduan ecin irtengo dirala beren eultzetic. (18)
(149) Guc guztioc eguingo baguendu erleac eguiten dutena, ... (18)
(150) Badira animalichoac beren arraultzac ifintzen dituztenac frutaren gañean. (21)
(151) Eta botatzen bazayo icatza edo iduriya, ... (25)

Iturriagaren mendeko esaldi hautsien artean aipa liteke, Ernani herriko hilerri sarreran agertzen den esaera, agidanean Iturriaga berak asmatua, edo segurasko itzulia:[200]

(152) Laster esango da zuengatik, esaten oi dana orain gugatik: il ziran.

3.2.4. Aditz atzeratze artifizialen arrastoren bat ere bai Iturriagaren Jolasetako prosan? Konparazio txiki bat bere hiru itzultzaileekin.

Ikusi bezala, bere prosa estiloak zalantzarako tarterik uzten ez badu ere, aurki genezake hala ere tarteka esaldiren bat, agian arruntagoa izan zitekeena Cardaverazen eskolako jarraitzaile batengan. Ez ditugu halako bost esaldi baino aipatuko, lehen bederatzi *Jolasen* artetik, agian besteren bat ere erantsi zekiekeen arren. Eta nolanahi, esaldi hauetako batere, ez delarik izango berez bitxiegia (edota batere bitxia ere) euskaraz, salbu inbertsiorik gabeko ezezko esaldia. Adibideak ordea nahikoa esanguratsuak izango dira. Ez alferrik emango dituzte esaldi guztiok, Bonaparteren agindupeko beste hiru itzultzaileek, elkar hartuta bezala, Iturriagaren aditzak aurreratuaz, molde klasikoagoetan.

Lehenengo bat, mendeko bi aditzen nahikoa atzerapen bitxia erakusten duena Iturriagarengan (honenaren ondoretik ematen ditugu, orden horretan, Uriarte, Duvoisin, eta Inchausperena konparaziorako):[201]

(153) (Arritu ciñan joan dan egunean) cembat on aberecho batzuei <u>zor diotegun</u> <u>icustean</u>. (46)
(Miraritu ciñan igaro dan egunian) <u>icustian</u> cembat mesede <u>zor deutsaguzan</u> aberechu batzubei.
(Miresten cinduen iragan egunean) <u>ikhusteaz</u> cembat on <u>diozcategun zor</u> abere chehe batzuei.
(Harritu cinen igaran egunian) <u>ikhoustez</u> zoumbat houn <u>zor deyegun</u> aberesca batzier.

Benetan da esanguratsua halako adostasuna hiru itzultzaileen artean, *hautsiaz*, hirurek modu beretsu batean, mendeko bi esaldiak: batetik, eramanez entendimentuzko aditza, mendeko esaldiaren burura; eta bestetik, deseginez, Iturriagak eragindako eten (gordinagoa) zehar galderaren barne, galdegilea eta aditzaren artean. Antzeko zerbait gertatzen da Iturriagaren segidako bi esaldietako aditz nagusien kasuan ere:

(154) (- Bizquitartean chingurriac ez dute egoric. / - Bai, badituzte jayotzen diranean,) baña guero atzeco bi zangoaquin <u>quentzen dituzte</u>. (48)
..., baña guero <u>quenduten ditube</u> atzeco anca bijacaz.
..., bainan guero <u>khentzen dituzte</u> guibeleco bi zangoez.
..., bena guero <u>khentzen dutie</u> guibeleco bi zankhouez.

---

[200] Aipua, Patxi Altunak egindako sarreratik, Iturriagaren *Jolasen* azken argitalpenari, Donostia, EEE, Klasikoak, 1987, 25 or.

[201] Aipuak jasotzen ditugu Patxi Altunaren argitalpenetik, EEE, Klaskikoak, 1987.

(155) Liñabera edo algodoya arbol chiqui baten coscoan arquitzen da, gaztaña morcotzean bezala. (54)
Algadoia aurquitzen da arichi chiqui baten ozcolian gaztañia lacatzian leguez: ...
Cotoina aurkhitzen da zuhamuchca baten cuscuan gaztaina kharloan bezala: ...
Cotoua aurkhitzen da zuhañ tchipi baten cuskian gaztaña mardoxian bezala: ...

Ondo ohargarria da nola hiru itzultzaileek pasatzen dituzten, hitzartuta bezala, esaldi bietako galdegaiak beren aditzen ondorenera. Hiru itzultzaileek ere jokaera bere bat erakutsiko dute, Iturriagak ohituraz kanpora atzeratzen duen segidako galderarekin, nahiz eta atzerapena, berez ez izan, bitxiegia:

(156) Eta liñabera edo algodoya, quina, canela, eta clavilloa nondic datoz? (54)
Eta nundic datoz algadoia, quinia, canelia eta clavillua?
Eta nondic heldu dira cotoina, kinkina, canela eta itze-canela?
Eta nountic jiten dira cotona, kinkina, canela eta itzia?

Beste hainbeste gertatzen da, Iturriagak *zazpigarren jolasean* ematen duen, ezezko aditz konposatu inbertsio gabekoarekin:

(157) Nola iltzen ez dira? (48)
¿Celan ez dira ilten?
Nola ez othe dira hiltzen?
Noulaz eztira hiltzen?

Aipa liteke oraindik Iturriagaren balizko atzerapenen artean, segidako mendeko esaldiko entendimentuzko aditzarekin egiten duena, nahiz kasuan, bakarrik Uriartek zuzenduko dion ordenamendua:[202]

(158) (Nola bada! cerc arritu zaitu?) Atza, ezcabia eta beste gaitz asco ciquintasunetic datocela aditzeac. (52)
(¡Celan bada! cec miraritu zaitu?) Entzutiac sarnia, ezcabija ta beste gach asco loiquerijatic datozala.

Iturriagaren aditz atzerapen itxura hauek ordea, ez dira izango, anekdota sakabanatuak baino, bere obraren itsaso klasiko zabalean.

[202] Uriartek, berari eskainitako atalean ikusiko dugun bezala, aurreratuko du aditzaren gunea beste kasu askotan ere Iturriagarenaren aldean, nahiz honek bereziki atzeratu ez aditza. Uriartek puntu honetan ere, besterik gabe jarraituko du, bera bitarteko tradizio bizkaitar klasikoena, Moguel, Añibarro eta abarren ildoan.

ERASKINAK

1. Iturriagaren Jolasetako lehen lerrokada narratiboa (1842, 2-3 or.).

Bada inguma mota bat zuria eta lodia. Onec eguiten dituen arraultcetatic irteten dira ar guztiz chiqui batzuec. Bereala asten dira masust arbolen ostoa jaten. Jaten dijoacen becela dijoaz anditzen. Beatza becin lodi eguiten dira berroguei bat egunen barrenen. Orduan asten dira aotic botatcen lerdia armiarmac bezala. Botatcen dute arbolen arbaztetan beren buruen giran. Onela guelditzen dira lirdizco boltsa edo zorro baten barrenen. Boltsa edo zorro oni deritzayo capulea. Capuleac ifintcen dira ur iraquiñean eta an beratzen dira. Artcenda izpi bat, eta dauden lecutic atera gabe dijoaz ascatcen. Matazuran izpia artuaz, eguiten da mataza, ascatzen dijoan becela.

2. Jolasetako bigarren lerrokada narratiboa (1842, 6-8 orr.).

Jateco becin ona da eztia oscaitaco. Costomia dan orduan artcen da eztia urarequin. Erusquitiac janarazten dute ascotan bazcal aurrean gorputzetic libratzeco. Beste aldetic berriz cembat gauzataraco ez da ona arguizagia? Onequin eguiten dira arcaiac, ezcoztuac, eta emplasto moet asco. Erleac jayotcen dira ingumac becela, eta jaten dute eztia. Loreetan arquitzen dute eztiaren eta arguizaguiaren gaya. Lorearen iriñarequin eguiten dute arguizagia: eta eztia berriz loreari mimicotic ateratcen dioten ezadearequin. Iriña biltcen dute lore gañean atceco zancoac arrastaca erabiliaz. Zancoetan dituzte zanco zorro mota batzuec. Eta ez dira guelditcen oiec bete arteraño. Ezadea chupatcen dute muturrean duten trompa batequin. Ezadearentzat dute urdail bat, eta an ezti biurtzen da. Iriñarentzat dute beste bat, eta an arguizagui biurtzen da. Guero aotic arguizaguia boteaz, dijoaz abarasca eguiten. Abarasca eguiña dagoan orduan, betetzen dituzte onen chuloac eztiz.

4. Zer zuen esateko J.F. Aizquibelek (1798-1865), Syntaxia eta hitz ordenamenduaren gainean?

Orain urte batzuk argitaratu zuen J.M. Satrustegik, Aizquibelen 1856ko eskuizkribu bat, *Euskera* izenekoa («Un documento de José Francisco de Aizquibel sobre la lengua vasca», *ASJU*, XI, 1977, 131-154 orr.),[203] eta bertan irakur liteke segidako pasartea, bere testuinguruan zinez dirudiena, J.B. Aguirre asteasuakoaren obraren goraipamena (1850ean eman ziren argitara Tolosan haren *Erakusaldietako* hiru tomoak), eta agidanean, aurreko mendeko Cardaverazenaren, nolabaiteko mesprezua (hitzak horren zorrotzak edo minak ez izan arren) (150 or.):

> Que diferencia no se encuentra al ver las platicas dominicales del Cura de Asteasu el Sr. Aguirre a los devocionarios de Cardaveraz y otros del siglo pasado? Con buenos elementos gramaticales y lexicografos, cuánto no se adelantaría en nuestra lengua? / Pero para esto se necesita trabajar para la unica etnografica por medio de una gramatica general razonada de la Euskera, aprovada y autorizada por una Academia compuesta de hombres competentes en la materia.

Eta izan ere, hori da Aizquibelen tesia, hizkuntza hobetzen joan ahal izateko aurrerantzean, *Gramatika orokor bat izatea*, aurreko lerrokadan dioen bezala (150 or.):

> ... cuando el pais Bascongado tenga una Gramatica general de su lengua, razonada segun los principios establecidos en ella como demuestran claramente los elementos, de que se valieron para su formacion desde los primitivos tiempos de su origen hasta la epoca de su apogeo, y aprendan mis paisanos su lengua nativa con reglas seguras fundadas en las bases mas solidas de la linguistica, saldrán desde luego buenos linguistas y filologos para estudiar con mas facilidad, conocimiento, y seguridad las demas lenguas, y tendran la suya para punto de comparacion y estudio de la perfeccion de las lenguas. / El Clero Bascongado, (sea del dialecto que fuere el predicador) será entendido con facilidad en su doctrina, y en el confesonario; la oratoria sagrada, y sus escritos tendrán la pureza y la elegancia, que

---

[203] Gerora ziurtatu ahal izan dugu gerok, Satrustegik artikuluan aipatu bezala, delako dokumentua kopia dela, ez dakigu zenbateraino fidela, Aizquibelek 1856an bai argitaratukoarena, *De la lengua euskera, ó de los Vascongados* izenarekin (Gipuzkoako Foru Aldundiko Liburutegian), Nibbiano-ko Markes Azararen omenezko lan kolektibo batean, separata bezala ere agertua, Castellanos de Losada-ren lanaren ondoan. Honen izen osoa (J. Bilbaok eman bezala): *Discurso historico-arqueológico, ó sea reseña histórica sobre las lenguas, idiomas, dialectos y escritura en general, y en particular de España. Escrito y publicado en honor del célebre diplomático y distinguido literato aragonés del siglo XVIII, El Excmo. Sr. D. José Nicolás de Azara, primer marqués de Nibbiano, en el album nacional y extranjero, corona literaria, artistica y politica, que publica en su honor su historiador D. Basilio Sebastian Castellanos de Losada, Anticuario de la Biblioteca Nacional, Fundador-Director de la Academia Española de Arqueología, etc. Va acompañado de otro pequeño discurso sobre la lengua EUSKERA ó Vascongada, escrito al mismo efecto por el Sr. D. José Francisco de Aizquibel. Madrid: 1856.*

> adquirieron los Crisostomos, los Basilios, y los Nazianzenos en la lengua Griega Byzantina, ...

Aipu guzti honen ondorean dator Cardaveraz eta Aguirreren alderaketa, eta pentsa liteke Aizquibelek esaten ote duen, *Cardaveraz ez zela, erraz ulertua, bere dotrinan,* edota, *ez zuela oratoria garbi eta dotorea*. Kontua da, azkenerako Aizquibel bera, hasi behintzat egin zela, halako *Gramatika orokor bat* prestatzen. Gipuzkoako Diputazioko J. Urquijoren liburuen artean aurkitzen da, Aizquibelen beste batzuren artean, honen 24 orrialdeko eskuizkribu bat, izenburu duena: *Gramatica analitica de la Lengua Bascongada*. Ez da gordetzen, honen sarrerako atala baino (*Definicion y Division general de la Gramatica* diona), eta ondoren, Aizquibelek *Gramatika* hori banatzen duen lau zatietako lehenaren, *Ortografiaren*, hasiera baino ez. Dira beste hiru parteak: *Prosodia, Etimologia*, eta azkenekoa *Construccion o Syntaxis* izenekoa, guri gehien interesatuko litzaigukeena ezagutzea. Eta laugarren hau definitzen, esaten du Aizquibelek esanguratsuki (3 or.):

> La quarta, que es la Construccion o como otros igualmente llaman Syntaxis, que en griego quiere decir construccion, considera las palabras en union unas con otras, y trata de su respectiva colocacion, de modo que es el arte de colocar en la oracion las palabras segun las ha fijado el uso constante en cada Lengua, y de conocer los defectos que puede haber en su colocacion.

Eskuizkribuan ez da ezer gehiago gordetzen atal honenik. Eta ez du ematen, guk dauzkagun erreferentziengatik, beste inon ere ezagutzen denik, Aizquibelen iritzirik inguru honetan. Eta pena da. Ze, ez da sintaxi estudiorako legerik txarrena, Aizquibelek definizioan bertan jasotzen duen hori: *el arte de colocar en la oracion las palabras segun las ha fijado el uso constante*. Ez litzaiguke guri ere okerrago joango, kasu gehixeago egin izan bagenio azken hamarkada hauetan, *euskeraren erabilera konstante* horri, sintaxi eta hitz ordenamendu kontutan ere; galduta ibili beharrean, elukubrazio antierderista hutsetan. Horregatik ere litzateke interesgarria, Aizquibelen ikuspuntua ezagutu ahal izatea. Hainbat eta gehiago, bera gauza baldin bazen, susmatu dugun bezala, positiboki diskriminatzeko, Cardaveraz eta Aguirre asteasukoaren prosa ereduen artean, azken honenaren alde. Agian aurki liteke oraindik, Aizquibelen erreflesiorik gai hauen inguruan.

5. J.A. Uriarte (1812-1869), tradizio bizkaitarraren zainean.

Uriartek ez zituen argitaratu itzulpenak baino euskaraz. Ez bere sortze lan propiorik, eta ez gramatika lanik. Ordea Printze Bonaparteren laguntzaile bezala, bestela ez bada ere, hau 1856an ezagutu zuenez geroztik, ez da dudarik, ahozko eta idatzizko praktika ondo zabalaz gainera, Uriartek erreflexio lan sakon bat zuela egina hizkuntzaren inguruan. Honen adierazle ona da, besteak beste, berak Printzeari idatzitako gutuneria zabala (Aita J. Ruiz de Larrinagak argitaratua -ia- osorik *BAP* aldizkarian 1954-58ra bitartean). Uriartek bazuen nolanahi obra argitaraturik euskaraz, Printzea ezagutu aurretik ere, bere predikazio lanaren zerbitzuan. 1850ean argitaratu zen lehenengo aldiz, bere *Marijaren illa, edo Maijatzeco illa. Ama doncella guztiz garbijaren icenian ondo igaroteco, ceñetan imini dituzan vizcaico euzqueran Fr. Jose Antonio de Uriarte* ... Eta 1856ean bertan emango du argitara bigarren liburuska bat: *Jesus Sacramentaduari eta Ama Doncella Mariari visitaac illaren egun guztietaraco San Alfonso Ligorioc iminiac. Erderazcotic eusquerara biurtuac Fr. Josè Antonio de Uriarte Aita San Franciscoren seme misionariac. Gueitu jacoz ondo confesetaco tá comulguetaco erregu tá escariac, ...*

5.1. Uriarteren tradiziozko prosa estiloa Printzea ezagutu aurretik.

Uriartek badu beraz euskarazko estilo bat Printzea ezagutzerako. Estilo samurra, komunikatiboa, erraza; batere apartatuko ez dena, joskera eta hitzen ordenaren arloan, bere aurretik J.A. Moguelek, edota Añibarro, Aita Pedro Astarloa, Bartolome Santa Teresa, edota J.J. Moguelek beren obretan bizkaieraz irekitako ildotik. Ez da Uriartegan batere sumatuko *Eskola cardaveraztiarraren* eraginik. Bere aditzak ohituraz izango du aurrealdeko gune bat esaldian. Esaldi nagusietan oso oso maiz, eta are maizenik, emango du esaldiko galdegaia, aditz nagusiaren ondoretik. Maiz, aditz nagusia ere bai zuzenean esaldi hasieran, nahiz galdegaia nabarmen eraman ondoretik; eta are zenbaitetan aditz trinkoak ere, esaldi hasieran buruzuri. Azkenik oso oso usuzkoa izango da, eta are usuzkoena, mendeko esaldiak hautsita ematea, beren konplementuak erakusten dituztelarik, aditzaren (eta honi erantsitako elementu mendekotzailearen) ondoretik.

Adibide gisara nahikoa litzateke begiratu bat egitea *Jesus Sacramentadua* obraren *Berba Aurrecoari,* non emandako baiezko esaldi deklaratibo guztiek, eramango duten, beren aditz nagusia, esaldiko galdegai edo prediku nagusiaren aurretik; non ia mendeko esaldi guztiak (2-3 oso labur salbu) ematen diren hautsita (aparte izenaren

konplementuak, edo esaldi erlatiboak); eta are aurkituko dugun aditz trinko bat ere esaldi hasieran.[204]

5.1.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.

Hala segidan lehenik, galdegaia aditzaren ondoretik daramaten esaldiak:

(1) Ain guichi necatuco naz adierazoten zuri, celan dagoan Jaun au Sacramentu onetan erruqui ta amodiozco jarlecu baten, aberastuteco gure arimaac ceruco ondasun ugariacaz. (7)
(2) Bacarric erregututen deutsut jarri zaitezala pusca baten ceure artéan gogoratuten ... (7)
(3) ...: eta baldin uste badozu epeldu edo otzitu jatsula amodioa edo guichitu beraganaco etsiguitasun tá eraspena, erregututen deutsut erabagui daguizula egotea beragaz egun bacochean guichienez ordu laurenchu baten. (7-8)
(4) Barriz eguin béar dozuz iru gauza gaitic: (Lelengo, emoteco esquerrac ...) (8)
(5) Eguia dá Jaungoicoac edonun tá lecu guztietan entzuten dituzala gure erregu ta escariac, ... (8)
(6) ..., eta ecin cembatu ta contau albeste arima guichiago jausico litzatequez infernura, zaletuco balira cristiñaûac eraspen onetara. (9)
(7) Devociño guztien artean Jaungoicoaren gogocoena eta gure arimac aberastuteco egoquiena dá duda bagaric Altaraco Sacramentu santuan Jesus adoretea. (9)

5.1.1.1. Aditz trinkoa esaldi hasieran.

Aipatu aditz trinko bat ere bai esaldi hasieran (edo):

(8) ..., baña da bere gauza ciurra ugaritasun andiagoagaz zabalduten dituzala bere doe ta emocaiac Altaraco Sacramentu Santuan. (8-9)

5.1.2. Mendeko esaldi hautsiak.

Eta mendeko esaldi hautsi guztiok ere bai (adibideetako batzuetan aurki litekeelarik mendeko esaldi hautsi bat baino gehiago ere):

(9) (...: ez eguizu uste izan) sinistu eraguitera noatsula celan Altaraco Sacramentu santuan dagoan Jesucristo gure Jauna, ... (7)
(10) ..., daquidalaco ez dozula nire esanaren bearric, gure fedeco eguia au sinistuteco. (7)
(11) (Ain guichi necatuco naz) adierazoten zuri, celan dagoan Jaun au Sacramentu onetan erruqui ta amodiozco jarlecu baten, ... (7)
(12) ..., aberastuteco gure arimaac ceruco ondasun ugariacaz. (7)
(13) (... erregututen deutsut) jarri zaitezala pusca baten ceure artéan gogoratuten ... (7)
(14) ... eta beguiratu daguizula, zure amodio ta esquer ona Sacramentu Jaungoicozco oneganaco ete diran ceure fedeac eracusten deutsun bestecoac: ... (7)
(15) ...: eta baldin uste badozu epeldu edo otzitu jatsula amodioa edo guichitu beraganaco etsiguitasun tá eraspena, ... (7)
(16) (..., erregututen deutsut) erabagui daguizula egotea beragaz egun bacochean guichienez ordu laurenchu baten. (7-8)
(17) Ecin joan bazara Elessara, ... (8)
(18) ..., jarriric belaunico Jesus Sacramentadua urreen daucazun lecuruntz beguira. (8)
(19) ..., emoteco esquerrac Jesusi eguin euscun mesede, esan albaiño andiagoa gaitic, ... (8)
(20) ..., jarriaz Sacramentu Jaungoicozco onetan, euscun amodio larreguia gaitic, ... (8)
(21) ..., adoretan dozula ítzal eta amodio albait andienagaz. (8)
(22) ..., quitau eta paguetaco, guizonac eurac Sacramentu onetan eguin deutsezan iraun ta emondaco naibagueen zorrac. (8)
(23) ..., escatuteco ceure pecatuen parcaciñoa, onduteco edo obatuteco gracia, bere amodio santua, vicitza onean iraupena, eta betico zoriontasuna. (8)
(24) (Eguia dá) Jaungoicoac edonun tá lecu guztietan entzuten dituzala gure erregu ta escariac, ... (8)
(25) (..., baña da bere gauza ciurra) ugaritasun andiagoagaz zabalduten dituzala bere doe ta emocaiac Altaraco Sacramentu Santuan. (8-9)
(26) ..., zaletuco balira cristiñaûac eraspen onetara. (9)
(27) (¿Noc adierazo) celaco aurrerapenac eguin dituezan arima ascoc ceruco bidean eta ceimbat pecatari ondu dan devociño onen bitartez? (9)
(28) (Eta ¿noc daqui,) zuc bere artuco ete dozun asmo sendoren bat ... (?) (9)
(29) ... ichiteco guztiz pecatuco lecu, lagun ta munduari, ... (9)
(30) ..., emoteco guztiori osoro Jesusi, beragaz Altara aurrean zagozanen baten... (9)
(31) Alan gura daquiola guztia daiquéan Jaungoicoari. (9)

[204] Lan honen ERASKIN I bezala jasotzen dugu *Berba Aurreco* hau.

5.1.3. Aditzak zuzenean esaldi hasieran.

Jesus Sacramentaduaren Berba aurrecoan aurkitzen ez bada ere, zuzenean aditz konposatuz hasten den esaldirik, nahikoa da Uriarteren zeinnahi testu iragatea begien aurretik, jabetzeko, ez dela hori bere ohitura. Hala, jasoko ditugu segidan, bere 1850eko *Marijaren Illa* liburuaren sarrerako *Arguibidiatik,* bildutako adibideak:[205]

(32) Imiñico da Marijaren irudi bat albait onduen apainduta, dala lora, larrosa, edo beste era ataco edergarrijacaz, guela, escaratz, edo echecuac errosarijua errecetara batu oi diran lecuan. (1)
(33) (Lelengo errecetan da bost amarrecogaz errosarijua letaña bagaric: oneen lecuan credo bat, eta salve bat, Jesus, ta Marijaren bijotz gozuai:) visitetan dira altaraac Aita guria banagaz: iracurten da liburutic astiro egun ataco gomuta gueija: (onen ondoric egemplua): adierazoten dira bijaramoneraco loria, ta sarri esateco erregu laburra: egoten da dempora pusca baten issillic gogoratuten iracurri diran gauzaac: (guero eguiten da berbaldija): cantetan dira letañaac, emoten da bedeincacinoia, ta amaituten da, azquenian imiñico diran berba neurtu lauco, edo zortzicuacaz. (2)

5.2. Uriarteren tradiziozko estiloa, itzulpenetatik kanpo.

Esan dugu gorago, Uriartek ez zuela bere sorkuntzako lanik argitaratu euskaraz, baina badirudi *Marijaren Illeko Arguibide* hau behintzat izan litekeela bere propioa. Ez da nolanahi, ezagutzen diogun euskara zati propio bakarra. Gorde baita, esateko, Uriartek Bonaparteri zuzenean euskaraz eginiko eskutitz bat behintzat, oraintsuago argitaratua.[206] Eta interesgarria da ezagutzea honen estiloa ere, ezingo bait zaio, horren erraz atxiki, itzulpen zuzena izatearen estigma. Hala ere bertan, baiezko esaldi deklaratibo guztiek eramango dute beren prediku nagusia aditzaren ondoretik; hauetako zenbait zuzenean hasiko dira beren aditzaz; eta oso ugariak izango dira bertan mendeko esaldi hautsiak, segidan ikusiko dugun bezala.

5.2.1. Galdegaia aditzaren ondoretik.

Hala nola segidako adibideak, galdegaia aditzaren ondoretik daramatenak:

(34) Uri onetan neure conbenturaco iraitzez neguala; erabagui dot escribietia zuri Marquiñaco eusqueran, orainartian Guipuzcuacuan eguin badeutzut bere, ceuc Lapurdicuan escribiu deutzazun ezquero.
(35) Igaro diran amabost egunetan egon naz Aulestiya edo Murelaga derichon errian, cein daguan uri onen eta Guernicacuaren erdiyan conventuco Nagusiyac bialduta, lau sermoe prediquetara.
(36) Emen neure arazuben artian imiñi ditut Guipuzcuaco eusqueran *Erregueen* lenengo Liburubaren asieraco 15 capitulu, bialduten deutzudazanac.
(37) Zure cartatic dacust guztiz asco aurreratu dabela Duvoisin Jaunac bere lanetan: ...
(38) Onelaco lan gach eta astunac eguin biar litzatequez nic eguin ditudazan baño astiruago, ...
(39) Gu conbentuan gagoz len leguez, edo gueruago chartuago: ...
(40) ...: amabosten bat egun barru jaquingo dot ciur, ...
(41) ...: eta zure mende ta aguinduan gelditzen da, escumunacaz zure adisquide maite ta servitzari cintzo. - Fr. José Antonio de Uriarte.

5.2.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Horrela ere segidako esaldiak, zuzenean beren aditzaz hasten direnak, nahiz galdegaia nabarmen eraman aditz honen ondoretik:

(42) Artu neban bere denporan oraintzubengo escribiu ceustan cartia: ...
(43) ...: atseguiten dot jaquitiac [sic] osasunagaz zagozala.
(44) Jarraituco deutzat emparaubac bere jartiari Guipuzcuaco eusqueran beratan, neure conbentuban ceiñetara noian biyar, astiya daucadan guiñuan.
(45) ..., eta egon biar neuque Guipuzcuaco Beterriyan edolabere iru illa betian; ...
(46) Esan deuste conbentuban, nic eracutsi biarco deutsedala Filosofiya Fraille gazte sartubarriyai; ...

5.2.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Eta mendeko esaldi hautsiok ere, zenbait goikoen errepika izan arren:

(47) (...; erabagui dot) escribietia zuri Marquiñaco eusqueran, ...
(48) (...: atseguiten dot) jaquitiac [sic] osasunagaz zagozala.

---

[205] Honen testu osoa jasotzen dugu lan honen ERASKIN II bezala.

[206] Eskutitz hau ere Ruiz de Larrinagak argitaratu zuen gaztelaniazko beste guztien artean (*BAP*, XIII, 1957, 237-8 orr.), eta handik jaso dugu osorik lan honen ERASKIN IIIan.

(49) (... Aulestiya edo Murelaga derichon errian,) cein daguan uri onen eta Guernicacuaren erdiyan ...
(50) ... conventuco Nagusiyac bialduta, lau sermoe prediquetara.
(51) ... *Erregueen* lenengo Liburubaren asieraco 15 capitulu, bialduten deutzudazanac.
(52) (Jarraituco deutzat) emparaubac bere jartiari Guipuzcuaco eusqueran beratan, neure conbentuban ...
(53) (..., neure conbentuban) ceiñetara noian biyar, ...
(54) (... dacust) guztiz asco aurreratu dabela Duvoisin Jaunac bere lanetan: ...
(55) (Ez nua) gueiyago esatera onen ganian, ...
(56) (Esan deuste ...,) nic eracutsi biarco deutsedala Filosofiya Fraille gazte sartubarriyai; ...

5.3. Uriarte euskaratik euskarara itzultzen Iturriagaren Jolasak.

1857an ematen ditu argitara Bonaparte Printzeak, Iturriagaren *Dialogoak,* beste hiru euskalkitara itzuliak. Uriartek prestatzen du bizkaierazkoa. Euskaratik euskararako itzulpena izanik, gaztelaniaren bitartekotza (behintzat zuzenik) gabekoa, esanguratsua izango da Uriartek bertan hartzen duen jarrera, Iturriagaren hitz ordenamenduarekiko. Badakigu Iturriagak, oro har, nahikoa aurreratua ematen duela aditza esaldian, gure tradizio nagusiaren ildoan; eta oso maiz galdegaiak aditz nagusiaren ondoretik, mendeko esaldiak hautsita, etab. Uriartek halaz eta guztiz, asko eta askotan aurreratuko du artean, aditz horren gunea esaldi nagusian (galdegaiaren gunea aldatuaz askotan aditzaren ondorenera); nola mendekoan; segidan ikustera goazen bezala. Uriartek Iturriagak baino maizago emango ditu oraindik, aditzak zuzenean esaldi hasieran; eta are haren aditz trinkoak ere aurreratuta tarteka, orain esaldi hasieran buruzuri eman arteraino. Eta noski, ikusi dugu, Duvoisinek eta Inchauspek bezalaxe zuzenduko ditu Uriartek ere, Iturriagaren zenbait aditz atzeratze edo, estilo cardaveraztiarrekoak (aditz atzeratutako galderaren batean, inbertsiorik gabeko ezezko aditz batean, ...).

5.3.1. Uriarteren aditz aurreratzeak esaldi nagusietan.

Ez ditugu parekatu, lehen bederatzi *Jolasetako* esaldiak baino, eta segidakoak dira, Uriartek hauetan eragiten dituen aditz aurreratzeak esaldi nagusietan -baita ere ezezko esaldiren batzutan- (beti emango dugu lehendabiziko Iturriagaren esaldia; eta Duvoisinek edo Inchauspek ere Uriarteren ordenamendu beretsua erakusten dutenean Iturriagarenaren aldean, hala adieraziko dugu, Duv., Inch. laburpenen bidez):[207]

(57) Beatza becin lodi eguiten dira berroguei bat egunen barrenen. (34)
Aciten dira atz bat beste berrogueigarren eguneraco.
(58) Eguiaz, arritceco gauza da gaur lurrean arrastaca dabillen arra ... (36)
Eguiaz da gauza miragarrija gaur lurrian arrastaca dabillen arra ...
(59) ..., ez nintzan arguizaguiaz oroitzen. (38)
..., ez nintzan gomutetan arguizaijagaz. (Duv.)
(60) Jateco becin ona da eztia oscaitaco. (38)
Ain ona da eztija osagarritzat, cein janaritzat.
(61) Zancoetan dituzte zanco zorro mota batzuec. (38)
Dauquez anquetan polaina mueta batzuc, ...
(62) Gaur beiac jan duen belarra biar esne biurtua jaten degu. (40)
Gaur beijac jan daben bedarra bijar jaten dogu ezne biurtuta.
(63) Lizardietan arquitzen dira, ceren an utzi oi dituzte beren arraultzac. (40)
Aurquituten dira lessardijetan, cerren an ichiten ditu bere arrautzac.
(64) (... erre) eta masculluac ateratzen ditu. (40-2)
(... erretan dau) ta ateraten ditu puslac. (Duv.)
(65) ..., baña egostean gorritzen da. (42)
..., baña gorrituten da egositen danian.
(66) Ala bata, nola bestea, arboletan arquitzen dira. (42)
Alan bata cein bestia aurquituten dira arichetan, ...
(67) Mascorraren barrenen arquitzen da itsasoan. (44)
Aurquituten da concha baten barruan ichasuan.
(68) (Bada, dan becin chiquia izanic,) baditu cigarrac gorputzaren parte guztiac. (46)
(Bada, izanic dan bassen chiquija,) daucaz cierrac gorputzaren zati guztiac.
(69) Baditu ortzac, edo ortcen ordecoac, ... (46)
Daucaz aguiñac edo aguin ordecuac, ...
(70) ...; baditu urdalla, esteac, sabela, ... (46)
...: daucaz urdalla, estiac, sabela, ...
(71) Guc guztioc eguingo baguendu erleac eguiten dutena, aingueruac becela bicico guiñaque. (48)
Baldin guc guztijoac eguingo baguendu erliac eguiten dabena, bicico guiñateque aingueru batzuc leguez. (Duv., Inch.)

[207] Alderaketarako Patxi Altunaren argitalpena erabili dugu, EEE, Klasikoak, Donostia 1987.

(72) Negu guztia lotan igarotzen dute. (48)
Negu guztija igaroten dabe lotan. (Inch.)
(73) Nola iltzen ez dira? (48)
¿Celan ez dira ilten? (Duv., Inch.)
(74) ..., baña guero atzeco bi zangoaquin quentzen dituzte. (48)
..., baña guero, quenduten ditube atzeco anca bijacaz. (Duv., Inch.)
(75) Adrilluen arteco nascarilla edo morteroa cheatzen dute barrenen sartzeco. (50)
Chiquituten dabe adrilluen artian daguan morterua barruban sartuteco.
(76) Bai ta ere ona da chit arcosca botatzea. (54)
Da bere guztiz ondo arcoscorra botatia.
(77) Eta liñabera edo algodoya, quina, canela, eta clavilloa nondic datoz? (54)
Eta nundic datoz algadoia, quinia, canelia eta clavillua? (Duv., Inch.)
(78) Liñabera edo algodoya arbol chiqui baten coscoan arquitzen da, gaztaña morcotzean bezala. (54)
Algadoia aurquituten da arich chiqui baten ozcolian gaztañia lacatzian leguez: ... (Duv., Inch.)
(79) Gauza oiec guztiac toqui beroetan etortzen dira. (54)
Gauza guzti oneec datoz erri beruetan.
(80) Jan utsarequin ecin bici guindezque. (54)
Ecin bici guinatequez janari utsagaz.

5.3.2. Uriarte aurreratzen mendeko esaldietako aditzak.

Segidakoetan behintzat, lehen bederatzi *Jolasetan*:

(81) (Orduan asten dira) aotic botatcen lerdia armiarmac bezala. (34)
(Orduban asten dira) botaten adurra aotic masmia leguez.
(82) Matazuran izpia artuaz, (eguiten da mataza, ...) (36)
Arturic izpija icorosquijan, (eguiten da matazia, ...)
(83) Onen vistan (ez da gaitz sinistea ...) (36)
Icusiric au, (ez da gach sinistutia ...)
(84) (Iriña biltcen dute) lore gañean atceco zancoac arrastaca erabiliaz. (38)
(Uruna batuten dabe) erabilijaz arrastaca atzeco ancac lorearen ganian.
(85) (... icusteac) gure odol biurtcen guc jaten ditugun gauzac ... (40)
(... icustiac) biurtuten dirala gueure odolian gueuc jaten dituguzan gauzac …
(86) (Baña jaquin beazu), edocein inguma, ez edocein arbolen ostoa ez dirala onac seda emateco. (40)
(Baña jaquin biar dozu) ez dirala egoquijac ez edocein chiribirija ez edocein arbolen orri sedia emoteco.
(87) Ceren beren amac arbolen ostoetan ezartzen dituzte beren arraultzac. (42)
..., cerren euren amaac iminten ditube euren arrautzac arich orrijetan.
(88) Norbaitec odola zalaco, eta zuriren bat zuelaco ... (44)
Norbaitec usteric odola zala ta zauriren bat eucala, ... (Duv., Inch.)
(89) (Ain da garestia) non Erregueac eta beste gaiñ gañeco personac bacarric izan dezateque. (44)
(Ain da carua) ce bacarric euqui leije erreguiac ta andiqui batzuc.
(90) (Bada,) dan becin chiquia izanic, ... (46)
(Bada,) izanic dan bassen chiquija, ...
(91) ... cembat on aberecho batzuei zor diotegun icustean. (46)
... icustian cembat mesede zor zor deutsaguzan aberechu batzubei. (Duv., Inch.)
(92) (... eracusten digute ...); eta degunean gordetzen ez deguneco. (46)
(... eracusten deuscube ...,) eta gordetan daucagunian ez daucaguneco. (Duv., Inch.)
(93) (... eracusten digute) languilleac eta contuzcoac izaten. (48)
(..., eracusten deuscube) izaten biarguiñac ta beguiratubac.
(94) (Badaquizu) bein baño gueyagotan echeac bota dituztela. (50)
(Badaquizu) bein baño gueijagotan bota ditubezala echiac?
(95) Adrilluzco echeac diran toquietan jan gauzaric barrenean senti badute, ... (50)
Adrilluzco echiac diran lecubetan, usain eguiten badeutse barruco jaquiren bati, ... (Duv., Inch.)
(96) (Badira animalichoac) beren arraultzac ifintzen dituztenac frutaren gañean. (50)
(Badira aberechu batzuc) iminten ditubezanac euren arrautzac frutiaren ganian.
(97) (Badira euliac) zaldi eta beste animaliai sudurretic eta beste lecuetatic sartzen zaiozcatenac. (50)
(Badira eulijac) sartuten jaquezanac zaldijai ta beste aberiai surretatic ta beste lecuetatic.
(98) (Icusico dezu) beti beren buruac garbitzen ari dirala. (52)
(Icusico dozu) beti diardubela euren burubac garbituten.
(99) (...; bestela ez da) aien eyai beguiratzea baizic. (52)
(...; ezpada ez dago) beguiratutia baño euren toquijai. (Duv.)
(100) ..., ceren garbitasuna guztiz bearra dan osasunaraco. (52)
..., garbitasuna dalaco guztiz premiñazcua osasuneraco. (Duv.)
(101) Atza, ezcabia eta beste gaitz asco ciquintasunetic datocela aditzeac. (52)
Entzutiac sarnia, ezcabija ta beste gach asco loiquerijatic datozala.
(102) ..., ura usteltzea nai ez bada. (52)
... ez baldin bada nai ura atsitutia; ...

5.3.3. Beste ordenamendu aldaketa batzuk.

5.3.3.1. Esaldiren baten jiratzea.

Gertatzen da inoiz esaldi osoren baten jiratzea ere Uriarteren idatzian. Hala behintzat segidakoan, prezeski aditzaren ondorenera pasatzeko, kasuan esaldiko prediku nagusia litzatekeen hura, zalantza gabe:

(103) Erraulеaz itzeguin bear degu gaur. (40)
Gaur berba eguingo dogu errauliaren ganian.

5.3.3.2. Juntagailuren baten aurreratzea.

Aipagarria da ere, nola inoiz behintzat, Uriartek (eta Duvoisinek ere kasuan) aurreratzen duen esaldi hasieraraino, Iturriagak esaldi bukaeran ematen duen juntagailu bat:

(104) ..., otzic eta bero aundiric eguiten ez badu beintzat. (56)
... edolabere otz andiric edo bero andiric eguiten ez badau. (Duv.)

5.3.3.3. Sintagma buru baten atzeratzea ere.

Aurkitu dugu behin, sintagma buru baten atzeratzea ere Uriarterenean, bere izen buruaren aurrera eramanez, Iturriagak (eta kasuan Duvoisinek eta Inchauspek ere bai) izen buru honen ondoretik ematen duten erlatibozko esaldi nominalizatua:

(105) Ona non dezun aberecho bat zuc ezagutzen ez dezuna.
Emen daucazu zuc ezagututen ez dozun aberechu bat.

5.3.3.4. Uriarte aditz laguntzailea aurreratzearen kontra.

Bestalde, Uriartek oso maiz, ez ditu onartuko, Iturriagak baiezko esaldietan aurreratzen dituen zenbait aditz laguntzaile; eta beren aditz nagusia ezarriko die aurretik, euskaraz ohizkoagoa den perifrasi moduan. Hala behintzat segidako kasuotan:

(106) (Bai,) garestiac [sic] bear du izan, ceren ... (44)
(Bai,) caruac [sic] izan biar dau, cerren ... (Duv., Inch.)

(107) Aren odolac bear du ibilli gureac bezala ... (46)
Aren odolac ibilli biar dau guriac leguez ... (Duv.)

(108) Argatic bear dira garbitu egun oro musua eta escuac. (50)
Orregaitic egun oro garbitu biar dira arpeguija eta escubac.

Azken esaldi honetan Uriartek laguntzailea aditz nagusiaren ondoretik emateaz gain, zertxobait ere atzeratzen du aditzaren perifrasi osoa. Bera da, atzeratze kasu bakarra, lehen bederatzi *Jolasetan*.

Uriarteren aldaketa guztiak gora behera, honen esaldiak, Iturriagarenak ere ez bezala, ez dira batere alderatzen, aurreko tradizio bizkaitar, eta orokor, hoberenaren ibilbide zabaletatik. Areago, esan ahal da, Uriarteren itzulpena, oraindik gertatzen dela, Iturriagaren jatorrizko bera baino, usain herrikoiagokoa orora, samurragoa eta arinagoa. Eta honetan zerikusia duela, duda barik, Uriarteren hitz ordenamendu beti herrikoiagoak.

5.4. Uriarteren Bibliaren itzulpena gipuzkeraz.

1959an hasita Printzearen aginduz, Uriartek ozta hil aurrerako amaituko du, bere *Biblia edo Testamentu Zar eta Berriaren* itzulpena gipuzkerara. Hala ere, Bonapartek ez zituen argitaratuko, honen lehen hiru liburuak baino (*Genesiscoa, Exôdocoa,* eta *Leviticocoa*). Uriartek erreferentzi asko egiten dio lan erraldoi honi, urte bitarte horietan Printzeari egiten dion eskutitz sailean. Lehenengoetan, behin eta berriro errepikatuko dizkio Printzeari, bere itzulpen lanaren oinarriak. Hala nola dioen adibidez argi eta garbi bere bigarren gutunean (41 or.):[208]

La traducción la hago *bajo las bases siguientes*: 1.º *Literal*, en cuanto se pueda; 2.ª *Conservando el sentido de las palabras del original*: 3.ª *Siguiendo*, en cuanto se pueda, *la misma colocación de las palabras que el original latino*:

[208] Ruiz de Larrinagak bi aldizkari desberdinetan argitaratu zuen Uriarteren gutunen lehen saila: *BAP*en, eta, hemen erabiltzen duguna, *ASJU*, I, 1954, 35-106 orr..

> 4.ª Cuando me ocurre alguna duda, *consulto la traducción del P. Scio*.

Uriartek gutun berean gaztigatzen dio Printzeari, nola bidali dizkion San Mateoren Ebangelioaren lehen hamar kapitulu t'erdiak, eta hauei buruz jarraitzen du esaten gutun berean:[209]

> He querido hacer una traduccion fiel, literal y acomodada á la colocacion de los terminos del original latino, sacrificando algunas veces, a imitacion del Padre Scio, el sentido del bascuence, pero no me lisongeo de haber logrado [sic]. / Recibi á su tiempo la traduccion de los Evangelios en el bascuence labortano Frances. Está muy elegante y bien hecha. Creo que la mia sera mas literal y sencilla.

Antzeko gauzak errepikatzen ditu hurrengo gutunetan ere (7.ean, 23, 24, 25.ean, ...), bere lanerako irizpideen inguruan. Baita ere, *euskara hainbat behartzearen kontua, latin originalera moldatzearen amoreagatik*. Nahiz eta hala ere, Uriartek beti zehaztuko duen behartze hori, segidakoen antzeko aposizioekin: *ahal den heinean, euskara berak baimentzen duen neurrian*. 26. gutunean ere zehazten du berriro muga hori, segidako hitzekin (*ASJU*, I, 1954, 61 or.):

> ... lo que nos importa es tener una traduccion guipuzcoana, que sea literal, exacta, de puro bascuence, guardando el régimen y aire de este idioma; ...

Aipatzen du oraindik Uriartek bere 9. eskutitzean Printzeak egin dion eskaera, egin dezan euskarazko *Apokalipsiaren* itzulpena, Scio-ren gaztelaniazko itzulpenari begiratu gabe.

5.4.1. Alde nabarmenak Uriarteren itzulpena eta Vulgataren hitzen ordenamenduaren artean.

Zenbateraino makurtzen da ordea Aita Uriarte, latinezko hitz ordenamendura, eta zenbateraino behartzen du hartara, bere euskararen joskera? Guk froga txiki bat egin dugu, Duvoisinekin bezala. Ezagun dugu jada, Uriarteren berezko joera, aditza nahikoa aurreratua emateko esaldian. Aipatu genuen bestalde Duvoisinen kasuan ere, latinezko *Vulgataren* joera (bederen guk parekatutako liburuetan), nahikoa aurreratuta emateko bere aditzak ere esaldian. Guk egin dugun alderaketa txikian, ezin esan da, Uriarte lotuegia sentitzen denik inoiz, latinezkoaren hitz ordenaren kausaz.

5.4.1.1. Uriarte Genesiseko aditzak atzeratzen.

Alderatzen baditugu Uriarteren *Genesisco Liburuaren* lehen kapituluko lehen hamar bertsetak, aurkituko ditugu, hamabi aditz atzeratze ere euskaraz, hauen jatorrizko latinaren aldean. Segidakoak (bertsetak zenbatzen ditugu):[210]

(109) Appelavitque lucem Diem, ... (5)
Eta arguiari deitu cion, Eguna; ...
(110) ...: Factumque est vesperè, et manè, dies unus. (5)
...: eta arratsalde eta goizarequin eguin zan lembicico eguna.
(111) (..., divisitque) aquas quæ erant sub firmamentum, ... (7)
(..., eta bereci cituen) firmamentuaren azpian ceuden urac, ...
(112) ..., ab his, quæ erant super firmamentum. (7)
..., firmamentuaren gañean ceudenetatic.
(113) Et factum est ita. (7, eta berriro berdin 9)
Eta ala eguin zan. (eta berriro ere berdin 9.ean)
(114) Vocavitque Deus firmamentum, Cœlum: ... (8)
Eta firmamentuari deitu cion Jaungoicoac, Cerua: ...
(115) ...: et factum est vesperè et manè, dies secundus. (8)
...: eta arratsalde eta goizarequin eguin zan bigarren eguna.
(116) Dixit verò Deus: ... (9)
Baitaere esan zuen Jaungoicoac: ...
(117) (...: Congregentur) aquæ, quæ subcœlo sunt, in locum unum: ... (9)
(...: Bildu bitez) toqui batean ceruaren azpian dauden urac: ...
(118) Et vocavit Deus aridam, Terram, ... (10)
Eta legorrari deitu cion Jaungoicoac, Lurra, ...
(119) (Et vidit Deus,) quôd esset bonum. (10)
(Eta icusi zuen Jaungoicoac) ona zala.

---

[209] Nahiz Ruiz de Larrinagak, ez duen jarraipen hau jasotzen, bere argitalpenean. Gerok transkribatzen dugu, Bizkaiko Foru Alduandian gordetzen den eskuizkribu orijinalaren mikrofilmaren kopiatik.

[210] Latinezko aipuak jasotzen ditugu Torres Amat-en argitalpenetik, *La Santa Biblia. Vulgata Latina y su traduccion al español*, Barcelona, 1885-86. Euskerazkoak berriz, Hordagok 1978an egindako argitalpen faksimiletik.

Erlatibozko esaldien hiru kasuetan (7 eta 9 bertsetetan), pentsa liteke oso ohizkoa ere badela euskaraz, sintagma buru eta aditzaren halako atzeratze bat. Beste kasuren batean, gertatzen da, Uriartek aditza esaldi bukaeraraino atzeratzea (7, 9 eta 10. bertsetetan), nahiz bakarrik postu bat atzeratu hau esaldian (euskarazko «Xà» fenomenorako joerak bultzatuta edo). Beste kasu guztietan ordea, esango litzateke, Uriarte konformatzen dela, nolabaiteko elementu edo konplementuren bat ematearekin euskarazko aditzaren aurretik (euskal aditzaren «Xà» fenomenorako joera beteaz), nahiz eta aditzaren ondoretik segi ematen, nabarmen, esaldiko prediku nagusia edo galdegaia (5, 8, 9 eta 10. bertseten kasuak).

5.4.1.1.1. Esaldi jiratzeak ere.

Uriartek, oraindik beste bi kasutan ere behintzat (lehen 10 bertset horietan), erabat jiratzen ditu esaldiak bi hizkuntzetan, aditzaren aurrean emanez euskaraz, *Vulgatak* ondoren ematen duena, eta alderantziz:

(120) Et facta est lux. (3)
Eta arguia izan zen eguiña.
(121) (Et vidit Deus) lucem quod esset bona: ... (4)
(Eta icusi zuen Jaungoicoac) ona zala arguia: ...

Ezin ba esan da horren erraz, Uriarte berak esanak esan, honen hitzen ordenamendua mugatuegia gertatzen denik, jatorrizko latinaren ordenamenduan. Uriarte adibide guzti hauetan, estu lotzen zaio, euskarazko aditzaren «Xà» fenomenorako joerari, eta ez du batere zalantzarik, aditza atzeratzeko euskaraz hala komeni zaionean, nahiz hasieratik, jatorrizkoaren ordenamendua errespetatzeko asmorik hoberenak izan.

5.4.1.2. Uriarteren aditz aurreratzeak Leviticocoan.

Beste froga txiki bat egin dugu, parekatzen orain, *Leviticoco Liburuaren* lehen kapituluko lehen hamar bertsetak. Uriarte, *Genesiseco Liburu* hasierako bertsetetan bezain infidel gertatzen da, hauetako hamaika esalditan ere, hitzen ordenamenduari dagokionean. Kurioski ordea, oraingo joera ez da izango aditzak atzeratzearena, latin jatorriarekiko, baizik eta hauek, are oraindik aurreratzea esaldian hainbat gehiago.

Uriartek atzeratzen ditu aditzak oraindik bi kasutan ere. Bat erlatibozko esaldietako batean, zeina halaz guztiz, ondo hautsita segitzen duen ematen euskaraz, artean konplementu sail bat erakusten duelarik nominalizatutako aditzaren ondoretik. Bigarren kasuan berriz, Uriartek esaldiko aditza atzeratuta ere, honen ondoretik segiko da ematen, esaldiko prediku nagusia. Bi esaldiak:

(122) ...: Homo, qui <u>obtulerit</u> ex vobis hostiam Domino de pecoribus, ... (2)
...: zuetaco guizon <u>esqueintzen diona</u> Jaunari olocaustoa abereetatic, …[211]
(123) ..., et <u>offerent</u> filii Aaron sacerdotes sanguinem ejus, ... (5)
..., eta Aaronen seme apezac <u>esqueñico dute</u> aren odola, ...

Uriartek atzekoz aurrera ere jiratuko du mendeko esaldi bat euskaraz latinaren aldean, nolanahi hau hautsita ematen segiaz:

(124) Si holocaustum fuerit ejus oblatio, ... (3)
Bere esqueñia balitz olocausto bat, ...

5.4.1.2.1. Aditza aurreratzen esaldi nagusietan.

Beste zortzi kasutan berriz, Uriartek aurreratu egingo du aditzaren gunea euskarazko esaldian. Lau kasutan esaldi nagusietan. Behin esaldi hasieraraino ere. Eta hauetan ondo ohargarria da, nola, latinezko testuan, lau kasuetan ematen den esaldiko prediku nagusia-edo, aditzaren aurretik; eta Uriartek hala ere, lau kasuetan pasatuko duen, prediku nagusi hau euskaraz, esanguratsu asko, aditzaren onderenera:

(125) Si holocaustum fuerit ejus oblatio, ac de armento; masculum immaculatum <u>offeret</u> ad hostium tabernaculi testimonii ... (3)
Bere esqueñia balitz olocausto bat, eta abere taldecoa, <u>esqueñico du</u> ar aitzaqui gabe bat testimonioco tabernaculoco atean ...

---

[211] Esaldi honen inguruan, har bedi gainera kontutan, Uriartek bertan erabiltzen duen egitura, erlatibozko esaldia izen buru mugagabe baten ondoren, ez dena batere bitxia hegoaldeko tradizioan ere, ikusten ari garen bezala. Ez dugu uste zailegia litzatekeenik antzeko adibide gehiago aurkitzea Uriarteren lanetan.

(126) ..., et acceptabilis erit, ... (4)
..., eta izango da Jaunaren gogocoa, ...
(127) Detractâque pelle hostiæ, artus in frusta concîdent, ... (6)
Eta quenduric larrua abere illari, ebaquico dute gorputza zatietan.
(128) Quòd si de pecoribus oblatio est, de ovibus sive de capris holocaustum, masculum absque macula offeret: ... (10)
Baña abere esqueintza balitz ardi edo auntzetacoa, esqueñico du mancha gabeco arra: ...

5.4.1.2.2. Aditza aurreratzen mendeko esaldietan.

Uriarteren beste lau aditz aurreratzeak gertatzen dira, mendeko esaldietan. Lauretan Uriartek, esanguratsuki, euskarazko esaldiaren hasieraraino eramaten du, latinez atzerago baino erakusten ez zen aditza. Kurioski, hauetako bat, erlatibozko esaldi bat izango da (aditz atzeratzeen artean ikusi dugun beste esaldi erlatiboaren aposizioa edo), eta Uriartek, esaldi hasieraraino aurreratuko du aditz jokatu nominalizatua, ondoretik emanez esaldiko beste konplementu guztiak. Esaldiak dira:

(129) (...: Homo, qui obtulerit ex vobis hostiam Domino de pecoribus,) id est, de bobus et ovibus offerens victimas, ...(2)
(...: zuetaco guizon esqueintzen diona Jaunari olocaustoa abereetatic,) au da, esqueintzen dizquiona bitimac idietatic eta ardietatic, ...
(130) ..., strue lignorum ante compositâ: ... (7)
..., ipiñita lendanaz egur montoya: ...
(131) Et membra quæ sunt cæsa, desuper ordinantes, ... (8)
Eta jarriric gañean errencan ebaquiac izan diraden gorputz zatiac, ...
(132) Intestinis et pedibus lotis aqua: ... (9)
Garbituric urez esteac eta oñac: ... (9)

Badirudi bada, Uriarteren *Biblia* itzulpena juzgatzeko garaian, ez dela nahikoa izango, hau besterik gabe katalogatu nahi izatea, Duvoisinen kasuan legez, *latinaren uztarpekoa* bezala, hitzen ordenamenduaren kontuetan bederen.

5.4.2. Uriarteren ohar bat euskarazko SAO (SVO) ordenaren inguruan.

Uriartek Printzeari egiten dion 19. kartan (Uztailak 26, 1857), eztabaida txiki bat zabaltzen du, zeharka bada ere zerikusirik duena, euskarazko SAO (SVO) edo SOA (SOV) ordenen maiztasun edo naturaltasunaren arazoarekin, eta horregatik jaso nahi duguna. Bertan Uriartek adierazten dio Printzeari, zergatik idatzi duen esaldia modu batera, eta ez bestera (*ASJU* I, 1954, 51 or):

> ... He puesto: *Abrahamec sortu zuen Isaac*; aunque yo era de parecer que en el vizcaíno debía decirse: *Abrahamec sortu eban Isaac*. Viendo que a varios bascongados no les parecía bien, y que el labortano tampoco usaba, me resolví a traducir: *Abraham gandic izan zan zortuba Isaac*, pero viendo que Lardizabal en su "Testamentu zarreco eta berrico", pág. 357, dice: *Adanec sortu zuen Set*, lo he adoptado sin ningún reparo.

Hor bukatzen du Uriartek eztabaida, eta guri, gutxienez, ohargarria egiten zaigu, nola halako erreflexio saio *setati* batzuen ondoren, Uriartek ez duen inondik ere jartzen zalantzan, euskarazko SAO (SVO) ordenamendu modua. Ez dirudi hala, Uriarteri ere inolako minik egiten dionik, gure tradizioan nagusia den ordenamendu modu honek, Lardizabal berari ere egiten ez dion bezala (izanagatik bera, *aditz atzeratzearen gurutzatuetakoa*). Eta hala jasotzen du honek ere errenkada Uriartek aipatu bezala, inolako zalantzarik gabe:[212] *Adan-ec sortu zuen Set. / Set-ec sortu zuen Enos. / Enos-ec sortu zuen Cainàn. / Cainán-ec sortu zuen Malaleel. ...*; eta horrela 60ren bat esalditarainoko zerrenda luzea (edozein hitz ordenamendu estadistika zalantzan jartzeko modukoa, bera bakarrik ere). Uriarterengan bestalde, jada suposa ere genezakeen bezala, ezin ugariago aurkitu ahal dira ordenamendu modu horiek nonnahi, gure tradizio zabalenean bezalaxe.

[212] Aipua jasotzen dugu, Lardizabalen liburuaren bigarren argitalpenetik, Tolosa, 1887, 388 or.

ERASKINAK

1. J. A. Uriarteren Jesus Sacramentadua obraren Berba Aurrecoa.

Kopiatzen dugu jatorrizko argitalpenetik (Bilbao, 1856, 7-9 orr.):

BERBA AURRECOA

Liburu au iracurteco asmoac daucazuzan cristiñaua: ez eguizu uste izan sinistu eraguitera noatsula celan Altaraco Sacramentu santuan dagoan Jesucristo gure Jauna, daquidalaco ez dozula nire esanaren bearric, gure fedeco eguia au sinistuteco. Ain guichi necatuco naz adierazoten zuri, celan dagoan Jaun au Sacramentu onetan erruqui ta amodiozco jarlecu baten, aberastuteco gure arimaac ceruco ondasun ugariacaz. Bacarric erregututen deutsut jarri zaitezala pusca baten ceure artéan gogoratuten eta beguiratu daguizula, zure amodio ta esquer ona Sacramentu Jaungoicozco oneganaco ete diran ceure fedeac eracusten deutsun bestecoac: eta baldin uste badozu epeldu edo otzitu jatsula amodioa edo guichitu beraganaco etsiguitasun tá eraspena, erregututen deutsut erabagui daguizula egotea beragaz egun bacochean guichienez ordu laurenchu baten. Ecin joan bazara Elessara, eguin daiquiozuz erregu tá escari oneec ceure echetic, jarriric belaunico Jesus Sacramentadua urreen daucazun lecuruntz beguira.

Barriz eguin béar dozuz iru gauza gaitic: Lelengo, emoteco esquerrac Jesusi eguin euscun mesede, esan albaiño andiagoa gaitic, jarriaz Sacramentu Jaungoicozco onetan, euscun amodio larreguia gaitic, adoretan dozula ítzal eta amodio albait andienagaz. Bigarren, quitau eta paguetaco, guizonac eurac Sacramentu onetan eguin deutsezan iraun ta emondaco naibagueen zorrac. Eta irugarren, escatuteco ceure pecatuen parcaciñoa, onduteco edo obatuteco gracia, bere amodio santua, vicitza onean iraupena, eta betico zoriontasuna.

Eguia dá Jaungoicoac edonun tá lecu guztietan entzuten dituzala gure erregu ta escariac, baña da bere gauza ciurra ugaritasun andiagoagaz zabalduten dituzala bere doe ta emocaiac Altaraco Sacramentu Santuan. Ez litzateque icusico cristiñaûen artéan aimbeste pecatu ta gaistaqueria, eta ecin cembatu ta contau albeste arima guichiago jausico litzatequez infernura, zaletuco balira cristiñaûac eraspen onetara. Devociño guztien artean Jaungoicoaren gogocoena eta gure arimac aberastuteco egoquiena dá duda bagaric Altaraco Sacramentu santuan Jesus adoretea. ¿Noc adierazo celaco aurrerapenac eguin dituezan arima ascoc ceruco bidean eta ceimbat pecatari ondu dan devociño onen bitartez? Eta ¿noc daqui, zuc bere artuco ete dozun asmo sendoren bat ichiteco guztiz pecatuco lecu, lagun ta munduari, emoteco guztiori osoro Jesusi, beragaz Altara aurrean zagozanen baten? Alan gura daquiola guztia daiquéan Jaungoicoari. Agur.

2. J.A. Uriarteren Marijaren illaren sarrerako Arguibidia.

Jatorrizko argitalpenetik kopiatzen dugu (Bilbo, 1850, 1-2 orr.):

VICI BEDI MARIJA.

ARGUIBIDIA

Marijaren seme, ta alaba leijalac gomutau oi diran leguez beragaz egunian iru bidar, au da, goissian, eguerdijan, eta illuntzian, eta dauqueen leguez auturic aste bacochian egun bat, cein dan zapatua, igaroteco berarizco arduriagaz Ama samur onen gogoco eguiquizun [sic], eta lanetan; alan dirudi ondo eguiña, ta egoquija berari esquintzia oso osoric urteco ill bat.

Eta esquintsarijetan emon biar dan leguez onena, orregaitic autu, ta escogidu da ill guztijen artian ederrena, au da, Maijatza, ceñec bere lora, ta guiruagaz iguitu, eta movietan gaituzan eguitera coroe bat ontasun, ta birtutetaco loracaz, esquintzeco ceruetaco Erreguiña andijari. Barriz, beguitandu deitian errazago ta laburrago, eta izan deitian Marijaren gogocuago, eguiten da onelan.

Imiñico da Marijaren irudi bat albait onduen apainduta, dala lora, larrosa, edo beste era ataco edergarrijacaz, guela, escaratz, edo echecuac errosarijua errecetara batu oi diran lecuan. Aprillaren azquenengo egunian artuco dau bacochac guero imiñico diran gauza onetatic bat ill guztiraco; ta areen ondoric imiñico diranetatic beste bat, egun bacocheraco. Orra celan eguiten diran Marquiñan.

Lelengo errecetan da bost amarrecogaz errosarijua letaña bagaric: oneen lecuan credo bat, eta salve bat, Jesus, ta Marijaren bijotz gozuai: visitetan dira altaraac Aita guria banagaz: iracurten da liburutic astiro egun ataco gomuta gueija: onen ondoric egemplua: adierazoten dira bijaramoneraco loria, ta sarri esateco erregu laburra: egoten da dempora pusca baten issillic gogoratuten iracurri diran gauzaac: guero eguiten da berbaldija: cantetan dira letañaac, emoten da bedeincacinoia, ta amaituten da, azquenian imiñico diran berba neurtu lauco, edo zortzicuacaz. Lagunic ez daucanac, bacarric bardin eguin leiquez.

3. J. A. Uriarteren gutun bat euskaraz Printze Bonaparteri.

Eskutitza da, J. Ruiz de Larrinagak argitaratzen dituenetako 99a, eta berak argitaratu bezala jasotzen dugu (*BAP*, XXII, 1957, 237-8 orr.):

Marquina. Aberillaren bederatziyan.

Milla zortzireun eta irurogueta batian.

Done Luis Luciano Bonaparte Jaun guztiz goratuba. Neure adisquide maite eta Jauna: Uri onetan neure conbenturaco iraitzez neguala; erabagui dot escribietia zuri Marquiñaco eusqueran, orainartian Guipuzcuacuan eguin badeutzut bere, ceuc Lapurdicuan escribiu deutzazun ezquero. Badaquit Andre Done Clemenciac barre eguingo dabela, baña ez da ardura. Artu neban bere denporan oraintzubengo escribiu ceustan cartia: atseguiten dot jaquitiac osasunagaz zagozala.

Igaro diran amabost egunetan egon naz Aulestiya edo Murelaga derichon errian, cein daguan uri onen eta Guernicacuaren erdiyan conventuco Nagusiyac bialduta, lau sermoe prediquetara. Emen neure arazuben artian imiñi ditut Guipuzcuaco eusqueran *Erregueen* lenengo Liburubaren asieraco 15 capitulu, bialduten deutzudazanac. Jarraituco deutzat emparaubac bere jartiari Guipuzcuaco eusqueran beratan, neure conbentuban ceiñetara noian biyar, astiya daucadan guiñuan.

Zure cartatic dacust guztiz asco aurreratu dabela Duvoisin Jaunac bere lanetan: nic ecin daiquet ainbeste, ez da asco guichiago bere. Onelaco lan gach eta astunac eguin biar litzatequez nic eguin ditudazan baño astiruago, eta egon biar neuque Guipuzcuaco Beterriyan edolabere iru illa betian; baño celan izango da ... orain beiñipein ecin igaro guiñaitequez beste bidetatic. Ez nua gueiyago esatera onen ganian, illetaritzat euqui ez naguizun. Gu conbentuan gagoz len leguez, edo gueruago chartuago: ez deuscube baquian ichi nai Bermeoco urico guizon erdi andiqui batzuc. Esan deuste conbentuban, nic eracutsi biarco deutsedala Filosofiya Fraille gazte sartubarriyai; onelacoric balitz, dempora guztiz guichi edo batbere ez neuque euquico eusquerazco geure lanetaraco: amabosten bat egun barru jaquingo dot ciur, eta adierazoco deutzut.

Agur, ondo vici: gorantziyac echeco guztiyai, Aita Mellari eta Erranzaguni: eta zure mende ta aguinduan gelditzen da, escumunacaz zure adisquide maite ta servitzari cintzo. - Fr. José Antonio de Uriarte.

6. (1867-1876) J.M. Egurenen Metodo eta Manualak gaztelania (eta euskara) irakasteko.

1867an ematen da lehen aldiz argitara, J.M. Eguren Gipuzkoako elgetar,[213] eta *Inspector cesante de 1.ª Enseñanza*-ren (berak liburuskaren azalean dioen legez), *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas* liburua. Euskarazko aldean gipuzkeraz idatzitako lan honen lehen asmoa ere, aurretik Astigarraga eta Iturriagaren haienena bezalaxe da, gaztelania irakastea euskal gazteari. Eta hala arrazoitzen du Egurenek liburuaren sarreran, antzeko beste hainbat hitzen ondoren, gaztelania ikasteko komenentziaren inguruan (eta bide batez, nahikoa garratz euskararekiko) (VIII-IX orr.):

> ..., los que no entienden el castellano se ven privados de uno de los más poderosos medios de progreso intelectual, cual es la lectura, ..., porque nada se escribe en vascuence. Fuera del pequeño recinto de nuestro pais para nada sirve esta lengua, y son extranjeros por consiguiente dentro de su misma pátria los que no hablan ni entienden el castellano. / Es por tanto indudable que conviene mucho facilitar entre los vascongados la inteligencia de este idioma, y tal es el objeto de este libro ...

Hala ere Egurenek aipatuko ditu, oraindik 1867an, euskararen balioak, eta hizkuntza honen landu beharra ere, lehenago Astigarragak egin bide beretsutik (XIV-XV orr.):

> ..., debe el maestro cuidar de que los niños palpen materialmente la diferencia que hay entre el vascuence que vulgarmente se habla y el que pudiera hablarse mas en conformidad con el vascuence escrito. Así conseguirá que estos ejercicios comparativos y puramente prácticos, que tienen por objeto principal enseñar el castellano, contribuyan al mismo tiempo á mejorar el habla vascongada en su uso vulgar, pues por este medio podrán aprender fácilmente los niños las verdaderas voces vascongadas de algunos nombres y otras partes de la oracion que desconocian antes completamente, rectificando tambien los errores á que el uso les hubiese acostumbrado respecto de las dicciones. / No podemos ni debemos desatender este segundo fin los vascongados, porque tenemos en mucho nuestro idioma natal, cuyas escelencias han sido demostradas por personas muy competentes en la materia y están reconocidas por cuantos se han ocupado de ella.

Halaz eta guztiz, nahiko nabarmena da izango beti, Egurenen mingoztasuna euskararekiko, eta halako kiratsa jarioko zaio Egurenen pasarte askori. Hori izango da, bere ezaugarri propioenetako bat. Hala adibidez nola, segidako bi pasarteetan, Eguren gazteleraren erabilera zabaldu beharra aldarrikatzen hasten denean, edota erabilera hau zabaltzeko moduak erakusten:

> Para conseguir, pues, que aprendan este idioma en las escuelas, no basta lo que se hacia antiguamente en ellas. Se prohibia á los niños hablar en vascuence haciendo tomar un anillo al que incurriera en esta falta y castigando al fin de la semana al que lo tenia en su poder. Y como al mismo tiempo no se enseñaba en la escuela generalmente á hablar el castellano, resultaba que siempre habia castigados el sabado, pues por más que el niño no quisiera incurrir en falta le era imposible evitarlo. (XII or.) / Puede estimularse tambien á los niños por diferentes medios á que se acostumbren á hablar en castellano fuera de la escuela, ... (XXII or.).

Kurioski bederatzi urte beranduago, *Metodoak* 1876an ezagutzen duen berrargitalpenerako (orduan, *Diccionario vasco-castellano y método para enseñar el castellano á los vascongados, ... Segunda edicion reformada* izenarekin), jada desagertu egingo dira bertatik, Egurenen lausengu guztiak euskararekiko, erantsiaz *Prologoari,* segidako pasarte, are erdalzaleagoa (VII or.):

> Otras consideraciones de un órden superior, que no son de este lugar, abonan tambien nuestra opinion sobre la *conveniencia de generalizar el uso de la lengua castellana entre los vascongados*, habiendonos afirmado cada vez mas en nuestras creencias sobre el particular desde el año 1867 en que publicamos la primera edicion de este pequeño trabajo, que hoy aparece reformado como aconseja la esperiencia y conviene á su objeto, disminuyendose asi notablemente el volúmen de este libro ...

1876ko urtean, bigarren gerla karlista amaituta, foruak galdu berritan, beharbada susmatu ere egin daiteke, zer esan nahi lezaketen, batetik, Egurenen omisioak euskararen alde, eta bestetik, *consideraciones de un órden superior* horiek. Nolanahi ere, konbeni da gogoratzea, nola Egurenek jada 1868an bertan ateratzen zuen *Metodoaren* laburpen bat, kanpotarrei zuzendua, hauei euskara ulertzen, eta ikasten, laguntzeko: *Guia Manual del Lenguaje para uso de los viajeros en el País Vasco* izenarekin; eta berdintsu argitaratzen du, oraindik 1876an ere, gisa bereko

[213] Gerardo Elorza, Bergarako UNEDeko irakasleak argitu digunez.

Manual de la conversación para uso de los que visitan el País Vasco bat, beti nolabait zabaltzen, euskararen ezagupena.

6.1. Egurenen oharñoak bi hizkuntzen arteko eraikuntzen desberdintasunaz.

Iturriaga bezala, Eguren ere konsziente ageri zaigu liburuskaren hasieratik, bi hizkuntzen arteko egituren desberdintasunez. Halamoduz adierazten du, lehen argitalpenaren *Prologoan,* hizkuntza batetik bestera egin beharreko itzulpenen inguruan (XXI or.):

> ..., se empieza por escribir en el encerado la pregunta en castellano y analizarla para verterla en seguida al vascuence palabra por palabra, se repite esto mismo con la respuesta y se hacen en seguida las correcciones que exige la traduccion literal por la diferente construccion de ambos idiomas.

Apenas hala ere ezer gehiagorik esaten den lehen argitalpenean, bi hizkuntzen arteko egitura desberdintasunen gainean. Bigarrenean, Egurenek zertxobait gehiago ukituko du ezaugarria. Batetik, bi aldiz ere gaztigatuaz, euskara eta gaztelaniazko *artikuluaren* erabilera desberdinaren inguru.[214] Bestetik berriz, lerrokada berri bat erantsiaz 1876ko *Prologoari,* zerbait gehixeago zehazteko orduan, zertan datzan, bi hizkuntzen arteko egituren desberdintasuna:

> ... Tambien se ve asi palpablemente cuan distintas son las construcciones vascongada y castellana, por lo que no pueden traducirse literalmente ambos idiomas, como se ve en los siguientes ejemplos. *Zaldi ori nerea da*, traducido literalmente dice: *caballo ese mío es*, debiendo decir: *ese caballo es mio. Aitarena da zaldi ori*, traducido literalmente dice: *del padre es caballo ese*, debiendo decir: *ese caballo es del padre. ¿Mesede bat eguingo dit?* su traduccion literal es: *¿favor uno me hará V.?*, en lugar de decir: *¿me hará V. un favor?*

Baina nahiz eta adibideek dudarik gabeko aukera eman horretarako, Egurenek ez du ezer aipatuko, bi hizkuntzetako aditzen gune desberdintasunaz esaldian, edota euskal aditzaren balizko ezaugarri pospositibo batez. Eta hori, nahiz Egurenek ezagutzen zuen, lehenengo argitalpenean aitortzen duen bezala,[215] Lardizabalen *Gramatika*, non bai, agerian aldarrikatzen den, euskal aditzaren balizko ezaugarria.

6.2. Egurenen adibidetegi ez-cardaveraztiarra.

Egurenen *eskuliburuko* adibidetegiak, ez digu inola ere utziko pentsatzen, honek inoiz serioegi hartu izan zezakeenik halako printzipio aditz atzeratzaile bat.

6.2.1. Objetua aditzaren ondoretik: (AO) ordenamenduak.

Esanguratsua da horrela, Egurenek lehenengo argitalpenaren hitzaurrean, ematen duen euskarazko esaldi oso bakarraren ordenamendua, edota adibidetegiko hurrengoaren antzekoa, biak SAO (SVO) ordenan:

> (1) Arc jatendu ogui, zuria / aquel come pan blanco (XVII)
> (2) Nic jaten ditut picuac / yo como los higos (182)

Esanguratsuagoak askozaz nolanahi, Egurenek liburuan barrena ematen dituen lehen esaldi oso samarrak, aditz *aktiboen* erabileraren adibide bezala («Práctica de la conjugacion con varios verbos activos», 172-177 orrialdeak bitartean), non beti ematen duen aditza objetuaren aurretik (AO), gaztelaniazko ordena berberean errepikatuaz etengabe, *iskribitu, esan, icasi, amatu, artu,* edo *edan* aditzekin osatutako esaldi kateak, denboraldi desberdin bakoitzean. Segidako, *Modo indicativo.-Tiempo presente*-ko hauen modura (172-3 orr.):

> (3) Iscribitzen det plana bat / escribo una plana.
> (4) Esaten dezu eguia / dices la verdad.
> (5) Icasten du leccioa / aprende la leccion.
> (6) Amatzen degu virtutea / amamos la virtud.
> (7) Artzen dezute chocolatea / tomais chocolate.

---

[214] Hala esaten du hitzaurrean (XI or.): «Conviene tambien hacer comprender á los niños el diferente uso del articulo en castellano y vascuence, como se esplica en la nota que precede á las declinaciones.» Eta honetan berriz (93 or.): «... así como en castellano se ponen delante del nombre los articulos *el, la, lo*, en vascuence el articulo *á* se pone despues del nombre formando con este una sola palabra.»

[215] Hala esaten du Egurenek jarraitu zaiela, deklinabide ariketetan, Larramendi eta Lardizabalen gramatikei (1867, XVI or.): «... en las declinaciones ... Nosotros hemos seguido en estos ejercicios principalmente á lo que establecen en sus respectivas gramáticas vascongadas el Padre Larramendi y Don Francisco de Lardizabal, ...».

(8) Edaten dute ura / beben agua.

6.2.1.1. Mendeko esaldietan ere, hauek hautsiaz.

(AO) ordena berdinean ematen ditu Egurenek adibideak, beste *preterito* eta *futuroetako* denboraldi guztietan. Baita ere, kurioski, berez mendeko esaldiak osatzen dituzten denboretan, nola segidako adibideetan, saltoka hartuak paradigma desberdinetatik (175-6 orr.):

(9) Icasi dezadan leccioa / aprenda la leccion.
(10) Edan cenezan ura / bebieses agua.
(11) Esaten balu eguia / si dijera la verdad.
(12) Iscribatu izan bacendute plana bat / si hubierais escrito una plana.

6.2.2. Baina ordenamendu desberdinak ere bai euskaraz eta gazteleraz.

Segidan ordea, Egurenek berak, ordena berdinean eman dituen bezala *aditz aktiboen* adibide guztiak bi hizkuntzetan, ordena desberdinean emango ditu euskaraz eta gazteleraz, aditz *mixtoen* erabileraren adibide berri guztiak («Práctica de la conjugacion con varios verbos mixtos», 177-182 orrialdeak bitartean). Hauetan, konplementuak (bakarrak) beti emango dira aditzaren aurretik euskaraz (ohizkoa balitzatekeen bezala, «Xà», aditza bigaren, fenomenorako joeren eraginez), segidako adibideotan legez, saltoka hartuak paradigma desberdinetatik:

(13) Ondo vici naiz / vivo bien.
(14) Asco acitzen ciñan / crecias mucho.
(15) Cochean ibili da / ha andado en coche.
(16) Gracian hill ciran / murieron en gracia.
(17) Gueiegui guicendu izan ciñan / habias engordado demasiado.
(18) Pecatuan jayoco cerate / nacereis en pecado.
(19) Asco aci nadin / crezca mucho.
(20) Cochean ibilli cindecen / anduviese en coche.
(21) Ondo vicico balitz / si viviera y viviese bien.
(22) Pecatuan jayo izan baguiña / si hubiéramos y hubiésemos nacido en pecado.

6.3. Egurenen elkarrizketetako esaeren tradiziozko eredua.

Ez da ezagutzen Egurenen beste idatzirik euskaraz, baina berak, liburuskaren laugarren parte oso bat eskeintzen die (185-222 orr.), *Conversacioan usatzen diran esaerei*; eta ematen ere ditu bertan, bi hizkuntzetan bi zutabetan idatziak, beste zenbait platika didaktiko, *nekazaritza, animaliak,* edota, *gizalegezko jokabide hainbaten gainean*. Eraskin guzti hauetako hizkera, ez da batere aldenduko, gure tradiziozko moldeetatik. Oso usuzkoak izango dira, euskarazko «Xà» moduko egiturak (gaztelaniazko «aX» modukoen parean), eta hala, maiz ere gertatuko da euskaraz aditza esaldi bukaeran, batez ere esaldi laburrenetan (*Cirt edo zart eguin bear da / es necesario resolverse* modukoak, 190 or.). Baina maiz gertatuko dira eraberean, esaldi zerbait luzexeagoetan, aditzak hauen aurrealde batean emanak; galdegaiak usu aditzen ondoretik; aditzak zenbaitetan zuzenean esaldi hasieran ere (eta are inoiz aditz trinkoak); edota mendeko hainbat esaldi hautsita, eragozpen handirik gabe; segidan ikustera goazen bezala.

6.3.1. Galdegaiak aditzen ondoretik.

Hala, ez dira falta Egurenengan ugari, galdegaia, modu esanguratsuan, aditzaren ondoretik daramaten esaldiak, segidako hauen antzekoak:

(23) Ori ona izango da asco paseatzen duten aundimandientzat, ... / Eso será bueno para los caballeros que pasean mucho, ... (191-2)
(24) Necazariac lurra landuaz ematen ditu oguia, egoscariac, ... / El labrador cultivando la tierra produce el pan, las legumbres, ... (193)
(25) Necazariac lurrean ereiten duen acia biguntzen da eguzquiaren berotasun eta urac ematen duen ezadearequin, ... (194)
(26) Sustrayac chupatzen dute alimentuzco sustanciaz betea dagoan ura, ... / Las raices chupan el agua que ... (195)
(27) Landare batzuetan au guertatzen da era batera eta besteetan bestera, ... (195)
(28) Basoac gañera ematen dute erraquiña ugari, abelgorrientzat ostoa ... (198)
(29) *Beya* da gure necazaritza eguiteco maneraraco abereric prochugarriena: ... (199)
(30) Illeaz gañera ematen ditu esnea eta gazta, simaur edo ongarri muet ona ... (200)
(31) ... esneac dauzca guria, gazta, gazura eta azucrea, ... (200)
(32) *Cerria* da abere guciz on emalle bat, ... (201)
(33) ...; bere arguitasun, bearquintza eta obediencia dira miragarriac, ... (202)

(34) Erleac vici dira alcarrequin Erreguiñaren zucenvidearen pean, ceña dan ... (202)
(35) ..., eta orduan deritza *aicea*; baldin indar andiaz muguitu eta arbol eta echeac lurreratzen baditu ematen zayo *huracanaren* icena. (210)

6.3.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Ez dira ere faltako, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak, nahiz galdegaia nabarmen ere eraman, aditz honen ondoretik:

(36) Erregutzen diot barca dizadala / suplico á V. que me perdone. (188)
(37) Ematen diot zoriona / doy á V. la enhorabuena. (188)
(38) Ematen diozcat esquerrac / doy á V. las gracias. (188)
(39) Ucatzen det orrelaco gauza / niego semejante cosa. (189)
(40) Lantzen ditu arbola eta landareac ere, ceñac ... / Cultiva tambien los árboles y las plantas, que ... (193)
(41) ..., eta acitzen du lurretic campora irteten dan chorten bat. (194) / ..., y cria un tallo que sale fuera de la tierra.
(42) ...; estaltzen dituzte artaraco eguiten duten betun batequin eultzaren irriñarteac, eta eguiten dituzte guero arguizaguizco abarasca batzuec non ... (203)
(43) ..., eta obeditzen du [zaldiak], emacumeari obeditzeraño jarriaz. (205)
(44) ...; iresten ditu bere umeac eta mortificatzen ditu bere mendeco gañ artu lizayequeen beste animaliai; atzamarcatzen du bere nagusia, eta jaten ematen diona bera ere, eta ostutzen du al duen gucian premiaric ez iduquiarren. (209)

6.3.2.1. Aditz trinkoren bat ere zuzenean esaldi hasieran.

Inoizka, aurki dezakegu aditz trinkoren bat, zuzenean emana esaldi hasieran, eta segidako bi kasu hauetan bederen:

(45) (Zaldi mueta desberdiñac dira) eta da abere senaduna, ... (205)
(46) ..., eta da gucien artean prochuric guchienecoa. (209)

6.3.3 Mendeko esaldi hautsiak.

Azkenik ez da ere zailegia izango aurkitzea Egurenen prosan, mendeko esaldi hautsiak, nahiz eta ez diren ugariegiak (horren esaldi laburretan ohi legez, euskara klase guztietan ere):

(47) (... sustancia añ preciatuac ...,) nola diran azucrea, olioa, ardoa eta besteac, ... (193-4)
(48) ..., edo sustanci oec jan dituelaco landareac acitzen ... (196)
(49) Abelgorritza izanic necazaritzaren oña, ... (197)
(50) (... consejatzen dute,) gure necazariac, bear dutela aficioa artu, ganadu janetara, ... (197-8)
(51) ..., utziaz gañera larrean belarra jaten dembora onarequin. (199)
(52) ... izanaz cargu au bere eguiteco bacarra. (202)
(53) ..., aice otzetara irtetea lenago gordegarriren bat artugabe. (212)
(54) (... esaten digu,) bada itzuri eguin bear diegula griña oni eta besteai ... (216)
(55) (... billatu bear dana da) dagoala gauza bacoitzarentzat lecu jaquin bat, ... (217)
(56) (..., seguru da) eguingo duela bere familiaren zori ontasuna. (218)
(57) (On da) sarri icustea egunean gastatzen dana ... (218)

6.3.4. Adibide cardaveraztiarren arrastoren bat ere?

Ez dugu inola ere uste hitzegin litekeenik Egurenen kasuan, eragin *cardaveraztiarrez*. Halaz guztiz, aurkituko ditugubere prosan tarteka, ezezko aditz konposatu inbertsiorik gabeak, agian aditza zertxobait atzeratuta erakusten duen aginterazko esaldiren bat, edota galdera hautsi bat ere. Adibide guztiok gorabehera, ezin utziko zaio hitzegiteari, Egurenen kasuan, guztiz tradiziozko hitz ordenamenduaz.

6.3.4.1. Ezezko aditz konposatu inbertsio gabeak.

Hala aurki genitzake segidako ezezko aditz konposatuok, inbertsiorik gabe emanak (nahiz beste denak-edo-, inbertsiodunak izan):

(58) Seculan orrelacoric usteco ez nuen / nunca lo hubiera creido. (190)
(59) Orrelaco gauzaric seculan ucusi [sic] ez det / nunca he visto cosa igual. (190)
(60) ¿Eta ereiteco ichedon eciñ liteque euria eguin dezaneraño? (192)
(61) ..., orregatic guerostic ecertaraco servitzen ez du. (215)

6.3.4.1.1. Ezezko aditz trinko atzeraturen bat?

Aurki genezake ezezko aditz trinkoren bat ere, bere esaldi bukaeran emana, segidako bi adibideetan bezala (nahiz ez dakigun, bietan ere, zenbateraino konsidera litekeen atzerapen hori artifiziala, are gutxiago lehenengoan):

(62) Eragozpenic eztet / no tengo inconveniente. (187)
(63) Ori orrela ez da / eso no es asi. (189)

6.3.4.2. Aginterazko aditzen atzeratzen?

Eta aurki genitzake aginterazko aditzen batzuk ere, emanak beren esaldi bukaeran (nahiz berriro, esaldien laburren bistara, ez dakigun zenbateraino konsidera litezkeen artifizialak):

(64) Nerequin conta beza / cuente V. conmigo. (187)
(65) Nere contura utzi beza / deje V. á mi cuenta. (187)
(66) Jaincoac nai duena izan bedi / sea lo que Dios quiera. (191)

6.3.4.3. Galdera hautsi bat.

Bukatzeko, aurkitu dugu segidako galdera hautsia ere (bakarra), Egurenen prosan:

(67) ¿Norc au dudatzen du? / ¿quién lo duda? (189)

7. Victoriano Huiciren Gramatika Eskuliburua (en-dialecto-nabarro) 1899an.

Victoriano Huici (1860/8?-1938) apaizak, 1899an ematen du argitara Iruñean, bere *Manual de gramática bascongada* liburua, eta sarreran aitatzen duen bezala, bere asmo nagusia, euskara zaintzea da (VIII or.):

> Mi objeto, pues es sujetar á reglas (y no todas inventadas por cierto) [zeinekin ari ote da borrokan?], en dialecto nabarro, el baskuenz que anda hecho jiras y desfigurado, sin guia fijo aun entre bascongados, y extenderlo entre castellanos como el mejor baluarte de nuestras venerandas tradiciones y fueros, y mayor gloria de Dios.

Etxarri-Aranazko nafarra,[216] berak erakutsitako nafarrera ez da gehiegi aldentzen gipuzkera arruntetik. Huicik ez du bere erregelen artean, ezer asko aipatzen agerian, esaldiko elementuen ordenamenduaz, nahiz egiten duen oharren bat, *izen-adjetiboen* segidako ordenaz (2. or.), *numeralen* ordenamenduaz (2 or.), edota euskarazko *posposizioen* erabileraz deklinabidean (3 or.), gaztelaniako *preposizioen* parean (72 or.).[217]

Beste idatzirik ezagutzen ez zaion arren, egin genezake ideiaren bat bere praktikaz hitzen ordenamenduaren inguruan, aztertuaz, liburuaren hasieran euskaraz ematen duen sarrera (I-IV orr.), liburuan bertan *Aita Santua erregia da* izenpean, soilik euskaraz idazten duen platika (105-111 orr.), edota liburuaren bukaera aldera, soilik euskaraz ematen dituen zenbait pasadizoren kontakizunetatik (139-141 orr.). Baita ere bestela, *gramatican* barrena tartekatzen duen adibide bat edo bestetik, edota hauek baino zabalxeago, liburuaren atzealdean, euskaraz eta erdaraz bi zutabetan, ematen dituen hainbat esaldi adibidetatik, *Temas* izenpean (91-93 orr.), *Diálogo* (93-104 orr.), edota azken *Ejercicios de construcción gramatical* batzuetatik (115-138 orr.), bi hizkuntzetan emandako esaldi bildumak.

Euskalzale sutsu agertzeaz gain, Huici bada, bere inguruko euskararen ezagule on (behin baino gehiagotan tartekatzen ditu oharrak, esanez, nola edo zein beste eratara gertatzen den fenomeno bat, Nafarroako, edo Euskalerriko, beste bazter batzuetan), eta baita ere nolabait konprometatua, euskara maila garai bat erakustearekin bere liburuan. Agerian goraipatzen du Larramendi (V or.), eta erabili ere bai tarteka bere adibidetegian, haren *Hiztegiko* hitz berri nahikoa minak, beste gaztelaniazko, *gordinegiak-edo* zaizkion mailebu ordez. Oro har hala ere, Huiciren hizkera beti da ere, erraza, ulergarria eta lotua erabilerari.

---

[216] Berari buruzko daturen bat gehiago ematen da, in Karasatorre, R, Erdozia, J.L. eta Ulaiar, E.-ren *Etxarri-Arantzko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia*, Atafaylla Kultur Elkartea, 1991.

[217] Huicik ere, Campionen haritik, *Gramaticaren* lehen orrialdean ematen du erregela, nola euskaraz, sail bateko azken izenari bakarrik erasten bide zaion artikulua: «Cuando este artículo califica á varias palabras, se pone solamente en la última.»

7.1. Huiciren adibidetegi anticardaveraztiarra.

Huici, bere idatzi guztietan batere dudarik gabe jarraitzen zaio, estu eta berrikuntzarik gabe, gure tradiziozko eredu klasikoei, hitzen ordenamenduari dagokionean. Bere esaldiek, oro har, nahikoa aurrealdeko leku batean erakutsiko dute aditza. Nahiz Huicirengan ere, dudarik gabe aurkituko dugun, guztien aurretik, euskarazko aditzaren «Xà», aditza bigarren, fenomenorako joera. Eta ondorioz, baita ere, esaldi labur ugari, aditzaz amaitzen dena, edota baten bat luzexeagoa, segidako bien modukoak:

(1) Elurronek zeiñek kalte aundiyak ekartzen ditüben,[218] iraunen dau / Durará esta nieve que trae grandes perjuicios. (6)
(2) Gure nazio lastimagarriontan libertade geiyegi daukagu (95)

7.1.1. Galdegaiak aditzen ondoretik, eta SAO egiturak.

Hala ere, esan bezala, Huiciren ezaugarri izango da aditzak nahikoa aurrealde batean ematea esaldian; eta hala, asko eta askotan galdegaiak nabarmen asko, aditz horien ondoretik. Beti ere bai ia, galdegai hauek batere luzeak diren orduko; nahiz ez orduan bakarrik, segidan ikus genezakeen bezala. Hala, batetik, *Gramaticako* adibide gutxien artean, ia bakarrik aurkituko dugu SAO (SVO) ordena, segidako esaldi hauetan legez:

(3) Nik amatzen det Jainkua (70)
(4) Nik ikusten det illargia (70)
(5) Nik ikasko det aita guria (70)
(6) Ama Virgiña erremediotakuak emanen digu osasona (75)
(7) Jaungoikuak ematen dau gloria (75)

Bere idatzi libreagoetan ere, oso usuzkoak izango dira, aditza galdegaiaren ondoretik daramaten esaldi, modu desberdinetakoak, segidako hauen eran:

(8) ...: erak gu ola ezaguturik, egiñen ditüzte alegiñak gentzera guri ere geren izate pare gabiau, ... (II)
(9) Erdaldunak ia denak baldin badiote Euskeldunari gorrotua, aparteko modubatian gorrotatzen dau liberalak; ... (II)
(10) Moduontan izanen giñake gure atzoko guresuak bezela geren Jaunkosko legiakgatik geñerako nazio guziaren enbidiya eta bildurra. (III)
(11) Tomasek esan dau gezurbat (91)
(12) Martñek ditü bost seme eta sei anai (91)
(13) Ni naiz gizonetan gaiztorena (92)
(14) Nik amatzen det gure Jauna zuk baño obeki (92)
(15) Euskaldunak dembora artan izan zuten gerra frances Karlo-magnoreki (95)
(16) Libriak gera geitzerako eta onerako, baitaere Jainkuari farra egiteko (96)
(17) Eta urrena galduko degu, gelditzen dakigun puska eta echiak (98)
(18) ..., zu zera kristo Jaungoiko biziyaren seme biziya. (105)
(19) S. Pedro egon zan Jerusalenen laubat urtes (guchi gora bera) ... (106)
(20) Batzuei genduzioten burua, beste batzuri ebagi zioten gorputza erditik, beste batzuk izan ziran suan kachkalduak bizirik zaudela, ... (108)

7.1.2. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak.

Huicik oso maiz emango ditu, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak ere, nahiz eta hauek nabarmen eraman galdegaia aditzaren ondoretik (eta ez bakarrik entendimentuzko aditzak edo direnean). Hala segidako adibideon antzeko ugari:

(21) Pentsatzen det demborabatian ... zabalduko zala, ... (I)
(22) Gendu dizkigu gure ainziñoko usario, lege, eta bizi modu gastu guchikuak: ... (I)
(23) Eman ditü bere errentarik aundirenak besteren erregia eta erriak laguntziagatik; ... (III)
(24) Ikusi zitüzten loitu eta galdurik Guadaleteko ur zikiñetan beren erregiaren korua, gizonak, legiak eta usario guziak (94)
(25) Libratu ziran oien oinpetik beren leiyaltasona, eta egiyasko Jainko bat bakarra maitatzen zutelako (95)
(26) Sartu dazkigu juduak, moruak eta protestantiak gure echetan (96)
(27) Gelditu gera ichas erritatik iya ezer bage aunbeste gazte galdu ondorian (97)
(28) Galdu ditügu Cuba, Puerto Rico, eta dembora labur Filipiñak eta beste batzuk, ... (98)
(29) Genduziguten geren erregia eta corua, genduzizkiguten gure errentarik segurorenak bat egitiagatik denok (98)
(30) Utzi gaitüzte mason, eta protestantiaren albiziora oien atzaparretan. (9)

---

[218] Dieresiak Huiciren idatzian, beti *it* soinu segida baten ondorengo bokalean, soilik adierazi nahi du, kontsonante honen bustidura, Huici berak esaten duen bezala (75 or.): «Hay que distinguir también la sílaba *tu* denti-lingual, *amatu*, de la paladial, muy frecuente, poniéndole á ésta dos puntos: *etsaiyak emen ditük--ikusten gaitü*».

7.1.2.1. Aditz trinkoak ere esaldi hasieran buruzuri.

Ugarienak izango ez badira ere, bai izango dira proportzio esanguratsu batean. Nola segidakoak, liburuan zehar topatuak:

(31) Daukat luma on bat eta papera charra ikusten dezun bezala (92)
(32) (Eta egiyas gizona da laburgo bat ...,) da aingerubak bezela aditzalia, sentigarriya animaliyaren modura, ... (102)
(33) ...; dira errege espiritualak, ... (107)
(34) ..., eta zan ezagutua eta obeditüa, ... (109)
(35) ...; ziran paraje probiak, ... (113)
(36) Diote: aditzian Napoleonek Aitä santuak eskumikatu zuela erantzun zuela fanfarronkeris ... (114)
(37) Dua asteko irabaziak denak eramatera andriari. (139)
(38) ... eta dua amarengana lasterka ... (139)
(39) ... eta dago ordubat bintzet bai, ... (141)
(40) dakigu il bear degula / sabemos que hemos de morir (145)[219]

7.1.3. Mendeko esaldi hautsiak.

Usu, eta are usuenik ere, aurkituko ditugu Huicigan mendeko esaldiak hautsita, konplementuak dituztela aditzaren ondoretik, segidakoon moduan:

(41) ..., izanik lembizi nazionetan zabalduzan izkuntza, ... (I)
(42) (Pentsatzendet ...,) Moruak eta Goduak itz moduau opatu zutela Españolen barrumbian, ... (I)
(43) ..., zergatik ongi dakite gendurik erri bati bere asmo eta barrumbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, gentzenzaiola bere izatia ... (II)
(44) ...; gelditurik bera gabe. (III)
(45) (... señale guchi etorri da,) galdu eta ondatu ditübelako demborak. (III)
(46) ... ongi esamiñatzen ba dira ditügun Euskarasko libruruak ... (III)
(47) ..., esateko dala beste latiñetik eldu diran denak baño ederrago ... (III)
(48) (... desberdiñak) nola diran Ronkalgua, Salazarkua, Aezkoakua, ... (III)
(49) (... erregla batzuk) nere Euskara ikasteko edozeiñek; ... (IV)
(50) ..., ikasi eskero libruchoontan aurretik dauden lecio edo erreglak (94)
(51) S. Pedrok artu zuenian Jesukristoren gandi Elizan bear zan fakultade espiritual aundiyura, ... (108)
(52) Barbaro edo gende kampotar odolkirobatzuk sartu ziranian Italian eta Erroman, ... (111)

7.1.3.1. Mendeko esaldi batzuen adibidetegi hautsi-hautsigabeak.

Huicik, *Gramaticaren* azken partean ematen dituen *Ejercicios de construcción gramaticalen* artean, sail berezi batzuk eskaintzen dizkie, mendeko esaldi moeta zenbaiti. Hala adibidez, objetu esaldi konpletiboei: *IX. del QUE conjunción ú oraciones de infinitivo* izenpean (120-1 orr.). Huicik ematen ditu bertan 13 mendeko esaldi ere adibidetzako, eta hauetatik hamabi bakarrik amaitzen dira beren aditzaz, eta elementu mendekotzaileaz. Huicik, bat bederen ematen du hautsita:

(53) (Eta gauza jakiña da ere) ume gaizki aziak laburtzen duela gurasoen bizia. (121)

Antzeko gauza gertatzen da Huiciren segidako atalean ere, baldintzazko esaldiekin: *X. De las oraciones condicionales* (121-3 orr.), non Huicik bi esaldi hautsi ere ematen dituen adibideen artean:

(54) Zuk, balitzake erostunik, salduko ziñuke ollagor ori (122)
(55) Rokek jokatu bazuen boletan irabaziko zuen naiko guzia (122)

Ez litzateke euskararen kalterako izango, antzeko egiturak agerian erreibindikatzea, horren maiz erabiliak direnak, euskara guztien praktikan.

7.1.3.2. Erlatibozko esaldien adibidetegi hautsigabea, eta benetako erabileraren arteko aldea, Huicirenean ere.

Huicik bere ariketen VIII atala eskeintzen die erlatibozko esaldiei: *VIII. del QUE relativo ú oraciones de relativo.* Bertako hamahiru esaldietatik, guztiak ematen dira, beren buruaren aurretik (euskaraz ohi ere bezala noski). Batere ez, bere buruaren ondoretik. Ezta ere inon erreibindikatu, erlatibozko esaldi nominalizatuen erabilera, bururik gabe, edota ere, beren izen buru mugatu baten ondoretik (horren usuzkoak euskaraz, eta Huicirenean ere), edo are, izen buru soil eta mugatu gabearen ondoren emanak, nahiz hauek proportzioan nahikoa gutxiago

[219] Azken adibide hau nolanahi, gramatika oharren artekoa da, ez testu barrenekoa, eta beraz konsidera liteke artifizialxeagoa.

erabiliak izan euskaraz. Huicik ere, beste euskaretan bezainbesteko maiztasunez erabiltzen ditu, aipatu hiru sailetako erlatibo moetak; eta batere eragozpenik gabe eman gainera, hauetako zenbait konplementu, aditz jokatu eta nominalizatuaren ondoretik, euskaraz hainbat ohizkoa ere baden bezala. Segidan jasotzen dugu halamoduzko adibide zenbait:

(56) (Izanik au) egiya ukatu ezdezakeguna nei badegu zerua alkantzatu; ... (104)
(57) (..., berelaiche S. Pedro zan Elizako buru, eta naguse zan bezela) agintzen zuena Kristoren ordekua bezela, ... (105-6)
(58) (... punturik estalirenak, edo oso argiak,) edo agertuak etziranak beste guzien buruba bezela. (106)
(59) Beragatik sinistatzen duenak Aitä santua Elizako erregia dala, ... (107)
(60) Giyari edo generalbaten alde peleiyatzen erortzen diranak eritürik, ... (109)
(61) ..., izandu zuen aldiya andik aterazanekua, ... (111)
(62) (... arkitu zan) lau lapur lo irudian zeudenakin, ... (134)
(63) ..., nai izan zutenak Jaunaganako leyalak iraun ... (137)
(64) ... eta autatu zutenak arlotetasunean eta doakabeak bizitzea ... (137)

7.1.3.2.1. Erlatibozko esaldiak izen buru mugatu gabe baten ondoren.

Bereziki jasotzen ditugu Huiciren segidako bi esaldiok ere, beren izen buru soil eta mugatu gabearen ondoretik emanak:

(65) (Bera bakarrik egin zuen Jaun eta Errege Elizari dagozkion gauza denetan) Jaun-goiko guzia zezakenak: ... (106)
(66) Bere korteko jaun bazter guzietatik arren billa cebiltzanak, ... (135)

7.2. Arrasto cardaveraztiarren bat ere (nekez) Huiciren prosan?

Kategorikoki esan liteke, ez dela sumatzen Huiciren prosan, inolako aditz atzeratze artifizialen arrastorik. Bai hala ere, ezezko aditz konposatu inbertsiorik gaberen bat, galdera hautsi bat, ... Ez dira beti salbuespenak baino.

7.2.1. Ezezko aditzen bat inbertsiorik gabe.

Bi bai bederen:

(67) ... sekulan geyago ibilliko ez lirake bost eun bana makillazo sendo bein betiko emanen balitzaiteke (122)
(68) Ikusten degun aña arlote ikusiko ez giñuke guziok lanari gogos erasoko bagenioke (122)

Baita ere, ezezko aditz konposatu bat, inbertsiorik gabe emana, mendeko esaldi konpletibo batean, ez modurik ohizkoenean:

(69) (...: espero det) aserratuko ez dala baldin oñetatik bururaño erregistroa egiten badiot, ... (135)

7.2.2. Galdera hautsi bat.

Galdera hautsi bakarra behintzat:

(70) ¿Noizko bestela libertade eta igualdadea dira? (128)

7.3. Baizik (baita ere) partikulen aurreguneaz esaldian.

Huicik, uste dugu, beti ematen duela, *baizik* partikula, lotzen duen esaldi zati haren aurrealdean. Baita ere, segidako aurreneko adibidean bezala, *salbuespen* zentzu nabarmena baldin badu (baina emana, hori bai, aurreko ezezko esaldiaren ondoretik). Jasoko dugu beste adibideren bat ere erakusgarri:

(71) Nik amatuko det gure Jauna eta zuk ez, baizik munduba / Yo amaré á nuestro Señor y tú no, sino es al mundo. (92)
(72) ..., baizik irauten dau eriotzak bata bestiarengandik apartatu ondorian ere; ... (93)
(73) ... eta ez nola nai, baizik erakusteko moduban, ... (94)
(74) ... zergatik ez aragiyak eta ez odolak eztizu ori errebelatu baizik nere zeruko aitäk, ... (105)
(75) ..., baiya beñere etzan oietara errenditu, baizik erakusten zuen, arreki ez zaukala ikustekorik ... (106)

Bukatzeko, aipatu baino ez, Huicik ere, dena batera erabiltzen duela, uste dugu, beti, *baita ere* juntagailua, lotu nahi duen esaldi zati haren buruan.

VIII. RESURRECCION MARIA AZKUE (1864-1951): XX MENDEKO HITZ ORDENAMENDU IRAULKETA BORTITZ GUZTIAREN, AITA ETA ERAGILE.

1. Azkueren eskola, joskera berrikoa. Azkue: Altuberen aita sintaktikoa.

Ezkuta ezinezko antzak erakusten dituzten arren, ez dira berdinak, ikusten gatozen Cardaverazen eskola sintaktiko, zaharkitua, baina, XX mendearen argi-urratzeraino iristen dena, eta, *Altuberen joskera eskola*, bestalde, modernoa, gaur egun oraindik ere indarrean dagoena, eta 1920/30etatik aurrera hasiko dena loratzen. Bi eskolen artean, noski, dago, Azkue. Eta Azkueren bidez, eta eragin ia soilez, pasatuko gara, eskola batetik bestera, XIX mendearen azken hamarkadan eta XXaren lehenengoetan.

1.1. Azkue, XX mendeko hizkuntz iraultzaren Aitalehen.

Mitxelenak ere garbi aitortzen du Azkueren *ardaztasuna*, protagonismoa, XX mendeko euskararen inguruko ikas / iker mugimenduetan (*HLV*, 1960, 142 or.): «*Azkue fue durante toda su vida el centro de los estudios relativos al idioma vasco*.» Eta Azkue, ezin da ahaztu, 87 urte luze eta emankorrez bizi izandu zen, eta, besteak beste, bera izan zen, Euskaltzaindiaren burua eta motorra, 1919ko sorreratik bere heriotzaraino.

Joskera eta hitzen ordenamenduaren eremuetan baino, ezagunagoak dira Azkueren eragin iraultzaileak, hizkuntzaren beste arlo gehienetan, honek XX mendearen bueltan, eta batez ere hegoaldean, jasaten duen asaldatzean. Hala, ortografiatik hasita, berak erabiltzen dituen sistema ortografiko desberdinekin, 1888tik lehen ezagutzen dizkiogun idatzietatik, 1896an aurkezten duenean bere *Proyecto de ortografía sometido a la censura de los que se dedican a cultivar el euskera*, edota gerora ere, besteak beste, Euskaltzaindian, edota honen izenean, aurkezten dituen beste hainbat lan edo proposamenetan.[220] Lexikografian, lexikologian, ezin nabarmenagoa izango da Azkueren 1905-6ko *Hiztegiaren* eragina, mende osoko literaturak jasango duen astinduan, Azkueren irizpide *garbizale* eta *txokozaleen* garaipenarekin, alde batetik *eskola aranatarraren* aurrean, baina bestetik, baita ere, beste kriterio zabalago eta pragmatikoagoen aurka (nola, kasurako, Altube berak defendatzen dituenak).[221]

Morfologiaren atalean berriz, beharbada ez daude oraindik aztertuegiak, Azkuek XX mendeko literaturan eragiten dituen berrikuntza morfologiko edo morfosintaktiko hainbat, 1891eko *Izkindeatik* hasita, 1905-6ko *Hiztegia*, 1923-5eko *Morfologia*, urteetan zehar egindako *Gipuzkera osotuaren* projektu desberdinen bidez, edota nolanahi, bere bizitzan zehar egin eta eragindako lan gramatikal, literario, didaktiko edo proselitista ugarien bidez. Anekdotikoki bada ere, ezin ahaztu da, aditz morfologiaren atalean, hain zuzen, Azkue dela, lehena proposatzen (1891eko *Euskal Izkindean*), bizkaierazko tradiziozko adizkien baztertzea, beste *logikoago* eta *jatorragoen* alde, nahiz hauek ezezagunak izan garaiko edo inoizko euskaldunen artean.[222] Lan honetan, ez dugu ukituko Azkueren eragin morfologikorik ere, ezpada, berak horren setati predikatzen duen *elementu anaforikoen* baztertzea, 1891ko *Izkindeaz* geroztik; eta zinez, lortzen ere duena, esan liteke.

---

[220] Guzti hauen, eta Azkueren beste guztien erreferentzitarako ere, ik. J. Bilbaoren *Bibliografia*.

[221] Ik. honi buruz, besteak beste, Mitxelenaren lan sendoa *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Bilbao, 1970, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, RSVAP.

[222] Besteak beste, *gaiz* (gara), *daiz* (dira), *itzan* (zan), *gintzazan* (ginan), *itzazan* (ziran), *daut* (dot), *daugu* (dogu) bezalako forma berri, *rekonstituitu* edo berraurkitu ustekoak, baina asmatuak. Azkue berak denbora gutxira baztertuko ditu forma *rekonstituitu* hauek bere idazkeran, baina hazia ondo sustraitua geratuko da, eta bide berori ibiliko dute gero askoz luzeago, Eleizalde berak, edo areago Arriandiagak edo Soloeta-Dimak, eta hauen jarraitzaileek, bakoitzak bere ezaugarriekin. Fenomeno hauen inguruko askoz berri gehiago jasotzen da, I. Lakaren lanetan, «Hiperbizkaieraren historiaz», I, II, III eta IV, *ASJU*, 1987. Nolanahi esan, *rekonstituziorako* jokaerak ez zirela garaian euskararen esklusiboak, ezta honen barne, hegoaldeko euskalzaleenak bakarrik. Vinsonek ere adibidez, Azkueren *Izkindea* komentatzen, harrotasunez oposatuko dio, bere aspaldiko *rekonstituzio* propioa Azkuerenari, hau bezain artifiziala izango bada ere (eta berrerabiltzeko eta inposatzeko asmorik gabekoa, Azkuerenaren aldean). Hala dio [*Revue des études basques (1891-1899)*, in L'Année linguistique, I, 1902, 142 or.): «Le tableau qu'en donne M. de Azkue [euskal aditzarena] n'est ni exact ni complet; c'est comme sa reconstitution du présent de l'indicatif de "être": *nai, ai, dai, gaiz, zaiz, daiz*. J'ai démontré, il y a déjà longtemps, que ce doit être: *niz, kiz, diz, gizaz, zizaz, dizaz*.»

1.2. Azkue, XX mendeko hitz ordenamendu erreformaren maisu, gidari eta eragile.

Egia da, Azkue ez dela inoiz iritsiko, agerian erakustera, Altuberena bezain sistema global, dotore eta koherente nahiekoa, hitzen ordenamenduaren arloan. Baina, inoiz gehiegi gutxietsi nahi gabe, Altuberen sistematizazio lan propioa, eta gutxiago, honen argitalpen sintaktiko nagusien ondorengo arrakasta, lan honen bidez, dudatarako batere tarterik gabe erakutsi nahi genuke, nola Azkue den, ez bakarrik Altuberen hainbat hurbil edo urruneko inspiratzaileetako bat, baizik eta, baita ere, haren sistema borobil nahiekoaren pieza guzti, eta bakoitzaren, asmatzailea, banan bana, XIX mendearen azken hamarkadatik aurrera. Finean Altubek, Azkueren dizipulu on eta aurreratu, ez lituzke nolabait uztartu baino egingo, bere lika propioz bai, baina bestelako orijinalitaterik gabe, jada Azkuek noizbait aurretik arrakastaz predikatutako legeak; zeinak, jada praktikara eramaten hasiak ziren, 1890-1920/30/36 urteak bitartean, bai Azkue bera, eta bai, gehiago edo gutxiago, bere inguruko euskalzale eta laguntzaile guztiak, osatu arte, *Azkueren eskola* edo dei genezakeen mugimendu, edo prosa estilo berezi bat, joskera eta hitz ordenamenduaren alorrean, garaiko espiritu logizista, garbizale eta antierderistenaren arnasetan.[223] Mugimendu hau jada, askoz hurbilago egongo da, Altuberen postulatuetatik, Cardaverazen eskola zaharreko idazleak baino; nahiz biak ezpal bere batekoak izan, eta biak ere, ondo urrun egon, gure tradiziozko ohizko ereduetatik.

Ez gara gu horregatik, lehenengoak, Azkueren ezin garrantzi gehiagoko eragin hau, susmatzen edo azpimarratzen, XX mendeko euskal prosa eredua astintzen duen mugimenduan, prosa bera aurrekoz atzera irauliko duena, hau maiz ulergaitza, eta beraz, ez-funtzionala bihurtu arte. Hala esaten zuen I. Lakak, jada 1986an, Azkueren 1891eko *Euskal-Izkindeako* aditzari eskaintzen dion azterketan («Euskal Izkindeako aditza. (Hiperbizkaieraren historiaz II)», *ASJU*, 1986, 723 or., 25. oh.):

> 25. Gai honek [*Izkindeako* ideiak joskerari buruz], noski, azterketa sakonagoa behar du, bere interesagatik. Guk arazoaren nondik-norakorik orokorrenak itxuratu baino besterik ez dugu egingo. Halere, uste dugu Altuberen uztaraino, badela halako bide bat euskalari zenbaitzuk urratzen dutena; bidegintza horretan Izkindeak badu, ziurrenik, aitortu zaiona baino parte handiagoa.[224]

Beharbada, Lakaren goiko hitzon oihartzun edo, antz batera idazten du Villasantek, bi urte beranduago, Azkueren *Latsibi* obraren argitalpenari egin hitzaurrean (1988, XIII or.):

> Eta hauxe bai polita: Altube lexikologi arazoetan Azkuerekin bat ez etorriagatik, esaldi barruan hitzak ordenatzeko legeetan, bai, Azkueren jarraikitzaile izan zela dirudi. *Erderismos* liburu famatuan hitzak esaldi barruan eta esaldiak elkarren artean ordenatzeko lege zehatz eta zurrunak ematen ditu Altubek; lege horien haziak, berriz, Azkueren obretan aurkitzen direla dirudi, *Euskal Izkindean* batipat (*Latsibi*-ren pratikan ere somatzen dira).

Beharbada, ez haziak bakarrik, ikusiko dugun bezala.

1.3. Azkueren 1891eko Euskal-Izkindea, erreforma espirituaren ardatza.

Apenas ezer asko dakigun, Azkueren euskal jakituria eta ikasketen gainean, 1891 baino lehenago. 1888an eskuratzen du Bizkaiko lehen euskara katedra.[225] Eta hala dirudi, gertaera honek markatzen duela, hein handi batean, Azkueren ondorengo bilakaera euskaralogoa. Aurretik, Azkuek berak esaten digu zahartzaroko ohar batean (L. Akesolo, «Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas», *BAP*, 1965, 50 or.): «*Ya antes había yo empezado a dar lecciones de vascuence a algún amigo en el Seminario de Salamanca y tenía no poca afición a la lengua; ...*»[226] Ohar berean gogoratzen ditu Azkuek, Bizkaiko katedra lortzeko lehiaketara aurkeztu zituen lanak (50 or.): «*Yo expuse una leyenda lequeitiana, escrita en vascuence,* Grankanton Arrantzaleak *y unas cosillas gramaticales.*» Eta hauen gainean esaten du, garai hartako Aldundiko Idazkariak, lehiaketara aurkeztutako

---

[223] Espiritu irredentista bat, askoz sendoago errotuko dena, eta luzeago iraungo duena, garaiko eta ondorengo euskalzale gehienen artean, joskera eta hitzen ordenaren arlo honetan, besteetan baino, non ez den horregatik gutxi garatu.

[224] I. Lakaren lanean ere, aurrerabidetzat hartzen dira oraindik, guk egingo ez genukeen bezala, Azkueren joskera "aurkikuntza" horiek, eskola altubetarraren itzalpean. Hala esango da adibidez aurreraxeago, Azkueren hitz ordenamendurako arau garrantzitsuenak jaso ondoren (725 or.): «*Izkindea*, bada, ez litzateke soilik, horrela aurkezten zaigun arren, errakuntzaz eta akatsez beteriko euskal gramatika eskasa. Badira, gure eritziz, zenbait aurrerabide liburu honetan, eta ez bakarrik joskera mailan».

[225] Ik. katedra honen inguruko Azkuez, J.A. Arana Martijaren lana, «Euskal katedraren lehiaketa eta eragina», *Euskera*, 1988, 361-78 orr. Baita ere, A. Irigoienen, «Azkue, Arana Goiri eta Unamuno», *Euskera*, 1988, 391-401 orr.; edota L. Villasanteren «Bilboko euskal katedraren ehunurteburua», *Euskera*, 1988, 355-360. Aita Akesoloren lana ere, lerrokada beronetan aipatzen duguna segidan. Azkueren gaineko datu biografiko gehiago aurki liteke, J.A. Arana Martijaren, *Resurrección María de Azkue* lanean, CAV, 1983.

[226] Eta hala kontatzen du hurrena, nola *afizio hauen artean* lortu zuen adibidez, argitaletxetik *dubarik*, Novia de Salcedoren hiztegia, orduan argitara berria zena 1887an, 30 ale saltzea lortu ondoren Salamancako Apaizgaitegian.

lanak aipatzen (J.A. Arana Martija, aip. art., *Euskera*, 1988, 367 or.; edo antzera, L. Akesolo, aip. art., 54 or.): «*distinguiéndose entre ellos los dos del Sr. Azcue, titulado el uno "Ensayo de algunas materias acerca de la Gramática Bascongadana"*[227] *y el otro "Una leyenda en prosa vascongada, basada en un hecho histórico, acaecido en las aguas del Cantábrico hacía el año 40 de este siglo*».[228]

Katedra irabazitakoan, eskatzen zaio Azkueri, ikasgai egitarau bat osa dezan ikasturte hasierarako. Azkuek aurkeztuko dio egitarau hau Aldundiari 1888ko Urriaren 15erako, 40 ikasgaietan banatua, eta bera har liteke, gehiago edo gutxiago, Azkueren abiapuntutzat, bai, bere lehen urteetako irakaskintza lanerako, nola eraberean gidoitzat, 1891an argitaratuko duen *Izkindearentzako*.[229] Nolanahi, hau baino lehenago ere, emango ditu argitara Azkuek, 1888 eta 90 bitartean, elaberri, edo *gertirudi*, amaitu gabe bat, *Peru Matraka ta Pedr'anton* izenekoa,[230] eta behintzat beste artikulu bat ere, *Izena ta izatea* izenburupean.[231]

1.3.1. Azkueren 1891eko garbiketa, erreforma, asmoak.

1891n kaleratuko da Bizkaiko Aldundiaren eskutik, euskaraz inoiz argitaratu den lehen gramatika (ez idatzi): *Azkueko Resurreccion Maria abade Bizkaiko lenengo euskal-irakasleak eratu ta biurturiko EUSKAL-IZKINDEA. GRAMATICA EUSKARA ...* (guretzako *Izkindea*, edo *Izk.*),[232] bere katedra lanen lehen fruitu. *Izkindea* ordea, oso gramatika berezia izango da. Ez du asmo izango, euskara deskribatzea, sikiera bizkaiera; baizik, Azkuek berak hobekien definitzen duen bezala, bere helburu garbizale eta erreformadorea … (178-9 orr.):

> Nire lana Bizkaiko izkerantza garbitutea izango dai, eta ez buruzkoa bakarrik: diartean bertan' erdi-zatituta batzuk' osorik geienak' aurkituko dautaz euskara garbiari dagokiozan gaiak. Eraz irakatsiko daiz. Bezte izkerantzak [euskalkiak] bere' bat ondo garbituez gero' erraz garbitu leikez; baina arazu au ezdagokit. Siniztu beizte euskara maite dauen izkiralari guztiak: gure izkeraari gaur egin leikion mesederik egokiena' aditza garbituaz erraztutea dai. Arerio asko eukiko leukeez, euskaldun askok ausokoa lanak aleginez ostikopetu baino bezte lanik ezdaue egiten-da; nire lan oni bere' amodiozko abegia baino mukerra geiagok egingo dautse; baina gizaldi onetan ezik' urrengoetan obeto artuko daiz euskaldun zintzuen lanak, eta ganera ondo eginak loratuteko baratza non dagon badakigu.

1.3.2. Logika eta erregularitatea, erreformaren gidariak.

J.M. Schleyer, apaiz alemana, 1880an, edota Zamenhof, judu errusiarra, 1887an, gauza izan baldin baziren, *volapüka* eta *esperantoa* bezalako hizkuntza guztiz artifizialak asmatzeko gizateria guztiarentzako, logika eta erregularitateen haritik, nola ez zen bidezkoa eta zentzuzkoa izango, bizkaiera (eta oro har, euskara) berri, baina guztiz erregular eta logiko bat, asmatzea, biharko eguneko bizkaitar eta euskaldun jator ororentzat? Azkue izango da, 1891ean, euskal *Doktoro Itxaropentsoa.* Etorkizunerako egin nahiko du lan, eta ez du sentituko,

---

[227] Gaur egun agidanean ez da ezagun, *Entsaiu* hau, nahiz Azkue berak idazten duen inoiz, lan hau ere, *Grankanton arrantsaleak* bezala, aurkitzen ote den, Pariseko Bibliothèque Nationalean (*Eusk. Yak.*, I, 1934, 3. arg. 1989, 7-8 orr.): «*Bizkaiko Aldundiak, Bilboko Institutuan euskerazko irakaskuntza sortu nairik, batzaldi bat iragarri zuen, irakasle izan nai zutenak berak egindako zerbait erakutsi zezatela eskatuz. Bi lan txume agertu nituen nik: euskerazkoa bat, bestea erderazkoa. Lenengoari izentzat* Grankanton arrantzaleak *ezarri nion eta Lekeition urte batzuk lenago ikasitako irakurgai bat izan zan (Uri artako itsastarren arrantzatoki edo kala urrutiko baten izena da* Grankanto*). Bigarrena* Algunas reglas gramaticales *edo onelabait izendatu nuen. Orain (arri zaiz, irakurle): Parisko* Bibliothèque Nationale *deritzaion Liburutegi aundian dautza bata ta bestea, E.S. Dodgsonek nire eskuetatik artu ta neronek enekiela ara eramanak.*»

[228] Leiendak, *Grankanton arrantsaleak* [sic] du izena, eta honen eskuizkribuaren kopia bat argitaratu zen *Euskera* aldizkarian, 1988, 379-89 orr. Azalean bertan, eta ondorean erantsitako ohar eskuizkribatu batean adierazten du autoreak honen gainean (*Advertencia del autor hecha 5 años despues de escrita la leyenda, con objeto de que no se objete acerca de sus actuales* [azken hitz hau ez da oso ondo irakurtzen] *opiniones*) (379 or.): «Al hacer esta leyenda, el autor no había aun iniciado sus estudios acerca del euskara, como que fué lo primero que escribió.».

[229] Ikus liteke egitarau hau argitaratua, I. Lakaren artikuluan, «Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I)», *ASJU*, 1987, 420-2 orr.

[230] Bilbon argitaratuko dena *La Abeja* izeneko aldizkarian, 1889-90, I, 30-2, 54-64, 92-6, 126-8, 156-60 eta 188-92 orr., eta amaitu gabe geratzen dena. Agidanean (Arana Martijak esaten du, aip. art., 370 or.), ipuinaren zati bat lehenago ere argitaratua zen 1888an, orduan ere bukatu gabe, Bilboko *Apis* aldizkarian. Arana Martijak kontatzen duenez, *La Abeja* aldizkaria argitaratzen, Azkuerekin batera hartzen zuen parte, besteak beste, Sabino Arana Goirik ere (nonbait irakurria dugu, Azkue bera zelarik aldizkariaren zuzendari).

[231] Hau ere *La Abeja* aldizkarian argitaratu zen, 1890ko Urtarrileko alean, 52-4 orr. Bi lan hauek, jada askoz hurbilago egongo dira Azkueren prosa estilo berri eta *erreformatutik*, *Grankanton arratsaleak* goiztiar, estilo *klasikoagoko*, hura baino, eta zeinentzat ikusi dugun Azkue bera barkamen eske. Aipatuko ditugu denak ere berriro aurrerago.

[232] *Izkindea* nolanahi bi hizkuntzetan ematen da idatzia, gazteleraz eta euskaraz, eta maiz asko, edo gehienean, hobeto ulertzen da, bere ñabardura sotiletan, gaztelaniaz. Hala ere, aipuak jasotzerakoan hobetsiko dugu, oro har, euskarazko aldea, nahiz gehienean zalantza asko izan, hau ote den jatorrizkoa (eta gaztelaniazkoa itzulpena, autoreak hala aldarrikatu arren harro asko), ala alderantziz. Euskarazko aipu hauek, adibide on izango dira, Azkueren garaiko hizkuntz eredu artifizozkoarena.

leialtasun handiegirik zor dionik hizkuntzaren egunekoari, ez iraganari. Hizkuntza garbitu nahiko du, goiko aipuan esan bezala, batez ere *buru-lanez*, hau da, logika hutsez. Eta gero, *diarteari*, herriari, egindako badio ere deia, hau ez da izango, eufemismo bat baino, bere logizismoa eta erregularitatearen jainkoak edulkoratzeko. Hala, ohargarriak bihurtzen dira, Azkueren segidako hitzak bezalakoak, bere maisu aitortu Campionen zuhurragoak emendatu nahian eginak, hau, logika rekonstituzio zaleekin borrokan ari delarik (113-4 orr.):

> «Esto sería lo perfectamente lógico; PERO COMO LAS LENGUAS SON CREACIONES ESPONTÁNEAS INCONSCIENTES, muchas veces se apartan de nuestra lógica de gabinete.» [hau da Campionen aipua] / Arturo Campion-i bear dakión begirune edo itzaltasun guztiaz' eta bere izkindea irakurri ta izkinde au irakurten dagozanai gogorik zintzoenaz' oartxo batzuk egingo dautsetaz. / a) Euskaraa' euskaldun askon aoan edo diartean zelanbait esainduta egonarren' ederregia dai' *berez* (garitzetako zalgia legez) eta *itsumustuan* (lotorditako itzen antzera) sortua daila esateko. / b) Geienean' geure arauetara eta geure gela-arteko adikerara euskaraa ezdaila mendetuten dinogunean' geu ta geure adikeraa izaten gaiz bere arau miragarrietara mendetuten ezgaizanok.[… cuando decimos que no se sujeta el eúskara á nuestras reglas y á nuestra lógica (modo de entender) de gabinete, nosotros y nuestra lógica solemos ser los que no nos sujetamos á sus admirables reglas.] … g) Diarteko euskaraa ta euskara garbia bardingeak daizala' uste daugunok' ezdauguz izkindeko arauak diarteaz nastu bear. [Los que creemos que el eúskara vulgar y el eúskara castizo son desiguales, no debemos confundir con el vulgo las reglas gramaticales.]

Azkuek *Izkindearen* sarrera beretik iragartzen du, eufemismo handirik gabe orduan, zein izango den bere jokaera, prezeptista eta erregularizatzailea, arau berri, batez ere garbiak, asmatzeko, hizkuntzaren errealitateen gainetik (VIII-IX orr.):

> Gauza baten ganean oitura ostetu bi dakustazanean' biak al daitan zietzen astertuta gero' eta araugea itxita' araudun oituraa euskarazkotzat beti erakutsiko daut. … / *Oitura itsuak*' okerrak badaiz' ezdautaz euskarazkotzat eukiko, batez bere bezte izkeraen batetik gureari ezarriak izanez gero. … / Bezte izkeretan' *ezune bageko araurik ezdagola* esakunetzat artuta dago; euskara miragarrian *ezunedun araurik ezegotea* dai orren ordezko esakunea. [En otras lenguas está tomado por refrán que *no hay reglas sin excepciones*; en el prodigioso eúskara el refrán que le sustituye es que *no hay regla dotada de excepciones*.]

Eta Azkueri ez zaio behin bakarrik isuriko, euskara salbuespenik gabeko hizkuntzaren definizio Astarloa-Campiondarra. Bera izango da, *Izkinde* guztia, aldenik alde, zeharkatuko duen espiritu berrerakitzailea. Azkuek, salbuespenik gabeko arautu nahi luke aurrerantzako euskara maila guztietan.[233]

1.3.2.1. Gaztelaniarekin borrokan.

Mamua nolanahi, erdara izango da. Garaiko eta inguruko euskazale guztientzako bezala, inguruko erdara, gaztelania, euskara guztien orojalea. Eta borroka horretan, gaztelaniarekiko beldur soziologikoa, linguistikoa bihurtuko da. Aurrerantzean, bi hizkuntzak parekagarriak gerta litezkeen guztian, susmagarri izango da bien arteko antz oro. Eta berauek uxatzeko, on, erremedio oro.

Irizpideon arabera, eraberritu nahiko ditu Azkuek *Izkindean*, euskal gramatikaren arlo guztiak. Joskera eta hitzen ordenamenduarenak ere (*Itzen eta esakizunen alkartasunak* eta *Esapidea*, Azkueren sailkapenean). Eta alor honetan, Azkuek 1891ko *Izkindean* proposatuko duen hizkuntz iraultza, eta honen eragina, ez da txikiagoa izango 6 hamarkadetan (1890-1950), Cardaverazek proposatu eta eragindakoa baino, ehun eta hogeitahamar urtetan (1760-1890), ikusten saiatuko garen bezala.

1.3.3. Azkueren zor astarloarra.

I. Lakak esaten du zorrotz, Azkueren *Sintaxi* atalaren sarrerako baieztapen batzuk komentatzen («Euskal izkindeako aditza», *ASJU*, 1986, 721 or.):

> … Hau frogatu nahi digu *Euskal Izkindeak*: euskara, XVIII. mendeko hizkuntzalari askok aurkitu nahi izan zuten hizkuntza naturala, lehen hizkuntza dela: … / Baieztapen honek berehala dakarkigu gogora Astarloaren izena; durangarraren itzala ezbairik gabe atzeman daiteke *Izkindean*, eta Azkuek berak jartzen du lehenik, irakasle izan dituen euskalariak aipatzean: …

---

[233] Hala errepikatuko du behin eta berriro: «Gure izkeraak ezdauka araugetasunik. / Nuestra lengua no tiene irregularidades» (146 or.); «Euskaraz ezdago araugetasunik, ezunerik bere ez: ... [eransten duelarik orripeko oharrean: *Diarteak sorturiko araugetasun asko dazautaz. Euskara garbiak ezdauka onekaz zer-ikusirik.*] / En euskara no hay irregularidades, ni excepciones tampoco: ... [*Conozco muchas irregularidades creadas por el vulgo. El eúskara castizo no tiene que ver con éstas*]» (155 or.). Eta oraindik berdintsu, *Alkarmena* edo *Mutacion o Sintaxis* deituko duen partearen sarreran ere (287-8 orr.; hemen bertan aurreraxeago jasotzen dugun aipuan bezala, *Azkueren hitz ordenamendurako irizpideei* eskaintzen diogun 1.4. atalean).

Ez dugu uste Azkuek inoiz horrenbeste esaten duenik, eta horren garbi, *Izkindean*, nahiz zinez uste dugun, ez zitzaizkiola gogoak falta esateko. Astarloaren eragina nolanahi da handia, 1891eko Azkuegan. Hala esaten du Azkue berak *Izkindearen* sarreran (IX or.): «*Ni geien argitu nauen izkiralariak' Astarloa' Zabala ta Campion daiz; eta euroi ezer kendu bage' neure ama maitea' bere ez-iakinean' izan dai nire irakaslerik onena.*» Eta Azkuek euskararen detaile asko jasoko baditu ere, Zavalarengandik, Campionengandik, eta bere amarengandik,[234] Astarloagandik jasoko du dudarik gabe bere espiritua euskalgintzarako, eta ez bakarrik segurasko *Izkinderako*.

Esan bezala, Azkuek Astarloagandik jasoko du, euskararen erregularitatearen mitoa, zurruntasunarena eta salbuespen ezarena[235] (Campionek ere bihotzez jasotzen duena, bere *Gramaticaren* sarreran).[236] Eraberean, Azkuek Astarloagandik jasoko du, Aranak berak bezala, antierderismoaren ikuspegi berezia, gaztelania eta euskararen arteko kontraposizio konponezinarena, eta oso bereziki, guri dagokigunean, Astarloak erabat kontrajartzen dituen bi hizkuntzen arteko sintaxiena.[237] Baita ere azkenik rustizitatearen mito erromantikoa, Azkuek bere aldetik horren bizkor garatuko duena bere txokokerian, erderismoari aurre egiteko talisman bezala, eta bide batez, hiru mende t'erditako euskal tradizio literario guztia baztertzeko aitzakia.

Ez alferrik berrargitaratzen da Bilbon 1882an Astarloaren *Apologia*. Eta argitaratzen lehen aldiz, Bilbon ere eta luxu guztiekin 1883an, *Izkindea* baino 8 urte lehenago bakarrik, Astarloaren *Diskurtso filosofikoak*, zeintzuei egiten zien jada propagandarik onena Zavalak, *Verbo regular vascongadoaren* sarreran. Campionek ere jasotzen du Astarloaren *Apologiako* aipu goresgarririk bere *Gramatican*. Ez da bada horren harritzekoa izango, Azkue gaztearen astarloazaletasuna. Eta honek izango du eragin zehatzik, ikustera goazen bezala, Azkueren joskera-hitz-ordenamendurako iritzietan ere.

1.4. Azkueren irizpide logizista, antierderista, eta anti-tradiziozkoak, joskera eta hitz ordenerako arauak *asmatzeko* garaian, 1891ean, eta geroztik.

Izkindearen 287-348 orrialdeetan ematen du Azkuek gramatikaren *Irugarren atala*: *Alkarmena / Mutuación o Sintaxis* izenekoa, eta zeinen parte berezi bezala aurkeztuko den *Esapidea / Construcción* zatia, amaierako 334-348 orrialdeetan. Atalaren sarreran eskaintzen ditu Azkuek, bere ondorengo *aurkikuntza-asmakuntza* sintaktikoek segituko dituzten irizpide orokorrak, galerarik ez daukatenak, Azkueren garaiko espirituaz jabetzeko. Ez ditugu aipu labur batzuk baino jasoko, lehendabiziko bereizkuntza horretatik hasita, gurea bezalako naturazko hizkuntza, eta gizakiek denborarekin desitxuratutako besteen artean (287-8 orr.):

> Ezdakio Izkinde-atal oni bear dain bezte garransi emon, eta emon dakion apurra bere' bezte izkeretatik artu dai: gizako izkeraa [la lengua de la naturaleza] ta gizonak itxurgeturiko izkeraak ezin bardin azaldu daikez: a ezdau gizonan burutasunen kondairaak ondo erakutsi al izango, bezte onei gizako legeak aurkeztutea alperreko saila izango litzake. / Euskaraa … dai …, arauetan ezunerik bagekoa [exenta de excepciones], iakituriz betea … / …, izan leiken errazen ikasi al izango litzake gure izkera ederra' izan leiken arautuena dailako [por ser la más regular]. Euskaraa ondo ikasi al izateko dagon gaiztasuna' esaten dain beztekoa izanez-en ganera' ez dai beragandik sortua: bezte izkeraak bere antzik ez eukitea dai iturri bat; eta bezte iturria (orren ugaria ezarren) izkiralarien erakusbidea dailakoa daukat. Nik beinik bein' euskaraan izate miragarria' egin al daiketazan liburu guztietan baino obeto ta argiago dakust neure adin ilunean [en mi oscuro entendimiento].

Ondo laburbiltzen dira berriro hitzotan, joskeraren atalean ere, Azkueren aurreiritzi gaiztoetako gehienak, hizkuntzaren gramatikari aurre egiterakoan: gure naturazko hizkuntza, perfektoaren, erregularitate bilaera etengabea; tradizioarekiko mesprezu absolutoa; inguruko beste hizkuntzekiko aurkakotasun konponezina, nahiz finean gaztelaniaren kontra bakarrik izan; eta logika hutsaren gailentasuna, hizkuntzaren arauak asmatzeko garaian, honen errealitate guztien gainetik, gure euskara denez gero, edo izan behar zukeenez gero, naturazko hizkuntza, gizakiak desitxuratu gabea. Ezaugarri guzti hauek, beste ataletan ere gordetzen direnak, gordeko dira zoritxarrez, joskera eta hitzen ordenamenduaren alorretan.

1.4.1. Zenbait ohar, Azkueren antierderismo sintaktikoaz 1891ean, eta geroztik.

Komenigarri liteke gogoratzea, zein espiritu sintaktiko antierderista berezi garatzen duen Astarloak. Nahikoa horretarako, honen 1803ko *Apologiako* zenbait baieztapen berrirakurtzea: «*¿Podrá figurarse sintáxis mas opuesta, mas diferente, mas distante de la* Castellana, Francesa, Normanda, Arabe, Goda, Latina, Griega, Hebrea, Fenicia, Céltica*, que*

---

[234] Kuriosoa da gerora, Azkuerenean bezala, zenbaterainoko tradizioa bihurtuko den hegoaldeko euskalzaleen artean, *amaren* autoritatea euskararen auzietan. Gertaerak ez du datu onuragarriegirik eskaintzen, euskararen transmisio sozialaren bide zidorren inguru, azken mende honetako hegoaldean, salatzeaz gain zenbait azterketa eremuren urritasunak.

[235] Ik., oro har, Astarloari eskaini diogun atala.

[236] Ik. Campioni eskaini diogun atalean.

[237] Ik. Astarloari eskainitako atalean.

la nuestra?» (177 or.); edota: «*No solo son contrarias sino tambien opuestas solemnemente en esta sintaxis* [edutezko genitiboena] *la lengua Bascongada, y las que el Señor Tragia quiere hacer maestras suyas.*» (178 or.); eta: «*Hemos demostrado ... que ... la sintáxis en todo es muy diferente de los idiomas que Don Joaquin Tragia soño maestros del Bascuence; ...*» (187 or.)

Azkue dudarik gabe geratuko da kutsatuta, garaiko beste euskalzale gehienak bezalaxe, Astarloaren antierderismo sintaktiko honekin. Astarloak nolanahi, nahiko puntu zehatzetan oinarritzen du bere antierderismo sintaktikoa (artikuluaren posposizioa euskaraz, genitiboen aurregunea izenarekiko, …). Eta Azkuek ere bide beretik, gehienean ez du aldarrikatuko, oso puntu zehatzetan baino, euskara eta erdararen / gazteleraren arteko kontrajartzea. Hala adibidez, eten gabe, euskarazko esaldi konparatiboen eraikuntzaz ari delarik (*Izk.*, 142 or.): «*Euskaraz (ikusi al izan dainez) itz aldetuak* [las palabras comparadas] *ipinten daiz aurretik, aldeginak* [los comparativos] *urrengo, ta atzenez alkarbide aldegarriak* [las relaciones comparables] / Ni *(itz aldetua)* baino *(aldegina)* goizago *(aldegarria). / Bezte izkeretan ezdaiz onelan ipinten.*»[238] Hala moduz ere adibidez, 1928ko *Diskurtsoan* dioenean, genitiboaren gunearen inguru (19 or.): «El profesor de este muchacho *se traduce* mutil orren irakaslea*, en orden completamente inverso al castellano.*» Edota aurreraxeago lan berean, erlatibozko esaldi baten inguru (21 or.): «*…:* el mendigo que se pone a la puerta del templo*. El orden de los nueve elementos de que consta es absolutamente inverso en la traducción: empieza en el último, en el templo, y termina en el primero, el mendigo.* Elizako atean yarten dan eskalea*; literalmente:* templo del puerta la en pone se que mendigo el.» Baita ere, euskarazko *aditz nagusia + aditz laguntzailea* ohizko segidaren inguruan hitzegiten (*Est. Comp.*, 1949, 34 or.): «*Al paso que en otras lenguas el verbo auxiliar precede al participio pasado o futuro, en la nuestra el auxiliar ocupa el lugar opuesto.*»

Baina jada jeneralizazio asmo gehixeagorekin ere, aipatzen du Azkuek agerian 1928ko *Diskurtsoan*, Akademia espainolaren aurrean, bi hizkuntzen arteko *eraikuntza sistemaren kontrajartze orokorra*, aitzakia horretan gaitzetsi nahi dituenean, euskaraz maiz erabilitako hainbat *kalko alienigena*. Hala esaten du (22 or.):

> Esta tan opuesta construcción de una y otra lengua ha sido causa de que al lado de hermosas locuciones propias vivan otras que no lo son, especialmente en cerebros en que conviven ambos idiomas y en traducciones de escritores que no conocen bien la vieja lengua pirenaica. Nada menos que quince conjunciones y locuciones conjuntivas de calco alienígena registra nuestro Tratado de Morfología.

Garaiko espirituan garrantzizkoagoa gertatzen da maiz, euskal / gaztel hizkuntzen arteko kontrajartzeak azpimarratzea, edo asmatzea, euskara bera, tajuz eta egiaz deskribatzea baino. Oso bereziki gainera beharbada joskera kontuetan.

1.4.1.1. Euskal eta erdal ustezko sintaxiak, euskaldunak euskaraz hitzegitean.

Azkuek ondo zorrotzak mantendu bide zituen bere belarriak bizitza osoan, batere zalantzarik gabe bereizteko, balizko euskal eta erdal sintaxien artean, beste euskaldunak euskaraz hitzegiten ari direnean. Hala aitortzen du adibidez lotsa handirik gabe, nola zuzentzen dituen, Astiz, Goldaratz, Nafarroko kontalari ugari baten euskarazko ipuinak, honek erdarazko sintaxian josten bide zituelakoan (1934, *Eus. Yak.*, I, 18-9 orr.):

> …, Latasara bidean, Goldaratz deritzaion irixko artan ipuinak ugari zekitzan gizon bat bizi zala esan zidaten, emezortzi semealaben aita. / Astiro, inork baino astiroago, zekien berak buruan zituenak edasten; eta nik itzez itz, erraz artzen nition guztiak. Laxter oartu nuen aren buruan gertatzen zan agi edo fenomenu bat. Berak or ta emen ibilita, alakori ta onelakori entzunda, ipuin batzuk, geienak noski, euskeraz sartu izango zituen buruan; beste batzuk, bat edo beste beintzat, erderaz ere bai. Burutik atera bear zituenean erderaz poliki zekielako edo, erderazko Sintaxisean yosita eltzen ziran guztiak nire belarrietara. Lenengo ipuinaren azkenera-orduko ezagutu nuen aren buruko agittoa ta nik orduan esakera bat burutu-arte itxaron ta gero euskeraz yosita banan banan papereratzen nituen.

---

[238] Eta hala moduz geroago ere (1891, 348 or.): «*Euskaraak onetan' gizako legerik ostikopetu bage' bezte izkeretakoan kontrako esapidea dauka; ...*» Edota 1894 inguruko *Ensayo Practicoan* (87 or.): «*La construccion de las comparaciones en nuestra lengua es rigurosamente opuesta á la del castellano.*» Edo 1896ko *Metodo Practicoan*, eta konparatibo zenbaiten inguruan (101 or.): «*La palabra* baizen *y sus similares* bezin *y* bezain *se colocan después del objeto comparado: es decir, al revés que en castellano*»; edo aurreraxeago ere bertan (148 or.): «*Las palabras que constituyen la comparación, de cualquier género que sea, se construyen al revés que en castellano.*» Baita ere oraindik 1949ko *Estudio Comparativoan* (34 or.): «*En sintagmas comparativos, el orden de sus compuestos es en otras lenguas opuesto al de la nuestra.*» Eta hori guztia, nahiz eta jada Larramendik, nola Lardizabalek, …, onartzen duten beren gramatiketan, alderantzizko eraikuntza ere (*goizago ni baino*), beren ataletan ikusi dugun bezala. Azkuek berak ere erabiltzen ditu inoiz behintzat antzeko egiturak, nola segidakoa, herriko hizkeraren isla: *Zelai bat dauke, Bizkaian erri-barruan eztagon lakoxea* (in *Lenengo Txirristadea*, Euskalzale, I, 1897, 3 or.).

Noski, Goldarazko semearen ipuinen traskribapena, guztiz Azkue-Altubetarra izango da.[239] Eta ez dugu uste, bertan ipuinok bakarrik direnik, Azkueren ukitu sintaktikoak jasaten dituztenak. Gure egingo ditugu hemen, Villasantek, urte batzuk geroago, Azkueren pasarte hau komentatzen esaten dituen hitz zuhurrak (*HLV*, 1979, 388 or.):

> … Uno se pregunta si estas etiquetas: "sintaxis castellana" y "sintaxis vasca" no serán, en parte al menos, elaboración sujetiva nuestra. De todas formas, si en vez de respetar fielmente los datos que nos suministra el genuino euskaldun parlante, los alteramos según nuestras categorías preconcebidas, cerramos el camino para llegar a una visión cabal y serena del problema.

Barandiaranen kasuan gertatuko den bezala,[240] Azkueren halako prebentzioek, erabat zalantzatzen dute antzeko testu etnolinguistikoen fidagarritasuna, beren alde sintaktikoan.

1.4.1.2. Nahiz harrigarri samar, Azkuek, inoiz esango duen, antzik gehiena aurkitu bide duela, euskara eta gaztelaniaren artean, prezeski, esaldiko elementuen ordenamenduan.

Bada, beti aurkituko dugun arren Azkuegan espiritu antierderista sutsua, 1928ko *Diskurtsoan*, Akademia espainolaren aurrean, harrigarri asko parekatuko ditu bi hizkuntzen sistemak, prezeski biek eskainiko luketen, *esaldiko elementuen arterako ordenamendu librean*. Hala esango du (24 or.): «… *la construcción libre, la que encadena un miembro con otro miembro. Es, como dije ya, la parte sintáctica en que más se parecen el castellano y el vascuence.*»[241]

1.5. Azkueren geroztiko krokodilo malkoak, Izkindeako gaztetako pekatuengatik.

Izan ere, Azkue maiz agertuko da damu, heldutasun garaiko lanetan, gaztetako *Izkindea* harekin egin eta eragindako pekatuengatik. Edo bederen hauetako baten bategatik. Hala adibidez, nola hasten duen 1935ean, hitz adierazgarriekin, *Evolución de la lengua vasca* artikuloa (*Euskera*, 1935, 57 or.):

> Confieso que es más fácil y sería más provechoso exponer la revolución de la lengua vasca que su evolución; más fácil, pues tendría el expositor mayor abundancia de datos; más provechoso, porque contribuiría con su labor a evitar que la lengua siga siendo desfigurada, despopularizada y por lo mismo muy debilitada. / Hecha esta confesión parecerá no poco extraño que quien la hace emprenda la otra labor, la más difícil y provechosa. Esto obedece a que uno de los revolucionarios de la lengua -es verdad que en poco más de un año- fué el autor de estas líneas.

1.5.1. Damu, beti, 1891ko aditz morfologiako berrikuntzez.

Ari da noski Azkue, «nere *delictum juventutis* edo EUSKAL-IZKINDEA»-ko[242] hizkuntz iraultza hartaz. Eta antzeko aitorpenak aurki dakizkioke bere beste hainbat lanetan, nahiz pekatuak zehazterakoan, ia bakarrik gogoratuko dituen beti, 1891n aditz morfologian proposatutako berrikuntza gordinenak. Hala nola egiten duen *Hiztegiaren* sarreran (1905, VII-VIII orr.):

> Confieso haber sufrido al escribir esta gramática [*Izkindea*] dos equivocaciones enormes. La primera, al creer que los diversos dialectos de nuestra lengua se podrían reunir y conglomerar tan fácilmente como sustancias que se baten en redoma; y con el ligero conocimiento que de nuestros dialectos adquirí, si bien indirectamente, de Bonaparte, empecé á usar para conseguir mi objeto formas verbales que acaso sean las originarias: DAUT, GAIZ, … etc.

Askoz zabalago aitortuko du oraindik bere gaztetako pekatua, 1922ko *Txukuneria* artikuluan, eskainia, gaitzestera, Aita Soloeta-Dimak, *Ensayo de unificación de los dialectos vascos* lanean proposatutako berrikeriak euskal aditzaren morfologian (*Euskera*, 1925, 4-21 orr.; eta bereziki, 5-6, eta 16-21 orr.). Han aitortzen du Azkuek berriro bere 1891ko pekatu nagusia, ortografia eta morfologiaren arloetan proposatutako beste txikiago

---

[239] Ikus litekeen bezala, *Euskalerriaren Yakintzaren* II liburuan. Bestelakoan zeredozer jakin nahi izanez gero, Goldarazko Astiz kontalariaren gainean, eta honen zenbait konposizio ere, ikus liteke, ASTIZ, A. (1960) *Goldaraz'ko bertsolaria'ren kontu eta bersoak*. Dip. Foral Navarra, Ins. Príncipe de Viana, 1960.

[240] Bereziki honek Ataunen bertan bildutako kontakizunekin, lehenbizi *Eusko Folkloren* argitaratuak, eta gero, berriro, Itxaropenak, edo Barandiaranen lan guztien artean. Ikus liteke Barandiaranen kasuaren gainean luzexeago, berari eskainitako oharrak, gure *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz* lanaren lehen atalean, De Rijk-en artikulu baten eztabaidan.

[241] Nahiz eta Azkueren ondorengo esplikazio eta adibide berak ere, ez diren oso bat etorriko baieztapen bitxi honekin; hala segitzen baitu lerrokadak, bere ildo altubetarra-edo (24 or.): «*En este viejo idioma, siempre que a uno le pregunten algo mediante cualquiera de los interrogativos, empezamos la respuesta indefectiblemente por el complemento correspondiente a este elemento de interrogación. Si nos dicen ¿cuándo ha venido usted?, contestamos siempre, por ejemplo, hoy he venido* gaur etorri naiz; *jamás: he venido hoy* etorri naiz gaur. *A las preguntas ¿cómo ha venido usted? ¿a qué va usted allá? nunca respondemos "he venido muy a gusto", sino "muy a gusto he venido"* oso erara etorri naiz*, ni "voy allá a comer", sino "a comer voy allá"* bazkaltzera noa ara.»

[242] Hala definitzen du Azkuek berak 1927an («Batasunera-bidean», *Euskera*, 1927, 131 or.).

batzuren aurretik (5 or.):[243] «*Sei-zazpi, edo argiroago adierazteko, sei-zazpitzuk ziran nere* katharinitis ark zituen txukunketak ["Katharina *badakizute, gizonak,* Purificación *da*", argitzen du Azkuek (4 or.)]. *Bizkaiko* naz-az-da-gara-zara-zaree-dira-ren *ordez nik* nai-ai-dai-gaiz-zaiz-daiz *erabiltzen nituen.* Dot-dok-don*... ta lagunen tokian* daut-dauk-daun-dau-daugu-dauzu-daue.» Eta segitzen du, mugatu nahian *katharinitis* haren garaia (6 or.): «*Egia da ta burua zuritzen asi-orduko ezagutu nuen, Dodgson euskalariak irakatsita edo, nere izkuntza etzela* Vascuence*,* Azkuence *zela; eta liburu hura argitaratzeko dirua ugari eralki ta txautu izanarren, nere ikasleen artean urte batez ere enuen izkinde hura sarrarazi.*» Eta hala bukatzen du Azkuek artikulua, gomendatuaz Aita Soloeta-Dimari, utz diezaien errekonstrukzioei, berak utzi bide zien bezala (21 or.): «*Nik ere nere txukuneria utzi nuen ta bera ere, eri ori utzita, sendatu bedi, ...*».

1.5.2. Damurik ez inoiz ordea, 1891eko (eta geroztiko) joskera eta hitz ordenamendurako berrikuntzen gordinaz.

Azkuek behin eta berriro aitortzen duen *Izkindeako pekatua*, eta damutasun bakarra, txikikeriaren bat aparte, urruti handirik gabe mugatzen da, aditz morfologiako berrikuntza gordinenetara. Eta guri gehien dagokiguna, Azkueren damua ez da inoiz zabaltzen, 1891ko *Izkindean* isurtzen diren berrikuntzetara, joskera eta hitzen ordenamenduaren arloetan, zeinak badiren sintaxian, *daut, gaiz* … eta gainerako guztiak diren bezain gordin eta arrotzak aditz morfologian.

Aitorpenetan, Azkuek beti, urtebete eskaseko gaiztzat jotzen ditu, soilik, 1891ko *Izkindeako*, hizkuntz asmo iraultzaileak.[244] Aspaldi batean gaindituak balira bezala. Azkuek ordea, 1891z geroztik ere, 1951ra arte, batere dudarik gabe jarraituko ditu predikatzen, eta praktikatzen, bere gramatika azalpen, eta prosa lan guztietan, zein gehiago zein gutxiago, ageriagoan edo izkutuagoan, 1891ko joskera eta hitz ordenamendurako predikatzen zituen berrikuntza guztiak, erakusten ahaleginduko garen bezala aurrera.[245] Eta Villasantek *Literaturaren Historian*, oraindik esaten badu ere, Azkueren 1891z geroztiko bilakaeraren gainean (2. arg, 1979, 382 or.): «*Excusado decir que luego fue más realista y no se embarcó más en semejantes aventuras.*»; entenditu behar da, Azkue zuhurxeagoa izango zela aurrerantzean, aditz morfologiaren kasu nabarmenenetan. Ezen ez, hizkuntzaren beste arlorik gehienetan, eta bereziki guri dagokigun joskera-hitz-ordenamendu kontuan, jada 1988ko Villasantek ere behin baino gehiagotan salatzen duen bezala (Azkueren *Latsibiri* eginiko sarreran ere, ikusi dugun legez).

1.6. Azkuek 1891z geroztik sustatzen duen joskera-hitz-ordenamendu iraultzaren bi adarrak.

Azkuek garrantzi handia aitortzen dio *Sintaxi* arloari 1891n. *Alkarmena / Mutuación ó Sintaxis* deituko duen atalaren lehen zatian aztertuko ditu (287-333 orr.), hitzen arteko erlazio desberdinak, sintagma barrenekoak-edo. Bigarren zatian, *Esapidea / Construcción* izenekoan berriz (334-348 orr.), hitzen arteko ordenamendu arauak esaldian, sintagma desberdinen artekoak-edo, guri gehiago interesatuko zaizkigunak. Aurrerantzean hala ere, Azkuek ez du inoiz berriro argitaratuko, horren iritzi bilduma zabalik, sintaxi kontuen gainean. Nahiz bai segiko duen, han eta hemen barreiatzen, beste hainbat lan gramatikaletan, bere 1891ko joskera eta hitz ordenamendurako aurreirizpide eta joerak, jada esan genezakeenak, ezer gutxi aldatuko dituela bere bizitza guztian zehar.

1.6.1. Azkueren 1891z geroztiko lanak, joskera eta hitzen ordenamenduaren inguruko aipamenekin.

Izkindean bezala, Azkuek sarri segitzen du, ondorengo lan gramatikal, didaktiko edo dibulgaziozkoetan, bere kezka adierazten, euskarazko hitzen joskera eta ordenamendurako. Hala aurkituko dugu lehendabizi, 1894 inguruan eta makina auto-kopistaz argitaraturiko *Ensayo Practico* bat (*Ens. Prac.*), eskuz eta oso letra argiz idatzia, eta apenas ezagun edo aipatua izan dena orain artean Azkueren lanen artean.[246] Klaseetan erabiltzeko materialez osatutako *Ensayo* hau izan bide zen, aurren zirriborroa edo, Azkuek 1896an jada bai, inprimategian argitaratzea lortuko duen, *Método práctico para aprender el vascuence bizkaino y guipuzcoano, con su correspondiente clave de temas* (*Met. Prac.*) eskolarako liburuarena.[247]

---

[243] Txiki hauen aitorpenean dio: «Nere izkuntza artan *zu* beti zan "vosotros"» (5 or.); «... nik ere *eztaki, ezpedi egon, ezpaleki, ezkoaz, etzaitez* "para el vulgo" utzita, *ezdaki, ezbedi egon, ezbaleki, ezgoaz, ezzaitez* erabiltzen nituen.» (5 or.).

[244] Nahiz dakigun, Azkuek lasai erabiltzen zituela adizki forma berriak, jada 1888/9/90ko kontakizunetan (*Peru Matraka ta Pedr'anton*, ...) Beraz gaitza, aditz morfologian ere, ez zen soilik urtebetekoa izan. Agian, *Izkindea* argitaratu eta urtebete gehiagokoa, baina aurretik beste bi/hiru ere bai behintzat.

[245] Jaso dugu, zer zioen Azkuek, 1934ean, Goldarazko Astiz ipui kontalariaren joskeren gainean.

[246] Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekan gordetzen da enkoadernaturik, 150 ikasgaietan banaturiko lan honen ale bat. Honen gainean esaten du Arana Martijak («Euskal katedraren lehiaketa eta eragina», *Euskera*, 1988, 375 or.): «1893-1894 ikasturte hau bukatu zuenean eta moldiztegiarekin ez zuela ezer lortzen ikusirik, ikasleentzat apunteak prestatzeko "auto-kopista" makina bat erosi zuen 125 pezeta ordainduz. Makina honekin argitaratu zuen eskuz idatzitako *Ensayo Práctico*.» Euskaltzaindian gordetako aleak nolanahi, izen hori, eskuz idatzita ageri du, geroztik eta lapitzez. Multikopian ez da batere izenbururik ematen.

[247] Azken *clave de temas* hau aparteko liburuska batean argitaratu zen.

1896ko *Metodo* honetan, Azkuek *metodo teorikotzat* kalifikatzen du 1891eko *Izkindea*,[248] berriaren helburua, hitzegiten irakastea izango litzatekeen bitartean, eta zehatzago, klaseetarako eguneroko ariketak eskaintzea, ohar gramatikalak, eta hauek ilustratzeko, euskal idazleengandik ekarritako ezin adibide ugariagoak (eta ez bakarrik Azkuek berak asmatutakoak, *Izkindean* edo 1894ko *Ensaioan* bezala).[249] *Metodoan* zehar, Azkuek behin eta berriro bidaltzen du irakurlea, ikasgaien amaierarako agintzen duen *Konpendio Teoriko* berri batera.[250] Azkuek egiatan, erdi gorpuztua-edo behar zuen eduki jada, delako *Konpendioa*, *Metodoan* zehar ematen den erreferentzia gurutzatu sailaren arabera. *Konpendioak* ordea, ez zuen argirik ikusi inoiz.[251]

Hurrengo urteetan, Azkue, hasierako irakasle lan zuzenak utzita, burubelarri murgilduko da 1905-6an argitaratuko duen *Hiztegiaren* lanetan.[252] Eta bertan behin eta berriz iragartzen badu ere, sarrerarako prestatzen ari den *Sintaxi* atal bat, ez da halakorik batere ematen argitaraturikoan. Beharbada izan litezke oraindik ere nonbait, garaiko eskuizkribuak, gaiaren inguruan. Bitartean konformatu beharko dugu, *Hiztegiko* hainbat sarrera desberdinetan ematen diren oharrekin, joskera eta hitz ordenamenduaren alorrean.

Morfologia izango da Azkueren hurrengo lan gramatikal nagusia.[253] Bertan ordea, ez dira oso albotik baino ukituko, joskera eta hitz ordenamendu arazoak. Jasoko ditugu hala ere zenbait ohar. *Morfologia* hau omen zen, Azkuek eman nahi izan zukeena *Hiztegiaren* sarreratarako, morfologia mailan. Ez dirudi, morfologian egin bezala, Azkuek geroztik inoiz ekin zionik serio, bere usteak eta oharrak zuzentzeari sintaxi mailan. Hala ere aurkituko dizkiogu oraindik beste zenbait ohar, heldutasun garaikoak, eta are zahartzarokoak, jasotzea mereziko dutenak. Batzuk, 1928ko *Diskurtsoan*, Espainiako *Hizkuntz Akademiarako* sarrera hitzaldian: *Algunos rasgos característicos del vascuence comparados con los de otras antiguas lenguas* izenburuarekin (*Disc.*).[254] Beste batzuk, 1949koak, bi aldiz ere argitaratuak urte berean, *El vascuence y varias lenguas cultas. Estudio comparativo* liburuskan (*Est. Comp.*).[255]

1.6.2. Azkueren euskal prosa lanak 1891eko Izkindeaz geroztik.

Azkueren euskal prosa praktika, ezin ugariagoa bihurtzen da 1891z geroztik. Hemen soilik aipatuko ditugu guk gehien erabili ditugunak, nahiz, horren ugariak izaki, ez ditugun hauek denak ere intentsitate berez xahutu ahal izan gure azterketan, edota adibide bila. Hala aztertu ditugu (beren orden kronologikoan): 1893ko, *Bein da betiko* kontakizuna (*BB*);[256] 1895ean Gernikako Santa Marian eginiko *Sermoia* (*Ger.*);[257] 1896ko *Dotrina argitaragabea* (*Dotr. ag.*);[258] 1896ko Eusebio Maria D. Azkue, bere aitaren *Parnasorako Bidea*-ren argitalpen zuzendua;[259] 1897ko *Kristinauen ikasbide laburrtua / Baionako elizterikoa / Lapurrdiko euskeratik Bizkaikora biurrtua* [eta

---

[248] Ez horregatik txartzat, nahiz aitortuko duen, badaudela 1896koan zenbait gai hobeto tratatuak, *Izkindean* baino. Hala dio (6 or.): «Si este libro no tuviera más objeto que dar á conocer el euskera, no habría salido á luz; pues para este fin imprimió su autor hace cuatro años el método teórico llamado *Euskal-izkindea*. Y si bien en este libro hay algunas materias mejor tratadas que en aquél, no es tanta la diferencia que exija nueva edición sin haberse agotado la primera.»

[249] *Metodo Practicoaren* tradiziozko adibideen ugaritasun horretan, eta liburu hasieran ematen den autore zerrendan, beharbada izan zuen zerikusirik, Dodgsonek urte batzuk lehenago egiten dion eskaera kritikoak, *Izkindeako* autoreari, dioenean, honen iruzkina egitean (in *Gramatica euskara*, Etudes Historiques et Religieuses du Diocèse de Bayonne, 1892, I, 68 or.): «Nous aurions mieux aimé que M. Azcue, au lieu de les inventer ait emprunté les exemples de ses règles aux auteurs Biscayens, dont il n'a point donné la liste chronologique en tête de sa grammaire intéressante.»

[250] Hala adibidez, besteak beste, nola (7. or.): «Al final se enseñará un Compendio teórico distribuído en veinte capítulos.»

[251] Eta izan ere, *Metodo Practico* beraren asmoak ere ez ziren erdiraino baino bete. Hasieran iragarritako bi kurtsotarako 100 ikasgaietatik ere (7 or.), ez ziren lehen 50ak baino argitaratu. Hauen artean badira joskera eta hitz ordenamendurako ohar solte interesgarriak, bere lekuan jasoko ditugunak. Baina benetan litzateke interesgarria aurkitzea delako *Konpendio Teorikoa* (inoiz izan bada), eta ezagutu ahal izatea bertako hitz ordenamendu atalak, Azkuek V kapitulurako iragartzen dituenak (57 or.), aurrerago jasoko dugun bezala.

[252] *Diccionario vasco-español-francés*, 2.arg. faksimila, LGEV, Bilbao, 1969.

[253] *Morfologia Vasca*, Euskera, 1923, 1924, 1925. Gaubeka, Bermeo, 1925. Argitalpen honen faksimila erabili dugu guk, LGEV, 1969.

[254] *Discursos leídos ante la Real Academia Española en la recepción pública del sacerdote Dr. D. Resurrección María de Azkue presidente de la Academia de la Lengua Vasca el día 30 de diciembre de 1928*, Bilbao, Editorial Vasca, 1928, 3-32 orr.

[255] Bilbao, Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya. Beste argitalpenak aldiz, atzekoz aurrera edo du izena: *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*, 1949, Talleres gráficos El Noticiero Bilbaíno, Bilbao.

[256] Oraintsu berrargitaratua, *Batxi Guzur* lanarekin batera, Donostia, EEE, Klasikoak, 1986, Ines Pagola.

[257] In *Jaungoikua eta Foruak*, Bilbao, 1896, 17-44.

[258] In Ines Pagola, «Resurrección M.ª de Azkueren Dotrina argiragabea», *ASJU*, 1987, 163-207.

[259] Hordagoren argitalpen faksimila, Donostia, 1979.

gipuzkoakora, eta *gaztelerara*] (*Bai. Dotr.*);[260] 1897-9 bitartean Azkuek argitaratzen duen *Euskalzale* aldizkariko (*EZ*) zenbait artikulu (ehundaka artean), eta besteak beste 1897ko *Batxi guzur*,[261] edo *Txirristadak* saila, aparte ere argitaratua1898an; 1901eko *Jesusen biotzaren illa* (*Jes. Biotz.*); 1904ko Ordiziako (Gipuzkoako Villafrancako) Euskal Festetan eginiko *Sermoia* (*Vill.*);[262] 1916ko hitzaldia *Bizente Goikoetxea* izenekoa (*Biz. Goi.*);[263] 1917an ematen dituen testu laburrak, *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular* liburuskan; 1918ko *Ardi galdua, gertirudia* (*AG*);[264] 1920ko, *Agirre, beretergoan* hitzaldia (*Agi.*);[265] 1920ko *Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak* artikulua (*Erd.*);[266] 1921eko erantzuna S. Altuberi euskaltzain sarreran (*Alt.*);[267] 1921eko erantzuna G. Lacomberi euskaltzain sarreran (*Lac.*);[268] 1922ko *Txukuneria* artikulua (*Txu.*);[269] 1926ko *Lamiak Euskalerrian* artikulua (*Lam.*);[270] 1927ko *Batasunera-bidean* lana (*Bat. Bi.*);[271] 1930eko *Euskalerriko oitura ta siniskeritxo bat edo beste* (*EEoit*);[272] edota datatu gabeko *Latsibi* gertirudia;[273] eta azkenik, *Euskalerriaren Yakintzako* 4 tomoak (*Eus. Yak.*), 1935 eta 47a bitartean argitaratzen direnak,[274] eta oso bereziki, Iaren 1934ko sarrera euskaraz.

1.6.3. Azkueren ohizko kezka, hitz eta egituren ordenamenduarekiko euskaraz.

Ugari dira *Izkindean* zehar, edota ondorengo lanetan, Azkuek, hitz eta egitura zehatzen ordenamendu eta segida moduei egingo dizkien iruzkinak. Aipatu ditugu jada adibidez, Azkueren urtetako iritziak, euskarazko esaldi konparatiboen ordenaz, gaztelaniaren *iruntzitara*. Antzera, nonnahi egingo ditu oharrak, euskarazko beste ordenamendu ohitura topiko, edo ez hain topikoez. Hala, adjetiboak izenaren ondorera bidaltzen.[275] Edo zuhur asko aldarrikatzen, euskarazko posposizioen erabilera, eta artikuloaren posposizioa, inguruko beste hizkuntzen preposizioen aldean.[276] Hala kokatuko ditu zenbakiak izenaren aurretik, salbu *bat*, eta Bizkaian, *bi*.[277] Emango ere ditu, kasuan kasuan, hainbat mugatzaileren (zenbatzaile mugagabe, erakusle, … eta abarren) ordenamendu arauak.[278] Beti predikatuko du ere ordinalen lekua izenaren aurretik.[279] Eta jasoko ditu ere behin baino gehiagotan, orden finkoko hitz segidak, edo hitz konposaketak, Astarloaren jatorrizko nobleziaren haritik-edo.[280] Eta hala moduz ere, hainbat hitz edo partikula bereziren ordenamendu legeen gaineko iruzkinak, nola adibidez,

---

[260] Bayonne, Imprimerie L. Laserre.

[261] Orain berrargitaratua, *Bein da betiko* narrazioarekin batera, Klasikoak, EEE, Donostia, 1986.

[262] In C. Echegaray, S. Mugica, *Villafranca de Guipuzcoa. Monografía histórica*, 453-9.

[263] *Euskal Esnalea*, 1916, 301-7.

[264] Ines Pagolak berrargitaratua oraintsuago, Klasikoak, EEE, Donostia 1989.

[265] In *Itzaldiak*, Euskal Esnalea, 1923, 67-80.

[266] *Euskera*, 1920, I (2), 54-62.

[267] «R. M. de Azkue euskaltzainburua'k Sebero Altube'ri euskaltzain art-orduan emandako ongi-etorria», *Euskera*, II (1), 1921, 50-62.

[268] «R. M. de Azkue euskaltzainburuak Hasparrengo batzar agirian Geo. Lacombe euskaltzainari egindako erantzumena», *Euskera*, II (2), 1921, 57-63.

[269] *Euskera*, VI (2-3), 1925, 4-21.

[270] *Euskera*, 1927, 91-115.

[271] «Batasunera-bidean edo Pernando Amezketarra-ren autsi-osotxoak eta Ardi Galdua-ren autsi mautsiak», *Euskera*, 1927, 116-140.

[272] In *V Congreso de Estudios Vascos*, San Sebastián, 1934, 92-100.

[273] Labayruk argitaratua 1989an, Mirari Alberdik moldatua.

[274] Oraintsu hirugarren aldiz berrargitaratuak, Euskaltzaindia eta Espasa-Calpe-k, 1989an.

[275] Ik. besteak beste, *Izk.* 142, 335, edo 338-9 orr.; *Met. Prac*. 22 or.; *Disc*. 19 or.; edo *Est. Comp*. 34 or. Nahiz Azkuek behin baino gehiagotan emango dituen salbuespen gisara, *beste* partikula (*Met. Prac*. 153 or. ere), edota *-dun* atzizkia duten adjetiboak, zeinak eman beharko liratekeen, derrigorrez, izenaren aurretik. *Izkindean* hala ere, Azkuek oraindik utziko dio ate zirristu bat irekita, *-dun* atzizkidun adjetiboen erabilerari izenaren ondoretik, tradizio-finko-ere-bati segika. Hala esaten du (1891, 339, 2. oh.): «Algunos suelen por extensión anteponerlos rara vez *gizon bizarduna* ... Está mejor dicho *bizardun gizona*.» Azkuek *Hiztegian* oraindik jasotzen ditu salbuespenen adibideak (I, 207 or.): «Ardi adarduna ta bei sabelduna», *Refranes y Sentenciasekoak*. *Morfologian* jada, ez dugu uste salbuespenik gogoratzen duenik.

[276] *Izk*. 129 or; *Morf*. 386, 473-7 orr.; *Disc*. 11 or; *Est. Comp*. 17 or. Azkuek hala ere, jasoko du *Morfologian*, hauetako zenbait partikulen erabilera prepositibo bat ere, *hizkuntzaren garai zaharretatik edo letorkeena* beharbada (477 or.): «Se dan ejemplos en que algunas de estas posposiciones puedan ser base de composición, perdiendo entonces su carácter pospositivo.» Eta hala aitatuko ditu adibide modura: *goierri, goienetxe, Artekale, Barrenkale, Goienkale*, etab. Artikuloaren posposizioa agerian aitatua ere, in *Est. Comp*. 34 or.

[277] Ik. Besteak beste, *Izk*. 106 or.; *Ens. Prac.* 34 or.; *Disc*. 19 or.; *Est. Comp*. 34 or.

[278] Ik. *Izk*. 87-106 orr., edo 339-40 orr. behintzat. Erakusleen gainean baita ere, *Disc*. 19 or., non, besteak beste, Azkuek gaztelaniaren erasoari egozten dion, Bizkaiko erakusleen aurrejartzeak izenari: «..., sin duda por influencia del castellano, vienen introduciéndose, sobre todo en el dialecto más occidental, locuciones en que el demostrativo se antepone y se pospone a la vez.»

[279] Ik. besteak beste, *Met. Prac*. 106 or.; edo *Est. Comp*. 34 or.

[280] Besteak beste, *Izk*. 111 or.; edo *Met. Prac*. 123 or.

ezin aditz partikula, beti kokarazi nahiko duena (derrigorrez edo), aditz perifrastiko jokatuaren ordenamendu normalaren aurretik (*Ezin ekarri dut* egiturak hobetsi nahian, *ezin dut ekarri*-ren aldean);[281] edota, *jakin ez arren / ez jakin arren* bezalako egituren bikoiztasuna aldarrikatuaz.[282] Baita ere beste hainbat ohar, aipatu berriak baino interes gehiagokoak, eta banan bana joango garenak aurrerago erakusten.

1.6.4. Azkueren bi iturri sintaktikoak 1891ko Izkinderako.

Azkue bitartean, bakarrik Astarloak heltzen dio euskal gramatikalarien artean, hitzen ordenamendurako teoria global-edo nahieko bati, gure artera ekarriaz, Frantziako XVII-XVIII mendeetako eztabaiden arrastoak, hitzen arteko noblezia jerarkizazio desberdinen gainean, nahastuaz hauek, antierderismo neurri bereziekin, eta ezarian bezala kokatuaz, azkenik, gure aditza, esaldi egituren amaieran.[283] Eta Azkuek, zuzenean edaten du Astarloagandik.

Bestetik Campionek ere ematen du bere *Gramatican*, iritzi bildumatxo bat, euskarazko hitzen ordenamenduaren inguruan. Eta Azkuek, Campionen bidez jasoko ditu segurasko, Cardaverazen eskolako oinarrizko presupostu sintaktikoak. Zuzenean Cardaverazenak, honen antigaztelania militanteari dagozkionak, euskarazko hitzen ordenamendu kriterio erabilgarri bezala, Campionek bere *Gramaticaren* hasieran jasotzen baitu, Cardaverazen *Eusqueraren Berri Onac*-eko aipua, oihartzun zabala eginez.[284] Eta Campionen bidez ere jasoko ditu Azkuek, euskal aditzaren gune pospositiboari buruzko usteak esadian.[285] Azkenik, Campion bera egiten da, Astarloaren oihartzun zuzen ere, honen ordenamendu arrazionalaren legeak jasoaz, euskal hizkuntzaren arau zurruntasunen inguruko printzipioez gain.[286]

1.6.5. Azkueren 1891ko lau sistema sintaktiko: bi ekarri, bi propio.

Azkue nolanahi, ez da konformatuko, bere bi iturrietatik jasoak errepikatzearekin, eta elaborazio propio oso garrantzitsuak erantsiko dizkie hauei, nondik atereak dituen ez dakigunak, baina benetako salto kualitatibo bat suposatzen dutenak iturriekiko. Azkue, artean gazte bat, hitz ordenamendurako sistema pertsonal eta erabilgarri bakar baten bila abiatuko da. Ordea ez du erabat lortuko, bere bi iturriak sistema bakarrean biltzea. Areago, esan liteke, eraikiko dituela, lau ildo edo sistema desberdinen aztarnak, hitzen ordenamendurako, bakoitza bere arrasto propioa utziko duena, Azkueren obra guztian zehar, hainbat erraz segi litekeena. Lau sistema nolanahi, ageriak izango dituztenak zenbaitetan, beren arteko kontraesanak. Bi zuzenean iturrietatik erakarriak, eta beste biak propioagoak.

Iturrietatik ekarritakoak: bata, cardaveraztiarra, eta ohi bezala, aditza amaierara bidaltzen saiatuko dena, guztien gainetik, zeinnahi esaldi moetatan ere. Bigarrena, astarloarra, esaldiko elementurik garrantzitsuenak bidali nahiko lituzkeena honen hasierara. Sistema propioen artean berriz, hirugarrena, altubetarra deituko duguna, berak jaso duelako azkenerako sona, eta ordenamendu segida berdina eskaini nahiko diena galderei eta erantzunei, eskainiaz, galdegileei eta hauen erantzunei (hau da, *elementu inkirituei, galdegaiei*), aditzaren aurre justuko gunea. Eta laugarrena sistema azkenik, *greenberg-de-rijktiarra*-edo dei genezakeena, eta zeinen eraginez kokatu nahiko diren, esaldiko objetu zuzenak, edota atributuak, derrigorrez edo ohituraz, aditzaren aurre justuan OV (OA) / At-V (At-A) egituretan.

Azkueren sistema laukoitz hau, 1891 eta ondorengoa, ez da inoiz izango horren borobila, nola Altubek erakutsiko duena 30/40 urte beranduago, sistematizazio itxura gehiagoz. Baina ordurako, Azkuek haizatuak izango dira lehenago, puzzlearen pieza guztiak.

---

[281] Ik. *Izk*. 339 or; edo *Met. Prac*. 288 or.

[282] Ik. *Izk*. 211 or.

[283] Ik. Astarloari eskaini diogun atala, non jasotzen diren zabalago, Astarloaren segidako baieztapenak bezalakoak, honen *Diskurtsoetatik* atereak: «*... el verbo debe ocupar el último lugar como parte de la oración; ...*» (*DF* 520 or.); edo «*... contempladas las voces por la nobleza que tienen como parte de la oración, el verbo debe ser reputado inferior en órden á todas las demás ...*» (*DF* 764 or.)

[284] Cardaveraz, *EBO*, 58 or: «*...; gaztelaniak beti aurretik dakarrena, euskerak azkenerontz beti botatzen duela; eta itzak beren lekuan gaztelaniaren kontra ifintze orretan euskeraren era eder, aire, edo chiste guzia dago.*»

[285] Hala adibidez, Campionek esaten duenean bere *Gramatican* (782 or.): «*Los buenos escritores y hablistas rematan la frase, por lo común, con el verbo principal de ella.*» Ik. guzti hauen inguru, Campioni eskainitako atala, *Cardaverazen eskolaren* barne.

[286] Campionek ere gramatikaren sarrera beretik aldarrikatzen baitu printzipioa (47 or.): «*El rasgo distintivo de la lengua euskara es la* unidad de procedimiento; *... Así es que apenas hay excepciones, y cada clase de problemas se resuelve con una sola clave.*»

1.6.6. 1891ko Izkindeatik, XX mende guztian zehar sustatutako iraultza sintaktikoaren bi (hiru) ezaugarriak.

Bi ezaugarritan laburtu beharko balitz, hegoaldeko euskal prosak jasaten duen asaldaketa, XX mendean zehar, joskera-hitz-ordenamendu joeretan, bata, dudarik gabe izango litzateke, galdetzaileen erabateko desagertzea, ordura artean ohizko zituzten erabilera anaforiko guztietan, *zeinismoaren* bat-bateko galera, *antizeinismo* militantea. Bestea berriz: aditzaren atzeratze nabarmena esaldian, ordurarteko tradizio altxor nagusiaren aldean, bi aurpegi, edo bi ezaugarri propio desberdinekin, Cardaverazen eskolaren ildoan: 1. aditza derrigorrez bidali nahiaz amaierara mendeko esaldietan. Eta 2. esaldi nagusietan ere, guztiz nabarmen atzeratuaz aditza (nahiz, oro har, Cardaverazen eskolan baino modu sotilagoetan, eta ez mendeko esaldietan bezain modu absolutoan).[287] Ezaugarrion ondorio izango da, XX mendeko euskal prosa egiturak jasaten duen erabateko itxuraldaketa hegoaldean, aurreko tradizioaren aldean. Edo agian ezaugarri bakarraren ondorio, aditz atzeratze orokorrarena; kontutan harturik, *zeinismoa* bera ere, ez dela finean bitarteko bat baino, mendeko esaldiaren aurrealde batean eman ahal izateko, nagusiarekin lotzeko behar dituen juntagailuak, eta aditza bera.

Eta gogoratu behar da, hiru ezaugarri/arau hauek, horrelaxe predikatzen direla jada, Azkueren 1891eko *Izkindean*. Hala nola, ageriago edo ezkutuagoan, Azkueren aurrerantzeko lan gehienetan. Ez da bada gehiegi uste izatea izango, Azkue dela, XX mendeko euskal prosak jasandako iraultza sintaktikoaren aita. Nahiz gero, fama Azkueren dizipuluek berenganatuko duten arlo hauetan. Orkaiztegik, antizeinismoaren borrokatan. Altubek, esaldiko elementuen ordenamendu iritzi berrietan. Biak ere ordea, ez dira izango Azkueren ikasle, irakurle, eta jarraitzaile petoak baino, bakoitza hainbat aurreratua, bere alorrean. Ez alferrik izan da Azkue, *bere bizitza guztian, euskararen inguruko ikasketen zentroa*. I. Lakak aurrikusten zuen bezala («Euskal izkindeako aditza», *ASJU*, 1986, 725 or.): «*Esango genuke* Euskal-Izkindeak *baduela zer-esanik ugari euskal gramatika-ondarearen historian: kate horretan eskeini ohi zaion baino garrantzi gehiagoko maila litzateke. ...* Izkindearen *eragina aitortu zaiona baino areago hedatzen* [da], …».

1.6.6.1. Oharño bat Azkueren bi prosa estiloren inguru.

Mitxelenak egiten ditu ohar batzuk, Azkueren prosa estiloaren inguru, batera aldarrikatuz, honen lan desberdinen bi ezaugarri desberdin: Azkueren euskararen argitasuna eta iluntasuna. Hala dio (*HLV*, 143 or.): «*Azkue escribía en un vascuence diáfano, rico y fácil.*» Eta aurreraxeago: «*No obstante, no podía ocultar largo tiempo su afán preceptista y tampoco conseguía siempre refrenar el deseo incontenible de volcar a cada momento las riquezas del léxico vasco que tan bien conocía*.» Eta guk ere esango genuke, joskera arloari dagokionean, Azkuek, oro har, bi eratako testuak, edo idazkerak, erakusten dituela. Arinak, biziak, erraz ulergarriak, eta oso nabarmen, lekuan lekuko hizkera itxuratu nahi duenean. Eman dezagun, besteak beste, 1898ko *Txirristadak*, kontakizun saila. Azkuek badaki idazten, ulertua izateko. Besteak berriz, Azkue gramatikoak idatziak, prezeptista sintaktikoak, ez bakarrik askoz geldoagoak gertatzen direnak, baizik eta, baita ere, ilunagoak. Hauen lekuko nabarmena da *Izkindeako* euskara. Baina ez bakarra. Antzeko pasarte ilunak aurki daitezke Azkueren zeinnahi kontakizunetan, narradore orojakilearen ahotsa entzuten den orduko. Baita ere oso nabarmen, 1895ean Gernikako herriari eginiko sermoian, 1896ko *Dotrina* argitaragabean, edota 1934ean idatzitako *Euskalerriaren Yakintzaren* sarreran.[288]

Oro har esan liteke, Azkueren prosa ere, askoz argiagoa eta ulergarriagoa gertatzen dela, esaldi laburrak erabiltzen dituenean. Eta nabari iluntzen dela, ondorengo prosa Azkue-Altubetar guztia bezalaxe, hauek luzatzen doazen heinean. Eta izan ere, Azkuek, eta gero Altubek, eraikitako hitz ordenamendu printzipioak, inkonpatibleak izango dira, gure tradiziozko prosa estiloa ez den bezala, esaldi luzetako prosa batekin.

1.7. Azkueren eskola.

Nolanahi, ez dirudi, Azkue, bere bizitza guztian, bakarrik izan zenik, euskararen inguruko ikasketen zentroa. Bere datu biografikoak ezagututa, maiz pentsa liteke, jarduten zuela, zentro ez ezik, jaun eta jabe bezala ere, ukitzen zuen guztian. Buruzagi, zeinari, inor gutxi ausartzen bide zen kontra egiten, bere agintearen heldutasunean, eta ezaugarri honek lagun lezake ulertzen, Euskaltzaindia beraren jarduna eta lanak, Azkueren ardurapeko urte luzeetan. Nolabaiteko absolutismo honetan izango du zerikusirik, Azkueren jakinduria eskergaz

---

[287] Ordura arteko euskal prosaren esaldi nagusiko ordenamendu egitura, baldin bada, euskararen ordenamendu askatasuna gora behera: *1 argumentu laburrak + 2 aditza + 3 esaldiko argumentu luzeak*; aurrerantzean esaldi egitura hori, gehiago hasiko da itxuratzen, alderantzizkoa: *1 esaldiko argumentu luzeak (mendeko esaldi osoak barne) + 2 aditza + 3 argumentu laburrak*; edota soilik: *1 esaldiko argumentu guztiak, luze eta laburrak + 2 aditza*. Eta, aditzen atzeratze orokor horren eraginez etorriko da, esaldien egitura komunikatiboen erabateko desitxuratzea XX mendeko hegoaldeko euskal prosan.

[288] Kurioski, aipatu lau idatzi ilun hauetako hiruk, erakusten dute aldamenean gaztelaniazko testua, eta laugarrena berriz, *Dotrina*, hasieratik dakigu gaztelaniazkoaren itzulpena dela. Eta beharbada dauka testuetako Azkueren iluntasunak zerikusirik itzulpen zentzu horrekin.

gain, euskararen zeinnahi gairen inguru, baita ere bere nortasun eta izaera bereziek, hainbat biografoek azpimarratu duten moduan.

1.7.1. Azkueren izaeraz, eta podereez.

Tovarrek laburtzen du ondo, Azkueren jarrera bikoitza hizkuntzarekiko, herri- eta garbi-zaletasunen artean beti, *La obra de D. R. M.ª de Azcue* lanean, besteak beste, segidako hitzetan (1952, 26 or.): «*Los cuentos, los refranes, las leyendas, la mitología popular, los juegos infantiles, las canciones, todo es subordinado a un ideal de pureza, lo mismo que la lengua misma. Con esto queda aludida la otra característica de la actividad de Azcue, que poníamos en oposición a la nota de amor a lo popular. Es esa característica la imposición sobre lo popular de un sello de purificación y perfeccionamiento.*» Tovarrek berak azpimarratzen du behin eta berriro, Azkueren normatibismo akademikoa ere, nola 1966ko «Azkue gramático» artikuluan (61 or.):[289] «*El academicismo dominaba por completo en nuestros climas, y del normativismo académico participaba en primer lugar nuestro gramático.*» Mitxelenak ere, gogorarazten du, ikusi dugu gorago, Azkueren «*afan prezeptista*» hau (*HLV*, 143 or.).

Bere aldetik Julio Caro Barojak, anekdota eta guzti gogorarazten dizkigu, Azkueren izaeraren kazkagortasunak, hainbat iritzi gramatikal subjetiboren inguruan, *Azkue folklorista* lanean (1966, 44 or.):[290] «*... Acaso ciertos de sus tratados de gramática sean los más subjetivos y criticables; porque Azkue, una vez que se imponía en un tema, seguía poco el pensamiento ajeno y esto les producía la consiguiente zozobra a sus colegas, a personalidades más reposadas, como don Julio de Urquijo, discípulo joven de un joven maestro al que don Resurrección tuteaba, mientras que don Julio le trataba aún de usted en plena ancianidad de los dos.*»

Eusebio Erkiagak ere kontatzen digu, Azkueren nolabaiteko despotismoaz, anekdota propioekin («Resurreccion Maria Azkue-z ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak», *EGAN*, 1964, 6 or.): «*... Apaiz zahar batengandik entzunberria dugu: "[Azkue] Ume aundia zan. Edonori laguntzeko gertu egon ohi zana. Baiña ez zan lagungiña. Besteak baiño gorago ibilli behar izaten eban. Bere iritziak ziran betiere, besteen gaiñetikoak. Arentzat B. Zapirain ta Aita Otaño ere, ez ziran iñor oharpenik egiteko. Orregatik edo 'Altos Hornos' esaten eutsen aldi batean."*»

Eta ez dago ere, ohartzea baino, Azkuek Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian argitaraturiko lanen tonuez eta moduez, susmatzeko, Euskaltzaindia bera ez ote zen izan, urte guzti hauetan, noiz gehiago noiz gutxiago, baina Azkuek beti bere umorearen arabera jotzen zuen instrumentua.

Lagun dezakete oraindik, Azkueren nortasuna itxuratzen, J. Caro Barojak, jada gorago aipatu lanean, kontatzen dizkigun beste bi anekdotek. Bata, Azkueren nortasun wagnerianoaz-edo («Azkue folklorista», 1966, 43 or.): «*... Azkue, como su contemporáneo Aranzadi, fue un hombre que admiró extraordinariamente la cultura alemana de su época. No sé si era tan wagneriano como don Telesforo, pero me imagino que poco le faltaría. ... Y Azkue en sí era una personalidad hasta cierto punto wagneriana, poco dada a la medida, sí a la pasión.*» Eta Azkueren odolberotasun horren lekuko, Caro Barojak berak ematen duen beste anekdota txikia, lan beraren sarreran (41 or.): «*..., el primer recuerdo que tengo de Don Resurrección se liga a la propuesta hecha por aquél de que mi tío, mi siempre llorado y recordado tío Pío, fuera expulsado del País Vasco y con la respuesta de mi tío mismo, que, por lo que pueden ustedes imaginar, no fue muy blanda. Pasaron muchos años y en coyuntura no muy agradable para ninguno de los dos, en plena guerra civil, se encontraron por vez primera y última. Y el caso es que simpatizaron.*»

Suma liteke, anekdoten artean, Azkueren zilindro nortasun nekaezina. Pisuzko leader eta gidari, itogarri samarra ingurukoentzako. Eta hala, zail litzateke imaginatzea nolanahi, XX mendean gertatutako iraultza sintaktikoa gure hegoaldean, Azkueren oniritzia eta aitzindaritza gaberik.

1.7.2. Azkueren eskola sintaktikoa, joskera berrikoa.

Zalantza gabe, XX mendeko euskaldun zertxobait letratu guztiak gara, Azkueren eskolako. Haren zordun handiak, lexikoan ez ezik, euskal gramatikaren zeinnahi ataletan ere segurasko. Baita ere, joskera eta hitzen ordenamenduaren alorretan, aipatu hiru ezaugarri iraultzaileen inguru.

Izan ere, Azkuek, hasiera batetik sortzen du eskola bere inguruan. Lehenik Bizkaian. Ez alferrik, da, *Bizkaiko lenengo euskal-irakaslea*, *Izkindearen* azalean esaten duen bezala. Arana-Martijak jasotzen ditu Azkueren lehen urtetako ikasle bizkaitar ospetsu zenbaiten izenak («Euskal katedraren lehiaketa eta eragina», *Euskera*, 1988, 373-4 orr.), zeinen artean jada, 1889-90 ikasturtean, Ebaristo Bustintza (*Kirikiño*). Azkuek bestalde, euskalzale lan talde bat bilduko du, 1897 eta 1903 artean argitaratzen dituen, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarien inguruan.

---

[289] In Michelena, Caro Baroja, Tovar: *Don Resurrección María de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*, Bilbao, Junta de Cultura de Vizcaya, 1966.

[290] Idem.

Lehenengoa bizkaieraz. Bigarrena, *Bizkaiko eta Guipuzkoako euskeraz eguina*, izenburuan dioen legez. Bertan, besteak beste idatziko dute jada, Txomin Agirrek, Zamarripa, Urruzuno, Bustintza, eta Orkaiztegik behintzat. Eta den hauek ezagutuko dute beren obran, bakoitzak bere maila, modu eta neurrian, Azkueren eragin sintaktikoa, oraindik ere Cardaverazen eskolako azterrenetan.

Izkindearen argitalpenarekin, Azkuek irabazia zuen dizipulu giputz aurreratu bat, Donostiako lehen euskara katedraren jabe zen, Jose Gaspar Oregui jainkotiarrarengan.[291] Orkaiztegi eta Urruzuno ere giputzak dira. Txomin Agirre urte askoan izango da Zumaian. Orkaiztegik sortuko du Tolosan 1908an *Euskal Esnalea* aldizkaria, izen bereko elkartearen bidez, zeinen idazkari den, sortze beretik, Gregorio Mujika.[292] Tx. Agirre ere izango da bertako zuzendaritzakoa, gipuzkeraz argitaratuko duena bere bigarren elaberri, *Garoa*, zalantzarik gabe joskera lege berrian idatzia (urte batzuk lehenagoko *Auñemendiko Lorea* ez bezala). Hala, Azkueren eskola sintaktikoa ere, bide zabalez joan ahal da hedatzen Gipuzkoan, Azkueren izena, ospea eta eragina, eta bere lanen eta usteen zabalkundea, mila aldiz biderkatzen joango den bitartean hegoalde osoko giro euskalzaleetan, *Hiztegia* argitaratu ondorean 1905-6 urteetan. Zer esanik ez, 1919an *Euskaltzainburu* izendatzen denez gero, edota geroztik, bere *gipuzkera osotua* predikatzen eta praktikatzen hasten denean, euskara batua modura, XX mendeko bigarren hamarkadatik aurrera.

Altube berak, Azkueren dizipulu, *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratuko ditu lehen aldiz bere uste sintaktikoak, 1919-20an, *De sintaxis euskérica* lanean. Arrakastarik handiena ordea, *Erderismos* liburuak emango dio, euskal sintaxilaria bezala konsakratuko duena antonomasiaz, 1929an argitaratua, akademiako aldizkarian. Ez dira ordea, 6/7 urte eskas baino geratuko Espainiako gerra pizteko, eta ondorengo hegoaldeko euskalgintzaren etenerako. Hala, segurasko hitzegin behar da ia soilik, Azkueren eskola sintaktikoaz (eta oraindik ez altubetarraz), XIX mendearen azken hamarkadatik 1936ko gerra bitartean, hegoaldean loratzen den, joskera berriko idazle eta gramatikalari multzo osoarengan. Nahiz ezingo den erabat baztertu Altuberen eragin posiblea, XX mendearen hirugarren hamarkadatik aurrera.

Hala aztertu beharko dira, Azkueren joskera berriko eskola sintaktikoaren barne hegoaldean, gutxienez, gorago aipatutako Oregui, Txomin Agirre, Zamarripa, Urruzuno, Bustintza, Gregorio Mujika eta Altube beraz gain, baita ere Pio Mortara, Sabino Arana, Campion bera, Lopez Mendizabal, Eleizalde, Ignacio Maria Echaide, Eguzkitza, Belaustegigoitia, Juan Manuel Lertxundi, Toribio Alzaga, Lonarta Guridi, Miguel Arruza, Olabide, Zabala-Arana, Arriandiaga, Manuel Lekuona, Barandiaran, Lauaxeta eta Lizardi berak, edota are Gasteizko gotzai Mateo Mugika bezalakoak. Iparraldean berriz, oso nabarmena izango da Azkueren eragin, sintaktikoa ere, Aita Lhanderengan, bederen gipuzkera(-osotua-)z idazten duenean. Bera izango da segurasko, lehen iparraldearra, eta agian bakarra, Azkueren joskera berria erabiliko duena. Ez dakigu ondo zein oihartzunekin. 1936ko gerraz geroztik, zeharo ilunduta geratuko da hegoaldean, eta ahaztu egingo da, Azkueren eragina, hitzen ordenamenduaren arloan, Altuberenaren itzalpean. Aurrerantzean, Cardaverazen eskolaren oinordekoa, ez da jada eskola azkuetarra izango, baizik altubetar ahalguztiduna. Iparraldean, Lafittek jasoko du berriro, eskola azkue-altubetarraren lekukoa, bere prosa propioan gehiegi ez bada ere, bere *Grameran*, edota bere lanetan zehar barreiatutako aburu sintaktikoetan.[293] Denei egin beharko litzaieke leku hurrengo lanetan.

2. Azkueren borroka antizeinista etengabea 1891ko Izkindeatik.

> … Ingeles batek bere-bizi guztian egiten ez dauen-bezte itz urten itzazan [ziren] goiz atan Eperran aotik. Negargarria dai' gure egunetan Eper ain kantaria ez bizi izatea; **ZE** ez Prantzian bakarrik gure Españan bere' Ekautu, Begirale, Bialkin edo bezte aulango arazuen bategaz ikusiko litzatez emakumeak. (*Peru Matraka ta Pedr'Anton*, R. M. Azkue, La Abeja 1889-90, 62 or.)

Izkindea aurreko *ze* partikularen erabilera anaforiko honezaz gain, ez dugu antzeko beste adibiderik aurkitu Azkueren prosan. Agian erakutsi lezake honek beste salbuespenik, baina oro har, esan liteke, Azkuek ez dituela galdegileak inoiz erabiltzen modu anaforikoan. Beharbada, bera da, lehenengo euskal idazlea, erabiltzen ez dituena, eta batez ere, erabili nahi ez dituena.[294]

---

[291] Ik., Azkue eta bien arteko harremanez ere, Arana Martijaren aip. art., *Euskera*, 1988, 362-3 orr..

[292] Zeinen prosaren bilakaera ezagutzea ere, oso interesgarria litzatekeen, hasierako tradiziozko moldeetatik, 1927ko *Pernando Amezketarraren* joskera Azkue-Altubetarrera.

[293] Zeinetako batzuk behintzat aipatu ditugun jada, Duvoisinen *sintaxi latinoaren* inguruan, honi eskainitako atalean.

[294] Orkaiztegik, bere *Obserbazioetan* (66 or.), Mendiburu eta Guerrico aipatzen ditu, bere aurreko idazle ez *zeinista* bakarrak bezala. Mendiburuk erabiltzen ditu *zeinak*, Patxi Altunak esaten duen bezala (*Mendibururen idazlan argitaragabeak, I*, LXXI or.), behintzat, berak bertan argitaratzen duen *Christauaren Doctrinan*, nahiz ez, agidanean eta esanguratsuki, beste *Irakurraldietan*. Guerricok ere erabiltzen ditu inoiz bederen *zeinak*, berari eskainitako atalean erakusten genuen bezala, adibideren batez behintzat. Biek ere ordea, Mendiburu eta Guerricok, erruz erabiltzen dituzte: *zeren* bezalako

2.1. Antizeinismoa 1891ko Izkindean.

Ez gara gu orain arte gehiegi aritu, halako partikulen erabileraren hurbileko jarraipen bat egiten. Baina ziur da, ez dugula aurkitu Azkue bitartean, halako erabilera anaforikoen gaitzespenik, Hovelacquerengan baino, 1876-77 urteetan, eta honen oihartzun-edo, Vinsonen 1877ko bi lanetan.[295] Ez dakigu, Azkuek zuzenean iturri hauetatik bereganatzen duen bere jarrera antizeinista (bere zenbait baieztapenek, erraz ekartzen badute ere gogora, Hovelacqueren hitzen oihartzun berbera), edo kate horretan bertan legokeen beste mailaren baten bidez jasotzen duen, edota bestela. Dakiguna da, Azkuek oso jarrera antizeinista garbia erakusten duela jada, 1891ko *Izkindean* bertan. Antizeinismoaren apostolua kontsideratua den Orkaiztegik, bere *Obserbazio* liburua agertu baino 15 urte lehenago jada.

Azkuek *Izkindearen* lehen atalean ekiten dio jada zeinismoaren kontra, euskarazko *Itz bilakiak* (*Hitz inkisitiboak*; *galdegileak*) azaltzen ari delarik, hauen erabilera anaforikoa zuzendu nahian, arrotza delakoan (84 or.):

> 238. *Erdal-esakera euskaratuak*. Itz bilaki onei dagokioezan batzuk bakarrik azalduko dautaz [eta Azkuek bi zutabetan ematen ditu, batean erdaratiko esaerak, *euskaratuak* -baina *arrotzak, baztergarriak*-, eta bestean jatorrak, *euskarazkoak*; guk segidan jasotzen ditugu, lehenik gaiztotzako adibideak, ondoren zuzenketak]. / a) Zer ederra, zein ederra fi ¡Au dai ederra! / b) Zeinetan dakartan fi Eta onetan dakart. / z) Zeren (zerren) ezdaukagun fi Ezdaukagu-ta…, ezdaukagulako. / d) Esan daust ze ez datorrela fi Ezdatorrela esan daust.[296] / e) Nola (nolan) egin dain fi Egin dainez. / g) Ze (zer) mutil ederra fi ¡Au dai mutil ederra! ¡mutil onen ederra! / i) Zumarragara noa, non daukatan fi Zumarragara noa, eta an daukat. / k) Zeinbait daukatazan iango daiz fi Daukatazanak.

Berriro ere debekatuko du Azkuek *Izkindean*, are argiago, galdetzaileen erabilera anaforikoa. *Berarizko alkargaiei* eskaintzen dien atalean (*Relativos especiales -Conjunciones-*), eta euskarazko mendeko esaldiak lotzeko erabiltzen dugun erlazio atzizki sail luze bat erakutsi ondoren («*671. Bezte izkera askotan' onetxekaz batera erakusten daiz' guk aditzai irazten dautseguzan alkargai batzuk.*»; 282 or.):

> 672. *Zerren, ze, zergaitik ze, zergaitik* etorri dain (etorri dai*lako), ezen=eze*, eta bezte onelango esakera batzuk euskaratuak daiz; ezdauguz oitu bear […son euskarizados; no debemos emplearlos.]

2.2. Metodo Practicoko ohar antizeinistak 1896an.

Ez dugu uste, 1896ko *Metodo Practicoan* Azkuek inon anatemizatzen duenik agerian, *zein* partikularen erabilera anaforikoa erlatibozko esaldietan. Soilik ez du aipatzen.[297] Bai aipatzen ditu, *zeren, zerren* eta *ze* partikulen erabilerak, gaitzesteko, nahiz hirurei onartuko dien, bederen, ohizko usadioaren marka. Hala nola, metafora ebokatibo eta guzti, *zeren-zerren*-en gainean (97 or.):

> Hay otra palabra, indigna de que se oiga en todos los dialectos del euskera, que sustituye á la partícula que analizamos [porque] y es *zeren* ó *zerren*. Se nota en su formación la influencia de las causales latinas. Es notable la coincidencia de que esta misma palabra, con sus dos variaciones de *r* y *rr*, signifique tambien *polilla*, y ciertamente que lo es grande y destructora de la elegancia y originalidad de nuestra lengua, al hacer uso de ella significando *porque*.

Zoritxarrez Azkuerentzako ere, agidanean dotoretasuna eta originalitatea, gehiago babestu beharreko kualitateak lirateke euskaraz, beste faktore funtzional / komunikatiboak baino. Antzeko gaitzespena jasoko du *ze* partikularen erabilerak, gaztelaniazko zenbait *que*-ren ordezko (119-20 orr.):

---

partikula anaforiko bat; edo *nola* galdegilea modu anaforikoan (Mendiburuk ere bai, tarteka behintzat -cf. Patxi Altuna aipatu lan eta orrialdean-); edota beste hainbat, Guerricoren kasuan bederen.

[295] Hovelacquek esaten zuen hala, euskara deskribatzen, bere *La linguistique* liburuan (1876; 2. arg. 1877, 160-1 orr., nondik aipua): «Point de pronoms relatifs [euskaraz]; pour imiter les français ou les Espagnols, les Basques modernes ont employé souvent avec le sens relatif les pronoms interrogatifs; mais cela est absolument contraire au génie même de leur langue.» Bere aldetik Vinsonek, jada 1877an bertan ere esaten zuen, F. Ribaryren *Essai sur la langue basque* liburuari eginiko sarreran (XIV or.): «Quant à la syntaxe, le basque ressemble à toutes les langues agglutinantes. La proposition est toujours simple. Les phrases sont généralment courtes; les pronoms relatifs sont inconnus.» Vinsonek urte berean errepikatzen ditu, Hovelacquerenen oihartzun garbiak diren hitz hauek, orduan ingelesez, W. Websterren *Basque Legends* liburuari erantsitako *An essay on The Basque Language* lanean. Hovelacqueren hitzen errepikapen literalago bat emango du oraindik Vinsonek, jada 1919an, «Syntaxe basque. Position du déterminant et du déterminé» artikuluan (*RIEV*, X, 1919, 61 or.). Ik. Vinsonen atala, zertzelada gehiagotarako.

[296] Ohar bedi ere, aditz nagusiaren saltoa, esaldi hasieratik amaierara, zuzenketan. Ez da izango ustekabekoa.

[297] 1894 inguruko *Ensayo Practicoan* ere ez bezala, uste dugunez, nahiz biak ere beharbada patxada gehiagoz begiratu beharko liratekeen.

> II. Varios son los barbarismos que muy de ordinario se cometen en la expresión de algunas de estas *que*. - 1.º Para indicar causalidad en vez de la conjunción *ta* ó *da* pospuesta al verbo conjugado, hay muchos que copiando del castellano, dicen *ze*. *Irakurri bei,* ZE *ederra da* … en vez de *irakurri bei, ederra da* TA. - 2.º Al hacer uso del relativo *la*, anteponen muchos la misma partícula *ze*. *Esan neutsan* ZE *gaurr etorriko zala*, le dije que hoy había de venir [eta erasten du orripeko oharrean:] (Para hallar barbarismos de este y aun de mayor calibre, puede leerse la Doctrina de Capanaga. Es para lo que puede recomendarse.)

2.3. Parnasorako Bidearen edizio antizeinista 1896an, Azkuek zuzendua.

Azkuek bada, garbi ditu iritziak, eta ez du eragozpenik, hauek aldarrikatzeko, modurik kaustikoenean. *Metodo Prácticoaren* urte berean argitaratzen ditu ere, hainbat zuzenduak, bere aita Eusebio Mariaren bertso, maiz laudatuak. I. Lakak argitaratu du lan bat, konparatzen, Azkueren argitalpena, bertako zenbait poemek lehenago ezagutu zutenarekin, Manterolaren *Cancioneroan*. Eta hala dio, jakingarri, erabilera anaforikoon gainean («Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz», *ASJU*, 1985, 232-3 orr.):

> 6.2. Eusebio Mariak, *zein, non* … galdetzaileen bidez eratutako erlatibozko esaldiak darabiltza sarri; bere semeak, ordea, gehienetan, aldatu egiten ditu: aztertutako bertsoetan agertzen ziren hamar adibideetatik, lau bakarrik gordetzen diren bideak aztertzeak, mende bukaerako euskal giroan erabat desagertzen bait da, kasik bat batean, ordurarte ugari agertzen zen erlatibo mota hau.[298] … / …; baina erlatibozko egituraren desegite hau lortzeko, arau antzeko bat erabiltzen dela esan genezake; erlatiboaren galdetzailearen ordez, dagokion izenlagun edo aditzlaguna sartzea, hain zuzen ere, horrela lehen erlatibozkoa zen perpausa, nagusiaren koordinatu bihurtuz. / Azken bide hau, beste idazle gehiagogan aurki daiteke, batez ere *Euskalzale* inguruan, P[arnasaorako] B[idea] argitaratu ondorengo urteetan.[299]

Tartean Azkueren zuzenketa adibideak aztertu ondoren, interesgarria da, I. Lakak ematen duen azken informazio hau ere. Azkue da, *Euskalzaleren* sortzaile, zuzendari, idazle joriena, jaun eta jabea, eta litekeena da, berak zabaltzea anaforikoen aurkako ezinikusia, bere aldizkariko laguntzaileengan, zeinen artean ageri den, 1899an, Patrizio Antonio Orkaiztegi, eta jada Azkueren *Ibaizabal* aldizkarian argitaratuko dituena, 1903an, bere 1906ko *Obserbazio* sonatuen primitiak, *Itz joskera* izeneko artikulu sail batean. Ez dira izango kasualitate, horrenbeste kointzidentzia, bi apaizen artean.

2.3.1. Antzeko zuzenketa antizeinistak Elissambururen poesian.

Anekdota besterik izango ez bada ere, Azkuek antzeko *moldaketak* egingo dizkio 1897an, Elissambururen *Eskuara eta eskualdunak* poemari bizkaieraz, izango bada ere, euskalkiz aldatzearen aitzakian (*Euskalzale*, I, 1897, 134-5 orr.): *Zeren nehork ez baitu / bere herrian egundaino garhaitu.* fi *..., bada iñok eztau gaurrarte beren errian euskalduna garaitu*; edota, *Nola birundan arbolari / da segitzen itzala, ...* fi *Birundan zugatzari gerizea darraikon legez, ...*[300]

2.4. 1905-6ko Hiztegi sarrerak, barbarismo zeinistak salatzen.

Askotan agindu arren, Azkuek ez du gauzatzen *Hiztegiaren* sarreran, sintaxi ikuspegi orokorrik. Zeinismoaren inguruko ikuspuntuak nolanahi, ageri askoan emango dira, *Hiztegiko* hainbat sarreratan. Hala nola, jakingarri asko, *N sufijoari* eskaintzen dion 5. atalaren amaieran, esaten duenean (II, 61 or.):

> *Barbarismo*. - En lo que caen no ya gente extraña tan solo, sino gente de casa y avezada á escribir, es en el modo de emplear este sufijo tratándose de palabras como «quien, cual, donde, porque», es decir, los interrogativos usados como incidentales y por lo mismo, en español, sin acento. / Es preciso convenir en que, así como hay muchas frases vascas literalmente intraducibles á otras lenguas, hay también frases de otras lenguas, y muy especialmente las de que hablamos, que no pueden traducirse sin alterar el giro, á no incurrir en garrafal barbarismo. Estos giros son á veces tan difíciles, que se ve uno precisado á cortar la frase en dos, uniendo ambos miembros con alguna conjunción. / La frase de Duvoisin (*Gen*. III-19): *Bihurtu zaitezen arteo lurrera, zeintarik izan baitzire atheratua*, y su correspondiente de Uriarte: *Itzuli zaitezen bitartean lurrera, nondik izan ziñan artua*, son traducciones literales de «hasta que vuelvas á la tierra, de la cual fuiste sacado». Las traducciones, exentas de barbarismo, son: *Bihurtu zaitezen arteo atheratua izan zaren lurrera*, y *Itzuli zaitezen bitartean artua izan ziñan (*ó mejor *zeran), lurrera*. / La frase de Uriarte (*Gen*. III-

---

[298] Akatsen bat dago esaldian, baina horrela dago argitaratua.

[299] Azkueren argitalpen honetako zuzenketen gainean, esaten du Lakak artikulu berean (221 or.): «..., esan daiteke, oro har, R. M. Azkuek bere euskararekiko eritzien arauera berridatzi zuela aitaren lana, batez ere ortografia, hiztegia eta aditz morfologiari dagokienetan. Aldaketa gutxiago antzeman dakioke joskerari, beharbada neurriak eta errimak jartzen zituzten baldintzengatik.»

[300] Azkuek egiten dizkio oraindik Elissambururi beste bi ordenamendu zuzenketa ere, honen aditz laguntzaile aurreratuak eramanez, baiezko esaldietan, partizipio nagusiaren ondora: *Zer daukat* [sic] *ihardesten?* □ *..., zer erantzuten daustak*; *Biek handizki dutelakotz / maite libertatea* □ *..., biak andiz maite dabelako euren iaubetasuna*. Ohargarria da nolanahi, nola azken esaldian, Azkuek ez duen batere eramaten amaierara Elissambururen mendeko esaldiko aditza.

6): *Eman zion senarrari, zeiñak ere jan zuen*, y de Duvoisin (*id.*): *Eman zion bere senharrari, zeinak ere jan izan baitzuen*, que son bárbaras, podrían purificarse diciendo: *Eman zion senarrari eta ark ere jan zuen*. / La frase d'Axular [sic]: *Nekhazalerik eta laboraririk baizen ezten herria dela herririk hoberena* (Ax. 3ª-192-11), dirían muchos hoy, sobre todo en B y G: *Erria, zeiñetan eztan nekazalea ... baizik, dala erririk onena*: … / De esto convendrá tratar con cierto detenimiento en la Introdución al exponer la Sintaxis.[301]

Eta oraindik erantsiko du, *zein* sarreraren lehen atalean (II, 426 or.):

… - *Barbarismo*. Aparte de lo que se dirá en la Introducción, el lector puede ver en este mismo volúmen, pag. 61, 2ª col., suficientemente explicado el barbarismo que muy comúnmente se comete en el uso de esta palabra. Larramendi, á pesar de su vasta instrucción y claro ingenio, no vió la influencia latina regulando el uso de esta palabra en tales frases como en dicho lugar se citan y como esta que va a continuación: *Gaurko Ebanjelioan daukagu Jesukristok eginiko lenengo miraria, zeiñegaz asi zan munduari agertuten Jaungoiko benetakoa zana*: … (Ast. *Urt*. I, p. IX-30.)

Antzeko iruzkinak aurki litezke ere, laburtxeagoak, beste galdegile batzuren sarreratan. Hala (II, 428 or.): *Zelan (Bc), cómo, de qué modo: ... Sucede con este interrogativo lo que casi con todos: que generalmente se comete en su empleo enorme barbarismo*. Edota (II, 432 or.): *ZEREN: ... 2º (AN, BN, G, L, R, S), porque, conjunción causal: ... = Parece que esta acepción viene de simple imitación de lenguas extrañas*. Edo interrogante salatzaileak erantsiaz (II, 433 or.): *Zergatik (AN, BN, G, L): ... 2º porque,* parce que. *(??)*.

2.4.1. Hala ere, zenbait erabilera zeinista onartzen Hiztegian.

Azkuek ez baitu, gaitzespen bera errepikatuko, galdetzaile guztien sarreretan. Batzuetan isilpean pasatuaz erabilera anaforikoak, *Noiz, Nor, Nork*-en kasuetan bezala. Beste batzuetan bitxiki, ontzat ere emanez erabilera hauek, nahiz gehienean gogoratuko dien ustezko jatorri arrotza:

NON (AN, B-a-mu-o-tx, Gc, …, L, R), dónde, *où*. AIN, … NON, … (AN-b, G): tan, … que, …: *autant, ... que*. NON DAN NERE GOGOA, AN DA NERE ZANKOA (G, Araq.): donde está mi deseo, allí tengo mi pierna: …
NONDA (B-oñ), á menos que … = Equivale á ZEINDA. … NONDA EGITEN EZPADAU: si no lo hace, á menos que no lo haga: … (F. Seg.)
ZE - 5º (B, G), que, pues: *puisque, car*. ZAGOZ OR PUZKA BATEN, ZE EZTAKIT NOR DAN (B, …): … AIN DAKI EDERTO DANTZAN ZE EDOZEIÑEK ESANGO LEUKE MAISUAGAZ IKASI DABELA (Bc): … = En G sustituyen esta palabreja con NON, … En B algunos se valen de ZEINDA en vez de ZEIN. En G y L echan mano de NOLA, y en S, de ZUIÑA. Todas estas locuciones parecen importadas de alguna otra lengua. [eta segitzen du antzeko adibideak ematen]
ZEINDA (B, …), que, como (de comparación): … EZTA AIN ERRAZ ZEINDA ASKOK USTE DABEN, no es tan fácil como muchos creen, … (Añ. *Esku-lib*. 109-17.) EZTAGO IÑOR AIN ERORIK ZEINDA ESANGO DABEN, no hay nadie tan loco que diga, … (Ur. *Maiatz*. 109-26.) = Es locución, si no extraña á la lengua, por lo menos chocante.

2.5. Azkuek ez du ja jarrera antizeinistarik aldatuko bizitza osoan.

Nahikoa eta gehiago dira, jasotako testigantzak, Azkueren protagonismo antizeinista juzgatzeko. Azkueren 1906ra bitarteko lanetan bada nahiko material, berak bakarrik ere eskola antizeinista oso bat eragiteko ondoretik, zalantzarik gabe eragiten duen bezala. Aurrerantzean ere, 1905-6ko *Hiztegiko* zalantza zeinistak gorabehera, Azkuek setati segituko ditu predikatzen, bere uste anatemizatzaileak zeinismoaren inguruan.

Hala adibidez 1923-25eko *Morfologian*, *De los anafóricos* atalean,[302] edo aurreraxeago egiten duen konparaketa oharrean, euskara eta hizkuntza klasikoen artean (§656, 447 or.). Oso nabarmen ere, *Conjunciones de calco*

---

[301] Bada nolanahi Azkueren zuzenketa hauetan, beste ezaugarri aipagarririk. Azkuek ez baitu batere zuzentzen hauetan, Elissambururen poemaren kasuan bezala, aditzaren (eta honi erantsitako erlazio atzizkiaren) gunea, mendeko esaldiaren erdian, hauek esaldi amaierara eramanez (Azkue berak bestela agindu bezala). Ez Duvoisin-Uriarteren lehen adibidean, eta ez Axularren azkenekoan.

[302] §§548-550, 365-7 orr., non esaten dituen besteren artean segidakoak: «Llámanse así aquellos vocablos que de interrogativos han pasado a la categoría de relativos, sin otro cambio que el de su entonación en el lenguaje hablado y la falta de acento en el escrito. (365 or.) / ... nuestros interrogativos ..., quedan siempre siendo interrogativos, y (esto es realmente curioso en el campo de la Lingüistica) los anafóricos de otras lenguas, ..., tienen en nuestra lengua vocablos especiales como podrá verse en el siguiente Paradigma, ... (366 or.) / [eta segitzen du Azkuek, eman ondoren esamolde sail bat (*Locuciones que suplen a los anafóricos*)] Como se ve, los anafóricos de otras lenguas se expresan entre nosotros por medio de las conjunciones *n* y *la*, solos o combinados con otros elementos: ... (367 or.) / Los panvasquistas del siglo XVIII, vieron vascuence hasta en esta degeneración de los interrogativos románicos, y se empeñaron en dar por locuciones vascas *gizona zeinekin ni etorri naizen* el hombre con el cual yo he venido, *etxe ori non gu egon ginan* o *zeinetan gu egon ginan* esa casa donde (o en la cual) estuvimos nosotros. (367 or.).»

alienígena, kutsu unamunotiarreko izenburuko atalean.[303] Eta oraindik 1928an, Azkuek, *Morfologiako* esan nagusien laburpen bat ere egiten die, Hizkuntz Akademia Espainolaren akademikoei, zeinismoaren inguru (*Disc*, bereziki 7-8, 21-2 orr), eta non artean berri bat ere erasten dien (*ez eze*), *Morfologian* anatemizatzen dituen *conjunciones y locuciones conjuntivas de calco alienígena* dozena luzeari (2-3 orr.). Bere bizitza amaieran argitaratzen den *El vascuence y varias lenguas cultas* lanean ere, errepikatuko ditu Azkuek oraindik antzeko hitzak, zeinismoa, soilik, ukatzen, betiko moduan.[304] Nolanahi, oraindik uste dugu daudela, oro har, aztertzeko, zeinismoa eta antizeinismoaren bilakaera zehatzak, euskal literaturaren historian zehar. Eta oso bereziki, XIX/XX mendeetan gertatutako aldaerak, ipar eta hegoko jokaeretan.

3. Azkueren sistema cardaveraztiarra: Aditza esaldi bukaeran?

Esan dugu jada, Azkueren lau sistemez hitzegingo badugu ere argitasunaren kariaz, laurak nahiko nahasiak ageri direla benetan, kontraesanez beteak, Azkueren lanean. Eskola cardaveraztiarraren ezaugarri nagusia da, honek duen joera bere aditzak amaierara bidaltzeko zeinnahi klasetako esalditan. Azkuegan ordea, hau ez da horrela izango erabat, ez teorian eta ez praktikan, mendeko esaldietan baino. Aldiz esaldi nagusietan, Azkuek nahasiagoak erakutsiko ditu kontuak, sotilagoak, Cardaverazen eskolan zirenak baino. Eta horretarako eraikiko ditu bere beste hiru sistema, edo erregelak. Halaz guztiz, aditz nagusiak atzeratzeko joera beraren aztarnak, ondo nabarmen sumatu ahal izango ditugu, Azkueren teorian bertan, nola prosa idatzian, segidan erakustera goazen bezala.

3.1. Azkueren sistema cardaveraztiarraren erregela propio nagusia, 1891ko Izkindean: mendeko elementuak nagusien aurretik.

> Esapide arauturik [construcción regulada] ez daukala euskaraak' batek baino geiagok esan daue; nik aldaitan ondoen' euskaraak daukan esapidea baino arautuagorik ezin egon leikela erakutsiko daut. (334 or.)

Esapidea / Construcción atal sarrerako baieztapen idealista honek markatzen du atalaren espiritua. Azkuek beti emango ditu erregelak orokortasunaren izenean. Eta printzipio cardaveraztiarra, garatuko du Azkuek, bere ikuspegi propio nagusian, atalaren lehenengo erregela *absolutoan* (334 or.):

> I. CONSTRUCCIÓN DE LAS PALABRAS SEPARADAS POR RÉGIMEN / 759. REGLA ÚNICA. LOS COMPLEMENTOS REGIDOS DEBEN PONERSE DELANTE DE LOS REGENTES.

Erregela, uste dugu, originala dela, 1891n, euskal gramatikaren historia txikian.[305]

3.1.1. Mendetasunez alkarturiko itz banatuak.

Azkuek bi subataletan banatuko du, arau bakar honen eremua: *I. Complementos regidos del nombre*; *II. Complementos regidos del verbo*. Lehenengoan azalduko ditu (335-6 orr), izenaren hainbat konplementuren

---

[303] §725, 490-3 orr., non irakur daitezkeen berriro segidakoak behintzat: « ... los panvasquistas del siglo XVIII tuvieron como frutos de nuestra cepa locuciones extrañas, tales por ejemplo *gizona* zeiña *nik ikusi dedan* en vez de *nik ikusi dedan gizona* el hombre a quien yo he visto. Semejantes a esta locución tomada del castellano son las siguientes: ...» (490 or). Eta enumeratzen ditu Azkuek hurrena segidako guztiok behintzat, bakoitzaren adibideekin (490-3 orr.): *ezpada, zeinere, baina, zerren, ezen, ze, eze, ezik, ezi, ze, nor, bada, zegaiti ze, zergaitik eze, nola, zelan, zelan, zein, zeinda, non, nun, non da, zeinda*. Eta esaten du adibidez (492 or.): «El abuso de *ze, eze, ezen* y *zein*, como traducción directa del anafórico castellano «que» conjunción comparativa, se explica fácilmente por lo mismo de ser versión literal. No se concibe con igual facilidad el empleo de *non* o *nun* significando lo mismo; y sin embargo, se lee mucho entre nuestros más célebrados autores, especialmente Axular. ... Este incorrecto *non* o *nun*, más que traducción del moderno anafórico "que" del castellano, lo es del arcaico "donde".» Azkuek hala ere, ohar jakingarri batekin bukatzen du atala, ezinbestekotasunaren justifikazioa aurkituz, lokuzio hauetako, behintzat zenbaiten, erabilerari (493 or.): «Estas defectuosas locuciones, como también el echar mano de los anafóricos (por ejemplo, con *quien* yo estoy, *donde* tú vas ... etc.), se advierten por lo general en traducciones, siendo de advertir que no es tarea fácil llevar éstas a cabo sin valerse de calcos alienígenas.»

[304] 1949, 27 or.: «A dichos interrogativos corresponden nuestros *nor, zein, zer, non, noiz, nola* o *zelan, nolakoa* o *zelangoa* y *zenbat*. Pero, ¡cosa rara y admirable! Estos interrogativos nuestros no degeneran, sino que los anafóricos de otras lenguas los expresamos con especiales locuaciones.» Eta bertan aipatzen ez baditu ere anaforiko gaitzesgarriok, Azkuek arin bidaltzen du irakurlea, *Morfologiako* adibideetara. Ez omen da itsu okerragorik …

[305] Eta ez dakigu zuzen, Azkuek nondik ekartzen duen *Izkindera*. Bertan eskainitako argitasun izpi bakarra nolanahi, astarloarra izango da, segidan adierazten duelarik, honen hiru noblezia (*garransia*, esaten du Azkuek) mailak gain-aipatu ondoren (335 or.): «Los complementos regidos, tanto por origen como por ministerio como por movilidad tienen más importancia que los regentes. Si no temiera alargarme demasiado, en más palabras expondría la importancia de los complementos regidos, y la exactitud de la regla. Si alguna vez tuviera buena ocasión contento tomaría este trabajo.» Ez zuen abagunerik topatu.

ordenamendu modu ohizkoenak izenaren aurretik: edutezko genitiboak, -*ko* izenlagunak, erlatibozko esaldiak, are hainbat hitz konposaturen ordena ere. Bigarrengo sailean berriz, 3.2. atalean ikusiko dugun bezala, Azkuek bilduko ditu, aditzaren konplementu guztiak.

3.1.1.1. Erregituak joaten ez direnean erregenteen aurretik.

Azkuek baditu ordea arazoak. Bada, oro har egia izan baliteke ere, erregituak erregenteen aurretik doazela, edutezko genitiboen kasuan, eta -*ko* izenlagunean, erlatibozko esaldienean, hainbat hitz konposatuetan, edota banan bana hartuak aditz konplementuen kasuan ere agian beren aditzarekiko, hauek bezain nabarmenak dira gutxienez, alderantzizko ordenamendu zenbait euskaraz, Azkuek berak jasotzen dituenak *Izkindean* (338-341 orr.). Lehenik eta behin, adjetiboa, beti izenaren ondoretik emana, euskaraz ere. Eraberean beste hainbat mugatzaile; nola oro har, erakusleak, *bat* zenbatzailea, edo artikuloa. Oso nabarmen ere, aditz laguntzailea, euskaraz nagusiaren ondoretik kokatua baiezko esaldi arruntenean. Edota ere, *aditz modifikatzaileak*, oro har aditz nagusiaren ondoretik emanak (*operadore modalak* nolabait; eta Azkuek agerian aipatzen dituenak: *gura, izan, ohi, eragin, nahi, behar, ahal*).

Azkue ere konturatzen da, hasierako erregela bakarrak ez duenez balio, kasu guzti hauetan. Eta arazoa saihestuko du, malabarismo piska batez, sail berezi bat asmatuz *ad hoc* aipatu guztientzako, deituko duena: *Egokitasunez [por concordancia] alkarturiko hitz banatuak*; eta zeinentzako proposatuko duen, lotsa handirik gabe, alderantzizko legea (338 or.): «*II. CONSTRUCCIÓN DE PALABRAS SEPARADAS RELACIONADAS POR CONCORDANCIA / ... / REGLA ÚNICA. LOS COMPLEMENTOS ADECUADOS (de concordancia) DEBEN COLOCARSE DETRÁS DE LAS PALABRAS RELACIONADAS.*» Gu oraindik gaude jakiteko, ze konkordantzia klase gorde lezaketen beren artean halako erlazioek. Baian Azkuek, horrela lortuko du baztertzea, bere erregelaren arazo nagusietako bat izan zitekeena.

3.2. Aditzaren konplementu guztiak aditzaren aurretik. Ergo: Aditza konplementu guztien ondoretik?

Nolanahi, ez dirudi Azkuek bere arau nagusia asmatzen duenik, aipatu izenaren konplementu -batzu- horientzako (genitiboak, …); baizik eta, ausardia galantenarekin, Cardaverazen eskolaren espiriturik zorrotzenean, bereziki aditzaren konplementuentzako. Eta hala saiatuko da erakusten, *II. Aditzan osaki mendetuak / Complementos regidos del verbo* atalean (336-8 orr.). Bertan ez du inoiz esango, aditz nagusiak esaldi bukaeran joan behar duenik. Baina konplementu guztiak erakutsiko ditu, banan bana, beti aditzaren aurretik emanak, zeinnahi klasetakoak (337 or.): *Complementos animados (*Aitari *ikusi dautsat); Locales (*Ondartzan *dabil); Reales (*Lurrez *estalduta); Modales (*Pozarren *dago); De tiempo (¿*Noizarte *egongo ai?); Especiales (Neure* zain *dago); Destinativos (*Aitaganako *dauka)*. Eta guztien adibide nahikoa ugari eman ondoren (guk bakarra jaso dugu kasu bakoitzean), amaitzen du Azkuek atala, erregela orokorrarekin (337 or.):

> Todos estos complementos, como dice la regla, se anteponen al regente.

Azkueren adibide guztiak dira, aditza eta konplementu bakarrekoak, eta finean, predikatutako egiturak, ohizko «Xà» modukoak, aditza emanez egituraren bigarren lekuan. Zer gertatzen da, esaldian konplementu bakar bat baino gehiago denean? Azkuek ez du inoiz erantzuten zuzenean. Atea ordea ondo zabalik utziko die beti interpretazio cardaveraztiar estuenei, euskal aditzaren balizko guneaz esaldi amaieran. 3.4. atalean ikusiko dugun bezala, gune hau hala teorizatuko du agerian mendeko esaldien kasuan. Nagusietan berriz, inoiz garbiegi teorizatuko ez badu ere, Azkue beti saiatuko da, bere praktika propioan bederen, ez gehiegi apartatzen, legearen interpretazio cardaveraztiar estuen horretatik, segidan ikustera goazen bezala.

3.2.1. Beste zeinnahi konplementu bezala, mendeko esaldi jokatugabeak ere, aditz nagusiaren aurretik. (Derrigorrez?)

Aditzan osaki mendetuak / Complementos regidos del verbo atalaren sarreran, bereizten ditu Azkuek hauek, bi sailetan (336-7 orr.): «*765. Según está ya expuesto, dos clases de palabras se subordinan al verbo: nombres y verbos infinitivos. Tanto los unos como los otros pueden ser complementos de muchas especies.*» Ikusi dugu, zein adibide eta zein erregela ematen zituen, aditzaren izen konplementuen inguruan. Beste hainbeste egingo du segidan, *aditz infinitiboak* [*aditz mugeak*] erakusten, aditz nagusien konplementu legez. Eta horrela sailkatuko ditu konplementu hauek (337-8 orr.): *Verbos infinitivos como complementos del verbo: Modales (*Ilten *dago); De tiempo (*Ikusiarte *ibiliko dai); Condicionales (*Ikusiez gero *erosiko neuskeo); Condicionado (*Ekartekoan *eroan eik); Causal (*Aberastutearren *kaleratuko eiai); Adversativo (¿Nik* esanarren *egingo dau?)*.

Azkuek nahikoa adibide gehiago ematen du. Eta nahiz ez duen berriro agerian errepikatzen erregela («*Todos estos complementos, como dice la regla, se anteponen al regente.*»), testuinguruan bai suposatzen da, erregela aplikatzen zaiela, izen konplementuei bezala, aditz konplementu klase guzti hauei ere, adibideetan erakutsi moduan. Azkueren adibideek ordea, ez dute erakusten mendeko esaldi (aditz) bakar bat baino beti, konplementu bezala, aditz nagusiaren aurretik. Zer gertatuko litzateke esaldian, halako konplementu bakar bat baino gehiago baldin

balitz? Mendeko esaldia luzeagoa balitz? Azkuek berriro uxatzen du erantzun zuzena, nahiz aurreko puntuan bezala, ulertzera utzi, testuinguruan, denak eman beharko ote liratekeen aditz nagusiaren aurretik.

3.2.2. Mendeko esaldi jokatuak ere (derrigorrez?), aditz nagusiaren aurretik.

Puntu honen inguruan ere, Azkue ez da inoiz garbiegia, nahiz behin baino gehiagotan uzten duen hala entenditzera. Hala, esaldi koordinatuen ordenari eskaintzen dien atalaren sarreran, aipatuko du, mendeko esaldi guztientzako erregela, aurretik jada oso garbi erakutsita balu bezala (nahiz egin ez duen). Eta esaten du orduan nahiko argi (345-6 orr.):

> De antes sabemos cómo deben colocarse las oraciones que se relacionan por medio de aglutinantes: poniendo por delante los complementos regidos.

Ez dago ordea bertan adibiderik, ez beste azalpenik. Baina Azkuek, lehenago ere eman ditu antzekoak entenditzera zenbait aldiz *Izkindean* zehar, nahiz jaso ez arau bezala. Hala adibidez, zehar galderak osatzeko sistemari buruz egiten duen iruzkinean, mendeko esaldi guztiak emanez (ezezko bat salbu: *Ez dakit zelan naroen*), bere aditz nagusiaren aurretik (216 or.):

> …; eurokaz [galdetzaileekaz] baturiko aditz irabiarikoari [jokatuari] ezarten dakio *n*' bezte aditzen batez alkartuteko. … / ¿Nor dago? Nor dagon iakin nai daut. - ¿Zeri begira dagoz? Zeri begira dagozan itandu dau. - ¿Nora zoaz? Nora zoazan dino. - ¿Zelan naroe? Ezdakit zelan naroen. - ¿Noiztik egon dai? Noiztik egon dain baneki. - ¿Zelango intxaurrak artu dauez? Zelango intxaurrak artu dauezan dino. - ¿Zein gizon doa? Zein gizon doan badakit. - ¿Zeinbait balio dau? Zeinbait balio dauan etedakit.

Edota handik bertara, -*la* atzizki bidezko esaldi konpletiboei buruz dioenean (218 or.): «*Ezdaukela dinoe, Ezdaugula ekarri esan dakio ... / En estos ejemplos y en todos los semejantes á ellos el verbo relacionado suele ser objeto de los otros.*» Ergo, pentsatu beharko genuke gainera, Azkuek aurrerago erakutsiko duen bezala (344-5 orr.; ikusiko dugu), esaldi guzti hauek eman behar ote diren aditz nagusiaren aurre justuan, prezeski honen *objetuak* direlako. Ez dugu ordea legea horren argi aurkituko inon 1891ko *Izkindean*, berau gehienean presuposatu behar den arren nolabait.

3.2.2.1. Legea argixeago, 1896ko Metodo Practicoan.

Orduan Azkuek jada agerian proposatzen du, mendeko esaldia aditzaren aurretik ematea euskaraz, bederen *kalko alienigenako*, *ze* anaforikoak, uxatzeko modu bezala (119-20 orr.; gorago ere jaso dugun Capanagaren adibide baten inguru):

> II. Varios son los barbarismos que muy de ordinario se cometen en la expresión de algunas de estas *que*. - … 2.º Al haber de hacer uso del relativo *la*, anteponen muchos la partícula *ze*. *Esan neutsan* ZE *gaurr etorriko zala*, … / Para evitar estos barbarismos … póngase siempre antes la oración complementaria. *Etorriko za*LA *esan neutsan*; …

3.2.2.2. Legearen araberako zuzenketak 1925eko Morfologian ere.

Letra ez bada ere, Azkueren espiritua beti izango da nahiko argia puntu honen inguruan. Hala nola, 1925eko *Morfologiako, Conjunciones de calco alienígena* sailean, egiten dituen segidako bi zuzenketetan, nahiz batere aipatu ez agerian, aditz nagusien atzeratzea (491 or.):

> 5.ª **Zeren** *iduritzen zait* **ezen** *oraino bizi zarela* … (Axul. 3.ª XIII-20). Doble extranjerismo: *zeren* … y *ezen* que. La locución neta es: *Oraino bizi zarela iduritzen baitzait*. / … / 7.ª *Zagoz or puska baten* **ze** *eztakit nor dan* … (Bc). Esta *ze* tienen un matiz diferente de la anterior: aquí es conjunción causal. *Nor dan eztakit-eta* es la pura locución vasca.

3.3. Aditzak nabarmen atzeratzen esaldi nagusian.

Espiritu cardaveraztiar honen eraginez, Azkuek bere bizitza guztian erakutsiko du joera nabarmena, aditz nagusiak atzeratzeko esaldian, bederen ordurarteko tradizio altxor nagusian ohizkoa izan den baino gradu batzuk gehiago. Joera, ohargarriagoa gertatzen da beharbada, konplementu bezala esaldi konpletibo luzeak dituzten entendimentuzko aditz askoren kasuan. Baina Azkueren prosan ez dira inoiz faltako nolanahiko esaldiak ere, ondo luzeak, artifizialki daramatenak atzeratuta beren aditz nagusia konplementu guztien ondoretik. Segidan jasotzen ditugu, erakusgarri, kera horretako esaldi adibide gutxi batzuk, aditzaz amaituak, Azkueren garai guztietakoak:

(1) Nekeak ta zarzaroak su-ondoan baztertuta daukazan atsoak' zer ian eta nori itz egin euki nairik' mila gaitz ta eri edozein iakitunentzat zailak eta gogaitgarriak aztertu, azaldu ta osatuteko ustean igituten daiz. (*Abeja*,1889-90,61)
(2) Saguak katuagaz batera erretilu bat miaskateko ekandua euki izan baleue' pozik oe-azpiko Eperrak bere oe-aurreko zoriontsuari ian-edanean lagunduko eutsan. (*Abeja*,1889-90,95)
(3) Españako anditasunik geien geienak' zein itxasoz ta leorrez irabaziriko garaitzaak' zein bere sinizmenak (bere kondairako atal zoritsuena) euskal-erriko semeen odolan odolaz oretu ta gozatuta dagoz; … (*Izk.*,1891,V)
(4) …, augaitik nire agerkeraa askok bere modukotzat eukiko dauela uste daut. (*Izk.*,1891,VII)
(5) Baina (ziurtasun onek geroko nire naigabeak gozatuko daustaz) aingeruak sorturiko itz barriak erakutsiko baneuz bere' barritasunaz irakurle geienen belarriak ase bage gelldituko litzakez. (*Izk.*,1891,VII)
(6) …: bezte izkiralari bat edo batgandik arturikoak' euren eratzailean izenaz, nik sortu bear izan dautazanak' euren iatorri ta asterrenaz, eta euskal-errian ia galduta dagozan itzak' non oituten daizan agertuaz' erakutsiko daiz. (*Izk.*,1891,VII)
(7) Zergaitik onelan bere ikasmena ataldu bear dain' liburu-barruan azalduko dai: … (*Izk.*,1891,VIII)
(8) Ganera ebagia ta zorrotzegia nire erakuskeraari eriztea iazo leike. (*Izk.*,1891,IX)
(9) Kontulariak, edo zeatzago esatearren, kontalariak, ibiltaldiko lagunen zamaak eroan ezarren, beren ipuin albista asmo ta barregarritasunakaz asko arindu edo euren astuntasuna errime aaztu eragiten dautse. (*BB*,1893,43)
(10) Lenengo aldiz txakolintegi atara ioanak, Txanton da Maripa alkarren ondoan ikusiezkero, txakur bildurti bat katu erpe-zorrotzagaz ezkondurik egoala esango eban; … (*BB*,1893,43)
(11) Torreko txiliñak sua nonbait egoala iragarri euskuneko, gure Maripa umea neure besoetan itxi ta txioa baiño ariñago kale-barrenera ioan zan. (*BB*,1893,57)
(12) Txiliri erraiak ardaoz berotuezkero, beren alabea emaztetzat eskatu ta baietz entzutea, atzerapen bagako gauzea izan bear ebela uste izan eban: … (*BB*,1893,84)
(13) Uriko atzenengo etxea lepo-aldean itxi ebenean, Txilik (besteari zerbait erasotearren nire ustez) izerditan egoala ta gelditxuago ibilli ta bere, elduko zireala esan eutsan. (*BB*,1893,90)
(14) Orduan batzartuak Espaiñiako Erregek ezer aitatu baino askozaz aurreragotik ekandu au eukela agertu eben. / Egun atantxe Dxaun-ordia ta Ekautuak (*Diputauak*) Antiguako Eliza onetaraxe etorri ta ziñ egiñaz Maridxan Sorrera garbidxa Dxaun-erridxan ordez gordetia eskiñi eben. / Bilboko Done Iñigon Elizan batzarrekuak barriraztuten zirian bakoitzian ezkintza bardiña ziñ egiñaz egiñ eroien. / 1699garren Urrillan 21 onek Batzarrian Dxuane Urandurragatar abadiari Begoñako Andra Maridxan miraridxak liburu baten argitaratutiarren eun zidarrezko diru emotia erabagi zan. / Beste euron antzeko erabagi ta lege eder batzuk aittatu barik itxiko dodaz. (*Ger.*,1895,35-6)
(15) Geroxeago, 1890-garren urtean, nire sorturian aurrerago ikasitako beste irakurgai bat, lengoa baino biziki pollitagoa, ointzat artuz, ene ikasleentzat bizkaierazko itzulgai bat idatzi nuen. (*Eus. Yak.*,1934,9)
(16) Iztegi lanak asita, Bilboko Txiroen Arrebatxiak izena duen Landerretxean, atso ta agure batzukin izan nituen bigira ugari ta pozgarrietan, itz ta esakeraz gainera, esakune ta ipuinak poliki ikasi nituen. (*Eus. Yak.*,1934,10)
(17) Urrengo bi udatan orrelakoxe yakingai asko, Donostiako bi landerretxetan (*Beneficencia* ta *Hermanitas*-en) bilduak, nire paper zar-artean bizi dira. (*Eus. Yak.*,1934,10)

Ez genuke esan nahi, esaldi guzti hauek ez direnik euskarazkoak. Edo posible eta are jatorrak, banan bana hartuak. Bai hala ere, aditz atzerapen nabarmen guzti horiek nahikoa ezohizkoak eta artifizialak gertatzen direla euskarazko tradizio nagusiaren aldean; eta areago, eskola cardaveraztiarrak, edota Azkuek, erabiltzen dituzten proportzioan.

3.3.1. Azkueren etenak galdegaia eta aditzaren artean, Cardaverazen eskolan.

Hala ere, goiko aditz atzeratze guztiok baino bitxiagoak gertatzen dira gure begietara, Azkuek garai guztietan ematen dituen esaldiak, eten nabarmenak erakusten dituztenak, artifizialki aurreratutako *galdegai / gai bilatu / elementu inkiridoak*, eta artifizialki esaldi amaiera aldera atzeratutako aditzen artean, beste zenbait konplementu kokatuaz tartean, batere errespetatu gabe, euskarazko «Xà», aditza bigarren, fenomenoaren joerak, edota gaur egun horren modan dugun Altuberen ordenamendu erregela nagusia. Halako egitura bitxi, baina ugarietan, nabarmenduko da, inon baino ageriago, eskola cardaveraztiarraren eragin ukaezina Azkuegan. Eta hauek oro har nabarmenagoak gertatuko dira Azkueren testu kultoagoetan, egitura luzeagoak ematen dituenetan, esaldi laburren artean baino. Hala nola adibidez segidako esaldi aukeratu hauen antzekoetan (nahiz kontutan eduki behar den, oro har askoz ere nabarmenagoak gertatzen direla beti etenak, esaldiak beren testuinguruetan ezagututa, horrela isolatuak baino):

(18) Pipako keak gedarrez erraiak atsituko leuskezan. (*Abeja*,1889-90,59)
(19) «Ago isillik» besotik oratuta esan eutsan Arakil-ek, … (*Abeja*,1889-90,60)
(20) «Mari Manu, Iaungoikoak egun on bat emon daizula» arrastaka dakarren arran arrakalatu baten otsen gizan Errekarteko orma zarretan enzun itzan [zen]. (*Abeja*,1889-90,61)
(21) (¿Zer cimiztatarako daiz chaplata madarikatuok? Eri guztiak odoletik datorz) ta odolak gorputzeko san guztietara bidea erakusten dautse. (*Abeja*,1889-90,93)
(22) Saguak katuagaz batera erretilu bat miskateko ekandua euki izan baleue' pozik oe-azpiko Eperrak bere oe-aurreko zoriontsuari ian-edanean lagunduko eutsan; … (*Abeja*,1889-90,95)

(23) Zeuri, bada, nire lan au eskinten dautsut, … (*Izk*.,1891,VI)
(24) Nire erakusbidea bere modukoa ta mietsa daila askok esango daue. (*Izk*.,1891,VIII)
(25) Gauza baten ganean oitura ostetu bi dakustazanean' biak al daitan zietzen astertuta gero' eta araugea itxita' araudun oituraa euskarazkotzat beti erakutsiko daut. (*Izk*.,1891,VIII)
(26) Bezte izkeretan' ezune bageko araurik ezdagola esakunetzat artuta dago; … (*Izk*.,1891,VIII)
(27) Euskaratik erderara (au euskaratu bage) alik zuzenen esaldiak biurtu nai izan dautaz; … (*Izk*.,1891,IX)
(28) Atzenez' abadea nain aldetik eta euskalduna edo sinizmenduna nailako' Iaunari biotz biotzetik eskerrak emonaz' neure lan au opa dautsat. (*Izk*.,1891,IX)
(29) Izkera guztietan' esakizunen aurretik geien gei[e]nean ipinten daiz. / En todas las lenguas casi siempre se ponen delante de las proposiciones. (*Izk*.,1891,83)
(30) Bizkaiko diarteak *Non* toki batzuetan esaten dau. / El vulgo de Bizkaia suele decir *Non* por *Noren* en algunos lugares. (*Izk*.,1891,290)
(31) Esapide arauturik ezdaukala euskaraak' batek baino geiagok esan daue; … (*Izk*.,1891,334)
(32) Nik lenengo esaniko itzak' edo bezte bostetatik bat zein batek garransi geien itzginantzat euki daike, (edo bere alegina edozein gaitan euki al izango dau, edo obeto esateko' *itz bilatua* sei itzetatik edozein izan leike: …) (*Izk*.,1891,342)
(33) Gitxitan aditzan alde egoten dai itzginan alegina, (esakizun luzeetan gitxiagotan.) (*Izk*.,1891,342)
(34) (Ona zelan esango neuken' *norgaz ikusi dautan* norbaitek itanduko baleust: /) *Ausoko Antonen alabatxoagaz gonak azpilduten ikusi daut nik Andresen etxeko mutilan ama*. (*Izk*.,1891,344)
(35) Arren labur onen urren sei *Aita gurea* eta *Agur Maria* gitxienez esan eroazan Txantonek, … (*BB*,1893,45)
(36) Neuk bere orretarakoxe etxean euki nai aut. (*BB*,1893,48)
(37) Pilipe ta osagilleak, eskaratzean sartu ta gero, igarorikoa iakin ebenean, osagilleak sastada bat beren puntzetaz egin eutsan Mari Andresi; … (*BB*,1893,77)
(38) Mandazaiñak, beren uts-egiña ezautu ebanean, Ama batek seiñari langoxe ereguak eta palaguak mandoai egin eutsezan. (*BB*,1893,85)
(39) Mandazain mokor-astunak eurai obeto iarraitutearren, kortan sartu ta iru mandoetatik bizkorrena azpiko laguntzat artu eban: … (*BB*,1893,91)
(40) Euskaldunak, gaurkuak bere, nai adiskide nai senideren bat ilten dxakenian beren gorpu-inguruan gaba igaroten dabe: … (*Ger*.,1895,19)
(41) Ikusi dodanian' gogamen onetxek bidxotza ausidxaz bururatu dxataz: … (*Ger*.,1895,22-3)
(42) …, da bide batez zeiñ asko galdu eban euren asaben zuzentasunak Lagundi au emendik kenduaz adierazo eutsen. (*Ger*.,1895,35)
(43) Gau atan biltokikoai, agertokiko ikuskizunak baino obeto gogoa bete eutsan burutasun onek. (*EZ*,1897,10)
(44) - ¿Zer dakak, txotxo? abadeak esan eutsan. (*EZ*,1897,11)
(45) …; eta egia esateko siñiskorregiak goi-arintzat euki bear badira, lumazko burua eukala edozeiñek esan zeikean. (*BG*,1897,117)
(46) Erregek 1708ko otsaillean lege bat onen gañerako eman zuen … (*Vill*.,1904,457)
(47) …; bada argia itzalez bezela, gizona atsekabez inguraturik arrezkero beti bizida. (*Vill*.,1904,458)
(48) Eta aldiz, berak baino beranduago ninikaturiko gereziak, azokaz azoka saskitxoetan darabilzkite salgai; … (*Biz. Goi*.,1916,304)
(49) …; ta neronek ere, bizikera legun, artetsu ta atseginago bat nairik, ostatu-iskitxo bat, neronen izenekoa, Hotel Olazarreta, San Franciscon sortu nuen. (*AG*,1918,26)
(50) Besartean ikusi dezadaneko, Colegio eder batean, San Franciscon, sartuko det; … (*AG*,1918,27)
(51) Zu emen zeundenean bezela, orain ere meza nagusi-ondorean, elizaurrean naiz elizatarian (eguraldia nolakoa dan) gizonak eguerdirarte, pipakada bana ketu ta asteko berriak jakiteko asmoz, igandero biltzen dira. (*AG*,1918,30)
(52) Leaburuarron etxeak zar dirala belarriratu zuenean, Martin Loontxo Etxeberrikok auxe sudur-mintzoz erantzun zidan: … (*AG*,1918,32)
(53) Alako batean etzuela lorik egin al izan buruak eman zion, … (*AG*,1918,59)
(54) Nere *buenas noches* erderazkoari *good evening* berak erantzun zion. (*AG*,1918,66)
(55) Begien biguñtasunari esker, bereala neronen kaburatuta, neraman asmoa zein zan itz gutxitan erakutsi nion: … (*AG*,1918,66)
(56) An Medelek andreari jaxten lagunduta gero, zeinu-otsez erritarren ongietorri ta txerazko itzak entzun ezin arren, poz aundiz eskua guztiai eman zien; … (*AG*,1918,72)
(57) Gure izkera onek laureun-bosteun bat urtetan egindako aldakuntzak *Refranes y sentencias* deritxon gutun ederrean ondoen ikasi daikez. (*Alt*.,1921,55)
(58) Da ori, laguntzaile-bezelan bagarik, izakitzat darabilgunean (*etorri da*-ren ordez *nor da* dinogunean) beste zortzi eratara erriak erabili oi dau. (*Alt*.,1921,57)
(59) (… eskeintza auxe egin nion:) Andrea, astiuneren batez nere indarrez ginoan (heinean) euskaldunai *zure senarra nor izan degun* liburuxkoren batean erakutsiko diet. (*Lac*.,1921,57)
(60) Constantino andiak, bateatu ta zortzi egunen buruan, yauregitik irten ta uri-ondoko mendi-egal batean, buruntzia (koroia) erauntzita, aitzurr ta arraitzurrez lurra ateratuz amabi zarekada, amabi apostoluen izenean, bere sorbaldetan eraman zituen, (Vaticano-ko Eliza zârra eregiten asi ziranean.) (*Lac*.,1921,58)
(61) Gizona dan gizonak bazkalmaiean baino lan-maiean gozaroago bere burua arkitu bear du. (*Lac*.,1921,59)
(62) …; beren apurkinak (molekulak) ziri-miri beti igitzen dira. (*Lac*.,1921,59)
(63) (… urin yale zirena ere badakigu) ta nonbait gizonen bat senartzat artu nai izan zutela ere nere belarrietara eldu da. (*Lam*.,1926,98)

(64) Izaki andiak zenbat andiago diren anbat izen laburrago bear dutela nonbait irakurri dut. (*Bat. Bi*.,1927,117)
(65) (Markinan *anaa bat* da «un hermano» ta Gernikan «ay de mí» *ai ena*.) Larraunen ere *ai ena* emakumeak esaten omendute. (*Bat. Bi*.,1927,118)
(66) (…, ango seme batek Eiza Audala zeritzaion mauru bat saldu zuen.) *Euskal-Esnalearen*, XVIII-384 garren orrialdean gertaera au irakur daiteke. (*EEoit*,1930,93)
(67) Onetariko oitura ta sinestetxoak alkarrengandik urruti diren errietan aldakuntze andiak geienetan izaten dituzte. (*EEoit*,1930,97)
(68) Gure Schuchardt argitsuak Gernikako Batzar andira 1922-garren urtean, angoxe Zugatzari zuzenduta, olerki aleman eder bat igorri zigun eta izentzat auxe berau *Bein da betiko*, maitetasunez, ezarri zion. (*Eus. Yak.*,I,1934,9)
(69) Mutil nintzala bildutako beste erriyakingaitxo batzuk *Euskalzale* asterokoan 1897, 98 ta 99 garren urteetan argitaratuak izan ziran. (*Eus. Yak.*,I,1934,10)
(70) Orain amar bat urte ta geixeago, 1923-garren urteko lotazilean *Carol Society* deritzan baltzua, eguberri-kantak zabaltzekoa, bere yaioterrian sortu zuen berak. (*Eus. Yak.*,I,1934,20)
(71) Ipuin ta irakurgaiak entzuten nituenean, kantu zarrak ikastean bezelaxe, lankidearen izena beti artzen nuen. (*Eus. Yak.*,I,1934,27)
(72) Ipuinak zertarikoak diran erakustea orainarte eztala erabakia izan irakurriarren, gaiztasun ori beste errietakoai utziz, geron ipuin-irakurgaiak mordoskatzea buruak eman zidan. (*Eus. Yak.*,II,1942,8)

Cardaverazengatik esaten genuen bezala, zinez pentsatu beharko genuke Azkueren esaldi hauetako askoren kasuan, ez ote diren aurrena idatziak edo pentsatuak izan, tradiziozko joskera modu batean (*Askok esango daue …*; *Beti erakutsiko daut …*; *Batek baino geiagok esan daue …*; *Edozeiñek esan zeikean …*; *Arrezkero beti bizida …*; *Igandero biltzen dira …*, *Itz gutxitan erakutsi nion …*), galdegaia aditzaren ondoretik luketela; eta gero bakarrik, bigarren pauso batean pasatu direla, artifizialki, esaldiaren aurrealdera, etenak eraginez, aditza erabat atzeratu nahian esaldian.[306]

3.3.1.1. Etenak koma bidez galdegaia / aditzaren artean.

Aurreko atal honetan ikusitakoak bezain nabarmenak izango ez baldin badira ere, eta nolabait anekdotikoak, Azkuek tarteka erakusten ditu etenak, koma baten bidez, galdegaia eta ondorengo aditzaren arteko segidak, nolabait adieraziaz Azkuek kasuan bi elementu horien arterako sentitzen duen loturaren eskasa (edo are eza). Guk ezarian bildu ditugun segidako esaldion antzekoak (nahiz denak ez izan modu berekoak):

(73) …: beroa ta otza, eguzkia ta euria, udea ta negua lurrerako direanak, zirean etxe baterako senar-emazte arek. (*BB*,1893,43)
(74) …, beste guztiok, txapelak edo txanoak edo suestak eskuetan daukaguzala, erantzuten dogu; … (*BB*,1893,59)
(75) Zure emaztearen ilberria Lasarten, Leonen meza berri-egunean, artu zuen. (1918, *AG*,90)
(76) Californian izan duen bizikera pozik, lerdea dariola, jakineraziko digu. (*AG*,1918,110)
(77) Bazkaltegian, apalorduan, betiko bi apaizez gainera, beste bi: Amezketakoa ta Belauntzakoa, bildu ziran. (*AG*,1918,119)
(78) Nik, beronek nai zukeana artzeko eskubide osoa zuela, erantzun nion; … (*Lac*.,1921,58)
(79) Lan onetan ari naizen onen eta Campion eta beste euskalariren baten postal batzuk, len aipaturiko euskalzale ingelesak utziak, ikusi nituen nik an. (*Eus. Yak.*,1934,8)

3.3.1.2. Azkueren galdera hautsi eskasak.

Atal honetako etenekin lotuta aipatu behar, Azkuek inoiz bada ere erakusten dituen galdera hautsi eskasak (Cardaverazen eskolan ohizkoa den moduan). Baina izan ere, Azkuek ematen du jada 1891eko *Izkindean* erregela, ikusiko dugu, beti elkarren segidan estu lotuta emateko galdegileak eta aditzak. Berak, oro har, beti errespetatuko du segida hori. Eta guk ez ditugu aurkitu bere lanetan, segidako salbuespen gutxi hauek baino, nahiz egia esan, ez garen apropos ibili hauen bila:

(80) ¿Nongo mutilek orren barregarri ipini au? (*Izk*.,1891,318)

---

[306] Ikusiko dugu aurrerago, nola Azkuek teorizatu ere egingo dituen nolabait eten hauek, 1891ko *Izkindean*. Altubek bestalde, ezagutzen du ere, Azkueren joskera modu hau. Hala, *Erderismos* liburuan, gazteleratik euskarara itzultzeko segitu beharreko pausoen argigarri, aukeratzen du Altubek bitxiki, Azkueren *Izkindeako* esaldi bat, zeinetan prezeski eten ageria gertatzen den, galdegaia eta aditzaren artean. Altubek, egia esan, ez du arazoa duinegi konpontzen, *distrakzioz, dudarik gabe* (*Erd*., 1929, 184 or.) : «Regla 5.º Se cambia el orden de los miembros de oración numerados, si como ocurre casi siempre, hay necesidad de ello para que en la traducción euskérica, el inquirido preceda al verbo principal y para que los más extensos y complejos precedan en lo posible a los breves y sencillos. / He aquí la versión euskérica de la oración castellana que nos ocupa, realizada por el Sr. Azkue: / (1) Augaitik (4) Liburu onetako irakasmen barriak egi-bageak dirala jakinarte ezdaiezela urruindu (3) irakurle guztiai (2) eskatuko dautset. / (Indudablemente, en esta oración el sintagma 4 es el inquirido; sin embargo entre él y el verbo, sin duda por distracción, colocó el Sr. Azkue, el sintagma 3, que estaría mejor en el último lugar).»

(81) ¿Zezaz gantzutua izan zan? (*Dotr. ag*.,1896,173)
(82) ¿Zelan arren egin bear da? (*Dotr. ag*.,1896,176)
(83) ¿Nortzuk oben egiten daue, onelango gurari barik birao egieran? (*Dotr. ag*.,1896,181)
(84) ¿Zelan baru egin bear da? (*Dotr. ag*.,1896,183)
(85) ¿Zeintzuk egunetan baru egin bear da? (*Dotr. ag*.,1896,184)
(86) ¿Zegaitik, beraz, isten deutsazue ugarrari luma garbi, zorrotz, gitxi erabili orrek zabartu, astundu ta alpertuten? (*Jes. Biotz*.,1901,6)

3.3.2. Aginterazko aditzak atzeratzen ere zenbaitetan.

Azkuek ere, oro har, esaldi hasieran edo aurrealdean emango dituen arren aginterazko aditzak, gure tradizio nagusian bezalaxe, eta are hala zilegiztatuko duen arren teorikoki agerian, behin baino gehiagotan, aurkituko ditugu tarteka Azkuegan ere, aginterazko zenbait esaldi, aditza nahikoa nabarmen eta artifizialki atzeratuta erakusten dutenak, Cardaverazen eskolaren ildo estuenean. Adibideak, gehiegi ez badira ere, segidakoen antzekoak, nahikoa ezarian bilduak:

(87) …, gaur nortzuk zaizan ikusi eizu, … / …, ved quiénes sois hoy, … (*Izk*.,1891,VI)
(88) …, Bizkaitar zintsuak maite izan ala maite dauela esan eiozu ama laztanari, … / … decid á la madre adorada que los fieles Bizkainos … (*Izk*.,1891,VI)
(89) Itz baten esan daigun. / Digámoslo en una palabra. (*Izk*.,1891,75)
(90) Euskaldunak: nire izen da izatetxuak ezin dabena, Aitalen baten izate ta izen onak egin bei. (*BB*,1893,36)
(91) *Curam habe de bono nomine* «izen ona zaindu ezazu», … (*Biz. Goi.*,1916,305)
(92) Bizkaiko Aldundi gogo-aundi ta argizalea guztiok txalokatu eizue. (*Alt*.,1921,61)
(93) …; eta or zaukaguzan edo zaukezanartean, orainarte bezelan, lanzale izan zaitez. (*Alt*.,1921,62)
(94) Zure lanak, Bibliako Aitalen ospetsu aren semên antzera, zuk or Euskaltzainez sortu daizuzan buruzko umeak, gutun ta gutun, laugarren ta boskarren gizaldirarte bizi beitez; … (*Alt*.,1921,62)
(95) Berak Yainko maitearengandik bear degun goiargia ardietsi bekigu, … (*Lac*.,1921,63)
(96) … ta beste Hotel aundia urrutitxo baldin bada, beribil edo automobilik ederrenera urbildu zaitezte. (*EEoit*,1930,99)
(97) Zuek au entzundakoan berriz bi masailak eta gainera gerri-aldea asnasaz bete-bete egin ta maskotari begira ler egin arte gozaro farra egin ezazue. (*EEoit*,1930,99)
(98) … eta loteriako sari andi bat (premio andi bat) izateko dela jakin dezazuenean, berriz asnasaz ta aizez ta eguratsez bi masailak eta gerrialdea ta bularra ta gorputzaren utsune guziak bete bete egin ta ler eta zapart eta eztanda eginarte gogotik eta gozaro irri ta farra egizue. (*EEoit*,1930,99)
(99) Azken au azter dezagun. /Analicemos este último. (*Eus. Yak.*,1934,23)
(100) …; *ezkarela yoango esan egiozu*, «dígale usted que no hemos de ir». (*Est. Comp.*,1949,34)

Aginterazko aditzak ere atzeratzeko joera honen adierazgarri izan liteke, Azkue berak 1949an egiten duen segidako baieztapena, aitortuaz egokitasun beretsu bat, esaldi hasieran edota amaieran emaniko aginterazko aditzei (*Est. Comp*., 1949, 33 or.): «…, el sintagma verbal se antepone o puede anteponerse a los demás, no sólo en aserto negativo y confirmativo, sino también en aserto imperativo; pues tan bien suena *betor gaur aita pozik Donostiatik*, como *gaur betor aita* o *gaur aita betor*, etc.»

3.3.3. Ezezko aditzen batzuk ere atzeratuta?

Esango genuke Azkuek izan duela, tarteka bederen, aditza hainbat atzeratzeko joera ezezko esaldietan ere, Cardaverazen eskolaren ildoan, nahiz ez izan inola ere bere praktikarik usuzkoena. Ezarian bildu ditugun segidako adibideak erakusgarri. Aditz trinkoekin:

(101) Nigaz etorririko gizonak ezer ez daki. (*Izk*.,1891,318)
(102) …: ire aitaita baizen sendoa enok; … (*BB*,1893,81)
(103) *Gauilla* edo *Gauelia* baiño gau luziagorik eztago; … (*Ger*.,1895,19)
(104) Guk geure begidxakaz dakuskun errialde au Bizkaidxan gorputza edo gorpua baiño ezta. (*Ger*.,1895,21)
(105) …; lenengo gertaeren ganian ipuiñak baiño besterik eztakigu. (*Ger*.,1895,25)
(106) Erromak beren gudaridxen sendotasuna gor-bera' ixeña baiño eztauka. (*Ger*.,1895,26)

Nola aditz konposatuekin ere, nahiz eta Azkuek inoiz onartu ez, hauen inbertsio eza, Cardaverazen eskolako ohiturez oso bestela.[307] Segidan erakusgarri, ezarian bildutako adibide batzuk, nahiz batere ez izan adierazgarriegi:

(107) …, liburu bi baten ipini bearrik bere ez neuan izango, … (*Izk*.,1891,VII)

---

[307] Hala moduzko adibide bakar bat aurkitu dugu Azkueren aurreneko (historia aurreko) lan literarioan: «*zer jasoko dan ikusi nai ez da*» («Grankanton arrantsaleak», *Euskera*, 1988, 387 or.)

(108) …, ta lengua ixateko' geure inguruan da geugandu nairik dabillen arima zaarra baiño besterik eztau biar. (*Ger*.,1895,26)
(109) …, losintxa ta itz goxo ta gorespen bila etzan bein ere ibiltzen; … (*Biz. Goi*.,1916,305)
(110) Urietan Euskalerria azal-azalean baizik eztabizi, … (*EEoit*,1930,92)
(111) Edozeiñ ostatutxotan baino diru geiago eztuzu bear izango … (*EEoit*,1930,99)

3.3.4. Aditz nagusien atzeratzeen beste arrastoren batzuk?

Nahiz ez diren izango gorago aipatutako beste zenbait bezain ikusgarriak, edota konstanteak Azkueren obran, aurki ditzakegu tarteka Azkuegan, beste zenbait arrasto ere, aditz nagusiak atzeratzeko joerarenak. Hala adibidez, inoizka aurki dezakegunean, *ba*- aurrizkidun aditz trinkoa ere esaldi bukaeran emanda, segidako bi esaldiotan bezala:

(112) Lamiak orrazi-bila ibiltzen zirela Bizkaiko uri batzuetan orain ere badiote: … (*Lam*.,1926,101)
(113) Euskalerrian orrelako zerbait badugu. (*EEoit*,1930,98)

Eraberean suma dezakegu tarteka, galderaren bateko aditza ere atzeratuta emanda esaldian, modurik ez ohizkoenean, nolabait esan, segidakoon antzekoak:

(114) Eper ordia, ¿Deabruren bat senartzat artu al daun? (*Abeja*,1889-90,158)[308]
(115) ¿Ill dan ori nor da? (*Ger*.,1895,20)
(116) Kriston gizona esanaz ¿zer adi dozu? (*Dotr. ag*.,1896,169)
(117) Kurutzea gurtueran ¿zer esan bear da? (*Dotr. ag*.,1896,170)

Edota Azkuek ere erakusten duen joeran, hainbat aditz nagusi emateko, jokatu gabe, elkarren segidan beren konplementu eta guzti, eta saileko azkenekoari bakarrik erantsiaz dagokion aditz laguntzailea. Hainbat adibide dauzkagu jada gorago jasoak, aditz nagusien atzeratzeen artean (3.3. atala), eta gehiago, galdegaiak eta aditzen arteko etenak erakusten dituzten esaldien artean (3.3.1.).

3.4. Aditzak bukaeran, bai, derrigorrez, mendeko esaldietan, 1891ko Izkindeatik.

Aditz nagusiekin inoiz garbiegi ez bezala, Azkuek bai predikatuko du agerian, aditzaren esaldi amaierako gunea euskaraz, derrigorrez, mendeko esaldien eremuan. Eta eremu honetan garatuko da, Azkueren mezu eta eragin cardaveraztiar garbiena eta zuzenena. Baita ere propioena. Bada Azkuek, bere baitako elaborazio propiokoa izango du, eskola cardaveraztiarraren aditz posposizio legearen interpretazio berezi hau, menpeko esaldien eremurako.[309] Batetik, bai mendeko esaldi hauek izenaren konplementuak direnerako (erlatibozko esaldiak), garairako ere jada nahikoa topikoa zen euskal tradizio gramatikalean.[310] Baina baita ere bestetik, mendeko esaldiak, beste aditz nagusiago baten konplementuak diren kasuetarako, non aurkituko dugun Azkueren interpretazioaren berrikuntza nagusiena. Azkuek ez du zalantzatarako tarterik utziko, jada *Izkindean* bertan, esaldiko elementuen ordenamenduari eskaintzen dion 6. erregelan (344-5 orr.):

> 779 SEXTA REGLA. En oraciones complementarias el elemento relacionado con la oración independiente suele colocarse al fin. / Nik *daukatan* etxea - Goizegi etorri *naila* esan daust - Ori neugaz ekarri *daitanean*' ioango dai - Neu Artxandatik *natorreneko*' zain egongo dakitaz - Berak egunaro *erosiriko* ogia.[311]

Legea dudarik gabe izango da, Azkue gehien predikatzen eta praktikatzen ahaleginduko denetakoa aurrerantzean, lan teorikoetan eta prosa propioan, oso salbuespen gutxirekin. Eta ekimen setati honen ondorioz, lege, dudarik gabe, cardaveraztiar honek, ezin arrakasta handiagoa bereganatuko du hegoaldeko euskalzaleen artean XX mende osoan zehar, euskararena balitz bezala. Kanpora, anatemizatuak, mendeko esaldi hautsi guztiak. Ez dira jada aurrerantzean, euskarazkoak izango.

3.4.1. Legea 1894ko Ensayo Practicoan.

Nahikoa enfatikoki heltzen dio Azkuek berriro gaiari, 1894 inguruko *Ensayo Practicoaren* bi ikasgai

---

[308] Galdetu nahi zaiolarik, testuinguruan, *deabruren bat artu al duen senartzat*.

[309] Guk bederen ez dugu beste inorengan aurkitu interpretazio hau Azkue bitartean.

[310] Nola predikatzen duen, *Complementos regidos del nombre* atalean, bere lehendabiziko lege nagusi bakar haren ondorio bezala, ohizko adibide sail bat jaso ondoren (336 or.): «... *Datorren* urtea, *Dakartazan* txoriak, ..., *Franciara noanean neuk ene amari ekarriko dautsatazan* zapiak. / De esta misma manera todas las oraciones complementarias del nombre ... suelen decirse delante del nombre, porque *los complementos regidos deben ponerse delante de los regentes*.»

[311] Ohargarria da beti gainera, aditz nagusiak erakusten dituzten hiru esaldietan, hauek hiruretan gordetzen duten amaierako gunea.

desberdinetan ere:

> Las conjunciones que en castellano se anteponen ordinariamente en la frase, en euskera se posponen por lo común, como que son relativos verbales q$^{e.}$ unen oraciones con oraciones. *Ni Madrildik etorriarren* = a pesar de venir (á pesar de q$^{e.}$ venga) yo de Madrid. *Onek baino obeak eukiarte* = hasta tener mejores q$^{e.}$ estos. (Tema 79, 190 or.) / … / *Lako* = porque. / *Datorrelako* = porque viene. No se olvide que estas relaciones [que] corresponden á las conjunciones castellanas son lo último de las frases. (Es una de las reglas más importantes y hermosas de nuestra construcción). Tema 79. (Tema 89, 213 or.)

Finean gainera, halako arauek berdin balio lezakete, nahi izanez gero, Azkueren zentzu antizeinista kutunean.

3.4.2. Legea 1896ko Metodo Practicoan.

1896an argitaratzen den *Metodo Practicoan*, Azkuek behin eta berriro predikatuko die legea bere ikasleei. Ez alferrik juzgatzen zuen, *gure joskeraren garrantzitsuenetakoa* bezala. Hala esango du adibidez (148 or.):

> Los relativos [hau da, *erlazio atzizkiak*], tanto del verbo infinitivo como del conjugado, ocupan el último lugar en una oración ó miembro de ella. / Y lo que se dice de estas dos relaciones correspondientes [*banentorr bere; ni orain etorriarren*], entiéndase de todas las demás.

Edota lehenago arautzen zuen bezala (65 or.):

> VIII Todos los miembros constitutivos de una oración deben colocarse antes del verbo conjugado cuando está en relación con otra por medio de la partícula *n* ó cualquier otra de su especie.

Eta berriro, mendeko-ezezko esaldien inguru ari delarik (98-9 orr, 5. oh.):

> *Lako*, (relativo de verbos conjugados), porque. / *Eztagolako*, porque no está. [Eta oharrean:] Los relativos del verbo conjugado por ser inseparables de este y haber de ocupar el último lugar de la oración para relacionarla con la siguiente, (hacen que la negación no ocupe el lugar preferente que á su importancia corresponde, sino que vaya con el verbo al último lugar que reclama por su oficio el relativo. *Egon eztalako* es mucho más correcto que *eztalako egon*.)

3.4.3. Nahiz Azkuek aitortuko duen, esaldi hautsien zilegitasuna ezezko esaldi mendekoetan.

Bada azken aipuko azken zuzenketa gorabehera, Azkuek beti onartuko du hala ere, ezezko esaldien zenbait kasutan (batez ere -*la* atzizki-dunetan), aditz partzipio nagusia behintzat, ematea, erlazio atzizkiaren ondoretik, nolabait hautsiaz esaldia, eta bere erregela garrantzitsu eta ederra. Hala nola aitortzen zuen jada *Izkindean* bertan (341 or., 1 oh.): «*La, lako* ta *lakoan* alkargaiakaz aurretik ipinten dai geienean laguntzailea [ezezko esaldietan]: *ezdautala ekarri, ezdailako ioan* edo *ioan ezdailako* … Zergatik' ezdakit.» Antzeko salbuespenak zilegiztatzen ditu Azkuek *Hiztegian* (I, 294 or, 1), edota *Morfologian* (525-6 orr., §758). Oraindik 1949ko *El vascuence y varias lenguas cultas* lanean, egiten du Azkuek antzeko oharra, nahiz orduan mugatu nahiko dion aukera, -*la* atzizki soilari (34 or.): «Con la negación, también en nuestra lengua, …, pasa el auxiliar a primer término: … / Esta fuerza constructiva pierde la negación, cuando de la flexion verbal forma parte algún elemento conjuntivo, como *n, nean, lako, lakoan* y algún otro; pues decimos *etorri eztan ezkero,* …; *etorri eztanean,* …; *yoan eztalako,* …; *ibili eztalakoan*, … Pero hay uno de estos elementos conjuntivos, el sufijo *la*, que se pone siempre en proa: *eztala etorriko esan didate*, …; *eztadila or gelditu*, …; *ezkarela yoango esan egiozu*, …»

3.4.3.1. Eta agian subjuntiboetan ere?

Azkueren prosan ere hainbat maiz aurki litezke, halako mendeko esaldi hautsiak ezezkoen artean (*Eztagoala zorginik esaten dabe gero.*, -*BB*, 1893, 44 or.-). Eta baita ere bestalde subjuntibozko esaldien artean, nahiz baiezko, nahiz ezezko, Azkuek salbuespen hau inon egiten ez duen arren agerian (*..., gazteluz iosi daioela arrizko azala*., -*BB*, 1893, 36 or.-; *Datorrela aurrera*., -*Met. Prac*., 1896, 123 or-; *Eztaiala Iaungoikoak gura izan: ...*, -*BB*, 42 or.-).

3.4.4. Mendeko esaldi hautsi esanguratsuak nolanahi, 1905-6ko Hiztegi adibideetan.

Salbuespen, nolabait marginal, horiezaz kanpo, Azkue bestelakoan setati ahaleginduko da legea praktikatzen, bere bizitza guztian. Esanguratsuki ordea, 1905-6ko *Hiztegian*, behin baino gehiagotan aukeratzen ditu mendeko esaldi hautsi, zuzendu gabeak, bere zenbait erlazio atzizkiri eskainitako sarreren adibide. Hala nola, -*la* edo -*lako* atzizkiei eskainietan esateko (I, 514 eta 520 orr.):

> -La: 1º (c), elemento relativo de conjugación; es el ilativo «que»: … *Esango neuskezu ezteutsudala ikusi kristinaua*

zareanen usain ta igargarririk, … (Per. Ab. 67-18.)[312]

-Lako: … 2º (c, …), relativo verbal de la conjugación, que se aglutina después del agente (cuando está expreso) y significa «porque»: … *Emoten deuskulako zer jan*, porque nos dá que comer, … (Per. Ab. 68-16.)

Baita ere, gorago ikusi dugun bezala, *N sufijoari* eskaintzen dion 5. atalaren amaieran, ematen dituenean Azkuek, segidako adibide hautsiak, aldiz bai zuzendu eta gero beren *zeinismoa* (II, 61 or.):

La frase de Duvoisin (*Gen*. III-19): *Bihurtu zaitezen arteo lurrera, zeintarik izan baitzire atheratua*, y su correspondiente de Uriarte: *Itzuli zaitezen bitartean lurrera, nondik izan ziñan artua*, son traducciones literales … Las traducciones, exentas de barbarismo, son: *Bihurtu zaitezen arteo atheratua izan zaren lurrera*, y *Itzuli zaitezen bitartean artua izan ziñan* (ó mejor *zeran*), *lurrera*. / … / La frase d'Axular: *Nekhazalerik eta laborarik baizen ezten herria dela herririk hoberena* (Ax. 3ª-192-11), dirían muchos hoy, sobre todo en B y G: *Erria, zeiñetan eztan nekazalea ... baizik, dala erririk onena*: …

Egia da, *Hiztegirako*, Azkue saiatzen dela jasotzen, benetako autoreen testigantzak, eta ez bakarrik berak asmatutako adibideak. Eta egia da gure tradiziozko autoreek oso maiz, eta are maizenik, erabili dituztela mendeko esaldiak hautsita, beren testuen egitura komunikatiboari komeni bezala, aurreiritzi dogmatikorik gabe. Baina hauek bezainbesteko egia da, nahi izanez gero, erraz aurki zitzakeela Azkuek gure tradizioan ere hautsi gabeko adibideak *Hiztegirako*. Beharbada garaian, berak ere ez zuen jada sinisten, aurretik horren zurrun predikatutako legean. Beharbada. Ikusi dugu antzeko zerbait gertatzen zela zeinismoarekin ere. Beharbada izan zen *Hiztegiarena*, Azkueren garairik anti-dogmatikoena. Baina, dena pasatzen da.

3.4.5. Zuzenketa cardaveraztiar kanonikoak berriro, 1925eko Morfologian.

Ez dugu uste Azkuek, ez *Morfologian*, eta ez beste inon, berriro predikatzen duenik mende hasieran bezain zurrun, aditza amaieraraino atzeratzeko araua mendeko esaldietan. Ordea, jakingarria da, nola zuzentzen dituen berriro, mendeko esaldi hautsi hainbat, 1923-5eko *Morfologian*. Hala adibidez ezin argiago, segidako hitzak egiten dituenean, *Arren* atzizkiaren inguru, Moguelen esaldi baten gainean (354 or.): «… *Nik ereinarren galgaraua soloan* … (*Per. Ab*. 68-10). - Mejor construído estaría *nik galgaraua soloan ereinarren*, pues los afijos conjuntivos, por su oficio de poner en relación una frase con otra, deben como los mojones ocupar el extremo de su jurisdicción.» Jakingarria da ere, Azkuek adibide berbera erakusten duela *Hiztegian* (-*Arren* sarrera), nahiz orduan ez duen batere zuzentzen. *Morfologian*, oraindik antzera zuzentzen du segidako esaldia ere, berriro Moguelena, *Elementos relativos de conjugación* sailean (582-3 orr.): «*Ikusiko dogu dakizuzan euren izenak* (mejor construído sería *euren izenak dakizuzan*) …». Ez da harritzekoa izango antzeko zuzenketa gehiago ere aurkitu ahal izatea bertan.

3.4.5.1. Mendeko esaldi hautsiak Morfologian ere.

Azkuek nolanahi, jasotzen ditu *Morfologian* bertan, mendeko esaldi hautsien adibide ez zuzenduak. Hala adibidez segidako biak, *Refranes y sentenciasetakoak*: «*andi danarren indarra* (*Refranes* núm. 10) -355 or.-; *dagianak agindua yan dezala* que coma quien hiciera lo mandado (*Refran*. 43) -583 or.-». Edota Leiçarragaren hurrengo zehar galdera hautsia ere: «*Erakutsik zein elejitu duan bi hautarik* (Leiz. *Act*. 1-24) -429 or.-».

3.4.6. Etenak mendeko esaldietan, elementuak tartekatuaz, aditza eta honen aurreko ohizko perifrasien artean.

Eskola cardaveraztiarrak, eta Azkuek, etenak eragiten dituzten bezala esaldi nagusietan, artifizialki aurreratutako galdegai eta atzeratutako aditzen artean, hala moduzko etenak eragiten dituzte oso maiz mendeko esaldietan ere, aditzak eta hauen aurreko ahizko perifrasien arterako, aditza, legez, derrigorrez esaldi amaieraraino atzeratu beharraren ondorioz. Segidako hauen antzekoak izan litezke mendeko esaldi eten hauek (nahiz beti argiagoa gertatu fenomenoa, esaldiak beren testuinguruan aurkitzen ditugunean):

(118) …; batak baño besteak arinago lurra astindu nairik … (*GK*,188?,381)
(119) Itz onek oe-azpikoak enzun euazanean' … (*Abeja*,1889-90,93)
(120) …, Arakilgo Erramon osagilea ezizentzat eukan bati (ots-egin eutsan.) (*Abeja*,1889-90,189)
(121) Erderaz' orainarteko izkiralariak legez' izkinde au izkiratu baneu' … (*Izk*.,1891,VII)
(122) Gauzatxo politen bat onen ordez erostekoan' … (*Izk*.,1891,296)
(123) (Errialde onetako Ekauta edo Diputazinoiak aintzat eta ontzat artu dau, Donostiako euskalzale batzuk eginiko eskaria; eta da), Gipuzkoako kale erdalizendunai euskerazko izena ondoan ezartea. (*EZ*,1897,7)
(124) (¿Nor da) naste ta lazka ta gaiztasunak euskaldunai ipiniko dautsazana? (*EZ*,1897,73)
(125) (*¿Zer da Atsegintzea?* Atsegintzea da toki bat,) aingeruak eta Iaungoikoan baketan il direan gizonak guztiz zorioneko orain da betiko dagozana. (*Bai. Dotr*.,1897,6)

[312] Ohargarria da ere kasuan, Moguelen aditz nagusiaren gunea esaldi hasieran bertan (ohizkoa Moguelentzako), eta lehen eta gero hainbeste ukatu nahiko duena aldiz Azkuek. Segurasko izan da *Hiztegiaren* garaia, Azkueren hurbilena gure tradizioarekiko, aurreiritzi extralinguistikoetatik landa.

(126) (*¿Zer da Su-leza edo Inpernua?*) Su-leza edo Inpernua da toki bat, deabruak eta pekatu edo oben ilgarriaz il direan gizonak guztiz zortsarreko orain da betiko dagozana. (*Bai. Dotr.*,1897,6)
(127) (… ¿ezotenion adiskide ilari jarraitu bear,) beronen izena eriotzea baino iraunkorrago izatea guztion artean eskuratzeko? (*Biz. Goi*.,1916,302)
(128) (…; poztu gaitezen,) lagun on bat, gogaide burutsu bat geyago aldamenean agertzen zaigunean. (*Biz. Goi*.,1916,306)
(129) (Badakizu Amezketan izebaren etxean ginala, artalde ta beitaldeak, mendian beera jetxita, elizako arresietan azka ari ziranean, beren arran, dunba ta zintzarriz klan-klan, bulun-bulun,) zein gozaro gure belarriak poztu oi zituzten?) (*AG*,1918,39)
(130) (Baina orduko arteki (episodio) txiki au uste det) gogoz berorrek irakurriko duela. (*AG*,1918,133)
(131) …, kafeari *aketta* izentzat ezarri zioten bezela. (*AG*,1918,153)
(132) …, baldin euskerak berez orien ordezko itz egokirik lendik ezpadu. (*Erd*.,1920,57)
(133) …; *Kanonigu* emen diranak (an *kalonya* dira; …) (*Erd*.,1920,60)
(134) (… gogoratu izan aldakio gure lagun oni) *gramatika*-gai artean zeintzuk errazen galtzen direan: … (*Alt*.,1921,56)
(135) (…, euskalari argia, euskaltzain zintzo ta ordutsua, iri onetako auzapez lanari ongi ta luzaro yarria,) inguru onen âldun (*Conseiller general*) Paben izana. (*Lac*.,1921,63)
(136) (Ezta arritzekoa) Beterrin ere zabaldua den *ondo ongi*-ren ordez emen ikustea: … (*Bat, Bi*.,1927,118)
(137) …; llamar adiarazteko *deitu* erriak esan-arren, ... (*Bat. Bi*.,1927,119)
(138) (Aski zuen *Pernando Amezketarraren* bigarren Aitak) onela bere ustea agertzea; … (*Bat. Bi*.,1927,134)
(139) (Egokiago edoda) ez guion-ik ez komarik deklinazioan erabiltea. (*Bat. Bi*.,1927,139)
(140) …, Doniane-inguruan erabaki bat Euskaltzaindiak artu al izateko. (*Bat. Bi*.,1927,140)
(141) (Orduan …, orain baino gaitzago zan) euskera utsezko lanak antzokietan agerraraztea. (*EEoit*,1930,92)
(142) (… ikusi nuen sei ilabete enituela aski izango,) bera bezala gai ori ikasi ta idazteko. (*EEoit*,1930,98)

3.4.7. Mendeko esaldi hautsi ugariak nolanahi, Azkueren prosan.

Nahiz Azkuek legea garbi izan, eta beti ahalegindu betetzen, bere garai guztietako prosan aurkituko ditugu, hala ere, mendeko esaldi hautsiak, gehienean salbuespenak baino izango ez diren arren, deskuidoz bezala ixuriak. Agian aurki litezke gehixeago, Azkue hizkera herrikoia itxuratzen ahalegintzen ari denean kontakizun eta pasadizoetan, lan jantziagoetan baino. Baina hauetan ere aurkitzen ahal dugu hainbat, segidakoen artean ikus litekeen bezala:

(143) …; eta bientzat lain emoten ez eban lez bere izerdiak, … (*GK*,188?,382)
(144) …, eta arrantsaleari seineroaren keiak adierasoten deutsen lez noiz dagon chonchorroa, …(*GK*,188?,383)
(145) …, esango deusku gelako keiak zer jasoten dan Lekeition eta zer ichasoan.(*GK*,188?,383)
(146) …, ez euan legez Iaunak izarren ganean egin zerua' bera bakarrik bizi izan dein. (*Abeja*,1889-90,31)
(147) …; ez itzan legez sein-au Ola-Iaunen semea' (ez euen *bolorik* euki …) (*Abeja*,1889-90,31)
(148) (Iakin euen' …') sein-oni Pedro Antonio de Errekarte ipini eutsela erderaz izena, … (*Abeja*,1889-90,32)
(149) Ikusi euanean onek eche atan sortu itzan [zen] atsotegi a' … (*Abeja*,1889-90,56)
(150) (Ez dakigu zer …;) baina bai eguzkiagaz batera io euala Eperrak Errekarteko. (*Abeja*,1889-90,61)
(151) …, bada danak eukezan legez azurrak, … (*Abeja*,1889-90,61)
(152) (¿Nork' Eperran gatz bageko autua enzunda' esan ez zorabiuan ganetik) moskorra eukala chakolintzan igeri? (*Abeja*,1889-90,157)
(153) Arduratsua balitz ama, (ezlitzake semea zitala izango.) (*Izk*.,1891,313)
(154) (…; baiña auzoko guztiak ondo ekien, alkarren antzik euki ezarren.) alkar maite ebela biak. (*BB*,1893,43)
(155) (Guztiok dakizu) erri-erdia oraintxe erre iakuna, *Tala*tik asi ta ia geure etxeraiño. (*BB*,1893,56)
(156) … arratsalde atan egin eben beste barre egin balebe Errokek eta lagunak Perrandesen esakerakaz, (ezeutsezan onek …) (*BB*,1893,60)
(157) Alper dala Maria makillatu … (*BB*,1893,68)
(158) Eta atorrenean gero, … (*EZ*,1897,3)
(159) (…, Sultanak, erantzun eidau,) izan leikeala bera izatea azkenengo Sultana; baina eztabela inon mendean bizi nai. (*EZ*,1897,7)
(160) (…, itandu dabe) zer etedarabilen euren arerioak au egiteko. (*EZ*,1897,7)
(161) Mogelek dinoala *K* prantzesena dala. (*EZ*,1897,10)
(162) (Esatea da,) Aitan antzeko alabaak eta Aman antzeko semeak izaten direala seme-alabarik zintzo ta men da zoriontsuenak. (*BG*,1897,108)
(163) Lekeitioko kaleetan da Izpasterko Eleizaldean da Gartadako ingurumarietan ikusi ebenean gizon bat, arpegi guztia, ezpainak ezeze, bizarrez beteta; … (*BG*,1897,114)
(164) (…; ta esan eutsez, …) mutillen kontura izango zala danentzako gosari eder bat, San Pedro-goizerako: … (*BG*,1897,115)
(165) …, Izekotxuk esan euenean nik enuela ordurarte eskolan oinik imini, nekien guztie zala sutondoan etsean entzun da ikesirikoa. (*BG*,1897,124)
(166) (…, da egingo neuke) baloiak iruntzi dabela neure semia be. (*BG*,1897,137)
(167) Izan balitz bera esku-zabala … (*BG*,1897,145)
(168) …. bada Urabilla asten bazan zer edo zer isiltxurik erezi edo kantaten, … (*BG*,1897,151)

(169) Esaten baiake gizon askori alargun bat bizi dala iru edo lau seme-alabagaz, … (*BG*,1897,152)
(170) Entzun baleie barriz mutiltxu bati, …, larrapast edo laban eginda iausi zala gizatoa ta … (*BG*,1897,152)
(171) Neska zaar bi balegoz alkarri esaten "nor da gure artean gazteena," … (*BG*,1897,152)
(172) Baiña arako asi iakanean belarriak gozatu ta izena gooratuten, … (*BG*,1897,154)
(173) …, iñok arririk ieurtiezkero, bata bateti ta bestea besteti doazanean, … (*BG*,1897,155)
(174) (Sarri esan da) lenagoko euskaldunak zaleago zirala gauza aundiak egiten (jakin-eragiten baiño). (*Vill*.,1904,453)
(175) (Gauza bat dakigu ziur, …:) Gipuzkoa, egiazko Jaungoikoa ezagutu zuen ezkerostik beti izan dala berea. (*Vill*.,1904,454)
(176) (Irakurtzen ditugu or ta emen) gu beti izan gerala kristauak; … (*Vill*.,1904,454)
(177) (Norbaitek esan dezake) kristauak beti izan gerala sinizterazteko ageririk, paperik naiz arririk ezpada. (*Vill*.,1904,454)
(178) (Jakin ezazute) oilloa bere bizia ematera gertutzen dala bere txitoak norbaitek arrapatu nai diozkanean. (*Vill*.,1904,457)
(179) (… jakin beza Espaiñia guztiak …) lenago emango duela bere berberaren bizia. (*Vill*.,1904,457)
(180) (… erabaki zuten) aita Santuari eskatzea Tolosan eregi ta jaso zezala apezpikutegi bat. (*Vill*.,1904,457)
(181) … bertan jakin zuelako Aita Santu egiña izan zanaren berria … (*Vill*.,1904,458)
(182) …, jakin balute, apezpikutegia eregi ta urrengo 50 bat urtean erdi-zurtz egon bear zutela, beren gurasoak erritarrai itz egoki egin eziñez egongo ziralako; … (*Vill*.,1904,458)
(183) (… esan oida) ura izan dala urrezko garaia: … (*Vill*.,1904,458)
(184) (…, esan diteke) bi arima eder, bizkiak, atera zituela Jaunak biotzaren barren barenetik; … (*Biz. Goi*.,1916,307)
(185) (… ango nere adiskide kanonigu batek ziraustan) ezagunak izaten dirala Seminarioan, beren errian apaiz gartsuak dituzten beretergaiak. (*Agi*.,1920,71)
(186) (… diozu …) geroztik norbaitzuk gogoz ari dirala erriaren yakintza ikasi ta biltzen. (*Lac*.,1921,58)
(187) (… entzun neutsan) bere elizako artxibuan egozala Iturrizak Ibarguengandik eta Ibarguenek Laredoko seme Cachopingandik arturiko idaztiok. (*Alt*.,1921,54)
(188) Irakurleak atseginez ikusiko dutela uste dut gure Aldundiak artarako erein zuen lenengo azia. (*Eus. Yak*.,I,1935,8)

Kuriosoa da nolanahi jabetzea, nola adibide hauetako askotan, ez den urrutitik ere segitzen, mendeko esaldiak aditz nagusiaren aurrera eraman nahi zituzkeen lege nagusi hura.

3.5. Azkueren aditz atzeratze adibide orokor eta nabarmenak 1896ko Dotrina argitaragabean.

Ez da sekula gehiegi azpimarratuko, Azkueren arau bakar haren aplikazio modu hauek, eragiten duten etena, euskal esaldien egituran; irekitzen duten hondogabeko leizea, euskal prosa tradizioaren bilakaeran. Adibiderako, argigarria da alderatzea, Azkuek 1896rako prestatzen duen Asteteren *Dotrinaren* itzulpena, ordura artean Bizkaian gehien erabiliak izan ziren, Olaechearen edota Moguelen itzulpen klasikoagoetako hitz ordenamenduarekin.[313] Aditz atzeratzeak maila guztietan aurkituko ditugu: nagusi eta mendekoetan (ez dugu uste mendeko esaldi hautsi bat bera dagoenik Azkueren lanean); aginteretan, … Segidan ez ditugu alderatuko, Azkuek bere dotrinaren hasieran ematen dituen *arren* edo otoitzak baino,[314] Olaechearen 1775eko *Dotrinearen* 2. argitalpenarekin[315] (lehenengo esaldia beti Olaechearena):

[Credoa] (6) / Sinizkizuna (167)

(189) …, ceñ <u>sortuzan</u> Espiritu Santubaen obraz, ta graciaz: …
…, Gogo Donean bitartez <u>sortu</u>, …
(190) …: <u>Jaio zan</u> Maria Virginea ganic: …
…, Maria Osoagandik <u>iaio</u>, …
(191) …: <u>padecidu euan</u> Poncio Pilatosen poderearen bean, …
…, Ponzio Pilaton aginduz <u>nekatu</u> …
(192) …, <u>izan zan</u> Crucificaduba, il, ta enterraduba, …
… kurutzeratu il da lurperatua <u>izan zana</u>; …
(193) …, <u>jatsizan</u> infernubetara: …
…; beeko iluntegietara <u>iatzi</u>, …
(194) …: eta irugarren egunean <u>biztu zan</u> ilen arteric: …
…, ilen arterik irugarren egunean <u>biztu</u> …
(195) …: <u>igo evan</u> Cerubetara, …
… ta zeruetara <u>igonikoa</u>; …

---

[313] Nahiz biok ere, badituzten, ikusi dugu, ezaugarri propio, nolabait cardaveraztiarrak, beren hitzen ordenamenduan.

[314] Azkueren 1896ko *Dotrina* argitaragabe geratu arren, bertako otoitz batzuk bederen argitaratu ziren 1897an, *Kristinauen Ikasbide Laburrtua Baionako Elizterikoa Lapurrdiko Euskeratik Bizkaikora* lanean (aldaerarik gabe, *Geure Aita / Aita Gurea* izenburuan baino).

[315] Badakigu, jada hainbat zuzendua espiritu cardaveraztiarrean.

(196) …, eta dago jarriric Aita Jangoico guztia poderosoen ezcomatati: …
…; Aita Iaungoiko Guztialdunan eskuman iarririk dagona, …
(197) …: aric etorrico da, biciac eta ilac juzguetan.
…, ta andik biziak eta illak erabagitera etorriko dana.

Fedeco Articulubac. (9-10) / Sinizgaiak (167-8)

(198) Lelengo zazpirac jagocaz Jangoicotasunari: …
Lenengo zazpirak Iaungoikotasunari dagokioz.
(199) …, sinistu Jangoico guztiz Poderoso bacar bategan.
…: Iaungoiko bakar guztiz altsua dana siniztutea.
(200) (Bigarrena, sinistu,) dala Aita. [Horrela hurrengo bostak ere Olaecheak: *dala Semea*, …]
(Bigarrena:) Aita dalakoa. [Eta orden berean hurrengo bostak ere Azkuek: *Semea dalakoa*, …]
(201) Umanidadeari, edo Guizatasunari jagocazanac dira onec.
Gizatasun Doneari dagokiozanak aunetxek dira: …
(202) …, sinistu, Jesu-Cristo gueure Jauna Guizona den partez sortu zala Espiritu Santubaen obraz, ta graciaz.
…: Gure Iaun Iesukristo gizona dan aldetik Gogo Donean bitartez sortua izan zana siniztutea.
(203) …, sinistu, jaio zala Santa Maria Virginea ganic, zala Virgina Semea jaio artean, jaiotcean, eta jaio ezquero.
…: Andra Mariagandik, bera seingintza-aurrean artean da ostean Osoa izanik, iaio zana siniztutea.

Eta antz batera beste bostak ere.

Paternosterra (5-6) / Geure Aita (168)

(204) Aita gurea Cerubetan zagozana: …
Zeruetan zagozan Geure Aita, …
(205) …, emon eguiguzu gaur gueure egunean eguneango oguia, …
Egunean eguneango geure ogia gaur emon eiguzu, …
(206) (…: eta ichi eceiguzu) jausten tentaciñotan: …
(Eta ez itxi) esetsian iausten, …

Jangoicoaen legueco mandamentubac (7-8) / Iaungoikoan Legeko Aginduak (169)

(207) Lelengoa, Jangoicoa ametea gauza guztien ganean.
Lenengoa: Iaungoikoa gauza guztien ganean maite izatea.

4. Azkueren sistema astarloarra.

Nolanahi, Azkueren zurruntasun(-edo) cardaveraztiarra, aditzaren esaldi amaierako derrigorrezko gunearen inguruan, beti gertatuko da malgutua, ez kontraesanik gabe, Azkue *Izkindeatik*, eraberean eraikitzen saiatzen den beste sistema edo legeekin. Eta horien artean garatuenik, sistema astarloarraren aztarnak, honen bi aurpegi desberdinetan.[316] Batetik, aldarrikatuaz, euskararen erabateko askatasuna, elementuak esaldian ordenatzeko garaian (nahiz finean askatasuna ez izan *teorikoa, balizkoa* baino). Eta bestetik, Astarloaren ordenamendu printzipio teoriko *jerarkikoak* jasoaz, hauen interpretazio bere propio bat eraikitzeko Azkuek, hainbat praktikoagoa eta erabilgarriagoa Astarloarena baino, benetako esaldien ordenazio irizpideak finkatzeko garaian.

4.1. Euskararen ordenamendu askatasunaz, esaldiko elementuen arterako.

Esanak esan, eta eginak egin, euskarazko aditzaren balizko ezaugarri pospositiboen inguru, Azkue eraberean da gauza predikatzeko, 1891n bertan, eta argiago oraindik1896tik aurrera, euskararen ordenamendu askatasuna esaldian, modu tolesgabe batean, itxuraz. Hala esango du adibidez, 1896ko *Metodo Praktikoan*, *De la construcción en general. Necesaria y libre* izenburu esanguratsuko XI ikasgaiaren lehen bi lerrokadetan (56-7 orr.):

> I. La construcción de las palabras es necesaria ó libre según la relación que guardan entre sí. Las palabras que constituyen un *miembro* de la oración se construyen necesariamente; como el sustantivo antes del adjetivo con el que concierta; el poseedor antes de la cosa poseída; el lugar continente antes de lo contenido …[317] etc. / Los miembros que constituyen la oración se construyen libremente. Por ejemplo en la oración *Gure Aitagaz-etorri zirean-atzo-emakuma orrek* hay cuatro miembros separados por un guión, los cuales pueden construirse de la manera expuesta ó

[316] Ik. Astarloari eskaini diogun atal berezia.

[317] Ez dakigu ez ote den hau lehenengo aldia euskal gramatikan, ordenamendu segida berezi hau arautu nahi dena (*sei boteila ur* bai; baina, *sei ur boteila* ez). Nahiz guk gerok ez dakigun, zein erabilkera fundamenturekin, baztertu nahi den bat, bestearen alde (bai, zein fundamentu logikorekin).

de una de las siguientes maneras: *Emakuma orrek-gure Aitagaz-etorri zirean-atzo*, ó *atzo-gure Aitagaz-etorri zirean-emakume orrek* … etcétera.[318]

Ideiaren jatorriaren gainean, gogora liteke, Astarloaren espirituaz gain, Azkuek ezagutzen zuela 1891rako ere, Inchausperen oso antzeko erreflexioa, 1858ko *Le verbe basque* lanean, euskarazko esaldien ordenamendu malgutasunen inguru, hauen permutazioen adibide eta guzti.[319] Gero Azkuek oso antzeko ideiak segiko ditu errepikatzen bere heldutasun garaian ere. Hala nola 1928an (*Disc*., 1928, 18 or.):

> Generalmente en las lenguas, examinadas tal cual ellas son, no tal como han sido desfiguradas por los poetas y algunos literatos, la construcción es inalterable entre vocablos que forman un miembro de la frase. Ahora, tratándose de un miembro respecto de otro miembro, su construcción, en algunas lenguas, singularmente en vascuence y no poco en castellano, es enteramente libre.[320]

Eta 1949an ere (*Est. Comp*., 1949, 33 or.):

> La construcción sintáctica es a veces obligada y otras veces libre. Es obligada en los vocablos que forman un sintagma compuesto. [«*sobre todo en nuestra lengua*» eransten du hurrengo orrialdean] … / En cambio, es libre la construcción entre sintagmas simples. La frase arriba expuesta, *Aita dator gaur pozik*, etc. [*Donostiatik zerbaitez*], podría decirse muy bien *gaur ... aita ... dator ... Donostiatik* o *Donostiatik aita dator gaur*, etc.; o *pozik dator gaur aita*, etc.; o *zerbaitez dator gaur aita pozik Donostiatik*.[321]

4.1.1. Ordenamendu askatasuna 1891n ere?

Behin ezagutu eta gero, Azkuek 1891z geroztik eginiko iruzkin hauek, beharbada interpreta litezke zentzu beronetan, jada 1891ko *Izkindean* egiten dituen zenbait baieztapen ilunxeago, euskarazko ordenamendu askatasunen inguru. Hala, *Esapidea / Construcción* atalaren sarreran eginikoak (justu predikatu ondoren kurioski, ez dagoela alor honetan, *euskara baino hizkuntza arautuagorik*; 334 or.): «*La construcción de las palabras separadas suele siempre ser la misma, no suele poder alterarse; cuando suelen formar oraciones, los elementos que á veces se anteponen, otras veces pueden posponerse*.» Edota esaten duenean aurreraxeago (341 or.): «*... La construcción de los elementos de las oraciones no siempre suele ser la misma: á veces se dice el ser antes del objeto, otras veces por detrás. Otro tanto sucede también con los demás elementos* [el ser, el atributo, el auxiliar y el objeto].» Baina 4.2. atalean mintzatuko gara zehaztasun gehiagoz, Azkueren 1891eko prediku eta sistema astarloarrez.

4.1.2. Azkueren muga gaindiezina euskararen ordenamendu askatasunari. «Xà» fenomenoaren haritik.

1928 eta 1949an Azkuek hala ere, bietan hitzegingo du agerian, euskararen erabateko eraikuntza askatasun horren salbuespen bakar edo nagusiaz bere ustean, aditzari espreski debekatuaz, esaldi hasierako gunea. Hala 1949an (*Est. Comp*., 33 or.):

> … Hay una excepción en nuestra lengua. En las demás puede decirse: «viene hoy el padre contento de San Sebastián», poniendo en primer lugar el sintagma verbal.[322] En vascuence este sintagma no se pone en primer lugar, no siendo en aserto negativo y también en confiirmativo; pues así como no suena bien *dator gaur aita pozik*, es muy castiza la expresión *ezdator gaur aita pozik Donostiatik*, «no viene hoy», etc., como lo es igualmente *badator gaur*, «ya viene hoy», pronunciando con el mismo tono las tres sílabas de la flexión verbal; pues si pronunciamos *badator*, cayendo la sílaba final a la atonía, en tal caso el prefijo *ba* no es confirmativo, sino hipotético: *aita badator, betor ordu onean*, … / Como habrá podido notarse en la segunda parte de esta última frase, el sintagma verbal se antepone o puede anteponerse a los demás, no sólo en aserto negativo y confirmativo, sino también en aserto imperativo; pues tan bien suena *betor gaur aita pozik Donostiatik*, como *gaur betor aita* o *gaur aita betor*, etc. Para confirmación de lo arriba dicho, vaya una frasecilla muy usual en castellano, francés y alemán, para expresar, con cierta delicadeza, que

---

[318] Askatasun printzipioaren adibide izateaz gain, ohargarriak dira azken hiru esaldiak, Azkuek ez duelako jada hauetako batean ere ematen aditza esaldi bukaeran, arau cardaveraztiarrak aginduko lukeen bezala. Behin ere ez hala ere esaldi hasieran. Bestalde, esaldiak badira ere ohargarriak, kurioski batere gordetzen ez duten neurrian, Astarloak nagusi bezala predikatzen duen *adberbioa + aditza* orden segida.

[319] Zuzenean ez bazen ere, bai Campionen *Gramaticaren* bidez (ik. honen 782 or.). Azkuek bestela ez du aipatzen Inchausperen batere lanik, 1896ko *Metodo Practicorako* erabili dituenen artean.

[320] Gorago jaso dugu (1.4.1.2. atala), nola esaten duen harrigarriki Azkuek lan honetan bertan aurrerago (24 or.), prezeski eraikuntza askatasun honetan bide direla antzekoen, euskara eta gaztelania.

[321] Kuriositate bezala gogora liteke, nola irekitzen dituen Altubek 1919an *De sintaxis euskérica*, edo 1929an *Erderismos* liburua, biak *Aita dator gaur / Gaur dator aita* esaldi bikoteak komentatzen.

[322] Azkuek esanak esan, «en las demás» horien artean, ezin sartuko dira gaur eguneko frantzesa, ingelesa edo alemana bezalako hizkuntzak, zeintzuk ez duten onartzen, eta euskarak baino hainbat zurrunago, zuzenean aditzaz hasitako baiezko esaldi deklaratiborik. Nahiz Azkue, segidan ikus litekeen bezala, prezeski aleman eta frantzesarekin ariko den konparatzen euskara eta gaztelania.

uno tiene que ir a cierto lugar a hacer algo. «Vengo en seguida», se dice en castellano; *je viens de suite*, en francés; los alemanes, *ich komme gleich*. Nosotros decimos lo mismo, pero posponiendo el verbo: en vizcaíno, *oraintxe nator*: literalmente, «ahora mismo vengo»; en guipuzcoano, *berealaxe naiz emen*: «en seguidita estoy aquí».

Pentsa liteke adibideetatik, Azkue, bakarrik ari ote den debekatzen, aditz trinkoen erabilera euskaraz esaldi hasieran buruzuri (euskarazko «Xà» fenomenoaren ezaugarrien ildotik edo; eta Altubek horren garratz salatu bezala 1919z geroztik).[323] Ordea 1928an, Azkuek antzeko gaitzespenak egiten ditu batere zalantzarik gabe, aditz konposatuen gainean ere, esaten duenean (1928, *Disc*., 24-5, eta 31, orr.):

… Si nos dicen ¿cuándo ha venido usted?, contestamos siempre, por ejemplo, hoy he venido *gaur etorri naiz*; jamás: he venido hoy *etorri naiz gaur*. A las preguntas ¿cómo ha venido usted? ¿a qué va usted allá? nunca respondemos «he venido muy a gusto», sino «muy a gusto he venido» *oso erara etorri naiz*, ni «voy allá a comer», sino «a comer voy allá» *bazkaltzera noa ara*. / El verbo no empieza ninguna frase vasca bien construída, como no sea en el imperativo. Débese esto sin duda a que no hay ningún interrogativo que corresponda al verbo. Y aun en locuciones como «me voy», en que no hay complemento alguno que pueda anteponérsele, nos valemos del modal afirmativo para darle una fuerza que de suyo no tiene, diciendo ya voy *banoa*, como en vez de «lo sabe, no tengo duda» decimos «ya lo sabe» *badaki, eztaukat ezbairik*. Da pena, por lo mismo, leer muchas traducciones que se han hecho a nuestra lengua. El príncipe Luis Luciano Bonaparte, insigne vascólogo y benemérito vascófilo, a quien nunca agradeceremos suficientemente lo que se ha esforzado y sacrificado por nuestro idioma, hizo traducir del latín, del español o del francés multitud de obras al vascuence: la Biblia entera a dos dialectos, y diversos libros de ella a unas cuantas variedades subdialectales … etc. [Eta Azkuek oharrean segitzen du kritika zehatza lanaren bukaeran (31 or.):] El año 1878 salió a luz en Londres la Parábola del sembrador, traducida a los ocho dialectos del vascuence y a cuatro de sus subdialectos. … Seis de los traductores empiezan su texto por el verbo correspondiente al latino que les sirvió de original: *exiit seminator seminare semen suum*: *irten zon … atra ze … yalgi zuun … elki zinuen … elki zen … erkin zen*.

Azkueren gaitzespenak orokorra dirudi kasuan. Nahiz finean, ez den ariko, euskarazko «Xà» fenomenorako ohizko joera defendatzen baino, aditza multzo foniko baten bigarren elementu bezala emateko (eta inoiz ez dena horregatik salbuespen ohargarririk gabeko joera, gure hizkuntz tradizio nagusi guztietan; are Azkue beraren hainbat adibidetan, ikus litekeen bezala lan honen 7.3., 7.4. ataletan). Azken Azkuek, agian esaldia hasteko debeku honetara mugatu nahi luke bakarrik, teorian bederen, aditz posposizioaren lege cardaveraztiarraren interpretazioa. Eta ikuspegi honetatik, beharbada berrinterpreta litezke, nolabait, Azkueren 1891ko *Izkindeako* arauak, gorago ikusi ditugunak (3.2. atala), aditz nagusiaren eta esaldiko konplementuen ordenaz esaldian, nahiz Azkueren praktika kultoak, beti eramaten gaituen hurbilago, aditz posposizio erregelaren interpretazio cardaveraztiar absolutoagoetara.[324]

4.2. Esaldiko elementurik garrantzitsuena esaldi hasieran.

Aditzaren guneaz emandako arau cardaveraztiar murritzaileez gain, Azkue 1891tik bertatik ahalegintzen da zerbait gehiago arautzen eta sistematizatzen, bestelakoan esaldiko elementuen ordenamenduari eman itxura dion askatasuna.

4.2.1. Zehazten Astarloaren noblezia kontzeptua

Astarloak, nahikoa garbi teorizatzen du bere lanetan, printzipio filosofikoa: hitzak kokatzen dira euskal esaldian, hauen nobleziaren arabera.[325] Nobleenak aurretik; beste guztiak ondoretik, noblezia mailaren katean, bigarrenetik azkenekoraino. Azkuek hasieratik onartuko du Astarloaren printzipioa bere sistemaren gida bezala. Hala honen presupostuetan,[326] nola problemetan. Ezen, problema baita, ez txikia, praktikoki definitzea esaldi

---

[323] Bide honetatik interpreta litezke, Azkuek (Eguskitzarekin eztabaidan, *ba* ala *bai* partikulen erabileraz aditz trinkoen aurrean), esaten zituen beste hitz hauen antzekoak ere, bere lizentzia eta gaitzespenekin (*Euskera*, 1922, 66 or.): «Aditz aurretik darabilguz *oinez, itxasoz, eznez … oinez goaz, itxasoz daroagu, eznez beterik* (eztogu esaten *goaz oinez, daroagu itxasoz, beterik eznez*) …»

[324] Ik. ere hurrengo 4.2.2.2. atala, 1891ko *Izkindeako* iritzien inguru.

[325] «... han de colocarse los conceptos segun lo exige su nobleza», *Disc. Filos*., 501 or. Ik. zehatzago berari eskainitako atalean.

[326] Presuposizioa izango baita, esaldiko elementu nobleenaren gunea kokatzea, besterik gabe, esaldi hasieran, Astarloak egin bezala, eta gero Azkuek. Presuposizio honek hala ere, badu bere arrasto garbia, XVII eta XVIII mendeetako gramatika eztabaidetan Frantzian, nondik Astarloagana. Oraindik orain ere irakur liteke, XX mende honen azken laurdeneko gaztelaniazko sintaxi liburu arrakastatsuenetako batean, segidakoak bezalako baieztapen eta adibideak, bestelakoan oso eztabaidagarriak edozein hizkuntzatan, eta areago beharbada gaztelaniaz (S. Gili Gaya, *Curso superior de sintaxis española*, 1961; 15ª ed., VOX, Sept. 1983, 85 or.): «*La anteposición de un elemento cualquiera supone siempre una condensación en él del interés del que habla. Si digo que* a las siete vendrá Juan*, doy importancia principal a la hora de su venida; si digo que* vendrá Juan a las siete*, realzo en primer término la afirmación del hecho; …*» Ez litzateke horrelako hitzetan, gutxiena harritu

elementuen noblezia bezalako kontzeptu bat, erakusten duten bezala Astarloaren diskisizioek, jatorrizko, ministeriozko eta mobilitatezko noblezien inguru, zeinak ez duten bukatzen batere garbi uzten, zertaz ari garen, elementu nobleenaz-eta ari garenean (batez ere mobilitatezko nobleziaren inguru). Astarloari nolanahi ez dio gehiegi ajola. Bera, filosofiatan ari da soilik. Azkueri ordea bai, lege praktiko bat behar duelako. Baina Azkuek, nahikoa duin konponduko du auzia.

4.2.1.1. Elementurik nobleena = elementurik garrantzitsuena: aurretik.

Azkuek, nobleziarena baino kontzeptu erabilgarriago bat behar du gramatikan, neurgarriago bat, esaldi ordenamendu irizpideak eraikitzeko. Eta besterik gabe esango du, *noblezia* ordez, *garrantzia* (*garransia*; *Izk*. 334 or.): «*Astarloa-ko izkiralari burutsuak' itzen esapidea bear dainez aztertuteko' euren garransia gomutan euki bear daila dino*. [eta oharrean:] *Leinartasuna dino berak. /* Nobleza *dice él. (Discursos filosóficos 755.)*». Eta horrela berridatziko du Azkuek Astarloaren ordenamendu legea (341 or.):

> …: garransirik geien daukan gaia aurretik ipinten dai, gitxien daukana' atzetik.

4.2.1.2. Mobilitatezko elementu garrantzitsuena = gai bilatua (elementu inkiridoa): aurretik.

Azkuek nahikoa argi laburtzen du *Izkindean* (335 or.), Astarloaren ikuspegia, hiru noblezia -garransia- moten inguruan. Eta Astarloak bezala aldarrikatuko du, hiruretan gailena bezala, *mobilitate edo merituzkoa* (*eragintasunezkoa*, esango du Azkuek euskaraz). Astarloa baino aurrerago joanda ordea, eta Azkuek bere kabuz pontifikatuko du jada, nola *eragintasunezko garransia* hau izango den, soilik, aplikatuko dena, esaldi-perpausetako elementuen ordenamendua finkatzeko garaian. Hala dio (335 or.):

> La primera de estas importancias [jatorrizkoa] se aplica en pocos casos; la segunda ó la de ministerio donde se aplica mejor es en las relaciones de palabras separadas; la tercera ó de movilidad en los elementos de oraciones.

Arazoa da bada, finkatzea zer den mobilitatezko garrantzi hori, esan bezala, horixe delako Astarloak ilunen uzten duen atala. Eta horretarako Azkue, ordura artean euskal letretan batere erabili gabeko kontzeptu berri eta zehatzago bat saiatuko da eraikitzen: *gai bilatua* edo *elementu inkiridoarena* (*hiztunaren asmoa*); horrela bere errota propio eta praktikoxeagoetara eramanez, Astarloaren ubide arreagoak. Egia esan, maisutasunez egingo du (341 or.):

> … Para saber cuál sea el elemento prepositivo debe saberse cuál tiene la importancia de movilidad: se coloca por delante el elemento que más importancia tenga, el que ménos tenga por detrás. Para adivinar á favor de cuál está la importancia lo mejor es conocer la intención del que habla, y la intención del que habla podremos conocerla sabiendo *cuál sea el elemento inquirido*. / Ona emen lenengo araua: *gai bilatua* [elementu inkiridoa] *zein dain iakitea*. / Gai bilatuak itz bilakien erantzumenak daiz; itz bilakiak zortzi daiz: *nor, zer, non, zelan, noiz, zelangoa, zein* ta *zeinbait* [sic].

Ez da erabat samurra izan, Azkuek egin behar izan duen bidea, Astarloaren indefinizio filosofikoetatik, *Izkindeako* argitara. Bai ordea, arteza. Ordainez, *elementu inkiridoarena* izango da, Azkuek 1891ko *Izkindean* euskal joskeraren gramatikari egindako opari propioen artean, arrakasta gehientsuena bereganatuko duena XX mendeko euskalzaleen artean, Cardaverazen gordintasunen gainetik, eta Astarloaren filosofien azpitik.

4.2.1.3. Elementu garrantzitsuena = la idea más noble ó capital.

Azkuek 1896ko *Metodo Practicoan*, aipatzen du, euskararen eraikuntza egitura libre eta behartuen gain hitzegin eta gero (gorago jaso dugu aipua), *idea más noble ó capital* baten kontzeptua, *garrantziarenaren* eta (pentsatzekoa da) *elementu inkiridoarenaren* pareko, esaldiko elementuen ordenamendurako gida bezala, nahiz bertan ez duen gehiago garatzen ideia. Hala esaten du (57 or.):

> Tanto en la construcción libre de los miembros entre sí como en la necesaria de las palabras que constituyen cada uno de ellos, se debe atender á la idea más noble ó capital. Esta doctrina se expondrá más circunstanciadamente en el capítulo V del Compendio final.[327]

---

behar gintuzkeena, hauek erakusten duten antza Altuberen dogmekin, euskarazko hitz ordena arautu nahian, prezeski Altubek, gaztelaniaren kontrara. Beharbada dute amankomuneko iturri bat, aztertu beharrekoa.

[327] Zoritxarrez konpendio hau, esan bezala, ez zen argitara eman bere garaian, eta galdutzat ematen da gaur egun. Nolanahi, bada ohargarria, Azkuek 1896an altxatzen duen kontzeptu honek duen antza, Zamarripak 1918an, *La Gaceta del Norte* egunkariko «Ratos de euskeralogía» atalean, Azaroaren 2an argitaratzen duen artikuluaren izenburuarekin: *La idea capital en las frases vascas*; eta non, fortunaz, prezeski datorren garatzera, gero Altuberi hainbesteko sona emango dioten oinarrizko ideia berberak, detaile txikienetan ere, kurioski Altubek bereak argitaratu baino urte bete-edo lehenago. Zeinenak

4.2.1.4. Hitz eta ideia printzipalaren, eta elementu inkiridoaren tradizio europar baten inguru.

Bada kontzeptua, euskal letretan berria izanagatik, ez da Azkuek asmatua. Ez dakigu zuzen berak nondik ekartzen duen gurera, baina garbi dago, kontzeptu berori dagoela arnasean, XIX mendeko Europako (eta segurasko Espainiako) eztabaida gramatikal guztietan hitzen ordenamenduaz.[328] Besteak beste, piska bat begiratu besterik ez dago, Henri Weil-ek 1844ean frantzesez argitaratzen duen bezalako liburu arrakastatsu bat (*L'ordre des mots dans les langues ancieennes comparés aux langues modernes*; hiru argitalpen badituena bederen 1879 bitarte), eta non garatzen diren argi asko besteren artean, *mot principal, mot accentué, idée principale, but du discours* bezalako kontzeptuak *predikatuarenaren* aldean.

Zehatzago, *elementu inkiridoaren* ideiaren inguru, Otto Jespersenek egiten du besteak beste, 1924 argitaratzen duen *The Philosophy of Grammar* liburuan («Sujeto y Predicado» kapituluan, 167-180 orr.),[329] antz bateko kontzeptu sail baten historiotxo bat. Bertan jasotzen da esateko, *Stout, psikologo eminentearen* segidako aipua, interesgarria, jabetzeko, XIX mendeko arnas giro posible horretaz (168-9 orr.):[330]

> El predicado de una frase es la determinación de lo que previamente estaba indeterminado. El sujeto constituye la calificación previa de aquello de lo que se habla a la cual se añade una nueva calificación. El sujeto es el producto de lo que ha precedido y que forma la base inmediata y el punto de partida para el desarrollo posterior. El predicado constituye dicho desarrollo posterior. … Todas las respuestas a preguntas son, en cuanto tales, predicados y todos los predicados se pueden considerar como respuestas a posibles preguntas. Si el enunciado *I am hungry* es una respuesta a la pregunta *Who is hungry?*, entonces el predicado es *I*. Si fuese una respuesta a la pregunta *Is there anything amiss with you?*, entonces *hungry* es el predicado. Si la pregunta es *Are you really hungry?*, entonces *am* es el predicado. Cada nuevo paso en una cadena de pensamientos debe considerarse como una respuesta a una pregunta. El sujeto, por decirlo así, es la formulación de la pregunta; la predicación es la respuesta.

4.2.2. Beraz gai bilatua-elementu inkiridoa, esaldi hasieran. Baina eta besteak? Eta aditza?

Zuzen edo oker, Azkuek nahikoa garbi bideratzen du esaldi hasierako elementuaren arazoa. Baina, zein izango da bigarrena? Eta hirugarrena? Zein aditzaren gunea esaldian? Nola ezagut liteke esaldiko beste elementuen *mobilitatezko garrantzi gradua*? Azkuek ez ditu jada orduan kontuak horren garbi, azkenik *Izkindean* bertan aitortuko duen bezala (343 or.):

> 774. Lengo arauaz zein itz lenengo ipini azaldu dai. / En caso de que las oraciones además de elementos tengan cuatro ó cinco complementos ¿cómo se sabrá cuál debe decirse el primero, cuál el segundo, cuál el tercero … y cual el último? - Para esto debe recordarse también la importancia de los complementos, y no pudiendo hacerse bien esto, el buen *estilo* de cada cuál acompañará al locutor ó al escritor.

Egia esan, ez da oso irtenbide loriosoa, hain zuzen predikatzen zuen autore harentzat, munduan ez zela euskara baino hizkuntza arautuagorik hitz ordenaren atalean.[331] Interesgarria gertatzen da ordea, Azkuek *lehen lege astarloarrarekin* (*esaldi hasieran elementurik garantzitsuena*) ematen duen adibidearen arrastoa segitzea, Azkueren azken galdera horien erantzun posibleak ikustatzeko. Hala (342 or.):

> *Andresek gaur arrain eder bat itxasotik ekarri dausku*. Esakizun onetan lau gaiak [elementuak] dagoz agirian, eta ganera aditzan osaki [konplementu] bi bere bai: *Andresek* = sér (sujeto), *arrain eder bat* = objeto, *ekarri* = atributo (atributo de acción ó verbo), *dausku* = existencia ó auxiliar, *gaur* = complemento de tiempo, *itxasotik* = complemento local. / Nik lenengo esaniko itzak' edo bezte bostetatik bat zein batek garransi geien itzginantzat euki daike, edo bere alegina [intención] edozein gaitan euki al izango dau, edo obeto esateko' *itz bilatua* sei itzetatik edozein izan leike: augaitik gai ta osaki onen esapidea ezdai beti bardina izaten. / *a)* Itzginari *noiz* ekarri dauan galdetu edo itanduko bageuskeo' ó bien si su intención fuera manifestar *el tiempo*, autxe izango litzake esakizun onen esapidea: GAUR *Andresek arrain eder bat itxasotik ekarri dausku*. / *b) Nondik* …: ITXASOTIK *arrain eder bat ekarri dausku gaur*

---

dira Zamarriparen 1918ko ideia zorrotzak, gero berak apenas errepikatuko dituenak bere gramatikaren argitalpen zuzendu ugarietan? Azkuerenak? Azkueren koadernoetakoak, *Konpendio Teoriko* honetakoak? Zergatik ez?

[328] Eta funtsean baita ere, greziarren garaietatik hasita (*rema*-en definizioekin, *onoma*-en parean), gizateriak izan dituen eztabaida guztietan hitzen ordenamenduaren gainean.

[329] Gaztelaniazko itzulpena erabili dugu: *La filosofía de la gramática*. Anagrama, Barcelona, 1975.

[330] Guk pentsatu dugu, Otto Jespersenek aipatzen duen psikologo ospetsu hau, ote den, *George Frederick Stout* (1860-1944) britaniarra; eta hitzak beharbada atereak, honen *Analytic Psychology* (1896), edota *Manual of Psichology* (1899) liburu sonatuetatik.

[331] Eta izan ere, Astarloak, oso goi utzi zuen bere muga, filosofian ari zen bitartean, hala egozten zielarik beste hizkuntzei, 1804ko *Reflexio Filosofikoetan* adibidez (105 or.): «Ninguno [de los idiomas] instruye sobre sí ésta ó la otra voz ha de ser la primera que se ha de colocar en nuestros conceptos. Ninguno de ellos nos dice cual ha de ser la segunda, qual la tercera. Mas el bascuence prescribe por reglas invariables que ...» Ordea, Azkueren argitasun beharraren kaltetan, Astarloaren erregelok, inbariableak bezain ezezagunak izango dira, edo inpraktikableak eta inpraktikatuak euskaraz.

Andresek. / *z) Nork* …: ANDRESEK *gaur arrain eder bat itxasotik ekarri dausku*. / *d) Zer* …: ARRAIN EDER BAT *ekarri dausku gaur itxasotik Andresek*. / *e)* Gitxitan aditzan alde egoten dai itzginan alegina, esakizun luzeetan gitxiagotan. *¿Ekarri dautsu Andresek?* inork itanduez gero' *ekartean* dago garransia, ta *ekarri dausku Andresek* erantzun al izango litzake. *Ez* ta *ba* aldagaiakaz [modifikatiboakaz] sarrien eukiten dau aditzak eragintasuna bere alde: …

4.2.2.1. Ordenamenduen bitxikeria: Etenak, elementu tartekatuak, galdegaiak eta aditzen artean.

Ezin bitxiagoa gertatzen da gaur egun, areago prisma altubetarretatik, Azkuek 1891ko adibideko esaldiei ematen dien ordenamendua:

a) *noiz* galderari erantzunez: GAUR Andresek arrain eder bat itxasotik ekarri dausku.
b) *nondik*: ITXASOTIK arrain eder bat ekarri dausku gaur Andresek.
z) *nork*: ANDRESEK gaur arrain eder bat itxasotik ekarri dausku.
d) *zer*: ARRAIN EDER BAT ekarri dausku gaur itxasotik Andresek.

Denetan ere, ezin garbiago egonik zein den esaldiko galdegaia, Azkuek beti esaldi hasieran ematen duena, bere lege astarloarrak agindu modura, lehenengo hiruretan Azkuek beste elementu batzuk tartekatzen ditu, harrigarriki, *elementu inkiritu* hau eta aditzaren artean (esaldi amaierara bidalia hiruretan, Cardaverazen lege onean; esaldiaren jatorrizko formulazio berean bezalaxe). Eta etenez hala, bien arteko «Xà» moduko lotura perifrastiko estua, Cardaverazen eskolako estilorik propioenean.[332] Bakarrik laugarrenean (z) (hain zuzen *inkiridoa* esaldiko *objetua* den kasuan),[333] ematen ditu Azkuek elkarren segidan, esaldi hasierako galdegaia eta aditza, beste elementu guztiak utziaz ondorerako. Dudarik gabe saiatzen da Azkue adibide guzti hauetan, nolabait batzen edo amankomunatzen, bere sistema desberdinetako legeak.

4.2.2.2. Aditza gutxitan doa euskaraz esaldi hasieran. Eta gutxiago esaldi luzeetan.

Horrela berrirakur liteke, oker handirik gabe, Azkueren adibideko azken aukera (*e*): «*Gitxitan aditzan alde egoten dai itzginan alegina* [intentzioa]*, esakizun luzeetan gitxiagotan*.» Eta hori ere bihurtuko du Azkuek aurrerantzean nolabaiteko arau, nahiz gure tradizioak zeharo bestela erakutsi.[334] Badu noski 1891eko iruzkin honek zerikusirik, goraxeago 4.1.2. atalean jaso ditugun Azkueren geroagoko baieztapenekin, aditzari beti ukatu nahian, esaldi hasierako gunea.

5. Azkueren lege altubetarra: galdegiten den bezala erantzuten da.

Ikusiak ikusita, itxuraz tarte dexentea dago oraindik, Azkueren 1891ko ordenamendu sistema astarloarretik, lege altubetarrera. Kontutan hartu behar da ordea, Azkueren oinarrizko sistema astarloar hau, ez dela harrigarria gertatzen, bakarrik, ikuspegi altubetar batetik begiratuta. Nahiko bitxia da ere, garai berean Azkueren ohizko beste ikuspegi eta praktiken aldean, zeinak, zinez, askoz hurbilago dauden dogma altubetarretik, sistema astarloar berezi hau baino, ikustera goazen bezala segidan.

5.1. Galdegilea + aditza: derrigorrezko segida.

Azkuek, garrantzi berezia ematen die *Izkindean*, *itz bilakiei* (*galdegilei*),[335] *itz* edo *gai bilatuei* (*elementu inkirituei*), eta hauen joskerari euskaraz (eta are beste hizkuntzetan). Hala esango du adibidez, eskainiaz galdegile hauei ohituraz esaldi hasierako gunea, euskaraz bezala hizkuntza guztietan (83 or.): «*Itz bilakiak garransi guztiz andia dauke izkeretan; … / Izkera guztietan' esakizunen aurretik geien geienean ipinten daiz*.» Azkuek bestalde oso garbi edukiko du, nola galdegileak eta aditzak segida estu horretan lotzen diren euskaraz, eta hala predikatuko du, esaldiko elementuen ordenamenduari eskaintzen dizkien bederatzi arauen azkenekoan (345 or.):

---

[332] Ordenamendu modu bat, batere ezohizkoa gertatzen ez dena bestalde, *Izkindeako* prosan bertan (ondo suma litekeen bezala, hemen bertan jasotzen ari garen aipuetan), edota Azkueren lehenagoko zein geroagoko lanetan ere, 3.3.1. ataleko adibideetan ikusi ahal izan dugun legean.

[333] Hurrengo atal *greenberg-de-rijktiarrean* mintzatuko gara Azkueren *objetua-aditza* (OA/OV) segida bereziago hauez.

[334] Eta oso bereziki: hainbat eta joera gehiago erakusten duela euskal aditzak, esaldi aurrealdean (eta are hasieran), agertzeko, zenbat eta luzeagoak izan esaldiak, nahiz ez orduan bakarrik Nolanahi, aditza erabat artifizialki atzeratzeko joerak gora behera, Azkuek berak ere ez du zenbaitetan inolako eragozpenik izango aditza esaldi hasieran bertan emateko, nolabaiteko arintasuna eskaini nahi dionean kontakizunari. Irakurri besterik ez, 1897ko *Batxi Guzur* narrazioaren adibideok orrialde bakarretik atereak (115 or.): *…; ta eskatu eutsen, mesedez atara eiela dantzara Satikako* indianoa. *… / Itaundu eben gero Izpastertarrak nortzuk zirean birreskuak; agertu iakezan bi; ta esan eutsen, aurreskuko neskatillai Izpastertar mutillak dantzara ateratearren, mutillen kontura izango zala danentzako gosari eder bat, … Asi zan dantzea: …* Azkueren nahikoa adibide gehiago jasotzen ditugu nolanahi aurrerago, 7.3. eta 7.4. ataletan.

[335] Atal berezi bat eskaintzen die 82-7 orrialdeetan.

782. BEDERATZIGARREN ARAUA. Itz bilakiak oituten daizan esakizunetan' euren atzetik ipini bear izaten dai aditza. / *¿Non egon dai* aita? *¿Noiz ikusi daue* gure etxea? *¿Zelan dagoz* Txomin ta nire bezte adizkideak? *¿Nork zuritu dautsa* Txomini burua? *¿Zeinbait aritz daukaz* bere etxe-aldean?[336]

Azkuek antzera errepikatzen du araua, 1896ko *Metodo Practicoan* (54 or.):

I. Construcción de los interrogativos y el verbo**.** / I. Los interrogativos ó inquisitivos como *nor, nortzuk* y los demás de que se habla en el capítulo IX del compendio final, se construyen poniéndolos delante de los verbos: *¿Nor da?* (*Peru Abarca* 93, 22)

5.2. Eta, galdegiten den bezala erantzuten da. Ergo: galdegaia + aditza, Altubek predikatu bezala.

Nahiz bestela ere presuposatu ahal izan Azkueren bagai teorikoen artean, soilik 1894ko *Ensayo Practico* eskuidatzian aurkitu ahal izan dugu agerian idatzita, Azkueren garrantzizko lege hau, orduan dioena nahikoa argi (*Tema 15*, 33 or.):

2.º Como se pregunta se contesta. Esta regla suprema de construccion está explicada en la pág. … / Esto quiere decir que si por ejemplo se pregunta *¿Non dago Txomin?* se debe contestar: *Txomin etxean dago*.

Adibideak gordetzen ez duenez gune bera galderan eta erantzunean *Txomin* sujetoarentzat, esango litzateke, Azkuek ordena berdintasuna aipatu nahi duela, soilik, aditza eta galdegile edo galdegaiaren arterako. Galderan derrigorrez aurkitzen badugu *galdegilea + aditza* segida, erantzunean, *galdegaia + aditza* ordena aurkituko beharko dugula. Hala iragarri arren, Azkuek zoritxarrez ez du gero inon esplikatzen 1894ko lanean, *erregela supremo* hau. Agian gorde zuen azalpen hau ere, 1896ko *Metodo Practicoan* hainbeste agintzen duen *konpendio teoriko* argitaratu gaberako. Ohargarrien litzateke nolanahi, argumentazioak gordetzen duen parekotasuna, Altubek gero nagusiki erabiliko duenarekin, bere lege nagusia eraikitzeko.[337]

5.2.1. Horixe zen, 1891ko Izkindeako praktika ere.

1894ko legea agerian predikatu ez arren, Azkuek *Izkindean* zehar maiz erabiltzen du argumentazio edo erakusbide sistema bezala, galdera / erantzunen jokoa. Oker ez bagaude, aipatu ordenamendu lehen lege astarloarrarekin emandako adibide arrotz horietan salbu,[338] Azkuek, *Izkindeako* beste adibide guztietan gordeko du, ordenamendu segida berbera galderan (*galdegilea + aditza*), eta erantzunean (*galdegaia + aditza*), inoiz hautsi gabe elementu hauen lotura estua, nahiz esaldiek konplementu bat baino gehiago eduki, galdegaiak esaldi osoak izan, etc; Azkueren kasuan kasuko iruzkinek ere gehienean egingo dute nolabait segida horren alde.[339] Zentzu honetan, berrirakurgarriak gertatzen dira Azkueren 1891ko segidako hitzak, Astarloaren *eragintasunezko* edo *mobilitatezko noblezia-garransiaren* arazoa argitu nahian (335 or.):

Eragintasunez [mobilitatez]' batzuetan izatea edo egilea izaten dai garransi andiendun gaia, bezte batzuetan adizkia [objetoa], ta sarri osakiren [osagairen] bat. *¿Nor ioan dai etxera? Aita ioan dai etxera*. Gertari [adibide] onetan *aita*-n alde dago eragintasuna [mobilitatea]. / *¿Nora ioan dai aita? Etxera ioan dai aita*. Gertari onetan barriz osakiak [konplementuak] dauka eragintasuneko garransia [la importancia de movilidad].

---

[336] Legeak lege, ikusi dugu 3.3.1.2. atalean nola Azkueri ere inoizka isurtzen zaion galdera hautsiren bat.

[337] Ekiten bait dio Altubek 1919ko *De sintaxis euskérican* (6 or.), nola 1929ko *Erderismosen* (3 or., nondik aipua): «§6. Adoptando la denominación del Sr. Azkue, llamaremos, pues, miembros inquiridos ["«elementos inquiridos de la oración» (y también «términos acentuados»)" esaten du 1919an] a aquellos que como el «Aita» y el «Gaur» señalados en el párrafo precedente, ocupan en las oraciones ordinarias, por su importancia y por el acento especial que se les imprime en la pronunciación, el mismo lugar que las palabras interrogativas o inquisitivas («Nor», «Noiz», etc.) en las oraciones de interrogación.» Edota aurreraxeago bi lanetan (1919, 8 or.; 1929, 6 or., nondik aipua): «§11. La regla principal acerca del empleo en la oración del miembro nominal inquirido ["término inquirido de la clase señalada" esaten du 1919an], es que debe ser colocado inmediatamente antes del verbo ([eta orripeko oharrean] Es la misma regla que rige en la colocación de los vocablos inquisitivos o interrogativos: …)»

[338] Ik. 4.2.2., 4.2.2.1. eta 4.2.2.2. atalak.

[339] Hala nola adibidez: «*Nor dator* itanduten dainean' *neu nator, Peru dator, geu gatorz, eurak datorz* … erantzuten dai.» (210 or.); «*¿Nork euki dau ene liburua? Ak*. Esakizun bi dagoz emen: lenengo esakizunean erabagian gai guztiak agertu dautaz, bigarrenean bat bakarrik dago agirian: egilea. *Ak euki dau ene liburua* esan bearrean *ak* esan dai' aditza, izakizuna ta beronen adizkia estalduta.» (303 or.); «*Oraciones complementarias del verbo* / 739. Modu azkotakoak daiz onek. / a) *¿Zer* dino? *Ezdatorre*LA dino. / b) *¿Zergaitik* ian daustaz? *Gose dai*LAKO ian daustaz. / e) *¿Zertarako* il etedau? Mairako *balio daia*N il izango dau. / g) *¿Noiz* ekarri zeuazan? Durangotik *etorri gintzaza*NEAN ekarri geuazan. / i) *¿Noiztik* ago emen? *Eskondu nintza*NETIK nago emen.» (317 or.).

Egia esan, ez da ezer asko falta, 1891ko hauen antzeko erreflexiotatik, 1894ko *Ensayo Practicokoetara*, eta Altuberen sistemara. AITA *ioan dai etxera* / ETXERA *ioan dai aita*, bezalako esaldi bikoteen kontrajartzeak, ezin hurbilagotik gogorarazten digu Altuberen kontraposizio nagusia (*Gaur dator aita / Aita dator gaur* bezalako esaldien artean, 1919 eta 1929ko bi liburuki sintaktiko nagusien sarreran). Baina eraberean gogorarazten dizkigu, zentzu berean erakutsiko dituzten kontrajartzeak, Altubek berak baino lehenago, Eleizaldek 1911n,[340] M. Lekuonak 1918an,[341] edota Zamarripak 1918an ere.[342]. Guzti horregatik gertatzen dira harrigarriagoak, Azkueren sistemaren barnean, lehen ordenamendu lege astarloarrarekin erakutsitako etenak, galdegaiak eta aditzen arterako, nahiz bestelakoan badakigun eten hauek hainbat usuzkoak ere badirela, Azkueren ohizko prosan.[343]

Finean ez dirudi zailegia denik, Altuberen legeetan sumatzea, Azkueren protagonismo zuzena.[344]

6. Azkueren sistema greenberg-de-rijk-tiarra: Euskararen SOA (SOV) / OAS (OVS) egituren bidean (edo greenberg-de-rijk-tiarren askuenzeaz.)

Azkueren *Izkindeako* ordenamendu arauetan, bada oraindik beste bat, zor zuzenik ez diena Astarloa edo Cardaverazen iturriei, eta oraindik gehiago hurbilduko duena Azkueren sistema, ildo altubetar ezagunenetara. Azkuek agerian predikatzen du *Izkindean*, uste dugu lehenengo aldiz euskal gramatikaren historia txikian, nola, ordenamendu modu neutral-edo batean,[345] emango den euskaraz, esaldiko objetua, edo kasuan, atributua (maiz asko esaldiko elementu predikatiboenetakoak biak) aditzaren aurre justuan. Hala dio 5. arauean, eraikiaz laugarren ordenamendu sistema edo lege bat, guk *greenberg-de-rijk-tiarra* deitu duguna (344-5 or.):[346]

778. BOSKARREN ARAUA. Gaiak [elementuak] ia garransi bardina daukenean' *adizkia* [objetua] lenengo esaten dai,

---

[340] *Urira basoz-baso etorri gara / Basoz-baso urira etorri gara*, esaldien artean, in *Raza. Lengua y Nación vascas*, Euzkadi, 1911, VIII, 266 or.

[341] *Peru naiz ni / Ni naiz Peru*, esaldien artean, in *Métrica vasca*, 1918, Idaz-Lan Guztiak, 1, Ahozko Literatura, Kardaberaz Bilduma - 22, 1978, 154 or.

[342] *Dimara ori dator / Ori Dimara dator*, esaldien artean, in *La idea capital en las frases vascas*, Ratos de Euskeralogía, La Gaceta del Norte, 1918, Azaroak 2.

[343] Nolanahi, oraindik 1928an ere, Akademia espainolaren aurrean egiten duen *Diskurtsoan*, Azkuek egiten du halako iruzkin astarloar bat, nahiz gero adibideak altubetarrak izan, eta bereziago erabiliak, galerazteko, aditzak euskaraz esaldi hasieran ematea (24 or.): «En este viejo idioma, siempre que a uno le pregunten algo mediante cualquiera de los interrogativos, empezamos la respuesta indefectiblemente por el complemento correspondiente a este elemento de interrogación. Si nos dicen ¿cuándo ha venido usted?, contestamos siempre, por ejemplo, hoy he venido *gaur etorri naiz*; jamás: he venido hoy *etorri naiz gaur*. …» Bestalde, ezagutzen ditugu, Azkueren geroagoko oharño gehiago ere, euskarazko *galde-erantzun* sistema hauen inguru. Baina egia esan, batere berritasunik gabe eginak, 1891ko *Izkindean* emandako iritzien aldean, eta oraindik agian espero genezakeen zentzu *altubetarrago*-edo hori gabekoak. Begoz hala ere, Azkuek *galdegaia* + *aditza* segidaren barne sentitzen duen loturaren testigantza bezala, segidakoak legez, 1917ko *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular* liburuari eginiko, irakasleentzako azken erabilera adbertimenduen artean (108-9 or.): «... Podrán hacerse, acerca de la primera frase [*Orainarteko ikaskizunetan gizonarentzako izakiak aitatu ditugu*.], las preguntas siguientes, enfatizando adrede la palabra inicial. I.ª NOIZARTEKO *ikaskizunetan aitatu ditugu gizonarentzako izakiak?* Y el discípulo responderá: ORAINARTEKO *ikaskizunetan aitatu ditugu gizonarentzako izakiak* ([eta orripeko oharrean erasten du:] No se satisfaga el profesor con que el alumno responda *orainartekoetan* o bien ORAINARTEKO *ikaskizunetan*, sino que ha de hacer que cada vez diga toda la frase. Así se le acostumbrará el oído, que es el principal vehículo de aprendizaje de una lengua.) / 2.ª ¿NORENTZAKO *izakiak aitatu ditugu ...? ...*: GIZONARENTZAKO *izakiak aitatu ditugu ...* / 3.ª ¿ZERTZUK *aitatu ditugu ...? ...*: IZAKIAK *aitatu ditugu ...* / Acerca de la segunda frase...: / I.ª ¿ZEINBAT *izaten dira beraren burua elikatzeko? ...*: BATZUEK *izaten dira beraren burua elikatzeko*. ...»

[344] Zeinaren gainean, E. Erkiagak ere ohartzen duen, besteak beste, Altuberen joskera legeen defentsan, eta Villasanteren aurka, egindako artikulu batean («Requiem Altuberen arauei», *EGAN*, 1975), esaten duenean (128 or.): «*Eta Altube maixua zenarekin batean, oni burua argitu ta bidea erakutsi zion Azkue bera ere, galdera-erantzun taxua klarki ikusi ta exponitu zuena ere*.» Nahiz ez dakigun zein datu edo fundamentu gehiago izan ditzakeen Erkiagak hau esateko, Altubek berak *Erderismos* liburuan aitortzen duen Azkuerekiko zor apurra baino.

[345] *Ez-markatu* batean edo esango lukete gaur.

[346] Hain zuzen, J.H. Greenberg irakaslea delako lehenbiziko sailkatzen duena euskara, 1963an, prezeski SOV (SOA) oinarrizko ordena luketen hizkuntzen artean, gerora ondo sonatua egin den *Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful elements* hitzaldi / artikuluan (J.H. Greenberg (ed.), Universals of Language, 58-90 orr., MIT Press, Cambridge, Mass.), nahiz bertan ez diren aipatzen, eta guk ez dugun ezagutzen, zein oinarri, testigantza edo fundamentu erabiltzen diren euskararen sailkapen honetarako. Greenbergen presupostuen oihartzun berriz, 1969an De Rijk irakasleak argitaratzen du, «Is Basque an SOV Language?» artikuloa (*FLV*, 3, 1969, 319-351 orr.), iritsiaz Greenbergen ondorio bereetara euskararen ordenamendu tipologien inguruan.

urrengo *aditza* (edo izakizuna [atributua]) ta laguntzailea' bear badau; *izatea* [*el sér*, sujetoa] adizkian aurretik ederto esan leike, edo aditz ta laguntzailean atzetik. / *Etxe+bat egin dau Andresek = Andresek etxe bat egin dau - Narrastia dai sugea = sugea narrastia dai - Bost+orri daukaz larrosatxoak = Larrosatxoak bost+orri daukaz*.[347]

6.1. 1896ko arau ageria atributua + aditza segidaz, gaztelaniaz ez bezala.

Ez dugu inon aurkitu Azkueren beste iruzkinik, *aditz / sujetu / objetu* elementuen ordenamendu irizpideez esaldian. Bai hala ere, 1896ko *Metodo Praktikoan* ikasleei ematen dien araua, atributua kokatuaz berriro euskaraz, ohituraz, aditzaren aurrean, eta sujetoa, perifrasi honen aurre edo atzean, norberaren borondatera-edo, S-At-A (S-At-V) edo At-A-S (At-V-S) moduko egituretan. Hala dio (38 or.):

VII. Ordinariamente el atributo se pone antes del verbo, y el sujeto se coloca ó bien á la cabeza ó bien al fin de los dos. *Ona da nire txoria* ó nire txoria ona da = mi pájaro es bueno. De tal manera que *es bueno, eres joven, soy viejo* deben traducirse de ordinario como si fueran *bueno es, joven eres, viejo soy = ona da, gaztea az, zaarra naz*.

Gauza bat dira ordea, 1891 edo 1896ko arauekin batera emandako adibide nahikoa argiak, eta beste bat, desberdina, halako adibideen gainetik eraiki nahi den erregela, jada ilunxeagoa.

6.2. Azkueren haustura tradizioarekiko.

Egia da, Astarloak benetan irmo defendatzen duela, euskararen ordenamendu modu bezala *adberbioa + aditza* segida,[348] eta honek eduki lezakeela zerikusiren bat Azkueren proposamenarekin.[349] Azkuek nolanahi, ez du inoiz agerian aipatuko adberbioaren gunerik esaldian.[350] Bestalde, Astarloak inoiz aipatzen badu, *Sujetu / Aditz / Objeturen* segidarik, egiten du prezeski, oso albotik bada ere, SAO (SVO) ordenamendua jasotzeko *orden segida naturala* bezala (euskaraz ere), nahiz beti izan hau aldagarria, beste irizpide funtzionalagoen arabera.[351] Ez dakigu Azkuek nondik erakartzen/eratortzen duen euskarara, arau berri propio hau, euskararen ohizko ordenamendu modu bezala defendatzen duena, OA (OV) edo At-A (At-V) ordena, beren bi aukeretan: SOA (SOV) / S-At-A (S-At-V), edo OAS (OVS) / At-A-S (At-V-S). Baina dagoeneko kategorikoki esan dezakegu, ez duela erakartzen/eratortzen gure tradiziotik.

6.2.1. Tradiziozko testigantza batzuk.

Dudarik ez dago / ez dugu, espirituz, eta estadistikoki, gure prosa tradizioa nagusia Azkue bitartean, Cardaverazen eskolakoa salbu, SAO (SVO) itxurakoa dela, euskararen betiko ordenamendu askatasunak gora behera. Bi adibide txiki baino ez ditugu jasoko hemen.[352]

6.2.1.1. Pachico Cherren.

1890ean argitaratzen da Bergaran, *Pachico Cherren* nobela laburra, Antonio Truebaren *El Judas de la casa* kontakizunaren egokitze propio bat, Anzuolako farmaziazale Antero Apaolazak egina.[353] Nobelatxo hau, Azkuek berak goraipatzen du behin baino gehiagotan, eta erabiltzen du bere lan didaktikoetarako.[354] *Izkindearen* garai berekoa izanik, eta Azkueren gustokoa, bera erabil dezakegu, Azkue berarekiko konparaketa baterako.

---

[347] Lege honek Azkueren sisteman, eta prosan, eduki lezakeen eragin anplifikatuaz ohart gaitezen, besteak beste, gogora bedi, nola etorri den Azkue *Izkindean* zehar behin baino gehiagotan predikatzen, mendeko esaldi konpletiboak-eta ez direla esaldi nagusiaren objetuak baino; eta praktikatzen ere esaldi hauekin 5. arau honetako SOA (SVO) ordenamendu modua, salbuespen gehiegirik gabe: «*Ez daukela dinoe, Ezdaugula ekarri esan dakio ...* / En estos ejemplos y en todos los semejantes á ellos el verbo relacionado suele ser objeto de los otros.» (218 or.). *Ergo* …

[348] Ik. berari eskaini diogun atalean.

[349] Araua gero Sabino Aranak ere jasoko du adibidez, Astarloaren eskutik.

[350] Eta aldiz, bere adibideetako asko eta askotan emango du adberbioa aditzaren ondoretik, Astarloaren araua hautsiaz inolako eragozpenik gabe, gorago ere gogoratu dugun bezala Azkueren *Metodo Practicoko* adibide batzuetan (4.1. atala).

[351] Hala esaten du (*Disc. Filos.*, 1883, 767 or.): «*Exige el órden natural que en primer lugar demos á entender el sujeto de nuestros conceptos, y después los atributos suyos, como son cualidades y relaciones: despues las acciones de este sujeto cualificado, y últimamente el término de su acción. Sin embargo, trastornamos este órden natural siempre que la necesidad ó utilidad nos impele á ello.*»

[352] Beste batzuk gehiago orain, gure *Hitz ordenaren estatistikak* lanaren lehen atalean, De Rijk-en *Is basque an SOV language?* artikulua eztabaidatzen.

[353] Oraintsuago berragitaratu du lana, egokitze/aldaketaren batekin, Erein argitaltxeak.

[354] Hala esaten du adibidez 1896ko *Metodo Practicoan* (44 or.): «... la preciosa novelita *Pachiko cherren* [eta orripeko oharrean argitzen du:] (Uno de los libritos escritos en euskera que más placer me han causado. Sería muy de desear que su autor diese más muestras de vida.»

Greenberg-ek, eta gure artean De Rijk-ek proposatutako esaldi tipologiaren ildotiko estadistikek, ez dute finean ezer asko argitzen, hizkuntza jakin bateko benetako esaldien ordenamendu joeren gainean; baina eskaintzen du nolabaiteko hurbilpen bat haien inguru. De Rijkek bere artikuluan emandako baldintza bereetan egin dugu *Pachico Cherrenen* estadistika, *Sujetu / Objetu / Aditz* hiru elementuak agirian dituzten esaldiena.[355] Segidakoa:

SAO (SVO)	55 esaldi	63,22 %
OAS (OVS)	18 esaldi	20,69 %
SOA (SOV)	10 esaldi	11,49 %
ASO (VSO)	2 esaldi	2,30 %
AOS (VOS)	2 esaldi	2,30 %
OSA (OSV)	0 esaldi	0,00 %
Denera	87 esaldi	100,00 %

6.2.1.2. Urruzunoren Ipuiak.

Beti argudiatu ahal da, *Pachico Cherren* Azkueren gustokoa izanagatik, ez dela konparagaria, ez delako zuzenean euskaraz sortutako lana, nahiz datu hauek gure tradizio nagusiak ematen dituen bataz bestekoen erdibidean-edo egon. Jasoko ditugu ere, Azkueren garaikide, lagun eta lankide izan zen Urruzunok (1844-1923) mende hasierako urteetan idatzitako *Ipuietako* estatistikak, izanik Urruzuno, Altube berak ere batere trabarik jartzen ez dion autorea:[356]

SAO (SVO)	56 esaldi	42,42 %
OAS (OVS)	23 esaldi	17,42 %
SOA (SOV)	27 esaldi	20,45 %
ASO (VSO)	18 esaldi	13,64 %
AOS (VOS)	3 esaldi	2,27 %
OSA (OSV)	5 esaldi	3,79 %
Denera	132 esaldi	99,99 %

6.2.2. Azkueren berrikuntza estilistikoa.

Segurasko dira SOA (SOV) egitura zaleagoak Urruzunoren ipuin berantiarrenak. Gehien jasan behar izan zutenak, Azkueren joskera berriko eskolaren eragina. Hala ere, aztertu bi testuen estatistikak erakusten du, oso nagusi, SAO (SVO) egitura. Baita ere, oro har, proportzio handiagoa, AO (VO) egiturena (67,82% *Pachico Cherrenek*; 58,33% Urruzunok), bere hiru aukeretan (SAO, ASO, AOS), OA (OV) egiturena baino (32,18% lehen kasuan, 41,66% bigarrenean), OVA, AOV, OAV, aukeretan. Kurioski, *Pachico Cherrenen*, SOA (SOV) egitura *greenberg-de-rijtiarrak,* ez dira 11,49% baino, eta Urruzunogan ere 20,45% besterik ez.

Azkueri, badakigu, *Izkindearen* garaian ez zaiola gehiegi interesatzen ezagutzea, berak proposatutako OA ordenamendu, kanonikotzako hori, den, edo izan den inoiz, bera bitarteko euskararen ohizko ordenamendu modua. Berak etorkizunerako arautzen du, eta ez da iraultzen beldur. Eta Azkue, *Izkindea* beretik saiatuko da idazten, berak arautu joskera moduan, hura izan ezta ere, euskararen ohizkoa. Eta gerora, Azkueren prosa estiloa, joskerari dagokionean, ez jada da gehiegi aldatuko bere bizitza guztian. Har dezagun adibiderako, eta konparaketa estatistikorako, Azkueren 1893ko *Bein da betiko* narrazio arrunta:[357]

SAO (SVO)	13 esaldi	15,85 %
OAS (OVS)	30 esaldi	36,59 %
SOA (SOV)	31 esaldi	37,80 %
ASO (VSO)	6 esaldi	7,32 %
AOS (VOS)	0 esaldi	0,00 %
OSA (OSV)	2 esaldi	2,44 %
Denera	82 esaldi	100,00 %

[355] Jatorrizko argitalpena erabili dugu esaldi kontakizuna egiteko.

[356] Hala esaten bait du esanguratsuki obra honen gainean, Altube jada heldu batek (*La vida del Euskera*, 1934, 52-3 orr.): «..., una obra de las muy pocas originales que, entre las publicadas en estos tiempos, merece verdaderamente el título de *literaria*. El euskera que emplea Urrunzuno [sic] en ese libro es la transcripción fiel del habla del pueblo; ...» Eta hala izaki … Urruzunoren esaldi kontakizuna, gure adiskide Fernando Duranak egin du, gure eskera, L.M. Larringanen argitalpena erabiliaz, EEE, 1988, Donostia.

[357] Kontutan harturik, nolabait *kanonigoagoa* izango dela hala ere beti, Azkueren zeinnahi prosa kultoago-edo, gorago azaldu dugun moduan (1.6.6.1. atala).

Parametroen berezko artifizialtasunean, datuak, konparatuak, nahiko adierazgarriak izan litezke. Azkueren SOA (SOV) eta OAS (OVS) egiturak, berak predikatutakoak, guztien hiru laurdenak-edo dira jada: 74,39% (76,83% OSA (OSV)ak ere kontutan hartzen baditugu). Beste bi tradiziozko-edo autoreetan ziren heren inguru haren oso urruti. Aldiz, gure tradizioan erdiak, edo maiz gehiago, diren SAO (SVO) moduko egiturak, Azkueren obran ez dira iritsiko %15,85a baino izatera.[358]

Iraultza hala, hasia da, XX mendea urratu aurretik ere. Eta ehun urte geroago, segurasko aitortu behar da, euskarari komeni edo ez, Azkuek irabazi duela zalantza gabe, literatura kultoari dagokion berrikuntza estilistiko honetan. Nahiz ez dugun ere zalantzarik baieztatzeko, oraindik SAO (SVO) itxurakoa segitzen duela izaten, hala esan badaiteke, XX mendean ere, Azkue-Altuberen eskolek kutsatu gabeko prosa guztia, hala idatzia, nola batere zalantzarik gabe, gaur eguneko euskaldun guztien ahozko hizkera bederen. Are Altubezaleenena ere, hauek astirik gabe ari direnean behintzat, beren mintzoa galbahetzeko, printzipio antierderistetan. Dagoeneko sala litekeela uste dugu, Greenberg, De Rijk eta ondoko iritziak, euskara peto sailkatzen SOA (SOV) hizkuntz taldean, ez ote diren, *vascuencearen* gainean baino gehiago eginak, *askuenzearen* inguruan, Dodgsonek horren zorrotz bataiatu bezala, Azkuek *Izkiendean* proposatzen eta lantzen duen hizkuntz eredua.

6.2.2.1. Azkue atributuak aurreratzen aditzari 1896ko Dotrina argitaragabean.

Eta *askuenze* honen adibide xume, baina ohargarriak izan litezke, Azkueren 1896ko Dotrina argitaragabeko hainbat joskera, atributoak emanez aditz aurrean, ordurarteko tradiziozko dotrinen aldean, zeintzuk oro har aditzaren ondoretik ematen dituzten. Azkuek markatzen du inflexio puntua. Konparatuko ditugu Azkueren zenbait esaldi, erakusgarri, Olaechearen 1775eko *Dotrinearen* bigarren argitalpenekoekin, zeinak ematen ditugun beti lehenengo:

(208) FEDECO ARTICULUBAC. / Dira Amalau. (9)
Sinizgaiak / Amalau dira sinizgaiak. (167)
(209) Lelengo zazpirac jagocaz Jangoicotasunari: … (9)
Lenengo zazpirak Iaungoikotasunari dagokioz. (167)
(210) Umanidadeari, edo Guizatasunari jagocazanac dira onec. (9)
Gizatasun Doneari dagokiozanak aunetxek dira: … (167)
(211) Jangoicoaen legueco mandamentubac dira Amar. (7)
Amar dira Iaungoikoan Legeko Aginduak. (169)
(212) Amar Mandamentu onec sartuten dira bitan. (8)
Amar agindu onek bitan sartuta dagoz: … (169)
(213) Elexa Santaco mandamentubac dira bost. (8)
Bost dira Eliza Ama Donearen aginduak. (183)

Azkuek berdintsu segitzen ditu ematen antzeko esaldi guztiak,[359] tradizioaz bestela,baina baita ere ordea, etorkizunean ezagutuko ditugun ordenamendu modu nagusian.

7. Azkueren tradiziozko joskera antialtubetarra.

Azkueren aitatu lau sistemetako arauek, ezin zerikusi estuagoa dute, laurek ere, beren kontraesanekin, Altubek gero konsakratuko duen, *galdegaia + aditza* segidarekin. Azkueren zeinnahi lanetan aurkituko ditugu halako

[358] Fenomeno bera suma liteke, dudarik gabe, Azkuek 1918an argitaratzen duen *Ardi galdua* 'gertirudian', orduan gipuzkera osotuaren adibide gisara. Ez dugu egin bertako esaldi tipologiaren estatistika, baina, liburua irakurri eta gero idazten genuen guk 1991ean, honen glosa bezala, artean oso ongi aztertu gabe genuelarik Azkueren eragina Altubegan: «OVS egitura da normala, edo XVS modukoa, sujetoa atzean duelarik oso maiz ere. Esango litzateke, liburu honen azterketatik ateratzen duela Altubek bere legea, esaldiko zati luzeak (predikatiboenak), esaldiaren aurrekaldera bidaltzen dituena, eta aldiz zati laburrak (tematikoenak, sujetoa bezala) esaldiaren atzekaldera. Azkuek ez du segitzen Arrueren, Cardaverazen eskola.» Ez dugu uste, estatistika eginda, hau asko aldenduko litzatekeenik, 1893ko *Bein da betikon* aurkitutakotik. Bere lekuan hitzegingo dugu patxada gehiagoz, euskararen sailkapen tipologikoen gainean. Baina jadaneko esan, guk oraingoz dauzkagun datuak, jatorriz euskaraz osatutako obren artean, ez direla batere urrutiratzen Urruzunoren eta Apaolazaren haietatik, nahiz eta estilo eta garai oso desberdinetako testu eta autoreak aztertu. Denetan da maiztasunik handienekoa, SVO egitura, eta bakarrik 2. edo hirugarren maila batean agertuko da SOV egitura. Hala adibidez Axularren *Geroan* (Kap. XXXI-LV; 385-641 orr., Jakin, 1976): SVO 48,04%, SOV 25,49%; Tartasen *Ontsa hiltzeko Bidean* (osorik) SVO 44,26 %, SOV 35,66%; Moguelen *Peru Abarcan* (osorik, platika latinoen itzulpenak salbu) SVO 69,70%, SOV 3,79% (bostgarren maila batean); J.B. Aguirreren *Eracusaldiac*-en (I, 103-321 orr.) SVO 55,5 %, SOV 8,5% (laugarren mailan); Duvoisinen *Laborantzako liburuan* (osorik) SVO 59,29%, SOV 36,76%; Cerquand-en *Legendetan* (osorik, esaerak salbu) SVO 63,73%, SOV 27,82%; J.M. Etxebarriaren *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoan* aurkeztutako transkribaketa zuzenetan, SVO 37,50%, SOV 27,88%. Datu hauek zehatzago jasoko dira bere atalean.

[359] Ik. beste hainbat konparagarri, *Dotr. ag.* 185 or.-ean, eta oso bereziki, 192-3-4-5 orrialdeetan.

egitura altubetarrak. Bai esaldi labur, galdegai laburrekoetan, gure tradizio guztietan ohizkoak diren bezalakoak, nola askoz luzeagoak ere, gure tradizio nagusian (Cardaverazen eskolan salbu) ohizkoa izan den baino askoz proportzio handiagoan. Hauetako adibide erakusgarriak jaso ditugu 3.3 atalaren sarreran, aditzaz bukatutakoen artean. Galdegai laburreko esaldien adibideak berriz, milakak izan litezkeelarik, ez ditugu segidan gutxi batzuk baino jasoko *Izkindeatik*, erakusgarri; zenbait itzulpen, aditzaz bukatuak eta ez bukatuak, gaztelaniazko AO / A-At egiturak, euskarara bihurtuak, OA / At-A, modurik ohizkoenean segurasko:

(214) Andresek ogia ta erbi bi dakarz. / Andrés trae pan y dos liebres. (112)
(215) Geldi geldi doaz / se van muy pausadamente (138)
(216) Zietz esan dauste / me lo han dicho exactamente (138)
(217) Eperra daukat nik / yo tengo la perdiz (149)
(218) Eperra dakartsat nik aitari / yo le traigo á el padre la perdiz (149)
(219) Nik baino arkume guriagoa dauka ausoko ugazabak / El amo de la vecindad tiene cordero más rollizo que yo. (281)
(220) menditik etorri / venirse del monte (289)
(221) ontzira ioan / ir al buque (289)
(222) Ilten dago / está muriéndose (296)
(223) Entzunda laster ioango nintzan / me había de ir en seguida de haber oido. (296)
(224) Neuk ama ikusitakoan' lagun egingo dauat / te acompañaré inmediatamente después de haber yo visto á la madre (296)
(225) Gauzatxo politen bat onen ordez erostekoan' euretzat izango dok ene liburu au / este mi libro será para tí, á condición de comprar en vez de esto alguna cosita linda (296)
(226) Gizon au arroa dai / Este hombre es orgulloso (297)
(227) emakume onek zekenak daiz / estas mujeres son tacañas (297)
(228) Gizona ederra dai / El hombre es hermoso (299)
(229) Esakizuna izkindez adiratutea erraza dai / Es fácil definir gramaticalmente la oración. (302)
(230) sugeanak daiz begiak / los ojos son de la serpiente (303)
(231) Peru' arotza izango dai / Pedro ha de ser carpintero (306)
(232) Menditsua dai euskal-erria / La tierra eúskara es montuosa (313)
(233) Ona izaten dai gura izatea / El desear suele ser bueno (313)
(234) Zabal zabala dai ondamenerako bidea / El camino para la perdición es muy ancho (313)
(235) Bizkaiko lenengo Iauna Iaungoikoa izan dai / El primer Señor de Bizkaia ha sido Dios (313)
(236) Begoñako Andra Maria euskaldunen ama dai. / La Señora María de Begoña es la madre de los euskaldunes. (313)
(237) Ezetz uste dau bere emazteak / Su mujer juzga que no (313)
(238) Arrainak ekarri iauzak Pedrok / Pedro ha traido peces (313)
(239) Ona dai nire aita / Es bueno mi padre (318)
(240) nire anai zarran adizkideak erbi-kume bat ekarri dauste / los amigos de mi anciano padre [sic] me han traído un gazapo (318)
(241) Berrituko errotariari erosi dautsat asto polit au / Este lindo borrico se lo he comprado al molinero de Berriatua (319)

Beste nahi adina ere antzeko esaldi, Altuberen legea-edo segituko luketenak. Ordea, ez dira izango Azkueren esaldi guztiak, altubetarrak. Ikusi dugu gorago jada (3.3.1. atala), nola Azkueren esaldi sail ugari batek erakusten dituen eten nabarmenak, elementuak tartekatuak, aurreratutako galdegai eta artifizialki atzeratutako aditzen artean, Cardaverazen eskolako estilo propioenean. Baina bestalde, aurkituko ditugu ere Azkuegan, tradiziozko joskerak, hainbat ugari, oso nabarmen erakusten dutenak esaldiko galdegaia bere aditz nagusiaren ondoretik emana, gure tradiziozko altxor nagusiaren ildoan. Eta ez bakarrik entendimentuzko-edo aditzen kasuan (noiz badakigun Azkuek gainera kontu berezia duela aditz hauek atzeratzen esaldian), baizik eta nolanahiko esaldi, are labur askoetan ere, segidan erakuts dezakegun moduan. Azkue berak, ondo nahita ere, apenas uxatu ahal izango duen erabat, ohizko hizkuntzaren tradizio pisua, horren obra zabalean.

7.1. Azkueren atributuak aditz ondoretik, tradizioari jarraiki, 1897ko Baionako Dotrinan.

Anekdotatxo bat besterik izango ez badira ere, ondo kuriosoa gertatzen da begiratzea, 1891 eta 96ko arauen ondoren *atributua + aditza* segidaz, Azkuek 1897ko urtean ematen duen hainbat *dotrina definizio*, lapurteratik itzultzen duen *Kristinauen Ikasbide Laburrtuan*. Bitxiki, definizio hauetako zenbait, emango ditu Azkuek (atributu luzeak eta ez hain luzeak), aditz kopulatiboaren ondoretik, gure tradizio zentzuzkoenaren ildotik; eta are inoiz zuzenean aditz kopulatiboaz hasita ere. Hala behintzat segidako gogoangarrietan:

(242) (*¿Zer da Kristinaua?*) Kristinaua da, bateatu izanik Jesu-Kriston legea siniztu ta agirian iarraiten dabena. (1)
(243) (*¿Zetarako sorrtu ta munduratu gauz Iaungoikoak?*) Iaungoikoak sorrtu gauz bera ezautu ta maite izateko, … (1)
(244) (*¿Zer da Iaungoikoa?* Iaungoikoa da Gogo edo Espiritu bat Betikoa, guztiz orrnidua, gauza guztien Sorrtzaile ta Nagosia. (2)

(245) (*¿Zer da Elizea?*) Elizea da sinizmendunen batzakuntsea, … (5)
(246) (*¿Zer da Eriotzea?*) Eriotzea da arimea gorputzagandik banatu edo bereztea. (6)
(247) (*¿Zer da guztientzako Erabagia?*) Da Erabagi agiri bat, Iesu-Kristok gizon guztiakaz egingo dabena, munduan amaieran, guztiak biztu ta batzandu daitezanean. (6)
(248) (*¿Zer da Atsegintzea?*) Atsegintzea da toki bat, aingeruak eta Iaungoikoan baketan il direan gizonak guztiz zorioneko orain da betiko dagozana. (6)
(249) (*¿Zer da Su-leza edo Inpernua?*) Su-leza edo Inpernua da toki bat, deabruak eta pekatu edo oben ilgarriaz il direan gizonak guztiz zortsarreko orain da betiko dagozana. (6)
(250) (*¿Zer da Purgatorioa?* Purgatorioa da alazko toki bat, bizitza onetan euren pekatu edo obenak oso orrdaindu barik il zirean arima onak dozana. (7)

Eta horrela beste hainbat, nola guzti hauen gipuzkerazko bertsioa ere.[360]

7.1.1. Definizio Azkue-Altubetarrak ere.

Badira nolanahi *Dotrina* honetan bertan, definizio molde Azkue-Altubetarragoak, aditz nagusiak emanez nahikoa arrozki, atributu ondo luzeen atzetik, bide batez interesgarriak, jabetzeko, halako joskera moduek eragin ditzaketen iluntasunez. Hala adibidez hurrengo biak besteren artean:

(251) (*¿Zer da oben ilgarria?*) Zeruko ezkerr donetzailea ta Iaungoikoagazko adiskidetasuna galerazoaz, inpernua edo betiko su-lezea irabazi eragiten deuskun obena da. (9)
(252) (*¿Zer da oben arina?*) Ezkerr donetzailea galerazo barik gugan arrgaltsa ta makalduten daben obena da. (9)

7.2. Azkueren galdegaiak aditzaren ondoretik.

Egia esan, ez dira inoiz ugarienak izango, oro har, halako esaldiek, Azkueren lau sistemen aurka borrokatu beharko dutelako. Bitxiki, aurki liteke tarteka, tradiziozko SAO (SVO) ordenamendua erakusten duen esaldi laburren bat, segidakoaren modukoa:

(253) Iaunak egin dau mundua / El señor ha hecho el mundo (*Izk.*,1891,316)[361]

Zerbait ugarixeago nolanahi, garai guztietako idatzietan (agian, gutxiago bere idatzi kultoetan), galdegaia nahikoa nabarmen daramaten esaldiak aditzaren atzetik. Bai, entendimentuzko aditzekin, nola bestelakoetan ere. Eta nahiz ohituraz, aditzak segi gordetzen beretzako, «Xà» moduko, aditza bigarren, egitura bat. Hala moduz suma liteke segidako adibideen antzekoetan bederen:

(254) …; chimiztaren zirzartadak noizik noizera ebagiten dabez uria sapaldu nairik dagozan odai astunak; … (*GK*,188?,381)
(255) …, eta danak gora goraka erakusten dabe lurra iruntziteko guraria. (*GK*,188?,381)
(256) Onen antzera dabiltz bein oná ta bein ará emakume errukarriak, zapia dingilizka, úleari tiraka, … (*GK*,188?,381)
(257) Ormechako kalean bizi zan *eulea* esaten eutsen atso bat. (*GK*,188?,382)
(258) …; bere gurari andiena zan ama pozez eukitea: … (*GK*,188?,382)
(259) A itzan [zen] estutasuna. (*Abeja*,1889-90,63)
(260) Guztiak egozan isilik, (guztiak arnas'otska' …) (*Abeja*,1889-90,63)
(261) Au itzan [zen] bere iardunen bigarren zatia. (*Abeja*,1889-90,126)
(262) Ioan leku guztietan eukan nork begiratu, … (*Abeja*,1889-90,191)
(263) Lotsagarria izango litzake Bizkaitar iaioriko gizaldia Bizkaitar il ezalizatea … (*Izk.*,1891,V)
(264) Erbesteko amarrakaz lotu ta eskubide urtetsuen autsaz itota' dandarrez eroan daue Bizkaian arimea erdal-errira. (*Izk.*,1891,VI)
(265) Euskaraan anditasunak emen iragartren abiatea baino obea izango dai irakurle baratzak liburu-guenean neurtutea. (*Izk.*,1891,VII)
(266) Biok dogu erri bat maite, erri ederra: … (*BB*,1893,35)
(267) Goiz guztian ortxe euki augu, tautik ez murtik ez deusik eraso eziñik. (*BB*,1893,40)
(268) …, or zaukadaz deika ta deiez, barrutik sakonenari ganez eragiteko bestean. (*BB*,1893,40)
(269) …: edan-alak edanarren, beti zakustaz edateko amurruz. (*BB*,1893,40)
(270) (Txanton,) erbi-txakurra izan baintz, ik euki izango euazan surrak [sudurrak]!! (*BB*,1893,41)

---

[360] Zalantzan jartzeko gogoa ere ematen luke batzutan, Azkuerena ote den itzulpen hau, kontutan harturik bertako joskera, eta are hiztegi ezaugarri zenbait. Gogoratu behar da nolanahi, *Ikasbide* hau *Baionako Elizterikoaren* itzulpena dela, eta beharbada, Azkuek jatorrizkoari zor bide zion atxikimenduak eragin ditzakeela halako berezitasunak.

[361] Nahiz Azkuek eraberean ematen duen gero esaldia orrialde berean, modu altubetarragoan ere: *Mundua Iaunak egin dau / el mundo lo ha hecho el Señor*.

(271) (Eztaiala Iaungoikoak gura izan:) baiña gure Elizako San Kosetxu ederra ostuko baleuskue, neure senarra da agindu ta egiña langoxea, beronen seme ta ene seme eder au besoetan daukala, altara-ganean egoteko. (*BB*,1893,42)
(272) …; baiña auzoko guztiak ondo ekien, alkarren antzik euki ezarren, alkar maite maite ebela biak. (*BB*,1893,43)
(273) Asko dozak i ikustera etorten dozanak: … (*Ger*.,1895,23)
(274) Ezaun da sermolari au bizkaittarra dana. (*Ger*.,1895,24)
(275) (Gernikan ia ia Pancorbon baino Sanchez geiago dagoz.) Euretariko bat eidago geure *Zugatz* maitea ta Batzar-etxea iagon edo zainduten. (*EZ*,1897,7)
(276) (Lekeition da Ondarroan da Markinan eztagoz *Rodistak* eta *Aznarristak* baino.) Oba genduke atsokeri orrek aztu ta euskaldun utsak izan. (*EZ*,1897,7)
(277) Gitxitan ezautu dabe, zaarenak bere, eurite ain iraunkorra. (*EZ*,1897,7)
(278) …: ona da besteak zer dinoen iakitea, … (*EZ*,1897,10)
(279) Aots onen artean batzuk dagoz, izkelgei edo dialektoren baten beti bardin esaten direanak. (*EZ*,1897,65)
(280) Geroago ta geiagok esaten dabe *iñ* da *ill*, *in* da *il*-en ordez. (*EZ*,1897,65)
(281) (Onen urrengoa bost urte ta erdiko mutil bat zan, beronen nebea, Kose Kusto izentzat eukana:) au zan Aman kutuna. (*BG*,1897,108)
(282) Neskatillea izaten zan beti nagosi: nai etxean Aitan aurrean, nai artadian aparika edo maiñaka euren kontura iardunean. (*BG*,1897,109)
(283) Ordurarte beñik bein Iñesatxu zan Satikako ume guztien nagosia: dendaka edo dendarika iolastu bear baeben, bera izango zan saltzaillea; oillo oilloka iñarduezkero, bera izaten zan oillo lokea edo Amalokea; idika, bera zan itzaiña ta itaurlaria; (Eliz-inguruka, Abadea; aurreskuka, Piela. Berba baten:) neskatillea izaten zan edozein iolasalditan guztien Buru; … (*BG*,1897,109)
(284) Au entzueran asi zan barriro Kose Kusto igesi, … (*BG*,1897,111)
(285) Iru illebete aurrerago eldu zan Satikara gizon bat, amalau urte eukazanetik itxasoak austen ibilli ta beren barririk iñoiz bialdu ezebana. (*BG*,1897,113)
(286) (…, badute alkarren antza:) bata ta bestea jaiotzen dira gauaren erraietatik. (*Vill*.,1904,454)
(287) Kondairak ere, nungoa dan, ala du bere gaua luzeagoa edo laburragoa. (*Vill*.,1904,454)
(288) Beiñ edo beiñ, alarik ere, izan zituen alkarren artean sesio ta armonia bat edo beste; … (*Vill*.,1904,456)
(289) Gutxi ziran eskean ibilteko eskubidedun kanpotarrak. (*Vill*.,1904,457)
(290) Orregatik izanzuten ango bakartarrak ere probintzia onetan eskean ibilteko baimena. (*Vill*.,1904,457)
(291) …; mutil gaztea zalarik, zan gizona. (*Biz. Goi*.,1916,304)
(292) Biak izan dira euskaldun onak, (biak erakusmeneko apaizak, biak …) (*Biz. Goi*.,1916,307)
(293) (…, zueri dagokizute.) Zueri zor dizute ARDI GALDU onek beronen seaskatxo txukuna: Leaburu. (*AG*,1918,17)
(294) Zuenak izan oi dira Martin Loontxok eta Betijaik entzundako parre gozo asikinak; (zuenak …) (*AG*,1918,19)
(295) Euskera ilko ezpada, noraezekoa (nai ta ezekoa) degu izkelgi bati …, indarra ta kemena ematea. (*AG*,1918,20)
(296) Onetarako asmotan artua dezute Donostian euskera utsezko eguneroko bat ateratzea. (*AG*,1918,20)
(297) Azkenez, zuenak izan dira onelako arazoetan ekiteko izan ditudan itz pozgarri ta zintzoenak. (*AG*,1918,20)
(298) (Erara nabil) ta gogoz ari naiz diru biltzen. (*AG*,1918,24)
(299) Bizkaitik, itsasaldetik batez ere, maiz etortzen dira onera ondasun-zaleak. (*AG*,1918,27)
(300) Nere etxea, bederen, beti da Etxeberri. (*AG*,1918,32)
(301) Uraxe dek olako begizko ta sorginkeria oriek beti gogotan dauzkana. (*AG*,1918,37)
(302) Orregatik aiz i Kaltzaundi ta amona Inaxiren besoetako semea. (*AG*,1918,37)
(303) … ta an yoan Santi, abereak lagun ebazala, lats-ondoko motara. (*Latsibi*,11)
(304) Ezkonduteko egoala, amaren aldeko aide batek molokot egieran, ondatu ekioezan euren ondasun guztiak; … (*Latsibi*,12)
(305) Gure Agirre'ri ere, gazte-gaztetan piztu zitzayon bere biotzaren muñ-muñean elizarako ta elizgizadirako garra. (*Agi*.,1920,70)
(306) …, niri an gizon eldu batek bein esan eustan au: (eurak, itz barriak ulertzeko, eztabela iztegia zabaldu bear izaten.) (*Alt*.,1921,60)
(307) Lana izan zan bere gozamenik eztitsuena. (*Lac*.,1921,59)
(308) Ementxe ain zuzen ere, Hasparrengo uri eder onetantxe, ikasi nuen' lana maite eztuan gizonari emengo zârrek eman oi zioten deitura: … (*Lac*.,1921,59)
(309) Nere izkuntza artan *zu* beti zan «vosotros». (*Txu*.,1925,5)
(310) Gezurra esango nuke beraz, *Euskalerriaren yakintza* idatzi bearrean, *Euzkadiren yakintza* ezar baneza. (*Eus.Yak*.,I,1934,15)
(311) Eta orain egiten diarduguna egingo da beste iru liburuen itzaurrean ere: … (*Eus.Yak*.,I,1934,23)
(312) Ipuin-esale gaztetxoen artean ipuinak beti daukate esakera bat, beti berdina, asteko; (ta beste bat, berdina au ere, amaitzeko.) (*Eus. Yak*.,II,1942,14)
(313) Bein an batean bizi ziran N. ta N. (*Eus. Yak*.,II,1942,14)
(314) Aldi betez bizi zen gizon bat. (*Eus. Yak*.,II,1942,14)

Bada diferentziarik esaldi hauen joskera gozo, ulergarritik, 3.3. atalean erakutsitako Azkue beraren joskera traketsetara, aditzak ezin artifizio gehiagoz atzeratzen esaldian. Antzeko zerbait gertatzen da, segidako bi ataletako joskerekin.

7.3. Azkueren aditzak zuzenean esaldi hasieran, nahiz galdegaiak ondoretik izan.

Ikusi dugu 4.2.2.2. atalean, nola 1891eko *Izkindean* bederen onartzen zuen Azkuek aditzarentzako, gogo askorik gabe bazen ere, esaldi hasierako gunea, aditz hau litzatekeenean, esaldiko elemento inkiridoa edo, gero Altuberekin bere tradizio teorikoa ireki duen ildo batean. Baita ere, nola geroago (ik. 4.1.2. atala), jada erabat gaitzetsi nahi dituen euskaraz, esaldi hasierako aditzak. Nolanahi, eta gehiegi izango ez badira ere, ez dira faltako Azkueren prosan esaldi hasierako aditzak (nahiz nabarmen erakutsi galdegaiak ere ondoretik), bederen 1920 ingurura bitartekoan. Eta bai aditzak entendimentuzkoak direnean, nola bestelakoetan ere, ikus litekeen bezala segidako adibide sailean:

(315) …; eta jakingo dogu ichasoan erdian dagozala uriko gizon geienak: … (*GK*,188?,383)
(316) …, eta ikusiko dogu batel, potin, botakor ta chalupa guztiak ichasoan diriala: … (*GK*,188?,383)
(317) Artu eban Antonek sendoen erichon lagun bat eta abiau zan Lekeitioruntz. (*GK*,188?,389)
(318) Azi iakan gero oekoari iñork enzun bear ez leuken asarrezko iardun ta izketa bat esaten' osagile guztien kontra' munduan egozan liburuen kaltegarrirako; … (*Abeja*,1889-90,62)
(319) Eldu itzan [zen] noizbait ezteguko eguna. (*Abeja*,1889-90,191)
(320) Maite daut nik aita / Yo amo al padre (*Izk*.,1891,313)
(321) Erruki daut neure burua / Me compadezco (*Izk*.,1891,313)
(322) Maite zauez Oiz-ko artzainak / Os aman los pastores de Oiz (*Izk*.,1891,318)
(323) Iakingo dot nik oraindiño ori nor dan, txori polit ori. Naiago enduket, Katalin, eskeko bategaz ezkondu-ta ikusi, … (*BB*,1893,68)
(324) Naiago neuan, Txili, aitatu dauan ori aitatu ezpaeu. (*BB*,1893,81)
(325) Eldu zirean noizbait. (*BB*,1893,90)
(326) Izanen gara ongi gidatuak eta mintzatuko gara egiaren arabera (*Met. Prac.*,1896,19, Axular)
(327) Emango dizut bizitzako koroa / emongo deutsut bizitzako koroia (*Met. Prac.*,1896,20, Uriarte)
(328) Eldu zirean onetan soloetako langilleak; … (*BG*,1897,111)
(329) (Kosepa,) esan dot lenago be: … (*BG*,1897,120)
(330) Eldu zirean onetan lagunakana. (*BG*,1897,121)
(331) … da asi iatezan *dotrina* guztie goikoz beera ta azpikoz ganera ta atzekoz eurrera itendu ta itendu. (*BG*,1897,123)
(332) Egon nintzen luzerotxu Alkate-makileari begire, … (*BG*,1897,125)
(333) …, da egingo neuke baloiak iruntzi dabela neure semia be. (*BG*,1897,137)
(334) Emon osten iaten, … (*BG*,1897,137)
(335) Entzun dozue Iparragirren daguala ostatu ona … (*BG*,1897,147)
(336) Elduko da ta laster Gu gure buruan iaube egongo garean eguna. (*EZ*,1897,7)
(337) Asi zirean, bata ioan da bestea etorri, erritarrak Apelesen lan barria ikusten. (*EZ*,1897,9)
(338) Asi iakan abadea eroapen andiaz agindurik agindu barrua astertuten. (*EZ*,1897,11)
(339) Eroan eban arimazainak Elizgela edo Sakristeiara, ta an … (*EZ*,1897,11)
(340) Irakurtzen ditugu or ta emen gu beti izan gerala kristauak; … (*Vill*.,1904,454)
(341) …; ta nai nuke gaiñera beste onenbeste Euskalerriaren alde guztietan egin balezate. (*Vill*.,1904,459)
(342) Naiago nikek entzun *Mistress Antton Bárandiaran*! (*AG*,1918,69)
(343) Ikusiko dezu gure Betijaik, eztirudien sendalari trebe onek, sendapidean jarrita, zerorrek uste dezun baino ere azkarrago ta zoliago nola izangi zeran. (*AG*,1918,93)
(344) …; ta uste det oriek ere nere au bezelako burubidea emango dizutela. (*AG*,1918,104)
(345) Baita ezagutu det, Lekeitio ondoko baserritxo batean, Californiatiko baten biotz-gogortasuna ere, … (*AG*,1918,120)
(346) Izan zan egun artan iskanbila ta abarrotsa Leaburuko elizetxean! (*AG*,1918,123)
(347) Maite dute Amezketarrak beren San Bartolome. (*AG*,1918,126)
(348) Ikusiko dogu erenegungo batzar orretatik erriak bear gebana emoten ete-dauskun. (*Alt*.,1921,52)

7.4. Azkueren aditz trinkoak esaldi hasieran buruzuri.

Jaso dugu gorago, Azkueren 1897ko *Baionako Dotrinaren* galde erantzunen artean, Azkuek zuzenean aditz trinkoaz hasten zuen erantzun bat (6 or.): «(*¿Zer da guztientzako Erabagia?*) *Da Erabagi agiri bat, Iesu-Kristok gizon guztiakaz egingo dabena, munduan amaieran, guztiak biztu ta batzandu daitezanean*.»[362] Ez da hala ere hau, Azkueri ezagutzen diogun antzeko adibide bakarra. Segidako biak ere behintzat, *Izkindea* aurretikoak:

(349) Eukan seme bat azkarra, zolia ta ona; … (*GK*,188?,382)
(350) Itzan [Zen] Mari'nasi (Mari Manun alaba zarra) ama sei urteko neskatila bat gorputzez ederra ta arimaz ederragoa. (*Abeja*,1889-90,56)

1897ko *Euskalzaleren* lehen alean, jasotzen du ere Azkuek *Vascofilloren* ezizeneko eskutitz bat, esanguratsuki

[362] Eta beste hainbeste aldamenean ematen duen gipuzkerazko itzulpenean:«(*Zer da guztientzako Erabakia?*) *Da Erabaki agiri bat, Jesu-Kristok gizon guztiakin egingo duena, munduaren bukaeran, guziak piztu ta batzandu ditezanean*.»

bukatzen duena, *Naz zurea etc.*, esaldiarekin (*EZ*,1897,4). Egia da, Azkuek *Vascofillo* erakutsi nahi duela prezeski, euskara gaiztoaren eredu bezala. Ordea, ale beraren hurrengo artikulu batean («Aste onetako barriak»), orduan jada berea, serioa, eta eredugarria, Azkuek emango dizkigu beste bi aditz trinko ere, esaldi hasieran buruzuri:

(351) (Errialde onetako Ekauta edo Diputazinoiak aintzat eta ontzat artu dau, Donostiako euskalzale batzuk eginiko eskaria;) eta da, Gipuzkoako kale erdalizendunai euskerazko izena ondoan ezartea. (*EZ*,1897,7)
(352) (Turkian. - Rusiako bialkin edo *embajadoreak* paper bat emon dautsa Turkiako agintariari,) eta dirautsa entzun daizala beste Errietako bialkinen eritxiak, beren Erriko ezbear da naste andiak ainbat arinen zuzenduteko. (*EZ*,1897,7)

Aurkitu dugu antzeko adibideren bat oraintsu argitaratutako *Latsibi* gertirudiaren hasieran, aditz trinkoa esaldi buruan emana, kasuan *ete* partikulari erantsita (Altubek zorrotz gaitzetsi modu batean):

(353) Etedago, atzetik begiratuezkero, itxusia eztan basetxerik? (*Latsibi*,11)

Garbi asko berriz 1926an, entendimentuzko *dio* aditza esaldi hasieran:

(354) …; eta dio Lamiak, ibiltzean, oinatz (rastro) biribila uzten zutela. (*Lam*.,1926,96)

Edota oraindik 1934ean ere, *Euskalerriaren Yakintzaren* sarreran idazten duenean, segidako entendimentuzko aditza esaldi buruan (nahiz beste juntagailu baten ondoren):

(355) Gainera zinoan «munduko gauzarik txarrena litzate niretzat, …» (*Eus. Yak*.,I,1934,21)

8. Beste ordenamendu arau aipagarri batzuk.

Aipatu ordenazio erregela nagusi eta eztabaidagarriagoez gain, Azkuek jasotzen ditu bere lanetan, beste hainbat ordenamendu joera ere, segidan gogoratu behintzat nahi genituzkeenak.

8.1. Erlatibozko esaldiak zilegiztatzen, beren izen buru mugatu gabearen ondoretik.

Euskaraz ohi bezala, Azkuek behin eta berriro seinalatzen du bere lanetan, nola eraikitzen diren euskaraz erlatibozko esaldiak, beren izen buruaren aurretik, *-(e)n* atzizkiaren bidez, besteak beste, «*osaki mendetuak mendedunen aurretik ipini bear daizalako*» ere (*Izk*., 336 or.; baita ere bestela, *Met. Prac*. 62 or.; *Hizt*., II, 61 or.; …) Harrigarri samar ordea, Azkuek, *Hiztegian*, *N* erlatibozko atzizkiari eskaintzen dion 5. sarreran, ohizko kokagune hau aipatu ondoren erlatibozko esaldientzat, jasotzen ere du, eta zalantzarik gabe zilegiztatzen, erlatibozko esaldiak emateko aukera euskaraz, beren izen mugatu gabearen ondoretik ere, komentatzen duelarik, Mendibururen *Otoitzgaietako* halako esaldi adibide bat. Hala dio, jakingarri asko (*Hizt*., II, 61 or.):

> El empleo de este sufijo [erlatibozko *N*-a] es para los extraños el caso tal vez más difícil de nuestra construcción. Hay, sin embargo, ocasiones en que por la claridad conviene invertir la construcción que de suyo exige el empleo de este sufijo. JESUSEK GURI AGERTURIKAKO LEGEAK BADITU, BAI, BERE NEKEAK; BAIÑA NEKE, EKUSI DUGUN BEZALA, GURE JAUNGOIKOAK ATSEGIN GARRIZ ARINTZEN DITUENAK: «la Ley que nos reveló Jesucristo tiene ciertamente sus penalidades, pero penalidades que, como hemos visto, aligera con puro consuelo nuestro Dios.» (Mend. II-100-1.) / El orden riguroso sería: JESUSEK …, BAIÑA EKUSI DUGUN BEZELA, GURE JAUNGOIKOAK ATSEGIN GARRIZ ARINTZEN DITUEN NEKEAK. Mendiburu, en la manera de escribir su párrafo, no sólo contribuyó a la claridad, sino á la elegancia de la expresión; pues de otra manera sonaría la misma palabra NEKEAK al final de dos miembros consecutivos de una frase.

Aipatu dugu jada gorago, 1905-6ko *Hiztegiko* Azkueren eskuzabaltasuna tradizioarekiko. Baina bestalde, asko ez badira ere, aurkitu ditugu halako erlatibozko esaldi batzuk bederen bere lanetan erabiliak, nahiz ez garen bereziki aritu hauen bila. Hala behintzat segidakoak:

(356) …: euskalodol gabeko itz gizaldiz gizaldi gure artean bizi diranak … (*Erd*.,1920,57)
(357) Beste itz, gure artean entzuten eztan *markets* (erderazko «deforme»-ren ordez erabilten dabe euskaldun batzuk. (*Alt*.,1921,50)
(358) (Ona emen) Aleman-izkereak daukazan erraztazun guk eztaukaguzanak: … (*Alt*.,1921,59)
(359) Itz barri inoiz bizi eztireanak (argitaratu-orduan …) (*Alt*.,1921,61)
(360) (… elitzake egoki izango) itz zâr oboen-oboen biziari dautsenak (eta ilak eurak ilunpean lurpean sartzea.) (*Alt*.,1921,61)

Antzeko egitura izan lezakete beste esaldi batzuk ere, nahiz aditz jokatugabeaz osatuak izan, nola segidakoak

behintzat, ezarian bildu duguna:

(361) (… itz batzuk) diru asko erabilia (bezelan laban-laban gelditzen direala …) (*Alt*,1921,61)

Edota are hurrengo esaldiak ere, *beste* hitzaren ondoretik emandako erlatibozko esaldi jokatugabea, berdina ez bada ere, bederen antzeko egitura bat erakusten duelarik:

(362) … beste len azaldutako asmo bitxi oriek. (*Txu*.,1925,19-20)

8.1.1. Azkueren erlatibozko esaldi hautsi eta hautsigabeak beren izen buru mugatuaren ondoretik.

Nolanahi dela, beti komeniko da azpimarratzea, Azkuek ere, usu asko erabiltzen dituela, gure tradizio guztietan bezala, erlatibozko esaldiak emanak, aposizio modura edo, izen ondo mugatu baten ondoretik, bietan errepikatuaz dagozkien kasu atzizkiak. Ordea, ohizkoa den bezala, Azkuek ere ez du inoiz aipatzen halako esaldi egiturarik bere lan teorikoetan.[363] Halako egiturak izan litezke segidako gutxion antzekoak, guk ezarian bildu ditugunak azken orduan, eta zeinetako batzuk hautsita ere ageri diren, konplementuren bat dutelarik, beren buru nominalizatuaren ondoretik ere (hala bederen laugarrenak eta azkenekoak):

(363) (¿Ez dira) eurak zurezko ontsietan Lurrari lenengo bira emon deutsenak? (*GK*,188?,386)
(364) (Onen urrengoa bost urte ta erdiko mutil bat zan,) beronen nebea, Kose Kusto izentzat eukana: … (*BG*,1897,108)
(365) (… eldu zan Satikara) gizon bat, amalau urte eukazanetik itxasoak austen ibilli ta beren barririk iñoiz bialdu ezebana. (*BG*,1897,113)
(366) (*¿Zer da guztientzako Erabagia?* Da) Erabagi agiri bat, Iesu-Kristok gizon guztiakaz egingo dabena, munduan amaieran, guztiak biztu ta batzandu daitezanean. (*Bai. Dotr.*,1897,6)
(367) (Atsegintzea da) toki bat, aingeruak eta Iaungoikoan baketan il direan gizonak guztiz zorioneko orain da betiko dagozana. (*Bai. Dotr.*,1897,6)
(368) (Su-leza edo Inpernua da) toki bat, deabruak eta pekatu edo oben ilgarriaz il direan gizonak guztiz zortsarreko orain da betiko dagozana. (*Bai. Dotr.*,1897,6)
(369) (Purgatorioa da) alazko toki bat, bizitza onetan euren pekatu edo obenak oso orrdaindu barik il zirean arima onak dozana. (*Bai. Dotr.*,1897,7)
(370) (Badu Euskalerriak) ageri bat izan dezakean zarrena, beti berarekin duena, izena eman diona, baña ala ere ongi ezagutzen ez duena. (*Vill.*,1904,454)
(371) …, Gipuzkoaren semearen seme ongille errugabeak, obengabeak, kalterik egiten eztutenak, … (*Vill.*,1904,457)
(372) … irukurgaitxo [sic] alai bat, *Peru Matraka ta Pedranton* izentzat zuena, (asi nuen.) (*Biz. Goi*.,1916,303)
(373) (Esakune zarren artean badira) batzuk labur-laburrak, itz bi soil-soilik daukezanak. (*Alt*.,1921,51)
(374) …; azala, elkorra; ez labore, ez barazki, ez arnaririk inoiz eztakarrena. (*Alt*.,1921,58)
(375) …, inortxo ezta erri atan zortzi bat urte eskolan iraun eztabezanik; … (*Alt*.,1921,60)
(376) Eta gizona, *Rex creationis* deitzen dutena … (*Lac.*,1921,59)
(377) …, Ondarroako auzotegi Azterrika deritzaionean (itz eder bat ikasi nuen: …) (*EEoit*,1930,95)
(378) Beste oitura bat, paganuengandikoa dirudiena au ere, … (*EEoit*.,1930,98)

8.2 -ko eta -(r)en genitiboen aukerak euskaraz, izenaren ondoretik ere.

Azkuek garbi ematen du legea *Izkindeatik* («*Osaki mendetuak mendedunen aurretik ipini bear daiz*.», 334 or.), eta kategoria horretan kokatzen ditu berak, batez ere, euskarazko genitiboen bi atzizkiok. Azkuek ezagutzen ditu hala ere bientzako salbuespenak, nahiz berak ez dituen inoiz gehiegi zilegiztatu nahiko.

8.2.1. -(r)en genitiboen guneaz izenaren ondoretik.

«*Hay una sola excepción en que se altera este orden sintáctico*», esaten du euskara eta alemana alderatzen ari delarik, 1949ko *El vascuence y varias lenguas cultas* liburuskan (53 or.), eta segitzen du hala: «*y es en el rezo de la oración dominical. Así como nosotros, en vez de* gure aita *decimos* aita gurea zeruetan zagozana *o* zaudena*, así lo alemanes, en lugar de* unser Vater *dicen y rezan* Vater unser der du bist in Himmel *(los protestantes dicen* unser Uater*). Esto obedece a la influencia del latino* Pater noster qui es in cælis.» Hala izango da. Gure protestante Leiçarraga ere, *Gure aita* segidaren lekuko da, eta berarekin iparraldeko tradizio nagusia.[364] Azkue ere ahalegindu zen bere gaztaroan *protestanteen* formularen alde, berak itzulitako bi *Dotrinetan*, izenaren aurrera eramanez bietan erlatibozko esaldia (*Zeruetan zagozan gure Aita*, 1896 eta 1897). Ez zuen horregatik oihartzun handirik izan hegoaldean; eta aurrerantzean Azkuek ere amore eman zuen, hegoaldeko formula konsakratuagoen alde. Kuriosoa da hala ere ohartzea, zein testigantza ematen digun berriz 1928ko *Diskurtsoan*, *ama gurea, Irene gurea* bezalako egitura zenbaiten

[363] Nahiz bai nominalizazio soilak ugari. Ik. besteak beste, *Met. Prac*., 62 or.

[364] Ik. besteak beste, P. Lafitteren artikulua «Les principales versions basques du Pater en Labourd, Basse-Navarre et Soule du XVe siècle à nos jours», *Gure Herria*, 1965, 322-7 orr.

erabilerarena euskaraz, nahiz berak, gaitzesteko bakarrik aipatu nahi (1928, *Disc*., 20 or.):

> … Al verter a la nuestra las palabras *Pater noster* en vez de *gure Aita*, que es lo verdaderamente correcto, todos nuestros traductores de los catecismos de Astete y Ripalda escribieron *Aita gurea*. Hay quien por contagio dice *Ama gurea* madre nuestra, *Irene gurea* Irene la nuestra, en vez de *gure ama, gure Irene*. Nadie, que yo sepa, pronuncia ni escribe *etxe gurean* por *gure etxean* en nuestra casa, *ondo niretik* por *nire ondotik* desde mi lado.

Ez dakigu kutsaduraz, ala ez, baina hor da, Azkueren testigantza ere. Eta kutsaduraz edo gabe, Azkuek berak eskaintzen digu oraindik beste antzeko adibide bat, tradiziozkoa, edo ohizkoa bere *Morfologian*, nahiz kasuan egituraren beste ñabardura batzuk ari den eztabaidatzen. Eta hala dio gogoangarri ere kasuan (526 or.): «En la fábula 20.ª de Zabala se lee *laster zan bai gizendu Mixotxu gurea* pronto engordó, sí, nuestro Mixochu (el gato).» J.M. Zavala ere kutsatua.

8.2.2. -ko izenlagunen guneaz izenaren ondoretik.

Ez du Azkueren aldetik konsiderazio hoberik merezi, *-ko* izenlagunen kokatzeko aukerak, laguntzen duten izenaren ondoretik. Nahiz erabilera honek askoz ere tradizio zabalagoa izan, edutezko genitiboen kasuan baino. Ez dugu uste Azkuek inoiz zilegiztatzen duenik aukera agerian,[365] nahiz bai erabili inoizka. Eta bederen, ezarian bildu ditugun segidako adibideetan:

(379) (…, alarau negargarriak, intziri zoliak,) chilio biotzekoak. (*GK*,188?,385)
(380) … Arabako seme entzute andiko batekin, … (*Biz. Goi*.,1916,303)
(381) …, Martin Loontxo Etxeberrikok (auxe sudur-mintzoz erantzun zidan: …) (*AG*,1918,32)
(382) (…, izan beite zelanbait) neure birramamaren etxe Errigoitikoaren antzera, … (*Alt*.,1921,62)
(383) (Geroztik burua soildu ta) artaburu lur onekoai bezela … (*Lac*.,1921,62)
(384) (… zure arduraperako iri maitagarri oni esker) biguñ barrenetikoak (erakutsiko genizkizute, …) (*Lac*.,1921,63)
(385) (…; elizkoi ta errikoi gartsua,) senar ta guraso biotz andikoa, … (*Lac*.,1921,63)
(386) Atzapar zilarrezko bat … (*EEoit*.,1930,94)
(387) … Cervantes-en liburu ots andikoan … (*EEoit*.,1930,96)
(388) (Uri artako itsastarren arrantzatoki edo) kala urrutiko baten izena (da *Grankanto*.) (*Eus. Yak*.,I,1934,8)

Edota agian oraindik usuago den bezala, ahozko hizkeran bederen, genitiboa aposizio modura emanda izenaren ondoretik, atzizkiak errepikatuaz bietan, nola segidakoan behintzat:

(389) Arabako Batzarrak, Lege-zarrekoak, … (*Biz. Goi*.,1916,303)

8.3. Aditz nagusia + aditz laguntzailea segidaz, eta honen inbertsio posibleez.

Azkuek zuhurtasun handiz errepikatzen du behin eta berriro, *aditz nagusia + aditz laguntzailea* ohizko segidaren kanonikotasuna, euskarazko baiezko esaldientzako (*Izk*., 210 or, 340 or.; *Met. Prac*. 16 or.; *Morf*. 524 or.; …).

8.3.1. Ba- (eta ez) partikulekiko inbertsioak.

Bitxiki ordea, Azkuek kontu oso berezi bat dauka, hasieratik zilegiztatzeko, ezezko esaldien (derrigorrezko) inbertsioarekin batera, *ba-* aurrizkiaren bidez eman litekeena aditz konposatuetan. Nahiz berak behin baino gehiagotan aitortzen duen, formula hau ez dela inoiz erabiliegia izan idazkeran. Hala esango du adibidez 1894ko *Ensayo Practicoan* (*Tema 41*, 88 or.): «*La negación y confirmación hacen que el verbo auxiliar se anteponga de ordinario al auxiliar. Pág. … /* Enai etorriko = *no me he de venir /* Ezkara ioango = *no nos hemos de ir. /* Badai[366] etorten = *sí suele venirse*.» 1896ko *Metodo Praktikoan* ere antzera (81 or.):

> IV. El modal confirmativo por más que se usa, sobre todo en algunas zonas, tan frecuentemente con el auxiliar como con otros verbos, sin embargo en los escritos se ve poco usado con el auxiliar. En tal caso la construcción del auxiliar es la misma que cuando se le aglutina el modal negativo *ez*. El auxiliar así modificado, á no intervenir causa mayor, se antepone al infinitivo. *Bada etorriko*, sí ha de venir. / *Bagara etorriko*, si hemos de venir.

Antzeko iruzkinak 1891eko *Izkindean* (340, 345 orr.), 1923-5eko *Morfologian* (524-5-6 orr.), edota 1949ko *Estudio konparatiboan* (34 or.).

---

[365] Bai horregatik bitxiki gaitzetsi, nola egiten duen kasuan, kurioso asko, 1904ko Villafrancako sermoian, *Jaungoiko* izenaren inguruan (454 or.): «*Gaur egilleari izentzat Jaungoikoa ematen diogu. Izen au ezta uste dan bezin zarra. Zar zarra balitz, euskera garbiagoan «goiko Jauna» esango genduke*.»

[366] Gainetik marra batez ezabatu bide nahi da adizkiaren *i* letra.

8.3.2. Laster adberbioak soilik eragin lezakeen inbertsioaz.

Bitxiki, oso oso garratz deskalifikatu eta gero *Morfologian* (524 or.), *agaitik euskuen jarri* bezalako segida baten erabilera, eta hala moduz ere «Xà» fenomenoaren inguruko beste ohizko inbertsio asko,[367] Azkuek oraindik zilegiztatuko du, kasu honetan bai zuhur, *laster* adberbioaren indarra halako inbertsioak eragiteko, nahiz soilik salbuespentzat hartu nahiko duen, halako azalpen *sui generis* baten ondoren (526 or.):

> 759. Hay -caso singular- un adverbio de tiempo que también tiene fuerza para desarticular los grupos verbales de infinitivo y auxiliar. Es *laster* pronto. Se antepone al auxiliar, y el infinitivo, en forma de pretérito y acepción de futuro, se coloca tras su habitual servidor. En vez de *laster etorriko naiz, laster ilgo da ori, laster eroango dogu*, que también se usan, decimos en B *laster naiz etorri* pronto vendré, *laster da ori il* pronto morirá ese, *laster dogu ori etxera eroan* pronto llevaremos eso a casa. En la fábula 20.ª de Zabala se lee *laster zan bai gizendu Mixotxu gurea* pronto engordó, sí, nuestro Mixochu (el gato). La acepción verbal no es aquí de futuro.

Eta izan ere, Zavalaren adibideak erakutsi bezala, ez dirudi fenomenoa lotuta dagoenik, inola, *laster* adberbioaren etorkizuneko zentzuari, Azkuek nahi duen bezala.

8.3.3. Derrigorrezko inbertsioa ezezko aditz konposatuetan.

Azkuek 1891ko *Izkindeatik* salatzen du, egitura arrotz bezala, ezezko aditz konposatuen inbertsio eza, hainbeste praktikatu duena Cardaverazen eskolak, eta hala esaten du (210 or.): «*Ekarri daut* no puede decirse *daut ekarri*; y *ezdaut ekarri* debe decirse de este modo, *ekarri ezdaut* (según suelen decir los poetas cuando bien les viene) está mal dicho.» Antzeko gaitzespena egiten dio (errekurtso poetiko bezala), 1896ko *Metodo praktikoan* ere (69 or., 3 oh.). Eta segurasko, Azkueren erreflexio honek mozten du batbatean, Larramendiz geroztik hainbat zabaltzen joaten den praktika hau. Guk ez ditugu aurkitu bi adibide baino Azkueren prosa guztian, inbertsiorik gabeko ezezko esaldi nagusirenik (bat, bere lehen idatzian, nolabait historia aurrekoan, bestea galdera batean noiz beti izan diren usuzkoagoak):

> (390) …; zer jasoko dan ikusi nai ez da, … (*GK*,188?,387)
> (391) ¿Gaitz izango eztogu onetara geure izkera ugaltzea? (*Alt*.,1921,60)

8.3.4. Dislokazioak bideratzen ezezko esaldietan aditz laguntzailea eta nagusiaren artean.

Egia esan, Azkuek ere ez du jaso baino egingo, Campionek bezala,[368] euskaraz ohizkoa den joera, zenbait elementu tartekatzeko aditz laguntzailea eta nagusiaren artean, ezezko aditz konposatukiko esaldietan. Azkuek esango du, elementuen tartekatze honek dotoretasuna ematen ote dion esaldiari. Hala *Izkindean* jada garbi asko ordenamendu arauen artean (345 or.):

> 780. SÉPTIMA REGLA. Cuando el auxiliar tiene aglutinados los modificativos *ez* ó *ba* (sobre todo cuando se le aglutina el modificativo *ez*), además de colocarlo generalmente antes del verbo infinitivo, suele ser linda construcción *colocar entre los dos los otros elementos y complementos*.

Antzeko iruzkina egiten du ere, 1896ko *Metodo Practicoan* (69 or.); edota adibidez beste inoiz, gogoz goraipatu ere, Lardizabalen hala moduzko dislokazio ondo puztu bat («Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira», *Euskera*, 1928, 348-9 or.): «*Begira, gizonak, edo beintzat entzun esakera luzexko au zein ederki korapilotua den:* Zazpigarrena zure Jaun Jainkoaren eguna da. Egun onetan ez dezute ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak eta zure etxean bizi dan arrotzak lanik egingo.». Guk zinez uste dugu ordea, gauza bat dela elementu(-labur-)ren bat sartzea tarte horretan (aditz nagusiarekin osatuaz «Xà» moduko egitura bat-edo), eta beste bat esaldiko beste elementu guztiak sartzea, edo nagusienak, hau da, luzeenak eta konplexuenak. Eta jadaneko esan genezake, hainbat eta gehiago iluntzen dela esaldiaren esannahia, zenbat eta elementu gehiago tartekatzen diren bi aditzen artean, orduan eta gehiago atzeratzen delako aditz nagusiaren (hau da, semantikoki nagusiaren, eta nolabait *esaldi ardatzaren*) agerkera. Egia esan, gaur eguneko prosa arruntean, ez da batere zaila aurkitzen, antzeko dislokaziorik eta iluntasunik.

---

[367] «Sólo los poetas, obligados por el arte de la rima, y los que sin poseer bien la lengua tienen la audacia suficiente para lanzarse a escribir al público, se permiten desarticular estos grupos verbales ...» (524 or.). Azkuek *Morfologian* bertan gaitzesten ditu eraberean, *behar ditut ekarri* bezalako segidak, *ekarri behar ditut*-en aldean.

[368] Ik. honi eskainitako atala.

8.4. Ordenamendu ohar txikiago batzuk.

8.4.1. Atzizkiak izen sail baten azkenekoari? Iluntasun arazoak.

Duvoisinek, edota gertuago Campionek,[369] proposatutako idazkera arauen ildotik, Azkuek ere jasotzen du behin baino gehiagotan, nola erants dakiokeen, izen sail baten azkenekoari bakarrik ere, sail osoari dagokion deklinabide atzizkia. Hala egiten du adibidez *Izkindean*, nahiz bertan eraberean aipatzen duen, artikulu edo atzizkiok izenetako bakoitzari erasteko aukera, diskurtsoa intentsifikatzeko modu bezala (91 or): «*Si en una serie de nombres hay con el mismo limitativo limitados, el limitativo sólo al último puede aplicársele: así el discurso suele ser más dulce. Si al discurso quiere dársele más intensidad, es mejor aplicar el limitativo á cada uno de los nombres.*» Aukera beretsua erakusten du 1894ko *Ensayo Practicoan*, nahiz orduan, zuhur asko, jada gaztigatzen duen, sistema honek eragin ditzakeen iluntasunen gainean (*Tema 97*, 129-30 orr.):

> En una serie de palabras, independientes entre si, pero igualmente relacionadas ó sea que tengan los mismos aglutinantes ó desinencias pueden adoptarse para el empleo de estas desinencias y aglutinantes dos métodos: el de aplicar la partícula en cuestion solo á la última palabra de la série (lo cual da mucha gracia y donaire á la expresión) ó el de aplicarla á todas (y esto contribuye á la gravedad y enfasis de la frase). / … / Adviértase sin embargo, que no es lícito el donaire ni se debe emplear lo pulcro, si ha de faltarse por ello á la claridad.

Ez dugu hala ere aurkitu Azkueren lanetan, Campionek bere aldetik bai jasotzen duen, antzeko idazkera errekurtso cardaveraztiarra, aditz laguntzaileak emateko, bakarrik, sail baten azkenekoari erantsita. Egia esan, Azkuek bere prosan ez du erabiltzen exagerazio gehiegiz, Cardaverazen eskolako hainbat kidegan ezagutu dugun bezala, ez errekurtso bat, eta ez bestea, biak zilegizkoak euskaraz, neurri humanoetan praktikatuak diren bitarte guztian.

8.4.2. Euskarazko superlatiboak, hitzak errepikatuaz.

Azkuek ere behin baino gehiagotan jasotzen du euskarazko joera, hitzak errepikatzeko, hauek intentsifikatzeko modu bezala, superlatibizatzeko. Hala esango du adibidez 1896ko *Metodo Practicoan* (105 or.): «*I. Tiene el euskera una manera propia de reforzar la significación de las palabras, ó como se dice comunmente, de expresarlas en grado superlativo. Con repetir las palabras se obtiene este grado.*» Hala moduz oraindik lan berean 159 edo 168 orrialdeetan; edota ere, 1949 *Estudio comparativoan* (38 eta 75 orr.), azken honetan kurioski parekatzen dituelarik (Krutwigen eskutik) euskararen eta arabearen joerak (75 or.): «*Al igual que en vascuence, se puede en árabe intensificar el significado de un nombre por medio de repetición.*»

8.4.3. Izen arrunta fi izen propioa segidaz: Andra Catalin.

Ez diogu ezagutzen Azkueri iruzkin orokorrik gai honen inguruan. Bai hala ere, *Jaun* izen arruntaren erabilpen gaitzespena, izen propioaren aurretik emana (alemanez ez bezala); eta aldiz, *andre / andra* izenaren aurrejartzearen onarpena, arrazoi galaiez-edo. Hala egiten du behintzat, 1949ko *Estudio Comparativoan* alemanarekin parekatzen ari delarik gure hizkuntza (55 or.):

> 10.ª «YAUN Y HERR».- Nos separamos de la lengua alemana, como también de otras lenguas cultas, en la construcción sintáctica de estos dos vocablos, … Nosotros posponemos siempre nuestro *yaun* (*jaun*) al sujeto a que se refiere, … Sólo en el santo nombre de Dios admite nuestro *yaun* la opuesta construcción: *Yaungoikoa*, en vez de *Goikoyauna*. / Las señoras, aun en vascuence ocupan el primer puesto junto al nombre de su respectiva persona. Y decimos *Andre* (o *andra*)- *Katalin*, que vale por «doña Catalina» y *Frau Khatarina*.

Kontua da hala ere, Azkuek hainbat aldiz bederen erabiltzen duela bere prosan, *izen arrunta fi izen propioa* segida hau, segurasko alderantzizkoa izango bada ere nagusiagoa. Behintzat segidako adibideetan:

(392) …, Durangoko zaldun Antonio Arginzoniz, … (*Biz. Goi*.,1916,302)
(393) …, Abandoko seme Arana-Goiri'tar Sabin, … (*Biz. Goi*.,1916,302)
(394) (Alarik ere) beraren nagusi Valladolid-ko Cardenal jaunak … (*Biz. Goi*.,1916,307)
(395) … Laredoko seme Cachopingandik … (*Alt*.,1921,54)
(396) … Elorrioko seme Mendietak … (*Alt*.,1921,54)
(397) Canada-ganeko errialde otz edurtsu Alaska-n … (*Alt*.,1921,58)
(398) … nere adiskide maite kutun Broussain Salagoity. (*Lac*.,1921,63)
(399) (Geroxeago erakutsia izango da) onek edatsitako ipuin *Lamiosiñe*. (*Lam*.,1926,100)
(400) Alde artako uritxo Yabarren (eman zizkidaten berri auek.) (*Lam*.,1926,102)
(401) (… au gipuzkeraz geien erabili duena) Asteasuko erretore Aguirre (izan zan.) (*Bat. Bi*.,1927,120)
(402) (Orain eskaritxo bat zuzendu nai diot …) gure lankide agurgarri Landerretxeri: … (*Bat. Bi*.,1927,138)

---

[369] Ik. bakoitzari eskainitako atalak.

(403) Alemaniako Folk-lore-zale Sartirik … (*EEoit*,1930,96)

8.4.4. Aldiz juntagailuaren adibide bat bederen esaldi hasieran.

Azkuek esaten ditu bere lanetan zehar hainbat gauza, hainbat juntagailuren ordenaz euskaraz.[370] Ordea, besterik gabe aipagarria iruditu zaigu, behin bederen aurkitu dugun *aldiz* juntagailuaren erabilera bere esaldi hasieran(-edo), batere espiritu pospositiborik gabe, eta hala jasotzen dugu:

(404) Eta aldiz, berak baino beranduago ninikaturiko gereziak, azokaz azoka saskitxoetan darabilzkite salgai; … (*Biz. Goi*.,1916,304)

9. Bukatzeko.

9.1. Azkueren beste eragin sintaktiko batzuk Altubegan.

Ezagun da Altuberen distantzia eskola aranatarrarekiko, lexiko kontuetan. Azkue bera zen garbizaleegia, eta txokozaleegia, Altuberentzako.[371] Joskera kontuetan ordea, dagoeneko garbi behar du egon, Azkuek ez duela inon aurkitzen Altube baino dizipulu petoagorik, ez hoberik. Eta bakarrik, Azkueren hasieratiko babes teoriko eta pertsonal erabatekoak Altuberen tesi nagusiei, esplika lezake funts piska batez, hauek hurrengo urteetan irabazi eta gozatuko duten arrakasta. Esan dugu jada, Altubek finean ez duela, borobildu baino egiten, originalitaterik gabe, jatorriz Azkueren ondarekoak diren ideiak. Hau ordea, ez da bakarrik gertatuko, (bien) bi ordenamendu lege nagusien inguruan,[372] erruz erakutsi uste dugun bezala. Baizik eta baita ere, beste detaile ñimiñoago askotan, argi salatzen dutenak Altuberen segizio nahiko itsua Azkueren hitzaren hitzari, bai, biek ukitzen dituzten gaiengatik, nola, hauetako bakoitza tratatzeko duten ikusmoldeagatik. Segidan erakutsi nahi ditugu hauetako batzuk.

9.1.1. Aditzaren ekintza galdegai denean.

Altubek bi lege desberdin aldarrikatuko ditu, aditzaren ekintza galdegai denerako, segun hauek trinkoak diren edo konposatuak.[373]

9.1.1.1. Ibili dabil itxurako egituren inguru.

Lehenengoentzako *ibili dabil* itxurako formulak. Mitxelenak zalantzan jartzen du egitura hauen benetako erabilera, eremu zabalagoetan ez ezik, bizkaieraz ere.[374] Guk ere bai, Altubek eman nahi dion galdegaitasun zentzuan.[375] Guk nolanahi ez dugu ezagutzen halako errepikapenen erabilerarik Azkue aurretik.[376] Baina dudarik ez duguna da, Azkueri asko gustatzen zaizkiola egitura horiek, eta bere prosan, beste inon ez bezala aurkituko ditugula, nahiz kurioski berarentzat ez duten, gero Altuberentzako edukiko duten zentzu bera. Azkuek 1893ko *Bein da betikon* erabiltzen du segidako esaldia (87 or.): «*Gau guztian nundik nora eztakidala ta neure gerizea baiño beste lagun baga, ibilli nabil; ...*» Eta Azkuek berak, obrari erasten dizkion oharretan, esaten du honen inguruan, gogoangarri (99 or.): «Ibili nabil. *Lindo y no muy empleado modismo, que a semejanza de frases hebreas por este tenor indica lo fatigoso del andar*.» Oraindik 1923-5eko *Morfologian* ere,[377] aitatzen du berriro modu jakingarrian egitura hau, orduan aldiz izendatzen duena, *presente continuado*-koa bezala (527 or.):

> C) El presente continuado se forma con el infinitivo de un verbo conjugable y una flexión del mismo verbo. *Etorri nator* vengo viniendo, *ekarri dakart* lo traigo de continuo, *ikusi nakus* él me ve y hace algún tiempo que me está viendo. *Ona da ori, izan* eso es bueno y viene siéndolo. Cosa así significan estas popularísimas y elegantes locuciones bizkainas. [Eta, berriro 1893ko *Ibilli nabil* hura komentatzen esango du argigarri, haren itzulpena

---

[370] «*Berarizko alkargaiak ezdaiz guztiak bardin ipinten: batzuk esakizun alkartuen aurretik ipinten daiz, artetuta beste batzuk, eta bat edo bat atzenengo*?» (*Izk*., 346 or.; eta ik. bereziki, *Izk*. 346-7 orr.; edota *Hiztegia* eta *Morfologia*, juntagailu bakoitzaren sarreretan).

[371] Ik. besteak beste Altuberen sarrera hitzaldia Euskaltzaindian, *Euskera*, I, 1921, 1-49 orr.

[372] 1.: Aditza bukaeran mendeko esaldian. 2.: Galde eta erantzunen ordenamendu berdina euskaraz: *inkisitiboak / inkirituak* aditzaren aurrean.

[373] Aipatu dugu bestalde 4.2.2.2. atalean, Azkuek *Izkindean* (342 or) irekitzen zien zirristu txikia, esaldi hasierako aditzei, hauek liratekeenean edo esaldiko galdegai. Zirrikitu, Altubek ondo aprobetxatzen duena.

[374] «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Univ. Deusto, 1981, 65 or.

[375] Beste gauza bat litzateke, hauek erabiltzen diren, mintzagai hanpatu modura edo, eta *ibili badabil* egituren pareko.

[376] Izan litekeen arren soilik gure ezjakintasunen ondorio.

[377] Altubek bere *De sintaxis euskérica* aterata 4-5 urtera. Altubek hemen ematen du lehen aldiz bere interpretazioa, Azkuek *aurkitutako* egitura honena.

eman eta gero:] / … Enterado Arana-Goiri de que tal locución es muy popular en este dialecto y prendado de ella la empleaba casi pródigamente en sus primeros escritos.

Erabili ordea Azkuek ere bai; hala esaldi nagusietan, nola mendekoetan, nahiz inoiz ez izan Altubek nahiko lukeen zentzu estuan (hau da, ez aditzaren ekintza-edo litzatekeenean galdegai). Hala behintzat segidako adibide, ezarian bildu ditugun hauetan:

(405) Ire adarretan ziar ibilli dabillen guna (antzua da, …) (*Ger*.,1895,23)
(406) …: gaisoak giltzepean gau ta egun isil-isilik iduki dauzkagu. (*Biz. Goi*.,1916,301)
(407) … gure baserritarrak oinetakoen txaplatak adierazteko gutxienez bi itz erabili darabilzkite: … (*Erd*.,1920,54)
(408) …, bat edo bestetxo lo, guztiak gozaro, alper usaina darioela ezeren ardura barik geldi egon dagoz. (*Alt*.,1921,51)
(409) …; besteak, batez ere ibili dabilena anka-bakarra bada, … (*Lac*.,1921,58)
(410) …, batera ta bestera ibili ezpadabiltza, … (*Lac*.,1921,59)

Badirudi, Azkue dagoela nolanahi halako egitura baten arrakastaren atzean, XX mendearen hasieratik. Eta ez du Altubek inoiz Azkuez beste iturririk aipatzen bere aurkikuntzarentzako.

9.1.1.2. Egin partikularen erabilera aditz indartzaile gisa.

Aditz konposatuetan berriz, Altubek *egin* aditzaren erabilera proposatzen du *indartzaile* bezala, aditzaren ekintza litzatekeenean-edo galdegai. Kurioski, Azkuek jada jasotzen duen erabilera 1905-6ko *Hiztegian* (I, 221 or.,3):

Este verbo se usa como auxiliar de otros verbos y de nombres: a) se usa como auxiliar de verbos para dar á estos más fuerza de expresión, lo cual acontece cuando estos por su importancia momentánea se ponen á la cabeza de otras palabras, ó cuando no vienen acompañados de complemento que les vigorice. EDO TXANTXETAN ABIL, EDO EROTU EGIN AIZ, … (*Pach*. 41-25)… DANTZAK AIN DEUNGAK BALIRA, KENDU EGINGO LITZATEKEZ: … (*Olg*. 133-5). En este caso EGIN hace en pretérito, futuro y modo habitual casi el mismo oficio que el prefijo confirmativo BA- en la conjugación: …

Ez da zalantzarik, Altubek Azkueren oinarrizko saltsa erabiltzen duenez, bere eltzerako.

9.1.2. Izenorde intentsiboak erabiltzeaz aditzaren aurrean, ondoren emango den galdegaiaren ordezko.

Ez du Azkuek inoiz halakorik agerian aipatzen, uste dugu. Baina ohargarria gertatzen da erabilkera hau bere prosan, bitarteko guztiaren aldean. Beldur gara, kasuan ere Azkue ote dagoen, gero Altuberekin horrenbeste hedatuko den egitura honen atzean.[378] Hala bildu ditugu, ezarian, Azkueren segidako adibideok behintzat:

(411) Itzginari *noiz* ekarri dauan galdetu edo itanduko bageuskeo' nai bere alegiña *aldia* erakustea balitz' autxe izango litzake esakizun onen esapidea: GAUR *Andresek arrain eder bat itxasotik ekarri dausku*. (*Izk*.,1891,342)
(412) Gizatasun Doneari dagokiozanak aunetxek dira: *Lenengoa: ...* (*Dotr. ag*.,1896,167)
(413) … liburu ilezinaren itzaurrean esaldi eder auxe ezarri zuen: «Egoarriak …». (*Biz. Goi*.,1916,301)
(414) …, bertako batzuek burubide auxe eman zioten: bertan bera uzteko … (*Biz. Goi*.,1916,305)
(415) …, alargunari eskeintza auxe egin nion; Andrea, … (*Lac*.,1921,57)
(416) …, hasparrengo uri eder onetantxe, ikasi nuen' lana maite eztuan gizonari emengo zârrek eman oi zioten deitura: … (*Lac*.,1921,59)
(417) …: auxe izan dezute ta izan degu nere adiskide maite kutun Broussain Salagoity. (*Lac*.,1921,63)
(418) Oni elizgizonak burubide auxe emon eutsan: «Begiratuiok …» (*Lam*.,1930,98)
(419) Auxe izango duk nere esker onaren ezaugarria. (*Lam*.,1930,106)

9.1.3. Goiko arrasta (coma superpuesta).

Altubek 1932an proposatzen du (*El acento vasco en la prosa y en el verso*),[379] gainezarritako komatxo baten erabilera (*coma superpuesta*), sintagma desberdinak bereizteko euskaraz. Altubek aitortzen du, gaztelaniaz banaketa hori aditzak berak egiten duela maiz, baina, nola, euskaraz aginduta dagoen, aditza esaldi amaierara-

[378] Jabetzeko, Altubek puntu (bitxi samar) honi eskainitako garrantziaz bere sisteman, nahikoa da gogoratzea, bere 1919 (6 or.), nola 1929ko lanetan sarreretako 7. puntua, non esaten duen bietan berdin bere lege nagusia aitatu ondoren (1929, 3 or.): «*Aunque más tarde nos ocuparemos extensamente de las formas llamadas* intensivas *de ciertos pronombres, (v.gr.,* axe, orixe, eu, neu*, intensivas bizkaínas de* a, ori, i, ni*) es conveniente señalar aquí el papel importantísimo que juegan ellas en la determinación de los elementos inquiridos, tanto que es casi regla general en euskera el empleo de los pronombres en forma intensiva cuando constituyen o forman parte del miembro inquirido de la oración.*» Ikusi ere oro har gure lana Altuberen gainean.

[379] Ik. Altuberi eskainitako atala.

edo eramatea, beharrezkoa gertatzen dela beste zeinuren baten erabilera. Kasualitatez, gainezarritako koma honen erabilera, sintagma desberdinen artean, predikatzen eta praktikatzen du Azkuek, bere lehen garaiko idatzi guztietan (*Grankanton arrantzaleak; Peru Matraka ta Pedr'Anton; Izkindea*; …). Eta azken honetan argitzen du ongi goiko arrastaren erabilera (27, eta 35-6 orr.):

> 57. LENENGO ARAUA. Esaldiak ondo oguzteko' alkar mendetuta dagozan itzak' arnasa baten oguzi bear daue. / … / Noiz arnasa artu leiken' edo zeintzuk daizan itz alkar mendetuak' itzen goiko marratxoak dinoskue. (27 or.) / … / 89. *Goiko arrasta*. Marra au barria dai; bear bearra dailako sortu daut. Euskal itzak' euren berarizko Irizpidea gaitik' erdaldunak marrarik ipinten ez dauen lekuan bere' marraren bat bear daue' euren agerkizuna ilundu nai izan ezik. / … / 90. ¿Noiz, bada, oitu bear izango dai goiko arasta? / Arnasa artuteko peremiñaa' ta itzen agerkizuna nastuteko arrizkua dagoenean, bezte marrarik onetarako oitu al izan ezik. (35-6 orr.)

Azkuek gerora baztertu egingo du erabilera, aldiz Altubek bereganatzen duena 1932tik aurrera bederen, eta bere azken urteetako euskal idatzietan.[380]

9.1.4. Eta beste.

Bada oraindik Altuberen obran beste segizio arrastorik Azkuerekiko. Hala nola, *Ba-* eta *Ez* partikulen gaineko ikuspegietan.[381] Are biek hauen erabilera bitxiei egiten dizkieten iruzkinetan: *bada etorriko*, eta antzekoen propaganda neurri gabea; edota *ekarri ez dau* bezalako ezezko egitura inbertsiorik gabekoen gaitzestea. Baita ere bi autoreek, izenorde intentsiboei ematen dieten garrantzian.[382] Edota biek, *-(e)na* eta *-(e)la* atzizki konpletiboen erabileraren inguruan egiten dituzten oharretan,[383] nahiz Altubek bere sistema ikuspegi propioa ezarri nahiko dien bi atzizki hauen erabilkera desberdinei ere (batere bat ez datorrena bestalde, Azkueren erabilerarekin ere).

Eta hala esango litzateke, Altubek, bere sistema eraikitzeko, lehendabizi peto estudiatzen duela Azkue,[384] honen teoria eta honen praktika, gero guzti hori, baina ia hori bakarrik, sistematizatzeko, nolabait, bere teoria propioan. Horregatik litzateke interesgarria, gehiago ezagutzea, bi pertsonaien arteko harremanez, agidanean nahiko sakon eta iraunkorrak, biak musika zale amorratu bezala ezagutu zirenez geroztik mende hasierako urteetan.

9.2. Azkueren altubetarzaletasun sintaktikoaz.

Esan dugu, ez dela ulergarria Altuberen tesien arrakasta, ez balitz, hauek beti jaso bide zuten, Azkueren itzalarengatik. Baina, datu gehiegirik ez daukagun bezala Azkueren cardaveraztartasun pertsonalaren inguruan,[385] edota honen zaletasun bereziarena eskola cardaveraztiarrarekiko,[386] ez daukagu ere datu idatzi, ageri gehiegirik, Azkueren altubetarzaletasun sintaktikoen gainean. Bien arteko adiskidetasun pertsonal posibleaz gain, egia da, Azkue dela Altuberi erantzuten diona *Sarreritzaldia* Euskaltzaindian 1920an;[387] eta ordurako Altubek hasia zuela jada argitaratzen (eta segurasko amaitua) bere *De sintaxis euskérica*. Hitzaldiok ordea, ez batarenak eta ez bestearenak, ez dituzte batere aipatzen joskera arazoak. Eta Azkuek zuzenean, Altuberen tesiei eskainitako babes sintaktikoaren inguru, guk soilik ezagutzen dugu, honek behin, Altuberi zuzendutako beste kritika zenbaiten artean, botatzen dion lore erretorikoa edo, *Erderismos* lana aipatzeko (*Observaciones acerca de Euskaltzaindiari de Altube'tar S.*, Euskera, 1935, 149 or.): «*obra, ciertamente aceptable, compuesta de 315 páginas, que salió de la pluma de nuestro caro colega*».

---

[380] Ik. besteak beste «Literatur-euskera» artikulua, *Euskera*, 1956, 3-13 orr.

[381] Ikusi adibidez 9.1.1.2. atalean jaso berri dugun *Hiztegiko* aipuaren amaieran.

[382] Ik. *Izkindea*, 74 or.; *Morfologia* 438 or; ... Nahiz puntu hau askoz ere gehiago eta kontuzago garatzen duen Altubek.

[383] Ik. besteak beste, *Metodo Practico* 119 or; edota *Hiztegia* II, 66 or.

[384] Eta batez ere honen *Izkindea*.

[385] Ezpada, 1897an berrargitaratu izanarena bere *Euskalzaleren* orrietan, Cardaverazen *Eusqueraren Berri Onac* liburua.

[386] Salbu, Azkuek inoiz behintzat egiten dion goraipamena Lardizabalen joskerari, zalantzarik gabe beti *cardaveraztiarra*, esaten dituenean 1928an, *Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira* artikuluan, segidako hitzok (Euskera, 1928, 348 or.): «*Gatozen orain gai errazago batera: itz-joskera edo "construcción" deritzaionera. Egoki josi oi zituen Lardizabalek geienean bere itzak. ... / ... geienean Zaldibiko euskalari bikaiña esku oneko itz jostun agertzen zaigu.*»

[387] Hala ematen dio ongietorria (*R.M. de Azkue Euskaltzainburua'k Seber Altube'ri euskaltzain artu-orduan emandako ongi-etorria*, Euskera, II, 1921, 50 or.): «Ondo etorria izan zakiguz, aspaldion adiskide ta lankide zaudazan ori, gure arazo onek erraztu ta jasotera.» Eta amaitzeko (62 or.): «Erdu, Altube, aspaldiko adiskide ta lankide gogotsu ori, erdu gure Agirre biotz-bigun, ortzargi ta idazle txukunak ondo berotu baino lenago utsik itxi euskun aulki au betetera.»

9.3. Azkueren azken aipu bat, erabaki artifizialek izan dezaketen eragin kaltegarriaz, hizkuntzaren erabileraren gainean.

Azkuek sustatutako iraultza sintaktiko arrakastatsuaren jaiotzaren ehun urtetara, eta honen ondorioak ezagututa gaur eguneko prosa ereduan, gogora nahi ditugu hemen, bukatzeko, Azkue beraren erreflexio batzuk, orduan egindakoak, Aita Soloeta-Dimaren *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* lanean proposatutako aditz erreforma erabat artifizialen inguruan («Txukuneria», *Euskera*, 1925, 19-20 orr.):

> Nik bezela beste edozein euskaldunek oartu izango du euskaldun geienen artean gertatzen dan zertxo au. Erderaz aisa badakite ta euskera berdintsudunak ezpadira, berealaxe yotzen dute erderara, alkar ulertzea errazago baitute. ¿Zer ezotelitzake gertatuko *emau, deu kaza, tzek tzatzal*[388] ta beste len azaldutako asmo bitxi oriek or-emenka erneak eta ez garatu bai garatu balira? Iguinez ta ulerpidea ta erraztasuna nairik edozeinek yoko luke erderara. Yaungoikoak yagon dezala gure izkera zar maitea aipaturiko bi liburu oien [Soloeta-Dimarena, eta Azkue beraren *Euskal-Izkindeaz* ari da] eta aipatu gabe utzitako batzuengandik: bestelan eun, berreun urte baino lenago liburu oriek berok euskeraren il-yantziak (la mortaja) izango lirake.

Eta hori gerta badaiteke erreforma morfologikoekin, horixe ari da gertatzen erreforma sintaktikoekin gaur eguneko prosan. Halako arau sintaktikoz idatzitako testuak ez dira erraz ulergarriak. Eta, nekez irakurtzen dira. Prosa ulergarri bat egiteko, irakurgarria, besteak beste, gure gainetik atera beharko ditugu lehenbizi, kortse itogarri horiek. *Jaungoikoak jagon dezala gure hizkuntza zahar maitea antzeko eraso sintaktikoengandik!*

---

[388] Hauek dira Soloeta-Dimak proposatutako adizkietako batzuk *Ensayoan*.

HITZ ORDENAREN ESTATISTIKAK EUSKARAZ

AURKIBIDEA:

• Buruen aurkibidea.

• Sarrera.

I. Zenbait ohar R.P.G. de Rijk-en «Is Basque an S.O.V. language?» lanaren inguruan.

1. Azkue-Altuberen euskara ereduaz.
    1.1. Azkueren aitzindariez.
    1.2. Tradiziozko bideak.
2. Ohar bat Greenbergen sailkapen orokorren balioez.
3. De Rijkek erabilitako korpusez, azterketa estatistikorako.
4. SVO elementuen ordenamendu datu gehiago / baliagarriagoen bila.
    4.1. XVII mendeko bi prosa nagusi: Axular eta Tartas.
    4.2. XIX mendeko lau autore aukeratu.
    4.3. Lau ipuin bilduma herrikoi.
    4.4. Gaur eguneko ahozko testigantza bat: Bizkaiko Zeberiokoa.
    4.5. Estatistika bat Azkueri.
    4.6. 1596ko Refranes y Sentencias-eko hitz ordenaz, eta XVI eta XVII mendeetako beste testu bizkaitar batzuena.
    4.7. K. Rotaetxeren Ondarruko datuak.

II. Estatistika egokiago batzuen bila.

1. Zer aztertu.
    1.1. Oharra, «X» konplementuak zehazten.
    1.2. Mendeko esaldien azterketan.
2. Gure korpusa.
    2.1. Gure literatura klasikoa edo.
    2.2. Ahozko (edo) testigantza herrikoi klasikoak.
    2.3. Ahozko testigantzak gaur egun.
        2.3.1. R.M. Pagolaren Euskalkiz euskalki.
        2.3.2. Ados? (1992-X-5): Krisia ala hondamendia?
        2.3.3. Ados? (1993-II-22 / 1993-III-1): Eskola legea. Arazoak amaitu? (I eta II).
        2.3.4. Bi euskaltzainen zuzeneko mintzoak.
    2.4. Beste estatistika soilago batzuk kontrasterako.
        2.4.1. Itzulpen klasikoen hitz ordenaz.
        2.4.2. Gaur eguneko euskara idatziaren testigantzak.
3. Testuen jasotasun / jantzitasun mailak neurtzen.
    3.1. Esaldiak konplementuka.
    3.2. Mendeko esaldi eta nagusien arteko proportzioak.
4. Gure datu estatistikoen balioez.

III. Esaldi nagusien ordenaz.

1. Aditzaren esaldi barreneko guneaz, baiezko esaldi nagusi deklaratibo konplementudunetan.
    1.1. Emaitzak sailez sail.
        1.1.1. Idazle klasikoak eta Webster / Cerquanden bildumak.
        1.1.2. Gaur eguneko aho hizkeren artean.
    1.2. Gaur eguneko testu idatziak: desberdinak.
    1.3. Mendibururen itzulpenak.
2. Aditza tartean eta galdegaiak aditz ondoretik esaldian.
    2.1. Sailkatze irizpide pragmatikoez.
    2.2. Datu orokorrak.
        2.2.1. Datuak sailez sail.
        2.2.2. Gaur egungo testuak: desberdinak.
    2.3. Galdegaia aditz ondoretik eta entendimentuzko aditzak.
3. Esaldi nagusiak konplementuka.
    3.1. Datu orokorrak.
    3.2. Datuak sailez sail
        3.2.1. Idazle klasikoak.
        3.2.2. Webster / Cerquand.
        3.2.3. Euskalkiz euskalki.
        3.2.4. Krisia-hondamendia.
        3.2.5. Eskola legea.
        3.2.6. Gure bi euskaltzainak.
        3.2.7. Joera berdinak, baita ere, mintzo apalenetan.
        3.2.8. Idazle klasikoen arteko alde txiki batzuk.
        3.2.9. Ertzeko datuak gure mostran.
    3.3. Gaur eguneko prosa idatziaren egitura aldrebesa.
        3.3.1. Aztertu hiru testuetako datuak.
4. Aditza zuzenean esaldi hasieran.
    4.1. Aditz trinkoak.
5. «Ba-» aurrizki baieztatzaile bidezko esaldiak.
6. Aditza esaldi aurrealdean. Datuak globalizatzen.
    6.1. Datuak sailez sail.
        6.1.1. Idazle klasikoak.
        6.1.2. Euskalkiz euskalki saila.
        6.1.3. Euskaltzainak.
        6.1.4. Krisia eta Eskola legea.
    6.2. Gaur eguneko prosa estandarraren ratioak: desberdinak.

IV. Mendeko esaldiak.

1. Aditz jokatu bidezko mendeko esaldiak.
    1.1. Korpusa zehazten.
    1.2. Aditz jokatu bidezko eta baiezko esaldi konplementudunak, soilik atzizki bidez osatuak.
        1.2.1. Datuak sailez sail.
            1.2.1.1. Mendeko esaldi hautsiak: aditza tartean / hasieran.
        1.2.2. Gaur eguneko testuak, aldean, desberdinak.
    1.3. Aditz jokatu bidezko ezezko esaldiak, soilik atzizki bidez osatuak.
        1.3.1. Datuak sailez sail.
        1.3.2. Gaur eguneko prosaren datuak.
    1.4. Batera aurre partikulaz eta atzizkiz, osatutako mendeko esaldiak.
    1.5. Datuak zertxobait globalizatzen.
        1.5.1. Datuak sailez sail.
        1.5.2. Gaur eguneko prosaren kontrastea.
    1.6. Konplementuka, aditz jokatu bidezko eta baiezko mendeko esaldiak.
        1.6.1. Datuak sailez sail.
            1.6.1.1. Idazle klasikoak.

1.6.1.2. Webster / Cerquand.
1.6.1.3. Euskalkiz euskalki.
1.6.1.4. Krisia-hondamendia.
1.6.1.5. Eskola legea.
1.6.1.6. Euskaltzainak.
1.6.2. Mendibururen itzulpenak.
1.6.3. Gaur eguneko testuak, aldean, desberdinak.
2. Mendeko esaldiak aditz jokatugabe bidez.
2.1. Datuak sailez sail.
2.2. Gaur eguneko prosa idatziaren datuak.
2.3. Mendeko esaldi jokatugabeak konplementuka.
2.3.1. Datuak sailez sail.
2.3.1.1. Idazle klasikoak.
2.3.1.2. Webster / Cerquand.
2.3.1.3. Euskalkiz euskalki.
2.3.1.4. Krisia-hondamendia.
2.3.1.5. Eskola legea.
2.3.1.6. Euskaltzainak.
2.3.2. Gaur eguneko prosa idatziaren datuak.
3. Erlatibozko esaldiak, aditz jokatu bidez.
3.1. Datu orokorrak.
3.2. Datuak sailez sail.
3.2.1. Idazle klasikoak.
3.2.2. Webster / Cerquand.
3.2.3. Euskalkiz euskalki.
3.2.4. Krisia-hondamendia.
3.2.5. Eskola legea.
3.2.6. Euskaltzainak.
3.3. Gaur eguneko prosa idatziaren datuak.
3.3.1. Mendibururen itzulpenak.
3.4. Zenbait erreflexio erlatibozko esaldien inguruan.

V. Epilogo baterako.

1. Gaur eguneko euskara idatzia guztiz da diferentea, hitz ordenaren eremuan, beste inoizko, inongo eta inolako euskararen.
2. Euskarazko hitz ordenaren bi printzipio oinarrizko.
2.1. Euskararen hitz ordena librea.
2.2. Hitzen ordena euskaraz ere: «tema fi rema» segidan.
3. Zein da ordea, euskal aditzaren gunea, «tema fi rema» segidan?
4. Joskera desberdinak euskaraz, esaldi luze eta laburretan?
5. Euskal aditza: esaldi aurrealdean.
6. «Aditza bigarren» fenomenoa euskarazko esaldian.
7. «Aditza bigarren» fenomenoaren hainbat manifestazio euskaraz.
7.1. «Xà» fenomeno nagusia: «aditz partizipioa fi aditz laguntzailea» segida.
7.1.1. «Partizipio nagusia fi laguntzailea» segida, hausteko gauza diren, «Xà» egitura batzuk.
7.2. «Xà» egitura tipikoa: «galdegilea fi aditza» segida.
7.3. «Xà» segidak: «partikula topiko-tematiko laburra fi aditza».
7.4. Aditz lokuzioak «Xà» egituran.
7.5. «Galdegai laburrak fi aditza» segidak ere, «Xà» egitura tipikoan.
8. Zehazten, «aditza bigarren» («Xà») fenomenoa.
9. Galdegaia eta aditzaren arteko erlazioak euskaraz.
10. Euskal aditza, lotura elementu naturala euskaraz, esaldiko mintzagaia eta galdegaiaren artean.
11. Aditzaren aurregunea mendeko esaldian.
12. «Aditza bigarren» («Xà») fenomenorako joera, hausten da, multzo fonikoaren mugetatik kanpo.
13. Euskararen hitz ordena librea, estilistika desberdinak.
14. Bi gomendio labur, modu argian idazteko euskaraz ere.

14.1. Aditzak aurreratu.
14.2. Dislokazioak uxatu.
15. Beste hainbat puntu ere argitzeko.

HITZ ORDENAREN ESTATISTIKAK EUSKARAZ.

Labur esateko, Altube jaunak finkatutako legeak,
euskerak gorde bear lituzkeanak izango dira agian,
baiña ez euskerak gorde edo gordetzen dituenak.

1953an zioen jada hala Mitxelenak (*Arnaut Oihenart* hitzaldian, *BAP*, 1953, 460 or.). Geroztik, ugari izan dira euskalari eta euskaltzaleak, ariaren ariaz, antzeko iritzi kritikoak burutu dituztenak, Azkue-Altuberen arauon inguruan, euskarazko hitz ordenaren joera eta legeez. Iritzi, batzuetan plazaratu ere egin direnak, hainbat arrazoiturik.

Hauen artean, aipagarriak dira, Mitxelena beraren beste hainbat ohar eta artikuluez gain, Aita Villasanteren abisu ugariak, 1956az geroztik, bere hainbat liburu eta artikulutan barreiatuak; edo J. Azurmendiren 1977ko iruzkin jakingarriak, Orixeren frasekera eta ritmo ez-altubetarren gainean. Gaur egun, gogoangarriak dira, J.R. Zubimendi eta P. Esnalek euskal joskeraz emandako kontseilu praktikoetako hainbat, oraintsu argitaraturiko *Idazkera-liburua*-n, *Aditzak aurreratu* ataleko ausart askoak bezala (*Aditza aurrerago eta esaldia ulerterrazago*, …), horren ezohizkoak egungo euskal letren baranoan (ikus denetarako bibliografia).[1]

Denbora guzti honetan ordea, apenas ekarri berririk izan den, Mitxelenak salatutako lege apokrifo horien aurrean, batere azalarazteko, euskarak historikoki benetan gorde dituen joskera legeak, edota gaur egun ere gordetzen dituenak eremu idatzi haietatik kanpo, Azkue-Altuberen joskera eskola erreflexiboak, horren estu, kontrolatzen dituenak.

Gure aldetik lan honetan, estatistika apur batzuen bidez nahi izan gatzaizkio hurbildu, ez euskara "idealari", baizik eta, aurreiritzi Azkue-Altubetarretatik landa, zertxobait euskara errealari, eta honen hitz ordenamendu moldeei, Mitxelenak egin bezala, erabat aldenduak presumi ditzakegunak, Azkue-Altuberen joskera aurresuposizio antierderistetatik.

[1] Ikus litezke ere ildo honetan, gu geron beste zenbait lan: *Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean* (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa); edo, *Euskararen hitz ordena librea*, eta, *Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran* (biak ere eraberean Zutabe aldizkarian argitaratzekoak).

I. Zenbait ohar R.P.G. de Rijk-en «Is Basque an S.O.V. language?» lanaren inguruan.

Gure lanaren mamian sartu aurretik ordea, egin nahi ditugu zenbait apreziazio kritiko, De Rijken *Is Basque an S.O.V. language?* artikulu ospetsuaren gainean, bertan ematen baitira, gure hauen aurretik ezagutzen ditugun estatistika (ia) bakarrak, euskarazko hitz ordenaren inguruan. Artikulua 1969an argitaratu zen, eta nagusiki eztabaidatzen da bertan, euskal hizkuntzaren adskripzio posiblea, J.H. Greenberg irakasle estatubatuarrak, 1961/63an,[2] munduko hizkuntzen sailkapen tipologikorako proposatzen dituen multzoetako batean (SOV multzoan), kontutan izaki, batez ere, Sujeto (S), Objetu (O) eta Aditz (A; V ingelesez) elementuek, esaldi barrenean erakusten duten oinarrizko ordena erlatiboa hizkuntza bakoitzean.

1. Azkue-Altuberen euskara ereduaz.

Aurrerantzean, euskara adskribatutzat eman da, SOV (SOA) oinarrizko ordenako hizkuntzen sailean, (ia) besterik kuestionatu gabe. De Rijken artikulu eta ondorioen arrakastan, izan du segurasko zerikusirik, lanari, Mitxelena berak emandako ezbairik gabeko babes, hainbeste aipatuak.[3]

Euskararen adskripzio "berri" hau, nolanahi, ezin gerta zitekeen harrigarriegia, kontutan izanik, Greenbergek, hasiera batetik erabiltzen duela, euskara,[4] eta honen, egiazko edo ustezko ezaugarriak, beste 10 hizkuntzarenekin batera, hain zuzen, SOV taldeko hizkuntzen karakteristika tipologikoak aurredefinitzeko.

Oso oker ez bagaude ordea, Greenbergek, garaian, ezin konta dezake, euskarazko hitz ordenamendua ezagutzeko, oinarrian, lehenago Azkuek, edo Altubek, eskainitako "datuekin" baino.[5] Eta "datu" hitza eufemismoa baino ez da kasuan. Azkue baita, bere 1891ko *Euskal-Izkindea*-tik, lehenengo gramatikagilea, aurreko euskal tradizio nagusi guztien kontrara, oso prezeski praktikatu, predikatu eta preskribatuko duena euskal esaldiarentzako SOV ordena, antonomasiaz, eta honen pareko edo ordezko, OVSa, beti bitxia munduan.[6]

---

[2] Ezagun bihurtu den *Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements* hitzaldi/artikuluan.

[3] Hala baitio Mitxelenak adibidez, 1978ko «Relato y orden palabras» artikuluan («Miscelánea filológica vasca, I», *FLV*, 1978, X 205-228; *Palabras y textos*, EHU, 1987, 378 or., nondik): «*Aunque la prioridad en el mismo campo vasco pertenezca a otros, Rudolf P.G. de Rijk es, por cuanto sé, el autor del primer estudio bien fundado que se ha dedicado a nuestra lengua: … De sus conclusiones se sigue, si yo no las he interpretado mal, que S.O.V. es el orden superficial estadísticamente dominante, además de ser el que todos, propios y extraños iniciados, hemos venido asignando intuitivamente a la lengua. De Rijk apoya esta presunción de preponderancia en textos (baja, como Greenberg en su día, del plano paradigmático al sintagmático, el único que está plenamente abierto a la cuantificación), tomados de materiales que en buena parte proceden precisamente de narraciones, populares o literarias.*»

[4] Bere mostrako, mundu guztiko 30 hizkuntzen artean.

[5] Bai ere, Greenbergek, probablea den bezala, Lafitteren 1944ko gramatika erabiltzen badu [*Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*] bere euskal ezagutzetarako, atal honetan nahikoa zintzo oinarritzen dena Azkue-Altuberen postulatuetan.

[6] Hala dio argi Azkuek (*Euska-Izkindea*, 344-5 or.): «778. BOSKARREN ARAUA. Gaiak [elementuak] ia garransi bardina daukenean' *adizkia* [objetua] lenengo esaten dai, urrengo *aditza* (edo izakizuna [atributua]) ta laguntzailea' bear badau; *izatea* [*el sér*, sujetoa] adizkian aurretik ederto esan leike, edo aditz ta laguntzailean atzetik. / *Etxe+bat egin dau Andresek = Andresek etxe bat egin dau - Narrastia dai sugea = sugea narrastia dai - Bost+orri daukaz larrosatxoak = Larrosatxoak bost+orri daukaz.*». Areago jabetzeko, Azkuek XX mendean, hegoaldeko euskal joskerara erakarritako iraultzaz, ikus liteke zabalago gure lana *Resurreccion Maria Azkue (1864-1951): XX mendeko hitz ordenamenduaren iraulketa bortitz guztiaren, Aita eta eragile*, doktoretza tesirako prestatutako *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta praktika idatziak*, lan orokorragoaren barne.

1.1. Azkueren aitzindariez.

Azkuek bultzatuko duen ordenamendu eskola eta estilistika berri honek ordea, badu aitzindaririk, guk *Cardaverazen Eskola* deitu dugunean. Eta zeinen ezaugarri bakarra den, aditza esaldian ahalik eta gehien atzeratzea beti,[7] eta zeinnahi moetatako esaldietan (are, galdera, ezezko edo aginterazkoetan), makina bat egitura bitxi eta gordin eraginez euskaraz, beste inoiz erabili gabeak gure artean. Eta izan ere, Cardaverazek, jada 1761ean, euskalzaleen arterako haizatzen duen konsigna, da, euskara idaztea, beti, *gaztelaniaren kontrara*;[8] ez zertan, euskarari begira, edo aurreko autore euskaldunei. Ezin esan da, 1760an piztutako eskola honek, ez duenik arrakastarik zabalena bereganatu XX mende hondarrerako.

Aditza, guztien gainetik atzeratzeko arauaren jarraitzaile sutsu izango dira, Cardaverazek berak 1760-66 bitartean argitaratzen dituen idatzi ugariak,[9] gerora hainbeste zabalduko direnak Euskal Herri osora, Cardaverazen izen "santuaren" itzaletan; baita Lardizabalen lanak ere;[10] eta oroz gain, Gregorio Arrue eskola maisuaren itzulpenak 1863/66az geroztik (salbu 1858ko lehenengoa). Gero, maila apalago batean, Bartolome Olaechea bizkaitarraren *Dotrina Cristianea* arrakastatsua, 1775ko bigarren argitalpen zuzendutik aurrera (ez hala, 1763ko lehenengoa); J.I. Guerricoren *Platicac*; edota ere, Aita Añibarroren *Esku-Liburuaren* 2. eta 3. argitalpenak, 1821 eta 27an, eta ere, bere *Gramatica Bascongada*-ren sarrerako ohar berantiarren bat (urrutitik ere ez, bere beste inoizko lanik).[11] A. Campionek ere erakutsiko du eskola honen eraginik, besteak beste, eta bere euskarazko idatziren batzutan ez ezik, 1884ko *Gramatica* erraldoian.[12] Agian aurki liteke beste aztarrenik ere barreiatuta, garaiko eta inguruko autore txikiagoetan. Eta Cardaverazen eragina, batik bat, autore giputzetan aurkituko dugun arren, iparraldean ere, nabarmen izango da estilo berriaren eragina, Duvoisinen 1856ko lehen liburuan, *Liburu Ederra*, itzulpen librea, Cardaverazen 1761eko, *Aita San Ignacioren Egercicioen gañean afectoac* liburuarena,

---

[7] Hala predikatzen du Cardaverazek agerian (J.I. Tellechea Idigoras, «Larramendi y Cardaveraz. Censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad», *ASJU*, 1968, 10-1 orr.; *Escritos breves. Obras del Padre Larramendi*, 302 or.): «*…, el bascuence no tiene de suyo preposición alguna y todas son postposiciones y la gala está en posponer aun los verbos, que por lo regular caen assí con más elegancia. El no saber hablar ni leer y el seguir la construcción literal del castellano hace a malas mañas a los ignorantes.*»

[8] Ikus, aurreko oharrekoaz gainera, ze aholku arrakastatsu ematen dituen 1761ko *Eusqueraren berri onac* liburuan (58 or.; *Euskal lan guztiak*, I, 169 or.): «*Beste izquerac bezala, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco, ta berariazco ederrac ditu. Baña Erdarac era batera, ta Eusquerac bestera. Onec era pospositivo, ta arc prepositivoan. Esan naidu: Gaztelaniac beti aurretic dacarrena, Eusquerac azquenerontz beti botatcenduela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago.*»

[9] Ez hala, urrutitik ere, Cardaveraz beraren 1744ko lehen liburua, *Christavaren Vicitza*, tradiziozko joskeran idatzia, eta hiztegia zainduaz (oraintsu ber-aurkitua, eta argitaratzaile zain dagoena). Ezin argigarriagoa da, lehen argitalpen honen konparaketa, Cardaverazek berak, hau zuzenduz, egiten duenarekin 1760an.

[10] Batik bat, bere *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira*. Baina baita ere bere *Gramaticako* oharretan, nola segidakoan argi asko (1856, 81 or.): «CAPITULO X / Colocacion de las partes de la oracion. / §. Unico. / En los precedentes capítulos se ha tratado del modo de colocar varias partes de la oracion y sus constitutivos, como el nombre y artículo, el nombre y pronombre, el sustantivo y adjetivo, el infinitivo y articulo de verbo, el determinante y determinado y otras; y resta ahora fijar la colocacion de todas las partes entre sí. / 1. En esta operacion han sido varios los Escritores vascongados, sin que se hayan sugetado á un método uniforme, como que la indole del idioma presta esta libertad: sin embargo, para que la oracion salga airosa y elegante, será muy conveniente, que el verbo se coloque al fin de la oracion, siempre que no viniere con relativo, pues en este caso, se ha de colocar segun este lo exija. Este método de fijar el verbo al fin de la oracion solos Ajular, llamado Ciceron vascongado, en su Gueroco guero, y el P. Cardaveraz en sus varias obras practicaron constantemente; así es que sus escritos, y cualquiera otro confeccionado en esta forma, se hacen muy dociles á la memoria. El agente puede colocarse en primer lugar, el paciente en segundo, y el adverbio antes del verbo: v.g. *Jaungoicoac guizona munduaren asieran eguin zuen*, Dios crió al hombre al príncipio del mundo. Pero advierto, que cuanto digo en este capitulo relatívo á la colocacion no es esencial é indispensable para una buena sintasis.»

[11] Ohar hau, ia seguru behar duena izan, Lardizabalen geroagokoaren jatorria, ez zen argitaratuko nolanahi, 1969ra arte, *Gramatica* bera bezala; eta hala dio (*ASJU*, 1969, 14 or.): «... De paso advierto que assi Axular, como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien que se haga assi, pues sale mas natural. No tuve este methodo presente en dos libritos que dí a luz *Esculibrua*, y *Lorategui espirituala*. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, ...»

[12] Hala, honen *Sarrerako* 44-5 orr., Cardaverazen 1761eko hitzak jasoaz; edota 782 or. dioen bezala, Lardizabalen eta Añibarroren ildotik: «Los buenos escritores y hablistas rematan la frase, por lo común, con el verbo principal de ella.»

nahiz gerora, eragin posible hau zeharo itzaltzen joango den, Duvoisinen ondorengo lanetan.[13]

Cardaverazen joskera eskola hau izango da, itxura-berritua, hegoaldeko euskal letretan zabaltzen hasiko dena, Azkueren 1891ko *Izkindea*-rekin, eta gorputz sendoa bereganatzen hasiko duena, Altuberen 1919ko *De sintaxis euskérica*, eta batez ere, 1929ko *Erderismos*-en ondoretik. Joera sintaktiko berritzaileak, hegoaldeko euskal letren berpizte mugimendu osoa kutsatuko du, 1936-9ko gerraterako; eta erabat baldintzatuko du hau, gerra ondorenean. Ez da ahaztu behar, Azkue bera izango dela, mende erdi oso batez 1951n hiltzen den arte, euskal letren patriarka eztabaidatu gabea. Joskera mugimendu berritzailea, eraberean hasiko da, pixkanaka, iparraldera zabaltzen; lehenik Aita Lhanderen eraginez;[14] eta ondoren Aita Lafitterenaz, iritsi arte gaur egungo gazte letratu gehiengoarenganaino jada.

Horraino, eta horrela, Greenbergek erabili ahal izandako euskal testigantzen muina XX mendean. Geroztik berriz, Greenbergek euskarari emaniko nazioarteko sailkatze itzaltsuaren eraginez, areago sustatuko dira oraindik euskalzaleen artean, Azkue-Altuberen apriorismo logizista eta metafisiko guztiak, hizkuntzan oinarritu gabeak, euskarazko hitz ordenamenduen gainean.

1.2. Tradiziozko bideak.

Aipatu autoreen salbuespenarekin ordea, esan liteke, beste euskal tradizio guztia gertatzen dela aho batekoa hitzen ordenaren eremuan, bai bere aditzak esaldiaren nahikoa aurrealdean emanez beti; nola ere, euskararentzako erreibindikatzen, hitz ordenamendu librea. Hala egiten du jada 1741ean, Martin Harriet, Larresoro, Lapurdiko, *Notari Erreïala*-k, dioenean bere *Gramatican* (501 or.): «*On place dans la langue basque indifferemment, le cas devant les verbes comme,* salcen dut ene etchea*, ou* ene etchea salcen dut*, je vends ma maison, &c.*». Geroztik, gure iparraldean gramatikaz kezkatu diren guztiek goraipatuko dute euskararen ordenamendu askatasun hori.[15] Eta hegoaldean,[16] A. Campionek jasoko du behin eta berriro ordenamendu askatasun honen oihartzuna, 1884ko gramatikan, eta ere askoz geroago, bere euskararen gaineko beste lanetan,[17] egia esan, oihartzun handiegirik gabe, bere hegoaldeko herritarren artean.[18]

2. Ohar bat Greenbergen sailkapen orokorren balioez.

Ez gara orain hasiko hemen eztabaidatzen, Greenbergen sailkapen orokorren balioak, giza hizkuntzen

---

[13] Autore guzti hauen lanen eta eraginen inguru, begira litezke zabalago, gure *1760-1766, Aita Cardaverazen berrikuntza gordinak*, eta *Cardaverazen eskola bat, XIX mendean barrena* lanak, gure doktoretza tesiarrako prestaturiko, *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*, atal zabalagoaren barne.

[14] Ikusgarria gertatzen da, bere 1921eko nobela *Yolanda*-ri egiten dion gipuzkerazko itzulpenaren hitz ordena. Areago, bere zuberera edo nafar-lapurterazko beste lan, tradiziozkoen, aldean.

[15] Hala nola Léclusek (*Grammaire basque*, 1826, 82 or.), Darrigolek (*Dissertation*, 1827, 142 or. eta hurr.), Chahok (A.Th. D'Abbadie; J.A. Chaho, *Études grammaticales*, 1836, 170 eta 183 orr.); edo jada jantzixeago, Inchauspek 1856an (*Notes grammaticales sur la langue basque*, VI or.), edo 1858an, dioenean bere gramatika lan nagusian (*Le Verbe basque*, 430 or.): «REGLES A SUIVRE POUR LE PLACEMENT DU VERBE. / I. La langue basque admet les inversions: ainsi on dit indifféremment: *háurrac éman zían eskía amári*, l'enfant donna la main à sa mère, ou *amári eskía éman zían háurrac*, ou *éman zían háurrac amári eskía*, ou *eskía háurrac amári éman zían* on peut avec ces mots faire vingt-quatre combinaisons différentes et toutes sont régulières.» Ondoretik, konbinaketa joku beretsuak erakutsiko dituzte jada, Darthayet-ek 1867an (*Le mécanisme*, 167 or.), Gèzek 1873an (*Éléments*, 10 or.), edota Ithurryk 1894ean argitaratzen hasitako *Grammaire Basque*-an, non agerian jasotzen diren lau elementuko esaldiaren 24 konbinaketa posibleak. Halako eskola liberal sendo baten ondorean, ez da harritzekoa, oraindik XXI mendean ere, askoz askatasun handiagoz jokatzen bada iparraldean hitz ordenaren eremuan.

[16] Lardizabalen gramatikako hitz xumeez gainera, goian jaso dugun aipuan.

[17] *Gramatica*, 1894, 51; 779; 782 orr.. *La lengua bascongada*, 1897, 363 or. eta hurr.. La lengua baska, 1918, 248 or.

[18] Cardaverazen eskolatik kanpoko testigantza guzti hauez eta gehiagoz, ikus litezke, gure *Tradiziozko testigantzak gure XIX mendean, iparraldeari lotutako gramatikalarien artean*, eta *Tradiziozko testigantzak XIX mendean hegoaldeko gramatikalarien artean* atalak, gure doktoretza tesirako prestaturiko *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak* lanaren barne. Campionen gainean berriz, ikus *Arturo Campion (1854-1937), gramatikalari gazte (eta euskal idazle)-aren ekarri batzuk*, lan beraren *Cardaverazen eskola bat, XIX mendean barrena* atalean.

arteko tipologia baterako, nahiz hau ere egin den ugari lekutan.[19] Bai ordea komeni da nolanahi, ondo agerian erlatibiza dezagun, bere neurri apaleraino, esaldiko SVO hiru elementu soilen ordena erlatiboaren azterketaren balioa, hizkuntzaren ordenamendu lege orokorragoak ezagutzeko. Eta batik bat, euskara bezalako *orden libreko* hizkuntza batean,[20] non sujetoa eta objetua bezalako elementuen arteko ordena erlatiboa, soilik faktore pragmatikoek edo eragingo duten (latinez edo bezala; eta ez, esate baterako, gure aldameneko frantzes edo ingelesean bezala, oso behar morfologiko zehatz batzuek). Eta izan ere, euskara bezalako hizkuntza morfologikoki aberats batean, bere deklinabide biziarekin, eta aditz laguntzailearen komunztadura morfologiko superaberatsekin (berez adieraz ditzaketenak aditz beraren barne, sujeto, objetu, datibo eta interlokuzioaren pertsonak, denbora, aspektu eta modu ezaugarri hainbatez gain), halako aberastasunek zeharo mugatzen dute, kuantitatiboki, SVO hiru elementuen agerpen bateratua esaldian. Desberdintasuna ezin nabarmenagoa da, frantzesa edo ingelesa bezalako hizkuntz, morfologikoki, pobreen aldean. SVO elementu soilen ordena erlatiboaren azterketak, ez du ukituko euskaraz, baiezko esaldi nagusi eta deklaratibo guztien oso kopuru murritza baino.[21]

Hauen azterketa estatistikotik erakarritako datuek, soilik balioko dute esaldi multzo murritz horrendako. Eta ondorioak ezingo dira besterik gabe translatu, esaldien kopuru osora. Nahiz datu beroriei ere, guk ez diegun gero beste baliorik ukatu nahi, agian beste zenbait ondorio tipologikotarako, Greenbergen bidean.

3. De Rijkek erabilitako korpusez, azterketa estatistikorako.

De Rijkek, hiru sail desberdinetan (I, II, III) biluzten ditu bere testuak, ezagutzeko hauetan, Sujeto, Objetu eta Aditz elementuen ordena erlatiboak esaldian. Azterketa honen ondorioz, euskara, estatistikoki ere, SOV saileko hizkuntza omen litzateke, De Rijkek segidako taulan erakusten duenaren gisa (ehunekoetan):

	I	II	III	Dener.
SOA (SOV)	66,0	44,0	61,0	57,0
SAO (SVO)	23,0	37,0	31,0	30,0
OAS (OVS)	5,0	9,0	5,0	6,0
OSA (OSV)	2,5	7,0	1,5	4,0
ASO (VSO)	3,0	2,0	1,5	2,5
AOS (VOS)	0,5	1,0	0,0	0,5

De Rijkek erabilitako mostrak ordea, zeharo zalantzagarri eta eztabaidagarriak dira, prezeski, joskeraren aldetik. IIa eta IIIa, Nemesio Etxaniz (1899-1982) apaiz azkoitiarraren idazlanak dira, *Euskal-Antzertiak* liburuan

---

[19] Besteak beste, zalantzan jarriaz, esaldiko SVO hiru elementuen arteko ez-parekotasun kategoriala (bi elementu nominal batetik, aditz elementua bestetik). Nolanahi, jabetzeko, Greenbergen, eta honen presupostuen, ondorengo urteetako eztabaidaz, interesgarria dateke ezagutzea, J.A. Hawkins-en *Word Order Universals* liburua, bertan jasotzen delarik bibliografia nahikoa exhaustibo bat gaiaren inguruan. Bestelakoan, eta hitz-ordenaren eztabaida unibertsalen eta hauen historiaren sarrera baterako, oso interesgarriak gertatzen dira, H. Weil-en 1844ko *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux langues modernes*; A. Scaglione-ren 1972ko *The Classical Theory of Composition. From its Origins to the Present. A Historical Survey*; J.C. Chevalier-en 1968ko *Histoire de la syntaxe. La naissance de la notion de complément dans la grammaire française (1530-1570)*; U. Ricken-en 1985ko *Grammaire et philosophie au siècle des lumières. Controverses sur l'ordre naturel et la clarté du français*; edo «L'ordre naturel du français. Naissance d'une theorie» artikulua; C. Adjémian-en 1978ko «Theme, Rheme and Word Order: From Weil to Present Day Theories» artikulua, edota bere maila dibulgatiboan, Claude Hagège-ren, *L'homme de paroles* liburua, eta oso bereziki honen VII eta IX kapituluak (*Ordre des mots et ordre du monde*, eta *Théorie des trois points de vue*).

[20] Ik. definizio honetarako, adibidez, Euskaltzaindiaren 1987ko *Hitz ordena* artikulua (*Euskal Gramatika Lehen Urratsak - I - Eraskina*, 20-46 orr).

[21] %10a inguru. Holamoduzko datuak ditugu guk behintzat, Axular, Cerquand eta Websterren lanak aztertuta. Axularren kasuan esate baterako, XXXI-XXXIV kapituluen artean (Jakin, Arantzazu, 1976, 385-409 orr.), baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudun guztien kopurua 179koa izanik, ez ditugu 26 esalditan baino aurkitu, SVO hiru elementuak batera agerian emanak (guztien %14,5ean). Cerquand-en ipuin bildumetan berriz (aurrerago aipatuak zehatzago) lehen 23etan, baiezko 386 esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudunen artean, soilik 32 kontatzen ahal ditugu, SVO hiru elementuak agerian ematen dituztenak (guztien %8,3a). Eta Wenworth Websterren ipuin bildumetan berriz, lehen zortzi ipuinen artean, denera, baiezko 320 esaldi nagusi, deklaratibo eta konplementudunen artean, soilik 19k erakusten dituzte SVO hiru elementuak agerian esaldian (guztien %5,9a).

argitaratuak, 1958an. II mostrakoak, autoreak berak sortutako antzerki lanak. IIIkoak berriz, Etxanizek Mérimée-rengandik eginiko erdaratiko bi kontakizun laburren itzulpenak. Nemesio Etxanizen idazkera, oro har, gozo eta atsegina gertatzen bada ere, autoreak ez du bere burua inola ere baztertzen, bere garaiak inposatutako joskera molde Azkue-Altubetarretatik. Etxanizek ere, oso aurreiritzi zehatzez idazten du, euskarazko hitzordenamenduari dagokionean. Beraz, ezin gertatu zaigu bere testigantza baliagarriegia, hain zuzen euskarazko hitzorden hori aztertzeko.[22] Are gutxiago oraindik, III mostrako testuak bezalakoak, gainera itzulpenak direnak.[23]

I mostrako testuak berriz, Aita J.M. Barandiaranen, 1920-1936 bitarteko, ipuin bilduma folklorikoak dira (*Eusko Folklore*-koak; *El Mundo en la mente Popular Vasca*, III, 1962), eta itxuraz bederen, baliagarriagoak behar lukete izan, herrikoiak liratekeenez. Badugu ordea arrazoirik, zalantzan jartzeko, testu hauen fidagarritasun sintaktikoa, hitz ordenamenduari dagokionean. Barandiaran ere bere garaiko semea izango da. Eta euskara kontutan, beste guztiak bezalatsu, Azkuerena; zein izango duen gainera aitzindari eta gidari ipuin bilketa folklorikoan. Barandiaranek, Manuel Lekuonaren urte beretsuetan jarduten du ikasten Gasteizko apaiztegian, eta honekin batera izango da urtetan irakasle bertan. Eta Lekuona bederen, agerian dakigu, nola Azkueren oso hurbileko dizipulu den, oso gaztetatik, eta Altube baino lehenagotik, euskararen hitz ordenaren kontuetan.[24]

Azkuek agerian aitortzen du, nola, bere bildumetako (hainbat) ipuinetan behintzat, jakinaren gainean aldatzen duen, kontalariak euskaraz emandako hitz ordena, hau «*gaztelaniazkoa zelako*».[25] Gu beldur gara, Barandiaranek beste hainbeste egin ote zuen hainbat kontakizunetan, eta oso nabarmen, zuzenean bere Ataungo herrian "jasotakoen" artean (bere ama (jada?) zenarengandikoak, arrebarenak, edo gertukoenak). De Rijkek I mostran aztertzen dituen 36 kontakizunetatik, 13 dira Ataungoak. Hauetan, kurioski, SOV esaldiak dira, %74,1a. Korpus osoan bildutakoen erdiak baino hainbat gehiago. Eta batera SOV eta OVSak (Azkuek predikaturiko ordenak), guztien %82,7a. Bitxiki, SVO esaldiak, ez dira %8,6a baino. Aldiz, beste 23 kontakizunetan SOV esaldiak %47a dira, eta SVOak %39,3a. Guk susmoa dugu, Don Jose Miguelek denei ere egin ote zizkien bere joskera ukituak. Nabarmenago Ataungoei, baina baita beste zenbaiti ere, zeinen artean oso ageria den, Ataungoetan bezala, aditzen atzeratze orokorra (esate baterako, VII ipuinean, XXean, XXVII edota XXVIIIean).[26]

---

[22] Nahikoa izango bailitzaiguke ia, bere iritziak aztertzea, testurik ere gabe.

[23] Zentzu honetan azpimarragarria da, nola, Etxanizek zuzenean sortutako II saileko testuetan, oso parekatuak ematen diren, SOV (44%) eta SVO (37%) multzoak. Aldiz ez bezala, III saileko itzulpenetan (SOV, %61; SVO %31), beti lan erreflexiboagoak.

[24] Ikus, esateko, 1918an, artean 23 / 24 urtez, Gasteizen egiten duen hitzaldian (*Métrica vasca*, berrargitaratua in *Lekuona'tar Manuel, Idaz-lan guztiak, 1. Ahozko literatura*), bukaeran ematen duen lehen ohar *pre-altubetar* jakingarri askoa, euskarazko hitz ordenamenduaren berezitasunen gainean (1978, 154-5 orr.).

[25] Hala dio (1934, *Euskalerriaren Yakintza*, *I*, 18-9 orr.): «…, Latasara bidean, Goldaratz deritzaion irixko artan ipuinak ugari zekitzan gizon bat bizi zala esan zidaten, emezortzi semealaben aita. / Astiro, inork baino astiroago, zekien berak buruan zituenak edasten; eta nik itzez itz, erraz artzen nition guztiak. Laxter oartu nuen aren buruan gertatzen zan agi edo fenomenu bat. Berak or ta emen ibilita, alakori ta onelakori entzunda, ipuin batzuk, geienak noski, euskeraz sartu izango zituen buruan; beste batzuk, bat edo beste beintzat, erderaz ere bai. Burutik atera bear zituenean erderaz poliki zekielako edo, erderazko Sintaxisean yosita eltzen ziran guztiak nire belarrietara. Lenengo ipuinaren azkenera-orduko ezagutu nuen aren buruko agittoa ta nik orduan esakera bat burutu-arte itxaron ta gero euskeraz yosita banan banan papereratzen nituen.»

[26] Esan behar dugu nolanahi, Greenberg / De Rijkek proposatutako kontaera sistema berdina erabiliz, gu ez garela iritsi De Rijken datu berdin berdinetara esaldien zenbatzean, nahiz aldeak ez diren esanguratsuegiak (De Rijkek 138 esaldi SOV, guk 115; hark 48 SVO, guk 53; …). Hauek dira gure eskuratutako datu orokorrak, hiru ataletan banatuta (Ataungoak, besteak, eta guztirakoak):

	Ataun		Besteak		Denera	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SOA (SOV)	60	74,1	55	47,0	115	58,0
SAO (SVO)	7	8,6	46	39,3	53	26,8
OAS (OVS)	7	8,6	10	8,5	17	8,6
OSA (OSV)	3	3,7	2	1,7	5	2,5
ASO (VSO)	4	4,9	4	3,4	8	4,0
AOS (VOS)	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Denera	81	100%	117	100%	198	100%

Zalantza guzti hauen ondorioz, ezin pentsatu dugu, halako korpusetatik eratorritako datuak, baliagarriegiak izan litezkeenik euskararen hitz ordena ezagutzeko, ezpada, gehiago edo gutxiago, joskera eskola Azkue-Altubetarrean egositako euskararena.

4. SVO elementuen ordenamendu datu gehiago / baliagarriagoen bila.

Egia esan, gu ez gara aritu sistematizazio handiegirik bilatzen gure datu bilketan, SVO elementuen ordenamendu erlatiboaz. Gure azterketa arlo nagusia, beste nolabait bideratu dugu, lan honen gorputzean erakutsiko dugun legez. Baditugu ordea, De Rijkerenez gain, beste zenbait datu estatistiko ere, SVO elementuen ordenaz esaldian, eta dauzkagunak emango ditugu.

4.1. XVII mendeko bi prosa nagusi: Axular eta Tartas.

Autore biak ondo patxadazko obra erreflexiboen egile, gure prosazko lehenengo orijinal pisuzkoak. Ez gara hasiko hemen bakoitzaren lanak goraipatzen. Axularren liburuaren bigarren erdia edo aztertu dugu (XXXI-LV bitarteko kapituluak; 1976, 383-699 orr.). Tartasena berriz, 1666ko *Onsa hilceco bidia*, osorik (J.B. Darricarrère-ren argitalpenetik RIEVen). Esaldiak jasotzeko irizpideak Greenberg / De Rijken berberak. Hauek datuak:

	Axular		Tartas	
	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	98	48,0	108	44,3
SOA (SOV)	52	25,5	87	35,7
OAS (OVS)	25	12,2	26	10,7
ASO (VSO)	20	9,8	9	3,7
OSA (OSV)	6	2,9	12	4,9
AOS (VOS)	3	1,5	2	0,8
Denera	204	100%	244	100%

Ez dago zalantzarik. Bi autoreetan dira gehiengo nabarmena SVO esaldiak. Nahiz bietan den ere, altua, SOV esaldien portzentaia.

4.2. XIX mendeko lau autore aukeratu.

Euskalki desberdinetako lau autoreren prosazko obrak aztertu ditugu, azkena salbu, zuzenean euskaraz sortuak, eta denak ere, kritika ona jaso ohi dutenak gure artean, bai, erabiltzen duten hizkuntz ereduaz, nola, beren gaia garatzeko duten era arin eta komunikatiboarengatik. Hala: J.A. Moguel bizkaitarraren *Peru Abarca* (1802), gure literaturako lehenengo nobela edo, osorik aztertu dugu (43-202 orr.), salbu azkeneko platika latinoen itzulpenak, eta tarteko bertsoak; J.B. Agirreren *Eracusaldiac I* (1808) obraren, *Confesioco sacramentuaren gañean eracusaldiac* atala osorik (103-321 orr.); J.P. Duvoisinen *Laborantzako liburua* (1858), elkarrizketa didaktikoak, osorik aztertu ditugu; azkenik, Antero Apaolaza mediku anzuolarrak, Truebaren *El Judas de la casa*-tik moldatutako (eta ez agidanean zuzenean itzulitako) *Pachico Cherren* kontakizuna (Bergara, 1890), osorik berau ere.[27] Datuak, esanguratusak, segidakoak:

[27] Aztertu duguna, gaztelaniazkoaren moldakuntza izan arren, prezeski Azkuek goraipatzen duelako behin baino gehiagotan bere lanetan; nola adibidez, 1896ko *Método Práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano* didaktikoan (44 or.): «... la preciosa novelita *Pachiko Cherren* [orripeko oharrean argitzen duelarik:] Uno de los libritos escritos en euskera que más placer me han causado. Sería muy de desear que su autor diese más muestras de vida.»

	Moguel		J.B. Aguirre		Duvoisin		Pach. Cherren	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	92	69,7	111	55,5	150	59,3	55	63,2
SOA (SOV)	5	3,8	17	8,5	93	36,8	10	11,5
OAS (OVS)	10	7,6	31	15,5	3	1,2	18	20,7
ASO (VSO)	15	11,4	33	16,5	1	0,4	2	2,3
OSA (OSV)	3	2,3	0	0,0	5	2,0	0	0,0
AOS (VOS)	7	5,3	8	4,0	1	0,4	2	2,3
Denera	132	100%	200	100%	253	100%	87	100%

Lau mostretan dira esaldi guztien erdiak baino nahikoa gehiago, SVO ordenan emanak. Eta bakarrik Duvoisinengan suma liteke proportzio sendo bat, SOV esaldiena (%36,8), gorago Axular edo Tartesen antzekoa; eta Moguelengan aldiz, %3,8raino ere erortzen dena.

4.3. Lau ipuin bilduma herrikoi.

Aztertu ditugu ere lau ipuin bilduma desberdin. Lehenengoa Wendworth Webster apaiz anglikarrak egina 1877rako, Lapurdiko Sararen inguruko herritarren artean jasotako ipuin folklorikoekin, eta oraintsu argitaratua lehenengo aldiz euskaraz (Xipri Arbelbide, EEE, *Klasikoak*, 1993, bi tomotan). Soilik lehen tomoa aztertu dugu. Bigarrena, J.F. Cerquand-ek bildua behenafarrerazko eta zubererazko ipuin folklorikoekin, eta lehenengo aldiz argitaratua 1871-1885 urteak artean. Guk A. Aranaren argitalpena erabili dugu bi tomotan (Txertoa, 1985-6), eta biak aztertu ditugu. Egin liteke zalantza, azken ipuin hauen transkribapenaren fideltasunaz, beren jatorrizko ahozko ereduarekiko, Cerquand berak gaztigatzen digun bezala zenbait ipuinen aurrean. Nolanahi dela, ahozko zuzenak izan, edota idatzian zeredozer erantsitakoak, bertatik eratorritako datuak, ez dira oso bestelakoak, beste sailetan aurkitutakoetatik. Hirugarrenik, aztertu ditugu, Urruzuno, apaiz elgoibartarraren ipuin barregarriak, 1880-1923 bitartean idatziak, eta orain berriro bilduak L.M. Larringanen edizioan (EEE, 1988). Eta Urruzuno aukeratu dugu, Azkueren garaikide, lagun, eta lankide izateaz gain honen euskal langintza askotan, hain zuzen, Altube berak goraipatu duelako honen euskara *herrikoia*.[28] Nolanahi, esan behar da, dudarik gabeko eboluzio bat sentitzen dela Urruzunoren joskeran, urteak aurrera joan ahala, Azkuetartze bidean, eta aditzak nabarmen atzeratzen esaldian. Datuak, hala ere, esanguratusak segitzen dute izaten. Azkenik, aztertu dugu ere, Mayi Ariztiak 1934an argitaratzen duen ipuin bilduma laburra, *Laburditar ipuñak* titulu pean (*Anuario de «Eusko-Folklore»*, T. XIV, 93-129 orr.).[29] Hala eskuratu ditugu Segidako datuak:

	Webster		Cerquand		Urruzuno		Lab. Ipuñak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	85	68,5	181	63,7	56	42,4	12	38,7
SOA (SOV)	18	14,5	79	27,8	27	20,4	10	32,3
OAS (OVS)	5	4,0	11	3,9	23	17,4	2	6,4
ASO (VSO)	3	2,4	4	1,4	18	13,6	3	9,7
OSA (OSV)	9	7,3	9	3,2	5	3,8	0	0,0
AOS (VOS)	4	3,2	0	0,0	3	2,3	4	12,9
Denera	124	100%	284	100%	132	100%	31	100%

Oso esanguratsuak dira SVO gehiengoak mostra guztietan. Are Urruzuno azkuetarrarengan ere, doble / erdia erlazioan, %42,4 SVO / %20,4 SOV. Mayi Ariztiaren ipuinak dira parekatuenak, susmagarriki guretzat, bi multzoen artean, %38,7 SVO / %32,3 SOV.

---

[28] Hala esaten du Altube jada heldu batek, esanguratsu asko, Urruzunoren ipuinen gainean (*La vida del Euskera*, 1934, 52-3 orr.): «..., una obra de las muy pocas originales que, entre las publicadas en estos tiempos, merece verdaderamente el título de *literaria*. El euskera que emplea Urrunzuno [sic] en ese libro es la transcripción fiel del habla del pueblo; ...» Kasu honetan, nola Websterren ipuinetan, gure adiskide Fernando Durana izan da, gure eskera, SVO esaldi kontaketaren egilea. Bihoazkio hemendik ere gure eskerrak.

[29] Segurasko egin liteke zalantza, ipuin hauen transkribapen sintaktikoen fideltasunaren inguruan, printzipioz, herritarren ahotik zuzenean jasotakoak izan arren. Berauetan ere nabarmena da, aditzak esaldian erakusten duen ohi baino atzeragoko gunea. Ordenamendu zuzenketak ere kasuan, beharbada ez lirateke horren harritzekoak, Aita Barandiaranen gidaritzapean argitaraturiko (eta eginiko?) lan batean *Eusko Folklore*-an. Ez daukagu nolanahi, susmoaz gain, beste daturik.

4.4. Gaur eguneko ahozko testigantza bat: Bizkaiko Zeberiokoa.

Hala egin dugu, aztertuaz, J.M. Etxebarriak ematen dizkigun Zeberio haraneko ipuinen gaur eguneko kontakizunen traskribapenak, agi danean oso fidelak (*Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Ibaizabal, Deustu, 1991, 336-395 orr.). Oro har, erakusten duten hizketa maila oso apala izan arren, hauetan ere, SVO esaldiak dira nagusi, nahiz SOVak ere garrantzizko multzoa osatu. Hala:

	Zeberio	
	Kopur.	%
SAO (SVO)	39	37,5
SOA (SOV)	29	27,9
OAS (OVS)	11	10,6
ASO (VSO)	9	8,6
OSA (OSV)	12	11,5
AOS (VOS)	4	3,8
Denera	104	100%

4.5. Estatistika bat Azkueri.

Kontraste modura aztertu dugu Azkue beraren prosa narratibozko lehenengo lanetako bat, 1893ko *Bein da betiko*, orain berrargitaratua (EEE, 1986). Ezin nabarmenagoa da bertan, multzo nagusien pisu desberdina, guk aztertu ditugun beste mostra guztien aldean:

	Azkue	
	Kopur.	%
SAO (SVO)	13	15,8
SOA (SOV)	31	37,8
OAS (OVS)	30	36,6
ASO (VSO)	6	7,3
OSA (OSV)	2	2,4
AOS (VOS)	0	0,0
Denera	82	100%

OV, objetua aditzaren aurrean erakusten duten esaldien kopuru bateratua (hau da, Azkuek 1891etik euskararentzat preskribatzen dituen SOV edo OVS segidak batera), da, esaldi guztien %74,4a. Aldiz, SVOak, jada erresidualak bihurtzen diren bitartean. Eta hori báda, segurasko, aurreko hizkuntz senaren aurka joatea.

4.6. 1596ko *Refranes y Sentencias*-eko hitz ordenaz, eta XVI eta XVII mendeetako beste testu bizkaitar batzuena.

1985eko ekainean aurkeztu zuen Blanka Urgell-ek *Refranes y Sentenciaseko hitz ordenaz zenbait ohar* izeneko lana.[30] Bertan erakusten ditu zenbait estatistika, Greenberg / De Rijken baldintzetan eginak, aztertu testuetako SVO elementuak agerian erakusten dituzten esaldien inguruan. Arakatutako testuak dira: 1596ko *Refranes y sentencias* (Ref. y Sen.); Micoletaren *Modo breve para aprender la lengua vizcayna* (Bilbo, 1653); Capanagaren *Exposición breve de la Doctrina Christiana* (Bilbo, 1656); *Viva Jesus* (XVII mendea; K. Mitxelenaren ed., *BAP* X, 1954); *Domingo Egiaren kanta* (XVII mendea; A. Arejitaren ed., *Euskeraren Iker Atalak*, 2, 139-181 orr.); Fr. Juan de Zumarragaren *Gutuna* (XVI mendea; I. Sarasolaren ed., *ASJU* XVII, 1983, 97-102 orr.); *Bertso Bizkaitarrak* (1688; J. Lakarraren ed., *ASJU* XVIII, 1984, 89-197 orr.). Lana argitaragabea da, eta autoreak berak eskuratu digu. Segidakoak dira bertan biltzen diren datuak:

[30] Uste dugu Gasteizko Filologia Fakultatean.

	Ref. y Sen.		Micoleta		Capanaga		Viva Jesus	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	28	56,0	8	57,1	34	75,6	2	40,0
SOA (SOV)	14	28,0	2	14,3	5	11,1	0	0,0
OAS (OVS)	3	6,0	0	0,0	1	2,2	0	0,0
ASO (VSO)	1	2,0	3	21,4	4	8,9	2	40,0
OSA (OSV)	4	8,0	0	0,0	0	0,0	1	20,0
AOS (VOS)	0	0,0	1	7,1	1	2,2	0	0,0
Denera	50	100%	14	100%	45	100%	5	100%

	Domingo Egia		J. Zumarraga		Bertso Bizkait.		Denera	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
SAO (SVO)	3	27,3	3	60,0	3	50,0	81	59,6
SOA (SOV)	2	18,2	0	0,0	1	16,7	24	17,6
OAS (OVS)	4	36,4	1	20,0	0	0,0	9	6,6
ASO (VSO)	1	9,1	1	20,0	1	16,7	13	9,6
OSA (OSV)	1	9,1	0	0,0	1	16,7	7	5,1
AOS (VOS)	0	0,0	0	0,0	0	0,0	2	1,5
Denera	11	100%	5	100%	6	100%	136	100%

Egin litezke hainbat erreflesio desberdin, XVI eta XVII mendeetako testu bizkaitar hauen balioez, euskarazko hitz ordenamendua aztertzeko.[31] Datu hauek ere, nolanahi, zerikusi gutxi dute, gaur eguneko joskera eskola Azkue-Altubetarrak proposatutako joskerekin, eta asko aldiz, gure mostrako beste datu guztiekin.

4.7. K. Rotaetxeren Ondarruko datuak.

1978an argitaratzen du K. Rotaetxek bere *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, eta ez dira gutxiago jakingarriak bertan egiten diren hainbat baieztapen, Ondarruko ahozko euskararen gainean eginiko estudio honetan, eta hiztunengan espontaneoki eta maizenik aurkitutako SAO (SVO) ordenaren inguru, zeinen artean segidakoak:

> La construcción a la que se ha recurrido con más espontaneidad parece ser SVO y en ella las pausas no parecerían tener especial importancia. (336 or.) / … / Interesa, sin embargo, señalar con respecto al estudio de DE RIJK [gu eztabaidatzen gatozena], en el que el autor concluye que la estructura profunda de la frase parece ser SOV, que en Ondárroa las frases de salida han mostrado una clara preferencia hacia la construcción SVO. (337 or.) / … / Nos referíamos a la ordenación de los elementos (secuencias) en la cadena hablada. Idicábamos ya en 3.04 que el

[31] Segidan, B. Urgellek bere lanean egiten dituenetako batzuk (3 or.): «*XVI. mendeko testu gehienen aldamenean, RS ez da itzulpena, nahiz eta Urkixok horrelakorik uste …*»; (8 or.): «*Ohar bedi de Rijkerenean SOVen kopurua SVOrenaren doblea (%57:%30) den bitartean, RSen guztiz alderantziz (%28:%56) gertatzen dela.*»; (11-2 orr.): «*Dotrinek RSen aurkitu dugun oinarrizko ordena bera -SVO, alegia- agertzen da* [sic]*; honek liburu hauei buruz mantendu ohi den iritzia hein batean bederen aldatzera garamatza:* Este género de literatura religiosa, basado en la traducción y muchas veces en el calco … (Mitxelena, *La Doctrina cristiana de Betolaza*, BAP, XI, 1955, 87 or.) *bezalako hitzak egia badira ere …, ez da zaila hortik urruntzen diren zenbait esaldi topatzea; Kapanagaren dotrina gainetik ikusita honako hauek aurkitu ditut: …* [eta ematen du adibide sail bat, ondorioz amaitzeko esanez:] *Beraz, badirudi nolabaiteko askatasuna badutela* [dotrinagileek] *hitz ordena antolatzerakoan eta, gure datuetarik pentsa daitekeen bezala, SVO ordena erabiltzen dutenean -orijinalak hortaraturik, dudarik gabe- ez dira euskarak ezagutzen ez duen orden batez baliatzen, baizik eta hizkuntzak ematen dituen* [sic] *posibilitate batez.*»

Egia esan, Mitxelenak haizatzen zituen jada halako susmoak, De Rijkeren lanari bedeinkazioa ematen zion artikulu berean eginiko oharretan (1978; 1987, 378-9 orr.): «*En estas notas* [datozenak] *se examina un cierto tipo de ordenaciones, a título de muestra, como posible señal de una manera de contar que, por los textos en que lo hallamos, puede considerarse con alguna confianza como continuador de moldes tradicionales. Se alude, en resumen, al hecho de que, tanto en cantares épicos como en refranes, se encuentran ciertas ordenaciones que, aun cuando no sean mayoritarias -y acaso precisamente por eso mismo-, tienen una frecuencia estadística suficiente para que merezcan ser tenidas en cuenta, al menos a título de ensayo, en un estudio de nuestra estilística. / Las que yo he mencionado, son sobre todo dos: / 1. No sorprende hallar, con verbo intransitivo (es decir, en frase bimembre, una vez reducida a lo esencial), el orden V.S., … / Esto mismo vale para construcciones transitivas, donde el lugar preferente puede ser, superficialmente o en apariencia, el segundo, detrás … de un inciso circunstancial, secundario en relación con el núcleo de la frase. / 2. Tampoco es raro, en un tipo de relato que parece más tradicional que innovador, el orden (S.)V.O., cuando V. es transitivo.*»

> orden que con mayor frecuencia se daba ere S (erg) - V - O (obj. absoluto). La ampliación del corpus nos lleva ahora a los mismos resultados. Se trata, indudablemente de un aspecto delicado que requeriría una dedicación especial y una encuesta más amplia; … (647-8 orr.) / … / … los procedimientos para destacar lo que en euskara ha venido llamándose "galdekizun hitza" o palabra inquirida. Por lo menos desde *Erderismos* de Altube los tratados, más normativos que descriptivos, vienen insistiendo en que tal palabra ocupa un lugar fijo, el que inmediatamente precede al verbo. Con los datos que poseemos, en Ondárroa, ésto sigue siendo y no sigue siendo cierto. (649 or.) / … / De acuerdo con nuestros datos la teoría de ALTUBE tendría que ser modificada, precisando que existe un orden normal de construcción no marcada asumiendo que, hacer de un elemento sujeto de frase es ya, en cierto modo, destacarlo / Tal orden, según los datos de Ondárroa, es: / V (- trans.) ..... S - V / V (+ trans.) ..... S - V - O. (650 or.)

Rotaetxek egiten ditu hainbat erreflexio interesgarri gehiago datu hauen inguru, baina oraingoz datua da azpimarratu nahi genuena.

Atera bitza nork bere ondorioak, De Rijkerenez gain, azken 7 azpisailetako datu guztiotatik.

II. Estatistika egokiago batzuen bila.

Greenberg / De Rijken bidea ez bazitzaigun egokiena iruditzen hitz ordena aztertzeko, euskara bezalako orden libre, eta aberastasun morfologiko handiko hizkuntza batean, bi arazo nagusi genituen konpontzeko, gure azterketa hasi baino lehen. Bata, zer nahi genuen prezeski ezagutu, ez bazitzaigun nahikoa iruditzen, soilik aztertzea, SVO elementuak agerian erakusten zituzten baiezko esaldi nagusi deklaratiboen ordenamendu erlatiboak. Bigarren arazoa, korpusa aukeratzea, De Rijkek erabiliarekin aurkitutako problemen bistara: korpus, ahalik eta gutxien markatuak, ahalik eta emaitza baliagarrienak eskuratzeko.

1. Zer aztertu.

Batez ere, J.A. Hawkins, irakasle iparramerikar gorago aipatuak, urratutako bideen ildoan, Greenbergek 1961/63an irekitako azterbide sintaktiko-tipologikoen eztabaidan, baina baita ere, Th. Vennemann edo W.P. Lehmann bezalako hainbat ikastunen ondotik,[32] eta nolarebait beti, L. Tesnière-n *aktante* eta *zirkustanteen* ikuspegi interesgarrien itzalpean,[33] askoz egokiagoa iruditu zaigu euskararen kasuan, soilik Sujetoa, Objetua eta Aditz Jokatua agerian ematen zituzten esaldiak begiratu beharrean, hauekin batera hartzea kontutan, baiezko esaldi nagusi deklaratibo guztiak, aditz jokatuarekin batera, beste zeinnahi konplementu moeta ere erakusten zutenak (dei diezaiogun bakoitzari «X»), eta ez bakarrik S eta O elementuak.

Hasieratik utzi ditugu gure azterketatik kanpo, aditzik gabeko esaldi nagusiak, aditz jokaturik gabekoak, edota aditz jokatua izanagatik, konplementurik gabekoak, ez batzuk eta ez besteak pertinenteak ez zirelakoan gure kezketarako. Baita ere, galdera, aginterazko edo ezezko esaldiak (*ezin* aditzaren bidezkoak ere), guzti hauek aparteko azterketa bat merezi dutelakoan (guk hemen egin ez duguna), joskera joera bereziak erakusten dituzten neurrian.

Eta kontuan harturik, euskara bezalako orden libreko hizkuntza batean, zeinnahi «x» konplementuren agertze ordena esaldian (baita ere, S eta O elementuena), funtsean markatuko dutela, komunikazioaren faktore pragmatikoek,[34] eta bagenituelarik jada, SVO elementuen ordena erlatiboen zenbait datu kontrastibo, egokiago iruditu zaigu aztertzea, euskararen kasuan, zeinnahi «x» konplementuren ordena erlatiboa esaldiko Aditz Jokatuarekiko «a». Eta horrela ezagutu ahal izatea, konplementu bakarreko esaldietan, ordenamendu datu estatistikoak euskaraz, «AX» (aditza hasieran), edo «XA» (aditza amaieran) egituren artean. Eraberean, «AXX» (aditza hasieran), «XAX» (aditza tartean), edo «XXA» (aditza amaieran) ordenamenduen datuak, bi konplementuetako esaldietan. Eta bere bat, konplementu gehiagokoetan («AXXX», …), nahiz denera ez ditugun zehaztu, aditzaren, hasierako, tarteko, edo amaierako, hiru posizioak baino.

Eraberean, eta jakinaren gainean, zein garrantzi eskaintzen dion atalari, gaur eguneko ordenamendu teoria Azkue-Altubetar ofizialak, zehatz saiatu gara bereizten, aditza tartean erakusten zuten esaldien artean (duda gabeko gehiengo absolutua gure korpusetan), aditzaren aurretik eta atzetik ematen ziren konplementuen balio pragmatikoa. Zehaztu nahian, hain zuzen, zenbateraino ematen zen benetan, esaldiko galdegaia esaldiko

---

[32] Ik. ere, besteak beste, Ch. Li irakasle estatubatuarrak, 1975, 76 eta 77an argitaraturiko lan bildumetako eztabaida desberdinak.

[33] Ik. bere *Éléments de Syntaxe Structurale*, 1966.

[34] Faktore komunikazional edo funtzionalen eraginaren gain esaldien egituran, ikus liteke gure artean E. Osak 1990ean argitaraturiko *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera* liburuaren lehen hiru atalak, interesgarriak, mundu zabaleko eskola hauen ikuspegia eskaintzen duten neurrian, nola bertan aipatzen den bibliografia zabalarengatik gaiaren inguruan, *Pragako eskola* deitu denaren ildotik, *dinamismo komunikatiboarena* edo (Danes, Firbas, Dezsö); eta honen ondorengo hainbat fruturena, *gramatika funtzionalaren* haritik (Dik, Kuno, are Givon; edo Feuillard, Feuillet, Hagège frantzesak); edo testuen analisi diskurtsiboan gehiago jardun dutenak (Brown eta Yule, edo van Dijk); den hauek, guk ere jasotzen ditugunak gure bibliografian. Bestelakoan, eta Osaren liburuaren euskal atalari dagokionean, uste dugu, funtsean ez duela egiten, errepikatu baino, azken mende honetako topiko guztiak, euskal hitzen ordenaren inguruan, kontraesan nabarian, lehen hiru ataletan predikatutakoarekin.

aditzaren aurre justuan, teoriak dioen bezala; edo aldiz, zenbateraino aditzaren ondoretik, bigarren posibilitate bat, gutxienik, ongi testigatua duguna.

Horrela lortutako radiografia, espero genuen, batetik, askoz gertuago egongo zela, euskararen benetako dimentsioetik, aurretik genituen estatistikak baino. Bestetik, datu baliagarriak eskuratuko genituela, orain artean baino hurbilagotik ezagutzeko, euskarazko esaldien barne ordenamenduaren ezaugarri pragmatikoak.

1.1. Oharra, «X» konplementuak zehazten.

Gure zenbatze lanetan, teknikoki, «X» konplementu independiente bezala kontsideratu dugu, batetik, esaldian deklinatuta emandako zatietako bakoitza (edo honen ordezkoa, adberbioen kasuan); hau da, baita ere, izenaren konplementuak (edutezko genitibo, edo *-ko* izenlagunetako bakoitza), hauen izen erregimenaz gain. Bestalde, eraberean konplementuka zenbatu ditugu, esaldi nagusiaren barreneko mendeko esaldietako bakoitza (ez ditugu hauek konplementu bakartzat hartu); eta konplementu bat gehiago bezala zenbatu dugu mendeko esaldi hauetako aditza, berari erantsitako atzizki/aurrizki menpekotzailearekin batera (beste kasu marka bat nolarebait). Horrela hurbildu nahi izan dugu zertxobait gehiago, esaldien benetako luze-laburren dimentsioetara, gu ere etsita geunden bezala, dimentsioak bazuenez eraginik esaldien joskeran.[35]

1.2. Mendeko esaldien azterketan.

Oso zabalduak badaude topiko Azkue-Altubetarrak, esaldi nagusien ordenamenduaren gainean, ez daude gutxiago, mendeko esaldiei dagozkienak, hauen aditza derrigorrez esaldi amaierara bidaltzen dutenak. Horregatik zabaldu nahi izan dugu gure begirada mendeko esaldietara, ezagutu nahian zenbateraino ziren / diren egia topikook, edo zein baldintzatan. Eta sailkatu ditugu mendeko esaldiak, hiru multzo desberdinetan, usteaz, bakoitzak joskera ezaugarri propioak erakusten ote zituen. Lehenean, aditz jokatu bidez osatutakoak. Bigarrenean, aditz jokatugabe bidezkoak. Eta azkenik, sail berezi bat osatu dugu, aditz jokatu bidezko erlatibozko esaldiekin. Jakingarriak dira guztien emaitzak.

2. Gure korpusa.

Hitz ordenamenduari buruzko topiko Azkue-Altubetarrek, bi abiapuntu dituzte amankomunean: bata, gure literatura klasiko guztiaren baztertzea, erromantzatua delakoan; bestea, euskaldun rustikoaren aho hizkeraren mitifikazioa / mistifikazioa, ordenamendu topiko horien defentsan. Zer dakigu ordea, bi *boutade* zontzo baino, gure klasikoen hitz ordenamendu legeen inguruan? Edota ere, gaurko edo inoizko aho hizkeren gainean? Rustikoaz, edo jantziaz. Ez dugu ezagutzen gaur arte, azterketa minimo seriosik, bataren edo bestearen gainean.

Eta gure azterketa estatistikoan, bi / hiru atal hauei heldu nahi izan diegu bereziki -idazkera klasikoa, aho hizkera rustikoa, eta aho hizkera jantziagoa-, lehen datu oinarrizko eta fidagarri batzuk eskuratze arren, gure indar apalen neurrian, beste zeinnahi espekulaziori ekin aurretik, batzuen nola besteen hitz ordenamenduen gainean.

2.1. Gure literatura klasikoa edo.

Zentzu honetan, klasikoa deitu dugu, Azkue-Altuberen XX mendeko iraultza sintaktikoaren aurreko, zeinnahi testu. Eta eskuratutako datuak ahalik eta baliagarrienak izan daitezen, bi aurrebaldintza ipini nahi izan dizkiogu korpus idatzi honi. Lehenengoa, lanak, sortzez izatea euskarazkoak, eta ez itzulpenak, ahalik eta gehien uxatu nahian beti, kanpoko hizkuntzen eragin zuzena bederen. Bigarrena, autoreak bere testua idatzi

---

[35] Ez dugu noski inolako proposamenik egin nahi konplementuen definizioen gainean. Gure erabaki guztia «teknikoa» besterik ez da izan, esaldien dimentsio errealak objetibitate piska batez finkatu nahian. Eta egokiago iruditu zaigu konplementuak horrela zenbatzea, beste era batera egitea baino, nahiz gertatzen diren hala ere oso dimentsio desberdineko konplementuak. Ez baita berdin, dimentsioei dagokienean, konplementu egitea, silaba bakarreko *zuk* batekin, edota hemezortzi silabako, *hemezortzi galtzagorri lizun loriatsu haiengatik* bezalako esaera batez. Zentzu honetan, askoz esaldi dimentsio fidagarriagoak emango lizkiguke, konplementuak, gainera, silabaz neurtzeak, guk oraingoz egin ez duguna.

izana, aurreiritzi artifizial jakinik gabe, hitzen ordenari dagokionean, testuen lehen helburu komunikatiboaz landa. Hauezaz gain, derrigorrez eskatu dugu, testuak hitz lauzkoak izatea, bertso / olerkiek morrontza propioa ezartzen dioten neurrian, hitz ordenari, errima, erritmo, neurri eta abarren eskaerez.

Egia esan, baldintza hauetan, ez genituen gehiegi aukerako testuak. Alde bat utzita itzulpenak, eta aipatu *Cardaverazen Eskola*, edo Azkuerena,[36] beren aurreiritzien kausaz, lau autoreren obrak aukeratu ditugu, euskalki desberdinetakoak, eta laurak ere, prosa arinekoak, ulergarriak, komunikatiboak, arrakastatsuak, eta oro har goraipatuak, gure literaturaren kritikari gehienen esanera, darabilten euskara ereduarengatik ere. Dira: J.A. Moguelen *Peru Abarka* (1802), bizkaieraz (Durango 1881 -faksimila, 1981-); J.B. Aguirre, Asteasukoaren *Eracusaldiac* (1808), gipuzkeraz (Tolosa, 1850 -faksimila, Hordago, 1978-); J.P. Duvoisinen *Laborantzako liburua* (1858), lapurteraz (EEE, Donostia, 1986); eta, J. Etchepareren *Buruchkak* (1910), behenafarrera/lapurtera berriaren aitalehen izendatua legez (EEE, Bilbo, 1992). Hauez gainera, ezagutu nahi izan ditugu ere, gure literatura zaharreko sortzezko libururik liburuenaren hitz orden ezaugarriak, eta aztertu dugu Axularren *Gero*-a (1645), lapurtera (Jakin, Arantzazu, 1976).

Mostra, gure ahalen neurrira murriztu beharrean, autore bakoitzarengan aztertu ditugu, 600-700 bat aditz jokatuko jarraiko zatiak, azarean aukeratutakoak. Hala , Axularren *Gero*-ko, XXXI-XXXIV bitarteko kapituluak (1976, 385-409 orr.); Moguelen *Peru Abarca*-ren, *Diálogo tercero entre los mismos Maisu Juan y Peru*, osoa (1981, 91-113 orr.; salbu 96-102 orriak bitarteko bertsoak); J.B. Aguirreren *Eracusaldiac I*-etik, *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, Sacramentuen gañean Eracusaldiac*-etako azkeneko *Amargarren* eta *Amaicagarren Eracusaldiac* (1978, 80-98 orr.); Duvoisinen *Laborantzako liburu*-tik berriz, XXV-XXX atalak (1986, 112-136 orr.; salbu 120-124 orrien bitarteko *Urtheko lanen* zerrendatze hutsak); azkenik, Etchepareren *Buruchkak*-etatik, bata bestearen segidako *Kattin*, *Igande arratsaldetan, Neskato gazteentzat*, *Sainduaren errangurak*, *Biritxiak* eta *Lilien usaina* artikuluak (1992, 51-72 orr.). Gure azterketak ere baditu beraz muga kuantitatibo zehatzak.

2.2. Ahozko (edo) testigantza herrikoi klasikoak.

Bazterturik, Azkueren ipuin bilduma folklorikoa (*Euskalerriaren Yakintza II*), eta J.M. Barandiaranena (*Eusko Folklore*), De Rijkeren lanen eztabaidan aipatutako arrazoiengatik; eta ere J. Barbierek argitaratuak bezalakoak, literarioagoak edo direlakoan, beste bi bildumei egin diegu begi. Bat, aipatu Wendworth Webster-ek jasoa 1877rako, Lapurdiko Sara inguruko herritarren artean, oraintsu arte argitara gabea euskaraz (Xipri Arbelbide, EEE, *Klasikoak*, 1993). Eta euskarazko argitaratzaileak, jada ohizkoak zaizkigun zalantzak agertzen baditu ere, testuen euskal jatortasunaren inguruan,[37] berberak ematen digu bertan, W. Websterek, J. Urkijori, 1907an eginiko karta baten itzulpena, non Websterrek zalantza handirik gabe aitortzen duen transkribaketen fideltasuna, esanez, oso bestela (1993, VIII or.): «*Euskara entzun bezela idatzi dut eta ez gramatikaren arabera.*» Beharbada izan dute, Arbelbideren kezkek ere eraginen bat, gaur egun zabalduriko topikoena. Guk bildumaren hasierako ipuinak aztertu ditugu erreskadan: *Tartarua*, *Arrosa*, *Axeria*, *Basa Jauna*, *Godeon*, *Apezak*, *Sugia eta hiru alabak* eta *Alarguntsa* (1993, 1-27 orr.).

Aztertu dugun bigarren bilduma, J.F. Cerquand-ek egina, zuberera eta behenafarreraz jasotako herri ipuinen transkripzioekin, eta 1874-1885 urteen artean argitaratua (oraintsuago berriro A. Aranaren transkripzio egunekotuaz, eta bi tomotan, Txertoa, 1985-86). Aurrekoetan bezala, Cerquanden asmo bakarra bazen ere, kontaketak entzun bezala jasotzea, hitzez hitz, bere sarreran argitzen duen gisan (1985, 12 or., argitaratzailearen itzulpena): «*Testoari dagokionez hauxe eskatu nien nere laguntzaileei: istorioak hitzez hitz transkriba zitzaten, Kateximako erantzunak edo matematikako definizio bat ematerakoan jartzen duten fideltasun ber-beraz: ...*»; istorioen biltze lan zuzena, Cerquanden laguntzaileek egin zutenez (herri desberdinetako errienta, maisuek batez ere), eta ez berak zuzenean, Cerquandek berak ere zalantzak ageri ditu, zenbait testuren erabateko fideltasunaz ahozko iturriekiko, eta hala dio (12-3 orr.): «*Ez nuke esango nere aholkuak zehazki bete dituztela, nahiz testoetan, nahiz itzulpenetan. Herriaren jatorrizko testoek merezi duten errespetoa ulertzeko gusto fin eta hauta eduki behar da, bai eta burujabetasun osoa ere literatur heziketan; ... / ..., batzutan kontalariaren lekua hartu dutela somatzen dut, ez dutela diktadoz idatzi, geroago konposatu baizik.*» Arana argitaratzaileak ohizko prebentzioekin gaztigatzen gaitu sarreran (10 or.): «*..., ipuin batzutan aipagarria da hizkuntzak duen erderaren eragina, nahiz perpausaren elementoen ordenan ..., 'soini', 'zeren',*

[36] Zeinen barne sartu behar diren jada esaterako Txomin Agirreren *Kresala* eta *Garoa* bezalako nobelak (nahiz ez horregatik hainbeste lehenagoko *Auñamendiko Lorea*).

[37] Arbelbidek dio zehatz 1993ko argitalpenari eginiko sarreran (XIV or.): «Gertatu zait gogoeta egitea, pasarte batzu ez ote litezken … frantsesetik euskarara egin itzulpenak, hain du egiturak euskararen eite guti eta frantsesarena aldiz handia, bereziki errelatibo batzuekin! Eta zonbat hitz frantses!»

edo 'non' partikulen uso eta abusoan, nahiz hiztegiko maileguetan eta kalkoetan. Pentsa liteke behin baino gehiagotan idazleak frantzesez moldatu duela istorioa eta gero hartatik euskaraz itzuli ...»

Nolanahi, oso nabarmena da, testu guztiei darien ahozkotasun moldea, eta horrela aztertu ditugu guk lehen tomoaren hasieran ematen direnak: *Gogozko otoitza*, *Orgazainak arroilan*, *Ihizko hesia*, *Jinkoaren zorrak*, *Jinkoak dena ikusten du*, *Arotza*, *Sabel bat aski da*, *Espainia eta pakea*, *Ama Berginaren ogiak*, *Euskaldunen karitatea*, *Bohemienen bost sosak*, *Jinko eta zazpi-izarrak*, *Jinko eta ilargia*, *Zer da ezkontza*, *Urteak kondatzen*, *Prisatzalea*, *Oilo parea*, *Senar-emazteak*, *Itsasuko Pesta*, *Itsasuko kontseilaria*, *Astrologoak eta Espainia*, *Axeriaren maltzurkeriak* eta *Otsoaren malurrak* (1985, 14-37 orr.).

Ohar eta prebentzio guztien ondoren, kontsidera bitez bi testuak ere nahi bezala, edo iparraldeko ahozko testigantza klasiko; edota doi-doi hala ez balitz ere, bai bederen, iparraldeko narratiba herrikoiaren eredu.

2.3. Ahozko testigantzak gaur egun.

Samurragoa gertatzen ahal da gaur eguneko ahozko testigantza fidagarriak eskuratzea. Ez da ordea nahikoa, ahozkoa izatea, rustikoa izateko, Azkue-Altubek goraipatu bidean. Baina ez da ere nahastu behar rustikotasuna, bi hitz segidan elkarri lotuta esaten ez dakien izaki harekin. Asko interesatzen zaigu Peru Abarcaren rustikotasun ilustratua; eta aldiz oso gutxi, giza-artean bizi ez den izaki xinple, ignorante eta desinformatu haren hizkera, zeharo marginala, zail gertatzen denean, batere esaldi osorik, amaiturik aurkitzea, aditz jokaturik duenik, ….[38] Ondo egongo da beraz, ahalik eta testigantza fundamentuzkoenak jasotzea, ahalik eta hiztun rustikoenengandik; baina eraberean egongo da ondo, testigantzak jasotzea, egunero, fundamentuzko gaiez, kultura gaiez, eta, oro har, gai jantziez mintzatu beharrean gertatzen diren benetako euskaldunen artean, rustiko edo ez hain rustikoak. Nolanahi, aukerak egin behar dira, eta guk, egin ditugu.

2.3.1. R.M. Pagolaren *Euskalkiz euskalki.*

Aukera genitzakeen gure azterketarako, ahozko testigantza *rustikoen* artean edo, esate baterako, Zeberio haraneko ipuin kontakizunen transkripzioak (J.M. Etxebarria, gor. aip.), edota ere Nafarroako gobernuak argitaraturiko *Nafarroako euskaldunen mintzoak (I, II)* liburuetan jasoak, txukun asko, *Euskalerria Irratiak* (1990; 1993). Hala ere, egokiago eritzi diogu, kasuan aprobetxatzea, Rosa Miren Pagolak prestaturiko grabazio eta transkripzio fidel saila (*Euskalkiz euskalki*, Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritza, 1984), euskalki desberdinetako zuzeneko hiztunen artean (lapurtera, Sarakoa; zuberera, Junes Casenaveren mintzoa, uste dugunez; goi-nafarrera, Iturengoa; baxe-nafarrera, Baigorrikoa, eta Heletakoa; bizkaiera, Lezamakoa, Mundakakoa, eta Gorozikakoa; eta azkenik, gipuzkera, Astigarragakoa, eta Azpeitikoa); denak ere saio nahikoa laburrak. Pagolak berak aitortzen du sarreran, salbuespen bezala, lekuko ikasia duela, zubererakoa (horregatik ez da ematen Zuberoko herri izen zehatzik). Pentsatzekoa da, Pagolak ez dituela ikasitzat, edo bederen hain ikasitzat, ematen bere beste lekukoak, eta kontsidera genezake bilduma hau, euskara hainbat *rustikoen* testigantza, nahiz, aurrerago ikusiko dugun bezala, diferentzia ugari ere egon testu desberdinen *jantzitasun* mailan (agian ere, iparreko jantzi eta hegoaldeko beti apalagoen artean).

2.3.2. Ados? (1992-X-5): Krisia ala hondamendia?

Zein hitz ordenaz baliatuz, hitzegiten dute euskaraz, pertsona jantziek (entrepresari, sindikatuetako koadro, ekonomia tekniko, kazetari), beren gogozko gaiez, bereziegi jantziak ez direnean euskararen alorrean? ETBko Maddalen Iriarteren *Ados?* eztabaida programak antolatu zuen, 1992ko Urriaren 5aren gauerako, *Krisia ala hondamendia?* debatea, eta haren transkripzio osoa aztertu dugu.[39] Badu zuzeneko eztabaida batek abantaila, jaso ahal izateko, hiztunen batbateko mintzoa, aurretik moldatatu ezin izan dutena, formetan, irizpide extrakomunikatiboen arauetara. Kasuan ziren hiztunak (parte hartze ordenan):[40] Jabier Retegi (Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburu-ordea), Eneko Irigarai (enpresaria, Gipuzkoako Ganbarako ordezkaria), Juan Migel Mendoza (sindikalista, ELA), J.A. Sanchez (sindikalista, CCOO), Manu Agirre (Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailekoa), Jose Ramon Goikoetxea (kazetaria, Egin), Jose Luis Muguruza (Aiara bailarako ordezkaria), Juan Mari Juaristi (EAJren ordezkaria), J.C. Aldunzin (Pasaiako alkate-ordea), eta baita ere, Julen

---

[38] Gure artean zabaldu den zenbait bilketa etnolinguistikoetan jasotakoekin gertatzen den modura.

[39] Zarauzko Jon Odriozolak egina, gure eskera.

[40] Ez dugu gure azterketan sartu, aurkezle M. Iriarteren hizketa, berau bai delakoan, formetan ere, aldez aurretik prestatuaondo erreflesiboki.

Guaresti, L.M. Saez Legarda, J.M. Kruzeta, Xabier Borda, Batis Maiz eta J.A. Eizagirre jaunak.[41]

2.3.3. Ados? (1993-II-22 / 1993-III-1): Eskola legea. Arazoak amaitu? (I eta II).

Eta zein hitz ordenatan hitzegiten dute, gaur eguneko euskara ofiziala bereziki landua duten pertsona jantziek, batbatean ari direnean, erreflesio sintaktikorako astirik gabe, komunikazio beharren eraginpean? ETBko *Ados?* programak antolatu zuen, 1993ko Otsailak 22 eta Martxoaren 1ean, zuzeneko debate bat,[42] *Eskola legea. Arazoak amaitu?* izenpekoa, partehartzaile guztiak zirelarik, zuzen lotuak, azken urteotako hegoaldeko eta euskarazko irakaskuntzari. Hala aztertu ditugu segidakoen mintzoak:[43] Fermin Barcelo (Hezkuntza Sailaren ordezkaria), Markos Amundarain (Ikastolen Federazioko ordezkaria; bakarrik lehen eguneko programan), Joxe Mari Zeberio (EAJren ordezkaria), Edurne Gumuzio (Eusko Alkartasuna), Jexux Mari Goñi (EHUko irakaslea, gurasoa), Antton Izagirre (Herri Batasuna), Xabier Gurrutxaga (Euskal Ezkerra), Joseba Iturbe (ELA), Adela Etxebarria (EILAS), Aurkene Astibia (LAB), Imanol Zubizarreta (Gurasoen Federankundea) eta Mirari Bereziartua (Ikastolen Federazioa; bakarrik bigarren eguneko programan).

Denak ere, ondo jakinaren gainean dituztelarik, ziur aski, gaur egun zabalduriko topikoak, euskal hitzen ordenamenduaren inguruan, kuriosoa gertatzen d kasu honetan erea begirada bat egitea, azterketaren ondorioei.

2.3.4. Bi euskaltzainen zuzeneko mintzoak.

Ahozko testigantzen alorra amaitzeko, aztertu ditugu ere bi euskaltzainen zuzeneko mintzoak, nolabaiteko kontraste modura. Bata, luzexeagoa, Joxe Mari Satrustegirena, Arantxa Arzak,[44] 1993ko Otsailak 18an, Euskadi Irratiko *Kuluxkan* programan eginiko elkarrizketatik.[45] Bestea laburxeagoa (5 bat minutu), Euskadi Irratian, Jean Haritxelhar jaun euskaltzainburuari eginikoa Jaime Otamendik eta *Goizean Behin* programak 1992an, Oihenarten jaiotzaren laurehungarren urteurrena zela eta (*Eutsi 1 - Irakaslearen liburua*-n transkribatu eta argitaratua nahiko fidel -grabazioa eta guzti-; Bilbo Zaharra, Bilbo,1993, 165-7 orr.). Berau ere ondo interesgarria bere laburrean.[46]

2.4. Beste estatistika soilago batzuk kontrasterako.

Orain arte aipatutakoa da, soilik, guk gure azterketarako aukeratu korpusa. Hala ere aztertu ditugu, korpus honetaz gainera, beste bi euskal testu moeta berezi ere, nolabaiteko kontraste modura, baina beren berezitasunengatik, kontutan hartu ez ditugunak, gure estatistika orokorrak egiterakoan. Segidakoak:

2.4.1. Itzulpen klasikoen hitz ordenaz.

Bi itzulpen lan klasiko aztertu ditugu, sortzez euskarazkoak diren beste idazlanen kontraste baterako. Biak Aita Sebastian Mendiburu oiartzuar eta Cardaverazen garaikidearenak. Lehenengoa, 1747an argitaratzen duen *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, itzulpen estua agi danean, P. Croisset-en gaztelaniazko obra batena (cf. Villasante, HLV, 1979, 151 or.), eta hainbat traketsa ere gerta litekeena zenbaitetan, jatorrizko gaztelaniari jarraitzen zaion hurbiltasun horren kausaz agian. Bigarrena, askoz ere itzulpen askeagoa, gaztelaniazko antzeko obren moldaketa edo (Villasante, ob. aip.), 1760an argitaraturiko *Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitz-gai*. Bietan ere, beste idazleen kasuan legez, 600-700 aditz jokatu inguruko zatiak aztertu ditugu. Lehenengoaren *Irugarren buru*-ko lehen bi atalak (222-247 orr.). Eta bigarrenaren *Amar-garren otoitz-gai*-ko lehen bi atalak osorik, eta hirugarreneko lehen hiru puntuak (89-101 orr.).

---

[41] Bada tartean, uste dugu, euskaldun berririk, erdirik eta osoagorik. Aurrerago hitzegingo dugu, mintzo desberdin hauek nolabait mailakatzeko erabil litezkeen irizpideen inguru.

[42] Zeinen transkribaketa, gure eskera, Zegamako Iñake Aramendiak egin duen. Eskerrik asko, Maddalen Iriarte ere, eta programaren beste arduradunei, eskainitako laguntzagatik.

[43] Berriro alde bat utzita Maddalen Iriarte aurkezlearen saioa.

[44] Eskerrik asko hemendik ere eskainitako laguntzarengatik.

[45] Transkribatzaile fidela berriro, Zegamako Iñake Aramendia, gure eskera.

[46] Egia esan, gustatuko zitzaigun, iparraldeko hiztunen ahozko testigantza zuzen gehiago aztertzea, hegoaldekoak aztertu ditugun bezala *Krisia* edo *Eskola legea*-ren debateetan. Ez dugu ordea izan halako aukerarik eskuartean. Iparraldetik arakatutako testigantza soilak izango ditugu, Haritxelharren azken hau, eta *Euskalkiz euskalki* bilduman jasotzen diren beste laurak.

2.4.2. Gaur eguneko euskara idatziaren testigantzak.

Aztertu nahi izan ditugu ere, gaur eguneko prosa estiloak, kontrastatzeko hauek, batetik, idazle klasikoagoenarekin; eta bestetik, gaur eguneko ahozko jarduerekin, jantzi, eta ez hain jantzi. Ezagutzen ditugu gaur egungo euskara idatziaren ordenamendu lege arruntak, ez genuen ordea daturik, hauek nola betetzen zirenez benetan, testu moeta desberdinetan. Hala aukeratu ditugu hiru testu, bakoitzean aztertzeko, 600-700 aditz jokatu inguruko esaldiak. Lehenengoa Andu Lertxundiren *Karla* nobelatikoa (Erein, 1990), gaur egungo narratiba jantzi baten adibide (7 eta 8. atalak; 83-103 orr.). Bigarren, kazetaritza testu desberdinei begiratu nahi izan diegu, eta aztertu ditugu, *Euskaldunon Egunkaria*-ren, 1994ko Urtarrilak 26ko alearen lehen lau orri osoak (barne, 2 eta 3. orrietako artikulu sinatuak). Azkenik, aztertu nahi izan dugu testu didaktikoxeago bat ere, nahiz dibulgatiboa, ez espezialdua, eta *Argia* aldizkariak argitaratu berriko *Landareak* eraskina aztertu dugu, 1994ko Martxoak 27koa, 1476. alearen gehigarria, zeinen erredakzioan aipatzen diren, Mikel Lizarralde eta Pello Zubiria (soilik lehen erdia, 2-17 orr.). Bereziki interesatzen zitzaigun azken testu hau, bera hurbil zekiokeelarik gehien, bere ezaugarri didaktiko eta dibulgatiboetan, gaur eguneko euskarazko irakaskuntza / hezkuntza munduan, haur eta gazteentzako, erabiltzen den testu moetari (gaur eguneko euskarazko argitalpenen erdi ingurua).

3. Testuen jasotasun / jantzitasun mailak neurtzen.

Behin baino gehiagotan aipatu dugu, aztertu testu eta hiztun desberdinen jasotasun / jantzitasun maila,[47] bai bakoitzaren euskarazko gaitasunaren aldetik, nola ere, bakoitzaren hizketak erakusten duen kultur maila orokorraren aldetik. Kontuan hartzeko faktoreak biak, maiz erabaki lezaketelako beraiek hizketan erabiliko diren egiturak, eta bereziki hauen jasotasun, edo apaltasun maila. Ez da hala ere batere erraza, objetiboki neurtzen, testu baten jantzitasun maila. Ideia bat egite arren, guk bi neurbide, bi baremo eraiki ditugu. Bata, hiztun bakoitzak erabiltzen duen, baiezko esaldi nagusi deklaratiboen bataz besteko konplementu kopuruarena; pentsatuaz, xinpleki, zenbat eta jasoagoa izan testu bat, orduan eta esaldi luzeagoak erabiliko dituela; eta zenbat eta hizketaldi apalagoak (hiztuna jantzia izan arren), orduan eta esaldi laburragoak. Bigarren, neurtu nahi izan dugu, hiztun bakoitzak bataz beste erabiltzen duen mendeko esaldien kopurua, esaldi nagusien aldean; pentsatuaz, berriro xinpleki, zenbat eta hizketa maila jasoagoa, orduan eta mendeko esaldi gehiago erabiliko dituela.[48] Agian bila litezke beste neurbideak, baina uste dugu, bi hauek ere eman diezakugetela ideiaren bat, testu bakoitzaren jasotasun mailaz.

3.1. Esaldiak konplementuka.

Gure korpus nagusian aztertu ditugun testuetan,[49] segidakoak dira, konplementuka, baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudunen kopuruak, eta euren arteko ehuneko erlatiboak (multzo bakar batean bilduta, esaldi luze bezala, 5 edo konplementu gehiagoko esaldi guztiak):[50]

	Kopur.	%
Konp. 1	422	10,0
2 konp.	597	14,1
3 konp.	583	13,8
4 konp.	467	11,1
5 (edo geh.) konp.	2.156	51,0
Denera:	4.225	100 %

[47] Rustikotasunarena baino kontzeptu erabilgarriagoak iruditzen zaizkigu.

[48] Gainera, halako edo antzeko parametroen barne kokatu beharko litzateke, euskaldun berrien kontua ere; hainbeste aldiz esan den bezala, finean neurtu behar dena, euskaldunon berritasuna baino areago baita, osotasuna.

[49] Salbu beraz, Mendibururen itzulpenak, eta gaur eguneko euskara idatzizkoak.

[50] Gero aurrerago bere lekuan azalduko dugun modu eta arrazoiengatik, ez ditugu, hala ere, konplementuka zenbatu, aditz jokatu bidezko baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudun guztiak, 4.681, baizik eta soilik hauen %90,3a (4.225). Kanpo utzi ditugu: *Ba-* aurrizki baieztatzailea erantsita zuten aditz trinko bidezko 193 esaldi; eta, aditza esaldi barrenean erakusten zutenen artean, ezin erraz bereiz zitezkeen 263 esaldi, beren galdegaia aditzaren aurrean edo atzean eramateagatik.

Hala, beharbada has gintezke kontsideratzen gure mostra honetan,[51] jasoa, jantzia, esaldien %50a baino gehiago kokatzen duen testu hura, 5 edo konplementu gehiagoko esaldien artean; hainbat eta jasoagoa, zenbat eta gorago; hainbat eta apalagoa, zenbat eta beherago kopuru ertainetik.

Eta pentsa zitekeen, aztertu testu klasiko idatziek erakutsiko zutela goien maila. Eta hala gertatzen da adibidez Axularrenarekin (%68,5a), J.B. Aguirrerekin (%68,4a), edo J. Etcheparerekin (%66,0a). Moguelen testua ordea, ez da iristen %49,7ra baino. Eta Duvoisinena jausten da, %40,6raino ere.

Ahozko testigantzen artean ere, oso proportzio desberdinak aurki genitzake, jasoenetatik, beheenetara. *Eskola legea*-ren debatean esateko, %60,5a ere bada, 5 edo konplementu gehiagoko esaldi nagusien kopuru ertaina. Aldiz bi euskaltzainen mintzoak, bataz beste ez dira iristen %39,0ra (%34,3 Haritxelhar; %40,1 Satrustegi). *Euskalkiz euskalki* bilduma herrikoian ere, oro har ez dira %36,9a baino 5 edo geh. konplementuko esaldiak. Baina desberdintasunak handiak dira hiztun desberdinen artean, eta batzuk oso kopuru goitietara iristen diren bitartean (Baigorrikoa %62,1, Mundakakoa %53,4); bereziki hegoaldeko zenbait hiztunen testigantzak oso maila apalekoak dira (Iturengoa %22,1, Lezamakoa %29,9, Azpeitikoak %28,1, edota beheenik Astigarragakoa %17,6). Datu guztiak zehatzago, sail eta hiztun bakoitzari dagokion eraskinean.

3.2. Mendeko esaldi eta nagusien arteko proportzioak.

Zenbatu ditugu, batetik, esaldi nagusiak (zeinen kopuruari eman diogun %100aren balioa); eta bestetik, mendeko esaldiak (ME) hiru sail desberdinetan: aditz jokatu bidez osatutakoak (erlatibozkoak salbu); aditz jokatugabe bidezkoak; eta aditz jokatu bidezko erlatibozko esaldiak.[52] Sail bakoitzean eman dugu esaldi nagusiekiko proportzioa, eta azkenean guztiena batera. Hauek bataz besteko datu orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi nagusiak:	4.488	100 %
ME jokatuak:	2.334	52,0
ME jokagabeak:	1.763	39,3
ME erlatiboak:	1.104	24,6
Men. esal. denera:	5.201	115,9

Hala, aberats bezala kontsidera genezake, mendeko esaldi jokatuak, nagusien %50 baino gehiago diren testua; edota mendeko esaldi jokatugabeak, nagusien %40 ingurutik gora direnean; edota erlatiboak, %25etik gora edo. Orokorrago, denera %115 mendeko esaldi baino kopuru altuagoa erakusten duen testua. Hainbat eta hizketa maila aberatsagoa, jasoagoa, zenbat eta proportzio goragoak; hainbat eta txiroagoa, zenbat eta proportzio beheragoak. Hala izango da oso aberatsa Axularren testigantza idazle klasikoen artean (neurri ertainen doblea baino gehiago atal gehienen proportzioetan). Duvoisinen aztertu zatia berriz, ozta-ozta iristen da, bataz bestekoetara. *Eskola legea*-ren, ahozko eztabaidan berriz, datu ertainak Duvoisinen idatzizkoak baino jasoagoak gertatzen dira. Aztertu kasu guztietan, mendeko esaldi jokatugabeen kopurua gertatzen da berdintsuena, hiztun desberdinen artean, zerikusi handiegirik gabe bakoitzaren hizketa mailaren jantziarekin. Beste sailetan hala ere, nabarmenak dira hiztunen arteko diferentziak (baita ere, *Euskalkiz euskalki* saileko proportzio apaletan). Hala zenbait datu segidako taulan:

[51] Har bedi gainera kontutan, gure mostran oso pisu berezia dutela ahozko testuek (pobreagoak edo, teorian, idatziak baino). Denerako 4.225 esaldietatik, soilik 952 dagozkie idazle klasikoei (%22,5a), eta aldiz gaur eguneko zuzeneko aho euskarakoak, 2.618 esaldi (%62,0a). Webster eta Cerquandek bildumetako esaldiak berriz 655 (%15,5a).

[52] Proportzio hauek finkatzeko, beti emango dugun esaldi nagusien kopurua izango da, aztertu baiezko esaldi nagusi deklaratibo konplementudun guztiena, salbu, *Ba-* aurrizkia duten aditz trinkoen bidezkoak (denera 4.488). Kopuru hauetako mendeko esaldiak (ME) zenbatzerakoan ere, nahikoa irizpide partikular eta kasualak erabili ditugu, beren ataletan esplikatzen direnak, zehatz, aurrerago. Beraz, hemen emaniko kopuru eta proportzioak, soilik dira baliagarriak, gure baldintzape berdinetan.

	Axular		Duvoisin		Idaz. Klas.		Esk. legea		Eusk. eusk.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Esaldi nagusiak:	175	100 %	241	100%	1.040	100%	1.194	100%	692	100%
ME jokatuak:	196	112,0	136	56,4	799	76,5	784	65,7	176	25,4
ME jokagabeak:	124	70,9	97	40,2	665	63,9	477	39,9	208	30,1
ME erlatiboak:	105	60,0	53	22,0	391	37,6	408	34,2	69	10,0
Men. esa. denera:	425	242,9	286	118,7	1.852	178,1	1.669	139,8	453	65,5

Hortik nahikoa behera oraindik *Euskalkiz euskalki* saileko zenbait hiztun, bereziki hegoaldeko. Esateko, Iturengoa, denera %34,7ra baino iristen ez dena mendeko esaldi / esaldi nagusien proportzioan; Gorozikakoa, %55,4; Astigarragakoa, %42,7; edota Azpeitiakoak, %19,0raino jausten direnak. Bitartean, Baigorriko hiztunak erakusten du denera, %147,0ko ratioa. Anekdota bezala, gure bi euskaltzainen mostrak ere, ez dira iristen bataz beste %67,0ra baino (Haritxelhar %88,9a; Satrustegi, %61,6), neurri ertaina genuen %115,9aren parean. Webster / Cerquanden bildumetan ere, ez da iristen %65,7ra baino, mendeko esaldien bataz besteko proportzioa. Gaur eguneko prosa idatzikoa %153,5a den bitartean, eta Mendibururena %263,8koa. Hiztunez hiztun eta sailez saileko datu guztiak eraskinean, bakoitzari dagokion atalean.

4. Gure datu estatistikoen balioez.

Gure azterketatik eratorriko diren datuek, balioko dute segurasko, gure mostrek balio dutena. Ez askoz gehiago, edo gutxiago. Nolanahi, aurrerantzean ere, denok dauzkagu ateak irekita, mostra zabalagoekin lan egiteko, datu oraindik baliagarriagoak eskuratzeko.

III. ESALDI NAGUSIEN ORDENAZ.

1. Aditzaren esaldi barreneko guneaz, baiezko esaldi nagusi deklaratibo konplementudunetan.

Azterketa osoan bideratu dugu gure kezka nagusia, ahalik eta zehatzen ezagutzera, aditzaren gunea esaldian, ahalik eta irizpide praktiko eta pragmatikoenekin. Horregatik berezi ditugu gure mostran hasieratik, bi atal, neurri desberdinekoak, aditz jokatu bidezko 4.681 baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudunen artean.[53] Bata, txikiena, *Ba-* aurrizki baieztatzailearen bidez osatutako 193 esaldi aditz trinkodunekin, aditzaren joskera berezia erakuts zezaketelakoan; guztien %4,1a. Eta sail nagusia, beste 4.488 esaldiekin, %95,9a.

Sail nagusian, hiru multzo desberdin bereizi ditugu, errazak objetiboki banatzen. Batetik, zuzenean aditzaz hasten ziren esaldiak; bi, aditza tartean, esaldi barrenean erakusten zutenak; eta azkenik, aditza zeharo esaldi amaieran zeramatenak. Hauek datu orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi kopurua:	4.488	100%
Aditza hasieran:	640	14,3
Aditza tartean:	2.586	57,6
Aditza amaieran:	1.262	28,1

Hala, esan liteke, euskaraz, gure mostraren arabera bederen, esaldien gehiengo absolutu nabarmenak, %57,6ak, daramala aditza esaldi barrenean . Eta bi herenak baino nahikoa gehiago direla, %71,9a, aditzaz amaitzen ez diren esaldiak, euskarari maizegi egotzi zaionaz bestela. Aditzaz amaitzen diren esaldiak ez dira kopuru mesprezagarria, baino ez dira iristen hamar esalditik hirura ere, %28,1arekin. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak, aldiz, badira, aditzaz amaitzen direnen erdia baino zertxobait gehixeago, %14,3a, eta ez beraz inolako multzo ezdeus eta baztergarria.

[53] Esan bezala, hasieratik utzi ditugu kanpoan, aditz jokatugabeez osatutakoak, agiriko aditzik gabekoak, konplementurik gabekoak, eta oro har, ezezkoak, galderak eta aginterazko esaldiak.

1.1. Emaitzak sailez sail.

Emaitza orokor hauek, sail guztietan errepikatzen dira aldaera gutxirekin. Eta guztietan gertatzen da esaldi gehiengo absolutua, aditza tartean daramatenen multzoa.[54] Horrela (beti nahikoa idorra gerta baliteke ere estatistika hutsen aipatzea):

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	1.040	100%	689	100%	692	100%	691	100%	1194	100%	182	100%
Ad. has.:	188	18,1	192	27,9	95	13,7	50	7,2	99	8,3	16	8,8
Ad. tart.:	659	63,4	345	50,1	345	49,9	408	59,0	737	61,7	92	50,6
Ad. amai.:	193	18,6	152	22,1	252	36,4	233	33,7	358	30,0	74	40,7

1.1.1. Idazle klasikoak eta Webster / Cerquanden bildumak.

Soilik bi sailotan gertatzen dira neurri ertainetik nahikoa gorakoak, aditzaz hasten diren esaldiak: %18,1 idazle klasikoetan; jada %27,9koa Webster/Cerquanden ipuin bildumetan. Eraberean sail hauetantxe gertatzen dira apalenak aditzaz amaitzen diren esaldi kopuruak: idazle klasikoen artean, aditzaz hasten den bezainbeste esaldi-edo bakarrik amaitzen da aditzaz (%18,6); Webster / Cerquanden bildumen artean berriz, nahikoa gutxiago dira aditzaz amaitzen direnak (%22,1), aditzaz hasten zirenak baino.

Nolanahi, badira idazleen artean, alde nabarmenak. Axularrengan, aditzaz hasten diren esaldiak, ez dira %6,9a baino; eta aldiz, aditzaz amaitzen direnak, %39,4a. Moguelengan berriz, proportzioak ia alderantzizkoak dira: %32,8 esaldi hasten dira aditzaz; eta soilik %10,6 amaitzen. J.B. Aguirrerengan ere, esanguratsu aski, esaldien %27,2ak darama aditza esaldi buruan, eta bakarrik, %3,8ak amaieran. J. Etcheparerengan ere, soilik esaldien %12,3a amaitzen da aditzaz; nahiz aditzaz hasi ere ez den egiten %10,1a baino. Aldean, Duvoisin, Axulartarragoa gertatzen da: esaldien %30,3a amaitzen du aditzaz; eta hasi, %11,2a. Datu guztiak, bakoitzari dagokion eraskinean.

Agian suma liteke desberdintasunik, hego eta iparreko mostren artean. Aditzaz hasi zaleago hegoaldekoak; iparrekoetan gehiago diren bitartean, aditzaz amaitzen diren esaldiak. Hala ere, beharbada gehiago da estilo desberdintasuna, beste ezer baino gehiago: alde batetik Axularren idazkera pausatu, anpulos eta magistrala, pontifikazioan; bestetik, Moguel edo J.B. Aguirreren estilo arinagoa. Azken hauen datuen askoz hurbilago daude gainera, Webster / Cerquanden bildumak, iparraldeko literatura herrikoiagoko mostrak. Websterrenean (kontakizun apalenak, herrikoienak, gure bi baremoen arabera),[55] %37,8 esaldi ere hasten da aditzaz; eta Cerquandenetan, zerbait jasoagoak,[56] %19,2a. Nahiz bi mostretan ere badiren batzuk gehiago, aditzaz amaitzen direnak, Moguel edo J.B. Aguirrerenean baino (%22,5a Websterrenean; %21,7 Cerquandenean).

1.1.2. Gaur eguneko aho hizkeren artean.

Gaur eguneko aho hiztunen artean berriz, beti segitzen duen arren gehiengo absolutua izaten, aditza esaldi barrenean daramaten esaldien kopurua, badira bederen bi datu, azpimarratu nahi genituzkeenak. Bata, nola ikaragarri behera doan, hegoaldeko hizketa jantzienen artean, aditzaz hasten den esaldien kopurua: %7,2a *Krisia-hondamendia*; %8,3a *Eskola legea*; %8,2a Satrustegi (nahiz, *Euskalkiz euskalki* sailean, %13,7a izan bataz beste). Bigarren datu aipagarria, aditzaz amaitzen diren esaldien kopurua, nabarmen jasoa dela, ahozko testigantza guztietan: %43,2 Satrustegik; %36,4 *Euskalkiz euskalki* sailean; %33,7 *Krisia-hondamendia*-n; ez hainbeste hala ere *Eskola legea*-n, %30,0, edota Haritxelharren %30,6a, biak ere proportzio ertainen inguru, nahiz oraindik nahikoa goiti egon, idazle klasikoen edo Webster/Cerquanden bataz bestekoen proportzioen aldean.

Euskalkiz euskalki bildumako datuak nolanahi, zehaztu beharrekoak gertatzen dira, zeharo desberdinak baitira hiztun desberdinen arteko proportzioak. Hiztunik apalenek atzeratzen dute gehien aditza, eta gutxien

[54] Eskas baldin bada ere *Euskalkiz euskalki* sailean, %49,9arekin.

[55] %47,2ko ratioa baino ez esaldi nagusi/menpekoen artean; %34,7a baino ez, 5 edo geh. konplementuko esaldiak.

[56] %81,8ko ratioa, esaldi nagusi/menpekoen artean; %51,0a, 5 edo geh. konplementuko esaldiak.

aurreratzen. Hala Iturengoak,[57] %5,6 esaldi baino ez ditu hasten aditzaz, eta %30,6 amaitzen. Lezamakoak berriz,[58] %4,1 esaldi bakarrik hasten ditu aditzaz, eta %41,1 amaitzen. Astigarragakoak,[59] ez du hasten aditzaz esaldirik, %2,7tan baino, eta aldiz aditzaz amaitu, %64,0a ere bai. Azkenik Azpeitiko hiztunek (bat baino gehiago dira),[60] bakarrik %1,3 esaldi hasten dituzte aditzaz, eta %57,0a amaitzen.

Beste zenbait mintzo jasoagoek berriz, bestelako datuak eskaintzen dizkigute. Nabarmenen Baigorriko hiztun jantziak,[61] zeinak %28,8 esaldi ere ematen duen aditzaz hasia, eta soilik %19,7 amaitzen aditzaz. Baita ere hiztun arruntagoek, zeinek nahiz esaldi amaieran segi ematen esaldi kopuru garrantzitsua, eraberean kopuru handia hasten duten zuzenean aditzaz. Horrela Sarakoak:[62] %22,6 hasieran, %30,6 amaieran; Heletakoak:[63] %23,3 hasieran, %33,3 amaieran; Mundakakoak:[64] %21,6 hasieran, %20,4 bukaeran; edota are Gorozikakoak:[65] %21,4 hasieran, %30,4 amaieran.

1.2. Gaur eguneko testu idatziak: desberdinak.

Ze eragin izan du XX mendeko joskera eskolak, gaur eguneko hegoaldeko prosa estandarrean? Segidan gure hiru mostra laburretatik bildutako datuak:

	Denera		A. Lertxundi		Egunkaria		Argia-landare.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	710	100%	194	100%	208	100%	308	100%
Ad. has.:	10	1,4	9	4,6	1	0,5	0	0,0
Ad. tart.:	422	59,4	146	75,3	123	59,1	153	49,7
Ad. amai.:	278	39,2	39	20,1	84	40,4	155	50,3

Mostra laburra izan arren, bada zenbait gauza aipagarri, gure eguneroko esperientziak zilegizta ditzakeenak. Lehenengoa, ia erabat desagertzen direla, praktikan, zuzenean aditzaz hasitako esaldiak. Testimonialak Lertxundigan (%4,6); batere ez (ia), prosa estandarragoetan (% 0,5 *Egunk.*; %0,0 *Argia-landare.*). Bigarren ondorio bitxia, *Argia-landareak*-mostrak, kopuru handiagoa erakusten duela jada, aditzaz amaitzen diren esaldien artean (%50,3), tartean daramatenen artean baino, lehenengo aldia gure korpus idatzian. Azkenik esan, Lertxundiren prosa literarioa, ez dela horren zurruna gertatzen, aditza amaierara eramaten, nahiz oro har oso-oso atzean ematen dituen aditzak esaldian, bere prosa pixkaren bat ezagutzen duen edonork baiezta lezakeen moduan.

1.3. Mendibururen itzulpenak.

Aldiz, Mendibururen 1747-1760ko itzulpenen datuak, ez dira gertatzen batere aipagarriak, aztertu idazle klasikoen parean. Are gutxiago hegoaldekoen aldean, nahiz aipagarri, Mendiburuk itzulpenean, zerbait gehiago atzeratzen duen aditza, Moguelek eta J.B. Aguirrek baino sortzeko lanetan. Hala, bataz beste, %19,6 esaldi hasten ditu Mendiburuk aditzaz gure mostran (Moguelek, %32,8; J.B. Aguirrek, %27,2), eta aldiz, %13,3 amaitzen (Moguelek, %10,6; J.B. Aguirrek, %3,8). Aditza tartean ematen du %67,1ean. Ez du ematen zentzu honetan, ondorio aipagarriegirik dakarkionik Mendibururen hitz ordenamenduari, itzulpengintzan aritzeak, eta ez zuzenean euskaraz sortzen.

---

[57] %22,1, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %34,7 esaldi nagusi/mendeko ratioa.

[58] %29,9, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %74,0 esaldi nagusi/mendeko ratioa, kasuan nahikoa altua, mendeko aditz jokatugabeko esaldi kopuru ugariari esker.

[59] %17,6 baino ez, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %42,7 esaldi nagusi/mendeko ratioa, batez ere, eraberean, aditz jokatugabeko esaldiei esker.

[60] %28,1 besterik ez, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %19,0 bakarrik, esaldi nagusi/mendeko ratioan.

[61] %62,1, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %147,0 esaldi nagusi/mendeko ratioa.

[62] %35,6, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %59,7 esaldi nagusi/mendeko ratioa.

[63] %36,8, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %66,7 esaldi nagusi/mendeko ratioa.

[64] %53,4, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %77,4 esaldi nagusi/mendeko ratioa.

[65] %43,4, 5 edo geh. konpl. esaldien artean; %55,4 esaldi nagusi/mendeko ratioa.

2. Aditza tartean eta galdegaiak aditz ondoretik esaldian.

Zehaztasunak zehaztasun, euskalari gehienok genuen lehenago ere nahikoa argi, euskarazko esaldi kopuru nagusienak erakuts zezakeela aditza esaldi barrenean emana, eta ez muturretan; agian salbuespenen batekin *Cardaverazen eskolan*, edota gaur egungo eskola Azkue-Altubetarraren kimu extremoenetan. Nolanahi, aditza tartean daramaten esaldien multzoa, zabalegia gertatzen da, ondorio praktikoetarako. Eta sail bakoitzeko esaldiak, konplementuka aztertu aurretik, egin nahi izan dugu, nagusi honen barne, bigarren banaketa garrantzizko bat, erabiliaz, zenbait irizpide praktiko / pragmatiko, gaur egun nahiko ezagun gertatzen direnak zeinnahi euskaldun ikasirentzako.

Eta galdegaia irizpide hartuta banatu dugu, aditza esaldi barrenean erakusten duen esaldi multzoa, beste bi azpisail nagusi, eta hirugarren, akzesorioago batean: lehenengoa, gaur egungo lege Azkue-Altubetarraz landa, galdegaia, nabarmen, aditz ondoretik erakusten duten esaldiak; bigarrena, lege hori beteaz, galdegaia aditzaren aurre justuan erakusten dutenak; eta hirugarrena, multzorik eskasena, ez sail batean, eta ez bestean sailkatu ezin genituen esaldiak. Emaitzak ezin gogoangarriagoak gertatzen dira.

2.1. Sailkatze irizpide pragmatikoez.

Egia da, esaldi solteetan, zail eta zalantzagarri gertatzen dela, zehatz erabakitzea, zein esaldi zati den, zein ez, informazio gunerik garrantzizkoena, berriena, edo dena delakoa, dei diezaiogun, *galdegai*, hartuaz kontzeptua bere zentzu zabalean, esaldiko errema, prediku, komento, iruzkin edo irazkin bezala.[66] Denok dakigu ordea, operazio bera zenbateraino errazten den, esaldi bakoitza bere testuinguruan ezagutzen dugun orduko, gure kasuan legez, jakinik, zertaz eta nola etorri diren hitzegiten aurreko esaldiak, eta eraberean, zertaz eta nola segitzen den hitzegiten ondorengoetan.

Eta geratzen da hala ere esaldi multzo txiki bat, bi atal nagusietan sailkatu ezinekoa. Horien artean: hainbat esaldi, zeinetan aditzak berak gordeko lukeen, nabarmen, galdegaitasuna, dela *egin* indartzailearen bidez, dela, bestela; beste hainbat esaldi, zeinetan atal erematikoa, irazkina edo prediku nagusia, nabarmen gertatzen den bi zatitan banatua, parekatuki, aditzaren aurre justuan, eta aditz honen ondoretik (maiz gertatzen den bezala gaur eguneko prosa idatzian);[67] beste batzuetan, zaila gerta litekeelako, testuinguru guztiak ezagututa ere, erabakitzea, zein diren esaldi haren elementu erematikoak eta zein tematikoak (ez gehiegitan nolanahi); azkenik, baita ere inoiz, esaldiko galdegai nabarmena aditzaren aurrean emana izan arren, bien artean beste elementuren bat tartekatu denean, etenaz bien arteko lotura.[68] Guzti hauek bildu ditugu, hirugarren atal, zaku batean, nolanahi ere oso murritza gertatzen dena gure korpus nagusian (zerbait zabalagoa gaur eguneko prosa idatzian).[69]

2.2. Datu orokorrak.

Ezin esanguratsuagoak:

---

[66] Bada gaur egun joera, beharbada zentzuzkoa, *galdegai* kontzeptua murrizteko, zentzu *estu, fokalizatu* batera, Euskaltzaindiaren EGLU-I-Eraskineko *Hizt ordena* artikuluan ere proposatzen den moduan, utzi nahian guk erabilitako zentzu zabal hori, aipatu beste hitzetakoren bati (*irazkina*, deitzen zaio EGLUn). Hitzak hitz, hemen, guk aukeratutako kontzeptuak behar du garbi geratu.

[67] Gure mostrako Lertxundi da kasurik nabarmenena, baina baita ere *Argia* edo *Egunkaria*. Batzuetan zabaltzen baita gaur egun, Azkue-Altuberen galdegaiaren legearekin batera, aditza ez gehiegi atzeratzeko gomendioa ere.

[68] *Cardaverazen eskolan* arruntak diren kasuok, ez dira hala ere dozena erdia gure mostran, eta gehienak aditza amaieran ematen dutenak.

[69] Kontutan hartu beharko da nolanahi, azken sailkapen pragmatiko hauek, beti gorde lezaketela subjetibitate gradu bat gehiago bederen, aurreko hiru sail nagusietako banaketa objetiboak baino. Beti geratzen dira nolanahi testuak kontrasterako.

	Kopur.	%
Esaldi kopurua:	2.586	100%
Galdegaia aditz ondoretik:	2.044	79,0
Galdegaia aditz aurrean:	279	10,8
Bestela:	263	10,2

Baztertutako esaldiak %10,2a direlarik, gure mostran, soilik esaldien %10,8ak beteko luke, peto, lege Azkue-Altubetarraren agindua. %79,0ak, aldiz, ez. Kontutan harturik, bakarrik, lehenengo bi sailetan banatu ditugun 2.323 esaldiak, hauen %12,0ak emango du bere galdegaia aditzaren aurre justuko gunean; aldiz beste %88,0ak darama, zalantzarik gabe, bere galdegaia emana esaldiko aditzaren ondoretik.

2.2.1. Datuak sailez sail.

Datuak, jakingarri asko, hein bere batekoak gertatzen dira sail guztietan; hala idazle klasikoen artean, edo Webster / Cerquanden bildumean, nola areago oraindik, oso esanguratsuki, gaur eguneko ahozko mostra guztietan:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	659	100%	345	100%	345	100%	408	100%	737	100%	92	100%
Gald. ad. on.:	486	73,7	263	76,2	250	72,5	343	84,1	621	84,3	81	88,0
Gald. ad. aur.:	85	12,9	48	13,9	45	13,0	35	8,6	60	8,1	6	6,5
Bestela:	88	13,4	34	9,9	50	14,5	30	7,4	56	7,6	5	5,4

Datu guztiak parekatuak diren arren, hainbat areagotua gertatzen da, galdegaia aditzaren ondoreko joskera, gaur eguneko hiztun jantzienen artean. Are *Euskalkiz euskalki* sailean ere datu guztiak dira erabatekoak: Zuberoko hiztunak, bakarrik %9,7tan ematen du galdegaia aditzaren aurretik, %77,4 ondoretik; Baigorrikoak, %5,9 aurretik, %94,1 ondoretik (bestelakorik batere ez); Gorozikakoak, %7,4 aurretik, %81,5 ondoretik; Astigarragakoak, %64,0 aurretik, %8,0 ondoretik; … Idazleen artean ere, esanguratsua da Axularren datua, %4,3 aurretik, %81,9 ondoretik; edota, Moguelena, %5,9 aurretik, %83,3 ondoretik; J.B. Aguirrerena, %3,8 aurretik, %84,7 ondoretik. Beste bi idazle iparraldekoen datuak berriz, ez dira horren absolutuak, nahiz bai ezpal berekoak: Duvoisin, %19,9 aurretik, %68, 1 ondoretik (bestela, %12,1); J. Etchepare, %28,8 aurretik, %52,5 ondoretik (%18,7 bestela).

Datu hauetatik prezeski, ez da ateratzen, Azkue-Altuberen galdegai legerik. Nolanahi, datu guztiak gertatuko dira esanguratsuagoak, esaldiak konplementuka sailkatzen ditugunean.

2.2.2. Gaur egungo testuak: desberdinak.

Mendibururen itzulpenetan batere desberdintasunik sumatzen ez den bezala esaldien sailkapenean (%9,4, bataz beste, galdegaia aditz aurrean duten esaldiak; %77,2a aditz ondoretik erakusten dutenak; %13,4 bestelakoak), badira diferentzia nabarmenak, gaur egungo testuekiko, espero ere zitekeen bezala. Datuak jakingarriak dira:

	Denera		A.Lertxundi		Egunkaria		Argia-landare.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	422	100%	146	100%	123	100%	153	100%
Gald. ad. on.:	85	20,1	27	18,5	25	20,3	33	21,6
Gald. ad. aur.:	216	51,2	63	43,2	75	61,0	78	51,0
Bestela:	121	28,7	56	38,4	23	18,7	42	27,5

Ez da jada sailik nagusiena, galdegaia aditz ondoretik erakusten duten esaldiena (%20,1era murriztua),[70] baizik, lege Azkue-Altubetarrak agindu moduan, galdegaia aditzaren aurretik daramaten esaldiena (%51,2a), gure beste mostra guztietan ez bezala. Gainera, bestelako esaldien saila, erabat puztua gertatzen da (%28,7a; gure mostrako bataz besteko %10,2aren aurrean). Eta izan ere, gaur eguneko prosan erabat ugaltzen dira esaldiak, zalantza handirik gabe ematen dutenak, esaldiko galdegaia behar lukeena, esaldiaren aurrealdean, eta

[70] Legeak lege, oraindik ere zerbait badena, maizenik ahaztua den arren gaur egungo gramatika eskuliburuetan.

aditzaren aurre justuan; baina bestalde, aditza gehiegi atzeratu nahi ez delako, aditzaren ondoretik ematen dituztenak (Azkue-Altuberen eskolan ere), esaldiko beste hainbat elementu, ez horren errematikoak beharbada, baina, horren atzeraturik, ohi baino pisu predikatibo handiagoa irabazten dutenak, maiz ezinbestekoak izaki esaldiari zentzua hartu ahal izateko. Halako esaldiak ez dira ematen gure tradizioan salbuespen bezala baino, edo ere gaur eguneko aho hizkeretan; eta ematen direnean ere, oro har, oso esaldi laburretan, gaur eguneko prosan gertatzen denaz bestela.

2.3. Galdegaia aditz ondoretik eta entendimentuzko aditzak.

Gaur egungo joskera topiko estandarrek, oro har eskatzen badute ere, galdegaia aditzaren aurre justuan ematea, eskaini ohi dute aukera, salbuespen bezala edo, galdegaia aditzaren ondoretik ere emateko, hau luzea denean, edo bereziago, zenbait aditz, dei ditzagun hemen, entendimentuzko-en kasuan (*esan, galdetu, pentsatu, iruditu, uste, ikusi, jakin, gertatu, agindu* eta antz batekoak), hauen konplementu objetuak maiz diren neurrian mendeko esaldi osoak, eta luzeak.

Horregatik ezagutu nahi izan dugu prezisoago fenomenoaren zabalera, eta aparte zenbatu ditugu, galdegaia aditzaren ondoretik erakusten zuen esaldi multzo handiaren barne, entendimentuzko aditzak zirenak (eta galdegaia, mendeko esaldi objetua).[71] Eta badira multzo garrantzitsua, nahiz ez guztien laurdena baino askoz gehiago:

	Kopur.	%
Ad. tart. galdegaia aditz ondor.:	2.044	100%
Entendimentuzko aditzak:	550	26,9
Beste nolanahiko aditzak:	1.494	73,1

Sail desberdinetan ere antz batekoak dira datuak:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	486	100%	263	100%	250	100%	343	100%	621	100%	81	100%
Entend. ad.:	51	10,5	84	31,9	37	14,8	128	37,3	246	39,6	4	4,9
Bes. nol. ad.:	435	89,5	179	68,1	213	85,2	215	62,7	379	60,4	77	95,1

Agertzen diren desberdintasunek, gehiago dirudite, aztertu testu klaseari dagozkionak (*narrazioa, pontifikazioa, azalpena, ...*), edota hiztunaren estilo bereziari lotuak, beste ezeri baino gehiago.

Mendibururenean ere %12,2 dira entendimentuzko aditzak, eta %87,8 bestelakoak. Eta gaur eguneko testuen artean, nahiz sailaren dimentsio globala askoz txikiagoa izan, antz batekoak dira proportzioak: %18,8 entendimentuzkoak; %81,2 bestelakoak.

Ezin ba esan da, gure ustez, lotuegia dagoenik, inon, galdegaia aditzaren ondoretik ematearen fenomenoa, soilik aditz moeta semantiko berezi bati. Beste gauza bat litzateke, postulatzea, fenomenoa lotua dagoen edo ez, eta nola edo zenbateraino, zirkunstantzialki, galdegai konplementu luzeagoak edo laburragoak dituzten esaldiekin. Hori ere aztertuko dugu hurrengo atalean.

3. Esaldi nagusiak konplementuka.

Aztertu esaldi nagusi guztien kopurutik (4.681), konplementuka soilki aztertu ditugu: aditzaz hasten zirenak (640); aditzaz amaituak (1.262); aditza tartean izaki, galdegaia aditzaren ondoretik zeramatenak (2.044); eta aditza tartean izanik, galdegaia aditzaren aurre justuan zutenak (279); denera 4.225 esaldi. Ez ditugu konplementuka aztertu: aditza tartean izanik, sailkatu ezin izan ditugun esaldiak, galdegai gunearen arabera (bestelako 263 esaldiak); eta ezta ere, *Ba-* aurrizki bidez osatutako aditz trinko bidezkoak (193 esaldi), aparte

[71] Guk ez ditugu hala ere sail honetan zenbatu, entendimentuzko aditzen antzekoak gerta litezkeen zenbait esaera predikatibo, bereziki *izan* aditzaren bidezkoak (*egia da …; [badakit gauza bat] eta da …; …*) modukoak, konplementu bezala mendeko esaldi konpletiboak edo dituztenak. Hala egin dugu, oso zaila delako halakoetan muga egitea, entendimentuzko aditz, edo soilik, konplementu luzeko aditzen artean.

tratatu ditugulako. Horrela, konplementuka sailkatu dugu, aditz jokatu bidez osatutako baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudun guztien %90,3a.

3.1. Datu orokorrak.

Segidako tauletako datuak, beti datoz banatuak, goitik beherako bost zutabe dobletan, eta beste sei ilara horizontaletan. Lehenengo lau ilaretan, konplementu bateko, biko, hiruko eta lauko esaldien datuak. Bostgarrenean berriz, batera, 5 edo konplementu gehiagoko esaldi guztien datuak, esaldi luze modura, zehaztu gabe konplementu kopuruen arabera. Gainera seigarren ilara aparteko bat erantsi dugu beti, denerako datuak bilduaz.[72]

Lehenengo zutabe doblearen, ezkerreko zutabetxoan ematen dira, esaldi kopuru orokorrak konplementuka; eta aldamenekoan, hauen proportzioak ehunekoetan, esaldi kopuru osoari begira.[73] Hurrengo lau zutabe dobleetan berriz, zenbatzen ditugu: lehenengoan, aditza zuzenean hasieran daramaten esaldiak (*Ad. hasieran*); bigarrenean, aditza tartean eta galdegaia aditz ondoretik daramatenak (*A. t. gald. ond.*); hirugarrenean, aditza tartean, eta galdegaia aditzaren aurre justuan daramatenak (*A. t. gald. aur.*); eta laugarrengoan, azkenik, aditza amaieran daramatenak (*Ad. amaieran*). Zutabe doble bakoitzeko lehen zutabetxoan, esaldi kopuru absolutuak konplementuka. Bigarrenean berriz, proportzioak ehunekoetan, konplementu kopuru horretako esaldi multzoari begira (hau da, horizontalki), jakin nahian, konplementu kopuru bakoitzeko, zenbat esaldi hasten den aditzaz, aditzaz amaitzen den, edo, aditza tartean izanik, daraman galdegaia aditz aurretik edo ondoretik.[74] Konplementu bakarreko esaldietan, apenas joan litekeen aditza, hasieran ez bada bukaeran; beraz, hutsik geratzen dira *aditza tartean* laukiak.

Hemen, lehendabizi, gure mostrako bataz besteko datu orokorrak, ezin esanguratsuagoak jada:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	422	10,0	113	26,8	//				309	73,2	100 %
2 konp.	597	14,1	93	15,6	137	22,9	48	8,0	319	53,4	100 %
3 konp.	583	13,8	69	11,8	222	38,1	59	10,1	233	40,0	100 %
4 konp.	467	11,1	54	11,6	230	49,3	47	10,1	136	29,1	100 %
5 (edo geh.) konp.	2.156	51,0	311	14,4	1.455	67,5	125	5,8	265	12,3	100 %
Denera:	4.225	100 %	640	15,1	2.044	48,4	279	6,6	1.262	29,9	100 %

Bereziki dira ohargarriak guk apropos beltzaskaz eman ditugun bi zutabetxoetako proportzioen bilakaerak. Bata, aditza amaieran daramaten esaldiena. Espero zitekeen bezala, hainbat eta proportzio txikiagoa, zenbat eta konplementu gehiago izan esaldiak: %73,2tik konplementu bakarreko esaldietan, %12,3ra, 5 edo geh. konplementuko esaldietan. Bigarren bilakaera ohargarria, aditza tartean izanik, galdegaia aditzaren ondoretik erakusten duten esaldiena: aurrekoaren zeharo kontrajarria, hainbat eta proportzio sendoagoa, zenbat eta konplementu gehiago izan esaldiak (%22,9tik 2 konplementuko esaldietan, %67,5eraino 5 edo gehiagokoetan).

Konplementu bakarreko esaldien artean (guztien %10,0a), ez dago dudarik. Esaldi gehiengo absolutuak, 3/4ak inguru, erakusten du aditza amaieran, denok espero genezakeen moduan. Beharbada harrigarriagoa da, soilik, %73,2koa izatea kopuru hori, eta esaldien %26,8ak ere erakustea, gordin, *aditza + konplementua* segida; ez inola kopuru mesprezagarria.

Bi konplementuko esaldien artean ere (guztien %14,1a), ez dago oraindik duda gehiegirik. Esaldi gehiengo nagusi batek erakusten du artean aditza esaldi atzealdean: %61,5 (%53,4 ad. amaieran, oraindik esaldi guztien erdiak baino zertxobait gehiagok; eta %8,0ak ad. tar. gald. ad. aur.). Berriro, harrigarriagoa dena da, ia

[72] Eta bada alderik, orain eskaintzen ditugun datuak, eta lehen atalean jaso ditugun orokorren artean, oraingoan hartzen ez delako kontutan, aditza tartean izaki, galdegai gunearen arabera sailkatu ezin genuen esaldi kopuru hura.

[73] Ehuneko hauek, bertikalean batuta, %100a osatuko dute.

[74] Alderantzizko ehunekoak (bertikalekoak), hau da, balioko liguketenak, jakiteko, aditza hasieran duten esaldien artean (edo amaieran, edo tartean …), zenbat diren konplementu bakarrekoak, bikoak, …, ez ditugu agerian jaso taula hauetan, horren garrantzitsuak ez zirelakoan. Nolanahi, guk emaniko datu guztiekin, ez da batere zaila, behar izanez gero, proportzio hauek ere eskuratzea.

10 esalditik 4k (%38,5ak) erakustea aditza esaldi aurrealdean, are bi konplementu soileko esaldietan (%15,6 zuzenean esaldi hasieran, %22,9ak ad. tar. gald. ad. ond.).

Aldiz, hiru konplementuko esaldien artean jada (guztien %13,8a), erabat parekatzen dira, bi multzoak: esaldien %49,9ak eramango luke aditza esaldi aurrealde batean (%11,8 zuzenean hasieran; %38,1 ad. tar. gald. ad. ond.); %50,1ak erakutsiko luke aditza esaldi atzealdean (%40,0ak oraindik esaldi amaieran; %10,1ak ad. tar. gald. ad. aur.).

Lau konplementuko esaldien artean berriz (guztien %11,1a), jada gehiengo nabarmena da, aditza esaldi aurrealdean erakusten dutenen kopurua, %60,8a (%11,6ak zuzenean esaldi hasieran; %49,3ak ad. tar. gald. ad. ond.); eta gutxiengoa (nahiz artean hamarretik lau ere izan ia), aditza atzealdean eramango luketen esaldien multzoa: %39,2a (%29,1 erabat esaldi amaieran; %10,1 ad. tar. gald. ad. aur.).

Bost edo konplementu gehiagoko esaldien artean berriz (hau da, gure korpuseko esaldi erdiak baino gehixeago, guztien %51,0), aditza aurrealdean erakutsiko luke esaldien %81,9ak (%14,4 zuzenean esaldi hasieran, %67,5ak ad. tar. gald. ad. ond.); eta atzealdean berriz, ez bostetik batek ere, %18,1 (%12,3ak oraindik esaldi amaieran; %5,8ak baino ez ad. tar. gald. ad. aur.).

Beste bi zutabeetako datuei dagokienez, proportzioak ez dira ezer asko aldatzen, konplementuka, bi kasutan salbu. Bat, aipatu proportzio altua, konplementu bakarreko esaldien artean, esaldi hasierako aditzena, %26,8a (besteetan %11,6 eta %15,6ren artean baitabil). Bestea, esaldi luzeenetan aurkitzen dugun proportzio bajuxeagoa, aditza tartean eta galdegaia aditzaren aurretik erakusten duten esaldien artean, %5,8a (esaldi laburragoetan proportzioa %8,0tik %10,1era dabilen bitartean); aldaera ez ikaragarria, baina baduena ere bere logika, komunikazioaren legeen haritik, esaldi luzeenetan.

3.2. Datuak sailez sail

Aipatu proportzioen joera berberak aurkitzen ditugu, sailez sail, gure mostra osoan, oso aldaera gutxirekin. Guztietan, esaldi amaierako aditz proportzioen erabateko amiltzea, esaldiak konplementuak irabazten doazen bezala. Eta erabateko gehitze proportzionala ere, aditza tartean eta galdegaia aditz ondoretik erakusten duten esaldien artean, hauek konplementuak irabazi ahala. Honek esan nahi du, hiztunik aberatsenek, nola apalenek, esaldi ordenamendu beretsuak erabiltzen dituztela, esaldi laburretan eta luzeetan, oso gora-behera gutxirekin. Nahiz gero, esaldi luze edo laburren kopuru desberdinak erabili bakoitzak, eta finean diferentzia horrek eragin, batez ere, beren arteko datu orokorretan aurki litezkeen desberdintasun nagusiak. Bestelako diferentziak, kontuan hartzekoak izanda ere, askoz detaileagokoak izango dira.

3.2.1. Idazle klasikoak.

Hauek datuak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	61	6,4	20	32,8	//				41	67,2	100 %
2 konp.	97	10,2	33	34,0	18	18,6	9	9,3	37	38,1	100 %
3 konp.	138	14,5	27	19,6	57	41,3	18	13,0	36	26,1	100 %
4 konp.	102	10,7	14	13,7	56	54,9	13	12,7	19	18,6	100 %
5 (edo geh.) konp.	554	58,2	94	17,0	355	64,1	45	8,1	60	10,8	100 %
Denera:	952	100 %	188	19,7	486	51,1	85	8,9	193	20,3	100 %

Idazle klasikoon artean, jada bi konplementuko esaldien artean lortzen da, aditza esaldi aurrealdean eta atzealdean daramaten multzoen arteko parekatzea: aditza esaldi aurrealdean %52,6 esalditan (%34,0 aditza hasieran bertan; %18,6 ad. tar. gald. ad. ond.); eta aditza atzealdean %47,4 (%38,1 ad. amaieran; %9,3 ad. tar. gald. ad. aur.). Datu ertainetan soilik hiru konplementuko esaldien artean lortzen zen parekatze hau. Idazleon artean berriz, hiru konplementu eta gehiagoko esaldietan, oso gehiengo nabarmena da, aditza esaldi aurrealdean daramatenena (hiru konplementurekin %60,9 / %39,1; laurekin %68,6 / %31,4; eta 5 edo gehiagorekin berriz, %81,0 / %19,0). Bestelakoan, bada ere aipagarria, konplementu bakarreko esaldien artean, zuzenean aditzaz

hasten den %32,8a.[75]

3.2.2. Webster / Cerquand.

Segidakoak datuak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	111	16,9	50	45,0	//				61	55,0	100 %
2 konp.	98	15,0	23	23,5	29	29,6	11	11,2	35	35,7	100 %
3 konp.	90	13,7	19	21,1	37	41,1	11	12,2	23	25,6	100 %
4 konp.	73	11,1	16	21,9	34	46,6	6	8,2	17	23,3	100 %
5 (edo geh.) konp.	283	43,2	84	29,7	163	57,6	20	7,1	16	5,7	100 %
Denera:	655	100 %	192	29,3	263	40,2	48	7,3	152	23,2	100 %

Idazle klasikoetan bezala, bi ipuin bilduma hauetan ere, bi konplementuko esaldietan lortzen da bi multzoen arteko parekatzea: aditza aurrealdean esaldien %53,1ean (%23,5a hasieran bertan; %29,6 ad. tar. gald. ad. ond.); eta aditza atzealdean %46,9ean (%35,7 amaieran; %11,2 ad. tar. gald. ad. aur.). Hiru konplementu eta gehiagoko esaldietan, gehiengoa oso nabarmena da, aditza aurrealdean daramaten esaldien alde (hirukoetan, %62,2 / %37,8; laukoetan, %68,5 / %31,5; eta 5 edo gehiagokoetan, %87,3 / %12,7). Bestelakoan, nabarmentzekoa da, nola konplementu bakarreko esaldien artean, %45,0a ere baden zuzenean aditzaz hasten dena.

3.2.3. Euskalkiz euskalki.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	118	18,4	21	17,8	//				97	82,2	100 %
2 konp.	112	17,4	14	12,5	20	17,9	13	11,6	65	58,0	100 %
3 konp.	96	15,0	7	7,3	40	41,7	10	10,4	39	40,6	100 %
4 konp.	79	12,3	9	11,4	47	59,5	6	7,6	17	21,5	100 %
5 (edo geh.) konp.	237	36,9	44	18,6	143	60,3	16	6,8	34	14,3	100 %
Denera:	642	100 %	95	14,8	250	38,9	45	7,0	252	39,3	100 %

Aurreko bi sailetan ez bezala, aditza esaldi aurrealdean / atzealdean multzoen arteko oreka, soilik hiru edo gehiago konplementuko esaldietan lortzen da. Hirukoetan: aditza aurrealdean, %49,0an (soilik %7,3 hasieran bertan; %41,7 ad. tar. gald. ad. ond.); aditza atzealdean, %51,0an (%40,6 esaldi amaieran; %10,4 ad. tar. gald. ad. aur.). Lau konplementu eta gehiagokoetan gehiengoa nabarmena da, aditza aurrealdean daramaten esaldien alde (lau konplementurekin, %70,9 / %29,1; eta 5 edo gehiagorekin, %78,9 / %21,1).

3.2.4. Krisia-hondamendia.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	52	7,9	10	19,2	//				42	80,8	100 %
2 konp.	110	16,6	10	9,1	21	19,1	6	5,5	73	66,4	100 %
3 konp.	86	13,0	4	4,7	38	44,2	8	9,3	36	41,9	100 %
4 konp.	89	13,5	4	4,5	42	47,2	9	10,1	34	38,2	100 %
5 (edo geh.) konp.	324	49,0	22	6,8	242	74,7	12	3,7	48	14,8	100 %
Denera:	661	100 %	50	7,6	343	51,9	35	5,3	233	35,2	100 %

Krisia-ren debatean ere ozta ozta iristen da, aditza aurrealdean / atzealdean multzoen orekara, hiru edo konplementu gehiagoko esaldietan. Hirukoetan: aditza aurrealdean, %48,8 esalditan (%4,7 soilik, aditza hasieran bertan; %44,2 ad. tar. gald. ad. ond.); aditza atzealdean, %51,2 (%41,9 esaldi amaieran; %9,3 ad. tar.

[75] Datu zehatzagoak, idazlez idazle, bakoitzari dagokion eraskinean.

gald. ad. aur.). Lau konplementukoetan ere, ozta ozta gabiltza oraindik multzo parekatuen artean, nahiz jada gehiengoa egon, aditza aurrealdean daramaten esaldien alde: %51,7 / %48,3. Bost edo gehiagokoetan berriz, aldeak, berriro, ezin nabarmenagoak dira aditz aurreratukoen alde, %81,5 / %18,5.

3.2.5. Eskola legea.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	59	5,2	10	16,9	//				49	83,1	100 %
2 konp.	142	12,5	9	6,3	32	22,5	8	5,6	93	65,5	100 %
3 konp.	140	12,3	11	7,9	37	26,4	10	7,1	82	58,6	100 %
4 konp.	108	9,5	9	8,3	42	38,9	12	11,1	45	41,7	100 %
5 (edo geh.) konp.	689	60,5	60	8,7	510	74,0	30	4,4	89	12,9	100 %
Denera:	1.138	100 %	99	8,7	621	54,6	60	5,3	358	31,5	100 %

Kuriosoa da, nola, gaur egungo ahozko hizketa aberatseko mostra honetan, aditza aurrealdean / atzealdean multzoen arteko parekatzea, ez den gertatzen, sikiera, hiru konplementuko esaldietan (%34,3 baino ez aditza aurrealdean daramaten esaldien kopurua, eta %65,7a oraindik aditza atzeratua dutenena); baizik eta, soilik, laukoetan (ozta ozta), edo gehiagokoetan (nabarmen). Hala laukoetan: %47,2 aditza aurrealdean; %52,8 oraindik atzean. Bost edo gehiagorekin (hau da, mostrako esaldien %60,5eko gehiengo absolutuan), bai desberdintasun nabarmenak: %82,7 aditza aurrealdean, %17,3 soilik atzealdean. Esplikazioa, beharbada bilatu beharko litzateke, mende honetako ahozko euskara jantzia jasaten ari den eboluzioan, batez ere hegoaldeko euskaldunongan.

3.2.6. Gure bi euskaltzainak.

Datuak segidakoak, nahiz kontuan hartu beharko den, askoz kopuru txikiagoekin ari garela jokatzen, eta beharbada horregatik litezkeela datuak nahasixeagoak, nahiz oro har, aurreko guztien joera berak nabarmen litezkeen:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	21	11,9	2	9,5	//				19	90,5	100 %
2 konp.	38	21,5	4	10,5	17	44,7	1	2,6	16	42,1	100 %
3 konp.	33	18,6	1	3,0	13	39,4	2	6,1	17	51,5	100 %
4 konp.	16	9,0	2	12,5	9	56,2	1	6,2	4	25,0	100 %
5 (edo geh.) konp.	69	39,0	7	10,1	42	60,9	2	2,9	18	26,1	100 %
Denera:	177	100 %	16	9,0	81	45,8	6	3,4	74	41,8	100 %

3.2.7. Joera berdinak, baita ere, mintzo apalenetan.

Sailez sail aurkitu dugun joera berau (zenbat eta esaldi luzeagoak, aditza aurrealderago emateko), eta ikusitako proportzio beretsuetan, segitzen da gordetzen, kurioski, hizketa pobreenen artean ere. Hala, *Euskalkiz euskalki* sailean, Ituren, Lezama, Astigarraga edo Azpeitiako hiztunen datu globalak nahikoa bereziak zirenean, nahikoa da hauen esaldiak ere konplementuka aztertzea, hiztun aberatsenen proportzio beretsuak aurkitzeko. Inola ere ez desberdinak.[76] Hala adibidez, Iturengoarengan, 5 edo geh. konplementuko esaldien artean (bere guztien %22,1a soilik), %73,3ak eramango du aditza esaldi aurrealdean (%6,7 hasieran; %66,7 ad. tar. gald. ad. ond.); eta soilik %26,7ak esaldi atzealdean (%20,0 esaldi amaieran; %6,7 ad. tar. gald. ad. aur.). Lezamakoarengan, 5 edo geh. konplementuko esaldien artean (bere guztien %29,9a soilik), %65,0ak eramango luke aditza esaldi aurrealdean (%5,0 esaldi hasieran; %60,0 ad. tar. gald. ad. ond.), eta soilik %35,0ak esaldi atzealdean (%20,0 esaldi amaieran; %15,0 ad. tar. gald. ad. aur.). Astigarragakoarengan, 5 edo geh. konplementuko esaldien artean (bere guztien %17,6a soilik), %66,7ak eramango luke aditza esaldi aurrealdean (%8,3 esaldi hasieran; %58,3 ad. tar. gald. ad. ond.), eta soilik %33,3ak esaldi atzealdean (%25,0 esaldi amaieran; %8,3 ad. tar. gald. ad. aur.). Edo azkenik Azpeitiakoek, 5 edo geh. konplementuko esaldien artean (beren guztien %28,1a), %66,7a emango dute aditza esaldi aurrealdean dutela (%5,6 esaldi hasieran; %61,1 ad.

[76] Ikus litezke datu zehatzak bakoitzari dagokion eraskinean.

tar. gald. ad. ond.), eta soilik %33,3 esaldi atzealdean (%27,8 esaldi amaieran; %5,6 ad. tar. gald. ad. aur.).

3.2.8. Idazle klasikoen arteko alde txiki batzuk.

Idazle klasikoen artean, iparraldekoek, zeredozer puztuagoa erakusten dute, 5 edo geh. konplementuko sailean ere, aditza esaldi atzealdean daramatenen multzoa: %30 inguru hirurak; nahiz bakoitzak bere modu eta barne proportzio oso desberdinetan, partikularrago aztertu beharko liratekeenak. Hala Axularrek, 5 edo geh. konplementuko sailean (bere esaldi guztien %68,5a), %70,3a emango du esaldi aurrealdean (%9,0 hasieran bertan; %61,3 ad. tar. gald. ad. ond.); eta %29,7 esaldi atzealdean (%27,9 amaieran bertan; %1,8 baino ez ad. tar. gald. ad. aur.). Duvoisinek, 5 edo geh. konplementuko sailean (bere esaldi guztien %40,6a), %72,5a emango du esaldi aurrealdean (%6,6 hasieran bertan; %65,9 ad. tar. gald. ad. ond.); eta %27,5 esaldi atzealdean (%18,7 amaieran; %8,8, ad. tar. gald. ad. aur.). Eta J. Etcheparek berriz, bere 5 edo geh. konplementuko sailean (bere guztien %66,0a), %67,3a emango du soilik esaldi aurrealdean (%8,9 hasieran bertan; %58,4 ad. tar. gald. ad. ond.); eta %32,7a ere bai, esaldi atzealdean (nahiz, soilik %5,9 esaldi amaieran bertan; eta %26,7raino ere bai ad. tar. gald. ad. aur.).

Hegoaldekoek zeharo bestelako datuak erakusten dituzte, bakoitzari dagokion eraskinean ikus litekeen bezala.

3.2.9. Ertzeko datuak gure mostran.

Gure tauletan, 5 edo geh. konplementu dituzten esaldien artean, soilik segidako hiztunek gainditzen dute, %30aren marka, aditza esaldi atzealdean daramatenen multzoan:

Euskalkiz euskalki sailean: Heletakoak, %38,1 (%23,8 ad. amaieran; %14,3 ad. tart. gald. ad. aur.; 8 esaldi baino ez denera, 5 edo geh. konplementuko 21etatik); Lezamakoak, %35,0 (%20,0 ad. amaieran; %15,0 ad. tart. gald. ad. aur.; denera 7 esaldi, 5 edo geh. konplementuko 20etatik); Astigarragakoak, %33,3 (%25,0 ad. amaieran; %8,3 ad. tart. gald. ad. aur.; denera 4 esaldi, 5 edo geh. konplementuko 12etatik); eta Azpeitiakoek, %33,3 (%27,8 ad. amaieran; %5,6 ad. tart. gald. ad. aur.; denera 6 esaldi, 5 edo geh. konplementuko 18etatik).

Krisia debatean: J.R. Goikoetxeak, %30,6 (%25,0 ad. amaieran; %5,6 ad. tart. gald. ad. aur.; denera 11 esaldi, 5 edo geh. konplementuko 36tatik); eta X. Bordak, %45,5arekin ere bai (%27,3 ad. amaieran; %18,2 ad. tart. gald. ad. aur.; nahiz bereak denera ez izan 5 esaldi baino, 5 edo geh. konplementuko 11etatik).

Eskola legea debatean, M. Bereziartua ere hurbiltzen da zifra horietara, %28,6 batekin (%20,4 ad. amaieran; %8,2 ad. tart. gald. ad. aur.; denera 14 esaldi, bere 5 edo geh. konplementuko 49etatik -hauek eraberean guztien %64,5a direnak-).

Azkenik euskaltzain bietatik, Satrustegik ematen du proportzio altua, aditza atzealdean daramaten esaldien multzoan: %35,1 (%31,6 ad. amaieran; %3,5 ad. tart. gald. ad. aur.; denera 20 esaldi, bere 5 edo geh. konplementuko 57etatik -bere guztien %40,1a-).

3.3. Gaur eguneko prosa idatziaren egitura aldrebesa.

Mendibururen itzulpenetako datuak batere aldentzen ez diren bitartean, gure mostrako neurri ertainetatik (5 edo geh. konplementuko esaldien %14,9a, aditza atzealdean daramatenak; %85,1a aditza aurrealdean dutenen artean); zeharo bestelakoak gertatzen dira, gaur eguneko prosa estandarraren azterketatik eratorritakoak, espero zitekeen bezala:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	21	3,6	1	4,8	//				20	95,2	100 %
2 konp.	51	8,7	2	3,9	1	2,0	13	25,5	35	68,6	100 %
3 konp.	81	13,8	2	2,5	6	7,4	27	33,3	46	56,8	100 %
4 konp.	62	10,5	3	4,8	5	8,1	22	35,5	32	51,6	100 %
5 (edo geh.) konp.	374	63,5	2	0,5	73	19,5	154	41,2	145	38,8	100 %
Denera:	589	100 %	10	1,7	85	14,4	216	36,7	278	47,2	100 %

Daturik aipagarriena, duda gabe, aditzaren atzeratze orokorrarena: esaldien %83,9ak erakusten du aditza esaldi atzealdean emana -gure konplementukako mostra honetako datu ertainen %36,5aren aldean- (%47,2 erabat amaieran -gure mostrako %29,9ren aldean; %36,7 ad. tar. gald. ad. aur. -gure mostrako %6,6aren aldean-); eta soilik %16,1ak esaldi aurrealdean -gure mostrako %63,5ren aldean- (%1,7a zuzenean esaldi hasieran -gure mostrako %15,1aren aldean-; %14,4 ad. tar. gald. ad. ond. -gure mostrako %48,4aren aldean-).

Hala, konplementu bakarreko esaldien artean, esaldien %95,2ak darama aditza esaldi amaieran -gure mostrako %73,2aren aldean-; eta soilik %4,8ak hasieran -gure mostrako %26,8aren aldean-. Bi konplementuko esaldien artean, %94,1ak erakusten du aditza atzealdean -gure mostrako %61,5aren aldean-; eta soilik %5,9ak aurrealdean -gure mostrako %38,5aren aldean-. Hiru konplementuko esaldien artean berriz, %90,1ak aditza atzealdean -gure mostrako %50,1aren aldean; eta %9,9ak soilik aurrealdean -gure mostrako %49,9aren aldean-. Eta lau konplementuko esaldien artean, gaur eguneko prosaren mostran, %87,1ak segitzen du erakusten bere aditza esaldi amaiera aldean -gure mostrako %39,2aren aldean-; eta soilik %12,9ak aurrealdean -gure mostrako %60,8aren aldean-. Daturik harrigarriena nolanahi esaldi luzeena litzateke: are 5 edo konplementu gehiagoko esaldien artean, gure gaur eguneko prosan, esaldien %79,9 ezin harrigarriago batek segitzen du erakusten bere aditza esaldi atzealdean -gure mostrako %18,1 eskasaren aldean- (%38,8 amaiera bertan -gure mostrako %12,3aren aldean-; %41,2 ad. tar. gald. ad. aur. -gure mostrako %5,8 hutsalaren aldean-); eta soilik litzateke esaldien %20,1a aditza esaldi aurrealdean leramakeena -gure mostrako %81,9aren aldean- (%0,5 hutsala zuzenean esaldi hasieran bertan -gure mostrako %15,1aren aurrean-; %19,5 ad. tar. gald. ad. ond. -gure mostrako 67,5aren aldean-).

Zeharo hankaz gora iraulitako proportzioak, gure mostrako beste guztien aldean. Ezingo diogu arrakastarik ukatu, azkenik, orain berrehun eta berrogeita hamar urte Aita Cardaverazek hasitako joskera eskola hari, Larramendiren aurrean defendatzen zuenean 1760 inguruan «*y la gala está en posponer aun los verbos, que por lo regular caen assí con más elegancia.*»[77] hura.

Bestelakoan, nabarmen gertatzen da gaur eguneko prosa honetan, aditza tartean eta galdegaia aditzaren aurretik daraman esaldien proportzio gorakada handia, esaldiak konplementuak irabazten doazen bezala (beltzaskaz azpimarratu dugu), gure beste mostra guztietan erakusten zuen estabilitatearen aldean. Aditza amaieran daramaten esaldien artean ere, gertatzen da gaur eguneko testuetan, beherakada proportzionala, esaldiek konplementuak irabazi ahala, nahiz datu absolutuak beti izan, gure mostrako ertainak baino puztuagoak. Beherakada proportzional hau, beti konpensatzen da gainera, aditza tartean eta galdegaia aditz aurrean daraman esaldi multzoaren gorakadarekin, aditza beti atzealdean mantenduz; eta ez aurrealdera pasatuz, gure mostra orokorrean gertatzen zen bezala. Aditza tartean eta galdegaia aditzaren ondoretik daramaten esaldien artean ere nabari da, gure beste mostretan bezala, proportzioen gorakada txiki bat esaldiek konplementuak irabazi ahala; datu absolutuak ordea oso umilak dira. Azkenik, aditza zuzenean esaldi hasieran duten esaldien artean, ez da aldaketa nabarmenik sumatzen, ez bada, 5 edo konplementu gehiagoko esaldietako %0,5 hutsal horretan.

Ba ote du, gaur eguneko prosa idatzian ematen den esaldi egituraren iraultze honek, zerikusirik, prosa honek, oro har erakusten dituen ulergarritasun arazo larriekin, eta batez ere esaldi luzeetan?[78] Ez dirudi zailegia elkarrekin lotzea bi fenomenoak. Are gutxiago, pixkaren bat abiatzen garen orduko, gramatika funtzionalen ildotik, testuen egitura diskurtsiboak eta dinamismo komunikatiboak jorratzen.

3.3.1. Aztertu hiru testuetako datuak.

Aipatu datuak, gutxi gora-behera errepikatzen dira aztertu hiru testu desberdinetan, hainbat eta bitxiagoak gertatzen badira ere beharbada, zenbat eta testu estandarragoak izan (Lertxundi, *Egunkaria*, *Argia* ordena horretan).[79] Hala Lertxundirenak:

---

[77] J.I. Tellechea Idigoras, gor. aip.

[78] Zeinak diren ziur, esaldien gehiengo absolutoa gaur eguneko euskara didaktiko guztian. Gure mostran, %63,5a ere bai bataz beste, eta %74,6a *Egunkaria*-koan esate baterako.

[79] Kontuan hartu behar da nolanahi, mostra solte hauetako bakoitzaren murritza, ondorio partikular gehiegi atera ahal izateko.

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	11	8,0	1	9,1	//				10	90,9	100 %
2 konp.	20	14,5	2	10,0	0	0,0	11	55,0	7	35,0	100 %
3 konp.	23	16,7	2	8,7	2	8,7	10	43,5	9	39,1	100 %
4 konp.	19	13,8	3	15,8	1	5,3	10	52,6	5	26,3	100 %
5 (edo geh.) konp.	65	47,1	1	1,5	24	36,9	32	49,2	8	12,3	100 %
Denera:	138	100 %	9	6,5	27	19,6	63	45,7	39	28,3	100 %

Lertxundiren kasuan nolanahi, ez da ahaztu behar, oso ugariak direla, aditza tartean eramanik, konplementukako azterketa honetatik kanpoan utzi behar izan ditugun esaldiak, hauen prediku nagusiaren zatiren bat aditzaren aurretik badaramate ere, ezin garrantzitsuagoa delako maiz, Lertxundik aditz ondorerako ere uzten duen informazioa. Hala moduzkoak izan litezke, aditza tartean eta *bestelako* sailean baztertu ditugun 56 esaldien gehiengoa (kasuan aztertu esaldi guztien beste %28,9 bat), eta erants zekiokeena nolabait, aditza tartean eta galdegaia aditzaren aurretik, saileko kopuruari.

Segidan *Egunkaria*-ko mostrako datuak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	5	2,7	0	0,0	//				5	100	100 %
2 konp.	12	6,5	0	0,0	0	0,0	1	9,1	11	90,9	100 %
3 konp.	17	9,2	0	0,0	2	11,8	8	47,1	7	41,2	100 %
4 konp.	13	7,0	0	0,0	1	7,7	4	30,8	8	61,5	100 %
5 (edo geh.) konp.	138	74,6	1	0,7	22	15,9	62	44,9	53	38,4	100 %
Denera:	185	100 %	1	0,5	25	13,5	75	40,5	84	45,4	100 %

Amaitzeko, *Argia*-koak:

	Denera		Ad. hasieran		A. t. gald. ond.		A. t. gald. aur.		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	5	1,9	0	0,0	//				5	100	100 %
2 konp.	19	7,1	0	0,0	1	5,3	1	5,3	17	89,5	100 %
3 konp.	41	15,4	0	0,0	2	4,9	9	22,0	30	73,2	100 %
4 konp.	30	11,3	0	0,0	3	10,0	8	26,7	19	63,3	100 %
5 (edo geh.) konp.	171	64,3	0	0,0	27	15,8	60	35,1	84	49,1	100 %
Denera:	266	100 %	0	0,0	33	12,4	78	29,3	155	58,3	100 %

4. Aditza zuzenean esaldi hasieran.

Zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak ia desagertzeraino iritsi badira ere gaur eguneko prosa idatzitik (%1,4 gure mostran),[80] ez da oraindik hala gertatzen gaur eguneko ahozko mintzoetan (%9,4a bataz beste gure mostrako lau sailen artean), edota lehenagoko ahozko edo idatzizko testigantzetan (%18,1 idazle klasikoetan; %27,9 Webster/Cerquanden bildumetan). Guk atentzio berezia eskaini nahi izan diogu sailari, batetik, zehatzago kuantifikatu nahian, zuzenean esaldi hasieran, buruzuri, agertzen diren aditz trinkoen fenomenoa; inola ere ez existentziarik gabea, nahiz guztiz gaitzetsia eskola Azkue-Altubetarrean.[81] Bestetik, atal honetan ere kuantifikatu nahi izan dugulako, entendimentuzko aditzen pisua, hala konposatuen artean, nola trinkoen. Hala ditugu segidako datuak (beltzasketan datu orokorrak; bestela partzialak):

[80] Segidako ataletan erabiltzen ditugun datuak, berriro dira orokorrak, eta ez konplementukako azterketan erabili ditugunak, bazterrean utziaz, aditza tartean zuten hainbat esaldi, *bestelako* hirugarren sailekoak.

[81] Esaldi hasiera bezala kontsideratu dugu beti, baita ere konjuntzio baten (*eta, baina, bada, …*) ondorengo aditz trinkoa (*Eta zioen …* modukoak), edo konposatua. Ez dugu ordea hala kontsideratu, *Ba*-partikula baieztatzailearen bidez osatutako aditz trinkoa, hurrengo 5. atalean aipatuko duguna bereziki (nahiz finean zinez uste, *Ba*-rekin edo *Ba*-rik gabe, fenemenoa eite bere batekoa dela).

	Kopur.	%
Aditza hasieran:	640	100%
Aditz konposatuak:	602	94,1
Entendimentuzko aditzak:	212	35,2
Beste nolanahiko aditzak	390	64,8
Aditz trinkoak:	38	5,9
Entendimentuzko aditzak:	5	13,2
Beste nolanahiko aditzak	33	86,8

Sailez sail berriz:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	188	100%	192	100%	95	100%	50	100%	99	100%	16	100%
Ad. konpos.:	173	92,0	190	99,0	92	96,8	39	78,0	93	93,9	15	93,7
Entend. ad.:	51	29,5	73	38,4	25	27,2	13	33,3	45	48,4	5	33,3
Bes. nol. ad.:	122	70,5	117	61,6	67	72,8	26	66,7	48	51,6	10	66,7
Ad. trinkoak:	15	8,0	2	1,1	3	3,2	11	22,0	6	6,1	1	6,2
Entend. ad.:	5	33,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Bes. nol. ad.:	10	66,7	2	100	3	100	11	100	6	100	1	100

Entendimentuzko aditzei dagokienean, beharbada gerta daiteke aipagarria, nola badiren bataz beste %35,2a ere aditz konposatuen artean (zerbait gutxixeago zirenean, %26,9a, aditza tartean eta galdegaia aditz ondoretik zeramaten esaldien artean). Bestelakoan, desberdintasunak ez dira aipagarriegiak sailez sail, kontuan izanik, ez garela ari jokatzen, hiztun bakoitzaren esaldi kopuru altuegi batekin.

4.1. Aditz trinkoak.

Aditz trinkoen kasuan, soilik idazleen artean aurkitu ditugu entendimentuzko aditzak (5 bakarrik: *Dirudi* -J.B. Aguirre-, *Diote* -Duvoisin-, *Nago* eta *Daukat* -azken hau bi bider; J. Etchepare-). Bestelakoak, 33 ere bai, aditz arruntak dira. Maiz, *izan* aditzaren kopula soilak. Denera, aditzez hasten diren esaldien %5,9a. Aztertu baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudun guztien,[82] %0,85a. Ehuneko bat inguru. Kopuru txikia, baina ez baztergarria. Gainera, gaur eguneko ahozko hizkeren artean, zuzenean aditzaz hasten diren 260 esaldien artean, badira %8,1a ere, mende oso bateko kontrako kanpaina bortitzenaren ondorenean.[83]

Idazleen artean ere badaude desberdintasun nabarmenak. Gure mostran batere kasurik aurkitu ez dugun bezala Axularrengan (nahiz badiren *Gero*-an),[84] Moguelen kasua gertatzen da aipagarriena gure mostran, 9 esaldi ere hasten dituelarik zuzenean aditz trinkoz, oro har aditzaz hasten dituen 59 ugarien %15,3a; aztertu baiezko 180 esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudun guztien, %5a; eta guk ez genuke esango kopuru hau oso urruti dagoenik, ahozko erabileretatik.

J. Etcheparegan ere, aurkitzen ditugu aztertu mostran hiru esaldi, entendimentuzko aditz trinkoz hasiak, oso proportzio altua, %16,7a, oro har aditzaz hasten dituen esaldien artean. J. Etcheparegan, %1,7a izango da gure mostran, zuzenean aditz trinkoz hasitako esaldien proportzioa, aztertu 179 esaldien aldean.

Mendibururen itzulpenetako datuak berriz, ez dira aipagarriegiak gertatzen, beste idazleen proportzioen artean. Zuzenean aditz trinkoz hasitako 6 esaldiak (entendimentuzkorik ez), %10,2a dira, oro har aditzaz hasten direnen artean; eta aztertu guztien, %2,0a. Gaur egungo prosan, ez dugu aurkitu aditz trinkoz hasitako esaldi alerik, oro har aditzaz hasten ausartzen diren apurren artean.

---

[82] *Ba-* aurrizkudun bidezko 193ak kenduta.

[83] Eta beharbada, baita ere, gaztelaniaren eragin handiaren pean.

[84] Besteak beste, esate baterako (1976): *Eta da konparazinoa: …* (63 or.); *Eta da arrazoiña: …* (135); *Dio doktor hunek ezen …* (277); *…: eta diot ezen …* (431); *…, baiña dio, …* (449). Baita ere, *othe* partikula bidez hasiriko galdera multzo bat: *Othe lizateke nehor ere, …* (63); *Othe dator nehor, …* (243); *Othe ziakien zer …?* (489); *Othe dugu zentzurik?* (675, bi bider); *Othe dugu adimendurik?* (675).

5. «Ba-» aurrizki baieztatzaile bidezko esaldiak.

Dio teoria Altubetarrak, fundamentu handirik gabe, halako esaldietan, *Ba-* aurrizkiak hartzen ote duen esaldiko pisu erematikoa, galdegaitasuna. Finean ez da trikimaina bat baino, nolabait justifikatzeko, halako aditzek duten joera nabaria zuzenean esaldi hasieran agertzeko, edota bederen esaldi aurrealdean, esaldiko dudarik gabeko pisu erematikoa, maizenik emanez, aditz honen ondoretik. Nahikoa da, honetaz jabetzeko, begiratu xume bat egitea, gure zeinnahi alde eta alditako testu edo hizketari. Oro har, *Ba-* aurrizkiaren erabilera da, hiztun euskaldunak maiz erabiltzen duen errekurtsoetako bat, aditz trinkoak ere inolako eragozpenik gabe aurreratu ahal izateko esaldien aurrealderaino, edota hasieraraino.[85]

Aparte zenbatu ditugun esaldi hauek ere, hiru sailetan banatu ditugu: nagusia, galdegaia nabarmen aditz ondoretik daramaten esaldiekin; bigarrena, aditza amaieran erakusten dutenekin; eta hirugarrena, bestelakoen saila, batez ere, tarteko aditzak berak hartzen zuenean esaldiko pisu erematiko nagusia; edota ere inoiz, zail zenean erabakitzea, esaldiaren pisu erematikoa zihoan, aditzaren aurrean, ondorenean, edota bietan banatua. Hauek datu orokorrak:

	Kopur.	%
Ba- aurrizkidun aditz trinkoak:	193	100%
Galdegaia aditz ondoretik:	165	85,5
Aditza amaieran:	20	10,4
Bestela:	8	4,1

Datuak ez dira oso desberdinak sailez sail aztertuta, ez bada, gaur eguneko hiztun jantzienen artean nabari den gorakadarengatik, esaldi amaierako aditzen artean. Hala:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	49	100%	40	100%	47	100%	21	100%	28	100%	8	100%
Gald. ad. on.:	47	95,9	38	95,0	40	85,1	15	71,4	19	67,9	6	75,0
Ad. amaieran:	2	4,1	0	0,0	4	8,5	4	19,0	8	28,6	2	25,0
Bestela:	0	0,0	2	5,0	3	6,4	2	9,5	1	3,6	0	0,0

Mendibururen itzulpenetan, eta gaur eguneko testuetan ere, ez da aurkitzen hauez bestelako daturik, ezpada *Ba-* bidezko esaldi beraien ugaritasun edo urritasunarena. Aztertu mostra osoan (4.681 esaldi), 193 esaldi aurkitzen bagenituen, *Ba-* aurrizki bidez osaturik, guztien %4,1a; Mendiburugan proportzio hau doble eta gehiagora igotzen da, %8,5 (28 esaldi 329tan); eta gaur eguneko testuetan, erdiraino jaisten da, %2,3a (17 esaldi 727tan).

6. Aditza esaldi aurrealdean. Datuak globalizatzen.

Orain arte jasotako datuak pixka bat gehiago globalizatu nahian, bi sail soiletan bildu nahi izan ditugu aztertutako esaldi nagusi guztiak. Lehenengoa, oro har, aditza esaldiaren aurrealdean (eta esaldiko pisu erematikoa, aditzaren ondoretik edo) eramango luketen esaldiekin; hau da, batuaz, aditza zuzenean hasieran daramaten esaldiak, aditza tartean izanik, galdegaia nabarmen aditz ondoretik erakusten dutenak, eta baita ere, *Ba-* aurrizki bidez osatutako esaldiak, galdegaia nabarmen dutenak aditzaren ondoretik. Bigarren sailean berriz, batu ditugu, aditza esaldi atzealdean edo leramaketen esaldiak: aditza zeharo esaldi amaierakoak, aditzaz amaitzen ziren *Ba-* atzizki bidezko esaldiak, eta aditza esaldi barrenean izanik ere, beren galdegaia nabarmen asko daramatenak aditz honen aurre justuan. Horrela sailkatu ditugu 4.410 esaldi, denera aztertu ditugun 4.681en %94, 2a.[86] Proportzio global hauek, ezertarako datu zehatzegiak eman baino, gehiago balioko digute

[85] Bada nolanahi, iparraldean, hegoaldean baino joera nabarmenagoa (gure mostretan nabarmendu izan ezin duguna horregatik), *Ba-* aurrizkia erasteko ia edozein aditz trinkori ere, hau esaldiaren amaialdera eman arren. Joera hau ez da gainera, soilik, gaur egungoa. Jada P. Urtek 1712an idatzita uzten duen gramatikan, aditz trinkoen paradigma ia guztiak ematen dira, *Ba-* aurrizkiari josirik. Eta gerora, hala errepikatzen da erabilera hau, ia derrigorrezko bezala, XIX mendeko iparraldeko gramatikalari gehientsuenen lanetan (bederen Inchauspe, 1856 eta 1858an; Darthayet, 1867 eta 1876an; Gèze, 1873an; edota Van Eys, 1879an.)

[86] Kanpoan utzi ditugu beraz: aditza tartean eramanda, sailkatu ezin genituen esaldiak galdegaia honen aurre edo atzean izateagatik (263 esaldi), edota *Ba-* aurrizkidun esaldien artean, bestelakoen sailean zenbatu ditugun 8 esaldiak.

ezagutzeko, *grosso modo*, gure mostrako zenbat esaldi geratuko liratekeen gaur eguneko teoria Azkue-Altubetar ofizialaren babesean edo; eta zenbat babes honetatik kanpo, gehiago edo gutxiago anatemizatuak, gramatika eskola hauetan. Proportzioak jakingarriak gertatzen dira besterik gabe. Segidan orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi kopuru aztertua:	4.410	100%
Aditza aurrealdean [hasieran (640) + ad. tar. gald. ad. ond. (2044) + *Ba*- gald. ad. ond. (165)]:	2.849	64,6
Aditza atzealdean [amaieran (1.262) + Ba- ad. amaieran (20) + ad. tar. gald. ad. aur. (279)]:	1.561	35,4

Pentsa liteke, proportzio horiek, gutxi gora-behera hurbil dakizkiokeela, euskararen egiturari. Euskarazko esaldi nagusien bi herenen inguruak (%64,6ak) erakutsiko luke aditza esaldi aurrealdean edo emana, eta esaldiaren pisu informatiboa, errematikoa, oro har, esaldi amaiera aldera gaur eguneko teoria ofizialaz bestela. Eta soilik heren batek, edo zeredozer gehixeagok (%35,4ak), erakutsiko luke gure mostran, aditza esaldi amaiera aldera emana (zeinetako gehientsuenak, %80,8ak, ematen duen aditza erabat esaldi amaieran).

6.1. Datuak sailez sail.

Datu horietxek, aldaera harrigarriegirik gabe errepikatuko dira sailez sail gure mostran, nahiz badiren desberdintasun aipagarriak. Hala:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Aztertu esal.:	1.001	100%	693	100%	686	100%	680	100%	1.165	100%	185	100%
Ad. aurreald.:	721	72,0	493	71,1	385	56,1	408	60,0	739	63,4	103	55,7
Ad. atzeald.:	280	28,0	200	28,9	301	43,9	272	40,0	426	36,6	82	44,3

Sail guztietan lirateke gehiago, gaur egungo joskera legeak heterodoxotzat ematen dituen esaldi moduak, ortodoxoak baino. Areago idazleen artean, edota Webster / Cerquanden bildumetan. Gutxiago *Euskalkiz euskalki* sailean, edota gure euskaltzain bien mintzoan.

6.1.1. Idazle klasikoak.

Baina, aztertu idazleen artean ere, badira desberdintasun nabarmenak. Iparraldekoek parekotasun gehiago erakusten duten bitartean bi sailen artean, nahiz beti aditza aurrealdean daramaten esaldien alde (Axular, %56,0 / %44,0; Duvoisin, %57,2 / %42,8; J. Etchepare, %64,6 / %35,4); hegoaldeko bi idazleengan, gehiengoa askoz absolutuagoa da: Moguel %85,3 / %14,7; J.B. Aguirre %93,0 / %7,0. Mendibururen itzulpenetako proportzioak ere, nahikoa hurbiltzen zaizkie hegoaldeko bi idazleon zifrei, horren absolutuak ez badira ere, kurioso asko (%80,4 / %19,6). Ez dira ere bereziki aipagarriegiak Webster (%75,3 / % 24,7) eta Cerquanden (%67,2 / %32,8) bildumen arteko aldeak, ezpada bederen, beti herrikoiagoak, apalagoak direlako prezeski Websterren kontakizunak, Cerquandenak baino, gure bi baremoen arabera.

6.1.2. Euskalkiz euskalki saila.

Bai aipagarriak direnak, oso, dira, *Euskalkiz euskalki* saileko datuak. Bada, bataz besteko zifrek bi multzo parekatu ematen dituzten arren (%56,1 aditz aurrealdean, %43,9 atzealdean), benetan dira kontuangarriak, hiztun desberdinen arteko diferentziak. Eta hiztun jorienek (gure bi baremoen arabera), askoz ere handiagoa erakusten duten bitartean aditza esaldi aurrealdeko multzoa, ipar edo hegoaldean (Sara, %60,3 / %39,7; Zuberoa, %60,0 / %40,0; Baigorri, %80,2 / 19,8; Heleta, %62,9 / %37,1; Mundaka, %71,6 / %28,4; Gorozika, %65,5 / %34,5); hiztun edo hizketarik apalenek, denak hegoaldekoak, zeharo iraultzera ere iristen dira proportzioak. Hala Iturengoak, esaldien %57,7an emango du aditza aurrealdean, eta %42,3an atzealdean. Askoz ikusgarriago, jada gehiengoak aldatuta, Lezamakoak, %45,7 soilik aurrealdean, eta %54,3 atzealdean; Astigarragakoak, %26,5a baino ez aurrealdean, %73,5 atzealdean; eta iraulienik Azpeitiakoek, %23,1a soilik, aditza aurrealdean daramaten esaldi multzoan, %76,9a aditza esaldi atzealdean daramatenak. Datu hauek, esplikatzen dira, aurreko atalean ikusi dugun legean, esaldi laburrek hiztun hauengan duten ugaritasunarengatik, esaldi luze eskasen aldean. Eta ez dirudi, beste misterio handirik dagoenik.

6.1.3. Euskaltzainak.

Zentzu honetan, aipagarria gertatzen da euskaltzainen saila (%55,7 aditza aurrean / %44,3 aditza atzean).

Nahikoa desberdinak baitira, bi euskaltzainen datuak. Haritxelharrenak bat datozen bitartean idazleen edo hiztun kultoen proportzioekin (%69,4 aditza aurrealdean / %30,6 aditza atzealdean), Satrustegirenak askoz gehiago parekatzen dira, nahiz gehiengoak segi egoten, aditza aurrealdean daramaten esaldien alde (%52,3 / %47,7). Bi datuk esplika lezakete joera hau. Batetik Satrustegiren mintzo zehatz honen apaltasunak [87]. Bestea, dudarik gabe beharko du izan, Satrustegi beraren joerak, bere euskara zaintzeko, azken mende honetako ordenazio topikoen arabera, bada bestelakoan, Haritxelharren mintzoa ere, Satrustegirena bezain apala gertatzen da.[88]

6.1.4. Krisia eta Eskola legea.

Ahozko beste bi mostretan berriz, datu orokorrak nahikoa ertainak diren bitartean (*Krisia* %60,0 / %40,0, oro har, hiztun edo hizketa apalagoa; *Eskola legea* %63,4 / %36,6, askoz debate aberatsagoan), hiztun gehienek, oro har, askatuenak, jario handienekoak, eta aberatsenak, bi multzoen arteko desberdintasun are nabarmenagoak erakusten dituzte.[89] Badira nolanahi hiru hiztun, bereziki aipagarri gertatzen direnak, bi multzoetako datuak nahikoa parekatuak erakusten dituztelako, nahiz hirurak ere ondo hizketa aberatsekoak izan, gure bi baremoen arabera (gehiengoak artean, aditza aurrealdean daramaten esaldien alde geratzen badira ere). Hala X. Bordak *Krisia*-n %54,2 / %45,8; A. Etxebarriak *Eskola legea*-n %56,7 / %43,3, eta A. Astibiak ere debate berean %57,6 / 42,4. Hirurak gazteak; azken biak zuzenean euskarazko irakaskuntzari lotuak; beren hizketaldiak entzunda, ziur esan liteke hirurengatik, guztiz zaintzen dutela beren mintzoa, eta, pentsatzekoa da, gaur eguneko ordenazio topikoen inguruan ere, Satrustegiren kasuan bezala.[90]

Eta bada ere *Krisia* debatean beste hiztun multzo bat, datu bereziak ematen dituena. Hala M. Agirreren mintzoan (%52,9 / %47,1; artean gehiengoak mantenduz); J.R. Goikoetxearena (%47,9 / %52,1, jada gehiengoak aldatuaz); Aiara bailarako J.L. Muguruzarena -euskaldun berri apala- (%29,2 / %70,8, zeharo irauliaz multzoak); J.M. Kruzetarena (%50,0 / %50,0); edota J.A. Eizagirrerena (%40,0 / %60,0). Hiztun guzti hauek dute amankomunean, kasuko hizketaren pobretasun handia, gure bi baremoen arabera neur litekeen heinean.

6.2. Gaur eguneko prosa estandarraren ratioak: desberdinak.

Eskola Azkue-Altubetarrean hezita, ezin zitekeen besterik espero.

	Denera		A. Lertxundi		Egunkaria		Argia-landare.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Aztertu esal.:	605	100%	145	100%	188	100%	272	100%
Ad. aurreald.:	110	18,2	43	29,7	29	15,4	38	14,0
Ad. atzeald.:	495	81,8	102	70,3	159	84,6	234	86,0

Gehiengoak zeharo irauliak. Hainbat gehiago zenbat eta prosa estandarragoan. Zertxobait gutxixeago prosa literarioagoa, alde handirik gabean. Zer esan liteke, ezpada, gaur eguneko prosa estandarizatu (super)aberatsak,[91] hizketa pobreenaren pobreenak emango ez lituzkeen ordenazio ratioak erakusten dituela. Bestela esan, gaur eguneko prosa idatzi estandarrari aplikatzen zaizkion ordenazio ereduak, direla nagusiki,

[87] %40,1 esaldi bakarrik, 5 edo geh. konplementukoak (bataz besteko ertaina %51,0koa denean; %58,2 idazleen artekoa; edota %60,5ekoa ere bai *Eskola legea*-ren eztabaidan); %61,6ko ratioa, mendeko esaldi / esaldi nagusien artean, gure mostrako neurri ertaina doblean dagoenean (%115,9a).

[88] %34,3a baino ez 5 edo konplementu gehiagoko esaldien artean; %88,9ko ratioa, mendeko esaldi / esaldi nagusien artean.

[89] Ikus bakoitzari dagokion eraskinean.

[90] Nolanahi jakingarria da, kasu hauetan ere, A. Etxebarriak, 5 edo geh. konplementuko esaldien artean (bereen %57,6a), %84,2 esaldi ematen dituela aditza aurrealdean dutela (%2,6 hasieran bertan; %81,6 ad. tar. gald. ad. ond.); eta soilik %15,8a aditza atzealdean (guztiak aditza amaieran). A. Astibiak ere bere aldetik, 5 edo geh. konplementuko esaldien artean (bereen %70,3a), %75,6 esaldi ere ematen ditu aditza aurrealdean dutela (%11,1 hasieran bertan; %64,4 ad. tar. gald. ad. ond.); eta soilik %24,4a aditza atzealdean (%20,0 esaldi amaieran; %4,4 ad. tar. gald. ad. aur.). X. Bordaren proportzioak apalagoak dira nolanahi, are 5 edo geh. konplementuko esaldietan ere: %54,5 aditza aurrealdean (%9,1 hasieran; % 45,5 ad. tar. gald. ad. ond.); eta %45,5a ere bai esaldi atzealdean (%27,3 amaieran; %18,2 ad. tar. gald. ad. aur.).

[91] Ezen hiru mostrak dira aberatsak: bataz beste %63,5 esaldi 5 edo geh. konplementutakoak -Lertxundi %47,1; *Egunkaria* %74,6; *Argia* %49,1-; eta bataz beste %153,5ko ratioa mendeko esaldi / esaldi nagusien artean -Lertxundi %173,2; *Egunkaria* %153,5; *Argia* %131,2-.

askok uste genuen bezala, bakarrik esaldi laburren eta pobreenetan aurki genitzakeen ordenamendu ereduak. Eta etxe orratzik inon altxa ezin litekeen legez, txabola apalentzako pentsatutako zimenduetan, etxea amildu egingo da.

IV. MENDEKO ESALDIAK.

Espazio berezia eskaini diegu gure azterketan mendeko esaldiei. Joskera eskola Azkue-Altubetarrak zehatz agintzen du, 1.891ko *Euskal-Izkindeaz* geroztik, mendeko esaldiko aditzak, eta honi erantsitako elementu mendekotzaileak, itxi / amaitu behar duela, derrigorrez, esaldia. Guk arauaren funtsa arakatu nahi izan dugu euskal joskeran. Eta horretarako, hiru multzo desberdinetan sailkatu ditugu gure mostrako mendeko esaldiak, pentsatuaz, bakoitzak ezaugarri desberdinak erakusten zituela bere joskeran. Lehenengoa, aditz jokatu bidezko mendeko esaldiekin (salbu erlatibozkoak). Bigarrena, soilik aditz jokatugabeez osatutakoekin. Hirugarrena, aditz jokatu bidezko erlatibozko esaldiekin.

1. Aditz jokatu bidezko mendeko esaldiak.

1.1. Korpusa zehazten.

Gure helburuen arabera, ez ditugu aztertu atal honetan, gure testuetako aditz jokatu bidezko mendeko esaldi guztiak. Hasieratik baztertu ditugu esaldi haiek, zenbait partikula anaforikoren bidez (batez ere, *zeren, ze,* ... kausalez) zabaltzen zirenak, beste inolako aurrizki / atzizkirik erantsi gabe aditz laguntzaileari. Halakoak, gehiegi ez nolanahi, esaldi nagusien artean sailkatu ditugu, eta kontsideratu, partikula anaforikoa, konjuntzio kausal modura (*bada* edo antzekoen itxurakoa).[92] Nolanahi, mendeko esaldi bezala kontatu ditugu, batez ere bizkaitarren artean horren arrakastatsu diren, zehar galdera atzizki gabeak, pentsatuaz, oraindik bazirela aurrekoen desberdinak.

Beste guztiak bi sailetan banatu ditugu. Nagusiena, soilik aditzari erantsitako aurrizki (*bait-*), edo atzizki bidez [*-(e)n, -(e)la,* ...] osatutako esaldiekin. Bestea, murritzagoa, halako partikula mendekotzaileren bat erabiltzeaz gain, esaldi buruan beste aurrepartikula anaforikorik erakusten zutenekin.[93]

Gero, soilik atzizki bidez osatutako esaldien sail nagusian, aparteko multzotan banatu ditugu baiezko eta ezezko esaldiak. Bereziki kuantifikatu nahi genuen, zenbaterainokoa zen, aditzaren inbertsio ezaren fenomenoa, ezezko esaldien artean. Eta hala zenbatu ditugu ezezko hauen artean, salbuespen bezala, batere konplementurik erakusten ez zuten esaldiak ere, nahiz beste sail guztietan soilik hartu ditugun kontutan, konplementuren bat zutenak aditzaz gain, soilik interesatzen zitzaigun neurrian, ezagutzea, aditz hauen gunea esaldiko konplementuekiko. Soilik baiezko esaldi hauek erabili ditugu konplementukako azterketan.

Azkenik, sail guztiak banatu ditugu bi multzotan: esaldi *hautsi* (aditzaz amaitzen ez direnak), eta *hautsigabeen* artean (aditzaz amaitzen direnak). Esaldi *hautsiak* gainera, beste bi azpisailetan banatu ditugu, ezezkoen artean ezik, aditza zuzenean esaldi hasieran, edo esaldi barrenean, zeramatenen artean.

1.2. Aditz jokatu bidezko eta baiezko esaldi konplementudunak, soilik atzizki bidez osatuak.

Gure mostrako datu orokorrak, 1.880 esaldi aztertuta:

---

[92] Aukera honek badakar berarekin arazoren bat. Aditz laguntzailea iraganekoa denean, zailago da erabakitzen, duen edo ez duen, *-(e)n* atzizki mendekotzailerik. Halakoetan, hiztunaren testuinguruko jokaeraz baliatu gara diskriminatzeko.

[93] *Zeren, ze, …* eta kidekoak batez ere; baina baita ere adibidez, *nola / zelan* bezalako partikulaz osatutako esaldiak, hauek, zehar galdera ez, baizik konpletiba hutsak kontsidera behar direnean.

	Kopur.	%
Esaldi kopuru aztertua:	1.880	100%
Hautsiak:	901	47,9
Aditza esaldi hasieran:	230	25,5
Aditza esaldi amaieratik kanpo:	671	74,5
Hautsigabeak:	979	52,1

Erdi eta erdi dira ia, mendeko esaldi hautsi eta hautsigabeak gure mostran. Eta hautsien arteko laurden bat ere hasten da zuzenean aditzaz (guztien %12,2a), datu, ez batere mesprezagarria.

1.2.1. Datuak sailez sail.

Segidakoak:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	598	100%	187	100%	156	100%	242	100%	649	100%	48	100%
Hautsiak:	333	55,7	87	46,5	73	46,8	104	43,0	280	43,1	24	50,0
Ad.es.has.:	100	30,0	39	44,8	18	24,7	18	17,3	43	15,4	12	50,0
Ad.am.kan.:	233	70,0	48	55,2	55	75,3	86	82,7	237	84,6	12	50,0
Hautsigab.:	265	44,3	100	53,5	83	53,2	138	57,0	369	56,9	24	50,0

Sail guztietan aurkitzen dugu, esaldi hautsi / hautsigabeen arteko oreka, oro har, zertxobait erortzen dena hautsigabeen alde, salbu, idazle klasiko eta euskaltzainen artean, eta nabarmenxeago, *Krisia* eta *Eskola legea*, hegoaldeko ahozko bi eztabaida hainbat jantzietan. Bi euskaltzainen datuak nolanahi oso desberdinak dira bere artean, nahiz suma parekatua izan: Haritxelharren esaldi hautsiak badira %72,7a, %27,3 hautsigabeen aldean; Satrustegirenean aldiz, %66,7 hautsigabeak, soilik %33,3 hautsien aldean.

Idazle klasikoek ere erakusten dituzte desberdintasun nabarmenak bere artean. Axular ageri da, aditz atzeratzearen aldekoen (%33,3 hautsi; %66,7 hautsigabe). Eta Duvoisinek balantza orekatuagoa erakusten duen bitartean (%45,4 hautsi; %54,6 hautsigabe); J. Etcheparek hautsien alde egiten du jada apustu nabarmena (%62,5 hautsi; %37,5 aditza amaieran). Eta halaxe jokatzen dute gure mostrako hegoaldeko bi idazleek ere: Moguelek, %59,8 hautsi, %40,2 hautsigabe; eta askoz nabarmenago, J.B. Aguirrek: %73,3 hautsi; %26,7 soilik aditza esaldi amaieran dutenak.

Bada alderik ere Webster eta Cerquanden bildumen artean. Websterrenak (apalagoa, gure bi neurbideen arabera), soilik esaldien %36,8a du hautsia, eta %63,2a gabea; Cerquanden bilduma aldiz (jantziagoa edo), orekatuagoa ageri da, gehiengoa esaldi hautsien alde, %53,2a / %46,8a hautsigabe.

Kurioski *Euskalkiz euskalki* bilduman ez dugu alde haundirik aurkitzen hiztunen artean, ezpada Iturengoarengan, %75,0 hautsi, %25,0 hautsigabe (baina mostra ez da 4 esalditakoa baino); eta alderantzizko gehiengo nabarmenak erakusten (nahiz beti oso kopuru eskasekin jokatzen), Gorozikakoa (%28,6 hautsi, %71,4 hautsigabe; 7 esaldiko mostra); edota are nabarmenago, Astigarragakoa (%8,3 hautsi, %91,7 hautsigabe; 12 esaldiko mostran), eta Azpeitiakoak (%12,5 hautsi, %87,5 hautsigabe; 8 esaldi mostran). Badira ere aldeak, *Krisia* edo *Eskola lege*-ko hiztunen artean, nahiz ez diren oro har nabarmengarriegiak, esaldi kopuruak kontutan harturik.[94]

Dena dela, esaldi nagusietan gertatu bezala, konplementukako azterketa batek egingo digu argi gehixeago, esaldi hauen joskera joeren gainean.

1.2.1.1. Mendeko esaldi hautsiak: aditza tartean / hasieran.

Aldatzen da ere zertxobait ratio hau sailez sail; eta pentsatzekoa da, aldaerek zerikusi estua ote duten, hiztun bakoitzak bestela ere erakusten duen joera, handiago edo txikiagoarekin, zeinnahi esaldi moeta zuzenean aditzaz hasteko. Hala, Webster / Cerquanden bildumetan %44,8a ere badira zuzenean aditzaz hasten diren mendeko esaldi hautsiak (%42,9 Webster; %45,8 Cerquand). Eta idazleen artean ere desberdintasunak nabarmenak dira, bakoitzaren estiloari atxiki lekizkiokeen arrazoiengatik. Axularrek soilik, %18,9a duen bitartean, Moguelek badu %51,6a; J.B. Aguirrek %38,6a; eta Duvoisinek, soilik %20,4a; Etcheparek ere ez du

[94] Ikus litezke datu guztiak bakoitzaren eraskinean.

%16,8a baino. Beste sailetan berriz, hiztun bakoitzaren datuak, beren eskasian zenbaitetan, ez dira gehiegi urruntzen, saileko ertainetatik, beren lekuan ikus litekeen bezala.

1.2.2. Gaur eguneko testuak, aldean, desberdinak.

Mendibururen itzulpenek, puntu honetan ere, nahikoa datu orekatuak ematen dituzten bitartean (%45,7 hautsigabe; %54,3 hautsi, zeinetako %24,2 zuzenean aditzaz hasiak), pentsatzekoa zen bezala, diferentzia nabarmenak aurkitu ditugu, gaur eguneko prosa estandarra aztertzen. Hala gure mostrako datuak:

	Denera		A. Lertxundi		Egunkaria		Argia-landare.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	244	100%	73	100%	80	100%	91	100%
Hautsiak:	41	16,8	20	27,4	14	17,5	7	7,7
Ad.es.has.:	7	17,1	5	25,0	2	14,3	0	0,0
Ad.am.kan.:	34	82,9	15	75,0	12	85,7	7	100
Hautsigab.:	203	83,2	53	72,6	66	82,5	84	92,3

Berriro topatzen gara esaldi nagusietan aurkitzen genuen joera berarekin. Askoz nabarmenagoa da gaur egungo prosa idatzian, aditzak atzeratzeko joera mendeko esaldietan ere, beste inongo, inoizko edo inolako euskaretan baino. Joera hau gainera, hainbat nabarmenagoa da, zenbat eta prosa estandarizatuagoa izan, urrutiagokoa molde literarioetatik. Gure mostrako bataz besteko %47,9aren aurrean (edo idazle klasikoen bataz besteko %55,7aren aurrean), %16,8a baino ez dugu aurkitzen hautsita emanda gaur eguneko prosan; %7,7a, *Argia*-ko testu didaktikoan. Hori da, duda gabe, joskera eskola Azkue-Altubetarraren eragina.

1.3. Aditz jokatu bidezko ezezko esaldiak, soilik atzizki bidez osatuak.

Sail honetan, kontutan hartu ditugu mendeko esaldi konplementu gabeak ere. Datu orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi kopuru aztertua:	312	100%
Hautsiak:	255	81,7
Hautsigabeak:	57	18,3

Pentsatzekoa zen, hala moduzko gehiengo bat, inbertsioa mantentzen zuten esaldien alde. Ez da horregatik mesprezagarria, inbertsioa garatzen ez duten %18,3 esaldien kopurua.

1.3.1. Datuak sailez sail.

Segidakoak:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	94	100%	22	100%	18	100%	51	100%	125	100%	2	100%
Hautsiak:	71	75,5	17	77,3	16	88,9	39	76,5	111	88,8	1	50,0
Hautsigab.:	23	24,5	5	27,7	2	11,1	12	23,5	14	11,2	1	50,0

Ez dute alde handirik erakusten beren artean; eta esaldi kopuruen murritz horretan, ez da kasua, hiztunez hiztun abiatzea. Hala ere aipatu, idazleen arteko zenbait desberdintasun. Axularrek, esateko, %58,8a soilik, ematen du hautsita, eta %41,2 hautsigabe. Moguelek %66,7 hautsi / %33,3 hautsigabe. J.B. Aguirrek %71,4 hautsi / %28,6 gabe. Duvoisinek %80,0 hautsi, %20,0 gabe. Eta J. Etcheparek berriz %85,7 hautsi, %14,3 gabe. Bada ere desberdintasun nabarmenik Webster eta Cerquanden bildumen artean. Lehenengoak soilik %42,9a ematen du hautsirik, eta %57,1 hautsigabe (baina mostra soilik da, 7 esalditakoa). Aldiz Cerquandek %93,3 ematen ditu hautsirik, eta soilik %6,7a hautsigabe (15 esaldi denera).

1.3.2. Gaur eguneko prosaren datuak.

Bada desberdintasun nabarmenik esaldion joskeran ere, tauletan ikus litekeen legez:

	Denera		A. Lertxundi		Egunkaria		Argia-landare.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	37	100%	19	100%	12	100%	6	100%
Hautsiak:	20	54,1	12	63,2	6	50,0	2	33,3
Hautsigab.:	17	45,9	7	36,8	6	50,0	4	66.7

Datuotan ere suma liteke, aditza nonnahi atzeratzeko joeraren eragina. Nahiz apalagoa Lertxundiren kasuan, nabarmenagoa *Egunkari*-ko prosa estandarizatuagoan, eta *Argia*-koan, nahiz beti ere oso kopuru murritzekin ari garen jokatzen. Bere aldetik, Mendibururen itzulpenetako datuak, kuriosoak dira zentzu honetan ere: soilik ezezko esaldien %44,2 a ematen du hautsita; eta %55,8a hautsigabe, 43 esaldiko mostra, hainbateko, batean. Esplikazioak, nahita ere, ezingo dira bilatu kasuan, gaztelaniaren eraginetan.

1.4. Batera aurre partikulaz eta atzizkiz, osatutako mendeko esaldiak.

Hasieratik hartu behar da kontutan, ez dutela esaldiok arrakasta gehiegirik gozatzen, gaur eguneko hiztunen artean, eta gutxiago hegoaldean. Kopuruak hala, oso murritzak dira, idazle klasikoengan salbu. Datu orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi kopuru aztertua	142	100%
Hautsiak:	89	62,7
Aditza esaldi hasieran:	25	28,1
Aditza esaldi amaieratik kanpo:	64	71,9
Hautsigabeak:	53	37,3

Sailez sail berriz:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	104	100%	17	100%	2	100%	7	100%	10	100%	2	100%
Hautsiak:	66	63,5	12	70,6	0	0,0	6	85,7	4	40,0	1	50,0
Ad.es.has.:	16	24,2	4	33,3	0	0,0	2	33,3	2	50,0	1	100
Ad.e.am.kan.:	50	75,8	8	66,7	0	0,0	4	66,7	2	50,0	0	0,0
Hautsigab.:	38	36,5	5	29,4	2	100,0	1	14,3	6	60,0	1	50,0

Idazleen artean Axularrek du esaldi kopururik altuena (68), zeinetako %57,4 ematen duen hautsia (%17,9 aditza esaldi hasieran; %82,1 aditza tartean), eta %42,6 hautsigabea. Moguelek ez ditu bi baino. J.B. Aguirrek 22, zeinetako %81,8 hautsi (%27,8 aditza esaldi hasieran; %72,2 aditza tartean), eta soilik %18,2 hautsigabe. Duvoisinek eta J. Etcheparek ere ez dituzte 12 baino bien artean. Ez dira ere bien arteko bataz bestekoen oso desberdinak, Webster eta Cerquanden datuak. Gaur eguneko prosaren mostran berriz, ez dugu halako esaldi bakar bat baino aurkitu, berau hautsia, Lertxundigan. Mendiburuk zazpi ditu: 5 hautsi (%71,4; batere ez esaldi hasieran), eta 2 hautsigabe (%28,6).

1.5. Datuak zertxobait globalizatzen.

Datu globalxeagoen bila, bi multzo soiletan bildu ditugu orain arteko guztiak, esaldi hautsi eta hautsigabeen artean, aditz jokatu bidezko mendeko esaldien radiografia legez. Hala datu orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi kopuru aztertua:	2.334	100%
Hautsiak: bai. atz. (901) + ez. atz. (255) + aur. part. eta atz. (89):	1.245	53,3
Hautsigabeak: bai. atz. (979) + ez. atz. (57) + aur. part. eta atz. (53):	1.089	46,7

Eta egia esan, proportzio berri hauek, ez dute ezer asko aldatzen, hasieratik genuen inpresioa, esaldi hautsi eta hautsigabeen arteko kopuru parekotasunaz. Nahiz orain, gehiengoa zertxobait makurtu hautsien alde, ezezko esaldiei, eta batera aurre partikula eta atzizki bidezkoei eskerrak.

1.5.1. Datuak sailez sail.

Segidakoak, antzeko ondorioak erakusten dituztenak:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	796	100%	226	100%	176	100%	300	100%	784	100%	52	100%
Hautsiak:	470	59,0	116	51,3	89	50,6	149	49,7	395	50,4	26	50,0
Hautsigab.:	326	41,0	110	48,7	87	49,4	151	50,3	389	49,6	26	50,0

Oreka orokorra nabarmena da. Baina badira tarteka hiztunak, hainbeste erakusten ez dutenak. Hala, esaldi hautsien alde egiten dutenen artean: Moguel (%60,5 hautsi / %39,5 hautsigabe); J.B. Aguirre (%74,5 / %25,5), eta J. Etchepare idazle klasikoetan (%67,5 / %32,5). Baita ere Cerquanden ipuin bilduma (%59,3 / %40,7). *Euskalkiz euskalki* sailean, Zuberoko hiztuna (%57,1 / %42,9); Iturengoa (%75,0 / %25,0; soilik lau esaldi); Baigorrikoa (%61,7 / %38,3; 60 esalditan); eta Mundakakoa (%64,3 / %35,7). J. Retegi (%65,2 / %34,8); J.R. Goikoetxea (%60,0 / %40,0); J.L. Muguruza (%87,5 / %12,5; 8 esaldi soiletan); eta L.M. Saez Legarda (%87,5 / %12,5; soilik 8 esalditan), *Krisia* debatean. J.M. Zeberio (%60,0 / %40,0); E. Gumuzio (%71,4 / %28,6); A. Etxebarria (%61,2 / %38,8); I. Zubizarreta (%67,7 / %32,3), *Eskola legea* eztabaidan. Azkenik J. Haritxelhar euskaltzaina ere nabarmen (%72,7 / %27,3).

Esaldi hautsigabeen alde egiten dutenen artean berriz: Axular (%43,9 hautsi, %56,1 hautsigabe), idazle klasikoen artean. Baita ere Websterren bilduma (%39,6 / %60,4). Sarako hiztuna (%42,1 / %57,9), Gorozikakoa (%28,6 / %71,4; 7 esalditan), Astigarragakoa (%7,7 / %92,3; 13 esalditan), eta Azpeitiakoak (%22,2 / %77,7), *Euskalkiz euskalki* sailean. E. Irigarai (%33,3 / %66,7), J.M. Juaristi (%38,1 / %61,9), J.M. Kruzeta (%33,3 / %66,7), X. Borda (%33,3 / %66,7), B. Maiz (%20,0 / %80,0), eta J.A. Izagirre (%33,3 / %66,7; 3 esalditan), *Krisia* debatean. F. Barcelo (%40,4 / %59,6), A. Astibia (%40,7 / %59,3), eta M. Bereziartua (%43,1 / %56,9), *Eskola legea* debatean. Azkenik J.M. Satrustegi euskaltzaina (%33,3 / %66,7).

1.5.2. Gaur eguneko prosaren kontrastea.

Mendibururen itzulpenetan ere, esaldi hautsi eta hasutsigabeen parekatzea gertatzen den bitartean (%52,9 hautsi, %47,1 hautsigabe); ezin nabarmenagoa da gure mostra guztien kontrastea, gaur eguneko prosaren datuekin. Gure hiru mostretan, bataz beste, soilik %22,0 esaldi hautsi; %78,0 hautsigabe. Ez da inola ere parekotasunik, nahiz hau hurbilago dagoen Lertxundi batengan (%35,5 hautsi, %64,5 hautsigabe), urrutiago, *Egunkaria*-koan (%21,7 hautsi, %78,3 gabe), eta desoreka absolutua *Argia*-ko testu didaktikoan (%9,3a baino ez hautsirik, %90,7a gabeak).

1.6. Konplementuka, aditz jokatu bidezko eta baiezko mendeko esaldiak.

Esaldi nagusietan gertatu bezala, guztiz esanguratsuak dira konplementukako azterketaren emaitzak. Atal honetan, aztertu ditugu, gure mostrako aditz jokatu bidezko baiezko eta mendeko 1.880 esaldi konplementudunak. Datu orokorrak segidako taulan, antolatuak, esaldi nagusietan egin dugun gisa, konplementukako bost/sei ilaratan, eta lau zutabe doble desberdinetan: (lehenengoan esaldi kopuru orokorrak konplementuka, eta ehunekoak, esaldi kopuru osoari begira; eta hurrengo hiruretan, aditza hasieran, tartean edo amaieran daramaten esaldi kopuruak, eta portzentaiak horizontalean, konplementu kopuru bereko esaldiei begira):[95]

[95] Esaldi nagusietan bezala, ez dugu agirian ematen portzentairik, aditza hasieran tartean edo amaieran daramaten esaldien artean, zenbat diren konplementu batekoak, biko, hiruko, lauko edo bost edo gehiagokoak. Baina datu hau ere behar izanez gero, eskura liteke guk emaniko besteen bidez.

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	442	23,5	50	11,3	//////////////////		392	88,7	100 %
2 konp.	413	22,0	44	10,7	98	23,7	271	65,6	100 %
3 konp.	278	14,8	38	13,7	111	39,9	129	46,4	100 %
4 konp.	210	11,2	25	11,9	112	53,3	73	34,8	100 %
5 (edo geh.) konp.	537	28,6	73	13,6	350	65,2	114	21,2	100 %
Denera:	1.880	100 %	230	12,2	671	35,7	979	52,1	100 %

Garrantzi berezia dute, aditza tartean, eta aditza amaieran zutabeetako proportzioen garapenek (beltzaxketan), mendeko esaldia konplementuak irabazten doan ahala. Zuzenean aditzaz hasten diren esaldien proportzioak aldiz, aldaketa handirik gabe mantentzen dira esaldien luze-laburren arabera. Aditza amaieran daramaten esaldien kopurua, %88,7tik konplementu bakarreko esaldietan, mailaz maila erortzen da konplementuak erantsi ahala, %21,2 soileraino, 5 edo geh. konplementuko esaldietan, zeinetako %78,8a diren hautsiak. Konplementu bakarreko esaldietan, ez da batere mesprezagarria, zuzenean aditzaz hasten den %11,3ko esaldi hautsien kopurua. Eta 2koetan, esaldi hautsi / hautsigabeen oreka, artean azken hauen alde badago ere (%34,4 / %65,6), jada 3 konplementutik gorako esaldietan, alderantziz gertatzen da: 3rekin %53,6 hautsi / %46,4 hautsigabe; 4rekin %65,2 / %34,8; eta 5 edo gehiagorekin, aipatu %78,8 / %21,2. Eta izan ere, aditza tartean daramaten esaldien proportzioa nabarmen doa gora, esaldiek konplementuak irabazten dituzten heinean, %23,7tik 2 konplementuko esaldietan, 5 edo gehiagoko %65,2raino.

Ezin erlazio argiagoa, mendeko esaldiotan ere, esaldien luzera eta aditz gunearen artean. Nahiz, agi danean, hiztunak beti duen aukera, esaldia hautsia edo hautsigabea emateko, bere komenientziara, konplementu bakarreko esaldian, nola 5 edo gehiagokoan.

1.6.1. Datuak sailez sail.

Aldeak badiren arren, sailez sail eta hiztunez hiztun, garrantzizkoa da jarraitzea, guztietan, aditza amaieran eta tartean proportzioek erakusten duten garapena (beltzaskaz), konplementuak erantsi ahala esaldiari. Aditza hasieran zutabeak ez du halako garapenik, hiztun bakoitzak duen arren, zaletasun gehiago edo gutxiago, aditzak zuzenean emateko esaldi hasieran

1.6.1.1. Idazle klasikoak.

Hauek datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	121	20,2	20	16,5	//////////////////		101	83,5	100 %
2 konp.	125	20,9	17	13,6	29	23,2	79	63,2	100 %
3 konp.	88	14,7	19	21,6	34	38,6	35	39,8	100 %
4 konp.	74	12,4	16	21,6	44	59,5	14	18,9	100 %
5 (edo geh.) konp.	190	31,8	28	14,7	126	66,3	36	18,9	100 %
Denera:	598	100 %	100	16,7	233	39,0	265	44,3	100 %

Idazle klasikoen artean ere, bi konplementuko esaldietan, esaldi hautsigabeen alde dago artean bi multzoen arteko balantza (%36,8 / %63,2). Hiru konplementutik gorakoetan ordea, oso nabarmena da hautsien gehiengoa: 3koetan, %60,2 / %39,8; 4koetan, %81,1 / %18,9; eta beste hainbeste, %81,1 / %18,9, 5 edo gehiagokoen artean, nahiz distribuzio desberdina aurkitu, aditz hasieran edo tartean sailen artean. Badira hala ere desberdintasun nabarmenak, Axular, eta guk aztertutako beste lau idazleen artean. Axularrengan, ez baitugu aurkitu %59,5 esaldi hautsi baino, are 5 edo geh. konplementuko esaldien artean; eta hiru konplementukoen artean oraindik gehiengo oso nabarmena hautsigabeen alde (%26,7 / %73,3).

Beste lau idazleak aldiz, askoz ere hautsizaleagoak dira. Moguelengan, bi konplementuko esaldietan lortzen da oreka, esaldi hautsi eta hautsigabeen artean (%50,0na); eta 3 konplementukoen artean ez dira jada %28,6a baino, aditza amaieran duten esaldiak; eta %7,7a eta %8,3a besterik ez, 4 eta 5 edo gehiagokoetan. Beste hainbeste J.B. Aguirreren kasuan, non, are 2 konplementuko esaldien artean ere, esaldi hautsiak diren gehiengoa (%55,6 / %44,4); hautsigabeak %17,6raino ere erortzen dira, 3 konplementuko esaldietan; %8,3ra 4koetan; eta %11,1era 5 edo gehiagokoetan. Antz batera Duvoisin eta J. Etchepare. Lehenengoak %58,3 hautsi /

%41,7 gabe ematen du 3 konplementukoen artean; %80,0 / %20,0 laukoetan; eta %76,0 / %24,0 5 edo gehiagokoetan. J. Etcheparek, bi konplementukoen artean aurkitzen du oreka-edo (%48,3 hautsi / %51,7 gabe); eta jada hautsien gehiengo nabarmena, hortik gorakoetan: %61,1 / %38,9 hirukoetan; %81,8 / %18,2 laukoetan; eta %86,4 / %13,6, 5 edo gehiagokoetan.

1.6.1.2. Webster / Cerquand.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	62	33,2	4	6,5	////////////////////		58	93,5	100 %
2 konp.	51	27,3	15	29,4	6	11,8	30	58,8	100 %
3 konp.	25	13,4	6	24,0	12	48,0	7	28,0	100 %
4 konp.	16	8,6	6	37,5	8	50,0	2	12,5	100 %
5 (edo geh.) konp.	33	17,6	8	24,2	22	66,7	3	9,1	100 %
Denera:	187	100 %	39	20,9	48	25,7	100	53,5	100 %

Ez da alde haundirik sumatzen, banaka, Webster eta Cerquanden bildumen artean, ezpada, Cerquandek hainbat gehiago erabiltzen dituen esaldi luzeagoen kopuruetan. Aipagarria da, esaldi hautsigabeen erabateko amiltzea, hiru konplementuz gorako esaldietan (%28,0tik hirukoetan, %9,1eraino 5 edo gehigokoen artean). Eraberean da aipagarri, bi autoreetan, zuzenean aditza esaldi hasieran emateko joera puztua (konplementu bakarreko esaldietan salbu).

1.6.1.3. Euskalkiz euskalki.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	44	28,2	5	11,4	////////////////////		39	88,6	100 %
2 konp.	42	26,9	4	9,5	16	38,1	22	52,4	100 %
3 konp.	23	14,7	3	13,0	11	47,8	9	39,1	100 %
4 konp.	13	8,3	1	7,7	9	69,2	3	23,1	100 %
5 (edo geh.) konp.	34	21,8	5	14,7	19	55,9	10	29,4	100 %
Denera:	156	100 %	18	11,5	55	35,3	83	53,2	100 %

Kopuruak eskasak izaki, zail da joerak zehaztea, hiztunez hiztun. Nolanahi, datuak jasoak daude, bakoitzari dagokion eraskinean. Orokorrei dagokienean, esan, 2 konplementuko esaldien artean lortzen dela nolabaiteko oreka bi esaldi multzoen artean (%47,6 hautsi / %52,4 gabe); eta hortik nahikoa behera hautsigabeak, konplementuak erantsi ahala esaldiari, nahiz jauste hori ez den gertatzen, orain arteko sailetakoa bezainbestekoa.

1.6.1.4. Krisia-hondamendia.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	71	29,3	6	8,5	////////////////////		65	91,5	100 %
2 konp.	46	19,0	2	4,3	16	34,8	28	60,9	100 %
3 konp.	40	16,5	3	7,5	18	45,0	19	47,5	100 %
4 konp.	31	12,8	1	3,2	18	58,1	12	38,7	100 %
5 (edo geh.) konp.	54	22,3	6	11,1	34	63,0	14	25,9	100 %
Denera:	242	100 %	18	7,4	86	35,5	138	57,0	100 %

Azpimarratzekoak, batetik, esaldi hasierako aditzen eskasia orokorra; eta besteik, aditz amaierako proportzioen jaustea, konplementuekin, ez dela horren bortitza gertatzen, nola idazle klasikoetan edo Webster eta Cerquandengan. Hiztunez hiztuneko datuak, beren apurrean, dagokion eraskinean.

1.6.1.5. Eskola legea.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	129	19,9	10	7,8	////////////////////		119	92,2	100 %
2 konp.	134	20,6	6	4,5	26	19,4	102	76,1	100 %
3 konp.	99	15,3	6	6,1	36	34,4	57	57,6	100 %
4 konp.	71	10,9	1	1,4	30	42,3	40	56,3	100 %
5 (edo geh.) konp.	216	33,3	20	9,3	145	67,1	51	23,6	100 %
Denera:	649	100 %	43	6,6	237	36,5	369	56,9	100 %

Berriro dira aipagarriak, esaldi hasierako aditzen eskasia orokorra, eta aditz amaierako esaldien amiltze bareagoa, konplementuak irabaztean. Datuak ez dira funtsean aldatzen hiztunez hiztun.

1.6.1.6. Euskaltzainak.

Ez dugu jasotzen hemen, euskaltzainen taularik konplementuka, merezi ez duelako, hauen 48 esaldiko kopuruak. Bada alderik hala ere, bi euskaltzainen artean, eraskinean ikus litekeen bezala. Aipagarria, izatez gerotan, ez euskaltzain batek (6 esaldirekin), ez besteak (4 esaldirekin), ez dutela batere esaldi hautsigaberik ematen, 5 edo geh. konplementukoen artean.

1.6.2. Mendibururen itzulpenak.

Jada ohituak gauzkan bezala, Mendiburu ez da gehiegi urruntzen, beste idazle klasikoetatik:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	40	22,9	3	7,5	////////////////////		37	92,5	100 %
2 konp.	40	22,9	6	15,0	7	17,5	27	67,5	100 %
3 konp.	23	13,1	3	13,0	12	52,2	8	34,8	100 %
4 konp.	16	9,1	2	12,5	10	62,5	4	25,0	100 %
5 (edo geh.) konp.	56	32,0	9	16,1	43	76,8	4	7,1	100 %
Denera:	175	100 %	23	13,1	72	41,1	80	45,7	100 %

Non, artean 2 konplementuko esaldietan, oso nabarmena den bitartean, esaldi hautsigabeen gehiengoa, hau amildegian behera erortzen den hirukoetatik aurrera.

1.6.3. Gaur eguneko testuak, aldean, desberdinak.

Kontrastea, noski, gaur eguneko prosa idatziko testuek ematen dute. Hemen bataz besteko datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	47	19,3	4	8,5	////////////////////		43	91,5	100 %
2 konp.	64	26,2	1	1,6	4	6,2	59	92,2	100 %
3 konp.	38	15,6	0	0,0	5	13,2	33	86,8	100 %
4 konp.	30	12,3	0	0,0	5	16,7	25	83,3	100 %
5 (edo geh.) konp.	65	26,6	2	3,1	20	30,8	43	66,2	100 %
Denera:	244	100 %	7	2,9	34	13,9	203	83,2	100 %

Testu hauetan ere, esaldi hautsi eta hautsigabeen proportzioak goraka edo beheraka doaz, esaldiei konplementuak erantsi ahala. Ordea, are 5 edo konplementu gehiagoko esaldien artean ere, oso gehiengo nabarmena gertatzen da esaldi hautsigabeena. Oro har, ia desagertua den bitartean, aditza esaldi hasieran daramatenen multzoa. Ez dira oso desberdinak gertatzen, gure hiru mostren arteko datuak, nahiz beti zerbait zurrunagoa *Argia*-ko testua bere aditzak esaldi amaieran mantentzen (%77,8a, 5 edo geh. konplementuko esaldietan).

2. Mendeko esaldiak aditz jokatugabe bidez.

Ez ditugu kontuan hartu esaldi konplementudunak baino. Eta ez dugu bereizketarik egin, beste aditz baten konplementuak, edota izenaren konplementuak zirenen artean, azken hauen artean, maiz, oso zaila delako erabakitzea, bata edo bestea den, lagundu behar lukeen izen haren aurre justuan joan ezean (*zertarako* konplementuak kasu). Ez dugu ere kasuan bereizketarik egin, baiezko eta ezezko esaldien artean. Ez eta ere, aurre partikula bidez osatzen diren esaldi apurrekin (*nahiz* partikula bidezkoak gehienak).

Ezaguturik, Azkue-Altuberen joskera legea, esaldi hauetako aditza ere esaldi amaierara bidaltzen, jakin nahi izan dugu, batez ere, esaldi guztiok sail bakarrean bilduta, zenbatek betetzen zuten legea, esaldi hautsigabeak; eta zenbatek ez, esaldi hautsiak, aditza esaldi amaieratik kanpo zutenak. Gainera hauen artean, bereizi ditugu, aditza zuzenean esaldi hasieran zutenak, eta aditza esaldi barrenean erakusten zutenak. Segidakoak datu orokorrak:

	Kopur.	%
Esaldi kopuru aztertua:	1.763	100%
Hautsiak:	376	21,3
Aditza esaldi hasieran:	173	46,0
Aditza esaldi amaieratik kanpo:	203	54,0
Hautsigabeak:	1.387	78,7

Oso nabarmena da esaldi hautsigabeen gehiengoa, baina bost esalditik bat ematen da hautsia gure mostran, eta datua ez da baztergarria. Are gutxiago, ikusiko dugun bezala, esaldi hauek konplementuka aztertzen ditugunean. Bestelakoan, kuriosoa da benetan, nola esaldi hautsien artean, ia erdiak ere badiren (%46,0a), zuzenean aditzaz hasten direnak (aztertu guztien %9,8a).

2.1. Datuak sailez sail.

Hainbat kuriosoak ere gerta litezkeenak, jabetuz gero zein sailetan ematen diren prezeski esaldi hautsien proportzio altuenak, nahiz denak ere hein bere batekoak izan:

	Idaz. Klas.		Webs./Cerq.		Eusk. eusk.		Krisia-hondam.		Esk. legea		Haritx./Satrus.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	665	100%	186	100%	208	100%	190	100%	477	100%	37	100%
Hautsiak:	125	18,8	45	24,2	50	24,0	61	32,1	90	18,9	5	13,5
Ad.es.has.:	60	48	25	55,5	27	54,0	28	45,9	38	42,2	1	20,0
Ad.e.am.kan.:	65	52,0	20	44,4	23	46,0	33	54,1	52	57,8	4	80,0
Hautsigab.:	540	81,2	141	75,8	158	76,0	129	67,9	387	81,1	32	86,5

Kurioski, hiztun arruntenen artean aurkitzen dira, esaldi hautsien proportzio nagusienetakoak (Webster / Cerquand %24,2 / %75,8; *Euskalkiz euskalki* %24,0; *Krisia* %32,1). Bestelakoan, guztietan errepikatzen dira multzo paretsuak, aditza hasieran eta tartean daramaten esaldi hautsien artean (salbu euskaltzainen eskasean).

Idazle klasikoen artean, badira horregatik, desberdintasun azpimarragarriak. Axular, betiko moduan da, aditza gehien atzeratze zale (%6,5a soilik hautsita / %93,5 gabe). Hegoaldekoak aldiz hautsizaleenak: Moguel %28,7 hautsi / %71,3 gabe; J.B. Aguirre %26,5 hautsi / %73,5 gabe. Duvoisin ere (%12,4 / %87,6), J. Etchepare baino atzerazaleagoa da (%18,0 / %82,0). Mendibururen itzulpenak, kurioso asko, oso aditz atzeratze zaleak dira alor honetan, neurri ia Axulartarretaraino (%7,4 soilik hautsi / %92,6 gabe).

Eta Webster eta Cerquanden bildumen artean desberdintasun aipagarririk ez den bitartean, badira zenbait diferentzia, *Euskalkiz euskalki*, edo *Krisia* sailetan; beharbada pentsa litekeelarik, hiztunik aberatsenek, joera nabarmenagoa dutela halako esaldiak hausteko, hizketa motelagokoek baino, nahiz ez den horrela kasu guztietan.[96] Bada ere zenbait alde, *Eskola lege*-ko eztabaidan, non, beharbada esan litekeen aldiz, hiztun zainduenak direla, esaldiok hausteko joera txikiagoa erakusten dutenak, nahiz ez den ere, beti, hala. Euskaltzainen artean berriz, Haritxelharrek hautsigabe ematen ditu bere 7ak (%100); eta Satrustegik, %16,7 ematen du hautsita (5 esaldi bere 30etatik).

[96] Ikus litekeen bezala bakoitzari dagokion eraskinean.

2.2. Gaur eguneko prosa i datziaren datuak.

Alderik nabarmenena, gaur eguneko testuen aurrean gertatzen da; zenbaitetan, esaldi hautsiak, ia desagertzeraino iritsiak direlarik. Lertxundigan oraindik proportzio Axulartarrak-edo aurkitzen baditugu, hauek bazterreraino erortzen dira testu estandarragoetan:

	Denera		A. Lertxundi		Egunkaria		Argia-landare.	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Denera:	558	100%	152	100%	173	100%	233	100%
Hautsiak:	18	3,2	10	6,6	5	2,9	3	1,3
Ad.es.has.:	3	16,7	2	20,0	1	20,0	0	0,0
Ad.e.am.kan.:	15	83,3	8	80,0	4	80,0	3	100
Hautsigab.:	540	96,8	142	93,4	168	97,1	230	98,7

Denera hautsiak aurkitzen ditugun 18 esaldien artean, gure mostrako bi multzoen parekotasunaren aurrean, soilik 3 (%16,7a) hasten da zuzenean aditzaz (guztien %0,5a).

2.3. Mendeko esaldi jokatugabeak konplementuka.

Nolanahi, datu guztiok baino argigarriagoak dira, konplementuka eginiko azterketak eskainiko dizkigunak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	831	47,1	51	6,1	//////////////////		780	93,9	100 %
2 konp.	399	22,6	30	7,5	43	10,8	326	81,7	100 %
3 konp.	213	12,1	25	11,7	46	21,6	142	66,7	100 %
4 konp.	117	6,6	14	12,0	34	29,1	69	59,0	100 %
5 (edo geh.) konp.	203	11,5	59	29,1	74	36,5	70	34,5	100 %
Denera:	1.763	100 %	179	10,2	197	11,2	1.387	78,7	100 %

Oso nabarmena da, espero zitekeen bezala, esaldi hautsigabeen beherakada, hauei konplementuak erantsi ahala, gutxiengoa izatera iristeko, 5 edo geh. konplementukoen artean (%34,5 / %65,5 hautsi). Datu globalak ez badira hautsizaleagoak, izango da, esaldi luze hauen eskasiagatik, konplementu bakar bat, edo bi, dituzten esaldien gehiengo absolutuaren aldean (%70,9a bien artean). Jabetu behar da nolanahi, esaldi amaierako aditzen beherakada ez dela, aditz jokatu bidezkoetan aurkitzen genuen bezainbestekoa. Eta hori ere esplikatu beharko litzateke. Bestelakoan, kuriosoa da ohartzea, esaldi hauen artean, igoera proportzionala, ez dela bakarrik gertatzen, aditza tartean duten esaldi haien artean, baizik eta baita ere, aditza zuzenean esaldi hasieran ematen dutenetan (beltzaskaz), hauek konplementuak irabazten doazen ahala.

2.3.1. Datuak sailez sail.

Ezaugarri guztiok errepikatzen dira, hala hola, sailez sail esaldiek konplementuak irabazi ahala, zenbaitetan proportzio berezietara iritsiz (Webster / Cerquand edo *Euskalkiz euskalki* sailetako esaldi, ez oso ugarien artean bezala).

2.3.1.1. Idazle klasikoak.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	319	48,0	11	3,4	//////////////////		308	96,6	100 %
2 konp.	150	22,6	8	5,3	15	10,0	127	84,7	100 %
3 konp.	80	12,0	9	11,2	17	21,2	54	67,5	100 %
4 konp.	41	6,2	5	12,2	11	26,8	25	61,0	100 %
5 (edo geh.) konp.	75	11,3	27	36,0	22	29,3	26	34,7	100 %
Denera:	665	100 %	60	9,0	65	9,8	540	81,2	100 %

Datuak eskasegiak dira, konparaketa baliagarriegiak egiteko, idazlez idazle, jada gorago egin ditugunez

gain. Esateko, Axularren zaletasunaz aditza atzerago emateko gure mostrako beste idazleek baino (%65,0 ere bai amaieran, 5 edo geh. konplementukoetan ere); edota, nahiz beste maila batean, Duvoisin edo J. Etcheparek ere. Bestaldera, esaldiak hausteko erraztasun askoz nabarmenagoz beti, Moguel eta J.B. Aguirre. Ez Mendiburu, zeina, konplementuka ere, aditzak atzeratu zale ageri den zeharo (%60,0a ere bai, 5 edo geh. konplementuko esaldietan).

2.3.1.2. Webster / Cerquand.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	97	52,2	11	11,3	////////////////////		86	88,7	100 %
2 konp.	47	25,3	4	8,5	3	6,4	40	85,1	100 %
3 konp.	18	9,7	2	11,1	5	27,8	11	61,1	100 %
4 konp.	10	5,4	2	20,0	5	50,0	3	30,0	100 %
5 (edo geh.) konp.	14	7,5	6	42,9	7	50,0	1	7,1	100 %
Denera:	186	100 %	25	13,4	20	10,8	141	75,8	100 %

Datu eskasegiak ditugu benetako desberdintasunak aurkitzeko bi bildumen artean. Oro har, ohargarria da, nola, lau konplementuko esaldietan ere gehiengo oso nabarmena diren jada, esaldi hautsiak (%70,0a); eta zer esanik ez, 5 edo geh. konplementukoetan (%90,0a).

2.3.1.3. Euskalkiz euskalki.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	128	61,5	11	8,6	////////////////////		117	91,4	100 %
2 konp.	47	22,6	7	14,9	9	19,1	31	66,0	100 %
3 konp.	14	6,7	3	21,4	6	42,9	5	35,7	100 %
4 konp.	9	4,3	1	11,1	4	44,4	4	44,4	100 %
5 (edo geh.) konp.	10	4,8	5	50,0	4	40,0	1	10,0	100 %
Denera:	208	100 %	27	13,0	23	11,1	158	76,0	100 %

Ezin kuriosoago, esaldi hautsien gehiengo proportzionala, oso nabarmen hasten da jada, 3 konplementuko esaldiekin.

2.3.1.4. Krisia-hondamendia.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	79	41,6	8	10,1	////////////////////		71	89,9	100 %
2 konp.	38	20,0	5	13,2	9	23,7	24	63,2	100 %
3 konp.	26	13,7	4	15,4	6	23,1	16	61,5	100 %
4 konp.	18	9,5	2	11,1	6	33,3	10	55,6	100 %
5 (edo geh.) konp.	29	15,3	9	31,0	12	41,4	8	27,6	100 %
Denera:	190	100 %	28	14,7	33	17,4	129	67,9	100 %

Ohargarria da sailean, esaldi hautsien presentzia garrantzitsua, behin esaldiek bi konplementu dituztenez gero (%36, 8 bikoetan; %38,5 hirukoetan; %44,4 laukoetan; %72,4 bost edo gehiagokoetan).

2.3.1.5. Eskola legea.

Datuak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	192	40,2	9	4,7	////////////////////		183	95,3	100 %
2 konp.	105	22,0	6	5,7	5	4,8	94	89,5	100 %
3 konp.	71	14,9	7	9,9	12	16,9	52	73,2	100 %
4 konp.	37	7,8	4	10,8	8	21,6	25	67,6	100 %
5 (edo geh.) konp.	72	15,1	12	16,7	27	37,5	33	45,8	100 %
Denera:	477	100%	38	8,0	52	10,9	387	81,1	100 %

Sail, askoz ere etorriagoa, gaur eguneko aditza atzeratzeko teoria ofizialetara, nahiz eta honetan ere, erdia baino gehiago diren esaldi hautsiak (%54,2), 5 edo geh. konplementukoen artean.

2.3.1.6. Euskaltzainak.

Euskaltzainen datuak, beren eskasean (37 esaldi denera), ez dira esanguratsuak konplementuka.

2.3.2. Gaur eguneko prosa idatziaren datuak.

Datu, ezin aditz atzerazaleagoak, nola ez! Hauek hiru testuen artekoak:

	Denera		Ad. hasieran		Ad. tartean		Ad. amaieran		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%	%
Konp. 1	216	38,7	0	0,0	////////////////////		216	100,0	100 %
2 konp.	139	24,9	0	0,0	5	3,6	134	96,4	100 %
3 konp.	77	13,8	0	0,0	3	3,9	74	96,1	100 %
4 konp.	52	9,3	0	0,0	0	0,0	52	100,0	100 %
5 (edo geh.) konp.	74	13,3	3	4,1	7	9,5	64	86,5	100 %
Denera:	558	100%	3	0,5	15	2,7	540	96,7	100 %

5 edo geh. konplementuko esaldien artean ere, %86,5a da, aditza amaieran daramaten esaldien kopurua: %88,5 Lertxundigan; %85,3 *Egunkaria*-n; %85,7 *Argia*-n.

3. Erlatibozko esaldiak, aditz jokatu bidez.

Sail aparte batean bildu ditugu, aditz jokatu bidezko erlatibozko esaldiak, izenaren konplementuak, ustez, jokaera berezia erakusten zutela, beste era bateko mendeko esaldien aldean; zurrunagoa edo, buru nominal independiente bati lotuta zeuden neurrian, eta ez zuzenean aditzari.

Interesatzen zitzaigun erlatibozko esaldi hauek aztertzea, bi ikuspegi desberdinetatik. Batetik, kuantifikatu nahian, erlatibozko esaldi arruntenez gain,[97] zenbaterainokoa zen gure mostran, buru nominalaren ondoretik emandako esaldien fenomenoa (gaur, oro har, horren gaitzetsia); bai, buru nominal mugatu baten ondoretik ematen denean;[98] nola ematen direnean, buru nominal soil eta mugagabe baten ondoretik;[99] fenomeno, erabat ahaztuak eta baztertuak, biak, gaur eguneko gramatiketan.[100] Are gehiago, jakinik, aurki

[97] Hau da, beren buru nominalaren (edo nominalizatuaren) aurretik ematen direnak.

[98] Segidakoen itxurakoak: «Haur da *etxeko ohoiña, barreneko etsaia, bethiere gurekin dagoena.*» (Axular, *Gero*, 385 or.); «Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen *faborerik, ahaiderik eta ez urrerik, eta ez zilharrik, hauts arazi ahal ziazaionik.*» (Axular, *Gero*, 391 or.).

[99] Segidakoen itxurakoak: «Daucat Jangoicuac emonda *emazte otzan, baquetsu, euli bati bere gachic eguingo ez leusquiona.*» (Moguel, *Peru Abarca*, 92 or.); «Autu ote ditezque *Apaiz, Erligioco Ordenacoac ez diranac?*» (J.B. Aguirre, *Eracusaldiac*, I, 81 or.); «Ezar baginetza bata bertzearen gainean hekietan egin diren galtzeak urthe bakhar batzuez, *diru galdu denarekin* izanen ziren kartierean gisu labe berri bat edo bia nik erran bezalakoak.» (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 115 or.); «…, errege-bide bazterretan landatuak baitituzte *izei luze mehar, osto ala adarrak hain usu dituzten, frantsesez* cyprès *deitzen dituztenak; …*» (J. Etchepare, Buruchkak, 67-8 orr.).

[100] Nahiz ez lehenagoko guztietan. Jada Larramendik, nahiz gaitzetsi, onartzen du, halamoduzko esaldiak erabiliak direna (*El imposible vencido*, 1729, 276-7 orr.), gero hitzez hitz errepikatzen duen bezala Lardizabalek bere *Gramática Vascongada*-n (1856, 60 or.). Inchauspek askoz harrera hobea egiten die, 1856ko *Sen Mathiuren ebanjelioa*-ri eginiko ohar gramatikaletan (XVIII or.), nola, zuzenago, 1858ko *Le verbe basque*-an (445 or.). Archuk ere jasotzen ditu halako esaldiak bere 1868ko *Bi mihiren gramatikan* (151-2 orr.), eta Van Eysek ere

genitzakeela halako esaldiak hainbateko maiztasunez gure literatura klasikoan, bereziki jakin nahi genuen, zenbateraino ziren usuzkoak ere, gaur eguneko ahozko hizkeran, non, izan, bederen, badiren.

Bestetik, interesatzen zitzaigun ezagutzea, zenbateraino gertatzen ziren egitura hautsiak, erlatibozko esaldien artean ere; hau da, konplementuak erakusten dituztenak, oraindik, beren aditzaren, erlazio atzizkiaren, eta buru nominalaren (edo nominalizatuaren) ondoretik. Dela, nagusiki buru nominalaren aurretik emandako esaldien artean;[101] dela, beren buru nominal mugatu edo mugagabearen ondoretik emandakoetan.[102]

Gainera, aparte zenbatu nahi izan ditugu, erlatibozko esaldi nominalizatu hutsak, buru nominalik gabeak. Eta hauen artean ere bereizi ditugu esaldi hautsigabeak eta hautsiak.[103] Eta beren buru nominal mugatuaren ondoretik emandako esaldien artean ere, bereizi ditugu, aurre partikula anaforikoen bidez osatuak (batez ere *zein*... modukoak), nahiz soilik bakarra aurkitu dugun gaur eguneko ahozko testigantzen artean,[104] eta beste 20ak idazleen artean (14), edo Webster / Cerquanden bildumetan (6). Aurkitu ditugu gainera buru nominalik gabeko esaldien artean, bi esaldi ere, bitxiki, aurre partikula anaforikoen bidez osatutakoak, biak ere hiztun berarengan.[105]

Erlatibozko esaldi arruntenen artean gainera, beren buru nominalaren aurretik emandakoen artean, aurkitu ditugu beste hiru esaldi bitxi ere, elementuren bat tartekatzen dutenak, erlatibozko esaldiko aditzari erantsitako *-(e)n* atzizkia, eta honen buru nominalaren artean.[106] Aparte zenbatu ditugu *El/tart* signaturako laukian (*Elementu/tartekatuak* esan nahirik). Bestelakoan, erlatibozko esaldiak aztertzerakoan, konplementudunak, nola konplementu gabeak hartu ditugu kontutan. Eta azken hauek, aparteko laukietan zenbatu, *Ad/soi* signatura pean (*Aditza/soilik*). Denera 1.104 esaldi.

Nolanahi, aparte utzi ditugu gure erlatibozko esaldien sailetik (eta mendeko esaldi arrunt bezala kontatu), zenbait esaldi, berez erlatibozko egitura izan arren, beren buru nominala desitxuratua edo dutelako, erabilpenik gabe esaldi hauetatik kanpo. Hala adibidez, konparatibozko esaldien kasuan [-(*e)n baino ... -ago; -(e)n bezain ...; -(e)n bezala* eta itxurakoak]. Mendeko esaldi arrunt bezala zenbatu ditugu ere, denborazko esaldi nominalizatuak [-*(e)nean, -(e)netik*, eta abar], erlatibozko egiturak izan arren, fosilizatuak edo kontsidera litezkeen neurrian. Bai ordea zenbatu ditugu erlatibozko esaldi bezala, beste hainbat moduzko edo denborazko esaldi, buru nominal

---

baten bat, 1867ko *Essai de Grammaire*-an (33-4 orr.), eta gero ageriagoan 1879ko *Grammaire comparée*-an (480 or.). Baita ere Gèzek 1873ko *Eléments de Grammaire Basque*-an (64 or.; eta 74 or.). Eta nolarebait Ithurryk ere, 1894an argitaratzen hasten den *Grammaire Basque* sendoaren hondarretako adibideetan (446 or.). Gramatiketan aipatu edo ez, autore gehienek erabiltzen dituzte hala moduzko egiturak beren idatzietan, proportzioak beti txikiak izango badira ere.

[101] Hauen itxurakoak: «*Bedeincatu dogun leguez maija jan aurrian, …*» (Moguel, *Peru Abarca*, 113 or.); «Ezar baginetza bata bertzearen gainean *hekietan egin diren galtzeak urthe bakhar batzuez, …*» (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 115 or.).

[102] Hauen itxurakoak, beren buru nominal mugatuaren ondoretik: «Bainan non da *onthasuna aski eremu duena, gisu labe handi bat berehala bero beroan enplegatzeko?*» (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 114 or.); «…: gizon batzuek aldare aitzin guzian lerro-lerro ezarriak zituzten behinere ikusiak ez nintuen *halako berinazko punpulatto batzu, barnean ageri zutenak hari beltx mehe bihurdikatu bat.*» (J. Etchepare, *Buruchkak*, 57 or.). Eta beren buru nominal soil eta mugatu gabearen ondoretik: «Lengo egun baten berac buruz icasita, esaeuscun *ipuin chito eder abade batec imini ebana verba neurtu ta soñutubaz.*» (Moguel, *Peru Abarca*, 96 or.); «Ezpagueunca *chacur urrineti igarten deutsana piztija asco jaquin, ta malmutz onen urebiltia, ta usaatuten ditubana billatu ta jarraitubaz, …*» (Moguel, *Peru Abarca*, 110 or.)

[103] Segidakoen itxurakoak: «Eta bada *erraiten duenik biak karrozan edo kotxean ibili zirela, …*» (Axular, *Gero*, 397 or.); «*Jesusec orduan eguin zuana guizon gor, eta mutuarequin*, eguiten du Elizac batayoa artu nai duanarequin.» (J.B. Aguirre, *Eracusaldiac*, I, 84 or.)

[104] *Non* partikula bidezkoa, *Euskalkiz euskalki* sailean, Sarako hiztunarengan (25 or.): «… eta nik eakutsiko izkizuet *leku batzu non e segur altxatuko duzuen erbiak.*»

[105] Biak berriro Sarako hiztunarengan: «Baina, ale, denak ungi pasatzen die eta iluntxea dudelaik *zoinek dituen uso geienak eta* arek ostaturat yautsita urrupat paatzen du lagunei eta ola denak kontent etortzen dire.» (23 or.); «*Non izaten dien lapinak eta* hek elkarretatzen die lapinek, lapinak, eta enseiatzen die kasatzea erbiak.» (25or.)

[106] Kuriosoak, anakolutuak edo, J.M. Satrustegi euskaltzainaren segidakoa bezalakoak: «Baño ikusten da, zanpanzar ta hoiek, aurrez aldatuak zirela urte berriaren hasierara. Zeati hoiek eztira lotzen eta … Hauster Egunari. *Guk ere herrian egiten genittuen txintxarriekin erregetan ateratzeak eta*, hoiek aldatuak ziren aurreti.» (Eta ez dago zalantza posiblerik, grabazioa entzuten, esaldia erlatibozkoa denez, *ateratzea* buru nominalari atxikia).

hainbat argiagoa erakusten dutenak [*-(e)n moduan; -(e)n legez; -(e)n egunean; -(e)n momentuan, ...*, itxurakoak].

3.1. Datu orokorrak.

Segidako taulan, eskuratu ditugun datu orokorrak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	29	4,9	557	95,1	586	3	589	53,4	
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	22	20,8	84	79,2	106	9	115	10,4	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	16	80,0	4	20,0	20	1	21	1,9	12,3
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	3	13,6	19	86,4	22	2	24		2,2
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	32	11,1	257	88,9	289	64	353	32,0	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	2	100,0	0	0,0	2	0	2	0,2	32,2
Denera:	104	10,1	921	89,9	1.025	3 + 76	1.104		100%

Sailik ugarienean (guztien %53,4a), beren buru nominalaren aurretik emandako esaldien artean, taulako lehen ilaran, %95,1 esaldi dira hautsigabeak, osorik emanak beren buru nominalaren aurretik; eta soilik, 29 esaldi hautsi, guztien %4,9a, konplementuren bat behintzat erakusten dutenak buru nominalaren ondoretik. Esan bezala, hiru esaldi ere bai, konplementuren bat tartekatzen zutenak, aditzaren erlazio atzizki *-(e)n*, eta buru nominalaren artean.

Bigarren eta hirugarren ilaretan, beren buru nominal mugatuen ondotik emandako esaldiak, gure mostrako guztien %12,3a (%10,4, soilik atzizki bidezkoen artean; %1,9 gainera aurre partikula anaforikoz osatutakoak). Lehenengoen artean, 106 esaldi konplementudun, zeinetako 84 hautsigabe (%79,2), eta 22 hautsi (%20,8); gainera 115 esaldi konplementu gabeak. Aurre partikula anaforiko bidezko 20 esaldi konplementudunen artean berriz, 4 soilik, hautsigabe (%20,0a); eta aldiz 16 (%80,0a) hautsi; 21 esaldi konplementu gabeak.

Laugarren ilaran zenbatu ditugu, buru nominal soil baten ondoretik emaniko esaldiak (24, gure mostrako guztien %2,2a baino ez; 20 idazle klasikoen artekoak, baina lau ere bai gaur eguneko ahozko hiztunenak -2 *Krisia*-n, 2 *Eskoala legea*-n-); batere ez, aurre partikula anaforiko bidezkorik. 22 esaldi konplementudunetatik, hiru hautsi (%13,6), eta 19 hautsigabe (%86,4a); gainera beste 2, soilik aditzaz osatuak.

Azkenik nominalizatu hutsak zenbatu ditugu, bost eta seigarren ilaretan. Denera, 355 esaldi, gure mostrako guztien %32,2a, zeinetako soilik 2k erakusten duten aurrepartikulen laguntza (*Euskalkiz euskalki,* Sara). 289 konplementudunetatik, 32 hautsi (%11,1a), 257 hautsigabe (%88,9a); gainera 64 soilik aditzaz osatuak.

Denera, 1.025 esaldi konplementudunetatik, 921 hautsigabe (%89,9a); eta %10,1 hautsi, 104 esaldi; zeinetako soilik 34 idatzizko mostretakoak -28 idazle klasikoak, eta 6 Webster/Cerquand-; beste 70 ere bai, gaur eguneko ahozko mostretakoak. Eta kontuan hargarria da.

3.2. Datuak sailez sail.

Oro har, esaldi gehiegi aurkitu ez badugu ere, balorazio baliagarriegirik egiteko sailez sail (gutxiago hiztunez hiztun), beharbada merezi dute begirada bat bederen datuok.

3.2.1. Idazle klasikoak.

Hauek datuak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	2	1,1	180	98,9	182	0	182		46,5
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	9	20,0	36	80,0	45	2	47	12,0	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	10	76,9	3	23,1	13	1	14	3,6	15,6
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	3	15,8	16	84,2	19	1	20		5,1
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	4	3,7	105	96,3	109	19	128	32,7	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	32,7
Denera:	28	7,6	340	92,4	368	0 + 23	391		100%

Kurioski, askoz ere esaldi hautsi proportzio txikiagoa, bi sailik nagusienetan, gure mostrako bataz bestekoak baino: soilik %1,1a beren buru nominalaren aurretikoen artean (%4,9a, bataz beste); %3,7a baino ez, atzizki bidezko nominalizatu hutsen artean (%11,1 bataz beste). Oro har, %7,6 esaldi hautsi, bataz besteko %10,1aren aldean. Badira nolanahi desberdintasunak idazle beraien artean ere. Moguelek %15,1 esaldi ematen ditu hautsi, eta J. Etcheparek %14,9; Axularren %5,2aren aldean, J.B. Aguirreren %3,0a edo Duvoisinen %3,8a.

Bestalde, bataz besteko proportzioa baino bajuagoa da, idazleek, buru nominalaren aurreko esaldietan ematen dutena, %46,5a (%53,4 bataz beste). Askoz bajuagoa oraindik Moguelek, %37,7, hain ugari ematen dituen buru nominal soilaren ondoretiko esaldiei esker (bereak dira, idazleen artean aurkitutako 20etako 14 -mostra osoko 24etatik-).

3.2.2. Webster / Cerquand.

Datuak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	0	0,0	19	100,0	19	0	19		46,3
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	1	14,3	6	85,7	7	0	7	17,1	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	5	83,3	1	16,7	6	0	6	14,6	31,7
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	0	0,0	0	0	0		0,0
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	0	0,0	8	100,0	8	1	9	22,0	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	22,0
Denera:	6	15,0	34	85,0	40	0 + 1	41		100%

Oro har, oso esaldi gutxi bada ere, fundamentuzko ondoriorik eskuratzeko, aipagarria da, beren buru nominal mugatuaren ondoretik emaniko %31,7ko esaldi multzoa -%57,1 Websterren kasuan- (bataz besteko %12,3aren aldean).

3.2.3. Euskalkiz euskalki.

Datuak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	9	20,9	34	79,1	43	0	43		62,3
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	0	0,0	3	100,0	3	0	3	4,3	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	1	100,0	0	0,0	1	0	1	1,4	5,8
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	0	0,0	0	0	0		0,0
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	4	23,5	13	76,5	17	3	20	29,0	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	2	100,0	0	0,0	2	0	2	2,9	31,9
Denera:	16	24,2	50	75,8	66	0 + 3	69		100%

Aipagarri benetan, gaur eguneko hiztun arrunten artean aurkitzen dugun, %24,2ko esaldi hautsien kopurua (Sarakoak %57,1a ere bai -lau esaldirekin-; Gorozikakoak %63,6a -7 esaldirekin-). Aipagarria ere, buru nominalaren aurreko esaldi arruntenen artean %20,9a izatea hautsi (bataz besteko %4,9aren aldean). Guk

gainera, zinez uste dugu, proportzio hauek gehiago hurbiltzen zaizkiola, hizkuntzaren eguneroko erabilerari, gure mostrako bataz bestekoak baino.

3.2.4. Krisia-hondamendia.

Datuak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	3	3,8	76	96,2	79	1	80		49,4
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	7	25,0	21	75,0	28	5	33	20,4	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	20,4
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	1	100,0	1	1	2		1,2
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	7	18,4	31	81,6	38	9	47	29,0	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	29,0
Denera:	17	11,6	129	88,4	146	1 + 15	162		100%

Aipa litezke, denera hautsiak emandako %11,6 esaldiak, nahiz soilik %3,8 erlatibozko esaldi arruntenen artean (J.M. Mendozak %25,0 ere bai -lau esaldirekin-; X. Bordak %27,3 -3 esaldirekin-). Aipagarriagoak, eztabaidan espontaneo emandako %20,4 esaldiak, beren buru nominal mugatuaren ondoretik -soilik atzizki bidez- (J. Retegiren kasuan, %37,2a, 16 esaldirekin; J.M. Mendozarenean %22,2a, 4 esaldirekin; X. Bordak %45,5, 5 esaldirekin -hirurak ere hiztun jantzi eta kualifikatiuenetakoak-).

3.2.5. Eskola legea.

Datuak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	14	5,7	231	94,3	245	1	246		60,3
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	5	26,3	14	73,7	19	2	21	5,1	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	5,1
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	2	100,0	2	0	2		0,5
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	16	14,7	93	85,3	109	30	139	34,1	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	34,1
Denera:	35	9,3	340	90,7	375	1 + 32	408		100%

Hiztun jantzienok, esaldi gutxixeago ematen dute hautsita (%9,3), gure mostrako bataz besteko datuek baino (%10,1). Nahiz aurkituko dugun hiztunik, hausteko joera handiagoz ere. Hala, F. Barcelo, %19,6arekin -11 esaldi-; A. Etxebarria, %29,4 -5 esaldirekin-. Oso proportzio bajua aurkitzen dugu ere, beren buru nominalaren ondoretik emandako esaldien artean (%5,1), nahiz hiztunen batzuk hurbildu behintzat egingo diren gure bataz besteko neurrietara (%12,3): J.M Zeberio, %11,3; A. Izagirre, %12,0.

3.2.6. Euskaltzainak.

Urriak euskaltzainen erlatibozko esaldiak, hala ere, bataz besteko proportzioen inguruan ibiliko direnak:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	1	5,6	17	94,4	18	1	19		57,6
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	0	0,0	4	100,0	4	0	4	12,1	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	12,1
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	0	0,0	0	0	0		0,0
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	1	12,5	7	87,5	8	2	10	30,3	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	30,3
Denera:	2	6,7	28	93,3	30	1 + 2	33		100%

3.3. Gaur eguneko prosa idatziaren datuak.

Pentsatzekoa zen bezala, gure hiru mostren artean (250 esaldi) apenas aurkitzen dugun bi esaldi hautsi baino; guztien %0,8a (batere ez *Argia*-ko testuan); eta 7 esaldi soil, beren buru nominalaren ondotik emanikoak, guztien %2,8a (batere ez Lertxundirenean). Oro har, oso proportzio eskasa ere, esaldi nominalizatu hutsena. Taula:

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	0	0,0	204	100,0	204	0	204		81,6
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	0	0,0	6	100,0	6	0	6	2,4	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	1	100,0	0	0,0	0	0	1	0,4	2,8
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	0	0,0	0	0	0		0,0
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	1	2,8	35	97,2	36	3	39	15,6	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	15,6
Denera:	2	0,8	245	99,2	247	0 + 3	250		100%

3.3.1. Mendibururen itzulpenak.

Kurioso asko, erlatibozko esaldien kasuan ere, Mendiburu ez zaie jarraitzen bere itzulpenetan, gure mostrako hegoaldeko beste bi idazleen proportzioei. Harrigarriki, ez da batere aldentzen, gaur eguneko prosa idatziaren ereduetatik (ezpada, berak hainbat ugariago erabiltzen duen esaldi nominalizatu hutsen kopuruan).

	Hautsiak		Hautsigabeak		Dener.	El/tart	Denera		
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	Kopur.	Kopur.	%	
Buru nominalaren aurretik:	0	0,0	177	100,0	177	0	177		62,3
						Ad/soi			
Buru nom. mug. ond. (atz. bidez):	0	0,0	7	100,0	7	0	7	2,5	
Buru nom. mug. ond. (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	2,5
Buru nom. soil. ond. (atz. bidez):	0	0,0	2	100,0	2	0	2		0,7
Nominalizatu hutsak (atz. bidez):	5	6,0	78	94,0	83	15	98	34,5	
Nominalizatu hutsak (aur. par.):	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0	34,5
Denera:	5	1,9	264	98,1	269	0 + 15	284		100%

Soilik esaldien %1,9a ematen du hautsia (gaur eguneko prosaren, %0,8a, eta gure bataz besteko %10,1aren aldean). Eta soilik, %3,2a ere, bere buru nominalaren ondoretik emandako esaldien artean (%2,8 gaur eguneko testuetan; %12,3a bataz beste). Kuriosoa, Mendibururen itzulpenen lerratzea, gaur eguneko joskera eskolara.

3.4. Zenbait erreflexio erlatibozko esaldien inguruan.

Gure mostran 1.104 erlatibozko esaldi aurkitu ditugu. Bataz beste %24,6a, bestelakoan aztertu ditugun 4.488 baiezko esaldi nagusi deklaratibo eta konplementudunen aldean. Gure idazle klasikoen artean, proportzio hau igotzen da, bataz beste, %37,6raino, eta Axularrengan, nahiz salbuespena izan, %60,0raino ere. *Eskola Legea*-ren debatean ere, bataz beste, %34,2; *Krisia*-n %23,4; Euskaltzainak %18,1; *Euskalkiz euskalki* sailean, soilik %10,0a; eta bajuenik, Webster / Cerquanden bildumetan, %6,0a. Nahiz sail guztietan aurki litezkeen,

erlatibozko esaldien ugaritasun oso desberdineko saioak. Oro har, hiztunik emankorrenek dute aberastasunik handiena erlatibozko esaldien erabileran ere.

Mendibururen itzulpenak aztertzen, berehala jotzen du begibistara, berak darabilen erlatibozko esaldien ugaritasun ikaragarria, %94,4 erlatibozko esaldi, esaldi nagusiko (%104,7 ere bai 1747ko itzulpen petoan; %86,7 1760ko askeagoan). 284 esaldi denera; eta ia erlatibozko esaldi bat, esaldi nagusi bakoitzeko. Ugaritasun honi erantsiz gero, Mendibururen erlatibozko esaldien bataz besteko luzera handia (zehatzago neurtu ez duguna horregatik), eta hauek hautsiak emateko duen joera eskasa (%1,9a), beharbada, datuok esplika lezakete hainbat, Mendibururen testuen iluntasun edo arintasun falta.[107]

Eta gaude gu, ez ote ditugun, Mendibururen testuetako antzeko arazoak aurkitzen, erlatibozko esaldiekin, gaur eguneko prosako ohizko testuetan. Adibiderako, gure mostrako Lertxundiren testuan. Batetik, testu jantziak direnez, oro har, erlatibozko esaldien nahikoa proportzio altuak erabiltzen dituztelako.[108]. Bestetik, kontutan harturik, gaurko prosa idatzian, beren buru nominalaren aurretiko erlatibozko esaldi kanonikoek duten pisua (%81,6 gure mostran; gure bataz besteko %53,4aren aldean, edo idazle klasikoen %46,5a). Eraberean harturik kontuan, nola ia zeharo desagertu diren erlatibozko esaldi hautsiak, eta beren buru nominal mugatu edo mugagabearen ondoretik emanak. Eta guztiari erasten badiogu, Lertxundiren kasuan bezala, esaldi hauen luzera, eta zenbaitetan, elkarren segidan ematen direla, erlatibozko esaldi bat baino gehiago. Eta gainera, gaur eguneko prosak aditz nagusia erabat atzeratzeko duen joera, are halako erlatibozko esaldi superluzeen ondoretik. Beharbada has gaitezke berehalatik ulertzen, zerk areagotzen duen gaur eguneko euskal prosa idatzian erlatibozko esaldien arazoa.[109]

Guk ez dugu egin, erlatibozko esaldien kasuan, besteetan bezala, konplementukako azterketarik, besteak beste, jokatzen ez genuelako behar adinako mostra batekin, ondorio baliagarriegiak eskuratzeko. Azterketa hori, nolanahi, egin beharko litzateke korpus zabalago batez. Bitartean, guk badugu inpresio zalantza gabea, ahozko erabileran bederen, dudarik gabeko zerikusia duela erlatibozko esaldien luzerak, aztertu beste esaldi klase guztietan bezala, hiztunak joera handiagoa edo eskasagoa eduki dezan hauek hausteko, zeinnahi moetatakoak direlarik ere. Bestetik, zinez uste dugu, hiztunak, oro har, errazago ematen dituela erlatibozko esaldiak, hautsita, edota osorik hauen buru nominalaren ondoretik (mugatu edo mugagabe), esaldi hauek esaldi nagusiko aditzaren ondoretik ematen direnean, esaldi honen atzealdean; aldiz nekezago ematen direla, esaldi nagusiko aditzaren aurretik (nahiz eta halako adibideak ere, noski, badiren), askoz nekezagoak direlako orduan ulertzeko, eta erraz bereizteko, esaldi nagusiaren eta erlatibozkoaren esparru propioak.[110] Susmoekin, nolanahi, azterketa berri bat ireki beharko litzateke.

---

[107] Aita Villasantek ere salatzen duena *Literaturaren historian* (HLV, 1979, 153 or.): «*… si se le lee seguidamente, cansa pronto; …*».

[108] Areago, itzulpenak badira, oro har; eta zer esanik ez, hauek badira, gure bi hizkuntza handikietatik ekarritakoak.

[109] Adibide xume batzuk argi lezakete beharbada puntua. Lehenengoa, oraintxe argitara berri den *Biblia* batuaren sarreratik (X or.): «Jainkoaren Hitzak, "Haren ahotik *irten* eta Harengana bere eragina *izan gabe itzultzen ez den*, baizik eta Hark *nahi duena egiten duen*" Hitzak …». Hurrengoak, Lertxundiren *Carla* nobelatik atereak, gure azterketa estatistikorako erabili zati laburretik: «…, eta bigarren eztulaldia sosegatu nahiak nahiz garai batean *maite izan zuen* paisaia industrialak *sorteraziko liokeen* desoseguak eraman du ezkerreko bidetik Gortari enbarkaderoraino, Maxeren bisitaldi posible baten arriskua *gogorarazten dion* ahotsari entzungor eginez.» (88-9 orr.); «Prezio astronomikoetan, artista batek gutxitan *lortu ahal izan duen* tenorean, *pintatzen zuen* guztia saltzera ohituta *zegoen* Gortarik ez zeukan komunikabideei arreta interesatua *luzatzeko* ahaleginetan denbora alferrik galdu beharrik, …» (93-4 orr.); «"Puzzle idiota" zeraman titulutzat urte batzuk lehenago, artean hain ezaguna ez zenean, *antolatu nion* erakusketa baten esker onez Gortarik *erregalatu zidan* koadroak eta, bertan, haur itxura naïf-eko konposaketa premeditatuan, fondo beltzaren gainean *gailentzen ziren* marra eta zipristin zuri krudelei ere nagusitua zitzaien arratsaldeko kolore grisaska.» (94 or.); «Ordurarte nekez eta mantxo *tajutu zen* Gortariren nortasun artistikoa abiada biziegikotzat *jotzen nituen* norabide berriak hartzen hasi zen.» (95 or.).

[110] Nola ordea euskaraz, aditz nagusia ia beti ematen den aurrealdean esaldi luzeetan (salbu eskola Azkue-Altubetarrean), euskaldunak ez du hainbeste sufritu erlatibozko esaldien arazoa, aditza atzeratzearen eskola garaitu den artean.

V. EPILOGO BATERAKO.

Ez da gure asmoa, luzeegi argumentatzen hastea hemen, iritzi orokorrak euskarazko hitz ordenamenduaren gainean. Egin dugu jada horrelakorik,[111] eta egingo dugu oraindik ere aurrerantzean iritzi eguneragotuekin. Erakutsi nahi izan ditugu nolanahi segidan, gure azterketa estatistikoarekin zuzenago lotuetako batzuk.

1. Gaur eguneko euskara idatzia guztiz da diferentea, hitz ordenaren eremuan, beste inoizko, inongo eta inolako euskararen.

Batere baldin bada, estatistika hauetatik eratorri beharreko ondoriorik, horixe litzateke. Zenbaiti harrigarri gerta balekio ere, hitz ordenaren joera eta proportzioetan, oro har oso berdintsuak dira beren artean, gure idazle klasikoen joskerak, gaur eguneko ahozko erabilerak (jantziak, eta ez hain jantziak), Webster / Cerquanden bildumetako hizkerak (joan den mendeko literatura herrikoiaren, edo ahozkoaren, isladak iparraldean), eta ere Mendibururen testu itzuliak. Hizkera guzti hauek, ahozko zein idatzizko, ez dute ulergarritasun arazo berezirik erakusten, esaldi eta esaldien arteko ideien hariak segitzeko.[112]

Agi danean, gure idazle klasikoek, hala sortzen nola itzultzen, idatzi zuten, hitz ordenari dagokionean, gutxi gorabehera, gerok gaur egun hitzegiten dugun posturan, eta urruti handirik gabe, joan den mendean Webster-Cerquandek testigatutako euskaldunen hizkeretatik. Ez dirudi beraz arriskutsuegi pentsatzea, beste frogarik ezean, idatzi ote zuten ere, beren garaiko hizketa maila horri legokiokeen aho hizkeren tankeran.

Joskera guztion aldean, ezin desberdinagoa gertatzen da, gaur eguneko prosa estandarra. Idatzia, Azkue-Altuberen eskolako lege zeharo artifizialak segiaz, gaztelaniaren kontrara baino formulatu ez direnak, inork neke handirik hartu gabe hauek euskararen barrena frogatzen. Lege batzuk, inoiz bete ez direnak euskaraz, Azkue-Altube bitartean, eta hauen ondoretik ere, soilik betetzen direnak, erreflexiboki, lege horiek bete nahian idazten den prosan.

Gure estatistikekin esanda, beste euskara guztien joskerak, aditza aurreratzen duen bitartean, esaldi nagusien %64,6an, eta atzeratu soilik %35,4an; gaur eguneko prosa idatzi estandarrak, aditza zeharo atzeratzen du, esaldien %81,8an (%46,4 punturen aldea), eta aurreratu soilik esaldien %18,2an. Beste ohizko hizkera guzti horien aldean ordea, gaur eguneko prosa idatziak, *Cardaverazen eskolako* ume berantiarra, komunikazio eta ulergarritasun arazo handiak erakusten ditu, bere ideien haria malgutasunez eramateko esaldi artean, denok aitortu diogun legean.[113]

Ez dirudi zailegia, tentazioan erortzea, eta pentsatzea, beharbada has ote litezkeen, gaurko prosaren ulergarritasun arazo zenbait, samurtzen bederen, itzultzen garen orduko, idaztera, tradizio guztian idatzi den moldera (salbu eskola Cardaveraz-Azkue-Altubetarrean), edota oraindik euskaldun guztiok ere hitzegiten dugunera. Ekuazioa, tentagarria da.

---

[111] Gure doktoretzako tesiaren inguruan prestaturiko *Altuberen azterketan* lan osoan zehar; oso bereziki honen azken kapitulu *Ondorio handiak* izenekoan, zeinen nolabaiteko laburpena izan litekeen epilogo hau; eta tarteka, baita ere, *Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak* lanean barena, autore bakoitzaren iruzkinetan.

[112] Mendibururena litzateke beharbada bakarra, eta aipatu dugu aurreko kapituluan, honen arrazoi posibleren bat.

[113] Ik., besteak beste, J.R. Zubimendi eta P. Esnalen liburuaren *Joskera* atala. Kurioski, gaur eguneko prosaren gordintasun arazo beretsuak erakusten dituzte, Cardaverazen 1760-66 bitarteko testuek (lehenengoak euskal literaturan, aditza atzeratzearen eskolan idazten direnak), eta zeinen gainean juzgatzen zuen Orixek zorrotz asko, jada 1927an (*Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra*, 230 or.): «*Kardaberaz*. Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idaztankera ez euskalduna geienaz. … Bere burubide ta burutapenak oso erderaz ernatzen zituen eta euskeraz ezin esan; …».

2. Euskarazko hitz ordenaren bi printzipio oinarrizko.

Soilik aitatuko ditugunak, gaur eguneko sintaxilariek aho batez onartzen dituzten neurrian.

2.1. Euskararen hitz ordena librea.

Hala moduz dio Euskaltzaindiak ere, «*Ongi aski dakigun bezala, eta gramatika gehienetan aipatua izan da kontu hau, hitz ordena aski libroa dugu euskaraz.*», baieztapenez hasten diren azalpenetan (*EGLU-I-Eraskina*, 22-3 orr.).[114] Ezaugarri honek, gaur eguneko praktika idatzi eta gramatikalean zeharo ahaztua den arren finean, garrantzi asko du, euskarazko hitz ordenaren joerak zentzunez ulertzeko garaian.

2.2. Hitzen ordena euskaraz ere: «tema fi rema» segidan.

Gure mostraren arabera, eta ezagutzen dugun euskara guztiaren ildoan (salbu, eskola Cardaveraz-Azkue-Altubetarrean), esaldien ordenamendu funtzionala, komunikatiboa, euskaraz ere, ez da oso desberdina, munduko beste hizkuntzek erakusten dutenetik.[115] Oro har, jarraituko litzaiokeena, *tema fi rema* ordenamendu eskemari edo (gure arteko *mintzagaia fi galdegaia* segida).[116] Maizenik esaldi aurrealdean emanez, elementu topiko eta tematikoenak, arrunki erreferentzialenak, eta laburrenak. Eta atzealderako utziaz, informazio berri, ezezagun eta errematikoenak, oro har, luzeenak. Badirudi erabateko adostasuna aurki litekeela puntu honen inguruan ere, eguneko literatura sintaktikoan.[117]

3. Zein da ordea, euskal aditzaren gunea, «tema fi rema» segidan?

Azkue-Altuberen ondotiko sintaxilarientzako, aditzak, oro har, galdegaiaren ondoretik joan behar luke, *galdegaia + aditza* segidan.[118] Gure datu estatistikoen arabera ordea, eta gure esperientzia orokorraren ildoan, apenas esan litekeen, hori hala denik, edo izan litekeenik, baiezko esaldi nagusi deklaratiboen heren batean baino gehiagoan: aditza zeharo esaldi amaieran daramaten %28,1 esaldi (ia) guztiak,[119] gehi, aditza esaldi barrenean izanik ere, galdegaia, nabarmen, aditz honen aurre justuan daramaten %6,2 esaldiak. Guztien %34,3an gehienera ere.

Aldiz, ez litzateke Azkue-Altuberen legea beteko, 10 esalditik 6 inguruan: zuzenean aditzaz hasten diren %14,3 esaldien gehiengoan,[120] plus, aditza tartean izanik ere, galdegaia, nabarmen, aditz honen ondoretik daramaten %45,5 esaldiak. Guztien, %59,8a edo.

Legeak beraz badu akatsen bat, esaldien 3tik batentzako balio lezakeen bitartean, balio ez duenean 10tik sei esaldiko gehiengo absolutuarentzako. Arazoa ordea, nahasia da. Legea (ia) salbuespenik gabe betetzen da, aditzaz amaitzen diren %28,1 esaldietan. Eta ordea, aditza tartean erakusten duten esaldien artean (hau da,

---

[114] Eta nahiz gero, zenbateraino libre, zenbateraino lotu, den zehazterakoan, sor daitezkeen zenbait arazo, badirudi gehienek ulertuko luketela askatasun hori, esaldi barreneko sintagmena bezala, zeharo gramatikalki, ordenamendu bat edo beste hartu ahal izateko beren artean; eta ez (hainbeste) sintagma bakoitzaren barneko elementuen ordenamenduan, berez trabatuagoa, nahiz hainbat aldagarria ere, batik bat, sintagmen luzeraren arabera, edota hau, ahozkatzerakoan, bana litekeen multzo foniko desberdinen kopuruaren arabera.

[115] Bederen ondo deskribatuek.

[116] Nahiz baden, gorago aitatu bezala, arazo kontzeptual ugari termino hauen eta antzekoen erabilera zehatzetan, hemen bazter uzten ditugunak.

[117] Nahiz Altube beraren gomendioak, eta gaur eguneko prosaren praktika, dudarik gabe beste bide batzuetatik doan, maiz gomendatzen denean, euskarazko esaldiak galdegaiarekin, esaldiko elementu luze, berri eta ezezagunenekin hastea, aditzaren ondorerako utziaz, aditza zeharo ez atzeratzearen aitzakian, elementu laburrak, prezeski, topikoenak, tematikoenak eta erreferentzialenak.

[118] Dela *mintzagaia* □ *(galdegaia + aditza)* egituran, dela *(galdegaia + aditza)* □ *mintzagaia* segidan, edo are, *mintzagaia* □ *(galdegaia + aditza)* □ *mintzagaia* moduko batean.

[119] Salbu, aditza bera galdegai konsidera litekeen kasu, ez ugariak; edota galdegaia eta aditzaren artean beste elementuren bat tartekatua erakus lezaketen salbuespen beti eskasak.

[120] Hauen gehiengo absolutuan galdegaia oso nabarmen segitzen delako ematen aditz horren ondoretik, Altubek bestela esan arren.

euskarazko esaldien %57,6ko gehiengo absolutuan), legea ez litzateke beteko 10etik 1ean baino; %10,8ko salbuespen ziztrina. 10etik 8k emango luke, aldiz, bere galdegaia (%79,0ak), nabarmen, esaldiko aditzaren ondoretik, *mintzagaia fi aditza fi galdegaia* edo eskemari jarraiki.[121]

Zergatik dikotomia hori? Bi galdera dira erantzuteko. Bat, zergatik betetzen den Azkue-Altuberen legea, itxuraz (ia) beti, aditzaz amaitzen diren esaldien artean. Eta bi, aldiz, zergatik ez den lege berori, salbuespenez baino betetzen, aditza tartean daramatenetan. Eta erantzun nahi izan zaie, orain baino lehenagotik ere, galdera hori, edo antzekoei.

4. Joskera desberdinak euskaraz, esaldi luze eta laburretan?

Aditzaz amaitzen diren esaldiak direlarik, oro har, esaldi laburrenak; eta amaitzen ez direnak, luzeenak; maiz pentsatu da, euskaraz joskera desberdinak erakusten ote dituzten, esaldi luze eta laburrak, soilik, azken hauek lotuaz estuki Altuberen legeari, eta ez hainbeste, luzeagoak.[122]

Gauzak ordea, ez dira horren sinpleak. Gure estatistikan argi ikus liteke, aditza tartean daramaten esaldien artean, beti direla gutxiengo absolutua, Altuberen legea betetzen dutenak, izan hauek, luze, edo labur. 5 edo geh. konplementuko esaldietan, %7,9ak beteko luke legea, eta ez, %92,9ak; 4koen artean, %17,0ak bai, eta %83,0ak ez; 3koen artean, %21,0ak bai eta %79,0ak ez; eta 2 konplementukoen artean ere -litezkeen laburrenak-, soilik esaldien %25,9ak beteko luke Altuberen legea, eta ez, %74,1ak, esaldien laburra arren.

Zergatik ez da Altuberen legea nagusiki betetzen, sikiera esaldi laburrenotan? Eta zergatik segitzen da legea (ia) salbuespenik gabe betetzen, aditzaz amaitzen diren esaldi guztietan, hauek ezin luzeagoak izanagatik?[123]

Iritziak iritzi ordea, esaldi luzeen eta laburren joskera euskaraz, ez da horren diferentea. Nahiz, honen legea, noski, ezin izan den Azkue-Altuberena. Oraindik gure artean behar bezala formulatu gabe bada ere, báda euskal joskeraren legerik, gorputz bere batean integra ditzakeena, esaldi luze eta laburren fenomenoa, aditza amaieran daramaten esaldiena, eta aditza esaldi barrenean erakusten dutenena. Saiatuko gara ikuspuntu hau zertxobait argitzen.

5. Euskal aditza: esaldi aurrealdean.

Euskal aditz joskeraren egietako bat da, baiezko esaldi nagusi deklaratiboetan, hau, bi aldiz gehiagotan agertzen dela amaieran, hasieran baino: %28,1 / %14,3. Kontrara ordea, finkatu behar da behingoz, euskal aditzaren joskera printzipio nagusiena, azken mendeko sineskeria errazez bestela. Dio:

> Baiezko esaldi nagusi deklaratiboen artean, euskaraz (ia) bi aldiz gehiago dira, aditza aurrealdean daramaten esaldiak, atzealdean daramatenak baino: %64,6 / %35,4.[124]

---

[121] Aparte, aditza tartean izaki, galdegai gunearen arabera garbi sailkatu izan ezin ditugun %10,2 esaldiak. Guztien %5,9a.

[122] Eta hala postulatzen da maizenik, gaur eguneko sintaxilarien artean (praktikan kasu gutxi egingo bazaio ere bereizketari). Ikus, esate baterako, Euskaltzaindiaren 1987ko *Hitz ordena* artikulua; baita Altube beraren zenbait pasarte, *Erderismos*-en bertan, edota nabarmenago, 1950-51-52an *Euzko Gogoa*-n argitaratzen duen *Erderakadarik txarrenak* artikulu sailean.

[123] Euskaltzaindiaren 1987ko *Hitz ordena* artikuluan ere aipatzen da, aditzaz amaitzen diren, eta ez diren, esaldien arteko joera desberdintasuna (41 or.): «*Orain arte aditza azkenean ezarri dugu gure adibideetan. Nahitaez, jakina, aipatu ordena kontu horrek* [Altuberen legeak] *orduan bereziki baititu ondoriorik garbienak. Baina aski da edozein euskal testu hartzea, aditza maiz baino maizago, hondarrean ez dela ikusteko. Eta ez perpaus luze batzu darraizkiolarik bakarrik. Bestela ere gertatzen da.*» Oso baliagarriak dira gero, artikulu berean, baieztapen hauen ondotik aipatzen den hainbat puntu (oso bereziki, 1.8.1. eta 1.8.3. ataletakoak).

[124] Aditz jokatu bidezko mendeko esaldien artean ere, gehixeago dira esaldi hautsiak, aditzaz amaitzen direnak baino, diferentziak eskasak izan arren: %53,3 / %46,7. Soilik aditz jokatugabe bidezko mendeko esaldien artean dira denera gehiengo absolutua aditzaz amaitzen diren esaldiak: %78,7a / %21,3.

6. «Aditza bigarren» fenomenoa euskarazko esaldian.

Horren nabarmena baldin bada ordea, euskal aditzaren aurrealdeko gunea esaldian, zer dela eta sinistu dugu denok, horren erraz, mende oso batez, euskal aditzaren ezaugarri pospositiboa esaldi amaieran, edo prediku nagusiaren ondoretik? Hau ere ulertu ahal izateko, aldatu beharko dugu, arazoari begiratzeko dugun ikuspuntua.

Euskal aditzak joera nagusia duen bezala esaldi aurrealdean joateko, aldi berean du joera nagusia, behintzat esaldiko beste elementuren baten ondoretik joateko, honen bigarren, hirugarren edo laugarren postuan, konplementu bat, bi edo hiruren ondoretik.[125] Apenas ordea atzerago postu hori baino (eskola Cardaveraz-Azkue-Altubetarrean salbu). Eta horretxek dirudi euskal aditzaren gunea esaldian: bigarrena, hirugarrena, laugarrena. Nagusiki esaldi aurrealdean; nagusiki, esaldiko beste elementuren baten / batzuren ondoretik. Eta esaldi laburrean, maiz esaldi atzealdekoa / amaierakoa gerta litekeen postu hori, luzeagoan, maizago gertatuko da esaldi aurrealdekoa, eta batik bat, esaldiko prediku nagusia baino lehenagokoa. Uste dugu, guztiz aldatzen dela arazoaren perspektiba ikuspuntu honetatik. Gu nolanahi gehiago ausartuko gara oraindik, eta lege bat formulatuko dugu: «aditza bigarren» fenomenoarena euskaraz. Gure ustean, nahikoa ongi laburbil ditzakeena aditzaren joskera joerak. Horrelako zerbait esango luke:

> Euskal aditzak «a», joera nagusia du, ondoretik erantsita joateko, multzo foniko berean, bigarren elementu atono bezala, enklitikoki, hiztunak esaldian aditz honen aurretik ematen duen elementu, kasuan, toniko, nagusiki, labur bati «X», «Xà» itxurako egitura batean.

Garrantzizkoa da *multzo fonikoaren* muga.[126] Arrunki 5 / 10 silaba baino luzeagoa ez dena.[127] Guk, «*à*»-ren gaineko tildearekin adierazi nahi izan dugu (goitik behera, ezkerretik eskubira), aditzaren lotura enklitikoa aurreko «*X*» elementu tonikoarekiko, derrigorrez beharko duena izan laburra, bestela, multzo foniko propio bat osatuko lukeen neurrian.[128]

Pentsa zitekeenaz bestela ordea, «aditza bigarren» bezalako fenomeno bat, ez da batere euskararen esklusiboa. Antzekoak daude deskribatuak munduko hizkuntza askotan; nola, gure urruti handirik gabe, historikoki, hizkuntza germaniko guztietan, edo latinez; eta oso bereziki ere, gaur egungo alemanez, ingelesez, edo frantzesez, zeinetan jada (ia) erabat fosildu eta gramatikalizatua ematen den aditzaren «bigarren» posizioa, arrunki, *sujetoa + aditza* segida ia derrigorrezkoan.[129]

---

[125] Guk teknikoki konplementu hitza erabili dugun zentzuan (Ik. II, 1.1. atala).

[126] T. Navarro Tomásek, esateko, segidako hitzekin definitzen du, unibertsalki, multzo fonikoa (*Manual de pronunciación española*, 1991, 30 or.): «El grupo fónico es la porción de discurso comprendida entre dos pausas o cesuras sucesivas de la articulación; consta, de ordinario, de varios grupos de intensidad [hitzak, edo]; puede, sin embargo, reducirse a una sola palabra. El grupo fónico es también una unidad fonética importante; los distintos elementos menores comprendidos dentro de él aparecen enlazados en estrecha subordinación; …»

[127] Navarro Tomásek dio (*Manual de entonación española*, 4ª ed., 1974, 38 or.): «Las oraciones simples que no suman más de siete u ocho sílabas se encierran regularmente en una sola unidad. Desde esta medida hasta catorce o quince sílabas suelen ocurrir vacilaciones entre la unidad simple y la división. Por encima de quince sílabas, lo ordinario es que la frase forma por lo menos dos unidades.» Eta bera espainolaz ari bada ere, eta euskararen barrena azterketa bereziak egin beharko liratekeen arren, printzipioz ezin pentsa liteke, ondorioak izango ez liratekeenik antz batekoak, multzo fonikoen mugak ez direnez gero hainbeste erabakitzen, hizkuntza bakoitzaren arabera, baizik, zeinnahi hizkuntzatan ere hiztunak segi behar dituen prozesu psikologiko/kognitibo beretsu batzuen ingurutik, eta muga fisiko jakin batzuen barne. Ez lukete fenomeno hauekin zerikusirik faltako, gurean, besteak beste, bertsogintzaren ohizko neurriak pausa arteetan.

[128] Elementu enklitikoentzako gunerik laga gabe hala. Horregatik ez da maizenik galdegaia, ohituraz luzea, bere ondoretik esaldiko aditza arrastatzen duen elementua -ez bada, prezeski, galdegai laburren, edo fokalizatuen, kasuan-. Horregatik, dira maiz, horren entonatu ezinak, eta txukun irakurtezinak, gaur egungo testu idatziak, aditza maizenik ematen dutenean ezin galdegai luzeagoen ondoretik, eta honekin batera ahozkatu beharrean, multzo foniko bere batean . Aurrerago aipatuko dugu galdegaia eta aditzaren arteko erlazio berezia.

[129] Nahiz, nahikoa den, pixkaren bat hondoratzea, hiru hizkuntzon aurreko mendeetako testigantzetan, askoz maizago aurkitzeko aditzaren bigarren posizio hori, sujetoak ez diren konplementu ugariren ondoretik ere, oraindik euskaraz bezala. Eta gaur egun, hizkuntzotan, antzeko fenomenoa gertatzen da oraindik, galdegile bidezko galderetan, alemanezko *es* partikula bidezko esaldietan, eta abar. Besteak beste, J. Haiman-en *Targets and Syntactic Change* liburuan egiten da, zeharka, *aditza bigarren* fenomenoaren erreferentzia zabala (*verb second phenomenon* ingelesez), batez ere hizkuntza europearren inguruan. Latinaren kasurako, askoz landuagoak gertatzen dira, J. Marouzeau-k argitaraturiko lan ugariak mende honen lehen erdian. Marouzeauk behin eta berriro jasotzen du bere lanetan, latinezko *aditza bigarren* edo fenomenoak duen zerikusi estua, J. Wackernagel-ek, 1892ko *Ueber ein Gesetz der indogermanischen Wortstellung* artikuluan haizatzen duen

7. «Aditza bigarren» fenomenoaren hainbat manifestazio euskaraz.

Ez bailitzateke manifestazio bakarra, euskarazko aditza esaldiaren bigarren gunera-edo eramango lukeena.

7.1. «Xà» fenomeno nagusia: «aditz partizipioa fi aditz laguntzailea» segida.

Euskarazko «Xà» fenomenoaren manifestazio nabarmenena litzateke, aditz laguntzaile atonoak erakutsi ohi duena, aditz konposatuetan, (ia) beti ondoretik erantsita joateko baiezko esaldian, enklitikoki, bere aditz partizipio nagusiari, elementu toniko labur tipikoa.

Fenomenoa, alde eta aldi guztietako euskararena da. Nahiz báden ere, zerbait konplexuagoa, eta zehatzago aztertu beharrekoa. Batetik, aurki litezkeelako tarteka, bestelako zenbait testigantza bitxi.[130] Eta bestetik, euskara klase guztietan ere, nahikoa maiz hausten delako, aditz partizipio nagusia / laguntzailearen segida estua.

7.1.1. «Partizipio nagusia fi laguntzailea» segida, hausteko gauza diren, «Xà» egitura batzuk.

7.1.1.1. Lehenengo eta behin, ezezko esaldiak, non, *ez* partikula modala, jeneralean esaldi aurrealdean emana, (ia) beti den gauza, bere ondoretik arrastatzeko esaldiko aditz laguntzailea, oro har, esaldi atzerago(xe)rako, utziaz partizipio nagusia, inbertsiozkoa edo deitu ohi den egitura modu batean.[131] Halakoetan, aditz partizipio nagusiak maiz osatuko du bere aldetik beste «Xà» moduko egitura bat, eta enklitiko bezala joango erantsita, bere aurreko beste elementu toniko labur bati.[132] Bestelakoan, *ez* partikula eta aditz laguntzailearen arteko lotura, soilik hautsi ohi da, *omen, ote, ...* eta antzeko partikula modalen aurrean (beherago aipatuko ditugunak).[133]

7.1.1.2. Ezezko esaldietako fenomeno beretsua gertatzen da, *inbertsiozkoak* deitu ohi diren beste hainbat

---

legearekin, indo-europarraren elementu enklitiko edo bigarren mailakoentzako. Marouzeauk glosatzen duen bezala (*L'ordre des mots dans la phrase latine*, I, 1922, 229 or.): «*… une loi indo-européenne (dite de Wackernagel; …) d'après laquelle les mots accesoires de la phrase et les enclitiques en particulier se placent immèdiatement après le premier mot autonome de la proposition; …*» (gehiagotan ere glosatzen duelarik -II, 11 or., eta III, 67 or. behintzat-, guk ez dugu zuzenean begiztatu Wackernagelen lanik). Ez dirudi nolanahi, *aditza bigarren* fenomenoaren oso desberdina denik, esate baterako, hungarieraz gertatzen dena (ik. oso bereziki, L. Dezsö-ren *Studies in Syntactic Typology and Contrastive Grammar* liburua); fenomeno, maiz nahastu dena eraberean, balizko galdegaiaren fenomenoarekin euskaraz. Agian, ez da ere fenomeno hauen oso desberdina, munduko beste hainbat hizkuntza "berezietan"-edo gertatzen dena (gogoan ditugu, arriskuak arrisku, turkiera, japoniera, … eta antzekoak; ikus litezke eztabaida honetarako, gorago ere aipatu J.A. Hawkins-en lana, edo W.P. Lehmann, eta T. Venneman-enak).

[130] Gogoan dugu, esate baterako, Jusef Egiategi zuberotarraren aditz joskera bitxia, 1785ko filosofia liburuan.

[131] Hala behintzat esaldi nagusietan, zerbait berezixeagoa bada ere mendeko esaldien jokaera, aparte aztertu beharrekoa. Soilik eskola cardaveraztiarrean izan dute arrakastaren bat, inbertsiorik gabeko ezezko esaldiek (*etorri ez da*-ren antzekoak), uste dugu, autore hauen antsia neurtezinaren ondorioz beren aditza nolanahi atzeratzeko esaldian. Bestelakoan, oraindik ez dakigu, joera honek ze benetako sustrai duen euskararen gorputzean, edota, soilik den, proportzio horietan bederen, Larramendiren eraginpekoa bere jarraitzaileetan, 1729ko *Artea*-n (293-4 eta 300-1 orr.) egiten dien propaganda desproportziozkoaren ondorio.

[132] Honetatatik ere, ezezko esaldietako galdegaiaren guneaz tarteka ematen diren nahasteak gaur eguneko hainbat sintaxi eskolatan. Baiezko esaldietan bezala, aditz partizipio nagusiaren aurreko gunea, ez da galdegaiarena izan ohi euskaraz, salbuespenetan baino (galdegai laburren zenbait kasutan, e.a.). Gure tradizio eta erabilera nagusien arabera, uste dugu esan litekeela, aditz partizipioa ezezko esaldian, eman ohi dela, edota laguntzailearen segidan bertan, edota bien artean oso elementu laburrak tartekatuaz. Salbuespenak baino ez lirateke, bien artean tarte handia uzten dutenak elementu luzeak tartekatuaz, gaur egungo prosa idatzian horren maiz aurkitzen dugun bezala, esaldiko prediku nagusia sartu nahirik tarte horretan. Bi aditzen arteko eten luze horrek, nola berez ere aditz partizipio nagusiaren ezohizko atzeratzeak, asko zailduko du esaldiaren lehen kolpeko ulergarritasuna.

[133] Nahiz, izan badiren, haustura bitxiagoak ere. Nola, Lafittek *Gramatikan* erakusten dituen segidakoak (49 or.): *Aitak du ez aurdiki / Aitak du leihotik ez aurdiki / Aitak omen du joaiterat ez utzi*; zeinetan, bitxiki, aditz laguntzaileak, *ez* partikularekin ez eta, esaldiko beste elementu batzuekin osatzen dituen «Xà» egiturak (bereziago aztertu behar liratekeenak, ildo beretsutik izan arren).

egitura moldetan (*han ziren etorri ..., nork du egin …*, eta antzekoak), non esaldiko beste elementu toniko laburren bat den gauza, aditz laguntzailea bere ondoretik arrastatzeko, oro har, geroago, emango den aditz partizipio nagusiaren ordez (zeinak bere aldetik agian osa lezakeen, ezezko esaldietan bezala, beste «Xà» moduko egitura propio bat).

7.1.1.3. Hainbat partikula modalek ere eragiten dute, aditz partizipio nagusia eta laguntzailearen arteko haustura, edota laguntzaileak ezezko esaldietan zuzenean osatzen duena *ez* partikularekin. Hala, *omen (ei), ote (ete), bide, al* (galderazkoa)*, ahal* (desirazkoa) bezalakoak, eta are behintzat *bait-* partikula mendekotzaile nagusia. Hauek, oro har, ez dute aditz partizipioa laguntzailearen ondorera desplazatzen, eta beste bigarren mailako «Xà» egitura bat-edo osatuko lukete («Xxà» edo itxurakoa), baiezko esaldietan aditz partizipioarekin: *[aditz partizipioa fi (partikula modala fi aditz laguntzailea)]* edo litzatekeena;[134] eta ezezkoetan *ez* partikularekin: *[ez partikula fi (partikula modala fi aditz laguntzailea)]* modukoa.

7.1.1.4. Ikuspegi honetatik aztertu beharko litzateke, beste hainbat partikula edo aditz modalen jokaera, nahiz beste maila batekoak izan, baina joskera partikularrak eragiten dituztenak, aditz partizipioak eta laguntzaileen arterako, baiezko nola ezezko esaldietan. Hauen artean behintzat, *ahal, ezin, behar, nahi, gura, egin, izan, uste, gogo, hurren (hurran)*, … eta antzekoak.

7.1.1.5. Eraberean, *ba-* partikula baieztatzaileak arrastatzen du bere ondoretik esaldiko aditz trinkoa, «Xà» egitura tipikoan (oso maiz Euskalerri osoan, eta maizago iparraldean).[135] Eta oraindik arrasta lezake inoiz, aditz konposatuetako aditz laguntzaile bera, eraginez, inoiz ohizkoegiak ez diren inbertsiozko egiturak (*badu esan ..., bada etorri ...*, eta antzekoak).

Guztiotan, aditz laguntzailea, «Xà» egitura enklitikoan erasten zaio, partizipio nagusia ez duen esaldiko beste elementu toniko laburren bati, haustaraziaz hauen bien arteko lotura estua, eta eraginez, dela inbertsioak, dela bigarren mailako «Xà» egiturak.

7.2. «Xà» egitura tipikoa: «galdegilea fi aditza» segida.

Euskaraz ere nabarmen da, nola, galdegileak bezalako partikula toniko, labur, eta ohituraz esaldi aurrealdean agertu ohi direnek, ia salbuespenik gabe arrastatzen duten beren ondoretik esaldiko aditza. Zuzenean, aditz jokatu trinkoen kasuan, ohizko «Xà» egitura bat osatuaz. Edota, konposatuen kasuan, bigarren mailako «Xxà» egitura batean *[galdegilea fi (aditz partizipioa fi aditz laguntzailea)]* modukoa.[136] Gainera, halako galdegileekin eman ohi dira euskaraz, inon izatekotan, inbertsiozko egiturak (*nork du esan?* gisakoak), «Xà» egiturak zuzenak galdegile eta aditz laguntzaileen artean, hautsiaz, aditz partizipioarekiko lotura.

7.3. «Xà» segidak: «partikula topiko-tematiko laburra fi aditza».

Galdegileek duten botere beretsua, esaldiko aditza ondoretik arrastatzeko, maiz erakusten dute, beste hainbat hitz laburrek ere. Oso bereziki, partikula anaforikoak; deiktikoak; erakusle; izenorde; denborazko adberbio; moduzko; …; zenbatzaile mugagabe; graduatzaile; e.a.; esaldiko partikula topiko edo tematiko ohizkoak, maizenik esaldi aurrealdean, edo hasieran bertan doazenak, mintzagaiaren parte diren bezala; eta aditzaren aurre justuan emanak, honekiko «Xà» lotura estua erakutsi ohi dutenak. Beraiek egingo diote maiz, sarrera, esaldian ondoren emango den prediku nagusiari.

Segidakoen antzekoak: *Hala agertu zen ..., Han zetozen ..., Hura izan zen ..., Laister ezagutu zituzten ..., Beti*

---

[134] Baiezko esaldiotan, oraindik osa ahal izango luke halako egitura batek, beste hirugarren mailako «Xà» egitura bat edo, osorik erantsita ondoretik, aurreko beste elementu toniko laburren bati.

[135] Beharbada, gorago aipatu ditugun arrazoien ingurutik (III, 5 atalean).

[136] Horregatik gertatzen dira beti bitxi eta urri euskaraz, galdera hautsiak, elementuren bat tartekatua dutenak, galdegilea eta aditzaren artean. Nahiz, halako adibideak hainbat ugariak ere badiren gure literatura guztietan, eta areago, galderak batere erretorikoak diren orduko. Nolanahi, nahikoa dirudi, galdera hautsi hauek ere euskal sisteman integratzeko, bi multzo foniko desberdinetan etenda ematea, galdegilea eta esaldiko aditza, zeinak bere aldetik beharbada osa dezakeen, «Xà» moduko beste egituraren bat. Hala gerta liteke, Axularren ere segidakoan: *Nork eskua emanen dio?* (629 or.). Cardaverazen eskola da hala ere galdera hautsion hazkuntza esparrua, beti aditza atzeratzeko antsia geldi ezinetan.

esan da ..., Azkar atera zituzten ..., Ongi dakizu ..., Nekez ikusiko da ..., Sarri mantendu da ..., Goiz da ..., Berehala elkartu ziren ..., Horregatik izango da ..., eta beste nahi adina. Ez dira ere besterik, *Egia da ...*, *Bistan da ..., Garbi dago ..., Argi dago ..., Nahikoa da ..., Aski da..., Asko da ...*, eta antzera ematen diren esaldi predikatibo guztiak. Edota idatzian, hainbat esplikazio berrien aurretik ematen den, *hau da, ...* esaera bera.[137]

Eta maiz, hala moduzko partikula anaforiko, deiktiko, adberbio, …, laburrak aurkituko ditugun arren aditzaren aurretik emanda, euskaraz ez da inolako eragozpenik paper berbera joka dezaten, esaldiko beste zeinnahi hitz edo izenek ere,[138] gure euskarazko testigantza guztiek frogatzen duten moduan.

7.4. Aditz lokuzioak «Xà» egituran.

«Xà» egitura tipikoak lirateke euskarazko aditz lokuzioak, ohizko zenbait aditzen partizipio nagusiak ohituraz hartzen duenean bere aurrean esaldian, hitz topiko-tematiko beti bere bat (*lo egin, hitz egin, aditzera eman, amore eman, gaitzetsi, onetsi, aintzat hartu, gogoan hartu, parte hartu, loakartu, adarra jo, larrua jo, luze jo* eta beste hainbeste). Zenbaitetan, erabat fosildua eta hautsiezina ere bihurtu delarik bi elementuen arteko lotura (nahiz ez oraindik beste askotan).Lokuzio hauek, ordena horretan gordetzen direnean, bigarren mailako «Xà» egiturak ere osatuko lituzkete, baiezko esaldietan, aditz laguntzailearekin.

7.5. «Galdegai laburrak fi aditza» segidak ere, «Xà» egitura tipikoan.

Gerta ohi da tarteka, hitz, izen edo partikula labur batek jokatzea esaldian prediku nagusiaren papera. Hiztunak, zeinnahi arrazoi pragmatikorengatik, elementu hori ematen badu aditza agertu aurretik esaldian, aditz hau, agertzekoa bada esaldian, (ia) derrigorrez erantsiko zaio ondoretik prediku nagusi honi. Agi danean ez da besterik gertatzen, aditzaz amaitzen diren %28,1 esaldietan, eta, aditza esaldi barrenean izaki ere, galdegaia aditzaren aurre justuan ematen duten beste %6,2etan. Kasu guzti hauetan, oso bitxia gertatuko litzateke, beste ezein elementu tartekatzea galdegaia eta aditzaren artean (*galdegilea fi aditza* segidetan aipatu bezalaxe).[139]

8. Zehazten, «aditza bigarren» («Xà») fenomenoa.

Goiko «Xà» fenomenoaren definizioan, ez dugu printzipioz jerarkiarik eraiki, aditza ondoretik arrasta dezaketen elementu desberdinen artean.[140] Hiztunak, nahiko askatasun duen arren, pragmatikoki (edo subjetiboki) erabakitzeko, esaldiko zein elementuri erantsiko dion aditza, ez dirudi askatasun hori erabatekoa denik. Ez behintzat, behin esaldian agerian eman eta gero, honen galdegaia (definizioz, esaldiko elementurik garrantzizkoena, eta beraz tonikoena), *galdegilea fi aditza*, edo *galdegaia fi aditza* egituren kasuan jaso behar izan dugun bezala 7.2. eta 7.4. ataletan. Horregatik zehaztuko dugu zertxobait «aditza bigarren» fenomenoaren definizioa, eransteko:

> Euskal aditzak «a», joera nagusia du, ondoretik erantsita joateko, multzo foniko berean, bigarren elementu atono bezala, enklitikoki, hiztunak esaldian aditz honen aurretik ematen duen elementu, kasuan, toniko, nagusiki, labur bati «X», «Xà» itxurako egitura batean; eta (ia) derrigorrez ere bai esaldiko elementu tonikoenari, galdegaiari, hau aditza baino

---

[137] Hitz labur guzti horiek izan litezke, noski, esaldiko galdegaiak, batez ere, esaldiak beren labur horretan mozten badira, edota gero ere ematen ez bada, garrantzi informatibo gehiagoko elementurik. Maizenik ordea, hiztuna egitura beroriez baliatzen da, bere ondorengo prediku nagusia aurkezteko, segidako adibideetan gerta litekeen modura: *Hala agertu zen berriro hurrengo egunean poltsa bete urre zuela altzoan. / Han zetozen bata bestearen atzetik aurreko eguneko bileran egon ez ziren guztiak. / Hura izan zen handik aurrerako festa guztien hasiera. / Laister ezagutu zituzten banan bana inguruetako mendi zoko guztiak. / Beti esan da …,* eta abar eta abar, kontinuoak edozein mintzo euskaldunetan. Maiz esan denaren kontrara, esaldian mugitzeke mantentzen dena, ez da, galdegaiaren gunea aditzaren aurrean, baizik eta aditzaren bigarren postua edo esaldian, enklitikoki erantsita, «Xà» egitura batean, aurreko elementu toniko laburrari. Izan hau, esaldiko galdegaia, edo ez.

[138] Horrexegatik hainbeste errepikatzen ez direnak.

[139] Bitxiak esan nahi ez duelarik ezinezkoa, galdera hautsien kasuan bezala, eta besteak beste, Cardaverazen eskolako idazleek, horren maiz, horren artifizialki, erakutsi diguten bezala.

[140] Nahiz jerarkia hauek dudarik gabe badiren, ondo gramatikalizatuak eta fosilduak ere zenbait kasutan, aditz partizipio nagusia eta laguntzailearen arteko joskera joeretan aipatu dugun bezala.

lehenago emana bada esaldian.[141]

Horregatik gertatzen da horren bitxia, Azkue-Altubek horren ongi aurrikusi zuten bezala, elementurik tartekatzea, galdegilea eta aditzaren artean; edota, behin galdegaia emanez gero esaldian, honek zuzenean ez arrastatzea ondoretik esaldiko aditza. Horregatik betetzen da Azkue-Altuberen galdegai legea (ia) beti, aditzaz amaitzen diren esaldietan. Baina horregatixe, ez dauka zertan derrigorrez bete beharrik, aditzaz amaitzen ez direnetan; *de facto* betetzen ez den bezala, %10,8an baino gure mostran.[142]

9. Galdegaia eta aditzaren arteko erlazioak euskaraz.

Azkue-Altuberen eskolaren ondoren, liberalizatu beharra dago, galdegaia eta aditzaren arteko erlazioa euskaraz. Galdegaiak, ez dauka zertan joan beharrik aditzaren aurre justuan. Aditzaren aurre justuko elementuak, «Xà» egitura batean, zertan izan beharrik ez daukan bezala esaldiko galdegaia. Eta hala, hiztunak eman lezake bere prediku nagusia esaldian, eta eman ohi du:

• Edota, maizenik, aditzaren ondoretik nonnahi, esaldi amaiera aldera, komunikazioaren lege pragmatikoek agindu gisa. Fenomeno hau gerta bide da euskarazko 10 esalditik 6 inguruan; %59,8 gure mostran,[143] oro har, esaldi eta galdegai luzekoak, baina ez hauetan bakarrik.

• Edota bestela, aditzaren aurre justuko gunean, hiztunak, edozein arrazoi pragmatiko, subjetiborengatik, galdegai hau ematen badu esaldian aditza bera baino lehenago, zeina (ia) derrigorrez arrastatuko lukeen ondoretik (agerian joango bada esaldian). Halako zerbait gerta bide da, euskarazko esaldien beste heren inguru batean; %34,3 gure mostran, batez ere aditzaz amaitutako esaldiak, gehienbat, galdegai laburreko esaldi laburrak.[144]

10. Euskal aditza, lotura elementu naturala euskaraz, esaldiko mintzagaia eta galdegaiaren artean.

Beste morrontza gramatikalen ezean, nagusiki komunikazioaren faktore pragmatikoek izango dute eragina, esaldiko elementu desberdinen ordenamenduan. Hala gerta ohi da, sintaxilari gehienen aburuz, mintzagai aurreratuen kasuan, eta galdegai atzeratuenean. Eta hala izango da, aditzaren kasuan ere. Aditzak oso maiz jokatzen du euskaraz, esaldiko bi zati pragmatiko nagusien arteko lotura papera. Ez da kasualitatea. Ondo pisuzko arrazoi komunikatibo / pragmatikoek bultzatzen dute euskal hiztuna maizenik, aditza esaldi aurrealdean ematera (esaldien ia bi herenetan, %64,6 gure mostran), eta askoz gutxiagotan ematera esaldi atzealdean (herena baino zeozer gehixeagoan, %35,4 gure mostran).[145] Aipatuko ditugu arrazoi hauetako batzuk.

10.1. Lehenik eta behin, aditz erroaren berezko aberastasun semantikoaren eraginez, aditza, bera bakarrik ere, berez da gauza (eta batzutan gainera, bera bakarrik da gauza), berak sortutako unibertso semantikoaren barne integratzeko, banan bana, esaldiko beste elementu guztiak. Zenbat eta lehenago aurkitu aditza esaldian, orduan eta lehenago izango dute, solte emaniko beste elementu guztiek, molde bat, non kokatu, bakoitza bere lekuan, puzzle, jada aurretik ezagun baten piezak bailiran. Aditza esaldian emana ez dagoen bitartean, entzule / irakurleak ezin du jakin maiz, zertara datorren, ze puzzletakoa den, aurretik emaniko elementu solte bakoitza.[146]

---

[141] Beharbada esan genezakeen hasiera batetik, «aditza beti eransten zaiola esaldian bere aurreko elementu tonikoenari». Guk ordea ez dakigu oraindik hau horrela den, galdegaiaren kasuan baino, esaldiko elementu tonikonarenean, eta nahiago izan dugu oraingoz bere horretan utzi definizioa, «Xà» egitura desberdinak osa ditzaketen elementuen arteko jerarkia tonikorik, edo garrantziaren araberakorik eduki aurretik. Ez zaigulako gainera iruditzen, inoiz errazagia behar duenik izan, halako jerarkiarik objetiboegiki finkatzea, beti ohi delako oso faktore pragmatiko zehatzen araberakoa, eta beraz, hiztunaren subjetibitateen baitakoa ere.

[142] Nahiz, %71,8an, edo gehiagoan, ere bai, gaur eguneko testuen artean.

[143] %45,5a, aditza esaldi barrenean daramaten esaldien %79,0arekin; gehi, %14,3, zuzenean aditzaz hasten diren esaldiak (hauetako (ia) guztietan ere galdegaia oso nabarmen ematen delako aditzaren ondoretik).

[144] Nahiz litekeena den esaldi luzeagoetan ere gertatzea, batez ere mintzagai topiko luzeak dituen esaldian.

[145] Kanpoko hizkuntzen eraginen beharrik gabe.

[146] Azkenik, halako batean, aditza ematen denean esaldian, maiz honen esannahi nagusia erabat alferrikakoa zaio entzule / irakurleari, ordurako bere kabuz ere lotu behar izan dituelako elementu solteak nolabait

Horregatik bakarrik ere, askoz nekeagoa da ulertzen, sistematikoki aditza atzeratzen duen testua (Lardizabal), aurreratzen duena baino (Aguirre).

10.2. Zenbat eta lehenago eman aditz erroa esaldian, entzule / irakurleak orduan eta errazago izango du, esaldi berriaren mamia lotzea, aurreko testuinguru, linguistiko eta ez-linguistikoaren egoerarekin. Puntu bereziki garrantzizkoa esaldi luzeetan. Laburrean, beranduena ere, aditza "goiz" ematen da beti, esaldiko lehen multzo fonikoetan. Esaldi laburrak ez du ulermen arazorik sortzen.

10.3. Bigarren arrazoi nagusia, hiztuna zalantzarik gabe bultzatzen duena, aditza esaldi aurrealdean ematera, da, oso bereziki, euskarazko aditz laguntzailearen aberastasun morfologiko ikaragarria (inguruko hizkuntza gehienen aldean, eta areago, pobreenen). Aditz laguntzaileak, berak bakarrik ere, eman diezaguke euskaraz informazio tematikoa, egoeran parte hartzen duten, *nor, nori, nork* eta interlokutorearen pertsonen gainean; eta honen aspektuaren, denboraren eta moduen gainean. Berriro, informazio guzti hauek esaldi aurrealde batean jaso ahal izateak, bidenabar erraztuko du, esaldiaren lotura aurreko testuinguruko egoerarekin, nola, esaldi bereko elementu solte bakoitzaren bere lekuan kokatzea esaldian. Informazio horiek ere esaldi atzealderako gordetzeak, areagotu egingo ditu ulergarritasun arazoak, batik bat esaldi luzeetan.[147]

11. Aditzaren aurregunea mendeko esaldian.

Aurreko atalean aipatutako arrazoi berberek esplikatuko dute mendeko esaldietako aditzaren aurregunea esaldian. Hauetan ordea, elementu berri batek, esaldi nagusiarekiko lotura adierazten duen elementu mendekotzaileak (erlazio atzizkiak), bi indar berri eta kontrajarri eragingo ditu mendeko esaldian. Lehenengoa, mendeko esaldiko aditza honen aurrealdera bultzatuko lukeena, esaldian lehenbailehen eman nahian ezagutzera, honen lotura moeta semantikoa esaldi nagusiarekin.[148] Bigarren indarra berriz, mendeko esaldiko aditza amaierara bultzatuko lukeena, esaldi nagusia eta mendekoaren eremuen arteko mugarri ageri gisa edo.[149]

12. «Aditza bigarren» («Xà») fenomenorako joera, hausten da, multzo fonikoaren mugetatik kanpo.

Ez dira euskaraz ezezagunak, aditza zuzenean esaldi hasieran ematen dutenak (%14, 3 gure mostran; %94,1 aditz konposatu, eta %5,9 aditz trinko), edota esaldi hasiera absolutuan ez bada ere, bere segmentu edo multzo fonikoaren hasieran, hautsiaz, bi kasuetan ere, euskarazko aditzaren berezko «Xà», edo «aditza bigarren» fenomenorako joera.[150]

Esango genuke, euskal hiztunak, zilegitasun osoz hausten duela, euskal aditzaren «Xà» fenomenorako joera nagusia, ahoz, nola idatzizko tradizioan, «a» aditz hori emanez, multzo foniko independiente batean «X» konplementuarekiko, «a / X» itxurako egitura eten batean.[151]

---

konbinazio posibleren batean, eta ongi kostata gehienean. Puzzle osatzaileari ere alferrezkoa zaion bezala moldea, piezak guztiak bere artean josi dituenean. Zertarako orduan aditza, moldea?

[147] Horregatik dira maiz askoz ulergarriagoak, gaur eguneko euskara idatzian, baiezkoak esaldiak baino, ezezkoak, aditz laguntzailea bederen aurreratua ohi dutenak esaldian.

[148] Agian horregatik izan du euskaldunak ere betidanik joera, dakigularik, partikula anaforikoak erabiltzeko mendeko esaldiaren hasieran (ezin nabarmenago juntagailu kausalen kasuan), aurreratuaz honen erlazio klase semantikoa esaldi nagusiarekin.

[149] Hari horretatik esplikatu beharko litzateke segurasko, zergatik ez duen mendeko esaldiak inoiz nagusiak bezainbesteko joera aditza atzeratzeko. Nahiz, esplika beharko litzatekeen ere beste nolabait, zergatik aditza askoz gutxiago aurreratzen duen mendeko esaldi jokagabeak, jokatuak baino.

[150] Erabat hautsiko lukete «Xà» fenomenorako joera, zuzenean esaldi hasieran (edo bere esaldi segmentu edo multzo fonikoaren hasieran), buruzuri, emandako aditz trinkoek, nondik segurasko, hauen urritasuna euskal usadioan (%0,85 esaldi hasten da soilik aditz trinkoz gure mostran). Aditz konposatuek, berez jada lehen mailako «Xà» egiturak, ez lukete horren absolutuki hautsiko «Xà» fenomenorako joera, eta horretatik segurasko, hauen ohizkoagotasuna.

[151] Edota inoiz ere «X / a» edo «X / … / a» moduko egitura etenetan, ikusi dugun bezala gertatzen zela, galdera hautsien kasuan, edo galdegaia eta aditzaren artean beste elementuren bat tartekatzen zuten esaldi bitxien artean.

Azken hauetan, arrunta izango da, aditzak berak bakarrik osatzea bere multzo foniko independientea inolako konplementurik gabe. Baina gertatuko da ere tarteka, hasierako aditzak irabaztea multzo fonikoko gailur tonikoa, eta berari eranstea orduan ondoretik, enklitikoki, esaldiko beste elementuren bat, nahiz esaldiko galdegaia nabarmen segi ematen, multzo foniko horren ondoretik.[152]

13. Euskararen hitz ordena librea, estilistika desberdinak.

Galdegaiak, joera nagusia badu esaldi atzealdean joateko, eta mintzagaiak aurrealdean, aditzak bezala, «Xà» egituretan emana; ez du misterio gehiegirik euskaraz maizenik aurkitzea, *(mintzagaia + aditza) fi galdegaia* itxurako egiturak, batik bat batere galdegai luzekotan. Ordea, «Xà» fenomeno beraren eraginez, ez da ere harritzekoa aurkitzea, *galdegaia + aditza* egiturak aditzaz amaitzen diren galdegai laburreko esaldietan. Esaldiaren luze-laburrak nolanahi (ezta galdegaiarenak ere), ez du erabateko determinismo mekanikorik eragiten hiztunarengan, honek derrigorrez egitura tipo bat edo beste aukera dezan bere mintzoan. Eta hiztunak ez du inolako eragozpenik, esaldi laburrenean ere, aditza zuzenean emateko esaldi hasieran,[153] edota nolanahi galdegaiaren aurretik,[154] joera nagusia bestelakoa izango bada ere.[155] Eraberean ordea, hiztunak ez du izango erabateko eragozpenik, esaldi luzeenean ere, aditza zeharo esaldi amaieran emateko,[156] edo galdegaiaren ondoretik,[157] nahiz bestelakoa izan joera nagusia.[158]

Hiztunak agi danean beti segitzen du aukera izaten, egoera pragmatiko bere batean, erabat subjetiboki hautatzeko, aipatu joera orokorren barne, ordenazio bat edo beste bere esaldiarentzako.[159] Gero, ahoz ari bada, entonazio desberdinak erabiliko ditu kasu batean edo bestean. Eta idatziz, pausa zeinu grafiko desberdinak erabili ahal ditu. Hiztun bakoitzak bere estilo propioa lortuko du, euskarazko estilo posible desberdinen artean. Arinagoa edo motelagoa, ulergarriagoa edo ulergaitzagoa, atseginagoa edo aspegarriagoa, eta horretan badu zerikusia, besteak beste, aditzaren guneak esaldian.[160] Eta euskaraz, egokia izango ez bada ere, bederen posiblea

---

[152] Hala gertatuko litzateke adibidez, J.B. Aguirreren segidakoa bezalako esaldi batean: *Cijoan beñ Jesus Galileara* (*Eracusaldiac*, II, 40 or.), non dudarik gabe den galdegai, testuinguruan, *Galileara* konplementua; eta zatituko litzatekeena, arrunki, bi multzo fonikotan (*Cijoan beñ Jesus / Galileara* moduan, «Axx / X» edo itxurako egitura batean), tonu gorakada batez markatzen bigarren multzoaren hasiera, oro har, galdegaiaren aurrean gertatu ohi den bezala. Baita ere Axularren segidakoa bezalako esaldi batean: *Dio doktor hunek ezen behin gizon saindu batek ikhusi zuela bere espirituan, ametsetan bezala, ifernuko suaren erdian eskalera bat*. (277 or.), non lehenengo multzo fonikoaren eskema, lehenengo hiru hitzak hartuaz, izan litekeen «Axx / …» itxurakoa.

[153] Konplementu bakarreko esaldi nagusien %26,8an egiten duen bezala gure mostran, edota bi konplementukoen %15,6an.

[154] Bi konplementuko esaldien %22,9an gure mostran.

[155] %73,2 esaldi aditzaz amaituz konplementu bakarreko esaldietan; %53,4a bikoetan, zeinei erantsi behar zaien, galdegaia aditzaren aurreko konplementuan luketen beste %8,0a.

[156] Esaldien %12,3an egiten duen bezala gure mostran, 5 edo konplementu gehiagokoen artean.

[157] Egiten duen bezala gure mostran esaldien %5,8an, 5 edo geh. konplementukoen artean.

[158] %14,4 esaldi hasiko lirateke zuzenean aditzaz, 5 edo konplementu gehiagoko esaldien artean; eta %67,5ak erakutsiko luke galdegaia aditzaren ondoretik, hau esaldi barrenean erakusten dutenen artean.

[159] Aita Villasantek ere maiz dioen bezala (ikus bereziki, egiten dituen oharrak, *Breves observaciones a las reglas de ordenación de Severo Altube* kapituluan, *Sintaxis de la oración simple* liburuan -1980, 255-260 orr.-, zeinen artean , esateko, segidakoa, berau adibidez hornitu aurrean (256-7 orr.): «Y aunque uno, siguiendo dichas reglas [Altuberenak] …, ordene la frase de una determinada manera, es claro que cabían otras ordenaciones tan legítimas como la adoptada.» Hala adibidez, Mitxelenak 1978an (*Miscelánea filológica vasca*, I) konparatzen dituen bi konplementu hutseko ordenazio laburrak, biak euskara onekoak: *Aita batec cituan bi seme* J.B. Aguirrerena, eta Lardizabalen *Guizon batec bi seme cituen*.

[160] Mitxelenak aitatu artikuluan dioen bezala (1978; 1987, 380 or.): «*…, me es difícil escapar a la convicción de que en Aguirre y en Lardizábal hay dos ordenaciones muy diferentes de palabras y que éstas no son más que la cara manifiesta de dos maneras distintas de contar. Así, a ojo, uno diría que la de Aguirre es más popular, más atenida al relato oral, y menos libresca.*» Hitz hauek, beste batzuk dakarzkigute gogora, Carmelo Echegaray-k mende hasieran kontrajartzen dituenean, Lardizabalen estilo hotz, hila, eta J.B. Aguirreren bihoztuna (*Apéndice a la obra 'Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa' de D. Pablo Gorosabel*, Tolosa, 1901, 22-3 orr.): «... Lardizabal, de cuyo *Testamentu zarreko eta berriko kondaira* dije en otra ocasión que atesora la que pudiéramos llamar perfección negativa del estilo, aquella que consiste en la carencia de todo defecto cuidadosamente evitado. Es un libro pulcro, terso, correcto. Dice las cosas con claridad y con los términos mas castizos y adecuados. Pero falta el juego de dicción, el calor del estilo, aquella especie de vida densa que palpita en las cláusulas de los grandes escritores, y sin la cual no se alcanzan los laureles de la inmortalidad. No basta la elegancia rebuscada y artificiosamente sostenida para subir a las cumbres del arte. La

baldin bada, aditzak erabat atzeratuaz idaztea, gaur egungo testuek erakutsi bezala; behingoz onartu beharko dugu, hori bezain euskara ona dela gutxienez, gramatikalki, J.A. Moguelena edo J.B. Aguirrerena, aditzak aurreratuta esaldian; pragmatikoki, aldiz, mila bider egokiagoak, komunikatiboagoak, arin, atsegin, ulergarri eta argiagoak direnak.

Behin, hiztunaren libertatea onartuta, derrigorrez lotu beharko da, euskarazko hitz ordenaren estudioa, estilistika desberdin posibleen estudioarekin.[161]

14. Bi gomendio labur, modu argian idazteko euskaraz ere.

Soilik bi, gure ikuspegiak laburbiltzen.

14.1. Aditzak aurreratu.

Nahi duenak noski, segitzea dauka idazten, gaur egun bezala, aditzak atzeratuaz esaldian. Irakurleak juzgatuko ditu bere testuak, guztienak bezala. Kondizio berdinetan ordea, arin, atsegin eta ulergarri izan nahi duen idazleak, nahitaez aurreratu beharko ditu bere aditzak esaldian, atzeratzen utzi gabe; gure maisu klasiko guztiek egin duten bezala; eta gaur egun oraindik ere, zorionez, denok hitzegiten dugun moduan.[162]

Joskera hauek gaitzetsi nahi izatea, gaztelaniazkoak diren fantasmaren izenean, frogagabea izateaz gain,[163] esanak esan, ez da modu bihurriago bat baino, zeharo, borrokatu nahi den gaztelania berorren mendean erortzeko. Euskara arautzeko, hitzen ordenaren eremuan ere, ezin zaio lehenik gaztelerari begiratu, gero erabakitzeko, euskarazko formak direla, bakarrik, gaztelania haren antzik ez dutenak.[164] Euskarazkoak dira, hitz ordenaren eremuan ere, euskaldunok, gaurko eta atzokoek, erabili ditugun ereduak, gure artean euskaraz komunikatzeko. Eta horietatik ikasi beharko dugu batez ere. Ez behintzat soilik, aldameneko hizkuntzetan, erabiltzen ez dituztenetatik.

Gaur egungo euskara antierderistaren ildoko testuek, neurriz gainezka nekatzen dute irakurlea (entzulea), inor ez garelako gauza, gure burmuinean behar bezala gordetzeko, esaldian aditza begibistatu bitartean emadako informazio deskonexo guztiak. Irakurri ahala, hitz guztiak ezagutu arren, ulertzen ez diren testuak. Beti bi aldiz irakurri beharrekoak. Ez dauka justifikaziorik tortura horrekin jarraitzeak, helburua argitasuna izan behar duten testu batzuetan, eta ez antierderismoa. (Ala bai?).

Gaur eguneko joskera teoria Azkue-Altubetarrak, ez du esplikatzen, esaldi laburrenen joskera baino, eta

---

palidez, que es signo de anemia en lo fisiológico, es también, en materia de estilo, revelación de empobrecimiento espiritual. Ni el tornear de la frase, ni el sabor castizo de la dicción suplen la ausencia de otras cualidades mas internas y valiosas, de cuya excelencia dependen los méritos principales del literato. No es Lardizabal escritor imaginativo y pintoresco: es prosista sobrio y sencillo, que no aspira mas que a decir las cosas con la mayor llaneza y transparencia, sin procedimientos efectistas, sin empeñarse en ardua lucha con la paleta del pintor. Es de los autores que se hacen leer con gusto, no de los que arrastran y subyugan, ni de los que provocan y encienden generosos entusiasmos. / Entre estos escritores acendrados y modestos, que no tuvieron grandes condiciones de artista, pero que supieron llegar al corazón de las gentes vascongadas, ..., merece puesto de preferencia el docto catequista D. Juan Bautista de Aguirre, ...».

[161] Ez baitira ere inola berdinak, denak aditz aurreratuko testuak izan arren, Axularren prosaren kadentzia, edo Tartasena, eta Aguirreren, Moguelen, Lizarraga Elkanokoaren edo Prai Bartolomeren prosaren arinak; ezta ere batzuk eta besteak bereganatzen dituzten efekto estilistikoak, ordenamendu batzuk edo besteak erabiliaz.

[162] Pello Esnalek eta J.R. Zubimendik azpimarratzen duten bezala (1993, 199 or.): «*Aditza aurrerago eta esaldia ulerterrazago. / Aditza atzerago eta esaldi luzea ulergaitzago. / Aditza aurrerago eta esaldi luzea samurrago.*»

[163] Postulatzeaz gain, ez baitie oraindik inork frogatu jatorri hori, ezaugarri berdinak balitzate ere. Joskera horiek gaztelaniaren eraginpekoak balira, nabarmenagoa izan zitekeen hitz ordenaren gaineko eragina, gure mostran, Mendibururen itzulpenetan, J.A. Moguel edo J.B. Aguirrerenean baino. Eta ez da hala (esateko, askoz esaldi hautsi gutxiago ematen du Mendiburuk, aditz jokatugabe bidezko mendeko esaldien artean, edota erlatibozkoetan, gure bataz bestekoak baino; eraberean, Moguelenak edo Aguirrerenak baino nahikoa bajuagoak dira, Mendibururen aditz aurreratuko esaldi nagusiak, edota mendeko jokatuak). Esan bezala, euskarak badu barne arrazoi ugari, joskera horiek berez eragiteko, inongo gazteleren beharrik gabe.

[164] Hori egin baita XX mende osoan.

gaizki, hizkera pobreenarena. Nola aplika dakieke, euskal mintzoaren gehiengo absolutua diren esaldi luzeei, soilik laburrenei balio diezaiekeen eskema? Joskera horrekin ez da posible, prosa jantzi eta ulergarria egitea. Etxea erori egingo da. Joskera horrekin hitzegingo bagenu, ez ginateke sikiera entendituko.[165] Joskera horrekin, ez ziratekeen idatziko, euskal literaturaren mendeetako lanak; ez onak, eta ez txarrak. Joskera horrekin ez da inoiz idatzi euskaraz, Azkue-Altube bitartean.[166]

14.2. Dislokazioak uxatu.

Hori baita egitura komunikatibo guztien helburu, ahalik eta gehien uxatzea, etenak, dislokazioak testuetan. Hala, esaldi bakoitzaren barrenean. Nola segidako esaldi desberdinen artean. Berez, funtzioz, edo esannahiez, elkarrekin erlazionatutako elementuen artean.[167] Hala, esaten ahal da segurasko, esaldi bat hainbat eta hobeto ulertuko dela:

• Batetik, zenbat eta laburragoa izan distantzia eta dislokazioa, esaldiaren aurretestua, eta esaldia aurretestu horrekin lotzen duten elementu (anaforiko)en artean, berez mintzagaiaren, temaren, parte izango direnak. Elementu tematiko erreferentzial hauen artean, maiz jokatzen du lotura paper nagusietako bat euskerazko aditzak, bere ezaugarri semantiko eta morfologiko aberatsei esker. Aurretestuarekiko lotura premiak bultzatzen du, esaldi bateko mintzagaia, eta berarekin jeneralean aditza ere, esaldiaren aurrealdera, eta are hasiera bertara.

• Hainbat eta hobeto eta errazago ulertuko da esaldi bat euskaraz, zenbat eta distantzia eta dislokazio txikiagoa erakusten duten beren artean, esaldi bereko segmentu desberdinek; eta batez ere beti, beren aditzarekiko (esaldiaren nukleatzaile semantiko eta morfologikoa). Premia honek bultzatuko ditu esaldiko elementu desberdinak, aditzaren ingurura, honen aurre eta atze, ahalik eta hurbilenetara (mendeko esaldietan ere).

• Azkenik, esaldi sail bat, hainbat eta hobeto eta errazago ulertuko da euskaraz, zenbat eta distantzia eta dislokazio txikiagoa erakusten duen esaldi bakoitzeko predikuak, hurrengo esaldietan prediku hori, aurretestu eta mintzagai bezala errekuperatu nahiko duten elementuen artean. Premia horrek ere, esaldi atzealdera bultzatuko du, are amaierara, esaldiko prediku nagusia, eta oso bereziki, predikuaren parte hura, zeinen gainean segi nahiko den hitzegiten, hurrengo esaldi / esaldietan.

Ez da gehiegi uste izatea, gure prosalari hoberenak setaz ahalegindu direla, dislokazio klase guzti horiek uxatzen, eta hainbat eta prosa malguagoa eta ulergarriagoa lortu dutela, zenbat eta gertuago egon diren helburu hori lortzetik. Azkue-Altubek asmatutako bi lege nagusiek aldiz (galdegaiarenak, eta mendeko esaldietakoak), ezin dislokazio haundiagoak eragiten dituzte, batere beharrik gabe, esaldi bakoitzaren barrenean, nola esaldi desberdinen artean, eta hainbat eta dislokazio ikaragarriagoak, eta testu ulertezinagoak, zenbat eta luzeagoak esaldiak, eta esaldi kateak.[168] Altubek proposatutako egiturak, beti posibleak baldin badira ere euskeraz, ezin esan da, hauek batere komenigarriak, eta gomendagarriak, zaizkionik euskarari.

15. Zenbait puntu oraindik argitzeko.

Ikusiak ikusita, badirudi kondenatuak gaudela, banan bana berrikustera, badaezpada, azken mendean euskarazko hitz ordenaren gainean eraikitako topiko gehienak. Esaldi nagusien, nola mendekoen, ingurukoak. Erlatibozko esaldien gainekoak. Euskarazko juntagailuen joera pospositibo orokorrei buruzkoak.[169] Baita, *-ko*

---

[165] Zer gertatzen den jada, idatzizko testuak entzunez jasotzen ditugunean.

[166] Nork bere eskarmentutik ongi dakien bezala ordea, testu itxurosoak lortzeko euskaraz, kondizio *sine qua non*-a izango bada ere, aditzak esaldian aurreratzea, ez dirudi, kondizio berau ere nahiko denik, bera bakarrik, testu atsegin, ulergarri eta gozoak ekoizteko.

[167] Pello Esnalek eta J.R. Zubimendik ere gomendatzen duten *zizare-euskara* edo (1993, 209-12 orr.).

[168] Horregatik sentitu dira behartuak beti, Altubetar ortodoxoenak ere, hainbateko flexibilitatea eskatzera beren legeen aplikatzean esaldi luzeetan, batere ulergarriak gertatuko badira.

[169] Beharbada euskaraz ere hitzegin genezakeelako, Marouzeauk latinerako edo Wackernagelek indoeuroparrarentzako egin bezala, euskarazko hainbat juntagailuren joeraz bigarren elementu bezala agertzeko, ondoretik josita enklitikoki (aditzaren antzeko «Xà» egitura batean), esaldiko beste elementu toniko laburren bati (hala oso bereziki *ere* konjuntzioa, baina baita ere, beste hainbat, nola, *aldiz, baizik, berriz, ezik, ordea, salbu*, eta

izenlagunen hainbateko joeraz izenaren ondoretik agertzeko; edota *-garren* ordinalen gune posibleaz izenaren ondoretik; izen arrunta / izen propioa segida ondo testigatuaz euskaraz, alderantzizko ohizkoaz gainera; edota are edutezko genitiboen agertzeaz, tarteka, izen buruaren eskuin aldean.

Fenomeno guzti hauek, kuantifikatu egin beharko genituzke, gaitzetsi baino lehenago, eta ahalik eta testuinguru zehatzenetan esplikatu eta kokatu bakoitza. Hotz hotzean, lapurtu gabe, gaur eguneko euskaldun jantziari, beste hainbat euskaldunek inoiz baliozkoak juzgatu dituzten erremientak, beren mintzoak altxatzerakoan.

---

modukoak). Guzti hauek ordea, ez dira oro har agertzen, gure tradizio literarioan, edo ahozko erabileran, bigarren elementu bezala, elementu laburren ondoretik baino, eta lotzen duten esaldi (edo esaldi zati) haren nahikoa aurrealde batean; edota are, zuzenean hasieran, «Xà» fenomenorako joera hautsiaz, batik bat, esaldi (zati) luzeen aurrean, edota hiztunak bi multzo foniko desberdinetan banatzen duenean segida. Halako juntagailuak oro har, ez dira azaltzen gure tradizioan edo ahozko erabileran, ikaragarrizko sistagma luzeen ondoretik, *juntatu* behar luketen esaldi zati luze guzti haren ondoretik, jada ezer juntatu ezin dutelarik, gaur eguneko prosa idatzian horren ohizkoa bihurtu den egitura tipo batean.

BIBLIOGRAFIA

ABBADIE, A.Th. d'; CHAHO J.A. (1836) Études grammaticales sur la langue euskarienne.
ADJÉMIAN, C. (1978) «Theme, Rheme and Word Order: From Weil to Present Day Theories». *Historiographia Linguistica* 3, 1978, 253-273.
AGIRRE, T. (1890) *A. Larramendi-ren bizitzaren berri labur bat*. Baita ere, *Euskal Erria*, 1890, XXIII, 545-561.
__, (1898) *Auñamendiko lorea*. Auñamendi, Donostia, 1966, 2 tomo.
__, (1906) *Kresala*. 5. arg., Arantzazu, 1976.
__, (1912) *Garoa*. 4. arg., Arantzazu, 1966.
__, (1916) «Euskeraren alde». *Euskal-esnalea*, 1916, 118-121.
__, (1917) «Ni ta ni», *Euskal Esnalea*, 1917.
AGUIRRE, J.B. (1803) *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldiac*. Tolosa, 1803.
__, (1808) *Eracusaldiac*. Tolosa, 1850, 3 tomo; Donostia, Hordago, 1978.
ALTUBE, S. (1911) «Euskerazko itzak», *Euskal Esnalea*, 1911, I, 58-60.
__, (1911) «Esakera pollitak», *Euskal Esnalea*, 1911, I, 90-91.
__, (1913) «Los sufijos “z”, “zaz” y sus variantes», *Euskal Esnalea*, 1913, 49-54, 100-1, 172, 354-362, 369-384.
__, (1919) *De sintaxis euskérica*. Donostia, 1920.
__, (1920) «Erderatiko-itzak, itz barrijak eta aintxiña itzak», *Euskera*, 1920, I-2, 44-54.
__, (1920) «Sarreritzaldia [Euskaltzaindian]», *Euskera*, I, 1921, 1-49.
__, (1920/21/22) «Euskerearen joskerea dala-ta», *Euskal Esnalea*, 1920, X, 40-41, 60-62, 76-77, 91-92; 1921, XI, 133, 147-148; 1922, XII, 105.
__, (1921) «Euskera gayak. «Al» noiz?» *Euskal Esnalea*, 1921, XI, 153-155.
__, (1922) «¿Ba ala bai?», *Euskera*, III (IV), 1922, 63-70.
__, (1922) «Euskel-itz barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen», *III Congreso de estudios vascos. Actas*, 1923, 78-93.
__, (1923) «De fonética vasca», *RIEV*, XIV, 1923, 517-534.
__, (1925) «Modismos euskéricos», *Euskera*, 1925, VI-4, 67-87.
__, (1928) «Yosukisto Gure Yaunaren Nekaustea (iruzkina)», *RIEV*, XIX, 1928, 653-654.
__, (1929) *Erderismos*. Euskera, 1929; Euskaltzaindia, 1975.
__, (1932) *El acento vasco en la prosa y en el verso*. Euskera 1932.
__, (1933) «Notas sobre el "Santoral Vasco" o Deun Ixendegi Euzkotarra de A-G' tar Sabin», *Euskera* 1933, XIV, 153-196.
__, (1933) «Euskaltzaindiari», *Euskera* 1933, XIV, 263-265.
__, (1934) *La vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa*. Editorial Vasca, Bilbao, 1934.
__, (1934) *Observaciones al tratado de "Morfología vasca" de Don R. M. de Azkue*. Euskera, I-II, 1934, 1-96.
__, (1946) «La unificación del euskera literario», *Eusko-Jakintza*, III, 1949, 181-204.
__, (1950-51-52) «Erderakadarik txarrenak». *Euzko Gogoa*, 1950, I, Nº 7-8, 13; Nº 9-10, 19-20; Nº 11-12, 47-49; 1951, II, Nº 11-12, 8-10; 1952, III, Nº 11-12, 7-10.
__, (1956) «Literatur-euskera. Sobre sintaxis vasca.» *Euskera*, 1956, 3-13.
__, (1957) *Laztantxu eta Betargi*. Baiona, 1957; Hordago, Donostia, 1979.
__, (1959) «Euskaltzaindiari», *Euskera*, 1959, IV, 43-56.
__, (1960) «Euskerari buruz», *Euskera*, 1960, 329-333.
AÑIBARRO, P.A. (1802) *Escu-librua*. Tolosa, 1802, Hordago 1878. (2. arg. zuzendua, Tolosa, 1821; 3. arg., Tolosa, 1827).
__, (1803) *Lora sorta espirituala*. Tolosa, 1803, *ASJU*, XXII-1, 7-92.
__, (1897) *Curutze Santearen Aita Gure ta Ave Marien ganeco eracusaldiac*. Durango, 1897.
__, (1923-33) *Axular: Gueroco guero … Bizcayco eusquerara … RIEV*, 1923, 1925, 1926, 1928, 1929, 1931, 1933.
__, (1969) *Gramática bascongada para el uso y alivio de párrocos y predicadores bizcaynos, guipuzcoanos y navarros*. ASJU, 1969, III, 3-169.
__, (1987) *Nekea arindurik*. ASJU, XX-1, 1987, 211-263.
APAOLAZA, A. (1890) *Pachico Cherren*. Bergara, 1890; Erein, 1992.
ARCHU, J.B. (1848) *Introduction à la langue euskarienne*. Eraskina, *La Fontaineren alegia berheziak*-i, Donostia, EEE, 1990, 171-228.
__, (1852) *Uskara eta Frantzes Gramatika*, Baiona, 1852; 2. arg., Baiona, 1853; 3. arg. *Bi mihiren gramatika, uskara eta francesa*, Baiona, 1868; Hordago, 1979.
AREJITA, A. (198?) «Domingo egiaren kanta». *Euskeraren Iker Atalak*, 2, 139-181.
ARIZTIA, M. (1934) «Laburditar ipuñak». *Anuario de «Eusko-Folklore»*, T. XIV, 93-129.
ARRUE, G. (1858) *Cristauaren doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Asteteren esplicacioac Santiago Mazo jaunaren liburutic*. Donostia, 1858.
__, (1863) *Cristauaren escu-liburua.* Tolosa, 1863.

__, (1866) *Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bizitza*. Tolosa, 1866.
__, (1868) *Santa Genovevaren vicitza*. Tolosa, 1868; Donostia, EEE, 1987.
__, (1878) *J.J. Moguel: Baserritar jaquintsuaren echeco escola*. Tolosa, 1878.
__, (1881) «Gurasoakin zu nola, zure umeak zurekin ala». *Leiendak (1879-1891)*, Donostia, EEE, 1990, 75-80.
__, (1882) «Aspaldi aietako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste». *Leiendak (1879-1891)*, Donostia, EEE, 1990, 81-91.
__, (1885) «Zarauzko ondekidatzea». *Leiendak (1879-1891)*, Donostia, EEE, 1990, 93-98.
__, (1885) *Bravante-co Genovevaren bicitz arrigarri miragarria*. Tolosa, 1885; 2. arg. Itxaropena, Zarautz, 1960.
__, (1948) *J.A. Moguel: Peru Abarca*. F. Arocena, «La versión guipuzcoana del *Peru Abarca* de Moguel», BSVAP, 1948, IV, 165-194, 337-353.
AXULAR, P. (1643) *Gero*. Jakin, Aranzazu, 1976.
AZKUE, R.M. (1888) «Grankanton arrantsaleak» *Euskera*, XXXIII, 1988, 379-89.
__, (1889-90) «Peru Matraka ta Pedr'anton», La Abeja, 1889-1890, I.
__, (1890) «Iolas-aldia». *La Abeja*, 1890, Urtarrila, 52-4.
__, (1891) *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*. Bilbao, 1891.
__, (1893) *Behin da betiko. Lenengo irakurgaia*. Bilbao, 1893; Donostia, EEE, 1986.
__, (♠1894) *Ensayo Práctico*. (1896ko, *Método Práctico*-aren aurreko eskuizkribu argitaragabea, Euskaltzaindiako, Azkue bibliotekan).
__, (1895) «Sermón pronunciado en la Iglesia parroquial de Santa María de Guernica». *Jangoikua eta Foruak*, Bilbo, 1896, 17-44.
__, (1896) *Método Práctico para aprender el euskera bizkaino y gipuzkoano*. Bilbao, 1896.
__, (1896) *Dotrina*. I. Pagola, «Resurrección M.ª de Azkueren Dotrina argitaragabea», ASJU, 1987, XXI-1, 163-207.
__, (1897) *Kristinauen ikasbide laburrtua*. Baiona, 1897.
__, (1897) *Manual de conversación en euskera bizkaino. Dos que aman al País Basko*. Bilbao, 1897.
__, (1897/8/9) *Euskalzale*. Bilbo.
__, (1897) «Berba egikerea», *Euskalzale*, 1897, I, 49,57, 65, 73-4.
__, (1897) «Euskerea ta euskaldunak» (Piarres Adame-ren *Eskuara eta eskualdunak* poemaren moldakuntza bizkaieraz). *Euskalzale*, I, 1897, 135.
__, (1897) *Batxi Guzur*. Euskalzale, 1897; Donostia, EEE, 1986.
__, (1901) *Jesusen Biotzaren Ila*. Bilbo, 1901.
__, (1904) «Oración sagrada» (Sermoia). In C. Echegaray, *Villafranca de Guipúzcoa, Monografía Histórica*, 453-9.
__, (1905-6) *Diccionario-Vasco-Español-Francés*. Bilbao, 1905-6 (2 vol.); La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
__, (1916) «Bizente Goikoetxea», *Euskal Esnalea*, 1916, VI, 301-7.
__, (1917) *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*. Bilbao, 1917.
__, (1918) *Ardi galdua*. Bilbao, 1918; Donostia, EEE, 1989.
__, (1920) «Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak», *Euskera*, 1920, I, Nº 2, 54-62.
__, (1921) «Sebero Altube'ri euskaltzain artu-orduan emandako ongi-etorria». *Euskera*, II, 1, 1921, 50-62.
__, (1921) «Hasparrengo batzar agirian Geo. Lacombe euskaltzainari egindako erantzumena». *Euskera*, II, 2, 1921, 57-63.
__, (1922) «Bai-aditz iribiatu-aurrean». *Euskera*, III, 3, 1922, 64-79.
__, (1922) «Txukuneria». *Euskera*, VI, 2-3, 1925, 4-21.
__, (1925) *Morfología Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, 3 tomo.
__, (1926) «Batasunera-bidean». *Euskera*, 1927, 116-140.
__, (1927) «Lamiak Euskalerrian». *Euskera*, 1927, 91-115.
__, (1928) «Lardizabal'en Testamentu Zarreco ta berrico Condaira», *Euskera*, 1928, IX, 337-349.
__, (1928) «Mendibururen adizkiak eta idaztankera». *Euskera*, 1928, IX, 124-183.
__, (1928) *Discurso leído ante la Real Academia Española*. Bilbao, Editorial Vasca, 1928.
__, (1934) «Euskalerriko oitura ta sineskeritxo bat edo beste». *V Congreso de Estudios Vascos*, San Sebastián, 1934, 92-100.
__, (1935) «Advertencias a las "Notas sobre el Santoral Vasco", publicadas en nuestra Revista, año XIV, núm. II, por nuestro caro y activo compañero Altube». *Euskera*, 1935, 121-133.
__, (1935) «Observaciones acerca de "Euskaltzaindiari" de Altube'tar S.». *Euskera*, 1935, XVI, 144-149.
__, (1935) «Evolución de la lengua vasca». *Euskera*, 1935, 57-120.
__, (1935-47) *Euskalerriaren Yakintza*. Madrid, Espasa-Calpe, 1935-1947 (4 tomo); Madrid, 1989.
__, (1949) *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*. Bilbao, 1949 (*El vascuence y varias lenguas cultas. Estudio comparativo*. Bilbao, 1949).
__, (1957) A. Irigoyen, «Del epistolario de Azkue», *Euskera*, 1957, II, 261-393.
__, (1989) *Latsibi*. Labayru, Bilbo, 1989.

AZURMENDI, J. (1977) «Orixeren frasekera: ritmoa». In *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, 1977, 325-345.
BARANDIARAN, J.M. (1921-....) *Eusko- Folklore*. In *Obras Completas*, t. II, eta t. III. (zatiak, *El Mundo en la mente Popular Vasca*, III, Auñamendi, 27, 1962.)
BARBIER, J. (1924) *Supazter chokoan*. EEE, 1987.
__, (1989) *Ixtorio-Mixterio*. Labayru, 1989.
BIBLI ELKARTE BATUAK, (1994) *Elizen arteko Biblia*. 1994.
BILBO ZAHARRA, (1993) *Eutsi 1. Irakaslearen liburua.* Bilbo, 1993.
BROWN, G.; YULE, G. (1983) *Discourse analysis*. Cambridge Univ. Press. London, 1983.
CAMPION, A. (1878) «Orreaga». *Revista Euskara*, I, 1878, 10-13.
__, (1881) «Denbora anchiñakoen ondo esanak». *Euskal Erria*, 1882, V; *Leiendak (1879-1891)*, EEE, Donostia, 123-132.
__, (1883) «Okendoren eriotza». *Euskal Erria*, 1883, IX, 517-525; *Leiendak (1879-1891)*, EEE, Donostia, 133-143.
__, (1884) *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara*. Tolosa, 1884; faksimila LGEV.
__, (1887) «Agintza». *Euskal Erria*, 1887, XVI, 29-30; *Leiendak (1879-1891)*, EEE, Donostia, 145-7.
__, (1897) «La lengua bascongada». *Euskal-Erria*, 37, 1897.
__, (1908) «La asamblea de Auza. Arturo Campion jaunak egin zuen itz-aldia». *Euskal-Esnalea*, 1908, 6, 65-73.
__, (1918) «La lengua baska». In F. Carreras Candi, *Geografía general del País Vasco-Navarro. Provincias vascongadas*, t. VI, 1918, 193-249.
CARDAVERAZ, A. (1744) *Cristavaren vicitza*. Iruñean: Anchuela, 1744.
__, (1760) *Cristavaren bicitza*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 51-149.
__, (1760) *Christauaren doctrina*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 459-478.
__, (1761) *Euscararen berri onac*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 155-170.
__, (1761) *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 173-259.
__, (1761) *Aita San Ignacioren ejercicioen gañean afectoac*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 263-361.
__, (1762) *Dotrina Cristiana edo Cristiñau Dotrinea*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 399-455.
__, (1764) *Justuen ispillu arguia*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 9-48.
__, (1764) *Jesus, Maria, ta Joseren devociño Libruchoric ataricaco devociño batzuc*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 53-96.
__, (1765) *Aita San Ignacioren egercicioen gañean, …, laugarren partea*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, I, 365-395.
__, (1766) *Jesus, Maria, ta Joseren devocioa*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 101-219.
__, (1766) *Senar emazte santuac*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 223-260.
__, (1782) *Meza eta Comunioa*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 265-318.
__, (1882) *Ama V. Josefaren vicitza*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 265-318.
__, (1901) *Azpeitico erri chitez noblearen gloria paregabeac edo Aita San Ignacioren bicitza laburra*. In *Euskal lan guziak*, LGEV, 1973/4, II, 395-443.
CERQUAND, J.F. (1874-1885) «Légendes et récits populaires du Pays Basque». *Bulletin de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 1874-5, 1875-6, 1876-7, 1884-5. Orain euskaraz soilik, *Ipar Euskal herriko legenda eta ipuinak*, Txertoa, Donostia, 1985-6, 2 tomo.
CHEVALIER, J.C. (1968) *Histoire de la syntaxe. La naissance de la notion de complément dans la grammaire française (1530-1570)*. Genève-Paris, 1968.
DANES, F. (1960) «Sentence intonation from a Functional Point of View». *Word*, 1960, 16, 34-54.
__, (1964) «A Three Level Approach to Syntax». *Travaux Linguistiques de Prague*, I, 225-240.
__, (1966) «The Relation of Centre and Periphery as a Language Universal». *Travaux Linguistiques de Prague*, II, 9-22.
__, (1967) «Order of Elements and Sentence Intonation.» In *To Honor Roman Jacobson*, 1967, The Hague, Mouton, 499-512.
__, (1970) «One Instance of Prague School Methodology: Functional Analysis of Utterance and Text», in *Method and Theory in Linguistics*, ed. by P.L. Garvin, The Hague, Mouton, 1970.
__, (1974) (ed.) *Papers on Functional Sentence Perspective*. Academia, Publish. House of the Czechoslovak Academy of Sciences, Prague, 1974 (& Mouton, The Hague-Paris).
__, (1974) «Functional Sentence Perspective an the Organization of the Text», In F. Danes (ed.), *Papers on FSP*, 106-128.
DARRIGOL, (1827) *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*. Baiona, 1827.
DARTHAYET, J.P. (1861) *Guide ou manuel de la conversation et du style épistolaire français-basque*. Bayonne-Biarritz, 1861 (2. arg. zuzendu eta gehitua, Baiona, 1876).
__, (1867) *Le mécanisme de la construction du verbe basque en dialects du Labourd et des pays limitrophes*. Bayonne, 1867.
DEZSÖ, L. (1982) *Studies in Syntactic Typology and Contrastive Grammar*. Mouton, Bupapest, 1982.
DIJK, T.A. van. (1977) *Texto y contexto (Semántica y pragmática del discurso)*. Catedra, 1980.
__, (1978) *La ciencia del texto. Un enfoque interdisciplinario*. Paidós Comunicación. 1983.

__, (19) *Estructuras y funciones del discurso*. S. XXI.
__, (1981) *Studies in the pragmatics of discourse*. Mouton.
__, (1985) (ed.) Handbook of Discourse Analysis. 4 vol. (I: Disciplines of Discourse; II: Dimensions of Discourse; III: Discourse and Dialogue; IV: Discourse and Analysis in Society). Academic Press, 1985.
__, (1985) «Discorse Analysis as a New Cross-Discipline». In *Handbook of Discourse Analysis*, vol 1, 1-10.
__, (1985) «Levels and Dimensions of Discourse Analysis». In *Handbook of Discourse Analysis*, vol 2, 1-11.
__, (1985) «Dialogue as Discourse Interaction». In *Handbook of Discourse Analysis*, vol 3, 1-11.
__, (1985) «The Role of Discourse Analysis in Society». In *Handbook of Discourse Analysis*, vol 4, 1-8.
DIJK, T.A. van & W. KINSTCH, (1983) *Strategies of Discourse Comprehension*. Academic Press.
DIK, S.C. (1978) *Functional Grammar*. North-Holland Publish. Comp., Amsterdam, 1978.
__, (1978) «Word Order in a Functional Grammar». In: *Proceedings of the XIIth International Congress of Linguistics*, W.E. Dressler & W. Meid (eds.), Innsbruck, 1978, 349-351.
__, (1979) «Seventeen Sentences: Basic Principles and Application of Functional Grammar». In *Syntax and Semantics*, 13, 1980, *Current Approaches to Syntax*, 45-75, Academic Press.
__, (1980) *Studies in Functional Grammar*. New York Academic Press.
__, (1981) «Predication and Expression: the Problem and the Theoretical Framework», in A. Machtelt Bolkestein (et al.) (ed.), *Predication and Expression in Functional Grammar*, 1981, Academic Press, 1-17.
__, (1981) «Discrepancies between Predication and Expression in Natural Languages», in A. Machtelt Bolkestein (et al.) (ed.), *Predication and Expression in Functional Grammar*, 1981, Academic Press, 21-39.
__, (1983) *Advances in Functional Grammar*. Foris Publications, Dosdrecht, Holland.
DIK, S.C. (et al.), (1981) «On the Typology of Focus Phenomena». In T. Hoekstra (et al.) (eds.) *Perspectives on Functional Grammar*, Dordrecht: Foris.
DUVOISIN, J.P. (♠1833) *Telemake. Ulisen semearen gertakuntzak*. Elkar, Donostia, 1988.
__, (1856) *Liburu ederra*. Baiona, 1856; Hordago, Donostia, 1978; EEE, Donostia, 1987.
__, (1857) *Dialogues basques (labourdins)*. Londres, 1857; Hordago, Donostia, 1978; EEE, Donostia, 1987, A. Iturriaga, *Jolasak*.
__, (1858) *Laborantzako liburua*. EEE, Donostia, 1986.
__, (1859-1865) *Bible saindua*. Londres.
__, (1884-5) *Baigorriko zazpi liliak*. Elkar, Donostia, 1987.
__, (1928/29/30/31) J.B. Daranatz, «Correspondence du Capitaine Duvoisin», RIEV, 1928/29/30/31.
ECHEGARAY, C. (1901) *Apéndice á la obra "Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa" de D. Pablo de Gorosábel*. T. VI, Tolosa, 1901.
EGIATEGI, J. (1785) *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.
ETCHEPARE, J. (1910) *Buruchkak*. Elkar, 1980; EEE 1992.
__, (1931) *Beribilez*. EEE, 1987.
ETXANIZ, N. (1958) *Euskal-Antzertiak.* Kuliska Sorta 27-8, Itxaropena, Zarautz, 1958.
ETXEBARRIA, J.M. (1991) *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Ibaizabal, Deustu, 1991.
EUSKALERRIA IRRATIA, (1990) *Nafarroako euskaldunen mintzoak.* I. Nafarroako Gobernua, 1990.
__, (1993) *Nafarroako euskaldunen mintzoak.* II. Nafarroako Gobernua, 1993.
EUSKALTZAINDIA, (1987) «Hitz ordena». *Euskal Gramatika lehen urratsak - 1 (Eraskina)*, 19-46.
EYS van, W.J. (1865) *Essai de grammaire de la langue basque* Amsterdam, 1865 (2. arg. zuzendu eta gehitua, 1867).
__, (1879) *Grammaire comparée des dialectes basques*. Paris, 1879.
FEUILLARD, C. (1984) «La Syntaxe Fonctionnelle». *La Linguistique,* 21, 185-206.
FEUILLET, J. (1987) «L'organisation des trois points de vue». *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 82, 1, 1-41.
FIRBAS, J. (1964) «From Comparative Word-Order Studies». *Brno Studies in English*, 4, 111-128.
__, (1966) «On Defining the Theme in Functional Sentence Analysis». In *Traveuax Linguistiques de Prague* I, 267-280.
__, (1966) «Non-Thematic Subjects in Contemporary English». In *Traveaux Linguistique de Prague* II, 239-256.
__, (1971) «On the Concept of Communicative Dynamism in the Theory of Functional Sentence Perspective». In *Sbornik Praci Filosoficke Fakulty Brnenske University*, A-19, 135-144.
__, (1974) «Some Aspects of the Czechoslovak Approach to Problems of Functional Sentence Perspective», In *Papers on FSP*, F. Danes (ed.), 1974, 11-37.
GÈZE, L. (1873) *Éléments de grammaire basque*. Bayonne, 1875; Hordago, Donostia, 1979.
GIVON, T. (1971) «Historical Syntax and Synchronic Morphology: An Archaeologist's Field Trip». In *Papers from the Seventh Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society*.

__, (1978) «Definiteness and Referentiality». In J.H. Greenberg (ed.), *Universals of Human Language*, IV, 291-330.
__, (1979) «From Discourse to Syntax: Grammar as a Processing Strategy». In *Syntax and Semantics*, 12, *Discourse and Syntax*, Academic Press, 1979, 81-112.
__, (1979) *On Understanding Grammar*. Academic Press.
__, (1979) (ed.), *Syntax and semantics*, 12, *Discourse and Syntax*. Academic Press.
__, (1980) «The Binding Hierarchy and the Typology of Complements», in *Studies in Language*, 4, 3, 333-377.
GREENBERG, J.H. (1963) «Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements». In: J.H. Greenberg (ed.), *Universals of Language*, 58-90, Cambridge (Mass), MIT Press. (2nd. ed., 1966, 73-113; baita ere italieraz, in *La tipologia linguistica*, P. Ramat (ed.), 115-154).
GUERRICO, J.I. (1805) *Cristau doctriña guztiaren explicacioaren sayaquera*. Tolosa, 1858, 2 tomo.
HAGÈGE, C. (1978) «Du théme au théme en passant par le sujet. Pour une théorie cyclique». *La Linguistique*, 14-2, 1978, 3-38.
__, (1978) «Intonation, fonctions syntaxiques, chaîne-systeme, et universaux des langues», in *BSLP*, XXIII, 1978, 1-48.
__, (1985) *L'homme de paroles. Contribution linguistique aux sciences humaines*. Fayard, 1985, Folio Essais. 2e. éd. 1986.
HAIMAN, J. (1974) *Targets and Syntactic Change*. Mouton, The Hague-Paris, 1974.
HARRIET, M. (1741) *Gramatica escuaraz eta francesez*. Baiona, 1741.
HAWKINS, J.A. *Word Order Universals*, Academic Press, 1983.
HIDALGO, V. (1991) *Altuberen azterketan*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesirako prestatua).
__, (1993) *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikalarien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*. (Lan argitaragabea, doktoretza tesrako prestatua).
__, (1994) «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean.» (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa.)
__, (1994) «Euskararen hitz ordena librea.» (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa.)
__, (1994) «Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran.» (*Zutabe* aldizkarian argitaratzekoa.)
HOEKSTRA, T. (et al.) (eds.), (1981) *Perspectives on Functional Grammar*. Dordrecht: Foris.
INCHAUSPE, E.T. (1852) *Uscaldunaren laguna, edo escuco libria*. Baiona, 1852.
__, (1856) *Le Saint Evangile de Jésus-Christ selon Saint Mathieu*. Bayonne, 1856. Euskaltzaindiak berrargitaratua 1991n, Bonaparteren lan guztien artean.
__, (1856) «Notes grammaticales». Gehigarria, *Sen Mathiuren Ebanjelioa*-ri, I-XLVI. Euskaltzaindiak berrargitaratua 1991n, Bonaparteren lan guztien artean.
__, (1857) *Dialogues basques (souletins)*. Londres, 1857; Hordago, Donostia, 1978; EEE, Donostia, 1987, A. Iturriaga, *Jolasak*.
__, (1858) *L'Apocalypse de l' apôtre Saint Jean*. Londres, 1858. Euskaltzaindiak berrargitaratua 1991n, Bonaparteren lan guztien artean.
__, (1858) *Le verbe basque*. Bayonne, 1858; Hordago, Donostia, 1979.
__, (1864) *Axular, Gueroco guero, edicione berria, garbitua, chuchendua eta bere baithaco ordenan emana*. Bayona, 1864.
__, (1866) *Uscaldunaren guthunac*. Baiona, 1866 (*n*-garren edizioa, 1912).
__, (1894) *Maria Birjinaren hilabetia*. Pau, 1894.
__, (1894) *Le peuple basque, sa langue, son origine, ses traditions, ses caractères anthropologiques*. Pau, 1894.
__, (1957) A. Irigoien «Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Euskera*, 1957, II, 171-260.
__, (1990) E. Knörr, «La traducción suletina de la bula *Ineffabilis* por Intxauspe». *Memoriæ L. Mitxelena*, ASJU, 1990, 459-483.
ITHURRY, J. (1895-....) *Grammaire basque. Dialecte labourdin*. Bayonne, 1895
KUNO, S. (1972) «Functional Sentence Perspective. A Case Study from Japanese and English». In *Linguistic Inquiry* 3, 3, 269-320.
__, (1976) «Three Perspectives in the Functional Approach to Syntax». In *Papers from the Parasession on Functionalism*, 1975, Chicago Linguistic Society, 276-336 (baita ere agi danean, in *Sound and Meaning*, L. Matejka (ed.), University of Michigan Press, 119-190).
__, (1976) «Subject, Theme and the Speakers Empathy. A Reexamination of Relativization Phenomena». In *Subject and Topic*, 1976, Ch. Li (ed.), 417-444.
__, (1978) «Japanese a Characteristic OV Language». In *Syntactic Typology*. W.P. Lehmann (ed.), 57-138.
__, (1979) «On the Interaction between Syntactic Rules and Discourse Principles». In G. Bedell (et al.) (eds.), *Explorations in Linguistics: Papers in Honor of Kazuko Inoul*, Tokyo: Kenkyusha Publ. Co., 279-304.
__, (1980) «Functional Syntax». In *Current Approaches to Syntax*, *Syntax and Semantics* 13, New York

Academic Press, 117-135.
LAFITTE. P. (1932) «Les études basques à travers les siècles». *Gure Herria*, 1932, 139-152.
__, (1941) *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona, 1942.
__, (1944) *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Baiona, 1944 (2. arg. Bordeaux, 1962; Elkar, Donostia, 1979).
__, (1945) *Murtuts eta bertze*. Baiona, 1945 (Elkar, 1982).
__, (1947) «La langue basque». *Eusko Jakintza*, I, 11-20.
__, (1949) «Ressemblances linguistiques». *Homenaje a Julio Urquijo*, I, 213-6.
__, (1956) «L'état actuel des études basques et leur avenir». *Gure Herria*, 1956, 371-384.
__, (1958) «Biblea Eskual-Herrian». *Euzko Gogoa*, 1958, 495-501.
__, (1965) «Les principales versions basques du Pater en Labourd, basse-navarre et Soule du XVe. siècle à nos jours». *Gure Herria*, 1965, 322-7.
__, (1990) *Euskal literaturaz*. EEE, Donostia, 1990.
LAKARRA, J. (1984) (ed.) «Bertso bizkaitarrak». ASJU, XVIII, 1984, 89-197.
LARDIZABAL, F.I. (1855) *San Roque zorioneco izurrite edo pestearen contraco bitarteco ahaltsuaren bederatziurrena*. Tolosa, 1855.
__, (1855) *Testamentu zarreco eta berrico condaira*. Tolosa, 1855.
__, (1856) *Gramatica vascongada*. San Sebastián, 1856.
LARRAMENDI, M. (1728) *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España*. Salamanca, 1728 (Ed. vascas, 1978).
__, (1979) *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca, 1729 (Hordago, Donostia, 1979).
__, (1745) *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia, 1745 (Txertoa, 1984).
__, (1882) *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. Barcelona, 1882; Donostia, SGEP, 1969.
__, (1967) «Diccionario Vasco-castellano». *Euskera*, XII, 1967, 139-300.
__, (1973) *Autobiografía y otros escritos*. Donostia, SGEP, 1973.
__, (1983) *Sobre los fueros de Guipúzcoa*. Donostia, SGEP, 1983.
__, (1990) *Escritos breves*. Donostia, SGEP, 1990.
__, (1990) *Euskal textuak*. Donostia, 1990.
LÉCLUSE, F. (1826) *Grammaire basque*. ASJU, 1987, 813-916.
LEHMANN, W.P. (1973) «A Structural Principle of Language and its implications». *Language* 49, 47-66.
__, (1975) «A Discussion of Compound and Word Order». In *Word Order and Word Order Change*, Ch. Li (ed.), Austin, University of Texas Press, 149-162.
__, (1976) «From Topic to Subject in Indo-European». In *Subject and Topic* (1976), Ch. Li. (ed.), 445-456.
__, (1978) (ed.) *Syntactic Tipology. Studies in the Phenomenology of Language*. The Warvester Press, Sussex, University of Texas Press.
__, (1978) «The Great Underlying Ground-Plans». In W.P. Lehmann (ed.), *Syntactic Tipology. Studies in the Phenomenology of Language*. 3-55.
__, (1978) «Toward an Understanding of the Profound Unity Underlying Languages». In W.P. Lehmann (ed.), *Syntactic Tipology. Studies in the Phenomenology of Language*. 395-432.
LEIZAOLA, F. (koordin.), (1983) *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa -EAEL-. Lehen atala. Lehen zatia*. Aranzadi Zientzia Elkartea, Etnologia Mintegia, Donostia, 1983.
LEKUONA, M. (1918) *Métrica vasca*. Vitoria, 1918 (*Idaz-lan guztiak. 1. Aozko literatura*, 1978, 131-157).
__, (1965) *Bi antzerki ta itzaldi bat*. Zarautz, Itxaropena, 1965.
__, (1967) «"Au da nere gorputza" ala "Au nere gorputza da"». *Jaunaren Deya (Lazkaoko beneditarren aldizkaria)*, 20, 1967, 139-140.
__, (1972) «"Euskeraren berri onak" irakurtzen». *Kardaberaz aitari omenaldia*, Kardaberaz Bazkuna, Kardaberaz bilduma 1, 81-95.
LERTXUNDI, A. (1990) *Karla*. Erein, 1990.
LI, Ch. (ed.), (1975) *Word Order and Word Order Change*. Austin, University of Texas Press, 1975.
__, (1976) *Subject and Topic*. New York Academic Press, 1976.
__, (1977) *Mechanisms of Syntactic Change*. Univ. of Texas Press, Austin-London, 1977.
LHANDE, P. (1914) «Uskaldün güdükarientako güthünak». *Euskal-Esnalea*, 1914, 243-4.
__, (1915) «Gure orma zarra», *Euskal-Esnalea*, 1915, 232-6, 243-5.
__, (1920) «Argitartzaillearen Itzaurrea». *Euskera*, I, 1920, 4-9.
__, (1920) «Agirre, irakurgaikiña». *Itzaldiak*, Euskal Esnalea, 1923, 97-121.
__, (1921) «Eskuara eta "eskualzainak"». *Gure Herria*, 1921, 152-4.
__, (1921) *Yolanda*. Donostia, 1921 (jatorrizko frantzesezkoa, Paris, 1921).
__, (1926-38) *Dictionnaire basque-français*. Paris, 1926-1938.
MAROUZEAU, J. (1922, 1938, 1949) *L'ordre des mots dans la phrase latine: I Les groupes nominaux; II Le verbe; III Les articulations de l'énoncé)*. Paris, 1922, 1938, 1949.

__, (1937) «Sur la place du verbe dans la phrase», in *Mélanges Desrousseaux*, Paris, Hachette, 1937, 302-309.
__, (1950) *Précis de stylistique française*. 3e. ed. rev. et aug., Paris, 1950.
__, (1953) *L'ordre des mots en latin*, Paris, 1953.
MENDIBURU, S. (1747) *Jesusen Bihotzaren Devocioa*.
__, (1760) *Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitz-gai*.
__, (1982) *Mendibururen idazlan argitaragabeak*. P. Altunaren edizio kritikoa, Euskaltzaindia, 1982, 2 tomo.
MICOLETA, R. (1653) *Modo breve para aprender la lengua vizcayna*. Barcelona, 1880; Sevilla, 1897.
MITXELENA, L. (1953) *Arnaut Oihenart*. BRSVAP, 1953, 445-463 (bereziki, 459-462 orr). (Orain in *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak -MEIG-*).
__, (1954) (ed.), «Viva Jesus», BAP X, 1954.
__, (1960) *Historia de la literatura vasca*. Madrid, 1960.
__, (1968) «Plan base o proyecto general sobre unificación. Euskera - Batasuna». *Euskera*, XIII, 1968, 203-219 (bereziki, *Joskera* atala, 218-9 orr.) (Orain in *MEIG*).
__, (1977) «Euskal hizkera eta euskal neurkera». *Euskera*, XXII, 1977, 721-733 (bereziki, *Ate osteko eraskin gisa* atala, 729-33 orr.). (Orain in *MEIG*).
__, (1978) «Miscelánea filológica vasca I». *FLV*, 1978, 205-228 (bereziki, *Relato y orden de palabras* atala, 220-224 orr.). (Baita ere, in *Palabras y textos*, EHU, 1987, 363-385).
__, (1979) «Miscelánea filológica vasca III». *FLV*, 1979, XI, 213-236 (bereziki, *Arratsaldea zen alakoa* atala, 226-230 orr.). (Baita ere in *Palabras y textos*, EHU, 1987, 411-433).
__, (1981) «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz». *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. Univ. de Deusto, 1981, 57-8 (baita ere in *MEIG*).
__, (1987- …) *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo, Euskaltzaindia.
MOGUEL, J.A. (1800) *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac*. Iruñea, 1800.
__, (1802) *Versiones bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores autores latinos*. Tolosa, 1802.
__, (1802) *Peru Abarca*. Durango, 1881; faksimila, 1981.
__, (1803) *Confesiño ona*. 2. arg., Bilbo, 1853.
__, (1899) «Paskal-en gogamenak», *Euskalzale*, 1899.
__, (1964) «Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel», *BAP*, 1964, 61-73.
__, (1987) *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiania*. Euskaltzaindia, 1987.
__, (1990) «Juan Antonio Mogelen sermoiak». A. Arejitaren edizioa, *Memoriæ L. Mitxelena*, ASJU, 1990, 277-300.
__, (1991) «J.A. Mogelen hasierako idazkera: hiru platika eta 1783ko dotrina». X. Altzibarren ed., *ASJU*, 1991, 623-649.
NAVARRO TOMÁS, T. (1923) «Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica.» Eusko Ikaskuntza, *III Congreso de Estudios Vascos*, San Sebastian, 1923, 49, 56.
__, (1925) «Pronunciación Guipuzcoana. Contribución al estudio de la Fonética Vasca.» *Homenaje a Menéndez Pidal*, T. III, 1925, Madrid, 593-653.
__, (1939) «El grupo fónico como unidad melódica». *Revista de Filología Hispanica*, I, 1, 1939, 3-19.
__, (1944) *Manual de entonación española*. New York, 1944. 4ª ed., Guadarrama, Madrid, 1974.
__, (19....) *Manual de pronunciación española*. 25 ed., CSIC, 1991, Madrid
OLAECHEA, B. (1763) *Dotrina Cristianea*, Vitoria 1763. (2. arg. zuzendua, Bilbo, 1775).
ORMAECHEA, N. (Orixe), (1918) «Acento vasco». RIEV, IX, 1918, 1-15.
__, (1926) «La pronunciación guipuzcoana del Sr. Navarro Tomás». RIEV, XVII, 1926, 260-268.
__, (1927) «Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra», *Euskal Esnalea*, 1927.
__, (1929) *Santa Cruz apaiza*. Donostia, 1929; Erein, Donostia, 1985.
__, (1929) *Tormes'ko itsu-mutilla*. Bilbao, 1929.
__, (1930) *Mistral'en Mireio euskeraz*. Bilbao, 1930; Donostia, EEE, 1990.
__, (1933) «El acento vasco». *Euskera*, 1933, XIV, 266-275.
__, (1950-4) *Quito'n arrebarekin*. In *Euzko Gogoa*, 1950-1954; Donostia, EEE, 1987.
__, (1971) *Jainkoaren bila*. Bilbao, 1971.
ORMAECHEA, N; OYARZABAL, M. (1963) *El lenguaje vasco*. Donostia, 1963, 2 tomo.
OSA, E. (1988) *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arabera*. EHU, 1990.
__, (1989) «"Euskarararen hitzordena zeregin komunikatiboaren arabera" tesiaren aurkezpen gisan». *Tantak*, 1, EHUko Hezkuntz Aldizkaria. 1989ko Maiatza, 13-32.
__, (1989) «Izen osagarridunetan, izenaren topikalizazioa». *Tantak*, 2, 1989, 59-73.
__, (1990) «Tonu-multzoak gramatikan». *Euskera*, XXXV, 1990-1, 151-161.
__, (1990) «Semantikaz bat, pragmatikaz hainbat». *Memoriæ L. Mitxelena*, ASJU, 1990, 1311-1316.
PAGOLA, R.M. (1984) *Euskalkiz euskalki*, Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritza, 1984.
PALKOVA, Z.; PALEK, B. (1978) *Functional Sentence Perspective and Textlinguistics*. Dressler.
RICKEN, U. (19)«L'ordre naturel du français. Naissance d'une theorie». In *La Gramaire Generale. Des modistes aux ideologues*, H. Aarsleff (et al.) (eds.), PUL, Lille III, 201-216.

__, (1985) *Grammaire et philosophie au siècle des lumières. Controverses sur l'ordre naturel et la clarté du français*. PUL, Lille III, 1985.
RIJK, R.P.G. de, (1969) «Is basque an SOV language?». *FLV*, 3, 1969, 319-351.
__, (1972) «Relative clauses in Basque; a Guided Tour». *The Chicago Wich Hunt*, Peranteau, Levi, Pharas (eds.), CLS, Chicago, 1972, 115-135.
__, (1972) *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses. Thesis*. MIT, Cambridge, Ma., *The Chicago Wich Hunt, Papers from the Relative Clause Festival*, Chicago Linguistic Society.
__, (1978) «Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of the Verb Phrase in Basque». *Studies on Fronting*, Frank Jansen (ed.), Lisse/ The Peter de Ridder Press, 1978, 81-112.
__, (1979) «Erlatiboak idazle zaharrengan». *Euskera*, XXV, 525-536.
__, (1987) «Basque Syntax and Universal Grammar». In II EMB, 1987.
__, (1988) «Euskal hizkuntza eta bere tipologia». *Enseiucarrean*, 4, Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura mintegia, 1988ko negua, 13-32.
SARASOLA I. (1983) (ed.) «Fray Juan de Zumarragaren Gutuna». *ASJU*, XVII, 1983, 97-102.
__, (1984- …) *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*. Donostia.
SCAGLIONE, A. (1972) *The Classical Theory of Composition. From its Origins to the Present. A Historical Survey*, Chapel Hill, The Univ. of North Carolina Press, 1972.
TARTAS, J. (1666) *Onsa hilceco bidia*. Orthez, 1666 (RIEV, I, II, III).
TELLECHEA J.I. (1968) «Larramendi y Cardaveraz». *ASJU*, 2, 1968, 5-31.
TESNIÈRE, L. (1966) *Éléments de Syntaxe Structurale*. 2e. éd. rev. et cor., Klincksiek, Paris, 1969.
URGELL, B.(1985) *Refranes y sentencias-eko hitz ordenaz, zenbait ohar*. 1985, eskuizkribua.
URQUIJO, J. (1911-1933) *Los refranes y sentencias de 1596. Estudio comparativo*. RIEV, 1911-1933; Auñamendi, Donostia, 1967, 2 tomo.
URRUZUNO, P.M. (1988) *Ipuinak*. EEE, Donostia, 1988.
URTE, P. (1712) *Grammaire Cantabrique basque*. Bagnères-de-Bigorre, 1900.
__, (1712) *Biblia Saindua*. Oxford, 1894 [*Anecdota Oxoniensia. The earliest translation of the Old Testament into the basque language (a fragment)*].
VENNEMAN, T. (197) «Explanation in Syntax». In *Syntax and Semantics* 2, Academic Press, 1-50.
__, (1974) «Theoretical Word Order Studies: Results and Problems». In *Papiere zur Linguistik* 7, 5-25.
__, (1974) «Topics, Subjects and Word Order: From SXV to SVX via TVX.» In J.M. Anderson & C. Jones (eds.), 1974, *Historical Linguistics* 1, Amsterdam, North Holland.
VILLASANTE, L. (1956) «Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca. - Estudios de sintaxis vasca». *Euskera*, 1956, 14-18.
__, (1966) «(Hitzaurrea)». In Txomin Agirre, *Garoa*, EFA (berrarg.), 3-16.
__, (1970) «Sintaxis». In *Hacia la Lengua Literaria Común*. EFA, Serie Eleizalde (2. arg.), 89-93.
__, (1974) «Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean». *FLV*, 1974, 325-342.
__, (1975) «Hitzaurre gisa». In S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia (berrarg.), V-XII.
__, (1976) *Sintaxis de la oración compuesta*. EFA. Serie Eleizalde (bereziki, «Orden entre la oración principal y la subordinada», eta «Orden de colocación entre las subordinadas de un mismo período» atalak, 58-60).
__, (1979) *Historia de la literatura vasca* (2. arg.). Aranzazu. (Autore desberdinen azalpenetan barreiatutako iruzkinak, bereziki Azkue, Altube eta XX mende honetako hegoaldekoen artean).
__, (1980) *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde (bereziki, «Ordenación de los elementos en la frase vasca», 227-260).
__, (1982) «Sarrera». In Lapeyre, *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*, Euskaltzaindia (berrarg.), 5-27.
__, (1988) «Hitzaurrea». In Azkue, R.M. *Latsibi*, Labayru (berrarg.), IX-XIV.
__, (1988) «Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra». In *Euskararen auziaz*, EFA, Serie Eleizalde, 141-154.
__, (1989) «Aita Ubillos-en “Christau doctriñ berri-ecarlea”». *Euskera*, XXXIV, 1989, 517-531.
WACKERNAGEL, J. (1892) «Ueber ein Gesetz der indogermanischen Wortstellung», in *Indo-german. Forschungen*, I, 333-436 (edo 406-436).
WEIL, H. (1844) *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux langues modernes*. 3é. ed., Paris, 1879.
WEBSTER, W. (1993) *Euskal ipuinak*. EEE, Donostia, 1993, 2 tomo.
ZUBIMENDI J.R.; ESNAL, P.(1993) «Joskera». In *Idazkera-liburua*, Eusko-Jaurlaritza, 1993, 133-235.